Medio plazo **PLAN DE MANDATO**	• También denominado Plan de Legislatura. • Recoge los **objetivos que se plantea el Gobierno Local para el periodo de tiempo en que ha resultado elegido.** Su marco temporal son los **cuatro años que dura su mandato**. • Es el Plan del Gobierno Local y es él quien lo aprueba, aunque resultará **mucho más rico, si contempla procesos de participación** con el tejido socioeconómico sobre el terreno.
Corto plazo **PLAN DE GESTIÓN**	• Recoge el **conjunto de acciones previstas para el año**, vinculándose con el **Plan de Mandato** y especificando el **presupuesto asignado** a cada hito o acción.



Guía Local - ISBN 978-84-7777-690-1

Epe luzea **HIRIETARAKO PLANA**	• Udalerriaren **etorkizunerako helburuak** biltzen ditu. • **Iraunaldi luzeagoa** du, **agintaldi bat baino luzeagokoa**. **Udal-eskumeneko eremuak gainditzen dituen alderdiak** hartzen ditu eraginpean. • **Udalbatza osoaren edo, gutxienez, gehiengo handi baten plana** da. • **Parte-hartzearen bitartez egiten da**, eta udalerriko gizarte-eragile guztiak biltzea du xede. • **Kudeaketarako organo espezifikoak** izaten ditu.
Epe ertaina **AGINTALDIKO PLANA**	• Legealdiko Plana ere deiturikoa. • **Tokiko gobernuak hautatua izan den aldirako proposatutako helburuak** biltzen ditu. **Agintaldiak irauten duen lau urteetan** ezartzen da. • Tokiko Gobernuaren Plana da, eta tokiko gobernuak onartzen du, baina **askoz ere aberatsagoa** izango da, lekuan bertan sare sozioekonomikoarekin egindako **parte-hartze prozesuak baldin baditu**.
Epe laburra **KUDEAKETA-PLANA**	• **Urtean egitekoak diren ekintzen multzoa** biltzen du, **Agintaldiko Planarekin lotuta** dago eta mugarri edo ekintza bakoitzari **esleitutako aurrekontua** zehazten du.



La **PLANIFICACIÓN DE LA ACCIÓN MUNICIPAL,** para ser **EFICAZ**, ha de **BASARSE EN INFORMACIÓN SIGNIFICATIVA** que se puede articular en **CINCO TIPOS**:


PROGRAMAS ELECTORALES	• Otorgan legitimidad a la acción de gobierno y su cumplimiento aumenta los niveles de confianza de la ciudadanía respecto de las instituciones, aumentando el valor democrático de las mismas.
DISEÑANDO EL MUNICIPIO DEL FUTURO	• El punto de partida será el **conjunto de indicadores que muestran la realidad social, económica, medio ambiental... del municipio y su evolución a lo largo de los años**. Esta información permite identificar las principales tendencias del municipio, aportando un conocimiento clave del entorno en el que va a situarse la acción municipal. • **Objetivo**: Construir entornos vivibles, viables y equitativos. Este triple objetivo hace referencia a las tres necesidades inseparables de la vida: ecológica, económica y social. Están intrínsecamente relacionados con los Objetivos de Desarrollo Sostenible en sus tres dimensiones: a. Dimensión Ambiental: ODS 1, 6, 7, 11, 12, 13 y 15. b. Dimensión Económica: ODS 8 y 9. c. Dimensión Social: ODS 1, 2, 3, 4, 5 y 10.
VOZ DE LA CIUDADANÍA Y DE LOS AGENTES SOCIO-ECONÓMICOS LOCALES	• Incluye **toda la información proveniente de diversas metodologías** orientadas a conocer la **opinión**, **necesidades**, **expectativas** de la sociedad civil individual y colectiva del municipio: → Estudios de opinión y/o satisfacción con la gestión y los servicios municipales. → Avisos, quejas y sugerencias presentadas. → Noticias y cartas aparecidas en los medios de comunicación. → Conclusiones de foros, encuentros y otro tipo de contactos formales o informales con la ciudadanía. → Procesos de participación ciudadana, consultas, espacios de reflexión abiertos...
INDICADORES DE RENDIMIENTO DE LA ORGANIZACIÓN MUNICIPAL	• Son los **datos relativos a la propia actividad de la organización**. • **Muestran**, por ejemplo: → La evolución del presupuesto y su grado de ejecución. → El total de personas que utilizan o son atendidas en los diferentes servicios. → El volumen de actividad realizada en diversos ámbitos. → El tiempo medio requerido para llevar a término diversos trámites. • Una buena práctica es elevar informes de gestión periódicos a los distintos órganos de gobierno, de tal forma que estos cuenten con información cualificada en el ejercicio de sus funciones. Publicarlos en abierto resulta un ejercicio de transparencia y es muestra del nivel de compromiso de la institución con los parámetros del buen gobierno. • Su determinación puede relacionarse con los propios objetivos estratégicos de la organización. (*Ver GESTIÓN ORIENTADA A RESULTADOS Y CUADROS DE MANDO, Ficha **1.3.2.2** de esta Guía).*
RECURSOS	La suficiencia financiera, el equilibrio presupuestario y la sostenibilidad financiera serán elementos clave de la gestión municipal. Una correcta planificación resulta esencial para acompasar los objetivos estratégicos de la acción municipal a las distintas anualidades del plan de mandato y para dotar los proyectos y acciones concretas de los recursos necesarios para ejecutarlos.

UDAL-JARDUERAREN PLANGINTZA, **ERAGINKORRA** izan dadin,
BOST MULTZOTAN sailka daitekeen
INFORMAZIO ESANGURATSUAN OINARRITU behar da:

HAUTESKUNDE-PROGRAMAK	• Zilegitasuna ematen diote gobernu-ekintzari, eta haiek betetzeak handitu egiten du herritarrek erakundeekiko duten konfiantza, eta erakundeon balio demokratikoa handitzen.
ETORKIZUNEKO UDALERRIA DISEINATZEN	• Abiapuntua **udalerriko gizartearen, ekonomiaren, ingurumenaren eta abarren errealitatea eta urteetan horiek izandako bilakaera erakusten dituzten adierazleak** dira. Informazio horrek funtsezko ezagutza ematen du udalak jardungo duen inguruari buruz, eta hari esker udalerriko joera nagusiak identifikatu daitezke. • **Helburua**: ingurune bideragarriak, ekitatiboak eta bertan bizitzeko modukoak eraikitzea. Helburu hirukoitz horrek bizitzako hiru premia banaezinei egiten die erreferentzia: ekologikoari, ekonomikoari eta sozialari. Garapen jasangarriaren helburuekin lotuta daude berez, haien hiru alderdietan: a. Ingurumen-alderdia: 1., 6., 7., 11., 12., 13. eta 15. GJHak. b. Ekonomia-alderdia: 8. eta 9. GJHak. c. Alderdi soziala: 1., 2., 3., 4., 5. eta 10. GJHak.
HERRITARREN ETA TOKIKO ERAGILE SOZIOEKONOMIKOEN AHOTSA	• Udalerriko gizarte zibil indibidual eta kolektiboaren **iritziak, beharrak eta itxaropenak** zein diren ezagutzera bideratutako **metodologia askotatik datorren informazio guztia** sartzen da: → Udal-kudeaketaren eta udal-zerbitzuen inguruko iritzia edo gogobetetzea nolako den jakiteko azterlanak. → Aurkeztutako oharrak, kexak eta iradokizunak. → Hedabideetan agertu diren berriak eta eskutitzak. → Foroetako, topaketetako eta herritarrekin izandako bestelako harreman formal edo informaletako ondorioak. → Herritarrek parte hartzeko prozesuak, kontsultak, gogoetatzeko gune irekiak...
UDAL-ANTOLAKUNDEAREN ERRENDIMENDU-ADIERAZLEAK	• **Antolakundearen jardueraren beraren inguruko datuak** dira. • Hau erakusten dute, adibidez: → Aurrekontuaren bilakaera eta haren betetze-maila. → Zerbitzuak erabiltzen dituzten edo haietan zerbitzatzen dituzten pertsonen kopurua. → Hainbat eremutako jarduera-bolumena. → Izapideak burutzeko behar izan den batez besteko denbora. • Jardunbide egokia da gobernu-organoei aldizkako kudeaketa-txostenak bidaltzea, beren eginkizunak betetzean informazio kualifikatua izan dezaten. Irekian argitaratzea gardentasun-ariketa bat da, eta erakundeak gobernu onaren parametroekin duen konpromisoaren erakusgarri. • Adierazle horien zehaztapena antolakundearen helburu estrategikoekin lotu daiteke. *(Ikusi Gida honetako EMAITZETARA ORIENTATUTAKO KUDEAKETA ETA AGINTE-TAULAK **1.3.2.2** fitxa)*.
BALIABIDEAK	Finantza-nahikotasuna, aurrekontu-oreka eta finantza-iraunkortasuna funtsezko elementuak izango dira udal-kudeaketan. Plangintza egokia egitea funtsezkoa da udal-ekintzaren helburu estrategikoak agintaldiko planaren urterokoetara egokitzeko, eta proiektu eta ekintza zehatzak gauzatzeko behar diren baliabideez hornitzeko.

	¿QUÉ ES?	¿PARA QUÉ SIRVE?
MISIÓN	Define la razón de ser de la organización**: ¿Para qué está nuestro Ayuntamiento?** Se relaciona con las competencias que la legislación atribuye al Ayuntamiento.	Ayuda a **concentrar los esfuerzos y recursos** en aquellos que **identifican al Ayuntamiento**.
VISIÓN	Explicita **cómo nos gustaría** que fueran tanto el **municipio**, como el **Ayuntamiento**, en un **futuro**.	**Permite comunicar mejor hacía dónde se quiere ir** y **facilita la identificación de las acciones** prioritarias para avanzar hacia ese horizonte en co-creación, junto con la ciudadanía y el tejido socioeconómico estratégico en cada territorio.
VALORES	Muestra los **principios** que se quiere que **inspiren la forma de actuar,** nuestro *leitmotiv*, nuestra esencia. Rasgos característicos y diferenciales: **Marca de Ciudad.**	Subraya las **señas de identidad**. Hay que **preguntarse periódicamente el grado en que esos valores están presentes** en la actividad cotidiana de la organización, si nos representan o, si hay que redirigir y rediseñar la estrategia.

*Conscientes de que, **sin estrategia organizativa** —sin una definición de lo que son la misión, visión y valores de la entidad, plasmada en un plan de gobierno y en planes operativos de las estructuras departamentales, direcciones o áreas de actuación—, **no es posible abordar una verdadera transformación**, a continuación vamos a proponer una serie de recursos clave para accionarla en los Ayuntamientos. Estas prácticas se enmarcan en las **POLÍTICAS PALANCA CLAVES** para nuestra organización, símbolo de una buena gobernanza a criterio del Consejo de Europa (Criterio 8º: Innovación y espíritu de cambio) (Dodecaedro, Sello Eloge, un reconocimiento a la Estrategia de los entes locales).*



Guía Local - ISBN 978-84-7777-690-1

	ZER DA?	ZERTARAKO BALIO DU?
EGINKIZUNA	Antolakundekoa izatearen arrazoia definitzen du: **Zertarako dago gure udala?** Legeak Udalari esleitzen dizkion eskumenekin lotzen da.	**Ahaleginak eta baliabideak** hain zuzen ere **udala identifikatzen** duten ahalegin eta baliabideetan **biltzen** laguntzen du.
IKUSKERA	**Udalerria nahiz udala etorkizunean nolakoak** izatea **gustatuko litzaigukeen** azaltzen du.	**Norantz joan nahi den hobeto komunikatzeko aukera ematen du**, eta **lagundu egiten du** elkarrekin sortuz eta lurralde bakoitzeko herritarrekin eta ehun sozioekonomiko estrategikoarekin batera norabide horretan aurrera egiteko lehentasunezko **ekintzak identifikatzen**.
BALIOAK	Jarduteko moduaren oinarritzat hartu nahi diren **printzipioak** erakusten ditu, gure *leitmotiva*, gure zerizana. Ezaugarriak eta bereizgarriak: **Hiriaren marka.**	**Identifikazio-ezaugarriak** azpimarratzen ditu. **Aldizka galdetu behar da balio horiek zenbateraino dauden presente** antolakundearen eguneroko jardueran, ordezkatzen gaituzten edo estrategia birbideratu eta birdiseinatu behar den.

*Badakigu **antolamendu-estrategiarik gabe** —erakundearen misioa, ikuspegia eta balioak definitu gabe eta definizio hori gobernu-plan batean eta sailetako egituren, zuzendaritzen edo jardun-arloen plan operatiboetan jaso gabe— **ezinezkoa** dela **benetako eraldaketari ekitea**. Beraz, udaletan eragiteko funtsezko baliabide batzuk proposatuko ditugu orain. Jardunbide horiek gure antolakunderako **PALANKA-POLITIKA GILTZARRIEN** barruan daude, gobernantza onaren seinale Europako Kontseiluaren arabera (8. irizpidea: Berrikuntza eta aldatzeko espiritua) (Dodekaedroa, Eloge zigilua, toki-entitateen estrategia saritzekoa).*



DE LO INDIVIDUAL A LO COLECTIVO

La **acción de un Ayuntamiento** tiene como **principal destinataria** a la **ciudadanía** del municipio.

SIN EMBARGO,

Los grupos interesados en las actividades y logros de la organización municipal **son más amplios** y es **necesario tenerlos en cuenta** en la **planificación y gestión** municipal.

LA ACCIÓN MUNICIPAL DEBE TRATAR DE **RESPONDER EQUILIBRADAMENTE A** LAS **EXPECTATIVAS Y NECESIDADES DE TODOS LOS GRUPOS INTERESADOS EN ELLA, INDIVIDUAL Y COLECTIVAMENTE**


- En ocasiones, las **necesidades o expectativas** de los diferentes grupos de interés son **contradictorias**.
- Una de las **complejidades** de la gestión pública reside precisamente en la **búsqueda de un punto de equilibrio** capaz de hacerse cargo de las diferentes perspectivas existentes, minimizando las consecuencias de cada opción y maximizando sus potencialidades para el bienestar colectivo.

- La **planificación** ha de considerar los **diferentes grupos de interés** y buscar formas de darles cabida en ella.
- Sin embargo, **siempre ha de estar presente la primacía del interés general, el bien común, frente a intereses particulares**.
- **El objetivo de la acción municipal es aportar valor a la sociedad en su conjunto.**

- Es necesario tener presente que **no todos los colectivos tienen la misma capacidad de hacer oír su voz y hacerse presentes** en la agenda municipal.
- Tomar conciencia de la amplitud de grupos de interés conlleva la búsqueda de **mecanismos adecuados para recoger las necesidades y expectativas de todos ellos**, independientemente de su capacidad de influencia o expresión.
- Incluso han de contemplarse **medidas de discriminación positiva** para dar cabida a aquellos colectivos con más dificultades para ser escuchados.

RELACIÓN DE GRUPOS DE INTERÉS:

Piezas fundamentales de un mismo puzle que han de estar perfectamente engranadas para que la actividad fluya



Guía Local - ISBN 978-84-7777-690-1

INDIBIDUALETIK KOLEKTIBORA

Udalen jarduerak nagusiki udalerriko **biztanleentzat** dira.

HALA ERE,

Udal-antolakundearen jardueretan eta lorpenetan **interesa duten taldeak** zabalagoak dira, eta **beharrezkoa da talde horiek kontuan izatea udal-plangintzan eta udal-kudeaketan**.

UDALAK AHALEGINA EGIN BEHAR DU **HAREN JARDUNAREN GAINEKO INTERESA DUTEN TALDE GUZTIEN ITXAROPEN ETA BEHARREI ERANTZUN OREKATUAK** EMATEKO, **BANAKA ETA TALDEKA**


- Zenbaitetan, interes-taldeen **beharrak edo itxaropenak kontraesankorrak** dira.
- Kudeaketa publikoaren **zailtasunetako** bat, hain justu, ikuspegi guztiak barneratzen dituen **oreka lortzea** da, aukera bakoitzaren ondorioak minimizatu eta potentzialtasunak maximizatuko dituena ongizate kolektiboaren mesedetan.

- **Plangintzak interes-talde guztiak** hartu behar ditu kontuan, eta horiek sartzeko modua aurkitu.
- Hala ere, **interes orokorra, guztien ongia gailendu behar zaie beti interes partikularrei**.
- **Udal-jardueraren helburua gizarte osoari balioa ematea da.**

- Beharrezkoa da aintzat hartzea **kolektibo guztiek ez dutela gaitasun berdina beren ahotsa entzunarazteko** eta udal-agendan agertzeko.
- Interes-talde asko daudela konturatzeak **horien guztien beharrak eta itxaropenak jasotzeko mekanismo egokiak** bilatzea ekartzen du, interes-talde bakoitzaren eragin- edo adierazpen-ahalmena edozein dela ere.
- Are gehiago, **diskriminazio positiboko neurriak** ezartzeko aukera ere aztertu behar da beren ahotsa entzunarazteko zailtasun handienak dituzten kolektiboei tokia egiteko.

INTERES-TALDEEN ZERRENDA:

Puzzle bereko funtsezko piezak, ondo engranatuta egon behar dutenak, jarduera geldi ez dadin.



La **MISIÓN** de la organización municipal + la **VISIÓN** que se desea alcanzar + los **VALORES** que han de caracterizar la forma de actuar

Son la BASE sobre la que se construyen los EJES Y LOS OBJETIVOS ESTRATÉGICOS

EJES ESTRATÉGICOS	• Sintetizan los **grandes ámbitos en que se va a articular la actuación municipal para avanzar hacia la VISIÓN**, en el marco de la **VISIÓN/ MISIÓN** y sobre la base de los **VALORES**. • Se definen **por consenso** del Gobierno Local a partir de una labor de síntesis de las ideas clave puestas de manifiesto en las definiciones de la **MISIÓN**, la **VISIÓN** y los **VALORES**. • **No es conveniente que sean más de cuatro o cinco**. • Hay **partes de la actividad municipal** que, aun siendo necesarias y formando parte estructural del Ayuntamiento, **pueden no encontrar enlace con los ejes estratégicos** que se definan.
OBJETIVOS ESTRATÉGICOS	• **Concretan las principales líneas** en que se va a trabajar de manera **prioritaria** durante el mandato. • **No es necesario que concreten resultados** a alcanzar, simplemente **trazan los grandes objetivos** en torno a los que se va a trabajar (por ejemplo, promover la integración social, mejorar las condiciones de vida de las personas mayores, impulsar el desarrollo económico, mejorar las infraestructuras urbanas, mejorar la gestión de los procesos de la organización...). • **Se concretan a partir de un análisis DAFO** (iniciales de Debilidades, Amenazas, Fortalezas y Oportunidades).

Los **OBJETIVOS ESTRATÉGICOS SURGIRÁN DEL CONSENSO sobre aquellos puntos que potencien nuestros puntos fuertes, contrarresten los débiles, aprovechen las oportunidades** y se **orienten a evitar las amenazas**.

ANÁLISIS DAFO


D A F O

DEBILIDADES AMENAZAS FORTALEZAS OPORTUNIDADES

La puesta en común de las respuestas puede hacerse en un gráfico como este

Consiste en preguntarse:

- **D**EBILIDADES: aspectos internos que limitan la consecución de objetivos.
- **A**MENAZAS: aspectos externos que condicionan el desarrollo y consecución de los objetivos.
- **F**ORTALEZAS: puntos fuertes internos destacables que colaboran con la consecución de los objetivos.
- **O**PORTUNIDADES: aspectos externos que proporcionan facilidades y colaboran en la consecución de los objetivos propuestos.



Guía Local - ISBN 978-84-7777-690-1

Udalerriaren antolaketaren **XEDEA** + Lortu nahi den **IKUSPEGIA** + Jardunbidean bete behar diren **BALIOAK**

ARDATZ ETA HELBURU ESTRATEGIKOAK eraikitzeko OINARRIAK dira

ARDATZ ESTRATEGIKOAK	• **IKUSPEGIAREN/XEDEAREN** esparruan, eta **BALIOETAN** oinarrituta, **IKUSPEGIRANTZ aurrera egiteko udal-jardueraren antolamendu-unitate izango diren eremu handiak** laburbiltzen dituzte. • Toki-gobernua **bat etorrita** zehazten dira, **XEDEAREN**, **IKUSPEGIAREN** eta **BALIOEN** definizioetan agerian jarritako funtsezko ideiak laburbiltzeko lanetik abiatuta. • **Ez da komenigarria lau edo bost baino gehiago izatea**. • **Baliteke udal-jardueraren zati batzuek**, nahiz eta beharrezkoak izan eta udalaren egitura osatu, **ez aurkitzea loturarik** zehazten diren **ardatz estrategikoekin**.
HELBURU ESTRATEGIKOAK	• Agintaldian **lehentasunez** jorratuko diren **ildo nagusiak zehazten dituzte**. • **Ez da beharrezkoa lortu beharreko emaitzak zehaztea**; jorratuko diren **helburu handiak zirriborratzen dituzte soilik** (hala nola gizarteratzea sustatzea, helduen bizi-baldintzak hobetzea, garapen ekonomikoa bultzatzea, hiri-azpiegiturak hobetzea, antolakundeko prozesuen kudeaketa hobetzea...). • **AMIA** (Ahuleziak, Mehatxuak, Indarrak eta Aukerak) **analisitik abiatuta zehazten dira**.

HELBURU ESTRATEGIKOAK ADOSTU egingo dira; adostasuna lortu beharko da gure indarguneak bultzatu, ahuleziak kendu, aukerak aprobetxatu eta mehatxuak saihesteko orientatuko diren alderdietan.

AMIA ANALISIA


A **M** **I** **A**

AHULEZIAK MEHATXUAK INDARGUNEAK AUKERAK

Erantzunak bateratzeko, honelako grafiko bat erabil daiteke

Norbere buruari galdera hau egitea da:

- **A**HULEZIAK: helburuak lortzea zailtzen duten barneko alderdiak.
- **M**EHATXUAK: helburuen garapena eta lorpena baldintzatzen duten kanpoko alderdiak.
- **I**NDARGUNEAK: barne-indargune aipagarriak, helburuak lortzen laguntzen dutenak.
- **A**UKERAK: erraztasunak ematen dituzten eta proposatutako helburuak lortzen laguntzen duten kanpo-alderdiak.



TRANSFORMADO LA ORGANIZACIÓN: EL PLAN DE MANDATO


El PLAN DE MANDATO
Recoge los **EJES y los OBJETIVOS ESTRATÉGICOS** de la organización y concreta las **ESTRATEGIAS concretas** que se van a desarrollar **durante la legislatura**, haciendo visible la relación entre las líneas concretas de actuación y los grandes objetivos a los que aspira la corporación. La **concreción anual de esas estrategias** en iniciativas o planes de actuación configura el **PLAN DE GESTIÓN ANUAL** del Ayuntamiento y deberá acompasarse con la planificación presupuestaria. Según el tamaño de la organización o la existencia de empresas públicas u organismos autónomos, pueden existir cuantos **PLANES DE GESTIÓN** sean necesarios.

EJEMPLO PARCIAL DE DESPLIEGUE DE UN OBJETIVO ESTRATÉGICO EN ESTRATEGIAS

EJE ESTRATÉGICO	OBJETIVO ESTRATÉGICO	ESTRATEGIAS
Desarrollo urbano armónico y sostenible	**Respetar el medio ambiente**	Promover la implicación ciudadana en la Agenda Local 21.
		Impulsar y fomentar el reciclaje de residuos urbanos. Reciclar, Reutilizar, Reducir.
		Optimizar la gestión energética municipal.
		Incentivar la mejora de jardines, fachadas y entornos privados.
		Desarrollar programas de control de la contaminación medio ambiental.

Los **EJES** y los **OBJETIVOS ESTRATÉGICOS** se **definen por el equipo de gobierno**, aunque es **conveniente que se consulte al personal técnico** municipal y a otros **grupos de interés**.

En la **definición de LAS ESTRATEGIAS**, el **personal técnico municipal tiene un papel muy significativo** proponiendo las estrategias que consideran más adecuadas para hacer frente a los objetivos planteados, si bien la **aprobación de estas siempre corresponde a los cargos electos municipales**.



Guía Local - ISBN 978-84-7777-690-1

ANTOLAKUNDEA ERALDATZEN: AGINTALDIKO PLANA


AGINTALDIKO PLANA
Antolakundearen **ARDATZ eta HELBURU ESTRATEGIKOAK** biltzen ditu, eta **legegintzaldian** gauzatuko diren **ESTRATEGIAK** zehazten. Hala, jarduera-ildo zehatzen eta udalbatzak dituen helburu handien arteko erlazioa agerian gelditzen da. **Estrategia horiek urtero** ekimenetan edo jarduera-planetan zehazten dira, eta horrela osatzen da udalaren **URTEKO KUDEAKETA-PLANA**, zeina aurrekontu-plangintzara egokitu beharko da. Behar beste **KUDEAKETA-PLAN** egon daitezke, antolakundearen tamainaren arabera edo enpresa publikoak edo antolakunde autonomoak egotearen arabera.

HELBURU ESTRATEGIKO BAT ESTRATEGIETAN ZABALTZEAREN ADIBIDE PARTZIALA

ARDATZ ESTRATEGIKOA	HELBURU ESTRATEGIKOA	ESTRATEGIAK
Hiri-garapen harmonikoa eta iraunkorra	**Ingurumena errespetatzea**	Herritarrek Tokiko Agenda 21ean parte hartzea bultzatzea.
		Hiri-hondakinak birziklatzea bultzatzea eta sustatzea. Birziklatu, Berrerabili, Murriztu.
		Udalerriko energiaren kudeaketa optimizatzea.
		Lorategi, fatxada eta ingurune pribatuen hobekuntza sustatzea.
		Ingurumen-kutsadura kontrolatzea desarrollo de programas.

ARDATZ eta **HELBURU ESTRATEGIKOAK gobernu-taldeak zehazten ditu**, baina **komenigarria da** udal-teknikariei eta bestelako **interes-taldeei** kontsultatzea.

ESTRATEGIAK definitzean, udal-langile teknikoen lana oso nabarmena da, jarritako helburuak iristeko egokien jotzen dituzten estrategiak proposatzen baitituzte. Hala ere, **udal-kargu hautetsiei dagokie, beti, estrategia horiek onartzea**.



TRANSFORMADO LA ORGANIZACIÓN: OTROS PLANES ESTRATÉGICOS PARA LA ACCIÓN MUNICIPAL

1. PLANIFICACIÓN PRESUPUESTARIA A LARGO, MEDIO Y CORTO PLAZO

Los retos de la gestión pública local se abordan con acción, con liderazgo, con gestión, a través del plan de mandato que debe coincidir con las líneas fundamentales de un recurso, un instrumento de implementación de las políticas públicas clave, que no es otro que el presupuesto municipal.

Conscientes de su importancia, EUDEL e IVAP han realizado un importante esfuerzo para sistematizar la alineación de los Presupuestos 2023 de las entidades locales de su territorio a los 17 Objetivos de Desarrollo Sostenible y sus 169 metas aprobadas por Naciones Unidas con el objetivo de cambiar el Mundo.

2. PLAN ANUAL NORMATIVO (PAN)

Al igual que planificamos lo que vamos a hacer, tenemos que tener en cuenta qué nos va a implicar en nuestra huella normativa.

Y lo tenemos que hacer tanto por convicción como por obligación en base a lo dispuesto en el art. 132 Ley 39/2015, de 1 de octubre, el cual establece, en aras de una mayor seguridad jurídica y la predictibilidad del ordenamiento, que «Anualmente, las Administraciones Públicas harán público un Plan Normativo que contendrá las iniciativas legales o reglamentarias que vayan a ser elevadas para su aprobación en el año siguiente».

3. PLAN ESTRATÉGICO DE SUBVENCIONES

Vehiculiza la actividad de fomento en el mundo local. Su ausencia será motivo de nulidad.

En él se deberán concretar los objetivos y efectos que se pretenden con su aplicación, el plazo necesario para su consecución, los costes previsibles y sus fuentes de financiación, supeditándose en todo caso al cumplimiento de los objetivos de estabilidad presupuestaria (art.8 Ley General Subvenciones y 10 a 15 de su Reglamento de desarrollo).

4. PLAN DE CONTRATACIÓN (PAC)

Es un documento de gestión pública que permite planificar, ejecutar y evaluar las contrataciones de bienes y servicios que serán convocadas por la entidad durante el año en curso.

Contribuye a la transparencia en la gestión municipal, a la libre competencia, a la igualdad de oportunidades entre licitadores, a la lucha contra el fraude en la contratación pública y aumenta los niveles de integridad, eficacia y eficiencia de aquellas entidades que apuestan por una correcta planificación de su actividad contractual.

5. PLAN DE CONTROL INTERNO

¿Potencia sin control? Abarca el control de la gestión económico-financiera de la entidad aportando garantía en términos de verificación y auditoría a la actividad de la entidad atendiendo a su propia idiosincrasia, análisis de riesgos... El control interno a cargo de la Intervención Municipal se complementa con el control externo atribuido al Tribunal de Cuentas.

6. PLAN DE FORMACIÓN

El mundo está cambiando, las reglas de juego están cambiando, y si no queremos quedarnos fuera de juego, la Administración deberá, tarde o temprano, reformarse y con ella, su personal.

Nuevas competencias y habilidades en materias tales como: alfabetización digital, información y datos, datos protegidos, interoperabilidad, tecnologías disruptivas, tecnologías sociales, innovación abierta, administración pública colaborativa, liderazgos transformacionales, igualdad, ética pública; trabajo en equipo, gestión por proyectos, habilidades comunicativas…

7. PLAN DE IGUALDAD

Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres.



Piezas de un mismo puzle

Guía Local - ISBN 978-84-7777-690-1

ANTOLAKUNDEA ERALDATZEN: UDAL-JARDUERARAKO BESTE PLAN ESTRATEGIKO BATZUK

1. EPE LUZERAKO, ERTAINERAKO ETA LABURRERAKO AURREKONTU-PLANGINTZA

Tokiko kudeaketa publikoaren erronkei ekintzen bidez, lidergoa erabiliz eta kudeatuz heltzen zaie, agintaldi-planaren bitartez, eta plan horrek bat etorri behar du udal-aurrekontuaren funtsezko ildoekin; udal-aurrekontua baliabide erabakigarria da politika publikoak ezartzeko.

Horren garrantziaz jabetuta, EUDELek eta IVAPek ahalegin handia egin dute beren lurraldeko toki-entitateen 2023ko aurrekontuak Nazio Batuek mundua aldatzeko asmoz onartu dituen garapen jasangarrirako hamazazpi helburuetara eta haien 169 jomugetara nola egokitu sistematizatzeko.

2. URTEKO ARAUGINTZA-PLANA

Egin asmo duguna planifikatzen dugun bezala, kontuan izan behar dugu horrek zer ekarriko digun gure arau-arrastoan.

Eta hala egin behar dugu, bai uste osoa dugulako, bai betebeharra dugulako, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 132. artikuluari jarraituz, artikulu hark ezartzen baitu, segurtasun juridiko handiagoa eta ordenamenduaren aurresangarritasuna lortze aldera, administrazio publikoek «urtero araugintza-plan bat» argitaratuko dutela, «hurrengo urtean onartzeko aurkeztuko diren lege- edo erregelamendu-ekimenak jasoko dituena».

3. DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA

Tokiko esparruko sustapen-lana bideratzen du. Halakorik ez egotea deuseza izateko motiboa da.

Bertan zehaztu behar dira plana ezarrita lortu nahi diren helburu eta eraginak, helburuak lortzeko behar den epea, aurreikusitako kostuak eta finantzaketa-iturriak, betiere aurrekontu-egonkortasunaren helburuak kontuan hartuz (Dirulaguntzen Lege Orokorraren 8. artikulua eta lege hura garatzeko erregelamenduaren 10. eta 15. artikuluak).

4. KONTRATAZIO-PLANA

Kudeaketa publikoko dokumentu bat da, aukera ematen duena entitateak uneko urtean deialdia eginda egingo dituen ondasun- eta zerbitzu-kontratazioak planifikatzeko, egikaritzeko eta ebaluatzeko.

Udal-kudeaketaren gardentasunari, lehia askeari, lizitatzaileen arteko aukera-berdintasunari eta kontratazio publikoko iruzurraren aurkako borrokari laguntzen die, eta handitu egiten du beren kontratu-jarduera behar bezala planifikatzeko apustua egiten duten entitateen zuzentasuna, eraginkortasuna eta efizientzia.

5. BARNE-KONTROLEKO PLANA

Kontrolik gabeko potentzia? Entitatearen kudeaketa ekonomiko-finantzarioaren kontrola hartzen du, eta entitatearen jarduera egiaztatzeko eta ikuskatzeko bermea ematen du, haren idiosinkrasia, arriskuen analisia eta abar kontuan hartuta. Udal Kontu Hartzailetzaren barne-kontrola Kontuen Auzitegiari esleitutako kanpo-kontrolarekin osatzen da.


6. PRESTAKUNTZA-PLANA

Mundua aldatzen ari da, joko-arauak aldatzen ari dira, eta jokotik kanpo geratu nahi ez badugu, Administrazioak, lehenago edo geroago, eraldatu egin beharko du, eta, harekin batera, haren langileak.

Gaitasun eta trebetasun berriak gai hauetan: alfabetatze digitala, informazioa eta datuak, datu babestuak, elkarreragingarritasuna, teknologia disruptiboak, teknologia sozialak, berrikuntza irekia, administrazio publiko kolaboratiboa, lidergo eraldatzaileak, berdintasuna, etika publikoa; talde-lana, proiektuen araberako kudeaketa, komunikazio-trebetasunak...

7. BERDINTASUN-PLANA

1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena.



Puzzle bereko piezak

TRANSFORMANDO LA ORGANIZACIÓN: LA GESTIÓN PÚBLICA EN UN MARCO DE GLOBALIDAD

LA ACCIÓN MUNICIPAL

Se encuentra con **demandas sociales o con políticas públicas que no dependen en exclusiva del propio Ayuntamiento,** de hecho, lo más habitual es que en una misma materia/competencia intervengan distintas administraciones.

Por otra parte, es frecuente la **búsqueda de una visión integrada de la acción municipal** orientada a determinados grupos de población o tejido socio-económico. Por ejemplo, políticas específicas dirigidas a infancia y juventud, inmigración, mayores, asociaciones, pymes…

Ambos elementos configuran lo que se denomina POLÍTICAS TRANSVERSALES

Dado que la Guía tiene un apartado específico sobre Transversalidad, aquí, únicamente expondremos una serie de ideas-fuerza que inciden en la planificación y la gestión pública local

Las POLÍTICAS TRANSVERSALES suelen tomar cuerpo en PLANES ESPECÍFICOS DE CARÁCTER TRANSVERSAL o DESARROLLOS NORMATIVOS CONCRETOS. Por ejemplo:

- Plan de Igualdad de Oportunidades
- Plan de Inmigración
- Plan de Juventud
- Plan de Personas Mayores
- Plan de Prevención de las Drogodependencias
- Plan de Normalización del uso del Euskera
- Cartera de Servicios Sociales
- Ley de Juegos y Espectáculos
- Normativa en el ámbito tributario
- …

ESTA PROLIFERACIÓN DE PLANES y NORMATIVAS

Si bien ayuda a focalizar y orientar mejor la acción municipal hacia problemas multidisciplinares y a ofrecer unos estándares de servicios en las administraciones diseñados desde una visión holística de territorio (Ámbito supramunicipal).

Puede generar contradicciones o disfunciones si los planes y la normativa no están, a su vez, adecuadamente articulados entre sí.

Para este fin resulta especialmente útil la elaboración de un **PLAN DE MANDATO** que **entronque este conjunto de iniciativas** y que sea lo **suficientemente amplio, flexible y evaluable** para **adaptarse**, en caso de ser necesario, a las nuevas circunstancias / políticas transversales.

Ha de tenerse presente que la TRANSVERSALIDAD IMPLICA:

- Nuevas políticas, que pueden llevar a generar **nuevos costes** económicos.
- Mayor complejidad organizativa, que requerirá de más tiempo dedicado al trabajo de coordinación y trabajo en común. O, en su caso, **reorganización de los medios** personales y materiales de los que dispone la organización. Es importante tener siempre presente esta reflexión para construir un sistema público sostenible, suficiente y lógico.
- **Una pérdida de autonomía de las unidades o departamentos tradicionales (verticales),** que han de contribuir a las nuevas políticas transversales vividas, al menos inicialmente, como ajenas.

Teniendo presente que la TRANSVERSALIDAD APORTA:

- **Mejor ajuste** a la **realidad social** y a las nuevas **demandas sociales.**
- **Más capacidad** de abordar **problemas específicos**.
- **Más integración de las diferentes actuaciones sectoriales y territoriales**, lo que conlleva más **coherencia y consistencia en la actuación municipal**.
- **Mayor visibilidad social de las actuaciones del Ayuntamiento.**
- **Homogeneidad para la ciudadanía destinataria de la acción pública,** un estándar de calidad y servicios en el marco de un territorio.

ANTOLAKUNDEA ERALDATZEN: KUDEAKETA PUBLIKOA GLOBALTASUN-ESPARRU BATEAN

UDAL-JARDUERA

Udalaren beraren mende soilik ez dauden gizarte-eskaerak edo politika publikoak ditu; izan ere, ohikoena gai/eskumen berean administrazio batek baino gehiagok esku hartzea da.

Bestalde, maiz, **udal-jardueraren ikuspegi integratu bat** lortu nahi izaten da, herritar-talde jakin batzuei edo ehun sozioekonomiko jakin batera bideratua. Adibidez, haur eta gazteei, immigrazioari, adinekoei, elkarteei, ETEei eta abarri zuzendutako politika espezifikoak.

Bi elementu horiek osatzen dute ZEHARKAKO POLITIKAK deritzana

Gidak zeharkakotasunari buruzko atal espezifiko bat duenez, hemen tokiko plangintzan eta kudeaketa publikoan eragina duten indar-ideia batzuk baino ez ditugu azalduko.

ZEHARKAKO POLITIKAK ZEHARKAKO PLAN ESPEZIFIKOETAN edo ARAU-GARAPEN JAKIN BATZUETAN mamitzen dira. Esate baterako:

- Aukera Berdintasunerako Plana
- Immigrazio Plana
- Gazteria Plana
- Adinekoen Plana
- Droga Mendekotasunaren Prebentziorako Plana
- Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana
- Gizarte Zerbitzuen Zorroa
- Joko eta Ikuskizunen Legea
- Tributuen arloko araudia
- …

PLANEN eta ARAUDIEN UGARITZE HORREK

- Udal-jarduera diziplina anitzeko arazoetara hobeto bideratzen eta arreta haietan jartzen laguntzen du eta administrazioetan zerbitzu-estandar batzuk lurralde-ikuspegi holistiko batetik (udalaz gaindiko eremua) diseinatuak eskaintzen laguntzen du.
- Kontraesanak edo disfuntzioak sor ditzake, baldin eta planak eta araudia ez badaude era berean beren artean era egokian antolatuta.

Horretarako, oso baliagarria da **AGINTALDIKO PLAN bat egitea, ekimen sorta hori bateratuko duena eta behar bezain zabala, malgua eta ebaluagarria dena** egoera berrietara edo zeharkako politiketara **egokitzeko**, behar izanez gero.

Kontuan hartu behar da ZEHARKAKOTASUNAK HAU GUZTIA HARTZEN DUELA BARNEAN:

- Politika berriak, **beste kostu ekonomiko batzuk** eragin ditzaketenak.
- Antolatzeko konplexutasun handiagoa; horrek koordinazio-lanari eta baterako lanari denbora gehiago eskaintzeko beharra ekarriko du. Edo, hala badagokio, antolakundeak dituen giza **baliabideak** eta baliabide materialak **berrantolatzea**. Garrantzitsua da beti gogoeta hori kontuan hartzea, sistema publiko iraunkorra, nahikoa eta logikoa eraikitzeko.
- **Ohiko unitateek edo sailek (bertikalek)** autonomia galtzea; unitateek eta sailek hasiera batean behinik behin arrotz zaizkien zeharkako politika berriei lagundu beharko diete.

Kontuan hartu behar da ZEHARKAKOTASUNAK HAU GUZTIA DAKARRELA:

- **Gizarte-errealitatera** eta **gizarte-eskaera** berriei **hobeto egokitzea**.
- Arazo jakin batzuei aurre egiteko **gaitasun handiagoa**.
- **Sektoreko eta lurraldeko jardueren integrazio handiagoa**; **udal-jarduerak koherentzia eta sendotasun handiagoa izatea** eragingo du horrek.
- **Udalaren jarduerak gizartean gehiago ikustea.**
- **Homogeneotasuna ekintza publikoaren hartzaile diren herritarrentzat** eta kalitate- eta zerbitzu-estandar bat lurralde baten esparruan.

POTESTAD DE AUTO-ORGANIZACIÓN MUNICIPAL,
como manifestación de la autonomía local (art. 10 LILE y 4 LRBRL)

MODELOS

ESTRUCTURAS DE GESTIÓN	CARACTERÍSTICAS
POLÍTICO - UNITARIO	• La **Alcaldía** asume la responsabilidad directa de las diferentes unidades administrativas. • Las personas titulares de la **Secretaría, la Intervención y personal funcionario con responsabilidades de dirección**, le rinden cuentas directas de su gestión.
POLÍTICO - FRAGMENTADO	• Las **concejalías** tienen **competencias de gestión en ámbitos específicos.** • La **Alcaldía coordina las áreas sectoriales**, asumiendo **la responsabilidad directa de alguna de las áreas más estratégicas**.
GERENCIAL	• Una gerencia, bajo la dirección de la Alcaldía, **dirige toda la estructura municipal**. • La **Alcaldía** se encarga de la **dirección estratégica**. • Las diferentes **macro-áreas o áreas** en las que se puede dividir el ayuntamiento tienen **gerencias** que informan a los concejales respectivos.
GERENCIAL FRAGMENTADO	• Las macro-**áreas o áreas** están **dirigidas por gerencias.** • La **coordinación de su actuación** reside en la **Alcaldía o concejalía delegada.** • **No** hay **una gerencia para el conjunto de la organización**.
MIXTO	• **Mezcla** los **modelos político y gerencial**. • Algunas **áreas**, organismos autónomos, patronatos, están **dirigidos por gerentes y otros por funcionarios**. Ambos informan a sus responsables políticos.

Fuente: Elaborado a partir de Carles Ramió en «Gobierno local y modelo gerencial». Fundación Carles Pi i Sunyer.

Guía Local - ISBN 978-84-7777-690-1

UDALAK BERE BURUA ANTOLATZEKO AHALA,
tokiko autonomiaren adierazpen gisa (ETELen 10. artikulua eta TAOLen 4. artikulua)

EREDUAK

KUDEAKETA-EGITURAK	EZAUGARRIAK
POLITIKO BATERATUA	• **Alkateak** administrazio-unitateen zuzeneko erantzukizuna hartzen du bere gain. • Idazkaritzaren eta Kontu Hartzailetzaren titularrek eta zuzendaritza-erantzukizunak dituzten funtzionarioek beren kudeaketaren kontuak ematen dizkiote zuzenean.
POLITIKO ZATIKATUA	• **Zinegotziek kudeaketa-eskumenak** dituzte **eremu zehatzetan**. • **Alkatetzak sektore-arloak koordinatzen ditu**, eta **arlo estrategikoenetakoren baten erantzukizun zuzena** hartzen du bere gain.
GERENTZIAKOA	• Gerente batek, alkatearen zuzendaritzapean, **udal-egitura guztia zuzentzen du**. • **Alkatea zuzendaritza estrategikoaz** arduratzen da. • Udaleko **makro-arloek edo arloek**, halako arlorik badago, **gerenteak** dituzte, kasuan kasuko zinegotziak informatzen dituztenak.
GERENTZIAKOA ETA ZATIKATUA	• Makro-arloak edo arloak **gerenteek zuzentzen dituzte**. • Haren jarduna **alkateak edo zinegotzi delegatuak koordinatzen du**. • **Ez dago gerente bat antolakunde guztirako**.
MISTOA	• **Eredu politikoa eta gerentziako eredua nahasten ditu**. • **Arlo**, organismo autonomo eta patronatu **batzuk gerenteek zuzentzen dituzte, eta beste batzuk funtzionarioek**. Biek ematen diete informazioa beren arduradun politikoei.

Iturria: Carles Ramió-ren «Gobierno local y modelo gerencial» lanetik abiatuta landua. Carles Pi i Sunyer Fundazioa

Independientemente de la estructura organizativa, **ES IMPRESCINDIBLE**
la **coordinación** a todos los niveles,
para afrontar los retos actuales de la gestión de una administración local,
en busca de un **LIDERAZGO TRANSFORMACIONAL** del líder que crece, haciendo crecer

SINERGIAS Y COORDINACIÓN COMO EJES DEL BUEN GOBIERNO

SINERGIAS INTERNAS	**PERSONAL PROPIO** La guía metodológica «Agenda 2030 LOCAL. Cómo abordar los Objetivos de Desarrollo Sostenible desde el ámbito local», editada por Ihobe pone de relieve la necesidad de fomentar espacios de coordinación interdepartamental como tipología de acciones asociadas a ámbitos temáticos de la gestión municipal, en el marco del Objetivo de Desarrollo sostenible 17 PAZ, JUSTICIA E INSTITUCIONES SÓLIDAS de la Agenda 2030.		Planificación con orientación a futuro: Planes de ordenación de recursos humanos.
			Mirada transversal: RPT a futuro, OPE para captación de talento y retención vía carrera profesional.
			Coordinación Interdepartamental: RPT sin compartimentos estanco, administración permeable.
	ALINEACIÓN REAL GOBIERNO-ADMINISTRACIÓN Liderazgo transformacional	**Liderazgo transformacional:**	Espacios de encuentro conjuntos en busca de la excelencia en la gestión: constituir un **grupo-motor**, compuesto por **los máximos responsables técnicos de la organización,** que **coordine la acción municipal** desde una perspectiva técnica, con dirección política, para **coordinar, revisar y realizar el seguimiento de los principales planes de actuación** de la corporación y **los recursos.**
			Fomento de la existencia de intraemprendimiento: evaluación por desempeño, salario emocional y gestión del conflicto.
			Delegaciones de gestión en personal municipal.
	SERVICIOS EXTERNOS más allá del responsable del contrato		Valoración de la necesidad del servicio externalizado para el desarrollo de los objetivos.
			Optimización del control y evaluación.
			Gestión interna del conocimiento.
SINERGIAS EXTERNAS	**COORDINACIÓN CON ADMINISTRACIONES PÚBLICAS**		Gobernanza multinivel para evitar duplicidades.
			Unificación de medios y colaboración en consecución de resultados.
			Benchmarking y gestión de redes de conocimiento: EUDEL, IVAP, ALEL, MSP, ……
	COLABORACIÓN PÚBLICO PRIVADA		La Agenda 2030 para el desarrollo sostenible, establece como objetivo número 17 fomentar y promover la constitución de alianzas en las esferas públicas y público-privadas para facilitar la consecución de dichos ODS 2030. Más allá de las previsiones legales en términos de eficacia y eficiencia en materia de gestión de servicios públicos (de acuerdo entre otras, con la Ley de 9/2017, de Contratos del Sector Público) las redes de colaboración con la esfera privada son imprescindibles para la ejecución de políticas públicas a nivel local, sin ser necesariamente vía redes formales.
	CIUDADANÍA		El Libro Blanco de Democracia y Participación ciudadana del Gobierno Vasco destaca, que »Necesitamos cambios que mejoren el funcionamiento democrático de nuestras administraciones y procesos de gestión pública que nos permitan generar red, escuchar, atender y compartir con la ciudadanía, para realizar nuestra labor de forma más efectiva, transparente y corresponsable» y manifiesta que «La participación es, por tanto, una oportunidad para que la administración tome mejores decisiones, conseguir mejores impactos para sus políticas y servicios pero requiere esfuerzo».

Antolaketa-egitura edozein dela ere, EZINBESTEKOA DA
maila guztietako **koordinazioa**,
tokiko administrazio baten kudeaketaren egungo erronkei aurre egiteko,
hazten ari den liderraren **LIDERGO ERALDATZAILE** bat aurkitzeko eta horrekin batera hauek areagotzeko:

<table>
<tr><th colspan="4">GOBERNU ONAREN ARDATZ DIREN SINERGIAK ETA KOORDINAZIOA</th></tr>
<tr><td rowspan="7">BARNE-SINERGIAK</td><td colspan="2" rowspan="3">LANGILE PROPIOAK
«Tokiko Agenda 2030. Nola jorratu garapen jasangarriko helburuak tokiko eremuan» gida metodologikoak, Ihobek argitaratuak, agerian uzten du sailen arteko koordinazio-espazioak sustatu behar direla udal-kudeaketaren gaikako eremuei lotutako ekintzen tipologia gisa, Agenda 2030eko 17. garapen jasangarriko helburuaren esparruan BAKEA, JUSTIZIA ETA ERAKUNDE SENDOAK.</td><td>Etorkizunera begira dagoen plangintza: giza baliabideak antolatzeko planak.</td></tr>
<tr><td>Zeharkako begirada: Etorkizuneko LPZ, talentua erakartzeko EPEa eta karrera profesionalaren bidezko atxikitzea.</td></tr>
<tr><td>Sailarteko koordinazioa: Konpartimentu estankorik gabeko LPZ, Administrazio iragazkorra.</td></tr>
<tr><td rowspan="3">GOBERNUA ETA ADMINISTRAZIOA BAT ETORTZEA
Lidergo eraldatzailea</td><td rowspan="3">Lidergo eraldatzailea:</td><td>Kudeaketan bikaintasuna lortzeko elkarguneak: talde eragile bat eratzea, antolakundeko arduradun tekniko gorenek osatua, udal-ekintza ikuspegi tekniko batekin koordinatuko duena eta zuzendaritza politiko bat duena, korporazioaren eta baliabideen jarduketa-plan nagusiak koordinatzeko, berrikusteko eta haien jarraipena egiteko.</td></tr>
<tr><td>Barne-ekintzailetza sustatzea: jardunaren araberako ebaluazioa, soldata emozionala eta gatazkaren kudeaketa.</td></tr>
<tr><td>Kudeaketa udal-langileen esku uztea.</td></tr>
<tr><td colspan="2">KANPO-ZERBITZUAK
kontratuaren arduradunaz harago</td><td>Helburuak garatzeko kanpora ateratako zerbitzuaren beharra aztertzea.</td></tr>
<tr><td colspan="2" rowspan="2"></td><td>Kontrola eta ebaluazioa optimizatzea.</td></tr>
<tr><td>Ezagutzaren barne-kudeaketa.</td></tr>
<tr><td rowspan="5">KANPO-SINERGIAK</td><td rowspan="3">ADMINISTRAZIO PUBLIKOEKIKO KOORDINAZIOA</td><td colspan="2">Maila anitzeko gobernantza, bikoiztasunak saihestekoa.</td></tr>
<tr><td colspan="2">Baliabideak bateratzea eta emaitzak lortzen laguntzea.</td></tr>
<tr><td colspan="2">Benchmarkinga eta ezagutza-sareen kudeaketa: EUDEL, IVAP, ALEL, MSP...</td></tr>
<tr><td>ESPARRU PUBLIKOAREN ETA PRIBATUAREN ARTEKO LANKIDETZA</td><td colspan="2">Garapen jasangarrirako Agenda 2030ak, 17. helburutzat, esparru publikoetan eta publiko-pribatuetan aliantzak sustatzea eta bultzatzea ezartzen du 2030 GJH horiek lortzen laguntzeko. Zerbitzu publikoen kudeaketaren arloko efikaziari eta efizientziari buruzko lege-aurreikuspenetatik harago (besteak beste, 9/2017 Legea, Sektore Publikoko Kontratuena), eremu pribatuarekiko lankidetza-sareak ezinbestekoak dira tokiko esparruan politika publikoak gauzatzeko, eta ez dira nahitaez sare formalen bidez gauzatu behar.</td></tr>
<tr><td>HERRITARRAK</td><td colspan="2">Eusko Jaurlaritzaren Demokraziari eta Herritarren Parte-hartzeari buruzko Liburu Zuriak hau nabarmentzen du: «Gure administrazioen eta kudeaketa publikoko prozesuen funtzionamendu demokratikoa hobetuko duten aldaketak behar ditugu, herritarrekin batera sarea sortzeko, entzuteko, arreta eskaintzeko eta partekatzeko, gure eginkizuna modu eraginkor, garden eta erantzunkideagoan egin ahal izateko». Eta honela dio: «Parte-hartzea, beraz, Administrazioak erabaki hobeak hartzeko, bere politika eta zerbitzuetarako eragin hobeak lortzeko aukera bat da, baina ahalegin bat egin behar da».</td></tr>
</table>

SE UTILIZA EL CONCEPTO DE LIDERAZGO PARA SUBRAYAR UN ESTILO DIFERENTE DE DIRIGIR LA ORGANIZACIÓN

Frente a un **ESTILO DE DIRECCIÓN JERÁRQUICO** y basado en el **PRINCIPIO DE AUTORIDAD**

Los **LÍDERES DE LA ORGANIZACIÓN** se orientan hacia la **motivación, la implicación y el desarrollo de las personas** como mejor sistema para **lograr los objetivos de la organización con eficiencia.**

LA EXCELENCIA EN EL BUEN GOBIERNO LOCAL REQUIERE DE UN LIDERAZGO TRANSFORMACIONAL, en el que los líderes:
• Den una **orientación** a la organización, desarrollando y comunicando con claridad la MISIÓN, VISIÓN y VALORES.
• Actúen como **modelo de referencia**.
• **Se impliquen personalmente** en el **desarrollo, implantación y mejora** del **sistema de gestión** de la organización.
• **Se relacionen con asiduidad y sistemática** con la ciudadanía, con entidades y asociaciones, con otras administraciones y, en general, con los diferentes grupos de interés.
• **Apoyen el desarrollo de las personas** de la organización y las reconozcan.
• **Fomenten la cohesión** dentro de la organización.
• Muestren **coherencia y firmeza**.
• Sean **capaces de adaptar y reorientar la organización** en función del entorno cambiante.

ES NECESARIO REVISAR Y EVALUAR EL EJERCICIO DEL LIDERAZGO
Revisar y evaluar **EN QUÉ MEDIDA los líderes consiguen desarrollar eficazmente LO QUE LA ORGANIZACIÓN ESPERA DE ELLOS**

EXISTEN DIVERSAS TÉCNICAS QUE PUEDEN AYUDAR A REALIZAR LA EVALUACIÓN:	
TÉCNICAS DE EVALUACIÓN DEL LIDERAZGO	• **Encuestas de satisfacción** de las personas de la organización.
	• **Evaluación cruzada.** En la que bien la persona a la que se rinde cuentas, bien los iguales, bien las personas jerárquicamente subordinadas evalúan el desempeño del líder. Cuando lo hacen todos ellos se denomina de 360º.
	• **Autoevaluación.** Revisando el propio desempeño en función de un modelo de referencia. Por ejemplo, el modelo EFQM o los Doce Desafíos de EUSKALIT.

LIDERGOAREN KONTZEPTUA ERABILTZEN DA ANTOLAKUNDEA ZUZENTZEKO BESTE MODU BAT AZPIMARRATZEKO


AGINTARITZA-PRINTZIPIOAN oinarritutako **ZUZENDARITZA-ESTILO HIERARKIKOAREN** aldean

ANTOLAKUNDEKO LIDERRAK pertsonak motibatzera, inplikatzera eta garatzera bideratzen dira, **antolakundearen helburuak modu efiziente batean lortzeko** sistemarik hoberena delakoan.

BIKAINTASUNAK TOKIKO GOBERNU ONEAN LIDERGO ERALDATZAILE BAT BEHAR DU, eta hor liderrek:
• Antolakundeari **orientazioa** eman behar diote eta XEDEA, IKUSPEGIA ETA BALIOAK argi eta garbi garatu eta komunikatu.
• **Erreferentzia-eredu** gisa jardun behar dute.
• Antolakundearen **kudeaketa-sistemaren garapenean, ezarpenean eta hobekuntzan zuzenean parte hartu** behar dute.
• **Maiz eta era sistematikoan erlazionatu behar dute** herritarrekin, entitateekin eta elkarteekin, beste administrazio batzuekin eta, oro har, interes-taldeekin.
• Antolakundeko **pertsonen garapena babestu** behar dute eta pertsona horiek aintzatetsi.
• Antolakundearen barruan **kohesioa sustatu** behar dute.
• **Koherentzia eta irmotasuna** erakutsi behar dute.
• **Antolakundea** aldatzen ari den inguruaren arabera **egokitzeko eta birbideratzeko gai izan** behar dute.

BEHARREZKOA DA LIDERGOAREN ERABILERA BERRIKUSI ETA EBALUATZEA
Berrikusi eta ebaluatu **liderrek ZER NEURRITAN lortzen duten modu eraginkorrean garatzea ANTOLAKUNDEAK HAIENGANDIK ESPERO DUENA**

EBALUAZIOA EGITEN LAGUN DEZAKETEN ZENBAIT TEKNIKA DAUDE:	
LIDERGOA EBALUATZEKO TEKNIKAK	• Antolakundeko pertsonen **gogobetetzeari buruzko inkestak**.
	• **Ebaluazio gurutzatua.** Kontuak ematen zaizkion pertsonak, berdinkideek edo hierarkian mendean dauden pertsonek liderraren lana ebaluatzen dute. Denek ebaluatzen dutenean, 360º-koa deitzen da.
  - → La satisfacción de la sociedad.
  - → Los resultados de las auditorias y/o autoevaluaciones realizadas durante el año.
  - → Las evaluaciones específicas realizadas de alguna de las políticas públicas desarrolladas.

«Ebaluatzea antolamendu-unitate batetik (haren jarduera barne) eta ingurutik (antolamendu-unitatearen jardueraren ondorioz inguruan dauden aldaketak barne) informazioa lortu eta prozesatzea da, deskribapen, analisi eta balioespen erabilgarriak lortzeko eta haiekin hasiera batean plangintza egiteko».

FANTOVA, Fernando

Kudeaketan eraginkortasunik handiena lortzeko,
EZ DA NAHIKOA egin nahi duguna
PLANIFIKATZEA edo **JARDUERA HANDI BAT ABIARAZTEA**.

UDAL-KUDEAKETAREN JARRAIPENA

- Kudeaketaren jarraipena **UDAL-EREMU OROKORREAN NAHIZ KUDEAKETARAKO AUTONOMIA DUTEN FORO GUZTIETAN egin behar da**: unitateak, departamentuak, arloak, organismo autonomoak, patronatuak... Kasu bakoitzean, **dagozkion alderdiak** aztertu behar dira.

- Jarraipena egitea eremu bakoitzeko **arduradun politiko edo tekniko nagusiaren lana** izan daitekeen arren, **egokiagoa da** lan hori kudeaketa egiten den **EREMU ZEHATZEKO ARDURADUNEN TALDEAK egitea**.

- Kudeaketaren jarraipenak **SISTEMATIKOA IZAN BEHAR DU**, eta, hala, **aurrez ezarri** behar da jarraipen hori egiteko **maiztasuna** (adibidez, hilean behingoa edo hiru hilez behingoa).

- **URTERO**, antolakundearen ibilbidearen **BERRIKUSKETA OROKORRA EGIN BEHAR DA**; hor, jarritako helburuak zenbateraino bete diren ebaluatzen da eta hurrengo urterako helburuak jartzen, betiere **Legegintzako Planarekin bat etorriz**.
- **Urteko berrikusketan** gai hauei buruzko **informazioa** sartu behar da:
  - → Zerbitzua jasotzen duten pertsonen gogobetetzea.
  - → Antolakundean lan egiten duten pertsonen gogobetetzea.
  - → Gizartearen gogobetetzea.
  - → Urtean egindako ikuskapenen edo autoebaluazioen emaitzak.
  - → Garatutako politika publikoren bati dagokionez egindako berariazko ebaluazioak.

«Los resultados clave del rendimiento se refieren a todos aquellos logros que la organización haya determinado que son esenciales y necesarios para medir el éxito de la organización a corto y largo plazo. Los resultados clave del rendimiento son medidas de la eficacia y la eficiencia o de la prestación de servicios o productos, de los fines y de los objetivos, incluyendo las metas específicas políticamente determinadas. Estas medidas serán tanto de tipo financiero como no financiero y muchas de ellas estarán estrechamente conectadas con la política y la estrategia y con los procesos críticos».

El Marco Común de Evaluación (CAF).
Grupo de Servicios Públicos Innovadores Unión Europea

Si **UNA ORGANIZACIÓN SIN OBJETIVOS** es como un **BARCO SIN RUMBO**

UNA ORGANIZACIÓN QUE NO EVALÚA EL LOGRO DE SUS OBJETIVOS es como **UN BARCO QUE, TENIENDO PREFIJADO UN RUMBO, NUNCA CONSULTA SU POSICIÓN** para conocer **EN QUÉ MEDIDA SE ACERCA A SU DESTINO.**

La **EVALUACIÓN DE LOS LOGROS** pierde su sentido si no se han prefijado anteriormente cuáles son los **RESULTADOS CLAVE QUE SE PRETENDEN ALCANZAR**.

En consecuencia, **la EVALUACIÓN SÓLO ES POSIBLE si se ha realizado PREVIAMENTE una ADECUADA PLANIFICACIÓN que incluya la FIJACIÓN DE OBJETIVOS CLAVE**.

PARA LA EVALUACIÓN DEL LOGRO DE LOS OBJETIVOS SE UTILIZAN INDICADORES

MUESTRAN	• Los indicadores muestran **los datos** a los que hacen referencia los **objetivos planteados.** • Así, por ejemplo, si un objetivo clave es ejecutar al menos el 90% del presupuesto de inversiones, el indicador sobre el que se tiene que fijar la atención será el relativo al grado de ejecución presupuestario de las inversiones.
CUADRO DE MANDO	• El **conjunto de indicadores que permiten seguir la evolución de los objetivos clave** configuran el **CUADRO DE MANDO** de la organización. • Permite tener una **visión rápida y sintética del grado de avance** hacia los **objetivos previstos** y es la **base** sobre la que se puede **evaluar el logro de los objetivos prefijados.**
TIPOS	• Los indicadores de resultados **varían de una organización a otra**, según sus objetivos estratégicos. • Sin embargo, siempre hay **indicadores financieros** e **indicadores no financieros**.
REVISABLES	• No debemos olvidar que los indicadores son **un instrumento para valorar el avance, no un fin** en sí mismos. • En consecuencia, también se ha de **revisar anualmente si los indicadores utilizados son los más adecuados**, si compensa **la información que aportan** con **el esfuerzo que supone** la recogida de datos que necesitan.
COMPARACIONES	• Los indicadores **adquieren su máxima potencialidad cuando se les compara**, bien consigo mismos a lo largo del tiempo, bien con otros. • Por ello, **buscar otras organizaciones con las que comparar los logros** ayuda a valorar mejor los resultados e identificar posibles ámbitos de mejora.

«Errendimenduaren funtsezko emaitzek epe laburrera eta luzera antolakundearen arrakasta neurtzeko antolakundeak berak funtsezkotzat eta beharrezkotzat jo dituen lorpenei egiten diete erreferentzia. Errendimenduaren funtsezko emaitzek eraginkortasuna eta efizientzia edo zerbitzuak edo produktuak, xedeak eta helburuak neurtzeko balio dute, politikoki zehaztutako berariazko helburuak barnean direla. Neurri horiek finantzarioak nahiz finantzarioak ez direnak izango dira, eta haietako asko estuki lotuta egongo dira politikarekin eta estrategiarekin eta prozesu kritikoekin».

Ebaluazioko Esparru Erkidea (CAF).
Zerbitzu Publiko Berritzaileen Taldea, Europar Batasuna

HELBURURIK GABEKO ANTOLAKUNDEA NORABIDERIK GABEKO ITSASONTZIA bezalakoa bada

→ **BERE HELBURUEN LORPENA EBALUATZEN EZ DUEN ANTOLAKUNDEA, NAHIZ ETA NORABIDEA EZARRITA EDUKI, HELMUGARANTZ HURBILTZEN ARI DEN** jakiteko **NON DABILEN INOIZ KONTSULTATZEN EZ DUEN ITSASONTZIA** bezalakoa da.

LORPENEN EBALUAZIOAK zentzua galtzen du, aurrez ezarri ez bada **ZER FUNTSEZKO EMAITZA LORTU NAHI DIREN**.

Ondorioz, **EBALUAZIOA BAKARRIK EGIN AHALKO DA, FUNTSEZKO HELBURUAK EZARTZEN dituen PLANGINTZA EGOKI BAT egin bada AURREZ**.

HELBURUEN LORPENA EBALUATZEKO ERABILTZEN DIRA ADIERAZLEAK

ERAKUSTEN DUTE	• **Proposatutako helburuek** aipatzen dituzten **datuak** erakusten dituzte adierazleek. • Hala, adibide moduan, funtsezko helburu bat inbertsioen aurrekontuaren % 90 gutxienez betearaztea bada, kontuan hartu beharreko adierazlea inbertsioen aurrekontu-betearazpenari loturikoa izango da.
AGINTE-TAULA	• **Funtsezko helburuen bilakaeraren jarraipena egiteko adierazleek** antolakundearen **AGINTE-TAULA** osatzen dute. • Aukera ematen du **jarritako helburuak iristeko bidean zenbat aurreratu den azkar eta sintetikoki ikusteko**, eta **aurrez jarritako helburuen lorpena ebaluatzeko oinarria** da.
MOTAK	• Emaitzen adierazleak **aldatu egiten dira antolakunde batetik bestera**, haien helburu estrategikoen arabera. • Hala ere, beti daude **finantza-adierazleak** eta **finantza-arlokoak ez direnak**.
BERRIKUSTEKO MODUKOAK	• Ez dugu ahaztu behar adierazleak **aurrerapena aztertzeko tresnak** direla, **ez** direla berez **helburuak**. • Horren ondorioz, **erabilitako adierazleak egokienak diren berrikusi behar da urtero**, **ematen duten informazioa lortzeko** merezi ote duen behar dituzten datuak biltzeko **halako ahalegina** egitea.
ALDERAKETAK	• Adierazleek **konparatzen direnean hartzen dute potentzialtasun handiena**, beste batzuekin konparatzen direnean edo denboran izandako bilakaeran beren buruarekin konparatzen direnean. • Horregatik, **lorpenak konparatzeko beste antolakunde bat bilatzeak** lagundu egiten du emaitzak hobeto balioesten eta hobekuntza-eremu posibleak identifikatzen.

En una **ORGANIZACIÓN ORIENTADA A LA CIUDADANÍA**, como lo son las organizaciones públicas, la **SATISFACCIÓN DE LA MISMA CON LOS SERVICIOS que se le presta**, ha de estar necesariamente **INCORPORADA A LOS OBJETIVOS CLAVE** de la organización

Por ello, es **CONVENIENTE DISPONER** de **INFORMACIÓN SOBRE LA SATISFACCIÓN:**

DEL CONJUNTO DE LA CIUDADANÍA con la gestión municipal:	• Los aspectos **más destacados de la gestión**, aquellos **peor considerados,** la **valoración de servicios de ámbito universal** como la limpieza, la seguridad o de servicios de amplio impacto ciudadano. • También se valorarán las **principales políticas municipales** (culturales, deportivas, sociales…) y **expectativas de la ciudadanía** en relación con el ayuntamiento.
DE LAS PERSONAS QUE UTILIZAN SERVICIOS ESPECÍFICOS, con la calidad de estos servicios.	• Junto a la **satisfacción global** con el servicio, la valoración de la **atención** recibida, la **profesionalidad** de quien le atendió, los **locales** en que está ubicado el servicio, la **claridad, precisión y utilidad de la información** recibida, la **rapidez** con que se le atendió...

PARA CONOCER LA SATISFACCIÓN DE LA CIUDADANÍA, existen **DIVERSAS METODOLOGÍAS:**

ENCUESTAS A UNA MUESTRA DE LA POBLACIÓN	• **Es la metodología más habitual** para conocer la satisfacción de la ciudadanía. • En el caso de las **personas que utilizan los servicios**, la encuesta puede realizarse **a la salida del servicio** prestado (cuando no es posible otra forma de localización) o bien mediante los métodos habituales de encuestación (en el **domicilio o telefónicamente**). • También pueden ponerse a disposición de quienes acudan, unas **encuestas breves para autocumplimentación** para que las depositen en los lugares preparados al efecto. Este método tiene un **bajo porcentaje de respuestas** y resulta **menos fiable** en sus conclusiones.
TÉCNICAS DE ENTREVISTA DE GRUPO	• Cuando no es importante la obtención de una valoración numérica, sino que **se buscan aspectos más cualitativos o una mayor profundización en las razones de insatisfacción**, pueden utilizarse las técnicas de entrevistas de grupo.
INDICADORES	• Junto a las medidas de percepción obtenidas directamente de las personas, existen **indicadores** que **dan muestras o permiten anticipar un mayor o menor grado de satisfacción**. • **Ejemplos** pueden ser el tiempo medio de respuesta en la tramitación o prestación de servicios, el número de reclamaciones presentadas...

LO PRINCIPAL

tanto de los **ESTUDIOS** que se realicen como de los **INDICADORES** de que se disponga, es la **SISTEMÁTICA DE ANÁLISIS** de los mismos **para la IDENTIFICACIÓN DE ACCIONES DE MEJORA**

Guía Local - ISBN 978-84-7777-690-1

HERRITARREI BEGIRAKO ANTOLAKUNDEETAN,
hala nola antolakunde publikoetan,
nahitaez antolakundeen **FUNTSEZKO HELBURUETAN SARTU** behar da
ematen dituzten **ZERBITZUEI DAGOKIENEZ HERRITARREK DUTEN GOGOBETETASUNA**

Hori dela eta, **KOMENIGARRIA** da
GOGOBETETZEARI BURUZKO INFORMAZIOA IZATEA:

HERRITARRENA udal-kudeaketari dagokionez:	• **Kudeaketatik zer alderdi nabarmentzen dituzten** gehien, zer alderdi diren haientzat **eskasenak**, **zer iritzi duten zerbitzu orokorren gainean** (adibidez, garbitasuna, segurtasuna eta haiengan eragin handia duten zerbitzuak). • **Udal-politika nagusiak** ere ebaluatuko dira (kultura-, kirola- eta gizarte-arlokoak, besteak beste), bai eta **herritarrek** udaletik **zer espero duten** ere.
ZERBITZU ZEHATZAK ERABILTZEN DITUZTEN PERTSONENA, zerbitzu horien kalitateari dagokionez.	• Zerbitzuarekin duten **gogobetetze orokorrarekin batera**, jasotako **arretari buruzko iritzia**, zerbitzua eman duenaren **profesionaltasunari buruzkoa**, zerbitzua kokatua dagoen **lokalari buruzkoa**, jasotako informazioaren **argitasunari, zehaztasunari eta erabilgarritasunari buruzkoa**, arretaren **azkartasunari buruzkoa**...

HERRITARREN GOGOBETETZEAREN BERRI JAKITEKO,
ZENBAIT METODOLOGIA daude:

HERRITARREN LAGIN BATI EGINDAKO INKESTA	• **Metodologiarik ohikoena da** herritarrak zenbateraino gogobete diren jakiteko. • **Zerbitzuak erabiltzen dituzten pertsonen kasuan**, **zerbitzua amaitu eta berehala** egin daiteke inkesta (beste lokalizazio modurik posible ez denean) edo inkestaren ohiko metodoen bitartez (**etxean edo telefono bidez**). • Zerbitzuaren lekura doazenentzat, **haiek zuzenean betetzeko inkesta laburrak** ere erabil daitezke, inkestak horretarako prestatutako tokietan uztekoak. Metodo horrek erantzun nahiko gutxi jaso ohi ditu, eta, ondorioei dagokienez, **ez da hain fidagarria** izaten.
TALDEKO ELKARRIZKETEN TEKNIKAK	• Balioespen numerikoa lortzea garrantzitsua ez denean eta, aitzitik, **alderdi kualitatiboagoen berri jakin nahi denean, edo ez gogobetetzeko arrazoietan gehiago sakondu nahi denean**, taldeko elkarrizketen teknikak erabil daitezke.
ADIERAZLEAK	• Pertsonen gogobetetasunaren berri haiengandik zuzenean jakiteko hautemate-neurriez gain, badira **gogobetetzea handiagoa edo txikiagoa den adierazten duten edo aurrez ikusten laguntzen duten adierazleak** ere. • **Adibidez**, zerbitzuak izapidetzean edo ematean batez beste izan ohi den erantzuteko denbora, aurkeztutako erreklamazioen kopurua...

GARRANTZITSUENA da,

bai egiten diren **AZTERLANETAN,** bai erabiltzen diren **ADIERAZLEETAN,**
azterlan eta adierazle horien **ANALISI-SISTEMATIKA,**
HOBETZEKO EKINTZAK IDENTIFIKATZEARI begira

«Creo que las cosas solamente pueden ir bien, si las personas están satisfechas. Y, por eso, una persona que trabaja en un proyecto debe sentirse orgullosa de hacerlo, transmitirlo de esa manera y compartirlo con su entorno familiar; eso genera tranquilidad e infunde seguridad, posibilitando que se sienta más integrada y, en consecuencia, más participativa.»

SARATXAGA, Koldo, «¿Sinfonía o jazz?»

Otro aspecto sobre el que es necesario disponer de información para identificar así **los ámbitos de mejora** y desarrollar **planes de mejora** efectivos, es el de la **SATISFACCIÓN DE LAS PERSONAS DE LA ORGANIZACIÓN**

PARA ELLO SE UTILIZAN

Indicadores provenientes de los **RESULTADOS DE LAS ENCUESTAS DE SATISFACCIÓN** realizadas a las personas de la organización

INDICADORES INDIRECTOS que pueden predecir una mayor o menor satisfacción

INDICADORES INDIRECTOS

que pueden utilizarse para valorar el grado de satisfacción de las personas

- Índice de respuesta en la encuesta
- Índice de absentismo
- Indicadores relacionados con la formación (personas, horas, presupuesto...)
- Beneficios sociales
- Índice de temporalidad
- ...

METODOLOGÍA PARA DESARROLLAR LA ENCUESTA

La metodología **puede ser variada**, si bien, las mejores prácticas sugieren que se distribuya **a todas las personas** de la organización para que la **cumplimenten individualmente** y la **depositen en urnas** colocadas en lugares estratégicos de la organización.

Es interesante que la ENCUESTA DE SATISFACCIÓN DE PERSONAS recoja valoraciones sobre los siguientes **ÁMBITOS:**

- Condiciones de trabajo
- Formación
- Reconocimiento
- Igualdad de oportunidades
- Selección y promoción
- Conocimiento de los objetivos concretos, la Misión, Visión y Valores de la organización y sus líneas estratégicas
- Autonomía
- Comunicación
- Participación
- Liderazgo
- Sentido de pertenencia
- Satisfacción global

Guía Local - ISBN 978-84-7777-690-1

«Nire ustez, gauzak ongi joateko, pertsonek gogobeteta egon behar dute. Horregatik, proiektu batean diharduen pertsonak horretan aritzeaz harro sentitu behar du, hala erakutsi behar du eta familiako inguru-nearekin partekatu behar du; horrek lasaitasuna ekartzen du eta segurtasuna ematen du, eta aukera ematen du integratuago eta, ondorioz, parte-hartzaileago sentitzeko».

SARATXAGA, Koldo, «¿Sinfonía o jazz?»

Hobetzeko esparruak identifikatzeko eta **hobekuntza-plan** eraginkorrak garatzeko, **ANTOLAKUNDEKO PERTSONEN GOGOBETETZEAREN berri izatea ere beharrezkoa da**.

HORRETARAKO, HAUEK ERABILTZEN DIRA

Antolakundeko pertsonei egindako **GOGOBETETZE-INKESTEN EMAITZETATIK** ateratako adierazleak

INKESTA EGITEKO METODOLOGIA

Metodologia **asko daude** aukeran, baina, praktika hoberenen arabera, komeni da inkestak antolakundeko **pertsona guztiei** banatzea eta haiek **bakarka** betetzea eta antolakundeko toki estrategikoetan kokatuta dauden **kutxa batzuetan** uztea.

ZEHARKAKO ADIERAZLEAK, gogobetetze handiagoa edo txikiagoa iragartzen dutenak

Pertsonen gogobetetzea aztertzeko erabil daitezkeen

ZEHARKAKO ADIERAZLEAK

- Inkestari eman zaion erantzunaren indizea
- Absentismo-indizea
- Trebakuntzarekin loturiko adierazleak (pertsonak, orduak, aurrekontua...)
- Onura sozialak
- Behin-behinekotasun indizea

...

Interesgarria da PERTSONEN GOGOBETETZEA NEURTZEKO INKESTAK EREMU hauei buruzko iritziak jasotzea:

- Lan-baldintzak
- Prestakuntza
- Aitortza
- Aukera-berdintasuna
- Aukeraketa eta sustapena
- Antolakundearen helburu zehatzak, Xedea, Ikuspegia eta Balioak eta haren ildo estrategikoak ezagutzea
- Autonomia
- Komunikazioa
- Parte-hartzea
- Lidergoa
- Antolakundeko kide izatearen sentipena
- Gogobetetze orokorra

Udal Gida - ISBN 978-84-7777-690-1

AUTOEVALUACIÓN	• Es un **EJERCICIO INTERNO DE LA ORGANIZACIÓN** realizada habitualmente por el **equipo de dirección** de la misma. • Consiste en **revisar el funcionamiento de la organización** a la luz de los criterios de **UN MODELO DE REFERENCIA.** • **En nuestro entorno,** el modelo más utilizado actualmente es el **MODELO DE GESTIÓN PÚBLICA AVANZADA.**
	• La autoevaluación **permite fijar una puntuación global a la gestión de la organización**, lo que **ayuda a valorar el avance** que puede realizarse. • Sin embargo, **EL PRINCIPAL OBJETIVO** de una autoevaluación es **DETECTAR LAS ÁREAS DE MEJORA** que hay que desarrollar. • **Una vez priorizadas** las más importantes para el logro de los objetivos estratégicos de la organización, se establece un **PLAN DE MEJORA O PLAN DE CALIDAD**.
EVALUACIÓN EXTERNA	• Comparte las características de la autoevaluación, si bien en este caso la realiza un **equipo de personas que no pertenecen a la organización**. → Es necesario elaborar un breve **Documento Guía de Gestión** que permita al equipo de evaluadores un conocimiento básico de la organización. → Posteriormente realizará una **visita de varios días.** → Finalizará elaborando un **Informe de Evaluación** con una **puntuación** y una relación de los **PUNTOS FUERTES Y LAS ÁREAS DE MEJORA identificadas.** • En Euskadi, las evaluaciones externas sobre el Modelo de Gestión Avanzada las gestiona la **Fundación Vasca para la Excelencia (EUSKALIT).**
AUDITORÍA	• La auditoría es un **proceso sistemático y documentado** que busca obtener evidencias para **DETERMINAR EL GRADO EN QUE SE CUMPLEN UN CONJUNTO DE PROCEDIMIENTOS O REQUISITOS UTILIZADOS COMO REFERENCIA.** • Tiene un **ámbito más específico** que las autoevaluaciones o las evaluaciones externas, ya que **se centra en procesos o servicios concretos y en aspectos concretos**.
	• La auditoría puede ser **INTERNA**, cuando la realizan personas de la propia organización, si bien no trabajan en el proceso o servicio auditado, o **EXTERNA**, cuando la realizan personas ajenas a la organización pertenecientes a entidades certificadoras.
	• El **informe final** de la auditoria **identifica las posibles NO CONFORMIDADES** (incumplimiento de los requisitos) y **plantea OBSERVACIONES**. • Las **NO CONFORMIDADES** han de ser **analizadas por la organización** y elaborar un **PLAN DE ACCIONES CORRECTIVAS**.

Guía Local - ISBN 978-84-7777-690-1

AUTOEBALUAZIOA	• **ANTOLAKUNDEAREN BARNEKO JARDUKETA** da, bertako **zuzendaritza-taldeak** egin ohi duena. • **ERREFERENTZIAZKO EREDU** baten irizpideen arabera **antolakundearen jardunbidea berrikustean datza**. • **Gure inguruan**, gaur egun gehien erabiltzen den eredua **KUDEAKETA PUBLIKO AURRERATUAREN EREDUA** da.
	• Autoebaluazioak **antolakundearen kudeaketari puntuazio global bat jartzeko aukera** ematen du, eta horrek lagundu egiten du **zer aurrerapen egin daitekeen** aztertzen. • Hala ere, autoebaluazioaren **HELBURU NAGUSIA** garatu beharreko **HOBEKUNTZA-ARLOAK DETEKTATZEA** da. • Antolakundearen helburu estrategikoak lortzeko garrantzitsuenak direnei **lehentasuna eman ondoren**, **HOBEKUNTZA-PLANA edo KALITATE-PLANA** ezartzen da.
KANPO-EBALUAZIOA	• Autoebaluazioaren ezaugarri berberak ditu, baina kasu honetan **antolakundekoak ez diren pertsonen talde batek** egiten du ebaluazioa. → **Kudeaketaren Dokumentu Gida** labur bat egin behar da, ebaluatzaile taldeak antolakundearen oinarrizko ezagutza izan dezan. → Ondoren, **hainbat eguneko bisita** egingo du. → Azkenik, **ebaluazio-txosten bat** prestatuko du, **puntuazio** bat eta atzemandako **INDARGUNEEN ETA HOBETZEKO ARLOEN zerrenda** bat dituena. • Euskal Autonomia Erkidegoan, Kudeaketa Aurreratuaren Ereduan oinarritutako kanpo-ebaluazioak **Bikaintasunerako Euskal Fundazioak (EUSKALIT)** kudeatzen ditu.
AUDITORIA	• Auditoria **prozesu sistematikoa eta dokumentatua** da, **ERREFERENTZIA GISA HARTUTAKO PROZEDURA ETA BALDINTZA MULTZO BAT ZENBATERAINO BETETZEN DEN ZEHAZTEKO** frogak lortzeko egiten dena. • Autoebaluazioek edo kanpo-ebaluazioek baino **esparru espezifikoagoa** du, **prozesu edo zerbitzu eta alderdi jakin batzuetan** jartzen baitu arreta.
	• Auditoria **BARNEKOA** izan daiteke (antolakundeko pertsonek egiten dute, baina haiek ez dute lan egiten ikuskatutako prozesuan edo zerbitzuan), edo **KANPOKOA** (antolakundetik kanpoko antolakunde ziurtatzaileetako pertsonek egiten dutena).
	• Auditoriaren **azken txostenak ustez BAT EZ DATOZEN KONTUAK** identifikatzen ditu (baldintzak ez betetzea) eta **OHARRAK** egiten ditu. • **Antolakundeak BAT EZ DATOZEN KONTUAK aztertu** eta **EKINTZA ZUZENTZAILEEN PLAN** bat prestatu behar du.

II.

ETIKA ETA GOBERNU IREKIA

ÉTICA Y GOBIERNO ABIERTO

II.

Ética y gobierno abierto

1. Transparencia.
2. Ética pública e integridad.
3. Participación ciudadana.

Guía Local - ISBN 978-84-7777-690-1

II.

Etika eta gobernu irekia

1. Gardentasuna.
2. Etika publikoa eta integritatea.
3. Herritarren parte-hartzea.

REFERENCIAS SOBRE GOBIERNO ABIERTO EN LA ADMINISTRACIÓN	
Carta Iberoamericana de Gobierno Abierto	El concepto inicial de Gobierno Abierto que comenzó a popularizar el famoso **Memorando de la administración Obama de enero de 2009** se ha ido ampliando con los años. Así, la **Carta Iberoamericana de Gobierno Abierto**, adoptada durante la XVII Conferencia Iberoamericana de Ministras y Ministros de Administración Pública y Reforma del Estado **(Bogotá, 7 y 8 de julio de 2016), entiende el Gobierno Abierto como «el conjunto de mecanismos y estrategias que contribuye a la gobernanza pública y al buen gobierno, basado en los pilares de la transparencia, participación ciudadana, rendición de cuentas, colaboración e innovación, centrando e incluyendo a la ciudadanía en el proceso de toma de decisiones, así como en la formulación e implementación de políticas públicas, para fortalecer la democracia, la legitimidad de la acción pública y el bienestar colectivo».**
Organización para la Cooperación y el Desarrollo Económico (OCDE)	En **diciembre de 2017, la OCDE** adoptó la llamada **Recomendación del Consejo sobre Gobierno Abierto**, que incide en la **definición del concepto como «una cultura de gobernanza que promueve los principios de transparencia, integridad, rendición de cuentas y participación de las partes interesadas en apoyo de la democracia y el crecimiento inclusivo».**
Agenda 2030. Objetivos de Desarrollo Sostenible	Las **políticas y acciones de Gobierno Abierto deben buscar la creación de valor público; el aumento del bienestar y la calidad de vida de las personas y contribuir al fortalecimiento de la democracia y al desarrollo efectivo de la idea del bien común bajo una perspectiva de desarrollo sostenible, inclusión y respeto a la dignidad humana y la diversidad cultural.** Como se recoge en el número **16 de los 17 Objetivos de Desarrollo Sostenible del Programa de las Naciones Unidas para el Desarrollo (Agenda 2030),** sin paz, estabilidad, derechos humanos y gobernabilidad efectiva basada en el Estado de Derecho, no es posible alcanzar el desarrollo sostenible. Este objetivo fija como una de sus **metas para el año 2030** la **creación, a todos los niveles, de instituciones eficaces y transparentes que rindan cuentas y garanticen la adopción, en todos los niveles, de decisiones inclusivas, participativas y representativas que respondan a las necesidades de la ciudadanía**.
Open Government Partnership	Este modelo de Gobierno Abierto tiene, asimismo, reflejo en el trabajo que se desarrolla en el **marco de la Alianza para el Gobierno Abierto (Open Government Partnership),** una **organización internacional de referencia cuyo fin es desarrollar mecanismos para fomentar gobiernos más abiertos, responsables y sensibles a la ciudadanía.** En **abril de 2018**, OGP hizo pública su **decisión de seleccionar a Euskadi como una de las 20 regiones de todo el mundo que participarán en su Programa para Gobiernos Locales.** Desde ese momento, y con la participación de las principales instituciones públicas del País Vasco (entre ellas el Gobierno Vasco, las tres diputaciones forales o las tres capitales) y representantes de la sociedad civil, OGP Euskadi puso en marcha un plan de acción 2018-2020 mediante el cual se constituyeron **cinco grupos de trabajo para abordar otros tantos compromisos**: 1. Rendición de cuentas. 2. Open data y linked data. 3. I-lab de participación ciudadana. 4. Open eskola. 5. Integridad. http://www.ogp.euskadi.eus/ogp-compromisos/-/grupos-por-compromisos/ El segundo Plan Interinstitucional (**2021-2024**) para avanzar en gobierno abierto en Euskadi, realizado como miembros de esta Alianza Internacional, es un plan cocreado con la ciudadanía que incluye 5 compromisos, que deben ser materializables en tres años y con capacidad transformadora. Compromisos que deben implementarse con la colaboración de la sociedad civil y de forma coordinada entre los tres niveles interinstitucionales para dar respuesta a retos clave en gobierno abierto. Compromisos: 1. Observatorio COVID en la ciudad y adecuación de los servicios públicos. 2. Transparencia presupuestaria. 3. Brecha digital: desarrollo y fortalecimiento de la ciudadanía (open eskola). 4. Herramienta para recoger propuestas e iniciativas legislativas de la ciudadanía. 5. Altxor: Servicios online y oficinas de intermediación para información y apoyo a iniciativas de proyectos de vida para personas mayores.
Sello ELoGE	El Sello de Excelencia en Gobernanza (ELoGE) del Consejo de Europa es el mayor reconocimiento a nivel europeo del buen gobierno e innovación democrática para los gobiernos locales que acreditan la calificación de excelencia en base a 12 principios y 97 indicadores **de buen gobierno**, **calidad e innovación democrática alineados con los ODS** (Objetivos de Desarrollo Sostenible). El reconocimiento se obtiene a través de un proceso de autoevaluación que permite identificar fortalezas y debilidades de cada uno de los 12 principios sobre los que pivota esta herramienta que tiene como finalidad promover el reconocimiento de buenas prácticas e identificar áreas de mejora. EUDEL es desde 2017 la plataforma regional acreditada para implantar el Sello en los Ayuntamientos Vascos. El Comité interinstitucional ELoGE está compuesto por EUDEL, el Gobierno Vasco y las Diputaciones Forales de los tres territorios. La metodología europea ha sido adaptada a la realidad vasca a través de dos experiencias piloto, y en la actualidad, abril 2023, son 13 los municipios participantes (https://eloge.eudel.eus/).

Guía Local - ISBN 978-84-7777-690-1

ADMINISTRAZIOKO GOBERNU IREKIARI BURUZKO ERREFERENTZIAK	
GOBERNU IREKIAREN GUTUN IBEROAMERIKARRA	**Obamaren administrazioaren 2009ko urtarrileko memorandum** ospetsuarekin hasi zen ezagun egiten Gobernu Irekiaren kontzeptua, eta hasierako ideia hura urteekin zabaltzen joan da. Hala, **Gobernu Irekiaren Gutun Iberoamerikarraren** arabera, zeina Estatuko Erreformaren eta Administrazio Publikoaren Ministroen XVII. Konferentzia Iberoamerikarrean onartu baitzen (**Bogota, 2016ko uztailak 7 eta 8), Gobernu Irekia da «gobernantza publikoan eta gobernu onean laguntzen duten mekanismo eta estrategien multzoa, gardentasuna, herritarren partaidetza, kontu-ematea, lankidetza eta berrikuntza oinarri hartuta eta herritarrak erabakiak hartzeko prozesuan nahiz politika publikoak egin eta ezartzeko prozesuan txertatuta, demokrazia, ekintza publikoaren legitimitatea eta ongizate kolektiboa indartze aldera».**
EKONOMIA LANKIDETZA ETA GARAPENERAKO ANTOLAKUNDEA (ELGA)	**2017ko abenduan, ELGAk GOBERNU IREKIARI BURUZKO KONTSEILUAREN GOMENDIOA** deiturikoa ezarri zuen. Gomendio horrek berariaz azpimarratzen du **kontzeptuaren definizioa, honela**: **«gardentasunaren, integritatearen, kontu-ematearen eta alde interesdunen parte-hartzearen printzipioak sustatzen dituen gobernantza-kultura, demokrazia eta hazkunde inklusiboa babeste aldera».**
AGENDA 2030. GARAPEN JASANGARRIKO HELBURUAK	**GOBERNU IREKIKO POLITIKA ETA EKINTZEN HELBURUAK HONAKOAK IZAN BEHAR DIRA: BALIO PUBLIKOA SORTZEA; PERTSONEN ONGIZATEA ETA BIZI-KALITATEA AREAGOTZEA; ETA DEMOKRAZIA INDARTZEN ETA ONGIZATE KOMUNAREN IDEIA ERAGINKORTASUNEZ GARATZEN LAGUNTZEA, GARAPEN JASANGARRIAREN, INKLUSIOAREN ETA GIZA DUINTASUNAREKIKO ETA ANIZTASUN KULTURALAREKIKO ERRESPETUAREN IKUSPEGIAN OINARRITUTA.** **Garapenerako Nazio Batuen Programako Garapen Jasangarriko 17 Helburuetako 16.enean** jasotzen denaren arabera **(Agenda 2030)**, bakerik, egonkortasunik, giza eskubiderik eta ZUZENBIDE-ESTATUAN oinarritutako benetako gobernagarritasunik gabe ezin da garapen jasangarririk lortu. Helburu honen **XEDEETAKO BAT, 2030. URTEARI BEGIRA, HONAKO HAU DA: MAILA GUZTIETAN ERAKUNDE eraginkor eta gardenak SORTZEA, kontuak emango dituztenak eta maila guztietan erabaki inklusibo, parte-hartzezkoak eta ordezkagarriak ezartzen direla bermatzen dutenak, herritarren beharrizanei erantzuteko.**
OPEN GOVERNMENT PARTNERSHIP	Gobernu Irekiaren eredu hori, era berean, **Gobernu Irekirako Aliantzaren esparruan (Open Government Partnership)** garatzen den lanean islatzen da. **Nazioarteko antolakunde horren HELBURUA DA GOBERNU IREKIAGOAK, ARDURATSUAGOAK ETA HERRITARREKIKO SENTIKORRAGOAK SUSTATZEKO MEKANISMOAK GARATZEA.** **2018ko apirilean,** OGPk iragarri zuen **EUSKADI IZANGO ZELA TOKIKO GOBERNUETARAKO BERE PROGRAMAN PARTE HARTUKO ZUEN MUNDU OSOKO 20 ESKUALDEETAKO BAT.** Une horretatik aurrera, eta Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde publiko nagusien (tartean Eusko Jaurlaritza, hiru foru aldundiak edo hiru hiriburuak) eta gizarte zibilaren partaidetzarekin, OGP Euskadik 2018-2020 EKINTZA-PLANA jarri zuen martxan, **bost konpromiso jorratzeko BOST LANTALDE eratuta:** 1. Kontu-ematea. 2. Open data eta linked data. 3. Herritarren partaidetzarako I-lab. 4. Open eskola. 5. Integritatea. http://www.ogp.euskadi.eus/ogp-konpromisoak/-/konpromisoak-egindako-taldeak/ Euskal Autonomia Erkidegoan gobernu ireki bat izateko bidean aurrera egiteko erakundearteko bigarren plana (**2021-2024**) herritarrekin batera sortutako plan bat da, bost konpromiso biltzen dituena eta nazioarteko aliantza horretako kide gisa egindakoa. Konpromiso horiek hiru urtean bete behar dira, eta eraldatzeko gaitasuna izan behar dute. Konpromiso horiek gizarte zibilaren laguntzarekin gauzatu behar dira, eta erakunde arteko hiru mailen artean koordinatuta, gobernu irekiaren funtsezko erronkei erantzuteko. Konpromisoak: 1. Hiriko COVID behatokia eta zerbitzu publikoen egokitzapena. 2. Aurrekontu-gardentasuna. 3. Eten digitala: herritarrak garatzea eta indartzea (eskola irekia). 4. Herritarren proposamen eta legegintza-ekimenak biltzeko tresna. 5. Altxor: adinekoentzako bizi-proiektuen ekimenei informazioa eta laguntza emateko online-zerbitzuak eta bitartekaritza-bulegoak.
ELOGE ZIGILUA	Europako Kontseiluaren Gobernantzako Bikaintasunaren Zigilua (ELoGE) gobernu onaren eta berrikuntza demokratikoaren aitorpen handiena da **garapen jasangarrirako helburuekin (GJH) bat datozen gobernu onaren, kalitatearen eta berrikuntza demokratikoaren** 12 printzipio eta 97 adierazleren arabera bikaintasun-kalifikazioa egiaztatzen duten tokiko gobernuentzat Europan. Aintzatespena autoebaluazio-prozesu baten bidez lortzen da. Autoebaluazio horri esker, tresna honen oinarrian dauden hamabi printzipioetako bakoitzaren indarguneak eta ahuleziak identifika daitezke. Tresnaren helburua jardunbide egokiak aitortzea eta hobetzeko arloak identifikatzea da. EUDEL da, 2017tik, EAEko udaletan zigilua ezartzeko izendatuta dagoen eskualde-plataforma. ELoGE Erakundearteko Batzordea EUDELek, Eusko Jaurlaritzak eta hiru lurraldeetako foru-aldundiek osatzen dute. Europako metodologia EAEko egoerara egokitu da, bi esperientzia aitzindariren bidez, eta orain, 2023ko apirilean, hamahiru udalek parte hartzen dute haietan (https://eloge.eudel.eus/).

- La evolución de estos últimos años en las políticas públicas y la asunción, en diversas instancias y niveles, de estos planteamientos, hace QUE EL HABITUAL **TRINOMIO DE TRANSPARENCIA, COLABORACIÓN Y PARTICIPACIÓN** que se suele enumerar al hablar de Gobierno Abierto **YA NO SEA SUFICIENTE.**
- Es **NECESARIO PONER EL FOCO EN LAS DINÁMICAS TRANSFORMADORAS** que tiene que generar la adopción de la filosofía de Gobierno Abierto: **A NIVEL INTERNO**, dentro de los organismos públicos; y **A NIVEL EXTERNO**, hacia las sociedades que son su ámbito de referencia.

PRACTICAS ASOCIADAS A LA FILOSOFÍA DE GOBIERNO ABIERTO

En el ámbito local, las prácticas asociadas a la filosofía del Gobierno Abierto deben servir para:

- **FORTALECER LA LEGITIMIDAD DE LAS INSTITUCIONES LOCALES,** mediante **acciones proactivas y reactivas de transparencia** que contribuyan a generar confianza entre la ciudadanía, al poner a su disposición información sobre sus actividades, sobre el uso que hace de los recursos públicos y sus resultados, en base a principios de relevancia, accesibilidad, veracidad y facilidad de comprensión.

- **FOMENTAR LA GESTIÓN EFICIENTE Y EFICAZ DE LOS ASUNTOS PÚBLICOS,** con la innovación, el respeto a la diversidad y la accesibilidad universal como principios rectores y la rendición de cuentas como condición indispensable de la labor pública que propicia el ejercicio pleno del derecho democrático a la supervisión y control de la actividad de las instituciones.

- **FAVORECER LA IMPLICACIÓN Y PARTICIPACIÓN CIUDADANA EN LA GESTIÓN DE LO PÚBLICO,** con sistemas y herramientas que permitan a la ciudadanía, organizada o no, involucrarse en el diseño, ejecución y evaluación de las políticas públicas, haciendo que la participación se entienda como una práctica, como una metodología de trabajo, y no como un proceso puntual.

- **FACILITAR EL DESARROLLO Y CRECIMIENTO ECONÓMICO A TRAVÉS DE LA PUESTA A DISPOSICIÓN DE CUALQUIERA DE LOS DATOS GENERADOS POR LA ADMINISTRACIÓN EN EL DESARROLLO DE SUS COMPETENCIAS,** permitiendo la distribución, reutilización y transformación libre de esos datos, en el marco de políticas de liberación de datos que contemplen escrupulosamente los requerimientos legales en materia de protección de datos.

- Azken urteotan politika publikoetan egondako bilakaeraren eta hainbat instantzia eta mailatan planteamendu horiek ezartzearen ondorioz, ohikoa da **GARDENTASUNAK, LANKIDETZAK ETA PARTAIDETZAK OSATZEN DUTEN HIRUKOTEA**, hots, Gobernu Irekiari buruz hitz egitean aipatu ohi dena, **DAGOENEKO ASKI EZ IZATEA.**
- **DINAMIKA ERALDATZAILEAK JORRATU BEHAR DIRA**, Gobernu Irekiaren filosofia ezar dadin: **BARRURA BEGIRA**, erakunde publikoen eremuan; eta **KANPORA BEGIRA**, beren erreferentzia-esparru diren gizarteetarantz.

GOBERNU IREKIAREN FILOSOFIAREKIN LOTUTAKO PRAKTIKAK

Tokiko eremuan, Gobernu Irekiaren filosofiarekin lotutako praktikak baliagarri izan behar dira:

- **TOKI-ERAKUNDEEN LEGITIMITATEA INDARTZEKO, gardentasunaren arloko ekintza proaktibo eta erreaktiboen** bidez, herritarren artean konfiantza sortzen laguntzeko, beren esku jarriko baitute jarduerei, baliabide publikoen gainean egiten den erabilerari eta horien emaitzei buruzko informazioa, garrantziaren, irisgarritasunaren, egiazkotasunaren eta ulerterraztasunaren printzipioen arabera.

- **GAI PUBLIKOEN KUDEAKETA ERAGINKORRA ETA EFIZIENTEA SUSTATZEKO**, berrikuntza, aniztasunaren errespetua eta irisgarritasun unibertsala izanik printzipio gidariak eta kontu-ematea izanik ezinbesteko baldintza erakundeen jarduera ikuskatu eta kontrolatzeko eskubide demokratikoa osorik baliatzea sustatzen duen zeregin publikoan.

- **HERRITARREK ARLO PUBLIKOA KUDEATZEKO ORDUAN DUTEN INPLIKAZIOA ETA PARTAIDETZA SUSTATZEKO**, herritarrak, antolatuak izan nahiz ez, politika publikoak diseinatu, betearazi eta ebaluatzeko orduan inplikatu ahal izateko tresna eta sistemen bidez, partaidetza praktika edo lan-metodologia bat izan dadin, eta ez, ordea, prozesu zehatz bat.

- **ADMINISTRAZIOAK BERE ESKUMENAK GARATZEAN SORTUTAKO DATUETAKO EDOZEIN ESKURAGARRI JARTZEAN HAZKUNDE ETA GARAPEN EKONOMIKOA ERRAZTEKO**, datu horiek askatasunez banatu, berrerabili eta eraldatu daitezen datuak askatzeko politiken esparruan, datuak babesteaaren gaineko legezko eskakizunak zehatz-mehatz beteta.


GOBIERNO ABIERTO

Una forma de entender la gestión de lo público que **CAMBIA EL MODO TRADICIONAL DE ENTENDER LA TRADICIONAL RELACIÓN VERTICAL ENTRE ADMINISTRACIÓN Y CIUDADANÍA, que ahora dialogan al mismo nivel**.

Un cambio de mentalidad que implica **FOMENTAR LA MÁXIMA TRANSPARENCIA** en la actividad de las administraciones y **FAVORECER Y FACILITAR LA IMPLICACIÓN CIUDADANA en los procesos de decisión y control**.

Un modelo en el que la **INNOVACIÓN Y EL USO DE LAS NUEVAS TECNOLOGÍAS** van encaminadas a **mejorar la eficiencia y eficacia** en la gestión.

Un modelo que pretende **AFIANZAR LA POSICIÓN DE LA CIUDADANÍA EN EL FUNCIONAMIENTO DEL SISTEMA DEMOCRÁTICO**, permitir el ejercicio de la **RENDICIÓN DE CUENTAS** y **ESTABLECER CANALES Y MECANISMOS DE COMUNICACIÓN BIDIRECCIONAL** de la sociedad con los organismos públicos.



PILARES DEL GOBIERNO ABIERTO

Elementos que **SE INTERRELACIONAN Y COMPLEMENTAN ENTRE SÍ**: no son principios aislados, sino que **CADA UNO CONTRIBUYE AL LOGRO DE LOS OTROS** de manera orgánica e interdependiente.

⇒ **TRANSPARENCIA Y ACCESO A LA INFORMACIÓN PÚBLICA**, para lo que hay que **consolidar las prácticas y protocolos internos** que permitan hacer frente con eficacia al cumplimiento de los **requisitos** de publicidad activa que establece la Ley y posibiliten el ejercicio efectivo del derecho de acceso a la información pública por parte de la ciudadanía.

⇒ **RENDICIÓN DE CUENTAS**, porque la finalidad de la transparencia debe ser facilitar **la evaluación de la actuación de la administración**. El gobierno local debe fundamentar sus acciones y asumir la responsabilidad sobre sus decisiones, siendo capaz de responder por el uso que hace de los bienes o recursos públicos y por los resultados obtenidos en el cumplimiento del mandato conferido. Deben articularse sistemas que permitan a la sociedad civil realizar un **seguimiento de los compromisos de legislatura y de la acción de gobierno**.

⇒ **PARTICIPACIÓN Y COLABORACIÓN CIUDADANA**, con el abordaje de la construcción de políticas públicas en permanente diálogo con la ciudadanía. Se debe aportar la información para contribuir, mediante **formación y sensibilización**, a que la ciudadanía se dote de las capacidades necesarias para participar de forma eficiente y eficaz. Deben crearse incentivos a la participación y actuar para reducir o eliminar las resistencias y frenos existentes.

⇒ **LIBERACIÓN DE DATOS EN FORMATOS ABIERTOS**: los datos generados con dinero público pertenecen a la ciudadanía y todos aquellos datos obtenidos o generados por la Institución en el ejercicio de sus funciones, deben ser puestos a disposición de ella. La sociedad puede hacer con esos datos lo que estime conveniente y generar, con su uso, riqueza y conocimiento. Las instituciones locales deben establecer **políticas de liberación de datos**, en formatos reutilizables y abiertos, que permitan la creación de servicios y productos, e incentiven la innovación pública y la co-creación.

⇒ **INTEGRIDAD Y ÉTICA INSTITUCIONAL**: un sistema de integridad institucional que, en base a unos **principios y/o valores sólidos**, enmarque toda la acción municipal en todos sus niveles, desde los cargos electos hasta el personal.


GOBERNU IREKIA

Arlo publikoaren kudeaketa ulertzeko modu bat da. Haren arabera, **ADMINISTRAZIOAREN ETA HERRITARREN ARTEKO HARREMAN BERTIKAL TRADIZIONALA ULERTZEKO MODU TRADIZIONALA ALDATU EGITEN DA, maila berean hitz egin dezaten**.

Mentalitate-aldaketa da, administrazioen jardueran **AHALIK ETA GARDENTASUN GEHIEN** sustatu dadin eta **HERRITARREK erabakiak hartu eta kontrolatzeko prozesuetan duten inplikazioa SUSTATU ETA ERRAZTU** dadin.

Eredu honek kudeaketan **eraginkortasuna eta efizientzia hobetzera** bideratuko du **BERRIKUNTZA ETA TEKNOLOGIA BERRIEN ERABILERA.**

Herritarrek SISTEMA DEMOKRATIKOAREN FUNTZIONAMENDUAN DUTEN POSIZIOA FINKATU, KONTUAK EMAN daitezela ahalbidetu, eta gizarteak erakunde publikoekin **KOMUNIKATZEKO KANAL ETA MEKANISMOAK EZARTZEA** xede duen eredua da.



GOBERNU IREKIAREN ZUTABEAK

BEREN ARTEAN HARREMANAK DITUZTEN ETA OSATZEN diren elementuak: ez dira printzipio isolatuak, **HORIETAKO BAKOITZAK BESTEEN LORPENEAN LAGUNTZEN** du, modu organiko eta independentean.

⇒ **GARDENTASUNA ETA INFORMAZIO PUBLIKORAKO SARBIDEA**; horretarako, **barne-mailako praktikak eta protokoloak** finkatu behar dira, eraginkortasunez bete daitezen Legeak ezartzen dituen publizitate aktiboaren **baldintzak** eta herritarrek informazio publikoa eskuratzeko eskubidea eraginkortasunez balia dezaten.

⇒ **KONTU-EMATEA**, gardentasunaren xedeak izan behar baitu **administrazioaren jarduera ebaluatzen** laguntzea. Tokiko gobernuak bere ekintzen arrazoiak azaldu behar ditu eta bere erabakien gaineko ardurak hartu, gai izanik ondasunen eta baliabide publikoen gainean egiten duen erabileraren eta dagokion agintaldian lortutako emaitzen zioz erantzuteko. Gizarte zibilari **legegintzaldiko konpromisoen eta gobernu-ekintzaren jarraipena** egiteko aukera emango dioten sistemak antolatu behar dira.

⇒ **HERRITARREN PARTAIDETZA ETA LANKIDETZA**, herritarrekin etengabe hitz egiteko politika publikoak eraikita. Informazioa eman behar da, **prestakuntzaren eta sentsibilizazioaren** bidez herritarrek beharrezko gaitasunak izan ditzaten partaidetza eraginkor eta efizientea izateko. Partaidetzarako pizgarriak sortu behar dira, eta dauden oztopo eta eragozpenak murriztu edo ezabatzeko jardun.

⇒ **DATUAK FORMATU IREKIETAN ASKATU BEHAR DIRA**: diru publikoarekin sortutako datuak herritarrenak dira, eta, hortaz, erakundeek beren funtzioak betetzean sortu eta eskuratutako datuak herritarren esku jarri behar dira. Gizarteak egoki deritzona egin dezake datu horiekin eta, datuok erabilita, aberastasuna eta ezagutza sor ditzake. Tokiko erakundeek **datuak askatzeko politikak** ezarri behar dituzte, berrerabiltzeko aukera ematen duten formatu irekietan, zerbitzuak eta produktuak sor daitezen eta berrikuntza publikoa eta elkarrekiko sorrera piztu daitezen.

⇒ **INTEGRITATE ETA ETIKA INSTITUZIONALA**: integritate instituzionaleko sistema, **printzipio edo/eta balio solido** batzuen arabera udalekintza osoa kokatu dezan, maila guztietan, hautetsien karguetatik langileetaraino.

LA TRANSPARENCIA NO ES SOLO PUBLICAR Y RESPONDER (transparencia comunicada)
SI ALGO NO ES ACCESIBLE O ENTENDIBLE, DIFÍCILMENTE SERÁ TRANSPARENTE (transparencia percibida)

LA LEY 2/2016, DE INSTITUCIONES LOCALES DE EUSKADI, DICE QUE LA INFORMACIÓN DEBE SER:

VERAZ | DE FÁCIL ACCESO | NO DISCRIMINATORIA | CLARA | SENCILLA | ENTENDIBLE

LA TRANSPARENCIA EFECTIVA REQUIERE TRABAJO INTERNO

SENSIBILIZACIÓN

No se trata de formar en los **requisitos legales** (que también) sino de que **la Organización interiorice la cultura de la transparencia**: sus beneficios hacia dentro y hacia fuera.

Procesos, procedimientos, protocolos…	**Revisados a la luz de los requisitos de publicidad activa**, estableciendo **responsabilidades** y **asignando tareas** a los departamentos y servicios.
Definición de planes y acciones	Con **indicadores de evolución** que permitan **evaluar las políticas públicas** y con la vista puesta en la **rendición de cuentas**.
Trabajo con datos	En **formatos abiertos** y pensando en su **liberación, en clave de interoperabilidad (portales open data)**.

Entender que el trabajo de la Administración debe desarrollarse como en una urna de cristal.

Prever que podrían solicitarnos cualquier información de nuestro trabajo y trabajar con esa premisa.

BUSCAR EL COMPROMISO INTERNO QUE PERMITA MEJORAR EN EFICIENCIA Y EFICACIA

+

LA TRANSPARENCIA EFECTIVA REQUIERE COMUNICACIÓN

Bajo la premisa del «derecho a entender de la ciudadanía, el derecho a la información»

- No se trata únicamente de **cumplir los mínimos** que establece la Ley en cuanto a publicidad activa.
- **Se trata de la forma en que comunicamos esa información y la acción de gobierno y los soportes que utilizamos**.

Lenguaje en clave ciudadana	**Criterios de comunicación clara** (lectura fácil y lenguaje sencillo) para **garantizar la accesibilidad universal** a la información.
Recursos visuales y gráficos	Uso de **recursos gráficos para la información financiera o muy compleja** (plataformas gráficas para los presupuestos y la rendición de cuentas).
Manejo de los datos personales	Adopción de protocolos y **medidas de seudonimización y anonimización** de los datos personales en aquella información que se haga pública.

LA TRANSPARENCIA EFECTIVA EXIGE QUE LA INFORMACIÓN SEA ACCESIBLE, ENCONTRABLE, ACTUALIZADA Y COMPRENSIBLE.

La información que se facilita, también en respuesta a una solicitud, debe ser veraz y pertinente.

GENERAR EL ENTORNO ADECUADO PARA DINÁMICAS DE PARTICIPACIÓN Y COLABORACIÓN CIUDADANAS

VENTAJAS PRINCIPALES DE LA APLICACIÓN DE LA TRANSPARENCIA

Credibilidad	Aumenta **la credibilidad de la ciudadanía respecto de las administraciones públicas**.
Confianza	Otorga **mayor legitimidad social** y contribuye a crear un **ambiente de confianza** hacia éstas.
Control	Permite la **rendición de cuentas** de las administraciones frente a la sociedad.
Participación	Con una información clara y detallada, **la ciudadanía puede participar en la gestión de lo público**.
Mejor gestión	Trabajar **desde la cultura de la transparencia**, mejora la **eficiencia y la eficacia** de la gestión.

REFUERZA LA DEMOCRACIA	El derecho de acceso de los ciudadanos a la información mediante la transparencia **refuerza el ejercicio de la democracia** al no limitar la participación ciudadana al proceso electoral.

GARDENTASUNA EZ DA SOILIK ARGITARATU ETA ERANTZUTEA (komunikatutako gardentasuna)
ZERBAIT EZ BADA IRISGARRIA EDO ULERTERRAZA, NEKEZ IZANGO DA GARDENA (jasotako gardentasuna)

EUSKADIKO TOKI ERANKUNDEEI BURUZKO 2/2016 LEGEAREN ARABERA INFORMAZIOA HONELAKOA IZAN BEHAR DA:

EGIAZKOA | ESKURAGARRIA | EZ DISKRIMINATZAILEA | ARGIA | ERRAZA | ULERGARRIA

BENETAKO GARDENTASUNA LORTZEKO BARNE-MAILAN EGIN BEHAR DA LAN

SENTSIBILIZAZIOA

Kontua ez da **legezko baldintzen** gaineko prestakuntza ematea (hori ere egin behar den arren), baizik eta **erakundeak gardentasunaren kultura beregana dezala**. Alegia, uler dezala onurak dituela bai barrura bai kanpora begira.

Prozesuak, prozedurak, protokoloak…	**Publizitate aktiboaren baldintzen arabera berrikusita**, **erantzukizunak** ezarriz eta **zereginak esleituz** sail eta zerbitzuei.
Plan eta ekintzen definizioa	**Bilakaera-adierazleekin, politika publikoak ebaluatu** ahal izateko eta **kontuak emateko**.
Datuekin lanean	**Formatu irekietan askatzeko** modukoak izan daitezen, **elkarreragingarritasuna** sustatuz **(Open data atariak)**.

Administrazioaren lana kristalezko kutxa batean bezala egin behar dela ulertzea.

Gure lanari buruzko edozein informazio eskatu diezaguketela aurreikusi eta ideia horrekin lan egitea.

ERAGINKORTASUNA ETA EFIZIENTZIA HOBETU AHAL IZATEKO BARNE-KONPROMISOA BILATZEA

+

BENETAKO GARDENTASUNA LORTZEKO KOMUNIKAZIOA BEHAR DA
«herritarrek ulertzeko eta informazioa jasotzeko duten eskubidea» oinarritzat hartuta betiere

- Kontua ez da soilik Legeak publizitate aktiboaren gainean ezartzen dituen **gutxienekoak betetzea**.
- Informazio hori komunikatzeko modua, erabiltzen ditugun euskarriak eta gobernuaren ekintza ere garrantzitsuak dira.

Herritarrentzako hizkuntza irisgarria	**Komunikazio argiko irizpideak** (irakurketa erraza ea hizkuntza sinplea), informaziorako **irisgarritasun unibertsala bermatzeko**.
Ikusizko baliabideak eta grafikoak	**Finantza-informaziorako edo informazio oso konplexurako baliabide grafikoen** erabilera (aurrekontuetarako eta kontuak emateko plataforma grafikoak).
Datu pertsonalen erabilera	Datu pertsonalak **seudonimizatzeko eta anonimo bihurtzeko** protokoloak eta **neurriak** aplikatzea argitaratzen den informazioan.

GARDENTASUNA ERAGINKORRA IZAN DADIN, INFORMAZIOAK IRISGARRIA, ERRAZ AURKITZEKO MODUKOA, EGUNERATUA ETA ULERTERRAZA IZAN BEHAR DU.

Ematen den informazioa, eskari bati erantzuteko izan arren, egiazkoa eta egokia izan behar da.

HERRITARREN PARTAIDETZA ETA LANKIDETZARAKO DINAMIKETARAKO INGURU EGOKIA SORTZEA

GARDENTASUNAREN APLIKAZIOAREN ABANTAILA NAGUSIAK

Sinesgarritasuna	**Herritarrek administrazio publikoekiko duten sinesgarritasuna** areagotzen du.
Konfiantza	**Gizarte-legitimazio handiagoa** ematen du eta horiekiko **konfiantza-giroa** sortzen laguntzen du.
Kontrola	Administrazioak gizarteari **kontuak emateko** aukera ahalbidetzen du.
Parte-hartzea	Informazio argi eta zehatzarekin, **herritarrek arlo publikoa kudeatzeko orduan parte har dezakete**.
Kudeaketa hobea	**Gardentasunaren kulturatik** lan egitea kudeaketaren **eraginkortasuna eta efizientzia** hobetzeko.

DEMOKRAZIA INDARTZEN DU	Gardentasunaren bidez herritarrek informaziora sartzeko duten eskubideak **demokraziaren egikaritzapena indartzen du**, herritarren parte-hartzea ez baitu hauteskunde-prozesura mugatzen.

Ley 19/2013, de 9 de diciembre, de Transparencia, Acceso a la Información Pública y Buen Gobierno	Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi
AYTO. DE LEGAZPI	• **Sistema de integridad institucional** construido sobre la **base** del **sistema de la Diputación Foral de Gipuzkoa**. • Modelo institucional que, de momento, tiene **tres códigos aprobados**: → **Código Ético y de Buen Gobierno** de los **cargos municipales con responsabilidades de Gobierno.** → **Código Ético y de Buen Gobierno** de los **cargos municipales.** → **Código Ético y de Buen Gobierno** del **empleado público.** • Es **el modelo más avanzado**, de momento, en la construcción de sistemas de integridad institucional **en el ámbito de los gobiernos locales en Euskadi.** • Es un **modelo de referencia** para la construcción de otros sistemas o la aprobación de códigos de conducta. • **Diferencia**: a) **Funciones ejecutivas** (Gobierno municipal); b) **Funciones representativas** (Pleno); c) **Funciones técnico-administrativas** (empleado público). https://www.legazpi.eus/es/ayuntamiento/sistema-de-integridad/codigos-eticos https://www.legazpi.eus/es/ayuntamiento/sistema-de-integridad/una-legazpi-ejemplar
AYTO. DE BARCELONA	• **Código Ético y de Conducta** del Ayuntamiento de Barcelona. • **Disposición normativa reglamentaria** (aspecto criticable: rigidez). • Construcción de una infraestructura ética con **Marco de Integridad Institucional**. • **Ámbito subjetivo de aplicación:** representantes políticos, gerentes, directivos, eventuales, etc. Se aplica a funcionarios de libre designación con funciones directivas. • **Código de conducta**, pero **con normas de incompatibilidades**. • **Confusión en los valores y principios.** • **Detalle en el enunciado de las normas de conducta.** • **Punto fuerte: Comisión de Ética**, compuesta por externos, repartidos según fuerzas políticas. • **Problemas: funcionamiento (sanciones).** • **Adaptación compleja**, pues se ha aprobado por **Reglamento. No tuvo unanimidad**. https://ajuntament.barcelona.cat/transparencia/es/codigo-conducta

JARDUNBIDE ONAK FORU-ADMINISTRAZIOAN: GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO INTEGRITATE INSTITUZIONALEKO SISTEMA

- **Goi-karguen kodea eta sistema** onartzea, **integritate-esparrua** duena.
- **Xedea**: **integritate-sistema** bat eraikitzea **erakundearentzat oro har** (karguak, enplegatuak, kontratistak, diruz lagundutako erakundeak eta abar).
- **Sistematika berri eta aurreratua**: balore etikoak eta jokabide-arauak, nahiz gobernu onaren eta administrazio onaren gaineko jardunbideak eta printzipioak definitzen ditu.
- **Estatuko eredurik aurreratuena da**. Eusko Jaurlaritzaren eredua jarraitzen du, baina sakondu eta sistematizatu egiten du.
- **Etika Batzordea**: barruko eta kanpoko kideak (2/3).
- **Integritate Sistemako elementuak (Kodeak):**
  - → Jokabide Kodea eta Integritate Esparrua, foru-karguetan aplikatu daitekeena.
  - → Kontratazio Publikoaren kodea.
  - → Foru Enplegu Publikoaren kodea.
  - → Dirulaguntzen kodea.

https://www.gipuzkoa.eus/eu/aldundia/zuzentasun-sistema

ERANSKINA (ADIBIDEA):

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO FORU-KARGUEN JARDUNBIDE ONEN ETA JOKABIDE-KODEAREN BALOREAK ETA PRINTZIPIOAK:

INTEGRITATE INSTITUZIONALEKO BALOREAK	JARDUNBIDE ONEN PRINTZIPIOAK
INTEGRITATEA	GARDENTASUNA
EREDUGARRITASUNA	DATU IREKIAK
ZINTZOTASUNA/INTERESIK EZA	KUDEAKETA/BERRIKUNTZA
OBJEKTIBOTASUNA	EUSKARAREN SUSTAPENA/ERABILERA
PROFESIONALTASUNA	KOHESIO EKONOMIKO-SOZIALA ETA LURRALDE-OREKA
EFIZIENTZIA	HARREMAN-GOBERNUA
BIZIKIDETZA ETA ERRESPETUA	KONTU-EMATEA

JARDUNBIDE ONAK TOKI-ADMINISTRAZIOAN:

BILBOKO UDALA

- Bilboko Udaleko **jokabideari, gobernu onari eta kalitate instituzionalarekiko konpromisoari buruzko kodea** (osoko bilkuraren erabakiaren bidez onartua 2015-XI-25ean).
- **Ordezkaritza-karguei eta zuzendaritza-kideei** aplikagarria. **Jokabide-arauen** aldea**, kolektiboen arabera** (exekutiboak eta zuzendaritza-kideak, osoko bilkurako kideak).
- **Indar politiko guztien atxikipena** jaso zuen, **batena izan ezik.**
- **Eusko Jaurlaritzako** Kodea eta **EUDEL** 2013 kodearen zirriborroa hartzen ditu **eredutzat**.
- **Integritate-esparrua**: prebentzioa, hedapena eta prozedurak.
- **Berme-organoa:** Etika Batzordea (barruko eta kanpoko kideak (3/2).
- **Garapen praktiko urria.**

https://www.bilbao.eus/cs/Satellite?c=Page&cid=1279148413525&language=eu&pageid=1279148413525&pagename=Bilbaonet%2FPage%2FBIO_contenidoFinal

LEGAZPIKO UDALA

- **Integritate instituzionaleko sistema, Gipuzkoako Foru Aldundiko sistemaren oinarriaren** gainean eraikia.
- Momentuz **hiru kode onartuta** dituen eredu instituzionala:
  - → **Gobernuan erantzukizunak dituzten udal-karguen Etika eta Gobernu Onaren Kodea.**
  - → **Udal-karguen Etika eta Gobernu Onaren Kodea.**
  - → **Enplegatu publikoaren Etika eta Gobernu Onaren Kodea.**
- **Euskadiko tokiko gobernuen eremuan** integritate instituzionaleko sistemak eraikitzeko **eredurik aurreratuena** da oraingoz.
- Beste sistema batzuk eraiki edo jokabide-kodeak onartzeko **erreferentzia-eredua** da.
- **Aldea**: a) **Funtzio exekutiboak** (Udal-gobernua); b) **Ordezkaritza-funtzioak** (Osoko Bilkura); c) **Funtzio tekniko administratiboak** (enplegatu publikoa).

https://www.legazpi.eus/udala/zuzentasun-sistema/etika-kodeak

https://www.legazpi.eus/udala/zuzentasun-sistema/legazpi-eredugarri-bat

BARTZELONAKO UDALA

- Bartzelonako Udalaren **Etika eta Jokabide Kodea**.
- **Erregelamenduzko xedapen arau-emailea** (alderdi kritikagarria: zurruntasuna).
- **Integritate Instituzionaleko Esparrua** duen azpiegitura etikoa eraikitzea.
- **Aplikazio-eremu subjektiboa:** ordezkari politikoak, kudeatzaileak, zuzendaritza-kideak, behin-behinekoak eta abar. Zuzendaritza-lanak betetzen dituzten izendapen askeko funtzionarioei aplikatzen zaie.
- **Jokabide-kodea,** baina **bateraezintasun-arauekin.**
- **Nahasdura balore eta printzipioetan.**
- **Zehaztasuna jokabide-arauen adierazpenean.**
- **Indargunea: Etika Batzordea**, kanpoko langileek osatua, indar politikoen arabera banatuta.
- **Arazoak: funtzionamendua (zehapenak).**
- **Egokitzapen konplexua**, **Erregelamendu** bidez onartu baita. **Ez zen aho batez onartu**.

https://ajuntament.barcelona.cat/transparencia/es/codigo-conducta

PARTICIPACIÓN CIUDADANA:

DEFINICIÓN

Bajo el nombre «Participación ciudadana» se agrupan todas aquellas **actuaciones** dirigidas a **favorecer la implicación ciudadana en los asuntos públicos,** directamente o por mediación de representantes, y la puesta a su disposición de los **canales e instrumentos** que favorezcan el debate y la propuesta ciudadana.

PARTICIPACIÓN CIUDADANA:

DERECHO CIUDADANO Y OBLIGACIÓN DEL PODER PÚBLICO

Conviene recordar estos artículos de nuestras leyes para subrayar que la participación ciudadana en la gestión pública es un derecho ciudadano y una obligación del poder público.

ARTÍCULO 9.2 DE LA CONSTITUCIÓN	*«Corresponde a los poderes públicos… facilitar la participación de todos los ciudadanos en la vida política, económica, cultural y social».*
ARTÍCULO 72 DE LA LEY REGULADORA DE BASES DE RÉGIMEN LOCAL	*«Las corporaciones locales facilitarán la participación de todos los ciudadanos en la vida local».*
ARTÍCULO 67 DE LA LILE	*«Las condiciones que garanticen la efectiva participación ciudadana de personas y entidades o asociaciones en el proceso de elaboración de normas, instrumentos de planificación y de toma de decisiones derivadas del ejercicio de las funciones de gobierno y administración de las entidades locales vascas».*

PARTICIPACIÓN CIUDADANA:

NECESIDAD

LA PARTICIPACIÓN CIUDADANA ES HOY TAMBIÉN UNA NECESIDAD ANTE LA COMPLEJIDAD SOCIAL EXISTENTE.

- Para **ALINEAR INTERESES Y PUNTOS DE VISTA DIVERSOS** (desde los intereses particulares construir intereses públicos).
- Para **PODER DAR RESPUESTAS INNOVADORAS** en estos momentos de crisis y de descrédito de la clase política.
- Para **GENERAR CIUDADANÍA** comprometida con su comunidad.

EN DEFINITIVA, LA PARTICIPACIÓN CIUDADANA ES NECESARIA, PARA MEJORAR LA CALIDAD DEMOCRÁTICA DE NUESTRAS INSTITUCIONES

Legislación: CE, art. 9.2
LRBRL, arts. 69 al 72
Ley 2/2016, de Instituciones Locales de Euskadi, arts. del 67 al 82

HERRITARREN PARTE-HARTZEA:

DEFINIZIOA

«Herritarren parte-hartzea» izenpean biltzen dira gai publikoetan herritarren inplikazioa bultzatzeko helburua duten **jardun** guztiak, zuzenean edo ordezkarien bidez, eta debatea eta herritarrek egindako proposamenak bultzatuko dituzten **kanal eta tresnak** herritar horien esku uztea.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA:

HERRITARREN ESKUBIDEA ETA BOTERE PUBLIKOAREN BETEBEHARRA

Gure legeetako artikulu hauek gogoratzea komeni da herritarren parte-hartzea kudeaketa publikoan herritarren eskubidea eta botere publikoaren betebeharra dela azpimarratzeko.

KONSTITUZIOAREN 9.2 ARTIKULUA	*«Botere publikoei dagokie... herritar guztien parte-hartzea erraztea, bai bizitza politikoan, baita ekonomia-, kultura- eta gizarte-bizitzan ere».*
TOKI ARAUBIDEAREN OINARRIAK ARAUTZEN DITUEN LEGEA, 72. ARTIKULUA	*«Toki-korporazioek herritar guztien partaidetza bultzatuko dute herriko kontuetan».*
ETEL, 67. ARTIKULUA	*«Euskal Autonomia Erkidegoko toki-erakundeen gobernu- eta administrazio-eginkizunak betetzeak berekin dakartzan arauak eta plangintza- eta erabakitze-tresnak egiteko prozesuan pertsonek eta elkarteek benetan parte-hartuko dutela bermatzeko baldintzak arautzea».*

HERRITARREN PARTE-HARTZEA:

BEHARRA

ORAINGO KONPLEXUTASUN SOZIALAREN AURREAN, HERRITARREN PARTE-HARTZEA BEHARRA ERE BADA GAUR EGUN


- **INTERES ETA IKUSPUNTU DESBERDINAK LERROKATZEKO** (interes partikularretatik abiatuta, interes publikoak eraiki).
- **ERANTZUN BERRITZAILEAK EMAN AHAL IZATEKO** krisi-garai honetan eta klase politikoa izena galtzen ari den garai honetan.
- Komunitatearekin konprometitutako **HERRITARRAK SORTZEKO.**

LABURBILDUZ, HERRITARREN PARTE-HARTZEA BEHARREZKOA DA GURE ERAKUNDEEN KALITATE DEMOKRATIKOA HOBETZEKO

Legeria: EK, 9.2. art.
TAOL, 69-72. art.
Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legea, 67-82. art.

Los pueblos y ciudades nacen por el **AGRUPAMIENTO DE PERSONAS QUE COMPARTEN UN TERRITORIO,** lo que provoca **CONFLICTOS,** antagonismos, discordias que tienen un alcance colectivo porque implica a grupos identificados por posiciones o intereses comunes: control de recursos, disfrute de beneficios o derechos, defensa de ideas o valores…

En este **MARCO DE INCERTIDUMBRE** aparece **LA POLÍTICA COMO UNA REPUESTA AL DESACUERDO,** como una manera de regular la tensión social mediante decisiones que afectan y obligan a todos los miembros de la comunidad, evitando que cada miembro o cada grupo busque sus propias soluciones sin tener en cuenta los principios o valores que sustentan esa misma comunidad.



LA TRINIDAD CIUDADANA **La persona tiene tres formas distintas de relacionarse con la colectividad.**	
USUARIA DE LOS SERVICIOS PÚBLICOS	La persona actúa como **usuaria (consumidora) de esos servicios** a los que tiene derecho**. Tiene, por supuesto, derecho a que sean de calidad y a manifestar su opinión** al respecto presentando **quejas o reclamaciones** cuando sea insuficiente o sugiriendo ideas para su mejora.
MIEMBRO DE UNA COMUNIDAD	Muchas personas traducen su **faceta relacional** en una vertiente comunitaria, compartiendo en asociaciones, sindicatos, partidos políticos… unas ideas, proyectos o actividades**.** En la relación con la comunidad las personas suman esfuerzos, dejan de lado individualidades y egoísmos y comparten actividades y proyectos que ayudan a generar más comunidad. Ayudan a crear **«capital social»** (*ver ficha 2.3.10*)
CIUDADANA CON DERECHOS POLÍTICOS	Es **el máximo nivel de implicación con la comunidad**, cuando **se interviene en la política, en aquello que afecta al conjunto de la sociedad,** aunque su concreción no se realice de la manera en la que uno piensa. El principio democrático hace que se acepten propuestas y actuaciones que nacen de la interacción de intereses y discursos diversos**. Ahí es donde mejor se pueden concretar los mecanismos de participación ciudadana**. **Entre otros, incluye** el derecho a ser elector y elegible, a decidir en los concejos abiertos a presentar iniciativas políticas o a votar en consultas populares o referéndums.

El ROL «USUARIO» permite, por ejemplo, reclamar la mejora de un servicio público (**lo puede hacer** cualquier persona individualmente y **lo resuelve** el nivel técnico de la administración).


La **ACCIÓN COMUNITARIA SUPONE UN ESCALÓN MÁS,** pero sigue refiriéndose a puntos de conexión entre grupos de individuos que, en principio, no tienen por qué afectar a otros.

Evidentemente **ESTOS «ROLES» TIENEN CONSECUENCIAS POLÍTICAS, pero LA ACCIÓN POLÍTICA ESENCIAL está en la implicación ciudadana en el debate y la propuesta en el nivel político con los y las responsables políticas y sobre actuaciones que afectarán al conjunto de la población**.

Legislación: Ley 2/2016, de Instituciones Locales de Euskadi, art. 67
ROF, art. 226
LRBRL, art. 18
Ley 17/2009, de 23 de noviembre, sobre el libre acceso a las actividades de servicios y su ejercicio

Lurralde bat partekatzen duten pertsonak biltzen direlako sortzen dira herriak eta hiriak, eta **gatazkak**, antagonismoak eta hedadura kolektiboa duten eztabaidak eragiten ditu horrek, posizio edo interes erkideak direla-eta identifikatutako taldeak inplikatzen baititu: baliabideen kontrola, onurak edo eskubideak baliatzea, ideiak edo balioak defendatzea...

Zalantza nagusi den esparru honetan, politika ageri da **desadostasunari ematen zaio erantzun gisa**, tentsio soziala arautzeko modu bat bezala komunitateko kide guztiak eraginpean hartzen dituzten eta behartzen dituzten erabakien bidez, kide bakoitzak edo talde bakoitzak bere soluziobideak bila ditzala saihestuz, komunitate horrek berak oinarri dituen printzipio edota balioak kontuan izan hartu gabe.



HERRITARREN HIRUTASUNA **Pertsonak hiru modu ditu kolektibitatearekin harremanetan jartzeko.**	
Zerbitzu publikoen erabiltzaile gisa	Pertsonak **zerbitzu horien erabiltzaile (kontsumitzaile)** gisa jarduten du, eta haietarako eskubidea dauka. **Jakina, eskubidea du kalitatekoak izan daitezela eta bere iritzia azaltzera** horren inguruan, **kexak eta erreklamazioak** aurkeztuz eskasa denean edo ideiak iradokiz hobetzeko.
Komunitate bateko kide gisa	Pertsona askok alderdi komunitarioari esker bideratzen dituzte **beren harremanak**, elkarteekin, sindikatuekin, alderdi politikoekin eta abar partekatuz ideia, proiektu edo jarduerak batzuk. Komunitatearen barruan, pertsonek ahaleginak batzen dituzte, alde batera uzten dituzte indibidualtasunak eta egoismoak, eta komunitateko gehiago sortzen laguntzen duten jarduera eta proiektuak partekatzen dituzte. «**Kapital soziala**» sortzen laguntzen dute *(ikusi 2.3.10 fitxa)*
Eskubide politikoak dituen herritar gisa	**Komunitatearekiko inplikazio-maila gorena** da, **politikan esku hartzen denean**, **gizarte osoa eraginpean hartzen duen horretan**, hori norberak uzten duen bezala zehazten ez bada ere. Printzipio demokratikoaren eraginez askotariko interes eta diskurtsoen elkarrekintzatik sortutako proposamen eta jardunak onartzen dira. **Hor zehazten dira beste inon baino hobeto herritarrek parte hartzeko mekanismoak.** **Besteak beste, hor biltzen dira** hauteslea eta hautetsia izateko eskubidea, kontzeju irekietan erabakitzeko eskubidea, ekimen politikoetan ekimenak aurkezteko eskubidea, edo herri-galdaketetan edo erreferendumetan bozkatzeko eskubidea.

«ERABILTZAILE» ROLAK, adibidez, zerbitzu publiko baten hobekuntza erreklamatzea **ahalbidetzen du** (edozein pertsonak **egin dezake** indibidualki eta administrazioaren maila teknikoak **ebazten du)**.

EKINTZA KOMUNITARIOA MAILA BAT GEHIAGO DA, baina gizabanakoen arteko lotura-puntuak ditu betiere hizpide, eta talde horiek, hasteko, ez dituzte beste batzuk zertan eraginpean hartu.

Jakina, **«rol» horiek ondorio politikoak dituzte, baina FUNTSEZKO EKINTZA POLITIKOA herritarrek debatean duten inplikazioan eta arduradun politikoekin maila politikoan egindako proposamenean eta biztanleria osoa eraginpean hartuko duten jardunen inguruan dago**.

Legeria:
Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legea, 67. art.
AJA, 226. art.
Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legea, 18 art.
17/2009 Legea, azaroaren 23koa, zerbitzu-jardueretan askatasunez sartu eta aritzeari buruzkoa

LAS TRES DIMENSIONES DE UN ÚNICO SISTEMA: LA DEMOCRACIA

La democracia es un único sistema político que, fundamentado en la soberanía popular, **se desarrolla de tres maneras diferentes**. Las tres son **dimensiones importantes y necesarias** para el sistema y **requieren de canales y acciones específicas** que faciliten su ejercicio:

Democracia representativa	Es la dimensión de la democracia **relacionada con la elección de representantes en las instituciones,** mediante voto directo y secreto y por sufragio universal. La soberanía popular se ejerce mediante **intermediarios** que actúan en nombre del pueblo. El proceso de elección de los representantes está regulado en la ley electoral.
Democracia directa	Es la dimensión de la democracia que **se ejerce directamente, sin intermediarios**. El titular de la soberanía, el pueblo, actúa en ejercicio pleno y absoluto de su derecho a ser sujeto activo de la acción colectiva. Las formas más características son el **referéndum, la iniciativa ciudadana o popular** y, en el ámbito local, el **concejo abierto**.
Democracia deliberativa	No está regulada exactamente en el artículo 23 CE, **es una construcción jurisprudencial.** El Tribunal Constitucional no la considera una manifestación del ejercicio de la soberanía popular, **sino uno de los cauces de los que, «*en un Estado social, debe disponer la ciudadanía para que su voz pueda ser oída en las decisiones que le afectan*»…«***Se trata de manifestaciones que no son propiamente encuadrables ni en las formas de democracia representativa ni en la democracia directa, incardinándose más bien en un «tertium genus» que se ha denominado democracia participativa***» (STC 119/1995 Fundamento Jurídico 6.º).

- Esas tres dimensiones de la democracia también se dan **en cualquier organización ciudadana**: asociación, sindicato, partido político.
- **Una política pública para la mejora de la calidad democrática** debe **actuar en las tres dimensiones y en el ámbito institucional y en el social** (*ver ficha 2.3.11*).

Legislación y jurisprudencia:
Ley 2/2016, de Instituciones Locales de Euskadi, arts. 67 y 69
CE, arts. 9.2 y 23.1
STC 119/1995
LOREG, arts. 2 al 7
LRBRL, arts. 18, 140, 70 bis y 71

SISTEMA BAKAR BATEN HIRU DIMENTSIOAK: DEMOKRAZIA

Demokrazia sistema politiko bakarra da eta, herri-subiranotasunean oinarrituta, **hiru modu desberdinetan garatzen da**. Hirurak ere sistemarako **dimentsio garrantzitsu eta beharrezkoak** dira eta **kanal eta ekintza espezifikoak behar dituzte** beren egikaritzapena errazteko:

Ordezkapen-demokrazia	**Erakundeetan ordezkariak aukeratzearekin lotutako** demokraziaren dimentsioa da, betiere zuzeneko boto sekretuaren bidez eta sufragio unibertsalaren bidez. **Bitartekoen** bidez egikaritzen da herri-subiranotasuna, eta herriaren izenean jarduten dute betiere. Hauteskunde-legeak arautzen du ordezkarien hautaketa-prozesua.
Zuzeneko demokrazia	**Zuzenean, bitartekorik gabe**, egikaritzen den demokraziaren dimentsioa da. Subiranotasunaren titularrak, herriak, ekintza kolektiboaren subjektu aktiboa izateko duen eskubidea guztiz eta erabat egikarituz jarduten du. Modu ezaugarrienak **erreferenduma, herritarren ekimen edo herri-ekimena** eta, toki-esparruan, **kontzeju irekia** dira.
Deliberazio-demokrazia	Ez dago zehazki araututa Espainiako Konstituzioaren 23. artikuluan, **jurisprudentziako eraikuntza da.** Auzitegi Konstituzionalaren ustez ez da herri-subiranotasunaren egikaritzapenaren adierazpide bat, **baizik eta *«estatu sozial batean herritarrek izan beharreko ildo bat beren ahotsa entzun dadin eraginpean hartzen dituzten erabakietan»***...*»Adierazpen horiek ezin dira propio sartu ordezkapen bidezko demokraziaren barruan, ezta zuzeneko demokraziaren barruan ere, eta «tertium genius» batean txertatzen dira gehienbat, demokrazia partizipatiboa izena eman zaionekoan»* (AKren 119/1995 Epaia, 6. Oinarri Juridikoa).

- Demokraziaren hiru dimentsio horiek **herritarren edozein erakundetan** ere ematen dira: elkartea, sindikatua, alderdi politikoa.
- **Kalitate publikoa hobetzeko politika publiko batek hiru dimentsioetan jardun** behar du, **baita esparru instituzional eta sozialean ere** *(ikusi 2.3.11 fitxa)*.

Legeria eta jurisprudentzia:
Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legea, 67 eta 69. art.
EK, 9.2 eta 23.1 art.
KA, 119/1995 epaia
HAOLO, 2-7. art.
TAOL, 18, 140, 70 bis eta 71. art.

- Las **personas elegidas en las elecciones** forman parte de las instituciones públicas que han de dirigir las políticas que afectan a la ciudadanía ejerciendo como concejales, alcaldes o diputados forales.
- Estas **personas con responsabilidad política** formarán parte del **gobierno o de la oposición.**

RESPONSABILIDAD POLÍTICA: FUNCIÓN DE DIRECCIÓN EJECUTIVA


Es potestad de los gobiernos locales **poner en marcha las actuaciones derivadas del programa político resultante de la mayoría de gobierno**.

- **No confundir con el programa electoral**. Este puede variar cuando se gobierna en coalición o cuando aparecen nuevas situaciones no previstas.
- **Es una función política, directiva, pero política**. Tiene consecuencias técnicas en la administración, pero no debe sustituir a la estructura técnica especializada necesaria en ayuntamientos y diputaciones forales.
- **No confundir** la **función de representación y dirección política con la dirección técnica de los proyectos**. No hace falta ser arquitecto para ser concejal de urbanismo, por ejemplo.
- **Para la ejecución de las políticas** los gobiernos cuentan con la **administración pública local.**

EJERCICIO DE LA REPRESENTACIÓN POLÍTICA

Los gobiernos democráticos nacen de la voluntad popular y actúan representando al conjunto de la ciudadanía, por lo que deben ejercer esa función **facilitando la información necesaria y suficiente para explicar sus actuaciones**.

Facilitar el acceso a la información, **actuar de manera transparente**, **rendir cuentas de los resultados y promover el debate público sobre las actuaciones** son los **elementos necesarios de ese ejercicio de representación.**



Legislación: Ley 2/2016, de Instituciones Locales de Euskadi, art. 48
CE, art. 20
LRBRL, arts. 21 y 78

Guía Local - ISBN 978-84-7777-690-1

- **Hauteskundeetan aukeratutako pertsonak** herritarrak eraginpean hartzen dituzten politikak zuzendu behar dituzten instituzio publikoen zati dira, zinegotzi, alkate edo foru-diputatu gisa jardunez.
- **Erantzukizun politikoa duten pertsona** horiek **gobernuko edo oposizioko kide** izango dira.

ERANTZUKIZUN POLITIKOA: ZUZENDARITZA EXEKUTIBOKO FUNTZIOA


Toki-gobernuen ahalmena da **gobernu-gehiengoaren ondoriozko programa politikotik eratorritako jardunak abiaraztea.**

- **Ez nahastu hauteskunde-programarekin.** Programa aldatu egin daiteke koalizioan gobernatzen denean edo aurreikusi gabeko egoera berriak agertzen direnean.
- **Funtzio politikoa da, zuzendaritzakoa, baina politikoa.** Ondorio teknikoak ditu administrazioan, baina ez ordeztu behar udaletan eta foru-aldundietan beharrezkoa den egitura tekniko espezializatua.
- **Ez da nahastu behar ordezkapeneko eta zuzendaritza politikoko funtzioa proiektuen zuzendaritza teknikoarekin.** Ez dago zertan arkitekto izan hirigintzako zinegotzi izateko, adibidez.
- **Politikak egikaritzeko, tokiko administrazio publikoa** dute gobernuek.

ORDEZKAPEN POLITIKOAREN EGIKARITZAPENA

Herri-borondatearen ondorioz sortzen dira gobernu demokratikoak eta herritar guztiak ordezkatuz jarduten dute, eta, hori horrela, **beren jardunak azaltzeko informazioa nahikoa eta beharrezkoa emanez** egikaritu behar dute funtzio hori.

Informaziorako sarbidea erraztea, gardentasunez jardutea, emaitzei buruzko kontuak ematea eta jardunei buruzko debate publikoa sustatzea dira **ordezkapen-jardun horren beharrezko elementuak.**



Legeria: Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legea, 48. art.
EK, 20. art.
TAOL, 21 eta 78. art.

La **acción directa de la ciudadanía** se da cuando actúa en los asuntos públicos **sin intermediarios**, aunque el contenido de la actuación se haya podido articular en organizaciones sociales o reuniones de grupos de personas.

HAY DOS GRANDES MANERAS DE EJERCER EL DERECHO A LA PARTICIPACIÓN DIRECTA

1. Ejerciendo el **derecho de petición** y presentando **iniciativas.**
2. Opinando/decidiendo en **consultas o referéndums** (*ver ficha 2.3.6*).

<table>
<tr><td>Derecho de petición</td><td colspan="2">Cualquier persona, individual o colectivamente, puede solicitar cualquier acción de los poderes públicos en su respectivo ámbito de competencia, siempre que no tenga un procedimiento específico para ello (art. 29 CE y LO 4/2001).</td></tr>
<tr><td rowspan="3">Iniciativa ciudadana o popular</td><td colspan="2">Podría considerarse una especie del género «derecho de petición» Un mínimo de tres personas acreditan el interés colectivo de su iniciativa recogiendo un número significativo de firmas que la apoyen y demuestren que no se trata de una petición individual o que afecta sólo a intereses particulares.</td></tr>
<tr><td>OBJETO</td><td>• propuesta de acuerdos
• propuesta de reglamentos
• propuesta de actuaciones

Estas propuestas pueden ser de acción: «que se haga algo» o de rechazo «que se deje de hacer algo» o «no se empiece algo».</td></tr>
<tr><td>PROCEDIMIENTO</td><td>Presentación de la iniciativa por la Comisión Promotora (mínimo tres personas).
1. Un órgano a definir (Alcalde/sa, Pleno, Junta de Gobierno, comisión ad hoc...) revisa el contenido y comprueba su adecuación al marco competencial municipal. Debe fundamentar la denegación e indicar el recurso posible.
2. Si se autoriza, se inicia la recogida de firmas, que han de ser las mínimas indicadas, según la población del municipio, en el artículo 70 bis 2 LRBRL*.
3. Recogidas las firmas, se entregan en la Secretaría municipal (u órgano equivalente) para hacer el recuento de los y las firmantes, comprobando previamente su inscripción en el censo electoral/padrón del municipio.
4. Debate en el Pleno sobre su admisión o rechazo.

* Dichas iniciativas deberán ir suscritas al menos por el siguiente porcentaje de vecinos del municipio:
a) Hasta 5.000 habitantes, el 20%.
b) De 5.001 a 20.000 habitantes, el 15%.
c) A partir de 20.001 habitantes, el 10%.

Art. 70 bis 2 LRBRL</td></tr>
</table>

Existen **otras formas de ejercer la iniciativa ciudadana** cuando se promueve el **ejercicio del derecho de reunión, de manifestación o de huelga**. Son medios reconocidos por la Constitución y que suponen un posicionamiento político de la ciudadanía.

Legislación:
Ley 2/2016, de Instituciones Locales de Euskadi, art. 78
CE, arts. 21, 23, 28 y 29
Ley Orgánica 4/2001, de 12 de noviembre, reguladora del Derecho de Petición
LRBRL, art. 70 bis 2
Ley Orgánica 3/1984, de 26 de marzo, reguladora de la iniciativa legislativa popular

Herritarren zuzeneko jarduna gai publikoetan **bitartekorik gabe** jarduten dutenean gertatzen da, jardun horren edukia gizarte-erakundeetan edo pertsona taldeen bileretan artikulatu ahal izan bada ere.

BI MODU NAGUSI DAUDE PARTE-HARTZE ZUZENERAKO ESKUBIDEA BALIATZEKO

1. **Eskaera-eskubidea** egikarituz eta **ekimenak** aurkeztuz.
2. **Kontsultetan edo erreferendumetan** iritzia emanez/erabakiz *(ikusi 2.3.6 fitxa)*.

<table>
<tr><td>Eskaera-eskubidea</td><td colspan="2">Edozein pertsonak, banaka edo taldeka, botere publikoen edozein jardun eska dezake bakoitzari dagokion eskumen-esparruaren barruan, betiere horretarako prozedura espezifikorik ez badu (EKren 29. art. eta 4/2001 LO).</td></tr>
<tr><td rowspan="3">Herritarren ekimena edo herri-ekimena</td><td colspan="2">«Eskaera-eskubidea» generoaren barruan dagoen espezietzat har daiteke. Gutxienez hiru pertsonak beren ekimenaren interes kolektiboa egiaztatzen dute, ekimenaren aldeko sinaduren kopuru esanguratsua bilduta eta eskaera indibiduala ez dela edo interes partikularrak soilik ez dituela eraginpean hartzen erakutsita.</td></tr>
<tr><td>HELBURUA</td><td>• Erabaki-proposamena
• Erregelamendu-proposamena
• Jardun-proposamena

Proposamen horiek jarduteko izan daitezke: «zerbait egin beharra» edo baztertzeko «zerbait egiteari uztea» edo «zerbaitekin ez hastea».</td></tr>
<tr><td>PROZEDURA</td><td>Batzorde Sustatzaileak (gutxienez hiru pertsona) ekimena aurkeztea.
1. Definitu beharreko organoak (alkatea, Osoko Bilkura, Gobernu Batzordea, ad hoc batzordea...) edukia berrikusten du eta udalaren eskumen-esparrura egokitzen dela egiaztatzen du. Ukatzea oinarritu behar du eta errekurtso posiblea adierazi.
2. Baimentzen bada, sinadura-bilketari ekingo zaio, eta TAOLen * 70 bis 2 artikuluan adierazitako berak izan behar dute, udalerriaren biztanleriaren arabera betiere.
3. Sinadurak bildutakoan, udal-idazkaritzan (edo organo baliokidean) entregatuko dira sinatzaileen kontaketa egiteko, aldez aurretik udaleko hautesle-erroldan/errolda orokorrean inskribatuta daudela egiaztatuta.
4. Debatea Osoko Bilkuran onartzeari edo baztertzeari buruz.

* Udalerriko auzotarren ehuneko hauek gutxienez izenpetu behar dituzte ekimen horiek:
a) 5.000 bizilagun arteko udalerrietan, ehuneko 20k.
b) 5.001etik 20.000 bizilagun arteko udalerrietan, ehuneko 15ek.
c) 20.001 bizilagunetik gorako udalerrietan, ehuneko 10ek.
TAOL, 70. bis. 2 art.</td></tr>
</table>

Herritarren ekimena egikaritzeko beste modu batzuk daude **biltzeko, manifestatzeko edo greba egiteko eskubide egikaritzea** sustatzen denean. Konstituzioak onartutako bitartekoak dira eta herritarren posizionamendu politikoa dakarte.

Legeria:
Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legea, 78. art.
EK, 21, 23, 28 eta 29. art.
4/2001 Lege Organikoa, azaroaren 12koa, Eskaera-eskubidea arautzen duena
TAOL, 70 bis 2 art.
3/1984 Lege Organikoa, martxoaren 26koa, herriko legegintza-ekimena arautzen duena

Consulta POPULAR	Tipo de consulta que se realiza con las **garantías del procedimiento electoral,** dirigida al censo electoral. Necesita cumplir los **requisitos** del art. 80 de la LILE y art. 71 LRBRL. **No se puede** hacer sobre materias relativas a la Hacienda Local (tributos, por ejemplo) y requiere permiso del gobierno central. **Es vinculante**.
Consulta SECTORIAL o de ÁMBITO TERRITORIAL	Consultas dirigidas solo a **una parte de la ciudadanía.** El **sistema de garantías** no es el del procedimiento electoral y/o los llamados a la consulta **no conforman la totalidad del censo electoral**, sino una parte (ejemplo: consulta en un barrio para elegir proyecto de reforma de una plaza). Viene **regulada en** el art. 81 de la LILE. **No es vinculante**.
Consulta CIUDADANA ABIERTA	**Cualquier tipo de consulta** dirigida a la ciudadanía para que responda a una o varias preguntas sobre **temas de interés municipal.** El **sistema de garantías** no es el del procedimiento electoral y/o los llamados a la consulta van más allá del **censo electoral,** por ejemplo, mayores de 16 años (ejemplo: las consultas que se hacen en presupuestos participativos). Viene **regulada en** el art. 82 de la LILE. **No es vinculante.**

EN EL CASO DE CONSULTA POPULAR

Promotor	**Iniciativa ciudadana:** Art. 70 bis LRBRL (*ver ficha 2.3.5 en cuanto al procedimiento*). Art. 80.4 de la Ley de Instituciones Locales de Euskadi. **Iniciativa municipal:** Art. 71 LRBRL, promovida por el Pleno. Art. 80.4 de la Ley de Instituciones Locales de Euskadi.
Territorio	El **municipio en su totalidad**.
Procedimiento	1. Aprobación por **mayoría absoluta del Pleno**. 2. Solicitud de **autorización** al Gobierno central. 3. **Convocatoria** de día y preparación de los **colegios electorales** como en cualquier otra elección.

Legislación y jurisprudencia:
Ley 2/2016, de Instituciones Locales de Euskadi, arts. 80, 81 y 82
STC 103/2008
LRBRL, arts.70 y 71

Guía Local - ISBN 978-84-7777-690-1

HERRI-KONTSULTA	**Hauteskunde-prozeduraren bermeekin** egiten den kontsulta mota, hautesle-erroldari zuzendutakoa. ETELen 80. artikuluko eta TAOLen 71. artikuluko **eskakizunak** bete behar ditu. **Ezin da** egin Toki Ogasunari buruzko gaien inguruan (tributuak, adibidez) eta gobernu zentralaren baimena behar du. **Loteslea da**.
KONTSULTA **SEKTOREKOA edo LURRALDE-EREMUKOA**	**Herritarren zati bati** bakarrik zuzendutakoak. **Berme-sistema** ez da hauteskunde-prozedurarena eta/edo kontsultara deitutakoak **ez dira hautesle-errolda osoa, zati bat baizik** (adibidez: auzo batean kontsulta egitea, plaza bat eraberritzeko proiektua aukeratzeko). ETELen 81. artikuluan dago **arautua.** **Ez da loteslea.**
HERRI-KONTSULTA IREKIA	Herritarrei zuzendutako **edozein kontsulta** mota **udal-interesa duten gaiei buruz** galdera bat edo zenbait erantzun ditzaten. **Berme-sistema** ez da hauteskunde-prozedurarena eta/edo kontsultara deitutakoak **hautesle-erroldatik** haratago doaz, adibidez, 16 urtetik gorakoak (adibidez: aurrekontu parte-hartzaileetan egiten diren kontsultak). ETELen 82. artikuluan dago **arautua.** **Ez da loteslea.**

HERRI-KONTSULTAREN KASUAN

SUSTATZAILEA	**Herri-ekimena:** TAOL, 70. bis art. (*ikusi 2.3.5 fitxa prozedurari dagokionez*). Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legea, 80.4.art. **Udal-ekimena:** TAOL, 71. art., Osoko Bilkurak sustatua. Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legea, 80.4.art.
LURRALDEA	**Udalerria, oro har.**
PROZEDURA	1. Onarpena **Osoko Bilkuraren gehiengo osoaren bidez**. **2. Baimen-eskaera** gobernu zentralari. 3. Eguneko **deialdia** eta **hauteslekuak** prestatzea beste edozein hauteskundetan bezala.

Legeria eta jurisprudentzia: Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legea, 80, 81 eta 82. art.
KA, 103/2008 epaia
TAOL, 70 eta 71. art.

Existen órganos específicos para la participación (*ver ficha 2.3.8*). Aquí nos referimos a la participación en **aquellos elementos de la estructura orgánica municipal que admiten, en algunos momentos, la presencia y la intervención ciudadana.**

Podemos observar TRES FORMAS DISTINTAS
de participación ciudadana en los órganos municipales

1. Asistiendo como público

…a las **sesiones que tengan ese carácter** a fin de conocer directamente los debates y las decisiones adoptadas (más que participación deberíamos hablar de **acceso a la información o seguimiento y control**).

Órganos municipales que realizan sesiones públicas:

- El **Pleno** (arts. 227 y 228 ROF): con las limitaciones del art 70.1 LRBRL (si afectan al honor, la imagen o la intimidad). Las entidades vecinales que tienen el carácter de interesadas en algún punto del orden del día pueden intervenir en el Pleno, antes de la votación. El Alcalde o alcaldesa puede abrir un turno de ruegos y preguntas, al finalizar la sesión.
- **Las Comisiones Informativas:** en algunas ocasiones, a efectos de escuchar opiniones de entidades (art. 227 ROF).
- **La Comisión Especial de Cuentas**: sus sesiones podrán ser públicas, si así lo establece el Reglamento Orgánico o el Pleno.
- **Órganos complementarios que se indiquen en el reglamento orgánico** (art. 227.3 ROF), como, por ejemplo: Consejos Sectoriales, Juntas municipales de distrito…

2. Presentando propuestas

…en esos mismos órganos ejerciendo la **iniciativa ciudadana** (*ver ficha 2.3.5*).

3. Formando parte de los órganos municipales

Concejo abierto		Es una excepción al sistema de funcionamiento de la democracia representativa ya que, en los municipios con este régimen, el **Pleno municipal** está formado por la **asamblea de vecinos/as.** **Funcionan con este sistema**: «Los municipios que tradicional y voluntariamente cuenten con ese singular régimen de gobierno y administración y los que, por su localización geográfica, la mejor gestión de los intereses municipales u otras circunstancias lo hagan aconsejable» (art. 29 LRBRL).
Órganos territoriales de gestión desconcentrada		Se pueden crear **entidades de ámbito territorial inferior al municipio** «para la administración descentralizada de núcleos de población separados». La **designación de los miembros del órgano colegiado** se hará de conformidad con los resultados de las elecciones específicas (régimen específico de Álava) o de las elecciones para el Ayuntamiento en la sección o secciones constitutivas de la circunscripción para la elección del órgano unipersonal (régimen común establecido en el art. 45 LRBRL).
	Juntas municipales de Distrito	Un tipo de **órganos territoriales de gestión desconcentrada** en aquellos municipios que así se acuerde por el Pleno para la mejor gestión de la competencia municipal y para facilitar la participación ciudadana (art. 128 ROF).

Legislación: Ley 2/2016, de Instituciones Locales de Euskadi, art. 68
LRBRL, arts. 29, 45 y 70.1
ROF, arts. 128, 227 y 228

Badaude parte hartzeko organo espezifikoak (*ikusi 2.3.8 fitxa*). Hemen aztergai dugu **zenbait unetan herritarren presentzia eta herritarrekin parte hartzea ahalbidetzen duten udalaren egitura organikoko elementuetan parte hartzea.**

HIRU MODU DESBERDIN IKUS DITZAKEGU
HERRITARREN PARTE-HARTZERAKO UDAL ORGANOETAN

1. PUBLIKO GISA BERTARATUZ

...**izaera publikoko bilkuretara**, zuzenean ezagutzeko debateak eta hartutako erabakiak (parte-hartzeaz baino gehiago **informazioa eskuratzeaz edo jarraipenaz eta kontrolaz** hitz egin beharko genuke).

Bilkura publikoak egiten dituzten udal-organoak:

- Udalaren **Osoko Bilkura** (AJAren 227. eta 228 art.): TAOLen 70.1 artikuluaren mugekin (ohorea, irudia edo intimitatea eraginpean hartzen badute). Gai-zerrendaren punturen batean interesdun diren auzo-elkarteek Oso Bilkuran parte har dezakete, bozketaren aurretik. Alkateak galde-eskeen txanda ireki dezake bilkura amaitzean.
- **Informazio Batzordeak:** zenbaitetan, erakundeen iritziak entzuteko (AJAren 227. art.).
- **Kontuen Batzorde Berezia**: saioak publikoak izan daitezke, Erregelamendu Organikoak edo Osoko Bilkurak hori ezartzen badute.
- **Erregelamendu organikoan adierazten diren organo osagarriak** (AJAren 227.3 art.), hala nola: Sektore Kontseiluak, Barrutiko udal-batzordeak...

2. PROPOSAMENAK AURKEZTUZ

...organo horietan bertan **herritarren ekimena** egikarituz (*ikus 2.3.5 fitxa*).

3. UDAL-ORGANOETAN PARTE HARTUZ

KONTZEJU IREKIA		Salbuespena da ordezkapen bidezko demokraziaren funtzionamendu-sisteman, erregimen hau duten udalerrietan **udalaren Osoko Bilkura auzokoen biltzarrak** osatzen baitu. **Sistema honekin funtzionatzen dute**: «Gobernatzeko eta administratzeko araubide berezi horretaz betidanik baliatu diren udalerriek kokaleku geografikoa, udal-interesen kudeaketa hobea edo beste egoera batzuk direla-eta araubide horretaz baliatzea komenigarri dutenek» (TAOLen 29. art.).
KUDEAKETA DESKONTZENTRATUKO LURRALDE-ORGANOAK		**Udalerria baino lurralde-eremu txikiagoko erakundeak** sor daitezke «sakabanatutako biztanleguneen administrazio deszentralizatua egiteko». **Kide anitzeko organoko kideen izendapena**, hauteskunde espezifikoen emaitzen (Arabako erregimen espezifikoa) edo kide bakarreko organoa aukeratzeko barrutia osatzen duten sail edo sailetan udalerako egindako hauteskundeen emaitzen arabera egingo da (TAOLen 45. artikuluan ezarritako erregimen erkidea).
	BARRUTIKO UDAL-BATZARRAK	**Kudeaketa deskontzentratuko lurralde-organoen** mota bat Osoko Bilkurak hori erabakitzen duen udalerrietan udal-eskumena hobeto kudeatzeko eta herritarren parte-hartzea errazteko (AJAren 128. art.).

Legeria: Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legea, 68. art.
TAOL, 29, 45 eta 70.1 art.
AJA, 128, 227 eta 228. art.

ESPACIOS Y ÓRGANOS PARA LA PARTICIPACIÓN

DEFINICIÓN Y NATURALEZA

- Son **canales diseñados para promover un debate y un seguimiento regular** sobre las actuaciones municipales con funciones de **informe y consulta**.
- Su naturaleza **es administrativa** y su reglamento de funcionamiento ha de ser aprobado por el **Pleno**.

Tipo de espacios para la participación		
Según la duración	Puntuales	En un momento concreto, por ejemplo: audiencias, foros…
	Regulares	Con voluntad de permanencia, por ejemplo: consejos consultivos.
Según el ámbito	Territoriales	Barrio, distrito, ciudad…
	Sectoriales	Movilidad, Medio Ambiente, Igualdad, Cooperación, Cultura…

COMPOSICIÓN

- Responsables **políticos y/o técnicos de los ayuntamientos, representantes de asociaciones ciudadanas, y ciudadanía a título individual**.
- Los municipios **considerados de mayor población** (Título X LRBRL) deben tener, necesariamente, un **Consejo Social de Ciudad** integrado por representantes de organizaciones sociales. Sus funciones son las que determine el Pleno mediante norma orgánica, y la emisión de informes, estudios y propuestas en materia de desarrollo económico local, planificación estratégica de la ciudad y grandes proyectos urbanos.

ERRORES FRECUENTES

- Considerar el **órgano de participación** como un **órgano de representación** en el que se toman decisiones y en el que unas personas miembros pueden tener **más votos que otros** porque, presuntamente, representan a más población.
- **Falta de proyecto a compartir** y sobre el que promover los debates.
- **Riesgo de burocratización** por el excesivo peso administrativo que se les pueda dar.

Legislación: Ley 2/2016, de Instituciones Locales de Euskadi, arts. 68 y 75
LRBRL, arts. 69 y 131

PARTE HARTZEKO GUNE ETA ORGANOAK

DEFINIZIOA ETA IZAERA

- Udal-jardunei buruzko **debatea eta jarraipen erregularra sustatzeko diseinatutako kanalak** dira, **aztertzeko eta kontsultatzeko** funtzioekin.
- **Izaera administratiboa** dute eta **Osoko Bilkurak** onartu behar du haien funtzionamendu-erregelamendua.

Parte hartzeko gune motak		
Iraupenaren arabera	Unean unekoak	Une jakin batean, esaterako: audientziak, foroak...
	Erregularrak	Irauteko borondatearekin, esaterako: kontsulta-kontseiluak.
Esparruaren arabera	Lurraldekoak	Auzoa, barrutia, hiria...
	Sektorialak	Mugikortasuna, Ingurumena, Berdintasuna, Lankidetza, Kultura...

OSAERA

- Udaleko arduradun **politikoak eta/edo teknikariak, herritarren elkarteetako ordezkariak, eta herritar norbanakoak.**

- **Biztanle kopuru handiagokotzat** hartzen diren udalerriek (TAOLen X. titulua) nahitaez izan behar dute **Hiriko Gizarte Kontseilu** bat, gizarte-antolakundeetako ordezkariz osatuta. Osoko Bilkurak arau organiko bidez zehazten dituenak dira haren funtzioak, eta txostenak, azterlanak eta proposamenak ematea tokiko garapen ekonomiko arloan, hiriaren plangintza estrategikoan eta hiri-proiektu handietan.

OHIKO AKATSAK

- **Parte-hartze organoa ordezkaritza-organo** gisa jotzea, non erabakiak hartzen diren eta kide diren pertsona batzuek **beste batzuek baino boto gehiago** izan ditzaketen, ustez, biztanle gehiago ordezkatzen dituztelako.
- **Partekatu beharreko proiekturik ez izatea**, haren gainean debateak sustatzeko.
- **Burokratizazio-arriskua,** organo horiei eman dakiekeen administrazio-pisu handiegiarengatik.

Legeria: Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legea, 68 eta 75. art.
TAOL, 69 eta 131. art.

Procesos participativos

DEFINICIÓN

Un proceso participativo puntual es la **secuencia de actos** dirigidos a **favorecer el diálogo suficiente** que permita **contrastar opiniones diversas**, a fin de recoger aportaciones que colaboren a la **mejor definición de una actuación pública.**

Las aportaciones pueden ser a nivel de:	
Diagnóstico	**Definir conjuntamente** una situación o problemática concreta.
Creatividad	**Ofrecer ideas nuevas** para construir una actuación pública.
Contraste	**Conocer la opinión** que suscita una determinada actuación o política municipal y que **ayude a mejorar** su contenido.

PLANIFICACIÓN: FÓRMULA 8+3

Se requiere de una planificación y una organización

Y en este punto, conviene detallar las **conclusiones de la guía práctica publicada por EUDEL sobre cómo realizar un proceso participativo de calidad**: ocho pasos clave y tres condiciones necesarias ***(ver fichas siguientes).***

Legislación: Ley 2/2016, de Instituciones Locales de Euskadi, arts. 74 a 77

PARTE-HARTZE PROZESUAK

DEFINIZIOA

Parte-hartze prozesua **ELKARRIZKETA NAHIKOA BULTZATZERA** ZUZENDUTAKO **jardunen sekuentzia** da, horren bidez **HAINBAT IRITZI KONTRASTATZE ALDERA, JARDUN PUBLIKOA HOBETO DEFINITZEKO** lagungarriak izango diren ekimenak biltzeko.

HAINBAT MAILATAN EGIN DAITEZKE EKARPENAK:	
DIAGNOSTIKOA	Egoera edo arazo jakin bat **batera definitzea.**
SORMENA	Jardun publiko bat eratzeko **ideia berriak eskaintzea**.
KONTRASTEA	Udalaren jardun edo politika jakin batek eragiten duen **iritzia ezagutzea**, haren edukia **hobetzeko lagungarri** izango dena.

PLANIFIKAZIOA: 8+3 FORMULA

PLANGINTZA BAT ETA ANTOLAKUNDE BAT BEHAR DA

Eta puntu horretan, komeni da zehaztea **EUDEL**EK **ARGITARATUTAKO GIDA PRAKTIKOAREN ONDORIOAK KALITATEZKO PARTE-HARTZE PROZESU BAT EGITEARI BURUZ:** funtsezko zortzi urrats eta beharrezko hiru baldintza ***(ikusi hurrengo fitxak***).

Legeria: Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legea, 74-77. art.

OCHO PASOS CLAVE

en los que, **como mínimo** debemos pensar para **diseñar la estrategia de desarrollo** de un proceso participativo:
(pasos 1 a 4)

1. **¿POR QUÉ?**	Es IMPRESCINDIBLE QUE QUEDE EXPLÍCITA LA RAZÓN QUE GENERA LA PUESTA EN MARCHA DEL PROCESO PARTICIPATIVO y que esa fundamentación sea liderada claramente por parte de la institución pública o colectivo social que promueve la iniciativa. **Una buena fundamentación es el cimiento sobre el que se apoyarán los demás elementos claves del proceso**.
2. **¿PARA QUÉ?**	Hay que ESTABLECER CUÁLES SON LOS OBJETIVOS O FINALIDADES DEL PROCESO PARTICIPATIVO. Los objetivos tienen la función de priorizar qué hay que hacer y de marcar un horizonte común para todas las personas implicadas. Los debemos enumerar de manera clara y concisa, diferenciando los **objetivos generales** de los **objetivos operativos.** • Los objetivos **generales** definirán la realidad social que se pretende cambiar. Se trata de plantear como objetivo la realidad última a la que nos gustaría llegar con el proceso. • Por otro lado, los objetivos **específicos** han de ser concretos y medibles, operativos y fácilmente entendibles. Además no olvidemos que los **indicadores de evaluación del proceso participativo los deberemos ligar siempre con los objetivos operativos** del mismo.
3. **¿QUIÉNES?**	Es el momento de IDENTIFICAR LOS DIFERENTES AGENTES QUE QUEREMOS CONVOCAR A PARTICIPAR EN EL PROCESO, ya sean entidades y asociaciones del municipio, representantes políticos, grupos de interés económico o profesional o ciudadanía a título individual. Pero teniendo claro que NO SE TRATA DE BUSCAR LA REPRESENTATIVIDAD DESDE UN PUNTO DE VISTA CUANTITATIVO, SINO DESDE UN PUNTO DE VISTA DISCURSIVO, de opiniones y visiones diferentes. Y revisar siempre el **equilibrio entre los diferentes discursos, las distintas edades, la presencia equilibrada de mujeres y hombres y de las minorías**. Una vez identificados los agentes convocados a participar, es **importante respetar un orden en los tiempos y los papeles de cada un**o. Así, entre los agentes conviene establecer claramente desde el principio quiénes son las personas que asumirán el papel **para proponer el diseño** e **impulsar el proceso** de inicio a fin. Y en los procesos participativos amplios y complejos conviene articular también una **comisión de seguimiento en la que tomen parte diferentes agentes participantes**. Su objetivo será realizar el seguimiento, supervisión, control y reorientación del proceso.
4. **¿CON QUÉ reglas del juego?**	En este punto deben DEFINIRSE LAS REGLAS DEL JUEGO DEL PROCESO participativo que corresponda. • Deben ser **claras y entendibles** por todas las personas que van a participar. • Deben explicitarse **las que no son modificables** (si las hay) y **aquellas que sí son modificables.** Es ahora cuando DEBEMOS DEFINIR CON CLARIDAD: • **Los límites** técnicos competenciales, económicos o/y políticos del proceso. • **El contenido** de lo que se va a debatir. • **El compromiso que se adquiere con los resultados** del proceso, y superar con ello el debate de su carácter consultivo o vinculante. • El proceso debe estar **acotado en el tiempo** para facilitar su realización y delimitar las reglas de juego. **Suelen realizarse tres fases:** 1. Una **fase de diagnóstico**, para describir el estado de la cuestión sobre la que se quiere actuar. 2. Una **fase propositiva** para planear las acciones que se van a realizar. 3. Una **fase de retorno o devolución,** en la que se explica cuáles son las aportaciones que se han incorporado, cuáles no, y los motivos.

FUNTSEZKO ZORTZI URRATS

non, **gutxienez,** pentsatu beharra izango dugun **diseinatzeko parte-hartze prozesu baten** garapen-estrategia:
(1.-4. urratsak)

1. **ZERGATIK?**	**Ezinbestekoa da esplizituki azaltzea parte-hartze prozesuaren abiaraztea eragiten duen arrazoia** eta oinarritze horren buru izatea ekimena sustatzen duen erakunde publikoa edo gizarte-kolektiboa. **Oinarritze on bat zimendua da, eta haren gainean ezarriko dira prozesuaren gainerako funtsezko elementuak.**
2. **ZERTARAKO?**	**Parte-hartze prozesuaren helburu eta xedeak** zein diren **ezarri** behar da. Helburuek zer egin behar den lehenesten dute eta ikuspegi erkide bat ezartzen dute inplikatutako pertsona guztientzat Argi eta zehatz zerrendatu behar ditugu, **helburu orokorrak** eta helburu **operatiboak** bereiziz. • Helburu **orokorrek** aldatu nahi den gizarte-errealitatea definituko dute. Prozesuarekin iritsi nahi dugun azken errealitatea helburu gisa planteatzea da xedea. • Bestalde, helburu **espezifikoek** zehatzak eta neurgarriak, operatiboak eta erraz ulertzeko modukoak izan behar dute. Gainera ez dugu ahaztu behar **parte-hartze prozesuaren ebaluazio-adierazleak haren helburu operatiboekin lotu behar ditugula betiere.**
34.	**Barne-merkataritza** antolatzea eta kudeatzea. Zehatzago esanda, merkatu, hornidura-merkatu, azoka, lonja, hiltegi eta kalez kaleko merkataritza antolatzea eta kudeatzea. Hor sartzen dira, era berean, txikizkako merkataritza eta merkataritzako ekipamendu handiak planifikatzea eta antolatzea, hirigintza-antolamenduko irizpideei eta lurzoruaren arrazoizko erabilerari erantzunez, bai eta ibilgailuak eta bestelako salgaiak espazio publikoetan salerostearen erregulatzea, ikuskatzea eta arlo horretako zehapen-ahalmena.
35.	**Immigrazio** alorrean gizarteratze-politikak kudeatzea, atzerritartasunaren inguruko legeriarekin bat etorrita eta erakunde autonomikoekin lankidetzan.
36.	**Gazteria**-politikak planifikatzea, antolatzea eta kudeatzea.
37.	**Garapenerako lankidetza** alorreko politikak planifikatzea, antolatzea eta kudeatzea.
38.	**Beste lege batzuek eta foru-arauek esleitutako eskumenak betetzea.**

COMPETENCIAS TRANSFERIDAS: CARACTERÍSTICAS	
REGULACIÓN	• Artículos 20 y 21 **LILE.** • La **Ley o la Norma Foral de transferencia** determinará el régimen jurídico de la misma.
ATRIBUCIÓN	• Mediante **ley del Parlamento Vasco o mediante norma foral**, se pueden transferir, a las entidades locales territoriales, competencias propias de la Comunidad Autónoma o del Territorio Histórico respectivo.
FINANCIACIÓN	• Deberá ir **acompañada de una financiación suficiente** para su correcto ejercicio.
MUNICIPIOS Y OTRAS ENTIDADES	• Este tipo competencial resulta **preferentemente aplicable a los municipios**, que son las entidades locales básicas en función de la legitimación democrática directa. Además, podrán realizarse transferencias hacia otras **entidades locales territoriales**. • Cabrá la transferencia de competencias a **entidades locales creadas, en su caso, por los Territorios Históricos** (por ejemplo: Comarcas). • Difícilmente podría tener cabida la transferencia de competencias hacia **entidades de carácter asociativo** (como es el caso de las mancomunidades o consorcios) que no son entidades territoriales, sino asociativas; y no ejercen competencias propias, sino de titularidad de las entidades asociadas. • Podría caber la transferencia a **entidades inframunicipales de naturaleza singular**, como los **Concejos alaveses**, que son titulares de competencias propias.

COMPETENCIAS TRANSFERIDAS A LOS MUNICIPIOS: PRINCIPIOS	
EXCEPCIONALIDAD **(Carácter subsidiario de la competencia)**	• El legislador vasco o el poder normativo foral debe **optar primero por la atribución de competencias propias**.
RESERVA DE RANGO	• Necesidad **de ley del Parlamento Vasco o norma foral.**
FACULTADES CORRESPONDIENTES A LA COMPETENCIA QUE SE TRANSFIERE	• La **ley o norma foral de transferencia podrá preservar**, cuando se estime oportuno, **facultades** de ordenación, planificación, o coordinación general y control, **a favor de las instituciones competentes** de la Comunidad Autónoma o del Territorio Histórico. • **Dependiendo de las facultades que se reserven** las entidades titulares originariamente de las competencias, **así como de la intensidad** de que se dote a la competencia por la ley o norma foral de transferencia, el **régimen efectivo de prestación de estas competencias** transferidas se aproximará más al de las competencias propias o al de las competencias delegadas.
PRINCIPIO DE DIFERENCIACIÓN	• Posibilidad de hacer efectivo el principio de **diferenciación de unas entidades locales respecto a otras**, en razón de **sus características** (transferencia a algunas entidades únicamente, transferencia con distinto ámbito de facultades para unas entidades y para otras).

ESKUMEN TRANSFERITUAK: EZAUGARRIAK	
ERREGULAZIOA	• **ETEL** 20 eta 21. artikuluak. • **Transferentzia egiten duen legean edo foru-arauan** zehaztu beharko da transferentziaren araubide juridikoa.
ESLEITZEKO MODUA	• **Eusko Legebiltzarraren lege baten bidez edo foru-arau baten bidez**, Autonomia Erkidegoaren edo lurralde historikoaren eskumen propioak transferitu ahal izango zaizkie toki-erakundeei.
FINANTZAKETA	• Eskumenaren transferentziarekin batera, eskumena egoki gauzatzeko **behar besteko finantzaketa** eman beharko da.
UDALERRIAK ETA BESTE ERAKUNDE BATZUK	• Eskumen-mota hau **batez ere udalerrietan aplikatuko dira**, horiek baitira oinarrizko toki-erakundeak, legitimazio demokratiko zuzenaren arabera. Gainera, transferentziak egin ahal izango dira **lurraldeko beste toki-erakunde batzuetara**. • **Lurralde Historikoek sortutako toki-erakundeei** ere transferitu ahal izango zaizkie eskumenak, kasua denean (adibidez: Eskualdeei). • Lurralde-erakundeak baizik elkarte-izaerakoak direnei eta eskumen propioak baizik elkartutako erakundeen titulartasunekoak garatzen dituzten **elkarte-izaerako erakundeei** (mankomunitateei edo partzuergoei kasu) transferentziak egitea zaila izango da. • Eskumenak transferitu ahal izango litzaizkieke **udalerria baino lurralde-eremu txikiagoko erakundeei** ere, esaterako **Arabako kontzejuei**, eskumen propioen titular direlako.

UDALERRIEI ESKUALDATUTAKO ESKUMENAK: PRINTZIPIOAK	
SALBUESPENA **(Eskumenaren ordezko izaera)**	• EAEko legegileak edo foru-arauak emateko ahala duenak, **eskumen propioak esleitu behar ditu lehenik**.
MAILA ERRESERBATZEA	• **Eusko Legebiltzarrak emandako legea edo foru-araua** behar da.
TRANSFERITZEN DEN ESKUMENARI DAGOZKION AHALMENAK	• **Transferentziako foru-arauak edo legeak gorde ahalko ditu,** egokitzat jotzen duenean, antolamendu, planifikazio, edo koordinazio orokor eta kontroleko **ahalmenak,** Autonomia Erkidegoko edo Lurralde Historikoko **erakunde eskudunen alde**. • Jatorriz eskumenaren titularrak diren erakundeek **berentzat erreserbatzen dituzten ahalmenen arabera**, eta eskumenak transferitzeko legeak edo foru-arauak eskumenari ematen dion **intentsitatea** kontuan izanda, **eskumen horiek gauzatzeko benetako erregimena** hurbilago egongo da eskumen propioetatik edo eskumen eskuordetuetatik.
DIFERENTZIAZIO-PRINTZIPIOA	• **Tokiko erakunde batzuk beste batzuengatik bereizteko** printzipioa baliatzeko aukera, horien **ezaugarrien** arabera (erakunde batzuetara soilik transferitzea, erakunde batzuetarako eta besteetarako eskumen-eremu desberdinarekin transferitzea).

<table>
<tr><th colspan="3">COMPETENCIAS DELEGADAS</th></tr>
<tr><td colspan="2">REGULACIÓN</td><td>• Artículos 20 y 22 LILE y artículo 27 de la LRBRL (redacción de este artículo tras la LRSAL).
• Los Territorios Históricos, en uso de sus potestades de autoorganización, establecerán el régimen general de la delegación de sus competencias, de acuerdo con lo previsto en las leyes.</td></tr>
<tr><td colspan="2">FINES</td><td>• Mejorar el servicio público y la eficiencia en la prestación de los servicios públicos (LILE y LRBRL).
• Evitar las duplicidades administrativas (LILE y LRBRL).
• Salvaguardar la suficiencia financiera de las entidades locales (LILE y LRBRL).
• Salvaguardar los principios de estabilidad presupuestaria y sostenibilidad financiera (LILE y LRBRL).
• Mejorar la transparencia de los servicios públicos (LRBRL).
• Contribuir a los procesos de racionalización administrativa, generando un ahorro neto de recursos (LRBRL).</td></tr>
<tr><td colspan="2">ENTIDAD DELEGANTE</td><td>• El ente titular de la competencia, en calidad de competencia propia: administración del estado, instituciones comunes de la Comunidad Autónoma de Euskadi u órganos forales de los Territorios Históricos.</td></tr>
<tr><td colspan="2">ENTIDAD DELEGADA</td><td>• La delegación puede realizarse a favor de municipios o de otras entidades locales.
• La delegación en entidades asociativas (mancomunidades, consorcios), en principio, no tiene cabida, dado que ésas ejercen competencias cuya titularidad corresponde a las entidades asociadas.
• La delegación, para su efectividad, requiere la aceptación expresa de la entidad delegada.
• Cuando se trate de varias entidades delegadas, se seguirán criterios homogéneos en la delegación.</td></tr>
<tr><td colspan="2">OBJETO DE LA DELEGACIÓN</td><td>• Competencias propias de la entidad delegante.
• La LRBRL contiene un listado de competencias de delegación posible. El listado es orientativo, no un listado tasado.</td></tr>
<tr><td rowspan="2">DISPOSICIÓN O ACUERDO DE DELEGACIÓN</td><td>INCLUIRÁ AL MENOS</td><td>a) Normas legales que justifican la delegación.
b) Funciones cuya ejecución se delega.
c) Medios materiales, personales, económicos y financieros que, en su caso, se ponen a disposición de la entidad delegada, así como la valoración y el procedimiento de revisión.
d) Valoración del coste efectivo del servicio.
e) Fecha de efectividad y plazo de la delegación.
f) Condiciones, instrucciones y directrices emitidas por la Comunidad Autónoma, así como mecanismos de control, facultades que se reserva y procedimiento de formulación de requerimientos que podrá conllevar, en su caso, la revocación de la delegación.
g) Obligaciones de la entidad local a la que se le delega el ejercicio de la competencia.</td></tr>
<tr><td colspan="2">• Deberá acompañarse de una memoria económica donde se justifiquen la contribución a la eficiencia de la gestión pública y a la eliminación de duplicidades administrativas y el cumplimiento de la legislación de estabilidad presupuestaria y sostenibilidad financiera.
• El incumplimiento de las obligaciones establecidas en él podrá suponer la suspensión de la delegación.</td></tr>
<tr><td colspan="2">REQUISITOS PARA SU EFECTIVIDAD</td><td>• Aceptación de la entidad delegada.
• Cesión en uso de los medios materiales, las dotaciones económicas y financieras, y, en su caso, la adscripción de los recursos humanos necesarios para su ejercicio.</td></tr>
<tr><td colspan="2">FINANCIACIÓN: MEDIOS PERSONALES Y MATERIALES</td><td>• Habrá de ir acompañada de la cesión en uso de medios materiales, y de las dotaciones económicas y financieras necesarias, y, en su caso, la adscripción de los recursos humanos precisos para su ejercicio.
• Sin la dotación que garantice la prestación de los servicios delegados, la delegación será nula.
• El incumplimiento de las obligaciones financieras, por parte de la entidad delegante, facultará a la entidad delegada para activar el sistema de compensaciones financieras establecido en el artículo 24 LILE.</td></tr>
<tr><td colspan="2">LÍMITES</td><td>• No puede suponer un mayor gasto para las Administraciones Públicas.
• Deberá respetar, en todo caso, la potestad de autoorganización de la entidad local.</td></tr>
<tr><td colspan="2">DURACIÓN</td><td>• No podrá ser inferior a cinco años.</td></tr>
<tr><td colspan="2">COORDINACIÓN (TTHH)</td><td>• Las Diputaciones Forales, a solicitud de las entidades delegantes, coordinarán y realizarán el seguimiento de las competencias delegadas.
• Los órganos competentes de los TTHH, establecerán el régimen general de delegación de sus competencias, de acuerdo con lo previsto en las Leyes.</td></tr>
<tr><td colspan="2">CONTROL DE LA ENTIDAD DELEGANTE</td><td>• Podrá, para dirigir y controlar el ejercicio de los servicios delegados, dictar instrucciones técnicas de carácter general, recabar información sobre la gestión, enviar comisionados y formular los requerimientos pertinentes para la subsanación de las deficiencias observadas.
• En caso de incumplimiento de directrices, denegación de informaciones solicitadas, o inobservancia de los requerimientos formulados, podrá revocar la delegación o ejecutar por sí misma esa competencia.
• Los actos del Municipio podrán ser recurridos ante los órganos competentes de la Administración delegante.</td></tr>
<tr><td colspan="2">SUSPENSIÓN</td><td>• El incumplimiento de las obligaciones establecidas en el acuerdo o disposición de delegación podrá suponer, previa audiencia a la entidad local y acuerdo de la entidad delegante, la suspensión de la delegación y la sustitución del ejercicio de las competencias por la entidad delegada.</td></tr>
<tr><td colspan="2">REVOCACIÓN O RENUNCIA</td><td>• Las causas de revocación o renuncia deben figurar en el acuerdo o disposición de delegación.
• Serán causas de renuncia: el incumplimiento de las obligaciones financieras por parte de la entidad delegante o la imposibilidad justificada de desempeñarla sin menoscabo de las competencias propias.
• El acuerdo de renuncia se adoptará por el Pleno de la respectiva Entidad Local.
• Deberán determinarse los mecanismos de liquidación de los recursos y cargas (del ejercicio o del no ejercicio).</td></tr>
<tr><td colspan="2">EJERCICIO DE LA DELEGACIÓN</td><td>• Se ejercerá con plena responsabilidad, sin perjuicio de las facultades de dirección y control de la entidad delegante.
• Se ajustará a la legislación y normativa relativas al ámbito de que se trate.</td></tr>
</table>

<table>
<tr><th colspan="3">ESKUORDETUTAKO ESKUMENAK</th></tr>
<tr><td colspan="2">ERREGULAZIOA</td><td>• ETELen 20 eta 22. artikuluak eta TAOLen 27. artikulua (artikulu horren idazkuntza TAAIL ostean).
• Lurralde historikoek, autoantolaketarako ahalak erabilita, eskumen-eskuordetzaren araubide orokorra ezarriko dute, legeetan aurreikusitakoarekin bat etorrita.</td></tr>
<tr><td colspan="2">XEDEAK</td><td>• Zerbitzu publikoen prestazioaren efizientzia hobetzea (ETEL eta TAOL).
• Administrazio-bikoiztasunak ekiditea (ETEL eta TAOL).
• Toki-erakundeen finantza-nahikotasuna babestea (ETEL eta TAOL).
• Aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-jasangarritasunaren printzipioak babestea (ETEL eta TAOL).
• Zerbitzu publikoen gardentasuna hobetzea (TAOL).
• Administrazioaren arrazionalizazio-prozesuetan laguntzea baliabideen aurrezte garbia lortuz (TAOL).</td></tr>
<tr><td colspan="2">ERAKUNDE ESKUORDETZAILEA</td><td>• Eskumenaren titularra den erakundea, eskumen propio gisa: estatuko administrazioa, Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde komunak, edo lurralde historikoetako foru-organoak.</td></tr>
<tr><td colspan="2">ERAKUNDE ESKUORDETUA</td><td>• Udalen edo beste toki-erakunde batzuen alde egin daiteke eskuordetzea.
• Printzipioz, ez da aukerarik uzten elkarte-izaerako erakundeei eskuordetzeko (mankomunitate, kontsortzio), elkartea osatzen duten erakundeen titularitateko eskumenak egikaritzen dituztelako.
• Eskuordetzea benetan burutzeko, eskuordetutako erakundeak berariaz onartu beharko du.
• Eskuordetutako hainbat erakunde direnean, eskuordetzean irizpide homogeneoak jarraituko dira.</td></tr>
<tr><td colspan="2">ESKUORDETZEAREN OBJEKTUA</td><td>• Erakunde eskuordetzailearen eskumen propioak.
• TAOLek zerrenda batean jasotzen ditu eskuordetu daitezkeen eskumenak. Zerrenda orientagarria da; ez da zerrenda tasatu bat.</td></tr>
<tr><td rowspan="3">ESKUORDETZEKO ERABAKIA EDO XEDAPENA</td><td>GUTXIENEZ ZEHAZTUKO DITU</td><td>a) Eskuordetzea justifikatzen duten lege-arauak.
b) Zein eginkizun betearaztea eskuordetu den.
c) Zein baliabide material, ekonomiko nahiz finantzario edo giza baliabide jarriko diren toki-erakunde eskuordetuaren esku, bai eta balorazioa eta berrikusteko prozedura ere.
d) Zerbitzuaren egiazko kostuaren balorazioa.
e) Eskuordetzea zein egunetan gauzatuko den, eta zenbateko epea izango duen.
f) Autonomia-erkidegoak jarritako baldintzak, emandako instrukzio edo jarraibideak, jarritako kontrol-bideak, berarentzat gordetako ahalmenak, eta errekerimenduak egiteko zehaztutako prozedura; azken horren arabera, eskuordetzea ezeztatzea ere gerta daiteke.
g) Eskumena eskuordetzan jasotzen duen toki-erakundeak izango dituen betebeharrak.</td></tr>
<tr><td colspan="2">• Memoria ekonomiko bat ere aurkeztu beharko da, kudeaketa publikoa eraginkorra izan dadin eta administrazio-bikoiztasunak saihestu daitezen egindako ekarpenak eta aurrekontu-egonkortasuna eta finantza-jasangarritasuna mintzagai dituen legediaren betearazpena justifikatzeko.
• Bertan ezarritako betebeharrak ez betetzeak eskuordetzea etetea eragin ahalko du.</td></tr>
<tr><td colspan="2">ERAGINKORRA IZATEKO BALDINTZAK</td><td>• Erakunde eskuordetuak onartzea.
• Eskumena egikaritzeko behar diren baliabide materialak, zuzkidura ekonomiko eta finantzarioak lagatzea eta, beharrezkoa bada, giza baliabideak jartzea.</td></tr>
<tr><td colspan="2">FINANTZAKETA: BALIABIDE PERTSONAL ETA MATERIALAK</td><td>• Eskumena egikaritzeko behar diren baliabide materialak, zuzkidura ekonomikoak nahiz finantzarioak laga beharko dira eta, beharrezkoa bada, giza baliabideak jarri.
• Eskuordetutako zerbitzuak emateko zuzkidurarik bermatzen ez bada, eskuordetzea deuseza izango da.
• Erakunde eskuordetza-emaileak finantza-arloko betebeharrak betetzen ez baditu, ETELen 24. artikuluan ezarritako finantza-konpentsazioen sistema aktibatu ahal izango du eskuordetutako toki-erakundeak.</td></tr>
<tr><td colspan="2">MUGAK</td><td>• Ez du gastu handiagorik ekarriko administrazio publikoentzat.
• Dena den, toki-erakundeak bere burua antolatzeko duen ahala errespetatu beharko du.</td></tr>
<tr><td colspan="2">IRAUPENA</td><td>• Ezin izango da izan bost urtetik beherakoa.</td></tr>
<tr><td colspan="2">KOORDINAZIOA (Lurralde historikoak)</td><td>• Foru-aldundiek, erakunde eskuordetzaileek eskatuta, eskuordetutako eskumenak koordinatuko dituzte eta haien jarraipena egingo dute.
• Lurralde historikoetako organo eskudunek eskumen-eskuordetzaren araubide orokorra ezarriko dute, legeetan aurreikusitakoarekin bat etorrita.</td></tr>
<tr><td colspan="2">ERAKUNDE ESKUORDETZAILEAREN KONTROLA</td><td>• Eskuordetza ematen duen administrazioak jarraibide tekniko orokorrak ezar ditzake eskuordetutako zerbitzuak gauzatzeko modua zuzendu eta kontrolatzeko, kudeaketari buruzko informazioa eska dezake, eta ordezkariak bidali eta ohartemandako hutsak zuzentzeko beharrezko eskaerak egin.
• Jarraibideak urratzen badira, eskatutako informazioak ukatzen badira, edo egindako errekerimenduak betetzen ez badira, ordezkaritza indarrik gabe utzi ahalko da edo eskumena bere kabuz gauzatu.
• Udalerriaren egintzen aurka errekurtsoak jarri ahalko dira administrazio eskuordetzaileko organo eskudunetan.</td></tr>
<tr><td colspan="2">ETENDURA</td><td>• Eskuordetze-erabakian edo -xedapenean ezarritako betebeharrak ez badira betetzen, gerta daiteke eskuordetzea bertan behera uztea eta eskumen horiek berriz ere erakunde eskuordetzaileak bereganatzea, aldez aurretik toki-erakundeak dioena entzun eta erakunde eskuordetzaileak hala erabaki ostean.</td></tr>
<tr><td colspan="2">INDARRIK GABE UZTEA EDO UKO EGITEA</td><td>• Indarrik gabe utzi edo ukatzeko arrazoiak eskuordetze-erabakian edo -xedapenean agertu beharko dira.
• Uko egiteko arrazoiak izango dira: erakunde eskuordetzaileak finantza-betebeharrak ez betetzea edo horiek betetzeko ezintasun justifikatua izatea, eskumen propioak kaltetu gabe.
• Uko egiteko erabakia kasuan kasuko toki-erakundearen osoko bilkuran hartuko da.
• Eskuordetutako eskumenak gauzatzearen edo ez gauzatzearen ondoriozko baliabideak eta kargak nola likidatuko diren zehaztu beharko da.</td></tr>
<tr><td colspan="2">ESKUORDETZA EGIKARITZEA</td><td>• Eskumenak erabateko erantzukizunez gauzatuko ditu hartzaileak, erakunde eskuordetzailearen zuzendaritza- eta kontrol ahalmenak kaltetu gabe.
• Dagokion eremuari buruzko legeriari eta araudiari lotuko zaio.</td></tr>
</table>

COMPETENCIAS COMPLEMENTARIAS (derivadas de la cláusula universal de competencias)	
REGULACIÓN	• El **artículo 16 de la LILE** establece la **cláusula universal de competencias** municipales y **actividades, servicios o prestaciones** que no tengan el carácter de competencias propias, transferidas o delegadas. • La LRSAL derogó el contenido del artículo 28 de la LRBRL que establecía la posibilidad de que los municipios realizasen **actividades complementarias de las propias de otras Administraciones Públicas** y, en particular, las relativas a la educación, la cultura, la promoción de la mujer, la vivienda, la sanidad y la protección del medio ambiente. • No obstante lo anterior, el **artículo 7.4 de la LRBRL** permite que los **municipios puedan ejercer competencias distintas de las propias y de las atribuidas por delegación,** cuando se den **acumulativamente las exigencias previstas en la norma:** a) **No afectación a la sostenibilidad financiera** de la hacienda municipal en su conjunto. b) **No incurrir en ejecución simultánea del mismo servicio público,** con otra Administración. c) **informes previos: de la Administración competente por razón de materia**, en el que se señale la inexistencia de duplicidades; y de la **Administración que tenga atribuida la tutela financiera** sobre la sostenibilidad financiera de las nuevas competencias. • Este tipo de competencias una vez que se cumplan las exigencias citadas, **se ejercerán con autonomía y plena responsabilidad, en términos homologables al de las competencias propias.** El T.C. las ha denominado «competencias propias generales» (nomenclatura confusa), diferenciándolas de las «competencias propias específicas» (derivadas de la legislación sectorial): STC 41/2016. Es más correcta la denominación de la LILE, pues, más que competencias, son actividades, prestaciones o servicios (STC 107/2017).
COMPETENCIAS DE POSIBLE ASUNCIÓN	• **Los municipios, en general,** podrán asumir c**ompetencias, actividades, servicios o prestaciones que:** → **NO tengan el carácter de competencias propias, transferidas o delegadas.** → **Se dirijan** a **ordenar y gestionar cualquier ámbito de actividad** que implique **mejora en la calidad de vida de la ciudadanía** y **satisfaga cualquier tipo de necesidades o intereses de la comunidad**. • **Los municipios que no cumplan los objetivos de estabilidad presupuestaria y sostenibilidad financiera** según lo previsto en la legislación correspondiente y en las normas forales solo podrán desarrollar tales competencias, actividades, servicios o prestaciones, de acuerdo con lo que se prevea en su **plan económico-financiero correspondiente** y **en los términos en que se establezca por las instituciones competentes.**
COMPETENCIAS CUYA ASUNCIÓN NO ES POSIBLE	• Los municipios no podrán asumir o ejercer competencias sobre determinadas **actividades, servicios o prestaciones** que, según el sistema de atribución de competencias, estén **reservadas expresamente por el ordenamiento jurídico a otro nivel de gobierno**, con el fin de evitar duplicidades (ver concepto legal de duplicidad en ficha 3.3.1).
MUNICIPIOS Y OTRAS ENTIDADES LOCALES	• Las **competencias municipales derivadas de la cláusula universal**, no podrían ser, **en ningún caso, ejercidas por otro tipo de entidades locales que no sean los municipios,** sin perjuicio de la posibilidad de éstos de asociarse para su ejercicio, a través de las fórmulas legalmente previstas (aspecto este polémico tras la dicción de la disposición transitoria undécima LRSAL y su interpretación por la jurisprudencia constitucional). Pero el amplio listado de competencias propias que atribuye la LILE a los municipios vascos convierte este problema, hoy en día, en meramente residual.
ASUNCIÓN DE NUEVAS COMPETENCIAS COMPLEMENTARIAS	• El municipio que quiera ejercer competencias complementarias, deberá **justificar**, en sendos **informes de Secretaría e Intervención** (o de los órganos competentes en esas materias), el cumplimiento de los requisitos de **inexistencia de duplicidad** y **sostenibilidad financiera.** • El municipio solicitará, por medio de su alcalde, y dando cuenta al Pleno de la entidad, **informes** a: → La **administración competente por razón de la materia, y** → **La diputación foral** que tenga atribuida la **tutela financiera**. • **Los informes** que realicen dichas instituciones: → **Serán vinculantes y motivados.** → **Pod**rán ser **denegatorios, únicamente:** ⇒ por razón de existencia de **duplicidad, o** ⇒ **por motivo de afectación a la sostenibilidad financiera del municipio**. → Tendrán un **plazo de 20 días hábiles para su emisión**. De no emitirse los informes anteriores en el plazo legal, el municipio podrá proseguir con sus pretensiones (en este caso el **silencio** administrativo es **positivo).** • El **Gobierno Vasco** establecerá**,** por **norma reglamentaria**, y para aquellas materias en las que **ostente la competencia, el procedimiento de solicitud y los criterios para emitir los informes preceptivos y necesarios,** por los correspondientes departamentos, en aquellas actividades, servicios o prestaciones en los que el municipio identifique que puede existir una posible duplicidad (art. 16.7 LILE).
CONTINUACIÓN DE ACTIVIDADES, SERVICIOS O PRESTACIONES COMPLEMENTARIAS	• **Los municipios podrán continuar desarrollando** las actividades, servicios o prestaciones que, no estando encuadradas dentro del ámbito de las competencias propias, delegadas o transferidas, vinieran ejerciendo a la entrada en vigor de la LILE. • **No se requerirán los informes precisos** para la asunción de nuevas competencias complementarias.
FINANCIACIÓN	• La financiación del ejercicio de las actividades, servicios o prestaciones complementarias derivadas de la cláusula universal de competencias corresponderá **EXCLUSIVAMENTE AL MUNICIPIO que emprenda tales actividades, servicios o prestaciones, SALVO QUE:** → Así se **prevea expresamente en una ley o norma foral** o, → **Excepcionalmente**, sea objeto de una **política subvencional específica** de las instituciones autonómicas o forales.

ESKUMEN OSAGARRIAK (eskumenen klausula unibertsalaren ondoriozkoak)	
ERREGULAZIOA	• **ETELen 16. artikuluak** ezartzen du **klausula unibertsala udal-eskumenei** buruz eta eskumen propio, transferitu edo eskuordetu ez diren **jarduera, zerbitzu edo prestazioei buruz** • TAAILek TAOLen 28. artikuluaren edukia indargabetu zuen. Honela zioen artikulu hark: «Berez beste herri-administrazio batzuei badagozkie ere, **udalerriek haien jarduera osagarri batzuk** egin ditzakete, bereziki, hezkuntzari, kulturari, emakumearen sustapenari, etxebizitzari, osasunari eta ingurumena babesteari buruzkoak». • **TAOLen 7.4 artikuluak**, ordea, ahalbidetzen du **udalerriek berezkoak ez diren eta eskuordetze bidez esleitzen zaizkien eskumenak egikaritu ahal izatea, honako arau honetan aurreikusitako eskakizunak daudenean:** a) Udal-ogasun osoaren **finantza-jasangarritasuna arriskuan ez jartzea**. b) **Zerbitzu publiko bera aldi berean ez egikaritzea** beste administrazio publiko batekin. c) **Aurretiazko txostenak: arloan eskumena duen administrazioarena**, bikoiztasunik ez dagoela adierazteko; eta **finantza-tutoretza esleitu zaion administrazioarena** eskumen berrien finantza-jasangarritasunari buruz. • Era honetako eskumenak, aipatutako eskakizun guztiak betetzen direnean, **autonomiaz eta erantzukizun osoz egikarituko dira, eskumen propioekin homologatzeko moduko baldintzetan.** Konstituzio auzitegiak «eskumen propio orokor» izendatu ditu (nomenklatura nahasia), «eskumen propio zehatzetatik» bereizita (legedi sektorialaren ondoriozkoak): KAren 41/2016 Epaia. ETELen izendapena zuzenagoa da, eskumenez harago, jarduerak, prestazioak eta zerbitzuak baitira (KAren 107/2017 epaia).
HAR DAITEZKEEN ESKUMENAK	• **Udalerriek, oro har, eskumenak, jarduerak, zerbitzuak edo prestazioak** hartu ahal izango dituzte berengain, **baldin eta baldintza hauek betetzen badituzte:** → **Eskumen propio, transferitu edo eskuordeturik EZ badute**. → **Herritarren bizi-kalitatearen hobekuntza** dakarren **edozein jarduera-eremu antolatu eta kudeatzeko bada eta komunitatearen edonolako behar edo interesei erantzuten badie.** • Dagokion legerian eta foru-arauetan aurreikusitakoaren arabera **aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-jasangarritasunaren helburuak betetzen ez dituzten udalerriek**, **beren plan ekonomiko-finantzarioan aurreikusitakoaren arabera eta erakunde eskudunek ezartzen dituzten baldintzetan** soilik baliatu ahal izango dituzte eskumen, jarduera, zerbitzu edo prestazio horiek.
HARTU EZIN DIREN ESKUMENAK	• Udalerriek ezingo dute eskumenik berengain hartu edo baliatu **jarduera, zerbitzu edo prestazio** jakin batzuen gainean, baldin eta, eskumenak esleitzeko sistemaren arabera, **berariaz erreserbatzen baditu antolamendu juridikoak beste gobernu-maila batentzat,** bikoiztasunak saiheste aldera (ikus bikoiztasunaren legezko kontzeptua, 3.3.1. fitxan).
UDALERRIAK ETA BESTE TOKI-ERAKUNDE BATZUK	• **Klausula unibertsalaren ondoriozko udal-eskumenak** inoiz ere **ezingo dituzte egikaritu udalak ez diren toki-erakundeek**, eta udalei onartzen zaie eskumen horiek egikaritzeko elkartu ahal izateko aukera, horretarako aurreikusitako legezko formulen bidez (alderdi horrek gatazka piztu zuen TAAILen hamaikagarren xedapen iragankorra idatzi eta konstituzio-jurisprudentziak interpretatu ondoren). Baina ETELek euskal udalerriei esleitzen dizkien eskumen propioen zerrenda luzeak arazo hori, gaur egun, hondarrekoa bihurtzen du.
ESKUMEN OSAGARRI BERRIAK HARTZEA	• Eskumen osagarriak egikaritu nahi dituzten udalerriek **bikoiztasunik ez dagoela eta finantzen ikuspegitik jasangarriak direla** erakusteko eskakizun guztiak betetzen dituztela **justifikatu** beharko dute, **idazkariak eta kontu-hartzaileak** (edo arlo horien gaineko eskumena dutenek) egindako txosten banatan. • Udalerriak, alkatearen bidez eta erakundeko osoko bilkurari jakinarazita, **txostenak** eskatu ahalko dizkie honako hauei: → **Arlo horretan eskumena duen administrazioari, eta** → **Finantza-tutoretza** esleitua duen **foru-aldundiari.** • Erakunde horiek egiten dituzten **txostenak**: → **Lotesleak eta arrazoituak izango dira.** → **Ukatzaileak** izan ahalko dira, **soilik:** ⇒ **bikoiztasunik** badago **edo** ⇒ **udalerriaren finantza-jasangarritasunari eragiten zaiola iritzi badiote**. → **Txosten horiek egiteko 20 egun balioduneko epea** izango dute. Epe horretan txostenik egiten ez bada, udalerriek aurrera jarraitu ahal izango dute hasierako asmoarekin (kasu honetan, administrazioaren **isiltasuna positibotzat** joko da). • **Eusko Jaurlaritzak erregelamendu-mailako arau bidez** ezarriko du **zer prozedura** jarraitu behar duten udalerriek —beren eskumeneko jarduera, zerbitzu edo prestazioei buruz bikoiztasunik ikusten dutenean— kasuan kasuko sailak egin beharreko **nahitaezko txostenak eskatzeko**; eta **zer irizpide** bete behar diren **txostenak egiteko** (ETEL, 16.7. artikulua).
JARDUERA, ZERBITZU EDO PRESTAZIO OSAGARRIEKIN SEGITZEA	• **Udalerriek aukera izango dute** -eskumen propioetan sartu ez arren, eta eskumen eskuordetu edo transferitu ez izan arren- ETEL indarrean sartzen denean **garatzen** ari ziren jarduera, zerbitzu edo prestazioekin aurrera **segitzeko**. • **Ez dira beharrezkoak izango** eskumen osagarri berriak hartzeko eskatzen diren **txostenak**.
FINANTZAKETA	• Eskumenen klausula unibertsalaren ziozko jarduera, zerbitzu edo prestazio osagarriak baliatzeko finantziazioa **OSO-OSORIK izango da jarduera, zerbitzu edo prestazio horiek garatzen dituen UDALERRIARENA; SALBUESPENA EGINGO DA, baldin eta:** → **Lege edo foru-arauren batean berariaz hala aurreikusten bada** edo, → **Salbuespen modura**, erkidego- edo foru-erakundeen **politika berezi baten arabera diruz laguntzekoa bada**.

SISTEMA DE GARANTÍAS DE LAS COMPETENCIAS MUNICIPALES (especialmente respecto de las «competencias propias»)			LILE
DE PROCEDIMIENTO	• **El listado de competencias** municipales de la LILE supone una **reserva de funciones o facultades** que limita, en principio, la actuación del **legislador sectorial vasco o el poder normativo foral sectorial** que, cuando atribuyan competencias propias a los municipios, deberán salvaguardar las facultades previstas para cada materia en ese listado y en el conjunto del texto de la LILE. • La **limitación de esas funciones reservadas** por el legislador sectorial vasco o el poder normativo foral deberá cumplir **dos exigencias formales: motivación adecuada**, de acuerdo con los principios de **subsidiariedad y proporcionalidad;** y **materialización normativa de la limitación de las facultades establecidas de forma expresa**, por medio de una modificación «ad hoc» del correspondiente enunciado normativo previsto en la LILE (artículo 17.1).		**17.2**
FORMALES, DE RANGO	• La **determinación de las competencias municipales** deberá realizarse, **por regla general, por ley o norma foral**. **Excepciones:** La intervención de la **potestad reglamentaria** para la **concreción de servicios, actividades o prestaciones** derivadas de **competencias propias**. • Las leyes y normas forales que determinen competencias propias de los municipios deben **sujetarse a una serie de principios y reglas**: a) **Evaluación de la conveniencia de tal regulación** de conformidad con los **principios** de suficiencia financiera, proximidad a la ciudadanía, subsidiariedad y, en su caso, diferenciación. b) **Determinación expresa de las funciones** en cada ámbito material. **c) No incurrir en duplicidad** (Ver concepto legal de duplicidad en ficha 3.3.1). d) Inclusión de un **anexo específico** que prevea la **dotación de recursos financieros** necesarios para asegurar la suficiencia financiera, sin que ello (salvo autorización del Consejo Vasco de Finanzas Públicas) conlleve, en su conjunto, un mayor gasto. (Todo ello sin descuidar la regla de que la financiación ha de ser generalmente incondicionada).		**18.1 18.2 18.3**
FINANCIACIÓN	• **Atribución de nuevas competencias propias, tras la LILE.** → Las leyes y normas forales que atribuyan competencias propias deberán **determinar** los **medios de financiación** necesarios. → Los proyectos aportarán **análisis del impacto** de la asunción de la competencia **en la hacienda local** (a efectos de garantizar los principios de autonomía, estabilidad, sostenibilidad y suficiencia financiera). → **Informe del Departamento de Hacienda** del Gobierno Vasco o la Diputación Foral sobre el cumplimiento de los principios anteriores.		**18.3 111 112.2**
	• **Competencias delegadas y** competencias gestionadas mediante **convenios de colaboración** con la Administración General de la Comunidad Autónoma o con las Diputaciones Forales. → Garantía de cumplimiento de las obligaciones financieras de tales convenios mediante la habilitación, **a favor del Consejo Vasco de Finanzas Públicas,** para que éste, en su caso, retenga las transferencias financieras no realizadas y lleve a cabo las aportaciones y compensaciones de Finanzas Públicas.		**24**
PRESTACIÓN DEL SERVICIO	• **Posible la disociación entre titularidad y gestión**, en algunos casos, gestionando la competencia municipal mediante **fórmulas asociativas** que agrupen a varias entidades. • **Posible** establecer **fórmulas institucionales de intermunicipalidad o demarcaciones supramunicipales**, cuando fuera necesario por motivos de economía de escala o para una mejora en los resultados de la gestión. • **Obligación legal**, para las **Diputaciones Forales, de asistir técnicamente** a los municipios, para garantizar la efectividad de las competencias municipales propias.		**19.2 19.3 19.4**
INSTITUCIONALES	**COMISIÓN DE GOBIERNOS LOCALES** (VER FICHA: 27.1)	Órgano de **alerta temprana** para la salvaguarda de la autonomía local y órgano de **garantía de las competencias** municipales.	**87 a 91**
	CONSEJO VASCO DE POLÍTICAS PÚBLICAS LOCALES (VER FICHA: 27.2)	Órgano de **participación** de los **representantes municipales** en la **elaboración de políticas públicas autonómicas que incidan sobre el ámbito local**.	**83 a 86**
	ÓRGANOS DE PARTICIPACIÓN Y ALERTA TEMPRANA EN LOS TTHH	**Previsión de la posibilidad** de su creación, para la salvaguarda de la autonomía municipal.	**92**
	CONSEJO VASCO DE FINANZAS PÚBLICAS	Órgano de **garantía de la autonomía local,** desde el punto de vista **financiero**. (Modificación LTH por LILE).	**DF 1**

Guía Local - ISBN 978-84-7777-690-1

<table>
<tr><th colspan="3">UDAL-ESKUMENEN BERME-SISTEMAK
(«eskumen propioei» buruzkoak batez ere)</th><th>ETEL</th></tr>
<tr><td>PROZEDURARI BURUZKOAK</td><td colspan="2">• ETELen udal-eskumenen zerrendak funtzio edo ahalmena batzuk erreserbatzea dakar, eta horrek printzipioz mugatu egiten du euskal legegile sektorialaren edo botere arau-emaile foral sektorialaren jarduketa. Izan ere, udalerriei eskumen propioak esleitzen zaizkienean, zerrenda horretan eta ETELen testu osoan gai bakoitzerako aurreikusitako ahalmenak zaindu beharko dira.
• Euskal legegile sektorialak edo foru-arauemaileak udalerrientzat gordetako funtzio horien edozein murrizketa egiteko, bi baldintza formal bete beharko dira: egoki arrazoitu beharko da, subsidiariotasun- eta proportzionaltasun-printzipioekin bat etorrita; eta ezarritako ahalmenen mugatzea arau bidez gauzatu beharko da beren-beregi, ETELen (17.1. artikuluan) aurreikusitako enuntziatua «ad hoc» aldatuz.</td><td>17.2</td></tr>
<tr><td>FORMALAK, MAILARI BURUZKOAK</td><td colspan="2">• Oro har, udal-eskumenak lege bidez edo foru-arau bidez zehaztu beharko dira. Salbuespenak: Eskumen propioen ziozko zerbitzu, jarduera edo prestazioak zehazteko erregelamendu-ahala baliatzea.
• Udalerrien eskumen propioak zehazten dituzten lege eta foru-arauek bete egin behar dituzten hainbat printzipio eta arau:
a) Erregulazio hori egokia ote den ebaluatzea, finantza-nahikotasunaren, herritarrekiko hurbiltasunaren, subsidiariotasunaren eta, hala badagokio, diferentziazioaren printzipioen arabera.
b) Esparru material bakoitzeko eginkizunak beren-beregi zehaztea.
c) Bikoiztasunik ez egitea (Ikus bikoiztasunaren legezko kontzeptua 3.3.1. fitxan).
d) Eranskin berezi batean biltzea zenbatekoa den udalerrien finantza-nahikotasuna bermatzeko behar den finantza-baliabideen zuzkidura. Zuzkidura horrek ez du, bere osotasunean hartuta, gastu handiagorik ekarriko (salbu eta Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak baimentzen badu). (Hori dena, finantzaketa oro har baldintzarik gabea izango dela dioen erregela ahaztu gabe).</td><td>18.1
18.2
18.3</td></tr>
<tr><td rowspan="2">FINANTZAKETA</td><td colspan="2">• Eskumen propio berriak esleitzea ETELen ondoren.
→ Eskumen propioak ematen dituzten legeek eta foru-arauek behar diren finantza-baliabideak zehaztu beharko dituzte.
→ Proiektuarekin batera, egoera berriak toki-ogasunean izango duen eraginari buruzko analisi bat jaso beharko da (autonomia-printzipioa, egonkortasun-printzipioa, finantza-jasangarritasunaren eta -nahikotasunaren printzipioa bermatzeko).
→ Eusko Jaurlaritzako Ogasun Sailaren edo Foru Aldundiaren txostena, aurreko printzipioen betearazpenari buruzkoa.</td><td>18.3
111
112.2</td></tr>
<tr><td colspan="2">• Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrarekiko edo Foru Aldundiekiko lankidetza-hitzarmenen bidez kudeatutako eskumenak eta eskumen eskuordetuak.
→ Hitzarmen horietan ezarritako finantza-betebeharrak betetzeko bermea, Herri Dirubideen Euskal Kontseiluaren alde emana, behar izanez gero, egin gabe geratzen diren finantza-transferentziak atxiki ditzan eta finantza publikoetako ekarpenak eta konpentsazioak burutu ditzan.</td><td>24</td></tr>
<tr><td>ZERBITZUAREN PRESTAZIOA</td><td colspan="2">• Titulartasunaren eta kudeaketaren arteko lotura kentzeko aukera, hainbat erakunde batzen dituzten elkarte-formulen bidez kudeatuz udalaren eskumena.
• Udalarteko formula instituzionalak edo udalaz gaindiko mugarteak ezartzeko aukera, eskalako ekonomiako arrazoiak behartuta edo kudeaketa-emaitzak hobetzeko.
• Foru-aldundiak legez behartuta daude udalerriei laguntza teknikoa ematera, udal-eskumen propioak benetan gauzatzen direla bermatzeko.</td><td>19.2
19.3
19.4</td></tr>
<tr><td rowspan="4">INSTITUZIONALAK</td><td>TOKIKO GOBERNUEN BATZORDEA
(IKUS 27.1. FITXA)</td><td>Toki-autonomia zaintzeko alerta goiztiarreko organoa eta udal-eskumenak bermatzeko organoa.</td><td>87
-
91</td></tr>
<tr><td>TOKIKO POLITIKA PUBLIKOEN EUSKAL KONTSEILUA
(IKUS 27.2. FITXA)</td><td>Udal-ordezkariek toki-mailan eragina duten erkidegoko politika publikoak prestatzen parte hartzeko organoa.</td><td>83
-
86</td></tr>
<tr><td>LHetako PARTE HARTZEKO ETA ALERTA GOIZTIARREKO ORGANOAK</td><td>Organo horiek sortzeko aukera aurreikusten da, udal-autonomia zaintzeko.</td><td>92</td></tr>
<tr><td>FINANTZA PUBLIKOEN EUSKAL KONTSEILUA</td><td>Toki-autonomia finantzen aldetik bermatzeko organoa. (Lurralde Historikoen Legea ETEL bidez aldatzea).</td><td>1. AX</td></tr>
</table>

DISPOSICIONES TRANSITORIAS DE LA LILE APLICABLES AL RÉGIMEN COMPETENCIAL	
EJERCICIO DE COMPETENCIAS PROPIAS POR LOS MUNICIPIOS SIN PREVIA LEY O NORMA FORAL (Disposición Transitoria Primera, apartado 2)	• En los **ámbitos materiales en que se reconocen competencias propias** a los municipios, cuando, a la entrada en vigor de la LILE, la **legislación o norma foral sectorial no haya determinado aún el alcance** de las competencias propias, las entidades locales **podrán ejercer las facultades o potestades que la LILE** prevé como correspondientes a la competencia propia de que se trate. • La financiación del ejercicio de estas facultades se llevará a cabo con **financiación propia**, o mediante **convenios de colaboración con la administración correspondiente**, que garantizarán los recursos necesarios para su correcto ejercicio.
EJERCICIO DE COMPETENCIAS PROPIAS ATRIBUIDAS POR LEGISLACIÓN Y NORMATIVA FORAL SECTORIALES ANTERIORES A LA LILE (Disposición transitoria Primera, apartado 1)	• Las entidades locales **conservan las competencias** reconocidas en la legislación o normativa foral anterior **a la entrada en vigor de la LILE.** • Se garantiza, además, que estas competencias continuarán disponiendo de la **financiación suficiente.**
GARANTÍA DE CONTINUACIÓN DE ACTIVIDADES, SERVICIOS Y PRESTACIONES QUE SE VINIESEN DESARROLLANDO POR LOS MUNICIPIOS (Disposición Transitoria Tercera)	• Los municipios podrán continuar desarrollando las **actividades, servicios o prestaciones que, no estando encuadradas dentro del ámbito de las competencias propias, ni hayan sido objeto de delegación o transferencia**, vinieran **ejerciendo a la entrada en vigor de esta ley.** • Para la continuación de estas actividades, servicios y prestaciones —que se viniesen desarrollando, y que no pudieran ser calificadas dentro del ámbito de las competencias propias, ni delegadas, ni transferidas—, **no será precisa la elaboración de los informes** que la LILE (artículos 16.7 y 16.8) exige **para el impulso de estas actividades tras la entrada en vigor de la LILE.**
REALIZACIÓN DE UN ANÁLISIS GENERAL DE LAS COMPETENCIAS PROPIAS MUNICIPALES Y DE LA FINANCIACIÓN DE LOS DISTINTOS NIVELES DE GOBIERNO (Disposición Transitoria Primera, apartado 3)	• Se elaborará, en el plazo de **un año desde la entrada en vigor de la LILE**, y **en el marco del Consejo Vasco de Finanzas Públicas,** un **análisis general de las competencias propias y de la financiación de los distintos niveles institucionales** de la Comunidad Autónoma de Euskadi. • El **fin** de este análisis es **asegurar una distribución adecuada del gasto público,** por lo que está **vinculado con la financiación de los entes locales** (especialmente con la financiación de los municipios). • Las **conclusiones** de este análisis serán tenidas en cuenta en la **revisión de la ley que define la metodología de distribución de recursos y de determinación de las aportaciones** de las diputaciones forales a la financiación de los presupuestos de la Comunidad Autónoma de Euskadi.
FINANCIACIÓN ADECUADA DEL DESARROLLO REGLAMENTARIO POSTERIOR A LA LILE DE LEYES O NORMAS FORALES ANTERIORES A LA ENTRADA EN VIGOR DE LA LILE (Disposición Transitoria novena)	• **El desarrollo reglamentario de aquellas leyes sectoriales o normas forales emanadas con anterioridad** a la vigencia de la Ley de Instituciones Locales **que conlleve una concreción de servicios, actividades o prestaciones derivados de competencias atribuidas como propias** a los ayuntamientos, **deberá ir acompañado de la financiación adecuada.**

ETEL-EN XEDAPEN IRAGANKORRAK ESKUMEN-ARAUBIDEARI APLIKATZEKOAK	
UDALEK ESKUMEN PROPIOAK BALIATZEA LEGEA EDO FORU-ARAUA EMAN AURRETIK (Lehenengo xedapen iragankorra, 2. zenbakia)	• Udalerriei **eskumen propioak aitortzen zaizkien esparru materialetan**, ETEL indarrean sartzen denean **sektore-legeriak edo foru-arauek zehaztu gabe badaukate oraindik eskumen propioen irismena**, toki-erakundeek **ETELen eskumen propio bakoitzerako jasotako ahalmenak eta ahalak baliatu ahal izango dituzte**. • Ahalmen horiek baliatuko dituzte **finantzaketa propioarekin** edo **dagokion administrazioarekin lankidetza-hitzarmenak sinatuta**, eta, horrelakoetan, beste administrazioak bermatuko dizkie behar dituzten baliabideak.
ETEL-EN AURREKO LEGEEK ETA FORU-ARAUEK EMANDAKO ESKUMEN PROPIOAK BALIATZEA (Lehenengo xedapen iragankorra, 1. zenbakia)	• Toki-erakundeek **eutsi** egingo diete **ETEL indarrean sartu aurretik** legeek edo foru-arauek esleitutako **eskumenei**. • Gainera, eskumen horiek **behar duten finantzaketa** izaten jarraituko dutela bermatzen da.
UDALEK LEHENDIK EGITEN ARI DIREN JARDUERA, ZERBITZU ETA PRESTAZIOEKIN AURRERA SEGITZEKO BERMEA (Hirugarren xedapen iragankorra)	• Udalerriek aukera izango dute —**eskumen propioetan sartu ez arren, eta eskumen eskuordetu edo transferitu ez izan arren— lege hau indarrean sartzen denean garatzen ari ziren jarduera, zerbitzu edo prestazioekin aurrera segitzeko**. • Jarduera, zerbitzu edo prestazio horiek jarraitzeko —lehendik garatzen direnak, eta eskumen propioen eremuan kalifikatu, eskuordetu eta transferitu ezin direnak—, **ez da egin beharko** ETELek (16.7. eta 16.8. artikuluak) eskatzen duen **txostenik ETEL indarrean jarri ondoren jarduera horiek sustatzeko.**
AZTERKETA OROKOR BAT EGITEA GOBERNU-MAILA EZBERDINEN ESKUMEN PROPIOEI ETA FINANTZAKETARI BURUZ (Lehenengo xedapen iragankorra, 3. zenbakia)	• **ETEL indarrean sartu eta urtebeteko epean**, Herri **Dirubideen Euskal Kontseiluaren bitartez, azterketa orokor bat egingo da** Euskal Autonomia Erkidegoko **erakunde-maila ezberdinen eskumen propioei eta finantzaketari buruz.** • **Azterketaren xedea gastu publikoa egoki banatzen dela ziurtatzea** da, eta horregatik **lotzen da toki-erakundeen finantzaketarekin** (batez ere udalerrien finantzaketarekin). • Azterketa horren **emaitzak** kontuan izango dira noiz eta, **baliabideen banaketarako eta** foru-aldundiek Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontuak finantzatzeko egin beharreko **ekarpenen zehaztapenerako metodologia definitzen duen legea berrikusten denean**.
ETEL INDARREAN JARRI AURREKO LEGEAK EDO FORU-ARAUAK ETEL OSTEAN ERREGELAMENDU-MAILAN GARATZEKO FINANTZAKETA EGOKIA (Bederatzigarren xedapen iragankorra)	• Toki Erakundeen Legea indarrean jarri aurretik onartutako **sektore-legeen edo foru-arauen erregelamendu bidezko garapenak berekin badakar udalei propiotzat esleitutako eskumenetatik datozen zerbitzuak, jarduerak edo prestazioak mamitzea, finantzaketa egokia izan beharko du**, nahitaez.

LA TRANSVERSALIDAD EN LAS ADMINISTRACIONES PÚBLICAS

ORIGEN

La transversalidad, en el ámbito de las administraciones públicas, aparece como un **intento de dar respuestas,** con más o menos éxito, **a dos retos que la estructura organizativa clásica** de departamentos o sectores no es capaz de resolver y que son:

- La aparición de **demandas sociales o políticas públicas** que no forman parte de la misión o competencias de una sola parte de la estructura orgánica vertical, sino que **implican a toda la organización o a una parte significativa** de ella.
- La necesidad de disponer de una **visión integral e integradora de determinados** segmentos de **población** considerados como prioritarios.

Así, hay **multitud de experiencias** en casi todas las administraciones públicas, pero sobre todo en las locales, para abordar los retos anteriores en relación a diferentes temas (igualdad de género, medio ambiente, educación, inmigración, juventud…).

CONCEPTO

- Desde este punto de vista, la transversalidad es un **CONCEPTO que asegura el compromiso efectivo de toda la organización** para trabajar, desde cualquier especialización sectorial, en un ámbito, visión, enfoque, problema público… y **por unos objetivos que no se pueden asumir por una sola de las estructuras organizativas sectoriales**.
- Y la transversalidad es también un **INSTRUMENTO ORGANIZATIVO** que pretende **desarrollar estrategias, herramientas e instrumentos** que, dentro de la estructura organizativa sectorial, permitan **adaptarse mejor a las exigencias de una realidad muy compleja**.

ASPECTOS PRINCIPALES en los que se centra la transversalidad

(siendo conscientes de su naturaleza multidimensional):

1. **Focalizar la atención** de la organización en un tema e **intensificar la actuación** sobre él.
2. **Mejorar la consistencia y la coherencia de la estrategia y actuación** de la organización en relación con el tema en cuestión.

ZEHARKAKOTASUNA ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAN

JATORRIA	Zeharkakotasuna, administrazio publikoen esparruan, arrakasta-maila handiagoarekin edo txikiagoarekin, **erantzunak emateko ahalegina** baino ez da; hain zuzen ere, **antolamendu-egitura klasikoak** —sail edo sektoreka antolatzeko egiturak— **erantzun ezin dituen bi erronkari erantzuna emateko ahalegina.** Hona hemen bi erronka horiek: • Egitura organiko bertikalaren zati bakar baten egiteko edo eskumenetan sartzen ez diren **eskaera sozial edo politika publikoen agerpena**; aitzitik, **erakunde osoa hartzen dute eraginpean edo** erakundearen **zati garrantzitsu bat.** • Lehentasunezkotzat jotako **biztanleriaren** segmentu **jakin batzuk barne hartzen dituen ikuspegi integrala** izateko premia. Hori horrela dela, administrazio publiko gehienetan goiko erronka horiei aurre egiteko **esperientzia ugari** aurki ditzakegu, baina bereziki, tokiko administrazioetan, hainbat gairi dagokienez (genero-berdintasuna, ingurumena, heziketa, immigrazioa, gazteak…).
KONTZEPTUA	• Ikuspegi horretatik begiratuta, zeharkakotasuna **KONTZEPTU bat da; erakunde osoaren benetako konpromisoa ziurtatzen duen kontzeptua**, edozein sektore-espezializaziotik eremu, ikuspegi, ikuspuntu, arazo publiko... batean lan egiteko, eta **antolamendu-egitura sektorial bakar batek bere gain hartu ezin dituen helburuen alde**. • Eta zeharkakotasuna **ANTOLAMENDURAKO TRESNA** ere bada, sektorearen antolamendu-egituraren barruan, **errealitate oso konplexu baten eskakizunetara hobeto egokitzea** ahalbidetuko duten **estrategiak eta tresnak garatzea** helburu izanik.

Zeharkakotasunaren ardatz diren ALDERDI NAGUSIAK

(dimentsio anitzekoa dela aintzat hartuta):

1. Antolamenduaren **arreta** gai batean **fokalizatzea**, eta haren gaineko **jarduna areagotzea.**

2. Antolamenduko **estrategiaren eta jardunaren trinkotasuna eta koherentzia hobetzea**, unean uneko gaiari dagokionez.

CONDICIONES QUE TIENEN QUE ESTAR PRESENTES EN LA IDEA DE TRANSVERSALIDAD EN LA ADMINISTRACIÓN PÚBLICA

CONCEPCIÓN INTEGRAL DE LOS CIUDADANOS Y CIUDADANAS	Si **la ciudad es el lugar de encuentro entre habitantes**, con sus iniciativas, recursos y problemas, una respuesta eficaz a esta realidad debe contemplar todas sus facetas e interconexiones. No podemos olvidar que el fin de nuestra intervención son **las ciudadanas y los ciudadanos**, y que estos/as **no son fragmentables**. En este contexto, la transversalidad aparece como una **ESTRATEGIA FUNDAMENTAL DE ACTUACIÓN** para mejorar **la respuesta de nuestra organización municipal a la compleja realidad multidimensional** de las diferentes personas que conforman nuestra ciudad.
DIRECCIÓN POLÍTICA ESTRATÉGICA	La transversalidad **se fundamenta en el compromiso** de la organización por **trabajar con una nueva visión o enfoque**. Una nueva visión que, por su carácter estratégico, está en manos del máximo nivel de la organización; es decir, en el nivel político. En consecuencia, son **los responsables políticos** del gobierno local quienes deben **liderar** globalmente este proceso.
LA PARTICIPACIÓN Y LA TRANSPARENCIA	La **«construcción de ciudad» es un compromiso colectivo**. Esto supone asumir la existencia de **una responsabilidad compartida** que genere proyectos de acción y el promover la articulación de redes de amplia participación por medio de prácticas que impliquen a todos los agentes sociales de la comunidad. En la articulación de estas redes participativas hay que **asegurar la transparencia y la accesibilidad a la información y al conocimiento** disponible.
COORDINACIÓN HORIZONTAL	El ejercicio de la transversalidad conlleva el **reforzamiento de la coordinación horizontal**. Este reforzamiento **no supone romper con la actual estructura**. Al contrario, la departamentalización ha sido y continúa siendo una forma eficaz de ordenación para dar respuestas concretas a la ciudad. Sin embargo, la **heterogeneidad y complejidad de la actual realidad** requiere **respuestas integrales e integradoras** que, a menudo, **implican a varios departamentos, administraciones e instituciones.** Obviamente, en este contexto la **coordinación** abierta a las diferentes áreas municipales es necesaria para dar sentido a dichas actuaciones.
EL TRABAJO EN EQUIPO Y LA INTERDISCIPLINARIDAD	Entendemos por **cultura organizativa** el conjunto de **valores, actitudes, conductas, habilidades** personales y grupales que confieren a la organización un **estilo de gestión determinado**. Así, consideramos que una administración que quiere mejorar debe generar y potenciar una **cultura organizativa abierta a la interdisciplinaridad y al trabajo en equipo**; es decir, a la instauración de **redes interdepartamentales cooperativas** en las que se concierten y negocien estrategias, recursos.
DEFINICIÓN DE RECURSOS Y ESTRUCTURAS	La transversalidad conlleva un **equilibrio entre el coste y el beneficio del proceso de trabajo**, para **minimizar los costes y maximizar los beneficios** y su distribución en la organización. Es precisa una **coordinación de los recursos de especialidades verticales distintas,** coordinación que presupone la **creación de unidades temporales o permanentes de gestión descentralizadas**. Es decir, de **ÓRGANOS DE TRANSVERSALIDAD**. Y estos órganos deben ser, ante todo, **sistemas de relación y de conocimiento** que aportan a la organización una visión específica y especializada de los objetivos estratégicos del cambio social, capacitándola para una mayor adaptación a la realidad.

ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ZEHARKAKOTASUNAREN IDEIAN NAHITAEZKOAK DIREN BALDINTZAK

HERRITARREN IKUSPEGI INTEGRALA	**Hiria herritarren topagune baldin bada** —beren ekimen, baliabide eta arazo eta guzti—, errealitate horri emandako erantzun eraginkorrean alderdi eta interkonexio guztiak hartu behar dira kontuan. Ezin dugu ahaztu gure esku-hartzearen xedea **herritarrak direla**, eta herritar horiek **ezin direla zatikatu**. Testuinguru horretan, zeharkakotasuna **JARDUTEKO FUNTSEZKO ESTRATEGIAtzat** har dezakegu, **gure udal-antolamenduak** gure hiria osatzen duten pertsona guztien **dimentsio anitzeko errealitate konplexuari erantzun** hobea emateko.
ZUZENDARITZA POLITIKO ESTRATEGIKOA	Zeharkakotasuna erakundearen **konpromisoan oinarritzen da**; hain zuzen ere, **ikuspegi edo ikuspuntu berri batekin lan egiteko** hartu duen konpromisoan. Estrategikoa izaki, ikuspegi berri hori antolamenduaren maila gorenaren esku dago, hau da, maila politikoan. Horren ondorioz, tokiko gobernuko **arduradun politikoek zuzendu** behar dute, globalki, prozesu hori.
PARTE-HARTZEA ETA GARDENTASUNA	**«Herrigintza» konpromiso kolektiboa da**. Horrek zera esan nahi du, **erantzukizun partekatua** dagoela onartu behar dugula, eta erantzukizun horrek ekintza-proiektuak eragin behar ditu, baita parte-hartze handiko sareak egituratzeari bultzada ematea ere, komunitateko gizarte-eragile guztiak barnean hartuta. Parte hartzeko sare horiek egituratzeko garaian, baliagarri dagoen **jakintza eta informazioa eskuratzeko aukera eta gardentasuna bermatu** behar dira.
KOORDINAZIO HORIZONTALA	Zeharkakotasuna baliatzeak **koordinazio horizontala indartzea** dakar. Baina horrek **ez du esan nahi egungo egitura baztertu behar denik**. Aitzitik, sail edo departamentuka antolatzea antolatzeko modu eraginkorra izan da eta da oraindik ere, herritarrei erantzun zehatzak emateko. Alabaina, **egungo errealitatea hain heterogeneoa eta konplexua denez**, **erantzun integralak eta integratzaileak** behar ditugu eta, kasu askotan, **departamentu, administrazio eta erakunde bat baino gehiago** hartzen dituzte eraginpean. Esan gabe doa testuinguru horretan **koordinazioa** —udal-arlo guztiak biltzen dituela— ezinbestekoa dela jardun horiei zentzua emateko.
TALDE LANA ETA DIZIPLINARTEKOTASUNA	**Antolamenduaren kultura** zera da, **balio, jarrera, jokabide eta trebetasun** pertsonal eta taldekoen multzoa, antolamenduari **kudeaketa-estilo jakin bat** ematen diola. Horrela, bada, gure ustez, administrazio batek hobetu egin nahi badu, **diziplinartekotasunera eta talde-lanera zabalik dagoen antolamenduaren kultura** sortu eta bultzatu behar du; bestela esateko, **lankidetzan jardungo duten departamentu arteko sareak** ezarri behar ditu, estrategiak eta baliabideak adostu eta negoziatzeko.
BALIABIDEAK ETA EGITURAK ZEHAZTEA	Zeharkakotasunak **lan-prozesuaren kostuaren eta etekinaren arteko oreka** bilatzea dakar, **kostuak minimizatu eta etekinak maximizatzearren** eta erakundean banatzearren. **Espezialitate bertikal guztien baliabideak koordinatu** behar dira, eta koordinazio horrek **kudeaketa-unitate deszentralizatuak —behin-behinekoak edo iraunkorrak— sortzea** eskatzen du. Alegia **ZEHARKAKOTASUN ORGANOAK** sortzea. Eta organo horiek, beste ezer baino lehen, **harremanetarako eta jakintzarako sistema** izan behar dute, eta sistema horiek gizarte-aldaketaren helburu estrategikoen ikuspegi espezifiko eta espezializatua emango diote erakundeari, errealitatera hobeto egokitzeko gai izango dela.

Presentamos **un «DECÁLOGO»** con los **pasos y el orden en que los mismos han de darse** en el desarrollo de una intervención pública caracterizada por la transversalidad. Este decálogo supone un **modelo de aplicación** y **SU PRINCIPAL FUNCIÓN** es la de **orientarnos sobre las fases que debemos prever** cuando trabajemos un ámbito transversal**.**

1. **ELEGIR UN CONTENIDO TRANSVERSAL CON FUNDAMENTACIÓN Y LIDERAZGO**	La **propuesta** de trabajar un contenido transversal en la organización municipal puede tener **diferentes orígenes**: la vigencia de una ley, un nuevo problema detectado, la especial sensibilidad política por ese ámbito, un planteamiento técnico estratégico… De cualquier forma, la incorporación de una nueva visión transversal requiere de un **análisis básico** que fundamente y explique claramente **por qué abordamos ese nuevo contenido, y su prioridad estratégica** en la organización. Y esto debe ser **avalado y liderado por el máximo nivel político y directivo** que será el responsable de que ese contenido transversal esté presente o se incorpore en el plan estratégico de actuación municipal.
2. **DEFINIR EL EQUIPO DE IMPULSO DE ESE CONTENIDO TRANSVERSAL**	El **máximo nivel político de la organización municipal deberá definir** el órgano o equipo político-técnico (responsable político, directivo y técnico/s) que se va a encargar de impulsar y dirigir la coordinación de ese contenido transversal que se trata de incorporar a la organización. Dos serán los **ejes de trabajo claves** de este equipo: • La gestión relacional interna y externa multilateral, tanto formal como informal, con los diferentes agentes que se identifiquen. • La producción técnica experta: búsqueda y elaboración de información, análisis, seguimiento y evaluación. Este equipo podrá ser **uno de los existentes**, en el caso de que ya figure como tal en la estructura municipal, o podrá ser **creado de forma temporal,** en tanto se realice el desarrollo del contenido transversal.
3. **IDENTIFICAR LOS DIFERENTES AGENTES QUE VAN A PARTICIPAR Y DEFINIR LAS ESTRUCTURAS DE TRABAJO**	De cara a la **identificación de los agentes que han de intervenir**, conviene tener en cuenta los **siguientes perfiles**: • **Los responsables políticos** de la organización que van a **liderar globalmente** el proceso (tanto en el equipo del gobierno, como en el conjunto de la corporación municipal). • **Los directivos y técnicos** de departamentos o servicios que deben **participar activamente** en el proyecto transversal. • **Los agentes sociales e instituciones** que deben **intervenir en el proyecto transversal**, con el fin de tener en cuenta sus diferentes perspectivas e intereses. • **Las personas expertas** en el tema en cuestión o aquellos **ciudadanos o ciudadanas que manifiesten interés** por participar, a título individual, en el proyecto. Para trabajar de manera efectiva con los diferentes agentes que identifiquemos, será preciso dotarnos de una **metodología de trabajo adecuada** que nos asegure la coordinación horizontal, el trabajo en equipo y la interdisciplinaridad.
4. **REALIZAR UN DIAGNÓSTICO COMPARTIDO SOBRE EL CONTENIDO TRANSVERSAL ELEGIDO**	El equipo u órgano impulsor deberá realizar un **diagnóstico en profundidad sobre el contenido transversal a tratar**, que contemple necesariamente: • El **análisis de las actuaciones** que, en relación a ese ámbito, se estén dando, tanto dentro como fuera de la organización municipal. • Las **necesidades y carencias** detectadas. • Las **interacciones posibles con otros contenidos** transversales ya en marcha. • La **percepción y expectativa ciudadana.** • Las **experiencias o buenas prácticas** significativas relacionadas. • Las **aportaciones de expertos y expertas**.
5. **DEFINIR LOS OBJETIVOS GENERALES Y OPERATIVOS Y EL PROGRAMA DE ACTUACIONES**	Con el diagnóstico ya realizado y avalado por los diferentes agentes, podemos pasar a la definición de los **objetivos generales y operativos.** Asimismo, podemos pasar a la definición del **programa de actuaciones** para la incorporación de ese nuevo contenido transversal en nuestra organización municipal. Es importante subrayar que este programa no sea sólo una recopilación de actuaciones que ya se vienen realizando, sino que **debe nutrirse de actuaciones nuevas, de reformulaciones, o de mejoras** de actuaciones anteriores.

Jarraian, zeharkakotasuna ezaugarri nagusi duen esku-hartze publikoa garatzeko garaian **jarraitu behar diren urratsen «DEKALOGOA»** aurkeztuko dugu, baita **urrats horiek zer ordenatan** egin behar diren ere. Dekalogo hori **aplikatzeko moduko eredua** da, eta **EGINKIZUN NAGUSIA orientabidea ematea da**, zeharkako eremu bat lantzen ari garenean **aurreikusi behar izango ditugun faseei dagokienez.**

1. **ZEHARKAKO EDUKIA HAUTATZEA, OINARRITUTA ETA LIDERGOAREKIN**	Udal-antolamenduan zeharkako eduki bat lantzeko **proposamenak hainbat jatorri** izan ditzake: lege bat indarrean hasi izana, arazo berri bat detektatu izana, eremu jakin batekiko sentsibilitate berezia, planteamendu tekniko estrategikoa… Nolanahi ere, zeharkako ikuspegi berria txertatzeak **oinarrizko azterketa** egin behar izatea dakar, **eduki berri horri zergatik ekin diogun eta** antolamenduan zer nolako **lehentasun estrategikoa** eman diogun argi eta garbi justifikatu eta azaltzeko. Eta hori guztia **zuzendaritzako eta politikako maila gorenaren abalarekin eta gidaritzapean** egin behar da, maila politiko horri baitagokio zeharkako eduki hori barnean hartzea edo udal-jardunaren plan estrategikoan txertatzea.
2. **ZEHARKAKO EDUKI HORRI BULTZADA EMANGO DION TALDEA ZEHAZTEA**	**Udal-antolamenduaren maila politiko gorenak** zehaztu behar du zer organok edo talde politiko-teknikok (arduradun politikoa, zuzendaria eta teknikariak) bultzatu eta zuzendu behar duen antolamenduan txertatu nahi dugun zeharkako eduki horren koordinazioa. Talde horren **lanerako ardatz garrantzitsuenak** bi izango dira: • Barneko eta kanpoko harremanen kudeaketa multilaterala, formala nahiz informala, identifikatzen diren agente guztiekin. • Adituen produkzio teknikoa: informazioa bilatu eta lantzea, azterketak, jarraipena eta ebaluazioa egitea. Talde hori **lehendik egon daiteke**, baldin eta udal-egituran taldetzat funtzionatzen badu, edo **aldi baterako sor daiteke,** zeharkako edukia garatzen den bitartean.
3. **ZEIN AGENTEK PARTE HARTUKO DUEN IDENTIFIKATZEA ETA LANEKO EGITURAK ZEHAZTEA**	**Esku hartu behar duten agenteak identifikatze aldera**, honako profil hauek kontuan izatea komeni da: • Prozesua **globalki gidatuko** duten **arduradun politikoak** (bai gobernu-taldean, bai udalbatza osoan). • Zeharkako proiektuan **modu aktiboan parte hartu** behar duten departamentu edo zerbitzuetako **zuzendariak eta teknikariak.** • **Zeharkako proiektuan esku hartu** behar duten **gizarte-eragileak eta erakundeak**, betiere haien ikuspegiak eta interesak aintzat hartzearren. • Dagokion gaiari buruzko **adituak** edo proiektuan **parte hartu nahi duten** banakako **herritarrak.** Identifikatzen ditugun agente guztiekin eraginkortasunez lan egin nahi badugu, **lanerako metodologia egokia** izan beharko dugu, koordinazio horizontala, talde-lana eta diziplinartekotasuna bermatuko digun metodologia.
4. **HAUTATUTAKO ZEHARKAKO EDUKIARI BURUZKO DIAGNOSTIKO PARTEKATUA EGITEA**	Talde edo organo bultzatzaileak **aztergai dugun zeharkako edukiari buruzko diagnostiko sakona egin** beharko du, honako hauek nahitaez bilduta: • Eremu horri dagokionez, udal-antolamenduaren barruan nahiz kanpoan gauzatzen ari diren **jardunen azterketa.** • Detektatutako **premia eta gabeziak.** • Jada martxan dauden zeharkako **beste eduki batzuekiko interakzioak.** • **Herritarren pertzepzioa eta espektatibak.** • Lotura duten **esperientzia edo jardunbide egoki** garrantzitsuak. • **Adituen ekarpenak**.
5. **HELBURU OROKORRAK ETA OPERATIBOAK ETA JARDUKETA PROGRAMA ZEHAZTEA**	Diagnostikoa eginda eta agenteek onetsia dagoela, **helburu orokorrak eta operatiboak** zehatz ditzakegu. Era berean, **jarduketa-programa** ere zehatz dezakegu, zeharkako eduki berri hori gure udal-antolamenduan txertatzeko. Programa horrek ez du izan behar lehendik egiten diren jardunen bilduma soilik, baizik eta **jardun berriak bildu behar ditu**, baita aurreko jardunen **birformulazio edo hobekuntzak** ere.

6. **DEFINIR LOS RESPONSABLES DE LA EJECUCIÓN, LOS RECURSOS NECESARIOS Y LA TEMPORALIZACIÓN**	El programa transversal que se diseñe debe detallar no sólo las **actuaciones que se van a implementar**, sino también **los responsables técnicos** (departamentos o servicios) de la ejecución de las diferentes actuaciones y los **recursos necesarios** para llevarlas a cabo. En la **definición de los recursos necesarios**, es preciso tener en cuenta, al menos, los siguientes puntos: • **Recursos humanos**, si se necesita reforzar el equipo que se va a encargar del impulso de este contenido transversal. • **Recursos económicos**, detallando la partida económica que se precisa para la gestión de cada actuación transversal novedosa que se ha diseñado, así como el departamento responsable de su implementación. • **Recursos de nuevas tecnologías**, detallando aquellos que se precisen según las diferentes actuaciones. • **Tiempo**, haciendo una previsión de la exigencia a los diferentes agentes implicados en el proyecto, tanto para las sesiones presenciales de participación y formación en el proyecto transversal, como para el trabajo encomendado. También habrá que realizar una temporalización de todas las actuaciones contempladas en el programa.
7. **ELABORAR EL PROCESO DE EVALUACIÓN**	La puesta en marcha de un contenido transversal conlleva la necesidad de controlarlo. **Control** que sólo puede hacerse efectivo por medio de la **evaluación**. La evaluación se constituye en una pieza clave para la mejora de la Administración local como sistema. La **evaluación** tendrá, en consecuencia, un **carácter formativo, orientador y autocorrector** del proceso, al proporcionar una información constante que permitirá mejorar, tanto los procesos como los resultados de nuestra intervención. Con respecto a los referentes básicos, tendremos que tener en cuenta: • **Los objetivos estratégicos**, **generales y específicos** del contenido transversal, que nos orientarán sobre las metas de logro. • **Los indicadores de evaluación**, o lo que es lo mismo, los **criterios de evaluación** que nos permitirán valorar el grado de adquisición y desarrollo de cada fase y objetivo del proceso.
8. **DESCRIBIR EL PROCESO ADMINISTRATIVO PARA LA APROBACIÓN DEL PROGRAMA TRANSVERSAL**	Si ya hemos definido, con la participación de los diferentes agentes implicados, los objetivos, el programa de actuaciones que vamos a desarrollar, el tiempo en que se van a desarrollar, los responsables técnicos de su ejecución, los recursos necesarios y los indicadores de evaluación y seguimiento, sólo nos resta tener **la aprobación formal** de ese programa en nuestra organización municipal, con el fin de asegurar su implementación. Y es, en este momento, donde conviene **clarificar el proceso administrativo** que vamos a seguir en esa aprobación final. Y, más, teniendo en cuenta las experiencias anteriores donde este punto ha hecho fracasar numerosos planes y programas de carácter transversal.
9. **ELABORAR UN PLAN DE COMUNICACIÓN DEL PROGRAMA TRANSVERSAL**	Es muy importante elaborar un buen **plan de comunicación del programa transversal** aprobado, a dos niveles: • **Plan de comunicación externo**: que explique de manera clara, a la ciudadanía, el porqué, el para qué de la puesta en marcha de ese programa transversal, el cómo se ha gestado y diseñado, y con quiénes se ha hecho. Se debe ir dando cuenta de las acciones que se van desarrollando y, al mismo tiempo, abrir canales permanentes de opinión, reflexión o valoración sobre lo que se está haciendo. • **Plan de comunicación interno**: con el fin de asegurar la transparencia, en el desarrollo del plan, a todos los agentes que intervienen en el mismo.
10. **EJECUTAR EL PROGRAMA, CON EL SEGUIMIENTO Y EVALUACIÓN CORRESPONDIENTES**	Llega el momento de la **puesta en marcha de las diferentes acciones planificadas** según la temporalización que se haya establecido. En diferentes momentos de su periodo de ejecución realizaremos el **seguimiento y evaluación**, a partir de los **indicadores y criterios** que habremos fijado anteriormente. La **información obtenida** del seguimiento y evaluación debe **ser compartida con todos los agentes implicados** en el programa, y debe servirnos para, entre todos, juzgar permanentemente la marcha de las acciones diseñadas hacia las finalidades, objetivos y prioridades previstos, y **realizar los ajustes que sean precisos**.

Guía Local - ISBN 978-84-7777-690-1

6. EGIKARITZEKO ARDURADUNAK, BEHARREZKOAK DIREN BALIABIDEAK ETA DENBORAREN ANTOLAKETA ZEHAZTEA	Diseinatu behar dugun zeharkako programan **zer jardun ezarriko ditugun** zehaztu behar da; horretaz gain, jardun horiek egikarituko dituzten **arduradun teknikoak** (departamentu edo zerbitzuak) eta horiek gauzatzeko **beharrezkoak izango diren baliabideak** ere finkatu behar dira. **Beharrezkoak izango diren baliabideak zehazteko garaian**, honako puntu hauek, gutxienez, gogoan izan behar dira: • **Giza baliabideak**; zeharkako edukia indartzeaz arduratuko den taldea sendotu behar ote den. • **Baliabide ekonomikoak**; diseinatutako zeharkako jardun berri bakoitza kudeatzeko behar izango den partida ekonomikoa zehaztuta, baita zer departamentuk ezarriko duen ere. • **Teknologia berrien baliabideak**; jardunen arabera behar izango direnak zehaztuta. • **Denbora**; proiektuan sartutako agenteei eskatuko zaien denboraren aurreikuspena egin behar da, dela zeharkako proiektuan parte hartzeko eta prestakuntzarako aurrez aurreko saioetarako, dela agindutako lana betetzeko. Programan bildutako jardun guztietan denbora nola antolatuko den finkatu behar da.
7. EBALUAZIO PROZESUA EGITEA	Zeharkako edukia martxan jartzen bada, kontrolatu egin behar da. **Kontrol** hori **ebaluazioaren** bidez baino ezin da egin. Ebaluazioa funtsezko elementu bihurtu da tokiko Administrazioa —sistematzat hartuta— hobetzeko. **Ebaluazioa**, beraz, prozesuaren **autozuzenketarako, orientaziorako eta prestakuntzarako** lagungarri izango da, informazio etengabea emango baitigu eta, informazio horri esker, gure esku-hartzearen prozesuak eta emaitzak hobetzeko aukera izango dugu. Oinarrizko erreferenteei dagokienez, honako hauek kontuan izan beharko ditugu: • Zeharkako edukiaren **helburu estrategikoak**, **orokor eta espezifikoak**, lortu beharreko xedearen inguruko orientabide izango direla. • **Ebaluazio-adierazleak**, edo bestela esateko, prozesuaren fase eta helburu bakoitzaren betetze-maila eta garapen-maila balioesteko aukera emango diguten **ebaluazio-irizpideak.**
8. ZEHARKAKO PROGRAMA ONARTZEKO ADMINISTRAZIO PROZESUA DESKRIBATZEA	Inplikatutako agente guztiekin batera helburuak, garatu beharreko jardunen programa, denborak, egikaritzeko arduradunak, beharrezkoak diren baliabideak, eta ebaluazioa eta jarraipena egiteko adierazleak zehaztu ostean, udal-antolamenduan gure programari **onarpen formala** ematea baino ez zaigu falta, ezarriko dela bermatzeko. Eta, hain justu, une horretan komeni da azken onespen hori lortzeko jarraitu behar dugun **administrazio-prozesua argitzea.** Eta, are gehiago, aurreko esperientziak aintzat hartzen baditugu; izan ere, puntu horretan egin baitute porrot zeharkako programa eta plan askok.
9. ZEHARKAKO PROGRAMAREN KOMUNIKAZIO PLANA EGITEA	Oso garrantzitsua da onartutako **zeharkako programaren komunikazio-plan** ona egitea, bi mailatan: • **Kanpo-komunikazioko plana**: argi eta garbi azaldu behar die herritarrei zergatik eta zertarako abiarazi den zeharkako programa hori, nola sortu eta diseinatu den, eta nork parte hartu duen prozesu horretan guztian. Zer ekintza garatzen diren jakinarazi behar da arian-arian eta, aldi berean, egiten ari garen horren gaineko iritzia emateko, hausnarketarako eta balioespenerako kanal iraunkorrak zabaldu. • **Barne-komunikazioko plana**: plana garatzen ari den bitartean, bertan parte hartzen duten agente guztiei gardentasuna bermatzearren.
10. PROGRAMA EGIKARITZEA, DAGOZKION JARRAIPEN ETA EBALUAZIOAREKIN	**Planifikatutako ekintzak abiarazteko** unea iritsi da, betiere finkatutako denboraren antolaketaren arabera. Egikaritzealdiaren hainbat unetan, **jarraipena eta ebaluazioa** egingo ditugu aldez aurretik finkatutako **adierazle eta irizpideetan** oinarrituta. Jarraipenetik eta ebaluaziotik **lortutako informazioa** programan **inplikatutako agente guztiekin partekatu** behar da, eta guztion artean, diseinatutako ekintzak aurreikusitako xede, helburu eta lehentasunetara bideratuta ote dauden aztertuko dugu etengabe, **egin beharreko egokitzapenak egiteko**.

Indudablemente el **MAYOR O MENOR ÉXITO EN EL DESARROLLO DE LOS DIFERENTES PASOS** descritos anteriormente tiene uno de sus fundamentos en las **HERRAMIENTAS QUE UTILICEMOS EN CADA CASO**. Por herramientas entendemos, tanto los **instrumentos de trabajo**, como las **estructuras de relación entre personas** que conformemos a lo largo del proceso descrito.

HERRAMIENTAS (instrumentos y estructuras indistintamente) MÁS ADECUADAS EN EL DESARROLLO DE CADA UNO DE LOS PASOS METODOLÓGICOS DEL PROCESO DE TRANSVERSALIDAD (*)

PASO	HERRAMIENTA	
DESARROLLAR EL LIDERAZGO DE UN CONTENIDO TRANSVERSAL	PLAN ESTRATÉGICO	Muchas administraciones locales han elaborado o están elaborando **planes estratégicos**, planes directores, **agendas urbanas ligadas a Objetivos de Desarrollo Sostenible**, **o instrumentos con otras denominaciones**, que tienen como objetivo definir aquellas líneas, criterios, objetivos y actuaciones que pretenden desarrollar a medio y a largo plazo, en periodos que en muchas ocasiones suelen superar una legislatura municipal. Es básico que estos instrumentos tengan en cuenta, en sus propuestas programáticas, los contenidos transversales prioritarios por los que se apuesta.
	PLAN DE ACTUACIÓN MUNICIPAL (PAM)	El Plan de Actuación Municipal debe contemplar los **ejes, los objetivos y las acciones que se señalan como más importantes para un mandato municipal**. Es un **compromiso público** que orienta la actividad política y la gestión municipal. Es básico que en el PAM se expresen **explícitamente los contenidos transversales que se priorizan** en la legislatura, o que **se incorporen aquellos que siendo nuevos se quieran potenciar**. Esto **afianzará el liderazgo del equipo de gobierno en torno al contenido transversal** de que se trate puesto que el Plan de Actuación Municipal constituye el principal instrumento de la acción de gobierno local.
	EQUIPO DIRECTIVO O COORDINACIÓN DIRECTIVA	Se trata de crear un **espacio de encuentro y coordinación que permita consensuar los criterios comunes de actuación** para la consecución de los objetivos políticos fijados, así como **una visión más integral e integrada** de los diferentes ámbitos de competencia que posibilite asentar los valores organizativos. Esto permitiría **anticiparnos a los problemas y a los conflictos**, y **facilitaría enormemente el desarrollo de actuaciones transversales** tanto a los técnicos como a los diferentes responsables políticos.
IMPULSAR Y GESTIONAR EL CONTENIDO TRANSVERSAL	ÓRGANO DE IMPULSO Y GESTIÓN DEL CONTENIDO TRANSVERSAL	Esta estructura puede ser un servicio municipal de **carácter permanente, o un órgano temporal**, en función del contenido transversal de que se trate. Debe ser **designada por el máximo nivel político** y debe contar con una persona **responsable del nivel político,** una persona **responsable del nivel directivo** y el **personal municipal** que se determine. Siempre se tratará de un **número reducido de personas**, con el fin de que sea un órgano operativo, pudiendo ser estas de un mismo servicio o departamento o de diferentes departamentos. En cualquier caso, siempre será **necesario definir la dedicación laboral** a este proyecto de las personas que conforman el órgano de impulso y gestión e **incorporarlo claramente en sus funciones y tareas**.
APROBAR EL PROGRAMA formalmente	PROCEDIMIENTO ADMINISTRATIVO	Es preciso apoyar la aprobación formal del programa transversal en un procedimiento administrativo que asegure su desarrollo y ejecución. A nivel municipal, se propone que, más allá de declaraciones institucionales, los programas transversales se aprueben en Pleno con crédito de compromiso para el tiempo de vigencia del plan.
DAR A CONOCER EL PROGRAMA	PLAN DE COMUNICACIÓN (EXTERNO E INTERNO)	Se trata de **planificar las diferentes actuaciones comunicativas precisas** para que el **programa transversal sea conocido por la ciudadanía** en su conjunto.
	ÓRGANO DE COMUNICACIÓN	Un **órgano municipal de comunicación**, con los **recursos necesarios de personal y económicos**, para desarrollar de manera más efectiva la política de comunicación del Ayuntamiento.
EVALUAR EL PROGRAMA	EVALUACIÓN CONTINUA	La evaluación no sólo hemos de situarla al final del proceso, sino, también, **en cada una de las fases** del mismo. Únicamente de este modo podremos valorar la validez de sus componentes y tomar las decisiones oportunas en función de las distintas necesidades que vayan apareciendo. En este contexto, la evaluación deberá **superar la tradicional dicotomía respecto a los métodos cuantitativos/cualitativos**, ya que su objetivo es el obtener el máximo de información adaptando las técnicas (los métodos para obtener la información) y los instrumentos (los recursos específicos para obtener la información), a las peculiaridades de cada fase del proceso y de la intervención de que se trate.

Zalantzarik gabe, lehen deskribatutako **URRATSAK GARATZEAN ARRAKASTA HANDIAGOA EDO TXIKIAGOA IZANGO DUGU, KASU BAKOITZEAN ERABILTZEN DITUGUN TRESNEN** arabera. Deskribatutako prozesuan zehar **pertsonen arteko harremanak ezartzeko dauden egiturak** eta **lan-instrumentuak** izango dira, zehazki, erabiliko ditugun tresnak.

TRESNARIK (instrumentuak nahiz egiturak) EGOKIENAK ZEHARKAKOTASUN-PROZESUAREN URRATS METODOLOGIKOETAKO BAKOITZA GARATZEAN (*)

URRATSA	TRESNA	
ZEHARKAKO EDUKI BATEN LIDERGOA GARATZEA	PLAN ESTRATEGIKOA	Tokiko administrazio askok egin dituzte edo egiten ari dira **plan estrategikoak**, plan gidariak, **Garapen Jasangarriko Helburuekin lotutako hiri-agendak edo beste izen batzuk hartzen dituzten tresnak**, epe ertain eta luzera garatu nahi dituzten lerro, irizpide, helburu eta jarduerak zehazteko, sarritan udal-legegintzaldiaz harago doazen aldietarako. **Instrumentu horien proposamen programatikoetan kontuan hartzen dira, funtsezkoa baita, lortu nahi dituzten lehentasunezko zeharkako edukiak.**
	UDALEKO JARDUERA-PLANA (UJP)	Udaleko jarduera-planean berariaz aurreikusi behar dira **udal-agintaldi bakoitzerako garrantzitsuenak diren ardatzak, helburuak eta ekintzak.** Jarduera politikoa eta udal-kudeaketa orientatzen dituen **konpromiso publikoa** da. UJPn **berariaz** adierazten dira legealdian **lehentasunezkoak izango diren zeharkako edukiak, edo berriak izan arren sustatu nahi diren horiek sartzen dira.** Horrek **indartu egingo du gobernu-taldeak** kasuan kasuko **zeharkako edukiaren gainean duen lidergotza,** Udaleko Jarduera Plana tokiko gobernuaren ekintzarako tresna nagusia baita.
	ZUZENDARITZA-TALDEA EDO ZUZENDARITZA-KOORDINAZIOA	**Topaketa eta koordinaziorako espazio bat sortu behar da,** ezarritako helburu politikoak lortzeko **jarduera-irizpide komunak adostu ahal izateko**. Halaber, eskumen-eremu desberdinen **ikuspegi integralago eta integratuagoa** zehaztu behar da, antolakuntza-balioak finkatu ahal izateko. Hartara, **arazoei eta gatazkei aurrea hartu** ahalko genieke, eta teknikariei nahiz arduradun politiko desberdinei **nabarmen erraztuko litzaieke zeharkako jarduerak garatzeko prozedura**.
ZEHARKAKO EDUKIA SUSTATZEA ETA KUDEATZEA	ZEHARKAKO EDUKIA SUSTATU ETA KUDEATZEKO ORGANOA	Egitura hau udal-zerbitzu **iraunkorra edo aldi baterako organoa** izan daiteke, kasuan kasuko zeharkako edukiaren arabera. **Maila politiko altuenak izendatu** behar du, eta **maila politikoko arduradun bat, zuzendaritza-mailako arduradun bat** eta zehazten diren **udal-langileak** egon behar dira. Beti izango da **pertsona-kopuru mugatua**, organo operatibo bat izan dadin. Pertsona horiek zerbitzu edo sail berekoak nahiz sail desberdinetakoak izan ahalko dira. Nolanahi ere, beti izango da **beharrezkoa** sustapen- eta kudeaketa-organoa osatzen duten pertsonek proiektu honi eskainiko dioten **lan-dedikazioa zehaztea** eta **alderdi hori bere eginkizun eta funtzioetan argi eta garbi zehaztea**.
PROGRAMA formalki ONARTZEA	ADMINISTRAZIO-PROZEDURA	Zeharkako programaren onarpen formalak haren garapena eta betearazpena ziurtatuko dituen administrazio-prozedura bat izan behar du oinarritzat. Udal-mailan, adierazpen instituzionalez harago, zeharkako programak osoko bilkuran onar daitezela proposatu da, konpromiso-kreditua egon dadin planaren indarraldirako.
PROGRAMAREN BERRI EMATEA	KOMUNIKAZIO-PLANA (KANPOKOA ETA BARRUKOA)	**Zeharkako programa herritar guztiek ezagut** dezaten, **beharrezko komunikazio-jarduera desberdinak planifikatu** behar dira.
	KOMUNIKAZIO-ORGANOA	**Komunikazioko udal-organo bat**, **beharrezko baliabide ekonomikoak eta giza baliabideak dituena**, Udalaren komunikazio-politika ahalik eta modurik eraginkorrenean garatzeko.
PROGRAMA EBALUATZEA	EBALUAZIO JARRAITUA	Ebaluazioa ez da egin behar soilik prozesuaren amaieran, baizik eta baita **haren faseetako bakoitzean** ere. Horrela soilik baloratu ahal izango dugu bere osagaien baliozkotasuna, eta erabaki egokiak hartu agertzen diren beharrizan desberdinen arabera. Testuinguru horretan, ebaluazioak **gainditu egin beharko du metodo kuantitatiboen/kualitatiboen gaineko dikotomia.** Izan ere, ahalik eta informazio gehien eskuratzea du helburu, eta, horretarako, teknikak (informazioa eskuratzeko metodoak) eta instrumentuak (informazioa eskuratzeko baliabide zehatzak) prozesuko faseetako bakoitzaren eta kasuan kasuko esku-hartzearen berezitasunetara egokitzen ditu.

PASO	HERRAMIENTA (*)	
FOMENTAR LA PARTICIPACIÓN DE LOS DIFERENTES AGENTES IDENTIFICADOS	COMISIÓN TÉCNICA INTERDEPAR-TAMENTAL	Constituida por el **personal técnico designado** de los diferentes departamentos involucrados en el contenido transversal. Esta comisión, coordinada desde el «órgano de impulso y gestión transversal», deberá funcionar como un **equipo de trabajo interdisciplinar con un objetivo común** centrado en **dar visibilidad y respuesta** desde los diferentes sectores al contenido transversal correspondiente.
	PROCESOS PARTICIPATIVOS CON AGENTES SOCIALES	Una vez **identificados los agentes sociales** (asociaciones, colectivos profesionales, empresas, instituciones…) que deben estar implicados en el contenido transversal que se trate, habrán de **definirse los grupos de trabajo** que sean necesarios y llevar a cabo un proceso participativo con una **metodología** que permita identificar situaciones, percepciones y demandas sociales, y ayudar a gestionar las expectativas de futuro en ese tema. En ocasiones, y para determinados contenidos transversales, podrán hacerse **sesiones de trabajo mixtas** entre técnicos, ciudadanos y políticos.
	CONSEJO SOCIAL DEL MUNICIPIO	Es esta una estructura, que ya existe en algunos municipios y que constituye **el órgano más importante de participación a nivel ciudad**, donde están representados sus principales agentes, incluidos los diferentes consejos sectoriales y territoriales. Es por ello que **este órgano deberá estar informado y participar activamente** en el proceso que se diseñe para la definición del programa transversal de que se trate.
	MECANISMOS PARA LA INFORMACIÓN Y PARTICIPACIÓN DE CIUDADANOS/AS A TÍTULO INDIVIDUAL	A través de las **nuevas tecnologías**, se pueden abrir **canales de información y opinión** sobre el contenido transversal correspondiente. También es posible **incorporar ciudadanos/as a título individual en el proceso participativo** que se lleve a cabo para el diseño del programa transversal.
	COMISIÓN INTERINSTITUCIONAL	Habitualmente, el contenido transversal elegido **no es competencia exclusiva** de la Administración municipal, sino que se extiende también a **otras instituciones públicas** como la Diputación y el Gobierno Vasco, por lo que habrá que **coordinarse** con éstas.
	SISTEMAS DE INFORMACIÓN HORIZONTALES	Estos sistemas de información pueden ser **muy diversos, en función del contenido transversal** de que se trate, desde informes, publicaciones o actas de reuniones a la creación de bases de datos compartidas de acciones municipales o plataformas informáticas de gestión compartida.
	AGENDA DE TRANSVERSALIDAD	Se trataría de elaborar una **agenda en la que confluyan los diferentes programas transversales existentes,** con la temporalización de las sesiones de trabajo de las diferentes estructuras y órganos de cada programa.
	ACTIVIDADES FORMATIVAS	Seminarios, jornadas y sesiones que tengan por objeto la **formación en el contenido transversal** de que se trate. Este es un papel importante del órgano de gestión transversal: la producción técnica experta, la búsqueda y producción de información, el análisis y la reflexión de expertos y expertas en ese ámbito. Por otro lado también es importante que exista una **agenda formativa dirigida a los puestos directivos** de la organización que fomente una cultura de coordinación, trabajo en equipo e interdisciplinariedad.
	BANCO DE BUENAS PRÁCTICAS	La **recopilación de buenas experiencias realizadas** en otros municipios y en otras organizaciones en torno a un determinado contenido transversal, así como de buenas prácticas metodológicas llevadas a cabo dentro de nuestra propia organización, es una herramienta interesantísima de cara a la definición metodológica de nuestro programa. Hay que subrayar la importancia de **adaptar este «benchmarking» a nuestro contexto** determinado.
	PROCESOS Y PROCEDIMIENTOS DE TRABAJO UNIFICADOS	Un determinado contenido transversal puede exigir la **revisión de los procesos y procedimientos** de trabajo vigentes en uno o varios departamentos, y generar la **creación de nuevos procedimientos unificados** que mejoran notablemente la gestión en ese ámbito y sus consecuencias en la ciudadanía.
	FOROS DE MEJORA	Supone formalizar **grupos de trabajo de mejora e innovación** en determinados contenidos transversales. Para un buen desarrollo de estos grupos de mejora será **interesante formar a equipos internos de facilitadores** dentro de la organización.

(*) Señalamos las que nos parecen significativas y eficaces para dar respuesta a las diferentes necesidades que van surgiendo en el desarrollo de una buena actuación transversal. No es una relación exhaustiva ni exclusiva, Esta tabla se puede contemplar como una «caja de herramientas», a la que acudir para seleccionar aquellas más adecuadas en función del contenido o actuación transversal de que se trate.

Bibliografía: «La transversalidad como elemento de mejora en el ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz» Resultados de una reflexión compartida

URRATSA	TRESNA (*)	
IDENTIFIKATUTAKO AGENTE GUZTIEN PARTE-HARTZEA SUSTATZEA	SAIL ARTEKO BATZORDE TEKNIKOA	Zeharkako edukian inplikatutako departamentuetatik **izendatutako teknikariek** osatzen dute. Batzorde hori «zeharkako indartzeko eta kudeaketako organoak» koordinatuko du, eta **helburu bera duen diziplina arteko lantalde** moduan funtzionatu beharko du, hainbat sektoretatik dagokion zeharkako edukiari **erantzuna emateko eta eduki hori ikusgai bihurtzeko**.
	GIZARTE ERAGILEEK PARTE HARTZEKO PROZESUAK	Dagokion zeharkako edukian inplikatuta egon behar duten **gizarte-eragileak** (elkarteak, kolektibo profesionalak, enpresak, erakundeak…) **identifikatu** ostean, beharrezkoak diren **lantaldeak zehaztu** behar dira, eta parte hartzeko prozesua gauzatu beharko da, egoerak, pertzepzioak eta gizartearen eskaerak identifikatzeko eta gaiarekin lotutako etorkizuneko espektatibak kudeatzen laguntzeko aukera emango duen **metodologia** baliatuta. Zenbait kasutan, eta zeharkako eduki jakin batzuetarako, teknikariak, herritarrak eta politikariak **bilduko dituzten lan-saio mistoak** antola daitezke.
	UDALERRIKO GIZARTE KONTSEILUA	Zenbait udalerrik badute, jada, egitura hori eta **hiriko parte hartzeko organorik garrantzitsuena** izaten da, agente nagusiak bertan ordezkatuta egoten baitira, sektoreko eta lurraldeko kontseiluak barnean hartuta. Horregatik, **organo horrek informatuta egon behar du eta modu aktiboan parte hartu behar du** dagokion zeharkako programa zehazteko diseinatzen den prozesuan.
	HERRITARREK BANAKO MODUAN PARTE HARTZEKO ETA HAIEI INFORMAZIOA EMATEKO MEKANISMOAK	**Teknologia berrien** bitartez, dagokion zeharkako edukiari buruz **iritziak eta informazioa emateko kanal edo bideak** sor daitezke. Halaber, **banakako herritarrak ere txerta daitezke** zeharkako programa diseinatzeko egiten den **parte-hartze prozesuan.**
	ERAKUNDE ARTEKO BATZORDEA	Ohiko moduan, hautatutako zeharkako edukia **ez da** Udal Administrazioaren **eskumen esklusiboa izaten**, eta beste **erakunde publiko** batzuk ere hartzen ditu eraginpean, hala nola, Foru aldundia eta Eusko Jaurlaritza; hortaz, haiekin ere **koordinatu** beharko da.
	INFORMAZIO SISTEMA HORIZONTALAK	Informazio-sistema horiek **askotarikoak** izan daitezke, unean uneko **zeharkako edukiaren arabera**: txostenak, argitalpenak edo bileren aktak; udalaren ekintzei buruzko datu-base partekatuak; edo kudeaketa partekatuko plataforma informatikoak.
	ZEHARKAKOTASUNAREN AGENDA	**Zeharkako programa guztiak bilduko lituzkeen agenda bat** osatu beharko litzateke, programa bakoitzeko organo eta egitura bakoitzaren lan-saioen denboraren antolaketa ere eginda.
	PRESTAKUNTZA JARDUERAK	Mintegiak, jardunaldiak eta saioak, unean uneko **zeharkako edukiarekin lotutako prestakuntza ematea** xede dutela. Zeharkako kudeaketa-organoaren egiteko garrantzitsua da hori: adituen produkzio teknikoa, informazioa bilatu eta produzitzea, eremu horretako adituen azterketak eta hausnarketak. Bestalde, erakundearen **zuzendaritzako postuetara zuzendutako prestakuntza-agenda** bat eratzea ere garrantzitsua da, koordinazioaren kultura, talde-lana eta diziplinartekotasuna sustatzeko.
	JARDUNBIDE EGOKIEN BANKUA	Beste udalerri eta beste erakunde batzuetan zeharkako eduki jakin baten inguruan izan dituzten **esperientzia onak bildu** behar dira, baita gure erakundean bertan gauzatutako jardunbide metodologiko egokiak ere, gure programaren metodologia zehazteko tresna oso interesgarria baita. **«Benchmarking» hori gure testuinguru** jakin batera **egokitzea** zein garrantzitsua den nabarmendu behar dugu.
	LANEKO PROZESU ETA PROZEDURA BATERATUAK	Zeharkako eduki jakin baten kasuan beharrezkoa izan daiteke departamentu batean edo batzuetan indarrean dauden laneko **prozesuak eta prozedurak berrikustea**, eta **prozedura bateratu berriak sortzea**, eremu horretako kudeaketa eta herritarrengan izaten dituen ondorioak nabarmen hobetzeko.
	HOBEKUNTZA FOROAK	Zeharkako eduki jakin batzuetan **hobekuntzarako eta berrikuntzarako lantaldeak** osatu behar izatea dakar. Hobekuntza-talde horiek egoki funtzionatzeko, erakundearen barruan **bideratzaileen barne-taldeak prestatzea interesgarria** izan daiteke.

(*) Zeharkako jardun egokiaren garapenean sortzen diren premiei erantzuteko gure ustez garrantzitsuak eta eraginkorrak direnak aipatuko ditugu. Ez da zerrenda itxia, ez zorrotza; taula hori «erreminta-kutxatzat» har daiteke, eta unean uneko zeharkako eduki edo jardunaren arabera, tresna egokienak aukera ditzakegu bertatik.

Bibliografia: «La transversalidad como elemento de mejora en el ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz» Partekatutako hausnarketaren emaitzak

IV.

LURRALDEA ETA BIZTANLERIA

TERRITORIO Y POBLACIÓN

IV.

Territorio y población

1. El territorio.
2. Entidades de ámbito inferior al municipio.
3. Entidades de ámbito superior al municipio.
4. Población.
5. Zonas rurales y sus políticas de desarrollo.

Guía Local - ISBN 978-84-7777-691-8

IV.

Lurraldea eta biztanleria

1. Lurraldea.
2. Udala baino eremu txikiagoko erakundeak.
3. Udalerriaz haindiko entitateak.
4. Biztanleria.
5. Landa-eremuak eta horien garapen-politikak.

CONCEPTO	**Territorio** en que el Ayuntamiento o el Concejo Abierto **ejercen sus competencias.**

CARACTERÍSTICAS	• Ha de tener una **estructura real**. • Ha de ser **fijo**, sin perjuicio de que sufra alteraciones. • Debe ser **determinado**. • **Podrá ser dividido**, dentro de su unidad. Es competencia del Ayuntamiento la división del término municipal en distritos y en barrios, así como las variaciones de los mismos. • Constituye el **ámbito de vigencia del ordenamiento municipal**. • Formado por **territorios continuos** (sin perjuicio de que estén reconocidas situaciones de discontinuidad).

Legislación: LRBRL, art. 12
Reglamento de Población y Demarcación Territorial de las Entidades Locales, art. 1
Norma Foral 9/2012, de 5 de diciembre, de Demarcaciones Territoriales de Bizkaia
Norma Foral 2/2003, de 17 de marzo, reguladora de las demarcaciones municipales de Gipuzkoa
Norma Foral 4/2011, de 21 de febrero, reguladora de las demarcaciones de las entidades locales del Territorio Histórico de Álava, y de su denominación, capitalidad y sus elementos distintivos

KONTZEPTUA	Udalak edo kontzeju irekiak beren eskumenak zein lurraldetan darabiltzaten.

EZAUGARRIAK	• Benetako egitura izan behar du. • Finkoa izan behar du, aldaketak aldaketa. • Zehazturik egon behar du. • Bere batasunean, zatitu ere egin daiteke. Udalaren eskumena da udal-mugartea barrutitan eta auzotan banatzea, baita barruti eta auzo horietan aldaketak egitea ere. • Hor dago indarrean udal-ordenamendua. • Lurraldeak jarraitasuna izan behar du (baliteke etendako lurralde batzuk onarturik egotea).

Legeria:

TAOL, 12. artikulua
Toki Erakundeen Biztanleriaren eta Lurralde Mugaketaren Erregelamendua, 1. artikulua
9/2012 Foru Araua, abenduaren 5ekoa, Bizkaiko Lurralde Mugapeei buruzkoa
2/2003 Foru Araua, martxoaren 17koa, Gipuzkoako Udal Barrutiak erregulatzeko dena
4/2011 Foru Araua, otsailaren 21ekoa, Arabako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen mugak, izenak, hiriburua eta ezaugarriak arautzen dituena

CONCEPTOS	El **DESLINDE** es el procedimiento administrativo destinado a constatar los límites del término municipal, así como a proporcionar la expresión física adecuada de los mismos, siempre que estos sean imprecisos o sea necesario resolver discrepancias sobre su ubicación.
	El **AMOJONAMIENTO** es el acto de colocación de hitos o mojones que señalen los límites del término municipal. Corresponde a los Ayuntamientos la conservación y vigilancia de los mojones que se establezcan y su reposición inmediata cuando desaparezcan.

PROCEDIMIENTO DE DESLINDE

INICIATIVA

Por acuerdo del Pleno (motivo-objeto-relación de municipios afectados-comisión municipal)

↓

Gipuzkoa-Álava

NOTIFICACIÓN DEL ANTERIOR ACUERDO AL RESTO DE MUNICIPIOS AFECTADOS

Bizkaia

NOTIFICACIÓN DEL ACUERDO A LA DIPUTACIÓN
(resuelve si iniciar o no trámite)

↓

ACUERDO DE LA DIPUTACIÓN FORAL SOBRE INICIO DE EXPEDIENTE
(designación miembros comisión foral)

↓

NOTIFICACIÓN DE ACUERDO FORAL A RESTO DE MUNICIPIOS

↓

ACUERDO DEL RESTO DE MUNICIPIOS (designación de comisión municipal)

↓

NOTIFICACIÓN DE LOS ACUERDOS MUNICIPALES (A Diputación Foral y propietarios de terrenos por los que atraviesa el deslinde)

↓

ACUERDO DE LA DIPUTACIÓN FORAL (Día/hora/lugar) (Gipuzkoa y Álava también nombramiento de comisión foral)

↓

OPERACIÓN DE DESLINDE (Comisiones municipales, técnicos forales, propietarios afectados y vecinos conocedores del lugar)

↓

ACTA-PROPUESTA DE RESOLUCIÓN

↓

ACUERDO DEL PLENO DE LOS AYUNTAMIENTOS AFECTADOS EN RELACIÓN A LA PROPUESTA

(CONSENSO ENTRE AYUNTAMIENTOS)

↓

NOTIFICACIÓN A LA DIPUTACIÓN FORAL

Gipuzkoa

↓

PUBLICACIÓN ACTA CONJUNTA B.O.T.H.

***Álava:* DIPUTACIÓN FORAL APRUEBA PROVISIONALMENTE**

***Bizkaia:* PROPUESTA DE RESOLUCIÓN DE LA DIPUTACIÓN FORAL**
(previo trámite de audiencia a municipios afectados)

↓

***Álava:* Colocación de MOJONES y AUDIENCIA a ayuntamientos afectados**

***Bizkaia:* INFORME DE COMISIÓN JURÍDICO ASESORA DE LA DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA**

(NO CONSENSO ENTRE AYUNTAMIENTOS)

↓

NOTIFICACIÓN A LA DIPUTACIÓN FORAL

Gipuzkoa

***Álava:* DIPUTACIÓN FORAL RESUELVE PROVISIONALMENTE**
(Previos: Informe de servicios técnicos forales sobre discrepancias y Dictamen Comisión Consultiva Diputación Foral)

***Bizkaia:* PROPUESTA DE RESOLUCIÓN DE LA DIPUTACIÓN FORAL**
(previo trámite de audiencia a municipios afectados)

↓

***Álava:* Colocación de MOJONES y AUDIENCIA a ayuntamientos afectados**

***Bizkaia:* INFORME DE COMISIÓN JURÍDICO ASESORA DE LA DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA**

↓

DIPUTACIÓN FORAL RESUELVE SOBRE EL DESLINDE

↓

PUBLICACIÓN DE ACUERDO FORAL EN B.O.T.H.

↓

COMUNICACIÓN A LA ADMINISTRACIÓN DE LA CAPV y DEL ESTADO

INSCRIPCIÓN EN REGISTRO DE ENTIDADES LOCALES

Legislación:
Reglamento de Población y Demarcación Territorial de las Entidades Locales, arts. 17 a 25
Norma Foral 9/2012, de 5 de diciembre, de Demarcaciones Territoriales de Bizkaia
Norma Foral 2/2003, de 17 de marzo, reguladora de las demarcaciones municipales de Gipuzkoa
Norma Foral 4/2011, de 21 de febrero, reguladora de las demarcaciones de las entidades locales del Territorio Histórico de Álava, y de su denominación, capitalidad y sus elementos distintivos

KONTZEPTUAK	**MUGAKETA** administrazio-prozedura bat da, udalerriaren mugak egiaztatzeko eta muga horien berri fisikoki behar den bezala adierazteko balio duena, betiere muga horiek zehatzak ez direnean edo haien kokapenari buruzko ezadostasunak ebatzi behar direnean.
	MUGARRIAK JARTZEA horixe da, mugarriak jartzea, udalerriaren mugak erakusteko. Udalaren ardura da bai mugarri horiek zaintzea; bai eta, baten bat galtzen bada, berehala beste bat jartzea ere.

MANCOMUNIDADES	**POTESTADES**	• Las potestades **reconocidas en sus Estatutos.** • **En defecto de previsión estatutaria,** les corresponderán las **mismas potestades que a los municipios**, siempre que sean precisas **para el cumplimiento de sus fines**. Tienen en particular, la potestad de declaración urgente de ocupación de bienes y derechos en las expropiaciones urbanísticas y la potestad expropiatoria.
	COMPETENCIAS Y LÍMITES	Deben tener un objeto determinado y no podrán asumir la **totalidad de las competencias de los municipios** que las integran. Sus **competencias** estarán orientadas exclusivamente a la **realización de obras y la prestación de los servicios públicos** derivados de los ámbitos materiales previstos en el art. 17 de la LILE.
	ESTATUTOS	• **Son la normativa básica** de la entidad. • Serán **aprobados por los ayuntamientos** de los municipios que las integran, con el voto favorable de la mayoría absoluta del número legal de miembros del Pleno. • **Contenido necesario:** → Denominación, sede y municipios que las integran. → Su objeto, fines y competencias. → Órganos de gobierno y administración, composición, atribuciones y normas de funcionamiento. → Aportaciones de los municipios miembros y demás recursos económicos. → Plazo de duración, causas y procedimiento de disolución, y normas sobre su liquidación. → Procedimiento de incorporación y separación de municipios, procedimiento de modificación de estatutos. → Cuantos otros extremos sean necesarios para su funcionamiento. • En todo caso, los **órganos de gobierno serán representativos** de los municipios mancomunados.
	TIPOS	• Integradas por municipios pertenecientes a un mismo Territorio Histórico (TH): se rigen por la normativa foral. • Integradas por municipios pertenecientes a más de un Territorio Histórico dentro de la CAE: se rigen por el art. 103 de la LILE y resto de normativa autonómica. • Integradas por municipios pertenecientes a distintas CC.AA: permitidas por la LRBRL, siempre que también lo permitan las normativas de las CC.AA afectadas.
CONSORCIOS **(Ver ficha 10.6.2.3)**		• **Entidad intermedia de base asociativa** para la realización de actividades, prestación de servicios públicos locales o ejecución de obras. • Es una de las **fórmulas preferentes para la gestión compartida** de los servicios mínimos obligatorios. • Característica principal: **su composición no comprende sólo entidades locales**; se permite la participación de otras Administraciones Públicas (territoriales e institucionales) y de entidades privadas sin ánimo de lucro que persigan fines de interés público concurrentes. • Tienen carácter **instrumental**, y deben estar adscritos a alguna de las Administraciones Públicas que forman parte de ellos; la adscripción se determina por aplicación de los criterios previstos en la ley. • La constitución del consorcio debe salvaguardar la eficiencia económica y la sostenibilidad de las finanzas de la entidad local que participe en su constitución. • Su funcionamiento se regula en sus **Estatutos**. • **Tres tipos** en la LILE: integrados por entidades de derecho público cuyo ámbito territorial no excede de un mismo TH (se rigen por la normativa foral); integrados por entidades de derecho público cuyo ámbito territorial excede de un TH dentro de la CAE (se aplica art. 106 LILE y resto de normativa autonómica); consorcios con entidades pertenecientes a otros territorios distintos de la CAE.
ENTIDADES TRADICIONALES		• **Parzonerías, comunidades de tierra y villa**… Son entidades históricas tradicionales que se rigen por **sus propios pactos, estatutos o concordias y demás normas consuetudinarias.**

ENTIDADES SUPRAMUNICIPALES SINGULARES DE ÁLAVA	
CUADRILLA	• **Entidad territorial foral integrada por municipios,** al objeto de participar en los asuntos y promover y gestionar **cuestiones de interés general** que afecten a su ámbito territorial. • Los **órganos rectores** de la cuadrilla son: La Junta de Cuadrilla y la Presidencia. • La LILE no altera su régimen jurídico y la reconoce expresamente como entidad local propia del TH de Álava, dotada de personalidad jurídica y plena capacidad para el cumplimiento de sus fines —art. 2.1.d)—.
HERMANDAD	• Entidad local propia e histórica en virtud del régimen foral alavés, equiparable (aunque no exactamente igual) a las mancomunidades de régimen común, formada por municipios y concejos, conjuntamente. • Tiene personalidad jurídica y plena capacidad para el cumplimiento de sus fines, se crea para fines específicos y concretos y no se requiere la continuidad territorial. • **Fines**: ejecución, en común, de obras y servicios determinados de su competencia que requieran de una organización estable. • **Los concejos solo podrán integrarse** cuando vinieran prestando esos concretos servicios anteriormente.

Legislación:
LILE, arts. 2, 10, 12, 19 y 101 a 108
Carta Europea de Autonomía Local, de 15 de octubre de 1985
LRBRL, art. 44
TRRL, arts. 35 y 36
Ley 27/2013, de 27 de diciembre, de Racionalización y Sostenibilidad de la Administración Local, DA 13, DA 14, DT 6 y DT 11
Reglamento de Población y Demarcación Territorial de las Entidades Locales, arts. 31 al 39
Norma Foral 62/1989, de 20 de noviembre, de Hermandades (ÁLAVA)
Norma Foral 63/1989, de 20 de noviembre, de Cuadrillas (ÁLAVA)
Norma Foral 3/1995, de 30 de marzo, de entidades supramunicipales (BIZKAIA)
Norma Foral 6/2007, de 10 de abril, de entidades supramunicipales (GIPUZKOA)

<table>
<tr><td>KONTZEPTUA</td><td colspan="2">Udalerriaz gaindi dauden tokiko entitateak, berezko izaera juridikoa dutenak. Tokiko entitateen arteko borondatezko elkartegintzan oinarritzen dira batez ere, zerbitzu publikoak eskaintzeko edo kudeatzeko helburuz.</td></tr>
<tr><td rowspan="3">MOTAK ETA XEDEA</td><td>UDALERRI-MANKOMUNI-TATEAK</td><td>Udalerrien arteko borondatezko elkartea, obrak denen artean finkatzeko, kudeatzeko eta egiteko eta beren eskumeneko zerbitzu jakin batzuk emateko, bai eta beren eremuaren garapen ekonomikoa eta soziala bultzatzen duten jardueretan elkarrekin aritzeko ere. Nortasun juridikoa du, eta bere helburuak betetzeko gaitasun osoa.</td></tr>
<tr><td>PARTZUERGOAK</td><td>Borondatezko elkartegintzako enteak dira eta, tokiko entitateekin batera, beste administrazio publiko batzuek eta baita irabazi-asmorik gabeko entitate pribatuek ere parte hartzen dute, interes komuneko jarduera edo zerbitzu publikoak kudeatzeko xedez.</td></tr>
<tr><td>ENTITATE TRADIZIONALAK</td><td>Helburu sozialtzat dute, batez ere, jabekidetza zatiezinaren araubidean hainbat udalerrirenak diren ondasunak administratzea, ustiatzea eta erabiltzea, batik bat basogintzarekin eta abeltzaintzarekin loturik.</td></tr>
<tr><td rowspan="4">MANKOMUNITATEAK</td><td>AHALMENAK</td><td>• Beren estatutuetan aitortutako ahalmenak.
• Estatutuetan aurreikuspenik jasota egon ezik, udalerriei dagozkien ahalmen berdinak egokituko zaizkie, beren xedeak betetzeko beharrezkoak diren heinean. Bereziki, ondasun eta eskubideen okupazioa presaz deklaratzeko ahalmena dute hirigintza-desjabetzeetan, bai eta desjabetze-ahalmena ere.</td></tr>
<tr><td>ESKUMENAK ETA MUGAK</td><td>Helburu jakin bat izan behar dute eta ezin dituzte inola ere berenganatu entitatea osatzen duten udalerriek dituzten eskumen guztiak.

Haren eskumen bakarrak obrak egitea eta zerbitzu publikoak ematea izango dira, ETELen 17. artikuluan aurreikusitako esparru materialetatik eratorri badira.</td></tr>
<tr><td>ESTATUTUAK</td><td>• Entitatearen oinarrizko araudia dira.
• Kide diren udalerrietako udalek onartuko dituzte, osoko bilkurako kideen legezko kopuruaren gehiengo osoaren aldeko botoa beharko dutela erabakia hartzeko.
• Beharrezko edukia:
→ Izena, egoitza eta kide dituen udalerriak.
→ Xedea, helburuak eta eskumenak.
→ Gobernu- eta administrazio-organoak, osaera, eskudantziak eta funtzionamendu-arauak.
→ Kide diren udalerrien ekarpenak eta gainerako baliabide ekonomikoak.
→ Iraupen-epea, desegiteko arrazoiak eta prozedura, eta likidazioari buruzko arauak.
→ Udalerriak sartzeko eta ateratzeko prozedura, estatutuak aldatzeko prozedura.
→ Funtzionamendurako beharrezko diren bestelako alderdi guztiak.
• Nolanahi ere, mankomunitatean bildutako udalerrien ordezkari izango dira gobernu-organoak.</td></tr>
<tr><td>MOTAK</td><td>• Lurralde historiko (LH) bereko udalerriek osatzen badute: foru-araudiaren arabera arautzen dira.
• EAEko lurralde historiko bateko baino gehiagoko udalerriek osatzen badute: ETELen 103. artikuluaren eta gainerako araudi autonomikoaren arabera arautzen dira.
• Autonomia-erkidego desberdinetako udalerriek osatzen badute: TAOLek baimentzen ditu, baldin eta eragindako autonomia-erkidegoetako araudiek baimentzen baditu.</td></tr>
<tr><td>PARTZUERGOAK

(Ikusi 10.6.2.3 fitxa)</td><td colspan="2">• Elkarte-oinarria duen bitarteko entitatea, jarduerak egiteko, tokiko zerbitzu publikoak emateko edo obrak egiteko.
• Lehentasunezko formuletako bat da nahitaezko gutxieneko zerbitzuak partekatuta kudeatzeko.
• Ezaugarri nagusia: tokiko entitateez gain parte har dezakete, baita ere, beste administrazio publiko batzuek (lurraldekoak eta erakundeetakoak) eta interes publiko konkurrenteko helburuak dituzten irabazi-asmorik gabeko entitate pribatuek ere.
• Izaera instrumentala dute, eta kide diren administrazio publikoetako bati atxikita egon behar dute; legean aurreikusitako irizpideak aplikatuz zehazten da atxikipena.
• Partzuergo eratzean, eraketan parte hartzen duen toki-entitatearen efizientzia ekonomikoa eta finantzen jasangarritasuna zaindu behar dira.
• Funtzionamendua estatutuetan arautzen da.
• Hiru mota daude ETELen: lurralde historiko berean dauden zuzenbide publikoko entitateek osatutakoak (foru-araudiak arautzen ditu); EAE barruan lurralde historiko bateko baino gehiagoko zuzenbide publikoko entitateek osatutakoak (ETELen 106. artikulua eta gainerako araudi autonomikoa aplikatzen zaie); EAEkoak ez diren beste lurralde batzuetako entitateak dituzten partzuergoak.</td></tr>
<tr><td>ENTITATE TRADIZIONALAK</td><td colspan="2">• Partzoneriak, landa- eta hiri-komunitateak… Entitate historiko tradizionalak dira eta beren hitzarmen, estatutu edo konkordien eta beren gainerako ohiturazko arauen bidez eraentzen dira.</td></tr>
</table>

<table>
<tr><th colspan="2">UDALERRIAZ GAINDIKO ARABAKO ENTITATE BEREZI BATZUK</th></tr>
<tr><td>KUADRILLA</td><td>• Udalerriz osatutako foru mailako lurralde entitatea, dagozkion gaietan parte hartzeko eta beraren lurralde-eremuari eragiten dioten interes orokorreko arazoak sustatzeko eta kudeatzeko asmoz.
• Kuadrillaren organo artezleak dira: Kuadrillako Batzarra eta kuadrillaburua.
• ETELek ez du bere araubide juridikoa aldatzen, eta berariaz aitortzen du Arabako Lurralde Historikoko berezko toki-erakundetzat, nortasun juridikoa eta bere helburuak betetzeko gaitasun osoa dituela —2.1.d) artikulua—.</td></tr>
<tr><td>ERMANDADEA</td><td>• Tokiko entitate propioa eta historikoa, Arabako foru-araubidearen barrukoa, araubide erkideko mankomunitateekin pareka daitekeena (baina ez berdin-berdina) eta udalerriek eta kontzejuek elkarrekin osatzen dutena.
• Nortasun juridikoa eta bere helburuak betetzeko gaitasun osoa ditu, helburu zehatz eta espezifikoetarako sortzen da, eta ez da lurralde-jarraitutasunik behar.
• Xedeak: elkarrekin gauzatzea antolaketa egonkor bat behar duten eta bere eskumenekoak diren obra eta zerbitzu jakin batzuk.
• Kontzejuak ermandadean sartu ahal izateko, aurretik ere zerbitzu konkretu horiek eskaini behar izan dituzte.</td></tr>
</table>

Legeria:

Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legea; 2., 10., 12., 19. eta 101-108 artikuluak
Tokiko Autonomiaren Europako Gutuna, 1985eko urriaren 15ekoa
TAOL, 44. artikulua
TAOLTB, 35. eta 36. artikuluak
27/2013 Legea, abenduaren 27koa, Toki-administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasunari buruzkoa, 13. eta 14. xedapen gehigarriak, eta 6. eta 11. xedapen iragankorrak
Toki Erakundeen Biztanleriaren eta Lurralde Mugaketaren Erregelamendua, 31-39 artikuluak
62/1989 Foru Araua, azaroaren 20koa, Arabako Ermandadeei buruzkoa
63/1989 Foru Araua, azaroaren 20koa, Arabako Kuadrillei buruzkoa.
3/1995 Foru Araua, martiaren 30ekoa, Bizkaiko udalez gaindiko eremuko erakundeak araupetzeari buruzkoa
6/2007 Foru Araua, apirilaren 10ekoa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalez gaindiko erakundeak arautzen dituena

PADRÓN MUNICIPAL DE HABITANTES	
¿QUÉ ES?	Es el **registro administrativo** donde constan **los vecinos y vecinas** de un municipio y refleja simplemente si alguien reside o no de manera habitual y efectiva en el municipio, independientemente de si es titular o no de la vivienda, o de las condiciones urbanísticas, físicas, higiénico-sanitarias o de otra índole que afecten al domicilio. La **gestión** del Padrón de Habitantes corresponde a los **Ayuntamientos**. Toda persona que viva/resida habitualmente en un municipio está **obligada a solicitar la Inscripción** en el Padrón de ese municipio, adquiriendo así la condición de vecino o vecina del mismo con las obligaciones y derechos que conlleva. Quien viva **en más de un municipio o domicilio** se inscribirá únicamente **en el que resida durante más tiempo** al año.
¿PARA QUÉ SIRVE?	Los datos del Padrón sirven para los siguientes fines: • Adquirir la **condición de vecino/a**, con los deberes y derechos que ello conlleva. • Conocer la **cifra oficial de población** de cada municipio. • Elaborar y difundir **datos estadísticos** oficiales desagregados. • Constituir el **censo electoral**, si se cumplen el resto de los requisitos establecidos por la legislación electoral (p.ej. edad, nacionalidad…). • Permitir que la ciudadanía pueda acceder al **disfrute de determinados servicios públicos**, si se cumplen el resto de los requisitos establecidos por la legislación sectorial aplicable (p.ej. servicios de educación, sanidad, ayudas públicas…).
¿CÓMO SE ACTUALIZAN SUS DATOS?	A través de 3 vías: • Datos **enviados telemáticamente por el Instituto Nacional de Estadística** (INE) a través del fichero de intercambio mensual mediante la plataforma denominada IDAPADRON. • Variaciones comunicadas por los propios **vecinos/as** al Ayuntamiento. • Actos de **comprobación** realizados por los Ayuntamientos.

CERTIFICADOS Y VOLANTES DE EMPADRONAMIENTO	
CERTIFICADOS	Las certificaciones que se expidan relativas a datos del padrón municipal de habitantes tendrán carácter de **documento público y fehaciente para todos los efectos administrativos**. Estarán **firmadas por el Secretario/a Municipal y por el Alcalde o Alcaldesa**, o las personas en quienes deleguen.
VOLANTES	Son documentos de **carácter puramente informativo**, en los que no son necesarias las formalidades previstas para las certificaciones. **Se expiden por el personal funcionario** municipal actuante. Son válidos para la mayoría de los procedimientos administrativos (salvo para los procedimientos de adopción internacional y procedimientos judiciales, en los cuales se suele exigir certificado formal).

OBLIGACIÓN DE COMUNICAR LA MODIFICACIÓN DE DATOS PERSONALES AL AYUNTAMIENTO

Las personas empadronadas en un municipio tienen **obligación de solicitar al Ayuntamiento la modificación de sus datos personales**: apellidos, nombre, nivel de estudios, número de pasaporte o NIE, y fecha de nacimiento.

La persona interesada deberá aportar la **documentación justificativa de los cambios** solicitados (p.ej. certificado del Registro Civil para cambio de apellido o nombre, título académico para cambio de nivel de estudios...).

Si el cambio se refiere a los datos de una persona **menor de edad**, el progenitor/a deberá presentar **el libro de familia o el certificado de nacimiento** para acreditar la representación legal.

Los datos se modificarán en el Padrón Municipal de Habitantes, e indirectamente en la Oficina del Censo Electoral a través del INE, pero no implica cambios en los datos gestionados por el resto de las Administraciones Públicas (Dirección General de Tráfico, Seguridad Social, Diputación Foral…).

CESIÓN DE DATOS A OTRAS ADMINISTRACIONES

Los datos del padrón municipal **se cederán a otras Administraciones** públicas que lo soliciten, **sin consentimiento previo** de la persona afectada, solamente cuando les sean necesarios para el ejercicio de sus respectivas competencias, y exclusivamente para asuntos en los que la residencia o el domicilio sean datos relevantes.

También pueden servir para elaborar **estadísticas oficiales** sometidas al secreto estadístico, en los términos previstos en la Ley 12/1989, de 9 de mayo, de la Función Estadística Pública, y en las leyes de estadística de las comunidades autónomas con competencia en la materia.

Fuera de estos supuestos, los datos del padrón son **confidenciales** y el acceso a los mismos se regirá por lo dispuesto en la **normativa vigente sobre protección de datos personales**.

Los Ayuntamientos comunican las altas, bajas y modificaciones en el Padrón Municipal de Habitantes mensualmente por vía telemática al Instituto Nacional de Estadística (INE), quien a su vez lo comunica a la Oficina del Censo Electoral para la actualización de los datos de las personas mayores de 16 años.

Legislación: LRBRL, arts. 15 al 18
Título II Reglamento de Población y Demarcación Territorial de las Entidades Locales (RD 1690/1986, de 11 de julio)

BIZTANLEEN UDAL-ERROLDA	
ZER DA?	**Administrazio-erregistro** bat da, eta bertan udalerri bateko **bizilagunak** agertzen dira, eta bakar-bakarrik adierazten du ea norbait ohiko moduan eta benetan bizi den udalerrian, albo batera utzita etxebizitzaren titularra den edo ez, eta albo batera utzita hirigintza-baldintzak eta etxebizitzaren baldintza fisikoak, higieniko-sanitarioak eta etxebizitzari dagozkion bestelakoak. Biztanleen errolda **udalak kudeatzen du**. Udalerri batean ohiko moduan bizi diren guztiek **nahitaez eskatu** behar dute udalerri horretako erroldan **izena ematea**. Modu horretan, bertako biztanle bilakatzen dira eta horri dagozkion betebehar eta eskubideak jasotzen dituzte. **Hainbat udalerritan edo etxetan bizi dena**, urtean zehar **denbora gehiagoz non bizi den**, udalerri hartan erregistratu behar da, ez beste inon.
ZERTARAKO BALIO DU?	Erroldako datuak helburu hauetarako erabiltzen dira: • Biztanle-izaera eskuratzea, bere betebehar eta eskubide guztiekin. • Udalerrietako biztanleria-zifra ofiziala ezagutzea. • Estatistika-datu ofizial eta bereiziak sortu eta hedatzea. • Hautesle-errolda sortzea, hauteskunde-legedian ezarritako gainerako betekizunak betez gero (adibidez, adina, nazionalitatea...). • Herritarrek **zenbait zerbitzu publiko erabili ahal izatea** ahalbidetzea, baldin eta aplikatzekoa den sektore-legedian ezarritako gainerako betekizunak betetzen badira (adibidez, hezkuntza- eta osasun-zerbitzuak, laguntza publikoak...).
NOLA EGUNERATZEN DIRA DATUAK?	Hiru bide baliatzen dira: • **Estatistikako Institutu Nazionalak (EIN)** telematikoki hilean behin trukaketa-fitxategi batean IDAPADRON izeneko plataformaren bidez bidaltzen dituen datuak. • **Biztanleek** udalari jakinarazten dizkioten aldaketak. • Udalek egiten dituzten **egiaztapenak**.

ERROLDA-ZIURTAGIRIAK ETA -ESKUORRIAK	
ZIURTAGIRIAK	Udal-erroldako datuez ematen diren ziurtapenak **agiri publiko eta fede-emaileak izango dira administrazio-ondorio guztietarako**. **Udal-idazkariak eta alkateak sinatuko** dituzte, edo haiek zeregin hori eskuordetzen dieten pertsonek.
ESKUORRIAK	**Bakar-bakarrik informazio-agiriak** dira; agiri horiek emateko, ez dira beharrezkoak ziurtagirietarako behar diren formalitateak. **Udal-funtzionario** jarduleak **ematen ditu**. Administrazio-prozedura gehienetarako balio dute (nazioarteko adopzioko prozeduretarako eta prozedura judizialetarako izan ezik, horietan ziurtagiri formala eskatu ohi da eta).

DATU PERTSONALEN ALDAKETA UDALEAN JAKINARAZTEKO BETEBEHARRA

Udalerri batean erroldatuta dauden biztanleek **nahitaez eskatu behar diote udalari beren datu pertsonal hauek aldatzeko**: izen-abizenak, ikasketa-maila, pasaporte edo AIZ zenbakia eta jaioteguna.

Interesdunek eskatutako **aldaketak justifikatzeko agiriak** aurkeztu beharko dituzte (adibidez, Erregistro Zibileko ziurtagiria izena edo abizena aldatzeko, titulu akademikoa ikasketa-maila aldatzeko...).

Adingabe baten datuak aldatu behar direnean, gurasoak **familia-liburua edo jaiotza-ziurtagiria** aurkeztu beharko du legezko ordezkaritza egiaztatzeko.

Datuak biztanleen udal-erroldan aldatuko dira, eta zeharka Hautesle Erroldaren Bulegoan, EINen bitartez. Horrek ez du esan nahi gainerako administrazio publikoek (Trafikoko Zuzendaritza Nagusiak, Gizarte Segurantzak, Foru Aldundiak...) kudeatutako datuak aldatuko direnik.

DATUAK BESTE ADMINISTRAZIO BATZUEI LAGATZEA

Beste administrazio publiko batzuek udal-erroldako datuak **lagatzeko** eskatuz gero, laga egingo zaizkie, eta ez da beharrezkoa izango datu horien jabeak **aurretiazko baimena** ematea. Nolanahi ere, datu horiek beren eskumenak gauzatzeko behar dituztenean lagako zaizkie, ez bestela, eta bizilekua edo egoitza datu garrantzitsuak diren gaietarako, ez bestetarako.

Sekretu estatistikoaren peko **estatistika ofizialak** egiteko ere balia daitezke, Estatistika Funtzio Publikoaren Legeak (maiatzaren 9ko 12/1989) eta gai horretan eskumena duten autonomia-erkidegoetako estatistika-legeek ezarritako baldintzak betez.

Kasu horietatik kanpo, erroldako datuak **konfidentzialak** dira, eta **horietarako sarbideak datu pertsonalen babesari buruzko indarreko araudian xedatutakoari jarraituko dio.**

Udalek, hilero, biztanleen udal-erroldako alten, bajen eta aldaketen berri ematen diote telematikoki Estatistikako Institutu Nazionalari (EIN); horrek, berriz, Hautesle Erroldaren Bulegoari jakinarazten dizkio, 16 urte baino gehiagokoen datuak eguneratu ditzan.

Legeria: TAOL, 15-18. artikuluak
Toki Erakundeen Biztanleriaren eta Lurralde Mugaketaren Erregelamenduaren II. titulua (1690/1986 ED, uztailaren 11koa)

<table>
<tr><th colspan="3">ALTA O CAMBIO DE DOMICILIO EN EL PADRÓN</th></tr>
<tr><td>¿CÓMO SE SOLICITA?</td><td colspan="2">La solicitud de cambio de domicilio, a diferencia de la solicitud de alta padronal, supone una modificación del lugar de empadronamiento dentro del mismo municipio de una persona que ya está dada de alta en el mismo.

Las personas de nacionalidad española que residen en el extranjero deberán solicitar el alta de padrón en el PERE (Padrón de españoles residentes en el extranjero).</td></tr>
<tr><td>¿QUIÉN PUEDE SOLICITAR?</td><td colspan="2">• Cualquier persona mayor de edad o menor emancipado que resida habitualmente en el domicilio, o bien las personas físicas autorizadas expresamente por la persona titular.
• En el caso de menores de edad: los progenitores que ostenten la patria potestad, aportando el libro de familia o el certificado de nacimiento para acreditar la representación legal.
• En el caso de personas mayores de edad incapacitadas judicialmente: la persona designada como tutor/a en la sentencia judicial.</td></tr>
<tr><td>¿CUÁNDO SE PUEDE SOLICITAR?</td><td colspan="2">En el momento en que tenga lugar la residencia habitual y efectiva en el domicilio.</td></tr>
<tr><td>¿CUÁL ES EL PLAZO PARA SU TRAMITACIÓN?</td><td colspan="2">Siempre que un ciudadano/a solicite el alta o el cambio de domicilio en el Padrón aportando los documentos necesarios para probar su identidad, representación en su caso, y residencia real en el mismo, se procederá a realizar su inscripción en el Padrón sin más trámite, siendo efectiva desde ese momento y sin que sea posible otorgarle efectos retroactivos.

Cuando se carezca de documentación alguna para probar la residencia habitual en el domicilio o la presentada por el/la ciudadano/a sea insuficiente o genere dudas, se solicitará el alta o el cambio de domicilio en el padrón mediante solicitud en el Registro General, y el Ayuntamiento realizará los trámites necesarios para comprobar la veracidad de los datos aportados en la solicitud.

Una vez comprobada la residencia habitual y efectiva, el Ayuntamiento procederá al alta o al cambio de domicilio padronal con efectos desde la fecha de la solicitud presentada en el Registro. En el caso de presentación de solicitudes en día inhábil (sábados, domingos y festivos) se entenderán realizadas en el primer día hábil siguiente al de la solicitud.

El plazo para la tramitación del alta o el cambio de domicilio padronal y para notificar la resolución a las personas interesada es de 3 meses.

Si el Ayuntamiento no notifica dentro de los tres meses la resolución estimando o desestimando la solicitud, operará el silencio positivo y el ciudadano/a quedará a todos los efectos empadronado/a en el domicilio, desde la fecha de su solicitud.</td></tr>
<tr><td rowspan="9">¿QUÉ TIPO DE DOCUMENTOS SON VÁLIDOS PARA DARSE DE ALTA O CAMBIAR DE DOMICILIO EN EL PADRÓN?</td><td colspan="2">Los datos obligatorios de identificación de la inscripción en el Padrón municipal son: nombre y apellidos, sexo, nacionalidad, lugar y fecha de nacimiento, número de documento de identificación, y certificado o título escolar o académico que se posea.</td></tr>
<tr><td colspan="2">CIUDADANOS/AS DE NACIONALIDAD ESPAÑOLA
se pueden identificar mediante los siguientes tipos de documentos</td></tr>
<tr><td>Mayores de edad y menores con 14 años* cumplidos</td><td>• DNI.
• En su defecto, pasaporte.
• El permiso de conducción español [será válido siempre que se acrediten los datos obligatorios que no constan en el mismo (sexo, nacionalidad y lugar de nacimiento) mediante otro documento oficial].

* Con 14 años es obligatorio obtener DNI.</td></tr>
<tr><td>Menores de 14 años</td><td>• DNI.
• En su defecto, libro de Familia o certificado de nacimiento originales.</td></tr>
<tr><td colspan="2">CIUDADANOS/AS DE NACIONALIDAD EXTRANJERA
se pueden identificar mediante los siguientes tipos de documentos</td></tr>
<tr><td rowspan="4">Mayores de edad y menores con 14 años cumplidos</td><td>De Estados miembros de la UE, Islandia, Liechtenstein, Noruega y Suiza*:</td></tr>
<tr><td>• Certificado de inscripción en el Registro Central de Extranjeros junto a pasaporte o a su documento nacional de identidad originales en vigor.
• En su defecto, el documento nacional o el pasaporte en vigor expedido por las autoridades del país de procedencia.

* Los nacionales de estos países tienen la obligación de inscribirse en el Registro Central de Extranjeros si pretenden permanecer o fijar su residencia en España por período superior a los tres meses, obteniendo así un número de NIE.</td></tr>
<tr><td>De otras nacionalidades*:</td></tr>
<tr><td>• Permiso de residencia (NIE temporal, permanente o de larga duración, comunitario).
• En su defecto, pasaporte original en vigor.

*No es válido el documento nacional emitido por las autoridades del país de procedencia.</td></tr>
<tr><td>Menores de 14 años</td><td colspan="2">• Libro de Familia o certificado de nacimiento originales, salvo que tuvieran NIE, pasaporte o documento nacional (en su caso).
• Permiso de residencia (NIE) en vigor, expedido por autoridades españolas, tiene preferencia frente a cualquier otro documento de identificación.

Cuando el permiso de residencia (NIE) o el pasaporte estén caducados, se deberán presentar dichos documentos caducados junto con la solicitud de renovación de los mismos.</td></tr>
</table>

Legislación: LRBRL, arts. 15 al 18
Título II Reglamento de Población y Demarcación Territorial de las Entidades Locales (RD 1690/1986, de 11 de julio)

<table>
<tr><th colspan="3">ERROLDAN ALTA EMATEA EDO HELBIDEA ALDATZEA</th></tr>
<tr><td>NOLA ESKATZEN DA?</td><td colspan="2">Helbidea aldatzeko eskaera egitean, alta-eskaeran ez bezala, udalerri batean erroldatuta dagoen biztanle baten udalerri bereko errolda-lekua aldatzen da.

Atzerrian bizi diren espainiar nazionalitateko pertsonek PERE erroldan (atzerrian bizi diren espainiar egoiliarren errolda) alta eskatu beharko dute.</td></tr>
<tr><td>NORK ESKATU DEZAKE?</td><td colspan="2">• Adinez nagusiak edo emantzipatutako adingabeak diren guztiek, ohiko moduan etxebizitza horretan bizi direnek, edo titularrak berariaz baimendu dituen pertsona fisikoek.
• Adingabeen kasuan: guraso-ahala duten gurasoek, familia-liburua edo jaiotza-ziurtagiria aurkeztuta, legezko ordezkaritza egiaztatzeko.
• Judizialki desgaituta dauden adin nagusikoen kasuan: epai judizialean tutore gisa izendatutakoek.</td></tr>
<tr><td>NOIZ ESKATU DAITEKE?</td><td colspan="2">Etxebizitzan ohiko eta benetako moduan bizitzean.</td></tr>
<tr><td>ZEIN DA IZAPIDETZERAKO EPEA?</td><td colspan="2">Herritarrak udalerri bateko erroldan alta emateko edo datuak aldatzeko eskaera egiten badu eta bere nortasuna, ordezkaritza —hala badagokio— eta benetan udalerri horretan bizi dela egiaztatzeko behar diren dokumentu guztiak aurkezten baditu, zuzenean erroldan inskribatuko da, izapide gehiagorik egin behar izan gabe, eta une horretan bertan izango ditu ondorioak, baina ez du atzeraeraginezko ondoriorik izango.

Herritarrak benetan bertan bizi direla frogatzeko agiririk ez dagoenean, edo herritarrak aurkeztutako agiriak nahikoak ez direnean edo zalantzazkoak direnean, Erregistro Orokorrean eskaera eginez eskatuko da erroldako alta edo helbide-aldaketa, eta udalak behar diren izapideak egingo ditu eskaerako datuak egiazkoak direla egiaztatzeko.

Ohiko eta benetako bizilekua zein den egiaztatu eta gero, udalak erroldako alta edo helbide-aldaketa egingo du, eta ondorioak erregistroan eskaera aurkezten den egunetik aurrera izango ditu. Eskaerak egun baliogabeetan aurkezten badira (larunbat edo igandeetan eta jaiegunetan), eskaeraren hurrengo egun baliodunean egindakotzat joko dira.

Erroldako alta edo helbide-aldaketa izapidetzeko eta interesdunei ebazpena jakinarazteko epea hiru hilabetekoa izango da.

Hiru hilabete horietan udalak ez badu ebazpenik ematen eskaera baiesteko edo ezesteko, isiltasun positiboa aplikatuko da, eta herritarra helbide horretan erroldatuta geratuko da, ondorio guztietarako, eskaera egiten duen egunetik aurrera.</td></tr>
<tr><td rowspan="7">ZER AGIRIK BALIO DUTE ERROLDAN ALTA EMATEKO EDO HELBIDEA ALDATZEKO?</td><td colspan="2">Hauek dira udal-erroldan inskribatuta egoteko nahitaezko identifikazio-datuak: izen-abizenak, sexua, nazionalitatea, jaioteguna eta jaioterria, identifikazio-agiriaren zenbakia eta (edukiz gero) eskola-ziurtagiria edo -titulua edo titulu akademikoa.</td></tr>
<tr><td colspan="2">ESPAINIAR NAZIONALITATEKO BIZILAGUNAK
Honako agiri hauen bidez identifikatu ahal dira:</td></tr>
<tr><td>Adin nagusikoak eta 14 urte bete dituzten adingabeak*</td><td>• NANa.
• Ez badu, pasaportea.
• Espainiako gidabaimena [balio izango du, baldin eta bertan ez dauden nahitaezko datuak (sexua, nazionalitatea eta jaioterria) beste agiri ofizial batekin egiaztatzen badira].

* 14 urterekin nahitaezkoa da NANa.</td></tr>
<tr><td>14 urtetik beherakoak</td><td>• NANa.
• Ez badute, jatorrizko familia-liburua edo jaiotza-ziurtagiria.</td></tr>
<tr><td colspan="2">NAZIONALITATE ATZERRITARREKO HERRITARRAK
Honako agiri hauen bidez identifikatu ahal dira:</td></tr>
<tr><td rowspan="3">Adin nagusikoak eta 14 urte bete dituzten adingabeak</td><td>EBko estatu kideetakoak eta Islandia, Liechtenstein, Norvegia eta Suitzakoak*:</td></tr>
<tr><td>• Atzerritarren Erregistro Zentraleko inskripzio-ziurtagiria, eta pasaportea edo nortasun-agiri nazionala (jatorrizkoak, indarrean daudenak).
• Horrelakorik izan ezean, jatorri-herrialdeko agintariek eman duten eta indarrean dagoen nortasun-agiri edo pasaportea.

* Herrialde horietako herritarrak nahitaez Atzerritarren Erregistro Zentralean inskribatu behar dira, Espainian egon edo bizilekua finkatu nahi badute hiru hilabetean baino gehiagoan, eta, modu horretan, AIZ zenbakia jasoko dute.</td></tr>
<tr><td>Beste nazionalitate batzuetakoak*:

• Bizileku-baimena (aldi baterako AIZ, iraunkorra edo epe luzekoa eta batasunekoa).
• Ez badu, jatorrizko pasaportea, indarrean dagoena.

* Ez du balio jatorri-herrialdeko agintaritzek emandako agiri nazionalak.</td></tr>
<tr><td>14 urtetik beherakoak</td><td>• Jatorrizko familia-liburu edo jaiotza-ziurtagiria, salbu eta AIZ, pasaportea edo agiri nazionala dutenean.
• Espainiako agintaritzek eman duten eta indarrean dagoen bizileku-baimenak (AIZ) lehentasuna du gainerako identifikazio-agirien aurrean.

Bizileku-baimena (AIZ) edo pasaportea iraungita badaude, berritze-eskaera aurkeztu beharko da, iraungitako agiri horiekin batera.</td></tr>
</table>

Legeria: TAOL, 15-18. artikuluak
Toki Erakundeen Biztanleriaren eta Lurralde Mugaketaren Erregelamenduaren II. titulua (1690/1986 ED, uztailaren 11koa)

<table>
<tr><th colspan="3">ALTA O CAMBIO DE DOMICILIO EN EL PADRÓN</th></tr>
<tr><td>¿QUÉ TIPO DE DOCUMENTOS SIRVEN PARA ACREDITAR LA RESIDENCIA HABITUAL Y EFECTIVA EN UN DOMICILIO?</td><td colspan="2">Si quien solicita el alta padronal/cambio de domicilio:
• Es la persona propietaria de la vivienda donde solicita el empadronamiento, se aportará la escritura pública de compra-venta o el documento expedido por el Registro de la Propiedad.
• Es la persona inquilina de la vivienda donde solicita el empadronamiento, se aportará el contrato de arrendamiento en vigor. Se entiende que dicho contrato es válido para acreditar la residencia de la persona inquilina, sus ascendentes en primera línea (progenitores) y sus descendientes en primera línea (hijos/as), cónyuge o pareja de hecho.
• Es la persona subarrendataria de la vivienda donde solicita el empadronamiento, se aportará el contrato de subarriendo en vigor, firmado por la persona propietaria, inquilina y subarrendataria. Se entiende que dicho contrato es válido para acreditar la residencia del subarrendatario/a, ascendentes en primera línea (padres) y descendientes en primera línea (hijos/as), cónyuge o pareja de hecho.
• No es ni propietario/a, ni inquilino/a, ni subarrendatario/a de la vivienda donde solicita el empadronamiento, se aportará la autorización para ocupar la vivienda firmada por la persona propietaria e inquilina, en su caso.

En caso de que exista duda acerca del lugar de residencia o la persona solicitante no pudiera aportar documentos acreditativos de la residencia habitual, el Ayuntamiento registrará la solicitud de alta padronal y comprobará la residencia a través del Servicio de Policía Local u otros medios.</td></tr>
<tr><td rowspan="8">¿CÓMO SE SOLICITA EL ALTA PADRONAL O CAMBIO DE DOMICILIO DE HIJOS/AS MENORES DE EDAD?</td><td colspan="2">Las personas menores de edad (salvo los casos de emancipación) no tienen capacidad de obrar para solicitar el alta padronal por sí mismas. Serán sus progenitores o representantes legales quienes lo soliciten en su nombre, aportando el libro de familia o el certificado de nacimiento.

Las personas menores de edad no emancipadas tendrán la misma vecindad que los progenitores que tenga su guarda o custodia, salvo autorización por escrito de éstos para residir en otro domicilio o municipio.

Si los progenitores desean empadronar a la persona menor en un domicilio distinto al familiar, deberán aportar el documento de autorización para residir en otro municipio o domicilio firmado por ambos progenitores.</td></tr>
<tr><td colspan="2">PATRIA POTESTAD COMPARTIDA</td></tr>
<tr><td colspan="2">Ambos deberán firmar el consentimiento para poder dar de alta o cambiar de domicilio al menor en el Padrón de Habitantes. Si no hay consentimiento mutuo de ambos, la normativa establece que, excepcionalmente, se pueda solicitar el alta padronal o de cambio de domicilio de la persona menor mediante la presentación de una declaración responsable, si se cumplen los requisitos establecidos en la misma:</td></tr>
<tr><td colspan="2">SIN CONSENTIMIENTO MUTUO Y SIN RESOLUCIÓN judicial sobre guardia y custodia de la persona menor:

El progenitor solicitante deberá aportar una declaración responsable conforme al modelo que figura como Anexo I de la Resolución de 17 de febrero de 2020, por la que se dictan instrucciones técnicas a los Ayuntamientos sobre la gestión del Padrón municipal, indicando que se encuentra en uno de los siguientes supuestos:
• Haber solicitado autorización judicial para realizar el alta padronal o el cambio de domicilio sin el consentimiento del otro progenitor (en cuyo caso debe aportar la demanda presentada en el juzgado).
• Explicar el motivo por el cual no ha podido recabar el consentimiento del otro progenitor y qué tipo de perjuicio causa a sus hijos menores la falta de empadronamiento o de cambio de domicilio (p.ej. no puede acceder al servicio de sanidad pública, servicio de educación pública, obtención o renovación de documentos de identificación, ayudas públicas…).</td></tr>
<tr><td colspan="2">SIN CONSENTIMIENTO MUTUO, PERO CON RESOLUCIÓN judicial que atribuye la GUARDIA Y CUSTODIA EN EXCLUSIVA A UNO DE LOS PROGENITORES:

Excepcionalmente, se puede firmar la declaración responsable denominada Anexo II de la Resolución de 17 de febrero de 2020, por la que se dictan instrucciones técnicas a los Ayuntamientos sobre la gestión del Padrón municipal, aportando la resolución judicial correspondiente, en el caso de que se cumpla alguno de los siguientes supuestos:
• Haber solicitado autorización judicial para realizar el alta padronal o el cambio de domicilio del menor sin el consentimiento del otro progenitor (en cuyo caso debe aportar la demanda presentada en el juzgado).
• Si la resolución judicial sobre la guarda y custodia se ha dictado en rebeldía (es decir, el otro progenitor no ha comparecido en el procedimiento judicial con abogado y procurador) y no cumple el régimen de visitas.
• Si el otro progenitor se encuentra en paradero desconocido y no cumple el régimen de visitas.
• Explicar el motivo por el cual no ha podido recabar el consentimiento del otro progenitor y qué tipo de perjuicio causa a sus hijos menores la falta de empadronamiento o de cambio de domicilio (p.e. no puede acceder al servicio de sanidad pública , servicio de educación pública, obtención o renovación de documentos de identificación, ayudas públicas etc...).</td></tr>
<tr><td colspan="2">SIN CONSENTIMIENTO MUTUO, PERO CON RESOLUCIÓN judicial que atribuye la GUARDIA Y CUSTODIA DE MANERA COMPARTIDA A AMBOS PROGENITORES:

El Ayuntamiento no podrá realizar al alta padronal o el cambio de domicilio de la persona menor hasta que ambos progenitores firmen el consentimiento mutuo, o bien exista una resolución judicial que se pronuncie sobre el domicilio de empadronamiento de la persona menor.</td></tr>
<tr><td colspan="2">PATRIA POTESTAD NO COMPARTIDA</td></tr>
<tr><td colspan="2">No es necesario que el progenitor que ha sido privado de la patria potestad otorgue su consentimiento para poder solicitar el alta padronal o el cambio de domicilio del menor.

En este caso, se deberá aportar la resolución judicial que acredite la atribución de la patria potestad en exclusiva a uno sólo de los progenitores.</td></tr>
<tr><td colspan="2">OTROS CASOS ESPECIALES</td></tr>
<tr><td>Menor bajo tutela, guardia o custodia de las Administraciones Públicas.</td><td>Si el empadronamiento lo solicita una Administración Pública, deberá acreditar que ostenta la representación legal del menor, a través de la presentación de la correspondiente resolución administrativa.</td></tr>
<tr><td>Menor en situación de acogimiento familiar o adopción.</td><td>Se presentará la resolución administrativa o judicial mediante la cual se ha constituido el acogimiento familiar o adopción de la persona menor en beneficio de la familia de acogida o adoptante.</td></tr>
</table>

Legislación: LRBRL, arts. 15 al 18
Título II Reglamento de Población y Demarcación Territorial de las Entidades Locales (RD 1690/1986, de 11 de julio)
Resolución de 17 de febrero de 2020, de la Presidencia del Instituto Nacional de Estadística y la Dirección General de Cooperación Autonómica y Local, por la que se dictan instrucciones técnicas a los Ayuntamientos sobre la gestión del Padrón Municipal (modificada por la Resolución de 3 de febrero de 2023)

ERROLDAN ALTA EMATEA EDO HELBIDEA ALDATZEA

ZER AGIRIK BALIO DUTE ETXEBIZITZA BATEKO OHIKO ETA BENETAKO BIZILEKUA EGIAZTATZEKO?

Baldin eta helbide-aldaketa edo erroldako alta eskatzen duena:

- Errolda eskatzen duen etxebizitzaren **jabea bada, salerosketako eskritura publikoa edo jabetza-erregistroak emandako agiria aurkeztu behar du**.
- Erroldatzea eskatzen den etxebizitzako errentaria bada, indarreko **alokairu-kontratua** aurkeztu behar du. Kontratu horrek errentariaren, haren lehen mailako goranzko senideen (gurasoak), lehen mailako ondorengoen (seme-alabak) eta ezkontidearen edo izatezko bikotekidearen bizilekua egiaztatzeko balio du.
- Erroldatzea eskatzen den etxebizitzako azpierrentaria bada, indarreko **azpialokairu-kontratua** aurkeztu behar du, jabeak, errentariak eta azpierrentariak sinatuta. Kontratu horrek azpierrentariaren, haren lehen mailako goranzko senideen (gurasoak), lehen mailako ondorengoen (seme-alabak) eta ezkontidearen edo izatezko bikotekidearen bizilekua egiaztatzeko balio du.
- **Ez bada erroldatzea eskatu den etxebizitzako jabea, errentaria eta azpierrentaria ere, etxebizitzan bizitzeko baimena** aurkeztu behar du, jabeak edo (hala badagokio) errentariak sinatuta.

Zalantzak badaude bizilekuaren inguruan edo eskatzaileak ohiko bizilekuaren **egiaztagiriak ezin baditu aurkeztu**, udalak erroldako altaren eskaera erregistratuko du eta bizilekua egiaztatuko du **Udaltzaingoaren edo bestelako bitartekoen bidez**.

NOLA ESKATZEN DA SEME-ALABA ADINGABEKOEN ERROLDAKO ALTA EDO HELBIDE-ALDAKETA?

Adingabeek (emantzipazio-kasuetan salbu) **ezin dute beren kabuz eskatu erroldako alta. Gurasoek edo legezko ordezkariek** eskatuko dute haien izenean, eta familia-liburua edo jaiotza-ziurtagiria aurkeztu beharko dute.

Emantzipatu gabeko adingabeek **haien zaintza edo jagoletza duten gurasoen auzotasun bera** izango dute; salbuespena izan daiteke guraso edo legezko ordezkariek idazki bidez baimena ematen badiete beste egoitza edo udalerri batean bizitzeko.

Gurasoek adingabea familiarena **ez den beste etxebizitza batean** erroldatu nahi badute, beste udalerri edo helbide batean bizitzeko **baimena** aurkeztu beharko dute, **biek sinatuta**.

PARTEKATUTAKO GURASO-AHALA

Biek sinatu beharko dute adostasuna adingabeari biztanleen erroldan alta emateko edo egoitza aldatzeko. Biak ados ez badaude, araudiaren arabera, salbuespenez, erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztuta eskatu ahal izango da adingabeari erroldan alta emateko edo helbidea aldatzeko, baldin eta betekizunak betetzen badira:

BIEN ADOSTASUNIK EZ, ETA adingabearen zaintza eta jagoletzari buruzko **EBAZPEN JUDIZIALIK ERE EZ**:

Guraso eskatzaileak **erantzukizunpeko adierazpena** aurkeztu beharko du, 2020ko otsailaren 17ko ebazpenaren **I. eranskinari** jarraikiz —ebazpen horren bidez, udalei jarraibide teknikoak ematen zaizkie udal-erroldako kudeatzearen inguruan—, eta adierazi beharko du honako kasu hauetakoren batean dagoela:

- Baimen judiziala eskatu izana erroldan alta emateko edo helbidea aldatzeko beste gurasoaren baimenik gabe (kasu horretan, epaitegian aurkeztutako demanda eman beharko du).
- Azaldu beharra zergatik ezin izan duen beste gurasoaren baimena lortu eta nolako kaltea egiten dien bere seme-alabei erroldatu gabe egoteak edo helbidea ez aldatzeak (adibidez, ezin dute osasun publikoaren edo hezkuntza publikoaren zerbitzua erabili, identifikazio-agiriak eskuratu edo berritu, laguntza publikoak lortu...).

BIEN ADOSTASUNIK EZ, BAINA EBAZPEN judizial batek **ZAINTZA ETA JAGOLETZA BERARIAZ EMATEN DIO GURASOETAKO BATI**:

Salbuespenez, 2020ko otsailaren 17ko ebazpeneko **II. eranskineko erantzukizunpeko adierazpena** sinatu ahalko da —ebazpen horren bidez, udalei jarraibide teknikoak ematen zaizkie udal-erroldaren kudeaketari buruz—, eta dagokion ebazpen judiziala aurkeztu beharko da honako kasu hauetakoren bat betetzen denean:

- Baimen judiziala eskatu izana adingabeari erroldan alta emateko edo helbidea aldatzeko beste gurasoaren baimenik gabe (kasu horretan, epaitegian aurkeztutako demanda eman beharko du).
- Zaintza eta jagoletzaren ebazpen judiziala auzi-ihesean ematea (hau da, beste gurasoa ez da prozedura judizialean agertu abokatuarekin eta prokuradorearekin), eta bisita-araubidea ez betetzea.
- Beste gurasoa non den ez jakitea eta guraso hark bisita-araubidea ez betetzea.
- Azaldu beharra zergatik ezin izan duen beste gurasoaren baimena lortu eta nolako kaltea egiten dien bere seme-alabei erroldatu gabe egoteak edo helbidea ez aldatzeak (adibidez, ezin dute osasun publikoaren edo hezkuntza publikoaren zerbitzua erabili, identifikazio-agiriak eskuratu edo berritu, laguntza publikoak lortu...).

BIEN ADOSTASUNIK EZ, BAINA EBAZPEN judizial batek **ZAINTZA ETA JAGOLETZA BI GURASOEI EMATEN DIE**:

Udalak ezingo dio alta eman erroldan adingabeari, edo helbidea aldatu, bi gurasoek baimen bateratua sinatu arte, edo ebazpen judizial bat izan arte adingabearen errolda-helbideari buruz.

PARTEKATU GABEKO GURASO-AHALA

Ez da beharrezkoa guraso-ahalik ez duen gurasoak baimena ematea adingabeari erroldan alta emateko edo helbidea aldatzeko eskatu ahal izateko.

Kasu horretan, **guraso-ahala bakarrik gurasoetako bati berariaz eman izana egiaztatzen duen ebazpen judiziala aurkeztu beharko da**.

BESTELAKO KASU BEREZIAK

Administrazio publikoen **tutoretza-peko, zaintzapeko edo jagoletza-peko adingabeak**.	Erroldatzea administrazio publiko batek eskatzen duenean, egiaztatu beharko du adingabearen legezko ordezkaritza duela, eta, horretarako, dagokion **administrazio-ebazpena** aurkeztu beharko du.
Familia-harrerako edo adopzioko egoeran dagoen adingabea.	Adingabearen familia-harrera edo adopzioa harrera- edo adopzio-familiaren alde eratzen duen **administrazio-ebazpena edo ebazpen judiziala** aurkeztu behar da.

Legeria: TAOL, 15-18. artikuluak
Toki Erakundeen Biztanleriaren eta Lurralde Mugaketaren Erregelamenduaren II. titulua (1690/1986 ED, uztailaren 11koa)
Ebazpena, 2020ko otsailaren 17koa, Estatistikako Institutu Nazionalaren Presidentetzarena eta Autonomia Erkidegoekiko eta Toki Entitateekiko Lankidetzarako Zuzendaritza Nagusiarena, Udalei udal-errolda kudeatzeko jarraibide teknikoak ematen dizkiena (2023ko otsailaren 3ko ebazpenak aldatua)

BAJA EN EL PADRÓN MUNICIPAL DE HABITANTES	
BAJA POR TRASLADO A OTRO MUNICIPIO	Cuando una persona se da de alta en el Padrón, NO tendrá que comunicar dicha alta al municipio de origen ya que el **Ayuntamiento de destino lo comunicará de oficio al Ayuntamiento de origen** para que proceda a su baja en el padrón. Al objeto de evitar duplicados intermunicipales, El Instituto Nacional de Estadística (INE) también comunicará al municipio de origen el alta padronal del habitante en el municipio de destino a través del fichero de intercambio mensual mediante la plataforma IDAPADRON para que gestione la baja por traslado con la misma fecha en que se dio de alta en el municipio de destino. Si la baja padronal la quiere causar una persona de nacionalidad española que se **cambia de domicilio al extranjero**, **deberá solicitar el alta padronal directamente en el consulado español del país extranjero** en el que fije su nueva residencia (alta en el Padrón de Españoles Residentes en el Extranjero-PERE). No hay que realizar ningún trámite previo en el Ayuntamiento, ya que será el Consulado quien comunicará el alta al INE, y éste a su vez lo notificará al Ayuntamiento de origen donde estaba empadronado para proceder a su baja.
BAJA DE OFICIO POR INSCRIPCIÓN INDEBIDA	El objeto de este procedimiento es **dar de baja** en el Padrón Municipal de Habitantes a ciudadanos/as **empadronados en un domicilio cuando ya no residen habitualmente en el mismo, y no han solicitado el alta o el cambio de domicilio** en el nuevo lugar de residencia. Se trata de un procedimiento que impulsa el **ayuntamiento de oficio** realizando las comprobaciones correspondientes, pero cualquier persona que resida en la vivienda, o bien el propietario/a, puede comunicar mediante **denuncia** al Ayuntamiento que el ciudadano/a empadronado en su vivienda ya no reside en la misma. El **plazo máximo legal** para resolver este tipo de procedimiento de baja es de **tres meses** desde la fecha de aprobación del Decreto de Alcaldía mediante el cual se inicia de oficio el expediente de baja por inclusión indebida. Los **trámites** que se deben realizar son los siguientes: • **Notificar a la persona interesada** el Decreto de Alcaldía mediante el cual se inicia de oficio el expediente de baja por inclusión indebida. • Otorgar un plazo de **15 días** desde la recepción de la notificación para presentar **alegaciones**. • **Comprobación de las alegaciones** presentadas a través de visita domiciliaria de la policía local, en su caso, y **emisión de informe** de comprobación de la residencia habitual y efectiva. • En caso de no poder practicar la notificación, se procederá a la publicación en el Tablón Edictal Unico (TEU) del Boletín Oficial del Estado (BOE). • **Informe favorable de la Sección Provincial del Consejo de Empadronamiento**. • Se procede a la **baja efectiva** en el Padrón de Habitantes por inclusión indebida, en su caso.
BAJA POR NO RENOVACIÓN DE LA INSCRIPCIÓN PADRONAL	Los **ciudadanos/as extranjeros no comunitarios sin permiso de residencia** permanente o de larga duración **deberán renovar la inscripción padronal cada dos años**, desde la fecha del alta padronal, o desde la fecha de la última renovación padronal. La renovación de la inscripción padronal puede realizarse **tres meses antes de que finalice el plazo** de los dos años. La solicitud de cambio de domicilio o modificación de datos personales no equivale a la solicitud de renovación de la inscripción padronal. **Si el habitante no renueva** la inscripción padronal cada dos años, el Ayuntamiento tiene la **obligación legal de iniciar de oficio un expediente de baja por caducidad**. Los trámites que se deben realizar son los siguientes: • **Notificar a la persona interesada** el Decreto de Alcaldía mediante el cual se inicia de oficio el expediente de baja por caducidad. • Otorgar un plazo de **15 días** desde la recepción de la notificación para presentar **alegaciones o firmar** la solicitud de renovación padronal. • **Comprobación de las alegaciones** presentadas. • En caso de no poder practicar la notificación, se procederá a la publicación en el Tablón Edictal Unico (TEU) del Boletín Oficial del Estado (BOE). • Se procede a la **baja efectiva** en el Padrón de Habitantes por caducidad, en el caso de que la persona interesada no haya procedido a firmar la solicitud de renovación de la inscripción padronal, sin necesidad de recabar el informe favorable del Consejo de Empadronamiento.
BAJA POR FALLECIMIENTO	**Cualquier persona puede solicitar la baja** en el Padrón Municipal de Habitantes **de un vecino o vecina que ha fallecido** presentando el certificado de defunción original emitido por el Registro Civil. **Para solicitar el volante de padrón histórico** de una persona fallecida, se deberá acreditar la condición de persona **interesada** en el procedimiento (p.ej. libro de familia, testamento, declaración de herederos...). La baja por defunción sólo afecta al Padrón Municipal de Habitantes, e indirectamente a la Oficia del Censo Electoral a través del INE. La baja por defunción en el Padrón de Habitantes **no implica cambios en los datos gestionados por el resto de las Administraciones Públicas** (Dirección General de Tráfico, Seguridad Social, Diputación Foral…).

Legislación: LRBRL, arts. 15 al 18
Título II Reglamento de Población y Demarcación Territorial de las Entidades Locales (RD 1690/1986, de 11 de julio)

BAJA EMATEA BIZTANLEEN UDAL-ERROLDAN	
BESTE UDALERRI BATERA BIZITZERA JOATEAGATIK EMANDAKO BAJA	Erroldan alta ematen denean, EZ zaio altaren berri eman beharko jatorri-udalerriari, **helburu-udalak ofizioz jakinaraziko baitio jatorri-udalari,** dagokionari erroldan baja eman diezaion. Udalen arteko bikoizketarik ez gertatzeko, Estatistikako Institutu Nazionalak ere (EIN) jakinaraziko dio jatorri-udalerriari bizilagun horrek helmuga-udalerriko erroldan alta eman duela. Horretarako, hilean behin trukatze-fitxategia erabiliko du IDAPADRON plataforman, modu horretan jatorri-udalerriak lekualdaketarengatiko baja kudeatu dezan, helmuga-udalerrian alta eman zen egun berbera kontuan hartuta. Erroldako baja espainiar nazionalitateko norbaitek egin nahi badu **atzerrira bizitzera doalako, zuzenean erroldako alta eskatu beharko du biziko den atzerriko herrialdeko Espainiako kontsulatuan** (PERE atzerrian bizi diren espainiar egoiliarren erroldako alta). Udalean ez da aurretiaz bestelako izapiderik egin behar, kontsulatuak jakinaraziko baitio alta EINi, eta hark, era berean, aurretik erroldatuta zegoen jatorri-udalari, baja eman diezaion.
OFIZIOZKO BAJA, INSKRIPZIO OKERRA DELA ETA	Prozedura horren helburua da biztanleen udal-erroldan **baja ematea** etxebizitza batean erroldatuta dauden herritarrei, **baldin eta ohiko moduan bertan bizi ez badira eta bizileku berrian alta edo helbide-aldaketa** eskatu ez badute. Prozedura hori **udalak ofizioz** sustatzen du, dagozkion egiaztapenak eginez, baina etxebizitzan bizi den edonork edo jabeak berak jakinarazi ahal du, udalean **salaketa** jarriz, bere etxebizitzan erroldatuta dagoena jada ez dela bertan bizi. Horrelako baja-prozedurak ebazteko **legezko gehieneko epea hiru hilabetekoa** da, okerreko inskripzioagatik baja emateko espedientea ofizioz hasten duen alkatetza-dekretua onesten denetik aurrera zenbatzen hasita. **Izapide** hauek egin behar dira: • **Interesdunari jakinaraztea** okerreko inskripzioagatik baja emateko espedientea ofizioz hasten duen alkatetza-dekretua. • **15 eguneko** epea ematea jakinarazpena jasotzen denetik aurrera **alegazioak** aurkezteko. • **Egindako alegazioak egiaztatzeko**, Udaltzaingoak etxea bisitatuko du, hala badagokio, eta ohiko eta benetako bizilekuaren egiaztapenari buruzko **txostena emango** du. • Ezin bada jakinarazi, BOE Estatuko Aldizkari Ofizialeko ediktu-taula bakarrean (TEU) argitaratuko da. • **Aldeko txostena, Errolda Kontseiluaren Probintzia Atalak egina.** • Hala badagokio, biztanleen erroldako **baja efektiboa** ematen da, okerreko inskripzioagatik.
ERROLDAKO INSKRIPZIOA EZ BERRITZEAGATIK BAJA EMATEA	Bizileku-baimen iraunkorrik edo epe luzekorik ez duten **Europar Batasunaz kanpoko atzerritarrek bi urtean behin berritu beharko dute errolda-inskripzioa**, erroldako altako egunetik edo errolda azken aldiz berritutako egunetik aurrera zenbatzen hasita. Errolda-inskripzioa bi urteko epea **bukatu baino hiru hilabete aurretik** berritu daiteke. Helbidea aldatzeko edo datu pertsonalak aldatzeko eskaera ez da errolda-inskripzioa berritzeko eskaeraren baliokidea. **Bizilagunak ez badu berritzen** errolda-inskripzioa bi urtean behin, udala legez derrigortuta dago **iraungitzeagatik ofizioz baja-espedientea hasteko**. Izapide hauek egin behar dira: • **Interesdunari jakinaraztea** iraungitzeagatik baja emateko espedientea ofizioz hasten duen alkatetza-dekretua. • **15 eguneko** epea ematea jakinarazpena jasotzen denetik aurrera **alegazioak** aurkezteko, edo errolda berritzeko eskaera **sinatzeko.** • Aurkeztutako **alegazioak egiaztatzea.** • Ezin bada jakinarazi, BOE Estatuko Aldizkari Ofizialeko ediktu-taula bakarrean (TEU) argitaratuko da. • Iraungitzeagatik **baja efektiboa** emango da bizilagunen erroldan, interesdunak ez badu sinatu errolda-inskripzioa berritzeko eskaera, eta ez da beharrezkoa izango Errolda Kontseiluak egindako aldeko txostena lortzea.
HERIOTZA-BAJA	**Edozein herritarrek eskatu dezakete biztanleen udal-erroldan baja emateko hil den bizilagun bati**. Horretarako, Erregistro Zibilak emandako jatorrizko heriotza-ziurtagiria aurkeztu beharko dute. Hildako baten **errolda historikoaren eskuorria eskatzeko,** egiaztatu beharko da eskaera egiten duena prozeduran interesduna dela (hauen bidez, adibidez: familia-liburua, testamentua, oinordekoen deklarazioa...). Heriotzagatik gertatutako bajak bakarrik biztanleen udal-erroldan eragiten du, eta, zeharka, Hautesle Erroldaren Bulegoan, EINen bitartez. Biztanleen udal-erroldan heriotzagatik baja emateak **ez du esan nahi gainerako administrazio publikoek** (Trafikoko Zuzendaritza Nagusiak, Gizarte Segurantzak, Foru Aldundiak...) **kudeatutako datuak aldatuko direnik**.

Legeria: TAOL, 15-18. artikuluak
Toki Erakundeen Biztanleriaren eta Lurralde Mugaketaren Erregelamenduaren II. titulua (1690/1986 ED, uztailaren 11koa)

¿QUÉ DERECHOS TIENEN LAS PERSONAS EMPADRONADAS EN UN MUNICIPIO?

- A ser **elector/a y elegible** (según lo dispuesto en legislación electoral o normativa aplicable en elecciones municipales).
- **A participar** en la identificación, elaboración, gestión y evaluación de políticas públicas locales, así como en los asuntos públicos (según lo dispuesto en la normativa aplicable).
- A disfrutar de un **medio ambiente y espacio público urbano** adecuado y sostenible.
- A disponer de **entornos accesibles**, que no supongan barreras ni restricciones al tránsito y a la participación de personas con discapacidad.
- A que se garantice el **acceso** de forma efectiva y en condiciones de igualdad a los servicios públicos y a los servicios privados de interés general. Se fomentará, especialmente, su acceso y utilización por personas, colectivos y grupos en desventaja social o que objetivamente así lo requieran.
- A recibir **información** sobre **riesgos, de carácter natural o tecnológico**, que puedan afectar al ámbito municipal, así como, en su caso, de los planes municipales de protección civil.
- A la **cultura** y a acceder a los bienes del **patrimonio cultural**.
- A utilizar y a ser atendido/a en **euskera o castellano** en sus relaciones con la Administración local (de acuerdo con legislación autonómica que regula el ejercicio de los derechos lingüísticos de la ciudadanía).
- A que se garantice el ejercicio de los instrumentos de **participación ciudadana** previstos en la legislación y en las ordenanzas municipales.
- A la **igualdad de trato** por parte de la administración y de sus entes instrumentales vinculados o dependientes, independientemente del sexo u otra circunstancia, garantizando los derechos fundamentales de personas o grupos que sufran discriminación múltiple.
- A aquellos **otros** derechos establecidos en la normativa aplicable.

Estos derechos (excepto los de carácter electoral que se regirán por su normativa específica) serán reconocidos asimismo a las personas extranjeras empadronadas en el municipio respectivo, así como a las personas menores de edad, en los términos que se prevean en la LILE, en la legislación sectorial y en las ordenanzas y reglamentos municipales.

¿QUÉ OBLIGACIONES TIENEN LAS PERSONAS EMPADRONADAS EN UN MUNICIPIO?

- **Contribuir** mediante las **prestaciones económicas, personales y de transporte** previstas legalmente o por las ordenanzas, a fin de hacer efectivas las competencias municipales.
- **Comunicar** al municipio cualquier variación de las circunstancias personales que suponga **modificación de datos del padrón municipal**, según lo previsto en la normativa de aplicación (únicamente de aplicación a las personas vecinas del municipio).
- **Cumplir la normativa local y colaborar en su aplicación**, informando a las autoridades locales de infracciones de las normas de convivencia en el espacio público y de las anomalías que dificulten o impidan la prestación de un servicio público o representen un peligro para las personas usuarias o terceras personas.
- Hacer un **uso racional y adecuado** del patrimonio e infraestructuras y servicios municipales, colaborando en su preservación y recuperación. **Respetar los equipamientos y servicios públicos** municipales, incluida la señalización viaria y el mobiliario urbano, y colaborar, en su caso, en su preservación y recuperación.
- **Respetar las normas de convivencia ciudadana** en el espacio público y respetar los **derechos** de las demás personas.
- **Preservar y contribuir** a la mejora del **medio ambiente, del espacio público y del paisaje urbano** (comportamientos ecológicos y sostenibles).
- **Colaborar** con las entidades locales en garantizar una mayor efectividad de las políticas públicas de **eficiencia energética,** observando las instrucciones de eficiencia energética de los servicios municipales de agua, depuración de aguas residuales y gestión de residuos urbanos.
- **Cumplir** adecuadamente las **normas de viabilidad urbana y las relativas al depósito de residuos** en los espacios y fechas y horas estipuladas para ello por el ayuntamiento.
- **Otros** previstos por las leyes y ordenanzas municipales, en particular los que regulan los usos del espacio público o las relaciones de convivencia entre el vecindario.

Estos deberes y responsabilidades serán también exigibles a todas las personas que, sin ostentar la condición administrativa de vecino/a, se encuentren circunstancialmente en el término municipal.

Legislación: Ley 2/2016, de Instituciones Locales de Euskadi, arts. 43 y 44

ZER ESKUBIDE DITUZTE UDALERRI BATEAN ERROLDATUTA DAUDENEK?

- **Hautesle eta hautagarri** izateko eskubidea (udal-hauteskundeetan aplikatzekoa den hauteskunde-legedian edo -araudian xedatutakoaren arabera).
- Tokiko politika publikoak hautematen, egiten, kudeatzen eta ebaluatzen parte hartzeko eskubidea, bai eta gai publikoetan **parte hartzekoa** ere (araudi aplikagarrian xedatutakoaren arabera).
- **Ingurumen eta hiri-espazio publiko** egokiez eta jasangarriez gozatzeko eskubidea.
- **Ingurune irisgarriak** izateko eskubidea, desgaitasuna dutenen joan-etorriak eta parte-hartzea ez mugatzeko eta ez oztopatzeko.
- Zerbitzu publikoetara eta interes orokorreko zerbitzu pribatuetara modu eragingarrian eta baldintza beretan **sartzeko** aukera bermatuta edukitzeko eskubidea. Bereziki sustatuko da gizartean desabantailan dauden edota objektiboki behar duten pertsonek, kolektiboek eta taldeek horietarako sarbidea izatea eta horiek erabiltzea.
- Udal-esparruari eragin diezaioketen **arrisku natural zein teknologikoei** eta babes zibileko udal-planei buruzko **informazioa** jasotzeko eskubidea.
- **Kulturarako** eta **kultura-ondareko** ondasunetara iristeko eskubidea.
- Toki-administrazioarekiko harremanetan **euskaraz edo gaztelaniaz** egiteko eta hizkuntza haietan arreta jasotzeko eskubidea (herritarren hizkuntza-eskubideen erabilera arautzen duen autonomia-erkidegoko legediaren arabera).
- Legeetan eta udal-ordenantzetan **herritarrek parte hartzeko** aurreikusitako tresnen erabilera bermatuta edukitzeko eskubidea.
- Administrazioan eta haren erakunde instrumental lotuetan edo mendekoetan **tratu berdina** jasotzeko eskubidea, sexua edo beste edozein zirkunstantzia gorabehera. Bermatu egingo dira, halaber, bereizkeria anizkoitza jasaten duten norbanako edo taldeen oinarrizko eskubideak.
- Aplikatzekoa den araudian ezarritako **beste** eskubide batzuk.

Eskubide horiek dena delako udalerrian erroldatutako atzerritarrek ere izango dituzte, baita adingabeek ere, Euskadiko toki erakundeen legean, sektoreko legeetan eta udal-ordenantza eta erregelamenduetan zehaztutakoaren arabera. Salbuespena izango dira hauteskundeekin lotutako eskubideak, horiek beren araudia baitaukate.

ZER BETEBEHAR DITUZTE UDALERRI BATEAN ERROLDATUTA DAUDENEK?

- Legez edo ordenantzen bidez xedatutako **prestazio ekonomiko eta pertsonalen bitartez eta garraioko prestazioen bitartez** udal-eskumenak gauzatzen **laguntzea**.
- **Udal-erroldako datuak aldatzea dakarten** inguruabar pertsonalak aldatu badira, horien **berri ematea** udalari, aplikatzekoa den araudian xedatutakoaren arabera (udalerriko auzotarrei bakarrik aplika dakieke).
- **Tokiko arauak betetzea eta horiek aplikatzeko laguntza ematea** eta, horretarako, espazio publikoan bizikidetzan egiten diren arau-hausteen berri ematea eta zerbitzu publikoak ematea zailtzen edo eragozten duen edo erabiltzaile edo hirugarrenentzat arriskua dakarren edozein anomaliaren berri ematea toki-agintariei.
- Udal-ondarea, -azpiegiturak eta -zerbitzuak **zentzuz eta egokiro** erabiltzea eta haiek kontserbatzen eta lehengoratzen laguntzea. **Udal-ekipamenduak eta zerbitzu publikoak** errespetatzea —bide-seinaleak eta hiri-altzariak barne—, baita haiek kontserbatzen eta berreskuratzen laguntzea ere.
- Espazio publikoan **herritarren bizikidetzarako arauak betetzea** eta besteen **eskubideak** errespetatzea.
- **Ingurumena, espazio publikoa eta hiri-paisaia zaintzea eta hobetzen laguntzea** (portaera ekologiko eta jasangarriak).

- **Efizientzia energetikoko** politika publikoak eragingarritasun handiagoz bermatzeko, toki-erakundeekin **lankidetzan aritzea** eta uraren, hondakin-uren arazketaren eta hiri-hondakinen kudeaketaren inguruko udal-zerbitzuek eraginkortasun energetikoari buruz ematen dituzten jarraibideak betetzea.
- **Hiri-bideei buruzko arauak egoki betetzea, baita hondakinak uzteko** udalak zehaztutako leku, egun eta orduei buruzko arauak ere.
- Legeetan eta udal-ordenantzetan —bereziki, espazio publikoaren erabilerak edo bizilagunen arteko bizikidetza-harremanak arautzen dituztenetan— xedatutako **beste edozein.**

Betebehar eta erantzukizun horiek izango dituzte biztanleen administrazio-izaerarik ez izan arren udalerrian halako batean gertatzen direnek ere.

Legeria: Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legea, 43. eta 44. artikuluak

DESARROLLO RURAL	
CONCEPTO	**Proceso de desarrollo territorial aplicado a las zonas rurales, dirigido a preservar la sostenibilidad y multifuncionalidad del medio rural vasco, a mejorar el bienestar y la calidad de vida de sus habitantes y a propiciar la cohesión económica, social y territorial de la CAPV.** Para ello se ha aprobado una nueva Ley de Desarrollo Rural cuyo objeto es regular y establecer el marco normativo que oriente las actuaciones para el desarrollo sostenible del medio rural vasco, de forma que este se posicione en un plano de igualdad respecto al resto del territorio como un factor fundamental en el desarrollo y la cohesión económica, social y territorial del país. Marco legislativo de referencia: Ley 7/2022, de 30 de junio, de Desarrollo Rural (que sustituye a la antigua Ley 10/1998, de 8 de abril, de Desarrollo Rural).
ENTIDADES Y AGENTES DE DESARROLLO RURAL	**GOBERNANZA DEL ENFOQUE PÚBLICO-PRIVADO LOCAL** • **ASOCIACIONES DE DESARROLLO RURAL (ADR):** entidades de derecho privado, constituidas al amparo de la legislación sobre asociaciones, que integran a entidades locales y a los agentes socioeconómicos y sectoriales más representativos de su ámbito geográfico de actuación. Herramientas de **colaboración público-privada**, tienen un papel clave en el impulso y el apoyo a iniciativas locales, comarcales y supracomarcales que contribuyan al desarrollo sostenible de su territorio. Su vinculación al cumplimiento del **enfoque comarcal** de gobernanza previsto en la ley les permite ser reconocidas como agentes colaboradores de la Administración pública. • **HAZI FUNDAZIOA:** herramienta del Departamento de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente de Gobierno Vasco; su objetivo final es impulsar la competitividad y la sostenibilidad del sector primario y alimentario, y el desarrollo sostenible del medio rural y litoral. • La gobernanza público-privada a nivel local derivada de la Ley de Desarrollo Rural se coordina desde HAZI a través del servicio de gestión orientado al desarrollo territorial que se denomina **LURRALDE**. Este servicio se estructura en torno a dos ámbitos territoriales: comarcal y supracomarcal. • **RED VASCA DE DESARROLLO RURAL:** red cuya finalidad es impulsar la **conexión, coordinación y colaboración** de las entidades y agentes implicados en el desarrollo rural. • En dicha red se integrarán cargos institucionales y técnicos del Gobierno Vasco, Diputaciones Forales, Eudel y ACOA-AKE (Asociación de Concejos de Álava), Cuadrillas, Lurralde, las Asociaciones de Desarrollo Rural, los Grupos de Acción Local y, en general, otro tipo de organizaciones territoriales y sectoriales de referencia y agentes implicados en el despliegue de los programas comarcales de desarrollo rural. Se configura como una red abierta que irá congregando a diferentes entidades y agentes en función de las diferentes temáticas a tratar. • La estructura, composición y funciones están pendientes de desarrollo reglamentario. • **GRUPOS DE ACCIÓN LOCAL (GAL):** se constituyen conforme a la normativa comunitaria para el **desarrollo del enfoque LEADER y la gestión de sus ayudas.** Prestan asesoramiento y acompañamiento, también a través de sus entidades socias, a todas las personas físicas, empresas y entidades públicas interesadas en poner en marcha un proyecto de desarrollo rural en zona LEADER. En periodos anteriores, el GAL en Euskadi ha sido MENDINET (2002-2007, 2007-2013 y 2016-2020), formado por las 18 Asociaciones de Desarrollo Rural y la Fundación HAZI. Para este nuevo periodo, en Euskadi, deberán alinear sus estrategias de desarrollo local participativo a los instrumentos de planificación derivados de la Ley de Desarrollo Rural y al impulso de la actividad económica y generación de empleo en las zonas rurales. En 2023 se seleccionará el nuevo o nuevos GAL para el periodo 2023-2027. **GOBERNANZA DEL ENFOQUE INSTITUCIONAL** La gobernanza para el enfoque institucional se coordina desde el departamento del Gobierno Vasco competente en materia de desarrollo rural a través de la **Comisión de Política Agraria, Alimentaria y de Desarrollo Rural,** constituida por representantes de los departamentos del **Gobierno Vasco y Diputaciones Forales competentes en materia de desarrollo rural.** En dicha Comisión se diseñan, coordinan y evalúan las mencionadas políticas. En este nivel de gobernanza la ley pretende aplicar la «lente rural» (*rural proofing*) de cara a la vigilancia de las políticas institucionales y sectoriales en cuanto a su adaptación a las necesidades y oportunidades de las zonas rurales de Euskadi.
HERRAMIENTAS Y PROGRAMAS PARA EL DESARROLLO RURAL	**CARACTERIZACIÓN DE LAS ZONAS RURALES DE EUSKADI 2023-2027** Responde a la necesidad de **delimitar el territorio de aplicación de la Ley de Desarrollo Rural y de determinar diferencias entre las zonas rurales que lo comprenden,** con el fin de poder marcar diferentes grados de prioridad respecto a la aplicación de las políticas de desarrollo rural y los programas de ayudas correspondientes. Para ello se ha establecido una **catalogación de las zonas rurales**, a partir de una serie de variables demográficas, macroeconómicas y de servicios públicos, identificando **4 grados de vulnerabilidad respecto a los ámbitos de desarrollo inicialmente establecidos:** • Calidad de Vida. • Diversificación de la Actividad económica. **PROGRAMAS DE DESARROLLO TERRITORIAL (PDT):** **Las políticas, los objetivos y ejes de actuación** orientados al desarrollo socioeconómico de las zonas rurales de Euskadi adoptan la forma de Programas de Desarrollo Territorial. Se elaborará un Programa de Desarrollo Territorial por cada uno de los ámbitos de desarrollo que se establezcan. **Los ámbitos de desarrollo inicialmente establecidos son:** • Calidad de Vida. • Diversificación de la Actividad económica. **PROGRAMAS COMARCALES DE DESARROLLO RURAL (PCDR)**: La plasmación y ejecución de los objetivos y ejes de actuación prioritarios señalados en los PDT **se materializa a través de los PCDR en cada una de las comarcas de Euskadi.** La elaboración de los PCDR estará liderada por la ADR de la comarca correspondiente y deberá garantizar el enfoque participativo ascendente (bottom-up), de cara a implicar a los agentes económicos, sociales y medioambientales más representativos de cada comarca. **PLANES DE DESARROLLO LOCAL (PDL):** Los ayuntamientos de los municipios con zonas rurales, así como los concejos rurales, podrán elaborar con **carácter voluntario, y de manera participativa**, planes específicos que recojan para cada uno de los objetivos estratégicos previstos en la ley, un conjunto estructurado de principales necesidades y proyectos a abordar en su ámbito de actuación. Estos Planes deberán estar alineados con los PDT y el PCDR de la comarca. **PLAN ESTRATÉGICO DE LA PAC (PEPAC 2023-2027) y PROGRAMAS DE AYUDAS PARA EL DESARROLLO RURAL**: La PAC es una política común para todos los estados miembros de la UE y representa la asociación entre la actividad agraria y la sociedad, entre los territorios y el sector primario, a través de un esquema de apoyo financiado por el presupuesto de la UE. La nueva PAC se estructura en torno a un único Plan estratégico por cada estado miembro y busca dar respuesta a las necesidades económicas, sociales y ambientales de las cadenas de valor agroalimentaria y de la madera, y del medio rural, a través de las intervenciones del primer y segundo pilar. Las ayudas de desarrollo rural son las correspondientes al segundo pilar y están cofinanciadas por el Fondo Europeo Agrario de Desarrollo Rural (FEADER). En Euskadi, la estrategia se ha desarrollado mediante la estrecha colaboración entre Gobierno Vasco y Diputaciones Forales, que se han encargado principalmente de liderar el proceso, y de múltiples agentes sectoriales, cuyas aportaciones han sido fundamentales. Este plan se despliega a través de diferentes ayudas, entre las cuales se encuentran las orientadas al impulso a la diversificación de las actividades económicas en el medio rural y a las inversiones en servicios básicos en las zonas rurales. Son las administraciones vascas competentes en materia de desarrollo rural quienes establecen las bases correspondientes.

Legislación:	Ley 17/2008, de 23 de diciembre, de Política Agraria y Alimentaria Ley 7/2022, de 30 de junio, de Desarrollo Rural Nota: *Debido a la reciente aprobación de esta ley, las diferentes herramientas que contempla para su despliegue aún están en fase de desarrollo, por lo que la información que recoge la ficha es una primera aproximación que se irá completando próximamente en la versión online.*
Agentes:	ASOCIACIONES DE DESARROLLO RURAL (ADR): https://www.euskadi.eus/asociaciones-desarrollo-rural/web01-a2lanits/es/ HAZI FUNDAZIOA: https://hazi.eus/es/
Programas de referencia:	Plan Estratégico de la PAC (PEPAC): https://www.euskadi.eus/web01-a1pac/es/
Convocatorias de ayudas al desarrollo rural (GV):	Nota: *los diferentes programas de ayudas derivados del Plan estratégico de la PAC están en fase de elaboración, por lo que la información correspondiente se irá actualizando en la versión online a medida que dichos programas se vayan aprobando.*

LANDA-GARAPENA	
KONTZEPTUA	**Landa-eremuetan aplikatutako lurralde-garapeneko prozesua, honako xede hau duena: euskal landa-ingurunearen jasangarritasuna eta funtzio-aniztasuna zaintzea, biztanleen ongizatea eta bizi-kalitatea hobetzea eta EAEren ekonomia-, gizarte- eta lurralde-kohesioa bideratzea.** Horretarako, Landa Garapenaren Lege berria onetsi da. Lege horren xedea da euskal landa-ingurunearen garapen jasangarrirako jarduketak orientatuko dituen arau-esparrua antolatu eta ezartzea, hori guztia landa-ingurunea lurraldeko gainerakoarekiko berdintasunean egon dadin, ingurune hori funtsezko eragilea baita herrialdearen garapen eta kohesiorako, ekonomiari, gizarteari eta lurraldeari dagokienez. Erreferentziazko lege-esparrua: 7/2022 Legea, ekainaren 30ekoa, Landa Ingurunearen Garapenarena (Landa Ingurunearen Garapenari buruzko apirilaren 8ko 10/1998 Legea ordezkatzen duena).
LANDA-GARAPENEKO ERAKUNDEAK ETA AGENTEAK	**<u>TOKIKO IKUSPEGI PUBLIKO-PRIBATUAREN GOBERNANTZA</u>** • **LANDA-GARAPENEKO ELKARTEAK (LGE).** Zuzenbide pribatuko erakundeak dira, elkarteen legeriaren babesean eratuak. Toki-entitateek eta haren jarduketa-eremu geografikoan ordezkaritza handiena duten eragile sozioekonomiko eta sektorial adierazgarrienek osatzen dituzte. **Lankidetza publiko-pribatuko** tresnak dira, eta lurraldearen garapen jasangarrian laguntzen duten tokiko, eskualdeko eta eskualdez gaindiko ekimenak bultzatzeko eta babesteko funtsezko eginkizuna dute. Gobernantzaren **eskualdeko ikuspegia** izan behar dute, legean aurreikusita dagoen bezala, eta, horri esker, administrazio publikoak eragile laguntzaile gisa onartzen ditu. • **HAZI FUNDAZIOA**. Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren tresna bat da, eta haren xedea lehen sektorearen eta elikagaien sektorearen lehiakortasuna eta jasangarritasuna eta landa- eta itsasertz-ingurunearen garapen jasangarria sustatzea da. • Landa Ingurunearen Garapenaren Legearen ondoriozko tokiko gobernantza publiko-pribatua HAZIk koordinatzen du, lurralde-garapenera bideratutako **LURRALDE** izeneko kudeaketa-zerbitzuaren bidez. Zerbitzu hori bi lurralde-eremuren inguruan egituratuta dago: eskualdekoa eta eskualdez gaindikoa. • **LANDA-GARAPENERAKO EUSKAL SAREA.** Sare horren xedea da landa-garapenean parte hartzen duten erakunde eta eragileen arteko **lotura, koordinazioa eta lankidetza** sustatzea. • Sare horretan, Eusko Jaurlaritzako, foru-aldundietako, Eudeleko eta ACOA-AKE Arabako Kontzejuen Elkarteko kargudun instituzionalak eta teknikariak sartuko dira, bai eta kuadrillak, Lurralde, landa-garapeneko elkarteak eta tokiko ekintza-taldeak ere, eta, orokorrean, erreferentziako beste antolakunde sektorialak eta lurraldekoak eta landa-garapeneko eskualdeko programen hedapenean parte hartzen duten gainerako eragileak. Sare irekia izango da, aztertu beharreko gaien arabera entitate eta eragileak apurka bilduko dituena. • Haren egitura, osaera eta eginkizunak erregelamendu batean zehaztu behar dira. • **TOKIKO EKINTZA-TALDEAK (TET).** Batasuneko araudiaren arabera sortuko dira, **LEADER ikuspegia garatzeko eta haren laguntzak kudeatzeko.** Aholkularitza eta laguntza ematen diete LEADER eremuan landa-garapenerako proiektu bat martxan jarri nahi duten pertsona fisiko, enpresa eta erakunde publikoei, baita taldeko kide diren entitateen bidez ere. Aurreko aldietan (2002-2007, 2007-2013 eta 2016-2020), MENDINET izan da tokiko ekintza-taldea Euskal Autonomia Erkidegoan, landa-garapenerako 18 elkarteek eta HAZI fundazioak osatua. Aldi berri honetarako, Euskal Autonomia Erkidegoan, partaidetzazko toki-garapeneko haien estrategiek bat etorri behar dute Landa Ingurunearen Garapenaren Legetik eratorritako plangintza-tresnekin eta landa-eremuetan jarduera ekonomikoa eta enplegu-sorrera bultzatzearekin. 2023an, TET berria edo berriak hautatuko dira 2023-2027ko aldirako. **<u>IKUSPEGI INSTITUZIONALAREN GOBERNANTZA</u>** Eusko Jaurlaritzan landa-garapenaren arloan eskumena duen sailak koordinatzen du ikuspegi instituzionalerako gobernantza, **Nekazaritza, Elikadura eta Landa Garapen Politikako Batzordearen** bitartez. Batzorde hori **Eusko Jaurlaritzan eta foru-aldundietan landa-garapenean eskumena duten** sailetako ordezkariek osatzen dute. Batzorde horretan, aipatutako politikak diseinatu, koordinatu eta ebaluatzen dira. Gobernantza-maila horretan, legeak «landa-lentea» aplikatu nahi du (*rural proofing*), politika instituzionalak eta sektorialak Euskal Autonomia Erkidegoko landa-eremuen behar eta aukeretara egokitzen diren begiratzeko.
LANDA-GARAPENERAKO TRESNAK ETA PROGRAMAK	**EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO LANDA-EREMUEN KARAKTERIZAZIOA 2023-2027** **Landa Ingurunearen Garapenaren Legearen aplikazio-lurraldea mugatzeko eta hura osatzen duten landa-eremuen arteko desberdintasunak zehazteko** beharrari erantzuten dio, landa-garapeneko politikak eta dagozkion laguntza-programak aplikatzeari dagokionez lehentasun-mailak ezarri ahal izateko. Horretarako, **landa-eremuak katalogatu dira**, aldagai demografiko eta makroekonomiko batzuetatik eta zerbitzu publikoen aldagai batzuetatik abiatuta, eta **lau kalteberatasun-maila identifikatu dira hasieran ezarritako garapen-eremuekiko**: • Bizi-kalitatea. • Jarduera ekonomikoaren dibertsifikazioa. **LURRALDE-GARAPENERAKO PROGRAMAK (LuGP):** Euskal Autonomia Erkidegoko landa-eremuen garapen sozioekonomikoa xede duten **politikak, helburuak eta jarduketa-ildoak** LuGP Lurralde Garapeneko Programen itxurapean agertuko dira. Ezartzen den garapen-eremu bakoitzerako lurralde-garapenerako programa bat egingo da. **Hauek dira hasieran ezarritako garapen-eremuak:** • Bizi-kalitatea. • Jarduera ekonomikoaren dibertsifikazioa. **LANDA-GARAPENEKO ESKUALDEKO PROGRAMAK (LGEP)**: LuGPetan adierazitako lehentasunezko helburuak eta jarduketa-ildoak moldatzeko eta gauzatzeko lanak **Euskal Autonomia Erkidegoko eskualde bakoitzeko LGEPen bidez gauzatzen dira**. LGEPak egiteko, dagokion eskualdeko LGEa izango da buru, eta goranzko ikuspegi parte-hartzailea (bottom-up) bermatu beharko du, eskualde bakoitzeko eragile ekonomiko, sozial eta ingurumenekoak inplikatzeko. **TOKIKO GARAPEN-PLANAK (TGP):** Landa-eremuak dituzten udalek, bai eta landa-kontzejuek ere, **borondatez, eta modu parte-hartzailean,** berariazko planak prestatu ahalko dituzte. Plan horietan, legean aurreikusitako helburu estrategiko bakoitzerako, udalaren jarduketa-esparruan heldu behar zaien beharrizan eta proiektu nagusien multzo egituratua jasoko da. Plan horiek bat etorri behar dute eskualdeko LGEP eta LuGPekin. **NPB-REN PLAN ESTRATEGIKOA (NPBPE 2023-2027) eta LANDA-GARAPENERAKO LAGUNTZA-PROGRAMAK:** NPB politika komuna da EBko estatu guztientzat, eta nekazaritza-jardueraren eta gizartearen arteko lotura ordezkatzen du, lurraldeen eta lehen sektorearen artekoa, EBko aurrekontuak finantzatutako laguntza-eskema baten bidez. NPB berria estatu kide bakoitzeko plan estrategiko bakar baten inguruan egituratuta dago, eta nekazaritzako elikagaien, zuraren eta landa-ingurunearen balio-kateen ekonomia-, gizarte- eta ingurumen-beharrei erantzutea du helburu, lehen eta bigarren zutabeetako esku-hartzeen bidez. Landa-garapenerako laguntzak bigarren zutabeari dagozkio, eta Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsak (LGENF) kofinantzatzen ditu. Euskal Autonomia Erkidegoan, Eusko Jaurlaritzaren eta foru-aldundien arteko eta eragile sektorial askoren arteko lankidetza estuaren bidez garatu da estrategia. Eusko Jaurlaritza eta foru-aldundiak, batez ere, prozesua zuzentzeaz arduratu dira, eta eragileen ekarpenak funtsezkoak izan dira. Plan hori hainbat laguntzaren bidez hedatuko da; besteak beste, landa-inguruneko jarduera ekonomikoak dibertsifikatzera eta landa-eremuetako oinarrizko zerbitzuetan inbertitzera bideratutako laguntzen bidez. Landa-garapenaren arloan eskumena duten euskal administrazioek ezartzen dituzte behar diren oinarriak.

Legeria:	17/2008 Legea, abenduaren 23koa, Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikakoa 7/2022 Legea, ekainaren 30ekoa, Landa Ingurunearen Garapenarena Oharra: *Lege hori berriki onartu denez, berori hedatzeko aurreikusi diren tresnak oraindik garatzen ari dira, eta, beraz, fitxa honetan jasotako informazioa lehen hurbilketa baino ez da, eta laster osatuko da, online bertsioan.*
Eragileak:	LANDA-GARAPENEKO ELKARTEAK (LGE): https://www.euskadi.eus/landa-garapenerako-elkarteak/web01-a2lanits/eu/ HAZI FUNDAZIOA: https://hazi.eus/
Erreferentziako programak:	NPBren Plan Estrategikoa (NPBPE): https://www.euskadi.eus/web01-a1pac/eu/
Landa-garapenerako laguntzen deialdiak (EJ)	Oharra: *NPBren plan estrategikotik eratorritako laguntza-programak prestakuntza-fasean daude; beraz, programa horiek onartu ahala, online bertsioan informazioa eguneratuko da.*

V.

EUSKARAREN NORMALIZAZIOA TOKI-ERAKUNDEETAN

NORMALIZACIÓN DEL EUSKERA EN LAS ENTIDADES LOCALES

V.

Normalización del euskera en las entidades locales

1. Oficialidad del euskera y los derechos de la ciudadanía.
2. Competencias de las entidades locales.
3. Instrumentos de garantía de la capacitación lingüística del personal al servicio de la Administración.
4. Plan estratégico de normalización del uso del euskera.
5. Plan de gestión para la normalización del uso del euskera.
6. Planes de normalización del euskera a nivel municipal.

Guía Local - ISBN 978-84-7777-690-1

V.

Euskararen Normalizazioa Toki-Erakundeetan

1. Euskararen ofizialtasuna eta herritarren eskubideak.
2. Toki-erakundeen eskumenak.
3. Administrazioko langileen euskarazko gaitasuna bermatzeko tresnak.
4. Euskararen erabilera normalizatzeko plan estrategikoa.
5. Euskararen erabilera normalizatzeko kudeaketa plana.
6. Hizkuntza normalkuntzarako planak udalerri mailan.

OFICIALIDAD DEL EUSKERA EN LAS ENTIDADES LOCALES DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA VASCA

- El euskera es la **lengua propia** del País Vasco y **es oficial en la Comunidad Autónoma del País Vasco**.
- La **ciudadanía** de la comunidad autónoma tiene el **derecho de conocer y usar ambas lenguas, el castellano y el euskera**.
- El euskera, lengua propia del País Vasco, es, como el castellano, **lengua oficial de las entidades locales de la Comunidad Autónoma Vasca**.
- El uso del euskera, al igual que el del castellano, debe ser normal y generalizado, garantizando en todo caso la posibilidad de elección de lengua por la ciudadanía, sin discriminación alguna.

SIGNIFICADO Y CONSECUENCIAS DE LA OFICIALIDAD DEL EUSKERA EN LAS ENTIDADES LOCALES

LENGUA DE TRABAJO

- El euskera será **lengua de trabajo de uso normal y general en las actividades de las entidades locales** de la comunidad autónoma.
- **El personal de las entidades locales** puede **CREAR Y DESARROLLAR SU TRABAJO DIARIO EN EUSKERA. Por consiguiente, el uso del euskera tiene plena validez jurídica. Los ayuntamientos regularán y planificarán el uso del euskera en sus actuaciones internas, a fin de conseguir que su uso sea normal y general.**
- **Se designarán unidades administrativas en euskera, en las que el euskera será lengua de trabajo, tanto oral como escrita.**
- **Las comunicaciones internas pueden ser en euskera con carácter normal y general.**
- No se trata de que el personal cree en castellano para que posteriormente un traductor o una traductora elabore la versión en euskera, ya que es la **lengua de producción** la que define la **lengua de trabajo** de la Administración.
- Se definirá la lengua en la que ese **documento** producido en euskera hará su **recorrido** (normas y planificación).

LENGUA DE SERVICIO

- El euskera será **lengua de servicio de uso normal y general en las actividades de las entidades locales** de la comunidad autónoma, de acuerdo con lo establecido en el Decreto 179/2019, de 19 de noviembre, de normalización del uso institucional y administrativo de las lenguas oficiales en las instituciones locales de Euskadi.
- Que la Administración **OFREZCA SERVICIO EN EUSKERA** en su relación con otras administraciones, y en especial con la ciudadanía, va **más allá de atender en ventanilla en dicha lengua**.
- **Se han de dar oportunidades a la población** para poder **establecer relaciones en euskera** con la administración: puesta a disposición de versiones exclusivamente en euskera de los impresos; elaboración de censos de personas vascoparlantes usuarias de los servicios municipales (alumnado de las escuelas de música, socios y socias de las bibliotecas o de los polideportivos...), a fin de que la Administración se relacione con ellas en dicha lengua; respuesta en euskera a la ciudadanía que haya hecho la solicitud en dicha lengua.
- La ciudadanía no podrá sufrir discriminación **por razón de la lengua, respetando siempre su derecho a elegir la lengua que deseen.**
- El personal municipal deberá actuar de forma proactiva, tanto realizando la primera intervención en euskera, como en las actividades que se organicen desde la administración local (asambleas, cursos, actos públicos...) con el fin de utilizar el euskera o garantizar su presencia, realizando las previsiones y poniendo los medios necesarios. En la actividad escrita igualmente se garantizará, en todo caso, la comunicación en euskera.

VALIDEZ JURÍDICA DE LAS ACTUACIONES

- De acuerdo con la oficialidad reconocida al euskera y al castellano, **tanto el uso del euskera como el uso del castellano en las actuaciones de las entidades locales** tendrán **PLENA VALIDEZ JURÍDICA**.
- **Podrán redactarse en euskera** las convocatorias, órdenes del día, mociones, votos particulares, propuestas de acuerdo, dictámenes de las comisiones informativas, acuerdos, actas, etc. de los órganos de las entidades locales, de acuerdo con lo establecido en la normativa aprobada por cada entidad local, siempre que no se lesionen los derechos de ningún miembro de la entidad local que pueda alegar válidamente el desconocimiento del euskera, y sin perjuicio de lo previsto en la Ley 10/1982, básica de normalización y uso del euskera.
- Cuando las resoluciones, actas y acuerdos **se redacten en euskera**, las copias y extractos de estos que deban remitirse a la **Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y a la estatal radicada en la CAPV se enviarán en euskera**. **Para ello se cumplirá la legislación básica de régimen local**.

CRITERIOS LINGÜÍSTICOS

- Los criterios **REGULADORES DE LA PRODUCCIÓN LINGÜÍSTICA** de la Administración, son normas establecidas por la Administración Pública para **alcanzar sus objetivos** en torno al uso del euskera.
  - → La definición y aprobación de los criterios lingüísticos resulta **imprescindible** para avanzar en el uso del euskera, ya que, en la medida de que son instrumentos encaminados a su normalización, es importante contar con dichos criterios.
  - → **LOS CRITERIOS SE CARACTERIZAN POR SER reales** (partiendo de la situación real de la Administración), **alcanzables** (teniendo en cuenta objetivos y medios) y **vivos** (cuando así lo requiera la situación, con oportunidad de adaptación), y además razonables, aceptables, consensuados....
  - → **SEGUIMIENTO DEL NIVEL DE CUMPLIMIENTO DE LOS CRITERIOS**: el ayuntamiento, en base a la colaboración entre el Departamento o Servicio de Euskera y el resto de los departamentos, acordará la forma de seguimiento, siendo responsabilidad directa de cada departamento su actividad lingüística.
- **NO** hay por qué traducir **DE MODO SISTEMÁTICO**. La documentación elaborada en euskera goza de plena oficialidad en la Administración, por lo que se utilizará de forma racionalizada el servicio de traducción e interpretación. Se procurará no traducir documentación redactada en euskera y se potenciará la actividad administrativa en euskera.
  - → **Habrá que ver el tipo de necesidades que crea un documento redactado en euskera en su recorrido (personas destinatarias, su nivel de comprensión, complejidad...).**
  - → **La Administración deberá analizar si el texto redactado en castellano debe ser TRADUCIDO O NO, y, en su caso, QUIÉN** efectuará la **TRADUCCIÓN**. Al fin y al cabo, la Administración ha de contar con criterios de traducción definidos, es decir, una política de traducción definida.
- **En caso de que se decida que es necesaria la traducción del texto**, se habrán de aplicar los siguientes **CRITERIOS**:
  - → **El trabajador o trabajadora habrá de desempeñar su labor en una sola lengua, no en las dos, sobre todo en lo que respecta a los trabajos de producción, ya que ha de dejarse paso a los documentos y actividades producidos únicamente en euskera, aprovechando las oportunidades existentes y propiciando otras nuevas.**
  - → **Existen otras posibilidades que no perjudican la comunicación, como las traducciones orales, las síntesis, el apoyo a la comprensión de mensajes...**

EUSKARAREN OFIZIALTASUNA EUSKAL AUTONOMIA-ERKIDEGOKO TOKI-ERAKUNDEETAN

- Euskara Euskal Herriko **berezko hizkuntza** da eta **ofiziala da Euskal Autonomia Erkidegoan**.
- Autonomia Erkidegoko **biztanleek** bi hizkuntzak, **gaztelania zein euskara, ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea** dute.
- Euskara Euskal Herriko berezko hizkuntza da eta, gaztelania bezala, **Euskal Autonomia Erkidegoko toki-erakundeen hizkuntza ofiziala**.
- Euskarak gaztelaniak bezala, erabilera normal eta orokorra izan behar du, beti bermatuta egonik herritarrek daukaten aukera hizkuntza hautatzeko, inolako diskriminaziorik gabe.

EUSKARA TOKI-ERAKUNDEETAN OFIZIALA IZATEAREN ESANAHIA ETA ONDORIOAK

LAN HIZKUNTZA

- Autonomia Erkidegoko **toki-erakundeen jardueretan erabilera normal eta orokorreko lan-hizkuntza** izango da euskara.
- **Toki-erakundeetako langileek EUSKARAZ SORTU ETA EGIN** dezakete beren **EGUNEROKO LANA. Beraz, euskara erabiltzea erabat balioduna da zuzenbidearen ikuspegitik. Udalek euskararen erabilera arautu eta planifikatuko dute barne jarduketetan, euskara normaltasunez eta modu orokorrean erabil dadin.**
- **Euskarazko administrazio atalak izendatuko dira, eta horietan euskara lan hizkuntza izango da, bai ahoz, zein idatziz.**
- **Barne komunikazioak orokorrean eta normaltasunez euskaraz izan ahal dira.**
- Kontua ez da langileak gaztelaniaz sortzea eta gero itzultzaile batek euskarazko bertsioa egitea, **lana sortzeko** erabiltzen den hizkuntza delako administrazioaren **lan-hizkuntza** definitzen duena.
- Euskaraz sortutako **dokumentu** horrek zein hizkuntzatan egingo duen bere **ibilbidea** definituko da (arauak eta plangintza).

ZERBITZU HIZKUNTZA

- Autonomia Erkidegoko **toki-erakundeen jardueretan erabilera normal eta orokorreko zerbitzu-hizkuntza** izango da euskara, beti ere Euskadiko toki erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzko azaroaren 19ko 179/2019 Dekretuak dioena aintzat hartuta.
- Beste administrazioekiko eta, bereziki, herritarrekiko harremanetan erakundeak **ZERBITZUA EUSKARAZ ESKAINTZEA, leihatilan euskaraz aritzea baino** askoz **gehiago** da.
- **Herritarrei aukerak eman behar zaizkie** administrazioarekin dituzten **harremanak euskaraz izateko**: herritarren esku jartzen diren agiriak euskara hutsezko bertsioa izatea; udalaren zerbitzu-hartzaile euskaldunen erroldak egitea (musika-eskolako ikasleak, liburutegiko bazkideak, kiroldegiko bazkideak…), eta horiekin administrazioak euskaraz jardutea; eskaera euskaraz egin duen herritarrari euskaraz erantzutea.
- Ezin izango dira baztertu herritarrak **hizkuntzagatik, eta hizkuntza aukeratzeko duten eskubidea errespetatuko da beti.**
- Udal langileek modu proaktiboan jokatu behar dute bai lehenengo berba euskaraz eginda, bai toki-administraziotik antolatzen diren ekintzetan (batzarrak, ikastaroak, ekitaldi publikoak…) euskara erabiltzeko edo bere presentzia bermatzeko, beharrezko aurreikuspenak egin eta, beharrezko baliabideak jarrita. Idatzizko jardunean ere, euskarazko komunikazioa bermatu behar da kasu guztietan.

JARDUKETEN BALIO JURIDIKOA

- Euskarari eta gaztelaniari aitortutako ofizialtasunaren arabera, **bai euskara toki-erakundeen ekintzetan erabiltzea, bai gaztelania ekintza horietan erabiltzea**, **BALIO JURIDIKO OSOKOAK** izango dira.
- **Euskaraz idatzi ahal izango dira:** toki-erakundeetako organoen deialdiak, gai-zerrendak, mozioak, boto partikularrak, erabaki-proposamenak, informazio-batzordeen irizpenak, aktak…, toki-entitate bakoitzak onartu duen araudian ezarritakoarekin bat etorrita, eta baldin eta, toki-erakundearen barruan, euskaraz ez dakiela behar bezala alegatzen duen ezein kideren eskubideak urratzen ez badira, Euskararen Erabilera Normalizatzeko 10/1982 Oinarrizko Legean aurreikusitakoa ezertan galarazi gabe.
- Ebazpenak, aktak eta erabakiak **euskaraz idazten direnean**, bidali beharreko kopiak eta laburpenak **euskaraz bidaliko zaizkie Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioari eta EAEn kokatuta dagoen Estatukoari. Horretarako, toki-araubideari buruzko oinarrizko legeria beteko da**.

HIZKUNTZA IRIZPIDEAK

- Administrazioaren **HIZKUNTZA-JARDUNA ARAUTZEN** duten irizpideak, administrazio publikoak bere buruari jarritako arauak dira, euskararen erabileraren inguruko **helburuak lortzeko**.
  - → **Ezinbestekoa** da administrazioak hizkuntza-irizpideak definituta eta onartuta izatea, euskararen erabilerak aurrera egingo badu. Azken batean, euskararen erabilera normalizatzeko tresna, bitarteko dira, eta alde horretatik, garrantzitsua da irizpide horiek izatea.
  - → **IRIZPIDEEN EZAUGARRIAK: errealak** (administrazioak duen egoeratik abiatutakoak), **lorgarriak** (helburu eta bitartekoak kontuan hartuta) eta **biziak** (egoerak hala eskatzen duenean, egokitzeko aukera ematen dutenak), baita, zentzuzkoak, onargarriak, adostuak… ere.
  - → **IRIZPIDEEN BETETZE MAILARI JARRAIPENA** egitea: udalak Euskara Sailaren edo Zerbitzuaren eta gainerako sailen arteko elkarlanean oinarrituta, adostuko du jarraipena egiteko modua, eta departamentu bakoitzarena izango da bere hizkuntza-jardunaren gaineko erantzukizun zuzena.
- **SISTEMATIKOKI EZ** dago zertan itzuli. Euskarazko dokumentuak ofizialtasun osoa du administrazioan, beraz era arrazionalizatuan erabiliko da itzulpen eta interpretazio zerbitzua. Ahalegina egingo da euskaraz idatzitako dokumentuak ez itzultzeko eta administrazioaren euskarazko jarduna bultzatuko da.
  - → **Ikusi egin beharko da euskaraz sortu den dokumentuak egin behar duen ibilbidean nolako beharrak sortzen diren (hartzaileak, euren ulermen maila, konplexutasuna...).**
  - → **Administrazioak aztertu beharko du gaztelaniaz sortutako dokumentua ITZULI behar den ALA EZ, eta, itzuli behar bada, NORK** egingo duen **ITZULPENA**. Azken batean, administrazioak itzulpenerako irizpideak zehaztuta izan behar ditu, hau da, itzulpen politika definituta.
- **Itzulpena beharrezkoa dela erabakiz gero**, kontuan hartu beharreko **IRIZPIDEAK** honako hauek dira:
  - → **Langileak hizkuntza bakarrean lan egitea, ez bietan, batez ere sorkuntzazko dokumentuez ari bagara. Bide egin behar zaie euskara hutsezko dokumentuei eta jarduerei, dauden aukerak aprobetxatu eta berriak sortu.**
  - → **Badaude komunikazioa oztopatzen ez duten beste aukera batzuk ere: ahozko itzulpena, laburpenak, mezuak ulertzeko laguntza ematea…**

DERECHOS LINGÜÍSTICOS DE LA CIUDADANÍA

NO DISCRIMINACIÓN Y LIBRE ELECCIÓN DE LENGUA	• **Nadie podrá ser discriminado por razón de la lengua** (los poderes públicos velarán por el cumplimiento de dicho derecho y adoptarán las medidas oportunas al respecto). • Se garantizará, en todo caso, **el ejercicio efectivo del derecho de la ciudadanía a escoger la lengua oficial en la que se relaciona con las entidades locales** y, por tanto, **el cumplimiento del deber de estas de atenderle en la lengua escogida**, adoptando las medidas precisas para ello. • Las entidades locales arbitrarán los mecanismos pertinentes **para garantizar que las comunicaciones que remiten a la ciudadanía se envíen en la lengua oficial que ésta haya elegido**; sin ningún tipo de cargas u obligaciones para la ciudadanía. Se garantizará la presencia del euskera en la relación con las administraciones mediante el envío bilingüe de las comunicaciones a los ciudadanos y ciudadanas que opten por el castellano. En las comunicaciones bilingües se promoverá la priorización del euskera.
SESIONES DE LOS ÓRGANOS DE LAS ENTIDADES LOCALES	• En las sesiones públicas de los órganos de las **entidades** locales, la ciudadanía **podrá emplear cualquiera de las lenguas oficiales en la comunidad autónoma**, sin que pueda exigírsele la traducción o explicación alguna en la lengua que no hubiera elegido para expresarse.
	HERRITARREKIKO HARREMANAK	Langileek herritarrei **ahoz euskaraz jarduteko eskaintza aktiboa egitea da, herritarrek hizkuntza aukeratu baino lehen;** eskatzen duten herritarrei **euskaraz ematea zerbitzua ahoz;** herritarrentzako **ekitaldiak eta ikastaroak** euskaraz eskaintzea; herritarrei **euskaraz edota elebietan bidaltzea dokumentuak;** herritarrek euskaraz aurkeztutako dokumentuei edota euskararen aldeko **hautua egiten duten herritarrei euskaraz erantzutea**, idatziz; eta herritarrak euskaraz zuzentzea erakundeari ahoz eta idatziz.	• Udal langileek eta arduradun politikoek **1. hitza** euskaraz egitea, eta elkarrizketa solaskidearen hizkuntza hautuaren arabera bideratzea. • Udal langileek eta arduradun politikoek **lan proaktiboa** egitea euskara erabiltzeko, eta euskarari eusteko. • Herritarren esku jartzen diren inprimakiek **euskara hutsezko bertsioa** izatea; udal zerbitzu hartzaile euskaldunen erroldak (musika eskolako ikasleak, liburutegiko bazkideak, kiroldegiko bazkideak...) egitea eta horiekin administrazioa euskaraz aritzea; eskaera euskaraz egin duen herritarrari euskaraz erantzutea; idatzi ereduak sortzea; euskarazko idatziak zuzentzeko zerbitzua langileei eskaintzea... • **Eskaera gaztelaniaz egin duen herritarrari** inprimakiak, zein gainerako komunikazio idatziak elebietan ematea, euskarari lehentasuna emanda.

ARLO GILTZARRIA		ARLO GILTZARRIEN AZALPENA	HELBURUAK LORTZEKO EKINTZAK
B. LAN HIZKUNTZA	BARNE HARREMANAK	**Lan bilerak** euskaraz egitea, **lankideen arteko ahozko lan harremana** euskaraz izatea, lankideen arteko ahozko harreman ez formala euskaraz izatea; erakundearen barruko administrazio prozedurak, xedapen orokorrak euskaraz jartzea abian; eta lanari lotutako hizkuntza paisaia euskaraz egotea. Hau da, administrazio **barruko harremanetan**, ahozkoan nahiz idatzian, **euskararen erabilera areagotzea**.	• **Batzarrak, batzordeak, osoko bilkurak...** eta abar euskaraz egiteak duen garrantziaz gain, harreman ez formalek duten garrantziaz ere ohartzea langileek eta arduradun politikoek. • **Eusle metodologiaren araberako esku-hartzeak.** • Euskara hutsezko dokumentazioa bideratzeko **laguntza eskaintzea**, idatzi ereduak sortzea, euskarazko idatziak zuzentzeko zerbitzua eskaintzea…
	KANPO HARREMANAK	**Sektore publikoko erakundeekin eta enpresa pribatuekin** ahozko harremana euskaraz izatea da, eta euskaraz edo elebietan izatea idatzizko komunikazioak. **Administrazioak beste administrazio, herritar eta enpresekin dituen harremanetan,** ahozkoan nahiz idatzian, euskararen erabilera areagotzea eta bermatzea, beti ere kontuan izanda herritarrek hizkuntza aukeratzeko eskubidea dutela.	• Ahalegin berezia egitea **beste administrazioekin** euskaraz jarduteko: Foru Aldundiekin, Eusko Jaurlaritzarekin... hitzarmenak sinatzea harreman hori, modu progresiboan, euskaraz izan dadin.
	PRESTAKUNTZA	Erakundeek langileei **prestakuntza orokorra euskaraz eskaintzea da,** eta langileek euskaraz jasotzea. Horrezaz gain, **hizkuntza trebakuntza** eskaintzea langileei.	• Zenbait erakundek langileen esku jartzen duten **euskarazko formazioan** parte hartzea bermatu C1 eta C2 egiaztatuta duten langileen kasuan, eta euskara maila txikiagoa duten langileen kasuan ere euskarazko formazioa hartzea sustatzea. • **Erakundeak berak antolatzen duen formazioa** euskaraz izatea. • **Trebakuntza programak** abian jartzea langileak euskaraz aritzeko.
	BALIABIDE INFORMATIKOAK	Langileek euskaraz erabilgarri dituzten **aplikazio informatikoak euskaraz erabiltzea** da. Hau da, aplikazio informatikoetan euskararen presentzia areagotzea eta bermatzea, euskaraz dauden aplikazioak instalatuta eta langileek aplikazio horiek erabilita.	• **Merkatuan euskaraz eskuragarri** dauden aplikazioak instalatzea, ez badaude euskaraz jasotzeko irizpideak ezartzea, **erakundean bertan sortutakoak** euskaraz instalatzea, langileei euskarazkoak erabiltzeko laguntza eskaintzea…
	SORTZE HIZKUNTZA	**Sortze hizkuntza** euskara izatea da.	• Langile berriei hasieratik jakinaraztea **udalaren sortze hizkuntza** euskara dela. • Argi izatea bai langileek eta bai arduradun politikoek **lan hizkuntza euskara** dela edo helburu hori lortzeko bidea egin behar dela, eta elebietan eman beharreko idatzizko zerbitzuetan euskaraz sortutakotik gaztelaniara itzultzea, eta ez alderantziz. • Beste **iturburu** batzuetatik hartzen denean informazioa edota agiriak norberak egokitu edo landu behar dituenean, euskarazko iturrietara jo.



PLANES A NIVEL MUNICIPAL. CARACTERÍSTICAS

OBJETIVO DE LOS PLANES A NIVEL MUNICIPAL	La finalidad principal consiste en **AMPLIAR LAS OPORTUNIDADES DE PODER VIVIR EN EUSKERA EN LA LOCALIDAD** y **animar a la ciudadanía a utilizar dichas oportunidades**, es decir, convertir en activa a la ciudadanía vascohablante y proporcionar más oportunidades a quienes están estudiando euskera o a quienes desconocen dicha lengua.
PRIORIDADES EL AYUNTAMIENTO, MODELO	• **El ayuntamiento es un agente importante** en el impulso del uso del euskera a nivel municipal, pero **en primer lugar debe impulsar su uso internamente**, ha de «normalizar» su situación interna al respecto. • Difícilmente gozará de **credibilidad en el municipio** aquel ayuntamiento que no haya abordado su plan de euskera interno con seriedad.
AYUNTAMIENTO Y AGENTES LOCALES	• **Otros agentes presentes en el municipio** son los centros educativos, asociaciones en favor del euskera, grupos de euskera, escuelas de bertsolarismo, medios de comunicación locales, grupos culturales, diferentes entidades que funcionan en euskera, etc. • **El Departamento o Servicio de Euskera del ayuntamiento debe impulsar y apoyar las iniciativas de estos grupos**, realizando un seguimiento directo pero respetando su autonomía. En base a la autonomía de cada grupo, se podrán plantear distintas y diversas formas de colaboración en distintos ámbitos (en ocasiones por iniciativa municipal y en otras por iniciativa de agentes extramunicipales). Para lo cual se han de buscar **espacios de coordinación ágiles y efectivos**.
MÁS QUE PRODUCTOS, PROCESOS	• En Euskal Herria **han surgido numerosos productos** destinados a la normalización del euskera durante estos últimos años, tanto desde los ayuntamientos como desde otros agentes del municipio. Carece de sentido, por tanto, andar creando productos similares aquí y allá. Es una pérdida de tiempo y un derroche de dinero. **HAY QUE TOMAR Y UTILIZAR** lo que ya existe. Eso sí, siempre **adecuándolo a la realidad propia** y teniendo en cuenta **las prioridades de cada uno**. • Tan importantes como los productos son, por tanto, los **PROCESOS**. La forma de elaborar, de preparar, de impulsar un plan, un proyecto, un producto, el modo impulsar la participación de los implicados, la manera de tener en cuenta las aportaciones realizadas, de aproximarse a las personas destinatarias... Todos esos factores habrán de ser tomados muy en consideración para que el proyecto tenga impacto. Se ha de trabajar con la ciudadanía, con los comerciantes, con los profesores, con los destinatarios, **desde una posición de máxima proximidad**. Hay que ofrecer **tiempo y dedicación** a los procesos.
EVALUACIÓN CONTÍNUA. ACABAR CON LAS INERCIAS	• Los proyectos deben ser evaluados **CONTINUAMENTE**, con un **gran sentido crítico**. Es necesario analizar si han sido válidos para alcanzar los objetivos marcados y, partiendo de una evaluación lo más objetiva y diversa posible, han de efectuarse las correcciones pertinentes al proyecto. • No hay que tener miedo de **abandonar** proyectos que hemos venido realizando durante años, muchas veces por pura inercia, si existen suficientes razones para ello.
LA EVALUACIÓN NO ES EL OBJETIVO	• La evaluación continua es imprescindible, pero en todo caso los instrumentos de evaluación e indicadores deben ser fáciles de utilizar, de modo que la realización de la evaluación **no se convierta en un fin sino en un MEDIO**. • La evaluación ha de ser el medio para **pasar a la siguiente fase**, no para que sea archivada tal cual.
RECURSOS	• La colaboración con los agentes del **municipio**, la orientación de los procesos, el trabajo cercano con los sectores del municipio, requiere de recursos, y **ESPECIALMENTE DE RECURSOS HUMANOS.** • Los planes de normalización del euskera precisan **DEPARTAMENTOS o SERVICIOS DE EUSKERA** estructurados y permanentes.
COORDINACIÓN A NIVEL COMARCAL Y DE TERRITORIO HISTÓRICO	• Es importante **COMPARTIR Y REUTILIZAR LOS PRODUCTOS** existentes. • **Es necesario crear NUEVOS PRODUCTOS**, dirigidos a **la comarca o a todo el territorio**, más que para el municipio, ya que resulta más rentable tanto económicamente como temporalmente, así como por efectividad. • Así mismo, resulta importante para posibilitar la **preparación y capacitación del personal técnico**. También en este ámbito hay que buscar **espacios de coordinación ágiles y eficaces**.



UDALERRI MAILEKO PLANAK. EZAUGARRIAK

PLANEN HELBURUA UDALERRI MAILAN	Helburu nagusia da **HERRIAN EUSKARAZ BIZI AHAL IZATEKO AUKERAK ZABALTZEA**, eta **herritarrak aukera horiek erabiltzera bultzatzea**, hau da, herritar euskaldunak aktibo bihurtzea eta ikasten ari direnei edo euskaraz ez dakitenei aukerak zabaltzea.
LEHENTASUNAK UDALA EREDU	• **Udala eragile garrantzitsua** da udalerri mailan euskararen erabilera bultzatzeko, baina, **lehenik bere barruan** sustatu behar du erabilera, etxe barrua «normalizatu» behar du. • Nekez izango du **sinesgarritasunik udalerrian,** administrazio barruko euskara planari seriotasunez heldu ez dion Udalak.
UDALA ETA HERRIKO ERAGILEAK	• **Udalerrian beste eragile batzuk** ere badaude: ikastetxeak, euskara elkarteak, euskara taldeak, bertso-eskolak, herri-komunikabideak, kultur taldeak, euskaraz funtzionatzen duten beste era bateko erakundeak, etab. • **Udaleko Euskara Sail edo Zerbitzuak bultzatu eta lagundu behar ditu talde horien iniziatibak,** jarraipen zuzena eginez, baina beren autonomia errespetatuz. Talde bakoitzaren autonomian oinarrituta, elkarlan desberdinak eta anitzak planteatu ahal izango dira zenbait esparrutan (Udalaren iniziatibaz batzuetan, eta Udaletik kanpoko eragileen iniziatibaz bestetan). **Koordinazio gune arinak eta eraginkorrak** bilatu behar dira horretarako.
PRODUKTUAK BAINO, PROZESUAK	• **Produktu ugari sortu da** Euskal Herrian azken urteotan euskararen normalizazioari begira, udaletatik bezala udalerriko beste eragileetatik. Han eta hemen antzeko produktuak sortzen ibiltzeak, beraz, ez du zentzurik; denbora eta diru xahutze bat da. **DAGOENA HARTU ETA ERABILI** egin behar da. Hori bai, beti ere **nork bere errealitatera egokituta** eta **nork bere lehentasunak** kontuan hartuta. • Produktuak bezain garrantzitsuak dira, ordea, **PROZESUAK.** Egitasmo bat, proiektu bat, produktu bat, nola landu, nola prestatu, nola bultzatu inplikatuen parte hartzea, nola kontuan hartu egindako ekarpenak, nola hurbildu hartzaileengana... Hori guztia oso kontuan hartzekoa da egitasmoak eragina izango badu. Herritarrekin, merkatariekin, irakasleekin, hartzaileekin, **ahalik eta hurbiltasun handienetik** egin behar da lan. Prozesuei **denbora eta dedikazioa** eskaini behar zaie.
ETENGABEKO EBALUAZIOA. INERTZIAK APURTU	• Egitasmoak **ETENGABE** ebaluatu behar dira **zentzu kritiko handiz**. Aztertu egin behar da, jarritako helburuak betetzeko balio izan duten ala ez, eta ebaluazio ahalik eta objektibo eta anitzenetik abiatuta, egitasmoari egin beharreko zuzenketak egin behar zaizkio. • Ez da beldurrik izan behar urteetan, askotan inertzia hutsez, egiten aritu izan garen egitasmoak **bertan behera uzteko**, horretarako nahikoa arrazoi badago.
EBALUAZIOA EZ DA HELBURUA	• Etengabeko ebaluazioa ezinbestekoa da, baina ebaluaziorako tresnak, adierazleak erraz erabiltzekoak izan behar dute, ebaluazioa egitea helburu ez baino **BITARTEKO IZAN DADIN**. • Ebaluazioak **hurrengo aldiari heltzeko** bitartekoa izan behar du, ez bere horretan artxibatzeko.
BALIABIDEAK	• **Udalerriko** eragileekin lankidetzan aritzeko, prozesuak txukun bideratzeko, udalerriko sektoreekin hurbiletik lan egiteko, baliabideak behar dira, eta **BATEZ ERE GIZA BALIABIDEAK.** • **EUSKARA SAIL edo ZERBITZU** egituratuak, iraunkorrak eskatzen dituzte Euskararen erabilera normalizatzeko planek.
ESKUALDE ETA HERRIALDE MAILAKO KOORDINAZIOA	• Garrantzitsua da dauden **PRODUKTUAK PARTEKATZEA ETA BERRERABILTZEA.** • **PRODUKTU BERRIAK sortu behar dira,** udalerrirako baino **Eskualderako edo Lurralde mailarako**. Errentagarriagoa da, diruz eta denboraz, eta baita eraginez ere. • Garrantzitsua da, baita ere, **teknikarien prestakuntza eta trebakuntza** ahalbidetzeko. **Koordinazio gune arinak eta eraginkorrak** bilatu behar dira esparru honetan ere.

ASPIRACIÓN ESTRATÉGICA	• Fortalecimiento de una comunidad de vascohablantes activos y empoderados en el **contexto plurilingüe** en el que nos encontramos. **Hacia una sociedad equitativa y justa.**	
MISIÓN	• Procurar **un marco y una hoja de ruta** para la próxima década a todos los agentes públicos y privados que conforman nuestra sociedad, tanto para **crear y empoderar a las personas vascohablantes, como para fortalecer la comunidad del euskera** y contribuir a **construir una sociedad más justa y equitativa** en el marco de la diversidad lingüística mundial. • Utilizar una **metodología participativa e innovadora**, evaluada y adaptada periódicamente, en colaboración con los agentes sociales y los movimientos sociales.	
VISIÓN	• Los RETOS PARA EL AÑO 2034 son: → **Incremento del número de personas vascohablantes activas** en **todos los ámbitos** sociales. → **Acercamiento al euskera a la nueva población** que acaba de llegar a nuestro territorio. → **Posesión de un abanico más amplio de opciones de vivir en euskera**, esto es, disfrutar de más arnasgunes funcionales y geográficos. → **Mayor prestigio del euskera y de la cultura vasca**. → **Garantía de la transmisión** del euskera.	
VALORES	• Justicia social. • Inclusión. • Territorialidad. • Transversalidad.	• Atractivo. • Responsabilidad. • Factibilidad. • Participación coordinada.
GOBERNANZA	• Colocación de la normalización del **euskera** en **el centro de la agenda política**. → Desarrollo de políticas en favor de los derechos lingüísticos de la ciudadanía. → Fomento de la coordinación y de la complementariedad tanto en el ámbito institucional como social. → Refuerzo del liderazgo y del compromiso en favor de la revitalización del euskera. • **Desarrollo de una política lingüística específica y transversal en un marco de convivencia con el resto de lenguas y culturas.** → Desarrollo de políticas lingüísticas diferenciadas para los diferentes ámbitos sociolingüísticos. → Puesta en práctica de estrategias para el desarrollo de políticas lingüísticas transversales. → Gestión de la diversidad de la sociedad con el euskera como eje vertebrador. • **Enmarque de la revitalización del euskera en los valores de la diversidad lingüística del mundo.** → Comprensión del euskera en el contexto de las lenguas minoritarias del mundo y socialización de dicha perspectiva.	
ACTITUDES / MOTIVACIONES	• **Potenciación de la actitud favorable hacia el euskera** e impacto positivo en el empoderamiento de los hablantes, así como en sus hábitos y comportamientos lingüísticos. → Impacto en la conciencia de ser vascohablante. → Refuerzo y extensión de experiencias de activación social. → Avance en la dirección de lograr unos hablantes o una comunidad empoderados. • **Aumento de la percepción positiva y visibilidad del euskera y de la comunidad vascohablante.** → Robustecimiento de la comunidad de personas vascohablantes. → Cultivo del atractivo del euskera. → Valoración de los diversos tipos de vascohablantes y de situaciones comunicativas. → Acercamiento al euskera de la ciudadanía que no se ha acercado a esta lengua.	

Guía Local - ISBN 978-84-7777-690-1

<table>
<tr><td>NAHI ESTRATEGIKOA</td><td colspan="2">• Daukagun testuinguru eleaniztunean, euskal hiztun aktiboak eta ahaldunduak dituen komunitatea indartzea. Gizarte ekitatibo eta justua helburu.</td></tr>
<tr><td>MISIOA</td><td colspan="2">• Gure gizartea osatzen duten eragile publiko zein pribatu guztientzat marko eta bide-orria eskaintzea datorren hamarkadarako, euskal hiztunak sortu eta ahalduntzeko, zein euskararen komunitatea sendotzeko, eta munduko hizkuntza aniztasunaren baitan gizarte justuago eta ekitatiboagoa eraikitzen laguntzeko.
• Aldian-aldian ebaluatua eta egokitua izanik, metodologia parte-hartzaile eta berritzailea baliatzea, gizarte eragileekin eta mugimendu sozialekin elkarlanean.</td></tr>
<tr><td>IKUSPEGIA</td><td colspan="2">• 2034. URTERAKO ERRONKAK honako hauek dira:
→ Euskal hiztun aktibo gehiago izatea gizarte esparru guztietan.
→ Gurera iritsi diren bizilagun berriak euskarara hurbiltzea.
→ Euskaraz bizitzeko aukera zabalagoak izatea, hau da, arnasgune funtzional eta geografiko gehiago izatea.
→ Euskarak eta euskal kulturak prestigio handiagoa izatea.
→ Euskararen transmisioa ziurtatzea.</td></tr>
<tr><td>BALIOAK</td><td>• Justizia soziala.
• Inklusioa.
• Lurraldetasuna.
• Zeharlerrotasuna.</td><td>• Erakargarritasuna.
• Erantzukizuna.
• Egingarritasuna.
• Parte-hartze koordinatua.</td></tr>
<tr><td>GOBERNANTZA</td><td colspan="2">• Euskararen normalizazioa agenda politikoaren erdigunera eraman.
→ Herritarren hizkuntza-eskubideen aldeko politikak garatu.
→ Koordinazioa eta osagarritasuna sustatu eremu instituzional, zein sozialean.
→ Euskararen biziberritzearen aldeko lidergoa eta konpromisoa indartu.
• Berariazko nahiz zeharkako hizkuntza-politika garatu, gainerako hizkuntza nahiz kulturekin bizikidetzan.
→ Eremu soziolinguistikoetarako hizkuntza-politika berezituak garatu.
→ Zeharkako hizkuntza-politikak garatzeko estrategiak gauzatu.
→ Gizartearen aniztasuna kudeatu euskara ardatz izanik.
• Euskararen biziberritzea munduko hizkuntza-aniztasunaren balioetan kokatu.
→ Euskara munduko hizkuntza gutxituen testuinguruan ulertu eta ikuspegi hori gizarteratu.</td></tr>
<tr><td>JARRERAK / MOTIBAZIOAK</td><td colspan="2">• Euskararen aldeko jarrera areagotu eta hiztunen ahalduntzean, hizkuntza-ohituretan eta -portaeretan eragin.
→ Euskaldun izatearen kontzientzian eragin.
→ Gizartea aktibatzeko esperientziak indartu eta hedatu.
→ Hiztun edo komunitate ahaldundua erdiesteko bidea egin.
• Euskarari eta euskal komunitateari buruzko pertzepzio positiboa eta ikusgarritasuna handitu.
→ Euskaldunen komunitatea sendotu.
→ Euskararen erakargarritasuna landu.
→ Euskal hiztun mota eta komunikazio-egoera askotarikoak balioetsi.
→ Euskarara hurbildu ez diren herritarrak euskarara erakarri.</td></tr>
</table>

CONOCIMIENTO / COMPETENCIA	• **Impacto en la transmisión** del euskera y de la cultura vasca. → Establecimiento de cauces para la generalización del conocimiento sobre el euskera y la cultura vasca en la sociedad. → Establecimiento de los cauces necesarios para garantizar la transmisión familiar. → Oferta de formación y recursos a educadores/educadoras y al personal docente en gestión lingüística, así como en conocimiento y práctica sociolingüística. • Refuerzo de las **oportunidades de enseñanza** y **aprendizaje** del euskera existentes y creación de otras nuevas. → Ampliación de recursos y creación de herramientas para la generalización y especialización del conocimiento. → Creación de nuevas oportunidades y mejora de las condiciones para el aprendizaje del euskera. • Incremento del número de **personas de origen extranjero que se acercan** al euskera. → Proporcionar facilidades y recursos para el aprendizaje del euskera por parte de la ciudadanía de origen extranjero. • Atención específica de la **facilidad** (capacidad relativa) en **la generalización del conocimiento** del euskera. → Incremento del porcentaje de bilingües y bilingües equilibrados, especialmente de jóvenes. → Contribución a la mejora de la competencia en euskera, con especial atención a la expresividad. → Adecuación de la oferta de euskaldunización de personas adultas a las múltiples situaciones existentes.
USO / INTERACCIÓN	• Desarrollo de iniciativas específicas para el uso del euskera con comodidad en la vida cotidiana **en los ámbitos socio-geográficos euskaldunes** e identificar e incidir prioritariamente en aquellos ámbitos socio-funcionales en los que el euskera pueda ser lengua dominante **en el resto de ámbitos socio-geográficos**. → En los ámbitos socio-geográficos euskaldunes garantizar especialmente la transmisión familiar, la prestación y uso de los servicios públicos en euskera, los servicios de cuidados en euskera y las iniciativas de refuerzo de la identidad. → Definición del mapa de áreas funcionales en las que exista posibilidad de predominio del euskera en ámbitos socio-geográficos no euskaldunes, y búsqueda de sistemas eficaces de intervención. → Incidencia especial en las cabeceras comarcales con un elevado número de vascohablantes, en capitales y en zonas urbanizadas. • Potenciación de los existentes y **creación de nuevos espacios socio-funcionales donde la vida en euskera sea habitual**, independientemente del ámbito geográfico. → Refuerzo de la transmisión intergeneracional y mantenimiento del uso doméstico. → Impulso del uso del euskera en los espacios de cuidados. → Desarrollo de procesos de generalización del euskera como lengua de trabajo y de servicio en las instituciones públicas e impulso de las posibilidades de trabajo y prestación del servicio en euskera en las organizaciones privadas. → Diseño de estrategias y desarrollo de iniciativas para la creación de hablantes completos, a través de proyectos lingüísticos locales, mediante la colaboración entre agentes educativos, municipales o de las mancomunidades y del sector de la actividad cultural vasca, incidiendo en los sistemas de motivación y competencia. → Garantía y generalización de la oferta y del uso en los ámbitos del ocio organizado y del deporte. → Logro de espacios para un uso cómodo del euskera en el entorno digital. → Incremento de la oferta audiovisual en euskera, especialmente de ficción, pensando estrategias para las plataformas. → Impulso de los medios de comunicación en euskera. → Creación y difusión de productos culturales en euskera de cara a la promoción del consumo. → Empoderamiento de las personas consumidoras y usuarias de los servicios públicos para que utilicen el euskera. → Priorización especial de la población menor de 16 años en el diseño y desarrollo de las intervenciones.
INVESTIGACIÓN / INNOVACIÓN	• Impulso de la **investigación** con el fin de conocer en profundidad los pormenores de cada uno de los retos para los ejes estratégicos. • Promoción de un ecosistema de innovación **en euskera**.
COMUNICACIÓN	• Identificación de los grupos diana de cada línea de trabajo de los **ejes** estratégicos y aplicación de la estrategia de comunicación adecuada a cada uno de ellos.

Guía Local - ISBN 978-84-7777-690-1

EZAGUTZA / GAITASUNA	• Euskararen eta euskal kulturaren **transmisioan eragin**. → Euskarari eta euskal kulturari buruzko ezagutza gizartean orokortzeko bideak jarri. → Familia transmisioa bermatzeko bideak jarri. → Hezitzaileei eta irakasleei prestakuntza eta baliabideak eskaini hizkuntza-kudeaketan, zein ezagutza eta praktika soziolinguistikoan. • Euskara **irakatsi eta ikasteko aukerak** indartu eta berriak sortu. → Ezagutza orokortzeko eta espezializatzeko baliabideak handitu eta tresnak sortu. → Euskara ikasteko aukera berriak sortu eta baldintzak erraztu. • Euskarara **hurbiltzen diren atzerritar** jatorriko herritarren kopurua handitu. → Atzerritar jatorriko herritarrek euskara ikas dezaten erraztasunak zein baliabideak eman. • Euskararen **ezagutza orokortzeko bidean, erraztasuna** (gaitasun erlatiboa) **berariaz zaindu**. → Euskal elebidunen eta elebidun orekatuen ehunekoa handitu, bereziki gazteena. → Euskara gaitasuna hobetzen lagundu, adierazkortasunari bereziki erreparatuz. → Helduak euskalduntzeko eskaintza egokitu dauden egoera ugarietara.
ERABILERA / ELKARREKAGINA	• **Eremu sozio-geografiko euskaldunetan**, euskara eguneroko bizitzan eroso erabiltzeko berariazko ekimenak garatu, eta, **gainontzeko eremu sozio-geografikoetan,** euskara nagusi izateko aukera duten eremu sozio-funtzionalak identifikatu eta horietan lehentasunez eragin. → Eremu sozio-geografiko euskaldunetan bereziki bermatu familia-transmisioa, zerbitzu publikoak euskaraz eskaintzea eta erabiltzea, euskarazko zaintza zerbitzuak eta identitatea indartzeko ekimenak. → Eremu sozio-geografiko ez euskaldunetan, euskara nagusi izateko aukera duten eremu funtzionalen mapa definitu eta esku-hartzeko sistema eraginkorrak bilatu. → Bereziki eragin euskaldunen kopuru handiak dituzten eskualde-buruetan, hiriburuetan eta gune hiritartuetan. • **Euskaraz bizitzea arrunta izango den gune sozio-funtzionalak indartu eta berriak sortu**, eremu geografikoa edozein izanda ere. → Belaunez belauneko transmisioa indartu eta etxeko erabilerari eutsi. → Zaintza guneetan euskararen erabileran eragin. → Euskara lan- eta zerbitzu-hizkuntza gisa orokortzeko prozesuak garatu erakunde publikoetan, eta euskaraz lan egiteko eta zerbitzua emateko aukeretan eragin erakunde pribatuetan. → Hezkuntzako, udal edo mankomunitateetako eta euskalgintzako eragileek elkarlanean, tokian tokiko hizkuntza proiektuen bidez, hiztun osoak sortzeko estrategiak diseinatu eta ekimenak garatu, motibazio- eta gaitasun-sistemetan eraginez. → Aisialdi antolatuaren eta kirolaren esparruetan eskaintza, zein erabilera bermatu eta orokortu. → Ingurune digitalean euskara eroso erabiltzeko espazioak irabazi. → Euskarazko ikus-entzunezkoen eskaintza handitu, bereziki fikziozkoa, eta, horrekin batera, plataformetarako estrategiak pentsatu. → Euskarazko hedabideak bultzatu. → Euskarazko kultur-produktuak sortu eta ezagutarazi, kontsumoa areagotzeko. → Kontsumitzaileak eta zerbitzu publikoetako erabiltzaileak ahaldundu euskara erabil dezaten. → Bereziki 16 urtetik beherako herritarrak lehenetsi esku-hartzeak diseinatu eta garatzerakoan.
IKERKETA / BERRIKUNZA	• **Ikerkuntza** bultzatu, ardatz estrategikoetarako erronka bakoitzaren nondik norakoak sakon ezagutzeko. • **Euskarazko** berrikuntza-ekosistema bat sustatu.
KOMUNIKAZIOA	• **Ardatz** estrategikoetako lan-ildo bakoitzak dituen xede-taldeak identifikatu eta bakoitzarentzat egokia den komunikazio estrategia aplikatu.

VI.

KOMUNIKAZIOA ETA HERRITARRENGANAKO ARRETA

COMUNICACIÓN Y ATENCIÓN CIUDADANA

VI.

Comunicación y atención ciudadana


1. El esquema básico de la gestión municipal.
2. Auditoría.
3. El plan de comunicación: objeto y alcance.
4. El plan de comunicación: elaboración.
5. Nueva identidad gráfica corporativa.
6. Estructura de gestión.
7. Soportes comunicacionales.
8. Oficinas integrales de atención ciudadana.

Guía Local - ISBN 978-84-7777-690-1

VI.

Komunikazioa eta herritarrenganako arreta


1. Udal kudeaketaren oinarrizko eskema.
2. Auditoria.
3. Komunikazio-plana: xedea eta norainokoa.
4. Komunikazio-plana egitea.
5. Identitate grafiko korporatibo berria.
6. Kudeaketa-egitura.
7. Komunikazio-euskarriak.
8. Herritarrentzako arreta bulego integralak.



En nuestras manos está la posibilidad de

GESTIONARLO
o
DEJAR QUE ACTÚE SIN CONTROL

Guía Local - ISBN 978-84-7777-690-1



Gure esku dago aukera:

KUDEATU
edo
KONTROLIK GABE JARDUN DEZAN UTZI

Los **AYUNTAMIENTOS** en general suelen disponer de **UNA ESTRUCTURA Y ACTIVIDAD COMUNICATIVA** basadas en una oficina o gabinete de prensa que divulga la información, principalmente oficial, a través de los medios de comunicación tradicionales (prensa, radio y TV) y, más recientemente, ampliando su **actividad hacia Internet y las redes sociales**.

LO PRIMERO Y MÁS NECESARIO a hacer, si se quiere mejorar la comunicación,
es llevar a cabo un **ANÁLISIS EXHAUSTIVO DEL FUNCIONAMIENTO ACTUAL (AUDITORÍA).**

LOS DÉFICITS MÁS COMUNES que suelen obtenerse son los siguientes:

- **El posicionamiento de la institución** se define como disperso y difuso.
- La comunicación resulta ser de carácter universal, **no segmentada** por tipologías de público.
- **No** suele existir una **relación estructurada y sistematizada con los ciudadanos**.
- **No** se prodiga una **cultura de estrategia conjunta** (estrategia transversal).
- El **estilo** utilizado es habitualmente **oficial y formal, poco inteligible** para la ciudadanía.
- Se utilizan únicamente los **canales y medios tradicionales** de comunicación; o se utilizan los nuevos canales electrónicos de forma descoordinada y con una atención voluntariosa pero deficiente.
- **No** se dispone de **canales propios**, y si se tienen la **comunicación no es coherente entre ellos**.
- **No destaca ninguna IMAGEN CORPORATIVA:**
  - → Inexistencia clara de una política global de marca.
  - → Aplicaciones diversas del logo corporativo, si existe más allá del escudo de la ciudad.
  - → Aparición de logos propios de los servicios, al margen del corporativo.
  - → Utilización de algunas frases de base *(baseline),* poco originales y diferenciadoras.
  - → Formatos y soportes comunicativos de muy diversa índole.

NO ES COMÚN DISPONER DE UNA POLÍTICA DE COMUNICACIÓN INTEGRAL

- Nada nuevo. Se trata de un **déficit ya muy conocido en las organizaciones públicas**, el problema de la integración, de la **transversalidad**.
- **Cada departamento o servicio** tiene su logo, sus soportes, sus folletos, su presupuesto, sus formas comunicativas, etc. La irrupción en las redes sociales suele ser también desordenada, fruto de iniciativas departamentales e incluso personales, **sin coordinación ni visión institucional**.

Las DIRECTRICES FINALES O RECOMENDACIONES RESULTADO DE ESTE TIPO DE AUDITORÍAS pueden resumirse en:

- → SEGMENTACIÓN
- → ACCESIBILIDAD
- → INTEGRACIÓN CORPORATIVA
- → «EDITAR MENOS PARA EDITAR MEJOR»
- → MULTICANALIDAD COORDINADA

UDALETAN, eskuarki, **KOMUNIKAZIO-JARDUERETARAKO EGITURA** prentsa-bulegoa edo -kabinetea izaten da; hortik zabaltzen da informazioa, ofiziala gehienbat, komunikabide tradizionalen bidez (prentsa, irratia eta telebista) eta, berriki, **Internetera eta sare sozialetara ere zabaldu dute jarduna**.

Komunikazioa hobetu nahi bada, **LEHENDABIZI ETA PREMIAZ**,
GAUR EGUNGO FUNTZIONAMENDUAREN AZTERKETA ZEHATZA (AUDITORIA) egin behar da.

NORMALEAN AURKITZEN DIREN GABEZIAK honako hauek izaten dira:
• **Instituzioak komunikazioari begira duen jarrera** zehaztugabea eta lausoa izaten da.
• Komunikazioa unibertsala izan ohi da, ez da hartzaile motaren arabera **bereizten**.
• **Herritarrekin izaten den harremana ez** da izaten **egituratua eta sistematizatua**.
• **Ez** da bultzatzen **komunikazio-estrategia bateratua** (zeharkako estrategia).
• Erabiltzen den **estiloa ofiziala, formala eta ulergaitza** izan ohi da herritarrentzat.
• **Hedabide eta komunikazio-kanal tradizionalak** baino ez dira erabiltzen; edo kanal elektroniko berriak modu deskoordinatuan erabiltzen dira, eta arreta borondatezkoa baina eskasa ematen da.
• **Ez** dute izaten **kanal propiorik**, eta, baldin badute, **haien arteko komunikazioa ez da koherentea izaten**.
• **Ez da nabarmentzen inolako IRUDI KORPORATIBORIK:** → Ez dago marka-politika orokor argirik. → Logo korporatiboa –herriko armarriaz gain halakorik badago– hainbat gauzatarako erabiltzen da. → Zerbitzu batzuek beren logoa izaten dute, korporatiboa erabili beharrean. → Oinarriko esaldiren bat erabiltzen da *(baseline),* ez oso originala eta bereizgarria. → Era guztietako formatu eta euskarri komunikatiboak erabiltzen dira.

EZ DA OHIKOA IZATEN KOMUNIKAZIO POLITIKA INTEGRALA EDUKITZEA

- Ez da kontu berria. **Gabezia hori oso ezaguna da antolakunde publikoetan**: integrazioaren arazoa, **zeharkakotasunarena**.

- **Sail edo zerbitzu bakoitzak** bere logoa, euskarriak, liburuxkak, aurrekontua, komunikatzeko moduak eta abar ditu. Sare sozialetan sartzeko modua ere ez da antolatua izaten, sailen edo are pertsonen ekimenaren ondorio baizik, **koordinaziorik edo ikuspegi instituzionalik gabe**.

MOTAKO HORRETAKO AUDITORIEN AZKEN JARRAIBIDEAK EDO GOMENDIOAK honela laburbil daitezke:
→ SEGMENTAZIOA → IRISGARRITASUNA → UDALAREN IRUDIAREN INTEGRAZIOA → «GUTXIAGO ARGITARATU, HOBEKI ARGITARATZEKO» → KANAL-ANIZTASUN KOORDINATUA

Conviene desarrollar un **PLAN DE COMUNICACIÓN PARA NUESTRA INSTITUCIÓN** que persiga la **mejora de la eficacia y eficiencia de las actividades de comunicación**.

PLAN DE COMUNICACIÓN	
INSTRUMENTO DE PROMOCIÓN	• Que los **ciudadanos conozcan** los servicios y actividades municipales.
INSTRUMENTO DE PUESTA EN VALOR	• Que los **ciudadanos valoren** los servicios y actividades municipales.
INSTRUMENTO PARA LA IMPLANTACIÓN DE LA CULTURA DE COMUNICACIÓN	• Que la organización incorpore la actividad de comunicación como **instrumento relevante en la mejora de la calidad de los servicios**, eliminando la dispersión de las acciones comunicativas y coordinando y optimizando los recursos.
INSTRUMENTO PARA VEHICULIZAR LA TRANSPARENCIA Y EL GOBIERNO ABIERTO	• Que la Administración entienda la comunicación como una **herramienta más del sistema democrático**, dando cuenta a la ciudadanía por medio de ella, de forma clara y veraz, del resultado de su gestión y de su acción de gobierno.

UN PLAN DE COMUNICACIÓN A DOS NIVELES		
NIVEL PRODUCTIVO	La comunicación de las Áreas/Servicios **(actuaciones, productos, servicios)** a los ciudadanos y usuarios	
NIVEL CORPORATIVO	La comunicación de **la Corporación como un todo** y de puesta en valor:	• Acciones conjuntas corporativas
		• Normativizando acciones
		• Manejando un estilo comunicativo común, aunque segmentado
		• Y una misma identidad gráfica

Guía Local - ISBN 978-84-7777-690-1

Komeni da **GURE INSTITUZIOARENTZAT KOMUNIKAZIO-PLAN BAT** egitea, **komunikazio-jarduerak eraginkorragoak eta efizienteagoak** izan daitezen.

KOMUNIKAZIO-PLANA	
EGITEN DENA EZAGUTZERA EMATEKO TRESNA	• **Herritarrek** udalaren zerbitzu eta jarduerak **ezagutu** behar dituzte.
EGITEN DENARI BALIOA EMATEKO TRESNA	• **Herritarrek** udalaren zerbitzu eta jarduerak **baloratu** behar dituzte.
KOMUNIKAZIOAREN KULTURA EZARTZEKO TRESNA	• Antolakundeak komunikazio-jarduera **tresna garrantzitsu gisa erabili behar du zerbitzuen kalitatea hobetzeko**; komunikazio-ekintzen sakabanaketa gainditu, eta baliabideak koordinatu eta optimizatu behar ditu.
GARDENTASUNA ETA GOBERNU IREKIA BIDERATZEKO TRESNA	• Administrazioak **sistema demokratikoaren beste tresna bat gehiagotzat** ulertu behar du komunikazioa, eta, haren bidez, herritarrei bere kudeaketaz eta gobernu-ekintzaz kontu eman, argi eta egiaz.

KOMUNIKAZIO-PLANAK BI MAILA IZAN BEHAR DITU		
EKOIZPEN MAILA	Arloek/Zerbitzuek herritar eta erabiltzaileei **jarduera, produktu eta zerbitzuen** berri ematea	
KORPORAZIO MAILA	**Korporazioaren komunikazio-jarduera bere osotasunean hartuta** eta balioetsita:	• Ekintza bateratu korporatiboak
		• Ekintzak araupekotuz
		• Komunikazio-estilo komun baina segmentatua erabiliz
		• Eta identitate grafiko bera erabiliz

CON CARÁCTER PREVIO AL DESARROLLO DE CUALQUIER PLAN DE COMUNICACIÓN

Es preciso la **BÚSQUEDA DEL CONCEPTO, DE LA IDEA BÁSICA,**
DE LA FRASE DE BASE que resuma la idea de institución y ciudad que queremos comunicar:

LA CONCEPTUALIZACIÓN DEL PROYECTO CIUDAD **Como propuesta/compromiso con la ciudadanía**	• Ha de jugar un papel **motivador** y de suma de adhesiones. • Ha de potenciar el sentimiento de **orgullo**. • Debe ser el **paraguas** en el que se enmarque toda actuación. • Debe ser la **pieza básica** de relación con la ciudadanía. • Buscando elementos identitarios y diferenciadores.
LA CONCEPTUALIZACIÓN DE LA INSTITUCIÓN MUNICIPAL	• **Organización** como instrumento que **promueve y suma esfuerzos para alcanzar el objetivo fijado**.

Para obtener el «concepto», la «idea básica» hay que obtener información, a través de DIVERSAS METODOLOGÍAS	
SITUACIÓN DE PARTIDA	**Aspectos positivos y negativos** de la ciudad y la institución.
OBJETIVOS GLOBALES DEL AYUNTAMIENTO	**Planes estratégicos y de gestión.**
VISIÓN MARCO A FUTURO DEL AYUNTAMIENTO Y LA CIUDAD	Dando **respuesta a preguntas** tales como: • ¿Cuál es el eje principal del valor aportado por el Ayuntamiento? • ¿Qué rasgos diferenciales queremos proyectar? • ¿Cómo queremos que nos perciban nuestros ciudadanos?
ESCUCHA ACTIVA DE LA CIUDADANÍA	Captando, a través de las iniciativas de participación ciudadana, los sistemas de avisos, quejas y sugerencias, las redes sociales y otros instrumentos para la percepción de la voluntad de los y las habitantes, las **expectativas y anhelos** que tienen en relación con lo que desean que sea su población.

Guía Local - ISBN 978-84-7777-690-1

EDOZEIN KOMUNIKAZIO-PLAN EGIN AURRETIK

Beharrezkoa da komunikatu nahi dugun instituzioaren eta hiriaren ideia laburbiltzen duen **KONTZEPTUA, OINARRIZKO IDEIA, OINARRIZKO ESALDIA BILATZEA**:

HIRI-PROIEKTUAREN KONTZEPTUALIZAZIOA **Herritarrentzako proposamena/ herritarrekin hartutako konpromisoa**	• **Motibatzailea** izan behar du, eta atxikipenak bildu. • **Harrotasun**-sentipena indartu behar du. • Jarduera guztia **aterki** horren azpian bildu behar du. • Herritarrekiko harremanaren **oinarria** izan behar du. • Identitateari lotutako elementu bereizgarriak bilatu behar ditu.
UDAL-INSTITUZIOAREN KONTZEPTUALIZAZIOA	• **Antolaketa, ezarritako helburua lortzeko ahaleginak sustatzen eta batzen dituen** lan-tresna.

«Kontzeptua», «oinarrizko ideia» lortzeko, informazioa eskuratu behar da ZENBAIT METODOLOGIA erabilita	
ABIAPUNTUKO EGOERA	Hiriaren eta erakundearen **alderdi positibo eta negatiboak**.
UDALAREN HELBURU OROKORRAK	**Plan estrategikoak eta kudeaketa-planak.**
UDALAREN ETA HIRIAREN ETORKIZUNEKO ESPARRU-IKUSPEGIA	**Galdera hauei erantzunez:** • Zein da Udalak eskaintzen duen balioaren ardatz nagusia? • Zer alde bereizgarri proiektatu nahi ditugu? • Nola nahi dugu gure herritarrek gu hautematea?
HERRITARREN ENTZUTE AKTIBOA	Beren herria izatea nahi dutenari lotuta dituzten **itxaropen eta gurariak** zein diren jakitea, horretarako herritarrek parte hartzeko ekimenak, abisu-sistemak, kexak eta iradokizunak, sare sozialak eta herritarren borondateaz jabetzeko bestelako bitartekoak erabilita.

Una vez se dispone de la **LÍNEA CONCEPTUAL** hay **que DISEÑAR Y ADOPTAR EL PLAN DE COMUNICACIÓN**, algo siempre complejo en una organización. Los ayuntamientos tienden a desarrollar **DINÁMICAS COMUNICATIVAS INTENSAS**, pero cuesta ASUMIR EL ESFUERZO de contar con un Plan definido, con una estrategia de comunicación.

PUEDEN DETERMINARSE 10 ETAPAS
PARA EL DISEÑO DE UN PLAN DE COMUNICACIÓN:

1. Estudio del entorno: análisis e investigación
2. Objetivos
3. Destinatarios. Público objetivo
4. Mensaje
5. Estrategia
6. Acciones de comunicación
7. Cronograma
8. Presupuesto
9. Control y seguimiento
10. Evaluación

ESTAS ETAPAS PUEDEN AGRUPARSE EN CUATRO BLOQUES PRINCIPALES

DEFINIR LA ESTRATEGIA	Establecer los **objetivos y determinar el marco de actuación**: • ¿Qué comunicar para conseguir qué? • ¿A quién? ¿Externo y/o interno? • ¿Por qué o para qué?
PLANIFICACIÓN	• **¿CUÁNDO?**: Momentos, estacionalidades, determinación de la oportunidad. • **¿CÓMO?**: Determinación del lenguaje en función de los públicos destinatarios, orientación y modulación del mensaje. • **¿Con QUÉ MEDIOS?**: Canales y su sincronización, reutilización de información, soportes, recursos humanos, necesidades de tutela, control y dinamización.
ANALIZAR/ EVALUAR	Determinar el **CUADRO DE INDICADORES** de seguimiento para medir: • ¿Qué resultados estamos consiguiendo? ¿Se alinean o se aproximan a los objetivos? • ¿Qué no nos está funcionando? y para APLICAR LAS **MEDIDAS CORRECTORAS NECESARIAS**.
INVOLUCRAR A LA CIUDADANÍA	• Comunicando **lo importante**, y evitando el ruido. • Con **transparencia**. • Utilizando un **lenguaje claro**. Mensajes inteligibles. • **Implicando a los líderes** sociales de opinión. • **Buscando la colaboración de la ciudadanía** a través de acciones participativas que enriquezcan las iniciativas del Gobierno. • Dando cuenta, permanentemente, de los **resultados de la gestión**, de la situación de los **compromisos**, y de las **conclusiones de los procesos participativos**. • En definitiva, **generando confianza**.

Guía Local - ISBN 978-84-7777-690-1

Behin **ILDO KONTZEPTUALA** zehaztean, **KOMUNIKAZIO-PLANA DISEINATU ETA PRESTATU** behar da, eta hori zeregin konplexua da beti antolakunde batean. Udalek **KOMUNIKAZIO-DINAMIKA BIZIAK** garatu ohi dituzte, baina kosta egiten zaie plan zehatz bat, komunikazio-estrategia eta guzti, edukitzeak dakarren AHALEGINA BEREN GAIN HARTZEA.

10 ETAPA ZEHAZTU DAITEZKE
KOMUNIKAZIO-PLAN BAT DISEINATZEKO:

1. Ingurunearen azterketa: analisia eta ikerketa
2. Helburuak
3. Hartzaileak. Publiko hartzailea
4. Mezua
5. Estrategia
6. Komunikazio-ekintzak
7. Kronograma
8. Aurrekontua
9. Kontrola eta jarraipena
10. Ebaluazioa

ETAPA HORIEK LAU BLOKE NAGUSITAN MULTZOKATU DAITEZKE

ESTRATEGIA DEFINITZEA	**Helburuak ezarri eta jardun-esparrua zedarritu:** • Zer komunikatu eta zer lortzeko? • Nori? Kanpo- ala barne-komunikazioa? • Zergatik edo zertarako?
PLANGINTZA	• **NOIZ?**: Uneak, urtarokotasuna, abagunea zehaztea. • **NOLA?**: Hizkera hartzailearen arabera zehaztea, mezua orientatzea eta modulatzea. • **ZER BITARTEKOREKIN?**: Kanalak eta haien sinkronizazioa, informazioa berrerabiltzea, euskarriak, giza baliabideak, zaintza-premiak, kontrola eta dinamizazioa.
AZTERTZEA /EBALUATZEA	Jarraipenerako **ADIERAZLE-TAULA** zehaztu, ondorengo hauek neurtzeko: • Zer-nolako emaitzak lortzen ari gara? Emaitzekin bat datoz edo emaitzetara hurbiltzen dira? • Zerk ez digu funtzionatzen? Eta behar diren **NEURRI ZUZENTZAILEAK APLIKATZEKO**.
HERRITARRAK INPLIKATU	• **Garrantzitsua dena** komunikatuz eta zarata saihestuz. • **Gardentasunez**. • **Hizkera argia** erabiliz. Mezu ulergarriak emanez. • **Iritzi-lider** sozialak **inplikatuz**. • **Herritarren lankidetza bilatuz**, Gobernuaren ekimenak aberastuko dituzten parte-hartze ekintzen bidez. • Etengabe kontu emanez **kudeaketa emaitzei, konpromisoen** egoerari eta **parte-hartze prozesuen ondorioei buruz**. • Azken batean, **konfiantza sortuz**.

5. NUEVA IDENTIDAD GRÁFICA CORPORATIVA

• Una vez que **disponemos** del «*BASELINE*», DE LA **IDEA DE CIUDAD QUE QUEREMOS TRANSMITIR AL EXTERIOR**, de ese denominador común que debe estar presente en todas nuestras comunicaciones, y • Una vez **hemos definido** una estrategia, un **PLAN DE COMUNICACIÓN.**	**NECESITAMOS**	Adoptar **un nuevo elemento de vital importancia** para nuestra estrategia: **La MARCA CORPORATIVA,** una marca, una imagen gráfica en consonancia con la **imagen que queremos transmitir**.

El **DISEÑO CORPORATIVO** está destinado a
• Potenciar los trazos de identidad de las empresas, productos e instituciones, y • Transformarlos en valores cuantificables.

LA MARCA DE NUESTRO AYUNTAMIENTO (en muchos casos el propio escudo de la ciudad)
• ¿Transmite modernidad, innovación, eficacia, dinamismo…?
• ¿Es de fácil identificación…?
• ¿Es de fácil aplicación…?
• ¿Es de fácil reproducción…?
• ¿Es de un cromatismo de fuerte impacto visual…?
• ¿Encaja con la imagen que queremos ofrecer en la primera mirada a la Web del Ayuntamiento?

EL ESCUDO DE LA CIUDAD	• Es la **marca de la ciudad**, patrimonio de la ciudad y sus ciudadanos. • **NO es la marca del Ayuntamiento** como tal y de uso exclusivo por él.

LA IDENTIDAD VISUAL CORPORATIVA debe ser el resultado de un proceso analítico, creativo y técnico que persiga un **OBJETIVO FINAL**:	Conseguir un **SISTEMA DE IDENTIFICACIÓN ÚNICO QUE PROYECTE UNA IMAGEN Y UNA COMUNICACIÓN PROPIAS, y APORTE IDENTIDAD, DIFERENCIA Y VALOR A LA INSTITUCIÓN Y A SUS SERVICIOS**.

A PARTIR DE ESTE MOMENTO ya no queda sino la PROGRESIVA **IMPLANTACIÓN DE LA NUEVA IDENTIDAD EN TODOS Y CADA UNO DE LOS ELEMENTOS MUNICIPALES** (todo comunica):	• MATERIAL ADMINISTRATIVO • PARQUE MÓVIL • VESTUARIO • SEÑALIZACIÓN VIARIA	• SEÑALÉTICA OFICINAS/SERVICIOS • SERVICIOS ONLINE • MATERIAL DE PROMOCIÓN • ETC.

Guía Local - ISBN 978-84-7777-690-1

5. IDENTITATE GRAFIKO KORPORATIBO BERRIA

• Behin **prest dugunean** «*BASELINE*», KANPORA BEGIRA HIRIAZ TRANSMITITU NAHI DUGUN IDEIA, gure komunikazio guztietan egon behar duen izendatzaile komun hori, eta • Behin **zehaztu dugunean** estrategia bat, KOMUNIKAZIO-PLAN bat.	**ZER BEHAR DUGU?**	Gure estrategiari begira **berebiziko garrantzia duen elementu berri bat**: **MARKA KORPORATIBOA, transmititu nahi dugun irudiarekin** bat datorren marka, irudi grafikoa.

DISEINU KORPORATIBOAREN helburua da
• Enpresen, produktuen eta instituzioen identitate-trazuak indartzea eta • Balio zenbakarri bihurtzea.

GURE UDALAREN MARKA (kasu askotan, hiriaren beraren armarria)
• Modernotasuna, berrikuntza, eraginkortasuna, dinamismoa... helarazten ditu?
• Erraz identifikatzen da?
• Erraz aplikatzen da?
• Erraz erreproduzitzen da?
• Inpaktu bisual handiko kromatismoa dauka?
• Bat dator udalaren web-orrian lehen begiratua eginda eman nahi dugun irudiarekin?

HIRIAREN ARMARRIA	• **Hiriaren marka** da, hiriaren eta hiritar guztien ondarea. • **EZ da udalaren marka** berez, ez eta udalak bakarrik erabiltzekoa ere.

IDENTITATE BISUAL KORPORATIBOAK gainera, **prozesu analitiko, kreatibo eta tekniko baten emaitza izan behar du, AZKEN HELBURUA hau dela**:	**IDENTIFIKAZIO-SISTEMA BAKARRA LORTZEA, IRUDI ETA KOMUNIKAZIO PROPIOA PROIEKTATUKO DITUENA, eta INSTITUZIOARI ETA HAREN ZERBITZUEI IDENTITATEA, BEREIZGARRITASUNA ETA BALIOA EMANGO DIZKIENA.**

UNE HORRETATIK AURRERA, hauxe besterik ez da falta: IDENTITATE BERRIA PIXKANAKA UDALAREN ELEMENTU GUZTIETAN ETA BAKOITZEAN EZARRIZ JOATEA (denak komunikatzen du):	• MATERIAL ADMINISTRATIBOA • IBILGAILUAK • ARROPA • BIDE SEINALEZTAPENA	• BULEGO/ZERBITZUETAKO SEINALEAK • ONLINE ZERBITZUAK • SUSTAPENEKO MATERIALA • ETA ABAR.

El DESARROLLO Y LA MATERIALIZACIÓN EN EL DÍA A DÍA DE UN PLAN DE COMUNICACIÓN precisa de MÁS ESTRUCTURA QUE UNA OFICINA O GABINETE DE PRENSA, cuyos cometidos constan básicamente de la gestión de protocolo y relación con los medios de comunicación (prensa, radio y TV) a través de convocatorias de ruedas de prensa y envíos de notas de prensa.

Un PLAN DE COMUNICACIÓN REQUIERE de una UNIDAD DE COMUNICACIÓN que, bien coordinada, bien integrada en la Oficina de Prensa, gestione las acciones comunicativas tanto de los servicios como de la propia Institución como tal (campañas corporativas).		
1	**COMITÉ DE COMUNICACIÓN**	Se trata de un **ÓRGANO COORDINADOR DE LAS ACTIVIDADES COMUNICATIVAS** de los dos niveles, con la asistencia puntual, en caso de ser necesario, de los Relatores de las áreas/servicios demandantes de las acciones comunicativas.
2	**RELATORES**	Es conveniente disponer en la Organización de una **RED DE RESPONSABLES SECTORIALES (ÁREAS) EN MATERIA DE COMUNICACIÓN**, una Red de Relatores, cuya función no es otra que la de **actuar como referentes de cada área en el campo de la Comunicación**. Es, en definitiva, a quien debe corresponder **canalizar las demandas** de acciones comunicativas a Comunicación y **elaborar el *briefing*** de las mismas, la **propuesta de estrategia** de cada acción comunicativa.
3	**MANUAL DE COMUNICACIÓN**	Manual, aprobado formalmente, que **RESUME LAS NORMAS DE ACTUACIÓN EN MATERIA COMUNICATIVA** Y ES **CONOCIDO POR EL CONJUNTO DE LA ORGANIZACIÓN**. Tras una exposición de los **objetivos y directrices generales**, un Manual de Comunicación debe relacionar los **Tipos de Acciones** Comunicativas y el tratamiento previsto para cada una de ellas, coordinando y gestionando el uso adecuado de los **soportes y canales** a su disposición.
4	**ASISTENCIA TÉCNICA**	Normalmente los **ayuntamientos**, excepto los de mayor tamaño, **no suelen disponer de PERSONAL TÉCNICO** (diseñadores gráficos, creativos, programadores web) en sus plantillas. Para asistir técnicamente al Ayuntamiento y agilizar los procesos de comunicación, es recomendable contar con UNA **ASISTENCIA TÉCNICA EXTERNA** mediante contrato.
5	**APLICACIÓN PRESUPUESTARIA ÚNICA**	Otra medida que es recomendable llevar a cabo, para una coordinada gestión de la Comunicación, es la DE **UNIFICAR EN UNA APLICACIÓN PRESUPUESTARIA ÚNICA TODAS LAS DIFERENTES APLICACIONES PRESUPUESTARIAS** (la realidad es que normalmente cada área suele tener su propia partida de publicidad) del Presupuesto, asignando su gestión a la Unidad de Comunicación. Esta decisión es de vital importancia pues, además de dar coherencia al nuevo sistema, permite **gestionar el gasto con una visión de conjunto** y obtener importantes **economías de escala**.

KOMUNIKAZIO-PLAN BAT GARATZEKO ETA GAUZATZEKO, PRENTSA-BULEGO EDO -KABINETE SOIL BAT BAINO EGITURA HANDIAGOA behar da. Izan ere, horrelako bulego baten lana, funtsean, protokoloa kudeatzea eta komunikabideekiko harremana dira (prentsa, irratia eta telebista), eta hori, batik bat, prentsaurrekoak antolatuz eta prentsa-oharrak bidaliz egiten du.

KOMUNIKAZIO-PLAN BATEK KOMUNIKAZIO-UNITATE BAT BEHAR DU, ongi koordinatua, Prentsa Bulegoan ongi integratua, zerbitzuen zein instituzioaren beraren komunikazio-ekintzak kudeatuko dituena (kanpaina korporatiboak).		
1	**KOMUNIKAZIO-LANTALDEA**	Bi mailetako **KOMUNIKAZIO-JARDUEREN ORGANO KOORDINATZAILEA** da. Behar izanez gero, gainera, komunikazio-ekintzak eskatzen dituzten arlo/zerbitzuen errelatoreak ere bertaratuko dira noizbehinka organo horretara.
2	**ERRELATOREAK**	Komenigarria da antolakundean **(ARLO-) SEKTORE-ARDURADUNEN SARE BAT EDUKITZEA KOMUNIKAZIO-GAIETAN**, Errelatore-Sare bat, eta haren eginkizuna, betiere, **komunikazioaren eremuko arlo bakoitzean erreferente moduan jardutea izango da**. Hari egokitu behar zaio, azken batean, komunikazio-ekintzen **eskaria Komunikazio Lantaldera bideratzea eta ekintza horiei buruzko *briefinga* prestatzea** komunikazio-ekintza bakoitzaren **estrategia-proposamena**.
	ARAU OROKORRAREN SALBUESPENAK (ISILTASUN NEGATIBOA)	• **Lege** batek (interes orokorreko arrazoi erabatekoetan oinarritu beharko du) **edo Europar Batasuneko zuzenbideko edo nazioarteko zuzenbideko arauren batek kontrakoa agintzen duenean.** • Konstituzioaren 29. artikuluko **eskariak egiteko eskubidea** erabiltzen denean. • Baiestearen ondorioz **eskatzaileari edo hirugarrenei jabari publikoaren edo zerbitzu publikoaren gaineko ahalmenak transferituko lizkieketen** prozeduretan. • **Ingurumenari kalte egin liezaioketen jarduerak egitea dakarten** prozeduretan. • **Administrazioaren ondare-erantzukizunari buruzko** prozeduretan. • **Egintzak eta xedapenak aurkaratzeko** prozeduretan, non isiltasunak ezespen-ondorioak izango baititu. (Hala ere, gora jotzeko errekurtsoa jarri bada eskaera bat administrazio-isiltasunez ezetsi izanaren aurka, errekurtsoa baietsitzat joko da ebazpen-epea heldutakoan ebazpen hori eman ez bada, salbu eta aurreko paragrafoan zerrendatutako gaiei buruzkoa bada).
OFIZIOZ HASITAKO PROZEDURETAN	**ISILTASUN NEGATIBOA**	**Eskubideak edo bestelako egoera juridiko indibidualizatuak aitortzea edota eratzea** eratortzen bada prozeduratik.
	IRAUNGITZEA	Administrazioa **zehatzeko ahalez edo, oro har, esku hartzeko ahalez** baliatzen den prozeduretan, **ondorio kaltegarria edo karga** sorraraz badezakete.

ADMINISTRAZIO-ISILTASUNA SORTZEAREN FROGABIDEAK

(presuntziozko ebazpena sortzearena)

- Zuzenbidean onargarri den **edozein frogabide**.
- Isiltasunaren **ziurtagiria:**
  - → **Ofizioz** emango du ebazteko eskudun den organoak, 15 eguneko epean, prozedura ebazteko gehieneko epea amaitzen denetik aurrera zenbaturik.
  - → **Interesdunak eskatuta** 15 egun, eskaera egiten denetik.

ADMINISTRAZIO-ISILTASUNA SORTU OSTEKO EBAZPEN ESPRESUA

ADMINISTRAZIO-ISILTASUN POSITIBOAREN KASUAK → Ondorengo ebazpena sortutako **isiltasunaren zentzu berean** eman beharko da.

ADMINISTRAZIO-ISILTASUN NEGATIBOAREN KASUAK → Ondorengo ebazpena **ez da lotuta egongo sortutako isiltasunaren zentzuari.**

Legeria: 39/2015 Legea, 24. eta 25. art.

LOS TÉRMINOS Y PLAZOS OBLIGAN A:
• **Las autoridades y personal** al servicio de las Administraciones Públicas tramitadoras del procedimiento. • **Las personas interesadas** en el procedimiento administrativo.

CÓMPUTO DE TÉRMINOS Y PLAZOS

INICIO DEL CÓMPUTO DEL PLAZO	• **A partir del día siguiente** al de la **notificación o publicación** (o, en su caso, a la estimación o desestimación por silencio administrativo) del acto de que se trate.
PLAZOS FIJADOS EN HORAS	• Son **hábiles todas las horas** del día que formen parte de un **día hábil**. • El plazo **no puede ser superior a 24 horas**. • Cómputo: **de hora en hora y de minuto en minuto** desde la hora y minuto en que tenga lugar la notificación o publicación del acto.
PLAZOS FIJADOS EN DÍAS	• Salvo que se establezca expresamente otra cosa, se entiende que son **días hábiles**. • **No computan sábados, domingos ni festivos**. • Plazo en **días naturales: indicación expresa**.
PLAZOS FIJADOS EN MESES/AÑOS	• El plazo **concluye el mismo día de la notificación**, publicación o silencio en el mes o el año de vencimiento. • **Si en el mes de vencimiento no hubiera ordinal de día equivalente al del inicio:** el plazo expira el último día del mes de vencimiento.
ÚLTIMO DÍA DEL PLAZO INHÁBIL	• El plazo finaliza el **siguiente día hábil.**
DÍAS HÁBILES E INHÁBILES	• Días inhábiles en el municipio o Comunidad Autónoma en que reside la persona interesada y hábil en la sede del órgano a que se dirige –o viceversa–: **se tendrán por días inhábiles**.

CÓMPUTO DE PLAZOS EN LOS REGISTROS

DÍAS Y HORAS DE APERTURA DE LAS OFICINAS DE ASISTENCIA	• Cada **Administración publicará** los días y el horario en el que deban permanecer **abiertas las oficinas** de asistencia para la presentación electrónica de documentos.
REGISTRO ELECTRÓNICO	• Se rige, a efectos de cómputo de plazos, **por la fecha y hora oficial de la sede electrónica** de acceso. • **Reglas de funcionamiento**: → Pueden presentarse documentos **todos los días del año durante las 24 horas**. → Cumplimiento de plazos por las personas interesadas: la **presentación en un día inhábil se entiende realizada en la 1.ª hora del primer día hábil siguiente** (salvo que una norma permita la recepción en día inhábil). → Cumplimiento de plazos por la Administración: **el inicio del cómputo de plazos se determina por la fecha y hora de presentación en el registro electrónico**. Se comunicará a quien presentó el documento la fecha y hora efectiva de inicio del cómputo de plazos.

AMPLIACIÓN DE PLAZOS	TRAMITACIÓN DE URGENCIA (reducción de plazos)
• **De oficio o a petición** de la persona interesada. • **No pueden prorrogarse plazos vencidos**. Así, pues, debe solicitarse y notificarse antes del fin del plazo inicial. • No puede exceder de la **mitad** del plazo inicial. • Valorar si las **circunstancias lo aconsejan.** • **No** puede producirse en **perjuicio de terceros**.	• **De oficio o a petición** de la persona interesada. • Por razones de **interés público.** • Los plazos se reducen **a la mitad**. • **No pueden reducirse** los plazos relativos a: → Presentación de solicitudes. → Presentación de recursos.

Legislación: Ley 39/2015, arts. 29 a 33

HONAKOEK BETE BEHAR DITUZTE EPEMUGAK ETA EPEAK:
• Prozedura izapidetzen duten Administrazio Publikoen zerbitzura dauden **agintariek eta langileek**. • Administrazio-prozeduran **interesdun direnek**.

EPEMUGAK ETA EPEAK ZENBATZEA

EPEA ZENBATZEN HASTEA	• Dena delako egintza **jakinarazten edo argitaratzen** (edo administrazio-isiltasunez baiesten edo ezesten) **den egunaren biharamunetik hasita**.
ORDUTAN FINKATUTAKO EPEAK	• **Baliodunak dira egun baliodun bateko ordu guztiak.** • Epea **ezin izango da izan 24 ordu baino gehiagokoa.** • Zenbaketa: **orduz ordu eta minutuz minutu**, egintza jakinarazten edo argitaratzen den ordu eta minututik aurrera.
EGUNETAN FINKATUTAKO EPEAK	• Espresuki besterik adierazten ez den bitartean, **egun baliodunak** direla ulertuko da. • **Ez dira zenbatuko larunbatak, igandeak eta jaiegun izendatutakoak.** • Epea **egun naturaletan: espresuki adieraztea.**
HILABETETAN EDO URTETAN FINKATUTAKO EPEAK	• Muga-eguneko hilabete edo urtean **jakinarazpena**, argitalpena edo administrazio-isiltasuna gertatu den **egun berean amaituko da** epea. • **Muga-eguneko hilean ez bada hasierako egunaren baliokiderik,** epea muga-eguneko hilaren azken egunean bukatzen dela joko da.
EPEAREN AZKEN EGUNA BALIOGABEA BADA	• Epea **hurrengo egun baliodunean** amaituko da.
EGUN BALIODUNAK ETA BALIOGABEAK	• Egun bat baliogabea bada interesduna bizi den udalerrian edo autonomia-erkidegoan, eta balioduna administrazio-organoaren egoitzan, edo alderantziz, **baliogabetzat hartuko da**.

EPEEN ZENBAKETA ERREGISTROETAN

LAGUNTZA EMANGO DUTEN BULEGOAK IREKITA EGOTEKO EGUNAK ETA ORDUAK	• **Administrazio bakoitzak argitaratuko du** zer egutegi eta ordutegitan egon behar duten **irekita** agirien aurkezpen elektronikorako laguntza emango duten **bulegoek**.
ERREGISTRO ELEKTRONIKOA	• Epeen zenbaketarako, sarbideko **egoitza elektronikoaren data eta ordu ofiziala** izango du. • **<u>Funtzionatzeko arauak:</u>** → Dokumentuak **urteko egun guztietan aurkez daitezke, eguneko 24 orduetan.** → Interesdunek epeak betetzeari dagokionez: **egun baliogabean aurkeztutakoa hurrengo egun balioduneko 1. orduan aurkeztutzat joko da** (salbu eta arauren batek onartzen badu egun baliogabean jasotzea). → Administrazioak epeak betetzea: **epeak zenbatzen hasteko, erregistro elektronikoan aurkeztutako data eta ordua hartuko dira kontuan**. Betiere, agiria aurkeztu duenari jakinarazi egin behar zaio zer data eta ordutan hasten den epea zenbatzen.

EPEAK LUZATZEA	PRESAZ IZAPIDETZEA (epeak laburtzea)
• **Ofizioz edo interesdunak eskatuta**. • **Epe mugaeguneratuak ezin daitezke luzatu.** Hala, bada, hasierako epea amaitu aurretik eskatu eta jakinarazi behar da. • Hasierako epearen **erdia** luza daiteke, gehienez ere. • **Zirkunstantzien arabera egokia den edo ez** balioetsi behar da. • **Hirugarrenen eskubideei ezin zaie kalterik egin.**	• **Ofizioz edo interesdunak eskatuta**. • **Interes publikoko** arrazoiengatik. • Epeak **erdira** laburtzen dira. • **Ezin dira laburtu** hauei buruzko epeak: → Eskabideak aurkeztekoak. → Errekurtsoak aurkeztekoak.

Legeria:	39/2015 Legea, 29-33 artikuluak

NOTIFICACIÓN

DEFINICIÓN	**Comunicación singular a persona o personas** determinadas de los actos administrativos por el órgano que los dicta.
CONTENIDO	• **Texto íntegro** de la resolución. • Indicación de si el acto **pone fin o no a la vía administrativa**. • **Recursos** que procedan, órgano ante el que interponerlos y plazo de interposición.
OBLIGACIÓN	• **Se** notificará a las personas interesadas **todo acto o resolución que afecte a sus derechos e intereses**.
PLAZO	• **10 días** desde que se dicta el acto.
MEDIO	• **Preferentemente por medios electrónicos** (si la persona interesada está obligada a relacionarse electrónicamente con la Administración, en todo caso). → Las personas interesadas no obligadas a recibir notificaciones electrónicas pueden comunicar a la Administración mediante modelo normalizado que en lo sucesivo las notificaciones se practiquen o dejen de practicarse electrónicamente. → **Reglamentariamente se puede establecer la obligación** de practicar electrónicamente las notificaciones para **determinados procedimientos y para ciertos colectivos** de personas físicas que por razón de su capacidad económica, técnica, dedicación profesional u otros motivos quede acreditado que tienen acceso y disponibilidad de medios electrónicos. • **Por medios no electrónicos:** → Cuando la notificación se realice con ocasión de la **comparecencia espontánea** de la persona interesada o su representante en las oficinas de asistencia en materia de registro y solicite la comunicación o notificación personal en ese momento. → Cuando para asegurar la eficacia de la actuación administrativa resulte necesario practicar la notificación **por entrega directa de un empleado público.** • **No se notificarán electrónicamente:** → Actos acompañados de elementos no susceptibles de conversión a formato electrónico. → Actos que contengan medios de pago a favor de los obligados, tales como cheques. • Se puede identificar un dispositivo electrónico y/o dirección de correo electrónico para el envío de avisos (no para la práctica de la notificación). • Cuando la persona interesada fuera notificada por distintos cauces, se tomará como fecha de notificación la de aquélla que se hubiera producido en primer lugar.
LUGAR	• **Procedimientos iniciados a solicitud de persona interesada:** → Por el **medio señalado por la persona interesada**. Será electrónica si está obligada a relacionarse de esta forma con la Administración. → Si no es posible practicarla según lo indicado en la solicitud, en cualquier lugar adecuado y por cualquier medio que permita dejar constancia de la recepción, y de la fecha, identidad y contenido del acto. • **Procedimientos iniciados de oficio:** → A los solos efectos de su iniciación, la Administración podrá recabar, mediante consulta a las bases de datos del Instituto Nacional de Estadística, los datos sobre el domicilio de la persona interesada recogidos en el padrón municipal.
PRÁCTICA	• **Notificaciones en papel**: → Deben ser **puestas a disposición de la persona interesada en la sede electrónica**. → Notificación en el **domicilio** sin que esté la persona interesada: • **Puede hacerse cargo** cualquier persona mayor de 14 años que esté en el domicilio y haga constar su identidad. • **Si nadie se hace cargo**, se hará constar esa circunstancia en el expediente junto con el día y la hora en que se intentó la notificación. Se intentará nueva notificación por una sola vez y en una hora distinta dentro de los tres días siguientes. Si el 1º intento de notificación fue antes de las 15:00, la segunda después, y viceversa, dejando en todo caso al menos un margen de diferencia de 3 horas. • **Notificaciones por medios electrónicos**: → Mediante **comparecencia en la sede electrónica** (el acceso por la persona interesada debidamente identificada al contenido de la notificación), a través de la dirección electrónica habilitada única o mediante ambos sistemas. → Se entiende practicada la notificación en el **momento en que se produzca el acceso a su contenido**. → Cumplimiento de la **obligación de notificar en plazo: puesta a disposición** de la notificación en la sede electrónica o en la dirección electrónica habilitada única.
NOTIFICACIÓN VÁLIDA	• Siempre que permita tener **constancia de su envío o puesta a disposición**, de la **recepción o acceso** por la persona interesada o su representante, de sus fechas y horas, del contenido íntegro, y de la identidad fidedigna del remitente y destinatario de la misma. • La **falta de aviso al dispositivo electrónico** y/o a la dirección de correo electrónico **no impide que la notificación se considere válida**.
NOTIFICACIÓN DEFECTUOSA	• **Causas:** → Cuando **carece de alguno de los requisitos** de contenido. → Cuando **no puede acreditarse la recepción** por la persona interesada (receptora, fecha o contenido). • **Regla general**: no produce efectos. • **Producción de efectos de la notificación defectuosa:** → Cuando, pese a omitir alguno de los requisitos del contenido, la notificación contenga el **texto íntegro del acto**, siempre que **la persona interesada realice actuaciones** que supongan que conoce su contenido y alcance, o interponga recurso.
RECHAZO DE NOTIFICACIÓN POR LA PERSONA INTERESADA	• **Notificación electrónica**: si no se accede a su contenido transcurridos 10 días naturales desde la puesta a disposición de la notificación. • Se tendrá por **efectuada** la notificación, debiendo dejar constancia de las circunstancias en el expediente.
NOTIFICACIÓN INFRUCTUOSA	• Cuando las personas interesadas sean **desconocidas**, se **ignore el lugar de notificación**, o intentada ésta **no se hubiese podido practicar**, la notificación se hará por medio de un anuncio publicado en el **Boletín Oficial del Estado**. → **Facultativamente y con carácter previo** puede publicarse un anuncio en el **boletín oficial de la Comunidad Autónoma o de la provincia, en el tablón de edictos** del ayuntamiento del último domicilio de la persona interesada o del consulado o sección consular de la embajada correspondiente. → Se pueden establecer **otras formas de notificación complementarias** a través de medios de difusión: no excluyen la obligación de publicar el anuncio en el Boletín Oficial del Estado.

PUBLICACIÓN

DEFINICIÓN	• **Comunicación dirigida a un colectivo de personas o a una en paradero desconocido.**
FORMA	• **Inserción del acto o resolución en el Boletín Oficial correspondiente a la Administración autora del acto.**
CONTENIDO	• **Igual que la notificación.**
SUPUESTOS	• **Publicación necesaria, por razón del procedimiento** (art. 45.1 Ley 39/2015**):** → Cuando lo establezcan las **normas reguladoras del procedimiento**. → Cuando lo aconsejen **razones de interés público** apreciadas por el órgano competente. • **Publicación en sustitución de la notificación** (art. 45.1 Ley 39/2015), cuando: → El acto tenga por destinatario a una **pluralidad indeterminada de personas**. → La Administración estime que la **notificación efectuada a una sola persona interesada es insuficiente**. → Se trate de actos de un **procedimiento selectivo o de concurrencia competitiva**.

Legislación: Ley 39/2015, arts. 40 a 46

JAKINARAZPENA

DEFINIZIOA	**Pertsona bati edo pertsona jakin batzuei** administrazio-egintza bat **singularki komunikatzea** egintza eman duen organo berak.
EDUKIA	• Ebazpenaren **testu osoa**. • Egintzak **administrazio-bidea amaitzen duen edo ez** adieraztea. • Zer **errekurtso** jar daitezkeen, zer organoren aurrean eta zer epetan.
BETEBEHARRA	• Interesdunei jakinarazi beharko zaizkie **beren eskubide edo interesak ukitzen dituzten ebazpen eta egintza guztiak.**
EPEA	• **10 egun**, egintza eman zen egunetik.
BITARTEKOA	• **<u>Ahal dela, bitarteko elektronikoz</u>** (interesduna behartuta baldin badago Administrazioarekiko harremanak elektronikoki izatera, beti). → Jakinarazpen elektronikoa jasotzera beharturik ez dauden interesdunek noiznahi komunika diezaiokete administrazioari, eredu normalizatuen bidez, handik aurrerako jakinarazpenak bitarteko elektronikoz egin daitezela edo hala egiteari utzi dakiola. → **Erregelamenduz,** jakinarazpenak bitarteko elektronikoz egiteko **betebeharra ezarri** ahal izango da **zenbait prozeduratarako eta** pertsona fisikoen **kolektibo batzuentzat**, beren gaitasun ekonomikoagatik, gaitasun teknikoagatik, dedikazio profesionalagatik edo bestelako arrazoiengatik egiaztaturik badago bitarteko elektronikoetarako irispidea badutela eta erabil ditzaketela. • **<u>Bitarteko ez elektronikoz:</u>** → Jakinarazpena egiteko arrazoia interesduna edo haren ordezkaria erregistro-gaietan laguntzeko bulegoetan **agertzea** bada eta une horretan eskatzen badu komunikazio edo jakinarazpen pertsonala. → Administrazio-jarduketaren efikazia ziurtatzeko beharrezkoa bada **enplegatu publiko batek zuzenean emanez** egitea jakinarazpena. • **<u>Ez dira elektronikoki jakinaraziko:</u>** → Egintzarekin batera formatu elektronikora bihurtu ezin den elementuren bat igorri behar denekoak. → Betebehardunaren aldeko ordainbideren bat daramatenak, hala nola txekeak. • Gailu elektroniko bat eta/edo posta elektronikoko helbide bat identifika daiteke abisuak bidaltzeko (ez jakinarazpenak egiteko). • Interesdunari bide batetik baino gehiagotatik egiten bazaio jakinarazpena, lehenik egin zaionarena hartuko da jakinarazpen-datatzat.
TOKIA	• **<u>Interesdunak eskaturik hasitako prozeduretan:</u>** → **Interesdunak adierazitako bitartekoaren** bidez. Jakinarazpena elektronikoa izango da, interesduna behartuta baldin badago bide horretatik jasotzera. → Ezin bada egin eskaeran adierazitako moduan, horretarako egokia den edozein lekutan egingo da, eta jakinarazpena hartu dela, noiz eta nork hartu duen eta egintzaren edukia jasota uzteko aukera ematen duen edozein bitartekoren bidez • **<u>Ofizioz hasitako prozeduretan:</u>** → Prozedura hasteko bakar-bakarrik, administrazioak interesdunari buruz udal-erroldan jasotako helbide-datuak eskuratu ahal izango ditu, Estatistika Institutu Nazionaleko datu-baseetan kontsulta eginda.
EGITEKO MODUA	• **<u>Paperean egindako jakinarazpenak:</u>** → **Interesdunaren eskura jarri beharko dira egoitza elektronikoan**. → Jakinarazpena interesdunaren **bizilekuan** egitea, interesduna bertan ez dagoenean: • Bizilekuan dagoen 14 urtetik gorako edozein pertsonak **har dezake**, nor den jasota utzirik. • **Inor ez bada jakinarazpenaren kargu egiten**, hala jasoko da espedientean, jakinarazpena egiteko ahaleginaren eguna eta ordua ere adierazirik. Beste ahalegin bat egingo da, bakarra, hurrengo hiru egunen barruan eta beste ordu batean. Lehenbiziko jakinarazpen-ahalegina 15:00 orduak baino lehen egin bada, bigarrena geroago egingo da, eta alderantziz, betiere 3 orduko tartea utzirik, gutxienez, bi ahaleginen artean. • **<u>Bitarteko elektronikoz egindako jakinarazpenak:</u>** → **Egoitza elektronikoan agertuz** egingo dira (interesduna, behar bezala identifikatuta, jakinarazpenaren edukira sartuta), edo emandako helbide elektroniko bakarraren bidez, edo bi sistemen bidez. → Jakinarazpenak egintzat joko dira **haien edukira sartzen den unean.** → **Epearen barruan jakinarazteko betebeharra** betetzea: jakinarazpena interesdunaren **eskura jartzea** egoitza elektronikoan edo eman duen helbide elektroniko bakarrean.
JAKINARAZPEN BALIOZKOA	• Jakinarazpenak baliozkoak izango dira honako hauek **jasota geratzeko** aukera ematen badute: **bidali dela edo eskura jarri dela**, interesdunak edo haren ordezkariak **jaso duela edo hartara irispidea izan duela**, data eta ordua, eduki osoa, eta bidaltzailearen eta hartzailearen identitate fidagarria. • **Gailu elektronikora** eta/edo posta elektronikoko helbidera **abisua ez emanagatik ere, jakinarazpena baliozkoa izango da.**
JAKINARAZPEN AKASTUNA	• **Kausak:** → Edukiari buruzko **betekizunen bat betetzen ez duenean.** → Interesdunak **jaso duela egiaztatzerik ez dagoenean** (hartzailea, eguna edo edukia). • **Arau orokorra**: ez du ondoriorik sortzen. • **Jakinarazpen akastunak ondorioak sortzea:** → Baldin eta, edukiaren betekizunen bat bete ez arren, jakinarazpenak **egintzaren testu osoa** jasotzen badu, betiere **interesdunak** egintzaren edukia eta irismena ezagutzen dituela adierazten duten **jarduketak egiten baditu**, edo errekurtsoa jartzen badu.
INTERESDUNAK JAKINARAZPENA EZ ONARTZEA	• **Jakinarazpen elektronikoa:** ez onartutzat joko da haren edukia ez bada eskuratu jakinarazpena eskura jarri zenetik 10 egun natural igarotakoan. • Jakinarazpena **egintzat** joko da, eta espedientean zirkunstantziak jaso beharko dira.
EMAITZARIK GABEKO JAKINARAZPENA	• **Ez bada jakiterik interesdunak nor diren, edo jakinarazpena non egin behar den, edo jakinarazpena egiten saiatu bai baina huts egin bada**, **Estatuko Aldizkari Ofizialean** iragarki bat argitaratuz egingo da jakinarazpena. → **Aukeran, horren aurretik**, iragarki bat argitara daiteke **autonomia-erkidegoko edo probintziako aldizkari ofizialean**, interesdunak azken bizileku ezaguna izandako udaletxeko **ediktu-taulan** edo dagokion enbaxadako kontsuletxeko edo atal kontsularreko iragarki-taulan. → Administrazioak balia ditzake **jakinarazpenak egiteko modu osagarri batzuk**, hedabideen bitartez, baina horrek ez ditu salbuesten Estatuko Aldizkari Ofizialean dagokion iragarkia argitaratzeko betebeharretik.

ARGITARATZEA

DEFINIZIOA	• **Pertsona talde bati edo non dagoen jakiterik ez dagoen pertsona bati zuzendutako komunikazioa.**
ARGITARATZEKO MODUA	• **Egintza egin duen administrazioari dagokion aldizkari ofizialean txertatzea egintza edo ebazpena.**
EDUKIA	• **Jakinarazpenak bezalakoa.**
KASUAK	• **Beharrezko argitalpena, prozedura dela eta** (39/2015 Legearen 45.1 artikulua): → **Prozedura bakoitzaren arauetan** hala ezarrita badago. → Eskumena duen organoaren iritziz, **interes publikoko arrazoiak** badaude. • **Jakinarazpenaren ordezko argitalpena** (39/2015 Legearen 45.1 artikulua), baldin eta: → **Zehaztu gabeko hartzaile talde bati** zuzendutako egintza denean. → Administrazioaren iritziz **interesdun bakar bati zuzendutako jakinarazpena nahikoa ez bada**. → **Hautaketa-prozedura bateko edo lehia-konkurrentziako prozeduretako** egintzak direnean.

Legeria: 39/2015 Legea, 40-46 artikuluak

CUMPLIMIENTO VOLUNTARIO

El obligado a cumplir el contenido del acto administrativo lo **cumple, en el plazo legalmente fijado,** sin necesidad de que la Administración le conmine a ello.

EJECUCIÓN FORZOSA

CONCEPTO Y SUPUESTOS

- Ante **el incumplimiento** de un acto administrativo por el administrado en el plazo previsto, la Administración dispone de **medios para conseguir que se cumpla** lo que en tal acto se dispone.
- Excepciones**:**
  - → Supuestos de **suspensión de la ejecución**, de acuerdo con la Ley.
  - → Cuando la Constitución o la Ley exijan la **intervención de los Tribunales.**

PRINCIPIOS

- Los actos de las Administraciones Públicas sujetos al Derecho Administrativo son **inmediatamente ejecutivos, salvo** que se suspenda la ejecución o que la resolución no ponga fin a la vía administrativa *(Ver ficha ACTOS ADMINISTRATIVOS, en esta misma guía)*.
- Se efectuará, respetando siempre el principio de **proporcionalidad.**
- Si fueran **varios los medios** de ejecución admisibles, **se elegirá el menos restrictivo de la libertad individual**.

REQUISITOS PREVIOS

- Adopción de la **resolución** que le sirva de fundamento jurídico.
- **Notificación** a la persona interesada de la resolución que autorice la actuación administrativa.
- **Apercibimient**o previo.
- **Si fuese necesario entrar en el domicilio** del afectado o en los restantes lugares que requieran la **autorización de su titular,** las Administraciones Públicas deberán obtener el consentimiento del mismo o, en su defecto, la oportuna autorización judicial.

MEDIOS DE EJECUCIÓN FORZOSA

APREMIO SOBRE EL PATRIMONIO

- Si, en el procedimiento, se ha de satisfacer **cantidad líquida** se seguirá el **procedimiento de apremio**.
- En cualquier caso, no podrá imponerse a los administrados una obligación pecuniaria que no estuviese establecida con arreglo a una **norma de rango legal**.

EJECUCIÓN SUBSIDIARIA

- **Actos no personalísimo**s, que pueden ser realizados por sujeto distinto del obligado.
- Las Administraciones Públicas realizarán el acto, por sí o a través de las personas que determinen, **a costa del obligado**.
- Se exigirá, al obligado, el importe de los **gastos, daños y perjuicios**.
- El importe podrá **liquidarse de forma provisional,** antes de la ejecución, a reservas de la liquidación definitiva.

MULTA COERCITIVA

- Imposición de multas coercitivas, **reiteradas** por l**apsos de tiempo que sean suficientes para cumplir** lo ordenado.
- **Independiente de las sanciones** que puedan imponerse y **compatible con ellas.**
- **Supuestos:**
  - → Cuando así lo autoricen las leyes, y en la forma y cuantía que éstas determinen.
  - → Actos personalísimos en que no proceda la compulsión directa sobre la persona del obligado.
  - → Actos en que, procediendo la compulsión, la Administración no la estimara conveniente.
  - → Actos cuya ejecución pueda el obligado encargar a otra persona.

COMPULSIÓN SOBRE LAS PERSONAS

- Supuestos de actos administrativos que impongan una obligación personalísima de no hacer o soportar.
- Ha de estar autorizada expresamente por la Ley.
- Siempre respetando la dignidad y los derechos reconocidos en la Constitución.
- Si no se realizase la prestación, el obligado deberá resarcir los daños y perjuicios.

Legislación: Ley 39/2015, arts. 97 a 105

BORONDATEZKO BETEARAZPENA

Administrazio-egintzaren edukia betetzeko **obligaziodunak bete egiten du, legez ezarritako epearen barruan,** Administrazioak horretara behartu beharrik gabe.

KONTZEPTUA ETA KASUAK

- Ezarritako epean administratuak **ez badu betetzen** administrazio-egintza, Administrazioak **baditu baliabideak egintza horretan adierazitakoa betearazteko**.
- Salbuespenak:
  - → **Betearazpena eteteko** kasuak, Legearen arabera.
  - → Konstituzioak edo Legeak **auzitegien esku-hartzea** eskatzen dutenean.

PRINTZIPIOAK

- Administrazio Zuzenbideari lotuta dauden Administrazio Publikoen egintzak **berehala betearaztekoak** dira, **salbu** eta betearazpena eteten bada edo ebazpenak administrazio-bidea amaitzen ez badu (*ikus ADMINISTRAZIO EGINTZEI buruzko fitxa, honako gida honetan*).
- Betiere egingo da **proportzionaltasun-printzipioari** jarraikiz.
- Betearazteko **bide bat baino gehiago** onargarri denean, **norbanakoaren askatasuna gutxien murrizten duena aukeratuko da.**

ALDEZ AURREKO BETEKIZUNAK

- Oinarri juridiko gisa balio duen **ebazpena** hartzea.
- Administrazio-jarduna baimentzen duen ebazpena **jakinaraztea** interesdunari.
- Aldez aurreko **ohartarazpena**.
- Ukituaren **egoitzan sartu beharra badago**, edo **titularraren baimena** behar den bestelako lekuetan, haren adostasuna lortu behar dute administrazio publikoek, edo, halakorik ezean, baimen judiziala.

NAHITAEZKO BETEARAZPENA

NAHITAEZ BETEARAZTEKO BITARTEKOAK

ONDAREAREKIKO PREMIAMENDUA

- Prozeduran **kopuru likido** bat ordaindu behar izanez gero, **premiamendu-prozedurari** jarraituko zaio.
- Administratuei ezein kasutan ezin ezarriko zaie **lege-mailako arau** baten arabera ezarrita ez dagoen diruzko betebeharrik.

BETEARAZPEN SUBSIDIARIOA

- **Guztiz pertsonalak ez diren egintzak**, obligazioduna ez den beste norbaitek egin ditzakeenak.
- Administrazio Publikoek egintza gauzatuko dute, beren kabuz edo haiek izendatutako pertsonen bitartez, **obligaziodunaren kontura.**
- Obligaziodunari **gastu eta kalte-galeren** zenbatekoa eskatuko zaio.
- Zenbateko hori **behin-behinekoz likida daiteke**, egintza betearazi baino lehen, eta gero behin betiko likidazioa egin.

HERTSATZEKO ISUNA

- Hertsatzeko isunak jartzea, agindutakoa **betetzeko behar adina denboraz errepikatuta.**
- Horiez gain, **bestelako zehapenak ere jar daitezke, haiekin bateragarriak izango baitira**.
- Kasuak:
  - → Legeek horretarako baimena ematen badute, eta legeek ezarritako zenbatekoaren arabera.
  - → Egintza guztiz pertsonaletan, obligazioduna zuzenean derrigortzea egoki ez denean.
  - → Derrigortzea bidezko izanda ere, Administrazioak komenigarritzat jotzen ez duenetan.
  - → Obligaziodunak beste bati egintzak betetzeko mandatua eman diezaiokeenean.

PERTSONAK DERRIGORTZEA

- Zerbait ez egiteko betebeharra edo jasateko betebeharra —betebehar guztiz pertsonala— ezartzen duten administrazio-egintzen kasuak.
- Legeak espresuki baimendu behar du.
- Betiere Konstituzioak aitortutako eskubideak eta duintasuna errespetatuz.
- Prestazioa ematen ez bada, obligaziodunak kalte-galerak ordaindu beharko ditu.

Legeria: 39/2015 Legea, 97-105 art.

NULIDAD DE ACTOS Y DISPOSICIONES ADMINISTRATIVAS

SUPUESTOS	• **L**os que **lesionen los derechos y libertades** susceptibles de amparo constitucional. • Los **dictados** por **órgano manifiestamente incompetente** por razón de la materia o del territorio. • Los que tengan un **contenido imposible**. • Los que sean constitutivos de infracción penal o se dicten como consecuencia de ésta. • Los dictados **prescindiendo total y absolutamente del procedimiento** legalmente establecido o de las normas que contienen las reglas esenciales para la formación de la voluntad de los órganos colegiados. • Los actos expresos o presuntos contrarios al ordenamiento jurídico por los que se **adquieren facultades o derechos cuando se carezca de los requisitos esenciales** para su adquisición. • Cualquier otro que se **establezca expresamente** en una **disposición de rango legal**. • Las **disposiciones administrativas** que vulneren la Constitución, las leyes u otras disposiciones administrativas de **rango superior,** las que regulen materias **reservadas a la ley**, y las que establezcan la **retroactividad de disposiciones sancionadoras** no favorables o restrictivas de derechos individuales.
CONSECUENCIAS	• El acto **carece de efectos** desde su dictado. • **No cabe convalidació**n del acto. • La nulidad ha de ser **declarada por la autoridad administrativa o judicial competente,** siguiendo el procedimiento establecido. Mientras tanto, el acto goza de presunción de validez y eficacia.

ANULABILIDAD DE ACTOS ADMINISTRATIVOS

SUPUESTOS	• Los actos de la Administración que incurran en **cualquier infracción del ordenamiento jurídico**, incluso la desviación de poder. • El **defecto de forma**, únicamente, determinará la anulabilidad cuando el acto carezca de los requisitos formales indispensables para alcanzar su fin o dé lugar a la indefensión de las personas interesadas. • La realización de actuaciones administrativas **fuera del tiempo establecido**, cuando el término o **plazo sea esencial.**
CONSECUENCIAS	• El acto **produce efectos**, en tanto no se anule. • **Cabe convalidación** del acto.

IRREGULARIDADES NO INVALIDANTES

SUPUESTOS	• **Defecto de forma**, pero sin carecer de los requisitos formales indispensables para alcanzar su fin, ni dar lugar a la indefensión de las personas interesadas. • Actuaciones administrativas **fuera del tiempo establecido** (si término o plazo **no esenciales**).
CONSECUENCIAS	El acto **produce efectos y subsiste** en el ordenamiento jurídico.

INEXISTENCIA DEL ACTO ADMINISTRATIVO

SUPUESTOS	El acto administrativo **carece de los requisitos mínimos** para ser considerado como tal.
CONSECUENCIAS	Figura doctrinal, no legal. La jurisprudencia le otorga el **tratamiento previsto legalmente para la nulidad**.

RESTRICCIONES A LA INVALIDEZ DE LOS ACTOS

LÍMITES A LA EXTENSIÓN DE LA NULIDAD O ANULABILIDAD DE LOS ACTOS (art. 49 Ley 39/2015)	La **invalidez de un acto o de parte** de éste **no determina la de los sucesivos** en el procedimiento o la del resto de las partes del acto, salvo que sin aquella parte el acto no hubiera sido dictado.
CONVERSIÓN (art. 50 Ley 39/2015)	Los actos **inválidos con el contenido de otro diferente**, producen los efectos de éste.
CONSERVACIÓN (art. 51 Ley 39/2015)	Conservación de **actos o trámites cuyo contenido hubiera sido igual, sin la invalidez**.

Legislación: Ley 39/2015, arts. 47 a 52

ADMINISTRAZIO-EGINTZEN ETA -XEDAPENEN DEUSEZTASUNA

KASUAK	• Konstituzioak babesten dituen **eskubide eta askatasunei kalte egiten dietenak.** • Gaiagatik edo lurraldeagatik **organo nabarmen eskumengaberen batek ematen dituenak**. • **Ezinezko edukia** dutenak. • Arau-hauste penala direnak edo arau-hauste penalaren ondorioz ematen direnak. • Legez ezarritako **prozedura erabat alde batera utziz** edo kide anitzeko organoek erabakiak hartzeko funtsezko arauak guztiz bazterturik eman direnak. • **Funtsezko betekizunak bete gabe ahalmen edo eskubide batzuk eskuratzeko** bide ematen duten egintza espresu edo presuntziozkoak, ordenamendu juridikoaren aurkakoak. • **Lege-mailako xedapen batean espresuki halakotzat jotako** beste edozein. • Konstituzioa, legeak edo administrazioaren **goragoko mailako** xedapenak urratzen dituzten **administrazio-xedapenak**; **legez arautu beharreko** gaiak arautzen dituztenak; eta aldekoak ez diren edo eskubide indibidualak murrizten dituzten **xedapen zehatzaileen atzeraeragina** ezartzen dutenak.
ONDORIOAK	• Egintzak **ez dauka ondoriorik**, ematen denetik. • Egintza **ezin da baliozkotu**. • **Agintari administratibo edo judizial eskumendunak deklaratu behar du** deuseztasuna, ezarritako prozedurari jarraituz. Bitartean, egintzak balio- eta efikazia-presuntzioa izango du.

ADMINISTRAZIO-EGINTZEN DEUSEZTAGARRITASUNA

KASUAK	• **Ordenamendu juridikoaren edozein arau hausten duten** administrazio-egintzak, aginte-desbideratze direnak barne. • **Forma-akatsak** kasu hauetan bakarrik egiten du deuseztagarri egintza: helburua lortzeko formazko betekizun ezinbestekoak betetzen ez dituenean edo interesdunen defentsa-gabezia eragiten duenean. • Administrazio-jardunak **ezarrita dagoen epetik kanpo egitea, epemuga edo epea funtsezkoak direnean.**
ONDORIOAK	• Egintzak **ondorioak ditu**, deuseztatzen ez den bitartean. • Egintza **baliozkotu egin daiteke**.

IRREGULARTASUN EZ BALIOGABETZAILEAK

KASUAK	• Administrazioaren egintzak **forma-akatsak** dituenean, baina egintzak bere helburua lortzeko formazko ezinbesteko baldintzak betetzen dituenean, edo interesdunak babesik gabe uzten ez dituenean. • **Ezarritako epetik kanpo** egindako administrazio-jardunak (epemuga edo epea **funtsezkoak ez badira**).
ONDORIOAK	Egintzak ordenamendu juridikoan **irauten du eta ondorioak ditu**.

ADMINISTRAZIO-EGINTZARIK EZ IZATEA

KASUAK	Administrazio-egintzatzat hartzeko **gutxieneko betekizunak betetzen ez dituenean**.
ONDORIOAK	Figura doktrinala, ez legala. **Legeak deuseztasunerako aurreikusten duen tratamendua** ematen dio jurisprudentziak.

EGINTZEN BALIOGABETASUNAREN MUGAK

EGINTZEN DEUSEZTASUNAREN EDO DEUSEZTAGARRITASUNAREN MUGAK **(39/2015 Legea, 49. art.)**	**Egintza baten edo egintza horren zati baten baliogabetasunak ez du zehazten prozedurako ondorengoena** edo egintzaren gainerako zatiena, salbu eta zati hura gabe egintza ez bazen emango.
BIHURKETA **(39/2015 Legea, 50. art.)**	Egintza **baliogabeek, beste egintza baten edukia badute**, azken egintza horren ondorioak izango dituzte.
KONTSERBAZIOA **(39/2015 Legea, 51. art.)**	**Baliogabetasunik izan ez balitz berdin jarraituko zuketen egintza edo izapideak** kontserbatzea.

Legeria: 39/2015 Legea, 47-52 artikuluak

REVISIÓN DE OFICIO DE ACTOS NULOS DE PLENO DERECHO

ACTOS REVISABLES	LEGITIMACIÓN	REQUISITOS
Actos administrativos que pongan **fin a la vía administrativa** o contra los cuales se hubiese dejado **transcurrir el plazo para interponer recursos** administrativos.	• La Administración, de **oficio**. • La Administración, **a instancia de las personas interesadas.** • En cualquier momento.	• Concurrencia de **nulidad** en el acto administrativo. *(Ver ficha 7.1.12 de NULIDAD Y ANULABILIDAD en esta misma guía).* • **Dictamen previo del Consejo de Estado** o del órgano consultivo de la Comunidad Autónoma.

DECLARACIÓN DE LESIVIDAD DE ACTOS ANULABLES

ACTOS REVISABLES	LEGITIMACIÓN	REQUISITOS
Actos **favorables para la persona interesada** que pongan **fin a la vía administrativa** o contra los cuales se hubiese dejado **transcurrir el plazo para interponer recursos** administrativos.	• La **Administración declara lesivo** el acto. • Seguidamente, la **Administración impugna el acto ante la jurisdicción contencioso-administrativa**.	• Concurrencia de **anulabilidad**. (*Ver ficha 7.1.12 de NULIDAD Y ANULABILIDAD en esta misma guía*). • Plazo: **4 años** desde que se dictó el acto.

REVOCACIÓN DE ACTOS

ACTOS SUSCEPTIBLES DE REVOCACIÓN	**Actos de gravamen o desfavorables** para el ciudadano.
LEGITIMACIÓN	La Administración podrá revocar actos administrativos **de oficio o a solicitud de las personas interesadas.**
PLAZO	Se podrán revocar **mientras no haya transcurrido el plazo de prescripción**.
LÍMITES	• No ha de suponer, **en ningún caso, dispensa o exención ilegal**. • No ha de ser contraria al principio de **igualdad, al interés público o al ordenamiento jurídico**.

RECTIFICACIÓN DE ERRORES

ERRORES A QUE SE REFIERE	Errores **materiales, de hecho o aritméticos** existentes en sus actos.
LEGITIMACIÓN	La Administración podrá rectificar estos errores, **de oficio o a solicitud de las personas interesadas.**
PLAZO	En cualquier momento.

LÍMITES A LA REVISIÓN DE ACTOS Y DISPOSICIONES

No cabrá revisión **cuando por prescripción de acciones, por el tiempo transcurrido o por otras circunstancias, su ejercicio resulte contrario a la equidad, a la buena fe, al derecho de los particulares o a las leyes.**

Legislación: Ley 39/2015, arts. 106 a 111

EGINTZA ERABAT DEUSEZAK OFIZIOZ BERRIKUSTEA

EGINTZA BERRIKUSGARRIAK	LEGITIMAZIOA	BETEKIZUNAK
Administrazio-bidea amaitzen duten administrazio-egintzak, edo **administrazio-errekurtsoak jartzeko epea igarota dutenak**.	• Administrazioak, **ofizioz**. • Administrazioak, **interesdunek eskatuta**. • Edozein unetan.	• Administrazio-egintzaren **deuseztasuna** gertatzea. *(Ikus DEUSEZTASUNARI ETA DEUSEZTAGARRITASUNARI buruzko 7.1.12 fitxa, gida honetan bertan).* • **Estatu Kontseiluaren** edo Autonomia Erkidegoko organo aholku-emailearen **aldez aurreko irizpena**.

EGINTZA DEUSEZTAGARRIAK KALTEGARRI DEKLARATZEA

EGINTZA BERRIKUSGARRIAK	LEGITIMAZIOA	BETEKIZUNAK
Interesdunaren aldekoak diren egintzak, **administrazio-bidea amaitu** dutenak edo beren aurkako **administrazio-errekurtsoa jarri ahal izateko epea amaituta** dutenak.	• **Administrazioak kaltegarri deklaratzen du** egintza. • Ondoren, **Administrazioak egintza aurkaratzen du administrazioarekiko auzien jurisdikzioan**.	• **Deuseztagarritasuna** gertatzea. *(Ikus DEUSEZTASUNARI ETA DEUSEZTAGARRITASUNARI buruzko 7.1.12 fitxa, gida honetan bertan).* • Epea: **4 urte** egintza eman zen egunetik.

EGINTZAK ERREBOKATZEA

ERREBOKA DAITEZKEEN EGINTZAK	**Kargak ezartzen dituzten edo herritarraren kalterako diren egintzak.**
LEGITIMAZIOA	Administrazioak administrazio-egintzak erreboka ditzake, **ofizioz edo interesdunek eskatuta.**
EPEA	Errebokatu ahal izango dira, **preskripzio-epea bete ez den bitartean.**
MUGAK	• **Ez du inolaz ere ekarriko dispentsa edo salbuespen ilegalik.** • Halaber, ezingo da izan **berdintasun-printzipioaren, interes publikoaren edo ordenamendu juridikoaren** aurkakoa.

AKATSAK ZUZENTZEA

AKATS MOTAK	Bere egintzetan dauden **akats materialak, egitezkoak edo aritmetikoak.**
LEGITIMAZIOA	Administrazioak akats horiek zuzen ditzake, **ofizioz edo interesdunek eskatuta.**
EPEA	Edozein unetan.

EGINTZAK ETA XEDAPENAK BERRIKUSTEAREN MUGAK

Berrikusteko ahalmenaz baliatzerik ez dago **egintzen preskripzioa, epeen amaiera edota bestelako gorabeherak direla eta, berrikusketa hori ekitatearen, fede onaren, herritarren eskubideen edo legeen aurkakoa bada**.

Legeria: 39/2015 Legea, 106-111 art.

	ACTOS IMPUGNABLES	INTERPOSICIÓN		RESOLUCIÓN	
		PLAZO	MOTIVO	ÓRGANO	PLAZO
RECURSO DE ALZADA	• Actos **definitivos** que **no ponen fin** a la vía administrativa. • Actos **de trámite cualificados** (los que deciden directa o indirectamente el fondo del asunto, determinan la imposibilidad de continuar el procedimiento, producen indefensión o perjuicio irreparable a derechos e intereses legítimos).	Si el acto es expreso **1 mes.** Si el acto es presunto, **en cualquier momento a partir del día siguiente a aquel en que, de acuerdo con su normativa específica, se produzcan los efectos del silencio administrativo.**	Cualquiera de las causas de **nulidad o anulabilidad.** *(Ver ficha 7.1.12 de NULIDAD Y ANULABILIDAD en esta misma guía).*	**Superior jerárquico** del órgano que dictó el acto.	**3 meses** para dictar y notificar la resolución.
RECURSO DE REPOSICIÓN	• Actos administrativos que **ponen fin** a la vía administrativa. • **Actos de trámite cualificados** (los que deciden directa o indirectamente el fondo del asunto, determinan la imposibilidad de continuar el procedimiento, producen indefensión o perjuicio irreparable a derechos e intereses legítimos).	Si el acto es expreso **1 mes.** Si el acto es presunto, **en cualquier momento a partir del día siguiente a aquel en que, de acuerdo con su normativa específica, se produzcan los efectos del silencio administrativo.**		Órgano **que dictó** el acto.	**1 mes** para dictar y notificar la resolución.
RECURSO DE REVISIÓN	Actos **firmes en vía administrativa**. *(Ver ficha 7.1.2., Actos administrativos de esta misma guía)*	**4 años** siguientes a la fecha de la notificación de la resolución impugnada.	**Error de hecho al dictarlos**, que resulte de los propios documentos incorporados al expediente.	Órgano **que dictó** el acto.	**3 meses** para dictar y notificar la resolución.
		3 meses desde que se produce alguno de los motivos de interposición.	• **Aparición de documentos** esenciales que evidencian el error de la resolución recurrida. • Influencia esencial, en el acto recurrido, de **falsedad documental o testimonial** (declaración por Sentencia judicial firme). • Acto incurra en conducta punible (**cohecho, violencia, prevaricación…**) declarada por Sentencia judicial firme.		

PROCEDIMIENTO DE TRAMITACIÓN DE LOS RECURSOS ADMINISTRATIVOS

INTERPOSICIÓN DEL RECURSO
Con indicación de la causa de nulidad o anulabilidad en que se basa.

SUSPENSIÓN DE LA EJECUCIÓN del acto:
Únicamente supuestos del art. 117 Ley 39/2015.

AUDIENCIA
A las personas interesadas en caso de nuevos hechos o documentos (art. 118 Ley 39/2015).

RESOLUCIÓN
- Estimación.
- Desestimación.
- Inadmisión.

Legislación: Ley 39/2015, arts. 112 a 126

	AURKARA DAITEZKEEN EGINTZAK	JARTZEA		EBAZTEA	
		EPEA	ARRAZOIA	ORGANOA	EPEA
GORA JOTZEKO ERREKURTSOA	• Administrazio-bideari **amaiera ematen ez dioten behin betiko** egintzak. • **Izapide-egintza kualifikatuak** dira, zuzenean zein zeharka gaiaren mamiaz erabakitzen badute, prozedura aurrera egin ezinik uzten badute, defentsa gabezia sortzen badute edo eskubide eta interes legitimoetan kalte konponezina sortzen badute.	Egintza espresua bada, **hilabete.** Egintza presuntziozkoa bada, **noiznahi, berariazko araudiaren arabera administrazio-isiltasunak ondorioak izan eta biharamunetik aurrera.**	**Deuseztasuneko edo deuseztagarritasuneko** edozein arrazoirengatik. *(Ikus DEUSEZTASUNARI ETA DEUSEZTAGARRITASUNARI buruzko 7.1.12 fitxa, gida honetan bertan).*	Egintza eman zuen organoaren **goragokoak hierarkian**.	**3 hilabete** ebazpena eman eta jakinarazteko.
BERRAZTERTZEKO ERREKURTSOA	• Administrazio-bidea **amaitzen duten** administrazio-egintzak. • **Izapide-egintza kualifikatuak** dira, zuzenean zein zeharka gaiaren mamiaz erabakitzen badute, prozedura aurrera egin ezinik uzten badute, defentsa gabezia sortzen badute edo eskubide eta interes legitimoetan kalte konponezina sortzen badute.	Egintza espresua bada, **hilabete.** Egintza presuntziozkoa bada, **noiznahi, berariazko araudiaren arabera administrazio-isiltasunak ondorioak izan eta biharamunetik aurrera.**		Egintza **eman zuen** organoa.	**Hilabete** ebazpena eman eta jakinarazteko.
BERRIKUSTEKO ERREKURTSOA	**Administrazio-bidean irmoak** diren egintzak. *(Ikus 7.1.2 fitxa, administrazio-egintzei buruzkoa, gida honetan bertan).*	**4 urte,** aurkatutako ebazpena jakinarazi zen egunetik zenbatzen hasita. **3 hilabete** errekurtsoa jartzeko arrazoietako bat sortzen den unetik.	**Egitezko akatsa egintza ematerakoan**, espedienteari erantsitako dokumentuen ondoriozkoa. • Funtsezko **dokumentuak agertzea**, eta dokumentu horiek errekurtsoa jarri zaion ebazpenean akatsen bat badagoela agerian jartzea. • **Dokumentu- edo testigantza-faltsutzeak** funtsezko eragina izatea errekurritutako egintzan (epai judizial irmo batek deklaratua). • Egintza zigortzeko moduko jokabidean erortzea (**funtzionario-eroskeria, indarkeria, prebarikazioa...**), epai judizial irmo batek deklaratua.	Egintza **eman zuen** organoa.	**3 hilabete** ebazpena eman eta jakinarazteko.

ADMINISTRAZIO-ERREKURTSOAK IZAPIDETZEKO PROZEDURA

ERREKURTSOA JARTZEA
Oinarritzat hartu duen deuseztasun- edo deuseztagarritasun-arrazoia adierazita.

Egintzaren BETEARAZPENA ETETEA:
39/2015 Legearen 117. artikuluko kasuak **soilik**.

ENTZUNALDIA
Interesdunei, baldin eta egintza edo dokumentu berriak badaude (39/2015 Legearen 118 art.).

EBAZPENA
- Baiespena.
- Ezespena.
- Ez onartzea.

Legeria: 39/2015 Legea, 112-126 art.

ACTIVIDAD ADMINISTRATIVA IMPUGNABLE	PLAZO DE INTERPOSICIÓN DEL RECURSO	PRETENSIONES DE LAS PARTES
REGLAMENTOS (art. 25 LJCA). **ACTOS DE LA ADMINISTRACIÓN** (expresos o presuntos) que pongan fin a la vía administrativa (art. 25 LJCA). **ACTOS DE TRÁMITE (CUALIFICADOS):** si deciden directa o indirectamente el fondo del asunto, determinan la imposibilidad de continuar el procedimiento o producen indefensión o perjuicio irreparable.	**Acto expreso: 2 meses** desde el día siguiente al de publicación de la disposición o de notificación del acto. **Acto presunto: plazo abierto *sine die***.	• **Declaración de no ser conforme a Derecho** y, en su caso, anulación de actos y disposiciones. • **Reconocimiento de una situación jurídica individualizada y adopción de medidas adecuadas** para el pleno restablecimiento de la misma (indemnización).
VÍA DE HECHO (art. 30 LJCA): Cualquier actividad material de la administración que, afectando a una persona interesada, no esté cubierta por un acto administrativo previo. 2 opciones procesales: • **Requerir el cese a la Administración,** acudiendo a la jurisdicción contencioso-administrativa si transcurren 10 días tras el requerimiento. • **Acudir directamente a la jurisdicción contencioso-administrativa** sin requerimiento previo.	**Con requerimiento: 10 días** desde el siguiente a la **terminación** del plazo previsto para contestarlo (10 días). **Si no hay requerimiento: 20 días** a partir del día en que se inició la actuación administrativa en vía de hecho.	• **Declaración** de ser contraria a Derecho. • **Cese de la actuación.** • Adopción de las **medidas de reconocimiento de una situación jurídica individualizada** o de restablecimiento de la misma.
INACTIVIDAD DE LA ADMINISTRACIÓN (art. 29 LJCA): **1. Derecho a una prestación concreta:** Cuando la administración, en virtud de una disposición (que no precise de actos de aplicación), o en virtud de un acto, contrato o convenio administrativo, **esté obligada a realizar una prestación concreta** a favor de una o varias personas determinadas, quienes tengan derecho a la prestación deben: • **Reclamar a la administración** el cumplimiento de dicha obligación. • Si en **3 meses no se cumple** o no llega a acuerdo con las personas interesadas: pueden interponer **recurso contencioso-administrativo** contra la inactividad. **2. Ejecución de un acto firme:** **No ejecución por la administración de sus actos** firmes: • **Afectados: deben solicitar su ejecución**, y si no se produce **en 1 mes,** acudir ante la jurisdicción contencioso-administrativa.	**2 meses,** contados a partir del día siguiente al vencimiento de los plazos señalados anteriormente (3 meses/1 mes).	• **Cumplimiento de las obligaciones** de la Administración.

AURKARA DAITEKEEN ADMINISTRAZIO-JARDUERA	ERREKURTSOA JARTZEKO EPEA	ALDERDIEN UZIAK
ERREGELAMENDUAK (AAJL, 25. artikulua). **ADMINISTRAZIOAREN EGINTZAK** (espresuak edo presuntziozkoak), administrazio-bidea agortzen dutenak (AAJL, 25. artikulua). **IZAPIDETZE-EGINTZAK (KUALIFIKATUAK):** zuzenean zein zeharka gaiaren mamiaz erabakitzen badute, prozedura aurrera egin ezinik uzten badute, defentsa gabezia sortzen badute edo kalte konponezina sortzen badute.	**Egintza espresua: 2 hilabete**, xedapena argitaratu edo egintza jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera. **Presuntziozko egintza: epe irekia, *sine die*.**	• **Zuzenbidearen araberakoa ez dela deklaratzea**, eta, hala badagokio, egintzak eta xedapenak deuseztatzea. • **Egoera juridiko indibidualizatu bat aitortzea eta neurri egokiak hartzea,** egoera hori guztiz berrezar dadin (kalte-ordaina).
INTEGRACIÓN EN EL GRUPO MIXTO	La posibilidad de pasarse, de un determinado grupo político municipal, al grupo mixto (que podrá ir nutriéndose a lo largo de la legislatura), para concejales que no estén de acuerdo con la política de su grupo, o para concejales a los que su grupo político expulsa.
MOCIÓN, RUEGOS Y PREGUNTAS	• Mecanismos de **control y fiscalización** de los órganos de gobierno municipal. • Tienen lugar en las **sesiones plenarias ordinarias**. • **Un supuesto específico** de moción se contempla en el artículo 106.3 del Reglamento de Organización y Funcionamiento: moción para que el Pleno manifieste su posición **sobre la gestión de la Junta de Gobierno**.

PRINTZIPIO OROKORRA

Espainiako Konstituzioak, 9.3. artikuluan, bermatu egiten du «**ERANTZUKIZUNA ETA BOTERE PUBLIKOEN ARBITRARIOTASUNAREN DEBEKUA».** Horrek, **erreferentzia generikoa** den arren, bere baitan jasotzen ditu, egon daitezkeen beste **erantzukizun**-mota batzuez gain, **izaera politikoa** duena, Espainiako Konstituzioaren 9.2. artikuluan aurreikusten den **gobernu-ekintzaren kontrapartida** gisa.

Hala ere, legeriak **ez du berariazko prozedurarik**, toki-korporazioetako **kide guztien erantzukizun politikoa** exijitzeko.

TOKI-KORPORAZIOKO KIDEEN ERANTZUKIZUN POLITIKOA EXIJITZEKO BITARTEKOAK

ZENTSURA-MOZIOA	• **Gobernu-ekintzarengatiko** erantzukizun politikoa **alkateari** exijitzeko bitartekoa. • Korporazioko kideen **legezko kopuruaren** gutxienez **gehiengo absolutuak** proposatu behar du. • Proposamenean, **alkatetzarako hautagai** bat jaso behar da, edozein zinegotzi izan daitekeena, baldin eta berariaz onartzen duela adierazten bada. • **Alkatearen aurka** jotzen du, **eta, onartzen bada, bere kargua utzi beharko du**, erabakia hartzen den unean bertan. Hala, proposatzen den hautagaiak ordezkatuko du. • Hemen **araututa**: → Hauteskundeen Araubide Orokorrari buruzko Lege Organikoaren 197. eta 197 bis artikuluetan. → Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 22.3. artikuluan. → Antolaketa eta Funtzionamenduko Erregelamenduaren 40.6, 50.1, 107 eta 108. artikuluetan.
KONFIANTZA-ARAZOA	• Alkateak plantea dezake berariaz osoko bilkuran, honako gaietako edozein onartu edo aldatzearekin lotuta: → Urteko aurrekontuak. → Erregelamendu organikoa. → Ordenantza fiskalak. → Udalerriko plangintza orokorrerako tresnak izapidetzen amaitzeko onarpena. • Gaia onartzen ez bada, alkateak zuzenean uzten du bere kargua, jardunean geratzen da, eta hamargarren egun baliodunean osoko bilkura deitzen da, beste alkate bat hautatzeko. • Hauteskundeen Araubide Orokorrari buruzko Lege Organikoaren 197 bis artikuluan arautua.
TALDE MISTOAN SARTZEA	Udaleko talde politiko batetik talde mistora (legealdian zehar hazten jarraitu ahal izango du) pasatzeko aukera, bere taldearen politikarekin ados ez dauden zinegotzientzat edo beren talde politikotik kanporatu dituzten zinegotzientzat.
MOZIOA, ESKAERAK ETA GALDERAK	• Udaleko gobernu-organoak **kontrolatu eta fiskalizatzeko** mekanismoak. • **Udalbatzaren bilera arruntetan** egiten dira. • Mozio **kasu espezifiko bat** jasotzen da Antolaketa eta Funtzionamenduko Erregelamenduaren 106.3. artikuluan: Osoko Bilkurak **Gobernu Batzarraren kudeaketaren** inguruko jarrera azaltzeko mozioa.

<table>
<tr><td>CONCEPTO</td><td colspan="2">
• La responsabilidad patrimonial es aquella por la que la administración debe INDEMNIZAR LOS DAÑOS Y PERJUICIOS causados a las personas (físicas o jurídicas, privadas o públicas) en sus bienes y derechos como consecuencia del funcionamiento de los servicios públicos o de la actuación de sus autoridades, funcionarios o agentes.
• Se concreta en la obligación de resarcir los daños, evaluables económicamente, que sean ocasionados por una acción u omisión imputable a la administración pública, tanto si se deben a un funcionamiento anormal como normal de los servicios.
</td></tr>
<tr><td>PRINCIPIO DE TOTAL INDEMNIDAD</td><td colspan="2">
• Artículo 32.1 de la Ley 40/2015, de Régimen Jurídico del Sector Público (y en el mismo sentido el 54 de la LRBRL):
→ «Los particulares tendrán derecho a ser indemnizados por las Administraciones Públicas correspondientes, de toda lesión que sufran en cualquiera de sus bienes y derechos, siempre que la lesión sea consecuencia del funcionamiento normal o anormal de los servicios públicos salvo en los casos de fuerza mayor o de daños que el particular tenga el deber jurídico de soportar de acuerdo con la Ley».
• La administración a la que sea imputable el daño está obligada a DEJAR INDEMNE A LA VÍCTIMA:
→ Es decir, debe procurar la REPARACIÓN INTEGRAL DEL DAÑO, de modo que quede restaurada la integridad del patrimonio de la persona perjudicada, restituyéndolo en su pleno valor anterior al suceso dañoso.
→ Este principio se proclama en el ámbito de la responsabilidad civil derivada del uso de vehículos a motor por el Anexo de la Ley sobre Responsabilidad Civil y Seguro en la Circulación de Vehículos a Motor (Ley 35/2015, de 22 de septiembre, de reforma del sistema para la valoración de los daños y perjuicios causados a las personas en accidentes de circulación), en la que para asegurar la total indemnidad de los daños y perjuicios se tienen en cuenta, además, las circunstancias económicas, —incluidas las que afectan a la capacidad de trabajo y pérdida de ingresos de la víctima—, las circunstancias familiares y personales y otras circunstancias que puedan servir para la exacta valoración del daño.
</td></tr>
<tr><td>ESTÁNDARES</td><td colspan="2">
• Aun cuando el funcionamiento normal de un servicio también puede dar lugar a responsabilidad patrimonial de la Administración —no solo el funcionamiento anormal—, si ese funcionamiento se ajustó al «estándar de calidad de los servicios socialmente admitido», entonces, por regla general, no habrá derecho a indemnización. Así pues, un sistema muy amplio de responsabilidad presupone un estándar alto de calidad de los servicios.
→ El casuismo impregna todo el sistema.
→ Lo que sea PROPORCIONADO o no, en ausencia de referentes legales sobre CÓMO DEBE SER Y ACTUAR LA ADMINISTRACIÓN, acaba siendo una decisión de cada juez. Si el juez toma el elemento comparativo a partir de un estándar alto de calidad en el funcionamiento medio de los servicios, los supuestos de responsabilidad se amplían, pues todo funcionamiento por debajo de ese nivel óptimo —ideal— implicaría un «funcionamiento anormal» cuyos daños serían siempre indemnizables y viceversa.
• Es imprescindible lograr el EQUILIBRIO entre la responsabilidad patrimonial como consecuencia del funcionamiento de los servicios públicos, sus posibilidades de gestión, sus pautas de calidad determinadas a través de las Cartas de Servicios, y los recursos económicos y financieros disponibles.
</td></tr>
<tr><td rowspan="5">CARACTERÍSTICAS DEL SISTEMA</td><td>Es un
SISTEMA UNITARIO</td><td>Rige para todas las administraciones públicas —territoriales, corporativas e institucionales—, según el concepto que de las mismas se contiene en los artículos 2.1 y 2.2 de la Ley 39/2015, de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, el artículo 2.1 de la Ley 40/2015, de Régimen Jurídico del Sector Público y el artículo 1.2 de la Ley reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa.

Incluso cuando la Administración actúa en relaciones de derecho privado rige este mismo sistema.</td></tr>
<tr><td>Es un sistema GENERAL</td><td>Se refiere a toda la actividad administrativa, sea de carácter jurídico o puramente fáctico, y tanto por acción como por omisión.</td></tr>
<tr><td>Es una
RESPONSABILIDAD DIRECTA</td><td>La administración cubre directamente, y no sólo de forma subsidiaria, la actividad dañosa de sus autoridades, funcionarios y personal laboral, pero deberá ejercitar después la acción de regreso frente a aquellos, cuando hubieran incurrido en dolo, culpa o negligencia graves.

El perjudicado no puede dirigir su reclamación de responsabilidad directamente a la autoridad o empleado público, salvo que se denuncie por vía penal, en cuyo caso se podrá reclamar también por esta vía la responsabilidad civil.</td></tr>
<tr><td>Es un régimen de
CARÁCTER OBJETIVO</td><td>Prescinde de la idea de culpa, por lo que la causalidad (relación causa-efecto) adquiere la máxima relevancia.</td></tr>
<tr><td>Pretende lograr una
REPARACIÓN INTEGRAL</td><td>Articulada desde la óptica de la persona física o jurídica dañada.</td></tr>
<tr><td rowspan="3">EXCLUYEN LA RESPONSABILIDAD
(no serán indemnizables)</td><td>FUERZA MAYOR</td><td>No serán indemnizables los daños que se derivan de hechos o circunstancias que no se hubiesen podido evitar.</td></tr>
<tr><td>CULPA EXCLUSIVA DE LA VÍCTIMA O DE TERCEROS AJENOS A LA ADMINISTRACIÓN</td><td>No serán indemnizables los daños que tengan la causa, exclusivamente, en la persona perjudicada o en terceros ajenos a la administración.

Concurrencia de culpas: si, además de la Administración, la propia víctima o un tercero son parcialmente responsables de causar el daño, la reparación o indemnización a cargo de la Administración se reducirá proporcionalmente.</td></tr>
<tr><td>DAÑOS IMPREVISIBLES O INEVITABLES
por el estado de los conocimientos</td><td>No serán indemnizables los daños que se deriven de hechos o circunstancias que NO SE HUBIESEN PODIDO PREVER O EVITAR SEGÚN EL ESTADO DE LOS CONOCIMIENTOS DE LA CIENCIA O DE LA TÉCNICA existentes en el momento de producción de aquéllos (sin perjuicio de las prestaciones asistenciales o económicas que estuvieran establecidas).</td></tr>
</table>

Legislación: Ley 40/2015, de Régimen Jurídico del Sector Público, arts. 25 a 31
Ley 39/2015, Ley de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, arts. varios (según fase del procedimiento)

<table>
<tr><td>KONTZEPTUA</td><td colspan="2">

Zerbitzu publikoen funtzionamenduaren edo horietako agintari, funtzionario edo agenteen jardueraren ondorioz pertsonen (fisikoak edo juridikoak, pribatuak edo publikoak) ondasunetan eta eskubideetan eragindako KALTEEN ZIOZKO ORDAINA eman behar duenean administrazioak hitz egiten da ondare-erantzukizunari buruz.
Administrazio publikoari egotz dakiokeen ekintza edo hutsune baten ondorioz sortzen diren kalteak, ekonomikoki ebaluagarriak, ordaintzeko betebeharra da, zerbitzuen funtzionamendu ohikoaren nahiz ezohikoaren zioz izanda ere.

</td></tr>
<tr><td>BERME OSOAREN PRINTZIPIOA</td><td colspan="2">

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen 32.1. artikulua (eta, ildo beretik, TAOLen 54. artikulua):
→ «Administrazio publikoek ordaindu egin behar dizkiete subjektu pribatuei beren ondasun eta eskubideetan eragindako kalteak, betiere, izandako kaltea zerbitzu publikoen jarduera on edo txarraren ondorioz sortu bada, salbu, ezinbesteko kasuak direnean edo Legeak agindutakoaren arabera partikularrari ezartzen dionean kalteak jasateko eginbeharra».
Kaltea egotz dakiokeen administrazioak BIKTIMA ONIK UZTEKO betebeharra du:
→ Hau da, KALTEA ERABAT KONPONTZEN saiatu behar du, kaltetutako pertsonaren ondarea osotasunean leheneratuta geratzeko moduan, kaltea eragin aurretik zuen balio osoa itzulita.
→ Erantzukizun Zibilari eta Ibilgailu Motordunen Zirkulaziorako Aseguruari buruzko Legearen Eranskinaren bidez (irailaren 22ko 35/2015 Legea, Zirkulazio-istripuetan pertsonei eragindako kalte-galerak baloratzeko sistemaren erreformarena), printzipio hau aldarrikatzen da ibilgailu motordunen erabileraren ondoriozko erantzukizun zibilaren esparruan; bertan, kalte eta galerek erabateko ordaina izango dutela ziurtatzeko, kontuan hartzen dira inguruabar ekonomikoak —lan-gaitasunari eragiten diotenak eta biktimaren diru-sarreren galera barne hartuta—, familiako inguruabarrak eta inguruabar pertsonalak zein kaltea zehatz-mehatz balioesteko balio dezaketen bestelako inguruabarrak ere.

</td></tr>
<tr><td>ESTANDARRAK</td><td colspan="2">

Zerbitzu baten ohiko funtzionamenduak administrazioaren ondare-erantzukizuna eragin dezakeenean ere —ez soilik ezohiko funtzionamenduak—, funtzionamendu hori egokitu egin bazen «sozialki onartutako zerbitzuen kalitate-estandarrera», orduan, orokorrean, ez da kalte-ordaina jasotzeko eskubiderik egongo. Ondorioz, erantzukizun-sistema oso zabalak zerbitzuen kalitate-estandar altua behar du.
→ Kasuismoak sistema osoan du eragina.
→ Administrazioak NOLAKOA IZAN BEHAR DUEN ETA NOLA JARDUN BEHAR DUEN adierazten duen lege-erreferenterik ezean, azkenean epaile bakoitzak erabakitzen du ZER ESKAINI ETA ZER EZ. Epaileak kalitate-estandar altu batetik abiatuta elementu alderagarri bat hartzen badu zerbitzuen batez besteko jardunbidean, erantzukizun-kasuak zabaldu egiten dira; izan ere, maila ezin hobe —ideal— horretatik beherako funtzionamendu orok «ez-ohiko funtzionamendua» ekarriko luke, eta horren kalteak beti ordaintzeko modukoak izango lirateke eta alderantziz.
Ezinbestekoa da zerbitzu publikoen jardunbidearen ondoriozko ondare-erantzukizunaren, kudeaketa-aukeren, Zerbitzu Gutunen bidez zehazturiko kalitate-jarraibideen eta baliabide ekonomiko eta finantzario eskuragarrien arteko OREKA lortzea.

</td></tr>
<tr><td rowspan="5">SISTEMAREN EZAUGARRIAK</td><td>SISTEMA UNITARIOA da</td><td>Administrazio publiko guztientzat —lurraldekoak, korporatiboak eta instituzionalak— agintzen du, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 2.1 eta 2.2. artikuluetan, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen 2.1. artikuluan eta Administrazioarekiko Auzibideen Jurisdikzioa arautzen duen Legearen 1.2. artikuluan horiei buruz jasotzen den kontzeptuaren arabera.

Administrazioak zuzenbide pribatuko harremanetan jarduten duenean ere, sistema hori bera aplikatzen da.</td></tr>
<tr><td>Sistema OROKORRA da</td><td>Jarduera administratibo osoari dagokio, juridikoa zein faktiko hutsa izan, ekintzagatik zein ez egiteagatik.</td></tr>
<tr><td>ERANTZUKIZUN ZUZENA da</td><td>Administrazioak zuzenean, eta ez soilik modu ordezkatzailean, estaltzen du bere agintari, funtzionario eta langileen kalte-jarduera, baina gero itzultze-ekintza gauzatu beharko du, haiek iruzur, erru edo arduragabekeria larriak egin badituzte.

Kaltetuak ezin dio bere ondare-erantzukizuneko erreklamazioa zuzenean agintari edo enplegatu publikoari zuzendu, ez bada arlo penalean salatzen. Hala eginez gero, bide horretatik ere erreklamatu ahalko du erantzukizun zibila.</td></tr>
<tr><td>IZAERA OBJEKTIBOKO erregimena da</td><td>Erru-ideia baztertzen du eta, beraz, kausalitateak (kausa-ondorioa harremana) du garrantzirik handiena.</td></tr>
<tr><td>ERABATEKO KONPONKETA lortzea du helburu</td><td>Kaltetutako pertsona fisiko edo juridikoaren ikuspegitik.</td></tr>
<tr><td rowspan="3">ERANTZUKIZUNA BAZTERTZEN DUTE (ez dira ordainduko)</td><td>EZINBESTEKO KAUSA</td><td>Ez dira ordainduko gertaera edo inguruabar saihestezinen ondoriozko kalteak.</td></tr>
<tr><td>ERRUA SOILIK BIKTIMAREN EDO ADMINISTRAZIOAZ BESTEKO HIRUGARRENENA IZATEA</td><td>Ez dira ordainduko soilik pertsona kaltetuak edo administrazioaz besteko hirugarrenek eragindako kalteak.

Hainbat erru: administrazioaz gain, kaltea eragitearen arduradun partziala biktima bera edo hirugarren bada, administrazioak eman beharreko kalte-ordaina edo konponketa proportzionalki murriztuko da.</td></tr>
<tr><td>Jakintzen egoera dela-eta AURREIKUSI EDO SAIHESTU EZIN DIREN KALTEAK</td><td>Kaltea dakarren gertakari edo gorabehera bada, eta, nahiz une horretako ZIENTZIAK ZEIN TEKNIKAK ESKAINITAKO BIDE GUZTIAK ERABILITA EZIN BADA AURRETIK IKUSI EDO SAIHESTU, orduan, ez da kalterik zertan ordaindu (legez ezarrita dauden laguntzak edo diruak gorabehera).</td></tr>
</table>

Legeria: 40/2015 Legea, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena, 25-31. artikuluak
39/2015 Legea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena, hainbat artikulu (prozedura-fasearen arabera)

DAÑO	• Hay que entender el **daño como LESIÓN RESARCIBLE**. • **CARACTERÍSTICAS** exigibles al daño (**artículo 32 de la Ley 40/2015**, de Régimen Jurídico del Sector Público): → **Individualizado** en relación a una persona o grupo de personas. Quedan excluidos los «daños generales» o «cargas colectivas» derivadas de la vida en sociedad (por ejemplo: se excluye el carácter antijurídico de los daños derivados de la construcción de una carretera de circunvalación en los propietarios de las viviendas de una urbanización contigua a la misma). → **Efectivo: real,** lo que implica probarlo. → **Evaluable económicamente,** incluyendo los daños morales.
ANTIJURÍDICO	• La ANTIJURIDICIDAD se predica **DEL EFECTO DE LA ACTIVIDAD ADMINISTRATIVA,** no respecto de la actuación en sí del agente de la administración causante del daño. → El daño es resarcible cuando la persona afectada **no está obligada a soportarlo**, es decir, cuando no haya causas justificativas que impongan el deber de tolerarlo. → Supone la **inexistencia en Derecho de un título legítimo que justifique la carga impuesta** a la persona afectada, por lo que esta nota desaparecerá cuando concurra alguna causa de justificación que legitime el daño, algún título o precepto legal que imponga a aquélla el deber de sacrificarse por la sociedad.
RELACIÓN DE CAUSALIDAD	• LA **CAUSA** del daño debe ser, por sí sola, **idónea** o **adecuada** para producir el daño, con arreglo a la experiencia común. Esto es, debe existir una adecuación objetiva y verosímil entre acto y resultado.
	• **LA LESIÓN IMPUTABLE A LA ADMINISTRACIÓN** ha de ser imputable a ésta por el **FUNCIONAMIENTO «NORMAL O ANORMAL DE LOS SERVICIOS PÚBLICOS»**. → No es necesario que se trate de un servicio público en sentido estricto, basta con que se trate de **CUALQUIER ACTUACIÓN, ACTIVIDAD O GESTIÓN PÚBLICA** realizada en el marco del giro o tráfico administrativo. Se incluye tanto el mal funcionamiento del servicio, como el funcionamiento tardío o la ausencia de funcionamiento, para cuya verificación sería preciso un elemento de cotejo, un estándar medio y comparativo que, al no existir, en la práctica es fijado caso a caso por los Tribunales. → La doctrina jurisprudencial ha reconocido junto al «servicio público», otros posibles títulos de imputación de responsabilidad a la administración, como son los derivados de la **«CREACIÓN DE UNA SITUACIÓN DE RIESGO»**. → No es preciso **que la actuación que genera el daño sea contraria al ordenamiento jurídico**. • Debe haber una **LESIÓN IMPUTABLE A LAS ADMINISTRACIONES PÚBLICAS**, mediando una RELACIÓN DE **CAUSA-EFECTO**. → El daño causado debe estar producido en el marco de la prestación de un **servicio público o** de la **organización administrativa.** → La lesión puede **provenir anónimamente de la administración o personalmente de un empleado público o incluso de las autoridades políticas**.
	• **LA FÓRMULA DE IMPUTACIÓN INCLUYE**: → Tanto **el daño material causado de forma lícita** (por ejemplo, la acción de los bomberos que actúan guiados por una falsa alarma), **como el producido ilegítimamente** (por ejemplo, los daños causados por actos administrativos declarados posteriormente ilegales). → Incluye también tanto el **daño causado por una persona concreta perfectamente identificada** (el funcionario conductor, el policía, etc.), como el **daño anónimo imputable sin más al servicio y a la administración** que lo gestiona: **daños** por defectos de obras públicas o de instalación de servicios, por el mal estado de las carreteras, por ausencia de señalizaciones, etc.
	• Daños **padecidos** por los propios **empleados públicos:** teoría del **«RIESGO INHERENTE A LA FUNCIÓN»**: → El siniestro es una contingencia acaecida en el normal desempeño de las obligaciones funcionariales, dando lugar al **nacimiento de un régimen prestacional propio**. → Tal **«riesgo inherente» no excluye, *per se*, la responsabilidad patrimonial**, sin perjuicio de que en ciertos casos sirva para **modular el quantum indemnizatorio**. Ahora bien, en ningún caso la teoría del riesgo puede vaciar de contenido un mandato constitucional.

KALTEA	• **Kaltea ORDAINTZEKO MODUKO KALTETZAT** hartu behar da. • Kalteari exijitu dakizkiokeen **EZAUGARRIAK** (Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren **40/2015 Legearen 32. artikulua**): → Pertsona edo pertsona-talde batentzat **neurtzeko modukoa**. Baztertuta geratzen dira gizartean bizitzearen ondoriozko «kalte orokorrak» edo «karga kolektiboak» (adibidez, kanpo uzten da saihesbideren bat eraikitzearen ondorioz aldameneko urbanizazioko etxebizitzen jabeei eragindako kalteen izaera antijuridikoa). → **Benetakoa: erreala** izan behar du, eta frogatu egin behar da. → **Ekonomikoki ebaluatzeko modukoa** izan behar du, kalte moralak barne hartuta.
ANTIJURIDIKOA	• ANTIJURIDIKOTASUNA **JARDUERA ADMINISTRATIBOAREN ONDORIOZ** aldarrikatzen da, ez kaltea eragin duen administrazioko agentearen jarduketari berari dagokionez. → Kaltea ordaintzeko modukoa da kaltetutako pertsona **halakorik jasatera behartua ez badago**, hau da, hori jasateko betebeharra ezartzen duen kausa justifikatiborik ez badago. → **Zuzenbidean** kaltetutako pertsonari **ezarritako karga justifikatzen duen legezko titulurik ez egotea** dakar, beraz, ohar hau desagertu egingo da kaltea justifikatzen duen kausaren bat badago, gizartearen alde sakrifikatzeko betebeharra ezartzen dion tituluren bat edo lege-manuren bat izanez gero.
KAUSALITATE -LOTURA	• Kaltearen **KAUSA** bere horretan izan behar da **egokia** edo **aproposa** kaltea eragiteko, esperientzia komunaren arabera. Hau da, egintzaren eta emaitzaren artean egokitzapen objektibo eta sinesgarria egon behar da.
	• **ADMINISTRAZIOARI EGOTZ DAKIOKEEN KALTEAK «ZERBITZU PUBLIKOEN OHIKO EDO EZ-OHIKO» FUNTZIONAMENDUAREN** ondorioa izan behar du. → Ez da beharrezkoa zerbitzu publikoa izatea zentzu hertsian, nahikoa da trafiko administratiboaren esparruan egindako **JARDUKETA, JARDUERA EDO KUDEAKETA PUBLIKOA** izatearekin. Barne hartzen dira zerbitzuaren funtzionamendu txarra, beranduko funtzionamendua eta funtzionamendu-eza, eta hori egiaztatzeko alderaketa-elementu bat beharko litzateke, batez besteko estandar alderagarria. Halakorik ez dagoenez, ordea, Epaitegiek finkatzen dute kasuz kasu. → Jurisprudentziako doktrinak, «zerbitzu publikoarekin» batera, administrazioari erantzukizuna egozteko beste titulu posible batzuk onartu ditu; **«ARRISKU EGOERA SORTZEAREN»** ondoriozkoak, kasu. → Ez da beharrezkoa **kaltea sortzen duen jarduketa antolamendu juridikoaren aurkakoa izatea**. • **ADMINISTRAZIO PUBLIKOEI EGOTZ DAKIEKEEN KALTE** bat izan behar da, **KAUSA-ONDORIOA** HARREMANA tartean. → Eragindako kaltea **zerbitzu publiko** bat emateko edo **administrazioa antolatzeko** esparruan sartu behar da. → Lesioaren sortzailea **administrazioa izan daiteke, modu anonimoan, edo langile publiko bat pertsonalki, edo are agintari politikoak ere**.
	• **EGOZTE-FORMULAK BARNE HARTZEN DITU**: → **Legez eragindako kalte materiala** (adibidez, alarma faltsu baten kariz diharduten suhiltzaileen ekintzaren ondorioz) **zein legez kontra eragindakoa** (adibidez, gero legearen aurkakotzat jotako egintza administratiboen ondoriozko kalteak). → Barne hartzen ditu **ongi identifikatutako pertsona jakin batek eragindako kaltea** (funtzionario gidariak, poliziak, etab.) zein **besterik gabe zerbitzuari eta hori kudeatzen duen administrazioari egotz dakiekeen kalte anonimoa**: obra publikoen edo zerbitzuak instalatzeko obren akatsen, errepideen egoera txarraren, seinaleztapenik ezaren eta abarren ondoriozko **kalteak**.
	• **Enplegatu publikoek jasandako** kalteak**: «FUNTZIOAREN BEREZKO ARRISKUAREN»** teoria: → Ezbeharra funtzionarioen eginkizunak betetze arruntean gertatzen den gertakizuna da, eta **prestazio-araubide propioa sortzea** eragiten du. → **«Berezko arrisku» horrek ez du, *per se*, ondare-erantzukizuna baztertzen**, zenbait kasutan **kalte-ordainaren quantum-a modulatzeko** balio izatearen kaltetan izan gabe. Hala ere, arriskuaren teoriak ezin du inolaz ere Konstituzioaren agindua edukiz hustu.

DAÑOS FISIOLÓGICOS	• Es una manifestación del **DAÑO CORPORAL**. → Es la manifestación orgánica en que se traduce la lesión, como un quebranto de la salud. → Comprende el daño psicofísico, distinto del moral, es decir, tanto el daño físico como el psíquico, incluyendo tanto las lesiones **permanentes** (secuelas) como las perturbaciones **transitorias** de la salud hasta la sanación total o hasta que las lesiones queden estabilizadas (normalmente coincidirá con el alta médica). • El artículo **67 de la Ley 39/2015**, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas establece una **IMPORTANTE PARTICULARIDAD PARA EL CÓMPUTO DEL AÑO DE PRESCRIPCIÓN**. Así, el plazo de prescripción del derecho a reclamar —que, con carácter general, finaliza al año de producido el hecho o el acto que motive la indemnización o de manifestarse su efecto lesivo— en caso de daños de carácter físico o psíquico a las personas, comenzará a computarse desde la curación o la determinación del alcance de las secuelas.
	• La **CUANTÍA** de la indemnización por daños corporales se calcula con base en el **baremo** establecido para los accidentes de tráfico por el Anexo de la Ley sobre Responsabilidad Civil y Seguro en la Circulación de Vehículos a Motor (Ley 35/2015, de 22 de septiembre, de reforma del sistema para la valoración de los daños y perjuicios causados a las personas en accidentes de circulación). • Las **cuantías del baremo se actualizan anualmente** a través de una Resolución de la Dirección General de Seguros y Fondos de Pensiones.
DAÑOS PATRIMONIALES	• Son aquellos daños que **afectan al patrimonio del perjudicado**, que suponen un menoscabo o detrimento **en los bienes u objetos** que forman parte del patrimonio de la persona. Se caracterizan por ser cuantificables, a través de un **baremo, factura, presupuesto o informe pericial**. • Los daños materiales incluyen el **daño emergente y el lucro cesante**. • La indemnización por daños materiales se calculará con arreglo a los criterios de valoración establecidos en la **legislación fiscal**, de **expropiación forzosa** y **demás normas** aplicables, ponderándose, en su caso, las valoraciones predominantes en el **mercado.**
DAÑO EMERGENTE	Se entiende como daño emergente, **CUALQUIER MENOSCABO PATRIMONIAL** experimentado de manera actual como consecuencia de la actividad dañosa, es decir, la pérdida o disminución del valor económico anterior de los bienes, el empobrecimiento de dicho patrimonio.
LUCRO CESANTE	• Se entiende por lucro cesante, **LO DEJADO DE PERCIBIR COMO CONSECUENCIA DE LA LESIÓN.** • **Debe** probarse **de modo indirecto**, ya que «por su propia naturaleza no puede probarse de modo directo». • En los casos de **cierre indebido de establecimiento,** la indemnización debe ascender a las ventas dejadas de percibir durante el período de cierre. • En los **traslados de negocio** se entreveran el daño emergente y el lucro cesante, como puede ocurrir en supuestos de declaración de ruina improcedente, vías de hecho o anulación de expedientes expropiatorios. • La jurisprudencia considera **incluibles en el justiprecio diversos conceptos** como son: desmontaje de mobiliario, traslado de enseres y útiles del negocio, reinstalación de mobiliario, acondicionamiento de nuevo local, deterioro o pérdida de existencias a consecuencia del traslado, valor de las instalaciones no susceptibles de traslado, gastos de sustitución, gastos de primer establecimiento (incluyendo licencia de apertura), así como la instalación de teléfono y la conexión a las redes de distribución de gas, agua y luz, importe de los salarios y de las cuotas de la Seguridad Social del personal durante la paralización del negocio, gastos de desplazamiento de los trabajadores, pérdida de beneficios hasta la normalización de la clientela, pérdida de ésta, gastos de publicidad, arraigo del establecimiento mercantil en la zona en que venía actuando, y otros. • En ocasiones, la privación del local o solar sobre el que se asienta la industria (en régimen de propiedad o de arrendamiento) comporta la **imposibilidad material o jurídica de continuar el negocio**, lo que conduce a que deba entenderse que se produce la extinción definitiva del establecimiento, con las consecuencias indemnizatorias que de ese hecho se deriven.
DAÑOS MORALES	• Es el **SUFRIMIENTO** derivado de la lesión corporal o de otro acontecimiento que produzca una aflicción a la persona —como puede ocurrir con el menoscabo de su intimidad o de su honra— sin que el mismo venga asociado necesariamente al daño corporal o patrimonial (por ejemplo, los daños morales ocasionados por el traslado, por error, de restos de un familiar desde su nicho al osario común, con la imposibilidad de recuperar después dichos restos). • La **CUANTÍA** de la indemnización será igual para todas las víctimas, salvo que en alguna de ellas concurra alguna circunstancia especial.

KALTE FISIOLOGIKOAK	• **GORPUTZEKO KALTEAREN** agerpena da. → Kaltearen agerpen organikoa da, osasun-galera gisa. → Barne hartzen du kalte psikofisikoa, morala ez dena, hau da, bai kalte fisikoa bai psikikoa, eta, horren barruan, lesio **iraunkorrak** (sekuelak) nahiz osasunaren **aldi baterako** asaldurak**,** guztiz sendatu arte edo lesioak egonkortuta geratu arte (normalean bat etorriko da medikuaren altarekin). • Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen **39/2015 Legearen 67. artikuluak BEREZITASUN GARRANTZITSU BAT** ezartzen du **PRESKRIPZIO-URTEA KALKULATZEKO**. Nolanahi ere, erreklamazioa egiteko eskubidearen preskripzio-epea kalte-ordaina ekarri duen egitate edo egintza izan zenetik edota kaltearen ondorioak agertu zirenetik urtebetera amaituko da. Pertsonei kalte fisiko edo psikikoak eginez gero, sendatzen direnetik edo kalte horien ondorioak zehazten diren egunetik hasiko da kontatzen.
	• Gorputzeko kalteen ziozko kalte-ordainaren **ZENBATEKOA** kalkulatzeko, Erantzukizun Zibilari eta Ibilgailu Motordunen Zirkulaziorako Aseguruari buruzko Legearen Eranskinaren bidez (irailaren 22ko 35/2015 Legea, Zirkulazio-istripuetan pertsonei eragindako kalte-galerak baloratzeko sistemaren erreformarena) trafiko-istripuetarako ezarritako **baremoa** hartzen da kontuan. • **Baremoaren zenbatekoak urtero eguneratzen dira**, Pentsio Funtsen eta Aseguruen Zuzendaritza Nagusiaren ebazpenaren bidez.
ONDARE-KALTEAK	• **Kaltetuaren ondareari eragiten dioten** eta pertsonaren ondarearen parte diren **ondasun edo objektuetan** kalte edo galerarik eragiten duten horiek dira. **Baremoaren, fakturaren, aurrekontuaren edo** aditu-**txostenaren** bidez zenbatetsi daitezke. • Kalte materialen barruan, **sortutako kaltea eta lortu gabeko irabazia** sartzen dira. • Kalte materialen ziozko kalte-ordainaren zenbatekoa kalkulatzeko kontuan izango da zein balioespen-irizpide ezartzen diren **zergei buruzko legedian, nahitaezko desjabetzeari buruzkoan eta aplikagarri diren gainerako arauetan**; hala ere, behar izanez gero, **merkatuan** nagusi diren balioespenak ere aztertuko dira.
SORTUTAKO KALTEA	Sortutako kaltea izango da jarduera kaltegarriaren zioz egun esperimentatutako **EDOZEIN ONDARE-GALERA**, hau da, ondasunen aurreko balio ekonomikoa galdu edo murriztea eta ondare hori pobretzea eragiten duena.
LORTU GABEKO IRABAZIA	• **KALTEAREN ONDORIOZ JASOTZEARI UTZI** diotenari esaten zaio lortu gabeko irabazia. • **Zeharka frogatu** behar da, «haren izaera dela-eta, ezinezkoa baita zuzenean frogatzea». • **Establezimendua bidegabeki ixten** bada, kalte-ordainak barne hartu behar ditu itxi-aldian jaso gabeko salmentak. • **Negozioa lekuz aldatzean**, sortutako kaltea eta lortu gabeko irabaziak sumatuko dira; aurri-deklarazio bidegabea, egitate-bidea edo desjabetze-espedienteak baliogabetzea direla-eta, esaterako. • Jurisprudentziak **balio justuan hainbat kontzeptu sar daitezkeela** adierazten du: higigarriak desmuntatzea, negozioko tresnak eta lanabesak lekuz aldatzea, higigarriak berriz jartzea, lokal berria egokitzea, lekualdaketaren ondorioz izakinak hondatu edo galtzea, lekuz aldatuko ez diren instalazioen balioa, ordezkapen-gastuak, lehen establezimenduko gastuak, irekiera-lizentzia barne, telefono-instalazioa eta gasaren, uraren eta argiaren banaketa-sareetarako lotura, negozioa geldirik egon den bitartean langileen soldaten eta Gizarte Segurantzako kuoten zenbatekoa, langileak lekuz aldatzeko gastuak, bezeroak normalizatu arte galdutako irabaziak, bezeroen galera, publizitate-gastuak, merkataritza-establezimendua zenbateraino dagoen bere ingurunean errotua, eta bestelakoak. • Zenbaitetan, industriaren oinarri zen lokala edo orubea (jabetzan edo alokairuan) gabe geratzeak **ezintasun material eta juridikoa ekartzen du negozioarekin jarraitzeko**, eta horrek establezimendua behin betiko galduko dela ondorioztatzera garamatza, gertaera horretatik datozen kalte-ordainen inguruko ondorioekin.
KALTE MORALAK	• Gorputzeko kaltearen edo pertsonari atsekabea eragiten dion bestelako gertaera baten ondoriozko **SUFRIMENDUA** da; haren intimitatea edo duintasuna galtzearen ondoriozkoa, adibidez, gorputzeko edo ondareko kalterik izan ez arren, senide baten gorpuzkiak bere horma-hobitik hezurtegi komunera akats baten ondorioz lekualdatzeak eragin ditzakeen kalte moralak, gorpuzki horiek ondoren berreskuratu ezin badira. • Kalte-ordainaren **ZENBATEKOA** berdina izango da biktima guztientzat, horietan egoera berezirik ez badago behintzat.

REGULACIÓN	1. **Ley 40/2015,** de Régimen Jurídico del Sector Público **(arts. 32 a 37): Principios y conceptos.** 2. **Ley 39/2015, de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas: reglas específicas del procedimiento** de exigencia y determinación de responsabilidad patrimonial de las administraciones públicas **(artículos dispersos, situados según la fase de procedimiento** a que corresponden)**, sin perjuicio de las normas establecidas, con carácter general,** para cualquier procedimiento administrativo**.**
INICIO **Ley 39/2015 arts. 65 y 67**	• **DE OFICIO (art. 65 Ley 39/2015):** → **Reglas generales** de inicio de oficio de los procedimientos administrativos. → **Reglas específicas:** ⇒ **No ha de haber prescrito** el derecho a la reclamación del interesado. ⇒ Plazo de **diez días, a interesados,** para presentación de **alegaciones, documentos o informaciones** que estimen convenientes, y para **proposición de pruebas**. ⇒ El procedimiento se instruye, **aunque los particulares** presuntamente lesionados **no se personen.** • **A INSTANCIA DE PARTE (art. 67 Ley 39/2015):** → **Reglas generales de inicio, a instancia de parte, de los procedimientos administrativos.** → **Plazo:** ⇒ El derecho a reclamar **prescribe al año de producido el hecho o el acto** que motive la indemnización o se manifieste su efecto lesivo. En el **supuesto de daños físicos o psíquicos**, desde curación o determinación de secuelas. ⇒ Supuestos de **responsabilidad por anulación en vía administrativa o contencioso-administrativa** de un acto o disposición de carácter general: **un año desde notificación** de la resolución administrativa o de la sentencia definitiva. → **La solicitud debe especificar:** ⇒ Las **lesiones y su relación de causalidad** con el funcionamiento del servicio público. ⇒ La **evaluación económica de la responsabilidad patrimonial** (si fuera posible). ⇒ **Momento en que se produjo** la lesión. ⇒ **Alegaciones, documentos, informaciones** y propuesta de **prueba** (concretando los medios de prueba).
INFORMES **Ley 39/2015 art. 81**	• Será **preceptivo** solicitar informe al **servicio cuyo funcionamiento haya ocasionado la presunta lesión** indemnizable. Este informe se emitirá en plazo máximo de **diez días.** • **Dictamen preceptivo de la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi:** cuando la cantidad reclamada sea igual o superior a 18.000 euros (cifra actualizable por Decreto). Se **remitirá propuesta de resolución** a este órgano y el dictamen **se emitirá en dos meses**.
MOTIVACIÓN **Ley 39/2015 art. 35.1.h)**	• **Obligación de motivar la propuesta** de resolución**.**
LA PRUEBA **Ley 39/2015 arts. 77 y 78**	• **Reglas generales** sobre prueba y medios de prueba del procedimiento administrativo. • La **carga de la prueba** corresponde **a quien reclama**, que debe probar: → **La existencia de una actuación administrativa causante del daño.** → **La producción de un daño no justificado.** → **La cuantificación del daño.** → **La relación causa-efecto** entre la actuación administrativa y el daño.
TERMINACIÓN DEL PROCEDIMIENTO **Ley 39/2015 arts. 24.1 y 91**	• **RESOLUCIÓN:** ha de pronunciarse sobre la causalidad entre el servicio público y la lesión producida, la valoración del daño, la cuantía y el modo de indemnizar (criterios del artículo 34 de la Ley 40/2015, de Régimen Jurídico del Sector Público). • **Órgano competente** para emitir la **Resolución:** Alcalde o Presidente de la Entidad (en otras entidades de derecho público, lo determinarán las normas que establezcan su régimen jurídico). • Procedimientos a instancia de parte: Si transcurren 6 meses sin que se notifique la resolución o sin que se formule ningún acuerdo: **silencio negativo**. • **Acuerdo de TERMINACIÓN CONVENCIONAL:** deberá fijar la cuantía y el modo de indemnización, de acuerdo con los criterios del art. 34 de la Ley 40/2015. • La **indemnización** puede ser **sustituida** por una **compensación** en especie o ser abonada mediante **pagos periódicos**, cuando resulte más adecuado para lograr la reparación debida y convenga al interés público, **siempre que exista acuerdo con el interesado**.
TRAMITACIÓN SIMPLIFICADA **Ley 39/2015 art. 96**	• Razones de **interés público**, o **falta de complejidad**. • **INICIO:** → Acuerdo de tramitación simplificada: de oficio (se notificará a los interesados) o a solicitud del interesado. → Si iniciado el procedimiento administrativo, el órgano tramitador considera inequívocos la relación de causalidad entre el funcionamiento del servicio público y la lesión, la valoración del daño y el cálculo de la cuantía de la indemnización, podrá acordar, de oficio, la suspensión del procedimiento general y la iniciación de un procedimiento simplificado. → Continuará mediante tramitación ordinaria: si lo decide el órgano tramitador o se opone expresamente un interesado. • **RESOLUCIÓN:** en 30 días (salvo que reste menos para su tramitación ordinaria), desde la notificación del acuerdo de tramitación simplificada. • **TRÁMITES ÚNICOS:** → Acuerdo de inicio o solicitud, y, en su caso, solicitud de subsanación de la solicitud. → Alegaciones formuladas al inicio del procedimiento (cinco días de plazo para ello). → Audiencia: únicamente si la resolución va a ser desfavorable. → Dictamen de la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi, cuando sea preceptivo, que podrá ser emitido en el plazo de quince días, si así lo solicita el órgano competente. Si dictamen es contrario al fondo de la propuesta de resolución, se seguirá el procedimiento ordinario, convalidándose las actuaciones practicadas (excepto el Dictamen de la Comisión), y notificándolo a los interesados. → Si el procedimiento exigiera cualquier trámite no previsto en este artículo, el expediente pasa a la tramitación ordinaria.

ERREGULAZIOA	1. **40/2015 Legea**, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena **(32-37 artikuluak)**: **Printzipioak eta kontzeptuak.** 2. **39/2015 Legea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena:** administrazio publikoen ondare-erantzukizuna erabakitzeko eta exijitzeko **prozedura-erregelak (artikulu sakabanatuak, prozedura-fase bakoitzaren arabera jarritakoak)**, edozein prozeduratarako ezarrita dauden **arau orokorrez gain**.

HASIERA **39/2015 LEGEA 65. ETA 67. ARTIKULUAK**	• **OFIZIOZ (39/2015 Legea, 65. artikulua):** → Administrazio-prozedurei hasiera ofizioz emateko **erregela orokorrak**. → **Erregela espezifikoak:** ⇒ Interesdunak erreklamazioa egiteko duen eskubidea **preskribatu gabe** egotea. ⇒ **Hamar eguneko** epea **interesdunentzat**, egoki iritzitako **alegazioak, dokumentuak edo informazioak** aurkez ditzaten eta **frogak proposa** ditzaten. ⇒ Prozedura instruitu egingo da, ustez kaltetutako **partikularrak pertsonatu ez arren**. • **ALDERDI BATEK ESKATUTA (39/2015 Legea, 67. artikulua)** → **Alderdi batek eskatuta administrazio-prozedurei hasiera emateko erregela orokorrak.** → **Epea:** ⇒ Erreklamazioa egiteko eskubidea **urtebetera preskribatzen** da, kalte-ordaina ekarri duen **egitatea edo egintza izan denetik** edota kaltearen ondorioak agertzen direnetik kontatuta. **Kalte fisikoak edo psikikoak direnean**, sendatzen denetik edo sekuelak finkatzen direnetik aurrera. ⇒ **Administrazio-bidean edo administrazioarekiko auzibidean** egintza edo xedapen orokor bat **deuseztatzearen ondoriozko erantzukizuna** denean: **urtebete**, behin betiko administrazio-ebazpena edo epaia **jakinarazten denetik**. → **Eskaeran zehaztu behar da:** ⇒ Egindako **lesioak** eta zerbitzu publikoaren funtzionamenduarekin duten **kausalitate-erlazioa**. ⇒ **Ondarezko erantzukizunaren ebaluazio ekonomikoa** (ahal izanez gero). ⇒ Lesioa **gertatu zen unea**. ⇒ **Alegazioak, dokumentuak, informazioak eta froga**-proposamenak (frogabideak zehaztuz).
TXOSTENAK **39/2015 LEGEA 81. ART.**	• **Nahitaez** eskatu beharko zaio txostena, **ustez ordaindu beharreko lesioa eragin duen zerbitzuari**. Txosten hori gehienez ere **hamar eguneko** epean emango da. • **EAEko Aholku Batzorde Juridikoak nahitaez eman beharko du irizpena**: baldin eta erreklamazioa 18.000 eurokoa edo hortik gorakoa bada (Dekretu bidez eguneratu ahal izango da zifra hori). **Ebazpen-proposamena bidaliko zaio** organo horri eta **bi hilabeteren barruan eman beharko du** irizpena.
MOTIBAZIOA **39/2015 LEGEA 35.1.h) ART.**	• Ebazpen-**proposamena arrazoitua izango da nahitaez**.
FROGA **39/2015 LEGEA 77. ETA 78. ART.**	• Administrazio-prozedurako frogari eta frogabideei buruzko **erregela orokorrak**. • **Froga egitea erreklamazioa aurkeztu duenari** dagokio, eta honako hau frogatu behar du: → **Kaltea eragiten duen administrazio-jarduketa bat dagoela.** → **Justifikatu gabeko kalte bat eragin dela.** → **Kaltea zenbatekoa den.** → Administrazio-jarduketaren eta kaltearen arteko **kausa-ondorioa harremana**.
PROZEDURAREN AMAIERA **39/2015 LEGEA 24.1. ETA 91. ART.**	• **EBAZPENA**: erabakia eman beharko du zerbitzu publikoaren eta egindako lesioaren arteko kausalitatearen gainean, kaltea baloratu beharko du, eta kalte-ordainaren munta eta modua zehaztu beharko ditu (40/2015 Legeak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarenak, 34. artikuluan ezarritako irizpideak). • **Ebazpena** emateko **organo eskuduna**: alkatea edo erakundearen presidentea (zuzenbide publikoko bestelako erakundeetan, bakoitzari dagokion araubide juridikoan ezarritako arauek esaten dutena). • Aldeak eskatutako prozedurak: baldin eta sei hilabete igarotzen badira ebazpena jakinarazi gabe edo akordiorik lortu gabe: **isiltasun negatiboa**. • **AMAIERA ITUNDUA emateko akordioa:** kalte-ordainaren munta eta modua finkatu beharko ditu, 40/2015 Legearen 34. artikuluan ezarritako irizpideen arabera. • **Kalte-ordainaren ordez konpentsazioa** ezar daiteke, gauzatan, edo **epeka ordaindu**, kaltea behar bezala berdintzeko egokiago dela ikusten bada eta interes publikoari komeni bazaio; **betiere, interesduna bat badator**.
TRAMITAZIO SINPLIFIKATUA **39/2015 LEGEA 96. ART.**	• **Interes publikoa** edo **konplexutasunik eza**. • **HASIERA:** → Tramitazio sinplifikatua egiteko erabakia: ofizioz (interesdunei jakinaraziko zaie) edo interesdunak eskatuta. → Administrazio-prozedura hasi eta gero, organo tramitatzaileak irizten badio argi daudela zerbitzu publikoaren funtzionamenduaren eta lesioaren arteko kausalitatea, kaltearen balorazioa eta kalte-ordainaren muntaren kalkulua, ofizioz erabaki ahal izango du prozedura orokorra etenda uztea eta prozedura sinplifikatuari hasiera ematea. → Tramitazio arruntaren bidetik jarraituko da: organo tramitatzaileak hala erabakitzen badu edo interesdunak espresuki aurka egiten badu. • **EBAZPENA:** 30 egunen barruan (tramitazio arrunta burutzeko denbora laburragoa izan ezean), tramitazio sinplifikatua egiteko erabakia jakinarazten denetik aurrera kontatuta. • **TRAMITE BAKARRAK:** → Hasteko erabakia edo eskaera eta, hala dagokionean, eskaera zuzentzeko eskaera. → Prozeduraren hasieran aurkeztutako alegazioak (bost eguneko epea dago horretarako). → Entzunaldia: ebazpena kontrakoa izango bada bakarrik. → EAEko Aholku Batzorde Juridikoaren irizpena, beharrezkoa denean. Hamabost eguneko epean eman ahal izango da, organo eskudunak hala eskatzen badu. Irizpena ebazpen-proposamenaren funtsaren kontrakoa bada, prozedura arruntari jarraituko zaio, eta egindako jarduketak baliozkotzat joko dira (Batzordeak irizpena eman artekoak), eta interesdunei jakinaraziko zaie. → Prozedurak eskatzen badu artikulu honetan aurreikusi gabeko tramiteren bat egitea, tramitazio arruntera pasako da espedientea.

NORMATIVA APLICABLE	1. Son **ESCASOS LOS SUPUESTOS** en los que la **Administración, o sus organismos públicos,** actúan con arreglo al **derecho privado** (civil, generalmente) (por ejemplo: negocios relativos al patrimonio privado, producción de bienes de mercado, propiedad industrial, derechos de autor...). 2. Es **MÁS FRECUENTE** que **ENTIDADES DE DERECHO PRIVADO**, que por tanto se rigen por el derecho civil, actúen **por cuenta de la Administración**, tanto si pertenecen al sector público (sociedades mercantiles de capital público, fundaciones públicas...), como si no (contratistas de la administración, titulares de concesión...). Puede ocurrir que estas entidades, **al realizar actividades propias del servicio público** que tengan encomendadas, causen daños a terceros e incurran en **responsabilidad**. **En ambos casos**, serán de aplicación **los mismos principios y requisitos** establecidos para la **responsabilidad patrimonial de derecho administrativo** (art. 35 de la Ley 40/2015: la responsabilidad de Derecho Privado «*se exigirá de conformidad con lo previsto en los artículos 32 y siguientes*»). **No se aplicará** este régimen cuando los daños sean consecuencia de la propia **actividad privada de las autoridades, agentes o funcionarios públicos** y la actuación no sea imputable a la Administración (responsabilidad civil).

RESPONSABILIDAD CIVIL DERIVADA DE LA COMISIÓN DE DELITOS PENALES	
El daño puede producirse mediando una **ACTIVIDAD DELICTIVA DE UN FUNCIONARIO que sea procesado y condenado por ello.** **EL ARTÍCULO 116 DEL CÓDIGO PENAL** dispone que: *«toda persona responsable de un delito o falta lo es también civilmente si del hecho se derivaren daños o perjuicios».*	
TRES SUPUESTOS DISTINTOS	1. El Tribunal **condena penal y civilmente** al funcionario o autoridad pública: la administración será responsable civil subsidiaria, sin perjuicio de la acción de repetición contra el funcionario culpable.
	2. El Tribunal **condena penalmente** al funcionario **sin pronunciamiento sobre la responsabilidad civil**: se produce una **reserva de acciones**, y según el artículo 111 de la Ley de Enjuiciamiento Criminal, *«las acciones que nacen de un delito o falta podrán ejecutarse conjunta o separadamente, pero mientras esté pendiente la acción penal no se ejercitará la civil con separación hasta que aquélla haya sido resuelta en sentencia firme»*. Así, tras la condena penal firme, el dañado podrá dirigirse contra la administración reclamando la indemnización.
	3. Se sobresee la causa o el Tribunal **absuelve** al funcionario procesado: a partir de la fecha de sobreseimiento se abre el plazo de un año para reclamar la responsabilidad patrimonial de la administración.

APLIKATZEKOA DEN ARAUDIA	
	1. **Administrazioak edo bere erakunde publikoek zuzenbide pribatuaren** (zibila, orokorrean) arabera jarduten duteneko **KASUAK URRIAK** dira (esaterako: ondare pribatuaren gaineko negozioak, merkatuko ondasunen ekoizpena, jabetza industriala, egile-eskubideak...). 2. **OHIKOAGOA** da **ZUZENBIDE PRIBATUKO ERAKUNDEAK**, zuzenbide zibila betetzen dutenez, **Administrazioaren kontura** jardutea, izan sektore publikokoak (kapital publikoko merkataritza-sozietateak, fundazio publikoak...), nahiz ez (administrazioaren kontratistak, emakidaren titularrak...). Gerta daiteke erakunde horiek, esleituta dituzten **zerbitzu publikoko jarduerak egitean**, kalteak eragitea hirugarrenei edo **erantzukizunen** bat sortzea. **Bi kasu horietan**, **administrazioaren zuzenbideko ondare-erantzukizunerako** ezarritako **baldintza eta printzipio berberak** aplikatuko dira (40/2015 Legearen 35. artikulua: zuzenbide pribatuko erantzukizuna «*32. artikuluan eta hurrengoetan ezarrita dagoenaren arabera eskatuko da*»). **Ez da** araubide hori **aplikatuko**, kalteak **agintari, agente edo funtzionario publikoen jarduera pribatuaren** eta administrazioari egotz ezin dakiokeen jardueraren ondorioz sortu badira (erantzukizun zibila).

DELITU PENALAK EGITEAREN ONDORIOZKO ERANTZUKIZUN ZIBILA	
Kaltea gero **auzipetu eta zigortutako FUNTZIONARIOAREN DELITU-JARDUERA**ren bidez eragin daiteke. **ZIGOR KODEAREN 116. ARTIKULUAK** xedatzen duenaren arabera: «*delitu edo faltarengatik erantzukizun kriminala duen pertsona orok erantzukizun zibila ere badu izan, baldin eta egitateak kalte edo galerak ekartzen baditu*».	
HIRU KASU DESBERDIN	1. Epaimahaiak **arlo penalean eta zibilean zigortzen** ditu funtzionario edo herri agintaria: administrazioa izango da arduradun zibil ordezkatzailea, funtzionario errudunaren aurkako errepikapen-ekintza kaltetan izan gabe.
Funts eta ondare publikoak administrazio publikoen baitan kudeatzen dira, eta, ondorioz, administrazio horiek **barne**-mailan lehen **kontrol**-mekanismo batzuk antolatzen dituzte, **erantzukizunak** eskatu ahal izateko **horientzat ezarritako araubidea urratzea edo kaltetzea eragiten duten arau-hausteen zioz**. Hala ere, Kontuen Euskal Epaitegiak **kanpoko kontrola** eta fiskalizazio-lana garatuko ditu, haren funtzioen artean baitago ondasun edo gastu publikoak maneiatzeko ardura duten pertsonen **kontabilitate-erantzukizuna epaitzea**.

Kontabilitateko erantzukizuna exijitzea **bateragarria** da **diziplinazko eta zigor-arloko erantzukizuna** exijitzearekin, eta gertaera berberen kontabilitateko, zigor-arloko eta administrazioarekiko auzien jurisdikzioa ezagutu daiteke, *non bis in idem* printzipioaren urraketarik izan gabe.

KONTABILITATEKO AUZIPETZEAREN FUNTZIOA

<table>
<tr><td colspan="2">KONTABILITATE-ERANTZUKIZUNA GERTATZEKO AURREKARIAK</td><td>Kontuen Epaitegiaren jurisprudentziak ezarritako BEHARREZKO ELEMENTUAK EDO BALDINTZAK dira:
1. Ondasun edo gauza publikoen erabilera bere kargura duen pertsona baten ekintza edo ez-egitea izatea.
2. Ekintza edo ez-egite hori ondasun edo gauza publikoak biltzen, esku hartzen, administratzen, zaintzen, bideratzen edo erabiltzen dituztenek eman beharreko azalpenetatik ondorioztatzea.
3. Ekintzak edo ez-egiteak dagokion sektore publikoa arautzen duen aurrekontu- eta kontabilitate-araudia urratzea.
4. Eragindako kaltea iruzur, erru edo arduragabekeria larriaren ondorio izatea.
5. Kaltea benetakoa eta indibidualizatua izatea ondasun edo gauza jakinei dagokienez, bai eta ekonomikoki ebaluatzeko modukoa ere.
6. Kausalitate-lotura egotea aipaturiko ekintzaren edo ez-egitearen eta eragindako kaltearen artean.

Betebehar horiek eragin dituen ez-betetzeak kontabilitateko erantzukizunaren sorrera eta kalte-ordaina emateko betebeharra dakartza.</td></tr>
<tr><td rowspan="3">HELBURUA</td><td>KONTABILITATE-JURISDIKZIOARI DAGOKIO</td><td>• Ondasun edo gauza publikoak biltzen, esku hartzen, administratzen, zaintzen, bideratzen edo erabiltzen dituztenek eman beharreko azalpenetatik ondorioztatuz BALIATZEN DA.
• Haien ardurapean ondasun edo gauza publikoak dituzten guztiek eman beharreko kontuetatik eratorritako erantzukizun HELBURUEN BERRI IZANGO DU, ondasun edo gauza publiko horien aurka murrizten direnean, dolu, erru edo zabarkeria larriagatik, aurrekontu- eta kontabilitate-erregimena arautzen duten legeen aurkako ekintza edo ez-egiteen ondorioz, ondasun edo gauza horiek kaltetzen direnean. Dirulaguntzak, maileguak, bermeak edo sektoretik eratorritako bestelako laguntzak jasotzen dituzten pertsona edo erakundeek egiten dutenaren erantzukizunaren berri ere izango du.</td></tr>
<tr><td>JURISPRUDENTZIAK EZARRITAKO KASUAK</td><td>1. Kontuak ez ematea: kontabilitate-irregulartasunak ezkuta ditzake.
2. Kontuetan utzikeria egotea.
3. Kontratuan ere, ordaintzen den balioaren eta administrazio publikoari ematen zaion horren balioaren artean prezio-desberdintasunak egotea.
4. Dirulaguntzak: dokumentazioaren irregulartasun formal bat ez da aski; diruz lagundutako zenbatekoa hasieran aurreikusitako jarduera desberdinak finantzatzeko erabili izana frogatzea beharrezkoa da.
5. Eskuordetzeak ez du kontabilitate-erantzukizunetik salbuesten. Ordezkariaren gaineko kontrol aproposa egin behar da.</td></tr>
<tr><td>EZ DAGOKIO KONTABILITATE-JURISDIKZIOARI</td><td>EZ DAGOKIO KONTABILITATE-JURISDIKZIOARI jarraian aipatzen diren gaiak EPAITZEA:
a) Epaitegi Konstituzionalaren eskumenari egotzitako gaiak.
b) Administrazioarekiko Auzien jurisdikzioaren menpe dauden gaiak.
c) Delitua edo falta diren egintzak.
d) Izaera zibila, laneko edo Botere Judizialeko beste organoei egotzitako bestelako gaiak.</td></tr>
<tr><td rowspan="3">PROZEDURA-MOTAK</td><td>KONTUEN EPAIKETA</td><td>• Irismena eta bidegabeko erabilera ez denetarako AURREIKUSTEN da.
• ALDEZ AURREKO FISKALIZAZIOA behar du, egitatezko kasua gertatu dela zehazteko.
• Kontuen epaiketa-PROZEDURA: administrazioarekiko auzietarako prozedura arrunta jarraitzen da, baina berezitasun batzuekin.</td></tr>
<tr><td>IRISMENAREN ZIOZ ITZULTZEKO PROZEDURA</td><td>• KONTABILITATE-IRISMENAREN KONTZEPTUA Espainiako Kontuen Epaitegiaren Funtzionamenduari buruzko Legearen 72. artikuluan ezarrita dago. Honako hau dio, zehazki: «kontu batean zor den saldo justifikatu gabea, edo, orokorrean, beren kargura ondasun edo gauza publikoak dituzten pertsonek eman behar dituzten kontuetan justifikazioa edo zenbakiak faltan egotea, Kontuen Auzitegian kontu-emaileak izan nahiz ez.»
• Kontu batean saldo negatiboa edo justifikatu gabea egotea, azterketa huts batekin erraz egiazta daitekeena, eta hala dela egiaztatzea DAKAR.
• Kontuen Epaitegiko Justizia Salaren doktrinak DIRULAGUNTZETAN FUNTSAK APLIKATZEKO JUSTIFIKAZIORIK EZA irismenaren oinarria eratzeko esku-dirurik edo justifikaziorik ezarekin PAREKATZEN du.
• BIDEGABE ERABILTZEAREKIKO ALDEA da hau ondasun edo gauza publikoak lapurtzean edo hori egiaztatzeko baimena ematean, edo bere kargura dituenak beretzat edo besterentzat erabiltzean datzala.

• Kontabilitate-irismen orok, errurik edo iruzurrik (funts-desbideratzea edo bidegabe erabiltzea) izan edo ez, irismen horren zenbatekoa Altxor Publikora itzultzeko betebeharra dakar, erantzukizun zibilaren printzipioa naturalki aplikatuta.
• IRISMENAREN ZIOZ ITZULTZEKO PROZEDURA: haren zenbatekoaren arabera dagokion epai aitortzailearekin lotutako prozedura zibila jarraitzen da. Aplikagarria da kontabilitateko erantzukizun posiblea bidegabe erabiltzetik sortzen denean ere.</td></tr>
<tr><td>FIDANTZAK INDARGABETZEKO ESPEDIENTEA</td><td>• HELBURUA SARTUTAKO ZENBATEKOA ITZULTZERA edo eratutako BERMEA BALIOGABETZERA EDO ONDORIORIK GABE UZTERA mugatzen da.
• Prozedura Zibileko Legean BORONDATEZKO JURISDIKZIO-ESPEDIENTEEKIN BATERATUTAKO PROZEDURA da. Aipaturiko bermearen kargura gauzatu beharreko kontabilitateko erantzukizunik ez dagoela egiaztatzea du helburu.</td></tr>
</table>

Legeria: 2/1982 Lege Organikoa, maiatzaren 12koa, Herri Kontuen Epaitegiarena
7/1988 Legea, apirilaren 5ekoa, Herri Kontuen Epaitegiaren Funtzionamenduari buruzkoa
Jurisdikzio zibila, kriminala eta administrazioarekiko auziena erregulatzen duten Legeak
1/1988 Legea, Herri Kontuen Euskal Epaitegia sortzearena

INNOVAR NO ES SÓLO INVENTAR ALGO NUEVO
Sin duda, también en el ámbito del sector público, innovar **es crear un nuevo producto o servicio** que llegue a la sociedad y que ayude a **generar calidad de vida y bienestar social** (Innovación de producto o de servicio). Sin embargo, no debemos olvidar que Innovar es también hacer lo que hemos hecho siempre en el sector público (nuestra razón de ser) pero **de una forma distinta** a la que conocemos hasta ahora, de una forma que **generemos valor** tanto en la sociedad como en las propias organizaciones públicas. Esta innovación, a la que se conoce como **Innovación de proceso**, es una innovación que **no requiere grandes inversiones y esfuerzos**; es una innovación extremadamente barata en comparación con otros tipos de innovación.

RIESGO ALENTADO + TALENTO + CREATIVIDAD = INNOVACIÓN
Numerosos estudios en organizaciones innovadoras demuestran que más del 70% de las innovaciones de proceso en dichas organizaciones procede de sus **personas, a las que se les incentiva para que se arriesguen, para que utilicen su talento y su creatividad** en pro del beneficio de la organización en la que trabajan y de las personas destinatarias de sus servicios.

NO HAY INNOVACIÓN SIN IDEAS Y NO HAY IDEAS SIN PERSONAS MOTIVADAS
Se precisan **personas con margen de actuación** y de agrupación en equipos y a las que **se les permite fallar** cuando utilizan su creatividad para generar valor público. El riesgo a equivocarse no solo debe ser permitido sino incentivado.

INNOVACIÓN ADMINISTRATIVA
Por todo ello, **DEFINIMOS LA INNOVACIÓN ADMINISTRATIVA** como el **conjunto de técnicas y buenas prácticas** llevadas al entorno de la atención ciudadana y la gestión administrativa y burocrática de nuestros procedimientos y expedientes administrativos que **nos permite pensar y ver de forma diferente la racionalización y simplificación de nuestras actuaciones administrativas** en pro de una administración ágil, con una cultura de orientación al servicio, transversal, eficiente, proactiva e innovadora. Una administración que en su funcionamiento sorprende y supera las expectativas ciudadanas.

PRINCIPIOS DE LA INNOVACIÓN ADMINISTRATIVA	
Primer principio	**El mejor trámite para la ciudadanía es aquel que no hay que hacer.** El mejor trámite para la ciudadanía y la sociedad no es ni el que se hace de forma presencial, ni el que se hace de forma electrónica. Es aquél que no hay que hacer porque una Administración inteligente se anticipa y lo hace de forma proactiva.
Segundo principio	**Lo sencillo, lo simple es bello y una ventaja competitiva en cualquier sector.** Si nuestra burocracia la hacemos simple y la mantenemos solo a los niveles necesarios, lo haremos mejor en nuestra misión de generar valor público.
Tercer principio	**La diferencia está en la mirada.** Con una mirada innovadora, entenderemos que hay innovaciones que el marco normativo quizá no recoja, pero tampoco impide. No nos limitemos a hacer solo lo que recogen las leyes sino también todo aquello que genera valor y no impiden dichas leyes.

Fuente: *«Decálogo sobre innovación y simplificación administrativa»* https://www.eudel.eus/es/file/libro_ficheros/decalogo_de_innovacion_y_simplificacion_administrativa , elaborado a partir de las reflexiones e intercambio de experiencias y pareceres del curso: «Taller sobre innovación administrativa. Simplificando trámites a través de la mejora continua de procesos en la administración local» 2, 3 y 4 de abril de 2014 en Bilbao dentro del Plan de formación transversal 2014 y actualizado en 2020 por su autor - Autor: Fermín Cerezo Peco (Jefe del Servicio de Innovación del Ayuntamiento de València). Editado por IVAP-EUDEL

BERRITZEA EZ DA SOILIK GAUZA BERRI BAT ASMATZEA

Zalantzarik gabe, sektore publikoaren esparruan ere, berritzea produktu edo zerbitzu berriak sortzea da, gizarteari helarazi eta bizi-kalitatea eta gizarte-ongizatea sortzen laguntzeko (produktu- edo zerbitzu-berrikuntza). Alabaina, ez dugu ahaztu behar Berritzea ere badela sektore publikoan orain arte egin izan duguna egitea (gure izateko arrazoia) baina beste modu batera, ez orain arte bezala, gizarteari eta erakunde publikoei ere balioa emango dieten moduan. Berrikuntza horri Prozesu-berrikuntza esaten zaio, eta berrikuntza mota horrek ez du inbertsio eta ahalegin handirik eskatzen; berrikuntza hori oso-oso merkea da beste berrikuntza mota batzuekin alderatuta.

SUSTATUTAKO ARRISKUA + TALENTUA + SORMENA = BERRIKUNTZA

Antolakuntza berritzaileei buruzko azterketa askok frogatu dute antolakuntza horietako prozesu-berrikuntzen % 70etik gora arriskuak hartzera bultzatzen diren barruko pertsonen bidez sortu dela, hots, euren talentua eta sormena lan egiten duten erakundearen mesedetan eta berak ematen dituen zerbitzuen hartzaileen onurarako erabiltzera bultzatzen diren barruko pertsonen bidez.

EZ DAGO BERRIKUNTZARIK IDEIARIK GABE, ETA EZ DAGO IDEIARIK PERTSONA GOGOTSURIK GABE

Pertsonei jarduteko eta taldeak biltzeko tarte zabala utzi behar zaie, eta sormena balio publikoa sortzeko erabiltzen dutenean huts egiteko aukera eman behar bazaie. Huts egiteko arriskua, onartu ez ezik, bultzatu ere egin behar da.

ADMINISTRAZIOA BERRITZEA

Horrexegatik guztiagatik, HONELA DEFINITU GENEZAKE ADMINISTRAZIO BERRIKUNTZA: herritarrentzako arretaren eta kudeaketa administratibo eta burokratikoaren esparruan egiten diren tekniken eta jokabide egokien multzoa, gure administrazio-jarduketak arrazionalizatzeko eta arintzeko beste era batean pentsatzeko aukera emango diguna, betiere administrazio arina, zerbitzura bideratutako kultura duena, zeharkakoa, eraginkorra, proaktiboa eta berritzailea erdiesteko asmoz. Funtzionatzeko eran herritarrak harritzen dituen eta haien itxaropenak bete ez ezik gainditu ere egiten dituen administrazio bat.

ADMINISTRAZIO-BERRIKUNTZAREN PRINTZIPIOAK


Lehenengo printzipioa	**Egin behar ez dena da herritarrentzako izapiderik onena.** Herritarrentzako eta gizartearentzako izapiderik onena ez da ez aurrez aurre egiten dena, ez elektronikoki egiten dena. Izapiderik onena egin behar ez dena da, administrazio adimendun batek modu proaktiboan aurrea hartzen duelako egin behar ez dena.
Bigarren printzipioa	**Sinplea eta erraza dena ederra da, eta lehiakorra izateko abantaila edozein sektoretan.** Gure burokrazia sinpletzen badugu eta beharrezkoa den neurrira mugatzen badugu, hobeto beteko dugu balio publikoa sortzeko gure eginkizuna.
Hirugarren printzipioa	**Ikuspegian dago aldea.** Ikuspegi berritzailea edukiz gero, jabetuko gara arau-esparruak agian ez dituela jasotzen berrikuntza batzuk baina galarazi ere ez dituela egiten. Ez gaitezen mugatu legeetan ezartzen dena bakarrik egitera: balioa sortzen duen eta aipaturiko legeetan galarazten ez den hori guztia ere egin behar dugu.

Iturria: *«Administrazio berrikuntzari eta sinplifikazioari buruzko dekalogoa»*
Dokumentu hori egiteko, ikastaro honetako gogoetak eta esperientzia-trukeak erabili dira: https://www.eudel.eus/eu/file/libro_ficheros/administrazio_berrikuntzari_eta_sinplifikazioari_buruzko_dekalogoa
«Administrazio-berrikuntzari buruzko tailerra. Tokiko administrazioko prozesuen etengabeko berrikuntzaren bidez izapideak arintzea» 2014ko apirilaren 2an, 3an eta 4an, Bilbon, 2014ko Zeharkako Prestakuntza Planaren baruan- Egilea: Fermín Cerezo Peco, Valentziako udaleko Berrikuntza Zerbitzuko burua IVAP-EUDELek argitaratua

En muchas administraciones y para muchas personas empleadas públicas existe un **sentido de urgencia** para dar solución a **una situación** insostenible en la relación de la ciudadanía y las empresas con sus administraciones públicas.

Esta situación insostenible y urgente viene caracterizada por un **EXCESO DE BUROCRACIA QUE OCASIONA LOS SIGUIENTES PERJUICIOS A LA SOCIEDAD**:	
1.	**Derechos de los ciudadanos y las ciudadanas no garantizados,** debido a que, de forma habitual y reiterada se les solicita una serie de documentos y acciones que son innecesarias e injustificadas.
2.	**La ciudadanía y las empresas soportan unos altos costes** asociados a dicha **burocracia** de obligado cumplimiento y a la **espera de la respuesta** administrativa que, en demasiadas ocasiones, se alarga más de lo legalmente establecido.
3.	La **incertidumbre,** en la relación ciudadanía-administración, se sitúa **siempre en la parte ciudadana**, que es quien debe resolverla; mientras que la administración se mantiene, a la espera, de forma inmovilista.
4.	Una administración con esquemas del siglo XIX y atascada en su zona de confort que **impide desarrollar capacidades y adaptarse a tiempo** a los cambios del entorno.
5.	Una **percepción ciudadana negativa** respecto a los servicios administrativos del sector público.

LÍNEAS DE ACTUACIÓN EN LA INNOVACIÓN ADMINISTRATIVA	
1.	**Desburocratización radical de la relación con la ciudadanía y la sociedad**. Innovaciones administrativas de desburocratización radical de la relación administrativa con la ciudadanía y la sociedad desde el pleno cumplimiento del marco normativo actual y basadas en la eliminación de documentos y requisitos, en la proactividad y anticipación y en pensar de forma diferente.
2.	**Eliminar ineficacias y desperdicios de nuestro trabajo.** Innovaciones administrativas de búsqueda de valor añadido para eliminar toda ineficacia, acción o tarea que ni aporta valor a la ciudadanía o sociedad, ni aporta valor a la organización. La burocracia no es mala por sí misma. Es el exceso de burocracia lo que nos paraliza.
3.	**Sumar inteligencias.** En pleno inicio de la revolución industrial 4.0, las oportunidades que se abren con el uso de las Tecnologías Habilitadoras Digitales (IoT, Bigdata, Inteligencia Artificial, Blockchain, Robotización, Automatización, Supercomputación, redes de 5G, etc.) nos debe hacer entender que la solución pasa no por sustituir una inteligencia por otra sino por sumar la inteligencia humana a la inteligencia artificial en la búsqueda de valor público.




Fuente: «Decálogo sobre innovación y simplificación administrativa»
https://www.eudel.eus/es/file/libro_ficheros/decalogo_de_innovacion_y_simplificacion_administrativa

Administrazio askotan eta langile publiko askoren ustez, **premiazkoa** da herritar eta enpresen eta euren administrazio publikoaren arteko harremanetan eutsiezina den egoerari irtenbidea ematea.

Larregizko burokrazia daukan egoera eutsiezin eta premiatsu horrek **GIZARTEARI HONAKO KALTE HAUEK ERAGITEN DIZKIOLAKO:**	
1.	**Herritarren eskubideak ez daude bermatuta**, behin eta berriro beharrezkoak ez diren eta justifikatuta ez dauden agiriak eta ekintzak eskatzen zaizkielako.
2.	**Herritar eta enpresek kostu handiak jasan behar izaten dituzte** derrigorrean bete beharreko **burokrazia** horrengatik eta askotan **Administrazioaren erantzunaren zain** legez behar baino luzaroago egon behar izateagatik.
3.	Herritarren eta Administrazioaren arteko harremanetan, **zalantza herritarren alderdian gelditzen da beti**, eta haiek argitu behar dute; Administrazioa, berriz, mugitu gabe eta zain gelditzen da.
4.	Administrazioak XIX. mendeko eskemak ditu oraindik, eta bere erosotasun-eremuan trabatuta dago, **bere gaitasunak garatu eta inguruan gertatzen diren aldaketetara egokitu ezinean**.
5.	**Herritarrek pertzepzio negatiboa dute** sektore publikoaren administrazio-zerbitzuei buruz.

JARDUKETA-ILDOAK ADMINISTRAZIO-BERRIKUNTZAN	
1.	**Burokratizazioa errotik ezabatzea herritarrekiko eta gizartearekiko harremanetan.** Administrazioak herritarrekin eta gizartearekin dituen harremanetan burokratizazioa errotik ezabatzeko administrazio-berrikuntzak, betiere egungo arau-esparrua guztiz betetzen dutenak eta oinarritzat daukatenak dokumentuak eta baldintzak ezabatzea, proaktibitatea, aurrea hartzea eta beste modu batera pentsatzea.
2.	**Gure lanetik eraginkortasunik eza eta alferrekoak ezabatzea.** Balio erantsia lortzeko administrazio-berrikuntzak, ez herritarrei edo gizarteari eta ez antolakundeari balio erantsirik ez dakarkien eraginkortasun falta, ekintza edo zeregin oro ezabatzekoak. Burokrazia, berez, ez da txarra. Gehiegizko burokraziak geldiarazten gaitu.
3.	**Adimenak gehitzea.** 4.0 iraultza industrialaren hasiera bete-betean, Teknologia Gaitzaile Digitalak (IoT, Bigdata, adimen artifiziala, Blockchain, robotizatzea, automatizazioa, superkonputazioa, 5G sareak, eta abar) erabiltzearekin zabaltzen diren aukerek ikusarazi behar digute irtenbidea ez dela adimen bat beste batek ordeztea, baizik eta giza adimena adimen artifizialari gehitzea, balio publikoa lortze aldera.




Iturria: «Administrazio berrikuntzari eta sinplifikazioari buruzko dekalogoa»
https://www.eudel.eus/eu/file/libro_ficheros/administrazio_berrikuntzari_eta_sinplifikazioari_buruzko_dekalogoa

La **primera de las recomendaciones** es

DIBUJAR A LA CIUDADANÍA EN NUESTRO ORGANIGRAMA

CIUDADANÍA EN EL CENTRO DE NUESTRO ORGANIGRAMA



Nuestras administraciones deben hacer el esfuerzo de **organizarse y trabajar con una visión transversal de sus actividades y personas** teniendo presente la **orientación hacia esa ciudadanía** y el **valor público** que añadimos desde ese inicio hasta ese final. Intenta dibujar la ciudadanía en tu organigrama y descubrirás que está en el centro.

Piensa en **Oficinas de Atención Ciudadana como laboratorios de innovación** donde se permita la generación e implantación de ideas propias y externas bajo un riesgo controlado en aras de crear una **Zona Libre de Burocracia**.

En definitiva, **podemos,** aunque sea en pequeña medida, **INCORPORAR EN NUESTRAS ADMINISTRACIONES LAS SIGUIENTES BUENAS PRÁCTICAS**
Capacitar a las personas de tu organización en técnicas de gestión de equipos, trabajo en equipo, visión transversal y orientación hacia los resultados y la mejora continua.
Formar equipos de trabajo multidisciplinares estables para abordar los principales servicios, proyectos y problemas transversales de nuestra administración, de forma que sean agentes del cambio.
Asignar objetivos y proyectos a esos equipos de trabajo multidisciplinares, darles autonomía y responsabilidad sobre los objetivos asignados.
Establecer indicadores de gestión que nos indiquen cómo nos va y qué resultados se consiguen.
Pedir a esos equipos de trabajo que una vez al año aporten **ideas de mejora e innovación** sobre sus ámbitos de trabajo e influencia y en base a los resultados y a lo aprendido. Pedirles que **prioricen esas ideas,** seleccionando aquellas que tengan un mayor impacto con un menor esfuerzo y **ayudarles a que esas ideas se hagan realidad**.
Buscar resultados menores a corto plazo y reconocerlos para construir sobre ellos resultados mayores a largo plazo. Recuerda que **buscamos un cambio cultural**.


Si conseguimos incorporar en la cultura organizativa estas pautas de gestión**, los retos y proyectos organizativos que nos plateemos serán mucho más fáciles.**

Fuente: «Decálogo sobre innovación y simplificación administrativa»
https://www.eudel.eus/es/file/libro_ficheros/decalogo_de_innovacion_y_simplificacion_administrativa

Lehen gomendioa zera da:

GURE ORGANIGRAMAN HERRITARRAK IRUDIKATZEA

HERRITARRAK GURE ORGANIGRAMAREN ERDIAN



Gure administrazioek **beren jarduerei eta pertsonei buruzko zeharkako ikuspegian oinarrituta antolatu eta jarduteko** ahalegina egin behar dute, **herritar horienganako orientazioa** eta hasieratik amaierara gehitzen dugun **balio publikoa** ahantzi gabe. Saiatu herritarrak zure organigraman marrazten, eta ohartuko zara erdi-erdian daudela.

Hartu **herritarrentzako arreta-bulegoak berrikuntzarako laborategi gisa**, non ideia propioak eta kanpoko ideiak sortu eta ezartzea ahalbidetzen den arrisku kontrolatu baten pean, **burokraziarik gabeko gune** bat sortze aldera.

Azken buruan, neurri txiki batean bada ere, **JARDUNBIDE EGOKI HAUEK TXERTATU BEHAR DITUGU GURE ADMINISTRAZIOETAN**
Trebatu zure erakundeko pertsonak talde-kudeaketako tekniketan, talde-lanean, zeharkako ikuspegian eta emaitzetarako eta etengabeko hobekuntzarako orientazioan.
Sortu diziplina anitzeko lantalde egonkorrak gure administrazioaren zerbitzu nagusiei, proiektuei eta zeharkako arazoei heldu eta aldaketaren eragileak izan daitezen.
Eman helburu eta proiektuak diziplina anitzeko lantalde horiei, eta eman autonomia eta ardura esleitu zaizkien helburuetan.
Zehaztu kudeaketa-adierazleak, nola gabiltzan eta zer helburu lortu ditugun jakiteko.
Eskatu lantalde horiei urtean behin euren lan- eta eragin-esparruak **hobetu eta berritzeko ideiak** eman ditzatela, emaitzetan eta ikasitakoan oinarrituta. Eskatu **ideia horietako batzuk lehenesteko**, ahalegin gutxiena eskatu eta inpaktu handiena izango dutenak aukeratuz, eta **lagundu ideia horiek gauzatzen**.
Bilatu emaitza txikiak epe laburrean, eta bere horretan onartu, epe luzera beraien gainean emaitza handiagoak eraiki ahal izateko. Gogoan izan **kultura-aldaketa dela gure helburua**.

Antolakuntzaren kulturan kudeaketako jarraibide horiek txertatzea lortzen badugu, **askoz ere errazago heldu ahal izango diegu aurrean ditugun antolakuntza-erronkei eta -proiektuei**.

Iturria: «Administrazio berrikuntzari eta sinplifikazioari buruzko dekalogoa»
https://www.eudel.eus/eu/file/libro_ficheros/administrazio_berrikuntzari_eta_sinplifikazioari_buruzko_dekalogoa

Hoy en día, la mayoría de las administraciones públicas disponen de un **Catálogo actualizado de los trámites municipales** con toda su información: descripción, requisitos, documentación que hay que aportar, plantillas, impresos o formularios asociados, tasas o impuestos, plazos de respuesta, efectos del silencio, información de contacto del personal empleado público responsable del trámite, preguntas o dudas ciudadanas más frecuentes, etc.

Necesitamos que el **catálogo de trámites sea un catálogo al 300%** y no hay excusa para ello pues es un derecho de la ciudadanía.

DISPONER DEL CATÁLOGO ACTUALIZADO DE TRÁMITES MUNICIPALES EN LA SEDE ELECTRÓNICA	
Sede electrónica con el **100% de los trámites publicados y siempre vigentes.**	• Absolutamente **necesario.** • Pero **no es suficiente** si no se permite la iniciación electrónica de los mismos.
Sumarle otro 100%: **El 100% de los trámites publicados en la sede electrónica permiten su iniciación por Internet**.	• Es un **derecho de la ciudadanía** tener la opción de iniciación electrónica de sus relaciones con el sector público. • **Para la administración, es una obligación** y un deber ofrecer dicha posibilidad.
Sumarle otro 100%: **El 100% de los trámites publicados se han desburocratizado radicalmente.**	• Si en el ámbito electrónico no eliminamos lo que sobra y nos limitamos a replicar el mundo en papel, **estaremos incorporando una burocracia más: la tecnológica**. • **Las leyes hablan de simplificar y mejorar como paso previo a tecnificar.**
SEDE ELECTRÓNICA AL 300%	

Fuente: «Decálogo sobre innovación y simplificación administrativa»
https://www.eudel.eus/es/file/libro_ficheros/decalogo_de_innovacion_y_simplificacion_administrativa

Gaur egun, administrazio publiko gehienek **udal izapideen katalogo eguneratu bat** dute, informazio hau guztia biltzen duena: deskribapena, eskakizunak, eraman beharreko agiriak, horretarako behar diren txantiloiak, inprimakiak eta formularioak, tasak eta zergak, erantzuteko epeak, isiltasunaren ondorioak, izapideaz arduratuko diren langile publikoekin harremanetan jartzeko informazioa, herritarrek gehien egiten dituzten galderak eta zalantzak, eta abar.

Izapideen katalogoa % 300eko katalogo bat izatea behar dugu, eta ez dago aitzakiarik hala ez izateko, herritarren eskubidea baita.

UDAL IZAPIDEEN KATALOGO EGUNERATUA ESKURA IZATEA EGOITZA ELEKTRONIKOAN	
Izapideen **% 100 argitaratuak eta beti indarrean dituen egoitza elektronikoa izatea**.	• Guztiz **beharrezkoa da**. • Baina **ez da nahikoa** izapideak elektronikoki bideratzeko aukera eskaintzen ez bada.
Beste % 100 bat gehitu behar zaio: **Egoitza elektronikoan argitaratutako izapideen % 100ek Internet bidez hasteko aukera ematen dute**.	• **Gizartearen eskubidea da** sektore publikoarekin dituen harremanak elektronikoki bideratu ahal izatea. • **Administrazioarentzat betebeharra da** aukera hori eskaintzea.
Beste % 100 bat gehitu behar zaio: **argitaratutako izapideen % 100etan burokratizazioa errotik ezabatu da.**	• Esparru elektronikoan ez badugu kentzen sobera dagoena, eta paperaren mundua kopiatu besterik ez badugu egiten, **beste burokrazia bat txertatzen ibiliko gara: teknologiarena**. • **Legeek diote sinplifikatu eta hobetu behar dela teknifikatu aurretik.**
EGOITZA ELEKTRONIKOA % 300ean	

Iturria: «Administrazio berrikuntzari eta sinplifikazioari buruzko dekalogoa»
https://www.eudel.eus/eu/file/libro_ficheros/administrazio_berrikuntzari_eta_sinplifikazioari_buruzko_dekalogoa

Solicitar una fotocopia del DNI de la persona interesada para la iniciación de cualquier tramitación con el Ayuntamiento es una **práctica común en la mayoría de administraciones**. Esta práctica incluso puede calificarse de hábito o tradición.	**Nuestra recomendación es**	• **ELIMINAR ESTE REQUISITO DOCUMENTAL DE LA INICIACIÓN** de toda tramitación administrativa. • Será **UNA BUENA DECLARACIÓN DE INTENCIONES** para el cambio cultural administrativo deseado.

¿Podemos tramitar expedientes sin la fotocopia del DNI? Sin duda, podemos	
Solo debemos hacer el ejercicio de **analizar lo que realmente necesitamos** y **distinguir entre:**	Lo que es **el documento requerido** (la fotocopia del DNI o similar).
	El dato o información necesaria para la tramitación administrativa (el dato del DNI o similar).
TAN SOLO NECESITAMOS EL SEGUNDO: EL DATO DEL DNI que se captura sin problemas en los dos escenarios posibles:	
1. **En atención ciudadana**, el dato del DNI o similar se toma por el funcionario o la funcionaria que atiende en persona, acredita la identidad y registra la entrada de la solicitud ciudadana.	
2. **En la sede electrónica**, el dato del DNI o similar se extrae automáticamente del DNI electrónico o el certificado digital de cualquiera de las Autoridades de Certificación reconocidas con las que trabajemos.	
La práctica nos hace ser contundentes en la respuesta: **EFECTIVAMENTE PODEMOS TRAMITAR LOS EXPEDIENTES ADMINISTRATIVOS SIN LA FOTOCOPIA DEL DNI**	

Cada vez que eliminamos la fotocopia del DNI **generamos un ahorro por reducción de cargas administrativas** de 5 € en un entorno presencial y de 4 € en un entorno electrónico.

Fuente: «Decálogo sobre innovación y simplificación administrativa»
https://www.eudel.eus/es/file/libro_ficheros/decalogo_de_innovacion_y_simplificacion_administrativa

Udalarekin edozein izapide egiteko, administrazio gehienetan ohikoa da interesdunari NANaren fotokopia eskatzea. Ohituratzat edo tradiziotzat ere jo daiteke.

Gure Gomendioa

- **ESKAKIZUN HORI KENTZEA** administrazio-izapide guztietan.
- **ASMOEN ADIERAZPEN ONA** izango da administrazio-kulturan egin nahi den aldaketa egiteko.

Tramitatu ditzakegu espedienteak NANaren fotokopiarik gabe? Zalantzarik gabe, bai	
Zera egin behar dugu **benetan behar duguna aztertu** eta **hauek bereizi:**	**Eskatu ohi dugun agiria** (NANaren fotokopia edo parekoa).
	Administrazio-izapidea egiteko behar dugun datua edo informazioa (NANaren datua edo parekoa).

BIGARRENA BAINO EZ DUGU BEHAR: NANaren DATUA

eta arazorik gabe aurkitu dezakegu, gerta dakizkigukeen bi egoera posibleetan:

1. **Herritarrentzako arretan**, NANaren datua edo horren parekoa aurrez aurre artatzen duen funtzionarioak jasotzen du, nortasuna egiaztatzen du eta ondoren herritarraren eskaera erregistratzen du.
2. **Egoitza elektronikoan**, NANaren datua edo parekoa automatikoki ateratzen da NAN elektronikoaren bidez, edo lanerako erabiltzen ditugun Egiaztatze Agintariek emandako beste edozein egiaztagiri digitalaren bidez.

Jardunak erakutsi digu erantzun biribila emateko aukera dugula:

BENETAN, ADMINISTRAZIO ESPEDIENTEAK NANaren FOTOKOPIARIK GABE TRAMITATU DITZAKEGU

NANaren fotokopia kentzen dugun bakoitzean, 5 euroko **aurrezpena sortzen dugu administrazio-kargak murrizteagatik** ingurune presentzial batean, eta 4 euroko aurrezpena ingurune elektroniko batean.

Iturria: «Administrazio berrikuntzari eta sinplifikazioari buruzko dekalogoa»
https://www.eudel.eus/eu/file/libro_ficheros/administrazio_berrikuntzari_eta_sinplifikazioari_buruzko_dekalogoa

Si nos hemos atrevido con un clásico, el DNI o similar, podemos seguir la estela y **ANALIZAR CRÍTICAMENTE EL RESTO DE DOCUMENTOS QUE SE SOLICITAN A LA CIUDADANÍA de forma reiterada y que podemos eliminar**.

En este caso, tampoco hay excusas: **LA CIUDADANÍA TIENE DERECHO A NO APORTAR DOCUMENTOS** que ya **obran en nuestro poder** o documentos que **acreditan situaciones que ya tenemos posibilidad de consultar** en nuestros sistemas de información (empadronamiento, deudas municipales, etc.).

<table>
<tr><th colspan="2">RECOMENDAMOS ELIMINAR LA SOLICITUD DE LA SIGUIENTE DOCUMENTACIÓN
ASOCIADA A MUCHOS TRÁMITES MUNICIPALES:</th></tr>
<tr><td colspan="2">1. Certificado de empadronamiento (otro clásico de nuestros trámites).</td></tr>
<tr><td colspan="2">2. Certificado de estar al corriente de deudas municipales.</td></tr>
<tr><td colspan="2">3. Cualquier otro certificado que emita la misma administración.</td></tr>
<tr><td colspan="2">4. Fotocopias de recibos y tributos municipales.</td></tr>
<tr><td colspan="2">5. Fotocopias de resoluciones de alcaldía o fotocopias de licencias y autorizaciones otorgadas previamente.</td></tr>
<tr><td rowspan="2">6. Justificante de pago, en entidad bancaria, de tasas asociadas a la iniciación de trámites administrativos.
Tenemos dos posibilidades:</td><td>a) Aceptamos el pago, en el mismo momento de la atención ciudadana, con cargo a una tarjeta de crédito/débito.</td></tr>
<tr><td>b) Esperamos a que las entidades bancarias nos envíen (muchas entidades lo hacen con periodicidad diaria) la información de cobro, para procesarla directamente en los sistemas de información administrativa.</td></tr>
<tr><td rowspan="3">7. Fotocopia de la cuenta bancaria.
Planteemos las siguientes preguntas:</td><td>¿Por qué exigimos la fotocopia de la cuenta bancaria (el documento), cuando sólo necesitamos los dígitos de la cuenta bancaria o ahora el IBAN (el dato)?</td></tr>
<tr><td>¿Por qué hacemos rellenar a la ciudadanía una «hoja de terceros» con todos los datos bancarios y le pedimos que se desplace, primero a su entidad bancaria para que el personal de dicha entidad valide o certifique dicha información? Y luego, de vuelta a la administración para entregarnos dicha hoja.</td></tr>
<tr><td>Como ciudadanos y ciudadanas, cuando tenemos que introducir la cuenta bancaria para que nos ingresen dinero o nos domicilien facturas, ¿no la repasamos varias veces?, ¿Qué hacemos cuando la declaración de renta nos sale a devolver? La repasamos dos veces, ¿verdad? Y hasta tres veces, si hace falta. ¿No existen dígitos de control en esa cuenta bancaria, que alertan y evitan errores en su introducción en los sistemas de información? Sin duda, el error puede ocurrir, pero ¿No creemos que el margen de error es tan mínimo y tan fácil de subsanar, por teléfono o correo electrónico, que quizá no justifique los sobrecostes y molestias ocasionadas?</td></tr>
</table>

Cada vez que eliminamos un documento que sabemos que no DEBEMOS solicitar generamos un doble ahorro:

- Por un lado, 5 € de ahorro por reducción de cargas administrativas al eliminar el documento.
- Por otro lado, 30 € de ahorro por reducción de cargas administrativas al eliminar el desplazamiento necesario para obtener de algún servicio municipal ese documento que exigimos.

Fuente: «Decálogo sobre innovación y simplificación administrativa»
https://www.eudel.eus/es/file/libro_ficheros/decalogo_de_innovacion_y_simplificacion_administrativa

Klasiko batekin ausartu bagara (NANarekin edo parekoarekin), ildo horri jarraitu, eta **HERRITARREI behin eta berriro eta alferrik ESKATZEN ZAIZKIEN GAINERAKO AGIRIAK ERE KRITIKOKI AZTERTU** ditzakegu.

Kasu horretan, berriro ere, ez dago aitzakiarik: **HERRITARREN ESKUBIDEA DA** dagoeneko **gure esku dauden** agiriak edota gure informazio-sistemetan (erroldan, udal-zorretan, eta abar) **kontsultatu ditzakegun egoerak egiaztatzeko balio duten AGIRIAK EZ EMATEA**.

<table>
<tr><th colspan="2">ZERA AHOLKATZEN DUGU: HONAKO AGIRI HAUEK ESKAERATIK KENTZEA
—UDAL IZAPIDE ASKO EGITEKO ESKATU OHI DIRA—:</th></tr>
<tr><td colspan="2">1. Errolda-ziurtagiria (gure izapideetako beste klasiko bat).</td></tr>
<tr><td colspan="2">2. Udal zorretan egunean egotearen ziurtagiria.</td></tr>
<tr><td colspan="2">3. Administrazio berberak ematen duen beste edozein ziurtagiri.</td></tr>
<tr><td colspan="2">4. Udal-ordainagirien eta zerga-agirien fotokopiak.</td></tr>
<tr><td colspan="2">5. Alkatetzaren ebazpenen fotokopiak edota aurretik emandako lizentzien eta baimenen fotokopiak.</td></tr>
<tr><td rowspan="2">6. Administrazio-izapideak bideratzeko tasak bankuan ordainduta edukitzearen egiaztagiria.

Bi aukera ditugu:</td><td>a) Herritarrari arreta ematen zaion unean bertan onartu dezakegu ordainketa, kreditu-txartelaren edo zordunketa-txartelaren bidez.</td></tr>
<tr><td>b) Banku-erakundeek kobrantzari buruzko informazioa bidali arte itxaron dezakegu (erakunde askok egunero bidaltzen dute informazio hori), administrazioaren informazio-sistemetan zuzenean prozesatzeko.</td></tr>
<tr><td rowspan="3">7. Banku-kontuaren fotokopia.
Egin ditzagun galdera hauek:</td><td>Zertarako eskatzen dugu banku-kontuaren (agiriaren) fotokopia, banku-kontuaren zenbakiak edo IBANa (datua) bakarrik behar baditugu?</td></tr>
<tr><td>Zertarako betearazten diegu herritarrei «hirugarrenen orria» banku-datu guztiekin, eta zertarako eskatzen diegu ondoren bankura joateko, bertan agiri horretako informazioa balioztatu edo egiaztatzeko? Eta ondoren berriz ere administraziora etorri behar dute orri hori ematera.</td></tr>
<tr><td>Herritarrok dirua sartu edo fakturak helbideratzeko banku-kontua idatzi behar dugunean, ez dugu informazio hori ondo berrikusten? Zer egiten dugu errenta-aitorpenean dirua itzultzea egokitzen zaigunean? Birritan ikusten dugu, ezta? Eta hiru bider ere bai, beharrezkoa bada... Banku-kontu horretan ez daude kontrolerako digituak, informazio-sistemetan zenbaki osoa idaztean arazoren bat dagoela jakinarazten digutenak? Zalantzarik gabe, hutsak gertatu egiten dira; alabaina, ez da zentzuzkoa pentsatzea huts egiteko aukera hain txikia dela, eta telefonoz edo posta elektronikoz hain erraz konpondu daitekeela, ezen eragiten ditugun gainkostuak eta eragozpenak saihestea daukagula?</td></tr>
</table>

Eskatu behar ez dugun dokumentu bat kentzen dugun bakoitzean, aurrezki bikoitza sortzen dugu:

- Alde batetik, 5 € aurrezten dira administrazio-kargak murrizteagatik, dokumentua kentzean.
- Bestetik, 30 € aurrezten dira administrazio-kargak murrizteagatik, udal-zerbitzuren batetik dokumentu hori eskuratzeko egin beharreko joan-etorria kendu baita.

Iturria: «Administrazio berrikuntzari eta sinplifikazioari buruzko dekalogoa»
https://www.eudel.eus/eu/file/libro_ficheros/administrazio_berrikuntzari_eta_sinplifikazioari_buruzko_dekalogoa

SUSTITUCIÓN DE LICENCIAS Y AUTORIZACIONES POR LA COMUNICACIÓN PREVIA Y LA DECLARACIÓN RESPONSABLE

(Recomendación 5.a)

Son muchos los **cambios legislativos** que se están produciendo en los que se está **sustituyendo el tradicional régimen de concesión de licencias y autorizaciones** por lo que la directiva de servicios y su normativa de transposición denominan **comunicación previa y declaración responsable,** y que permite el **ejercicio inmediato de derechos,** desde el mismo momento de la presentación.

La **sociedad se hace responsable de lo que hace y solicita** y, como contrapartida, **evita las esperas de meses** a la autorización administrativa previa.

Nuestra recomendación es **revisar todo el catálogo de trámites sujetos a licencias o autorizaciones,** para **valorar si también es posible extender el cambio** de modelo hacia declaraciones responsables y comunicaciones previas a otros trámites municipales, más allá de los meramente obligados por el ordenamiento jurídico.

Nos sorprenderá descubrir algunos trámites municipales que sometemos a licencia y autorización cuando no es necesario y una mera comunicación de una acción o hecho o declaración responsable es suficiente.

SUSTITUCIÓN DE LA APORTACIÓN DE DOCUMENTACIÓN Y REQUISITOS POR UNA DECLARACIÓN RESPONSABLE

(Recomendación 5.b)

Adicionalmente, existe otro escenario de valor en el uso de las declaraciones responsables. Este escenario es la **sustitución de la aportación de un conjunto amplio de documentos y requisitos**, que anteriormente se presentaban de forma reiterada, **por la presentación de una declaración responsable** que ratifica el cumplimiento de dichos requisitos y la posesión de la documentación exigida y que así lo acredita fehacientemente.

Cada vez que proporcionamos una respuesta inmediata a un trámite por el que se debía esperar un plazo, **generamos 200 € de ahorro por expediente** en materia de reducción de carga administrativas.

Fuente: «Decálogo sobre innovación y simplificación administrativa»
https://www.eudel.eus/es/file/libro_ficheros/decalogo_de_innovacion_y_simplificacion_administrativa

LIZENTZIAK ETA BAIMENAK ESKATU BEHARREAN AURRETIAZKO JAKINARAZPENAK ETA ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAK ESKATZEA

5.a) gomendioa:

Lege-aldaketa asko egiten ari dira, **lizentziak eta baimenak aitortzeko ohiko erregimenaren ordez**, zerbitzuen zuzentarauak eta hori gauzatzeko araudiak **«aurretiazko jakinarazpena» eta «erantzukizunpeko adierazpena» deritzotena erabiltzeko**. Izan ere, horren bidez, aurkezten den momentuan bertan **erabili daitezke eskubideak**.

Gizarteak hartzen du egiten eta eskatzen denaren gaineko erantzukizuna eta, horren truke, aurretiko administrazio-baimena eskuratzeko **hiletan zain egotea saihestuko dugu**.

Gure gomendioa zera da: **lizentziak eta baimenak behar dituzten izapideen katalogo osoa berrikustea, aztertzeko ea ez ote den posible** orain arteko ereduaren ordez, beste udal izapide batzuk egin aurretiko erantzukizunpeko adierazpenak eta aurretiazko jakinarazpenak erabiltzea, baldin eta ordenamendu juridikoak halakorik agintzen ez badu.

Harritu egingo gara konturatzen garenean zenbat udal izapidetan eskatzen dugun lizentzia edo baimena, horren premiarik ez dagoenean, nahikoa delako ekintzaren edo gertakizunaren berri ematea edo erantzukizunpeko adierazpena egitea.

DOKUMENTAZIOA ETA ESKAKIZUNAK AURKEZTU BEHARREAN, ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA AURKEZTEA

5.b) gomendioa:

Era berean, erantzukizunpeko adierazpenak erabiltzeko beste egoera egoki bat ere badago. Aurretiaz behin eta berriro aurkezten ziren **agiri eta eskakizun multzo zabala eman beharrean**, baldintza horiek bete direla eta eskatutako agiri guztiak ditugula zalantzarik gabe berresteko **erantzukizunpeko adierazpena aurkeztea**.

Itxaronaldi bat eskatzen zuen izapide bati berehalako erantzuna ematen diogun bakoitzean, **200 € aurrezten ditugu espediente bakoitzeko**, administrazio-kargak murrizteari dagokionez.

Iturria: «Administrazio berrikuntzari eta sinplifikazioari buruzko dekalogoa»
https://www.eudel.eus/eu/file/libro_ficheros/administrazio_berrikuntzari_eta_sinplifikazioari_buruzko_dekalogoa

NISAE - Nodo de Interoperabilidad y Seguridad de las Administraciones de Euskadi

A la ciudadanía no le gusta que le hagamos «pasearse» por las distintas administraciones públicas en busca de documentos y certificados que luego nos aportan para que nosotros podamos iniciar, instruir y resolver un expediente. Existe un amplio conjunto de documentos y requisitos que suelen ser fundamentales para la valoración técnica y toma de decisión administrativa en la fase de instrucción del procedimiento, y para cuya obtención, pedimos a la ciudadanía que acuda a otras administraciones públicas del ámbito foral, autonómico o estatal. En añadidura, muchos trámites relacionados con ayudas sociales exigen que estos documentos y requisitos no sólo hagan **referencia a la persona solicitante** sino **a todas las personas integrantes de la unidad familiar** (acreditación del nivel de ingresos y propiedades de la unidad familiar) por lo que los desplazamientos y sobrecostes innecesarios crecen exponencialmente.

Recomendación: EVITAR DESPLAZAMIENTOS DE LA CIUDADANÍA A OTRAS ADMINISTRACIONES UTILIZANDO **NISAE - Nodo de Interoperabilidad y Seguridad de las Administraciones de Euskadi** desarrollado por IZENPE, que conecta mediante la red EuskalSarea las administraciones públicas en un único nodo, y a su vez conecta ese nodo mediante la red SARA con la Plataforma de Intermediación de Datos de la Administración General del Estado y plataformas de otras Comunidades Autónomas.

La aparición de estas plataformas de intermediación es el resultado del desarrollo tecnológico de la administración electrónica entre las propias administraciones públicas. Este resultado, conocido como **INTEROPERABILIDAD**, está a nuestra disposición desde hace años, y nos permite **obtener dicha información en cuestión de segundos.**

Realmente nos encontramos ante la **posibilidad real de cumplir aquel antiguo derecho de la ciudadanía de no aportar documentación que obre en poder de la administración,** entendiendo ésta en su sentido más amplio. Nuestra obligación es **estar atentos a este cambio tecnológico** y **aprovechar la oportunidad para generar valor**. A continuación, se enumeran los servicios y documentos asociados que otras administraciones ponen a nuestra disposición en cuestión de segundos por vía electrónica y que, sin duda, irá consolidándose y creciendo paulatinamente.

(Ver Administración Electrónica - Interoperabilidad de esta misma guía)

CONSULTAS DISPONIBLES EN NISAE - Nodo de Interoperabilidad y Seguridad de las Administraciones de Euskadi
Consulta de estar al corriente de obligaciones tributarias (DDFF + AEAT).
Consulta de estar al corriente de pago de obligaciones con TGSS.
Consulta de estar dado de alta en fecha concreta en la Seguridad Social (TGSS).
Consulta y Verificación de datos de Identidad.
Consulta de datos de residencia legal.
Consulta de datos de domicilio fiscal (Haciendas Forales).
Consulta del padrón individual (Ayuntamientos de la CAPV).
Consulta del padrón domiciliario RGI (Ayuntamientos de la CAPV).
Consulta del padrón histórico (Ayuntamientos de la CAPV).
Consulta de datos de nacimientos.
Consulta de datos de matrimonios.
Consulta de estar inscrito en el registro de parejas de hecho.
Consulta de datos de defunciones.
Consulta de títulos no universitarios oficiales (Ministerio de Educación).
Consulta de títulos universitarios oficiales (Ministerio de Educación).
Consulta de datos de matrícula universitaria (CRUE).
Consulta de condición de becado (Ministerio de Educación).
Consulta de perfiles de certificaciones en euskera.
Consulta del nivel y grado de dependencia.
Consulta de inexistencia de antecedentes penales y antecedentes por delitos sexuales por datos de filiación.
Consulta de inexistencia de antecedentes penales y antecedentes por delitos sexuales por documentación.
Consulta de títulos de familia numerosa.
Consulta de datos de Etxebide.
Consulta de renta de garantía de ingresos.
Consulta de importes actuales de prestaciones de desempleo (SEPE).
Consulta de importes por periodo de prestaciones de desempleo (SEPE).
Consulta de inscripción como demandante de empleo a fecha concreta (SEPE).
Consulta de inscripción como demandante de empleo a fecha actual (SEPE).
Consulta de situación actual de prestaciones de desempleo (SEPE).
Consulta de prestaciones de desempleo (SEPE).
Consulta de prestaciones sociales públicas (RPSP-INSS).
Consulta de datos catastrales.
Validación de etiqueta de eficiencia energética.
Consulta de listado de vehículos (DGT).
Consulta de datos de vehículo (DGT).
Consulta de datos de vehículo para sanciones (DGT).
Consulta de permisos de conducir (DGT).
Consulta de sanciones de conductor (DGT).
Consulta de altas de IAE (Haciendas Forales).
Consulta de epígrafes del IAE (Haciendas Forales).
Consulta de datos de Empresas.
Consulta de empresas relacionadas con DNI.
Consulta de datos de pagadores de nómina.

Fuente: «NISAE: nodo de interoperabilidad y seguridad de las administraciones de Euskadi» https://nisae.izenpe.eus/inicio/

Cada vez que eliminamos un desplazamiento a otra administración para obtener un dato, documento o certificado que se presenta en nuestra administración generamos un **ahorro de 30 € por reducción de cargas administrativas.**

Fuente: «Decálogo sobre innovación y simplificación administrativa» https://www.eudel.eus/es/file/libro_ficheros/decalogo_de_innovacion_y_simplificacion_administrativa

NISAE-Euskadiko Administrazioen Segurtasunerako eta Elkarreragingarritasunerako Nodoa

Herritarrei ez zaie gustatzen administrazio publiko batetik bestera «paseoan» ibiltzea, espediente bat abiatu, bideratu eta ebazteko behar ditugun agiri eta ziurtagirien bila. Prozeduraren instrukzio-fasean balorazio teknikoa egin eta administrazioak erabakia hartzeko funtsezkoak izaten diren agiri eta eskakizunen multzo zabala dago. Foru-aldundien, erkidegoaren edo estatuaren beste administrazio publikoetara joateko eskatzen diegu herritarrei, agiri eta eskakizun horiek eskuratu eta gero guri ekartzeko. Gainera, gizarte-laguntzei lotutako izapide askotan eskatzen da agiri eta eskakizun horiek ez izatea **bakarrik eskatzaileari buruzkoak, eta bai familia-unitatea osatzen duten pertsona guztiei buruzkoak ere** (familia-unitatearen diru-sarreren eta jabetzen egiaztagiria). Gauzak horrela, beharrezkoak ez diren joan-etorriak eta gainkostuak areago hazten dira.

Gomendioa: SAIHESTEA HERRITARREK BESTE ADMINISTRAZIO BATZUETARA JOAN BEHAR IZATEA, eta horretarako IZENPEk garatutako **NISAE-Euskadiko Administrazioen Segurtasunerako eta Elkarreragingarritasunerako Nodoa** erabiltzea: EuskalSarea sarearen bidez nodo bakar batean konektatzen ditu euskal administrazioak, eta, aldi berean, nodo hori Estatuko Administrazio Orokorraren Datu-bitartekaritzarako Plataformarekin konektatzen du, SARA plataformaren bidez.

Bitartekaritza-plataforma horiek administrazio publikoen arteko administrazio elektronikoaren garapen teknologikoaren emaitza dira. Emaitza horri esker —**ELKARREKAGINGARRITASUNA** esaten zaio, eta urte batzuk dira gure esku dagoela—, segundo **gutxitan eskuratu dezakegu behar dugun informazioa.**

Horri esker**, herritarren aspaldiko eskubide hura benetan betetzeko aukera dugu; alegia, administrazioaren esku dagoen agiririk aurkeztu beharrik ez izatea**, edozein dela ere administrazioa. **Aldaketa teknologiko horri arreta egin eta balioa sortzeko aukera aprobetxatzeko** betebeharra dugu. Beheko zerrendan ematen dira beste administrazio batzuek bide elektronikotik segundo gutxitan gure esku jartzen dituzten zerbitzuak eta horiei lotutako agiriak. Zerrenda hori poliki-poliki finkatzen eta hazten joango da zalantzarik gabe.

(Ikusi, gida honetan bertan, Administrazio Elektronikoa-Elkarreragingarritasuna)

KONTSULTA HAUEK EGIN DAITEZKE NISAE - Euskadiko Administrazioen Segurtasunerako eta Elkarreragingarritasunerako Nodoan:
Zerga-betebeharretan egunean dagoen (FA + AEAT).
GSDNrekiko ordainketa-betebeharretan egunean dagoen.
Data zehatz batean Gizarte Segurantzan alta emanda dagoen (GSDN).
Identitate-datuak.
Legezko bizilekuari buruzko datuak.
Egoitza fiskalari buruzko datuak (foru-ogasunak).
Errolda indibiduala (EAEko udalak).
Bizileku-errolda DSBE (EAEko udalak).
Errolda historikoa (EAEko udalak).
Jaiotza-datuak.
Ezkontza-datuak.
Izatezko bikoteen erregistroan inskribatuta dagoen.
Heriotza-datuak.
Titulu ez-unibertsitario ofizialak (Hezkuntza Ministerioa).
Titulu unibertsitario ofizialak (Hezkuntza Ministerioa).
Unibertsitate-matrikulari buruzko datuak (CRUE-Espainiako Unibertsitateetako Errektoreen Konferentzia).
Bekadun-egoerari buruzko datuak (Hezkuntza Ministerioa).
Euskarazko hizkuntza-eskakizunei buruzko datuak.
Mendetasun-maila eta -gradua.
Aurrekari penalak eta sexu-delituen aurrekariak filiazio-datuen arabera.
Aurrekari penalak eta sexu-delituen aurrekariak dokumentazioaren arabera.
Familia ugarien tituluak.
Etxebideko datuak.
Diru-sarrerak bermatzeko errenta.
Langabezia-prestazioen zenbatekoak gaur egun (SEPE-Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoa).
Langabezia-prestazioen zenbatekoak prestazio-aldien arabera (SEPE-Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoa)
Data zehatz batean enplegu-eskatzaile bezala inskribatuta dagoen (SEPE).
Gaur egun enplegu-eskatzaile bezala inskribatuta dagoen (SEPE).
Langabezia-prestazioen egoera gaur egun (SEPE-Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoa).
Langabezia-prestazioak (SEPE-Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoa).
Gizarte-prestazio publikoak (RPSP-GSIN).
Katastro-datuak.
Efizientzia Energetikoaren etiketaren balidazioa.
Ibilgailu-zerrenda (DGT).
Ibilgailuaren datuak (DGT).
Ibilgailuaren datuak ebazpenetarako (DGT).
Gidabaimenak (DGT).
Gidariaren zehapenak (DGT).
JEZren altak (foru-ogasunak).
JEZren epigrafeak (foru-ogasunak).
Enpresen datuak.
Enpresak NANaren arabera.
Nomina-ordaintzaileen datuak.

Iturria: «NISAE-Euskadiko Administrazioen Segurtasunerako eta Elkarreragingarritasunerako Nodoa» https://nisae.izenpe.eus/hasiera/

Gure administrazioan aurkezten den datu, dokumentu edo ziurtagiri bat lortzeko beste administrazio batera joan beharra kentzen dugun bakoitzean, **30 € aurreztuko ditugu administrazio-kargak murrizteagatik**.

Iturria: «Administrazio berrikuntzari eta sinplifikazioari buruzko dekalogoa» https://www.eudel.eus/eu/file/libro_ficheros/administrazio_berrikuntzari_eta_sinplifikazioari_buruzko_dekalogoa

La persona interesada está habituada a presentar una solicitud y esperar un plazo a que la Administración conteste. Este plazo **en ocasiones se demora demasiado**, más allá incluso del recogido en normas y procedimientos aprobados. En algunos casos es posible que la propia oficina presencial o virtual esté en condiciones de emitir la resolución correspondiente en el mismo momento de la solicitud.

No se trata, en este caso de una reducción de los requisitos que debe cumplir la persona interesada sino que, por el contrario, manteniendo esos mismos requisitos, se han implantado las innovaciones necesarias para poder comprobar en ese mismo momento el cumplimiento o no de todos los requisitos que dan paso a la resolución favorable o denegatoria de la solicitud. A pesar de no eliminar requisitos, esta mejora sí conlleva la **eliminación del tiempo de espera y ahorro de costes** con la consiguiente satisfacción de las personas usuarias del servicio.

<table>
<tr><th colspan="2">PONGAMOS UN EJEMPLO</th></tr>
<tr><td rowspan="3">Si somos capaces de utilizar en nuestros servicios de atención ciudadana los avances en materia de interoperabilidad entre administraciones públicas (recomendación 6), nos daremos cuenta de que ESTAMOS A LAS PUERTAS DE OTRA INNOVACIÓN ADMINISTRATIVA EN EL SECTOR PÚBLICO LOCAL</td><td>Existe un conjunto de trámites municipales (subvenciones, ayudas sociales, becas, etc.) que se resuelven por resolución de alcaldía, y cuya concesión favorable o denegación sólo depende de que el personal funcionario constate el cumplimiento o no de unos requisitos normalmente relacionados con ingresos, propiedades, residencia y ausencia de deudas, y que formalmente vienen aprobados previamente por una ordenanza reguladora.</td></tr>
<tr><td>La constatación de estos requisitos puede hacerse hoy en día en cuestión de segundos, por lo que, en la práctica, existen servicios de atención ciudadana que informan y adelantan de palabra el sentido de la respuesta administrativa en dichos trámites.</td></tr>
<tr><td>Adicionalmente, en estos escenarios administrativos, suele darse un hecho relevante: cuando se informa y se muestra a la ciudadanía los datos procedentes de otras administraciones que constatan el incumplimiento de los requisitos para acceder a unos derechos, ayudas o becas, la ciudadanía desiste en su pretensión inicial de solicitar dichos derechos o ayudas públicas. Este hecho genera a su vez una capacidad añadida en los servicios de gestión interna que pueden dedicarse mejor a estudiar los casos más sensibles y a mejorar los tiempos de respuesta administrativa.</td></tr>
</table>

LA PREGUNTA CLAVE AHORA ES LA SIGUIENTE:	LA PREGUNTA CLAVE FUTURA SERÁ:
Si somos capaces de informar de palabra del sentido futuro de la propuesta administrativa, ¿no podríamos adaptar nuestros sistemas de información para **proporcionar una resolución exprés** en estos escenarios, utilizando las herramientas de la firma automatizada y los sellos de órgano que nos proporciona la legislación vigente en materia de administración electrónica? Creemos que sí.	¿Podremos adaptar los sistemas de información para que **sondeen de oficio estos escenarios de cumplimientos o incumplimientos** de requisitos de acceso a derechos y ayudas, de forma que **la administración actúe proactivamente cuando se detecten estos casos**? Creemos que también. (Recomendación 9).

Cada vez que proporcionamos una respuesta inmediata a un trámite por el que se debía esperar un plazo, **generamos 200 € de ahorro por expediente** en materia de reducción de carga administrativas.

Fuente: «Decálogo sobre innovación y simplificación administrativa»
https://www.eudel.eus/es/file/libro_ficheros/decalogo_de_innovacion_y_simplificacion_administrativa

Interesduna ohituta dago eskabidea aurkeztu eta Administrazioak erantzuteko epe bat itxarotera. Epe hori batzuetan gehiegi luzatzen da, onartutako arau eta prozeduretan jasotakoa baino gehiago. Zenbaitetan, bulego fisikoa edo birtuala eskabidea egiten den unean dagokion ebazpena emateko moduan egon daiteke.

Kasu honetan, ez dira gutxituko interesdunak dauzkan betekizunak. Aitzitik, baldintza horiek mantenduta, behar diren berrikuntzak ezarri dira une horretan bertan egiaztatu ahal izateko eskabidea onartzearen aldeko edo kontrako ebazpena dakarten baldintza guztiak bete diren ala ez. Baldintzak kendu ez arren, hobekuntza horrek **itxaronaldia kentzea eta kostuak aurreztea** dakar, eta, horren ondorioz, zerbitzuaren erabiltzaileak pozik agertzen dira jasotako zerbitzuarekin.

<table>
<tr><th colspan="2">ESATE BATERAKO</th></tr>
<tr><td rowspan="3">Herritarren arreta-zerbitzuetan administrazio publikoen arteko harremanak edukitzeko elkarreragingarritasun-aurrerapenak erabiltzeko gai baldin bagara (6. gomendioa), TOKIKO SEKTORE PUBLIKOAN BESTE BERRIKUNTZA ADMINISTRATIBO BATEN ATARIAN GAUDELA ohartuko gara.</td><td>Gure udal izapideen multzo bat (dirulaguntzak, gizarte-laguntzak, bekak, eta abar) alkatetzaren ebazpenaren bidez ebazten da, eta, horiek onartzeko edo ukatzeko, funtzionarioak baldintza batzuk bete direla egiaztatu behar du, hauei lotutakoak: diru-sarrerak, jabegoak, bizitokia, eta zorrik ez izatea. Ikuspegi formalaren arabera, ordenantza arautzaile batek onartzen ditu aurrez.</td></tr>
<tr><td>Gaur egun, baldintza horiek istantean egiaztatu daitezke. Praktikan, herritarrentzako arreta-zerbitzu batzuek informatzen dute eta ahoz aurreratzen dute izapide horiei eman beharreko erantzun administratiboa.</td></tr>
<tr><td>Gainera, horrelako egoera administratiboetan aparteko zerbait gertatzen da: eskubideak, laguntzak edo bekak lortzeko baldintzak betetzen ez direla herritarrei jakinarazi eta erakustean, informazio hori beste administrazioetatik etorriz gero, herritarrek uko egiten diete eskubideak edo laguntza publiko horiek eskatzeko hasierako asmoari. Horrek, halaber, barne-kudeaketako zerbitzuetan gaitasun gehigarria sortzen du; kasu zailenak aztertzeko eta erantzun administratiboa emateko denbora-tarteak hobetzeko aukera dute.</td></tr>
</table>

HONA HEMEN ORAINGO FUNTSEZKO GALDERA:	HONA HEMEN ETORKIZUNEKO FUNTSEZKO GALDERA:
Proposamen administratiboaren etorkizuneko zentzuaz ahoz informatzeko gai baldin bagara, ezin izango ditugu gure informazio-sistemak egokitu, izenpe automatizatuaren tresnez eta administrazio elektronikoari buruzko indarreko legeriak emandako organo-zigiluez baliatuta, egoera horietan **berehalako ebazpen bat emateko**? Baietz uste dugu.	Informazio-sistemak egokitu ahal izango ditugu eskubideak eta dirulaguntzak eskuratzeko baldintzak **betetzen diren ala ez jakiteko datuak automatikoki bilatu** eta, horrela, kasu horiek aurkitzen direnean **Administrazioak modu proaktiboan jardun ahal izateko**? Horretan ere baiezkoan gaude. (9. gomendioa).

Itxaronaldi bat eskatzen zuen izapide bati berehalako erantzuna ematen diogun bakoitzean, **200 € aurrezten ditugu espediente bakoitzeko**, administrazio-kargak murrizteari dagokionez.

Iturria: «Administrazio berrikuntzari eta sinplifikazioari buruzko dekalogoa»
https://www.eudel.eus/eu/file/libro_ficheros/administrazio_berrikuntzari_eta_sinplifikazioari_buruzko_dekalogoa

Existen diversas **autorizaciones, licencias, permisos**, que tienen una **vigencia determinada**, transcurrida la cual se abre la **posibilidad de renovación**.

Con frecuencia, la Administración establece un **procedimiento de solicitud de renovación tan** complejo como el que dio origen al derecho inicial, exigiendo a la persona interesada la presentación de una nueva solicitud, aportación de datos y documentos, que en la mayoría de los supuestos obran ya en poder de la Administración.

Con la **RENOVACIÓN AUTOMÁTICA**

se valora que la **Administración actúa de oficio,**

eliminando cargas a la persona interesada.

Por otro lado, hay veces que sometemos a la ciudadanía y sociedad a peticiones y solicitudes anuales sin pensar que podemos reducir la frecuencia de su relación con la Administración.

Con la **REDUCCIÓN DE FRECUENCIA**

se valora que la Administración innove para **disminuir la frecuencia** con la que la ciudadanía debe relacionarse con ella.

Algunos ejemplos de uso **PUEDEN VALORARSE CON LAS SIGUIENTES PREGUNTAS**:	
1.	¿Podemos extender de oficio la bonificación del IBI por familia numerosa durante todos los años de validez del título de familia numerosa, en lugar de exigir que sea una bonificación rogada con carácter anual a solicitar entre enero y febrero?
2.	¿Podemos renovar automáticamente las autorizaciones de uso de dominio público para instalación de terrazas previamente concedidas si no hay variación de los cumplimientos y las condiciones inicialmente establecidas, solicitando meramente el pago de tributos que correspondan en cada caso?
3.	¿Podemos comprobar que persiste la situación de oficio o de manera inteligente? Una familia que es numerosa seguirá siendo numerosa con un alto grado de probabilidad durante un periodo extenso de tiempo. Este hecho puede ser comprobado administrativamente de oficio o incluso algo mejor, orientar nuestros sistemas de información para incorporar algoritmos inteligentes que comprueben de forma sistémica y automatizada dichos hechos y situaciones.

Cada vez que permitimos escenarios de renovación automática o de reducción de la frecuencia de relación con la Administración, **generamos 175 € de ahorro por expediente** en materia de reducción de cargas administrativas.

Fuente: «Decálogo sobre innovación y simplificación administrativa»
https://www.eudel.eus/es/file/libro_ficheros/decalogo_de_innovacion_y_simplificacion_administrativa

Indarraldi mugatuko zenbait baimen eta lizentzia daude, eta, indarraldia amaitutakoan, haiek **berritzeko aukera** egoten da.

Sarritan, Administrazioak hasierako eskubidea ekarri zuena bezain konplexua den **berriztatzeko prozesua** ezartzen du eta interesdunari eskabide berria, datuak eta dokumentuak aurkeztea eskatzen dio, horiek dagoeneko Administrazioaren esku egon arren.

BEREHALAKO BERRIZTATZEARI esker

baloratu egiten da Administrazioak ofizioz jardutea,

interesdunari kargak kenduta.

Bestalde, batzuetan herritarrei eta gizarteari eskaerak eta urteko eskariak egin ohi dizkiegu, kontuan hartu gabe Administrazioarekin izan behar dituzten harremanen maiztasuna murriztu dezakegula.

MAIZTASUN-MURRIZKETAREKIN


baloratu egiten da Administrazioak berrikuntzak egitea herritarrek berarekin izan behar dituzten harremanen **maiztasuna murrizteko**.

	Erabilerari buruzko hainbat adibide **HONAKO GALDERA HAUEKIN BALORATU DAITEZKE:**
1.	Familia ugariagatiko Ondasun Higiezinen gaineko Zergaren hobaria ofizioz luzatu ahal dugu familia ugariko titulua indarrean dagoen urte guztietan, urtean behin, urtarriletik otsailera bitartean, eskatzen den hobaria izan ordez?
2.	Hasieran ezarritako betekizunak eta baldintzak aldatu ezean, aldez aurretik baimendutako terrazak instalatzeko jabari publikoaren baimenak berehala berriztatu ahal ditugu, horretarako kasu bakoitzean dagozkion zergak ordaintzea eskatuta?
3.	Egiazta dezakegu ofizioz edo modu adimentsuan egoera bere horretan dagoela? Familia ugari batek ugaria izaten jarraituko du denbora luzean, segur aski. Hori Administrazioak ofizioz egiazta dezake, edo, are hobeto, gure informazio-sistemak orientatu ditzakegu gertakari eta egoera horiek modu sistemiko eta automatizatuan egiaztatuko dituzten algoritmo adimendunak erabiltzeko.

Automatikoki berritzeko aukera ematen dugun bakoitzean edo Administrazioarekiko harremanaren maiztasuna murritzen dugun bakoitzean, **175 € aurreztuko ditugu espediente bakoitzeko**, administrazio-kargak murrizteari dagokionez.

Iturria: «Administrazio berrikuntzari eta sinplifikazioari buruzko dekalogoa»
https://www.eudel.eus/eu/file/libro_ficheros/administrazio_berrikuntzari_eta_sinplifikazioari_buruzko_dekalogoa

LA IMPLANTACIÓN DE TRAMITACIÓN PROACTIVA Y PERSONALIZADA ES EL NIVEL MÁS ALTO DE CALIDAD DE SERVICIOS POR PARTE DE LA ADMINISTRACIÓN dentro de los baremos de la Unión Europea.



LA TRAMITACIÓN PROACTIVA



UN EJEMPLO DE TRANSVERSALIDAD

aplicada al **ofrecimiento de servicios** y **tramitación de forma proactiva**

Cuando un ciudadano o una ciudadana se acerca a una oficina de atención y solicita, por ejemplo, una bonificación del Impuesto de Bienes Inmuebles por familia numerosa nos está ofreciendo una información, un hecho vital (ser familia numerosa), muy valiosa para la mejora de la calidad de los servicios públicos.

Si la **administración pública está coordinada y organizada transversalmente**, este conocimiento puede **lanzar, de forma proactiva, el ofrecimiento de información, derechos e incluso iniciación administrativa** de otros beneficios y trámites destinados a familias numerosas.

La **percepción ciudadana del servicio recibido será muy superior al esperado**, y los valores de **eficacia, buen servicio público** y **transparencia** formarán parte del mapa mental del ciudadano o ciudadana al salir de las dependencias municipales.

Hechos vitales que aparecen en la atención e iniciación administrativa hay muchos y, sin duda, son **buenos escenarios para innovar administrativamente en este sentido** y **ofrecer servicios más allá de lo inicialmente solicitado**.

Algunos ejemplos más que abren un abanico de posibilidades son: cambiar de residencia, tener un hijo o hija, iniciar estudios universitarios, comprarse una vivienda, jubilarse, padecer una minusvalía, etc.

UN CASO GLOBAL que supone **PROACTIVIDAD Y TRANSVERSALIDAD entre todos los niveles competenciales** de la Administración

Cuando una familia crece por el nacimiento de un hijo o una hija en un hospital podemos plantearnos la siguiente cuestión: ¿Existe alguna razón técnica o jurídica que impida hoy en día que esa familia vuelva a casa a cuidar de su hijo o hija con todos los trámites administrativos vinculados a este hecho vital realizados, o al menos iniciados, desde el propio hospital?


La inscripción en el registro civil, la actualización del libro de familia, la obtención de la tarjeta sanitaria para su bebé, la tramitación del permiso de maternidad para la madre y el permiso de paternidad para el padre, el alta de empadronamiento municipal, etc., son algunos de los trámites que nos ocupan en esas primeras semanas de nuestra descendencia y ante los cuales una administración ágil, coordinada y transversal podría ofrecer algunas soluciones innovadoras.

¿Cuál sería la **percepción ciudadana** si el sector público pudiera coordinarse para dar este enfoque?, ¿cuántas serían las **molestias y desplazamientos evitados**?, ¿y los **ahorros ocasionados** también en las arcas públicas? Tan solo son algunas cuestiones y ejemplos **PARA ANALIZAR Y REFLEXIONAR**.

Cada vez que actuamos de forma proactiva ante necesidades obvias, generamos **100 € de ahorro por expediente** en materia de reducción de cargas administrativas.

Fuente: «Decálogo sobre innovación y simplificación administrativa»
https://www.eudel.eus/es/file/libro_ficheros/decalogo_de_innovacion_y_simplificacion_administrativa

TRAMITAZIO PROAKTIBO ETA PERTSONALIZATUA EZARTZEA ADMINISTRAZIOAREN ZERBITZUEN KALITATEAREN MAILA GORENA DA, Europar Batasunaren baremoen arabera.



TRAMITAZIO PROAKTIBOA



ZEHARKAKO IZAERARI BURUZKO ADIBIDEA

zerbitzuen eskaintzari eta **modu proaktiboko tramitazioari buruz**

Herritar bat arreta-bulegoren batera hurbildu eta, esate baterako, familia ugaria edukitzeagatik Ondasun Higiezinen gaineko Zergaren hobaria eskatzen duenean, informazioa ematen ari zaigu, garrantzi handiko gertaera bat (familia ugaria izatea), eta hori zerbitzu publikoen kalitatea hobetzeko balio handiko informazioa da.

Herri-administrazioa zeharka koordinatuta eta antolatuta egonez gero, ezagutza horrek **modu proaktiboan bideratu dezake informazioaren, eskubideen** eta familia ugariak helburu dituzten beste onura zein tramite batzuk **administrazioan hasteko eskaintza**.

Herritarrek jasotako zerbitzuari buruz duten pertzepzioa espero izandakoa baino askoz hobea izango da eta herritarrek **efikazia, zerbitzu publiko eta gardentasuna bezalako balioak** gogoan izango dituzte udal egoitzetatik irtetean.

Administrazio-arretan eta -hasieran **bizi-gertaera** ugari agertzen dira eta, zalantzarik gabe, ildo horretan administrazioaren ikuspuntuaren arabera berritzeko eta hasieran eskatutakotik haragoko zerbitzuak eskaintzeko agertoki egokiak dira.

Esate baterako, hurrengo egoera-multzoa dago: bizitoki-aldaketa, semea edo alaba edukitzea, unibertsitateko ikasketak hastea, etxebizitza erostea, erretiroa hartzea, baliaezintasunen bat edukitzea, eta abar

PROAKTIBOTASUNA ETA Administrazioaren **eskumen-maila guztien arteko ZEHARKAKO IZAERA** dakartzan **KASU OROKOR BAT**

Familia bat ospitale batean seme-alabaren jaiotzagatik handitzen denean, honako galdera luzatzen dugu: Ba al dago ospitalean bertan funtsezko gertaera horri lotutako tramite administratibo guztiak eginda edo, behinik behin, hasita, familia hori seme-alaba zaintzeko etxera bueltatzea eragozten duen arrazoi tekniko edo juridikorik?

Gure ondorengoen bizitzaren hasierako asteetan hainbat tramite egin behar izaten ditugu: erregistro zibilean izena ematea, familia-liburua eguneratzea, ume jaioberriarentzako osasun-txartela lortzea, amaren amatasuneko eta aitaren aitatasuneko baimenak tramitatzea, udal-erroldan alta ematea, eta abar. Horien aurrean, zeharkako administrazio bizkor eta koordinatuak zenbait soluzio berritzaile eskaini lezake.

Nola hartuko lukete herritarrek sektore publikoak ikuspegi hori emateko asmoz koordinatzeko aukera izanez gero? Zenbat **eragozpen eta joan-etorri desagertuko lirateke**? Eta diruzaintza publikoetan ere **eragindako aurrezkiak**? **AZTERTU ETA HAUSNARTZEKO** gai eta adibide batzuk baino ez dira.

Ageriko beharrizanen aurrean modu proaktiboan jarduten dugun bakoitzean, **100 € aurrezten ditugu espediente bakoitzeko**, administrazio-kargak murrizteari dagokionez.

Iturria: «Administrazio berrikuntzari eta sinplifikazioari buruzko dekalogoa»
https://www.eudel.eus/eu/file/libro_ficheros/administrazio_berrikuntzari_eta_sinplifikazioari_buruzko_dekalogoa

En las últimas décadas las Administraciones Públicas están haciendo **un gran esfuerzo para reducir los plazos legales de tramitación** de los procedimientos. Con la introducción plena de la **administración electrónica es posible seguir acortando** los plazos de tramitación y los tiempos de espera por parte de la ciudadanía y puede que estemos en disposición de ajustar los plazos establecidos inicialmente.

TÉCNICA DEL ANÁLISIS DE VALOR AÑADIDO DE NUESTRAS ACTIVIDADES, como técnica muy utilizada en la **reducción de plazos de tramitación** administrativos		
Consiste en clasificar todas las actividades que se realizan en la tramitación administrativa de un determinado procedimiento en una de las siguientes tres categorías:		
1.	**ACTIVIDADES CON VALOR REAL AÑADIDO**	Son actividades que añaden un beneficio directo para la ciudadanía o clientela del servicio.
2.	**ACTIVIDADES CON VALOR PARA LA ADMINISTRACIÓN**	Son actividades que no tienen valor añadido para la ciudadanía pero que son necesarias, al estar establecidas en nuestro entorno jurídico y administrativo, o proporcionan eficiencia en la gestión.
3.	**ACTIVIDADES SIN VALOR AÑADIDO**	Son actividades que no tienen valor añadido para la ciudadanía, que no son exigidas por el entorno jurídico y que no provocan eficiencia en la gestión.

Una vez desplegado el ejercicio de análisis de valor añadido de las actividades de un procedimiento, **DEBEN TOMARSE LAS SIGUIENTES MEDIDAS** que provocarán una **reducción de los plazos de tramitación**:		
1.	**ACTIVIDADES CON VALOR REAL AÑADIDO**	Deben **respetarse, cuidarse e incluso mejorar** la asignación de recursos para las mismas.
2.	**ACTIVIDADES CON VALOR PARA LA ADMINISTRACIÓN**	Se **mantienen**, pero debemos intentar **ser eficientes** y reducir el **tiempo de ejecución** y la **dedicación** que conllevan.
3.	**ACTIVIDADES SIN VALOR AÑADIDO**	Simplemente **se eliminan.**

Cada vez que reducimos nuestros plazos de respuesta y con ello la espera de la ciudadanía y sociedad estamos generando un ahorro en reducción de cargas administrativa de:

- 20 € si la reducción es menor al 25% del plazo.
- 60 € si la reducción está entre el 25% y el 50%.
- 110 € si la reducción está entre el 51 y el 75%.
- 180 € si la reducción es superior al 75%.

Fuente: «Decálogo sobre innovación y simplificación administrativa»
https://www.eudel.eus/es/file/libro_ficheros/decalogo_de_innovacion_y_simplificacion_administrativa

Azken hamarkadetan, administrazio publikoak **ahalegin handia egiten ari dira prozedurak tramitatzeko legezko epeak gutxitzeko**. **Administrazio elektronikoa** sartzearekin batera **errazagoa da** tramitatzeko epeak eta herritarren itxaronaldiak **laburtzea**. Hala, hasieran ezarritako epeak doitzeko moduan egon gaitezke.

GURE JARDUEREN BALIO ERANTSIA AZTERTZEKO TEKNIKA, **tramite administratiboen epeak laburtzeko** sarritan erabiltzen dena		
Prozedura jakin baten tramitazio administratiboan egindako jarduera guztiak hiru kategoria hauetako batean sailkatzean datza:		
1.	**BENETAKO BALIO ERANTSIA DAKARTEN JARDUERAK**	Herritarrentzat edo zerbitzuaren bezeroarentzat onura zuzena gehitzen duten jarduerak dira.
2.	**ADMINISTRAZIOARENTZAKO BALIOA DAKARTEN JARDUERAK**	Herritarrentzat balio erantsirik eman ez arren, beharrezkoak dira gure ingurune juridiko eta administratiboan ezarrita daudelako edo kudeaketan eraginkortasuna handitzen dutelako.
3.	**BALIO ERANTSIRIK GABEKO JARDUERAK**	Herritarrentzat balio erantsirik ez duten jarduerak dira, ingurune juridikoak ez ditu eskatzen eta kudeaketan ez dute eraginkortasunik eragiten.

Prozedura baten jarduera guztien balio erantsiaren analisia egindakoan, **ERABAKIAK HARTU BEHAR DIRA** tramitatzeko epeak murrizteko aukera emango duten honako erabaki hauek:		
1.	**BENETAKO BALIO ERANTSIA DAKARTEN JARDUERAK**	**Errespetatu eta zaindu** egin behar dira, horietarako baliabideen hornidura bera ere hobetuta.
2.	**ADMINISTRAZIOARENTZAKO BALIOA DAKARTEN JARDUERAK**	Mantendu egingo dira, baina **eraginkorrak izaten** saiatu eta **gauzatzeko denbora** nahiz **dedikazioa** gutxitu behar ditugu.
3.	**BALIO ERANTSIRIK GABEKO JARDUERAK**	Besterik gabe, **kendu egingo dira**.

Gure erantzuteko epeak (eta horrekin batera herritarren eta gizartearen itxaronaldia) murrizten ditugun bakoitzean, aurrezpen bat sortzen ari gara, administrazio-kargak murrizten ditugun heinean:

- 20 €, murrizketa epearen % 25 baino txikiagoa bada.
- 60 €, murrizketa % 25 eta % 50 artean badago.
- 110 €, murrizketa % 51 eta % 75 artean badago.
- 180 €, murrizketa % 75 baino handiagoa bada.

Iturria: «Administrazio berrikuntzari eta sinplifikazioari buruzko dekalogoa»
https://www.eudel.eus/eu/file/libro_ficheros/administrazio_berrikuntzari_eta_sinplifikazioari_buruzko_dekalogoa

El valor añadido es el resultado que legitima los proyectos de innovación. Por ello, es necesario buscar y medir este valor añadido tanto en la sociedad y en sus distintos actores como en la mejora de la eficiencia en los procesos de las propias organizaciones públicas.

No hay **nada más clarificador para medir el valor añadido de nuestras innovaciones** que traducir las mejoras, las innovaciones y los cambios internos producidos a **los impactos económicos de ahorro por reducción de costes** tanto para la sociedad (reducción de cargas administrativas a ciudadanía y empresas) como para las propias administraciones públicas.

	REFERENCIA	**FUENTES**
La **REFERENCIA QUE NOS PERMITIRÁ PONER EN VALOR ECONÓMICO LAS INNOVACIONES ADMINISTRATIVAS** que seamos capaces de generar en nuestras organizaciones públicas.	EL **MÉTODO SIMPLIFICADO DE REDUCCIÓN DE CARGAS ADMINISTRATIVAS**	Redactado por el Ministerio de Hacienda y Administraciones Públicas basado en el *Standard Cost Model* de la Unión Europea. Este método nos permitirá poner en valor los ahorros en la sociedad por reducción de cargas administrativas a la ciudadanía y las empresas.

Fuente: «Decálogo sobre innovación y simplificación administrativa»
https://www.eudel.eus/es/file/libro_ficheros/decalogo_de_innovacion_y_simplificacion_administrativa

Balio erantsia berritzeko proiektuak zilegi bihurtzen dituen emaitza da. Horregatik, balio erantsia bilatu eta neurtu behar da bai gizartean eta bere eragileengan bai herri-erakundeen prozesuen eraginkortasunaren hobekuntzan.

Gure berrikuntzen balio erantsia neurtzeko hoberena hauxe da: gure hobekuntzek, berrikuntzek eta egindako barne-aldaketek dakartzaten **kostuen murrizketagatik izaten diren ondorio ekonomikoak, aurrezkiei dagokienez**, bai gizartearentzat (herritarren eta enpresen karga administratiboen murrizketa), zein herri-administrazioentzat.

	ERREFERENTZIA	ITURRIAK
Gure erakunde publikoetan sortzeko gai garen **BERRIKUNTZA ADMINISTRATIBOAK BALIO EKONOMIKO BIHURTZEKO AUKERA EMANGO DIGUN ERREFERENTZIA**.	**KARGA ADMINISTRATIBOAK MURRIZTEKO METODO ERRAZTUA**	Ogasun eta Herri Administrazioen Ministerioak idatzi du, Europar Batasunaren *Standard Cost Model* delakoan oinarrituta. Metodo horrek herritarrei eta enpresei arindutako karga administratiboak murriztearen bidez aurreztutakoa nabarmentzeko aukera eskaintzen du.

Iturria: «Administrazio berrikuntzari eta sinplifikazioari buruzko dekalogoa»
https://www.eudel.eus/eu/file/libro_ficheros/administrazio_berrikuntzari_eta_sinplifikazioari_buruzko_dekalogoa

Por último, esbozamos **una pregunta y 10 razones de peso** que argumentan la **importancia de aprovechar la oportunidad** a la vez que **muestran las ventajas y beneficios de la innovación administrativa** propuesta:

	¿POR QUÉ DEBEMOS APROVECHAR LA OPORTUNIDAD?
1.	Porque **eliminamos unos costes** que actualmente **soportan las empresas**, lo que contribuye a que **puedan ser más competitivas**, obtengan mejores resultados y puedan fomentar el empleo.
2.	Porque **eliminamos unos costes y desplazamientos** reiterados a **la ciudadanía**, lo que nos permite aportar nuestro grano de arena en la **mejora de la calidad de vida** de la misma.
3.	Porque **las mejoras implantadas son fácilmente traducibles a euros**, con lo que la **cuantificación económica del ahorro** provocado en la sociedad es inmediata.
4.	Porque al eliminar documentos y requisitos innecesarios, facilitamos de manera muy considerable la iniciación electrónica de los procedimientos. Dicho de otra forma, ***la administración electrónica será posible si la hacemos simple.***
5.	Porque el mejor trámite no es ni el que debe hacerse presencialmente ni el que puede hacerse electrónicamente: ***el mejor trámite para la ciudadanía es aquel que no debe hacer,*** *porque ya se lo hemos hecho* desde la administración. La palabra clave es **proactividad**.
6.	Porque nos permite **cumplir de una vez por todas** con el derecho de la ciudadanía de **no aportar documentación que obra en poder de las administraciones** públicas.
7.	Porque nos permite a las administraciones públicas **salir del inmovilismo** (*lo hacemos así porque siempre lo hemos hecho así)* y **apostar por la innovación de proceso desde dentro**, desde los *intra-prendedores e intra-prendedoras*.
8.	Porque **la ciudadanía mejora su percepción hacia sus administraciones** al observar nuestros esfuerzos en ser ágiles, competitivas y orientadas a sus necesidades y expectativas.
9.	Porque **apoyamos la estrategia de la Unión Europea de mejora y simplificación de la regulación para empresas,** que fijaba como objetivo la eliminación del 25% de trabas burocráticas, con un impacto estimado de un aumento del 1,4% del PIB de la UE (150 mil millones de euros).
10.	Y, por último, porque **si un servicio público puede funcionar mejor, ¿por qué no intentarlo?**

Fuente: «Decálogo sobre innovación y simplificación administrativa»
https://www.eudel.eus/es/file/libro_ficheros/decalogo_de_innovacion_y_simplificacion_administrativa

Azkenik, **aukeraz baliatzeko argudioekin batera, proposatutako berrikuntza administratiboaren abantaila eta onurak erakusten dituzten galdera bat eta pisuzko 10 arrazoi** azalduko ditugu:


	ZERGATIK BALIATU BEHAR DUGU AUKERA HAU?
1.	Gaur egun **enpresen esku dauden kostuak ezabatzen ditugulako**. Horrek **lehiakorrago izaten**, emaitza hobeak lortzen eta enplegua sustatzen laguntzen die.
2.	**Herritarrei kostuak eta joan-etorriak egin behar izatea aurrezten diegulako**. Horrek haien **bizi-kalitatea** hobetzeko gure ekarpena egiteko aukera ematen digu.
3.	**Ezarritako hobekuntzak eurotan erraz zenbatu daitezkeelako**. Hala, gizartean eragindako **aurrezkiaren zenbaketa ekonomikoa** berehalakoa da.
4.	Behar ez diren dokumentuak eta betekizunak kentzean, prozedurak baliabide elektronikoez egiten hastea modu nabarmenean sustatzen dugulako. Bestela esanda, ***administrazio elektronikoa ezarri ahal izango da hura sinpletuz gero***.
5.	Izapiderik onena ez da aurrez aurre edo baliabide elektronikoak erabilita egiten dena: **herritarrentzako izapiderik onena, hain zuzen ere, egin behar ez dena da**. Izan ere, Administrazioak berak kudeatu du, bere kabuz. **Proaktibotasuna** da gakohitza.
6.	Hala, herritarrek **administrazio publikoen esku dagoen dokumentazioa ez ekartzeko** duten eskubidea **behingoz gauzatu ahal izango dugu**.
7.	Horrela, administrazio publikoetan **immobilismotik aldendu** gaitezke («*hala egiten dugu beti modu horretan egin delako*» horretatik), eta **barrutik prozesua berritzearen aldeko hautua egin** dezakegu, *barruko ekintzaileengandik* hasita.
8.	Era honetan, **herritarrek administrazioei buruz duten iritzia hobetuko da**, azkarrak zein lehiakorrak izateko eta haien beharrizanak eta aurreikuspenak betetzera zuzentzeko gure ahaleginak ikustean.
9.	Horrela, **enpresen araubidea hobetzeko eta sinpletzeko Europar Batasunaren estrategia bultzatzen dugu**. Horretan zehaztutako helburuaren arabera, eragozpen burokratikoen % 25 ezabatu behar ziren. Horrek EBko BPG-a % 1,4 handitzea ekarriko zuen (150 mila milioi euro).
10.	Eta, azkenik, **zerbitzu publikoak hobeto funtzionatzeko aukera baldin badauka, zergatik ez saiatu bide horretan?**

Iturria: «Administrazio berrikuntzari eta sinplifikazioari buruzko dekalogoa»
https://www.eudel.eus/eu/file/libro_ficheros/administrazio_berrikuntzari_eta_sinplifikazioari_buruzko_dekalogoa

CONCEPTO	• Entre los **principales resultados** del proceso de Simplificación Administrativa está la **IDENTIFICACIÓN Y CATALOGACIÓN DE LA INFORMACIÓN** asociada a la tramitación. • De esta manera, se puede crear un ***CATÁLOGO DE PROCEDIMIENTOS,*** que englobe todos y cada uno de los procedimientos que se realizan en la organización. • Se podría definir como el **equivalente al *Mapa de Procesos*** de las organizaciones que funcionan mediante *Gestión por Procesos*. • De cada uno de los procedimientos, también se elaboraría un ***Manual de Procedimiento,*** en el que se describa la secuencia de los *trámites* a realizar y los *documentos asociados* a cada uno de ellos. • Los Manuales de Procedimiento deberán ser **aprobados por el órgano competente** (Resolución de Alcaldía, etc.).
OBJETIVOS	• **ORIENTAR A LOS RECURSOS INTERNOS** sobre el **modelo funcional de la entidad local**, **aportando información** sobre los procesos, procedimientos y la documentación asociada y su relación con la estructura orgánica, así como sobre las fases, tareas, y roles de los órganos en la tramitación administrativa. • **SER EL REPOSITORIO DE INFORMACIÓN** sobre el que se construye el Sistema de Atención a la Ciudadanía y el soporte de los procesos de información a la ciudadanía sobre la tramitación administrativa. • Servir de **SOPORTE A LOS PROCESOS DE SIMPLIFICACIÓN ADMINISTRATIVA POSTERIORES** que se desarrollen. • Servir de **SOPORTE PARA LA IMPLEMENTACIÓN DE LOS PROCEDIMIENTOS EN UN GESTOR DE EXPEDIENTES Y PARA SU TRAMITACIÓN ELECTRÓNICA** a través de una plataforma multicanal.
VENTAJAS	• **Cumplimiento de la ley** de procedimiento administrativo común en los aspectos referidos a la disponibilidad de información sobre los procedimientos administrativos. • **Normalización** de la mayor parte de los **trámites y documentos** posibles, de tal modo que su gestión y actualización se simplifica y, por tanto, es más eficaz. Punto de partida de la implementación de modelos de calidad total. • **Mejora de la calidad de la atención al ciudadano** proporcionando información estandarizada sobre procedimientos administrativos. • Alto impacto en la **mejora de la gestión interna y en los recursos humanos,** facilitando su trabajo.
A TENER EN CUENTA	• La **cantidad de recursos consumidos** por la participación de la organización en la definición del catálogo de procedimientos y los Diagramas de Flujo asociados a la tramitación. • **La organización cambia de forma permanentemente,** por lo que el manual debe articularse, de forma progresiva, a través de una herramienta que permita la gestión electrónica de la información asociada. • En el caso de que se desarrolle el manual **en soporte electrónico**, debe tenerse en cuenta el acceso al manual a través del **portal de forma que sea accesible,** así como la gestión de la información estructurada en la base de datos, mediante un **gestor de contenidos** que permita instrumentar procedimientos de actualización y presentación web. Debe tenerse en cuenta la **necesidad de navegar entre los distintos aspectos** que vinculan la organización con los procesos, los procedimientos y la documentación asociada.
MOMENTO DE APLICACIÓN RECOMENDADO	• Después de realizar una **auditoría de gestión**. • Antes de iniciar el desarrollo de un **proceso de simplificación administrativa** o de forma paralela y secuencial a su realización. • Antes de iniciar la **implantación de modelos de calidad** basados en la mejora de los procesos.
ACTUALIZACIÓN DEL CATÁLOGO	• El catálogo de procedimientos, los manuales de procedimientos y los trámites y documentos asociados, deben ser objeto de **actualizaciones progresivas.** • Este proceso de simplificación administrativa no debería entenderse como un proyecto puntual sino como un **proceso de mejora continua**.

Guía Local - ISBN 978-84-7777-690-1

KONTZEPTUA	• Administrazio-sinplifikazioko prozesuaren **emaitza nagusien** artean, izapidetzeari lotutako **INFORMAZIOAREN IDENTIFIKAZIOA ETA KATALOGAZIOA** dago. • Horrela, ***PROZEDUREN KATALOGOA*** sor daiteke, antolaketan egiten diren prozeduretatik guztiak eta bakoitza bilduko duena. • Honela defini liteke: Prozesukako Kudeaketaren bitartez funtzionatzen duten antolakundeetako ***Prozesuen Mapa*****ren baliokidea**. • Prozeduretako bakoitzari buruz ere, ***Prozedurako Eskuliburu*** bat prestatuko litzateke, non egin beharreko izapideen sekuentzia eta haietako bakoitzari lotutako dokumentuak deskribatuko liratekeen. • Prozedurako eskuliburuak **organo eskudunak onartu behar ditu** (alkatetzaren ebazpena, eta abar).
HELBURUAK	• **Toki-erakundearen eredu funtzionalaren arloan BARNE-BALIABIDEAK ORIENTATZEA**, honako hauei buruzko **informazioa emanez**: prozesuak, prozedurak eta haiei lotutako dokumentazioa eta egitura organikoarekin duten harremana, bai eta administrazio-izapidetzeko fase, ataza eta rolak ere. • Herritarrenganako Arreta Sistema eraikitzeko **INFORMAZIO-GORDAILUA IZATEA** eta herritarrak administrazio-izapidetzeari buruz informatzeko prozesuen euskarri izatea. • Garatzen diren **ADMINISTRAZIO-SINPLIFIKAZIOKO ONDORENGO PROZESUEN EUSKARRI** izatea. • **ESPEDIENTEEN KUDEATZAILE BATEAN PROZEDURAK INPLEMENTATZEKO ETA ESPEDIENTEAK ELEKTRONIKOKI IZAPIDETZEKO EUSKARRI** izatea kanal anitzeko plataforma baten bidez.
ABANTAILAK	• Administrazio-prozedura erkideko **legea betetzea** administrazio-prozedurei buruzko informazioaren eskuragarritasunari buruzko alderdietan. • Ahalik eta **izapide eta dokumentu** gehienak **normalizatzea**, halako eran non izapide eta dokumentu horien kudeaketa eta eguneratzea sinplifikatuko den eta, beraz, eraginkorragoa izango den. Erabateko kalitateko ereduen inplementazioaren abiapuntua. • **Herritarrarenganako arretaren kalitatea hobetzea**, administrazio-prozedurei buruzko informazio estandarizatua eskainiz. • Eragin handia **barne-kudeaketaren eta giza baliabideen hobekuntzan**, lana erraztuz.
KONTUAN HARTU BEHARREKOA	• Prozeduren katalogoaren eta izapidetzeari lotutako fluxu-diagramen definizioan antolaketaren parte-hartzea dela-eta **kontsumitutako baliabide-kantitatea**. • **Antolakundea etengabe aldatzen ari da**; hori dela eta, eskuliburua modu progresiboan egituratu behar da, informazio elkartuaren kudeaketa elektronikoa ahalbidetzen duen tresna baten bidez. • Eskuliburua **euskarri elektronikoan** garatzen bada, kontuan izan behar da eskulibururako irispidea, **irisgarria izango den atariaren** bidez, bai eta datu-basean egituratutako informazioaren kudeaketa ere, weba eguneratzeko eta aurkezteko prozedurak abian jartzea ahalbidetzen duen **eduki-kudeatzaile** baten bitartez. Kontuan izan behar da antolakundea prozesuekin, prozedurekin eta dokumentazio elkartuarekin lotzen duten **alderdi guztien artean nabigatzeko beharra**.
KATALOGOA APLIKATZEKO UNE GOMENDATUA	• **Kudeaketako auditoria** bat egin ondoren. • **Administrazio-sinplifikazioko prozesu** baten garapenari ekin aurretik, edo modu paraleloan edo sekuentzialean, prozesua egiten ari denaren aldean. • Prozesuen hobekuntzan oinarritutako **kalitate-ereduen ezarpenari** ekin aurretik.
KATALOGOA EGUNERATZEA	• Prozeduren katalogoa, prozedurako eskuliburuak eta haiei lotutako izapide eta dokumentuak **progresiboki eguneratu** behar dira. • Administrazio-sinplifikazioko prozesu hori ez litzateke hartu beharko proiektu puntualtzat, baizik eta **etengabeko hobekuntzako prozesutzat**.



VENTANILLA ÚNICA PRESENCIAL: SERVICIO DE ATENCIÓN CIUDADANA

CONCEPTO	Una unidad presencial que centralice, a modo de ventanilla única, **todos y cada uno de los servicios de atención** (información, tramitación y gestión) que el Ayuntamiento presta a la ciudadanía.
OBJETIVOS	• **Unificar información** y procesos de **atención**. • **Mejorar la calidad de la atención ciudadana.** • **Rentabilizar esfuerzos** de la organización. • **Mejorar la imagen** corporativa. • **Ofertar** el más amplio catálogo posible de trámites en el acto (trámites inmediatos).
A TENER EN CUENTA EN LA IMPLANTACIÓN	• **Compromiso político y directivo.** • Definición de **normativa y competencias**. • La existencia de un **catálogo de procedimientos** con vocación simplificadora. • La **unidad responsable** y sus capacidades (atribuciones, selección, formación, etc.). • Previsión de alcance **futuro multicanal**.
REQUISITOS PREVIOS	• Contar con **tecnología básica** (comunicaciones e infraestructuras). • Contar con **aplicaciones de gestión de expedientes** y **base de datos de información** de toda la actividad interna de las áreas/departamentos municipales, a mantener puntualmente.

(Ver apartado Comunicación y atención ciudadana, en esta misma guía).

REFERENTES DE ÁREA

Es de vital importancia la fijación de una figura de referente de área, básica en la **coordinación de los canales de atención directa a la ciudadanía con cada uno de los servicios municipales**.

FUNCIONES	• Servir de **interlocutor** o puente entre los **servicios de atención a la ciudadanía y el área correspondiente**, ofreciendo el apoyo necesario cuando sea requerido. • **Proponer modificaciones y ampliaciones en el catálogo** de trámites y procedimientos electrónicos, en aquellos que competencialmente correspondan a su área. • **Mantener informados a los servicios municipales competentes** sobre todas las actuaciones del área que tengan repercusión de cara a la ciudadanía, tales como el estado de tramitación de los procedimientos, quejas y reclamaciones, anuncios, campañas y, en general, de cuantas actividades desarrolle el área. • **Velar y coordinar las actuaciones necesarias de respuesta dentro de su área**, respecto a las demandas de la ciudadanía presentadas a través de cualquier canal puesto a su disposición por el Ayuntamiento. • Controlar el **correcto cumplimiento de los manuales de procedimiento** aprobados, y que, por contenido funcional, le correspondan.

Administrazio-sinplifikazioko prozesua MODU EGOKIAN gauzatzen bada,

izapidetzea birdefinitzean,

AHALBIDETZEN → **PLANIFIKATZEA**

nola erabiliko den **kanal anitzeko plataforma** herritarraren inguruan, izapidetzearen faseak kanal bakoitzaren ezaugarrietara egokituz.

AHALBIDETZEN → **IDENTIFIKATZEA**

kanal bakoitzaren bidez zer izapide egin daitezkeen, eta bakoitzaren **erabilera optimizatzea** (aurrez aurrekoa, telefonozkoa, Internet), prozedura baten izapidetzearen zati batean.

AURREZ AURREKO LEIHATILA BAKARRA: HERRITARRENGANAKO ARRETA-ZERBITZUA

KONTZEPTUA	Aurrez aurreko atal bat, Udalak herritarrei eskaintzen dizkien **arreta-zerbitzu guzti-guztiak** (informazioa, izapidetzea eta kudeaketa) leihatila bakar moduan bilduko dituena.
HELBURUAK	• **Informazioa eta arreta**-prozesuak **bateratzea**. • **Herritarrenganako arreta hobetzea.** • Antolakundeko **ahaleginak errentabilizatzea**. • **Irudi korporatiboa hobetzea**. • Ahalik eta unean uneko izapide-katalogorik zabalena (berehalako izapideak) **eskaintzea**.
EZARPENEAN KONTUAN HARTU BEHARREKOAK	• **Konpromiso politikoa eta zuzendaritzakoa.** • **Araudiaren eta eskumenen** definizioa. • Sinplifikazio-asmoa duen **prozeduren katalogo bat** egotea. • **Atal arduraduna** eta atal horren gaitasunak (eskuduntzak, hautaketa, prestakuntza, eta abar). • **Kanal anitzeko etorkizuneko** irismen-aurreikuspena.
ALDEZ AURREKO BETEKIZUNAK	• **Oinarrizko teknologia** edukitzea (komunikazioak eta azpiegiturak). • Udaleko arlo/departamentuetako barne-jarduera guztiari buruzko **espediente-kudeaketako aplikazioak** eta **informazioko datu-baseak** edukitzea, aldian behin mantendu beharrekoak.

(Ikus Komunikazioa eta herritarrenganako arreta atala, gida honetan bertan).

ARLOKO ERREFERENTEAK

Garrantzi handikoa da arloko erreferentearen figura bat finkatzea, oinarrizkoa baita **herritarrentzako zuzeneko arretarako kanalak eta udal-zerbitzuetako bakoitza koordinatzeko**.

FUNTZIOAK	• **Herritarrentzako arreta-zerbitzuen eta kasuan kasuko arloaren** arteko **solaskide** izatea edo zubi-lana egitea eta behar den laguntza ematea hala eskatzen zaionean. • **Izapide eta prozedura elektronikoen katalogoan aldaketak eta zabalpenak** proposatzea, eskumen aldetik beraren arloari dagozkion gaietan. • **Udaleko zerbitzu eskudunak informatuta edukitzea** herritarrari begira eragina duten arloaren jarduerei buruz —hala nola prozedura, kexu eta erreklamazioen izapidetze-egoera, iragarpenak, kanpainak— eta, oro har, arloak garatzen dituen bestelako jarduerei buruz. • **Bere arloaren barruan erantzun beharreko jarduerak** zaintzea eta koordinatzea, herritarrek Udalak haien esku jarritako edozein kanalen bidez aurkezten dituzten eskariei dagokienez. • Onartzen diren **prozedurako eskuliburuak egoki betetzen direla kontrolatzea**, eduki funtzionalen arabera berari egokitzen bazaizkio.

Es necesario pensar que la **VENTANILLA ÚNICA** no se debe limitar en el futuro a la atención presencial, sino que ésta debe servir para sentar las bases de una **ATENCIÓN MULTICANAL.**

TELÉFONO 010	**CONCEPTO**	Un canal de **atención ciudadana prestador de servicios** como: • Información. • Tramitación por teléfono. • Asignación de cita previa con los servicios municipales. • Recepción de avisos, averías. • Recepción y contestación de quejas y sugerencias.
	VENTAJAS	• Se **acerca la información y gestión** de la institución a la ciudadanía. • Se **evitan desplazamientos** innecesarios a la ciudadanía. • Se utiliza un canal de atención universal y de uso creciente (**telefonía móvil**). • Es un canal de atención **susceptible de ser externalizada** su gestión.
	REQUISITOS PREVIOS	• Contar con tecnología básica (**comunicaciones e infraestructuras).** • Contar con aplicaciones de gestión de expedientes (**Gestión Documental**) y base de datos de información (**Gestor de Contenidos**) de toda la actividad interna de las áreas/departamentos municipales, que hay que mantener puntualmente.
WEB MUNICIPAL	**CONCEPTO**	Es un canal de atención ciudadana, inicialmente **prestador de servicio de información, comunicación y participación**, pero que puede y debe igualmente prestar **otros servicios** como: • Acceso a información personal. • Tramitación on-line. • Recepción de avisos, averías. • Recepción y contestación de quejas y sugerencias.
	OBJETIVOS	• **PRIMERA FASE**: Ofrecer **servicios de información de utilidad e interés** para la ciudadanía, garantizando una información de calidad y puntualmente actualizada. Se podría incluir información relativa a: → Trámites municipales. → Trámites no municipales (agua, luz, etc.). → Anuncios públicos, convocatorias. → Contratación. → Oferta pública de empleo. → Directorio de servicios y actividades de la institución y (en su caso) de la ciudad.
		• **SEGUNDA FASE:** Usar la **página web municipal como facilitadora de la participación** ciudadana. → Gestionando las comunicaciones: Avisos, averías, quejas y sugerencias. → Con espacios para encuestas y recogida e opinión. *(Ver apartado Participación ciudadana de esta misma guía).*
		• **TERCERA FASE**: Implantación de la **Administración Electrónica.** *(Ver apartado Administración Electrónica de esta misma guía).*
	VENTAJAS	• Servicio **365 días / 24h**. • Se **acerca la información y gestión** de la institución a la ciudadanía. • Se **evitan desplazamiento**s innecesarios a la ciudadanía. • Se utiliza un **canal de uso creciente y en clara expansión.**
	REQUISITOS PREVIOS	• Contar con tecnología básica (**comunicaciones e infraestructuras).** • Para la prestación de un buen **servicio de información**, es preciso contar con una base de datos de información (**Gestor de Contenidos**) de toda la actividad interna de las áreas/departamentos municipales, a mantener puntualmente. • Para la prestación del **servicio de tramitación**, es preciso previamente realizar la labor de **simplificación administrativa** primero e **informatización después**, de todos (o los más demandados) expedientes, trámites y documentos a instancia de parte, creando así una aplicación de gestión de expedientes (**Gestión Documental**) que sirva de soporte.

Beharrezkoa da pentsatzea LEIHATILA BAKARRA ez dela mugatu behar etorkizunean aurrez aurreko arretara, baizik eta KANAL ANITZEKO ARRETA baten oinarriak finkatzeko balio izan behar duela.

010 TELEFONOA	**KONTZEPTUA**	**Herritarrenganako arretako kanal bat, zerbitzu hauek eskaintzen dituena**: • Informazioa. • Telefono bidezko izapidetzea. • Udal-zerbitzuekiko aldez aurreko hitzordua esleitzea. • Abisuak, matxurak eta abar jasotzea. • Kexuak eta iradokizunak jasotzea eta erantzutea.
	ABANTAILAK	• **Informazioa eta kudeaketa** erakundetik herritarrengana **hurbiltzen da**. • Herritarrei **ez zaie** alferreko **joan-etorririk eginarazten**. • Arreta unibertsaleko kanal bat erabiltzen da, erabilera hazkorrekoa (**telefonia mugikorra**). • Arretako kanal honen kudeaketa **kanporatzeko modukoa** da.
	ALDEZ AURREKO BETEKIZUNAK	• Oinarrizko teknologia edukitzea **(komunikazioak eta azpiegiturak**). • Udaleko arlo/departamentuetako barne-jarduera guztiari buruzko espediente-kudeaketako aplikazioak (**Dokumentu Kudeaketa**) eta informazioko datu baseak (**Eduki Kudeatzailea**) edukitzea, aldian behin mantendu beharrekoak.
UDAL WEBA	**KONTZEPTUA**	Herritarrenganako arretako kanal bat da, hasiera batean **informazio, komunikazio eta parte-hartzeko zerbitzu-eskaintzailea**, baina, era berean, **beste zerbitzu batzuk** eskaini ahal eta behar dituena, hala nola: • Informazio pertsonalerako irispidea. • Online izapidetzea. • Abisuak, matxurak eta abar jasotzea. • Kexuak eta iradokizunak jasotzea eta erantzutea.
	HELBURUAK	• **LEHENENGO FASEA**: Herritarrentzako **informazioko zerbitzu erabilgarri eta interesgarriak** eskaintzea, kalitateko eta aldian behin eguneratutako informazioa bermatuz. Hauei buruzko informazioa eskain liteke: → Udal-izapideak. → Udalaz besteko izapideak (ura, argindarra, eta abar). → Iragarki publikoak, deialdiak. → Kontratazioa. → Lan-eskaintza publikoa. → Erakundearen eta (behar izanez gero) hiriaren zerbitzu eta jardueren direktorioa.
		• **BIGARREN FASEA: Udalaren web-orrialdea** herritarren **parte-hartzearen bideratzaile** moduan erabiltzea. → Komunikazioak bideratuz: abisuak, oharrak, kexak eta iradokizunak. → Inkestetarako eta iritziak biltzeko tarteak. *(Ikus Herritarren parte-hartzea atala, gida honetan bertan).*
		• **HIRUGARREN FASEA: Administrazio elektronikoaren** ezarpena. *(Ikus Administrazio elektronikoa atala, gida honetan bertan).*
	ABANTAILAK	• **Zerbitzua 365 egun / 24 h**. • **Informazioa eta kudeaketa** erakundetik herritarrengana hurbiltzen da. • Herritarrei **ez zaie** alferreko **joan-etorririk eginarazten**. • **Gero eta gehiago erabiltzen den kanal** bat erabiltzen da, **nabarmen hedatzen ari dena**.
	ALDEZ AURREKO BETEKIZUNAK	• Oinarrizko teknologia edukitzea (**komunikazioak eta azpiegiturak**). • **Informazioko zerbitzu** on bat eskaintzeko, beharrezko da Udaleko arlo/departamentuetako barne-jarduera guztiari buruzko informazioko datu-base bat edukitzea (**Eduki Kudeatzailea**), aldian behin mantendu beharrekoa. • **Izapidetzeko zerbitzua** eskaintzeko, beharrezko da aldez aurretik lehenik **administrazio-sinplifikazioko lanak** egitea eta gero interesdunaren eskariz egindako espediente, izapide eta dokumentu guztiak (gehien eskatutakoak) **informatizatzea**, eta horrela euskarri gisa balioko duen espedienteak kudeatzeko (**Dokumentu Kudeaketako**) aplikazio bat sortzea.

LA INTRANET DE SERVICIO

CONCEPTO	• Consiste en la creación de un **portal en la Intranet** que sirva como punto de **comunicación e interacción** del **personal empleado con la organización**. • Contempla tanto el acceso a **contenidos con carácter interno** (noticias, manuales de la organización, etc.), como el acceso al autoservicio del empleado para la **gestión de su relación con la organización** y, específicamente, con las unidades de recursos humanos (consulta de la nómina, solicitud de vacaciones, modificación de datos personales, etc.).
OBJETIVOS	• Establecer un **CANAL DE COMUNICACIÓN BIDIRECCIONAL** entre la organización y el personal empleado. • **Automatizar y agilizar los procesos internos** de la compañía en los que participa el personal empleado, facilitando la propia autogestión y eliminando el «papel».
VENTAJAS	• Punto de encuentro del personal empleado donde se **agrupa toda la información que éste requiere** para gestionar su relación dentro de la organización. • **Reducción del número de peticiones administrativas** a atender por Recursos Humanos, debido a la propia autogestión de los empleados y las empleadas. • **Consolidación de la comunicación interna** a través de un canal de fácil acceso para todo el personal empleado. • Conseguir la **implicación de los trabajadores y las trabajadoras municipales**, mediante la posibilidad de realizar propuestas y sugerencias de mejora en los diferentes ámbitos de gestión interna (plan de formación, protección de datos, prevención de riesgos laborales…).
A TENER EN CUENTA	• Un portal del personal empleado es una solución para la **integración de aplicaciones y servicios orientados al personal empleado**, de forma que simplifica al personal empleado el acceso a éstos. Por tanto, la puesta en marcha de un portal interno requiere la **EXISTENCIA PREVIA DE LOS SISTEMAS QUE GESTIONEN EL BACK-OFFICE DE LOS SERVICIOS DE RECURSOS HUMANOS.** El Portal del Personal Empleado es sólo el front-office de la solución. • Debido a la tipología de las organizaciones, en las Entidades Locales existen **colectivos de trabajadores y trabajadoras que no utilizan medios informáticos** en su trabajo, por lo que habrá que disponer los medios necesarios para que puedan acceder a los mismos.
ES ACONSEJABLE	• Haber desarrollado previamente en la organización un **sistema de gestión de recursos humanos** y un **sistema de gestión de contenidos** para la publicación en la Intranet. • La elaboración de un **plan de comunicación interno**, para estructurar las acciones de comunicación interna que se realizarán a través de la Intranet. • Llevar a cabo **acciones formativas** acerca del uso de la Intranet y el Portal del Empleado dirigidas a las personas empleadas menos familiarizadas con las herramientas informáticas.

Guía Local - ISBN 978-84-7777-690-1

ZERBITZUKO INTRANETA

KONTZEPTUA	• Honetan datza: **Intraneteko atari** bat sortzean, **enplegatuak antolakundearekin duen komunikazio- eta elkarreragin**-puntu gisa balio dezan. • **Barne-izaerako edukietarako** irispidea (berriak, antolakundeko eskuliburuak, eta abar) zein enplegatuaren autozerbitzurako irispidea jasotzen ditu, antolakundearekin —eta, zehazki, giza baliabideetako atalekin— **duen harremanaren kudeaketarako** autozerbitzurakoa (besteak beste nomina kontsultatu, oporrak eskatu eta datu pertsonalak aldatzekoa).
HELBURUAK	• **NORANZKO BIKO KOMUNIKAZIO KANALA** ezartzea, antolakundearen eta enplegatuaren artean. • Konpainiaren **barneko prozesuak**, enplegatuak parte hartzen duenekoak, **automatizatzea eta arintzea**, autogestioa bera erraztuz eta «papera» ezabatuz.
ABANTAILAK	• Enplegatuaren topagunea, non enplegatuak antolakundearen barruan duen harremana kudeatzeko **informazio guztia pilatzen den**. • Giza Baliabideetako atalak erantzun beharreko **administrazio-eskarien kopurua murriztea**, enplegatuaren beraren autogestioa dela-eta. • **Barne-komunikazioa sendotzea**, enplegatu guztientzat irispide errazekoa den kanal baten bidez. • **Udaleko langileen inplikazioa** lortzea, barneko kudeaketaren arlo bakoitzean hobekuntzako proposamenak eta iradokizunak eginez (prestakuntzako planak, datu pertsonalen babesa, lan-arriskuen prebentzioa...).
KONTUAN HARTU BEHARREKOA	• Enplegatuaren atari bat **enplegatuarengana orientatutako aplikazio eta zerbitzuetarako** irtenbide bat da, enplegatuari haietarako irispidea sinplifikatzen diona. Beraz, barneko atari bat abian jartzeak honako hau eskatzen du: **ALDEZ AURRETIK EGOTEA GIZA BALIABIDEETAKO ZERBITZUEN BACK-OFFICEA KUDEATZEN DUTEN SISTEMAK**. Enplegatuaren ataria irtenbidearen front-officea baino ez da. • Antolakundeen tipologia dela eta, toki-erakundeetako **langileen kolektibo batzuek ez dute bitarteko informatikorik erabiltzen** lanean; hori dela eta, behar diren bitartekoak jarri beharko dira haiek ere bitarteko horiek baliatu ahal izateko.
GOMENDAGARRIA DA	• Aldez aurretik **giza baliabideen kudeaketako sistema** bat garatu izana antolakundean, bai eta Intranetean argitaratzeko **eduki-kudeaketako sistema** bat ere. • **Barne-komunikazioko plan** bat prestatzea, Intraneten bidez egingo diren barne-komunikazioko ekintzak egituratzeko. • Intranetaren eta Enplegatuaren Atariaren erabileraren gaineko **prestakuntza-ekintza** batzuk gauzatzea, lan-tresna informatikoak erabiltzen ohitura txikiagoa duten enplegatuei zuzenduak.

VIII.

ARTXIBOAK

ARCHIVOS

VIII.

Archivos

1. Gestión documental y archivos.
2. Gobierno abierto desde el punto de vista de la gestión documental.
3. Patrimonio documental.

Guía Local - ISBN 978-84-7777-690-8

VIII.

Artxiboak

1. Dokumentu-kudeaketa eta artxiboak.
2. Gobernu irekia, dokumentu-kudeaketaren ikuspegitik.
3. Dokumentu-ondarea.

GESTIÓN DOCUMENTAL	
DEFINICIÓN	Conjunto de **operaciones** dirigidas al control eficaz y sistemático de la creación, recepción, uso, valoración y conservación de los documentos; incluidos los procesos para incorporar y mantener pruebas de las actuaciones o actividades de dicha organización, en forma de documentos y sistemas de información.
OBJETIVOS	• Que los documentos sean **auténticos, fiables, íntegros y disponibles**, en un momento determinado y a lo largo del tiempo. • Mejorar la **eficacia y la eficiencia**, **cumplir la legislación** y conseguir la **continuidad en el tiempo.** Para cumplir los objetivos, las entidades deberán implantar un **SISTEMA DE GESTIÓN DOCUMENTAL**.

SISTEMA DE GESTIÓN DOCUMENTAL	
Se basa en: • Metodología de la mejora continua. • Procedimentar los procesos de trabajo. • Documentar las evidencias de los procedimientos. • Establecer indicadores medibles para auditar el sistema. Está **formado por las políticas, los recursos, las herramientas y los procesos** necesarios para lograr el objetivo. Es por tanto un proceso **transversal** de apoyo de la organización y debe integrarse con los demás sistemas de gestión del Ayuntamiento.	
CARACTERÍSTICAS	• **Corporativo** porque debe servir a todo el Ayuntamiento. • **Único** porque debe ser el mismo para todos los departamentos. • **Dinámico** porque tiene que asumir las posibles nuevas competencias o cambios en las funciones municipales. • **General** porque tiene que servir para los documentos independientemente de su soporte.
REQUISITOS	• **Liderazgo** de la Corporación. • **Implicación** de toda la organización. • **Definición** de la política de gestión documental, en la que se atribuyan los roles y las responsabilidades. • **Medios** humanos y materiales para llevarlo a cabo.
BENEFICIOS	• Ayuda para la mejora en la toma de **decisiones.** • Mejora de la **eficiencia.** • Ayuda a **respetar los derechos y deberes** tanto del Ayuntamiento como de la ciudadanía. • Cumplir con la **normativa** vigente. • Tener **testimonio** de las actividades de la organización. • Avance hacia la **transparencia.** • Mejorar la **reutilización** de la información pública.
COMPOSICIÓN	El sistema de gestión documental está compuesto por los siguientes **subsistemas:** a) **Clasificación**. b) **Descripción**. c) **Control de acceso y uso**. d) **Evaluación y selección**. e) **Conservación**. Cada uno de estos procesos o subsistemas dota a la organización de las **herramientas** o instrumentos de gestión documental necesarias. Son las siguientes: • **Cuadro de clasificación funcional** en el que se representan jerárquicamente las agrupaciones documentales de la organización, en tanto evidencia de las funciones del Ayuntamiento. • **Mapa de series** que identifican los expedientes, como evidencia de las actividades del Ayuntamiento. • **Catálogo de tipos documentales** utilizados en la organización. • **Relación de los agentes y el nivel acceso y utilización** de los documentos a lo largo del tiempo. • **Calendario de conservación** que registra la conservación o destrucción de las series documentales. • **Depósitos de archivo y reglas de preservación digital**.
METADATOS	Los metadatos de gestión de documentos sirven para **identificar, autenticar y contextualizar** documentos. A través de los instrumentos resultantes de los subprocesos se definen los metadatos que se van a utilizar en el esquema de metadatos. Por medio del sistema de gestión documental se gestionan, dando confiabilidad al sistema.

MoReq2. Model Requirements for the Management of Electronic Records
UNE- ISO 15489: 2006. Gestión de documentos
UNE-ISO 23081-2: 2011. Metadatos para la gestión de documentos
UNE- ISO 30300: 2011. Sistema de gestión para los documentos
Esquema de metadatos para la gestión del documento electrónico (e-EMGDE)
Hacia un modelo conceptual para la descripción archivística. CNEDA

DOKUMENTU-KUDEAKETA	
DEFINIZIOA	Dokumentuen sorrera, harrera, erabilera, balorazioa eta kontserbazioa modu eraginkorrean eta sistematikoan kontrolatzeko **eragiketen** multzoa; barnean dira erakundearen jarduketen edo ekintzen frogak dokumentu eta informazio-sistema gisa sartzeko eta bertan edukitzeko prozesuak.
HELBURUAK	• Dokumentuak **benetakoak, fidagarriak, osoak eta eskuragarriak** izatea, une jakin batean eta denbora barrena. • **Eraginkortasun eta efizientzia** hobetzea, **legeria betetzea** eta denboran jarraitutasuna lortzea. Helburuak betetzeko, erakundeek **DOKUMENTUAK KUDEATZEKO SISTEMA** bat ezarri beharko dute.

DOKUMENTU-KUDEAKETARAKO SISTEMA	
Puntu hauek ditu oinarri: • Etengabeko hobekuntzaren metodologia. • Lan-prozesuen prozedura. • Prozeduren ebidentzien dokumentazioa. • Sistema ikuskatzeko adierazle neurgarrien ezarpena. Helburua lortzeko behar diren **politikek, baliabideek, tresnek eta prozesuek osatzen** dute. Beraz, erakundeari laguntzeko **zeharkako** proiektu bat da, eta udalaren gainerako kudeaketa-sistemekin bateratu beharko da.	
EZAUGARRIAK	• **Korporatiboa**, udal osorako erabilgarria izan behar duelako. • **Bakarra**, sail guztientzat berdina izan behar duelako. • **Dinamikoa**, bere gain hartu beharko dituelako udalaren funtzioetan egon daitezkeen eskumen edo aldaketa berriak. • **Orokorra**, baliagarria izan behar duelako edozein euskarritako dokumentuentzat.
BALDINTZAK	• Korporazioaren **lidergoa**. • Erakunde osoaren **inplikazioa**. • Dokumentuen kudeaketa-politikaren **definizioa**, eginkizunak eta erantzukizunak esleitzen dituena. • Gauzatzeko giza **baliabideak** eta baliabide materialak.
ONURAK	• **Erabakiak** hartzeko modua hobetzen laguntzea. • **Eraginkortasuna** hobetzea. • Udalaren eta herritarren **eskubideak eta betebeharrak errespetatzen laguntzea**. • Indarreko **araudia** betetzea. • Erakundearen jardueran **lekukotasuna** edukitzea. • **Gardentasunerantz** aurrera egitea. • **Informazio** publikoaren **berrerabilpena** hobetzea.
OSAERA	Honako **azpisistema** hauek hartzen ditu dokumentuen kudeaketa-sistemak: a) **Sailkapena.** b) **Deskribapena.** c) **Sarrera- eta erabilera-kontrola.** d) **Ebaluazioa eta hautaketa.** e) **Kontserbazioa.** Prozesu edo azpisistema horietako bakoitzak behar diren kudeaketa-**tresnak** edo -instrumentuak ematen dizkio erakundeari. Zehazki, hauek: • **Sailkapen-taula funtzionala**, udalaren zereginak adierazteko erakundearen dokumentazio-multzoak hierarkikoki aurkeztuta. • Espedienteak identifikatzen dituzten **serie-mapak**, udalaren jardueraren egiaztapen gisa. • Erakundean erabilitako **dokumentu-moten katalogoa**. • **Eragileen zerrenda**, eta dokumentuen **sarbide- eta erabilera-maila** denboran zehar. • Dokumentu-serieen kontserbazioa edo suntsiketa erregistratzen duen **kontserbazio-egutegia**. • **Artxibo-gordailuak eta zaintza digitalerako arauak**.
METADATUAK	Dokumentuak kudeatzeko metadatuek dokumentuak **identifikatzeko, autentifikatzeko eta testuinguruan kokatzeko** balio dute. Azpiprozesuen ondoriozko tresnen bidez, metadatuen eskeman erabiliko diren metadatuak zehazten dira. Dokumentuen kudeaketa-sistemaren bitartez kudeatzen dira, eta sistemari fidagarritasuna ematen diote.

MoReq2. Model Requirements for the Management of Electronic Records
UNE- ISO 15489: 2006. Dokumentu-kudeaketa
UNE-ISO 23081-2: 2011. Dokumentuak kudeatzeko metadatuak
UNE- ISO 30300: 2011. Dokumentuak kudeatzeko sistema
Dokumentu elektronikoa kudeatzeko metadatuen eskema (e-EMGDE)
Artxiboen deskribapenerako eredu kontzeptual baterantz. CNEDA

PROGRAMA DE GESTIÓN DOCUMENTAL

Las entidades están obligadas a establecer y mantener un **PROGRAMA DE GESTION DOCUMENTAL** continuado y activo para la gestión documental, de tal manera que garanticen un control efectivo sobre la creación, el mantenimiento y el uso de los documentos en el desempeño de sus actividades.

Para ello es imprescindible la colaboración de forma coordinada de distintas áreas:

- **Gestión documental y archivo.**
- **Seguridad de la información.**
- **Protección de datos.**
- **Organización interna.**

IMPLANTACIÓN	Es preciso establecer un **esquema de metadatos** en la creación, mantenimiento y uso de los documentos a lo largo de su ciclo de vida. Los sistemas de información que intervienen en la gestión documental —tanto administrativa como archivística— deben incorporar los metadatos necesarios para poder asegurar que los documentos sean auténticos, fiables, íntegros y disponibles en un momento determinado y a lo largo del tiempo.

ARCHIVO ELECTRÓNICO

El archivo electrónico permite **almacenar por medios electrónicos todos los documentos** utilizados en las actuaciones administrativas. Estos archivos electrónicos están destinados a cubrir el conjunto del **ciclo de vida** de los documentos electrónicos. Vienen a ser complementarios y equivalentes a los archivos convencionales.

Legislación:
Ley 11/2007, de 22 de junio, de acceso electrónico de los ciudadanos a los Servicios Públicos
Real Decreto 4/2010, de 8 de enero, por el que se regula el Esquema Nacional de Interoperabilidad en el ámbito de la Administración Electrónica
Real Decreto 3/2010, de 8 de enero, por el que se regula el Esquema Nacional de Seguridad en el ámbito de la Administración Electrónica
Normas Técnicas de Interoperabilidad
Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas
Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público
Ley 5/2022, de 23 de junio, de Gestión Documental Integral y Patrimonio Documental de la Comunidad Autónoma del País Vasco

Guía Local - ISBN 978-84-7777-690-8

DOKUMENTUAK KUDEATZEKO PROGRAMA

Erakundeak behartuta daude **DOKUMENTUAK KUDEATZEKO PROGRAMA** iraunkor eta aktibo bat ezartzera eta atxikitzera, haien jarduerak gauzatzean dokumentuak nola sortzen, atxikitzen eta erabiltzen diren egiaz kontrolatzen dela bermatzeko moduan.

Horretarako, ezinbestekoa da hainbat arloren arteko lankidetza koordinatua:

- **Dokumentuak kudeatzea eta artxiboa.**
- **Informazioaren segurtasuna.**
- **Datuen babesa.**
- **Barne-antolaketa.**

EZARPENA	Beharrezkoa da **metadatuen eskema** bat ezartzea dokumentuak beren bizi-zikloan zehar sortzeko, mantentzeko eta erabiltzeko. Dokumentu-kudeaketan esku hartzen duten informazio-sistemek —administratiboak zein artxibistikoak— beharrezko metadatuak izan behar dituzte, dokumentuak benetakoak, fidagarriak, osoak eta une jakin batean eta denboran zehar eskuragarri egongo direla ziurtatu ahal izateko.


ARTXIBO ELEKTRONIKOA

Artxibo elektronikoak aukera ematen du administrazio-jarduketetan erabilitako **dokumentu guztiak bitarteko elektronikoen bidez gordetzeko**. Fitxategi elektroniko horiek dokumentu elektronikoen **bizi-ziklo** osoa estaltzeko dira. Fitxategi konbentzionalen osagarri eta baliokide dira.

Legeria:


11/2007 Legea, ekainaren 22koa, herritarrek Zerbitzu Publikoetan sarbide elektronikoa izateari buruzkoa
4/2010 Errege Dekretua, urtarrilaren 8koa, Elkarreragingarritasun Eskema Nazionala arautzen duena Administrazio Elektronikoaren eremuan
3/2010 Errege Dekretua, urtarrilaren 8koa, Segurtasun Eskema Nazionala arautzen duena Administrazio Elektronikoaren eremuan
Elkarreragingarritasunerako Arau Teknikoak
39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena
40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena
5/2022 Legea, ekainaren 23koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Dokumentu-kudeaketa Integralaren eta Dokumentu-ondarearena

GOBIERNO ABIERTO DESDE EL PUNTO DE VISTA DE LA GESTIÓN DOCUMENTAL	
GOBIERNO ABIERTO	Entendemos el Gobierno Abierto como un compuesto de tres elementos: 1. Transparencia: orientada a la rendición de cuentas. 2. Participación: políticas públicas co-creadas con la ciudadanía. 3. Datos abiertos: apertura y reutilización de activos de información que obra en manos de las administraciones públicas. La conjunción de estos tres elementos hará posible una sociedad democrática madura y una ciudadanía informada, empoderada y comprometida.
TRANSPARENCIA	• El primer paso, necesario e ineludible: conseguir la **transparencia** en las actividades llevadas a cabo por las instituciones públicas en el ejercicio de sus funciones. • La legislación española **distingue entre publicidad activa y derechos de acceso a la información pública**. • Los **portales de transparencia** de las instituciones públicas vienen a cumplir el mandato legal de transparencia **desde la perspectiva de la publicidad activa**. Obliga a las administraciones a dar a conocer y publicar información sobre determinados temas. • La ley también contempla la **transparencia desde la perspectiva del derecho de acceso a la información pública.** Se entiende por información pública «los contenidos o documentos, cualquiera que sea su formato o soporte, que obren en poder de alguno de los sujetos incluidos en el ámbito de aplicación de este título y que hayan sido elaborados o adquiridos en el ejercicio de sus funciones.» • **¿Cómo podemos llevar a cabo una transparencia real, eficiente y de calidad?** Definiendo e implementando un **buen sistema de gestión documental** en la organización, ya que los documentos producidos y recibidos son la evidencia de las actividades llevadas a cabo por la institución. • Por medio de los subsistemas definidos de gestión documental y las herramientas producidas se incorporan los criterios de acceso y la conservación con los **metadatos** necesarios desde la creación de los documentos.
APERTURA Y REUTILIZACIÓN DE INFORMACIÓN PÚBLICA	• **OBJETIVOS**: → Generar valor añadido a partir de la información generada por la administración y posibilitar que sea utilizada por las empresas. → Conseguir una ciudadanía más informada y por ende más participativa. • Como se expresa en la propia ley «se aplicará a los documentos elaborados o custodiados por las Administraciones...». • Dicho esto, es evidente que, si hablamos de documentos, deberemos diseñar e implantar un buen sistema de gestión de documentos para engarzar la apertura de datos en la gestión de la organización. • Además de esa vertiente en el ámbito transversal de la gestión de documentos y archivos, también podemos aportar datos abiertos en el área del patrimonio cultural, ya que custodiamos y conservamos documentos históricos.



Legislación: Ley 19/2013, de 9 de noviembre, de transparencia, acceso a la información pública y buen gobierno
Ley 18/2015 de 9 de julio por la que se modifica la Ley 37/2007, de 16 de noviembre, sobre reutilización de la información del sector público
Normas técnicas de interoperabilidad
Modelo de madurez en gestión documental para la transparencia y la publicidad activa: https://arxivers.com/wp-content/uploads/2018/09/AAC_MMGDT_ES.pdf

GOBERNU IREKIA, DOKUMENTU-KUDEAKETAREN IKUSPEGITIK	
GOBERNU IREKIA	Hiru elementuk osatzen dute Gobernu Irekia: 1. Gardentasuna: kontu-ematera bideratua. 2. Parte-hartzea: herritarrekin batera sortutako politika publikoak. 3. Datu irekiak: administrazio publikoen informazio-aktiboak irekitzea eta berrerabiltzea. Hiru elementu horien bateratzeak gizarte demokratiko heldu bat eta herritar informatu, ahaldundu eta konprometituak izatea ahalbidetuko du.
GARDENTASUNA	• Lehen urratsa, beharrezkoa eta saihetsezina, hau da: **gardentasuna** lortzea erakunde publikoek gauzatzen dituzten ekintzetan. • Espainiako legeriak **bereizi egiten ditu publizitate aktiboa eta informazio publikoa eskuratzeko eskubideak**. • Erakunde publikoen **gardentasun-atariek gardentasunaren** legezko agindua betetzen dute, **publizitate aktiboaren ikuspegitik.** Administrazioak behartzen dira gai jakin batzuei buruzko informazioa ezagutzera ematera eta argitaratzera. • Legeak jasotzen du, halaber, **gardentasuna, informazio publikoa eskuratzeko eskubidearen ikuspegitik**. Informazio publikotzat jotzen dira «titulu honen aplikazio-eremuan aipatutako subjektuen esku dauden eduki edo dokumentuak, haiek beren funtzioen jardunean egin edo eskuratu dituztenak, edozein formatu edo euskarritan daudela ere». • **Nola lor dezakegu gardentasun, erreal, efiziente eta kalitatezko bat?** Erakundean **dokumentu-kudeaketarako sistema on bat** definituta eta ezarrita. Izan ere, sortutako eta jasotako dokumentuak dira erakundeak gauzatutako ekintzen ebidentzia. • Dokumentu-kudeaketari dagokionez definitu diren azpisistemen bidez eta sortutako tresnen bidez, sarbide-irizpideak sartzen dira, eta kontserbazioa, dokumentuak sortzerakoan erabili behar diren **metadatuekin**.
INFORMAZIO PUBLIKOA IREKITZEA ETA BERRERABILTZEA	• **HELBURUAK**: → Administrazioak ekoitzitako informaziotik balio erantsia sortzea eta enpresek erabil dezaten ahalbidetzea. → Herritar informatuagoak lortzea, eta, beraz, parte-hartzaileagoak. • Legean bertan adierazten den bezala, «Administrazioak egindako eta gordetako dokumentuei aplikatuko zaie». • Hori guztia esanda, argi dago dokumentuez hitz egiten dugunean **dokumentu-kudeaketako sistema on bat diseinatu eta ezarri beharko dugula, erakundearen kudeaketan datuen irekitasuna ezartzeko.** • Dokumentu eta artxiboen kudeaketako **zeharkako eremu** horren alderdi horretaz gain, datu irekiak sar ditzakegu baita ere **kultura-ondarearen** eremuan, dokumentu historikoak gordetzen eta kontserbatzen baititugu.



Legeria: 19/2013 Legea, azaroaren 9koa, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa
18/2015 Legea, uztailaren 9koa, sektore publikoko informazioa berrerabiltzeari buruzko azaroaren 16ko 37/2007 Legea aldaraztekoa
Elkarreragingarritasunerako Arau Teknikoak
Heldutasun-eredua, dokumentu-kudeaketan, gardentasunerako eta publizitate aktiborako: https://arxivers.com/wp-content/uploads/2018/09/AAC_MMGDT_ES.pdf

El patrimonio documental está integrado por aquellos documentos (y sólo aquellos) que tienen un valor histórico.

DETERMINACIÓN DEL PATRIMONIO DOCUMENTAL: VALORACIÓN	
OBLIGATORIEDAD	**Todos los documentos** de titularidad pública serán **valorados**, de modo que se determinen sus plazos de conservación o eliminación y sus condiciones de acceso. Los documentos electrónicos deberán incorporar, en la fase de diseño, los **metadatos de valoración, selección y acceso**, de tal modo que se garantice su correcta accesibilidad y que las decisiones de valoración y acceso puedan ser aplicadas en el momento del ciclo de vida que corresponda.
SUBSISTEMA DE VALORACIÓN	Es la parte del sistema de gestión documental que tiene como objetivo determinar la valoración de los documentos.
ÓRGANO COMPETENTE	Se creará una comisión interdisciplinar de valoración, selección y acceso en cada entidad. En caso de no contar con una comisión propia, la entidad pública someterá sus propuestas a la Comisión de valoración, selección y acceso del País Vasco.
OBJETO	Estudio de identificación de la documentación que se somete a valoración.
INSTRUMENTO	En el calendario de conservación se consignan las series documentales valoradas y, entre ellas, las que son de conservación permanente atendiendo a los distintos valores administrativo, fiscal, informativo e histórico.
PATRIMONIO DOCUMENTAL	
COMPOSICIÓN	El Patrimonio Documental está integrado por: • **Documentos de interés** producidos, recibidos o reunidos por la institución en el ejercicio de sus funciones. • Documentos de **más de 50 años de antigüedad** desde la fecha de creación. • Documentos **inscritos en el Registro de Patrimonio Cultural Vasco**.
OBLIGATORIEDAD	El patrimonio documental sería el último tramo de una pirámide de documentos; de todos los que se han generado, los que **merece la pena conservar indefinidamente**. Forman parte del patrimonio cultural.
¿QUÉ TENEMOS QUE HACER?	• **Conservar en buenas condiciones. El patrimonio documental hay que conservarlo porque es una parte fundamental** de la memoria colectiva. A través del mismo conservamos evidencias de las actividades de las organizaciones y refleja, por tanto, la sociedad de su tiempo. Por ese motivo son fuente de información para la investigación y la cultura. En el caso de los documentos en soporte papel es necesario que las condiciones de los depósitos de archivo sean las adecuadas. En el caso de los documentos electrónicos hay que garantizar la preservación digital. • Elaborar **instrumentos descriptivos** adecuados para que la información conservada sea accesible. • Dar a conocer el patrimonio documental, a través de la **difusión**. • **Poner en valor** el patrimonio documental por medio de colaboraciones con otros agentes culturales, sociales y educativos.
NORMATIVA TÉCNICA ARCHIVÍSTICA	ISAD (G) ISAAR ISDF ISDIAH Hacia un modelo conceptual para la descripción archivística. CNEDA Records in context (RIC)

Legislación:
Ley 16/1985, de 25 de junio, de Patrimonio Histórico Español
Ley 7/1990, de 3 de julio, de Patrimonio Cultural Vasco
Decreto 232/2000, de 21 de noviembre, por el que se aprueban el Reglamento de los Servicios de Archivo y las normas reguladoras del Patrimonio Documental del País Vasco
Ley 5/2022, de 23 de junio, de Gestión Documental Integral y Patrimonio Documental de la Comunidad Autónoma del País Vasco

Dokumentu-ondarea balio historikoa duten dokumentuek (dokumentu horiek bakarrik) osatzen dute.

DOKUMENTU-ONDAREA ZEHAZTEA: BALORAZIOA	
DERRIGORTASUNA	Titulartasun publikoko **dokumentu guztiak baloratuko dira**, kontserbatzeko edo ezabatzeko epeak eta eskuratzeko baldintzak zehazteko moduan. Dokumentu elektronikoek, diseinu-fasean, **balorazio-, hautaketa- eta sarbide-metadatuak** izan beharko dituzte, behar bezala eskuragarri daudela bermatzeko eta balorazio- eta sarbide-erabakiak dagokion bizi-zikloaren unean aplikatu ahal izateko.
BALIOESPEN-AZPISISTEMA	Dokumentuen balorazioa zehaztea helburu duen dokumentu-kudeaketako sistemaren zatia da.
ORGANO ESKUDUNA	Baloratzeko, hautatzeko eta sartzeko diziplinarteko batzorde bat sortuko da erakunde bakoitzean. Batzorde propiorik ez badago, erakunde publikoak Euskal Autonomia Erkidegoko Balorazio, Hautaketa eta Sarbide Batzordeari aurkeztuko dizkio bere proposamenak.
XEDEA	Baloratu beharreko dokumentazioa identifikatzeko azterlana.
TRESNA	Kontserbazio-egutegian, balioetsitako dokumentu-serieak jasotzen dira, eta, haien artean, etengabeko kontserbaziokoak, balio administratibo, fiskal, informatibo eta historikoak kontuan hartuta.
DOKUMENTU-ONDAREA	
OSAERA	Dokumentu-ondarea honako hauek osatzen dute: • Erakundeak bere eginkizunak betetzean sortu, jaso edo bildutako **dokumentu interesgarriak.** • **Sortze-datatik 50 urtetik gorako antzinatasuna** duten dokumentuak**.** • **Euskal Kultura Ondarearen Erregistroan inskribatutako** dokumentuak.
DERRIGORTASUNA	Dokumentu-piramide baten azken tartea da dokumentu-ondarea; sortu diren dokumentu guztietatik, **luzaroan eta eperik gabe gorde beharrekoak**. **Kultura-ondarea**ren zati dira.
ZER EGIN BEHAR DUGU?	• Egoera onean **kontserbatu**. Kontserbatu egin behar da dokumentu-ondarea, memoria kolektiboaren funtsezko zatia baita. Dokumentu-ondarearen bidez erakundeen jardueren ebidentziak kontserbatzen ditugu, eta, ondorioz, garai bakoitzeko gizartearen isla dira. Hori dela eta, ikerketarako eta kulturarako informazio-iturri dira. Paper euskarrian dauden dokumentuen kasuan, beharrezkoa da artxibo-gordailuen baldintzak egokiak izatea. Dokumentu elektronikoen kasuan, zaintza digitala bermatu behar da. • Tresna deskribatzaile egokiak egin, kontserbatutako informazioa **eskuragarri** egon dadin. • Dokumentu-ondarea ezagutarazi, hedapenaren bitartez. • Dokumentu-ondareari **balioa eman**, beste kultura-, gizarte- eta hezkuntza-eragile batzuekiko lankidetzen bitartez.
ARTXIBOEN ARAUDI TEKNIKOA	ISAD (G) ISAAR ISDF ISDIAH Artxiboen deskribapenerako eredu kontzeptual baterantz. CNEDA Records in context (RIC)

Legeria:

16/1985 Legea, ekainaren 25ekoa, Espainiako Ondare Historikoari buruzkoa
7/1990 Legea, uztailaren 3koa, Euskal Kultura Ondareari buruzkoa
232/2000 Dekretua, azaroaren 21ekoa, Artxibo Zerbitzuetako Araudia eta Euskal Autonomia Erkidegoko Dokumentazio Ondarea erregulatzeko arauak onartzen dituena
5/2022 Legea, ekainaren 23koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Dokumentu-kudeaketa Integralaren eta Dokumentu-ondarearena

IX.

DATU PERTSONALEN BABESA

PROTECCIÓN DE DATOS PERSONALES

IX.

Protección de datos personales

1. Situando la cuestión.
2. La protección de datos personales.
3. Derechos de las personas titulares de los datos personales.
4. Obligaciones de los ayuntamientos exigidas por la normativa de protección de datos.
5. Tratamientos por la policía local (Ley Orgánica 7/2021).
6. Tratamientos propios de los ayuntamientos.
7. La Agencia Vasca de Protección de Datos.
8. Conceptos.

IX.

Datu pertsonalen babesa

1. Gaia zehaztuz.
2. Datu pertsonalen babesa.
3. Datu pertsonalen titularren eskubideak.
4. Udalen betebeharrak, datu pertsonalak babesteko araudiak eskatutakoak.
5. Udaltzaingoaren tratamenduk (7/2021 Lege Organikoa).
6. Udaletako tratamendu propioak.
7. Datuak Babesteko Euskal Bulegoa.
8. Kontzeptuak.

Los datos personales son **PROPIEDAD DE CADA PERSONA** y
las **ADMINISTRACIONES PÚBLICAS SOMOS DEPOSITARIAS** de los mismos, en la medida en que los necesitemos **para el ejercicio de las competencias** que tenemos legalmente establecidas.

En el nuevo marco actual de **relaciones entre las administraciones y las personas**,

la **CONFIANZA**

se convierte en un elemento de especial relevancia
porque estimula la cohesión social
y es vital en las relaciones humanas.

Por ello,
la **NORMATIVA** en materia de protección de datos personales trata de
contribuir a generar CONFIANZA en la ciudadanía

respecto de la manera en que las administraciones o las entidades privadas
manejan sus datos personales.

La protección de datos se convierte así en un

COMPONENTE NECESARIO EN ESTA NUEVA SOCIEDAD TECNOLÓGICA

y las buenas prácticas que realicen los Ayuntamientos y su personal en esta materia, contribuirán de manera decisiva a generar esa confianza de las personas en sus instituciones.

Legislación:

Reglamento General de Protección de Datos, de 27 de abril de 2016 (RGPD)
Constitución española, artículo 18.4
Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales (LOPDGDD)
Ley Orgánica 7/2021, de 26 de mayo, de protección de datos personales tratados para fines de prevención, detección, investigación y enjuiciamiento de infracciones penales y de ejecución de sanciones penales
Ley 2/2004, de 25 de febrero, de Ficheros de Datos de Carácter Personal de Titularidad Pública y de Creación de la Agencia Vasca de Protección de Datos
Decreto 308/2005, de 18 de octubre, por el que se desarrolla la Ley 2/2004, de 25 de febrero, de ficheros de datos de carácter personal de titularidad pública y de creación de la Agencia Vasca de Protección de Datos
Decreto 309/2005, de 18 de octubre, por el que se aprueba el Estatuto de la Agencia Vasca de Protección de Datos
Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases del Régimen Local y normativa de desarrollo
Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi
Ley 34/2002, de 11 de julio, de servicios de la sociedad de la información y de comercio electrónico
Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas
Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público
Real Decreto 203/2021, de 30 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de actuación y funcionamiento del sector público por medios electrónicos. Decreto 21/2012, de 21 de febrero, de Administración Electrónica
Ley 37/2007, de 16 de noviembre, sobre reutilización de la información del sector público
Ley 19/2013, de 9 de diciembre, de transparencia, acceso a la información pública y buen gobierno
Ley 11/2022, de 28 de junio, General de Telecomunicaciones (deroga la Ley 9/2014, de 9 de mayo)

Gogoratu datu pertsonalak **NORBERARENAK DIRELA** eta
ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK haien **JASOTZAILEAK GARELA**, legez ezarrita ditugun
eskumenak betetzeko behar ditugun heinean.

Administrazioen eta pertsonen arteko harremanetarako egungo esparru berrian,

KONFIANTZAk

garrantzi berezia du
gizarte-kohesioa sustatzen baitu
eta ezinbestekoa baita giza harremanetarako.

Hori dela eta,
datu pertsonalak babesteko **ARAUDIAren** helburua da
herritarren artean KONFIANTZA sortzen laguntzea

administrazioek eta erakunde pribatuek
beren datu pertsonalak erabiltzeko moduan.

Datuak babestea, hortaz, honako hau bihurtu da:

BEHARREZKO OSAGAIA TEKNOLOGIA GIZARTE BERRI HONETAN

Eta udalek eta bertako langileek gai horretan garatzen dituzten praktika onek modu erabakigarrian lagunduko dute pertsonek beren erakundeen gainean konfiantza izan dezaten.

Legeria:

Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra (DBEO), 2016ko apirilaren 27koa
Espainiako Konstituzioa, 18.4. artikulua
3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa (DPBEDBLO)
7/2021 Lege Organikoa, maiatzaren 26koa, Arau-hauste penalak prebenitzeko, detektatzeko, ikertzeko eta epaitzeko eta zehapen penalak betearazteko tratatzen diren datu pertsonalak babesteari buruzkoa
2/2004 Legea, otsailaren 25ekoa, datu pertsonaletarako jabetza publikoko fitxategiei eta datuak babesteko euskal bulegoa sortzeari buruzkoa
308/2005 Dekretua, urriaren 18koa, datu pertsonaletarako jabetza publikoko fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legea garatzen duena
309/2005 Dekretua, urriaren 18koa, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren Estatutua onartzen duena
7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena eta garapeneko araudia
2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa
34/2002 Legea, uztailaren 11koa, informazioaren eta merkataritza elektronikoaren gizarteko zerbitzuei buruzkoa
39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena
40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena
203/2021 Errege Dekretua, martxoaren 30ekoa, Sektore publikoak bitarteko elektronikoen bidez jarduteko eta funtzionatzeko Erregelamendua onartzen duena
21/2012 Dekretua, otsailaren 21ekoa, Administrazio Elektronikoari buruzkoa
37/2007 Legea, azaroaren 16koa, sektore publikoaren informazioa berriz erabiltzeari buruzkoa
19/2013 Legea, abenduaren 9koa, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa
11/2022 Lege Orokorra, ekainaren 28koa, Telekomunikazioena (9/2014 Legea, maiatzaren 9koa, indargabetzen du)

LA PROTECCIÓN DE DATOS PERSONALES COMO DERECHO FUNDAMENTAL

DERECHO FUNDAMENTAL	Nace con el desarrollo de las **NUEVAS TECNOLOGÍAS DE LA INFORMACIÓN**. • «La ley limitará el uso de la informática para garantizar el honor y la intimidad personal y familiar de los ciudadanos y el pleno ejercicio de sus derechos». • A partir del artículo 18.4 de la Constitución y de la jurisprudencia del Tribunal Constitucional, se ha configurado el derecho a la protección de datos de carácter personal como un DERECHO FUNDAMENTAL, diferenciado del derecho a la intimidad.
	CONSISTE EN: • Proteger los datos que identifican o permiten identificar a una persona. • Asegurarse de que la persona sepa, consienta y pueda disponer de sus datos y del uso que se hace de ellos.

PRINCIPIOS	RELATIVOS AL **TRATAMIENTO** DE LOS DATOS PERSONALES	• **LICITUD, LEALTAD Y TRANSPARENCIA**: Los datos personales serán tratados de manera lícita, leal y transparente en relación con la persona interesada. • **LIMITACIÓN DE LA FINALIDAD**: Los datos personales serán recogidos con fines determinados, explícitos y legítimos, y no serán tratados ulteriormente de manera incompatible con dichos fines. • **MINIMIZACIÓN DE DATOS**: Los datos personales serán adecuados, pertinentes y limitados a lo necesario en relación con los fines para los que son tratados. • **EXACTITUD**: Los datos personales serán exactos y, si fuera necesario, actualizados; se adoptarán todas las medidas razonables para que se supriman o rectifiquen sin dilación los datos personales que sean inexactos con respecto a los fines para los que se tratan. • **LIMITACIÓN DEL PLAZO DE CONSERVACIÓN**: Los datos personales serán mantenidos de forma que se permita la identificación de las personas interesados durante no más tiempo del necesario para los fines del tratamiento de los datos personales. • **INTEGRIDAD Y CONFIDENCIALIDAD**: Los datos personales serán tratados de tal manera que se garantice una seguridad adecuada de los datos personales, incluida la protección contra el tratamiento no autorizado o ilícito y contra su pérdida, destrucción o daño accidental, mediante la aplicación de medidas técnicas u organizativas apropiadas. • **RESPONSABILIDAD PROACTIVA**: El responsable del tratamiento será responsable del cumplimiento de los principios indicados y capaz de demostrarlo. El responsable deberá adoptar las medidas preventivas dirigidas a reducir los riesgos de incumplimiento y, además, deberá estar en condiciones de demostrar que ha implantado esas medidas y que las mismas son las adecuadas para lograr la finalidad perseguida *(Ver «Privacidad desde el diseño y por defecto» en «Obligaciones de los Ayuntamientos exigidas por la normativa de protección de datos» de esta misma guía*). • El **CONSENTIMIENTO** pasa de ser un principio del tratamiento a ser una **BASE JURÍDICA** más en la que se puede amparar el tratamiento de los datos personales.
	LICITUD DEL TRATAMIENTO: CONDICIONES O BASES JURÍDICAS QUE AMPARAN EL TRATAMIENTO DE DATOS PERSONALES	• Cuando la persona interesada presta su **CONSENTIMIENTO** para el tratamiento de sus datos personales para uno o varios fines específicos. **REQUISITOS** del consentimiento: → **Informado**: la persona interesada debe conocer como mínimo la identidad del responsable de tratamiento y los fines de tratamiento. → **Libre**: el consentimiento no debe considerarse libremente prestado cuando la persona interesada no goza de verdadera o libre elección o no puede denegar o retirar su consentimiento sin sufrir perjuicio alguno. Si existe un desequilibrio entre persona interesada y responsable de tratamiento, como cuando el responsable es una autoridad pública, y resulta improbable que el consentimiento se haya dado libremente, no hay un fundamento válido para el tratamiento. → **Específico**, pudiendo ser prestado para uno o varios fines concretos. → Otorgado mediante una clara **acción afirmativa**, lo cual excluye los consentimientos tácitos, basados en una inacción u omisión de acción por parte de la persona interesada. → El **responsable** deberá ser **capaz de demostrar** que la persona interesada consintió el tratamiento de sus datos personales. • Cuando el tratamiento es **NECESARIO** para: → La **EJECUCIÓN DE UN CONTRATO** en el que la persona interesada es parte o para la aplicación a petición de ésta de medidas precontractuales. → El cumplimiento de una **OBLIGACIÓN LEGAL** aplicable al responsable del tratamiento. Esta base jurídica debe ser establecida por el Derecho de la Unión o por una norma con rango de Ley que se aplique al responsable del tratamiento. → Proteger **INTERESES VITALES** de la persona interesada o de otra persona física. → El cumplimiento de una **MISIÓN REALIZADA EN INTERÉS PÚBLICO** o en el **EJERCICIO DE PODERES PÚBLICOS** conferidos al responsable del tratamiento. Esta base jurídica debe ser establecida por el Derecho de la Unión o por una norma con rango de Ley que se aplique al responsable del tratamiento. → La satisfacción de **INTERESES LEGÍTIMOS** perseguidos por el responsable del tratamiento o por un tercero, siempre que sobre dichos intereses no prevalezcan los intereses o los derechos y libertades fundamentales de la persona interesada que requieran la protección de datos personales, en particular cuando la persona interesada sea un niño o niña. → El **interés legítimo NO será de aplicación al tratamiento realizado por las autoridades públicas en el ejercicio de sus funciones**. Sí cabe invocar el interés legítimo ante las autoridades públicas en los términos de la DA 10ª LOPDGDD. Las **bases jurídicas** del tratamiento de datos personales por parte de las **Administraciones Públicas**, en su calidad de responsables de tratamiento, serán, **como regla general**, el **cumplimiento de una obligación legal** aplicable a la Administración; o el **cumplimiento de una misión realizada en interés público o en el ejercicio de poderes públicos** conferidos a la Administración. Sin olvidar que, en determinados supuestos, el **consentimiento** puede ser base jurídica del tratamiento.
	TRATAMIENTO DE **CATEGORÍAS ESPECIALES** DE DATOS	• Son aquellos que revelen el **origen étnico o racial**, las **opiniones políticas**, las **convicciones religiosas o filosóficas**, o la **afiliación sindical**, y el tratamiento de **datos genéticos**, **datos biométricos** dirigidos a identificar de manera unívoca a una persona física, datos relativos a la **salud** o datos relativos a la **vida sexual** o la orientación sexual de una persona física. • **REGLA GENERAL**: **Prohibición** del tratamiento de estos datos, aunque el RGPD recoge un amplio abanico de **excepciones** en su artículo 9.2, entre las que se encuentra el consentimiento explícito para el tratamiento de dichos datos. Pero el solo consentimiento de la persona afectada NO BASTARÁ para levantar la prohibición cuando la finalidad principal del tratamiento sea identificar su ideología, afiliación sindical, religión, orientación sexual, creencias u origen racial o étnico (art. 9.1 LOPDGDD). • **DATOS RELATIVOS A LA SALUD**: Su tratamiento se rige por el RGPD, la LOPDGDD y por la legislación sanitaria.
	CONSENTIMIENTO DE LOS **MENORES DE EDAD**	• El tratamiento de los datos personales de un menor de edad únicamente podrá fundarse en su consentimiento cuando sea **MAYOR DE CATORCE AÑOS**. Se exceptúan los supuestos en que la ley exija la asistencia de los titulares de la patria potestad o tutela para la celebración del acto o negocio jurídico en cuyo contexto se recaba el consentimiento para el tratamiento. • El tratamiento de los datos de los menores de catorce años, fundado en el consentimiento, solo será lícito si consta el del titular de la patria potestad o tutela, con el alcance que determinen los titulares de la patria potestad o tutela.
	TRATAMIENTO DE DATOS PERSONALES RELATIVOS A **CONDENAS E INFRACCIONES PENALES**	• El tratamiento de datos personales relativos a **condenas e infracciones penales**, así como a procedimientos y medidas cautelares y de seguridad conexas, para fines distintos de los de prevención, investigación, detección o enjuiciamiento de infracciones penales o de ejecución de sanciones penales, solo podrá llevarse a cabo cuando se encuentre amparado en una norma de Derecho de la Unión, en la LOPDGDD o en otras normas de rango legal. • Fuera de los supuestos permitidos por la el RGPD y demás normas con rango de Ley, los tratamientos de datos referidos a condenas e infracciones penales, así como a procedimientos y medidas cautelares y de seguridad conexas solo serán posibles cuando sean llevados a cabo por abogados y procuradores y tengan por objeto recoger la información facilitada por sus clientes para el ejercicio de sus funciones.

DATU PERTSONALEN BABESA, OINARRIZKO ESKUBIDEA

OINARRIZKO ESKUBIDEA	**INFORMAZIOAREN TEKNOLOGIA BERRIEN** garapenarekin sortzen da. • «Legeak informatikaren erabilera mugatuko du, herritarren ohorea, eta norberaren nahiz senitartekoen bizitza pribatua, eta horien guztien eskubideen egikaritza osoa bermatzeko». • Konstituzioaren 18.4. artikulutik eta Konstituzio Auzitegiaren jurisprudentziatik abiatuta, datu pertsonalak babesteko eskubidea OINARRIZKO ESKUBIDEtzat hartu da, intimitaterako eskubidetik bereizita.
	HONETAN DATZA: • Pertsona bat identifikatzen duten edo identifikatzeko aukera ematen duten datuak babestean. • Pertsonak bere datuen eta haien erabileraren berri duela, baimena ematen duela eta eskura ditzakeela ziurtatzean.

PRINTZIPIOAK	DATU PERTSONALEN **TRATAMENDUARI** BURUZKOAK	• **ZILEGITASUNA, FIDELTASUNA ETA GARDENTASUNA**: Datu pertsonalen tratamendua legezkoa, fidela eta gardena izango da, pertsona interesdunari dagokionez. • **HELBURUA MUGATZEA**: Datu pertsonalak helburu zehatz, esplizitu eta legitimoei begira jasoko dira, eta, ondoren, ezin izango dira helburu horiekin bateragarriak ez diren moduan tratatu. • **DATUAK MINIMIZATZEA**: Datu pertsonalak egokiak, beharrezkoak eta ezinbestekoaren neurrira mugatuak izango dira, haien tratamenduaren helburuen arabera. • **ZEHAZTASUNA**: Datu pertsonalak zehatzak eta, beharrezkoa bada, eguneratuak izango dira; arrazoizko neurri guztiak hartuko dira luzamendurik gabe ezerezteko edo zuzentzeko tratamenduaren helburuei begira zehaztugabeak diren datu pertsonalak. • **KONTSERBAZIO-EPEA MUGATZEA**: Datu pertsonalak mantendu egingo dira halako moldez, non pertsona interesdunak identifikatzeko aukera emango den, beharrezkoa den denboran soilik, datu pertsonalak tratatzeko helburuetarako. • **OSOTASUNA ETA KONFIDENTZIALTASUNA**: Behar bezala segurtatzeko moduko tratamendua jasoko dute datu pertsonalek, baimenik gabeko edo legez kontrako tratamenduaren aurkako babesa eta datuok ustekabean galdu, suntsitu edo kaltetzearen aurkako babesa barne, horretarako antolakuntzako neurri eta neurri tekniko egokiak erabiliz. • **ERANTZUKIZUN PROAKTIBOA**: Tratamenduaren arduradunaren erantzukizuna da aipatu printzipioak betetzea, eta betetzen dela frogatzeko moduan egotea. Arduradunak prebentzio-neurriak hartu beharko ditu arau-hausteen arriskuak murrizteko, eta, gainera, neurri horiek ezarri direla eta lortu nahi den helbururako egokiak direla frogatzeko moduan egon beharko da *(Ikus «Pribatutasuna, diseinutik abiatuta eta lehenetsita», hemen «Udalen betebeharrak, datu pertsonalak babesteko araudiak eskatutakoak», gida honetan bertan*). • **ADOSTASUNA** tratamenduaren printzipio izatetik beste **OINARRI JURIDIKO** bat izatera pasatzen da, eta, bertan, datu pertsonen tratamendua babestu daiteke.
	TRATAMENDUAREN **ZILEGITASUNA**: DATU PERTSONALEN TRATAMENDUA BABESTEKO BALDINTZAK ETA OINARRI JURIDIKOAK	• Interesdunak bere datu pertsonalak tratatzeko **ADOSTASUNA** eman badu helburu zehatz bati edo gehiagori begira. Adostasunaren **BALDINTZAK**: → **Informatua**: interesdunak tratamenduaren arduradunaren nortasuna eta tratamenduaren helburuak ezagutu beharko ditu, gutxienez. → **Librea**: adostasuna ez da libreki emandakotzat joko interesdunak benetan libreki aukeratu ez badu, edo ezin badu bere adostasuna ukatu edo kendu kalterik jaso gabe. Desorekarik badago pertsona interesdunaren eta tratamenduaren arduradunaren artean, esaterako arduraduna agintari publiko bat denean, eta adostasuna askatasunez emateko aukerak oso baxuak badira, ez dago tratamendurako oinarri baliagarririk. → **Zehatza**, helburu zehatz baterako edo hainbaterako eman ahalko dena. → **Egintza positibo** sendo baten bidez emana; hortik kanpo geratzen dira isilpeko adostasunak, pertsona interesdunak ekintzarik ez egitearen zioz ematen direnak. → **Arduraduna gai** izan beharko da **frogatzeko** interesdunak adostuna eman zuela bere datu pertsonalak tratatzeko. • Tratamendua **BEHARREZKOA** denean, honetarako: → Interesduna parte den **KONTRATU BAT GAUZATZEKO** edo interesdunaren eskariz kontratuaren aurreko neurriak aplikatzeko. → Tratamenduaren arduradunari aplikagarria zaion **LEGE-EGINBEHARRA** betetzeko. Oinarri juridiko hori Batasunaren Dekretu bidez edo lege-maila duen arau bidez ezarri behar da, tratamenduaren arduradunari aplikatuta. → Interesdunaren edo beste pertsona fisiko baten **BIZI-INTERESAK** babesteko. → **INTERES PUBLIKOAREN** izenean edo tratamenduaren arduradunari esleitutako **BOTERE PUBLIKOEN IZENEAN BURUTUTAKO EGINKIZUN** bat betetzeko. Oinarri juridiko hori Batasunaren Dekretu bidez edo lege-maila duen arau bidez ezarri behar da, tratamenduaren arduradunari aplikatuta. → Tratamenduaren arduradunak edo hirugarren batek bilatzen dituen **INTERES LEGITIMOEI** erantzuteko, non eta interes horien gainean ez dauden datu pertsonalen babesa eskatzen duten interesdunaren interesak edo oinarrizko eskubide eta askatasunak, bereziki interesduna haur bat denean. → **Interes legitimoa EZ zaio aplikatuko agintaritza publikoek beren eginkizunetan dihardutela egindako tratamenduari**. Agintari publikoen aurrean interes legitimoa argudiatu daiteke, DPBEDBLOren 10. xedapen osagarrian ezarritakoaren arabera. **Administrazio publikoek**, tratamenduaren arduradun diren aldetik, datu pertsonalak tratatzeko **oinarri juridikoak**, **orokorrean**, honako hauek izango dira: administrazioari aplikagarri zaion **lege-eginbeharra betetzea**; edo **interes publikoaren izenean edo** tratamenduaren arduradunari esleitutako **botere publikoen izenean burututako eginkizun bat betetzea**. Ezin da ahaztu, hala ere, kasu jakin batzuetan **adostasuna** tratamenduaren oinarri juridikoa izan daitekeela.
	DATUEN **KATEGORIA BEREZIEN** TRATAMENDUA	• Pertsona fisiko baten **arraza edo jatorri etniko, iritzi politiko, pentsamolde erlijioso zein filosofiko edo sindikatu-bazkidetzari** buruzko informazioa ematen duten datu pertsonalak, bai eta **datu genetikoak** eta pertsona fisiko baten identifikazio esklusiboa egiteko erabiltzen diren **datu biometrikoak** ere, eta pertsona fisiko baten **osasunari** zein **bizitza sexualari** edo sexu-orientazioari buruzko datuak. • **ARAU OROKORRA**: Datu horien tratamendua **debekatuta** dago, baina DBEOk hainbat **salbuespen** aurreikusten ditu 9.2. artikuluan, tartean datu horiek tratatzeko berariazko adostasuna. Baina pertsona ukituaren adostasuna izatea EZ DA ASKI izango debekua kentzeko, baldin eta tratamenduaren xede nagusia bere ideologia, sindikatu-bazkidetza, erlijioa, sexu-orientazioa, sinesmenak edo arraza- edo etnia-jatorria identifikatzea bada (DPBEDBLO, 9.1. artikulua). • **OSASUNARI BURUZKO DATUAK**: Datu horien tratamenduak DBEO, DPBEDBLO eta osasunaren gaineko legedia betetzen ditu.
	ADINGABEEN ADOSTASUNA	• Adingabe baten datuen tratamendurako, berak emandako adostasunean oinarritu ahal izango da, baldin eta **HAMALAU URTE BAINO GEHIAGO** baditu. Salbuespena izango da legeak guraso-ahalaren edo tutoretzaren titularrak egon behar direla eskatzen badu egintza edo negozio juridikoa egiteko; orduan, tratamendurako adostasuna beharko da. • Hamalau urtetik beherako adingabeen datu-tratamendua, adostasunean oinarritua, zilegi izango da soilik baldin eta guraso-ahalaren edo tutoretzaren titularraren adostasuna agertzen bada, guraso-ahalaren edo tutoretzaren titularrek zehazten duten irismenarekin.
	KONDENA ETA ARAU-HAUSTE PENALEI BURUZKO DATU PERTSONALEN TRATAMENDUA	• **Kondena eta arau-hauste penalei** buruzko nahiz kautela- edo segurtasun-neurri edo prozedura lotuei buruzko datu pertsonalen tratamendua, arau-hauste penalak prebenitu, ikertu, antzeman edo epaitzeko edo zehapen penalak betearazteko ez den xedeetarako baliatu ahal da soilik, baldin eta Batasunaren Zuzenbideko arau batean, DPBEDBLOn eta lege-mailako beste arau batzuetan babestuta badago. • DBEOn eta lege-mailako beste arauetan baimendutako kasuez at, kondena eta arau-hauste penalei buruzko nahiz kautela- eta segurtasun-neurri eta prozedura lotuei buruzko datuen tratamenduak zilegi izango dira, soilik abokatuek eta prokuradoreek garatu dituztenean eta beren bezeroek emandako informazioa jasotzea dutenean xede, beren eginkizunak betez.

TRATAMIENTOS EXCLUIDOS DE LA PROTECCIÓN DE DATOS	• El tratamiento efectuado por una persona física en el ejercicio de **actividades exclusivamente personales o DOMÉSTICAS** (tratamientos de datos que las personas realizan en el marco de su vida personal y familiar y con fines que podrían describirse como particulares).
	• Tratamiento de datos referidos a **personas FALLECIDAS**. No obstante, podrán solicitar al responsable o encargado del tratamiento el acceso a los datos personales de aquéllas, y en su caso, su rectificación o supresión (art. 3 LOPDGDD): → Las personas vinculadas al fallecido por razones familiares o de hecho, así como sus herederos, salvo que la persona fallecida lo hubiese prohibido expresamente o así lo establezca una ley. → Las personas o instituciones a las que la persona fallecida hubiese designado expresamente para ello, con arreglo a las instrucciones recibidas. → En el caso de fallecimiento de menores o de personas con discapacidad, también sus representantes legales; el Ministerio Fiscal, que podrá actuar de oficio o a instancia de cualquier persona física o jurídica interesada; y en el caso de personas con discapacidad, también los que hubiesen sido designados para el ejercicio de funciones de apoyo, si dentro de las medidas de apoyo prestadas por el designado se entendieran comprendidas esas facultades relativas al acceso, rectificación o supresión de los datos personales de aquéllas.
	• Tratamientos de datos referidos a **PERSONAS JURÍDICAS**, y en particular a empresas constituidas como personas jurídicas, incluido el nombre y la forma de la persona jurídica y sus datos de contacto.
	• Tratamientos realizados en el ejercicio de una **actividad no comprendida en el ámbito de aplicación del Derecho de la Unión** (por ejemplo, en materia de seguridad nacional).
	• Tratamientos realizados por los Estados miembros de la UE cuando lleven a cabo actividades comprendidas en el ámbito de aplicación del **capítulo 2 del título V del Tratado de la UE** (Política Exterior y de Seguridad Común de la UE).
	• Tratamientos sometidos a la normativa sobre protección **de materias clasificadas.**
	• Tratamientos realizados por las autoridades competentes con fines de prevención, investigación, detección o enjuiciamiento de **infracciones penales**, o de **ejecución de sanciones penales**, incluida la de protección frente a amenazas a la seguridad pública y su prevención. Estos tratamientos están regulados por la Ley Orgánica 7/2021, de 26 de mayo, que transpone la Directiva (UE) 2016/680, del Parlamento Europeo y del Consejo, de 27 de abril de 2016 *(ver ficha 9.5)*.

DATUAK BABESTETIK SALBUETSITAKO TRATAMENDUAK	• Pertsona fisiko batek **jarduera soilik pertsonalak edo ETXEKOAK** egitean garatutako tratamendua (pertsonek beren bizitza pertsonalaren eta familiarraren esparruan egiten dituzten datu-tratamenduak, partikularrtzat jo daitezkeen helburuekin).
	• **HILDAKO pertsonei** buruzko datuen tratamendua. Hala ere, tratamenduaren arduradunari edo eragileari eskatu ahal izango diote datu pertsonal horiek eskuratzeko aukera, bai eta, hala badagokio, horiek zuzendu edo ezereztekoa (DPBEDBLO, 3. artikulua): → Hildako pertsonarekin lotutako pertsonek, familiazko edo egitatezko arrazoien zioz, bai eta horien ondorengoek, hildako pertsonak berariaz hala debekatu ez badu edo legeak hala ezarri badu. → Hildako pertsonak berariaz horretarako izendatutako pertsonek edo erakundeek, jasotako jarraibideen arabera. → Adingabeak edo desgaitasuna duten pertsonak hiltzen badira, baita haien legezko ordezkariek ere; Fiskaltzak, ofizioz edo edozein pertsona fisiko edo juridiko interesdunek eskatuta jardun ahalko duenak; eta desgaitasuna duten pertsonen kasuan, babes-lanak betetzeko izendatu diren pertsonek, baldin eta izendatuak emandako babes-neurrian barruan sartzen badira horien datu pertsonalak eskuratu, zuzendu edo ezereztekoari buruzko eskumen horiek.
	• **PERTSONA JURIDIKOEI** buruzko datu pertsonalen tratamendua, eta bereziki pertsona juridiko gisa eratutako enpresei buruzkoena, pertsona juridikoaren izena, forma eta harremanetarako datuak barne.
	• **Batasuneko zuzenbidearen aplikazio-esparrutik kanpoko jardueretan** aritzean egindako tratamenduak (adibidez, segurtasun nazionalaren gainean).
	• EBko estatu-kideek egiten dituzten tratamenduak, **Europar Batasunaren Tratatuaren V. tituluko 2. kapituluko** aplikazio-esparruan jasota dauden jardueretan (EBko Kanpo Gaietako eta Segurtasun Komuneko Politika).
	• **Sailkatutako gaietarako** babes-arauen pean dauden tratamenduak.
	• Agintari eskudunek **arau-hauste penalak** prebenitzeko, ikertzeko, detektatzeko edo epaitzeko, edo **zehapen penalak betearazteko**, bai eta segurtasun publikoaren aurkako mehatxuetatik babesteko eta mehatxuok prebenitzeko egindako tratamenduak. Tratamendu horiek maiatzaren 26ko 7/2021 Lege Organikoak arautzen ditu, zeinak Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/680 (EB) Zuzentarauaren transposizioa egiten baitu (*ikus 9.5 fitxa*).

DERECHO DE INFORMACIÓN	• Cuando desde los Ayuntamientos se les soliciten datos personales, las personas deberán ser **PREVIAMENTE INFORMADAS**, en relación con los siguientes aspectos: → Identidad y datos de contacto del **responsable** del tratamiento y, en su caso, de su representante. → Datos de contacto del **delegado o delegada de protección de datos**. → **Fines y base jurídica** del tratamiento. → **Intereses legítimos** del responsable o de un tercero. → **Destinatarios** o categorías de destinatarios de los datos personales. → **Transferencias internacionales** previstas. → **Plazo de conservación**. → **Derechos** de acceso, rectificación o supresión, limitación del tratamiento, oposición y portabilidad. → Posibilidad de **revocación** del consentimiento. → Derecho a presentar una **reclamación** ante una autoridad de control. → En el supuesto de que la comunicación de datos personales sea obligatoria, se deberá informar de las posibles **consecuencias de no facilitar los datos**. → Información sobre la posible existencia de **decisiones automatizadas**, incluida la elaboración de perfiles, la lógica aplicada y las consecuencias previstas.
DERECHO DE ACCESO	• A obtener del Ayuntamiento, como responsable del tratamiento, **CONFIRMACIÓN de si se están tratando o no datos personales** que le conciernen y, en tal caso, derecho de **ACCESO A LOS DATOS PERSONALES y a la siguiente INFORMACIÓN**: → **Fines** del tratamiento. → **Categorías de datos** personales de que se trate. → **Destinatarios** o categorías de destinatarios a los que se comunicaron o serán comunicados los datos personales, en particular destinatarios en terceros u organizaciones internacionales. → De ser posible, **plazo** previsto de conservación de los datos personales o, de no ser posible, los criterios utilizados para determinar este plazo. → Existencia del **derecho** a solicitar del responsable la **rectificación o supresión** de datos personales o la **limitación** del tratamiento de datos personales relativos a la persona interesada, o a **oponerse** a dicho tratamiento. → Derecho a presentar una **reclamación** ante una autoridad de control. → Cuando los datos personales no se hayan obtenido de la persona interesada, cualquier **información disponible sobre su origen.** → Existencia de **decisiones automatizadas**, incluida la elaboración de perfiles, a que se refiere el artículo 22, apartados 1 y 4 del RGPD, y, al menos en tales casos, información significativa sobre la lógica aplicada, así como la importancia y las consecuencias previstas de dicho tratamiento para la persona interesada. • Se podrá considerar **REPETITIVO** el ejercicio del derecho de acceso en más de una ocasión durante el **plazo de seis meses, a menos que exista causa legítima** para ello (art. 13.3 LOPDGDD), ante lo cual el Ayuntamiento podrá cobrar un canon razonable en función de los costes administrativos o negarse a actuar respecto de la solicitud. • El Ayuntamiento podrá percibir un canon razonable basado en los costes administrativos, por cualquier otra copia que solicite la persona interesada, además de la que se le facilite en ejercicio del derecho de acceso. • Cuando la persona afectada elija un medio distinto al que se le ofrece para dar satisfacción al derecho de acceso, que suponga un coste desproporcionado, la solicitud será considerada excesiva, por lo que dicha persona afectada asumirá el **exceso de costes** que su elección comporte. En este caso, sólo será exigible al Ayuntamiento la satisfacción del derecho de acceso sin dilaciones indebidas. • El derecho de acceso es **independiente del derecho de acceso a la información pública** que regula la Ley 19/2013, de 9 de diciembre, de transparencia, acceso a la información pública y buen gobierno, **y del derecho de acceso a la documentación en un procedimiento administrativo,** regulado por la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas. • El **acceso a la historia clínica** está regulado de forma específica en la Ley 41/2002, de 14 de noviembre, básica reguladora de la autonomía del paciente y de derechos y obligaciones en materia de información y documentación clínica («Ley de Autonomía del Paciente»).
DERECHO DE RECTIFICACIÓN	• A obtener sin dilación indebida del Ayuntamiento la **RECTIFICACIÓN de los datos** personales **INEXACTOS** que le conciernan y teniendo en cuenta los fines del tratamiento, la persona interesada tendrá derecho a que se **COMPLETEN** los datos personales que sean incompletos, inclusive mediante una declaración adicional. • La persona interesada, al ejercer el derecho de rectificación, deberá indicar en su solicitud a qué datos se refiere y la corrección que haya de realizarse. Deberá acompañar, cuando sea preciso, la documentación justificativa de la inexactitud o carácter incompleto de los datos objeto de tratamiento. • El Ayuntamiento estará **obligado a BLOQUEAR** los datos cuando proceda a su rectificación (art. 32 LOPDGDD). Los datos bloqueados quedarán a disposición exclusiva de los jueces y tribunales, del Ministerio Fiscal o las Administraciones Públicas competentes, en particular de las autoridades de protección de datos, para la exigencia de posibles responsabilidades derivadas del tratamiento y por el plazo de prescripción de las mismas. Transcurrido ese plazo deberá procederse a la destrucción de los datos inexactos o incompletos. Los datos bloqueados no podrán ser tratados para ninguna finalidad distinta de las así señaladas. La AEPD y las autoridades autonómicas de protección de datos, dentro del ámbito de sus competencias, podrán fijar excepciones a la obligación de bloqueo.

INFORMAZIO-ESKUBIDEA	• Udaletatik datu pertsonalak eskatzean, pertsonei honako alderdien **BERRI EMAN** beharko zaie **AURREZ**: → Tratamenduaren **arduradunaren** identitatea eta harremanetarako datuak eta, halakorik badago, haren ordezkariarenak. → **Datuak babesteko ordezkariaren** harremanetarako datuak. → Tratamenduaren **helburuak eta oinarri juridikoa**. → Arduradunaren edo hirugarren baten **interes legitimoak**. → Datu pertsonalen **hartzaileak** edo hartzaile-kategoriak. → Aurreikusitako **nazioarteko transferentziak**. → **Kontserbazio-epea**. → Datuak eskuratu, zuzendu edo ezerezteko, tratamendua mugatzeko, aurka egiteko eta datuak eramateko **eskubideak**. → Adostasuna **indargabetzeko** aukera. → Kontrol-agintaritza bati **erreklamazio** bat aurkezteko eskubidea. → Datu pertsonalak komunikatzea nahitaezkoa bada, **datuak ez ematearen** zioz sor daitezkeen **ondorioen** berri eman beharko da. → **Erabaki automatizatuak** egoteko aukerari buruzko informazioa, profilak egitea, logika aplikatua eta aurreikusitako ondorioak barne.
ESKURATZEKO ESKUBIDEA	• Udalak, tratamenduaren arduraduna den aldetik, **EGIAZTA** diezaion berari buruzko **datu pertsonalen tratamendua egiten ari den ala ez** eta, hala bada, **DATU PERTSONALAK eta honako INFORMAZIO hau ESKURATZEKO** eskubidea ere: → Tratamenduaren **helburuak.** → Kasuan kasuko **datu** pertsonalen **kategoriak**. → Datu pertsonalak zer **hartzaileri** edo zer hartzaile-kategoriari komunikatu zaizkion edo komunikatuko zaizkion, bereziki hirugarren herrialde bateko hartzaileak edo nazioarteko erakundeak badira. → Ahal bada, datu pertsonalak noiz arte kontserbatuko diren edo, hori ezinezkoa bada, **epe** hori zehazteko zer irizpide erabiliko diren. → Tratamenduaren arduradunari datu pertsonalak **zuzendu edo ezereztu** ditzan, edo tratamendua **mugatu** edo tratamenduaren **aurka egitea** eskatzeko **eskubidea**. → Kontrol-agintaritza bati **erreklamazio** bat aurkezteko eskubidea. → Datu pertsonalak interesdunarengandik jaso ez direnean, **haien jatorriari buruzko edozein informazio izateko eskubidea**. → **Erabaki automatizatuak**, profilak egitea barne, zeinak DPEOren 22. artikuluko 1. eta 4. zenbakietan aipatzen baitira, eta, kasu horietan behinik-behin, erabilitako logikaren gaineko informazio esanguratsua, eta interesdunarentzat tratamendu horrek duen garrantzia eta izan ditzakeen ondorioak. • **ERREPIKAKORRA** izan ahalko da informazioa eskuratzeko eskubidea behin baino gehiagotan baliatzea **sei hilabeteko epean, horretarako kausa legitimorik ez badago** (DPBEDBLO, 13.3. artikulua). Halako kasuetan, Udalak arrazoizko kanona kobratu ahal izango du, administrazio-kostuen arabera, edo eskariaren gainean jarduteari uko egin. • Udalak arrazoizko kanona jaso ahalko du, administrazio-kostuen arabera, interesdunak eskatzen duen beste edozein kopiaren gainean, datuak eskuratzeko eskubidea baliatuz ematen zaion horrez gain. • Ukitutako pertsonak eskaintzen zaion bitartekoa ez den beste bat aukeratzen badu datuak eskuratzeko eskubidea baliatzeko eta horrek neurrigabeko kostua eragiten badu, eskaria gehiegizkotzat joko da, eta, ondorioz, ukitutako pertsonak ordainduko du bere hautuaren ziozko **kostu gehiegizko** hori. Kasu honetan, datuak eskuratzeko eskubide hori bete dezala eskatu ahal izango zaio Udalari, beharrezkoa ez den atzerapenik gabe. • Datuak eskuratzeko eskubidea **independentea** da abenduaren 9ko 19/2013 Legeak (gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoak) arautzen duen **informazio publikoa eskuratzeko eskubidearekiko eta administrazio-prozedura batean dokumentazioa eskuratzeko eskubidearekiko** (urriaren 1eko 39/2015 Legean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenean, arautua). • **Historia klinikoa eskuratzeko** prozedura azaroaren 14ko 41/2002 oinarrizko legean arautzen da, pazientearen autonomia eta informazio eta dokumentazio klinikoko gaiei buruzko eskubide eta betebeharrak erregulatzekoan («Pazientearen Autonomiaren Legea»).
ZUZENTZEKO ESKUBIDEA	• Udalaren eskutik interesdunari dagozkion **datu** pertsonal **ZEHAZTU GABEEN ZUZENKETA** atzerapen bidegaberik gabe eskuratzeko eta, tratamenduaren helburuak kontuan hartuta, interesdunak eskubidea izango du osatu gabeak diren datu pertsonalak **OSATU** daitezen, baita adierazpen gehigarri baten bidez ere. • Interesdunak, datuak zuzentzeko eskubidea baliatzean, bere eskarian adierazi beharko du zein daturi buruz ari den eta zein zuzenketa egin behar den. Beharrezkoa denean, tratatu beharreko datuen zehaztasun falta edo izaera osatu gabea justifikatzeko agiriak aurkeztu beharko dira. • Udalaren **betebeharra** izango da datuak **BLOKEATZEA**, horiek zuzendu behar direnean (DPBEDBLO, 32. artikulua). Blokeatutako datuak epaileen eta auzitegien, Fiskaltzaren edo administrazio publiko eskudunen esku geratuko dira, bereziki datuak babesteko agintarien esku, tratamenduaren zioz egon daitezkeen erantzukizunak eskatzeko, horiek preskribatu bitarteko epean. Epe hori amaitzen denean, zehaztu edo osatu gabe dauden datuak suntsitu egin beharko dira. Blokeatutako datuak ezin izango dira tratatu hala zehaztu ez diren helburuetarako. Datuak Babesteko Espainiako Agentziak eta datuak babesteko agintari autonomikoek, beren eskumenen esparruan, blokeatzeko betebeharraren gaineko salbuespenak ezarri ahal izango dituzte.

DERECHO DE SUPRESIÓN	• A obtener sin dilación indebida del Ayuntamiento la **SUPRESIÓN** de los datos personales que le conciernen cuando concurra algunas de las circunstancias siguientes: → Los datos personales ya **no sean necesarios** en relación con los fines para los que fueron recogidos o tratados de otro modo. → La persona interesada **retire el consentimiento** en que se basa el tratamiento, de conformidad con el artículo 6.1.a), o el artículo 9.2.a) del RGPD y este no se base en otro fundamento jurídico. → La persona interesada **se oponga al tratamiento** con arreglo al artículo 21.1 del RGPD, y no prevalezcan otros motivos legítimos para el tratamiento, o la persona interesada se oponga al tratamiento con arreglo al artículo 21.2 RGPD. → Los datos personales hayan sido **tratados ilícitamente**. → Los datos personales deban suprimirse para el **cumplimiento de una obligación legal** establecida en el Derecho de la Unión o de los Estados miembros que se aplique al responsable del tratamiento. → Los datos personales se hayan obtenido en relación con la oferta de servicios de la sociedad de la información mencionados en el artículo 8.1 RGPD. • Cuando el Ayuntamiento haya hecho **públicos los datos personales** y concurriendo alguna de las circunstancias referidas, esté **obligado a suprimir** dichos datos, teniendo en cuenta la tecnología disponible y el coste de su aplicación, adoptará medidas razonables, incluidas medidas técnicas, con miras a informar a los responsables que estén tratando los datos personales de la solicitud, de la persona interesada, de supresión de cualquier enlace a esos datos personales, o cualquier copia o réplica de los mismos. • El RGDP establece las siguientes **EXCEPCIONES** que justifican la improcedencia en la atención del derecho de supresión cuando el tratamiento sea necesario: → Para ejercer el derecho a la **libertad de expresión e información**. → Para el cumplimiento de una **obligación legal** que requiera el tratamiento de datos impuesta por el Derecho de la Unión o de los Estados miembros que se aplique al responsable del tratamiento, o para el cumplimiento de una **misión realizada en interés público o en el ejercicio de poderes públicos** conferidos al responsable. → Por razones de interés público en el ámbito de la **salud pública** de conformidad con el artículo 9.2, letras h) e i), y con el artículo 9.3 del RGPD. → Con fines de **archivo** en interés público, **fines de investigación científica o histórica** o **fines estadísticos**, de conformidad con el artículo 89.1 del RGPD, en la medida en que el derecho de supresión pudiera hacer imposible u obstaculizar gravemente el logro de los objetivos de dicho tratamiento. → O para la **formulación**, el **ejercicio o** la **defensa de reclamaciones**. • El Ayuntamiento estará obligado a **BLOQUEAR** los datos cuando proceda a su supresión (art. 32 LOPDGDD). Los datos bloqueados quedarán a disposición exclusiva de los jueces y tribunales, del Ministerio Fiscal o las Administraciones Públicas competentes, en particular de las autoridades de protección de datos, para la exigencia de posibles responsabilidades derivadas del tratamiento y por el plazo de prescripción de las mismas. Transcurrido ese plazo deberá procederse a la destrucción de los datos. Los datos bloqueados no podrán ser tratados para ninguna finalidad distinta de las así señaladas. La AEPD y las autoridades autonómicas de protección de datos, dentro del ámbito de sus competencias, podrán fijar excepciones a la obligación de bloqueo.
DERECHO A LA LIMITACIÓN DEL TRATAMIENTO	• Permite a la persona afectada: 1. Solicitar al Ayuntamiento, como responsable del tratamiento, que **SUSPENDA el tratamiento** de datos cuando: — Se impugne la exactitud de los datos, mientras se verifica dicha exactitud por el responsable. — La persona afectada ha ejercitado su derecho de oposición al tratamiento de datos, mientras se verifica si los motivos legítimos del responsable prevalecen sobre los de la persona afectada. 2. Solicitar al Ayuntamiento, como responsable del tratamiento, que **CONSERVE** tus datos personales cuando: — El **tratamiento** de datos sea **ilícito** y la persona afectada se oponga a la supresión de sus datos y solicite en su lugar la limitación de su uso. — El responsable ya no necesita los datos para los fines del tratamiento, pero la persona afectada sí los necesite **para la formulación, ejercicio o defensa de reclamaciones.** • Limitado el tratamiento de los datos personales de la persona afectada, dichos datos sólo podrán ser objeto de tratamiento, con excepción de su conservación, con el consentimiento de la propia persona afectada o para la formulación, el ejercicio o la defensa de reclamaciones, o con miras a la protección de los derechos de otra persona física o jurídica o por razones de interés público importante de la Unión o de un Estado miembro. • El hecho de que el tratamiento de los datos personales esté limitado debe constar claramente en los sistemas de información del Ayuntamiento como responsable del tratamiento (art. 16.2 LOPDGDD). • Toda persona interesada que haya obtenido la limitación del tratamiento será informada por el Ayuntamiento antes del levantamiento de dicha limitación.
DERECHO DE OPOSICIÓN	• A **OPONERSE** en cualquier momento, por motivos relacionados con su situación personal, a que los datos personales que le conciernan sean objeto de un tratamiento por el Ayuntamiento basado en lo dispuesto en el artículo 6.1, letras e) y f) del RGPD, incluida la elaboración de perfiles sobre la base de dichas disposiciones. • **LIMITACIONES**: Ante el ejercicio del derecho de oposición, el Ayuntamiento dejará de tratar los datos personales, salvo que el Ayuntamiento acredite motivos legítimos imperiosos para el tratamiento que prevalezcan sobre los intereses, los derechos y las libertades de la persona interesada, o para la formulación, el ejercicio o la defensa de reclamaciones. • El derecho de oposición debe **comunicarse explícitamente** a la persona interesada, presentándose claramente y al margen de cualquier otra información.

EZEREZTEKO ESKUBIDEA	• Berari buruzko datu pertsonalak atzerapen bidegaberik gabe Udalak **EZEREZTEKO** eskubidea, honako egoeraren bat tartean denean: → Datu pertsonalak jadanik **ez badira beharrezkoak**, bildu zirenean edo beste modu batez tratatu zirenean zeuden helburuen argitan. → Interesdunak **bertan behera uzten badu** tratamenduaren oinarria den DBEOren 6.1 artikuluko a) letraren edo 9.2 artikuluko a) letraren araberako **adostasuna**, eta tratamenduak ez badu beste oinarri juridikorik. → Interesdunak **tratamenduaren aurka** egiten badu DBEOren 21.1. artikuluari jarraituz, eta gainetik ez badago tratamendua gauzatzeko beste arrazoi legitimorik, edo interesdunak tratamenduaren aurka egiten badu DBEOren 21.2. artikuluari jarraituz. → Datu pertsonalen **tratamendua legez kontra** egin bada. → Datu pertsonalak ezereztu behar badira, tratamenduaren arduradunari aplikagarri zaion Batasuneko edo estatu-kideetako zuzenbidean ezarritako **lege-betebehar** baten indarrez. → Datu pertsonalak jaso badira DBEOren 8.1. artikuluan aipaturiko informazioaren gizarteko zerbitzuen eskaintzaren ingurumarian. • Udalak **datu pertsonalak publiko** egiten dituenean eta, aipatu egoeraren baten indarrez, datuok **ezereztu behar** dituenean, eskura duen teknologia eta hura erabiltzeko kostua kontuan hartuta, arrazoizko neurriak hartuko ditu, neurri teknikoak barne, datu pertsonalen tratamendua egiten ari diren arduradunak jakitun ipintzeko interesdunak egin duen eskabideaz datu pertsonal horiekiko lotura oro edo kopia edo erreplika oro ezereztu daitezen. • DBEOk honako **SALBUESPEN** hauek ezartzen ditu datuak ezerezteko eskubidea bidezkoa ez dela justifikatzeko, tratamendua beharrezkoa bada: → **Adierazpen- eta informazio-askatasunerako** eskubidea egikaritzeko. → Tratamenduaren arduradunari aplikagarria zaion Batasuneko edo estatu-kideetako zuzenbidean ezarritako **lege-betebehar** bat konplitzeko, edo **interes publikoaren izenean edo** tratamenduaren arduradunari esleitutako **botere publikoen izenean burututako eginkizun bat betetzeko**. → **Osasun publikoaren** alorreko interes publikoari buruzko arrazoiak direla medio, DBEOren 9.2 artikuluko h) eta i) letretan eta 9.3. artikuluan xedatutakoaren arabera. → Tratamenduaren helburua bada interes publikoaren izenean **artxibatzea, edo ikerketa zientifikoa, historikoa edo estatistikoa egitea**, DBEOren 89.1. artikuluaren arabera, noiz eta ezerezteko eskubideak ezinezko egiten duen edo nabarmen galarazten duen tratamenduaren helburuak lortzea. → **Erreklamazioak formulatzeko, egikaritzeko edo aldezteko**. • Udalaren betebeharra izango da datuak **BLOKEATZEA**, horiek ezeraztu behar direnean (DPBEDBLO, 32. artikulua). Blokeatutako datuak epaileen eta auzitegien, Fiskaltzaren edo administrazio publiko eskudunen esku geratuko dira, bereziki datuak babesteko agintarien esku, tratamenduaren zioz egon daitezkeen erantzukizunak eskatzeko, horiek preskribatu bitarteko epean. Epe hori amaitzen denean, datuak suntsitu egin beharko dira. Blokeatutako datuak ezin izango dira tratatu hala zehaztu ez diren helburuetarako. Datuak Babesteko Espainiako Agentziak eta datuak babesteko agintari autonomikoek, beren eskumenen esparruan, blokeatzeko betebeharraren gaineko salbuespenak ezarri ahal izango dituzte.
TRATAMENDUA MUGATZEKO ESKUBIDEA	• Ukitutako pertsonari aukera ematen dio: 1. Udalari, tratamenduaren arduraduna den aldetik, datuen **tratamendua ETEN dezala** eskatzeko, baldin eta: — Datuen zehaztasunaren aurka jotzen bada, arduradunak zehaztasun hori egiaztatu bitartean. — Ukitutako pertsonak datuen tratamenduaren aurka egiteko eskubidea baliatu badu, arduradunaren arrazoi legitimoak ukitutako pertsonarenen gainetik lehenesten diren egiaztatu bitartean. 2. Udalari, tratamenduaren arduraduna den aldetik, datu pertsonalak **GORDE ditzala** eskatzeko, baldin eta: — **Tratamendua legez kontrakoa** bada eta interesdunak datu pertsonalak ezereztearen aurka egin badu eta, ordainetan, haien erabilera mugatzeko eskatu. — Arduradunak jadanik behar ez baditu datu pertsonalak tratamenduaren helburuei begira, baina interesdunak bai, **erreklamazioak formulatzeko, egikaritzeko edo aldezteko**. • Datu pertsonalen tratamendua mugatu bada, datuon tratamendua —kontserbazioa salbu— egin ahal izango da soil-soilik interesdunak bere adostasuna agertzen badu, edo erreklamazioak formulatzeko, egikaritzeko edo aldezteko, edo beste pertsona fisiko edo juridiko baten eskubideak babesteari begira, edo Batasunaren edo estatu-kide jakin baten interes publiko garrantzitsuari buruzko arrazoiak direla eta. • Datu pertsonalen tratamendua mugatuta dagoela argi eta garbi jaso behar da Udalaren informazio-sistemetan, horixe baita tratamenduaren arduraduna (DPBEDBLOren 16.2. artikulua). • Tratamendua mugatzea lortu duen interesduna jakitun ipiniko du Udalak mugatzea amaitu baino lehen.
AURKA EGITEKO ESKUBIDEA	• Bere egoera partikularra dela eta, interesdunak eskubidea izango du, edozein unetan, berari buruzko datu pertsonalen Udaleko tratamenduaren **AURKA EGITEKO**, tratamendu hori oinarritzen bada DBEOren 6.1 artikuluko e) edo f) letran xedatutakoan, baita xedapen horietan oinarrituriko profilen elaborazioaren aurka ere. • **MUGAK**: Aurka egiteko eskubidea baliatzen bada, Udalak datu pertsonalak tratatzeari utziko dio, noiz eta Udalak ez duen egiaztatzen interesdunaren interes, eskubide eta askatasunen gainetik arrazoi legitimo larriak daudela tratamenduari eusteko, edo erreklamazioak formulatzeko, egikaritzeko edo aldezteko. • Eskubide hori **esanbidez adierazi** behar zaio interesdunari, eta argi aurkeztu behar da, beste edozein informaziotik bereizita.

DECISIONES INDIVIDUALES AUTOMATIZADAS, INCLUIDA LA ELABORACIÓN DE PERFILES	• **A NO SER OBJETO DE UNA DECISIÓN REALIZADA POR EL AYUNTAMIENTO BASADA ÚNICAMENTE EN EL TRATAMIENTO AUTOMATIZADO DE SU INFORMACIÓN DE CARÁCTER PERSONAL**, incluida la elaboración de perfiles, que produzca efectos jurídicos en ella o le afecte significativamente de modo similar. • **EXCEPCIONES**: **Será lícito** efectuar el tratamiento y tomar una decisión automatizada: → Cuando está autorizada por el Derecho de la Unión o de los Estados miembros que se aplique al responsable del tratamiento y que establezca asimismo medidas adecuadas para salvaguardar los derechos y libertades y los intereses legítimos de la persona interesada. → Cuando sea necesaria para la celebración o la ejecución de un contrato entre la persona interesada y un responsable del tratamiento; o cuando se basa en el consentimiento explícito de la persona interesada. En ambos casos, el Ayuntamiento deberá adoptar las medidas adecuadas para salvaguardar los derechos y libertades y los intereses legítimos de la persona interesada, como mínimo, el derecho a obtener intervención humana por parte del responsable, a expresar su punto de vista y a impugnar la decisión. • En estos tratamientos no se emplearán categorías especiales de datos personales contempladas en el artículo 9.1 RGPD, salvo que el tratamiento se realice mediante el consentimiento de la persona interesada o se trate de un interés público esencial impuesto por el Derecho de la Unión o del Estado miembro. En estos casos, se asegurará que se hayan tomado medidas adecuadas para salvaguardar los derechos y libertades y los intereses legítimos de la persona interesada.
DISPOSICIONES GENERALES SOBRE EJERCICIO DE LOS DERECHOS	• Los derechos reconocidos en los artículos 15 a 22 del RGPD, podrán ejercerse **directamente o por medio de representante** legal o voluntario. • El Ayuntamiento estará obligado a **informar** a la persona afectada **sobre los medios a su disposición para ejercer los derechos** que le corresponden. Los medios deberán ser **fácilmente accesibles** para la persona afectada. El Ayuntamiento debe establecer **mecanismos visibles, accesibles y sencillos**, incluidos medios electrónicos, para el ejercicio de derechos. Estos mecanismos, en particular, cuando se trate del ejercicio por medios electrónicos, deben incorporar procedimientos para verificar la identidad de las personas afectadas que los utilizan, así como de la recepción del ejercicio del correspondiente derecho, y su oportuna contestación. • El ejercicio del derecho **no podrá ser denegado por el solo motivo de optar la persona afectada por otro medio**. • El encargado del tratamiento, en el caso de que lo hubiese, podrá tramitar, por cuenta del Ayuntamiento, las solicitudes de ejercicio de sus derechos formuladas por las personas afectadas, si así se estableciere en el contrato o acto jurídico que les vincule. • La **prueba del cumplimiento del deber de responder** a la solicitud de ejercicio de sus derechos formulado por la persona afectada **recaerá sobre el Ayuntamiento**, como responsable del tratamiento. • Cuando las leyes aplicables a determinados tratamientos establezcan un **régimen especial** que afecte al ejercicio de los derechos previstos en el Capítulo III del RGPD (arts. 12 a 23) se estará a lo dispuesto en aquéllas. • En cualquier caso, los titulares de la patria potestad podrán ejercitar en nombre y representación de los **menores de catorce años** los derechos de acceso, rectificación, cancelación, oposición o cualesquiera otros que pudieran corresponderles en el contexto de la LOPDGDD. • Serán **GRATUITAS** las actuaciones llevadas a cabo por el Ayuntamiento para atender las solicitudes de ejercicio de estos derechos. Pero cuando las solicitudes sean **manifiestamente infundadas o excesivas**, especialmente debido a su carácter repetitivo, el Ayuntamiento **podrá cobrar un canon** razonable en función de los costes administrativos afrontados para facilitar la información o la comunicación o realizar la actuación solicitada, o negarse a actuar respecto de la solicitud. Será el Ayuntamiento el que ha de soportar la carga de demostrar el carácter manifiestamente infundado o excesivo de la solicitud. • El Ayuntamiento, ante el ejercicio de cualquiera de los derechos, deberá responder en el **PLAZO MÁXIMO DE UN MES**. Este plazo puede prorrogarse otros dos meses en caso necesario, teniendo en cuenta la complejidad y el número de solicitudes, si bien se deberá informar al ciudadano o ciudadana de la citada prórroga en el plazo de un mes a partir de la recepción de la solicitud, indicando los motivos de la dilación. Si el ciudadano o ciudadana presentase la solicitud por medios electrónicos, la información se facilitará por medios electrónicos cuando sea posible, a menos que el ciudadano o ciudadana solicite que se facilite de otro modo.
LIMITACIONES AL ALCANCE DE LOS DERECHOS	El RGPD permite **previsiones normativas,** por parte de los Estados miembros de la Unión Europea, **que limiten el alcance de las obligaciones y de los derechos** de las personas interesadas, establecidos en los artículos 12 a 22, así como limitaciones a los principios relativos al tratamiento (artículo 5 RGPD) y al deber de notificar a la persona interesada brechas de seguridad en el tratamiento (artículo 34 RGPD).
DERECHO A INDEMNIZACIÓN POR LESIÓN EN SUS BIENES Y DERECHOS	• Toda persona que haya sufrido daños y perjuicios materiales o inmateriales como consecuencia de una infracción del RGPD tendrá derecho a recibir del Ayuntamiento o del encargado del tratamiento una **indemnización por los daños y perjuicios sufridos**. • Este derecho se ejercerá de acuerdo con la legislación reguladora del régimen de responsabilidad de las administraciones públicas.
SOLICITUD DE TUTELA ANTE LA AGENCIA VASCA DE PROTECCIÓN DE DATOS **INTERVENCIÓN DEL DELEGADO O DELEGADA DE PROTECCIÓN DE DATOS**	• Cualquier persona que haya ejercido o intentado ejercer los derechos de acceso, rectificación, supresión, limitación, oposición, o a no ser objeto de una decisión realizada por el Ayuntamiento basada únicamente en el tratamiento automatizado de su información de carácter personal, incluida la elaboración de perfiles, y entienda que no se le ha facilitado el ejercicio o que no ha sido atendido su derecho, tiene **derecho a presentar directamente una reclamación ante la Agencia Vasca de Protección de Datos** para que inicie un **PROCEDIMIENTO DE TUTELA DE SUS DERECHOS**, sin perjuicio de cualquier otro recurso administrativo o acción judicial. La LOPDGDD prevé en su artículo 37.2 que la autoridad de control **podrá remitir la reclamación al Delegado o Delegada de Protección de Datos** del Ayuntamiento a fin de que éste responda en el plazo de un mes. Si transcurrido dicho plazo el Delegado de Protección de Datos no hubiera comunicado a la AVPD la respuesta dada a la reclamación, ésta continuará el procedimiento. • **Con CARÁCTER PREVIO** a la presentación de una reclamación ante la AVPD contra el Ayuntamiento o el encargado del tratamiento, la persona interesada **podrá dirigirse al Delegado o Delegada de Protección de Datos** del Ayuntamiento. En este caso, el Delegado de Protección de Datos comunicará a la persona interesada la decisión que se hubiera adoptado en el plazo máximo de dos meses (art. 37.1 LOPDGDD).

BANAKAKO ERABAKI AUTOMATIZATUAK, PROFILAK EGITEA BARNE	• **UDALAK EGINDAKO ETA INFORMAZIO PERTSONALAREN TRATAMENDU AUTOMATIZATUAN SOILIK OINARRITUTA DAGOEN** eta berarengan ondorio juridikoak edo antzeko ondorio esanguratsuak dituen **ERABAKI BATEN OBJEKTU EZ IZATEKO,** profilak egitea barne. • **SALBUESPENAK**: **Zilegi izango da** tratamendua egin eta erabaki automatizatua hartzea: → Tratamenduaren arduradunari aplikagarri zaion Batasuneko edo estatu-kideetako zuzenbideak baimentzen badu, zeinak interesdunaren eskubideak, askatasunak eta interes legitimoak babesteko neurri egokiak xedatzen baititu. → Pertsona interesdunaren eta tratamenduaren arduradunaren artean kontratu bat egiteko edo betearazteko beharrezkoa denean, edo pertsona interesdunaren berariazko adostasunean oinarritzen denean. Aurreko bi kasuetan, Udalak behar diren neurriak hartuko ditu interesdunaren eskubideak, askatasunak eta interes legitimoak babesteko; honako hauek, gutxienez: arduradunaren aldetik pertsona baten esku-hartzea jasotzeko eskubidea, beraren ikuspuntua adierazteko eskubidea eta erabakiaren kontra egiteko eskubidea. • Tratamendu horietan ez da baliatuko DBEOren 9.1. artikuluan aurreikusitako datu pertsonalen kategori berezirik, tratamendua pertsona interesdunaren adostasun bidez egiten ez bada edo Batasunaren eta estatu-kidearen zuzenbidearen bidez ezarritako funtsezko interes publikoa ez bada. Kasu horietan, pertsona interesdunaren eskubide eta askatasunak eta interes legitimoak babesteko neurri egokiak hartu direla bermatuko da.
ESKUBIDEAK BALIATZEKO XEDAPEN OROKORRAK	• DBEOren 15-22 artikuluetan jasotako eskubideak **zuzenean edo** legezko edo borondatezko **ordezkari baten bidez** baliatu ahal izango dira. • Udalaren betebeharra izango da ukitutako pertsonari **adieraztea** berari dagozkion **eskubideak baliatzeko zein bitarteko** dituen. Bitartekoak **erraz eskuratzeko modukoak** izan beharko dira ukitutako pertsonarentzat. Udalak **ikusteko modukoak, erraz eskuratzekoak eta errazak diren mekanismoak** ezarri beharko ditu, bitarteko elektronikoak barne, eskubideak baliatzeko. Mekanismo horietan, batez ere bitarteko elektronikoen bidez baliatu behar direnean, jaso egin behar dira horiek erabiltzen dituzten ukitutako pertsonen nortasuna egiaztatzeko prozedurak, bai eta eskubide hori baliatu izana jaso dela eta behar bezala erantzun dela egiaztatzekoak. • Eskubide hori baliatzeko aukera **ezin izango da ukatu ukitutako pertsonak beste bitarteko bat aukeratzen duelako soilik.** • Tratamenduaren eragileak, halakorik badago, Udalaren izenean izapidetu ahal izango ditu pertsona ukituek beren eskubideak baliatzeko egindako eskariak, lotzen dituen egintza juridikoan edo kontratuan hala ezarri baldin bada. • **Udalak frogatu beharko du**, tratamenduaren arduraduna den aldetik, ukitutako pertsonak bere eskubideak baliatzeko egin duen eskariari **erantzuna emateko betebeharra bete dela**. • Tratamendu jakin batzuei aplikatu beharreko legeetan **araubide berezi** bat ezartzen bada DBEOren III. kapituluan aurreikusitako eskubideak baliatzeko (12-23 artikuluak), horietan xedatutakoa beteko da. • Nolanahi ere, guraso-ahalaren titularrek **hamalau urtetik beherakoen** izenean edo ordezkaritzan baliatu ahal izango dituzte datuak eskuratu, zuzendu, ezereztu, aurkaratu edo bestelakoetarako eskubideak, DPBEDBLOren testuinguruan egokitu dakizkiekeenak. • Udalak eskubide horiek baliatzeko eskariak artatzeko gauzatzen dituen jarduerak **DOAKOAK** izango dira. Baina eskariak **oinarririk gabeak edo gehiegizkoak** badira, batez ere errepikakorrak direlako, Udalak arrazoizko **kanona kobratu ahal izango du**, informazio hori emateko, komunikazio hori egiteko, edo eskaria erantzuteko egin behar izan dituen administrazio-kostuen arabera, edo eskari horren gainean jarduteari uko egin ahalko dio. Udalak bere gain hartuko du eskabidea argi eta garbi funsgabea edo neurrigabea dela frogatzeko karga. • Udalak, eskubideetako edozein baliatzean, **GEHIENEZ HILABETEKO EPEAN** erantzun beharko du. Epe hori beste bi hilabetez luzatu ahalko da, beharrezkoa bada, kontuan hartuta eskarien kopurua eta konplexutasuna. Hala ere, herritarrari jakinarazi egin beharko zaio aipatu luzapena egon dela, eskaria jasotzen denetik hilabeteko epean, atzerapenaren arrazoiak zein diren adierazita. Interesdunak eskabidea bitarteko elektronikoen bidez aurkezten duenean, informazioa ere bitarteko elektronikoen bidez emango da, ahal dela, salbu eta interesdunak eskatzen badu beste moduren batez jasotzeko.
ESKUBIDEEN IRISMENAREN GAINEKO MUGAK	DBEOk aukera ematen du Europar Batasuneko estatu-kideek arau-aurreikuspenak egin ditzaten, 12-22 artikuluetan araututa dauden interesdunen **eskubideen eta betebeharren irismena mugatzeko**. Halaber, tratamenduari buruzko printzipioak (DBEO, 5. artikulua) eta interesdunari tratamenduaren segurtasunean egondako urraketen berri emateko betebeharri buruzkoak (DBEO, 34. artikulua) ere mugatu ahal izango dira.
ONDASUNAK ETA ESKUBIDEAK URRATU ZAIZKIOLAKO KALTE-ORDAINAK JASOTZEKO ESKUBIDEA	• DBEO urratzearen ondorioz kalte-galerak, materialak edo immaterialak, jasan dituen edonork eskubidea izango du **kalte-galera horiengatik kalte-ordaina** jasotzeko, udaletik edo tratamenduaren eragilearengandik. • Eskubide hori administrazio publikoen erantzukizun-araubidea arautzen duen legeriaren arabera exijituko da.
DATUAK BABESTEKO EUSKAL BULEGOAN TUTORETZA ESKATZEA **DATUAK BABESTEKO ORDEZKARIAREN ESKU-HARTZEA**	• Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezerezteko, mugatzeko, aurkaratzeko edo bere informazio pertsonalaren tratamendu automatizatuan soilik oinarrituta, profilak egitea barne, Udalak egindako erabaki baten objektua ez izateko eskubideak baliatu dituen edo baliatzeko ahalegina egin duen edozein pertsonak, eskubidea erraztu ez zaiola edo eskubidea artatu ez dela uste badu, **eskubidea dauka zuzenean erreklamazioa aurkezteko Datuak Babesteko Euskal Bulegoan**, azken horrek **BERE ESKUBIDEEN TUTORETZA-PROZEDURA** has dezan. Hala ere, bidezkoa den beste edozein administrazio-errekurtso jarri edo ekintza judizial garatu ahal izango da. DPBEDBLOren 37.2. artikuluaren arabera, kontrol-agintaritzak **erreklamazioa igorri ahal izango dio Udaleko datuak babesteko ordezkariari**, hark hilabeteko epean erantzun diezaion. Epe hori igarotakoan datuak babesteko ordezkariak ez badio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari jakinarazi erreklamazioari eman zaion erantzuna, azken horrek prozedurarekin jarraituko du. • Datuak Babesteko Euskal Bulegoan udalaren edo tratamenduaren eragilearen aurkako erreklamazioa aurkeztu **AURRETIK,** interesdunak Udaleko **datuak babesteko ordezkariarengana jo ahal izango du**. Kasu horretan, datuak babesteko ordezkariak pertsona interesdunari jakinaraziko dio zein erabaki hartu den, gehienez bi hilabeteko epean (DPBEDBLO, 37.1. artikulua).

- Tratamendu horiek, **zeinak DBEOren aplikazio-eremutik kanpo dauden**, maiatzaren 26ko 7/2021 Lege Organikoak xedatutakoaren mende daude, baldin eta legean definitutako agintaritza eskudunek egiten badituzte, Segurtasun Indar eta Kidegoek besteak beste (lege organiko horren bidez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/680 (EB) Zuzentarauaren transposizioa egin zen). **Agintaritza eskudunek egindako tratamendua 7/2021 Lege Organikoan ezarritakoez bestelako helburuetarako bada, DBEOn eta DPBEDBLOn xedatutakoa aplikatuko da**.
- Udaltzaingoari **laguntzeko** betebeharra: administrazio publikoek, baita pertsona fisikoek eta juridikoek ere, datuak, txostenak, aurrekariak eta egiaztagiriak emango dizkiote eskatzen dituen udaltzaingoari, bere eskumenen esparruan, baldin eta horiek beharrezkoak badira udaltzaingoak bere misioak bete ditzan, hau da, arau-hauste penalak prebenitzeko, detektatzeko eta ikertzeko eta segurtasun publikorako arrisku errealak eta larriak prebenitzeko eta arriskuotatik babesteko. Udaltzaingoak egiten duen eskaerak **zehatza** eta **espezifikoa** izan behar du, eta adierazitako kasuekin zerikusia duela egiaztatzeko moduan **arrazoituta** egon behar du.
- Datu pertsonalak helburu horietarako tratatzeari buruzko **printzipioak**: tratamendua **zilegitasunez** eta legez egin behar da; datuak helburu **esplizitu eta legitimo**ekin tratatuko dira, eta tratamendua **ez** da helburu horiekin **bateraezina** izango; tratamenduak **aproposak eta egokiak** izango dira, eta **ez dira gehiegizkoak izango**; **zehatzak eta eguneratuak** izan beharko dira, eta zehatzak ez diren datuak zuzendu edo ezabatu beharko dira; ahal den neurrian, **egintzetan** oinarritutako datu pertsonalak eta **iritzi pertsonaletan** oinarritutakoak **bereizi** beharko dira; datu pertsonalak **gorde** beharko dira, interesduna identifikatu ahal izateko, betiere tratamenduaren xedeak betetzeko beharrezkoa den aldia gainditu gabe. Arduradunak aztertu beharko du datuak gorde, mugatu edo ezabatu behar diren, gehienez ere hiru urtean behin (datuak ezabatzeko gehieneko epe orokorra 20 urte da, salbuespenak salbuespen); eta **segurtasun** egokia bermatzeko moduan tratatu beharko dira.
- Tratamenduaren **zilegitasuna**: tratamendua zilegi izango da 7/2021 LOan adierazitako helburuetarako beharrezkoa den neurrian eta agintaritza eskudun batek bere eginkizunak betetzeko egiten duenean; mugak egongo dira datu pertsonalen kategoria berezien tratamenduaren kasuan eta adingabeen eta gaitasuna aldatua duten pertsonen datuen kasuan. Debekatuta dago interesdunari ondorio juridiko txarrak edo ondorio kaltegarri nabarmenak ekarriko dizkioten erabaki indibidual automatizatuak hartzea, profilak egitea barne, salbu eta lege-mailako arau batek baimentzen badu. Arau horrek interesdunaren eskubideak eta askatasunak babesteko neurriak ezarriko ditu.
- Proportzionaltasun-printzipioarekin bat, **Segurtasun Indar eta Kidegoek irudiak eta soinuak grabatzeko** sistema finkoak eta mugikorrak instalatzean, honako irizpide hauek hartuko dira kontuan: eraikin eta instalazio propioen babesa ziurtatzea; eraikin eta instalazio publikoen babesa eta horietan haien zaintzapean dauden sarbideen babesa ziurtatzea; segurtasun nazionalerako erabilgarriak diren instalazioak zaintzea eta babestea; arau-hauste penalak prebenitzea, detektatzea edo ikertzea, eta segurtasun publikoaren aurkako mehatxuak prebenitzea eta mehatxuotatik babestea.
  - → Bide edo leku publikoetan **bideokamera finkoak** instalatzean, tratamenduaren arduradunak proportzionaltasun-printzipioa bete den begiratu behar du; hau da, ebaluatu behar du printzipio horren bi alderdiak (egokitasuna eta gutxieneko esku-hartzea) bete diren. Era berean, egin nahi den tratamenduak datuen babeserako dakartzan arriskuak analizatu behar ditu arduradunak, edo tratamendu horrek datu-babesaren gainean duen inpaktua ebaluatu; horretarako, kontuan hartu behar du zenbaterainoko kaltea eragiten dien tratamenduak herritarrei eta zer helburu lortu nahi den tratamenduarekin. Bideokamera finkotzat hartuko da euskarri finko batean edo fatxada batean ainguratuta dagoena, grabazio-sistema edozein norabidetan mugitzeko aukera badago ere.

    Bideokamera finkoak instalatzeko, Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saileko organo eskudunaren **baimena** behar da, eta aurrez **Bideozaintza eta Askatasun Batzordea**k **nahitaezko txostena** eman behar du.
  - → **Gailu mugikorrei** dagokienez, irudiak eta soinuak batera hartu behar dira, eta, betiere, pertsonak eta ondasunak eta ordena publikoa arriskuan daudenean edo haien kontrako zerbait gertatzen denean. Horiek erabiltzeko, Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saileko organo eskudunak **baimena** eman beharko du, eta gailuen erabilera tratamendu- eta proportzionaltasun-printzipioetara egokitu beharko da.

  Irudiak hartu eta gehienez ere hiru hilabeteko epean suntsituko dira grabazioak, non eta grabatutakoa ez den polizia-ikerketa bat edo prozedura judizial edo administratibo bat abian duen segurtasun publikoaren arloko arau-hauste penal edo administratibo astun edo oso astun bat.
- **Pertsonen eskubideak**: informazioa jasotzeko, eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko eta mugatzeko eskubidea. Arduradunak hainbat arrazoirengatik mugatu ditzake, hala nola ikerketak ez oztopatzeko edo segurtasuna arriskuan ez jartzeko, tratamenduaren helburuari kalte ez egiteko, segurtasun publikoa babesteko, segurtasun nazionala babesteko eta beste pertsona batzuen eskubideak eta askatasunak babesteko. Nolanahi ere, interesdunak, uste badu bere eskubideak ez direla garaiz eta behar bezala errespetatu, datuak babesteko agintaritzaren bidez baliatu ahalko ditu bere eskubideak.
- Tratamenduaren arduradunak eta eragileak, datu pertsonalak tratatzeko jardueren erregistroaz gain, tratamendu-**eragiketen erregistroak** eduki beharko dituzte datuak biltzeko, aldatzeko, kontsultatzeko, komunikatzeko —transferentziak barne— eta konbinazioa edo ezabatzeko tratamendu automatizatuen sistemetan, soil-soilik tratamenduaren legezkotasuna egiaztatzeko, datuak babesteko neurriak eta politikak betetzen direla kontrolatzeko eta datu pertsonalen osotasuna eta segurtasuna bermatzeko prozesu penalen esparruan.
- Tratamenduaren arduradunak **ebaluatu** egin behar du datu pertsonalak babesteko egitekoak diren eragiketen **inpaktua**, baldin eta tratamendu mota batek —bereziki, teknologia berriak erabiltzen dituzten tratamenduen kasuan— bere izaera, irismena, testuingurua edo helburuak direla-eta arrisku handia badakar pertsona fisikoen eskubide eta askatasunetarako. Eta, tratamendua hasi aurretik, arduradunak **kontsulta** egin behar dio kontrol-agintaritzari, baldin eta inpaktuaren ebaluazioak adierazten badu tratamenduak arrisku handia ekarriko lukeela berak arriskua edo izan daitezkeen kalteak arintzeko neurririk hartu ezean, edo tratamendu motak arrisku handia eragin badiezaieke interesdunen eskubide eta askatasunei, bereziki teknologia, mekanismo edo prozedura berriak erabiltzen direnean.
- Tratamenduaren arduradunak eta eragileak **lankidetzan jardungo dute datuak babesteko agintaritza eskudunarekin**, azken horrek hala eskatzen badu bere eginkizunak betetzen ari dela.

CESIONES DE DATOS DEL PADRÓN	
LOS DATOS DEL PADRÓN SON CONFIDENCIALES	El acceso a los mismos **se REGIRÁ** por lo dispuesto en: • El RGPD y la LOPDGDD. • La Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local - LRBRL (art. 16.3) y su normativa de desarrollo.
CESIÓN A OTRAS ADMINISTRACIONES SIN CONSENTIMIENTO PREVIO **(art. 16.3 LRBRL)**	**Se CEDERÁN**, a otras administraciones públicas que lo soliciten, sin consentimiento previo de la persona afectada solamente cuando: • Sean necesarios para el ejercicio de sus competencias. • Para asuntos en los que la residencia o el domicilio sean datos relevantes.
ACCESO AL PADRÓN POR OTROS SERVICIOS DEL PROPIO AYUNTAMIENTO	Los distintos SERVICIOS MUNICIPALES **PODRÁN ACCEDER** a los datos padrón, sin consentimiento previo de la persona afectada, solamente cuando: • Sean necesarios para el ejercicio de sus competencias. • Para asuntos en los que la residencia o domicilio sean datos relevantes.
ACCESO AL PADRÓN POR TERCEROS QUE ACREDITEN INTERÉS LEGÍTIMO	El Ayuntamiento **PODRÁ COMUNICAR** los datos padronales que sean solicitados por sujetos de derecho privado cuando cuenten con el consentimiento de los afectados o afectadas o aprecie que concurre en las personas solicitantes un INTERÉS LEGÍTIMO que prevalezca sobre los derechos e intereses de los afectados o afectadas conforme a lo establecido en el artículo 6.1 f) del RGPD.

ALGUNOS <u>SUPUESTOS PROBLEMÁTICOS</u> A LOS QUE HABRÁ QUE PRESTAR ESPECIAL ATENCIÓN

- El **derecho de acceso a la información pública** y su **posible «colisión» con el derecho a la protección de datos personales.**
- La **publicidad y difusión de acuerdos**.
- La **cesión de información a miembros de la Corporación en su labor de control**.
- **Cesiones** de datos de trabajadores y trabajadoras **a representantes sindicales.**
- Utilización de sistemas de **videovigilancia** (art. 22 de la LOPDGDD, y 15 y ss. LO 7/2021).
- Tratamientos de datos en materia de **servicios sociales**.

ERROLDAKO DATUAK LAGATZEA	
ERROLDAKO DATUAK KONFIDENTZIALAK DIRA	Datu horietarako sarrera honakoek **ARAUTZEN** dute: • DBEOk eta DPBEDBLOk. • 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak (16.3. artikulua) eta hura garatzen duen araudiak.
BESTE ADMINISTRAZIOEI DATUAK LAGATZEA, AURRETIKO ADOSTASUNIK GABE **(TAOL, 16.3. art.)**	Eraginpeko pertsonaren aurretiko adostasunik gabe datuak **LAGAKO** zaizkie hala eskatzen duten beste administrazio publikoei, soilik kasu hauetan: • Beren eskumenak gauzatzeko beharrezkoak badira. • Egoitza edo helbidea datu garrantzitsuak diren gaietarako.
UDAL BEREKO BESTE ZERBITZU BATZUK ERROLDAN SARTZEA	Eraginpeko pertsonaren aurretiko adostasunik gabe erroldako datuetara **SARTU AHAL IZANGO DIRA** UDAL ZERBITZUAK, kasu hauetan: • Beren eskumenak gauzatzeko beharrezkoak badira. • Egoitza edo helbidea datu garrantzitsuak diren gaietarako.
INTERES LEGITIMOA EGIAZTATZEN DUTEN HIRUGARRENAK ERROLDAN SARTZEA	Zuzenbide pribatuko subjektuek eskatzen dizkieten datu pertsonalak **KOMUNIKATU AHALKO** ditu udalak, ukitutako pertsonen adostasuna duenean edo antzematen duenean eskatzaileen INTERÉS LEGÍTIMO bat dagoela, ukitutako pertsonen eskubide eta interesen gainean gailentzen dena, DBEOren 6.1.f) artikuluan ezarritakoaren arabera.

ARRETA BEREZIA ESKATZEN DUTEN <u>KASU PROBLEMATIKO</u> BATZUK

- **Informazio publikorako sarbidea izateko eskubidearen eta datu pertsonalak babesteko eskubidearen arteko balizko «talka»**.
- **Erabakien publizitatea eta hedapena**.
- **Beren kontrol-egitekoan diharduten korporazioko kideei informazioa lagatzea**.
- **Sindikatu-ordezkariei** langileen datuak **lagatzea**.
- **Bideozaintza**-sistemak erabiltzea (DPBEDBLOren 22. artikulua, eta 7/2021 LO, 15. artikulua eta hurrengoak).
- **Gizarte-zerbitzuen** arloko datuen tratamenduak.

GARANTIZA EL DERECHO A LA PROTECCIÓN DE DATOS EN EUSKADI	**Autoridad de control independiente** que vela porque las Administraciones e Instituciones públicas vascas respeten el derecho de las personas a la protección de sus datos personales.
DESARROLLA LAS ACTIVIDADES SIGUIENTES	La AVPD podrá ejercer las **funciones y potestades establecidas en los artículos 57 y 58 del RGPD**, de acuerdo con la normativa autonómica, y en particular: • **Informar** a las personas **acerca de sus derechos y ayudarles y tutelarles en el ejercicio** de los mismos. • **Investigar** aquellas actuaciones contrarias al RGPD, a la LOPDGDD y al resto de legislación en materia de protección de datos, y **resolver**, en su caso, sobre las infracciones producidas. • **Inspeccionar** actuaciones por sectores, **diagnosticar y proponer mejoras.** • Mantener una **lista actualizada de delegados de protección de datos** que será accesible por medios electrónicos. • Atender todo tipo de **consultas** y petición de **informes** que, en relación a la protección de datos, le sean solicitados por personas e instituciones. • **Difundir y extender las buenas prácticas** de la protección de datos, sensibilizando a los colectivos sociales y potenciando la formación y la adopción de mejores prácticas por parte de las personas al servicio de las instituciones públicas. • **Estudiar los riesgos** que las **nuevas tecnologías de la información y la comunicación** suponen para la protección de datos de carácter personal.
ES UN ÓRGANO DE CONTROL INDEPENDIENTE	• Ente de derecho público, con personalidad jurídica propia y plena capacidad pública y privada, que actúa con **plena independencia** de las administraciones públicas en el ejercicio de sus funciones. • Es una autoridad de control y el RGPD y la ley le garantizan la independencia y objetividad en el ejercicio de su actividad.

Guía Local - ISBN 978-84-7777-690-8

EUSKADIN DATUAK BABESTEKO ESKUBIDEA BERMATZEN DU	**Kontrol-agintaritza independentea**, euskal administrazio eta erakunde publikoek pertsonek datu pertsonalak babesteko duten eskubidea errespetatzeaz arduratzen dena.
JARDUERA HAUEK EGITEN DITU	Datuak Babesteko Euskal Bulegoak **DBEOren 57 eta 58. artikuluetan ezartzen diren eginkizunak eta ahalmenak** bete ahalko ditu, araudi autonomikoaren arabera, eta bereziki: • Pertsonei beren **eskubideak jakinaraztea eta eskubide horiek erabiltzen laguntzea eta babestea**. • DBEOren, DOBEDBLOren, eta datuak babesteari buruzko gainerako legediaren aurkako jarduketak **ikertzea** eta egondako arau-hausteak **ebaztea**, hala badagokio. • Jarduketak sektoreka **ikuskatzea, diagnostikatzea eta hobekuntzak proposatzea**. • **Datuak babesteko ordezkarien zerrenda eguneratuta** edukitzea, bitarteko elektronikoen bidez eskuratzeko moduan. • Pertsonek eta erakundeek datuak babesteari buruz eginiko **kontsulta**-mota guztiei eta **txosten**-eskaerei erantzutea. • Datuak babesteko **jardunbide egokiak zabaltzea eta hedatzea**, gizarte-kolektiboak sentsibilizatuz eta erakunde publikoen zerbitzura diharduten pertsonen prestakuntza eta pertsona horiek jardunbide hobeak hartzea sustatzea. • **Informazio- eta komunikazio-teknologia berriek** datu pertsonalak babesteko dakartzaten **arriskuak aztertzea**.
KONTROLEKO ORGANO ASKEA DA	• Zuzenbide publikoko erakundea, berezko nortasun juridikoa eta gaitasun publiko eta pribatu osoa dituena, administrazio publikoekiko **askatasun osoz** jarduten duena bere funtzioak gauzatzeko. • Kontroleko agintaritza da, eta DBEOk eta legeak askatasuna eta objektibotasuna bermatzen dizkiote bere jarduera gauzatzeko.

PERSONA AFECTADA O INTERESADA	**Persona física titular de los datos** que sean objeto de tratamiento.
DATOS PERSONALES	Toda información sobre una **persona física identificada o identificable** («el interesado»); se considerará PERSONA FÍSICA IDENTIFICABLE toda persona cuya identidad pueda determinarse, directa o indirectamente, en particular mediante un identificador, como por ejemplo un nombre, un número de identificación, datos de localización, un identificador en línea o uno o varios elementos propios de la identidad física, fisiológica, genética, psíquica, económica, cultural o social de dicha persona.
FICHERO	Todo **conjunto estructurado de datos** personales, accesibles con arreglo a criterios determinados, ya sea centralizado, descentralizado o repartido de forma funcional o geográfica.
TRATAMIENTO DE DATOS PERSONALES	Cualquier **operación o conjunto de operaciones** realizadas sobre datos personales o conjuntos de datos personales, ya sea por procedimientos automatizados o no, como la recogida, registro, organización, estructuración, conservación, adaptación o modificación, extracción, consulta, utilización, comunicación por transmisión, difusión o cualquier otra forma de habilitación de acceso, cotejo o interconexión, limitación, supresión o destrucción.
CATEGORÍAS ESPECIALES DE DATOS PERSONALES	Datos personales que revelen el **origen étnico** o **racial**, las **opiniones políticas**, las **convicciones religiosas o filosóficas**, o la **afiliación sindical**, los **datos genéticos**, **datos biométricos** dirigidos a identificar de manera unívoca a una persona física, datos relativos a la **salud**, y los datos relativos a la **vida sexual** o la **orientación sexual** de una persona física.
DATOS GENÉTICOS	Datos personales relativos a las **características genéticas** heredadas o adquiridas de una persona física que proporcionen una información única sobre la fisiología o la salud de esa persona, obtenidos en particular del análisis de una muestra biológica de tal persona.
DATOS RELATIVOS A LA SALUD	Datos personales relativos a la **salud física o mental** de una persona física, incluida la prestación de servicios de atención sanitaria, que revelen información sobre su estado de salud.
DATOS BIOMÉTRICOS	Datos personales obtenidos a partir de un tratamiento técnico específico, relativos a las características físicas, fisiológicas o conductuales de una persona física que permitan o confirmen la **identificación única** de dicha persona, como imágenes faciales o datos dactiloscópicos.
LIMITACIÓN DEL TRATAMIENTO	El **marcado** de los datos de carácter personal conservados **con el fin de limitar su tratamiento en el futuro**.
ELABORACIÓN DE PERFILES	Toda forma de **tratamiento automatizado** de datos personales consistente en utilizar datos personales **para evaluar determinados aspectos personales** de una persona física, en particular para analizar o predecir aspectos relativos al rendimiento profesional, situación económica, salud, preferencias personales, intereses, fiabilidad, comportamiento, ubicación o movimientos de dicha persona física.
SEUDONIMIZACIÓN	El **tratamiento** de datos personales de manera tal que **ya no puedan atribuirse a un interesado sin utilizar información adicional,** siempre que dicha información adicional figure por separado y esté sujeta a medidas técnicas y organizativas destinadas a garantizar que los datos personales no se atribuyan a una persona física identificada o identificable.
CONSENTIMIENTO DE LA PERSONA INTERESADA	Toda **manifestación de voluntad, libre, específica, informada, e inequívoca** por la que la persona interesada **acepta**, ya sea **mediante una declaración o una clara acción afirmativa**, el **tratamiento** de datos personales que le conciernen.
RESPONSABLE DEL TRATAMIENTO O RESPONSABLE	La persona física o jurídica, autoridad pública, servicio u otro organismo que, solo o junto con otros, **determine los fines y medios del tratamiento**; si el Derecho de la Unión o de los Estados miembros determina los fines y medios del tratamiento, el responsable del tratamiento o los criterios específicos para su nombramiento podrá establecerlos el Derecho de la Unión o de los Estados miembros.
ENCARGADO DEL TRATAMIENTO	La persona física o jurídica, autoridad pública, servicio u otro organismo que **trate datos personales por cuenta del responsable** del tratamiento.
DESTINATARIO	La persona física o jurídica, autoridad pública, servicio u otro organismo **al que se comuniquen datos personales**, se trate o no de un tercero. No se considerarán destinatarios las autoridades públicas que puedan recibir datos personales en el marco de una investigación concreta de conformidad con el derecho de la Unión Europea o de los Estados miembros.
TERCERO	Persona física o jurídica, autoridad pública, servicio u organismo distinto del interesado, del responsable del tratamiento, del encargado del tratamiento y de las personas autorizadas para tratar los datos personales bajo la autoridad directa del responsable o del encargado.
CESIÓN O COMUNICACIÓN	Tratamiento de datos que supone su **revelación a una persona distinta de la persona interesada**.
DATO DISOCIADO	**Dato que no permite la identificación** de un afectado o interesado.
PROCEDIMIENTO DE DISOCIACIÓN	Todo **tratamiento** de datos personales **que permita la obtención de datos disociados**.

UKITUA EDO INTERESDUNA	Tratatu beharreko **datuen titular den pertsona fisikoa**.
DATU PERTSONALAK	**Pertsona fisiko identifikatu edo identifikagarri** («interesdun») bati buruzko informazio guztia; PERTSONA FISIKO IDENTIFIKAGARRIA da zuzenean edo zeharka, eta batez ere identifikatzaile baten bitartez, identifika daitekeen pertsona oro; identifikatzaile hori izen bat izan daiteke, identifikazio-zenbaki bat, kokapen-datuak, online identifikatzaile bat edo pertsona horren nortasun fisikoari, fisiologikoari, genetikoari, psikikoari, ekonomikoari, kulturalari edo sozialari buruzko elementu bat edo gehiago.
FITXATEGIA	**Datu** pertsonalen **multzo egituratua**, irizpide zehatz batzuen arabera eskuratzeko modukoa; zentralizatuta egon daiteke, edo deszentralizatuta, edo modu funtzional nahiz geografiko batean banatuta.
DATU PERTSONALEN TRATAMENDUA	Datu pertsonalen gainean edo datu pertsonalen multzoen gainean egiten den edozein **eragiketa eta eragiketa-multzo**, prozedura automatizatuak erabilita zein erabili gabe: esaterako, datu-bilketa, erregistratzea, antolatzea, egituratzea, kontserbatzea, egokitzea edo aldatzea, ateratzea, kontsultatzea, erabiltzea, transmisioz lagatzea, hedatzea edo irispidean jartzeko beste edozein forma, datuak alderatzea edo interkonektatzea, mugatzea, ezereztea edo suntsitzea.
DATU PERTSONALEN KATEGORIA BEREZIAK	Pertsona fisiko baten **arraza edo jatorri etniko, iritzi politiko, pentsamolde erlijioso zein filosofiko edo sindikatu-bazkidetzari buruzko informazioa ematen duten datu pertsonalak**, bai eta **datu genetikoak** eta pertsona fisiko baten identifikazio esklusiboa egiteko erabiltzen diren **datu biometrikoak** ere, eta pertsona fisiko baten **osasunari** zein **bizitza sexualari edo sexu-orientazioari** buruzko datuak.
DATU GENETIKOAK	Pertsona fisiko batek heredatu edo eskuratu dituen **ezaugarri genetikoei** buruzko datu pertsonalak, pertsona horren fisiologia edo osasunaren gaineko informazio esklusiboa ematen dutenak, bereziki pertsona horren lagin biologiko baten analisitik ateratakoak.
OSASUNARI BURUZKO DATUAK	Pertsona fisiko baten **osasun fisikoari edo mentalari** buruzko datu pertsonalak, osasun-arretaren prestazioa barne, haren osasun-egoeraren gaineko informazioa jakinarazten dutenak.
DATU BIOMETRIKOAK	Tratamendu tekniko espezifiko baten bitartez lortutako datu pertsonalak, pertsona fisiko baten ezaugarri fisiko, fisiologiko edo portaerazkoei buruzkoak, eta pertsona horren **identifikazio esklusiboa** ahalbidetzen edo berresten dutenak; esate baterako, aurpegiaren irudiak edo datu daktiloskopikoak.
TRATAMENDUAREN MUGAK	Kontserbatutako datu pertsonalak **markatzea**, **gerora haien tratamendua mugatzeko.**
PROFILAK EGITEA	Datu pertsonalen **tratamendu automatizatu** oro, pertsona fisiko baten datu pertsonalak erabiliz haren **alderdi pertsonal batzuk ebaluatzea** bilatzen duena, batez ere pertsona fisiko horren errendimendu profesionala, egoera ekonomikoa, osasuna, lehentasun pertsonalak, interesak, fidagarritasuna, portaera, kokapena edo mugimenduak analizatzeko edo aurreikusteko.
SEUDONIMIZAZIOA	**Informazio osagarria erabili ezean datu pertsonalak interesdun jakin bati ezin egoztea** posible egiten duen datu pertsonalen **tratamendua**, betiere informazio osagarri hori bereiz kontserbatzen bada eta datu pertsonalak pertsona fisiko identifikatu edo identifikagarri bati ez zaizkiola egotziko bermatzen duten neurri tekniko eta antolakuntzakoak betetzen baditu.
INTERESDUNAREN ADOSTASUNA	**Interesdunaren borondate-adierazpen aske, zalantzarik gabe, zehatz eta arrazoitua**, **deklarazio edo egintza positibo argi** batez egina, interesduna ukitzen duten datu pertsonalen **tratamendua onartzeko** dena.
TRATAMENDUAREN ARDURADUNA	Bakarrik edo beste batzuekin batera, fitxategiaren helburuak eta bitartekoak erabakitzen dituen pertsona fisiko edo juridikoa, agintaritza publikoa, zerbitzua edo bestelako erakundea; Batasuneko edo estatu-kideetako zuzenbideak **erabakitzen baditu tratamenduaren helburuak eta bitartekoak**, Batasuneko edo estatu-kideetako zuzenbide horrek berak ezarri ahalko du nor izango den tratamenduaren arduraduna edo zein izango diren hura izendatzeko irizpide espezifikoak.
TRATAMENDU-ERAGILEA	Tratamenduaren **arduradunaren izenean, datu pertsonalak tratatzen** dituen pertsona fisiko edo juridikoa, agintaritza publikoa, zerbitzua edo bestelako erakundea.
HARTZAILEA	**Datu pertsonalak hartzen dituen** pertsona fisiko edo juridikoa, agintaritza publikoa, zerbitzua edo bestelako erakundea, hirugarrena izan edo ez. Ez dira hartzailetzat joko Europar Batasunaren edo estatu-kideen zuzenbidearen arabera ikerketa jakin baten esparruan datu pertsonalak jaso ditzaketen agintari publikoak.
HIRUGARRENA	Edozein pertsona fisiko edo juridiko, agintaritza publiko edo zerbitzu edo erakunde, baina ez ondorengo hauetako bat: interesduna, tratamenduaren arduraduna, tratamendu-eragilea edo tratamenduaren arduradunaren nahiz tratamendu-eragilearen agindupean datuak tratatzeko baimendutako pertsonak.
LAGATZEA EDO KOMUNIKATZEA	**Interesduna ez den pertsona bati datuen berri ematea**.
DATU DISOZIATUA	Ukitua edo interesduna **identifikatzeko aukerarik ematen ez duen datua.**
BEREIZTE-PROZEDURA	**Datu disoziatuak lortzeko** aukera ematen duen datu pertsonalen edozein **tratamendu**.

X.

TOKIKO ZERBITZU PUBLIKOEN KUDEAKETA

GESTIÓN DE SERVICIOS PÚBLICOS LOCALES

X.

Gestión de servicios públicos locales

1. Servicio público, iniciativa local y actividades reservadas.
2. Principios de la gestión de servicios públicos locales.
3. Regulación general.
4. Servicios mínimos obligatorios.
5. Coste efectivo del servicio.
6. Formas de gestión de los servicios públicos locales.

X.

Tokiko zerbitzu publikoen kudeaketa

1. Zerbitzu publikoa, tokiko ekimena eta jarduera erreserbatuak.
2. Tokiko zerbitzu publikoen kudeaketaren printzipioak.
3. Araubide orokorra.
4. Nahitaezko gutxieneko zerbitzuak.
5. Zerbitzuaren egiazko kostua.
6. Tokiko zerbitzu publikoak kudeatzeko moduak.

SON SERVICIOS PÚBLICOS LOCALES → Los servicios que prestan **las entidades locales** en el **ámbito de sus competencias**

SERVICIO PÚBLICO LOCAL

- **ACTIVIDAD PRESTACIONAL**
- de **COMPETENCIA LOCAL**
- **ASUMIDA COMO PROPIA** (de su titularidad) por la entidad local, que ordena la actividad y decide la forma de gestión del servicio público de que se trate
- con **SUJECIÓN AL DERECHO ADMINISTRATIVO**
- Desarrollado conforme a los principios de **IGUALDAD, ACCESIBILIDAD, REGULARIDAD, ASEQUIBILIDAD, PROGRESO, ESTABILIDAD PRESUPUESTARIA Y SOSTENIBILIDAD FINANCIERA**

INICIATIVA LOCAL EN EL EJERCICIO DE ACTIVIDADES ECONÓMICAS (artículo 96 LILE)

- El **artículo 96 LILE** reitera casi literalmente lo establecido en el artículo **86 LRBRL**, afirmando la **posibilidad de las entidades locales de ejercer la iniciativa pública para el desarrollo de actividades económicas**:
  a) Siempre que se **garantice** el cumplimiento del objetivo de **estabilidad presupuestaria y de sostenibilidad financiera**.
  b) **En régimen de concurrencia pública:** mediante acuerdo, con la mayoría exigida en cada caso.
  c) En régimen de monopolio: respecto de actividades o servicios esenciales reservados en su favor por ley estatal, acreditando la conveniencia y oportunidad de la medida; y mediante acuerdo del pleno de la corporación, adoptado con la mayoría exigida en cada caso, y posterior aprobación por el órgano competente de la Comunidad Autónoma (si transcurrido un plazo de tres meses desde la recepción de la solicitud no se adoptase éste, se entenderá que la entidad puede ejercer la actividad o servicio en régimen de monopolio).
- El artículo **96.5 LILE** contiene una novedad importante: la **posibilidad de obligatoriedad de recepción y uso de los servicios públicos locales,** declarada mediante ordenanza, para los ciudadanos y ciudadanas, cuando lo requiera la seguridad, salubridad o circunstancias de interés general.

SERVICIOS Y ACTIVIDADES CUYA PRESTACIÓN ESTÁ RESERVADA PARA LAS ENTIDADES LOCALES	
• Abastecimiento domiciliario y depuración de aguas. • Recogida, tratamiento y aprovechamiento de residuos. • Transporte público de viajeros.	De conformidad con lo previsto en la legislación sectorial aplicable.

Legislación:
LILE, arts. 93 y siguientes
Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público
Reglamento de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas
LRBRL, arts. 85 y siguientes
Texto Refundido de Régimen Local Capítulo II del Título VI
Reglamento de Servicios de las Corporaciones Locales

TOKIKO ZERBITZU PUBLIKOAK DIRA → **Tokiko erakundeek beren eskumen eremuan** ematen dituzten zerbitzuak

TOKIKO ZERBITZU PUBLIKOA

- **PRESTAZIO-JARDUERA**
- **TOKIKO ESKUMENEKOA**
- Toki-erakundeak **BERE TITULARTASUNTZAT JOTZEN DU**: berak antolatzen du jarduera eta berak erabakitzen du zerbitzu publikoa nola kudeatu.
- **ADMINISTRAZIO-ZUZENBIDEAREN ARABERA**
- Printzipio hauek aintzat hartuta garatzen da: **BERDINTASUNA, IRISGARRITASUNA, ERREGULARTASUNA, ESKURAGARRITASUNA, AURRERAPENA, AURREKONTU-EGONKORTASUNA ETA FINANTZA-JASANGARRITASUNA**

TOKIKO EKIMENA JARDUERA EKONOMIKOAK GAUZATZERAKOAN (ETELen 96. artikulua)

- **ETELen 96. artikuluak** ia hitzez hitz errepikatzen du **TAOLen 86. artikuluak** diona, hau ezartzen baitu: **toki-erakundeak ekimen publikoaz baliatu ahal izango dira jarduera ekonomikoak garatzeko**:
  a) Betiere **aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-jasangarritasunaren** helburua betetzen dela **bermatzen** bada.
  b) **Lehia publikoko araubidean**: kasu bakoitzean ezarritako gehiengoarekin onartutako erabakia behar da.
  c) Monopolio-araubidean: Estatuko lege batek toki-erakundeentzat erreserbatutako jarduerak direnean, neurria komenigarria eta egokia dela egiaztatuta; korporazioaren osoko bilkurak horretarako erabakia onartuta kasu bakoitzean behar den gehiengoarekin, eta, ondoren, Euskal Autonomia Erkidegoko organo eskudunak ere onartuta (eskaera aurkezten denetik hiru hilabete igaro badira eta organo horrek erabakirik hartu ez badu, toki-erakundeak jarduera edo zerbitzua monopolio-araubidean eman dezakeela ulertuko da).
- Berrikuntza garrantzitsu bat dakar **ETELen 96.5** artikuluak: **tokiko zerbitzu publikoak jaso eta erabiltzea herritarrentzat nahitaezkotzat jotzeko aukera**, ordenantza bidez iragarria herritarrentzat, segurtasunak, osasungarritasunak edo interes orokorreko bestelako inguruabarrek hala eskatzen dutenean.

TOKI-ERAKUNDEEK EMATEKO ERRESERBATUTAKO ZERBITZUAK ETA JARDUERAK	
• Etxeetako hornidura eta ur-arazketa. • Hondakinen bilketa, tratamendua eta aprobetxamendua. • Bidaiarien garraio publikoa.	Aplikatu beharreko lege sektorialetan aurreikusitakoa betez

Legeria:
Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legea (ETEL), 93. art. eta hurrengoak
9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena
Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendua
TAOL, 85. art. eta hurrengoak
Toki Araubidearen Testu Bateginaren VI. Tituluko II. Kapitulua
Toki-Korporazioen Zerbitzuen Erregelamendua

PRINCIPIOS DEL MODELO DE GESTIÓN DE SERVICIOS PÚBLICOS LOCALES EN LA LILE	
CALIDAD DE SERVICIOS PÚBLICOS LOCALES **(Artículo 1.2 LILE)**	• Las **competencias municipales** deben asegurar unos **servicios de calidad a la ciudadanía.**
GARANTÍA Y PRESTACIÓN DE LAS COMPETENCIAS MUNICIPALES PROPIAS **(Artículo 19 LILE)**	• **Reconocimiento de las competencias propias de los municipios**, con la titularidad de las funciones o potestades que conllevan, sobre los ámbitos materiales previamente acotados por la propia LILE, la legislación sectorial autonómica o el poder normativo foral. • Sistema de **garantía de las competencias propias** locales (ver ficha 3.3.3). • **Opción preferente por la prestación del servicio por el municipio titular** de la competencia de que se trate, por sí mismo o, subsidiariamente (por falta de capacidad de gestión o economías de escala) mediante las fórmulas asociativas que éste considere más adecuadas.
CRITERIOS DE PREFERENCIA EN LA PRESTACIÓN DE SERVICIOS PÚBLICOS **(Artículos 2.2, 3 y 4, así como 19.3 LILE)**	• Partiendo de la legitimidad democrática que concurre en el municipio y de la Carta Europea de Autonomía Local, la LILE establece un **orden de preferencia para la prestación de los servicios públicos municipales**: 1. Preferencia de prestación de servicios públicos por el municipio titular de la competencia. 2. En los supuestos en que esa prestación de servicios por el propio titular de la competencia no sea viable o se den razones de eficacia o eficiencia que lo exijan, el servicio podrá prestarse por otras entidades locales intermunicipales (o consorcios, que no tienen tal condición) u otras entidades asociativas que: — Se constituyan por los propios municipios y entidades titulares de la competencia de que se trate, — Estén previstas en la legislación vigente, y — Faciliten la realización de obras y la gestión o prestación de servicios derivados de aquellas competencias, en los términos que los propios municipios afectados determinen. 3. En defecto de las opciones señaladas en los números anteriores, gestión por demarcaciones territoriales determinadas por los órganos forales (por ejemplo, comarcas o cuadrillas). 4. Prestación integrada por Diputaciones Forales (supuesto absolutamente excepcional y circunscrito a la prestación de determinados servicios mínimos obligatorios). • En todo caso, **la LILE establece la obligación de que** los **órganos forales competentes**, en los términos establecidos en la legislación básica de régimen local y en la propia normativa foral, **asistan técnicamente a los municipios** de su respectivo territorio histórico para garantizar la efectividad plena de las competencias atribuidas y, especialmente, la prestación de los servicios mínimos obligatorios (artículo 19.4 LILE).
SERVICIOS PÚBLICOS MUNICIPALES Y PRINCIPIO DE AUTOORGANIZACIÓN **(Artículo 10.3 LILE)**	• La **regulación de la potestad de autoorganización** que lleva a cabo el artículo 10 de la LILE —inspirado directamente en el artículo 10.1 de la Carta Europea de Autonomía Local— centra su foco de **atención, también, sobre la realización de obras o la prestación de los servicios públicos**. • La potestad de autoorganización municipal se proyecta, **también, sobre la realización de obras o la prestación de servicios públicos a través de fórmulas asociativas** y, en particular, por medio de **mancomunidades y consorcios**.

TOKIKO ZERBITZU PUBLIKOAK KUDEATZEKO EREDUAREN PRINTZIPIOAK ETELen	
TOKIKO ZERBITZU PUBLIKOEN KALITATEA **(ETEL, 1.2 artikulua)**	• **Udal-eskumenek** herritarrei **kalitatezko zerbitzuak** ematea bermatu behar dute.
UDAL-ESKUMEN PROPIOAK BERMATZEA ETA GAUZATZEA **(ETEL, 19. artikulua)**	• **Udalei eskumen propioak aitortzen zaizkie**, eskumen horiei dagozkien funtzio eta ahalen titulartasunarekin, ETELek berak, arloko legeria autonomikoak edo foru-arauek aldez aurretik mugarritutako esparru materialetan. • Tokiko **eskumen propioak bermatzeko sistema** (ikus 3.3.3. fitxa). • **Ahal dela, eskumenari dagokion zerbitzua udal titularrak emango du**, dela udalak berak zuzenean edo dela udalak modu subsidiarioan (kudeatzeko gaitasunik edo eskalako ekonomiarik faltagatik), elkartzeko egoki iritzitako formula baten bidez.
LEHENTASUN-IRIZPIDEAK ZERBITZU PUBLIKOAK EMATEKO **(ETEL, 2.2, 3 eta 4, eta 19.3 artikuluak)**	• Udalak duen legitimitate demokratikotik eta Tokiko Autonomiaren Europako Gutunetik abiatuta, **lehentasun-ordena** ezartzen du ETELek **udal-zerbitzu publikoak emateko**: 1. Ahal dela, eskumenaren titular den udalak emango ditu zerbitzu publikoak. 2. Zerbitzu horiek titularrak berak ematea bideragarria ez bada, edo efizientzia edo eraginkortasunagatik bestelakorik komeni bada, udalarteko beste toki-erakunde batzuek eman ahal izango dute zerbitzua (edo partzuergoek, izaera hori ez badute ere) edo beste era bateko erakunde-elkarteek, baldin eta elkarte horiek: — Eskumenaren titularrak diren udalek eta erakundeek eratuak baldin badira. — Indarrean dagoen legerian aurreikusita badaude. — Eta eskumen horren ondoriozko obrak egitea edo zerbitzuak ematea errazten badute, eragindako udalek berek erabakitzen dutenaren arabera. 3. Aurreko zenbakietan azaldutako aukerarik egon ezean, foru-organoek erabakitako lurralde-mugapeek kudeatuko dute eskumena (adibidez, eskualdeek edo kuadrillek). 4. Foru-aldundien prestazio integratua (erabateko salbuespena, nahitaezko gutxieneko zerbitzu jakin batzuk ematera mugatua). • Dena dela, **ETELek ezartzen du**, toki-araubidearen oinarrizko legeriak eta foru-arauek ezarritakoarekin bat etorrita, **foru-organo eskudunek laguntza teknikoa emango dietela** bakoitzak bere lurralde historikoko **udalerriei**, esleitu zaizkien eskumenak benetan gauzatzen direla eta, batez ere, nahitaezko gutxieneko zerbitzuak ematen direla bermatzeko (ETELen 19.4 artikulua).
UDAL-ZERBITZU PUBLIKOAK ETA AUTOANTOLAKETA-PRINTZIPIOA **(ETEL, 10.3 artikulua)**	• **Autoantolaketarako ahala** ETELen 10. artikuluak arautzen du —Tokiko Autonomiaren Europako Gutunaren 10.1 artikuluan inspiratuta zuzenean— eta **obrak egitean eta zerbitzu publikoen prestazioan ere jartzen du arreta**. • Udalen autoantolaketarako ahala **elkarte gisako formuletara ere zabaltzen da obrak egiteko edo zerbitzu publikoak emateko**, zehazki, **mankomunitateen eta partzuergoen bidez.**

<table>
<tr><td colspan="2">CONCEPTO</td><td>

La prestación de servicios públicos locales deriva de las competencias atribuidas por la legislación sectorial; aunque la LRBRL establece una serie de ámbitos en los que se deben desplegar servicios obligatorios, como un mínimo de prestación general garantizado a favor de la comunidad vecinal.
Así, mientras las competencias son ámbitos de ejercicio facultativo u opcional, los servicios dependen, en su prestación, de lo que establezca la LRBRL y la legislación sectorial, que determinan concretamente cuáles se deben prestar y, por tanto, otorga un derecho subjetivo a la ciudadanía para demandar su prestación.
La LILE diferencia sistemáticamente competencias, por un lado, y gestión y prestación de servicios, por otro.

</td></tr>
<tr><td colspan="2">RÉGIMEN JURÍDICO GENERAL DE LA PRESTACIÓN DE LOS SERVICIOS PÚBLICOS
(Artículo 93 LILE)</td><td>

El régimen jurídico y las formas de gestión de los servicios públicos locales se determinarán por las respectivas entidades locales, en concreción del principio de autonomía local y de sus manifestaciones de potestad normativa y de autoorganización.
Sistema de fuentes.
Legislación básica;

LILE (o Ley del Parlamento Vasco);
Normas Forales, en su caso; y
Potestad normativa y de autoorganización local.

Preferencias y prioridades respecto de la gestión de servicios públicos (ver ficha 10.2).
Las entidades locales aprobarán la Reglamentación del servicio, con anterioridad a su prestación.

</td></tr>
<tr><td colspan="2">DIRECTRICES DEL MARCO BÁSICO TRAS LA RECIENTE JURISPRUDENCIA CONSTITUCIONAL
(SSTC 41/2016 y 111/2016)</td><td>

LRBRL: fundamentalmente, artículos 26, 31-36, 42, 43, 44, 57, 85, 85 bis, 85 ter, 86, 116 bis, 116 ter, disposiciones adicionales 2.ª, 9.ª y 12.ª.
Contenidos de la LRSAL que no han sido incorporados en la LRBRL: DA 1ª.2 (Régimen aplicable a la Comunidad Autónoma del País Vasco); DA 6ª (Comarcas); DA 9.ª (Convenios sobre el ejercicio de competencias y servicios municipales); DA 13.ª (Consorcios constituidos para la prestación de servicios mínimos); DA 14.ª (Régimen jurídico especial de determinados consorcios), así como lo establecido en alguna Disposición transitoria, por ejemplo, la DT11, relativa a mancomunidades de municipios.
Sentencias del Tribunal Constitucional 41/2016 y 111/2016 que modifican la redacción inicial de la LRSAL en algunos puntos, y advierten, en algunos otros, cómo ha de interpretarse este texto legal para ser considerado conforme con la Constitución de 1978. Ver, asimismo, SSTC 168/2016 (Comarcas), 180/2016 (Consorcios), 107/2017 (concepto y alcance de las «actividades complementarias»).
Texto Refundido de Disposiciones Legales Vigentes en materia de régimen local (Real Decreto legislativo 781/1986, de 18 de abril): previsiones del capítulo II del título V, relativas a actividades y servicios, artículos 88 a 110 (salvo artículos 89, 95.2 y 110, que están derogados).
Disposición derogatoria de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de régimen jurídico del sector público, que deroga expresamente los artículos 87 LRBRL, 110 TRRL y 37 a 40 Reglamento de Servicios de las Corporaciones Locales (relativos a consorcios).
Contenido básico de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de régimen jurídico del sector público: artículo 2 (ámbito subjetivo, incluye al sector público institucional local); capítulo VI del título preliminar (nuevo régimen jurídico de los convenios: artículos 47 a 53); capítulo I del título II (principios del sector público institucional); artículo 81 (principios generales de actuación); artículo 82 (Inventario del Sector Público Institucional); capítulo VI del título II (Consorcios), salvo lo establecido en el artículo 123.2; artículos 129 y 134, del capítulo VII del mismo título II (Fundaciones); el título III (relaciones interadministrativas); y, en entre otras, la Disposición Adicional Octava (adaptación de convenios y plazo de inscripción en el Inventario de entidades del sector público local actualmente existentes); así como la DA 10.ª (Consorcios).

</td></tr>
<tr><td rowspan="3">LA GESTIÓN DE SERVICIOS PÚBLICOS MUNICIPALES EN LA LILE</td><td>TRATAMIENTO TRANSVERSAL</td><td>

La gestión de servicios públicos está regulada en el título VIII de la LILE, pero no solo ahí, sino también a lo largo de todo el texto normativo. El tratamiento de la gestión de servicios públicos en la LILE tiene naturaleza transversal. Se recoge asimismo en el título I y el título II LILE.
El título VIII concentra la regulación más sustantiva en esta materia, y conecta claramente con:

→ Los principios de la Ley y con las competencias municipales.
→ Cuestiones relativas a la calidad de los servicios: promoción de la calidad de los servicios (artículo 46), regulación de las Cartas de Servicio (artículo 45), obligaciones específicas de transparencia (publicidad activa) en esta materia (artículo 54).
→ Planes económico-financieros y la hipotética afectación de estos a la cartera de servicios: art. 116.3.

</td></tr>
<tr><td>DISTINCIÓN ENTRE SERVICIO Y COMPETENCIA</td><td>

La LILE diferencia y regula en momentos distintos competencia y servicio público local (diferencia con la legislación básica): regula competencias municipales en título III y gestión de los servicios públicos locales en título VIII. La STC 41/2016 considera a los servicios como «competencias». Es más precisa, en este punto, la regulación de la LILE.
La regulación de la LILE, en materia de fórmulas de gestión para la prestación de servicios públicos locales (asociación con otras entidades locales), se alinea y conecta directamente con los principios recogidos, en esta materia, en la Carta Europea de Autonomía Local (en particular, con su artículo 10.1).

</td></tr>
<tr><td>LÍNEAS FUERZA DE LA LEY</td><td>
Se recogen en la exposición de motivos de la Ley y se visualizan después en el articulado:

Sistema propio de gestión de servicios públicos locales (especialmente los de carácter obligatorio), atendiendo a las singularidades institucionales vascas y al carácter también particular de las Diputaciones Forales.
La LILE se inclina claramente por fomentar una gestión compartida de las competencias municipales, cuando estas no puedan ser ejercidas directamente por los municipios.
Contenido general del título VIII de la LILE: regulación general de la gestión de servicios públicos locales y la regulación de lo relativo a entidades intermedias, aglutinando formas de gestión con la regulación del sector público institucional local y con fórmulas de gestión de carácter asociativo (mancomunidades, consorcios, redes de cooperación municipal; o instrumentos de gestión de servicios locales a través de convenios).
Preferencia de la gestión compartida frente a la gestión integrada, por Diputaciones Forales, de los servicios públicos locales, cuya intervención es excepcional y tasada o con una subsidiariedad de segundo grado.

</td></tr>
</table>

KONTZEPTUA		• **Tokiko zerbitzu publikoak ematea legislazio sektorialak esleitutako eskumenetik dator**; dena den, **TAOLek** zenbait arlo ezartzen ditu, non nahitaezko zerbitzuak zabaldu behar diren, auzo-komunitateari bermatu behar zaion gutxieneko prestazio orokor gisa. • Hala, bada, **eskumenak aukera gauzatu daitezkeen eremuak dira**, baina **zerbitzuak, ordea, TAOLek eta lege sektorialek ezarritakoaren baitan daude,** haietan ezartzen baita zehazki zein eman behar diren, eta, horrenbestez, zerbitzuok beraiei emateko eskatzeko eskubide subjektibo bat ematen die herritarrei. • Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legeak (ETEL) sistematikoki bereizten ditu, alde batetik, eskumenak, eta, beste batetik, zerbitzuak kudeatzea eta ematea.
ZERBITZU PUBLIKOAK EMATEKO ARAUBIDE JURIDIKO OROKORRA **(ETEL, 93. artikulua)**		• **Tokiko zerbitzu publikoen araubide juridikoa eta kudeaketa-erak toki-erakundeak berak ezarriko ditu**, toki-autonomiaren printzipioa gauzatuz eta araugintzarako eta autoantolaketarako ahalak baliatuz. • **Iturrien sistema:** • Oinarrizko Legeria; 1. ETEL (edo Eusko Legebiltzarrak emandako legea); 2. Foru-arauak, horrelakorik dagoenean; eta 3. Tokiko araugintzarako eta autoantolaketarako ahala. • **Zerbitzu publikoak kudeatzeko lehentasunak eta lehenespenak (*ikus 10.2 fitxa*).** • Zerbitzua ematen hasi aurretik, **zerbitzuaren gaineko araudia onartu beharko dute toki-erakundeek**.
OINARRIZKO ESPARRUAREN JARRAIBIDEAK, KONSTITUZIO AUZITEGIAK ORAINTSU EMANDAKO JURISPRUDENTZIA KONTUAN HARTUTA **(Konstituzio Auzitegiaren 41/2016 eta 111/2016 epaiak)**		• **TAOL: batez ere, 26, 31-36, 42, 43, 44, 57, 85, 85 bis, 85 ter, 86, 116 bis, 116. ter artikuluak eta 2, 9 eta 12. xedapen gehigarriak.** • **Toki-Administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasunari buruzko Legearen (TAAIL) edukiak, Toki-Araubideen Oinarriak arautzen dituen Legean (TAOL) jaso gabeak:** 1.2 Xedapen Gehigarria (Euskal Autonomia Erkidegoan aplikatu beharreko araubidea); 6. Xedapen Gehigarria (Eskualdeak); 9. Xedapen Gehigarria (Udal-zerbitzuen eta -eskumenen erabilerari buruzko hitzarmenak); 13. Xedapen Gehigarria (Gutxieneko zerbitzuak eskaintzeko helburuarekin sortutako partzuergoak); 14. Xedapen Gehigarria (Partzuergo jakin batzuen araubide juridiko berezia), eta xedapen iragankorren batean ezarritakoa, esate baterako 11.ean, udalerrien mankomunitateari buruzkoan. • **Konstituzio Auzitegiaren 41/2016 eta 111/2016 epaiak: TAAILen** hasierako erredakzioa aldatu dute puntu batzuetan, eta, beste batzuetan, lege-testua nola interpretatu behar den azaltzen dute, 1978ko Konstituzioaren araberakoa izateko. Ikus, halaber, Konstituzio Auzitegiaren 168/2016 epaia (Eskualdeak) eta 180/2016 epaia (Partzuergoak),**107/2017** (**«jarduera osagarriak»: kontzeptua eta irismena**). • **Toki Araubidearen arloan indarrean dauden legezko xedapenen Testu Bategina** (781/1986 Legegintzako Errege Dekretua, apirilaren 18koa): V. Tituluaren II. Kapituluko aurreikuspenak, jarduerei eta zerbitzuei buruzkoak, 88-110 artikuluak (89, 95.2 eta 110. artikuluak izan ezik, horiek indargabetuta baitaude). • **Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen xedapen indargabetzaileak** berariaz indargabetzen ditu hauek guztiak: TAOLen 87. artikulua, TATBen 110.a eta Toki Korporazioen Zerbitzu Erregelamenduaren 37-40 artikuluak. • **Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen oinarrizko edukia**: 2. artikulua (eremu subjektiboa, tokiko sektore publiko instituzionala barne); Atariko Tituluko VI. Kapitulua (hitzarmenen araubide berria: 47-53 artikuluak); II. Tituluko I. Kapitulua (sektore publiko instituzionalaren printzipioak); 81. artikulua (jarduteko printzipio orokorrak); 82. artikulua (Sektore Publiko Instituzionalaren Inbentarioa); II. Tituluko VI. Kapitulua (Partzuergoak), 123.2 artikuluan ezarritakoa izan ezik; II. Titulu bereko VIII. Kapituluko (Fundazioak) 129 eta 134. artikuluak; III. Titulua (administrazioen arteko harremanak); eta, besteak beste, Zortzigarren Xedapen Gehigarria (hitzarmenak egokitzea eta tokiko sektore publikoko entitateak Inbentarioan inskribatzeko epea); eta 10. Xedapen Gehigarria (Partzuergoak).
UDAL ZERBITZU PUBLIKOEN KUDEAKETA ETEL-EN	**ZEHARKAKO TRATAMENDUA**	• Zerbitzu publikoen kudeaketa **ETELen VIII. Tituluan** arautzen da, baina, horrez gain, baita **lege-testu osoa**n zehar ere. Zerbitzu publikoen kudeaketari zeharkako tratamendua ematen dio ETELek. ETELen I. eta II. tituluetan ere jasotzen da. • VIII. Tituluan gai horri buruzko araudirik substantiboena pilatzen da, argiro lotuta dagoena ondorengo hauekin: → **Legearen printzipioekin** eta udal-**eskumenekin**. → **Zerbitzuen kalitateari buruzko gaiak:** zerbitzuen kalitatea bultzatzea (46. artikulua); zerbitzu-karten erregulazioa (45. artikulua); gardentasunari buruzko betebeharrak arlo honetan (publizitate aktiboa) (54. artikulua). → **Plan ekonomiko-finantzarioak** eta **zerbitzu-zorroan** izan lezaketen eragina: 116.3 artikulua.
	ZERBITZUAREN ETA ESKUMENAREN ARTEKO BEREIZKETA	• ETELek bi leku desberdinetan **bereizten eta arautzen ditu** eskumena eta tokiko zerbitzu publikoa (oinarrizko legerian ez bezala): udal-eskumenak III. Tituluan arautzen ditu, eta tokiko zerbitzu publikoen kudeaketa VIII. Tituluan. Konstituzio Auzitegiaren 41/2016 epaiak «eskumentzat» hartzen ditu zerbitzuak. Alde horretatik, zehatzagoa da ETEL. • Zerbitzu publikoen kudeaketaren arloan ETELek ezartzen duen erregulazioa zuzen-zuzenean lerrokatzen eta konektatzen da Tokiko Autonomiaren Europako Gutunean gai horri buruz jasotako printzipioekin (batez ere, Gutunaren 10.1 artikuluarekin).
	LEGEAREN INDAR-LERROAK	Legearen **zioen azalpenean** jasotzen dira, eta gero **artikuluetan** zehar azaltzen dira: • **Tokiko zerbitzu publikoak kudeatzeko sistema propioa (batez ere nahitaezko zerbitzuak** direnean), EAEko erakundeen berezitasunak eta foru-aldundien izaera berezia kontuan izanda. • ETELek argi eta garbi egiten du **udal-eskumenak modu partekatuan kudeatzearen alde, udalek banaka eskumen horiek egikaritu ezin dituztenean**. • **ETELen VIII. Tituluaren eduki orokorra:** tokiko zerbitzu publikoen kudeaketaren erregulazio orokorra eta bitarteko erakundeei dagokien erregulazioa, **kudeatzeko moduak bilduz tokiko sektore publiko instituzionalaren erregulazioarekin eta elkarte-izaerako kudeaketa-formulekin** (mankomunitateak, partzuergoak, sareak; edo tokiko zerbitzuak hitzarmenen bidez kudeatzeko tresnak). • Tokiko zerbitzu publikoen **kudeaketa partekatua lehenesten da foru-aldundien kudeaketa integratuaren aldean**, haien esku-hartzea salbuespenezkoa eta tasatua da, edo bigarren mailako subsidiaritasuna dauka.

<table>
<tr><td>DEFINICIÓN</td><td colspan="3">

Los servicios mínimos que deben prestar los municipios según el umbral de población se definen en el artículo 26 de la LRBRL, que ha sido redefinido parcialmente en su apartado 1 y totalmente en su apartado 2 por la LRSAL.
Los servicios mínimos obligatorios según umbral de población están plenamente superados por los municipios vascos.
Los servicios mínimos obligatorios reconocen un derecho subjetivo de los vecinos o las vecinas, que se explicita también, por ejemplo, en algunas leyes sectoriales vascas (Ley de Servicios Sociales o Ley de Vivienda).
La noción de servicios mínimos no es identificable conceptualmente a competencias, aunque se vincule con ellas, pues solo evoca las obligaciones básicas que deben prestar los municipios en función de su población a la ciudadanía. En puridad, reconocen derechos de prestación a los ciudadanos frente al municipio, que este debe obligatoriamente proveer.
Los servicios mínimos forman parte de la «cartera de servicios municipales», pero esta última noción es mucho más amplia, puesto que incluye todos los servicios que presta el municipio a la ciudadanía en virtud de sus competencias propias, delegadas o complementarias, así como los derivados de subvenciones y convenios con otras instituciones.
La obligatoriedad de los servicios mínimos está conectada con determinados umbrales de población del municipio, pero tiene carácter acumulativo. Los municipios de mayor población prestan «además» los servicios obligatorios asignados a los de menor número de población.

</td></tr>
<tr><td rowspan="5">SERVICIOS MÍNIMOS MUNICIPALES EN FUNCIÓN DEL UMBRAL DE POBLACIÓN</td><td rowspan="4">LRBRL</td><td>SERVICIOS OBLIGATORIOS
PARA TODOS LOS MUNICIPIOS</td><td>• Alumbrado público.
• Cementerio.
• Recogida de residuos.
• Limpieza viaria.
• Abastecimiento domiciliario de agua potable.
• Alcantarillado.
• Accesos a los núcleos de población.
• Pavimentación de las vías públicas.</td></tr>
<tr><td>SERVICIOS OBLIGATORIOS
PARA MUNICIPIOS
DE MÁS DE 5.000 HABITANTES</td><td>• Todos los anteriores.
• Parque público.
• Biblioteca pública.
• Tratamientos de residuos.</td></tr>
<tr><td>SERVICIOS OBLIGATORIOS
PARA MUNICIPIOS
DE MÁS DE 20.000 HABITANTES</td><td>• Todos los anteriores.
• Protección civil.
• Evaluación e información de situaciones de necesidad social y la atención inmediata a personas en situación de riesgo o exclusión social.
• Prevención y extinción de incendios.
• Instalaciones deportivas de uso público.</td></tr>
<tr><td>SERVICIOS OBLIGATORIOS
PARA MUNICIPIOS
DE MÁS DE 50.000 HABITANTES</td><td>• Todos los anteriores.
• Transporte colectivo urbano de viajeros.
• Medio ambiente urbano.</td></tr>
<tr><td>LEGISLACIÓN SECTORIAL</td><td colspan="2">• La legislación sectorial puede prever obligatoriedad de servicios para los municipios en función de su población, en modo más exigente que lo que establece la LRBRL (ver, por ejemplo, ficha 22.2, relativa a servicios sociales).
• Por tanto, para un municipio dado, serán obligatorios —en función de su número de habitantes— tanto los servicios que establezca la LRBRL como aquellos que establezca la legislación sectorial estatal o autonómica.</td></tr>
<tr><td>ORDEN DE PREFERENCIAS PARA LA GESTIÓN DE SERVICIOS MÍNIMOS OBLIGATORIOS EN MUNICIPIOS DE MENOS DE 20.000 HABITANTES</td><td colspan="3">
1. La LILE establece la preferencia de la gestión, por el municipio titular de la competencia, para todos los servicios municipales.
2. Cuando la gestión del servicio no pueda llevarse a cabo por el municipio o se considere más adecuado a la eficacia o eficiencia del servicio, la LILE se inclina claramente por fomentar una gestión compartida de las competencias municipales, y ello, de acuerdo al siguiente orden de preferencia:
2.1. Prestación mediante fórmulas asociativas (con creación de entidades intermedias como mancomunidades o consorcios, o sin creación de entidad alguna).
2.2. Gestión por demarcaciones territoriales determinadas por los órganos forales (comarcas, cuadrillas…).
3. Prestación integrada (absolutamente excepcional) por Diputaciones Forales (función de coordinación):
3.1. Motivando la propuesta de integración de acuerdo con las Sentencias del Tribunal Constitucional relativas a la LRSAL. Se requiere la previa conformidad del municipio afectado por la coordinación.
3.2. Con repercusión de los costes a los municipios integrados.
3.3. Los municipios, como responsables directos de la prestación de los servicios mínimos obligatorios, podrán acordar libremente la forma más adecuada de prestación de los mismos. Y entre ellas caben:
a) Prestación directa por el municipio.
b) Fórmulas de gestión compartida.
c) Otras fórmulas: Gestión integrada (coordinada) por la Diputación Foral, previa conformidad del municipio afectado.
d) Si el municipio justifica un menor coste efectivo en la prestación, puede recuperar el ejercicio de la competencia (servicio).
3.4. Circunscrita únicamente a la prestación de los siguientes servicios mínimos obligatorios:
— Recogida y tratamiento de residuos.
— Abastecimiento de agua potable a domicilio y evacuación y tratamiento de aguas residuales.
— Limpieza viaria.
— Acceso a los núcleos de población.
— Pavimentación de las vías urbanas.
— Alumbrado público.
</td></tr>
</table>

Legislación: LILE, arts. 93 y 97
LRBRL, arts. 26.2 y 116.2

<table>
<tr><td>DEFINIZIOA</td><td colspan="3">

Udalerriek eman beharreko gutxieneko zerbitzuak, biztanleria-atalasaren arabera, TAOLen 26. artikuluan definitzen dira, zeina berriz definitu baitu TAAILek partzialki 1. apartatuan, eta, erabat, 2. apartatuan.
Nolanahi ere, biztanleria-atalasearen araberako gutxieneko zerbitzu horiek erabat gainditu dituzte EAEko udalerriek.
Derrigorrezko gutxieneko zerbitzuek onartzen dute auzokideen eskubide subjektiboa, zeina berariaz azaltzen baita ere, esate baterako, EAEko lege sektorial batzuetan (Gizarte Zerbitzuen Legean edo Etxebizitzaren Legean).
Gutxieneko zerbitzuen nozioa ezin da eskumenekin identifikatu kontzeptuari dagokionez, nahiz eta eskumenekin lotuta egon, udalerriek biztanleriaren arabera herritarrei eskaini behar dizkieten oinarrizko betebeharrak baino ez baititu gogorazten. Berez, aitortzen dituzte udalerriaren aurrean herritarrei eskaini beharreko eskubideak —alegia, udalerriak nahitaez eman behar dituen eskubideak—.
Gutxieneko zerbitzuak «udal-zerbitzuen zorroan» sartzen dira, baina zorroaren nozioa askoz ere zabalagoa da, udalak bere eskumen propioen, eskuordetuen edo osagarrien bitartez herritarrei eskaintzen dizkien zerbitzu guztiak ez ezik, dirulaguntzetatik eta beste erakunde batzuekin sinatutako hitzarmenetatik eratortzen diren zerbitzuak ere biltzen dituelako.
Gutxieneko zerbitzuen derrigortasuna udalerriko biztanleria-atalase jakin batzuekin lotuta dago, baina metagarria da. Biztanle gehien dituzten udalerriek, «gainera», biztanle-kopuru txikiagoa duten udalerriei esleitutako derrigorrezko zerbitzuak ere eskaintzen dituzte.

</td></tr>
<tr><td rowspan="4">GUTXIENEKO UDAL-ZERBITZUAK BIZTANLERIA-ATALASEAREN ARABERA</td><td rowspan="3">TAOL</td><td>UDALERRI GUZTIEK EMAN BEHARREKO ZERBITZUAK</td><td>• Herriko argiteria.
• Hilerria.
• Hondakinak biltzea.
• Kale-garbiketa.
• Edateko uraren etxeetako hornidura.
• Estolderia.
• Biztanle-guneetarako sarbideak.
• Herri barruko bideen zoladura.</td></tr>
<tr><td>5.000 BIZTANLETIK GORAKO UDALERRIEK NAHITAEZ EMAN BEHARREKO ZERBITZUAK</td><td>• Aurreko guztiak.
• Parke publikoa.
• Liburutegi publikoa.
• Hondakinen tratamendua.</td></tr>
<tr><td>20.000 BIZTANLETIK GORAKO UDALERRIEK NAHITAEZ EMAN BEHARREKO ZERBITZUAK</td><td>• Aurreko guztiak.
• Babes zibila.
• Gizarte-premiako egoerak ebaluatzea eta egoera horiei buruzko informazioa ematea, baita gizarte-bazterketako egoeran edo arriskuan dauden pertsonei berehalako arreta ematea ere.
• Suteak prebenitzea eta itzaltzea.
• Erabilera publikoko kirol-instalazioak.</td></tr>
<tr><td>SEKTOREKO LEGERIA</td><td colspan="2">• Sektoreko legeria TAOL baino zorrotzagoa izan daiteke udalei biztanle-kopuruaren arabera nahitaezko zerbitzuak ezartzeko garaian (ikus, esate baterako, 22.2 fitxa, gizarte-zerbitzuei buruzkoa).
• Beraz, udalerri jakin batek nahitaez eman beharko ditu —biztanle-kopuruaren arabera— bai TAOLek ezartzen dizkion zerbitzuak eta baita estatuko edo autonomia-erkidegoko sektoreko legeriak ezartzen dizkionak ere.</td></tr>
<tr><td>NAHITAEZKO GUTXIENEKO ZERBITZUAK KUDEATZEKO LEHENTASUN ORDENA 20.000 BIZTANLE ARTEKO UDALERRIETAN</td><td colspan="3">
1. ETELek eskumenaren titularra den udalerriari ematen dio lehentasuna udal-zerbitzu guztiak kudeatzeko.
2. Udalak berak ezin badu zerbitzua eman edo udalak ez ematea egokiagoa dela irizten bada zerbitzuaren eraginkortasuna eta efizientzia kontuan izanda, udal-eskumenak partekatuta kudeatzearen alde egiten du ETELek, lehentasun-ordena honetan:
2.1. Elkartze-formulen bidez ematea zerbitzuak (bitarteko erakundeak sortuz, hala nola mankomunitateak edo partzuergoak, edo erakunderik bat ere sortu gabe).
2.2. Foru-organoek zehaztutako lurralde-mugapeek kudeatzea (esate baterako, eskualdeek edo kuadrillek).
3. Foru-aldundiek integratutako prestazioa (erabat salbuespenezkoa) (koordinazio-eginkizuna):
3.1. Integratzeko proposamena arrazoituta, Konstituzio Auzitegiak TAAILi buruz emandako epaien arabera. Koordinazioak eragindako udalerriaren aurretiko adostasuna behar da.
3.2. Kostuak udalerri integratuei jasanarazita.
3.3. Udalerriek, gutxieneko eta nahitaezko zerbitzuak emateko ardura zuzena beraiei dagokienez, askatasun osoa izango dute zerbitzu horiek emateko modurik egokiena erabakitzeko. Haien artean hauek daude:
a) Udalerriak zuzenean ematea.
b) Kudeaketa partekatuko formulak.
c) Beste formula batzuk: Foru Aldundiak integratutako (koordinatutako) kudeaketa, udalerri ukituak aurrez oniritzia emanez gero.
d) Baldin eta udalerriak prestazioan benetako kostu txikiagoa justifikatzen badu, eskumenaren gauzatzea errekupera dezake (zerbitzua).
3.4. Nahitaezko gutxieneko zerbitzu hauetara bakarrik mugatzen da:
— Hondakinen bilketa eta tratamendua.
— Edateko ura etxera eramatea eta hondakin-urak ebakuatu eta tratatzea.
— Kale-garbiketa.
— Biztanle-guneetarako sarbideak.
— Hiri-bideen zoladura.
— Herriko argiteria.
</td></tr>
</table>

Legeria: ETEL, 93 eta 97. art.
TAOL, 26.2 eta 116.2 art.

REGULACIÓN	• **LRBRL:** artículos 26.2, 116.2 y DA 2.6. • **LILE:** artículos 98 y 88. • **DECRETO FORAL 59/2015**, del Consejo de Diputados, de 9 de diciembre, que establece los plazos y los criterios de cálculo del coste efectivo de los servicios prestados por las entidades locales del Territorio Histórico de **Álava**; y la normativa de desarrollo de este Decreto Foral. • **DECRETO FORAL** de la Diputación Foral de **Bizkaia, 45/2015,** de 24 de marzo, por el que se establecen los plazos y los criterios de cálculo del coste efectivo de los servicios prestados por las entidades locales del Territorio Histórico de Bizkaia; y la normativa de desarrollo de este Decreto Foral. • **ORDEN FORAL 309/2016,** de 10 de junio, por la que se establecen los plazos y los criterios de cálculo del coste efectivo de los servicios prestados por las entidades locales de **Gipuzkoa**. • Se debe tener, asimismo, en cuenta la posibilidad de que la **Comisión de Gobiernos Locales de Euskadi** —o los órganos de participación municipal que se creen en los Territorios Históricos— realicen **propuestas relativas a tales criterios** (artículo 88.1.d de la LILE).
CÁLCULO	• El cálculo del coste efectivo de los servicios mínimos obligatorios será **realizado por los órganos económico-financieros de la entidad local.** • **Se partirá** de los datos contenidos en la **liquidación del presupuesto local** o, en su caso, de las **cuentas anuales** aprobadas por las entidades vinculadas o dependientes de la entidad local, **correspondientes al ejercicio anterior.** • Dentro de la noción de coste efectivo **se podrá tener en cuenta** tanto la **calidad en la prestación** de los servicios públicos, como las **características del municipio o servicio** prestado. • El coste efectivo de los servicios tendrá en cuenta los **costes reales directos e indirectos de los servicios públicos locales.** • Los **criterios de cálculo del coste efectivo** de los servicios públicos locales y, particularmente, los que afectan a servicios mínimos obligatorios, **serán establecidos por cada diputación foral.** • **Cálculo del coste efectivo según los criterios de las diputaciones forales:** → Agregación de dos componentes: costes directos, exclusivamente asociados a cada servicio, y costes indirectos, tanto mediales como de estructura, determinados con arreglo a los criterios de imputación establecidos en la correspondiente normativa foral. → Los costes directos e indirectos se identificarán con las obligaciones reconocidas, incluyendo también las obligaciones pendientes de aplicación a presupuestos, conforme a los datos de ejecución de gasto de los presupuestos generales de las entidades locales, y, en su caso, con las cuentas anuales aprobadas de las entidades y organismos vinculados o dependientes, correspondientes al ejercicio inmediato anterior a aquel en el que el coste efectivo se vaya a calcular, comunicar y publicar. A estos efectos se aplicará el nivel de desagregación de la clasificación por programas. → Seguimiento de las reglas contenidas en la normativa foral correspondiente (ver apartado REGULACIÓN, en esta misma ficha).
COMUNICACIÓN Y PUBLICACIÓN DE LOS COSTES EFECTIVOS CALCULADOS	• La información relativa al coste efectivo de los servicios será remitida a la diputación foral respectiva antes del 1 de noviembre de cada año. • Las diputaciones forales realizarán el seguimiento y publicación de esta información, por los medios que estimen pertinentes.

Legislación: LILE, arts. 98 y 88
LRBRL, arts. 26.2, 116.2 y DA 2.6

ERREGULAZIOA	• **TAOL:** 26.2 eta 116.2 artikuluak eta 2.6. Xedapen Gehigarria. • **ETEL:** 98. eta 88. artikuluak. • **59/2015 FORU DEKRETUA**, Diputatuen Kontseiluarena, abenduaren 9koa, **Arabako** Lurralde Historikoko toki-erakundeek emandako zerbitzuen benetako kostuaren kalkulurako epeak eta irizpideak ezartzen dituena; eta foru-dekretu hori garatzen duen araudia. • **Bizkaiko** Foru Aldundiaren **45/2015 FORU DEKRETUA**, martxoaren 24koa, Bizkaiko Lurralde Historikoko toki-erakundeek emandako zerbitzuen benetako kostua kalkulatzeko irizpideak eta epeak ezartzekoa; eta foru-dekretu hori garatzen duen araudia. • **309/2016 FORU AGINDUA**, ekainaren 10ekoa, **Gipuzkoako** toki entitateek emandako zerbitzuen benetako kostua kalkulatzeko irizpideak eta epeak ezartzen dituena. • Kontuan izan behar da, gainera, **Euskadiko Tokiko Gobernuen Batzordeak** —edo udalek parte hartzeko lurralde historikoetan sortzen diren organoek— **irizpide horiei buruzko proposamenak egin ditzaketela** (ETELen 88.1.d artikulua).
KALKULUA	• Gutxieneko eta nahitaezko zerbitzuen egiazko kostua **toki-erakundeko organo ekonomiko-finantzarioek kalkulatuko dute**. • Horretarako, oinarri gisa hartuko dira aurreko urteko **toki-aurrekontuaren likidazioan**, edo, hala badagokio, toki-erakundearekin lotutako edo haren mendeko erakundeek onetsitako **aurreko ekitaldiari dagozkion urteko kontuetan**, jasotako datuak. • Egiazko kostuaren kontzeptuaren barruan, **kontuan izan ahalko dira ematen diren zerbitzu publikoen kalitatea, bai eta udalerriaren edo zerbitzuaren ezaugarriak ere.** • Zerbitzuen egiazko kostuak kontuan hartuko ditu **tokiko zerbitzu publikoen zuzeneko eta zeharkako kostu errealak**. • **Foru-aldundi bakoitzak ezarriko di**tu tokiko zerbitzu publikoen **egiazko kostua kalkulatzeko irizpideak** eta, bereziki, nahitaezko gutxieneko zerbitzuei dagozkienak. • Egiazko kostua kalkulatzeko modua foru-aldundien irizpideei jarraituz: → Bi osagai batu behar dira: zuzeneko kostuak, zerbitzu bakoitzari bakarrik dagozkionak, eta zeharkako kostuak, baliabideenak zein egiturazkoak, kasu bakoitzean dagokion foru-araudian kostuak egozteko ezarritako irizpideen arabera. → Zuzeneko eta zeharkako kostuak obligazio onartuekin identifikatu beharko dira, aurrekontuei aplikatzeko dauden obligazioak ere barne, toki-erakundeen aurrekontu orokorretako gastu-exekuzioaren datuen arabera, eta, hala dagokionean, loturadun edo mendeko erakunde eta organismoek egiazko kostua kalkulatu, komunikatu eta argitaratu behar den urtearen aurreko ekitaldirako onartutako urteko kontuen arabera. Horretarako, programen araberako sailkapeneko desagregazio-maila aplikatuko da. → Dagokion foru-araudian jasotako erregelak bete behar dira (ikus ERREGULAZIOA, fitxa honetan bertan).
EGIAZKO KOSTU KALKULATUAK KOMUNIKATZEA ETA ARGITARATZEA	• Zerbitzuen egiazko kostuari buruzko informazioa kasu bakoitzean dagokion foru-aldundiari bidali behar zaio urtero azaroaren 1a baino lehenago. • Foru-aldundiek egingo dute informazio horren segimendua eta argitaratu egingo dute, egoki iruditzen zaizkien bitartekoak erabiliz.

Legeria: ETEL, 98 eta 88. art.
TAOL, 26.2, 116.2 art. eta 2.6. Xedapen Gehigarria

EN FUNCIÓN DE LA NORMA JURÍDICA REGULADORA **Atendiendo:** al **ordenamiento jurídico aplicado** a la organización y a las **relaciones entre el ente gestor y los usuarios** de los respectivos servicios.	
APLICACIÓN DEL DERECHO PÚBLICO	• Gestión **directa** por la propia entidad (gestión indiferenciada o diferenciada especializada). • Gestión **indirecta** mediante **concesión**. • Gestión **mixta** (**indirecta** mediante **gestión interesada**).
APLICACIÓN DEL DERECHO PRIVADO	• **Ente público de derecho privado**. • Gestión **indirecta** mediante **gestión interesada**. • Gestión **indirecta** por **concierto**. • Gestión **directa** mediante **sociedad mercantil** cuyo **capital pertenezca íntegramente** al ente local y esté totalmente desembolsado. • Gestión **mixta** por **sociedad mercantil o cooperativa** cuyo **capital tan sólo parcialmente** pertenezca al ente local.

MODOS DE GESTIÓN		**MODALIDADES DE GESTIÓN**		**ASUNCIÓN DEL RIESGO**
DIRECTA	**PRESTACIÓN POR LA PROPIA ENTIDAD**	**GESTIÓN INDIFERENCIADA**	Prestación por la **propia entidad**, a través de **sus propios órganos, sin órgano especial de administración.**	**Administración**
	MEDIANTE ENTIDADES DEL SECTOR PÚBLICO INSTITUCIONAL LOCAL	**ORGANISMO AUTÓNOMO LOCAL**	Gestión **descentralizada personificada**.	
		ENTIDAD PÚBLICA EMPRESARIAL	Gestión **descentralizada personificada**.	
		SOCIEDAD MERCANTIL	Gestión por sociedad mercantil cuyo **capital íntegramente** pertenezca a la **entidad local.**	
	GESTIÓN COMPARTIDA ENTRE ENTES LOCALES	**CON CREACIÓN DE ENTIDADES INTERMEDIAS** (Mancomunidades, Consorcios) **O NO** (Redes, Asociaciones, Sociedades interlocales, Convenios)	Gestión **íntegramente asumida por las entidades locales** (o sus entidades y sociedades pertenecientes al sector público local).	
	GESTIÓN MEDIANTE DEMARCACIONES SUPRAMUNICIPALES	**ÁREAS METROPOLITANAS, COMARCAS**	Gestión **íntegramente asumida por las entidades locales** (o sus entidades y sociedades instrumentales de capital íntegramente público).	
INDIRECTA	**CONCESIÓN**			**El gestor particular**
	CONCIERTO			
	Otras modalidades de colaboración pública-privada previstas legalmente.			

ELECCIÓN DEL MODO DE GESTIÓN APLICABLE AL SERVICIO PÚBLICO LOCAL: criterios legales y justificación de la elección	
ELECCIÓN ENTRE GESTIÓN PROPIA, COMPARTIDA E INTEGRADA	1. **Preferencia de la gestión, por el municipio titular de la competencia**, para todos los servicios municipales (art. 93 LILE). 2. Cuando **la gestión del servicio no pueda llevarse a cabo por el municipio o se considere más adecuado a la eficacia o eficiencia del servicio**, la LILE se inclina claramente por fomentar una gestión compartida de las competencias municipales, y ello, de acuerdo al siguiente orden de preferencia: 2.1. Prestación mediante **fórmulas asociativas** (con creación de **entidades intermedias** como mancomunidades o consorcios, o **sin creación de entidad alguna,** las mancomunidades son entidades locales, hoy ya no los consorcios). 2.2. Gestión por **demarcaciones determinadas por los órganos forales** (comarcas, cuadrillas… art. 19.3 LILE). 3. **Prestación integrada por Diputaciones Forales (supuesto absolutamente excepcional) (ver ficha 10.4):** 3.1. Motivando la propuesta de integración de acuerdo con las Sentencias del Tribunal Constitucional relativas a la LRSAL (dado que, en todo supuesto, las formas antecitadas son preferentes). 3.2. Con repercusión de los costes a los municipios integrados. 3.3. Los municipios, como responsables directos de la prestación de los servicios mínimos obligatorios, podrán acordar libremente la forma más adecuada de prestación de los mismos. 3.4. Únicamente para la prestación, en municipios de menos de 20.000 habitantes, de estos servicios mínimos obligatorios: recogida y tratamiento de residuos, abastecimiento de agua potable a domicilio y evacuación y tratamiento de aguas residuales, limpieza viaria, acceso a los núcleos de población, pavimentación de las vías urbanas y alumbrado público.
PERSONIFICACIÓN PÚBLICA O PRIVADA Y GESTIÓN POR ENTIDADES PÚBLICAS EMPRESARIALES O EMPRESAS PÚBLICAS	• **Preferencia por la gestión a través de entidades de personificación pública** entendidas como **reguladas por el Derecho Público** (organismos autónomos), **frente a las de personificación «privada»,** aunque tengan carácter de «públicas» (entidades públicas empresariales y empresas públicas). • La gestión **por entidades públicas empresariales o empresas públicas** solo podrá llevarse a cabo **tras una memoria justificativa**, en la que la intervención municipal acredite que esa forma de gestión es **más sostenible y eficiente**, teniendo en cuenta la rentabilidad económica y la recuperación de la inversión. (Téngase en cuenta la regulación de las entidades públicas empresariales en la **Ley 40/2015:** se deben financiar mayoritariamente con ingresos de mercado: art. 103). • **Previa** a la aprobación por el pleno de la gestión bajo «personificación privada»: **informe sobre el coste del servicio y apoyo técnico recibido**. • La forma de gestión debe **valorar** el ejercicio de **potestades públicas** o la salvaguarda de **intereses generales.**

Legislación: LILE, arts. 93 a 108
LRBRL, arts. 26, 85, 86 y DA 9
Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público

ARAU JURIDIKO ERREGULATZAILEAREN ARABERA Erakundeari **aplikatutako ordenamendu juridikoa** eta **erakunde kudeatzailearen eta zerbitzuen erabiltzaileen arteko harremanak** kontuan hartuta:	
ZUZENBIDE PUBLIKOA APLIKATZEN DA	• Erakundeak berak **zuzenean** egindako kudeaketa (bereizketarik gabeko kudeaketa edo bereizitako kudeaketa espezializatua). • **Zeharkako** kudeaketa, **emakida** bidezkoa. • Kudeaketa **mistoa** (zeharkakoa, **kudeaketa interesatu** bidez egina).
ZUZENBIDE PRIBATUA APLIKATZEN DA	• **Zuzenbide pribatuko erakunde publikoa.** • **Zeharkako** kudeaketa, **kudeaketa interesatu** bidez egina. • **Zeharkako kudeaketa, itun** bidez. • **Zuzeneko** kudeaketa, kapital osoa tokiko erakundearena izan eta guztiz ordaindua duen **merkataritzako sozietate** bidez. • Kudeaketa **mistoa**, **kapitaletik soilik zati bat** tokiko erakundearena duen **merkataritzako sozietate edo kooperatiba-sozietate** bidez.

KUDEATZEKO MODUAK		KUDEATZEKO MODALITATEAK		ARRISKUA HARTZEN DU
ZUZENEAN	TOKI-ERAKUNDEAK BERAK EMATEA ZERBITZUA	BEREIZKETARIK GABEKO KUDEAKETA	**Erakundeak berak** ematen du, **bere organoen bidez, administrazioko organo berezirik gabe**.	Administrazioak
	TOKIKO SEKTORE PUBLIKO INSTITUZIONALEKO ERAKUNDEEN BIDEZ	TOKIKO ERAKUNDE AUTONOMOA	Kudeaketa **deszentralizatu pertsonifikatua**.	
		ENPRESA-ERAKUNDE PUBLIKOA	Kudeaketa **deszentralizatu pertsonifikatua**.	
		MERKATARITZA-SOZIETATEA	**Kapital osoa toki-erakundearena** duen merkataritza-sozietateak kudeatzea.	
	TOKI-ERAKUNDEEN ARTEAN PARTEKATUTAKO KUDEAKETA	BITARTEKO ERAKUNDEAK SORTUZ (Mankomunitateak, Partzuergoak) EDO SORTU GABE (Sareak, Elkarteak, Hitzarmenak)	**Kudeaketa osoa toki-erakundeek hartzen dute beren gain** (edo tokiko sektore publikokoak diren haien erakundeek edo sozietateek).	
	UDALAZ GAINDIKO MUGARTEEN BIDEZKO KUDEAKETA	METROPOLIALDEAK, ESKUALDEAK	**Kudeaketa osoa toki-erakundeek hartzen dute beren gain** (edo kapital osoa publikoa duten erakunde eta sozietate instrumentalek).	
ZEHARKA	EMAKIDA			Kudeatzaile partikularrak
	ITUNA			
	Lankidetza publiko/pribatuko beste modalitate batzuk, legeak aurreikusitakoaren arabera.			

TOKIKO ZERBITZU PUBLIKOARI APLIKA DAKIOKEEN KUDEAKETA-EREDUA AUKERATZEA: legezko irizpideak eta aukeraren justifikazioa	
KUDEAKETA PROPIOA, PARTEKATUA EDO INTEGRATUA AUKERATZEA	1. Ahal dela, **udal-zerbitzu guztiak eskumenaren titularra den udalak berak kudeatzea da lehentasuna** (ETELen 93. art.). 2. **Udalak berak ezin badu zerbitzua eman edo udalak ez ematea egokiagoa dela irizten bada zerbitzuaren eraginkortasuna eta efizientzia kontuan izanda**, udal-eskumenak partekatuta kudeatzearen alde egiten du ETELek, lehentasun-ordena honetan: 2.1. **Elkartze-formulen bidez** ematea zerbitzuak (**bitarteko erakundeak** sortuz, hala nola mankomunitateak edo partzuergoak, edo **erakunderik bat ere sortu gabe**, mankomunitateak tokiko erakundeak dira, gaur egun jada partzuergoak ez). 2.2. **Foru-organoek zehaztutako lurralde-mugapeek** kudeatzea (eskualdeak, koadrilak… LILEren 19.3 art.). 3. **Foru-aldundiek integratutako prestazio (erabateko salbuespena) (ikus 10.4 fitxa):** 3.1. Integratzeko proposamena arrazoituta Konstituzio Auzitegiak TAAILi buruz emandako epaien arabera (edozein kasutan, lehen aipatutako moduek lehentasuna dutelako). 3.2. Kostuak udalerri integratuei jasanarazita. 3.3. Udalerriei dagokie gutxieneko eta nahitaezko zerbitzuak emateko ardura zuzena, eta, horrenbestez, askatasun osoa izango dute zerbitzu horiek nola eman erabakitzeko. 3.4. 20.000 biztanletik beherako udalerrietan, nahitaezko gutxieneko zerbitzu hauek emateko bakarrik: hondakinen bilketa eta tratamendua, edateko uraren etxeko hornidura eta hondakin-uren ebakuazioa eta tratamendua, kale-garbiketa, biztanle-guneetarako sarbideak, hiri-bideen zoladura eta herriko argiteria.
PERTSONIFIKAZIO PUBLIKOA EDO PRIBATUA ETA ENPRESA-ERAKUNDE PUBLIKOEK EDO ENPRESA PUBLIKOEK KUDEATZEA	• Ahal dela, **pertsonifikazio publikoko erakundeen bidez kudeatzea**, hau da, **Zuzenbide Publikoak araututako** erakundeen bidez (erakunde autonomoak), **pertsonifikazio «pribatukoen» aldean**, izaeraz «publikoak» izan arren (enpresa-erakunde publikoak eta enpresa publikoak). • **Enpresa-erakunde publikoen edo enpresa publikoen bidez** kudeatu ahal izateko, **justifikazio-memoria bat** egin beharko da, eta memoria horretan udaleko kontu-hartzaileak frogatu beharko du kudeatzeko modu hori **jasangarriagoa eta efizienteagoa** dela, errentagarritasun ekonomikoa eta inbertsioaren berreskuratzea kontuan izanda. (Kontuan har dadin enpresa-erakunde publikoen arautzea **40/2015 Legearen** 103. artikuluan: gehien bat merkatuko diru-sarreren bidez finantzatu behar dira). • Osoko bilkuran onartu **aurretik** «pertsonifikazio pribatuaren» bidez kudeatzea: **zerbitzuaren kostuari eta jasotako laguntza teknikoari buruzko txosten**a. • Kudeatzeko moduak baloratu behar du **ahal publikoak** egikaritzea edo **interes orokorrak** babestea.

Legeria: ETEL, 93-108. art.
TAOL, 26, 85 eta 86. art. eta 9. Xedapen Gehigarria
9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena

SE PODRÁ APLICAR A (optativamente)	**TODOS** los servicios públicos
SE DEBERÁ APLICAR A (prescripción legal)	Los servicios que impliquen el **EJERCICIO DE LA AUTORIDAD** inherente al poder público

FORMAS DE GESTIÓN DIRECTA DE SERVICIOS PÚBLICOS LOCALES LEGALMENTE PREVISTAS


PRESTACIÓN POR LA PROPIA ENTIDAD	**SIN ÓRGANO ESPECIAL DE ADMINISTRACIÓN**		Gestión realizada por los **ÓRGANOS PROPIOS DE LA ADMINISTRACIÓN**, que **no gozan en sí mismos de personalidad jurídica** y **tampoco tienen un régimen económico, un presupuesto, o un patrimonio propios.**
	MEDIANTE ENTIDADES O SOCIEDADES INSTRUMENTALES	**ORGANISMO AUTÓNOMO LOCAL**	• La **LRBRL (art. 85 bis)** prevé una regulación de las singularidades o especialidades que en el ámbito local se aplican a los Organismos Públicos y, además, indica que se regirán «por la Ley 6/1997 (Ley de Organización y Funcionamiento de la Administración General del Estado)». Derogada esta norma, la remisión habrá de entenderse realizada al **Capítulo III del Título II de la Ley 40/2015**, que agrupa estas figuras en el concepto de **«ORGANISMOS PÚBLICOS»**. **En lo no establecido en la LRBRL ha de acudirse a la Ley 40/2015.** • Son entidades que gozan de **personalidad jurídica propia e independiente** de los entes locales. • Su **creación, modificación, refundición y supresión** corresponde al **Pleno**, que aprobará sus estatutos, debiendo quedar adscritos con carácter general a una concejalía, área u órgano equivalente de la entidad local. • En los organismos autónomos locales, deberá existir un **consejo rector,** cuya composición se determinará en sus estatutos. En las entidades públicas empresariales, existirá un **consejo de administración,** cuya composición se determinará en sus estatutos. Su secretario será funcionario público al que se exija, para su ingreso, titulación superior. • El **titular del máximo órgano de dirección** deberá ser un funcionario de carrera o laboral de las administraciones públicas o un profesional del sector privado, titulados superiores en ambos casos, y con más de cinco años de ejercicio profesional en el segundo caso. • Disponen de **presupuesto propio** aprobado por el ente local y un **patrimonio** compuesto por bienes pertenecientes al ente local y adscritos al mismo. • El **régimen presupuestario, económico-financiero**, de contabilidad, de intervención, control financiero y de eficacia: conforme a la legislación sobre haciendas locales y a lo dispuesto en el Capítulo III del Título X de la LRBRL.
		ENTIDAD PÚBLICA EMPRESARIAL LOCAL	• Gestión realizada por un **órgano de la propia administración**, con **PERSONALIDAD JURÍDICA PROPIA**. • Cuenta con un **Consejo de Administración** presidido por un miembro de la corporación. A propuesta de dicho Consejo de Administración, el Alcalde designa el gerente. • Tendrá **consignación presupuestaria propia** dentro del presupuesto del ente local, así como un **patrimonio** compuesto por bienes del ente local adscritos al mismo. Se llevará una **contabilidad especial independiente** de la general del ente local, debiendo publicarse los balances y liquidaciones. La **liquidación y compensación de pérdidas** se hace en la forma prevista en el acuerdo de establecimiento. Con cargo a las ganancias se constituirán **fondos de reserva** en la cuantía que establezcan las ordenanzas. • Regulada actualmente por la Ley 40/2015, de 1 de octubre (título II, capítulo III, sección tercera).
		SOCIEDAD MERCANTIL LOCAL, CUYO CAPITAL PERTENEZCA ÍNTEGRAMENTE A LA ENTIDAD LOCAL O A UN ENTE DE LA MISMA	• **EMPRESA PÚBLICA** con **personalidad jurídica propia.** • Se rige por las normas de **derecho privado, salvo** las materias en que sea de aplicación la normativa presupuestaria, contable, de control financiero, de control de eficacia y contratación. • Deberá adoptar una de las **formas previstas en el texto refundido de la Ley de Sociedades de Capital** aprobado por el Real Decreto Legislativo 1/2010, de 2 de julio, y en la escritura de constitución constará el capital que deberá ser aportado por las Administraciones Públicas o por las entidades del sector público dependientes de las mismas a las que corresponda su titularidad. • Se rige por la **Junta General de accionistas**, integrada por los miembros del Pleno, por el Consejo de Administración, y el Gerente. • Dispone de **presupuesto y patrimonio propios** constituido por aportaciones del ente local.
	GESTIÓN COMPARTIDA CON OTRAS ENTIDADES		• **Con creación de entidades** intermedias o **sin creación de entidad** alguna. (***Ver ficha 10.6.2.2.***).

REGLAS RELATIVAS A LOS ENTES INSTRUMENTALES DEL SECTOR PÚBLICO INSTITUCIONAL LOCAL (ARTÍCULO 95 LILE)

- Se reconoce la **potestad de autoorganización municipal para crear** entidades del Sector Público Institucional Local (denominados como «entes públicos instrumentales»). La STC 111/2016 ha declarado la constitucionalidad tanto del artículo 116 bis como de la DA 9 de la LRBRL.
- El legislador vasco, con base en las competencias del Concierto, establece una serie de singularidades en la aplicabilidad de las reglas establecidas en la DA 9 de la LRBRL. Así, se admite expresamente que el Consejo Vasco de Finanzas Públicas pueda definir **umbrales de desviación de objetivos de estabilidad presupuestaria y sostenibilidad financiera**, que no conlleven en ningún caso medidas adicionales que afecten a la cartera de servicios.
- Un municipio que tenga aprobado un **plan económico financiero no podrá crear entes instrumentales o integrarse en otros** ya existentes durante la vigencia del citado plan: se limitan las potestades de autoorganización de los entes locales (con base en la DA 9 de la LRBRL). **Excepciones**:
  - → La intervención del **Consejo Vasco de Finanzas Públicas** determinando **umbrales máximos de desviación** de los objetivos de estabilidad presupuestaria y sostenibilidad financiera que no conllevarán tales restricciones de las potestades de autoorganización (art. 95.3 LILE).
  - → Las **diputaciones forales** podrán **autorizar** a los ayuntamientos para que puedan realizar **excepcionalmente aportaciones patrimoniales o suscribir ampliaciones de capital** a empresas públicas dentro del plan de corrección del desequilibrio financiero, aunque se superaran tales umbrales previstos en el apartado anterior. Sin embargo, esta excepción tiene escasa vigencia, puesto que las normas de la DA 9 de la LRBRL, apartado 2, tienen naturaleza transitoria y están sometidas a plazos, que en buena medida ya han vencido.

Legislación:

LILE, arts. 94 a 108
LRBRL, art. 85 y DA 9
Ley 40/2015
R.D. Legislativo 1/2010, de 2 de julio, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Sociedades de Capital
Control interno de las entidades del sector público local:
Real Decreto 424/2017, de 28 de abril (que entró en vigor el 1 de julio de 2018)
Decreto Foral 117/2018, de 22 de agosto (entidades locales del T.H. de Bizkaia)
Decreto Foral 32/2018, de 27 de octubre (entidades locales del T.H. de Gipuzkoa)
Álava aún no ha aprobado su regulación de adaptación del RD 424/2017



LEGEAN AURREIKUSITAKO MODUAK TOKIKO ZERBITZU PUBLIKOAK ZUZENEAN KUDEATZEKO

TOKI-ERAKUNDEAK BERAK EMATEA ZERBITZUA

ADMINISTRAZIOKO ORGANO BEREZIRIK GABE		**Berez nortasun juridikorik ez duten eta erregimen ekonomiko, aurrekontu edo ondare propiorik ere ez duten ADMINISTRAZIO-ORGANOEK** egiten dute kudeaketa.
ERAKUNDE EDO SOZIETATE INSTRUMENTALEN BITARTEZ	**TOKIKO ERAKUNDE AUTONOMOA**	• **TAOLek (85 bis art.)** tokiko eremuan erakunde publikoei aplikatzen zaizkien singulartasunak edo berezitasunak arautzea aurreikusten du, eta, gainera, 6/1997 Legeari jarraikiz egin beharko direla azaltzen du (Estatuko Administrazio Orokorraren Antolamenduari eta Funtzionamenduari buruzko Legea)». Lege hori indargabetuta geratu denez, ulertu beharko da **40/2015 Legearen II. Tituluko III. Kapitulura** jo behar dela, «**ERAKUNDE PUBLIKOEN**» barruan sartzen baititu erakunde autonomoak. **TAOLen ezarrita ez dagoenerako 40/2015 Legera jo behar da.** • **Berezko nortasun juridikoa duten eta tokiko erakundeekiko independentea**k diren erakundeak dira. • **Osoko Bilkurari** dagokio haiek **sortu, aldatu, bateratu eta ezabatzea**, eta haien estatutuak onartzea. Oro har, tokiko erakundeko zinegotzitza bati, arlo bati edo pareko organo bati atxikirik egon beharko dute. • Tokiko erakunde autonomoek kontseilu errektore bat izan beharko dute. Horren osaera estatutuetan xedatuko da. Tokiko enpresa-entitate publikoetan **administrazio-kontseilu** bat egon behar da, eta kontseilu horren estatutuetan zehaztuko da bere osaera. Haren idazkaria funtzionario publikoa izango da, eta, sartzeko, goi-mailako titulazioa eskatuko zaio. • **Zuzendaritza-organo goreneko titularra** administrazio publikoko karrerako funtzionario bat edo lan-kontratuko langile bat izango da, edo, bestela, bost urte baino gehiagoko lan-esperientzia duen sektore pribatuko profesional bat. Bi kasuetan, goi-mailako titulua eduki beharko dute. • Tokiko erakundeak onartutako **aurrekontu propioa** dute, bai eta **ondare** bat ere, tokiko erakundearenak izan eta erakunde autonomoari esleitutako ondasunez osatutakoa. • **Aurrekontuen, ekonomia eta finantzen,** kontabilitatearen, kontu-hartzeen, finantza-kontrolaren eta efizientziaren **erregimena**: tokiko ogasunei buruzko legeriaren eta TAOLen X Tituluko III. Kapituluan xedatutakoaren arabera.
	TOKIKO ENPRESA-ERAKUNDE PUBLIKOA	• **BEREZKO NORTASUN JURIDIKOA duen administrazioko organo batek** egindako kudeaketa. • **Administrazio-kontseilu** bat dauka, udalbatzako kide bat duela presidente. Alkateak izendatzen du kudeatzailea, aipatutako Administrazio-kontseiluak proposatuta. • Tokiko erakundearen aurrekontuaren barruan **berezko aurrekontu-kontsignazioa** izango du, bai eta **ondare** bat ere, tokiko erakundearenak izan arren erakundeari esleiturik dauden ondasunez osatutakoa. Tokiko erakundearen **kontabilitate orokorrarekiko independentea** den kontabilitate berezi bat izango du, eta balantzeak eta likidazioak argitaratu egin beharko dira. **Likidazioa eta galeren konpentsazio**a erakundea eratzeko akordioan aurreikusi bezala egingo da. Irabazien kontura **erreserba-funtsak** osatuko dira, ordenantzek ezartzen duten kopurukoak. • Orain 40/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, arautzen du (II. Titulua, III. Kapitulua, 3. atala).
	TOKIKO MERKATARITZA SOZIETATEA, KAPITALA OSO OSORIK TOKIKO ERAKUNDEA-RENA EDO HORREN ERAKUNDEREN BATENA DENEAN	• **Berezko nortasun juridikoa duen ENPRESA PUBLIKOA**. • **Zuzenbide pribatuko** arauen arabera arautzen da, honako hauetan **izan ezik**: aurrekontuan, kontabilitatean, finantza- eta eraginkortasun-kontrolean, eta kontratazioan. • Uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako **Kapital-sozietateen Legearen testu bateginean** aurreikusitako molderen bat hartu behar du, eta eratzeko eskrituran administrazio publikoek edo haien mende dauden eta horien titulartasuna duten sektore publikoko entitateek eman beharreko kapitala adieraziko da. • **Akziodunen Batzar Orokorrak** kudeatuko du. Batzar hori Osoko bilkurako kideek, Administrazio-Kontseiluak eta kudeatzaileak osatuko dute. • **Bere aurrekontu eta ondare propioak** ditu, tokiko erakundeak jarritakoak.
BESTE ERAKUNDE BATZUEKIN PARTEKATUTAKO KUDEAKETA		• Bitarteko **erakundeak sortuz**, edo **erakunderik sortu gabe. (*Ikus 10.6.2.2 fitxa*).**

TOKIKO SEKTORE PUBLIKO INSTITUZIONALEKO ERAKUNDE INSTRUMENTALEI BURUZKO ARAUAK (ETEL-EN 95. ARTIKULUA)

- **Udalerriei autoantolaketarako ahala aitortzen zaie** Tokiko Sektore Publiko Instituzionaleko erakundeak **sortzeko** («erakunde publiko instrumentalak» deitzen dira). Konstituzio Auzitegiaren 111/2016 epaiak deklaratu du konstituzionalak direla TAOLen 116 bis artikulua eta 9. xedapen gehigarria.
- Euskal legegileak, Itunak emandako eskumenetan oinarrituta, zenbait berezitasun ezartzen ditu TAOLen 9. xedapen gehigarrian ezarritako erregelak aplikatu beharrari buruz. Horrela bada, berariaz onartzen da Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak zehaztu ahal izango duela, akordio bidez, zein diren **aurrekontu-egonkortasunerako eta finantza-jasangarritasunerako helburuekiko desbideratze-atalaseak**, baina zerbitzu-zorroan eragina izango duen neurri gehigarririk hartu gabe inola ere.
- Udalerri batek **plan ekonomiko-finantzario bat onartua badu, ezin izango du erakunde instrumental berririk sortu, ez eta lehendik sortuta dauden beste batzuetan sartu**, plana indarrean dagoen artean: mugatu egiten dira tokiko erakundeen autoantolaketarako ahalak (TAOLen 9. xedapen gehigarrian oinarrituta). **Salbuespenak:**
  - → **Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak** aurrekontu-egonkortasunerako eta finantza-jasangarritasunerako helburuekiko **gehienezko desbideratze-atalaseak** zehazten parte hartzeak ez du ekarriko autoantolaketarako ahalak murrizterik (ETELen 95.3. artikulua).
  - → **Foru-aldundiek baimena** eman ahal izango dute udalek, **salbuespenez, ondare-ekarpenak egin edo kapital-gehikuntzak sina ditzaten**, enpresa publikoetan finantza-desoreka zuzentzeko plan baten arabera, nahiz eta aurreko apartatuan aurreikusitako atalaseak gainditu. Hala ere, salbuespen horrek indarraldi laburra du, TAOLen 9. Xedapen Gehigarriaren 2. apartatuko arauak iragankorrak direlako eta neurri handi batean dagoeneko amaituta dauden epeei lotuta daudelako.

Legeria:

ETEL, 94-108. art.
TAOL, 85. art. eta 9. Xedapen Gehigarria
40/2015 Legea
Uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretua, Kapital Sozietateei buruzko Legearen testu bategina onartzen duena

Tokiko sektore publikoaren erakundeen barruko kontrola:
Apirilaren 28ko 424/2017 Errege Dekretua (2018ko uztailaren 1ean sartu zen indarrean)
Abuztuaren 28ko 117/2018 Foru Dekretua (Bizkaiko Lurralde Historikoko toki-erakundeena)
Urriaren 27ko 32/2008 Foru Dekretua (Gipuzkoako Lurralde Historikoko toki-erakundeena)
Arabak oraindik ez du onartu 424/2017 Errege Dekretua egokitzeko araubidea

ENTIDADES INTERMEDIAS PARA LA GESTIÓN DIRECTA COMPARTIDA DE SERVICIOS PÚBLICOS LOCALES	
ENTIDADES INTERMEDIAS: **CREACIÓN Y REGULACIÓN**	• La LILE reconoce el **derecho de los municipios de crear, modificar y suprimir entidades intermedias de base asociativa**, al objeto de prestar de forma conjunta o compartida servicios públicos (art. 101 LILE). • El artículo 101.2 de la LILE establece el **sistema de fuentes** aplicable en esta materia: LILE (en lo que se regule en esta) y Normas Forales de los TTHH. Se ha de tener en cuenta, asimismo, la LRJSP (Ley 40/2015), que declara como básicos los capítulos I y VI (Consorcios), así como los artículos 129 (adscripción) y 134 (protectorado) del capítulo VII en materia de Fundaciones (todos ellos del título II de la LRJSP); y la Ley 9/2016, de 2 de junio, de Fundaciones del País Vasco. • El artículo 101.3 de la LILE reconoce la competencia de los **Territorios Históricos de crear, modificar o suprimir** entidades de carácter **supramunicipal.** • El artículo 102 de la LILE regula las **entidades locales de base asociativa**, y prevé que las **mancomunidades y otras fórmulas asociativas** son una fórmula **adecuada para la realización de obras y prestación de servicios públicos locales.**
MANCOMUNIDADES (dentro de un TH)	• **Sistema de fuentes:** 1) legislación básica de régimen local; 2) LILE (con carácter excepcional, pues la competencia material es foral); 3) normativa emanada de los órganos forales de los Territorios Históricos. • ***Ver ficha 4.3.***
MANCOMUNIDADES DE MUNICIPIOS **(Pertenecientes a más de un TH)**	• **Competencia para su regulación:** recae en la Comunidad Autónoma, por extenderse a más de un Territorio. • **Regulación:** LILE. • **Procedimiento de constitución y aprobación de Estatutos:** a) Elaboración de anteproyecto de Estatutos por comisión técnica; b) Aprobación del proyecto por una asamblea; c) Exposición al público; d) Informe de Diputaciones forales; e) Aprobación definitiva de la constitución de la mancomunidad y estatutos (mayoría absoluta); f) Remisión por el ayuntamiento gestor de los acuerdos adoptados por los ayuntamientos y publicación en el BOPV. • **Adhesión voluntaria posterior de otros municipios:** a) aprobación inicial adhesión (cabe presumir que por mayoría absoluta); b) trámite de información pública e informe de diputaciones; c) aprobación definitiva adhesión y estatutos por mayoría absoluta del pleno del ayuntamiento. • **Contenido mínimo de sus estatutos:** a) Denominación, sede y relación de municipios que integran la mancomunidad. b) Determinación de sus fines y la concreción de sus competencias. c) Órganos de gobierno y administración, así como la composición, forma de designación y cese de sus miembros. d) Normas de funcionamiento de los órganos de gobierno y de gestión administrativa y, en su caso, de la gerencia. e) Aportaciones de los municipios integrantes y demás recursos económicos de la propia entidad. f) Plazo de duración de la mancomunidad. g) Procedimiento de modificación de los estatutos, de acuerdo con lo previsto en la LILE. h) Procedimiento de incorporación y separación de municipios y posibilidad de que estos se asocien para alguna o algunas de las finalidades de la mancomunidad. i) Causas y el procedimiento de disolución de la mancomunidad, así como las normas sobre su liquidación. j) Régimen indemnizatorio aplicable a los municipios, por incumplimiento de sus obligaciones con ella. k) Previsiones sobre el régimen jurídico en que hayan de quedar los bienes cedidos en uso de los municipios que se separen de la mancomunidad. l) **Potestades** (incluida, en su caso, la potestad expropiatoria): dispondrán de las mismas potestades que las atribuidas por la legislación básica a los municipios. Cuando la potestad expropiatoria no esté asumida por la mancomunidad, en función de donde radiquen los bienes de necesaria ocupación, podrá ejercerse ésta por el municipio, la diputación foral o la Comunidad Autónoma, según los casos. • **Garantía de las minorías:** en los órganos de gobierno de la mancomunidad, los estatutos han de garantizar que el órgano de representación asuma funciones de control y asegure la presencia efectiva de miembros electos de todos los municipios, no pudiendo ostentar ninguno la mayoría absoluta. Los representantes se designarán con criterios de proporcionalidad, según los resultados obtenidos en las últimas elecciones. • **Expedientes de disolución:** mismas reglas que para su constitución y para la aprobación de sus estatutos. • **Integración de mancomunidades de otras Comunidades Autónomas:** se prevé la posibilidad, de acuerdo con lo establecido en la legislación básica de régimen local, en los términos de la LILE y la legislación de las CCAA afectadas.
COMARCAS Y ÁREAS METROPOLITANAS (dentro de un TH)	• Su **creación y regulación** es competencia de los **Territorios Históricos.**
ÁREAS METROPOLITANAS **(Pertenecientes a más de un TH)**	• La competencia para su creación y regulación corresponderá al Parlamento Vasco, mediante Ley. • La Ley determinará las competencias de esas entidades, los órganos que forman parte de ellas y el resto de elementos que conforman su régimen jurídico. • Régimen jurídico básico (art. 43 LRBRL): Concepto de Área Metropolitana y reenvío al régimen jurídico que determine la Comunidad Autónoma.
CONSORCIOS	• ***Ver ficha 10.6.2.3.***

Legislación: LILE, arts. 101 a 106 y 108
LRBRL, arts. 42 a 44, 26, 57 y DA 9
Ley 40/2015, arts. 118 a 127 y DA 10

TOKIKO ZERBITZU PUBLIKOEN ZUZENEKO KUDEAKETA PARTEKATUA EGITEKO BITARTEKO ERAKUNDEAK	
BITARTEKO ERAKUNDEAK: **SORRERA ETA ERREGULAZIOA**	• ETELek **udalerriei aitortzen die elkarte-oinarridun bitarteko erakundeak sortu, aldatu edo ezabatzeko eskubidea**, zerbitzu publikoak batera edo modu partekatuan eman ahal izateko (ETELen 101. art.). • ETELen 101.2 artikuluak gai honi aplika dakizkiokeen **iturri-sistema** ezartzen du: ETEL (horretan arautzen den kontuetan) eta lurralde historikoen foru-arauak. Kontuan hartu beharrekoak dira, gainera, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko 40/2015 Legea (SPAJL), oinarrizkotzat jotzen dituena I. eta VI. kapituluak (Partzuergoak), eta Fundazioei buruzko VII. Kapituluaren 129. artikulua (atxikimendua) eta 134.a (babesletza) (horiek guztiak SPAJLen II. titulukoak), eta 9/2016 Legea, ekainaren 2koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzkoa. • ETELen 101.3 artikuluak **Lurralde Historikoei** aitortzen die **udalerriaz gaindiko erakundeak sortu, aldatu edo ezabatzeko eskumena**. • ETELen 102. artikuluak **elkarte-oinarridun tokiko erakundeak** arautzen ditu, eta aurreikusten du **mankomunitateak eta bestelako elkarte-motak** formula egokia direla **obrak egiteko eta tokiko zerbitzu publikoak emateko**.
MANKOMUNITATEAK (lurralde historiko baten barruan)	• **Iturrien sistema:** 1) toki-araubidearen gaineko oinarrizko legeria; 2) ETEL (salbuespen gisa, eskumen materiala foru-aldundiena baita); 3) lurralde historikoetako foru-organoek emandako araudia. • ***Ikus 4.3 fitxa.***
	Proiektuak, zatikako ziurtapenak, obra-amaierako ziurtagiriak eta abar jasotzea eta haiei oniritzia ematea.	
	Dokumentazioa artxibatzea.	
Txostenak jasotzea	(Halakorik badago).	
Fakturak jasotzea eta kontrolatzea	Aldian-aldian (baldintza-agirietan ezarritakoaren arabera).	
Ikuskapen-bisita	**NORK EGITEN DU**	Organo kontratatzaileko langileak (izendatutako ikuskatzaileak).
	ZENBATEAN BEHIN	Egunero, astero... Beharren eta aukeren arabera.
	EMAITZA	• Aktak egitea. • Kontrol-liburuan jasotzea. • Oharrak.
Baldintzak bete ezean zer egin	• Errekerimenduak.	
	• Zehapen-espedienteei hasiera ematea.	

UDAL-ERAKUNDE KONTRATATZAILEAREN KONTROLA ETA JARRAIPENA: MUGAK	
Enpresa azpikontratista	• Enpresa azpikontratistak bere bitartekoak eta egitura baliatuta ematen du kontratuaren xede den zerbitzua. • Azpikontratistek kontratista nagusiarekiko bakarrik dituzte betebeharrak, eta hark hartzen du kontratua egikaritzeko erantzukizuna administrazioaren aurrean, administrazio-klausulen agirian ezarritakoa kontuan izanda. • Azpikontratistek ez dute zuzeneko ekintzarako ahalmenik administrazio kontratatzailearen aurrean, salbu eta aurreikusita badago administrazio-klausulen agirietan azpikontratistei zuzeneko ordainketak egitea. • Administrazioak modua izango du egiaztatzeko kontratatzaile nagusiak zorrotz betetzen duela azpikontratistei ordaintzeko betebeharra (baldintza-agiriaren egikaritze-baldintza berezietan ezarritakoaren arabera). • Administrazioek nahitaez egin beharko dituzte egiaztatze-jarduketak, 9/2017 Legeak (SPKL) ezarritako kasuetan.
KONTRATISTA NAGUSIAK BOTERE ESLEITZAILEAREN AURREAN EGIN BEHARREKO BETEBEHARRAK	• Baldintza-agiriko azpikontratazioaren atalean aurreikusitako baldintzak justifikatzea. • Ziurtatzea enpresa azpikontratatuek egunean dituztela Gizarte Segurantzari egin beharreko ordainketak. • Laneko arriskuak prebenitzeko eta haietatik babesteko beharrezkoak diren koordinazio-neurriak ezartzea. • Azpikontratistei ezarritako moduan ordaintzea. • Langileen legezko ordezkariei informazioa ematea, lan-legediaren arabera. • Azpikontratistei berariaz exijituko die bete ditzatela kontratua egikaritzeko baldintza bereziak —sozialak, etikoak, ingurumenekoak edo bestelakoak—, zeinak administrazio-klausularen agirian jasotzen baitira.

LOS PLIEGOS DE CONTRATACIÓN HAN DE POSIBILITAR Y REGULAR EL CONTROL Y SEGUIMIENTO DEL CONTRATO

- Contendrán las disposiciones necesarias respecto a la prestación objeto del contrato.
- Contendrán las disposiciones necesarias respecto a los sistemas y modos de control, así como a los elementos que ha de establecer el contratista para que se realice el control y seguimiento por la entidad local.

CONTRATO	CONTENIDOS DE LOS PLIEGOS DE CONTRATACIÓN		
CONTRATOS DE SUMINISTRO de material y energía	**Requisitos del producto suministrado**	• Características de los productos. • Fichas técnicas y de seguridad. • Especificidades de carácter medioambiental (ecoetiqueta,...).	• Envases. • Residuos, instalación. • Manual de uso. • …
	Precio	Precios por unidad.	
	Suministro y reparto	• Plazos.	• Condiciones de entrega.
	Garantías	• Condiciones de garantía.	
	Gestión administrativa de los pedidos	• Vales. • Albaranes.	• Forma de facturación. • …
CONTRATOS DE SERVICIOS (exclusivamente gestión, o gestión, mantenimiento y mejoras obligatorias) Y **CONTRATO MIXTO SUMINISTRO + GESTIÓN** (puede incluir también mantenimiento y mejoras obligatorias)	**PRESTACIONES ASEGURADAS POR EL ADJUDICATARIO**		
	Descripción detallada		
	Frecuencia de los trabajos		
	Licencias , autorizaciones e impuestos		
	Programa de trabajo	• Fijación del objeto del trabajo. • Determinación del equipo humano y medios técnicos (número de operarios, categorías, horarios, maquinaria, locales).	• Calendario de ejecución del trabajo. • Cronograma de trabajos. • Valoración mensual de los trabajos. • Plan de seguridad y salud, en su caso.
	Documentación técnica mantenimiento	• Visitas de mantenimiento preventivo. • Intervenciones de mantenimiento correctivo. • Registro de deficiencias y medidas correctoras efectuadas. • Modificaciones y trabajos por mejoras obligadas. • Modificaciones y trabajos realizados por iniciativa propia. • Calendario de plazos de garantías de los elementos afectados.	• Resultados de mediciones y ensayos (fecha, tipo de operación, piezas sustituidas, operario, observaciones). • Partes de mantenimiento solicitados. • Control y registro de consumos y emisiones u otros parámetros significativos objeto de medición. • Quejas, denuncias recibidas.
	Documentación técnica general	• Esquema e instalaciones, recorridos, servicios, planos. • Inventario de equipos, elementos… actualizados. • Auditorias, certificaciones, homologaciones, inspecciones, etc.	
	Base de datos informática de acceso directo para la entidad local, en formato compatible con los sistemas informáticos del contratante, que permita la explotación de datos.		
	Condiciones de calidad	• Condiciones de calidad en la gestión.	
		Evaluación de la calidad: • El adjudicatario ha de facilitar el control de los contratos. • Hay que protocolizar los parámetros de calidad a medir: definir parámetros y los valores de control. • Hay que definir forma y frecuencia de medición.	
	Disponer de **responsable/s interlocutor/es con la entidad local**, con las **funciones** de:	• Planificar, supervisar y controlar los trabajos. • Emitir informes periódicos de trabajos e incidencias. • Elaborar los históricos informáticos para el seguimiento de los trabajos. • Asistir a las reuniones con la administración y atender sus demandas sobre el contrato.	
	Cumplimiento de las obligaciones medioambientales, sociales o laborales	• Cumplimientos de convenios colectivos. • Cumplimiento de derecho internacional medioambiental, social y laboral.	
	Condiciones especiales de ejecución del contrato	Medioambientales: • Características medioambientales de los medios utilizados, emisiones. • Consumos energéticos y de consumibles. • Generación y gestión de residuos.	En materia social: de igualdad, ética. En materia lingüística…
	Condiciones de seguridad y salud laboral (coordinación actividades empresariales).		
	Criterios lingüísticos durante la ejecución del contrato.		
	Tratamiento de datos de carácter personal /confidencial generados en el marco del contrato.		
	Cumplimiento de las condiciones de subcontratación, cesión del contrato y sucesión de la empresa contratista durante la ejecución del contrato.		
	Condiciones de pago	• Facturación: Abonos al contratista y plazos. • Supuestos de falta de servicio y consecuencias.	
	Penalidades contractuales	• Por demora en la ejecución, incumplimiento parcial o cumplimientos defectuosos.	
	Condiciones de actualización del contrato	• Revisión de precios (si procede). • Modificación de contrato (modificaciones previstas y no previstas en contrato). • Indemnización de daños y perjuicios causados a terceros.	
	Cumplimiento de contrato: Recepción de la prestación.		
	Plazo de garantía y responsabilidad por vicios o defectos en los trabajos.		
	Liquidación del contrato.		
	Extinción del contrato: por cumplimiento o por resolución.		

X. TOKIKO ZERBITZU PUBLIKOEN KUDEAKETA	6. TOKIKO ZERBITZU PUBLIKOAK KUDEATZEKO MODUAK
	3. ZEHARKAKO KUDEAKETA
	2. Kontratuaren betearazpenaren gaineko kontrola eta jarraipena
	2. Kontratazioko baldintza-agirietako zehaztapenak

KONTRATAZIOKO BALDINTZA-AGIRIEK KONTRATUAREN KONTROLA ETA JARRAIPENA AHALBIDETU ETA ARAUTU BEHAR DUTE

- Kontratuaren xedea gauzatzeko beharrezkoak diren xedapenak jasoko dituzte.
- Beharrezko xedapenak jasoko dituzte kontrolerako sistema eta moduei buruz, bai eta kontratistak udal-erakundeak ezarritako kontrol- eta jarraipen-neurriak betetzeko ezarri behar dituen elementuei buruz ere.

KONTRATUA	KONTRATAZIOKO BALDINTZA-AGIRIETAKO EDUKIAK		
HORNIKUNTZAKO KONTRATUAK: materiala eta energia	**Hornikuntzako produktuaren betekizunak**	• Produktuen ezaugarriak. • Fitxa-teknikoak eta segurtasuneko fitxak. • Ingurumenaren arloko espezifikotasunak (ekoetiketak...).	• Ontziak. • Hondakinak; instalazioa. • Erabilera-eskuliburua. • …
	Prezioa	Prezioa, unitate bakoitzeko.	
	Hornikuntza eta banaketa	• Epeak.	• Entregarako baldintzak.
	Bermeak	• Bermearen baldintzak.	
	Eskarien kudeaketa administratiboa	• Txartelak. • Albaranak.	• Fakturatzeko modua. • …

ZERBITZU-KONTRATUAK (kudeaketarako bakarrik, edo kudeaketa, mantentze-lan eta nahitaezko hobekuntzetara-ko) ETA **KONTRATU MISTOAK: HORNIDURA + KUDEAKETA** (mantentze-lanak eta nahitaezko hobekuntzak egiteko ere izan daitezke)	**ESLEIPENDUNAK BERMATUTAKO PRESTAZIOAK**	**Deskribapen zehatza**	
		Lanen maiztasuna	
		Lizentziak, baimenak eta zergak	
		Lan-egitaraua	• Lan-gaia finkatzea. • Lantaldea eta baliabide teknikoak zehaztea (langile kopurua, kategoriak, ordutegiak, makinak, lokalak...).	• Lanak gauzatzeko egutegia. • Lanen kronograma. • Lanen hileroko balorazioa. • Segurtasun- eta osasun-plana, hala dagokionean.
		Mantentze-lanei buruzko dokumentazio teknikoa	• Prebentziozko mantentze-lanei lotutako bisitak. • Mantentze-lan zuzentzaileak egiteko esku-hartzeak. • Hutsuneen eta hartutako neurri zuzentzaileen erregistroa. • Ezinbestean egin beharreko hobekuntzek eragindako aldaketak eta lanak. • Enpresaren beraren ekimenez egindako aldaketak eta lanak. • Ukitutako elementuetarako bermeen epe-egutegiak.	• Neurketen eta entseguen emaitzak (data, eragiketa mota, ordezkatutako piezak, langilea, oharrak). • Eskatutako mantentze-parteak. • Kontsumoen eta emisioen edo neurtu beharreko beste parametro garrantzitsu batzuen kontrola eta erregistroa. • Jasotako kexak eta salaketak.
		Dokumentazio tekniko orokorra	• Eskema eta instalazioak, ibilbideak, zerbitzuak, planoak. • Ekipoen, elementuen eta abarren inbentario eguneratuak. • Auditoretzak, ziurtapenak, homologazioak, ikuskaritzak eta abar.
		Datu-base informatikoa. Toki-erakundeak zuzeneko sarbidea izango du datu-base horretara, eta basearen formatuak bateragarria izan behar du kontratatzailearen sistema informatikoekin. Hain zuzen, datuak ustiatzeko aukera eman behar du.	
		Kalitateari lotutako baldintzak	• Kalitateari lotutako baldintzak kudeaketaren arloan.
		Kalitatearen ebaluazioa	• Esleipendunak erraztasunak eman behar ditu kontratuen gaineko kontrola egin ahal izateko. • Neurtu behar diren kalitate-parametroak protokolizatu behar dira; parametroak eta kontrol-balioak definitzeaz ari gara. • Definitu behar da nola neurtuko diren eta zer maiztasunarekin.
		Arduradunak eta udal-erakundearekiko solaskideak izendatzea. Pertsona horiek eginkizun hauek izango dituzte:	• Lanak planifikatzea, gainbegiratzea eta kontrolatzea. • Lanei eta intzidentziei buruzko txostenak ematea aldiro-aldiro. • Historia informatikoak egitea, lanen jarraipena egin ahal izateko. • Bilerak egitea Administrazioko ordezkariekin, eta kontratuaren gainean egiten dizkieten eskaerei erantzutea.
		Ingurumen, gizarte eta lan arloetako betebeharrak betetzea	• Hitzarmen kolektiboak betetzea. • Ingurumen, gizarte eta lan arloetako nazioarteko zuzenbidea betetzea.
		Kontratua egikaritzeko baldintza bereziak	Ingurumenaren arloan: • Ingurumenari lotutako alderdien ezaugarriak erabilitako bitartekoetan eta emisioetan. • Kontsumoak: energia eta ondasun kontsumigarriak. • Sortutako hondakinak eta haien kudeaketa.	Gizartearen arloan: berdintasuna, etika. Hizkuntzaren arloan...
		Laneko segurtasunari eta osasunari buruzko baldintzak (enpresa-jardueren koordinazioa).	
		Kontratua egikaritzen den bitartean bete beharreko hizkuntza-irizpideak.	
		Kontratuaren testuinguruan sortutako **izaera pertsonaleko datuak / datu konfidentzialak tratatzea**.	
		Kontratua egikaritzen den bitartean, enpresa kontratistak azpikontratazioaren, kontratu-lagapenaren eta ondorengotzaren arloetan bete beharreko baldintzak betetzea.	
		Ordainketa-baldintzak	• Fakturazioa: Kontratistari egin beharreko ordainketak eta epeak. • Zerbitzua falta deneko kasuak eta horrek dakartzan ondorioak.
		Kontratua ez betetzeak dakartzan zehapenak	• Egikaritze-atzerapenagatik, zati bat ez betetzeagatik edo oker betetzeagatik.
		Kontratua eguneratzeko baldintzak	• Prezioak aztertzea (hala badagokio). • Kontratua aldatzea (aurreikusitako eta aurreikusi gabeko kontratu-aldaketak). • Hirugarrenei eragindako kalte-galerengatiko ordainak.
		Kontratua betetzea: Prestazioa jasotzea.	
		Lanetan gertatutako akats edo hutsei erantzuteko bermearen eta erantzukizunaren epea.	
		Kontratuaren likidazioa.	
		Kontratua azkentzea: bete delako edo suntsitu delako.	

XI.

SEKTORE PUBLIKOKO KONTRATUAK

CONTRATOS DEL SECTOR PÚBLICO

XI.

Contratos del sector público

1. Legislación aplicable en la administración local.
2. Ámbito subjetivo de aplicación de la Ley de Contratos del Sector Público.
3. Tipos de contratos administrativos por su objeto.
4. Contratos excluidos de la Ley de Contratos del Sector Público.
5. Clases y objeto de los contratos.
6. Requisitos de los contratos.
7. Órganos de contratación.
8. Capacidad para contratar con la Administración.
9. Expedientes de contratación.
10. Pliegos de cláusulas administrativas y de prescripciones técnicas.
11. Condiciones especiales de ejecución.
12. Procedimientos y formas de adjudicación.
13. Publicidad y plazos.
14. Perfil del contratante.
15. Procedimiento negociado: supuestos.
16. Procedimiento abierto simplificado.
17. Contratos menores.
18. Formalización, interpretación, fraccionamiento y duración del contrato.
19. Adjudicación de los contratos.
20. Ejecución y modificación del contrato.
21. Prórroga y resolución del contrato.
22. Esquema del expediente de contratación.

XI.

Sektore publikoko kontratuak

1. Toki-administraziorako legeria aplikagarria.
2. Sektore Publikoko Kontratuen Legearen aplikazio eremu subjektiboa.
3. Administrazio-kontratuen motak, xedearen arabera.
4. Sektore Publikoko Kontratuen legetik salbuetsitako kontratuak.
5. Kontratu motak eta kontratuen xedea.
6. Kontratuen eskakizunak.
7. Kontratazio-organoak.
8. Administrazioarekin kontratatzeko ahalmena.
9. Kontratazio-espedienteak.
10. Administrazio-klausulen eta baldintza teknikoen agiriak.
11. Betearazteko baldintza bereziak.
12. Esleipena egiteko prozedurak eta moduak.
13. Publizitatea eta epeak.
14. Kontratatzailearen profila.
15. Prozedura negoziatua: kasuak.
16. Prozedura ireki erraztua.
17. Kontratu txikiak.
18. Kontratuaren formalizazioa, interpretazioa, zatikatzea eta iraupena.
19. Kontratuak esleitzea.
20. Kontratua betetzea eta aldatzea.
21. Kontratua luzatzea eta suntsiaraztea.
21. Kontratazio-espedientearen eskema.


RÉGIMEN JURÍDICO APLICABLE A LOS CONTRATOS EN EL ÁMBITO LOCAL

LEGISLACIÓN BÁSICA ESTATAL DE CARÁCTER GENERAL	• Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público (LCSP). • Reglamento de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas (RD 1098/2001, de 12 de octubre). • Real Decreto Ley 3/2020, de 4 de febrero, de medidas urgentes por el que se incorporan al ordenamiento jurídico español diversas directivas de la Unión Europea en el ámbito de la contratación pública en determinados sectores; de seguros privados; de planes y fondos de pensiones; del ámbito tributario y de litigios fiscales. • Real Decreto Ley 36/2020, de 30 de diciembre, por el que se aprueban medidas urgentes para la modernización de la Administración Pública y para la ejecución del Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia.
LEGISLACIÓN DE RÉGIMEN LOCAL	• Derogados los artículos de la Ley de Bases del Régimen Local y Real Decreto 781/86 relativos a contratos. • Reglamento de Servicios de las Corporaciones Locales.
LEGISLACIÓN COMUNITARIA	• Directivas del Parlamento Europeo y del Consejo 2014/23/UE y 2014/24/UE, de 26 de febrero de 2014.
LEGISLACIÓN AUTONÓMICA	• Ley 3/2016, de 7 de abril, para la inclusión de determinadas cláusulas sociales en la contratación pública.

Guía Local - ISBN 978-84-7777-690-1

KONTRATUEI APLIKA DAKIEKEEN ARAUBIDE JURIDIKOA TOKI-EREMUAN

ESTATUKO OINARRIZKO LEGERIA OROKORRA	• 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena (SPKL). • Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Araudi Orokorra (1098/2001 ED, urriaren 12koa). • 3/2020 Errege Lege Dekretua, otsailaren 4koa, presako neurriena eta zeinaren bidez Espainiako ordenamendu juridikoan txertatzen baitira Europar Batasuneko zenbait zuzentarau honako eremu hauetan: sektore jakin batzuetako kontratazio publikoa, aseguru pribatuak, pentsio-planak eta -funtsak, tributuen eremua eta auzi fiskalak. • 36/2020 Errege Lege Dekretua, abenduaren 30ekoa, zeinaren bidez presako neurriak onartzen baitira Administrazio Publikoa modernizatzeko eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana egikaritzeko.
TOKI-ARAUBIDEAREN LEGERIA	• Toki Araubidearen Oinarrien Legearen eta 781/86 Errege Dekretuaren kontratuei buruzko artikuluak indargabetu dira. • Toki Korporazioen Zerbitzuen Erregelamendua.
EUROPAKO ERKIDEGOKO LEGERIA	• Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauak, 2014ko otsailaren 26koak.
AUTONOMIA-ERKIDEGOKO LEGERIA	• 3/2016 Legea, apirilaren 7koa, Zenbait Klausula Sozial Kontratazio Publikoan Sartzekoa.




DIFERENTE GRADO DE INTENSIDAD DE APLICACIÓN DE LA LCSP

<table>
<tr><td>ADMINISTRACIÓN PÚBLICA
(art. 3.2 LCSP)</td><td colspan="2">• Administración General del Estado, de las CC.AA y de las Entidades Locales.
• Entidades Gestoras y los Servicios comunes de la Seguridad Social.
• Organismos Autónomos.
• Universidades Públicas.
• Autoridades Administrativas Independientes.
• Consorcios y Entidades de Derecho Público vinculadas a la Administración Pública, que no se financien mayoritariamente con ingresos de mercado, y que cumplan los requisitos del artículo 3.3 d) LCSP.
• Diputaciones Forales y Juntas Generales.</td><td>Aplicación plena de la LCSP.</td></tr>
<tr><td rowspan="3">ENTIDADES QUE NO SON ADMINISTRACIÓN PÚBLICA

PERO SON PODERES ADJUDICADORES
• Las fundaciones públicas.
• Las Mutuas colaboradoras de la Seguridad Social.
• Todas las demás entidades con personalidad jurídica, creadas para satisfacer necesidades de interés general, que no tengan carácter industrial o mercantil, siempre que un poder adjudicador financie mayoritariamente su actividad, controle su gestión, o nombre a más de la mitad de los miembros de su órgano de administración, dirección o vigilancia.
• Las asociaciones constituidas por las entidades mencionadas en los párrafos anteriores.
(art. 3.3 LCSP)</td><td rowspan="2">PREPARACIÓN Y ADJUDICACIÓN</td><td>CONTRATOS SUJETOS A REGULACIÓN ARMONIZADA (SARA)</td><td>Uniformidad de régimen: estas entidades aplicarán en la preparación y adjudicación de sus contratos las mismas normas que las Administraciones Públicas.</td></tr>
<tr><td>CONTRATOS NO SUJETOS A REGULACIÓN ARMONIZADA (NO SARA)</td><td>Desaparecen las Instrucciones de Contratación.</td></tr>
<tr><td>EFECTOS Y EXTINCIÓN</td><td colspan="2">Normas de derecho privado.
Les son de aplicación, además, los siguientes artículos:
• Art. 201 sobre obligaciones medioambientales, sociales y laborales.
• Art. 202 sobre condiciones especiales de ejecución.
• Arts. 203 a 205 sobre modificación de contratos.
• Arts. 214 a 217 sobre cesión y subcontratación.
• Arts. 218 a 228 sobre racionalización de la contratación.
• Arts. 198, 210 y 243 sobre condiciones de pago.
• Art. 211 letra i) sobre causa de resolución del contrato.
• Arts. 279 y 294 sobre causas de resolución.</td></tr>
<tr><td>• Los partidos políticos, organizaciones sindicales, organizaciones empresariales y asociaciones profesionales, además de las fundaciones y asociaciones vinculadas, cuando cumplan los requisitos para ser poder adjudicador.
(art. 3.4 LCSP)</td><td>EXCEPCIÓN</td><td colspan="2">CONTRATOS SARA: aplican principios de publicidad, concurrencia, transparencia, igualdad y no discriminación.
Aprobarán y publicarán en sus páginas web Instrucciones internas de Contratación.</td></tr>
<tr><td rowspan="2">ENTIDADES QUE NO SON ADMINISTRACIÓN PÚBLICA
Y
NO SON PODERES ADJUDICADORES
(art. 3.1 LCSP)</td><td>PREPARACIÓN Y ADJUDICACIÓN</td><td colspan="2">• Aprobarán unas instrucciones en las que se aplicarán los principios de publicidad, concurrencia, transparencia, confidencialidad, igualdad y no discriminación.
• Cabe adjudicar los contratos sin aplicar las instrucciones, sujetándose a ciertas reglas.</td></tr>
<tr><td>EFECTOS Y EXTINCIÓN</td><td colspan="2">Normas de derecho privado.</td></tr>
</table>

Legislación: Ley de Contratos del Sector Público, art. 3

Guía Local - ISBN 978-84-7777-690-1



SPKL-REN APLIKAZIOAREN INTENTSITATE-MAILA DESBERDINA

<table>
<tr><td>ADMINISTRAZIO PUBLIKOA
(SPKL, 3.2 art.)</td><td colspan="2">• Estatuko, autonomia-erkidegoetako eta toki-erakundeetako Administrazio Orokorra.
• Gizarte Segurantzako erakunde kudeatzaileak eta zerbitzu erkideak.
• Organismo autonomoak.
• Unibertsitate publikoak.
• Administrazio-agintaritza independenteak.
• Zuzenbide publikoko partzuergo eta erakundeak, administrazio publikoari lotutakoak, gehienbat merkatuko diru-sarrerekin finantzatzen ez direnak eta SPKLren 3.3 d) artikuluko eskakizunak betetzen dituztenak.
• Foru-aldundiak eta batzar nagusiak.</td><td>SPKL osorik aplikatzea.</td></tr>
<tr><td rowspan="3">ADMINISTRAZIO PUBLIKO EZ DIREN ERAKUNDEAK

BAINA BOTERE ESLEITZAILE DIRENAK
• Fundazio publikoak.
• Gizarte Segurantzari laguntzen dioten mutualitateak.
• Nortasun juridikoa daukaten gainerako erakunde guztiak, interes orokorreko premiei erantzuteko sortuak direnean eta industria- edo merkataritza-izaerarik ez dutenean, baldin eta horien jarduera gehienbat botere esleitzaile batek finantzatzen badu, horien kudeaketa kontrolatzen badu edo administrazio-, zuzendaritza- edo zaintza-organoko kideen erdiak baino gehiago izendatzen baditu.
• Aurreko paragrafoetan aipatutako erakundeek sortutako elkarteak.
(SPKL, 3.3 art.)</td><td rowspan="3">PRESTATZEA ETA ESLEITZEA</td><td>ERREGULAZIO HARMONIZATUKO KONTRATUAK (SARA)</td><td>Araubide-batasuna: beren kontratuak prestatu eta esleitzean administrazio publikoen arau berberak aplikatuko dituzte erakunde horiek.</td></tr>
<tr><td>ERREGULAZIO HARMONIZATUKOAK EZ DIREN KONTRATUAK (EZ SARA)</td><td>Kontratazio-jarraibideak desagertu dira.</td></tr>
<tr><td colspan="2">ONDORIOAK ETA AZKENTZEA</td><td>Zuzenbide pribatuko arauak.
Gainera, artikulu hauek aplikatzen zaizkie:
• 201. artikulua, ingurumen-, gizarte- eta lan-betebeharrei buruzkoa.
• 202. artikulua, egikaritzeko baldintza bereziei buruzkoa.
• 203.-205. artikuluak, kontratuak aldatzeari buruzkoak.
• 214.-217. artikuluak, lagapenari eta azpikontratazioari buruzkoak.
• 218.-228. artikuluak, kontratazioa arrazionalizatzeari buruzkoak.
• 198., 210. eta 243. artikuluak, ordaintzeko baldintzei buruzkoak.
• 211. artikulua, i) letra, kontratua azkentzeko kausari buruzkoa.
• 279. eta 294. artikuluak, azkentzeko arrazoiei buruzkoak.</td></tr>
<tr><td>• Alderdi politikoak, erakunde sindikalak, enpresarien elkarteak eta profesionalen elkarteak; bai eta lotutako fundazioak eta elkarteak ere, botere esleitzaile izateko eskakizunak dituztenean.
(SPKL, 3.4 art.)</td><td colspan="2">SALBUESPENA</td><td>ERREGULAZIO HARMONIZATUKO KONTRATUAK: publikotasun, lehia, gardentasun, berdintasun eta diskriminaziorik ezaren printzipioak aplikatzen dira.
Kontratazioko barne-jarraibideak onetsiko dituzte eta beren webguneetan argitaratu.</td></tr>
<tr><td rowspan="2">ADMINISTRAZIO PUBLIKO EZ DIREN ETA BOTERE ESLEITZAILE EZ DIREN ENTITATEAK
(SPKL, 3.1 art.)</td><td>PRESTATZEA ETA ESLEITZEA</td><td>• Jarraibideak onartuko dituzte eta horietan publikotasun, lehia, gardentasun, konfidentzialtasun, berdintasun eta diskriminaziorik ezaren printzipioak aplikatuko dira.
• Kontratuak esleitu daitezke jarraibideak aplikatu gabe, arau jakin batzuei jarraikiz.</td></tr>
<tr><td>ONDOROAK ETA AZKENTZEA</td><td>Zuzenbide pribatuko arauak.</td></tr>
</table>

Legeria: Sektore Publikoko Kontratuen Legea, 3. art.

TIPOS DE CONTRATOS por el objeto	
OBRAS	• Realización de una **obra**. • Realización de alguno de los trabajos enumerados en el **Anexo I de la LCSP**. • **Podrá** comprender la **redacción** del correspondiente **proyecto**. • Por «obra» se entenderá el resultado de un conjunto de trabajos de **construcción o de ingeniería civil**, destinado a cumplir por sí mismo una función económica o técnica, que tenga por objeto un bien inmueble. • También se considerará «obra» la realización de trabajos que **modifiquen la forma o sustancia del terreno o de su vuelo**, o de mejora del medio físico o natural. • Los contratos de obras **se referirán a una obra completa**, entendiendo por esta la susceptible de ser entregada al uso general o al servicio correspondiente. • Podrán contratarse obras definidas mediante **proyectos independientes** relativos a cada una de las partes de una obra completa, siempre que estas sean susceptibles de utilización independiente.
SUMINISTROS	• **Arrendamiento** financiero, arrendamiento, con o sin opción de compra de **bienes muebles**. • **Adquisición de productos o bienes muebles**. • Entrega de **pluralidad de bienes de forma sucesiva** y por precio unitario sin definir la cuantía total a la firma del contrato. • Adquisición o arrendamiento de **equipos o sistemas para el tratamiento de la información**, sus dispositivos y programas y la cesión del derecho de uso. • **Fabricación de cosas** con arreglo a características especiales. • Los que tengan por objeto la **adquisición de energía primaria o energía transformada**. • **SE EXCLUYEN**: → Los relativos a **propiedades incorporales y valores negociables**. → Adquisición de **programas de ordenador a medida** (son contratos de servicios).
SERVICIOS	• Aquéllos cuyo objeto son prestaciones de hacer consistentes en el desarrollo de una actividad o dirigidas a la obtención de un resultado **distinto de una obra o un suministro**, incluyendo aquellos en que el adjudicatario se obligue a ejecutar el servicio de forma sucesiva y por precio unitario.
CONCESIÓN DE SERVICIOS	• Aquellos cuyo objeto sea la **prestación de un servicio** y cuya contrapartida venga constituida bien por el **derecho a explotar los servicios** objeto del contrato o bien por dicho derecho acompañado del de percibir un precio. • El derecho de explotación de los servicios **implicará la transferencia al concesionario del riesgo operacional**. • Se considerará que el concesionario asume un riesgo operacional cuando **no esté garantizado** que, en condiciones normales de funcionamiento, el mismo **vaya a recuperar las inversiones** realizadas ni a cubrir los costes en que hubiera incurrido como consecuencia de la explotación que sea objeto de la concesión. La parte de los riesgos transferidos al concesionario debe suponer una exposición real a las incertidumbres del mercado que implique que cualquier pérdida potencial estimada en que incurra el concesionario no es meramente nominal o desdeñable.
CONCESIÓN DE OBRA	• Tiene por objeto la **realización de una obra**, incluidas las de restauración y reparación de construcciones existentes, así como la conservación y mantenimiento de elementos construidos, y en el que la contraprestación a favor del concesionario consiste, o bien únicamente en el **derecho a explotar la obra,** o bien en dicho derecho acompañado del de percibir un precio.
CONTRATOS MIXTOS	• Cuando un contrato contenga **prestaciones correspondientes a otros u otros de distinta clase**. • La determinación de las normas aplicables a la adjudicación se rige por distintas reglas en función de los distintos contratos que configuran el contrato mixto.

CLASES DE CONTRATOS por el objeto y la cuantía	
Contratos sujetos a regulación armonizada (SARA)	• Contratos de **obra y de concesión de obra y concesión de servicio**: valor estimado igual o superior a **5.404.000 €** (IVA excluido). • Contratos de **suministro**: valor estimado igual o superior a **216.000 €** (IVA excluido). • Contratos de **servicios**: valor estimado igual o superior a **216.000 €** (IVA excluido). • Contratos de **servicios sociales** y otros servicios enumerados en el Anexo IV de la LCSP: valor estimado igual o superior a **750.000 €** (IVA excluido). (En el cálculo del importe total estimado, deberán tenerse en cuenta cualquier forma de opción eventual y las eventuales prórrogas del contrato. En el caso de que, utilizando lo dispuesto en el art. 204 de la LCSP, se haya previsto en los pliegos la posibilidad de que el contrato sea modificado al alza, el valor estimado del contrato **incluirá la cantidad prevista por la modificación**).
Contratos no sujetos a regulación armonizada (NO SARA)	• **Resto de contratos**.

Legislación: Ley de Contratos del Sector Público, arts. 12 a 23

KONTRATU MOTAK, xedearen arabera	
OBRAK	• **Obra** bat egitea. • **SPKLren I. eranskinean** zerrendatzen diren lanetako bat egitea. • Dagokion **proiektua idaztea** ere **jaso ahal izango du**. • «Obratzat» joko da ondasun higiezin bat xede duten eta eginkizun ekonomiko edo tekniko bat betetzeko egiten diren **eraikuntzako edo ingeniaritza zibileko** lan batzuen emaitza. • Halaber, «obratzat» joko da lurraren edo haren hegalaren **forma edo funtsa aldatzen duten lanak,** edo ingurune fisikoa edo naturala hobetzekoak. • Obra-kontratuak **obra oso bati buruzkoak izango dira**, eta obra osoa erabilera orokorrari edo dagokion zerbitzuari eman dakiokeena da. • **Proiektu independenteen** bidez definitutako obrak kontratatu ahalko dira, proiektu horiek obra oso baten zati bakoitzari dagozkionak, zati horiek modu independentean erabili ahal badira.
HORNIDURAK	• **Ondasun higigarrien** finantza-**errentamendua** edo errentamendua, erosketa-aukerarekin edo gabe. • **Produktuak edo ondasun higigarriak eskuratzea**. • **Ondasun asko hurrenez hurren** eta prezio unitario baten truke entregatzea, kontratua egiteko garaian kopuru osoa zehaztasunez mugatu gabe. • **Informazioa tratatzeko ekipoak edo sistemak** erostea edo alokatzea, eta horien gailuak eta programak, eta erabilera-eskubidea lagatzea. • Ezaugarri bereziak dituzten **gauzak fabrikatzea**. • **Lehen mailako energia edo energia eraldatua** erostea xede dutenak. • **HONAKO HAUEK SALBUESTEN DIRA**: → **Jabetza gorpuzgabeei eta balore negoziagarriei** dagozkienak. → **Neurrira egindako ordenagailu-programak** erostea (zerbitzu-kontratuak dira).
ZERBITZUAK	• Objektu hau dutenak dira: jarduera bat garatuz prestazioak ematea edo **obraz edo horniduraz bestelako** emaitza bat lortzera bideratutako prestazioak ematea; halako kontratuen artean daude, besteak beste, esleipenduna zerbitzuak hurrenez hurren eta prezio unitario baten truke ematera behartzen den kontratuak.
ZERBITZU-EMAKIDA	• **Zerbitzu bat ematea** xede dutenak, horien ordaina izanik edo kontratuaren objektua diren **zerbitzuak ustiatzeko eskubidea**, edo eskubide hori izatea eta harekin batera prezio bat jasotzea. • Zerbitzuak ustiatzeko eskubideak **emakidadunari eragiketa-arriskua eskualdatzea ekarriko du berekin.** • Kasu honetan irizten zaio emakidadunak eragiketa-arrisku bat hartzen duela bere gain: emakidadunak **bermatuta ez daukanean**, funtzionamenduko baldintza normaletan, egindako **inbertsioak berreskuratuko dituenik** edo emakidaren xede diren obren ustiapenaren ondorioz izan dituen kostuak estaliko dituenik. Emakidadunak hartutako arriskuak merkatuko ziurgabetasunen aurreko esposizio erreal bat ekarri beharko du berekin, eta emakidadunak izan dezakeen galera zenbatetsi oro galera nominal hutsa ez izatea, baizik eta kontuan hartzeko modukoa.
OBRA-EMAKIDA	• **Obra bat egitea** dute xedetzat, besteak beste, aurretik dauden eraikuntzen lehengoratzea eta konponketa, bai eta eraikitako elementuen kontserbazioa eta mantentze-lanak, eta emakidadunaren aldeko kontraprestazioa honetan datza: alde batetik, soil-soilik **obra ustiatzeko eskubidea** jasotzean, eta bestetik, eskubide hori jasotzean gehi prezio bat jasotzean.
KONTRATU MISTOAK	• **Beste mota bateko kontratu bati edo batzuei dagozkien prestazioak** biltzen dituen kontratua da. • Esleipenari aplikatu beharreko arauen zehaztapena hainbat arauren bidez arautzen da, kontratu mistoa osatzen duten kontratuen arabera.

KONTRATU MOTAK, xedearen eta zenbatekoaren arabera	
Erregulazio harmonizatuko kontratuak (SARA)	• **Obra**-kontratuak **eta obra-emakidako- eta zerbitzu-emakidako** kontratuak: balio zenbatetsia, **5.404.000 €** edo gehiago (BEZik gabe). • **Hornidura-**kontratuak: balio zenbatetsia, **216.000 €** edo gehiago (BEZik gabe). • **Zerbitzu-**kontratuak: balio zenbatetsia, **216.000 €** edo gehiago (BEZik gabe). • **Gizarte-zerbitzuen** eta SPKLren IV. eranskinean zerrendatutako beste zerbitzuen kontratuak: balio zenbatetsia, **750.000 €** edo gehiago (BEZik gabe). (Balio zenbatetsi osoa kalkulatzean, kontuan hartu beharko da egon litekeen edozein aukera mota, baita egon litzekeen kontratu-luzapenak ere. SPKLren 204. artikuluan xedatutakoa baliatuta, kontratua aldatzeko aukera aurreikusi bada klausulen agirietan, kontratuaren balio zenbatetsian **aldaketak aurreikusitako zenbatekoa ere bilduko da**).
Erregulazio harmonizatukoak ez diren kontratuak (EZ SARA)	• **Gainerako kontratuak**.

Legeria: Sektore Publikoko Kontratuen Legea, 12.-23. artikuluak

CONTRATOS EXCLUIDOS DEL ÁMBITO DE APLICACIÓN DE LA LCSP

- Se regularán por sus **normas especiales**.
- Se aplicarán los **principios de la LCSP, para resolver dudas y lagunas**.

SE REGIRÁN POR SUS NORMAS ESPECIALES

Las **relaciones** de la Administración con (art. 11 LCSP):

- Los **funcionarios** públicos y el **personal laboral**.
- Los **usuarios** de servicios públicos.

Los **convenios de colaboración** con: (art. 6 LCSP):

- Otras **Administraciones Públicas y sus Organismos Autónomos y Entidades Públicas**, cuyo contenido no esté comprendido en los contratos regulados en la LCSP.
- Las **personas físicas o jurídicas sujetas al derecho privado,** siempre que su objeto no esté comprendido en los contratos regulados en la LCSP o en normas administrativas especiales.
- Las **encomiendas de gestión** reguladas en la ley 40/2015 de Régimen Jurídico del Sector Público.

Contratos por los que una **entidad del sector público se obligue a entregar bienes o derechos** o a prestar algún servicio, sin perjuicio de que el adquirente de los bienes o el receptor de los servicios, si es una entidad del sector público sujeta a esta Ley, deba ajustarse a sus prescripciones para la celebración del correspondiente contrato.

Los **contratos** de:

- Servicios de **arbitraje y conciliación**.
- Servicios relacionados con las **campañas políticas, cuando sean adjudicados por un partido político**.

- Negocios jurídicos y contratos excluidos en el ámbito de la **Defensa y de la Seguridad** (art. 5 LCSP).
- Negocios jurídicos y contratos excluidos en el **ámbito internacional** (art. 7 LCSP).
- Negocios jurídicos y contratos excluidos en el ámbito de la **Investigación, el Desarrollo y la innovación** (art. 8 LCSP).
- Negocios y contratos excluidos en el **ámbito financiero** (art. 10 LCSP).

Los encargos a medios propios: Encargos a entidades y sociedades que tengan atribuida la condición de medio propio y servicio técnico de los poderes adjudicadores, siempre que estas sociedades y entidades realicen más del 80% de su actividad con la entidad o entidades que las controlan (art. 32 LCSP).

El importe de las prestaciones parciales que el medio propio pueda contratar con terceros no excederá del 50% de la cuantía del encargo.

Las relaciones jurídicas, negocios y contratos excluidos en el ámbito del **dominio público y en el ámbito patrimonial** (art. 9 LCSP):

- Las **autorizaciones y concesiones sobre bienes de dominio público** y los contratos de explotación de bienes patrimoniales distintos a los definidos en el artículo 14, que se regularán por su legislación específica salvo en los casos en que expresamente se declaren de aplicación las prescripciones de la LCSP.
- Los **contratos de compraventa, donación, permuta, arrendamiento** y demás negocios jurídicos análogos sobre **bienes inmuebles, valores negociables y propiedades incorporales** (a no ser que recaigan sobre programas de ordenador y deban ser calificados como contratos de suministro o servicios), que tendrán siempre el carácter de contratos privados y se regirán por la legislación patrimonial.

La **prestación de servicios sociales por entidades privadas**, siempre que esta se realice sin necesidad de celebrar contratos públicos, a través, entre otros medios, de la simple financiación de estos servicios o la concesión de licencias o autorizaciones a todas las entidades que cumplan las condiciones previamente fijadas por el poder adjudicador, sin límites ni cuotas, y que dicho sistema garantice una publicidad suficiente y se ajuste a los principios de transparencia y no discriminación. (art. 11.6 LCSP).

Legislación: Ley de Contratos del Sector Público, arts. 4 a 11

SPKL-REN APLIKAZIO-EREMUTIK SALBUETSITAKO KONTRATUAK

- **Arau bereziekin** arautuko dira.
- **Zalantza eta hutsuneak argitzeko, SPKLren printzipioak** aplikatuko dira.

HORREN ARAU BEREZIEN BIDEZ ARAUTUKO DIRA

Administrazioak hauekin dauzkan **harremanak** (SPKL, 11. art.):

- **Funtzionario** publiko eta **lan-legepeko langileekin**.
- Zerbitzu publikoen **erabiltzaileekin**.

Lankidetza-hitzarmenak honako hauekin: (SPKL, 6. art.)

- **Beste administrazio publiko batzuekin eta horien erakunde autonomo eta erakunde publikoekin**, horien edukia ez badago jasota SPKLn araututako kontratuetan.
- **Zuzenbide pribatuari lotutako pertsona fisiko zein juridikoekin,** baldin eta horien xedea ez bada jasotzen SPKLn nahiz berariazko administrazio-arauetan araututako kontratuetan.
- Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legean araututako **kudeaketa-esleipenak**.

Sektore publikoko erakunde bat ondasunak edo eskubideak ematera edo zerbitzuren bat betetzera **behartzen duten** kontratuak; dena den, ondasunen eskuratzailea edo zerbitzuen hartzailea lege honen peko sektore publikoko erakundea bada, dagokion kontratua egiteko, lege honetan ezarritako arauak bete beharko ditu.

Honako **kontratu** hauek:

- **Arbitraje- eta adiskidetze**-zerbitzuenak.
- **Kanpaina politikoekin** lotutako zerbitzuenak, **alderdi politiko baten esleitzen dituenean.**

- **Defentsaren eta segurtasunaren eremuan** salbuetsitako negozio juridikoak eta kontratuak (SPKL, 5. art.).
- **Nazioarteko eremuan** salbuetsitako negozio juridikoak eta kontratuak (SPKL, 7. art.).
- **Ikerketaren, garapenaren eta berrikuntzaren** eremuan salbuetsitako negozio juridikoak eta kontratuak (SPKL, 8. art.).
- **Finantza-eremutik** salbuetsitako negozioak eta kontratuak (SPKL, 10. art.).

Bitarteko propioei emandako mandatuak: Botere esleitzaileen bitarteko propio edo zerbitzu tekniko direlako adierazpena egotzita daukaten entitate eta sozietateei egindako mandatuak, baldin eta sozietate eta entitate horiek beren jardueraren % 80 baino gehiago kontrolatzen dituzten entitateekin gauzatzen badute (SPKL, 32. art.).

Bitarteko propioak hirugarrenekin prestazio partzialak kontratatzen baditu, haien zenbatekoa ez da izango mandatuaren zenbatekoaren % 50etik gorakoa.

Jabari publikoaren eremuan eta ondarearen eremuan kanpoan utzitako harreman juridikoak, negozioak eta kontratuak (SPKL, 9. art.):

- Ondare-ondasunak ustiatzeko kontratu batzuk eta **jabari publikoko ondasunei buruzko baimen eta emakida batzuk**, 14. artikuluan zehaztutakoez bestekoak, eta beren legeria espezifikoa izango dute araubide, berariaz lege honetako aginduak aplikatu behar zaizkiela adierazten denean izan ezik.
- **Ondasun higiezinen, balore negoziagarrien eta ondasun gorpuzgabeen** gainean egindako **salerosketa-, dohaintza-, truke- eta errentamendu-kontratuak** eta gainerako antzeko negozio juridikoak (ordenagailu programei buruzkoak salbu; kasu horretan, hornidura- edo zerbitzu-kontratutzat joko dira eta). Aipatutako horiek guztiek kontratu pribatuen izaera izango dute, eta ondare-legeriaren pean egongo dira.

Erakunde pribatuek zerbitzuak ematea, baldin eta zerbitzu-emate hori egiten bada kontratu publikoak egiteko beharrik gabe, besteak beste honako bitarteko hauen bitartez: zerbitzu horien finantzaketa soila, edo botere esleipendunak aurrez finkatutako baldintzak betetzen dituzten erakunde guztiei lizentziak edo baimenak ematea, mugarik eta kuotarik ezarri gabe, baldin eta sistema horrek publizitate nahikoa bermatzen badu eta gardentasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioei egokitzen bazaie. (SPKL, 11.6 art.).

Legeria: Sektore Publikoko Kontratuen Legea, 4.-11. artikuluak

CLASES	CONTRATOS ADMINISTRATIVOS TÍPICOS	CONTRATOS ADMINISTRATIVOS ESPECIALES	CONTRATOS PRIVADOS DE LAS ADMINISTRACIONES PÚBLICAS
OBJETO	• Contrato de **obras**. • Contrato de **suministros**. • Contrato de **servicios**. • Concesión de obra. • **Concesión de servicios**. • **Contrato mixto**.	Con **objeto diferente** a los contratos administrativos típicos pero revisten **carácter administrativo:** 1. Por resultar **vinculados al giro o tráfico específico** de la Administración contratante. 2. Por **satisfacer de forma directa o inmediata una finalidad pública** de la específica competencia de aquélla y siempre que no tengan carácter de contrato privado. 3. Por declararlo así una **Ley**.	• Los contratos de **suscripción a revistas** y otras publicaciones, bases de datos. • Los contratos de **servicios financieros**; los que tengan por objeto la **creación e interpretación artística y literaria** y los de espectáculos.
RÉGIMEN JURÍDICO	**LEY 9/2017, DE 8 DE NOVIEMBRE, DE CONTRATOS DEL SECTOR PÚBLICO** Y **REGLAMENTO** DE LA LEY DE CONTRATOS DE LAS ADMINISTRACIONES PÚBLICAS (RGLCAP)	Estos contratos se rigen **por sus propias normas** con carácter preferente, y supletoriamente por la Ley de Contratos del Sector Público.	Los contratos privados se regirán, en cuanto a su **preparación y adjudicación, por la LCSP** y disposiciones de desarrollo y, en cuanto a sus **efectos, modificación y extinción, por las normas de derecho privado**.
JURISDICCIÓN COMPETENTE	El orden jurisdiccional **contencioso administrativo**.	El orden jurisdiccional **contencioso administrativo.**	• Orden jurisdiccional **contencioso administrativo:** → Actos de **preparación y adjudicación.** → Impugnación de **modificación de contratos SARA.** • Orden **jurisdiccional civil**: → **Efectos, cumplimiento y extinción de los contratos**.

Legislación: Ley de Contratos del Sector Público, arts. 24 a 27

MOTAK	ADMINISTRAZIO-KONTRATU TIPIKOAK	ADMINISTRAZIO-KONTRATU BEREZIAK	ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN KONTRATU PRIBATUAK
XEDEA	• **Obra**-kontratua. • **Hornidura**-kontratua. • **Zerbitzu**-kontratua. • **Obra-emakida.** • **Zerbitzu-emakida**. • **Kontratu mistoa**.	**Administrazio-kontratu tipikoen xedeaz** besteko bat eduki arren, **administrazio-izaera** daukaten kontratuak: 1. Administrazio kontratugilearen **berariazko igorpen nahiz trafikoari lotuta** daudelako. 2. Administrazioaren berariazko eskumeneko **helburu publikoren bati zuzenean edo berehala erantzuteko direlako**, baldin eta kontratu pribatuaren izaerarik ez badute. 3. **Lege** batek halakotzat jotzen duelako.	• **Aldizkari** eta beste argitalpen batzuetara edo datu-baseetara **harpidetzeko** kontratuak. • **Finantza-zerbitzuen** kontratuek eta **sormen eta interpretazio artistiko eta literarioa** xede dutenek eta ikuskizunei buruzkoek.
ARAUBIDE JURIDIKOA	**9/2017 LEGEA, AZAROAREN 8KOA, SEKTORE PUBLIKOKO KONTRATUENA** ETA ADMINISTRAZIOEN PUBLIKOEN KONTRATUEN LEGEAREN **ERREGELAMENDUA** (HAKLEO)	Kontratu horiek, lehentasunez, **euren arauen bidez** eraentzen dira, eta, era osagarrian, Sektore Publikoko Kontratuen Legean xedatutakoaren bidez.	Kontratu pribatuak, **beren prestaketa eta esleipenari** dagokienez, **SPKLren** eta garapeneko xedapenen bidez eraenduko dira, eta **ondorioei, aldaketari eta amaierari dagokienez, zuzenbide pribatuko arauen bidez**.
JURISDIKZIO ESKUDUNA	**Administrazioarekiko auzien** jurisdikzio-ordena.	**Administrazioarekiko auzien** jurisdikzio-ordena.	• **Administrazioarekiko auzien** jurisdikzio-ordena: → **Prestaketa- eta esleipen-**egintzak. → **Erregulazio harmonizatuko kontratuen aldaketa** aurkaratzea. • **Jurisdikzio-ordena zibila:** → **Kontratuen ondorioak, betearazpena eta iraungitzea**.

Legeria: Sektore Publikoko Kontratuen Legea, 24.-27. artikuluak

COMPETENCIA (art. 61 LCSP)	El **órgano de contratación** debe tener **competencia suficiente** para celebrar el contrato de que se trate.
APTITUD PARA CONTRATAR (art. 65 y ss. LCSP)	La **capacidad del contratista** adjudicatario, al que se le exigirá: • Capacidad **de obrar**. • Acreditación de **solvencia económica, financiera, técnica** (o, en su caso, **clasificación**). • No encontrarse incurso **en ninguna prohibición para contratar** con la Administración. • Certificados positivos de estar **al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias y con la Seguridad Social.** • **Habilitación empresarial o profesional** que, en su caso, sea exigible.
OBJETO (art. 99 LCSP)	El objeto del contrato debe ser **determinado**.
VALOR ESTIMADO DEL CONTRATO (art. 101 LCSP)	• **Se deberá calcular** el valor estimado del contrato, teniendo en cuenta las **eventuales prórrogas** del contrato y la cantidad estimada para las previstas modificaciones del contrato (art. 101). • **El valor estimado será IVA excluido.** • **Este valor estimado será la cuantía a los efectos previstos en la Ley (publicidad, procedimiento de licitación**…).
PRECIO CIERTO (art. 102 LCSP)	• El contrato ha de tener un precio cierto que puede formularse en base a **precios unitarios o a tanto alzado.** • En todo caso se indicará como **partida independiente el IVA** a repercutir a la Administración. • Está prohibido el **pago aplazado** del precio, salvo para los contratos de arrendamiento financiero o arrendamiento con opción de compra, o salvo que lo autorice expresamente una Ley.
REVISIÓN DE PRECIOS (arts. 103 a 105 LCSP)	Salvo en los contratos de suministro de energía, cuando proceda, la revisión periódica y predeterminada de precios en los contratos del sector público tendrá lugar cuando el contrato se hubiese ejecutado, al menos, en el **20 por ciento de su importe** y hubiese transcurrido **un año** desde su formalización. En consecuencia, el primer 20 por ciento ejecutado y el importe ejecutado en el primer año transcurrido desde la formalización quedarán excluidos de la revisión.
EXISTENCIA DE CRÉDITO (art. 116 LCSP)	Debe existir **crédito adecuado y suficiente**, si del contrato se derivan obligaciones de contenido económico para la Administración.
EXPEDIENTE (art. 116 LCSP)	Debe **tramitarse un expediente** en el que se acredite el cumplimiento de todos los extremos que la legislación exige. En el expediente se justificará adecuadamente: a) La elección del **procedimiento** de licitación. b) La **clasificación** que se exija a los participantes. c) Los **criterios de solvencia** técnica o profesional, y económica y financiera, y los criterios que se tendrán en consideración para adjudicar el contrato, así como las **condiciones especiales** de ejecución del mismo. d) El **valor estimado del contrato** con una indicación de todos los conceptos que lo integran, incluyendo siempre los costes laborales si existiesen. e) La **necesidad** de la Administración a la que se pretende dar satisfacción mediante la contratación de las prestaciones correspondientes; y su relación con el objeto del contrato, que deberá ser directa, clara y proporcional. f) En los **contratos de servicios**, el informe de **insuficiencia de medios**. g) La **decisión de no dividir en lotes** el objeto del contrato, en su caso.
FISCALIZACIÓN (DA. 3ª LCSP)	Han de estar fiscalizados **previamente** los actos administrativos de contenido económico, en los términos previstos en la normativa reguladora de las Haciendas Locales.
APROBACIÓN DEL GASTO (art. 117 LCSP)	El gasto debe ser aprobado por el **órgano competente**.
GARANTÍA PROVISIONAL (art. 106 LCSP)	Con **carácter general, no** se exige, salvo cuando de forma excepcional el órgano de contratación, por motivos de interés público, lo considere necesario y lo justifique motivadamente en el expediente. En caso de exigirlo, los pliegos de cláusulas administrativas particulares determinarán el importe de la misma, que no podrá ser superior a un 3% del presupuesto base de licitación del contrato, excluido el IVA.
ADJUDICACIÓN	La adjudicación de los contratos atenderá, salvo las excepciones previstas en el ordenamiento jurídico, a los principios de **publicidad y concurrencia**.
GARANTÍA DEFINITIVA (arts. 107 a 111 LCSP)	**Antes de la adjudicación** del contrato, habrá de constituirse garantía definitiva del 5% del precio final ofertado (IVA excluido) o, en caso de precios unitarios, del presupuesto base de licitación (IVA excluido).
FORMALIZACIÓN DE CONTRATO (art. 153 LCSP)	El contrato ha de formalizarse en **documento administrativo.** No obstante, el contratista podrá solicitar que el contrato se eleve a escritura pública, corriendo a su cargo los correspondientes gastos.

ESKUMENA (SPKL, 61. art.)	**Kontratazio-organoak gaitasun nahikoa** izan behar du kasuan kasuko kontratua egiteko.
KONTRATATZEKO GAITASUNA (SPKL, 65. art. eta hurrengoak)	**Kontratista** esleipendunaren gaitasuna, zeinari honako hau eskatuko baitzaio: • **Jarduteko** gaitasuna. • **Kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa** egiaztatzea (edo, hala badagokio, **sailkapena**). • Administrazioarekin **kontratatzeko debekurik** ez izatea. • **Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak betetzen dituela** egiaztatzen duten ziurtagiri positiboak. • Kasu bakoitzean eska daitekeen **enpresa- edo lanbide-gaikuntza**.
XEDEA (SPKL, 99. art.)	Kontratuaren xedea **zehatza** izan behar da.
- El órgano de contratación tomará las medidas adecuadas para garantizar que la participación en la licitación de las empresas que hubieran participado previamente en la elaboración de las especificaciones técnicas o de los documentos preparatorios del contrato o hubieran asesorado al órgano de contratación durante la preparación del procedimiento de contratación, no falsee la competencia (art. 70 LCSP).

INFORMACIÓN SOBRE LAS CONDICIONES DE SUBROGACIÓN

Cuando una norma legal, un convenio colectivo o un acuerdo de negociación colectiva de eficacia general imponga al adjudicatario la obligación de subrogarse como empleador en determinadas relaciones laborales, el órgano de contratación deberá facilitar a los licitadores, en el propio pliego, la **INFORMACIÓN SOBRE LAS CONDICIONES DE LOS CONTRATOS DE LOS TRABAJADORES** a los que afecte la subrogación que resulte necesaria para permitir la evaluación de los costes laborales que implicará tal medida.

En el caso de que una vez producida la subrogación los costes laborales fueran superiores a los que se desprendieran de la información facilitada por el antiguo contratista al órgano de contratación, el contratista tendrá acción directa contra el antiguo contratista.

Sin perjuicio de la aplicación, en su caso, de lo establecido en el artículo 44 del texto refundido de la Ley del Estatuto de los Trabajadores (sucesión de empresa), el **pliego de cláusulas administrativas particulares** siempre contemplará la **obligación del contratista de responder de los salarios impagados** a los trabajadores afectados por subrogación, así como de las cotizaciones a la Seguridad social devengadas, aún en el supuesto de que se resuelva el contrato y aquellos sean subrogados por el nuevo contratista, sin que en ningún caso dicha obligación corresponda a este último. En este caso, la Administración, una vez acreditada la falta de pago de los citados salarios, procederá a la retención de las cantidades debidas al contratista para garantizar el pago de los citados salarios, y a la no devolución de la garantía definitiva en tanto no se acredite el abono de éstos.

Legislación: Ley de Contratos del Sector Público, arts. 121 a 130
Reglamento de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas, arts. 66 a 70

ADMINISTRAZIO-KLAUSULA PARTIKULARREN AGIRIAK

- Kontratuko alderdiek bereganatuko dituzten **ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK** zehazteko itunak eta baldintzak jasoko dituzte.
- Kontratuak mistoak direnean, ondoreen, betetzeen eta azkentzearen araubide juridikoa zehaztuko da, kontratuotan batutako prestazioei aplikatu beharreko arauak kontuan hartuta (SPKL, 122. art.).
- Baldintza-agiriek, halaber, zehaztu ahalko dute jabetza intelektualaren edo industrialaren eskubideen transferentzia exijituko den.
- Baldintza-agirietan berariaz aipatu beharko da kontratistak datuen babesaren arloan indarrean dagoen araudia bete beharko duela.

- **Kontratazio-organo eskudunari** dagokio agiriok **ONESTEA**, gastua baimendu aurretik edo baimentzearekin batera, baina beti **kontratua lizitatu aurretik**, edo lizitaziorik ez badago, **kontratua esleitu aurretik**.

- Kontratazio-organo eskudunak, halaber, administrazio-klausula partikularren **AGIRI-EREDUAK** finkatu ahal izango ditu, antzerako izaera daukaten kontratuetan orokorrean aplikatzeko.

- Udalbatzaren Osoko Bilkurak **ADMINISTRAZIO-KLAUSULA OROKORREN AGIRIAK** onetsi ahal izango ditu; zeinak Udalak hitzartzen dituen antzerako izaera daukaten kontratuetan orokorrean aplikatzeko lege, ekonomia eta administrazio-arloko adierazpena bilduko baititu. Nahitaezkoa izango da Estatu Kontseiluaren edo autonomia-erkidegoko aholku-organoaren irizpena.

BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIAK

- **TEKNIKA ARLOKO xedapenak eta betekizun partikularrak** dira, eta kontratuaren xedea gauzatzeko bidea ezartzen dute.
- Preskripzio teknikoak **errendimenduaren** edo **baldintza funtzionalen** arabera formulatuko dira.

- **Kontratazio-organo eskudunari** dagokio agiriok **ONESTEA**, gastua baimendu aurretik edo baimentzearekin batera, baina beti kontratua **lizitatu aurretik**, edo lizitaziorik ez badago, **kontratua esleitu aurretik**.

- Kontratuaren xedea dela-eta bidezkoa denean izan ezik, preskripzio teknikoetan ezin izango da aipatu fabrikazio edo jatorri zehatzik, edo prozedura zehatzik enpresari jakin batek eskainitako produktu edo zerbitzuak ezaugarritzen dituenik, ez eta marka, patente edo mota zehatzik ere, edo jatorri edo produkzio jakinik ere, enpresa edo produktu zehatz batzuk faboratzeko edo baztertzeko.

- Zehaztasun teknikoak edo kontratua prestatzeko agiriak egiten edo kontratazio-prozeduraren prestaketan kontratazio-organoari aholku ematen aurrez jardun duten enpresek lizitazioan parte hartu behar badute ere, kontratazio-organoak behar diren neurriak hartuko ditu horrek ez dezan faltsutu lehia (SPKL, 70. art.).

SUBROGATZEKO BALDINTZEN GAINEKO INFORMAZIOA

Legezko arau batek, hitzarmen kolektibo batek edo eraginkortasun orokorreko negoziazio kolektibo batek esleipendunari lan-harreman jakin batzuetan enplegatzaile gisa subrogatzeko betebeharra ezartzen dionean, kontratazio-organoak lizitatzaileei, baldintza-agirian bertan, **INFORMAZIOA** eman beharko die subrogazioaren eraginpeko **LAN-KONTRATUEN BALDINTZEI BURUZ**; hain zuzen ere, neurri horrek ekarriko dituen lan-kostuen ebaluazio zehatza egiteko beharrezkoa den informazioa

Subrogazioa eginda lan-kostuak handiagoak badira aurreko kontratistak kontratazio-organoari emandako informaziotik ondorioztatzen direnak baino, kontratistak zuzeneko akzioa erabili ahalko du aurreko kontratistaren aurka.

Alde batera utzi gabe hala badagokio Langileen Estatutuaren Legearen testu bateginaren 44. artikuluan ezarritakoa aplikatzea (enpresaren ondorengotza), **administrazio-klausula partikularren agirian** beti aurreikusi beharko da subrogazioak ukitutako langileei **ordaindu gabeko soldaten** eta sortutako Gizarte Segurantzako kotizazioen **erantzule izateko kontratistak duen betebeharra**, baita kontratua suntsitzen denean eta kontratista berriak langileak subrogatzen dituenean ere; betebehar hori ez da inola ere izango kontratista berriarena. Kasu horretan, Administrazioak, aipatutako soldatak ez direla ordaindu egiaztatu ondoren, kontratistari zor zaizkion diru kopuruak atxikiko dizkio, soldata horien ordainketa bermatzeko, eta ez du behin betiko bermea itzuliko soldatak ordaindu direla frogatu arte.

Legeria: Sektore Publikoko Kontratuen Legea, 121.-130. artikuluak
Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendua, 66.-70. artikuluak

MODELO DE PLIEGOS DE CLÁUSULAS ADMINISTRATIVAS PARTICULARES

I. ELEMENTOS DEL CONTRATO

1. NÚMERO DE EXPEDIENTE.

2. ÓRGANO DE CONTRATACIÓN.

3. OBJETO DEL CONTRATO.

- Código CPV: Código principal.
- Contrato Reservado para Empresas de Inserción Social y Centros especiales de empleo de iniciativa social : SÍ/NO.

4. CONTRATO SUJETO A REGULACIÓN ARMONIZADA: SÍ/NO.

5. CONTRATO SUSCEPTIBLE DE RECURSO ESPECIAL: SÍ/NO.

6. LICITACIÓN ELECTRÓNICA: Esta licitación solo admite presentación de oferta por medios electrónicos: SI/NO.

7. DOCUMENTOS QUE REVISTEN CARÁCTER CONTRACTUAL.

Sin perjuicio de las obligaciones adicionales asumidas por el adjudicatario al formular su proposición, revestirán carácter contractual los siguientes documentos: carátula, pliego de cláusulas administrativas particulares (en adelante PCAP), pliego de prescripciones técnicas (en adelante PPT) y documento de formalización del contrato.

8. VARIANTES O ALTERNATIVAS.

9. DIVISIÓN EN LOTES.

10. PLAZO DURACIÓN DEL CONTRATO: Plazo de duración y prórroga, en su caso.

11. VALOR ESTIMADO DEL CONTRATO: A los efectos de publicidad y procedimiento de adjudicación aplicable, el valor estimado del contrato asciende a ….. euros (I.V.A. excluido).

12. PRESUPUESTO DE LICITACIÓN DEL CONTRATO.

a) **Presupuesto estimado máximo de gasto del contrato:**

Desglose de costes estimados: Costes directos (costes salariales estimados y otros costes); Costes indirectos; Gastos generales de estructura (gastos generales y beneficio industrial).

b) **Tipo de licitación sobre el que versarán las ofertas a la baja:** Tipo de licitación, I.V.A. y Total.

Esta cifra constituye la cantidad máxima sobre la que versarán las ofertas a la baja, suponiendo la exclusión automática de aquellas ofertas que superen dicha cantidad.

13. CRÉDITO PRESUPUESTARIO.

14. SISTEMA DE DETERMINACIÓN DEL PRECIO.

II. REQUISITOS EXIGIDOS PARA CONTRATAR

15. HABILITACIÓN EMPRESARIAL EXIGIDA.

16. SOLVENCIA:

- Solvencia económica y financiera.
- Solvencia técnica y profesional.
- Adscripción de medios personales y/o materiales.
- Clasificación empresarial (en su caso), que puede sustituir a la solvencia exigida.

III. LICITACIÓN

17. PROCEDIMIENTO DE ADJUDICACIÓN.

18. PUBLICIDAD DE LA LICITACIÓN.

19. PLAZO DE PRESENTACIÓN DE PROPOSICIONES.

20. MODO DE OBTENCIÓN DE LOS PLIEGOS Y DEMÁS DOCUMENTACIÓN.

21. MODO DE PRESENTACIÓN DE OFERTAS.

22. FORMA DE PRESENTACIÓN DE LA DOCUMENTACIÓN. Número de Sobres.

23. PROPOSICIÓN DE LOS LICITADORES: DOCUMENTACIÓN A PRESENTAR.

IV. CRITERIOS DE VALORACIÓN DE OFERTAS

24. CRITERIOS NO CUANTIFICABLES POR FÓRMULAS.

25. CRITERIOS CUANTIFICABLES POR FÓRMULAS.

- Precio…… hasta un máximo de……. puntos.
- Fórmula.

26. UMBRAL MÍNIMO DE PUNTUACIÓN QUE DEBE OBTENERSE EN LOS CRITERIOS NO EVALUABLES MEDIANTE FÓRMULAS.

27. OFERTAS CON VALORES ANORMALES O DESPROPORCIONADOS.

V. ADJUDICACIÓN DEL CONTRATO

28. DOCUMENTACIÓN ADMINISTRATIVA A PRESENTAR.

29. GARANTÍA DEFINITIVA.

VI. EJECUCIÓN DEL CONTRATO

30. RESPONSABLE DEL CONTRATO.

31. PAGO DEL PRECIO.

- Periodicidad de pago.
- Órgano competente en materia de contabilidad pública.
- Órgano de contratación.
- Órgano destinatario de la factura.

32. CONDICIONES ESPECIALES DE EJECUCIÓN.

33. SUBCONTRATACIÓN.

34. OBLIGACIONES CONTRACTUALES ESENCIALES.

35. PENALIDADES CONTRACTUALES.

36. MODIFICACIÓN DEL CONTRATO.

37. PLAZO DE GARANTÍA DEL CONTRATO.

38. CESIÓN DEL CONTRATO.

39. INFORMACIÓN SOBRE SUBROGACIÓN.

ADMINISTRAZIO-KLAUSULA PARTIKULARREN AGIRIEN EREDUA

I. KONTRATUAK ZER DUEN BERE BAITAN

1. ESPEDIENTE-ZENBAKIA.

2. KONTRATAZIO-ORGANOA.

3. KONTRATUAREN XEDEA.

- CPV kodea: Kode nagusia.
- Gizarteratzeko enpresentzat eta gizarte-ekimeneko enpleguko zentro berezientzat erreserbatutako kontratua: BAI/EZ.

4. ERREGULAZIO HARMONIZATUKO KONTRATUA: BAI/EZ.

5. ERREKURTSO BEREZIA JASO DEZAKEEN KONTRATUA: BAI/EZ.

6. LIZITAZIO ELEKTRONIKOA: Lizitazio honetan bitarteko elektronikoen bidez baino ezin da aurkeztu eskaintza: BAI/EZ.

7. KONTRATU-IZAERA DUTEN AGIRIAK.

Esleipendunak proposamena egitean bere gain hartzen dituen betebehar osagarriak gorabehera, honako agiri hauek izango dute kontratu-izaera: karatula, administrazio-klausula partikularren agiria (aurrerantzean, AKPA), baldintza teknikoen agiria (aurrerantzean, BTA) eta kontratua formalizatzeko agiria.

8. ALDAERAK ETA AUKERAK.

9. SORTATAN BANATZEA.

10. KONTRATUAREN IRAUPENA: Iraupena, eta, hala badagokio, luzapena.

11. KONTRATUAREN GUTXI GORABEHERAKO BALIOA: Hauxe da kontratuaren balio zenbatetsia, publikotasunaren eta esleitzeko prozeduraren ondorioetarako: ….. euro (BEZ kanpo).

12. KONTRATUAREN LIZITAZIO-AURREKONTUA.

a) **Kontratuaren gastuaren gehieneko aurrekontu zenbatetsia:**

Zenbatetsitako kostuen banakapena: Zuzeneko kostuak (zenbatetsitako soldata-kostuak eta beste kostu batzuk); zeharkako kostuak; egitura-gastu orokorrak (gastu orokorrak eta industria-onura).

b) **Beheranzko eskaintzen lizitazio-tasa:** Lizitazio-tasa, BEZa eta guztizkoa.

Beheranzko eskaintzen gehieneko zenbatekoa izango da kopuru hori; zenbateko horren gainetik dauden eskaintzak zuzenean baztertuko dira.

13. AURREKONTU-KREDITUA.

14. PREZIOA ZEHAZTEKO SISTEMA.

II. KONTRATATZEKO ESKATZEN DIREN BALDINTZAK

15. ESKATZEN DEN ENPRESA-GAIKUNTZA.

16. KAUDIMENA:

- Kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa.
- Kaudimen teknikoa eta profesionala.
- Giza baliabideen eta bitarteko materialen atxikipena.
- Enpresa-sailkapena (hala badagokio), eskatutako kaudimenaren ordezko izan daitekeena.

III. LIZITAZIOA

17. ESLEITZEKO PROZEDURA.

18. LIZITAZIOAREN PUBLIZITATEA.

19. PROPOSAMENAK AURKEZTEKO EPEA.

20. BALDINTZEN AGIRIAK ETA BESTELAKO AGIRIAK ESKURATZEKO MODUA.

21. ESKAINTZAK AURKEZTEKO MODUA.

22. DOKUMENTAZIOA AURKEZTEKO MODUA. Gutun-azalen kopurua.

23. LIZITATZAILEEN PROPOSAMENA: AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTUAK.

IV. ESKAINTZAK BALORATZEKO IRIZPIDEAK

24. FORMULA BIDEZ ZENBAKARRIAK EZ DIREN IRIZPIDEAK.

25. FORMULA BIDEZ ZENBAKARRIAK DIREN IRIZPIDEAK.

- Prezioa ..... gehienez ere ..... puntu.
- Formula.

26. FORMULA BIDEZ EBALUATU EZIN DIREN IRIZPIDEETAN ESKURATU BEHAR DEN GUTXIENEKO PUNTUAZIOAREN MAILA.

27. BALIO ANORMALAK EDO NEURRIZ KANPOKOAK DITUZTEN ESKAINTZAK.

V. KONTRATUAREN ESLEIPENA

28. AURKEZTU BEHARREKO ADMINISTRAZIO-DOKUMENTAZIOA.

29. BEHIN BETIKO BERMEA.

VI. KONTRATUA BETEARAZTEA

30. KONTRATUAREN ARDURADUNA.

31. PREZIOAREN ORDAINKETA.

- Ordainketaren maiztasuna.
- Kontabilitate publikoaren arloko organo eskuduna.
- Kontratazio-organoa.
- Fakturaren hartzaile den organoa.

32. BETEARAZTEKO BALDINTZA BEREZIAK.

33. AZPIKONTRATAZIOA.

34. FUNTSEZKO KONTRATU-BETEBEHARRAK.

35. KONTRATUA EZ BETETZEAK DAKARTZAN ZEHAPENAK.

36. KONTRATUA ALDATZEA.

37. KONTRATUAREN BERME-EPEA.

38. KONTRATUA LAGATZEA.

39. SUBROGAZIOARI BURUZKO INFORMAZIOA.

<table>
<tr><th colspan="3">CONDICIONES ESPECIALES DE EJECUCIÓN</th></tr>
<tr><td>REQUISITO</td><td colspan="2">En todo caso, será obligatorio el establecimiento en el pliego de cláusulas administrativas particulares de al menos una de las condiciones especiales de ejecución relativas a consideraciones económicas, ambientales, sociales o laborales, o de innovación (art. 202 LCSP).</td></tr>
<tr><td>CLÁUSULAS MEDIO-AMBIENTALES
(art. 202.2 LCSP)</td><td colspan="2">Se podrán establecer, entre otras, consideraciones de tipo medioambiental que persigan:
La reducción de las emisiones de gases de efecto invernadero, contribuyéndose así a dar cumplimiento al objetivo que establece el artículo 88 de la Ley 2/2011, de 4 de marzo, de Economía Sostenible.
• El mantenimiento o mejora de los valores medioambientales que puedan verse afectados por la ejecución del contrato.
• Una gestión más sostenible del agua.
• El fomento del uso de las energías renovables.
• La promoción del reciclado de productos y el uso de envases reutilizables.
• El impulso de la entrega de productos a granel y la producción ecológica.</td></tr>
<tr><td rowspan="2">CLÁUSULAS SOCIALES
(art. 202.2 LCSP)</td><td colspan="2">Las consideraciones de tipo social o relativas al empleo, podrán introducirse, entre otras, con alguna de las siguientes finalidades:
Hacer efectivos los derechos reconocidos en la Convención de las Naciones Unidas sobre los derechos de las personas con discapacidad.
• Contratar un número de personas con discapacidad superior al que exige la legislación nacional.
• Promover el empleo de personas con especiales dificultades de inserción en el mercado laboral, en particular de las personas con discapacidad o en situación o riesgo de exclusión social a través de Empresas de Inserción.
• Eliminar las desigualdades entre el hombre y la mujer en dicho mercado, favoreciendo la aplicación de medidas que fomenten la igualdad entre mujeres y hombres en el trabajo.
• Favorecer la mayor participación de la mujer en el mercado laboral y la conciliación del trabajo y la vida familiar.
• Combatir el paro, en particular el juvenil, el que afecta a las mujeres y el de larga duración.
• Favorecer la formación en el lugar de trabajo.
• Garantizar la seguridad y la protección de la salud en el lugar de trabajo y el cumplimiento de los convenios colectivos sectoriales y territoriales aplicables.
• Medidas para prevenir la siniestralidad laboral.
• Otras finalidades que se establezcan con referencia a la estrategia coordinada para el empleo, definida en el artículo 145 del Tratado de Funcionamiento de la Unión Europea.
• Garantizar el respeto a los derechos laborales básicos a lo largo de la cadena de producción mediante la exigencia del cumplimiento de las Convenciones fundamentales de la Organización Internacional del Trabajo, incluidas aquellas consideraciones que busquen favorecer a los pequeños productores de países en desarrollo, con los que se mantienen relaciones comerciales que les son favorables tales como el pago de un precio mínimo y una prima a los productores o una mayor transparencia y trazabilidad de toda la cadena comercial.</td></tr>
<tr><td>LEY 3/2016 para la inclusión de determinadas cláusulas sociales en la contratación pública (sector público vasco)
CONDICIONES GENERALES MÍNIMAS</td><td>• Los pliegos de cláusulas administrativas particulares advertirán que el contrato se halla sujeto a las normas vigentes sobre Seguridad Social, seguridad y salud en el trabajo.
• Los pliegos de cláusulas administrativas particulares incorporarán la obligación de los licitadores de indicar el convenio colectivo aplicable por el objeto del contrato; y la de los adjudicatarios de facilitar la información que se les requiera sobre las condiciones de trabajo que, una vez adjudicado el contrato, se apliquen efectivamente a los trabajadores.
• En los pliegos de cláusulas administrativas particulares, se indicará que el adjudicatario deberá abonar el salario recogido en el convenio aplicable para cada categoría.
• Información sobre el Convenio aplicable, en resolución de adjudicación y en el perfil de contratante.
• Aceptación voluntaria, de los licitadores, de transparencia institucional respecto a todos los datos derivados de los procesos de licitación, adjudicación y ejecución, hasta la finalización del contrato.</td></tr>
<tr><td>INCUMPLIMIENTO DE CONDICIONES DE EJECUCIÓN
(art. 202 LCSP)</td><td colspan="2">• Los pliegos podrán establecer penalidades, para el caso de incumplimiento de estas condiciones especiales de ejecución, o atribuirles el carácter de obligaciones contractuales esenciales.
• Todas las condiciones especiales de ejecución que formen parte del contrato serán exigidas igualmente a todos los subcontratistas que participen de la ejecución del mismo.</td></tr>
<tr><td>CLÁUSULAS LINGÜÍSTICAS
Ley 2/2016,
de Instituciones Locales de Euskadi
(art. 7.8)</td><td colspan="2">• Objetivo: No menoscabo de los derechos lingüísticos de los ciudadanos y del cumplimiento de las normas sobre oficialidad lingüística del euskera y el castellano, cuando el servicio se presta mediante gestión indirecta.
• Los contratos incluirán las cláusulas que sean precisas en cada supuesto, de modo que, en los servicios públicos que se ejecuten por terceros, el objeto del contrato cumpla la legislación lingüística que le resulta aplicable por su naturaleza y por la de la entidad local titular del servicio; los ciudadanos sean atendidos en la lengua oficial que elijan; y el servicio se preste en condiciones lingüísticas equivalentes a las que sean exigibles a la administración titular del servicio.</td></tr>
</table>

<table>
<tr><th colspan="3">BETEARAZTEKO BALDINTZA BEREZIAK</th></tr>
<tr><td>BALDINTZA</td><td colspan="2">Edonola ere, betebeharra da administrazio-klausula partikularren agirian jasotzea ekonomia, ingurumena, arlo soziala edo enplegua, edo berrikuntza direla-eta exekuziorako baldintza berezietatik bat gutxienez ere (SPKL, 202. art.).</td></tr>
<tr><td>INGURUMENARI BURUZKO KLAUSULAK
(SPKL, 202.2 art.)</td><td colspan="2">Besteak beste, ingurumenari dagozkion kontsiderazioak ezarri ahalko dira, helburu hauek badituzte:
Berotegi-efektuko gasen isuriak murriztea, hala, Ekonomia iraunkorrari buruzko martxoaren 4ko 2/2011 Legearen 88. artikuluan xedatutako helburua betetzen laguntzeko.
• Kontratua betearaztearen ondorioz eragina izan dezaketen ingurumen-balioak mantentzea edo hobetzea.
• Uraren kudeaketa jasangarriagoa.
• Energia berriztagarrien erabilera sustatzea.
• Produktuak birziklatzea eta bilgarri berrerabilgarriak erabiltzea sustatzea.
• Solteko produktuak eta ekoizpen ekologikoa bultzatzea.</td></tr>
<tr><td rowspan="2">KLAUSULA SOZIALAK
(SPKL, 202.2 art.)</td><td colspan="2">Kontsiderazio sozialak nahiz enpleguari buruzkoak, besteak beste, honako helburu hauetakoren batekin ezarri ahalko dira:
Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzko Nazio Batuen Konbentzioan aitorturiko eskubideak gauzatzea.
• Legeria nazionalak exijitzen duen baino desgaitu kopuru handiagoa kontratatzea.
• Lan-merkatuan txertatzeko zailtasun bereziak dauzkaten pertsonen enplegua sustatzea laneratze-enpresen bitartez, batez ere desgaitasuna duten edo gizarte-bazterketako egoeran edo arriskuan dauden pertsonena.
• Merkatu horretan gizonen eta emakumeen arteko desberdinkeriak ezabatzea, lanean gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzen duten neurrien aplikazioa erraztuz
• Emakumeek lan-merkatuan parte-hartze handiagoa izan dezaten erraztea, bai eta lanaren eta familiaren uztartzea erraztea ere.
• Langabezia borrokatzea, batez ere gazteena, emakumeena eta iraupen luzekoa.
• Lantokian prestakuntza eman dadin sustatzea.
• Lantokian segurtasuna eta osasunaren babesa bermatzea, bai eta aplikatu beharreko hitzarmen kolektibo sektorialak eta lurralde-mailakoak betetzen direla bermatzea ere.
• Laneko istripuak saihesteko neurriak hartzea.
• Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuko 145. artikuluan definitzen den enplegu-estrategia koordinatua aipatuz ezartzen diren bestelako helburu batzuk.
• Oinarrizko lan-eskubideen errespetua bermatzea ekoizpen-katean zehar, Lanaren Nazioarteko Erakundearen oinarrizko konbentzioak bete daitezen exijituz, barnean harturik garapen-bidean dauden herrialdeetako ekoizle txikiei mesede egitearen aldeko kontsiderazioak, haiekin aldekoak dituzten merkataritza-harremanak edukitzekoak, nola baitira ekoizleei gutxieneko prezio bat ordaintzea eta sari bat ematea edo merkataritza-kate osoan gardentasun eta trazabilitate handiagoa egotea.</td></tr>
<tr><td>3/2016 LEGEA, zenbait klausula sozial kontratazio publikoan sartzekoa (euskal sektore publikoa)
GUTXIENEKO BALDINTZA OROKORRAK</td><td>• Administrazio-klausula partikularren agirietan ohartaraziko da kontratuak bete egin beharko dituela indarrean dauden xedapenak, Gizarte Segurantzaren arloan eta laneko segurtasunaren eta osasunaren arloan.
• Administrazio-klausula partikularren agirietan jasoko da lizitatzaileek adierazi beharko dutela kontratuaren xedea dela-eta aplikatuko den hitzarmen kolektiboa, eta esleipendunek eskatzen den informazio guztia eman beharko dutela, behin kontratua esleitu eta gero, langileei benetan aplikatuko zaizkien lan-baldintzei buruz.
• Administrazio-klausula partikularren agirietan adieraziko da esleipendunak hitzarmen kolektiboan jasotako soldata ordaindu beharko duela, dagokion kategoriaren arabera.
• Hitzarmen kolektibo aplikagarriari buruzko informazioa esleipen-ebazpenean jasoko da eta, halaber, kontratatzailearen profilean argitaratuko da.
• Lizitatzaileek borondatez onetsi behar dute gardentasun instituzionala ematea lizitazio-, esleitze- eta gauzatze-prozesuen ondorioz sortzen diren datu guztiei, kontratua bukatu arte.</td></tr>
<tr><td>BETEARAZPEN-BALDINTZAK EZ BETETZEA
(SPKL, 202. art.)</td><td colspan="2">• Administrazio-klausula partikularren agirietan, zigorrak ezar daitezke, betearazpen-baldintza berezi hauek beteko ez balira, edo funtsezko kontratu-betebehartzat jo ahalko dira.
• Kontratuaren parte diren exekuzio-baldintza berezi guztiak orobat exijituko zaizkie kontratua egikaritzeko parte hartzen duten azpikontratista guztiei.</td></tr>
<tr><td>HIZKUNTZARI BURUZKO KLAUSULAK
Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legea (7.8 art.)</td><td colspan="2">• Helburua: Herritarren hizkuntza-eskubideei kalte ez egitea eta euskararen eta gaztelaniaren hizkuntza-ofizialtasunaren arauak betetzeari trabarik ez jartzea, zerbitzua zeharka kudeatuta ematen denean.
• Kontratuetan kasu bakoitzean beharrezkoak diren klausulak sartuko dira, hirugarren batzuek egikaritzen dituzten zerbitzu publikoetan honako helburu hauek bermatzeko: kontratuaren xedeak bete dezala bere izaeragatik eta zerbitzuaren titularra den toki-erakundearen ezaugarriengatik aplikagarria zaion hizkuntza-legeria; herritarrak artatuak izan daitezela berek hautatzen duten hizkuntza ofizialean; eta zerbitzua eman dadila, hizkuntza-baldintzei dagokienez, zerbitzuaren administrazio titularrari exijitu ahal zaizkion baldintza beretan.</td></tr>
</table>

PROCEDIMIENTOS DE ADJUDICACIÓN	CARACTERÍSTICAS
ABIERTO (arts. 156 a 159 LCSP)	**Todo empresario interesado** podrá presentar una proposición.
RESTRINGIDO (arts. 160 a 165 LCSP)	Sólo podrán presentar proposiciones aquellos **empresarios seleccionados expresamente** por la Administración, previa solicitud de los mismos.
PROCEDIMIENTO CON NEGOCIACIÓN (arts. 166 a 171 LCSP)	La adjudicación recaerá en el **licitador justificadamente elegido por el órgano de contratación**, tras negociar las condiciones del contrato con uno o varios candidatos. Se deberá publicar anuncio de licitación, salvo los supuestos excepcionales del art. 168 LCSP (desaparece el procedimiento negociado sin publicidad por razón de la cuantía).
Racionalización técnica de la contratación: **ACUERDOS MARCO**	Uno o varios órganos de contratación del sector público podrán celebrar acuerdos marco con una o varias empresas con el fin de fijar las condiciones a que habrán de ajustarse los contratos que pretendan adjudicar durante un período determinado, en particular por lo que respecta a los precios, y en su caso, a las cantidades previstas. La duración de un acuerdo marco no podrá exceder de **cuatro años**, salvo en casos excepcionales, debidamente justificados. La duración de los **contratos basados** en un acuerdo marco será independiente de la duración del acuerdo marco, y se regirá por lo previsto en el artículo 29 de la LCSP, relativo al plazo de duración de los contratos y de ejecución de la prestación, así como por los pliegos reguladores del acuerdo marco. Solo podrán adjudicarse contratos basados en un acuerdo marco durante la vigencia del acuerdo marco. Solo podrán celebrarse contratos basados en un acuerdo marco entre las empresas y los órganos de contratación que hayan sido originariamente partes en el mismo (arts. 219 y 221 LCSP).
Racionalización técnica de la contratación: **SISTEMAS DINÁMICOS DE ADQUISICIÓN**	El sistema dinámico de adquisición es un proceso **totalmente electrónico**, con una duración limitada y determinada en los pliegos, y **debe estar abierto durante todo el período de vigencia a cualquier empresa interesada** que cumpla los criterios de selección. Los órganos de contratación podrán articular el sistema dinámico de adquisición en categorías definidas objetivamente de productos, obras o servicios. Con carácter previo a la adjudicación, en el marco de un sistema dinámico de adquisición, de contratos específicos, los órganos de contratación deberán publicar un anuncio de licitación en el perfil de contratante en el cual se precise que se trata de un sistema dinámico de adquisición y el período de vigencia del mismo. Durante todo el período de vigencia del sistema dinámico de adquisición, **cualquier empresario interesado podrá solicitar participar** en el sistema. (Arts. 223, 224 y 225 LCSP).

LA MESA DE CONTRATACIÓN (Disposición Adicional Segunda)

El órgano de contratación, para la **adjudicación de los contratos** por procedimiento abierto, abierto simplificado, restringido, de diálogo competitivo, de licitación con negociación y de asociación para la innovación, estará asistido por la Mesa de Contratación.

En el procedimiento **negociado sin publicidad**, la constitución de la Mesa será **potestativa** para el órgano de contratación.

- La Mesa estará **integrada** del siguiente modo:
- **Presidente**: miembro de la Corporación o un funcionario de la misma.
- **Vocales** (un mínimo de tres): el Secretario, el Interventor y aquellos otros que designe el órgano de contratación.
- **Secretario**: un funcionario de la Corporación.

Los miembros electos que, en su caso, formen parte de la Mesa de contratación no podrán suponer más de un tercio del total de miembros de la misma.

En ningún caso podrá formar parte de las Mesas de contratación ni emitir informes de valoración de las ofertas, personal eventual. Podrá formar parte de la Mesa personal **funcionario interino** únicamente cuando no existan funcionarios de carrera suficientemente cualificados y así se acredite en el expediente.

Los órganos de contratación deberán detectar y solucionar de modo efectivo los **conflictos de intereses** que puedan surgir en los procedimientos de licitación con el fin de evitar cualquier distorsión de la competencia y garantizar la transparencia en el procedimiento y la igualdad de trato a todos los candidatos y licitadores. El concepto de conflicto de intereses abarcará, al menos, cualquier situación en la que el personal al servicio del órgano de contratación, que además participe en el desarrollo del procedimiento de licitación o pueda influir en el resultado del mismo, tenga directa o indirectamente un interés financiero, económico o personal que pudiera parecer que compromete su imparcialidad e independencia en el contexto del procedimiento de licitación (art. 64 LCSP).

En el supuesto de contratos incluidos en el Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia, el Órgano de Contratación, así como los miembros de la Mesa, deberán cumplimentar las correspondientes Declaraciones de Ausencia de Conflicto de Intereses (DACI), así como, en su caso, llevarse a cabo el análisis automatizado del riesgo a través de la herramienta MINERVA.

ESLEITZEKO PROZEDURAK	EZAUGARRIAK
IREKIA (SPKL, 156.-159. art.)	**Interesa duen enpresari orok** aurkez dezake proposamena.
MURRIZTUA (SPKL, 160.-165. art.)	Administrazioak **beren-beregi hautatutako enpresariek** soilik aurkeztu ahalko dituzte proposamenak, aldez aurretik eskatuta.
PROZEDURA NEGOZIATUA (SPKL, 166.-171. art.)	Kontratuaren baldintzak hautagaietako batekin edo hainbatekin negoziatu ondoren **kontratazio-organoak hautatutako lizitatzaileari** esleituko zaio kontratua. **Hautaketa arrazoitu** egin beharko da. Lizitazioaren iragarkia argitaratu beharko da, SPKLren 168. artikuluko salbuespeneko kasuetan izan ezik (zenbatekoa dela-eta publizitaterik gabeko prozedura negoziatua aplikatzeko kasua kendu da).
Kontratazioa teknikoki arrazionalizatzea: **ESPARRU-AKORDIOAK**	Sektore publikoko kontratazio-organo batek edo zenbaitek esparru-akordioak egin ahalko dituzte enpresa batekin edo zenbaitekin, aldi jakin batean esleituko dituzten kontratuek bete beharko dituzten baldintzak zehazte aldera, bereziki prezioei dagokienez eta, kasua bada, aurreikusitako zenbatekoei dagokienez. Esparru-akordioak ezingo du iraun **lau urte** baino gehiago, behar bezala justifikatutako salbuespen-kasuetan izan ezik. Esparru-akordio batean **oinarritutako kontratuen** iraupena ez da egongo lotuta esparru-akordioaren iraupenera, eta SPKLren 29. artikuluan aurreikusitakoaren araberakoa eta esparru-akordioa arautzen duten baldintza-agirien araberakoa izango da —kontratuen iraupenari eta prestazioa emateari buruzkoa da 29. artikulua—. Esparru-akordio batean oinarritutako kontratuak soilik esleitu ahalko dira esparru-akordio hori indarrean dagoen bitartean. Esparru-akordioa batean oinarritutako kontratuak esparru-akordioa egiten parte hartu duten enpresek eta kontratazio-organoek baino ezingo dituzte egin. (SPKL, 219. eta 221. art.).
Kontratazioa teknikoki arrazionalizatzea: **ESKURATZE-SISTEMA DINAMIKOAK**	Eskuratze-sistema dinamikoa prozesu **guztiz elektronikoa** da, baldintza-agirietan iraupen mugatu eta jakin bat duena, eta **indarraldi osoan zabalik egon behar du** hautapenerako irizpideak betetzen dituen eta **interesa duen enpresa ororentzat.** Kontratazio-organoek produktu, obra nahiz zerbitzuen kategorien arabera antolatu ahalko dute eskuratze-sistema dinamikoa, kategoriok objektiboki zehaztuta. Berariazko kontratuak eskuratze-sistema dinamikoaren esparruan esleitu baino lehen, kontratazio-organoek Lizitazio-iragarkia argitaratu beharko dute kontratatzailearen profilean, bertan zehaztuta eskuratze-sistema dinamiko bat dela eta zenbat iraungo duen. Eskuratze-sistema dinamikoaren indarraldi osoan, **edozein enpresari interesdunek eskatu ahalko du sisteman parte hartzea**. (SPKL, 223., 224. eta 225. art.).

KONTRATAZIO-MAHAIA (Bigarren xedapen gehigarria)

Kontratazio-organoak kontratazio-mahaiaren laguntza izango du **kontratuak** prozedura irekiaren, prozedura ireki sinplifikatuaren, prozedura murriztuen, lehia-elkarrizketaren, lizitazio-prozedura negoziatuaren eta berrikuntzarako elkartzeko prozeduraren bidez **esleitzeko**.

Publizitaterik gabeko prozedura negoziatua denean, kontratazio-mahaia eratu edo ez **aukeran** izango du kontratazio-organoak.

- Mahaia honela **osatuta** egongo da:
- **Presidentea**: korporazioko kide bat edo bertako funtzionario bat.
- **Kideak** (gutxienez hiru): idazkaria, kontu-hartzailea eta kontratazio-organoak izendatzen dituen beste batzuk.
- **Idazkaria**: korporazioko funtzionario bat.

Kontratazio-mahaiko kide diren hautetsiak ezingo dira izan mahaiko kide guztien herenak baino gehiago.

Behin-behineko langileek ezingo dute inolaz ere parte hartu kontratazio-mahaietan, ez eta eskaintzak baloratzeko txostenik egin ere. **Bitarteko funtzionarioek** mahaian parte hartu ahalko dute soilik behar bezalako gaikuntza duen karrerako funtzionariorik ez badago eta espedientean horixe egiaztatzen bada.

Kontratazio-organoek modu eraginkorrean detektatu eta konpondu beharko dituzte lizitazio-prozeduretan sor daitezkeen **interes-gatazkak**, lehiaren distortsio oro saihesteko eta prozedura gardena dela eta hautagai eta lizitatzaile guztientzat tratua berdina dela bermatzeko. Interes-gatazkaren kontzeptuak hau jasoko du gutxienez ere: kontratazio-organoarentzat lan egiten duten eta aldi berean lizitazio-prozeduran parte-hartze bat izan dezaketen edo haren emaitzan eragina izan dezaketen langileen edozein egoera, lizitazio-prozeduraren testuinguruan haien inpartzialtasuna edo independentzia itxura batean zalantzatan jar dezakeena interes finantzario, ekonomiko edo pertsonala zuzenean edo zeharka izateagatik (SPKL, 64. art.).

Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planean sartutako kontratuen kasuan, kontratazio-organoak eta mahaiko kideek interes-gatazkarik ezaren adierazpenak (DACI) bete beharko dituzte, eta, hala badagokio, arriskuaren azterketa automatizatua egin beharko dute MINERVA tresnaren bidez.

CRITERIOS DE ADJUDICACIÓN (arts. 145 a 147 LCSP)	
SI ÚNICO CRITERIO	El criterio **deberá estar relacionado con los costes**, pudiendo ser el precio o un criterio basado en la rentabilidad, como el coste del ciclo de vida (art. 146 LCSP). En los contratos de servicios que tengan por objeto prestaciones de carácter intelectual, y en los contratos de prestación de servicios sociales si fomentan la integración social de personas desfavorecidas o miembros de grupos vulnerables entre las personas asignadas a la ejecución del contrato, promueven el empleo de personas con dificultades particulares de inserción en el mercado laboral o cuando se trate de los contratos de servicios sociales, sanitarios o educativos a que se refiere la Disposición adicional cuadragésima octava, o de servicios intensivos en mano de obra, el **precio no podrá ser el único factor determinante de la adjudicación**. Igualmente, en el caso de los contratos de servicios de seguridad privada deberá aplicarse más de un criterio de adjudicación (art. 145.3 g) LCSP).
SI VARIOS CRITERIOS	• Se dará **preponderancia a criterios valorables mediante fórmulas**. • Si los criterios evaluables mediante **fórmulas** tienen una ponderación **inferior a los evaluables mediante un juicio** de valor, se constituirá un comité de expertos: → Formado por un mínimo de tres miembros. → Podrán pertenecer a los servicios del órgano de contratación, pero no adscritos al órgano proponente. Se puede encomendar a un organismo técnico especializado. Le corresponderá realizar la evaluación de esos criterios no cuantificables por fórmula. → Su valoración vinculará a la Mesa de Contratación. • En todo caso, si hay criterios evaluables mediante fórmulas y no evaluables mediante fórmulas, se deberá realizar una **evaluación separada**: • **Fases**: • Acto público: Apertura documentación relativa a criterios no evaluables mediante fórmulas. 1. Valoración de criterios no evaluables mediante fórmulas. 2. Acto público: Apertura de documentación relativa a criterios evaluables mediante fórmulas y lectura de ofertas económicas. En este acto, se dará cuenta de la de la ponderación asignada a cada licitador en los criterios no evaluables mediante fórmulas. 3. Valoración de criterios evaluables mediante fórmulas. 4. Valoración final y propuesta de la Mesa de Contratación.
CLASES CRITERIOS DE ADJUDICACIÓN	Se adjudicará la mejor relación calidad-precio en base a: • **Criterios económicos**: criterios relacionados con el coste, como el precio, rentabilidad o coste del ciclo de vida. • **Criterios cualitativos**: pueden ser la calidad, características medioambientales, características sociales, experiencia del personal adscrito… En los contratos de servicios a las personas y en los de carácter intelectual, los criterios cualitativos serán al menos el 51% de la puntuación asignable.
VINCULACIÓN CON EL OBJETO	Los criterios de adjudicación que han de servir de base para la adjudicación del contrato se establecerán en los pliegos de cláusulas administrativas particulares o en el documento descriptivo, y deberán figurar en el anuncio que sirva de convocatoria de la licitación, debiendo cumplir los siguientes requisitos: • En todo caso estarán **vinculados al objeto del contrato**. • Deberán ser formulados de manera **objetiva**, con pleno respeto a los principios de igualdad, no discriminación, transparencia y proporcionalidad, y no conferirán al órgano de contratación una libertad de decisión ilimitada. • Deberán garantizar la posibilidad de que las ofertas sean evaluadas en condiciones de **competencia efectiva** e irán acompañados de especificaciones que permitan comprobar de manera efectiva la información facilitada por los licitadores con el fin de evaluar la medida en que las ofertas cumplen los criterios de adjudicación. En caso de duda, deberá comprobarse de manera efectiva la exactitud de la información y las pruebas facilitadas por los licitadores. Se considerará que un criterio de adjudicación está vinculado al objeto del contrato cuando se refiera o integre las prestaciones que deban realizarse en virtud de dicho contrato, en cualquiera de sus aspectos y en cualquier etapa de su ciclo de vida, incluidos los factores que intervienen en los siguientes procesos: • en el proceso específico de producción, prestación o comercialización de, en su caso, las obras, los suministros o los servicios, con especial referencia a formas de producción, prestación o comercialización medioambiental y socialmente sostenibles y justas; • o en el proceso específico de otra etapa de su ciclo de vida, incluso cuando dichos factores no formen parte de su sustancia material. (Arts. 145.5 y 145.6). En el caso de que se establezcan las **mejoras** como criterio de adjudicación, estas deberán estar suficientemente especificadas. Se considerará que se cumple esta exigencia cuando se fijen, de manera ponderada, con concreción: los requisitos, límites, modalidades y características de las mismas, así como su necesaria vinculación con el objeto del contrato.

ESLEITZEKO IRIZPIDEAK (SPKL; 145.-147. art.)	
IRIZPIDE BAKARRA BADAGO	**Kostuei lotuta egon beharko du** irizpideak, prezioa edo errentagarritasunean oinarritutako planteamendu bat izan ahalko da; esate baterako, bizi-zikloaren kostua (SPKL, 146. art.). Zerbitzu-kontratu hauetan, berriz, **prezioa ezingo da izan esleipenerako faktore erabakigarri bakarra**: xedetzat izaera intelektualeko prestazioak dauzkaten zerbitzu-kontratuetan; gizarte- zerbitzuen prestaziorako kontratuetan, baldin eta beharrean dauden pertsonen edo talde ahuletako kideen gizarteratzea sustatzen badute kontratua egikaritzeko aukeratutako pertsonen artean edo lan-merkatuan sartzeko zailtasun zehatzak dituzten pertsonen enplegua sustatzen badute; berrogeita zortzigarren xedapen gehigarrian aipatzen diren gizarte-zerbitzuetako, osasun-zerbitzuetako edo hezkuntza-zerbitzuetako kontratuetan, eta eskulaneko zerbitzu intentsiboko kontratuetan. Halaber, segurtasun pribatuko zerbitzuen kontratuetan esleipen-irizpide bat baino gehiago aplikatu beharko da (SPKL, 145.3 g) art.).
IRIZPIDE BAT BAINO GEHIAGO BADAUDE	• **Nagusitasuna emango zaie formulen bidez baloratu daitezkeen irizpideei**. • **Formulak** erabiliz ebalua daitezkeen irizpideek **balio-iritzi baten bidez ebaluatu ahal direnen azpitik** dagoen ponderazioa badute, adituen batzorde bat eratuko da: → Gutxienez ere hiru kide izango ditu. → Kontratazio-organoaren zerbitzuetakoak izan ahalko dira, baina ez organo proposatzaileari atxikiak. Organismo tekniko espezializatu bati agindu ahalko zaio. Bere egitekoa izango da formula bidez kuantifikatu ezin diren irizpideen ebaluazioa egitea. → Haren balorazioa loteslea izango da kontratazio-mahaiarentzat. • Dena dela, formulen bidez ebaluatu daitezkeen irizpideak eta formulen bidezko ebaluatu ezin diren irizpideak badaude, **ebaluazio bereizi** bat egin beharko da: • **Faseak**: • Jendaurreko ekitaldia: Formula bidez ebaluatu ezin diren irizpideei buruzko dokumentazioa irekitzea. 1. Formula bidez ebaluatu ezin diren irizpideak baloratzea. 2. Jendaurreko ekitaldia: Formula bidez ebaluatu daitezkeen irizpideei buruzko dokumentazioa irekitzea eta eskaintza ekonomikoak irakurtzea. Ekitaldi horretan, formula bidez ebaluatu ezin diren irizpideetan lizitatzaile bakoitzari eman zaion ponderazioaren berri emango da. 3. Formula bidez ebaluatu daitezkeen irizpideak baloratzea. 4. Azken balorazioa eta kontratazio-mahaiaren proposamena.
ESLEITZEKO IRIZPIDEEN MOTAK	Kalitate-prezio erlaziorik onena esleituko da, oinarri hauek erabilita: • **Irizpide ekonomikoak:** kostuari lotutako irizpideak, hala nola prezioa, errentagarritasuna edo bizi-zikloaren kostua. • **Irizpide kualitatiboak:** besteak beste, kalitatea, ingurumen-ezaugarriak, gizarte-ezaugarriak, atxikitako langileen esperientzia... Pertsonentzako zerbitzu-kontratuetan eta izaera intelektuala duten kontratuetan, irizpide kualitatiboak eman ahal den puntuazioaren gutxienez ere % 51 izango dira.
XEDEAREKIKO LOTURA	Kontratua esleitzeko oinarri izan behar duten irizpideak, administrazio-klausula partikularren agirietan edo deskripzio-agirian ezarriko dira, eta lizitaziorako deialdi gisa balio duen iragarkian agertu beharko dira, honako eskakizun hauek betez: • **Kontratuaren xedeari lotuta** egongo dira beti. • **Modu objektiboan** formulatu beharko dira, berdintasunaren, diskriminaziorik ezaren, gardentasunaren eta proportzionaltasunaren printzipioak guztiz errespetatuz, eta ez diote erabakitzeko askatasun mugagaberik emango kontratazio-organoari. • Bermatu beharko dute aukera egon dadila eskaintzak **lehia efektiboko** baldintzetan ebaluatu daitezen, eta haiekin batera zehaztapenak aurkeztuko dira, zeinek aukera emango baitute modu efektiboan egiaztatzeko lizitatzaileek emandako informazioa, honako helburu honekin: ebaluatu ahal izatea eskaintzek noraino betetzen dituzten esleipen-irizpideak. Zalantza izanez gero, modu efektiboan egiaztatu beharko da informazioa eta lizitatzaileek emandako frogak noraino diren zehatzak. Honako kasu honetan egongo da loturik esleipen-irizpide bat kontratuaren objektuarekin: esleipen-irizpidea kontratu horren indarrez eman behar diren prestazioei dagokienean edo haiek integratzen dituenean, edozein alderditan eta bizi-zikloko edozein etapatan, horren barnean direla honako prozesu hauetan esku hartzen duten faktoreak: • obren, horniduren edo zerbitzuen produkzio-, prestazio- edo merkaturatze-prozesu zehatzean parte hartzen duten faktoreak, erreferentzia berezia eginez ingurumenaren eta gizartearen ikuspuntutik jasangarriak eta zuzenak diren produkzio-, prestazio- edo merkaturatze-moduei; • edo bizi-zikloaren beste etapa bateko prozesu zehatzean parte hartzen duten faktoreak, baita faktore horiek substantzia materialaren zati bat ez direnean ere. (145.5 eta 145.6 art.). Esleitzeko irizpide gisa **hobekuntzak** ezartzen baldin badira, halakoek behar adina zehazturik egon beharko dute. Baldintza hori honako hauek zehaztasunez eta modu haztatuan zehazten direnean joko da betetzat: haien eskakizunak, mugak, modalitateak eta ezaugarriak, bai eta kontratuaren xedearekiko behar den lotura ere.

OFERTAS ANORMALMENTE BAJAS

- **SI ÚNICO CRITERIO**: Salvo que en los pliegos se estableciera otra cosa, para apreciar la desproporcionalidad o temeridad de una oferta se tendrán en cuenta los **parámetros establecidos reglamentariamente (actualmente art. 85 del RGLCAP)**.
- **SI VARIOS CRITERIOS**: Para apreciar la desproporcionalidad o temeridad de una oferta se tendrán en cuenta los **parámetros que se hayan establecido en los pliegos del contrato**, referidos a la oferta considerada en su conjunto.
- En todo caso, los órganos de contratación rechazarán las ofertas si comprueban que son anormalmente bajas porque vulneran la normativa sobre subcontratación o no cumplen las obligaciones aplicables en materia medioambiental, social o laboral, nacional o internacional, incluyendo el incumplimiento de los convenios colectivos sectoriales vigentes, en aplicación de lo establecido en el artículo 201.

En cualquier caso, para considerar una oferta desproporcionada o temeraria se deberá tramitar el procedimiento de **audiencia a los licitadores incursos en temeridad** y **asesoramiento técnico del servicio correspondiente**. La Mesa de Contratación propondrá al Órgano de Contratación la aceptación o rechazo de la oferta incursa en anormalidad.

El órgano de contratación **no podrá declarar desierta una licitación cuando exista alguna oferta o proposición que sea admisible** de acuerdo con los criterios que figuren en el Pliego.

La **elección del procedimiento y la forma de adjudicación** han de ser **motivadas en el expediente**. Normalmente se han de utilizar el abierto y el restringido como procedimiento de adjudicación. La utilización del procedimiento negociado solamente se realizará en los casos determinados en la ley para cada tipo de contrato.

Legislación: Ley de Contratos del Sector Público, art. 149
Reglamento de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas, arts. 74 a 96

ESKAINTZA NABARMENKI BAXUEGIAK

- **IRIZPIDE BAKARRA BADAGO**: Baldintzen agirietan bestelakorik ezarri ezean, eskaintza bat neurriz kanpokoa edo ausartegia dela esateko, **araudian ezarritako parametroak** hartuko dira kontuan **(gaur egun, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Erregelamendu Orokorraren 85. art.)**.
- **IRIZPIDE BAT BAINO GEHIAGO BADAUDE**: Eskaintza bat neurriz kanpokoa edo ausartegia dela esateko, **kontratuaren baldintza-agirietan ezarritako parametroak** hartuko dira kontuan (oro har aintzat hartuko eskaintzari dagozkionak).
- Nolanahi ere, kontratazio-organoek eskaintzak baztertuko dituzte baldin eta egiaztatzen badute nabarmenki baxuegiak direla, azpikontratazioari buruzko araudia urratzen dutelako, edo ez dituztelako betetzen ingurumenaren arloan, arlo sozialean edo lan-arloan aplikatzekoak diren betebeharrak, —estatukoak nahiz nazioartekoak— edo indarrean dauden sektoreko hitzarmen kolektiboak betetzen ez dituztelako, 201. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Nolanahi ere, eskaintza bat neurriz kanpokotzat edo ausartegitzat jotzeko, **ausartegi jokatu duten lizitatzaileei entzunaldi**-prozedura izapidetu beharko zaie eta **dagokion zerbitzu teknikoaren aholkularitza teknikoa eman**. Kontratazio-mahaiak eskaintza anormala onartzeko edo baztertzeko proposamena egingo dio kontratazio-organoari.

Kontratazio-organoak **ezingo du lizitazio bat esleitu gabe utzi, baldin eta** baldintza-agirian ageri diren irizpideen arabera **onargarria den eskaintza edo proposamenen bat badago**.

Prozeduraren hautapena eta esleitzeko modua arrazoitu egin beharko dira **espedientean**. Eskuarki, prozedura irekia eta murriztua erabili behar dira esleitzeko prozedura gisa. Legean kontratu mota bakoitzerako zehaztutako kasuetan baino ez da bidezko izango prozedura negoziatua.

Legeria: Sektore Publikoko Kontratuen Legea, 149. art.
Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendua, 74.-96. artikuluak

PUBLICIDAD COMUNITARIA OBLIGATORIA (contratos SARA)

DIARIO	**Se publica en: DOUE y en el Perfil de Contratante (Art. 135 LCSP)**				
PROCEDIMIENTO DE CONTRATACIÓN	**TODOS**	**ABIERTO**	**RESTRINGIDO**		**NEGOCIADO**
ACTO QUE ANUNCIA	**ANUNCIO INDICATIVO**	**LICITACIÓN**	**SOLICITUDES DE PARTICIPACIÓN**	**PRESENTACIÓN DE PROPOSICIONES**	**LICITACIÓN CON NEGOCIACIÓN**
PLAZOS **(siempre días naturales, salvo especificación en contrario)**	• Lo antes posible a partir de programación. • Antelación **mínima de 35 días y máxima de 12 meses** para reducción plazos.	• No inferior a **35 días** para obras, suministros y servicios (reducible a 15 días cumpliendo requisitos). • No inferior a **30 días** para concesión de obras y concesión de servicios. • Si es posible presentación oferta electrónica el plazo puede reducirse en 5 días.	• No inferior a **30 días.** • Si urgencia, no inferior a **15 días**.	• No inferior a **30 días.** • Si urgencia, no inferior a **10 días**. • Si es posible la presentación de oferta electrónica el plazo puede reducirse en 5 días.	• No inferior a **30 días.** • Si es posible presentación oferta electrónica el plazo puede reducirse en 5 días.
CONTRATO DE OBRAS Y CONCESIÓN DE OBRA PÚBLICA	**Valor estimado** igual o superior a 5.404.000 € sin IVA.				
CONTRATO DE SUMINISTROS	**Valor estimado** igual o superior a 216.000 € sin IVA.				
CONTRATO DE SERVICIOS	**Valor estimado** igual o superior a 216.000 € sin IVA. **Valor estimado** igual o superior a 750.000 € sin IVA, en contratos que tengan por objeto los servicios sociales y otros servicios específicos enumerados en el anexo IV de la LCSP.				

PUBLICIDAD COMUNITARIA NO OBLIGATORIA

PROCEDIMIENTO DE CONTRATACIÓN	**ABIERTO**	**RESTRINGIDO**	**NEGOCIADO CON PUBLICIDAD**
ACTO QUE ANUNCIA	**LICITACIÓN**	**LICITACIÓN**	**PRESENTACIÓN DE OFERTAS (CONVENIENTE)**
PLAZOS **(siempre días naturales, salvo especificación contraria)**	• Obras, concesión de obras y concesión de servicios: no inferior a **26 días** • Resto contratos: **15 días** • **Urgencia: mitad** de días	• Solicitudes: mínimo **15 días** • Proposiciones: no inferior a **10 días** • **Urgencia: mitad** de días	**15 días**
CONTRATO DE OBRAS, CONCESIÓN DE OBRA PÚBLICA Y CONCESIÓN DE SERVICIOS	**Valor estimado** inferior a 5.404.000 € sin IVA.		
CONTRATO DE SUMINISTROS	**Valor estimado** inferior a 216.000 € sin IVA.		
CONTRATO DE SERVICIOS	**Valor estimado** inferior 216.000 € sin IVA. Salvo contratos de servicios del Anexo IV, en los que el umbral comunitario es a partir de 750.000 €.		

El envío al DOUE debe preceder a cualquier publicidad.

Legislación: Ley de Contratos del Sector Público, arts. 156 a 167

NAHITAEZKO ERKIDEGO-PUBLIZITATEA (Erregulazio harmonizatuko kontratuak)

ALDIZKARIA	Hemen argitaratzen da: EBAOn eta Kontratatzailearen profilean (SPKL, 135. art.)				
KONTRATAZIO-PROZEDURA	GUZTIAK	IREKIA	MURRIZTUA		NEGOZIATUA
IRAGARTZEN DUEN EGINTZA	ADIERAZPEN-IRAGARKIA	LIZITAZIOA	PARTE HARTZEKO ESKAERAK	PROPOSAMENAK AURKEZTEA	LIZITAZIO NEGOZIATUA
EPEAK (beti egun naturalak, bestelako zehaztapenik ezean)	• Ahalik eta lasterren, programaziotik abiatuta. • **Gutxienez 35 egun eta gehienez 12 hilabete** lehenago, epeak murrizteko.	• Gutxienez **35 egun** obra, hornidura eta zerbitzuentzat (15 egunera murriztu daiteke, eskakizunak beteta). • Gutxienez **30 egun** obra-emakidentzat eta zerbitzu-emakidentzat. • Eskaintza elektronikoa aurkeztu ahal bada, epea 5 egunetan murriztu daiteke.	• Gutxienez **30 egun.** • Larrialdia bada, gutxienez **15 egun**.	• Gutxienez **30 egun.** • Larrialdia bada, gutxienez **10 egun**. • Eskaintza elektronikoa aurkeztu ahal bada, epea 5 egunetan murriztu daiteke.	• Gutxienez **30 egun.** • Eskaintza elektronikoa aurkeztu ahal bada, epea 5 egunetan murriztu daiteke.
OBRA-KONTRATUA ETA OBRA PUBLIKOAREN EMAKIDA	**Balio zenbatetsia**, 5.404.000 € edo handiagoa, BEZik gabe.				
HORNIDURA-KONTRATUA	**Balio zenbatetsia**, 216.000 € edo handiagoa, BEZik gabe.				
ZERBITZU-KONTRATUA	**Balio zenbatetsia**, 216.000 € edo handiagoa, BEZik gabe. **Balio zenbatetsia**, 750.000 € edo handiagoa, BEZik gabe, SPKLren IV. eranskinean zerrendatutako gizarte-zerbitzuak eta beste zerbitzu espezifiko batzuk xede dituzten kontratuetan.				

NAHITAEZKOA EZ DEN ERKIDEGO-PUBLIZITATEA

KONTRATAZIO-PROZEDURA	IREKIA	MURRIZTUA	NEGOZIATUA PUBLIZITATEAREKIN
IRAGARTZEN DUEN EGINTZA	LIZITAZIOA	LIZITAZIOA	ESKAINTZEN AURKEZPENA (KOMENIGARRIA)
EPEAK (beti egun naturalak, bestelako zehaztapenik ezean)	• Obrak, obra-emakida eta zerbitzu-emakida: gutxienez **26 egun** • Gainerako kontratuak: **15 egun** • **Larrialdia:** egunen **erdiak**	• Eskaerak: gutxienez **15 egun** • Proposamenak: gutxienez **10 egun** • **Larrialdia:** egunen **erdiak**	**15 egun**
OBRA-KONTRATUA, OBRA PUBLIKOEN EMAKIDA ETA ZERBITZUEN EMAKIDA	**Balio zenbatetsia**, 5.404.000 € baino txikiagoa, BEZik gabe.		
HORNIDURA-KONTRATUA	**Balio zenbatetsia**, 216.000 € baino txikiagoa, BEZik gabe.		
ZERBITZU-KONTRATUA	**Balio zenbatetsia**, 216.000 € baino txikiagoa, BEZik gabe. IV. eranskineko zerbitzu-kontratuetan izan ezik; horietan, atalase komunitarioa 750.000 eurotik gorakoa da.		

Beste inon argitaratu aurretik, EBAOra bidali behar da.

Legeria: Sektore Publikoko Kontratuen Legea, 156.-167. artikuluak

FINALIDAD	Asegurar la **transparencia y acceso público** a la actividad contractual de cada órgano de contratación.
LUGAR DE PUBLICACIÓN	**Internet:** • **Web de la institución**, y • **Plataforma de Contratación del Sector Público**. • El perfil de contratante de la entidad debe alojarse obligatoriamente en la Plataforma de Contratación del sector público o en la plataforma de la comunidad autónoma.
CONTENIDO	El perfil de contratante **podrá incluir cualesquiera datos y documentos referentes** a la actividad contractual de los órganos de contratación. En cualquier caso, **deberá contener tanto la información de tipo general que puede utilizarse para relacionarse con el órgano** de contratación como puntos de contacto, números de teléfono y de fax, dirección postal y dirección electrónica, informaciones, anuncios y documentos generales, tales como las instrucciones internas de contratación y modelos de documentos, así como la información particular relativa a los contratos que celebre. En el caso de la **información relativa a los contratos, deberá publicarse** al menos la siguiente información: • La **memoria justificativa del contrato**, el **informe de insuficiencia de medios en el caso de contratos de servicios**, la **justificación del procedimiento utilizado** para su adjudicación cuando se utilice un procedimiento distinto del abierto o del restringido, el **pliego de cláusulas administrativas particulares y el de prescripciones técnicas** que hayan de regir el contrato o documentos equivalentes, en su caso, y el documento de aprobación del expediente. • El **objeto detallado del contrato, su duración, el presupuesto base de licitación y el importe de adjudicación**, incluido el IVA. • Los **anuncios de información previa, de convocatoria de las licitaciones, de adjudicación y de formalización de los contratos, los anuncios de modificación y su justificación**, los anuncios de concursos de proyectos y de resultados de concursos de proyectos, con las excepciones establecidas en las normas de los negociados sin publicidad. • Los **medios** a través de los que, en su caso, se ha **publicitado el contrato** y los enlaces a esas publicaciones. • El **número e identidad de los licitadores participantes** en el procedimiento, así como todas las **actas de la mesa de contratación** relativas al procedimiento de adjudicación, el **informe de valoración de los criterios de adjudicación cuantificables mediante un juicio de valor** de cada una de las ofertas, en su caso, los **informes sobre las ofertas incursas en presunción de anormalidad** a que se refiere el artículo 149.4 y, en todo caso, la resolución de adjudicación del contrato. • La **decisión de no adjudicar o celebrar el contrato**, el **desistimiento** del procedimiento de adjudicación, la **declaración de desierto**, así como la interposición de **recursos** y la eventual **suspensión de los contratos** con motivo de la interposición de recursos. • Los **procedimientos anulados**, la **composición de las mesas de contratación** que asistan a los órganos de contratación, así como la designación de los miembros del comité de expertos o de los organismos técnicos especializados para la aplicación de criterios de adjudicación que dependan de un juicio de valor en los procedimientos en los que sean necesarios. • La formalización de los **encargos a medios propios cuyo importe fuera superior a 50.000 euros**, IVA excluido. La información relativa a los encargos de importe superior a 5.000 euros deberá publicarse al menos trimestralmente.

Legislación: Ley de Contratos del Sector Público, arts. 63 y 347
Reglamento de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas, arts. 74 y siguientes

HELBURUA	Kontratazio-organo bakoitzaren kontratu-jarduerarako **gardentasuna eta sarbide publikoa** ziurtatzea.
ARGITARATZE-LEKUA	**Internet:** • **Erakundearen webgunea**, eta • **Sektore Publikoaren Kontratazio Plataforma**. • Erakundearen kontratatzailearen profila nahitaez gorde behar da Sektore Publikoaren Kontratazio Plataforman edo autonomia-erkidegoko plataforman.
EDUKIA	Kontratatzailearen profilak kontratazio-organoen kontratazio-jarduerari **buruzko edozein datu eta agiri jaso ahalko ditu**. Nolanahi ere, **jaso beharko du** bai kontratazio-**organoarekin harremanetan jartzeko erabil daitekeen informazio orokorra** —esate baterako, kontaktu-guneak, telefono- eta fax-zenbakiak, posta-helbidea eta helbide elektronikoa, informazio, iragarki eta dokumentu orokorrak, nola baitira kontrataziorako barne-jarraibideak eta dokumentu-ereduak—, bai egiten dituen kontratuei buruzko informazio zehatza ere. **Kontratuei buruzko informazioaren** kasuan, gutxienez ere honako informazio hau **argitaratu beharko da**: • **Kontratua justifikatzeko oroitidazkia**; **bitartekoak nahiko ez izateari buruzko txostena, zerbitzuak kontratatzeko kasuan**; esleipenerako **erabilitako prozeduraren justifikazioa**, prozedura irekiaz edo prozedura murriztuaz beste bat erabiltzen denean; kontratua gidatu behar duten **administrazio-klausula partikularren agiria eta preskripzio teknikoen agiria**, edo antzeko agiriak, kasua bada; eta espedientea onesten duen agiria. • **Kontratuaren objektu xehakatua, kontratuaren iraupena, lizitazioaren oinarrizko aurrekontua eta lizitazioaren zenbatekoa**, BEZa barnean dela. • Honako iragarki hauek, publizitaterik gabeko prozedura negoziatuen arauetan ezarritako salbuespenekin: **aurretiazko informazioa ematekoak; lizitazioen deialdia egitekoak; kontratuak esleitzeari eta egiteari buruzkoak; aldaketak egitekoak eta haien justifikazioari buruzkoak**; proiektuen lehiaketei eta proiektuen lehiaketen emaitzei buruzkoak. • Kasua bada, **kontratuaren publizitatea** egiteko erabili diren **bitartekoak** eta argitalpen horietarako estekak. • Prozeduran **parte hartutako lizitatzaileen kopurua eta haien izena**, bai eta **kontratazio-mahaiak** esleipen-prozedurari buruz egindako **akta** guztiak ere edo, mahaiak jarduten ez badu, dagokion kontratazio-zerbitzu edo -organoaren ebazpenak; eskaintza bakoitzaren **balio-iritzi bat eginez kuantifika daitezkeen esleipen-irizpideak baloratzeko txostena**; kasua bada, 149.4 artikuluak aipatzen duen ustezko **anormaltasunean sartzen diren eskaintzei buruzko txostenak**, eta, nolanahi ere den, kontratua esleitzeko ebazpena. • **Kontratua ez esleitzeko edo ez egiteko erabakia**; esleipen-prozeduran **atzera egitea**; prozedura **hutsik deklaratzea**, bai eta **errekurtsoen** aurkezpena eta **kontratuen** behin-behineko **etetea** ere, errekurtsoak aurkeztearen ondoriozkoa. • **Deuseztaturiko prozedurak**, kontratazio-organoei laguntzen dieten **kontratazio-mahaien osaera**, eta balio-iritzi baten araberakoak diren esleipen-irizpideak aplikatzeko adituen batzordeetako edo erakunde tekniko espezializatuetako kideen hautaketa, horiek beharrezkoak diren prozeduretan. • **Norberaren baliabideei egindako mandatuak formalizatzea, mandatu horien zenbatekoa 50.000 eurotik gorakoa bada**, BEZik gabe. 5.000 euro baino gehiagoko zenbatekoa duten mandatuei buruzko informazioa hiru hilabetean behin argitaratu beharko da, gutxienez ere.

Legeria: Sektore Publikoko Kontratuen Legea, 63. eta 347. artikuluak
Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendua, 74. art. eta hurrengoak

PROCEDIMIENTO NEGOCIADO SIN PUBLICIDAD (art. 168 LCSP) **ÚNICAMENTE EN LOS SIGUIENTES CASOS:**
En los contratos de **obras, suministros, servicios, concesión de obras y concesión de servicio**, cuando: • El contrato no se adjudica **en un procedimiento abierto o restringido porque no se ha presentado ninguna oferta o ninguna oferta adecuada,** siempre que no se modifiquen sustancialmente las condiciones originales del contrato sin que en ningún caso se pueda incrementar el presupuesto base de licitación ni modificar el sistema de retribución. • Cuando las obras, los suministros o los servicios **solo puedan ser encomendados a un empresario determinado**, por alguna de las siguientes **razones**: que el contrato tenga por objeto la creación o adquisición de una obra de arte única no integrante del Patrimonio Histórico español o actuación artística única; que **no exista competencia por razones técnicas**; o que proceda la protección de **derechos exclusivos**, incluidos los derechos de propiedad intelectual e industrial. • Los contratos se declaren **secretos, reservados**, o cuando su ejecución deba ir acompañada de **medidas de seguridad** especiales.
En los contratos de **obras, suministros y servicios**, cuando: • Exista una **urgencia** resultante de **acontecimientos imprevisibles** para el órgano de contratación y no imputables al mismo, sin que sirva el procedimiento de declaración de urgencia. • En los procedimientos abiertos o restringidos seguidos previamente solo se hubieran presentado **ofertas irregulares o inaceptables**, siempre que en la negociación se incluya a todos los licitadores que, en el procedimiento antecedente, hubiesen presentado ofertas conformes con los requisitos formales, y siempre que no se modifiquen sustancialmente las condiciones iniciales del contrato (en ningún caso incremento del precio de licitación ni modificación de sistema de retribución).
En los contratos de **suministros**, además, cuando: • Los productos se fabriquen exclusivamente para fines de **investigación, experimentación, estudio o desarrollo**. • Se trate de **entregas adicionales**, con un plazo máximo de tres años a partir de la formalización del contrato inicial. • Se trate de la **adquisición en mercados organizados o bolsas de materias primas** de suministros que coticen en los mismos. • Se trate de un **suministro concertado en condiciones especialmente ventajosas** con un proveedor que cese definitivamente en sus actividades comerciales, o con los administradores de un concurso, o a través de un acuerdo judicial o un procedimiento de la misma naturaleza.
En los contratos de **servicios**, además, cuando: • El contrato sea consecuencia de un **concurso de proyectos** y, con arreglo a las normas aplicables deba adjudicarse al ganador (si varios ganadores, deberá invitarse a todos a participar en negociaciones). • Se trate de un servicio concertado en **condiciones especialmente ventajosas con un proveedor** que cese definitivamente en sus actividades comerciales, o con los administradores de un concurso, o a través de un acuerdo judicial o un procedimiento de la misma naturaleza.
En los contratos de **obras y servicios**, además, cuando: • Se trata de **repetición de obras y servicios similares** adjudicadas por procedimiento abierto o restringido, con un plazo máximo de **tres años** a partir de la formalización del contrato inicial (y así se haya anunciado), y que el importe de las nuevas obras o servicios se haya tenido en cuenta al calcular el valor estimado del contrato inicial.

PROCEDIMIENTOS NEGOCIADOS CON PUBLICIDAD (art. 167 LCSP)	
SUPUESTOS	En los **contratos de obras, suministros, servicios, concesión de obras y concesión de servicios**, cuando: • Sea imprescindible para su satisfacción que la prestación sea objeto de un **trabajo previo de diseño o de adaptación** por los licitadores. • La prestación incluya un **proyecto o soluciones innovadoras**. • El contrato **no pueda adjudicarse sin negociaciones previas**, por circunstancias específicas vinculadas a la naturaleza, la complejidad o la configuración jurídica o financiera de la prestación, o por sus riesgos inherentes. • **No se puedan establecer con suficiente precisión las especificaciones técnicas** por referencia a una norma, evaluación técnica europea, especificación técnica común o referencia técnica. • En los procedimientos abiertos o restringidos seguidos previamente solo se hubieran presentado **ofertas irregulares o inaceptables**. • Se trate de contratos de **servicios sociales personalísimos** que tengan por una de sus características determinantes el **arraigo de la persona en el entorno de atención social**, siempre que el objeto consista en dotar de continuidad en la atención a las personas ya beneficiarias del servicio.
ARTICULACIÓN	Se **articula** como el procedimiento restringido: 1.º Se seleccionan candidatos. 2.º Se invita a presentar ofertas.

Legislación: Ley de Contratos del Sector Público, arts. 167 y 168

PUBLIZITATERIK GABEKO PROZEDURA NEGOZIATUA (SPKL, 168. art.) **HONAKO KASU HAUETAN BAKARRIK:**
Obra-, hornidura- eta zerbitzu-kontratuetan, eta obra-emakida eta zerbitzu-emakidetan, hauek betetzen direnean: • Kontratua ez da **prozedura ireki edo murriztu batean** esleitzen —**inongo eskaintzarik aurkeztu ez delako edo eskaintza egokirik aurkeztu ez delako—**, baldin eta kontratuaren hasierako baldintzak funtsean aldatzen ez badira; gainera, inongo kasutan ezingo da handitu lizitazioaren oinarrizko aurrekontua, ez eta aldatu ere ordainketarako sistema. • Obrak, hornidurak edo zerbitzuak **enpresari jakin bati baizik ezin zaizkionean enkargatu**, honako **arrazoi** hauetako batengatik: bakarra den eta Espainiako Ondare Historikoan ez dagoen artelan bat edo errepresentazio artistiko bat sortzea edo eskuratzea izatea kontratuaren objektua; **arrazoi teknikoengatik lehiarik ez egotea**; edo **eskubide esklusiboak** babestu behar izatea, haien barnean direla jabetza intelektualaren eta industrialaren eskubideak. • Kontratuak **sekretuak edo ezkutukoak** direla deklaratu denean, edo haiek gauzatzeko **segurtasun-neurri** bereziak hartu behar direnean.
Obra-, hornidura- eta zerbitzu-kontratuetan, hauek betetzen direnean: • Kontratazio-organoak **ezin aurreikusi dituen** eta berari egotzi ezin zaizkion **gertaerek** eragindako premiazko **urgentzia** bat dagoenean, urgentzia-adierazpenaren prozedurak balio ez badu. • Aurretik jarraitutako prozedura ireki edo murriztuetan soilik **eskaintza irregular edo onartezinak** aurkeztu direnean, baldin eta negoziazioan sartzen badira aurreko prozeduran kontratazio-prozeduraren betekizun formalekin bat datozen eskaintzak aurkeztu dituzten lizitatzaile guztiak, eta, betiere, kontratuaren hasierako baldintzak ez direnean funtsean aldatzen. Nolanahi ere, ezingo da inoiz lizitazio-prezioa handitu edo ordainketarako sistema aldatu.
Hornidura-kontratuetan, gainera, honako kasu hauetan: • Produktuak **ikerketarako, saiakuntzarako, azterlanerako edo garapenerako** ez bestetarako fabrikatzen direnean. • **Entrega gehigarriak** direnean; kontratu horien iraupena ezingo da izan hiru urtetik gorakoa hasierako kontratua sinatu zenetik. • **Lehengaien merkatu antolatuetan edo burtsetan kotizatzen duten** hornigaiak **eskuratzeko** denean. • Merkataritza-jarduera behin betiko utzi behar duen hornitzaile batekin edo konkurtso bateko administratzaileekin **baldintza biziki onuragarrien arabera itundutako horniketa** baterako denean, edo hitzarmen judizial bat edo izaera bereko prozedura bat dela medio itundutako horniketa baterako denean.
Zerbitzu-kontratuetan, gainera, honako kasu hauetan: • Kontratua **proiektuen lehiaketa** baten ondorioa denean eta aplikatu beharreko arauen arabera irabazleari esleitu behar zaionean (hainbat irabazle izanez gero, guztiei egin behar zaie negoziazioetan parte hartzeko gonbidapena). • Merkataritza-jarduera behin betiko utzi behar duen **hornitzaile batekin** edo konkurtso bateko administratzaileekin **baldintza biziki onuragarrien arabera** itundutako zerbitzu baterako denean, edo hitzarmen judizial bat edo izaera bereko prozedura bat dela medio itundutako horniketa baterako denean.
Obra- eta zerbitzu-kontratuetan, gainera: • Prozedura ireki edo murriztu bidez esleitutako **antzeko beste obra eta zerbitzu batzuen errepikapena** direnean, hasierako kontratua egin zenetik **hiru urte** baino gehiago iragan ez badira (eta hala iragarri bada), eta obra edo zerbitzu berrien zenbatekoa kontuan hartu bada hasierako kontratuaren balio zenbatetsia kalkulatzerakoan.

PUBLIZITATEA DUTEN PROZEDURA NEGOZIATUAK (SPKL, 167. art.)	
KASUAK	**Obra-, hornidura- eta zerbitzu-kontratuetan, eta obra-emakida eta zerbitzu-emakidetan**, honako kasu hauetan: • Horiek gauzatzeko ezinbesteko gertatzen denean lizitatzaileek **aldez aurretik diseinu- edo egokitzelan** bat egitea haren gainean. • Prestazioak **proiektu edo konponbide berritzaileak** biltzen dituenean. • Kontratua **ezin denean esleitu aldez aurretiko negoziaziorik gabe,** prestazioaren izaerari, konplexutasunari edo konfigurazio juridiko edo finantzarioari lotutako inguruabar berariazkoengatik edo prestazioari berez datxezkion arriskuengatik. • **Zehaztapen teknikoak behar besteko zehaztasunez ezin direnean ezarri** erreferentzia eginez arau bati, europar ebaluazio tekniko bati, zehaztapen tekniko komun bati edo erreferentzia tekniko bati. • Aurretik jarraitutako prozedura ireki edo murriztuetan soilik **eskaintza irregular edo onartezinak** aurkeztu direnean. • **Gizarte-zerbitzu guztiz pertsonaletarako** kontratuak direnean, pertsonak **arreta sozialaren inguruenean errotzea dutenak** beren ezaugarri erabakigarrietako bat, betiere kontratuaren xedea lehendik zerbitzu horren onuradun zirenei arreta ematen jarraitzea bada.
ANTOLAKETA	Prozedura murriztua bezala **antolatzen da**: 1a. Hautagaiak aukeratzen dira. 2a. Eskaintzak aurkezteko gonbidapena egiten da.

Legeria: Sektore Publikoko Kontratuen Legea, 167. eta 168. artikuluak

PROCEDIMIENTO ABIERTO SIMPLIFICADO (art. 159 LCSP)	
SUPUESTOS POSIBLES	• **CONTRATO DE OBRAS**: valor estimado igual o inferior a **2.000.000 de euros**. • **CONTRATO DE SUMINISTRO Y SERVICIOS**: valor estimado inferior a **140.000 de euros.**
REQUISITOS	• Que **no haya ningún criterio de adjudicación evaluable mediante juicios de valor** o, si los hay, su ponderación **no supere el 25%** (o 45%, en caso de prestaciones de carácter intelectual como son los servicios de ingeniería y arquitectura, consultoría y urbanismo, disposición adicional 41.ª). • El anuncio de licitación del contrato únicamente precisará de publicación en el perfil de contratante del órgano de contratación. • Toda la **documentación** de la licitación debe estar publicada en el **perfil de contratante**. • **Plazo de presentación** de ofertas **mínimo 20 días** para contrato de obras y **15 días** para el resto.
TRAMITACIÓN	• La oferta se presentará en un único sobre o archivo electrónico en los supuestos en que en el procedimiento no se contemplen criterios de adjudicación cuya cuantificación dependa de un juicio de valor. En caso contrario, la oferta se presentará en dos sobres o archivos electrónicos. • En caso de criterios de juicio de valor, la valoración por los servicios técnicos se realizará en el plazo máximo **7 días**. • Tras la apertura del sobre o archivo electrónico que contenga la oferta evaluable a través de criterios cuantificables mediante la aplicación de fórmulas, y en la misma sesión, la Mesa evaluará y realizará la propuesta de adjudicación y requerirá a la empresa la garantía definitiva y demás documentación.

PROCEDIMIENTO ABIERTO «*SUPERSIMPLIFICADO*» (art 159.6 LCSP)	
SUPUESTOS POSIBLES	• **CONTRATO DE OBRAS**: valor estimado inferior a **80.000 euros.** • **CONTRATO DE SUMINISTRO Y SERVICIOS**: valor estimado inferior a **60.000 euros** (excepto a los de carácter intelectual que no podrán seguir este procedimiento).
REQUISITOS	• **Sólo criterios matemáticos** para la evaluación. • Plazo de presentación de ofertas no inferior **a 10 días hábiles** a contar desde el siguiente a la publicación del anuncio de licitación en el perfil de contratante. No obstante lo anterior, cuando se trate de compras corrientes de bienes disponibles en el mercado el plazo será de **5 días hábiles**.
TRAMITACIÓN	• **No** se pedirá acreditación de **solvencia** a los licitadores. • Las ofertas se **abrirán electrónicamente**. Sin acto público. • **No** se pedirá constitución de **garantía definitiva**. • La **formalización** podrá efectuarse con la firma de aceptación del contratista de la resolución de adjudicación.

PROZEDURA IREKI ERRAZTUA (SPKL, 159. art.)	
BALIZKO KASUAK	• **OBRA-KONTRATUA**: balio zenbatetsia, **2.000.000 €** edo gutxiago. • **HORNIDURA- ETA ZERBITZU-KONTRATUA**: balio zenbatetsia, **140.000 euro** baino txikiagoa.
BETEKIZUNAK	• **Esleipen-irizpideetan bakar bat ere ez egotea balio-iritzi batez ebalua daitekeena** edo, halakorik badago, haien haztatzeak **ez gainditzea % 25** (edo % 45, izaera intelektualeko prestazioen kasuan, hala nola ingeniaritza- eta arkitektura-, aholkularitza- eta hirigintza-zerbitzuak, 41. xedapen gehigarria). • Kontratuaren lizitazio-iragarkia kontratazio-organoaren kontratatzailearen profilean baizik ez da argitaratu beharko. • Lizitazioaren **dokumentazio** guztia **kontratatzailearen profilean** argitaratuta egon behar da. • Eskaintzak **aurkezteko epea 20 egunekoa gutxienez** obra-kontratuarentzat eta **15 egunekoa** gainerakoentzat.
IZAPIDETZEA	• Eskaintza gutun-azal edo artxibo elektroniko bakarrean aurkeztuko da prozedurak balio-iritzi baten arabera kuantifikatzen diren esleipen-irizpideak jasotzen ez dituenean. Hala ez bada, eskaintza bi gutun-azaletan aurkeztuko da. • Balio-iritzi baten araberako irizpideak badaude, zerbitzu teknikoek **7 egunekoa** baino gehiagokoa ez den epe batean baloratuko dituzte proposamenak. • Formulak aplikatze hutsez kuantifikatzekoak diren irizpideen arabera ebaluatu daitekeen eskaintza jasotzen duen gutun-azala edo artxibo elektronikoa ireki ostean, eta saio berean, Mahaiak esleipen-proposamena ebaluatu eta egingo du eta behin betiko bermea eta gainerako dokumentazioa eskatuko dizkio enpresari.

PROZEDURA IREKI *«OSO SINPLIFIKATUA»* (SPKL, 159.6 art.)	
BALIZKO KASUAK	• **OBRA-KONTRATUA**: balio zenbatetsia, **80.000 euro** baino txikiagoa. • **HORNIDURA- ETA ZERBITZU-KONTRATUA**: balio zenbatetsia, **60.000 euro** baino txikiagoa (izaera intelektuala dutenak izan ezik, ezingo baitzaie prozedura hau aplikatu).
BETEKIZUNAK	• **Irizpide matematikoak bakarrik** ebaluaziorako. • Eskaintzak aurkezteko epea, gutxienez **10 egun baliodunekoa**, lizitazio-iragarkia kontratatzailearen profilean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita. Aurrekoa gorabehera, merkatuan eskura daitezkeen ondasunen erosketa arrunten kasuan, epea **5 egun baliodunekoa** izango da.
IZAPIDETZEA	• Lizitatzaileei **ez** zaie eskatuko **kaudimena** egiaztatzeko. • Eskaintzak **elektronikoki irekiko** dira. Jendaurreko ekitaldirik gabe. • **Ez** da eskatuko behin **betiko bermea** eratzeko. • Kontratistak esleipen-ebazpena onartzeko sinadura emanez **formalizatu** ahalko da kontratua.

CONTRATOS MENORES: CARACTERÍSTICAS

DEFINICIÓN	Se definen exclusivamente por la **cuantía**.
TRAMITACIÓN DEL EXPEDIENTE	La tramitación del expediente sólo exigirá informe razonado del órgano de contratación motivando la necesidad del contrato y que no se está alterando su objeto con el fin de evitar la aplicación de los umbrales. Asimismo, se requerirá la **aprobación del gasto** y la incorporación al mismo de la **factura** correspondiente.
DURACIÓN	Estos contratos no podrán tener una duración superior a **un año**, ni ser objeto de prórroga.
REVISIÓN DE PRECIOS	Estos contratos **no podrán** ser objeto de revisión de precios.
ESPECIALIDADES EN CONTRATOS DE OBRAS	En el contrato menor de obras, es preciso incorporar el **presupuesto** de las obras, y el correspondiente **proyecto** cuando normas específicas así lo requieran.
PUBLICIDAD DE LOS CONTRATOS MENORES	La publicación de la información relativa a los contratos menores deberá realizarse al menos **trimestralmente**. La información a publicar para este tipo de contratos será, al menos, su objeto, duración, el importe de adjudicación, incluido el Impuesto sobre el Valor Añadido, y la identidad del adjudicatario, ordenándose los contratos por la identidad del adjudicatario.

CLASES DE CONTRATOS MENORES	CUANTÍA MÁXIMA
OBRAS	Valor estimado inferior a **40.000 €** (IVA EXCLUIDO)
SUMINISTROS	Valor estimado inferior a **15.000 €** (IVA EXCLUIDO)
SERVICIOS	Valor estimado inferior a **15.000 €** (IVA EXCLUIDO)
Suscripción a revistas y otras publicaciones, cualquiera que sea su soporte, así como la contratación del acceso a la información contenida en bases de datos especializadas	Cualquiera que sea su cuantía siempre que no tengan el carácter de contratos sujetos a regulación armonizada, y con sujeción a las condiciones generales que apliquen los proveedores, incluyendo las fórmulas de pago. (Disposición Adicional novena LCSP).

Legislación: Ley de Contratos del Sector Público, art. 118

KONTRATU TXIKIAK: EZAUGARRIAK

DEFINIZIOA	**Zenbatekoa** baino ez da hartzen kontuan.
ESPEDIENTEA IZAPIDETZEA	Espedientea izapidetzeko kontratazio-organoaren txosten arrazoitua baino ez da eskatuko. Txosten horretan, kontratuaren beharrizanaren zioak emango dira; eta justifikatuko da ez dela kontratuaren xedea aldatzen ari mugak aplikatzea saihesteko. Halaber, **gastua onesteko** eskatuko da, bai eta dagokion **faktura** espedienteari gehitzeko ere.
IRAUPENA	Kontratu horiek ezin dute iraun **urtebete** baino gehiago, eta luzatu ere ezin dira egin.
PREZIOAK BERRIKUSTEA	**Ezin dira** prezioak berrikusi kontratu horietan.
OBRA-KONTRATUETAKO BEREZITASUNAK	Obra-kontratu txikian, obren **aurrekontua** gehitu beharko da; eta dagokion **proiektua** ere, arau espezifikoek horrela eskatzen dutenean.
KONTRATU TXIKIEN PUBLIZITATEA	Kontratu txikiei buruzko informazioa gutxienez ere **hiru hilean behin** argitaratu beharko da. Kontratu mota horretarako, informazio hau argitaratu beharko da, gutxienez ere: objektua, iraupena, esleipenaren zenbatekoa —balio erantsiaren gaineko zerga barne— eta esleipendunaren izena. Kontratuak esleipendunaren izenaren arabera ordenatuko dira.

KONTRATU TXIKIEN MOTAK	GEHIENEKO ZENBATEKOA
OBRAK	Balio zenbatetsia, **40.000 €** baino txikiagoa (BEZik GABE).
HORNIDURAK	Balio zenbatetsia, **15.000 €** baino txikiagoa (BEZik GABE).
ZERBITZUAK	Balio zenbatetsia, **15.000 €** baino txikiagoa (BEZik GABE).
Aldizkarien eta beste argitalpen batzuen harpidetza —euskarria dena delakoa izanik ere— eta datu-base berezituetan jasotako informaziorako irispidearen kontratazioa	Zenbatekoa edozein delarik ere eta erregulazio harmonizatuko kontratuen multzokoa ez denean, eta hornitzaileek aplikatzen dituzten baldintza orokorren arabera —ordaintzeko formula barne—. (SPKLren bederatzigarren xedapen gehigarria).

Legeria: Sektore Publikoko Kontratuen Legea, 118. art.

PERFECCIÓN	Se perfeccionan mediante la **FORMALIZACIÓN** del contrato, a excepción de los contratos menores y de los contratos basados en un acuerdo marco y los contratos específicos en el marco de un sistema dinámico de adquisición.	
FORMALIZACIÓN	• Los contratos deberán formalizarse en documento escrito que se ajuste con exactitud a las **condiciones de la licitación**. • **En ningún caso** se podrán incluir cláusulas que impliquen **alteración de los términos de la adjudicación**. • Está **prohibida la contratación verbal**, **excepto** en los supuestos de tramitación de **emergencia.**	
FRACCIONAMIENTO	• **No podrá fraccionarse** un contrato con la finalidad de disminuir la cuantía del mismo y eludir así los requisitos de publicidad o los relativos al procedimiento de adjudicación que correspondan. • Siempre que la naturaleza o el objeto del contrato lo permitan, deberá preverse la realización independiente de cada una de sus partes mediante su **división en lotes**, pudiéndose **reservar lotes** de conformidad con lo dispuesto en la disposición adicional cuarta (**contratos reservados**) a Centros Especiales de Empleo de iniciativa social y a empresas de inserción. • No obstante lo anterior, el órgano de contratación **podrá no dividir en lotes** el objeto del contrato cuando existan motivos válidos, que deberán justificarse debidamente en el expediente. En todo caso se considerarán motivos válidos, a efectos de justificar la no división en lotes del objeto del contrato, el hecho de que la división en lotes del objeto del contrato conllevase el riesgo de restringir injustificadamente la competencia, y, asimismo, el hecho de que la realización independiente de las diversas prestaciones comprendidas en el objeto del contrato dificultara la correcta ejecución del mismo desde el punto de vista técnico; o bien que el riesgo para la correcta ejecución del contrato proceda de la naturaleza del objeto del mismo, al implicar la necesidad de coordinar la ejecución de las diferentes prestaciones. (Art. 99 LCSP).	
INTERPRETACIÓN	Dentro de los límites y con sujeción a los requisitos y efectos señalados en la Ley de Contratos del Sector Público, **el órgano de contratación** tiene las **prerrogativas** de interpretar los contratos administrativos, resolver las dudas que presente su cumplimiento, modificarlos por razones de interés público, declarar la responsabilidad imputable al contratista a raíz de la ejecución del contrato, suspender la ejecución del mismo, acordar su resolución y determinar los efectos de esta.	
DURACIÓN MÁXIMA	**OBRAS**	• El que establezca el **proyecto.**
	CONCESIÓN OBRA PÚBLICA	• Los de **ejecución de obra y explotación**: 40 años.
	SUMINISTROS	• **5 años incluyendo** las posibles **prórrogas**. • El plazo de duración podrá ser superior, cuando lo exija el período de recuperación de las inversiones directamente relacionadas con el contrato y estas no sean susceptibles de utilizarse en el resto de la actividad productiva del contratista o su utilización fuera antieconómica. • El contrato de suministro y mantenimiento del bien, cuando dicho mantenimiento solo pueda ser prestado por razones de exclusividad por la empresa que suministró dicho bien, podrá tener como plazo de duración el de la vida útil del producto adquirido. • Los contratos de **arrendamiento de bienes muebles** no podrán exceder, incluyendo las posibles prórrogas de **cinco años**.
	SERVICIOS	• **5 años incluyendo** las posibles **prórrogas**. • El plazo de duración podrá ser superior, cuando lo exija el período de recuperación de las inversiones directamente relacionadas con el contrato y estas no sean susceptibles de utilizarse en el resto de la actividad productiva del contratista o su utilización fuera antieconómica.
	CONCESIÓN DE SERVICIOS	• **40 años:** los que comprendan **ejecución de obra y explotación de servicio** público. • **25 años:** los que comprendan sólo **explotación de servicio**. • **10 años:** los contratos de prestación de servicios **sanitarios**.
	ACUERDOS MARCO	• **Duración máxima** del acuerdo marco: **4 años,** salvo en casos excepcionales debidamente justificados. • El acuerdo marco fijará las condiciones a las que se ajustarán los contratos basados en el acuerdo marco.

Legislación: Ley de Contratos del Sector Público, art. 29

BURUTZEA	Kontratua **FORMALIZATUZ** burutzen dira, salbu eta kontratu txikiak eta esparru-akordio batean oinarritutako kontratuak eta eskuratze-sistema dinamiko baten esparruan egiten diren berariazko kontratuak.	
FORMALIZATZEA	• Kontratuak idatzizko agiri bidez formalizatu beharko dira, eta agiri hori **lizitazioaren baldintzei** lotuko zaie, estu-estu. • Kontratua formalizatzeko agirian ezingo da **inola ere** sartu **esleipen-irizpideak aldatzea eragingo duen klausularik**. • **Ezin da kontraturik egin ahoz**, **larrialdiko** izapidetzeetan **izan ezik**.	
ZATIKATZEA	• Kontratua **ezin izango da zatikatu** haren zenbatekoa gutxitzeko eta, horrela, dagozkion publikotasun-betekizunak edo esleipen-prozedurako betekizunak saihesteko asmoarekin. • Kontratuaren izaerak edo xedeak horretarako bidea ematen duten guztietan, atal guztiak modu independentean gauza daitezela aurreikusi beharko da, **sortaka zatituta**. **Sortak erreserbatu** ahalko zaie, laugarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera (**kontratu erreserbatuak**), gizarte-ekimeneko enpleguko zentro bereziei eta gizarteratzeko enpresei. • Aurrekoa gorabehera, kontratazio-organoak **aukera izango du** kontratuaren xedea **sortaka ez zatitzeko** horretarako arrazoi egokiak daudenean —espedientean behar bezala zehaztu beharko dira horiek—. Nolanahi ere, honako hauek joko dira baleko arrazoitzat kontratuaren xedea sortaka ez zatitzea justifikatzeko: kontratuaren xedea sortaka zatitzeak lehia justifikaziorik gabe murrizteko arriskua ekartzea, eta, era berean, kontratuaren xedean jasotako prestazioak modu independentean emateak zailtasunak ekartzea kontratua ikuspuntu teknikotik zuzen egikaritu dadin; edo kontratua zuzen ez egikaritzeko arriskua etortzea haren xedearen izaeratik, zeren eta berekin baitakar prestazioak emateko koordinatu beharra. (SPKL, 99. art.).	
INTERPRETAZIOA	**Kontratazio-organoak**, Sektore Publikoko Kontratuen Legean aipatutako mugen barruan eta bertan adierazitako betekizunei eta ondoreei lotuta, honako **prerrogatiba** hauek dauzka: administrazio-kontratuak interpretatzea, kontratu horiek betetzean sortutako zalantzak ebaztea, interes publikoa dela-eta kontratuak aldatzea, kontratua egikaritzearen ondorioz kontratistari egoztekoa zaion erantzukizuna deklaratzea, kontratuaren egikaritzea etetea, kontratua suntsiaraztea erabakitzea eta suntsiaraztearen ondoreak zehaztea.	
GEHIENEKO IRAUPENA	**OBRAK**	• **Proiektuak** ezartzen duena.
	OBRA PUBLIKOAREN EMAKIDA	• **Obra gauzatzearekin eta ustiapenarekin** loturikoak: 40 urte.
	HORNIDURAK	• **5 urte**, balizko **luzapenak barne**. • Iraupena luzeagoa izan daiteke, baldin eta kontratuari zuzenean lotutako inbertsioak berreskuratzeko epeak hala eskatzen badu eta inbertsio horiek ezin badira erabili kontratistaren gainerako ekoizpen-jardueran, edo inbertsio horiek erabiltzea antiekonomikoa bada. • Ondasuna hornitzeko eta mantentzeko kontratua, mantentzelan horiek ondasun hori hornitu zuen enpresak bakarrik egin ditzakeenean, esklusibotasun-arrazoiengatik, iraupena eskuratutako produktuaren balio-bizitza izango da. • **Ondasun higigarrien errentamendu**-kontratuak ezingo dira izan **bost urtetik** gorakoak, balizko luzapenak barne.
	ZERBITZUAK	• **5 urte**, balizko **luzapenak barne**. • Iraupena luzeagoa izan daiteke, baldin eta kontratuari zuzenean lotutako inbertsioak berreskuratzeko epeak hala eskatzen badu eta inbertsio horiek ezin badira erabili kontratistaren gainerako ekoizpen-jardueran, edo inbertsio horiek erabiltzea antiekonomikoa bada.
	ZERBITZU-EMAKIDA	• **40 urte: obra gauzatzeari eta zerbitzu publikoa ustiatzeari** loturikoak. • **25 urte:** soilik **zerbitzua ustiatzearekin** loturikoak. • **10 urte: osasun**-zerbitzuak emateko kontratuak.
	ESPARRU-AKORDIOAK	• Esparru-akordioaren **gehieneko iraupena**: **4 urte,** behar bezala justifikatutako salbuespen-kasuetan izan ezik. • Esparru-akordioan oinarritutako kontratuak zein baldintzatara egokituko diren finkatuko du esparru-akordioak.

Legeria: Sektore Publikoko Kontratuen Legea, 29. art.

ADJUDICACIÓN	La **Mesa de Contratación** o, en su defecto, el **Órgano de Contratación**: 1. **Clasificará por orden decreciente las ofertas** presentadas y elevará la correspondiente propuesta al órgano de contratación, en el caso de que la clasificación se realice por la mesa de contratación. 2. Se requerirá al **licitador que haya presentado la oferta más ventajosa** para que en diez días hábiles **presente:** a) **Garantía definitiva**: 5% del importe de adjudicación (o 5% del presupuesto base de licitación, IVA excluido, si el precio se formula en función de precios unitarios). b. Documentación que acredite los extremos declarados en el Documento Europeo Único de Contratación (**DEUC**), en el primer sobre de oferta**.** 3. Adjudicará el contrato, en el plazo de cinco días hábiles desde recepción de la documentación. 4. Simultáneamente a la adjudicación del contrato: a) Se notifica la adjudicación a los licitadores, con motivación. b) Se publica la adjudicación, en el perfil de contratante.
RECURSO ESPECIAL EN MATERIA DE ADJUDICACIÓN **(art. 44 y ss. LCSP)**	• Se podrá interponer el recurso especial en materia de contratación **previo a la interposición del contencioso-administrativo**, en los siguientes **TIPOS DE CONTRATOS:** a) Contratos de obras, concesión de obras públicas, concesión de servicios cuyo valor estimado supere 3 millones de euros. b) Contratos de suministros y servicios cuyo valor estimado supere 100.000 euros. • Podrán ser **objeto del recurso** los siguientes **ACTOS:** a) Los anuncios de licitación, los pliegos y los documentos contractuales que establezcan las condiciones que deban regir la contratación. b) Determinados actos de trámite (cualificados) adoptados en el procedimiento de adjudicación. c) Los acuerdos de adjudicación adoptados por los poderes adjudicadores. d) Las modificaciones. e) Los encargos a medios propios. f) Los acuerdos de rescate de las concesiones. • Una vez interpuesto el recurso, en el plazo de **15 días hábiles**, **si el acto recurrido es el de adjudicación,** quedará **en suspenso** la tramitación del expediente de contratación. En el caso de contratos incluidos en el Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia, el plazo de recurso contra la adjudicación es de **10 días naturales**. • El conocimiento y resolución de estos recursos estará encomendado a **un órgano especializado** que actuará con plena **independencia funcional** en el ejercicio de sus competencias. Para el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco, el órgano competente para la resolución de estos recursos es el órgano administrativo de recursos contractuales (OARC) de la Comunidad Autónoma de Euskadi, adscrito al Gobierno Vasco, sin perjuicio de la competencia que pueda corresponder a los órganos y tribunales administrativos forales de recursos contractuales o, en su caso, a los creados en los municipios de gran población. • El recurso tiene **carácter potestativo** y es previo a la jurisdicción contenciosa.

FORMALIZACIÓN DEL CONTRATO	
CONTRATOS SUSCEPTIBLES DE RECURSO ESPECIAL EN MATERIA DE CONTRATACIÓN	La formalización **no podrá efectuarse** antes de que transcurran **quince días hábiles desde que se remita la notificación** de la adjudicación a los licitadores de conformidad con la Disposición Adicional decimoquinta de la LCSP.
CONTRATO NO SUSCEPTIBLES DE RECURSO ESPECIAL EN MATERIA DE CONTRATACIÓN	La formalización del contrato deberá efectuarse dentro del plazo de **quince días hábiles siguientes a aquél en que se reciba la notificación** de la adjudicación a los licitadores.
La formalización de los contratos **SE PUBLICA** en el perfil de contratante.	

PUBLICIDAD DE LA FORMALIZACIÓN DE LOS CONTRATOS	
TODOS LOS CONTRATOS	En el **perfil de contratante** se publica anuncio de formalización. Los contratos menores deberán publicarse trimestralmente.
SI ES UN CONTRATO SUJETO A **REGULACIÓN ARMONIZADA**	Además, se publica en el **DOUE** dentro del plazo de 10 días después de la formalización.

Legislación: Ley de Contratos del Sector Público, arts. 153 y 154

ESLEIPENA	**Kontratazio-mahaiak** edo, bestela, **kontratazio-organoak**: 1. **Beheranzko hurrenkeran sailkatuko ditu aurkeztutako proposamenak**, eta, gero, proposamena aurkeztuko dio kontratazio-organoari, baldin eta sailkapena kontratazio-mahaiak egiten badu. 2. **Ekonomikoki aldekoena den eskaintza aurkeztu duen lizitatzaileari** eskatuko zaio, hamar egun balioduneko epean, honako hauek **aurkez** ditzala: a) **Behin betiko bermea**: esleipenaren zenbatekoaren % 5 (edo lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren % 5, BEZik gabe, prezioa unitateko prezioen arabera formulatzen bada). b) Europako Kontratazio-Agiri Bakarrean (**EKAB**) deklaratutako alderdiak egiaztatzen dituen dokumentazioa, eskaintzaren lehenengo gutun-azalean**.** 3. Dokumentazioa jaso eta biharamunetik hasita bost egun balioduneko epean, kontratua esleituko du. 4. Kontratua esleitzearekin batera, aldi berean: a) Lizitatzaileei jakinaraziko zaie, modu arrazoitu batean. b) Kontratatzailearen profilean argitaratuko da esleipena.
ESLEIPENAREN ARLOKO ERREKURTSO BEREZIA **(SPKL, 44. art. eta hurrengoak)**	• Kontratazio-arloko errekurtso berezia jarri ahalko da **administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri aurretik**, honako **KONTRATU MOTA** hauetan: a) Obra-kontratuak, obra publikoen emakida, zerbitzu-emakida, horien balio zenbatetsia 3 milioi eurotik gorakoa bada. b) Hornidura- eta zerbitzu-kontratuak, haien balio zenbatetsia 100.000 eurotik gorakoa bada. • Honako **EGINTZA** hauen aurka aurkeztu ahalko da **errekurtso berezia**: a) Lizitazio-iragarkiak, baldintza-agiriak eta kontratazioa arautu behar duten baldintzak ezartzen dituzten kontratu-agiriak. b) Esleipen-prozeduran hartutako izapide-egintza jakin batzuk (kualifikatuak). c) Botere esleitzaileek onartutako esleipen-erabakiak. d) Aldaketak. e) Norberaren baliabideei egindako mandatuak. f) Emakidak erreskatatzeko akordioak. • Errekurtsoa jarri ondoren, **15 egun balioduneko** epean, **errekurritutako egintza esleipena bada**, **etenda** geratuko da kontratazio-espedientearen izapidetzea. Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planean sartutako kontratuen kasuan, esleipenaren kontrako errekurtsoa aurkezteko epea **10 egun naturalekoa** izango da. • **Organo espezializatu bati** esleituko zaio errekurtsoak aztertzeko eta ebazteko eskumena. Organo espezializatu horrek erabateko **independentzia funtzionala** izango du bere eskumenak gauzatzean. Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan, errekurtso horiek ebazteko organo eskuduna Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoa da, Eusko Jaurlaritzari atxikia, hargatik eragotzi gabe kontratu-errekurtsoetarako organoei eta foru-auzitegi administratiboei, edo, hala badagokio, biztanleria handia duten udalerrietan sortutakoei, egokitu ahalko zaien eskumena. • Errekurtsoa **aukerakoa** eta auzi-jurisdikzioaren aurretikoa da.

KONTRATUA FORMALIZATZEA	
KONTRATAZIO-ARLOKO ERREKURTSO BEREZIA JARRI AHAL ZAIEN KONTRATUAK	**Ezingo da formalizatu** adjudikazioaren **jakinarazpena** lizitatzaileei **bidaltzen zaienetik hasita hamabost egun balioduneko epea** igaro baino lehen, SPKLren hamabosgarren xedapen gehigarriaren arabera.
KONTRATAZIO-ARLOKO ERREKURTSO BEREZIA JARRI EZIN ZAIEN KONTRATUAK	Kontratua lizitatzaileek esleipenari buruzko **jakinarazpena jasotzen dutenetik zenbatzen hasita hamabost egun balioduneko epean** formalizatu behako da.
Kontratuen formalizazioa kontratatzailearen profilean **ARGITARATZEN DA**:	

FORMALIZATUTAKO KONTRATUAK ARGITARATZEA	
KONTRATU GUZTIAK	**Kontratatzailearen profilean** formalizazio-iragarkia argitaratzen da. Kontratu txikiak hiru hilean behin argitaratu beharko dira.
ERREGULAZIO HARMONIZATUKO KONTRATUA BADA:	Gainera, **EBAO**n argitaratzen da, formalizatu osteko 10 eguneko epean.

Legeria: Sektore Publikoko Kontratuen Legea, 153. eta 154. artikuluak

EJECUCIÓN DEL CONTRATO	El contratista ha de cumplir el **plazo total** fijado para la realización del mismo, así como los **plazos parciales** señalados para su ejecución sucesiva.
	Cuando por causas imputables al contratista **se incurra en demora** respecto al cumplimiento del plazo total o los plazos parciales determinados en el Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares o cuando la demora de estos últimos haga **presumir la imposibilidad del cumplimiento del plazo total**, la Administración podrá optar para **resolver el contrato** o **imponer las penalidades** que se contemplan en el art. 193 de la **LCSP.**
	Cuando el contratista **incumpla la ejecución de las prestaciones** del contrato, la Administración podrá optar por su **resolución**, o por la imposición de **penalidades** que para tales supuestos se determinen en el pliego de cláusulas administrativas particulares.
	Obligaciones laborales: los incumplimientos o los retrasos reiterados en el pago de los salarios o la aplicación de condiciones salariales inferiores a las derivadas de los convenios colectivos que sea grave y dolosa, darán lugar a la imposición de las penalidades o incluso a la resolución del contrato.
MODIFICACIÓN DE LOS CONTRATOS	Una vez perfeccionado el contrato, la **Administración** puede introducir modificaciones por razón de **interés público** hasta un máximo del **veinte por ciento** del precio inicial cuando **en los pliegos de cláusulas administrativas particulares** se hubiere advertido expresamente de esta posibilidad (art. 204 LCSP). Asimismo, caben las modificaciones **no previstas en el pliego** de cláusulas administrativas particulares en los supuestos y con las condiciones del art. 205 LCSP: cuando deviniera necesario añadir obras, suministros o servicios adicionales a los inicialmente contratados; cuando la necesidad de modificar un contrato vigente se derive de circunstancias sobrevenidas y que fueran imprevisibles en el momento en que tuvo lugar la licitación del contrato; cuando las modificaciones no sean sustanciales. En los supuestos de modificación del contrato recogidas en el artículo 205, las modificaciones acordadas por el órgano de contratación serán obligatorias para los contratistas cuando impliquen, aislada o conjuntamente, una alteración en su cuantía que no exceda del 20 por ciento del precio inicial del contrato, IVA excluido. Cabe recurso especial en materia de contratación en el supuesto de las modificaciones de los artículos 204 y 205 de la LCSP, por entender que la modificación debió ser objeto de una nueva adjudicación.
	Las modificaciones contractuales **se tramitarán mediante expediente contradictorio** donde conste: la propuesta de la Administración o petición del contratista, la audiencia del contratista, el informe del Secretario, la fiscalización de la Intervención, y la aprobación por el órgano de contratación.
REVISIÓN DE PRECIOS	• La revisión periódica y predeterminada de precios sólo se podrá llevar a cabo en los contratos de obra, en los contratos de suministros de fabricación de armamento y equipamiento de las Administraciones Públicas, en los contratos de suministro de energía y en aquellos otros contratos en los que el período de recuperación de la inversión sea igual o superior a cinco años. • No obstante, previa justificación en el expediente, podrá admitirse la revisión de precios en los contratos que no sean de obras, de suministros de fabricación de armamento y equipamiento de las Administraciones Públicas o de suministro de energía, aunque su período de recuperación de la inversión sea inferior a cinco años siempre que la suma de la participación en el presupuesto base de licitación del contrato de las materias primas, bienes intermedios y energía que se hayan de emplear supere el 20 por ciento de dicho presupuesto. En estos casos la revisión solo podrá afectar a la fracción del precio del contrato que representa dicha participación. El pliego deberá indicar el peso de cada materia prima, bien intermedio o suministro energético con participación superior al 1 por ciento y su respectivo índice oficial de revisión de precios. No será exigible para la inclusión en los pliegos de la fórmula de revisión a aplicar al precio del contrato la emisión de informe por el Comité Superior de Precios de Contratos del Estado. • Salvo en los contratos de suministro de energía, cuando proceda, la revisión periódica y predeterminada de precios en los contratos del sector público tendrá lugar cuando el contrato se hubiese ejecutado, al menos, en el **20 por ciento de su importe** y hubiese transcurrido **un año** desde su formalización. En consecuencia, el primer 20 por ciento ejecutado y el importe ejecutado en el primer año transcurrido desde la formalización quedarán excluidos de la revisión. No obstante, la condición relativa al porcentaje de ejecución del contrato no será exigible a efectos de proceder a la revisión periódica y predeterminada en los contratos de concesión de servicios.
PAGO DEL PRECIO	El contratista tiene derecho al abono de **la obra realmente ejecutada**, de las **modificaciones ejecutadas** que hubiesen sido aprobadas y de las **prestaciones realizadas** que obedezcan a órdenes dadas por escrito por la Administración.
	El pago del precio puede hacerse de manera **total o parcial** mediante abonos a cuenta.
	• El **régimen de pagos del contrato** será el establecido en el pliego, una vez ejecutada la prestación objeto del contrato y podrá hacerse de manera **total o parcial**, mediante abonos a cuenta o, en el caso de contratos de tracto sucesivo, mediante pago en cada uno de los vencimientos que se hubiesen estipulado. • El pago se realizará **contra factura** expedida por el contratista de acuerdo con la normativa vigente, debidamente conformada, en su caso, por el designado como responsable del contrato. • Los abonos tienen el concepto de **pagos a cuenta** sujetos a las rectificaciones y variaciones que se produzcan en la última certificación, y sin suponer en forma alguna la aprobación y recepción del contrato. • **Plazo para el abono**: Se deberá abonar dentro del plazo de 30 días. • Si la **demora** en el pago fuere **superior a cuatro meses**, el contratista podrá proceder, en su caso, a la **suspensión** del cumplimiento del contrato, debiendo comunicar a la Administración, con un mes de antelación, tal circunstancia. • Si la **demora** de la Administración fuese **superior a seis meses**, el contratista tendrá derecho a **resolver** el contrato y al resarcimiento de los perjuicios que se le originen.

Legislación: Ley de Contratos del Sector Público, arts. 192 a 210

KONTRATUA BETEARAZTEA	Kontratistak kontratua egikaritzeko finkatutako **guztirako epearen** barruan bete behar du kontratua; elkarren jarraian jarritako **epe partzialak** ere bete behar ditu.
	Baldin eta kontratista guztirako epea edo administrazio-klausula partikularren agirian ezarritako epe partzialak betetzen **atzeratu bada** berari egotz dakizkiokeen kausak direla-eta, edo horietan berandutu izanaren ondorioz **uste bada guztirako epea ere ezin dela bete,** Administrazioak **kontratua suntsiarazi** ahalko du edo **SPKL**ren 193. artikuluan ezartzen diren **zigorrak ezarri** ahalko ditu.
	Kontratistak kontratuaren **prestazioak ematen ez baditu**, administrazioak kontratua **suntsiaraztea** edo administrazio-klausula partikularren agirian kasu horietarako zehaztutako **zigorrak** ezartzea erabaki dezake.
	Lan-arloko betebeharrak: soldaten ordainketan urraketak edo atzerapen errepikatuak gertatzen badira, edo hitzarmen kolektiboetatik eratorriak direnak baino soldata-baldintza baxuagoak aplikatzen badira eta aplikazio hori astuna eta engainagarria bada, zigorrak ezarriko dira edo kontratua suntsiarazi ahalko da.
KONTRATUAK ALDATZEA	Kontratua burutu ostean, **Administrazioak** aldaketak egin ditzake, **interes publikoko** arrazoiak tarteko, hasierako prezioaren **ehuneko hogeira** arte aldatu ahalko dira, baldin eta **administrazio-klausula partikularren agirietan** berariaz aukera horri buruz ohartarazi bada (SPKL, 204. art.). Era berean, Administrazio-klausula partikularren **agirian aurreikusi gabeko** aldaketak egin ahalko dira, SPKLren 205. artikuluan ezarritako kasu eta baldintzetan: beharrezko gertatu denean hasiera batean kontratatutakoei obra, hornidura edo zerbitzu gehigarriak gehitzea; lizitazioaren unean aurreikusi ezin zitezkeen eta gerora sortu diren gorabeheretatik etorri denean indarrean dagoen kontratu bat aldatzeko beharra; aldaketak funtsezkoak ez direnean. 205. artikuluan jasotako kontratu-aldaketen kasuetan, kontratazio-organoak erabakitako aldaketak nahitaezkoak izango dira kontratistentzat, aldaketek —bakarka nahiz baturik— kontratuaren hasierako prezioan ehuneko 20 (BEZik gabe) baino handiagoak ez diren aldaketak dakartzatenean. Kontratazio-arloko errekurtso berezia jar daiteke SPKLren 204. eta 205. artikuluen aldaketen kasuan, aldaketak direla-eta beste esleipen bat egin beharra zegoela irizten denean.
	Kontratu-aldaketak **espediente kontrajarri baten bidez izapidetuko dira**; bertan, honako hauek jaso behar dira: administrazioaren proposamena edo kontratistaren eskaera, kontratistari entzunaldia ematea, idazkariaren txostena, Kontu-hartzailetzaren ikuskapena eta kontratazio-organoaren onespena.
PREZIOAK BERRIKUSTEA	• Prezioen aldizkako eta aurrez zehaztutako berrikuspena honako kasu hauetan bakarrik izango da posible: obra-kontratuetan, Administrazio publikoen armamentua eta ekipamendua fabrikatzeko hornidura-kontratuetan, energia-hornidurako kontratuetan eta inbertsioa berreskuratzeko bost urteko edo gehiagoko epea duten kontratuetan. • Hala ere, espedientean justifikatu ondoren, prezioen berrikuspena onartu ahal izango da obretakoak, herri-administrazioen armamentua eta ekipamendua fabrikatzeko hornidurakoak edo energia-hornidurakoak ez diren kontratuetan, nahiz eta inbertsioa berreskuratzeko epea bost urtetik beherakoa izan, baldin eta erabili beharreko lehengaiek, bitarteko ondasunek eta energiak kontratuaren lizitaziorako oinarrizko aurrekontuan duten partaidetzaren baturak aurrekontu horren ehuneko 20 gainditzen badu. Kasu horietan, berrikuspenak parte-hartze hori adierazten duen kontratuaren prezioaren zatikiari baino ezingo dio eragin. Ehuneko 1etik gorako parte-hartzea duen lehengai, tarteko gai edo energia-hornidura bakoitzaren pisua eta prezioen berrikuspenari dagokion indize ofiziala adierazi beharko dira baldintza-agirian. Kontratuaren prezioari aplikatu beharreko berrikuspen-formula baldintza-agirietan sartzeko, ezin izango da eskatu Estatuko Kontratuen Prezioen Batzorde Nagusiak txostena eman dezala. • Energia-hornidurako kontratuetan izan ezik, eta hala badagokio, sektore publikoko kontratuen prezioen aldizkako eta aurrez zehaztutako berrikuspena egingo da kontratuaren **zenbatekoaren ehuneko 20** gutxienez egikaritu denean eta formalizatu zenetik **urtebete** igaro denean. Beraz, egikaritutako lehenengo ehuneko 20a eta kontratua formalizatu zenetik igarotako lehen urtea berrikuspenetik kanpo geldituko dira. Zerbitzu-emakidako kontratuetan, hala eta guztiz ere, kontratua egikaritu izanaren ehunekoari buruzko baldintza ez da eskatzekoa izango aurrez zehaztutako aldizkako berrikuspenari ekiteko.
PREZIOA ORDAINTZEA	Kontratistak **egiazki gauzatu den obra**; onetsi eta **gauzatu diren aldaketak**, eta Administrazioak idatziz emandako aginduak direla-eta **gauzatu diren prestazioak** kobratzeko eskubidea du.
	Prezioaren ordainketa **osorik edo zatika** egin daiteke, konturako ordainketa bidez.
	• **Kontratuaren ordainketa-araubidea** baldintza-agirian ezarritakoa izango da, behin kontratuaren xede den prestazioa gauzatutakoan, eta ordainketa **osorik** egin ahal izango da **edo zati bat** ordaindu ahal izango da, konturako ordainketen bidez edo, segidako traktuko kontratuen kasuan, hitzartutako epemuga bakoitzean ordaindu ahal izango da. • Ordainketa kontratatzaileek indarrean dagoen araudiaren arabera aurkeztutako **fakturaren arabera** egingo da, eta, behar izanez gero, kontratuaren arduradun gisa izendatuak behar den bezala itxuratua egongo da. • Ordainketak **kontura egindako ordainketatzat** joko dira, eta azken ziurtagirian egiten diren zuzenketek eta aldaketek agindutakoaren menpe geldituko dira; baina horrek inola ere ez du esan nahi kontratua ontzat eman eta hartu egiten denik. • **Ordaintzeko epea**: 30 eguneko epean ordaindu beharko da. • Ordainketa **lau hilabetetik gora berandutu** bada, kontratistak **etenda** utz dezake kontratuaren egikaritzea; baina Administrazioari jakinarazi behar dio inguruabar hori, hilabete lehenago. • Administrazioa **sei hilabetetik gora berandutu** bada, kontratistak kontratua **suntsiarazteko** eskubidea izango du, baita horren ondorioz sortutako galeren kalte-ordainak jasotzekoa ere.

Legeria: Sektore Publikoko Kontratuen Legea, 192.-210. artikuluak


PRÓRROGA Y RESOLUCIÓN DEL CONTRATO	
PRÓRROGA DEL CONTRATO	• El contrato podrá prever una o varias **prórrogas** siempre que sus características permanezcan inalterables durante el período de duración de estas, sin perjuicio de las modificaciones que se puedan introducir de conformidad con lo establecido en los artículos 203 a 207 de la LCSP. • La prórroga se acordará por el órgano de contratación y **será obligatoria para el empresario**, siempre que su **preaviso** se produzca al menos con **dos meses de antelación** a la finalización del plazo de duración del contrato, salvo que en el pliego que rija el contrato se establezca uno mayor. Quedan exceptuados de la obligación de preaviso los contratos cuya duración fuera inferior a dos meses. • En ningún caso podrá producirse la prórroga por el consentimiento tácito de las partes. • La prórroga del contrato no será obligatoria para el contratista en los casos en que en el contrato se dé causa de resolución por haberse demorado la Administración en el abono del precio más de seis meses.
CAUSAS DE RESOLUCIÓN	• La **muerte o incapacidad sobrevenida** del contratista o extinción de la personalidad jurídica. • La declaración de **concurso** o de **insolvencia** en cualquier otro procedimiento. • El mutuo acuerdo entre la administración y el contratista. • La **falta de prestación de la garantía** definitiva, de las especiales o de las complementarias. • La **demora en el cumplimiento** de los plazos por parte del contratista. • La **falta de pago de la Administración**. • El **incumplimiento de la obligación principal del contrato**, o de las restantes obligaciones esenciales. • La imposibilidad de ejecutar la prestación en los términos inicialmente pactados, cuando no sea posible modificar el contrato. • Las que se señalen **específicamente** para cada categoría de contrato en la LCSP. • El **impago**, durante la ejecución del contrato, de los **salarios por parte del contratista** a los trabajadores que estuvieran participando en la misma, o el incumplimiento de las condiciones establecidas en los Convenios colectivos en vigor para estos trabajadores también durante la ejecución del contrato, a instancia de los representantes de los trabajadores en la empresa contratista.

Legislación: Ley de Contratos del Sector Público, arts. 29 y 211 a 213

KONTRATUA LUZATZEA ETA SUNTSIARAZTEA	
KONTRATUA LUZATZEA	• Kontratuak behin edo zenbait aldiz **luzatzeko** aukera jaso ahalko du, baldin eta haren ezaugarriak ez badira aldatzen luzapen horiek irauten duten bitartean; hori ez da eragozpena izango SPKLren 203. artikulutik 207. artikulura ezarritakoaren arabera sar daitezkeen aldaketetarako. • Luzapena kontratazio-organoak erabakiko du, eta **nahitaezkoa izango da enpresariarentzat**, baldin eta **aurreabisua** kontratuaren iraupen-epea amaitu baino gutxienez ere **bi hilabete lehenago** egiten bada; kontratuaren baldintza-agiriak hori baino epe luzeagoa ezar dezake. Aurreabisuaren betebeharretik salbuetsita daude bi hilabete baino gutxiago irauten duten kontratuak. • Inolaz ere ezingo da kontratua luzatu aldeen isilbidezko adostasunez. • Kontratu-luzapena ez da nahitaezkoa izango kontratistarentzat Administrazioa prezioa ordaintzeko orduan sei hilabetetik gora berandutu bada eta, hortaz, kontratua suntsiarazteko arrazoia gertatu bada.
SUNTSIARAZTEKO ARRAZOIAK	• Kontratistaren **heriotza edo gerora etorritako ezgaitasuna** edo nortasun juridikoa azkentzea. • Beste edozein prozeduratan, hartzekodunen **konkurtsoa** edo **kaudimengabezia** deklaratzea. • Administrazioa eta kontratista ados jartzea. • Behin betiko **bermea** edo berme bereziak nahiz osagarriak **ez jartzea**. • Kontratista epeak **betetzen berandutzea**. • **Administrazioak ez ordaintzea**. • **Kontratuaren betebehar nagusia** edo funtsezko gainerako betebeharrak **ez betetzea**. • Prestazioa ezin ematea hasiera batean itundutako baldintzetan, kontratua ezin denean aldatu. • SPKLn kontratu-kategoria bakoitzerako **berariaz** adierazitakoak. • **Kontratistak** kontratuan lan egiten ari diren langileei **soldatak ez ordaintzea** kontratua egikaritzen ari den bitartean, edo langile horientzat indarrean dauden hitzarmen kolektiboetan ezarritako baldintzak ez betetzea kontratua egikaritzen ari den bitartean, enpresa kontratistako langileen ordezkariek hala eskatuta.


Legeria: Sektore Publikoko Kontratuen Legea, 29. eta 211.-213. artikuluak

22. ESQUEMA DEL EXPEDIENTE DE CONTRATACIÓN



Guía Local - ISBN 978-84-7777-690-1

22. KONTRATAZIO-ESPEDIENTEAREN ESKEMA



XII.

INFORMAZIOAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN TEKNOLOGIAK

TECNOLOGÍAS DE LA INFORMACIÓN Y COMUNICACIÓN

XII.

Tecnologías de la Información y Comunicación

1. Tecnologías de la Información y Comunicación (TIC).
2. Administración electrónica: herramientas.

Guía Local - ISBN 978-84-7777-690-8

XII.

Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak

1. Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak (IKT).
2. Administrazio elektronikoa: tresnak.


VISIÓN

La Administración Local es el nivel administrativo más cercano a una ciudadanía que demanda cada vez más niveles de atención similares a los proporcionados por el sector privado. Sistemas de Autoservicio, interoperabilidad, acceso a la información, protección de datos, etc. son conceptos que ya están aquí para quedarse, donde las **TIC´s** juegan un **papel relevante en la definición del nuevo modelo de servicios públicos.**

Los legisladores se han encargado de que la **transición** entre el actual modelo de servicios públicos y lo que realmente espera la ciudadanía sea de **obligado cumplimiento**. La Ley 27/2013, de 27 de diciembre, de Racionalización y Sostenibilidad de la Administración Local (LRAL); la Ley 19/2013, de 9 de diciembre, de Transparencia, Acceso a la Información Pública y Buen Gobierno; la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas; la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público; la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi, así como los Esquemas Nacionales de Interoperabilidad y Seguridad están siendo palancas de cambio en los modelos de atención y gestión.

Las Administraciones Locales están inmersas en un **cambio de modelo en los ámbitos de la gestión pública**, en el que no cabe duda de que **la incorporación de las tecnologías será esencial**. Las TIC´s son una de las palancas de cambio en la mejora de los servicios externos e internos.

En este nuevo modelo no sólo cambia la forma y el canal en la prestación de servicio, sino la propia naturaleza del servicio, poniendo a **la ciudadanía en el foco**. Estas ideas están recogidas en el Plan Estratégico de Gobernanza e Innovación Pública (PEGIP 2020), que las representa mediante el siguiente esquema:



Fuente: Plan Estratégico de Gobernanza e Innovación Pública (PEGIP 2020)

Este modelo es asimilable a la administración local, y especialmente, considerando que es la administración más cercana.

Utilizando las nuevas tecnologías podemos dar un servicio mejor, más cercano, más rápido, más eficaz y eficiente a nuestros ciudadanos

Guía Local - ISBN 978-84-7777-690-8


IKUSPEGIA

Toki-administrazioa da herritarrengandik gertuen dagoen administrazio-maila, eta herritarrak gero eta gehiago ari dira eskatzen sektore pribatuak eskaintzen duen arretaren parekoa. Autozerbitzu-sistemak, elkarreragingarritasuna, informaziorako irispidea, datu-babesa eta abar dagoeneko gure gizartean dauden eta aurrerantzean ere egongo diren kontzeptuak dira, eta haietan **IKTek berebiziko garrantzia dute zerbitzu publikoen eredu berria definitzeko orduan**.

Zerbitzu publikoen egungo ereduaren eta herritarrek benetan itxaroten dutenaren arteko **trantsizioa nahitaez bete beharrekoa** izan dadin jardun dute legelariek. Arreta- eta kudeaketa-ereduak aldatzeko bultzatzen ari dira honako hauek: 27/2013 Legea, abenduaren 27koa, Toki Administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasunari buruzkoa; 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa; 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena; 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena; 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa; bai eta Elkarreragingarritasunaren eta Segurtasunaren Eskema Nazionalak.

Kudeaketa publikoaren eremuetan ereduak aldatzen ari dira toki-administrazioak, eta, zalantzarik gabe, **teknologiak sartzea funtsezkoa izango da**. Kanpoko nahiz barruko zerbitzuen hobekuntzan, aldaketa-eragileetako bat dira IKTak.

Eredu berri horretan, ez dira soilik zerbitzu-prestazioaren forma eta kanala aldatzen, baizik eta zerbitzuaren izaera bera ere bai, **arreta herritarrengan** jartzen baita. Ideia horiek Gobernantzako eta Berrikuntza Publikoko 2020ko Plan Estrategikoan daude bilduta eta eskema honen bidez azalduta:



Iturria: Gobernantzako eta Berrikuntza Publikoko 2020ko Plan Estrategikoa (GOBEPE 2020)

Eredu hori toki-administrazioarekin bateratu daiteke, batez ere kontuan hartuta herritarrengandik gertuen dagoen administrazioa dela.

Teknologia berriak baliatuta, zerbitzu hobea, gertukoagoa, azkarragoa, eraginkorragoa eta efizienteagoa eman diezaiekegu herritarrei

ESTRATEGIA TIC'S

Independientemente del tamaño de la administración local es muy importante, diríamos que básico, realizar un Plan de Sistemas de la Información (PESI) por varias razones:

1. **Orientación estratégica:** Un plan de sistemas proporciona una visión clara y una dirección estratégica para el desarrollo y la gestión de los sistemas de información de una organización. Ayuda a alinear los objetivos de los sistemas de información con los objetivos generales de la organización, asegurando que los recursos se utilicen de manera eficiente y efectiva.
2. **Identificación de necesidades y prioridades**: El plan de sistemas permite identificar las necesidades actuales y futuras de la organización en términos de sistemas de información. Permite evaluar y priorizar las inversiones en tecnología de acuerdo con las necesidades y prioridades establecidas, evitando gastos innecesarios o desalineados con los objetivos estratégicos.
3. **Gestión de riesgos**: El plan de sistemas también nos ayuda a identificar y gestionar los riesgos asociados con los sistemas de información. Permite evaluar la seguridad de los datos, la protección de la información y los posibles riesgos operativos o tecnológicos. Esto ayuda a implementar medidas de seguridad adecuadas y a establecer planes de contingencia para minimizar los impactos negativos.
4. **Eficiencia y eficacia operativa**: Un plan de sistemas bien diseñado optimiza los procesos y flujos de trabajo de la organización, mejorando la eficiencia y eficacia operativa. Puede identificar oportunidades para la automatización de tareas, la integración de sistemas y la mejora de la colaboración interna y externa.
5. **Adaptación al cambio**: El entorno tecnológico está en constante evolución. Un plan de sistemas permite a la organización adaptarse a los cambios tecnológicos y aprovechar las oportunidades que ofrecen. Facilita la incorporación de nuevas tecnologías de manera planificada y la actualización de los sistemas existentes para mantenerse al día y ser competitivo.

Plan de Sistemas de Información

- Es un conjunto de programas y proyectos tecnológicos que tienen unos objetivos comunes y responden a una serie de necesidades priorizadas en distintos años/etapas de ejecución por el Ayuntamiento.

Programa tecnológico

- Es un conjunto de proyectos tecnológicos que responde a un aspecto concreto de las necesidades de una organización y da solución a las mismas, priorizándose sus distintos proyectos en años/etapas de ejecución. Puede formar parte de un PESI.

Proyecto tecnológico

- Es un conjunto de acciones y tareas que permiten el establecimiento y mantenimiento de un sistema de información que responde a un aspecto concreto de las necesidades de una entidad y da solución a las mismas. Consta de unas etapas y unos costes de desarrollo. Puede formar parte de un programa tecnológico y de también de un PESI.

Nuestro PESI debe identificar programas y proyectos alineados con los siguientes **EJES ESTRATÉGICOS:**



Los proyectos definidos en el **PESI**, deben de **identificar al menos los siguientes conceptos**:

- **Descripción del proyecto.**
- **Ventajas** para la organización.
- **Riesgos.**
- **Estimación económica.**
- **Plazo.**

Guía Local - ISBN 978-84-7777-690-8

ESTRATEGIA IKTak

Toki-administrazioaren tamaina edozein dela ere, oso garrantzitsua da Informazio Sistemen Plana egitea, hainbat arrazoirengatik:

1. **Orientazio estrategikoa:** Sistemen planak ikuspegi argia eta norabide estrategikoa ematen du erakunde bateko informazio-sistemak garatzeko eta kudeatzeko. Informazio-sistemen helburuak erakundearen helburu orokorrekin bat egiten laguntzen du, eta baliabideak modu eraginkor eta efizientean erabiltzen direla ziurtatzen.
2. **Beharrizanak eta lehentasunak identifikatzea:** Sistemen planak aukera ematen du erakundearen egungo eta etorkizuneko beharrizanak identifikatzeko, informazio-sistemei dagokienez. Teknologian egindako inbertsioak ezarritako beharrizan eta lehentasunen arabera ebaluatu eta lehenesteko aukera ematen du, beharrezkoak ez diren edo helburu estrategikoekin bat ez datozen gastuak saihesteko.
3. **Arriskuen kudeaketa:** Sistemen planak informazio-sistemei lotutako arriskuak identifikatzen eta kudeatzen ere laguntzen digu. Aukera ematen du datuen segurtasuna, informazioaren babesa eta izan daitezkeen arrisku operatibo edo teknologikoak ebaluatzeko. Horrek segurtasun-neurri egokiak hartzen eta ondorio negatiboak minimizatzeko kontingentzia-planak ezartzen laguntzen du.
4. **Efizientzia eta efikazia operatiboa:** Ondo diseinatutako sistemen plan batek erakundearen prozesuak eta lan-fluxuak optimizatzen ditu, eta efizientzia eta efikazia operatiboa hobetzen. Zereginak automatizatzeko, sistemak integratzeko eta barne- eta kanpo-lankidetza hobetzeko aukerak identifika ditzake.
5. **Aldaketara egokitzea:** Ingurune teknologikoa etengabe aldatzen ari da. Sistemen plan batek erakundeari bide ematen dio aldaketa teknologikoetara egokitzeko eta aldaketa horiek ematen dituzten aukerak aprobetxatzeko. Lagundu egiten du teknologia berriak modu planifikatuan txertatzen eta dauden sistemak eguneratzen, egokituta egoteko eta lehiakorra izateko.

Informazio Sistemen Plana

- Helburu komunak dituzten programa eta proiektu teknologikoen multzoa da, eta udalak egikaritze-urte edo -etapetan lehenetsitako beharrizanei erantzuten diete.

Programa teknologikoa

Proiektu teknologikoen multzo bat da, erakunde baten beharrizanen alderdi jakin bati erantzuten diona eta beharrizan horiei irtenbidea ematen diena. Proiektu horiek egikaritze-urte edo -etapetan lehenesten dira. Informazio Sistemen Planean egon daiteke.

Proiektu teknologikoa

- Erakunde baten beharrizanen alderdi jakin bati erantzuten dion eta beharrizan horiei irtenbidea ematen dien informazio-sistema bat ezartzea eta mantentzea ahalbidetzen duten ekintzen eta zereginen multzo bat da. Etapak eta garatzeko kostuak ditu. Programa teknologiko baten barruan eta informazio-sistemen plan baten barruan egon daiteke.

Gure informazio-sistemen planak **ARDATZ ESTRATEGIKO** hauekin bat datozen programak eta proiektuak identifikatu behar ditu:




Informazio Sistemen Planean definitutako proiektuek **honako kontzeptu hauek identifikatu** behar dituzte, gutxienez:

- **Proiektuaren deskribapena.**
- Antolakundearentzako **abantailak**.
- **Arriskuak.**
- **Balioespen ekonomikoa.**
- **Epea.**

CONCEPTO

Agrupan los **recursos técnicos, humanos y organizativos** que soportan los procesos operativos sobre los que se prestan todos los **servicios** de la administración local.




El concepto de **TIC´s engloba recursos técnicos** (Hardware y Software) y **recursos humanos** (internos y externos), además de las **funciones y metodologías de trabajo** que permiten a la organización la prestación de los servicios internos (por ejemplo: procesos económicos, financieros) o externos (por ejemplo: selección de personal, contratación pública, udalekus, procesos de participación, etc.).

Guía Local - ISBN 978-84-7777-690-8

KONTZEPTUA

Toki-administrazioaren zerbitzu guztiak emateko prozesu operatiboen oinarri diren **baliabide teknikoak, giza baliabideak eta antolamenduzkoak** biltzen dituzte.




Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien kontzeptuak **baliabide teknikoak** (hardwarea eta softwarea) eta barruko eta kanpoko **giza baliabideak biltzen ditu**, baita antolakundeari barneko zerbitzuak edo kanpoko zerbitzuak eman ahal izateko **eginkizunak eta lan-metodologiak** ere (barneko zerbitzuetan, adibidez, prozesu ekonomikokoak eta finantzarioak; kanpoko zerbitzuetan, langileak hautatzea, kontratazio publikoa, udalekuak, parte hartzeko prozesuak, eta abar).

PRINCIPALES CAPAS Y ELEMENTOS DE LAS TECNOLOGÍAS DE LA INFORMACIÓN Y COMUNICACIÓN

SISTEMAS BÁSICOS

El **mapa de TIC´s básico** en una administración local debería de tener al menos los siguientes **sistemas**:



INFRAESTRUCTURA DE BASE

- **Recursos Humanos**.
- **Servidores Físicos y/o Sistemas en Cloud**.
- **Servidores Virtuales** (ficheros, correo, base de datos, transaccionales, web…).
- **Software de Base** (bases de datos, sistemas operativos, virtualización…).
- **Telecomunicaciones** (dispositivos de red; líneas de datos, voz y vídeo; acceso a Internet; centrales telefónicas físicas o virtuales…).
- **Redes de Datos** (Wan, LAN, DMZ, SARA, Euskalsarea…).
- **Seguridad** (Firewall, Antivirus...).
- **Copias de Seguridad — Backups.**
- **Microinformática** (ordenadores personales, dispositivos móviles, ofimática…).

SISTEMAS HORIZONTALES A LA ORGANIZACIÓN

- **Gestión Documental**.
- **Plataforma de Identificación y/o Firma Electrónica** Avanzada/Reconocida.
- Gestión de **Terceros**.
- Gestión del **Territorio**.
- Gestión de **Subvenciones.**
- **Catálogo de Servicios** (Servicios de Administración Electrónica).
- Gestión de **Contenidos** Web: Ayuntamiento, **Sectoriales** (Euskaltegi, Casas de Cultura, Institutos Municipales de Deporte…), **Temáticas** (Transparencia, Participación, Igualdad, Medio Ambiente, Comercio, Empleo...).
- Gestión de **Expedientes**.
- Gestión de **Indicadores** o Cuadros de Mando.
- Sistemas de **Interoperabilidad**.
- **Sede electrónica.**
- **Sitio web corporativo.**

SISTEMAS VERTICALES O DE NEGOCIO


Se agrupan **en función de la estructura de cada organización**; en la siguiente lista se identifican algunos ejemplos de **aplicaciones de negocio estándares** a cualquier organización local:

- Área **Económica** (SICAL, gestión de subvenciones, gestión tributaria, recaudación voluntaria y ejecutiva, inspección, patrimonio, portal del proveedor, gestión del presupuesto, factura electrónica...).
- Área de **Personal** (expedientes de personal, nómina, formación, control del tiempo, procesos selectivos...).
- Área de **Política Social** (recepción, diagnóstico, gestión de recursos sociales, gestión de planes de trabajo, seguimiento...).
- Área de **Política Territorial, Urbanismo y Medio Ambiente** (gestión del PGOU, gestión de la brigada de obras, inventarios de red de saneamientos, iluminación, saneamiento, telegestión del alumbrado público, mapa de ruidos…).
- Área de **Cultura, Juventud, Deporte, Euskera y Sanidad** (gestión de eventos y actividades, udalekus, subvenciones, traducciones, gestión del cementerio, perros peligrosos...).
- Área de **Contratación y Servicios** (expedientes de contratación, gestión de almacén...).
- Área de **Transparencia y Participación** (gestión de acceso la información...).
- Área de **Seguridad Ciudadana** (092, denuncias, detenciones, video vigilancia...).
- Área de **Atención a la Ciudadanía** (avisos, quejas y sugerencias, padrón de habitantes, registro general, actos comunicados, gestión de notificaciones...).
- Área de **Igualdad** (gestión de cursos y eventos).
- Área de **Secretaría General** (actas de comisiones y plenos, gestión de decretos...).
- Área de **Transparencia**.

INFORMAZIO ETA KOMUNIKAZIO TEKNOLOGIEN GERUZA ETA ELEMENTU NAGUSIAK

OINARRIZKO SISTEMAK

Toki-administrazio bateko **IKTen oinarrizko mapa**k, gutxienez, **sistema** hauek eduki beharko lituzke:



OINARRIZKO AZPIEGITURAK

- **Giza baliabideak**.
- **Zerbitzari fisikoak eta/edo Cloud-sistemak.**
- **Zerbitzari birtualak** (fitxategiak, posta, datu-basea, transakzionalak, webgunea, eta abar).
- **Oinarrizko softwarea** (datu-baseak, sistema eragileak, birtualizazioa, eta abar).
- **Telekomunikazioak** (sareko gailuak, datu-lineak, ahotsa eta bideoa, Interneterako sarbidea, telefono-zentral fisikoak edo birtualak, eta abar).
- **Datu-sareak** (Wan, LAN, DMZ, SARA, Euskalsarea, eta abar).
- **Segurtasuna** (suebakia, antibirusa, eta abar).
- **Segurtasun-kopiak — Backupak.**
- **Mikroinformatika** (ordenagailu pertsonalak, gailu mugikorrak, ofimatika, eta abar).

ERAKUNDEAREKIKO SISTEMA HORIZONTALAK

- **Dokumentuak kudeatzea**.
- **Identifikazio-plataforma eta/edo sinadura elektroniko** aurreratua/onartua.
- **Hirugarrenen** kudeaketa.
- **Lurraldearen** kudeaketa.
- **Dirulaguntzen** kudeaketa.
- **Zerbitzu-katalogoa** (Administrazio elektronikoaren zerbitzuak).
- Webguneko **edukien** kudeaketa: Udala, **Sektorialak** (Euskaltegia, Kultura Etxeak, Udalaren Kirol Erakundeak, eta abar), **Gaiak** (Gardentasuna, Partaidetza, Berdintasuna, Ingurumena, Merkataritza, Enplegua, eta abar).
- **Espedienteen** kudeaketa.
- **Adierazleen** edo aginte-koadroaren kudeaketa.
- **Elkarreragingarritasun** sistemak.
- **Egoitza elektronikoa.**
- **Webgune korporatiboa.**


SISTEMA BERTIKALAK EDO NEGOZIO-SISTEMAK

Erakunde bakoitzaren egituraren arabera biltzen dira; zerrenda honetan, edozein toki-erakundetako **negozio-aplikazio estandarren** adibide batzuk ematen dira:

- Arlo **Ekonomikoa** (SICAL, dirulaguntzen kudeaketa, zerga-kudeaketa, borondatezko bilketa eta nahitaezko bilketa, ikuskaritza, ondarea, hornitzailearen ataria, aurrekontuaren kudeaketa, faktura elektronikoa, eta abar).
- **Langileen** Arloa (langileen espedienteak, nomina, prestakuntza, denboraren kontrola, hautaketa-prozesuak, eta abar).
- **Gizarte Politikako** Arloa (harrera, diagnostikoa, gizarte-baliabideen kudeaketa, lan-planen kudeaketa, jarraipena, eta abar).
- **Lurralde Politika, Hirigintza eta Ingurumen** Arloa (HAPOaren kudeaketa, obren lantaldearen kudeaketa, saneamendu-sarearen inbentarioak, argiztapena, saneamendua, argiteria publikoaren telekudeaketa, zaraten mapa, eta abar).
- **Kultura, Gazteria, Kirol, Euskara eta Osasun** Arloa (ekitaldi eta jarduerak, udalekuak, dirulaguntzak, itzulpenak, hilerriak, zakur arriskutsuak eta abar kudeatzea).
- **Kontratazio eta Zerbitzuen** Arloa (kontratazio-espedienteak, biltegiaren kudeaketa, eta abar).
- **Gardentasun eta Partaidetza** Arloa (informaziorako sarbidearen kudeaketa, eta abar).
- **Herritarren Segurtasunaren** Arloa (092, salaketak, atxiloketak, bideozaintza, eta abar).
- **Herritarrak Artatzeko** Arloa (abisuak, kexak eta iradokizunak, biztanleen errolda, erregistro orokorra, egintza komunikatuak, jakinarazpenen kudeaketa, eta abar).
- **Berdintasun** Arloa (ikastaroen eta ekitaldien kudeaketa).
- **Idazkaritza Nagusiaren** Arloa (batzordeen eta osoko bilkuren aktak, dekretuen kudeaketa, eta abar).
- **Gardentasun** Arloa.

SERVICIOS A LA ORGANIZACIÓN

El papel de las TIC´s en los ayuntamientos es triple:



Además, y como rol más importante, el departamento de TI se puede definir como un **proveedor de servicios** internos encargado de satisfacer las necesidades tecnológicas de la organización. Su principal función es **brindar soluciones y servicios** relacionados con las Tecnologías de la Información **para asegurar el funcionamiento eficiente de los sistemas y procesos internos**.

Se encarga de ofrecer servicios y soporte técnico a los diferentes departamentos y usuarios de la organización. Actúa como un proveedor interno que se encarga de gestionar y mantener la infraestructura tecnológica, administrar los sistemas y redes, garantizar la seguridad de la información, desarrollar y mantener software y aplicaciones, así como proporcionar capacitación y formación en el uso adecuado de las herramientas tecnológicas.

El departamento de TI trabaja en estrecha colaboración con otros departamentos para comprender sus necesidades, implementar soluciones tecnológicas eficientes y mantener la continuidad operativa. Su **objetivo** es **proporcionar servicios y soluciones tecnológicas que impulsen la productividad, la eficiencia y la innovación dentro de la organización**, actuando como un socio estratégico para el logro de los objetivos.

Desde este punto de vista podemos definir las **siguientes áreas de actividades** que estarán más o menos presentes en función del tamaño del Ayuntamiento:

Operaciones

El área de operaciones en el departamento de TI se encarga de la gestión diaria y el mantenimiento de los sistemas y la infraestructura de tecnología de la información de la organización. El objetivo principal es garantizar que los sistemas y servicios de TI estén disponibles y funcionen correctamente para soportar las operaciones de la organización.

Funcionalidad

El área de funcionalidad en el departamento de TI se enfoca en la implementación y personalización de sistemas de software para apoyar las operaciones y procesos de la organización. Esta área trabaja en colaboración con otros departamentos de la organización para entender las necesidades y requerimientos del negocio y traducirlos en soluciones tecnológicas efectivas.

Innovación

La innovación en el departamento de TI se enfoca en la identificación y aplicación de nuevas tecnologías y soluciones que puedan mejorar los procesos de la organización, aumentar la eficiencia y la productividad, o proporcionar una ventaja competitiva en el mercado.

Gobernanza


La gobernanza de TI se refiere al conjunto de procesos y políticas que se utilizan para garantizar que los recursos y la tecnología de la información de una organización se utilicen de manera efectiva y eficiente para lograr los objetivos. Un departamento de TI también puede incluir un área de gobernanza de TI que se encarga de la definición, implementación y monitoreo de estas políticas y procesos.

Las **funciones** que corresponden a cada una de estas áreas son las siguientes:

1. **Operaciones**:
   a) Soporte a personas usuarias internas (incidencias, formación, aplicaciones de negocio...).
   b) Soporte a personas usuarias externas (sede electrónica).
   c) Interoperabilidad.
   d) Monitorización de sistemas.
   e) Infraestructura (sistemas (CPD), redes, bases de datos, microinformática, sistemas de respaldo).
2. **Funcionalidad**
   a) Mantenimiento de soluciones.
   b) Desarrollo de soluciones.
   c) Consultoría.
3. **Innovación**
   a) Gestión de proyectos (desarrollo, implantación).
   b) Consultoría.
   c) Vigilancia tecnológica.
4. **Gobernanza**
   a) Planes directores.
   b) Gestión de recursos.
   c) Presupuestos.
   d) ENS (Esquema Nacional de Seguridad).
   e) RGPD (Reglamento General de Protección de datos) — LOPD (Ley Orgánica de Protección de Datos Personales).
   f) ENI (Esquema Nacional de Interoperabilidad).

ERAKUNDEARENTZAKO ZERBITZUAK

IKTek hiru zeregin dituzte udaletan:




Gainera, IT saila erakundearen beharrizan teknologikoak betetzeaz arduratzen den barne-**zerbitzuen hornitzaile** gisa defini daiteke, sailaren zeregin nagusia hori denez. Haren funtzio nagusia informazioaren teknologiekin lotutako **irtenbideak eta zerbitzuak ematea** da, **barneko sistemek eta prozesuek modu efizientean funtzionatzen dutela ziurtatzeko**.

Erakundeko sail eta erabiltzaileei zerbitzuak eta laguntza teknikoa emateaz arduratzen da. Barne-hornitzaile gisa jarduten du, eta azpiegitura teknologikoa kudeatzeaz eta mantentzeaz, sistemak eta sareak administratzeaz, informazioaren segurtasuna bermatzeaz, softwarea eta aplikazioak garatu eta mantentzeaz eta tresna teknologikoak behar bezala erabiltzeko gaikuntza eta prestakuntza emateaz arduratzen da.

IT sailak beste sail batzuekin lankidetza estuan lan egiten du, haien beharrak ulertzeko, irtenbide teknologiko efizienteak ezartzeko eta jarraitutasun operatiboari eusteko. **Erakundearen produktibitatea, efizientzia eta berrikuntza bultzatuko dituzten zerbitzu eta irtenbide teknologikoak eskaintzea** du **helburu**, eta helburuak lortzeko bazkide estrategiko gisa jarduten du.

Ikuspuntu hori aintzat hartuta, udalaren tamainaren arabera presentzia handiagoa edo txikiagoa izango duten **honako jarduera-arlo hauek** aipa ditzakegu:



Arlo horietako bakoitzari **funtzio** hauek dagozkio:

1. **Eragiketak**:
   a) Barneko erabiltzaileentzako laguntza (gorabeherak, prestakuntza, negozio-aplikazioak, eta abar).
   b) Kanpoko erabiltzaileentzako laguntza (egoitza elektronikoa).
   c) Elkarreragingarritasuna.
   d) Sistemen monitorizazioa.
   e) Azpiegitura (sistemak (datu-zentroa), sareak, datu-baseak, mikroinformatika, babes-sistemak).
2. **Funtzionalitatea**
   a) Irtenbideak mantentzea.
   b) Irtenbideak garatzea.
   c) Aholkularitza.
3. **Berrikuntza**
   a) Proiektuak kudeatzea (garapena, ezarpena).
   b) Aholkularitza.
   c) Zaintza teknologikoa.
4. **Gobernantza**
   a) Plan zuzentzaileak.
   b) Baliabideen kudeaketa.
   c) Aurrekontuak.
   d) SEN (Segurtasunaren Eskema Nazionala).
   e) DBEO (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra) — DBLO (Datu Pertsonalak Babesteko Lege Organikoa).
   f) EEN (Elkarreragingarritasunaren Eskema Nazionala).

SEGURIDAD DE LA INFORMACIÓN


Debido al grado de informatización de nuestros ayuntamientos, la seguridad de la información se ha convertido en una preocupación crucial para las administraciones locales. Nuestras entidades manejan una gran cantidad de datos sensibles y confidenciales, desde información personal de la ciudadanía hasta datos relacionados con la gestión pública. Por lo tanto, es fundamental que las administraciones locales implementen **medidas sólidas de seguridad de la información para proteger la integridad, confidencialidad y disponibilidad de estos datos.**

En la práctica se debe entender el concepto de **seguridad desde tres ámbitos diferenciados**:

- La protección de datos de carácter personal reflejados en el RGPD.
- La evaluación de la seguridad reflejada en el Esquema Nacional de Seguridad.
- La seguridad activa y pasiva de los sistemas.

Tanto la adaptación al RGPD como el cumplimiento de Esquema Nacional de Seguridad son **obligaciones legales** que tienen los ayuntamientos INDEPENDIENTEMENTE de su tamaño.

De manera esquemática podemos indicar las diferentes fases, metodologías y resultado en la adaptación de nuestro ayuntamiento a estas normativas.



Guía Local - ISBN 978-84-7777-690-8

INFORMAZIOAREN SEGURTASUNA


Gure udalen informatizazio-maila dela eta, informazioaren segurtasuna kezka erabakigarria bihurtu da toki-administrazioentzat. Gure erakundeek datu sentikor eta konfidentzial asko dituzte, hala nola herritarren informazio pertsonala eta kudeaketa publikoarekin lotutako datuak. Beraz, funtsezkoa da toki-administrazioek **informazioaren segurtasunerako neurri sendoak ezartzea, datu horien osotasuna, konfidentzialtasuna eta erabilgarritasuna babesteko**.

Praktikan, **segurtasunaren kontzeptua hiru esparrutatik** ulertu behar da:

- DBEOko datu pertsonalen babesa.
- Segurtasunaren Eskema Nazionalean jasotako segurtasunaren ebaluazioa.
- Sistemen segurtasun aktiboa eta pasiboa.

DBEOra egokitzea eta Segurtasunaren Eskema Nazionala betetzea udalen **legezko betebeharrak** dira, udalaren tamaina EDOZEIN DELA ERE.

Gure udala araudi horietara egokitzeko faseak, metodologiak eta emaitzak adieraziko ditugu, modu eskematikoan.



FASES, METODOLOGÍAS Y RESULTADO EN LA ADAPTACIÓN DEL AYUNTAMIENTO A LA NORMATIVA SOBRE PROTECCIÓN DE DATOS PERSONALES Y SEGURIDAD	
ADAPTACIÓN AL RGPD	
Fase 1. Análisis situación inicial	
METODOLOGÍA	Identificación de áreas y procesos de negocio que traten datos de carácter personal.
	Identificación del desarrollo existente en Protección de Datos.
	Captura de información de las personas responsables de protección de datos y de los departamentos que potencialmente realizan tratamientos.
	Identificación de tratamientos existentes.
	Valoración del riesgo generado por los diversos tratamientos desarrollados, identificación de cuáles requieren una Evaluación de Impacto a la Protección de Datos.
RESULTADOS	Registro de actividades de tratamiento.
	Análisis de riesgos.
	Indicadores de cumplimiento de medidas de seguridad.
Fase 2. Documentos y metodología RGPD	
METODOLOGÍA	Identificación de las medidas de seguridad a desarrollar y elaboración de normativa interna para su ejecución.
	Desarrollo de protocolos de actuación de cara a gestionar brechas de seguridad.
	Desarrollo de procedimientos para el ejercicio de derechos de protección de datos por las personas interesadas respecto de sus datos personales.
RESULTADOS	Elaboración de procedimientos, política y otros documentos exigidos por la normativa.
	Evaluación del Impacto en la Protección de Datos (en los casos necesarios).
	Procedimiento de privacidad.
	Gestión de incidentes y violaciones de seguridad.
	Ejercicio de derechos de las personas interesadas.
Fase 3. Adaptación documental y planificación	
METODOLOGÍA	Adaptación de documentación necesaria para regular la relación de protección de datos.
	Elaboración de un documento público que regula el compromiso respecto de los datos personales de los clientes.
	Desarrollo del sistema de conservación de datos.
	Soporte y asesoramiento con el objetivo de ejecutar el modelo de seguridad y control del RGPD.
	Ayuda y seguimiento para el establecimiento y comienzo para poner, a nivel operacional, los procedimientos necesarios para cumplir con el RGPD.
	Elaboración del plan de acción para la adaptación al RGPD.
RESULTADOS	Plan de acción RGPD.
	Política de privacidad.
	Adaptación de documentación: documentación RGPD para encargados, documento RGPD personal.
	Política de conservación de datos.
ADAPTACIÓN AL ESQUEMA NACIONAL DE SEGURIDAD	
Fase 1. Análisis situación inicial	
METODOLOGÍA	Identificación de los servicios electrónicos.
	Categorización de los servicios en las 5 dimensiones de seguridad.
	Valoración de los servicios en las 5 dimensiones de seguridad.
	Definición del catálogo de servicios electrónicos.
	Definición de la política de seguridad de la información.
RESULTADOS	Catálogo de servicios y modelado de activos.
	Análisis de riesgos.
	Indicadores de cumplimiento de medidas de seguridad.
Fase 2. Documentos y metodología ENS	
METODOLOGÍA	Identificación de las medidas de seguridad a desarrollar y elaboración de normativa interna para su ejecución.
	Desarrollo de guías de bastionado.
	Desarrollo de manual de buenas prácticas.
	Desarrollo de política de clasificación y conservación de datos.
	Desarrollo del procedimiento de copias de seguridad.
	Desarrollo de procedimientos de actuación de cara a gestionar incidentes de seguridad.
	Desarrollo de política de controles criptográficos.
RESULTADOS	Elaboración de procedimientos, política y otros documentos exigidos por la normativa.
	Política de autorizaciones.
	Normativa general de uso de las TIC.
	Guía de privacidad y seguridad en compras.
	Arquitectura de seguridad.
Fase 3. Adaptación documental y planificación	
METODOLOGÍA	Adaptación de documentación necesaria para mantener el proceso de seguridad de la información.
	Elaboración de un decálogo de seguridad.
	Desarrollo de un procedimiento de formación y difusión.
	Elaboración del plan de acción y tratamiento de riesgos para la implantación de las medidas del ENS que así lo requieren.
RESULTADOS	Plan de mantenimiento del ENS.
	Procedimiento de formación y difusión.
	Plan de acción y tratamiento de riesgos.

CIBERSEGURIDAD

Es crucial que la organización aplique de manera efectiva los resultados obtenidos en los dos proyectos anteriores y adopte activamente medidas de seguridad para reducir la vulnerabilidad de la organización.

Las acciones en materia de seguridad deben de estar recogidas en un Plan Anual de Seguridad que como mínimo debería de tener los siguientes puntos:

- **HACKING / TEST DE INTRUSIÓN:** Con objeto de diagnosticar la infraestructura de seguridad y encontrar posibles fallos por los cuales podrían producirse ataques y así, evaluar el nivel de seguridad actual.
- **PROCEDIMIENTO DE RESPUESTA ANTE INCIDENTES:** Con objeto de gestionar una crisis o incidente de seguridad, catalogando en función del tipo de incidente.
- **ANÁLISIS DE VULNERABILIDADES:** Con objeto de auditar en profundidad la seguridad de los sistemas informáticos municipales, parque tecnológico, aplicaciones web, mobile apps, seguridad perimetral, código fuente, redes inalámbricas…
- **INGENIERÍA SOCIAL:** Con objeto de establecer los mecanismos para evitar que el personal empleado o colaborador pueda ser influenciado o engañado para poder extraer información.
- **PRUEBAS DE RECUPERACIÓN:** Con objeto de testear los planes de recuperación de desastres, y garantizar su funcionamiento.

UDALA DATU PERTSONALEN BABESARI ETA SEGURTASUNARI BURUZKO ARAUDIRA EGOKITZEKO FASEAK, METODOLOGIAK ETA EMAITZA	
DBEOra EGOKITZEA	
1. fasea. Hasierako egoera aztertzea	
METODOLOGIA	Datu pertsonalak tratatzen dituzten arloak eta negozio-prozesuak identifikatzea.
	Datuen babesaren arloko garapena identifikatzea.
	Datuak babesteko ardura duten pertsonen eta datuak tratatu ditzaketen sailen informazioa atzematea.
	Dauden tratamenduak identifikatzea.
	Garatutako tratamenduek sortutako arriskua neurtzea, eta identifikatzea zeintzuk behar duten datu-babesaren gaineko eraginaren ebaluazioa.
EMAITZAK	Tratamendu-jardueren erregistroa.
	Arriskuen azterketa.
	Segurtasun-neurriak betetzearen adierazleak.
2. fasea. Dokumentuak eta DBEO metodologia	
METODOLOGIA	Garatu beharreko segurtasun-neurriak identifikatzea eta horiek gauzatzeko barne-araudia lantzea.
	Segurtasun-arrakalak kudeatzeko jarduketa-protokoloak garatzea.
	Interesdunek beren datu pertsonalak babesteko eskubideak baliatzeko prozedurak garatzea.
EMAITZAK	Araudiak eskatutako prozedurak, politikak eta bestelako dokumentuak garatzea.
	Datu-babesaren gaineko eraginaren ebaluazioa (beharrezkoa den kasuetan).
	Pribatutasun-prozedura.
	Segurtasun-gorabeherak eta -urraketak kudeatzea.
	Interesdunen eskubideak baliatzea.
3. fasea. Dokumentuak egokitzea eta planifikatzea	
METODOLOGIA	Datuen babesa arautzeko beharrezkoa den dokumentazioa egokitzea.
	Bezeroen datu pertsonalekiko konpromisoa arautzen duen dokumentu publiko bat egitea.
	Datuak kontserbatzeko sistema garatzea.
	Laguntza eta aholkularitza, DBEOren segurtasun- eta kontrol-eredua egikaritzeko.
	Laguntza eta jarraipena, DBEO betetzeko behar diren prozedurak operazio-mailan ezartzeko eta abian jartzeko.
	DBEOra egokitzeko ekintza-plana egitea.
EMAITZAK	DBEOren ekintza-plana.
	Pribatutasun politika.
	Dokumentuak egokitzea: arduradunentzako DBEO dokumentuak eta langileentzako DBEO dokumentua.
	Datuak kontserbatzeko politika.
SEGURTASUNAREN ESKEMA NAZIONALERA EGOKITZEA	
1. fasea. Hasierako egoera aztertzea.	
METODOLOGIA	Zerbitzu elektronikoak identifikatzea.
	Zerbitzuak bost segurtasun-dimentsioetan kategorizatzea.
	Bost segurtasun-dimentsioetako zerbitzuak baloratzea.
	Zerbitzu elektronikoen katalogoa definitzea.
	Informazioaren segurtasun-politika definitzea.
EMAITZAK	Zerbitzu-katalogoa eta aktiboen eredua egitea.
	Arriskuen azterketa.
	Segurtasun-neurriak betetzearen adierazleak.
2. fasea. Dokumentuak eta SEN metodologia	
METODOLOGIA	Garatu beharreko segurtasun-neurriak identifikatzea eta horiek gauzatzeko barne-araudia lantzea.
	Gotortze-gidak garatzea.
	Jardunbide onen eskuliburua garatzea.
	Datuak sailkatzeko eta kontserbatzeko politika garatzea.
	Segurtasun-kopiak egiteko prozedura garatzea.
	Segurtasun-gorabeherak kudeatzeko jarduketa-prozedurak garatzea.
	Kontrol kriptografikoen politika garatzea.
EMAITZAK	Araudiak eskatutako prozedurak, politikak eta beste dokumentu batzuk garatzea.
	Baimen-politika.
	IKTak erabiltzeko araudi orokorra.
	Erosketetarako pribatutasun- eta segurtasun-gida.
	Segurtasun-arkitektura.
3. fasea. Dokumentuak egokitzea eta planifikatzea	
METODOLOGIA	Informazioaren segurtasun-prozesua mantentzeko beharrezkoa den dokumentazioa egokitzea.
	Segurtasun-dekalogo bat egitea.
	Prestakuntza- eta hedapen-prozedura bat garatzea.
	Ekintza-plana eta arriskuen tratamendu-plana egitea, hala eskatzen duten SENeko neurriak ezartzeko.
EMAITZAK	SEN mantentzeko plana.
	Prestakuntza- eta hedapen-prozedura.
	Ekiteko eta arriskuak tratatzeko plana.
ZIBERSEGURTASUNA	

Funtsezkoa da erakundeak aurreko bi proiektuetan lortutako emaitzak modu eraginkorrean aplikatzea eta segurtasun-neurriak aktiboki hartzea, erakundearen kalteberatasuna murrizteko.

Segurtasunaren arloko ekintzek urteko segurtasun-planean jasota egon behar dute. Plan horrek, gutxienez, honako gai hauek bildu beharko lituzke:

- **HACKING / SARRERA BIDEGABEEN TESTA:** Segurtasun-azpiegitura diagnostikatzeko eta erasoak eragin ditzaketen akatsak aurkitzeko, horren bidez egungo segurtasun-maila ebaluatzeko.
- **GERTAKARIEN AURREAN ERANTZUTEKO PROZEDURA:** Segurtasun-krisi edo -gertakari bat kudeatzeko, gertakari motaren arabera katalogatuta.
- **KALTEBERATASUNEN AZTERKETA:** Udal-sistema informatikoen, parke teknologikoaren, web-aplikazioen, mugikorrentzako aplikazioen, segurtasun perimetralaren, iturburu-kodearen, hari gabeko sareen eta abarren segurtasuna sakon ikuskatzeko.
- **INGENIARITZA SOZIALA:** Langileak edo laguntzaileak informazioa ateratzeko ez konbentzitzeko edo ez engainatzeko mekanismoak ezartzeko.
- **BERRESKURATZE-PROBAK:** Hondamendietatik suspertzeko planak probatzeko eta funtzionatzen dutela bermatzeko.

La Comisión Europea la define: «La administración electrónica es el uso de las Tecnologías de la Información y de las Comunicaciones en las Administraciones Públicas, combinado con cambios organizativos y nuevas aptitudes, con el fin de mejorar los servicios públicos y los procesos democráticos y reforzar el apoyo a las políticas públicas».

MARCO NORMATIVO (MÁS RELEVANTE) DE LA ADMINISTRACIÓN ELECTRÓNICA

LEY 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas	• Establece los diferentes aspectos de un **pleno funcionamiento electrónico** y regula las relaciones «ad extra» de las Administraciones con la ciudadanía, **estableciendo para determinados colectivos la obligatoriedad de relacionarse electrónicamente con la Administración**. • Deroga expresamente varias normas, entre las que destacan la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, y la Ley 11/2007, de 22 de junio, de Acceso Electrónico de los Ciudadanos a los Servicios Públicos. • Es de plena aplicación desde el 2 de abril de 2021 (según redacción de la D.F .7.ª «Entrada en vigor» de la Ley 39/2015, dada por la D.F. 9.ª del Real Decreto-ley 28/2020, de 22 de septiembre).
LEY 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público	• Regula «ad intra» el **funcionamiento interno de cada Administración y las relaciones entre las Administraciones, que se deberán realizar obligatoriamente por medios electrónicos** para lo que contempla: → Firma y sedes electrónicas. → Actuación administrativa automatizada. → Transmisiones de datos entre Administraciones Públicas. → Reutilización de sistemas y aplicaciones propiedad de la Administración y transferencia de tecnología entre Administraciones. • Principios de actuación: **interoperabilidad** de los medios electrónicos y sistemas, y **prestación conjunta de servicios** a la ciudadanía. • Recoge la **obligatoriedad de aplicar el Esquema Nacional de Interoperabilidad** (ENI) y **Esquema Nacional de Seguridad** (ENS).
Real Decreto 203/2021,de 30 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de actuación y funcionamiento del sector público por medios electrónicos	• Desarrolla y concreta el empleo de los medios electrónicos establecidos en las leyes 39/2015 y 40/2015, ambas de 1 de octubre. • Regula, entre otras cuestiones: → El contenido y los servicios mínimos a prestar por las sedes electrónicas y el área personalizada a través de la cual cada interesado podrá acceder a su información, al seguimiento de los trámites administrativos que le afecten y a las notificaciones y comunicaciones en el ámbito de la Administración Pública competente, que en el ámbito estatal se denomina «Carpeta Ciudadana». → El Sistema de Interconexión de Registros (SIR), a través del cual deberán realizarse las interconexiones entre Registros de las Administraciones Públicas.
Reglamento (UE) n.º 910/2014, de 23 de julio de 2014, relativo a la identificación electrónica y los servicios de confianza para las transacciones electrónicas en el mercado interior (eIDAS)	• Considerando 2: «El presente Reglamento se propone **reforzar la confianza en las transacciones electrónicas** en el mercado interior proporcionando una base común para lograr interacciones electrónicas seguras entre la ciudadanía, las empresas y las administraciones públicas e incrementando, en consecuencia, la eficacia de los servicios en línea públicos y privados, los negocios electrónicos y el comercio electrónico en la Unión». • **Objetivo**: eliminar la barrera entre países miembros, disponiendo de **sistemas de identificación de ciudadanos y validez de sus firmas electrónicas** que permitan operar con mayor agilidad, menor coste y ser más eficientes a nivel europeo. Así, tanto personas físicas como jurídicas podrán usar su documento de identificación electrónica (eIDs) en otros países de la Unión Europea, para acceder a trámites telemáticos u online de los diferentes gobiernos (e-gov services). • Se está elaborando un nuevo Reglamento que lo reemplace (previsto para 2023), comúnmente conocido como eIDAS 2. → La novedad fundamental será introducir una cartera de identidad digital europea, con el fin de dar solución a la falta de interoperabilidad actual entre los diferentes sistemas de identidad electrónica de los países miembros de la UE. → Irá pareja a los sistemas estatales públicos de identidad como nuestro DNI o pasaporte. → Otorgará a las personas usuarias pleno control de sus datos y permitirá decidir qué información compartir y con quién: desde datos sociales, financieros, médicos y profesionales hasta contactos.

Europako Batzordeak honela definitzen du: «Administrazio elektronikoa informazioaren eta komunikazioaren teknologiak herri-administrazioetan erabiltzea da; horrekin batera, antolaketa-aldaketak egin eta gaitasun berri batzuk garatzen dira, zerbitzu publikoak eta prozesu demokratikoak hobetzeko eta politika publikoak indartzeko».

ADMINISTRAZIO ELEKTRONIKOAREN ARAUDI- ESPARRUA (AIPAGARRIENA)

39/2015 LEGEA, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena	• **Elektronikoki erabat funtzionatzeko** zenbait alderdi ezartzen ditu, eta administrazioen herritarrekiko «ad extra» harremanak **eta kolektibo batzuek administrazioarekin dituzten harremanak nahitaez elektronikoki egin beharko dituztela ezartzen du**. • Berariaz indargabetzen ditu zenbait arau; hauek dira azpimarragarrienak: azaroaren 26ko 30/1992 Legea eta ekainaren 22ko 11/2007 Legea (Administrazio Publikoen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearena eta Herritarrek Zerbitzu Publikoetan Sarbide Elektronikoa izateari buruzkoa, hurrenez hurren). • 2021eko apirilaren 2tik aurrera indarrean dago oso-osorik (39/2015 Legearen «Indarrean Jartzea» azken xedapenetako 7.aren testuaren arabera, zeina irailaren 22ko 28/2020 Errege Lege Dekretuaren azken xedapenetako 9.ak eman baitzuen).
40/2015 LEGEA, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena	• «Ad intra» arautzen ditu **administrazio bakoitzaren barruko funtzionamendua eta administrazioen arteko harremanak, zeintzuk elektronikoki egin beharko diren nahitaez.** Horretarako, hau aurreikusten du: → Sinadura eta egoitza elektronikoak. → Administrazio-jarduketa automatizatua. → Administrazio publikoen arteko datu-transmisioak. → Administrazioaren jabetzako sistemak eta aplikazioak berrerabiltzea eta administrazioen arteko teknologia-transferentzia. • Jarduketa-printzipioak: bitarteko elektronikoen eta sistemen **elkarreragingarritasuna** eta herritarrei **zerbitzuak batera ematea**. • **Elkarreragingarritasunaren Eskema Nazionala** (EEN) **eta Segurtasuneko Eskema Nazionala** (SEN) nahitaez aplikatzeko betebeharra jasotzen du.
Martxoaren 30eko 203/2021 Errege Dekretua, sektore publikoak bitarteko elektronikoen bidez jarduteko eta funtzionatzeko erregelamendua onartzen duena	• Urriaren 1eko 39/2015 eta 40/2015 Legeetan ezarritako bitarteko elektronikoen erabilera garatzen eta zehazten du. • Besteak beste, honako hauek arautzen ditu: → Egoitza elektronikoek eman beharreko gutxieneko zerbitzuak eta edukiak eta eremu pertsonalizatua. Horren bidez, interesdunek beren informazioa eskuratu dezakete, eragiten dieten administrazio-izapideak jarraitu ditzakete eta administrazio publiko eskudunaren arloko jakinarazpenak eta komunikazioak jaso ditzakete. Estatuan «Herritarren Karpeta» deitzen da. → Erregistroen interkonexio-sistema (EIS). Bertan egin beharko dira administrazio publikoen erregistroen arteko interkonexioak.
2014ko uztailaren 23ko 910/2014 (EB) Erregelamendua, barneko merkatuari dagokionez identifikazio elektronikoari eta transakzio elektronikoetarako konfiantzazko zerbitzuei buruzkoa **(eIDAS)**	• 2. oinarria: «Erregelamendu honen helburua da barne-merkatuan **transakzio elektronikoak egiteko konfiantza indartzea**, herritarren, enpresen eta administrazio publikoen arteko interakzio elektroniko seguruak lortzeko oinarri komun bat ezarrita, eta, horren ondorioz, Europar Batasuneko sareko zerbitzu publiko eta pribatuen, negozio elektronikoen eta merkataritza elektronikoaren eragimena handituta». • **Helburua**: herrialde kideen arteko hesiak desagerraraztea, **herritarrak identifikatzeko sistemak eta haien sinadura elektronikoak balioesteko sistemak** ezarriz, arintasun handiagoz, kostu txikiagoz eta efizientzia handiagoz jardun ahal izateko Europan. Hala, bai pertsona fisikoek zein juridikoek beren identifikazio elektronikoko agiria erabili ahalko dute (eIDs) Europar Batasuneko beste herrialde batzuetan, gobernuen izapide telematikoetarako edo online izapideetarako irispidea izateko (e-gov services). • Hura ordezkatzeko erregelamendu berri bat sortzen ari dira (2023rako aurreikusita dago), eIDAS 2 moduan ezagutzen dena. → Berritasun nagusia izango da Europako nortasun-zorro digitala sartuko dela, gaur egun EBko estatu-kideen artean dauden nortasun elektronikoko askotariko sistemen arteko elkarreragingarritasun faltari irtenbidea emate aldera. → Gure NANaren edo pasaportearen bezalako estatuko nortasun-sistema publikoekiko parekidea izango da. → Erabiltzaileek beren datuen gaineko kontrol osoa izango dute eta erabaki ahal izango dute zein informazio eta norekin partekatu nahi duten, besteak beste datu sozialak, finantzakoak, medikoak, profesionalak, eta kontaktuak baita ere.

LEY 18/2015, por la que se modifica la Ley 37/2007, de 16 de noviembre, sobre reutilización de la información del sector público	• La **Ley 37/2007, sobre reutilización de la información del sector público**, supuso un precedente normativo al Open Data, partiendo de la *Directiva 2003/98/CE del Parlamento Europeo y del Consejo, de 17 de noviembre de 2003, relativa a la reutilización de la información del sector público*. Su objeto era la regulación básica del uso privado de los documentos elaborados o custodiados por las Administraciones y organismos de todo el sector público. → Art. 3 **Ámbito objetivo** de aplicación: ⇒ «1. Se entiende por reutilización el uso de documentos que obran en poder de las Administraciones y organismos del sector público, por personas físicas o jurídicas, con fines comerciales o no comerciales, siempre que dicho uso no constituya una actividad administrativa pública. ⇒ «2. La presente Ley se aplicará a los documentos elaborados o custodiados por las Administraciones y organismos del sector público, cuya reutilización no esté expresamente limitada por éstos». → **Fines de la Ley**. Principalmente: ⇒ Determinar los ámbitos de aplicación y los tipos de documentos excluidos de la reutilización. ⇒ Establecer el régimen administrativo de la reutilización. ⇒ Fijar formatos y condiciones de reutilización. ⇒ Regular las contraprestaciones económicas y sistemas de licenciamiento. ⇒ Procedimiento de tramitación de las solicitudes de reutilización. → Mediante esta Ley se incorpora al Derecho español la Directiva 2013/37/UE del Parlamento Europeo y del Consejo, de 26 de junio de 2013, por la que se modifica la Directiva 2003/98/CE relativa a la reutilización de la información del sector público.
Reglamento Orgánico Municipal	• Puesto que las leyes de procedimiento administrativo, régimen jurídico y otras, como las de contratos del sector público, establecen el pleno funcionamiento electrónico de la Administración, se hace necesario regular en el Reglamento Orgánico Municipal el funcionamiento electrónico de los órganos de gobierno municipal y de los demás cargos públicos y unidades administrativas. Referencias útiles (CAPV): Reglamento Orgánico Municipal de Ordizia.
Ordenanzas municipales reguladoras de la Administración Electrónica	Se hace **necesaria la aprobación de un instrumento normativo u Ordenanza** que determine la creación de las sedes electrónicas, registros de entrada/salida, notificaciones electrónicas y tablones de anuncios electrónicos, registro de funcionarios habilitados para la emisión de copias auténticas o para la asistencia en el uso de firma electrónica y registros de apoderamientos. Como referencia, los principales municipios de la CAPV, incluyendo las tres capitales, tienen aprobadas ordenanzas o reglamentos reguladores de la Administración Electrónica, si bien, por su novedad y actualización, es importante considerar la reciente Ordenanza de Lasarte-Oria.
Ley 25/2013, de 27 de diciembre, de impulso de la factura electrónica	• **Art. 4** establece la **obligatoriedad del uso de la factura electrónica** para los proveedores que hayan entregado bienes o prestado servicios a las Administraciones Públicas. • **Art. 5.1** establece que las **facturas electrónicas** que se remitan a las Administraciones Públicas deberán tener un **formato estructurado** y estar firmadas con **firma electrónica avanzada basada en un certificado reconocido**.
Ley 19/2013, de 9 de diciembre, de transparencia, acceso a la información pública y buen gobierno	• **Art. 11 Principios técnicos**. Establece que el Portal de la Transparencia contendrá información publicada de acuerdo con las prescripciones técnicas que se establezcan reglamentariamente, que deberán adecuarse a los siguientes principios: a) **Accesibilidad**: se proporcionará información estructurada sobre los documentos y recursos de información con vistas a facilitar la identificación y búsqueda de la información. b) **Interoperabilidad**: la información publicada será conforme al Esquema Nacional de Interoperabilidad. c) **Reutilización**: se fomentará que la información sea publicada en formatos que permitan su reutilización, de acuerdo con lo previsto en la Ley 18/2015, por la que se modifica la Ley 37/2007, de 16 de noviembre, sobre reutilización de la información del sector público.

18/2015 LEGEA, sektore publikoko informazioa berrerabiltzeari buruzko azaroaren 16ko 37/2007 Legea aldatzen duena	• Open Dataren araugintzako aurrekaria izan zen **37/2007 Legea, sektore publikoko informazioa berrerabiltzeari buruzkoa**, *2003ko azaroaren 17ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2003/98/EE Zuzentarauan, sektore publikoko informazioa berrerabiltzeari buruzkoan,* oinarritutakoa. Sektore publiko osoko administrazioek eta erakundeek egindako eta zaindutako dokumentuen erabilera pribatuaren oinarrizko erregulazioa zuen xede. → 3. artikulua: Aplikatzeko **eremu objektiboa**: ⇒ «1. Pertsona fisikoek edo juridikoek, asmo komertzialak izan edo ez, administrazioen edo sektore publikoko erakundeen esku dauden dokumentuak erabiltzea hartzen da berrerabiltzetzat, baldin eta erabilera hori administrazio-jarduera publiko bat ez bada. ⇒ «2. Lege hau sektore publikoko administrazioek eta organismoek egindako edo gordetako dokumentuei aplikatuko zaie, erakunde horiek espresuki berrerabiltze mugatukotzat jo dituzten dokumentuei izan ezik». → **Legearen xedeak**. Nagusiki: ⇒ Aplikazio-eremuak eta berrerabiltzetik kanpo geratzen diren dokumentu motak zehaztea. ⇒ Berrerabiltzearen administrazio-araubidea ezartzea. ⇒ Berrerabiltzeko formatuak eta baldintzak finkatzea. ⇒ Kontraprestazio ekonomikoak eta lizentziamendu-sistemak arautzea. ⇒ Berrerabiltzeko eskaerak izapidetzeko prozedura. → Lege honen bidez, Sektore Publikoko Informazioa Berrerabiltzeari buruzko 2003/98/EE Zuzentaraua aldatzen duen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko ekainaren 26ko 2013/37/EB Zuzentaraua Espainiako Zuzenbidean txertatzen da.
Udal-Erregelamendu Organikoa	• Administrazio-prozeduren legeek, araubide juridikokoek eta beste batzuek —besteak beste sektore publikoaren kontratuenak— administrazioren funtzionamendu elektroniko osoa ezartzen dutenez, beharrezkoa da Udal Erregelamendu Organikoan udal-gobernuko organoen eta gainerako kargu publikoen eta administrazio-unitateen funtzionamendu elektronikoa arautzea. Erreferentzia erabilgarriak (EAE): Ordiziako Udal Erregelamendu Organikoa.
Administrazio Elektronikoa arautzen duten udal-ordenantzak	**Beharrezkoa da araudi-tresna edo Ordenantza bat onartzea.** Bertan araututa egon behar dira egoitza elektronikoen sorrera, sarrera eta irteera erregistroak, jakinarazpen elektronikoak eta iragarki-ohol elektronikoak, jatorrizko kopiak emateko edo sinadura elektronikoa erabiltzen laguntzeko gaituta dauden funtzionarioen erregistroa eta ahalordeen erregistroak. Erreferentzia gisa, EAEko udalerri nagusiek —hiru hiriburuek barne— administrazio elektronikoaren ordenantzak edo erregelamenduak onartuta dituzte, baina berria eta eguneratua denez, Lasarte-Oriako Ordenantza berria kontuan hartzea garrantzitsua da.
Abenduaren 27ko 25/2013 Legea, faktura elektronikoa bultzatzeari buruzkoa	• **4. artikuluan** ezartzen da **nahitaezkoa dutela sinadura elektronikoa erabiltzea** administrazio publikoetan ondasunak eman dituzten edo zerbitzuak eskaini dituzten hornitzaileek. • **5.1. artikuluak** ezartzen du administrazio publikoetara igortzen diren **faktura elektronikoek formatu egituratua** izan beharko dutela eta **ziurtagiri onartu batean oinarritutako sinadura elektroniko aurreratuarekin** sinatuta egon beharko dutela.
19/2013 Legea, abenduaren 9koa, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa.	• **11. artikulua. Printzipio teknikoak**. Gardentasunaren Atarian, erregelamenduz ezarritako baldintza teknikoen arabera argitaratuko da informazioa, eta honako printzipio hauen araberakoa izan beharko du informazio horrek: a) **Irisgarritasuna**: dokumentuei eta informazio-baliabideei buruzko informazio egituratua emango da, informazioa errazago identifikatu eta aurkitzeko. b) **Elkarreragingarritasuna**: argitaratutako informazioa bat etorriko da Elkarreragingarritasunaren Eskema Nazionalarekin. c) **Berrerabilera**: sustatuko da argitaratutako informazioa berrerabiltzeko moduko formatuetan argitaratzea, sektore publikoko informazioa berrerabiltzeari buruzko azaroaren 16ko 37/2007 Legea aldatzen duen 18/2015 Legean aurreikusitakoaren arabera.

A partir de la aprobación de la Ley 39/2015 del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, cuando se menciona el término «Administración Electrónica», se está haciendo referencia a la «Administración», estableciendo de facto una identidad entre ambos términos, ya que la legislación actual contempla que el funcionamiento de la Administración debe ser plenamente electrónico.

Por tanto, la Ley ya no recoge derechos específicos en relación con la Administración Electrónica, sino que se debe garantizar que todos ellos se puedan ejercer por medios electrónicos.

DERECHOS DE LAS PERSONAS EN SUS RELACIONES CON LAS ADMINISTRACIONES PÚBLICAS (art. 13 Ley 39/2015)
• A comunicarse con las Administraciones Públicas a través de **un Punto de Acceso General electrónico** de la Administración.
• A ser **asistidos** en el uso de medios electrónicos en sus relaciones con las Administraciones Públicas.
• A utilizar las **lenguas oficiales** en el territorio de su Comunidad Autónoma, de acuerdo con lo previsto en esta Ley y en el resto del ordenamiento jurídico.
• **Al acceso a la información pública, archivos y registros**, de acuerdo con lo previsto en la Ley 19/2013, de 9 de diciembre, de transparencia, acceso a la información pública y buen gobierno y el resto del ordenamiento jurídico.
• A ser tratados con **respeto y deferencia** por las autoridades y empleados públicos, que habrán de facilitarles el ejercicio de sus derechos y el cumplimiento de sus obligaciones.
• **A exigir las responsabilidades** de las Administraciones Públicas y autoridades, cuando así corresponda legalmente.
• A la obtención y utilización de los **medios de identificación y firma electrónica** contemplados en esta Ley.
• A la **protección de datos** de carácter personal, y en particular a la seguridad y confidencialidad de los datos que figuren en los ficheros, sistemas y aplicaciones de las Administraciones Públicas.
• Cualesquiera **otros** que les reconozcan la Constitución y las Leyes.

DERECHO Y OBLIGACIÓN DE RELACIONARSE ELECTRÓNICAMENTE CON LAS ADMINISTRACIONES PÚBLICAS (art. 14 Ley 39/2015)
• Las **personas físicas podrán elegir en todo momento si se comunican con las Administraciones Públicas** para el ejercicio de sus derechos y obligaciones **a través de medios electrónicos o no**, salvo que estén obligadas a relacionarse a través de medios electrónicos con las Administraciones Públicas. El medio elegido por la persona para comunicarse con las Administraciones Públicas podrá ser modificado por aquella en cualquier momento.
• En todo caso, **están obligados a relacionarse a través de medios electrónicos con las Administraciones Públicas** para la realización de cualquier trámite de un procedimiento administrativo, al menos, los siguientes sujetos: a) **Las personas jurídicas**. b) **Las entidades sin personalidad jurídica**. c) **Quienes ejerzan una actividad profesional para la que se requiera colegiación obligatoria**, para los trámites y actuaciones que realicen con las Administraciones Públicas en ejercicio de dicha actividad profesional. En todo caso, dentro de este colectivo se entenderán incluidos los notarios y registradores de la propiedad y mercantiles. d) **Quienes representen a un interesado que esté obligado a relacionarse electrónicamente con la Administración.** e) **Los empleados de las Administraciones Públicas** para los trámites y actuaciones que realicen con ellas por razón de su condición de empleado público, en la forma en que se determine reglamentariamente por cada Administración.
• **Reglamentariamente, las Administraciones podrán establecer la obligación de relacionarse con ellas a través de medios electrónicos para determinados procedimientos y para ciertos colectivos de personas físicas** que por razón de su capacidad económica, técnica, dedicación profesional u otros motivos quede acreditado que tienen acceso y disponibilidad de los medios electrónicos necesarios. • En un Ayuntamiento, esta decisión únicamente puede adoptarse por el Pleno (mediante Ordenanza, Reglamento o Bases generales…). • Desde el año 2022, muchos ayuntamientos de Gipuzkoa han aprobado Ordenanzas para establecer esta obligación de relacionarse por medios electrónicos en los procesos selectivos (entre otros: San Sebastián, Errenteria, Lezo, Ordizia…).

DERECHOS DE LA PERSONA INTERESADA EN EL PROCEDIMIENTO ADMINISTRATIVO (art. 53 Ley 39/2015)
• A **conocer**, en cualquier momento, el **estado de la tramitación de los procedimientos en los que tengan la condición de interesados**; el **sentido del silencio** administrativo que corresponda, en caso de que la Administración no dicte ni notifique resolución expresa en plazo; el **órgano competente** para su instrucción, en su caso, y resolución; y los **actos de trámite** dictados. Asimismo, también tendrán derecho a acceder y a obtener **copia** de los documentos contenidos en los citados procedimientos. • Quienes se relacionen con las Administraciones Públicas a través de medios electrónicos, tendrán **derecho a consultar la información** a la que se refiere el párrafo anterior, **en el Punto de Acceso General electrónico** de la Administración que funcionará como un portal de acceso. Se entenderá cumplida la obligación de la Administración de facilitar copias de los documentos contenidos en los procedimientos mediante la puesta a disposición de las mismas en el Punto de Acceso General electrónico de la Administración competente o en las sedes electrónicas que correspondan.
• A **identificar** a las autoridades y al personal al servicio de las Administraciones Públicas bajo cuya responsabilidad se tramiten los procedimientos.
• A **no presentar documentos originales** salvo que, de manera excepcional, la normativa reguladora aplicable establezca lo contrario. En caso de que, excepcionalmente deban presentar un documento original, tendrán derecho a obtener una copia autenticada de éste.
• A **no presentar datos y documentos no exigidos por las normas aplicables** al procedimiento de que se trate, que ya se encuentren en poder de las Administraciones Públicas o que hayan sido elaborados por éstas
• A formular **alegaciones**, utilizar los **medios de defensa** admitidos por el Ordenamiento Jurídico, y a **aportar documentos en cualquier fase del procedimiento** anterior al trámite de audiencia, que deberán ser tenidos en cuenta por el órgano competente al redactar la propuesta de resolución
• A obtener **información y orientación** acerca de los **requisitos jurídicos o técnicos** que las disposiciones vigentes impongan a los proyectos, actuaciones o solicitudes que se propongan realizar.
• A actuar asistidos de **asesor** cuando lo consideren conveniente en defensa de sus intereses.
• A cumplir las **obligaciones de pago a través de los medios electrónicos** previstos en el artículo 98.2 LPAC.
• Cualesquiera **otros** que les reconozcan la Constitución y las leyes.

Administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearen 39/2015 Legea onartu zenetik, «Administrazio Elektronikoa» esaten denean, «Administrazioari» egiten zaio erreferentzia, bi terminoen artean identitate bat ezarriz, izatez, oraingo legerian aurreikusten delako administrazioaren funtzionamendua erabat elektronikoa izango dela.

Horregatik, Legeak dagoeneko ez du eskubide espezifikorik jasotzen Administrazio Elektronikoarekiko: orain bermatu behar duena da eskubide guztiak bitarteko elektronikoen bidez baliatu ahal izango direla.

HERRITARREK ADMINISTRAZIO PUBLIKOEKIKO HARREMANETAN DITUZTEN ESKUBIDEAK (39/2015 Legea, 13. art.)
• Administrazio publikoekin komunikatzea Administrazioaren **sarbide-puntu nagusi elektroniko baten** bitartez.
• Baliabide elektronikoak erabiltzeko **laguntza** jasotzea administrazio publikoekiko harremanetan.
• Norberaren autonomia-erkidegoko lurraldean **ofizialak diren hizkuntzak** erabiltzea, lege honetan eta gainerako ordenamendu juridikoan aurreikusitakoaren arabera.
• **Informazio publikora, artxiboetara eta erregistroetara irispidea** izatea, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legean eta gainerako ordenamendu juridikoan aurreikusitakoaren arabera.
• **Errespetuz eta begirunez** tratatuak izatea agintarien eta enplegatu publikoen aldetik, erraztasunak emanez beren eskubideez baliatzeko eta eginbeharrak betetzeko.
• Administrazio publikoen eta agintarien **erantzukizuna eskatzea**, legez hala dagokionean.
• Lege honetan aurreikusitako **identifikaziorako eta sinadura elektronikorako bitartekoak** lortzea eta erabiltzea.
• **Datu pertsonalak babestea**, eta bereziki administrazio publikoen fitxategi, sistema eta aplikazioetan jasota dauden datuen segurtasuna eta konfidentzialtasuna izatea.
• Konstituzioak eta legeek aitortzen dizkieten **gainerako** eskubide guztiak.

ADMINISTRAZIO PUBLIKOEKIN HARREMAN ELEKTRONIKOA IZATEKO ESKUBIDEA ETA BETEBEHARRA (39/2015 Legea, 14. art.)
• **Pertsona fisikoek noiznahi erabaki dezakete, beren eskubideak eta betebeharrak baliatzeko administrazio publikoekin komunikatzean bitarteko elektronikoak erabili edo ez**, salbu eta ez badaude behartuak administrazio publikoekiko harremana bitarteko elektronikoen bidez izatera. Administrazio publikoekin komunikatzeko aukeratu duen bidea noiznahi aldatu ahal izango du norberak.
• Betiere, **administrazio-prozedura baten edozein izapidetarako administrazio publikoekin harremana bitarteko elektronikoz izatera behartuak egongo** dira honako hauek, gutxienez: a) **Pertsona juridikoak**. b) **Izaera juridikorik gabeko erakundeak.** c) **Diharduten lanbidean jarduteko elkargo bateko kide izan behar dutenak**, jarduera hori dela-eta administrazio publikoekin egin behar dituzten izapide eta jarduketetarako. Kolektibo horretakotzat joko dira beti notarioak, jabetza-erregistratzaileak eta merkataritza-erregistratzaileak. d) **Administrazioarekiko harremana elektronikoki izatera behartuta dagoen interesdun baten ordezkariak.** e) **Administrazio publikoetako langileak**, langile publiko izateagatik administraziookin egiten dituzten izapide eta jarduketetarako, administrazio bakoitzak erregelamenduz zehazten duen eran.
• **Erregelamenduz, administrazioek haiekin harremana nahitaez bitarteko elektronikoz izan beharra ezarri ahal izango dute zenbait prozeduratarako eta pertsona fisikoen multzo batzuentzat**, haien gaitasun ekonomikoagatik, gaitasun teknikoagatik, dedikazio profesionalagatik edo bestelako arrazoiengatik egiaztaturik badago behar diren bitarteko elektronikoetarako sarbidea eta modua badutela. • Udal batean, erabaki hori bakar-bakarrik Osoko Bilkurak hartu dezake (ordenantza, erregelamendu edo oinarri orokorren eta abarren bidez). • 2022tik aurrera, Gipuzkoako udal askok ordenantzak onartu dituzte hautapen-prozesuetan bitarteko elektronikoekin harremanak izateko betebeharra ezartzeko (besteak beste hauek: Donostia, Errenteria, Lezo, Ordizia…).

ADMINISTRAZIO-PROZEDURAN INTERESDUN DENAREN ESKUBIDEAK (39/2015 Legea, 53. art.)
• Noiznahi **jakitea interesdun diren prozeduren izapidetzea nola doan**; administrazio-**isiltasunak zer esanahi duen**, Administrazioak ez badu epean ebazpen espresurik ematen ez jakinarazten; zer **organo den eskudun** instrukziorako, hala badagokio, eta ebazpena emateko; eta zer **izapide-egintza** eman diren. Eskubidea izango dute, orobat, prozeduretan jasotako dokumentuak eskuratzeko eta haien **kopia** lortzeko. • Administrazio publikoekiko harremana bitarteko elektronikoz dutenek **eskubidea** izango dute aurreko paragrafoan aipatzen den **informazioa kontsultatzeko** administrazioaren **sarbide-puntu nagusi elektronikoan**, zeinak sarbide-atari baten moduan funtzionatuko baitu. Prozeduretan sartutako dokumentuen kopiak emateko administrazioak duen betebeharra konplitutzat joko da haiek eskura jartzen direnean administrazio eskudunaren sarbide Puntu Elektroniko Orokorrean edo dagozkion egoitza elektronikoetan.
• Prozedurak izapidetzeko ardura duten administrazio publikoetako agintari eta langileak **identifikatzea**.
• **Jatorrizko dokumentuak ez aurkeztea**, salbu eta, salbuespenez, aplikatzekoa den araudiak kontrakoa ezartzen badu. Salbuespenez, jatorrizko agiri bat aurkeztu behar badute, haren kopia autentikatua eskuratzeko eskubidea izango dute.
• **Prozedurari aplikatzekoak zaizkion arauetan eskatzen ez den datu eta dokumenturik ez aurkeztu behar izatea**, administrazio publikoen esku badaude jada edo haiek prestatuak baldin badira.
• Prozeduraren edozein alditan, betiere entzunaldiaren izapidea egin aurretik, **alegazioak** aurkeztu, ordenamendu juridikoak onartzen dituen **defentsa-bideak** erabili eta **dokumentuak aurkeztea, prozeduraren edozein fasetan**; organo eskudunak ebazpen-proposamena idaztean kontuan hartu beharrekoak, denak ere.
• **Informazioa eta aholkuak lortzea** indarrean dauden xedapenen arabera proiektu, jarduketa edo eskaerak egitean bete beharreko **eskakizun juridiko eta teknikoei buruz**.
• **Aholkulari** batek lagundurik jardutea beren interesen alde egiteko komeni zaiela deritzotenean.
• **Ordainketa-betebeharrak** Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen 98.2 artikuluan aurreikusitako **bitarteko elektronikoen bidez betetzea**.
• Konstituzioak eta legeek aitortzen dizkieten **gainerako** eskubide guztiak.

CARACTERÍSTICAS Y VALIDEZ

LA FIRMA DIGITAL	• **Consiste en aplicar mecanismos criptográficos** al contenido de un documento con el objetivo de demostrar al receptor del mensaje que el emisor del mensaje es real, que éste no puede negar que envió el mensaje y que el mensaje no ha sido manipulado desde su emisión. • El **objeto** de la firma digital no es dar fe de un acto de voluntad de un firmante, sino tan solo **encriptar los datos** de un documento, **para dotarle de mayor seguridad.**
LA FIRMA ELECTRÓNICA	• Es un **concepto legal**, considerado como la indicación, en formato electrónico, de la **intención de una persona de aceptar el contenido** de un documento o un conjunto de datos con los que se relaciona la firma. • Al igual que la firma manuscrita, una firma electrónica es un concepto legal que captura la **intención del signatario de quedar obligado** por los términos del documento firmado.
LA FIRMA ELECTRÓNICA SIMPLE	Datos en formato electrónico asociados a otros datos en formato electrónico utilizados para firmar. Ejemplos: • Firmar manuscritamente un documento y enviarlo escaneado a través del correo electrónico. • Acceso a un servicio web mediante usuario y contraseña.
LA FIRMA ELECTRÓNICA AVANZADA	Es la firma electrónica que cumple los siguientes requisitos: • Vincular al firmante de manera única. • Permitir la identificación del firmante. • Creada de una manera que permita al signatario retener el control. • Estar vinculada con los datos firmados de tal modo que cualquier cambio posterior de los datos sea detectable.
LA FIRMA ELECTRÓNICA CUALIFICADA	• Es un subtipo de la avanzada, pero que está basada en un certificado cualificado para firma electrónica y que se genera mediante un dispositivo cualificado de creación de firma. • Los **certificados cualificados para firmas electrónicas** son facilitados por entidades de certificación electrónica a las que una autoridad nacional competente ha otorgado un estatus de **Prestador Cualificado**, de acuerdo con lo indicado en las «listas de confianza» nacionales de cada Estado miembro de la UE. • El Reglamento (UE) n.º 910/2014 (eIDAS) establece que una evidencia electrónica sobre la que se ha aplicado un servicio electrónico de confianza eIDAS de un Prestador Cualificado de Servicios de Confianza tiene **presunción de validez jurídica**. En consecuencia: → **Se equipara la validez de la firma electrónica cualificada**, en un documento electrónico, **a la firma manuscrita** aplicada a un documento en papel. → En caso de conflicto ante un tribunal, éste determina que esa evidencia es válida sin necesidad de aportar ninguna prueba pericial que lo demuestre.

Guía Local - ISBN 978-84-7777-690-8

EZAUGARRIAK ETA BALIOZKOTASUNA

SINADURA DIGITALA	• Kontua da **mekanismo kriptografikoak aplikatzea** dokumentu baten edukiari, mezuaren jasotzaileari zera erakusteko helburuz: mezuaren igortzailea benetakoa dela, hark ezin duela ukatu mezua bidali zuela eta mezua ez dela manipulatua izan bidali zenetik. • Sinadura digitalaren **xedea** ez da sinatzaile baten borondatezko egintza baten fede ematea, baizik eta bakarrik dokumentu baten **datuak enkriptatzea**, **segurtasun handiagoa emateko**.
SINADURA ELEKTRONIKOA	• **Legezko kontzeptu** bat da, honetan datzana: formatu elektronikoan azaltzean **pertsona batek** dokumentu edo datu-multzo baten **edukia onartzeko asmoa duela**, eta sinadura dokumentu edo datu horiekin lotuta egoten da. • Eskuz idatzitako sinadurarekin gertatzen den bezala, sinadura elektronikoa kontzeptu legal bat da, zeinak harrapatzen baitu **sinatzaileak** sinatutako dokumentuaren edukia betetzera **behartuta geratzeko asmoa**.
SINADURA ELEKTRONIKO SINPLEA	Sinatzeko erabiltzen diren datu elektroniko batzuei lotutako datu elektronikoak. Adibideak: • Agiri bat eskuz sinatzea eta eskaneatuta bidaltzea mezu elektroniko batean. • Erabiltzaile eta pasahitzarekin web-zerbitzu batera sartzea.
SINADURA ELEKTRONIKO AURRERATUA	Baldintza hauek betetzen dituen sinadura elektronikoa da: • Sinatzaile bakar bati lotua egotea. • Sinatzailea identifikatzeko bide ematea. • Sinatzaileari kontrolari atxikitzen uzteko moduan sortzen da. • Sinatutako datuekin lotuta dagoen modua dela-eta, datuetan ondoren egindako edozein aldaketa antzeman daiteke.
SINADURA ELEKTRONIKO KUALIFIKATUA	• Aurreratuaren azpi-mota bat da, baina sinadura elektronikorako ziurtagiri kualifikatu batean oinarritzen da, sinadura sortzeko gailu elektroniko seguru baten bitartez sorrarazten dena. • **Sinadura elektronikoetarako ziurtagiri kualifikatuak** ziurtatze elektronikoko entitateek ematen dituzte; entitate horiei agintari nazional eskudun batek **Emaile kualifikatuaren** estatusa eman die, Europar Batasuneko estatu kide bakoitzaren «konfiantza-zerrenda» nazionalen arabera. • 910/2014 (eIDAS) Erregelamenduak (EB) ezartzen du **baliozkotasun juridikoko presuntzioa** duela ebidentzia elektroniko batek, baldin eta aplikatu bazaio Konfiantza Zerbitzuen Emaile Kualifikatu baten eIDAS konfiantza-zerbitzu elektroniko bat. Beraz: → Dokumentu elektroniko baten **sinadura elektroniko kualifikatua** eta paperean idatzitako dokumentu batean **eskuz idatzitako sinadura baliokideak** izango dira. → Auzitegi batean gatazka egonez gero, hark erabakiko du ebidentzia hori balioduna dela huraxe egiaztatzeko inolako peritu-frogarik aurkeztu beharrik gabe.

ENTIDADES PRESTADORAS DE SERVICIOS ELECTRÓNICOS DE CONFIANZA

- Los **servicios electrónicos de confianza** permiten comprobar la **identidad de una persona** física o jurídica en Internet, y también la **integridad de los mensajes** que se intercambian a través de la Red. Son por tanto un elemento fundamental en la eliminación de las barreras en el mundo digital, puesto que refuerzan la seguridad de la información y contribuyen a la generación de confianza.
- El artículo 3 del Reglamento (UE) nº 910/2014 (eIDAS) recoge la **definición** de los servicios electrónicos de confianza: «una **persona física o jurídica que presta uno o más servicios electrónicos de confianza**, bien como prestador cualificado o como prestador no cualificado de servicios electrónicos de confianza».
- Según los arts. 9 y 10 de la Ley 39/2015 de Procedimiento Administrativo Común:
  - → Para **identificarse electrónicamente** ante las Administraciones Públicas,
  - → Para realizar **firmas electrónicas** válidas,
  - → Las Administraciones Públicas deberán garantizar que sea posible para todo procedimiento, la utilización de:
  - → Sistemas basados en **certificados electrónicos cualificados** de firma electrónica o sello electrónico **expedidos por prestadores incluidos en la «Lista de confianza de prestadores de servicios de certificación».**
- De acuerdo con el Reglamento (UE) n.º 910/2014 eIDAS, **servicio de confianza** es el **servicio electrónico consistente en:**
  - → La **creación, verificación y validación de firmas electrónicas, sellos electrónicos o sellos de tiempo electrónicos, servicios de entrega electrónica certificada y certificados relativos a estos servicios.**
  - → O la **creación, verificación y validación de certificados para la autenticación de sitios web**.
  - → O la **preservación de firmas, sellos o certificados electrónicos relativos a estos servicios.**
- Los prestadores de servicios electrónicos de confianza pueden dividirse entre **cualificados y no cualificados**. Para ser un prestador cualificado se deben prestar servicios electrónicos de confianza cualificados y se debe tener el reconocimiento como tal por parte de un organismo de supervisión.
- Los **prestadores cualificados de servicios electrónicos de confianza** son los que, **para expedir un certificado digital** a una persona física o jurídica, **deben verificar su identidad**. Para verificar la identidad, los prestadores cualificados de servicios electrónicos de confianza pueden hacerlo directamente, o bien a través de un tercero de conformidad con el Derecho nacional.
- El Reglamento eIDAS establece **cuatro maneras para verificar la identidad**:
  a) «**En presencia de la persona física o de un representante** autorizado de la persona jurídica».
  b) «**A distancia, utilizando medios de identificación electrónica**, **para los cuales se haya garantizado la presencia** de la persona física o de un representante autorizado de la persona jurídica previamente a la expedición del certificado cualificado». Estos medios de identificación electrónica deberán cumplir además con los requisitos establecidos con el artículo 8 con respecto a los niveles de seguridad «sustancial» o «alto».
  c) «**Por medio de un certificado de una firma electrónica cualificada o de un sello electrónico cualificado** expedido de conformidad con la letra a) o b)».
  d) «Utilizando **otros métodos de identificación reconocidos** a escala nacional que aporten una seguridad equivalente en términos de fiabilidad a la presencia física».

REFERENCIAS DE (ALGUNOS) PRESTADORES DE SERVICIOS ELECTRÓNICOS DE CONFIANZA CUALIFICADOS

- **IZENPE** (www.izenpe.eus), Entidad de Certificación Electrónica para las Administraciones Vascas, creada por el Gobierno Vasco y las tres Diputaciones Forales.
- **CERES,** Fábrica Nacional de Moneda y Timbre - Real Casa de la Moneda (FNMT-RCM).
- **CAMERFIRMA,** creada por las Cámaras de Comercio españolas.
- **DGP, Dirección General de la Policía** se constituye en Prestador de Servicios Electrónicos de Confianza para el DNI electrónico.
- **ANCERT**, Agencia Notarial de Certificación.
- **SCR,** Servicio de Certificación de los Registradores de la Propiedad.
- **ANF-AC**, Entidad certificadora europea con sedes en España, Ecuador y Perú.

KONFIANTZAZKO ZERBITZU ELEKTRONIKOAK EMATEN DITUZTEN ENTITATEAK

- **Konfiantzazko zerbitzu elektronikoen** bidez egiaztatu daiteke **pertsona** fisiko edo juridiko **baten nortasuna** Interneten, baita sarearen bidez trukatzen diren **mezuen osotasuna** ere. Horrenbestez, funtsezko elementua dira mundu digitaleko hesiak kentzeko, informazioaren segurtasuna indartzeaz gain konfiantza sortzen laguntzen dutelako.
- 910/2014 (eIDAS) (EB) Erregelamenduaren 3. artikuluan konfiantzazko zerbitzu elektronikoen **definizioa** jasotzen da: «**pertsona fisiko edo juridiko bat, konfiantzazko zerbitzu elektroniko bat edo gehiago ematen duena**, bai konfiantzazko zerbitzu elektronikoen emaile kualifikatu gisa bai kualifikatu gabeko emaile gisa ere».
- Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 39/2015 Legearen 9. eta 10. artikuluen arabera:
  - → Administrazio publikoetan **elektronikoki identifikatzeko**,
  - → Baliozko **sinadura elektronikoak** egiteko,
  - → Administrazio Publikoek bermatu beharko dute prozedura guztietan honako hauek erabiltzea posible dela:
  - → Sinadura edo zigilu elektronikoko **ziurtagiri elektroniko kualifikatuetan** oinarritzen diren sistemak. **Ziurtagiri horien emaileek sartuta egon behar dute «Ziurtapen-zerbitzuen emaileen konfiantzako zerrendan».**
- 910/2014 eIDAS (EB) Erregelamenduaren arabera, **konfiantzazko zerbitzua zerbitzu elektronikoa da, eta honetan datza**:
  - → **Sinadura elektronikoak, zigilu elektronikoak edo denbora-zigilu elektronikoak, entrega elektroniko ziurtatuen zerbitzuak eta zerbitzu horiei buruzko ziurtagiriak sortzea, egiaztatzea eta baliozkotzea.**
  - → Edo **webguneak autentifikatzeko ziurtagiriak sortzea, egiaztatzea eta baliozkotzea**.
  - → Edo **zerbitzu horiei buruzko sinadura, zigilu edo ziurtagiri elektronikoak babestea.**
- Konfiantzazko zerbitzu elektronikoen emaileak bi motatakoak izan daitezke: **kualifikatuak eta ez kualifikatuak**. Emaile kualifikatu batek konfiantzazko zerbitzu elektroniko kualifikatuak eman behar ditu, eta, hari gainbegiratze-erakunde batek aitortu behar dio emaile izaera.
- **Konfiantzazko zerbitzu elektronikoen emaile kualifikatuak:** pertsona fisiko edo juridiko bati **ziurtagiri digital** bat emateko, haren **nortasuna egiaztatu behar izaten dute**. Konfiantzazko zerbitzu elektronikoen emaile kualifikatuek zuzenean egiaztatu dezakete nortasuna, edo hirugarren baten bidez, Zuzenbide nazionalaren arabera.
- eIDAS Erregelamenduak **nortasuna egiaztatzeko lau modu ezartzen ditu**:
  a) **«Pertsona fisiko bat** edo pertsona juridikoaren **ordezkari** baimendu bat aurrean egonda».
  b) **«Urrutitik, identifikazio elektronikoko baliabideak erabiliz, haietarako bermatu badu, betiere,** pertsona fisikoa edo pertsona juridikoaren ordezkari baimendu bat egongo direla bertan, ziurtagiri kualifikatua eman baino lehen». Identifikazio elektronikoko baliabide horiek bete beharko dituzte, gainera, 8. artikuluak ezarritako baldintzak «funtsezko» segurtasun-mailari edo maila «handiari» dagokionez.
  c) **«Sinadura elektroniko kualifikatu edo zigilu elektroniko kualifikatu baten ziurtagiri baten bidez,** a) edo b) letretan ezarritakoaren arabera emanda».
  d) «Maila nazionalean **aitortutako bestelako identifikazio-metodoak** erabiliz, presentzia fisikoak besteko segurtasun-maila ematen dutenak».

KONFIANTZAZKO ZERBITZU ELEKTRONIKOEN EMAILE KUALIFIKATU BATZUK

- **IZENPE** (www.izenpe.eus), Euskal Administrazioetarako Ziurtapen Elektronikoko Erakundea, Eusko Jaurlaritzak eta hiru Foru Aldundiek sortua.
- **CERES**, Diruaren eta Zerga-zigiluaren Fabrika Nazionala-Monetaren Errege Etxea (FNMT-RCM).
- **CAMERFIRMA**, Espainiako Merkataritza-Ganberek sortua.
- **PZN, Poliziaren Zuzendaritza Nagusia**. NAN elektronikorako Autoritate Ziurtagiri-emaile gisa eratu da.
- **ANCERT**, Ziurtapeneko Notario Agentzia.
- **EZZ,** Jabetza Erregistratzaileen Ziurtapen Zerbitzua.
- **ANF-AC,** Europako Entitate ziurtagiri-emailea; Espainian, Ekuadorren eta Perun ditu egoitzak.

IMPLANTACIÓN DE LA ADMINISTRACIÓN ELECTRÓNICA

1. En la actualidad, todas **las Administraciones Públicas se fijan objetivos en materia de Administración Electrónica** y se habla de expedientes electrónicos, tramitación online, digitalización de documentos y administración sin papeles, firma electrónica de documentos, registro telemático, interoperabilidad, notificaciones telemáticas, etc.
2. La **base tecnológica está desarrollada y es plenamente operativa** (Entidades Prestadoras de Servicios de Confianza, DNIe y certificados de IZENPE, pasarela de pagos de Gobierno Vasco, sistemas de sellado de tiempo para el registro electrónico de documentos, sistemas de notificación electrónica…).
3. Y, además, el **marco jurídico**, desarrollado al máximo nivel europeo, no nos recomienda, **NOS OBLIGA.** Está claro, la Administración Electrónica no es una moda, sino que ha venido para quedarse y mejorar el servicio que prestamos a la ciudadanía y a las empresas, y también para mejorar nuestras administraciones, para hacerlas más ágiles, modernas, eficientes y eficaces, abiertas 24 horas, 7 días a la semana.

CLAVES DEL PROYECTO

➢	• La Administración Electrónica debe entenderse en **DOS VERTIENTES:** la **externa** de los servicios telemáticos dirigidos a la ciudadanía y más visible para ella; y la **interna**, centrada en alcanzar ese objetivo de una administración sin papeles ágil y eficiente. • Debe asumirse sin ningún tipo de dudas que ambas están completamente **interrelacionadas** y su correcta integración es fundamental.
➢	El éxito en la implantación de la Administración Electrónica requiere un **LIDERAZGO** político y técnico del proceso.
➢	La Administración Electrónica no es una cuestión puramente tecnológica, sino **MULTIDISCIPLINAR,** donde deben participar los y las responsables jurídicos, tecnológicos, de la gestión documental y de archivo, y especialmente los y las responsables de organización de la institución.
➢	Es un proyecto de gran complejidad, alcance y varios años de duración, de transformación profunda de la «forma de hacer» de la institución, por lo que es imprescindible trazar un plan de actuación, un **PLAN DIRECTOR DEL PROYECTO**.
➢	La Administración Electrónica debe construirse «en red», desde la **COLABORACIÓN y COOPERACIÓN INTERINSTITUCIONAL** en los procedimientos en los que interactúan. La **INTEROPERABILIDAD** es clave en la e-Administración, facilitando el concepto de Ventanilla Única, mejorando la atención a las personas al evitar solicitar una información que ya está en poder de otra Administración, y reduciendo costes y carga administrativa en las instituciones que interactúan electrónicamente.

ESCENARIOS DE PARTIDA

El desarrollo de un proyecto de Administración Electrónica en una Entidad Local está muy condicionado por la situación de partida de su Sistema de Información Digital:

a) En la situación de origen más sencilla, la Entidad Local basa su Sistema de Información en una solución básicamente única e integrada, proporcionada por la sociedad informática provincial correspondiente, o por un proveedor integral de servicios informáticos que dispone de su plataforma de gestión, y de una carpeta de servicios online personalizados también integrada con ella.
b) Ante un Sistema de Información más heterogéneo, basado en diferentes soluciones multiproveedor con mayor o menor grado de integración, la implantación de la Administración Electrónica se convierte en un proyecto de alta complejidad, en el que cobran importancia plena todo lo expuesto en los apartados siguientes, en los que se desarrollan las fases del proyecto y la necesidad de una construcción colaborativa del modelo.

ADMINISTRAZIO ELEKTRONIKOAREN EZARPENA

1. Gaur egun, **administrazio publiko guztiek ezartzen dizkiete beren buruei administrazio elektronikoaren arloko helburuak**, eta honako hauek aipatzen dira: espediente elektronikoak, online izapidetzea, dokumentuen digitalizazioa eta paperik gabeko administrazioa, dokumentuen sinadura elektronikoa, erregistro telematikoa, elkarreragingarritasuna, jakinarazpen telematikoak eta abar.
2. **Oinarri teknologikoa garatuta dago eta erabat operatiboa da** (Konfiantza-zerbitzuen Erakunde Emaileak, NANa eta IZENPEren ziurtagiriak, Eusko Jaurlaritzaren ordainketa-pasabidea, denbora-zigilatze sistemak dokumentuen erregistro elektronikoa egiteko, jakinarazpen elektronikoko sistemak...).
3. Eta, gainera, Europa osoan garatu den **esparru juridikoak** ez digu gomendatzen, **BEHARTU EGITEN GAITU.** Argi dago: Administrazio Elektronikoa ez da moda bat; geratzeko etorri da eta herritarrei eta enpresei eskaintzen diegun zerbitzua hobetzeko, baita gure administrazioak hobetzeko ere, administrazio horiek arinago, modernoago, efizienteago eta eraginkorrago bihurtzeko, 24 ordutan eta astean zazpi egunetan irekita egoteko.

PROIEKTUAREN GAKOAK

➢	• Administrazio Elektronikoa **BI IKUSPEGI** kontuan hartuta ulertu behar da: **kanpokoa,** herritarrei zuzendutako eta haientzat ikusgarriagoak diren zerbitzu telematikoak, eta **barnekoa,** paperik gabeko administrazio arina eta efizientea lortzeko helburu horretan bildua. • Inolako zalantzarik gabe onartu behar da biak erabat **elkarri lotuta** daudela eta bien integrazio egokia funtsezkoa dela.
➢	Administrazio Elektronikoaren ezarpenean arrakasta izateak prozesuaren **LIDERGO** politikoa eta teknikoa eskatzen du.
➢	Administrazio Elektronikoa ez da kontu soilik teknologikoa, baizik eta **DIZIPLINA ANITZEKOA**, non parte hartu behar duten arduradun juridikoek, teknologikoek, dokumentu-kudeaketaren eta artxiboaren arduradunek, eta bereziki erakundearen antolaketaren arduradunek.
➢	Konplexutasun handiko, sarbide handiko eta iraupen-urte askoko proiektu bat da, erakundearen «egiteko moduaren» eraldaketa sakonekoa, eta, hori dela eta, ezinbestekoa da jarduera-plan bat, **PROIEKTUAREN PLAN ZUZENTZAILE** bat diseinatzea.
➢	Administrazio Elektronikoa «sarean» eratu behar da, **ERAKUNDE ARTEKO LAGUNTZATIK eta LANKIDETZATIK** elkarri eragiten dieten prozedurei begira. **ELKARRERAGINGARRITASUNA** funtsezkoa da e-Administrazioa plataforman, Leihatila Bakarraren kontzeptua errazten duelako, eta beste administrazio batean dagoen informazioa eskatzen ez zaienez, pertsonei arreta hobea ematen zaielako, eta elektronikoki elkarreraginean dauden erakundeetan kostuak eta karga administratiboa murrizten dira.

ABIAPUNTUAK

Toki-erakunde batean administrazio elektronikoko proiektu bat garatzea asko baldintzatzen du bere informazio digitaleko sistemaren abiapuntuak:


a) Abiapuntu sinpleenean, toki-erakundearen informazio-sistema funtsean bakarra eta integratua izaten da eta dagokion eskualdeko informatika-sozietateak edo informatika-zerbitzuen hornitzaile batek ematen du. Azken horrek, era berean, bere kudeaketa-plataforma eta plataformaren barnean integratutako online zerbitzu pertsonalizatuen karpeta izaten ditu.

b) Informazio-sistema heterogeneoago batean —integrazio-maila handiagoa edo txikiagoa duen hornitzaile anitzeko hainbat irtenbidetan oinarritutakoa—, administrazio elektronikoa ezartzea konplexutasun handiko proiektua da, eta berebiziko garrantzia dute hurrengo apartatuetan adierazitakoek (horietan, proiektuaren faseak eta eredua elkarrekin eraiki beharra garatzen dira).

FASES DE IMPLANTACIÓN DE LA ADMINISTRACIÓN ELECTRÓNICA

Una posible organización del proyecto:


0	**ANÁLISIS DE SITUACIÓN**	• **Situación actual** de los procedimientos. Evaluación de las posibilidades de mejora y simplificación. • **Nivel de mecanización** de los procedimientos. • Adecuación de las aplicaciones de gestión al objetivo de la tramitación electrónica integral. • **Integración del Sistema de Información** y esencialmente la unificación de terceros.
1	**CREACIÓN DE UN EQUIPO DE TRABAJO MULTIDISCIPLINAR**, fijando un responsable técnico del proyecto.	
2	**REINGENIERÍA DE PROCESOS**	• Elaboración de un catálogo de procedimientos administrativos, realizando, para cada uno de ellos, su racionalización y simplificación; normalizando los soportes documentales electrónicos; y estableciendo las necesidades/posibilidades de interoperabilidad electrónica con otras instituciones. • En esta fase es fundamental articular correctamente la interrelación, coordinación y complementariedad entre la atención presencial (ventanilla única), atención telefónica (010) e información/tramitación telemática para conseguir la plena **multicanalidad**.
3	Implantación de los procedimientos normalizados en un **SISTEMA DE GESTIÓN DE EXPEDIENTES ADECUADO** a los procesos de la e-Administración. Integración de aplicativos «secundarios».	
4	Implantación de un **SISTEMA DE GESTIÓN DOCUMENTAL ELECTRÓNICA**.	
5	Implantación de una **PLATAFORMA CORPORATIVA de Administración Electrónica orientada a los SERVICIOS DE INFORMACIÓN Y TRAMITACIÓN** que incluya:	• Un sistema de **acceso e identificación** apoyado en un Prestador de Servicios Electrónicos de Confianza (IZENPE como Autoridad de Certificación para las Administraciones Vascas, con su solución de identificación electrónica BakQ para identificación y firma). • Una plataforma de **tramitación por pasos**, integrada con la gestión de expedientes. • El **Registro Telemático**, con sellado de tiempo, integrado con el Registro General de Entrada. • Un sistema de **notificación electrónica** con validez jurídica, preferiblemente apoyado en sistemas de preaviso (sms, e-mail). • **Pago electrónico**, siendo lo razonable la utilización de la pasarela electrónica de pagos de Gobierno Vasco. • Un **sistema de representación** para personas físicas y jurídicas.
6	Implantación de una **PLATAFORMA CORPORATIVA de Administración Electrónica destinada a los PROCESOS INTERNOS**	• Sistema de **digitalización de documentación** de procedencia externa en soporte papel. • **Portafirmas electrónico**. • Establecimiento de sistemáticas que permitan la **intermodalidad soporte electrónico <-> papel** (códigos de validación, compulsa electrónica). • Implantación del **Archivo Legal / Longevo.**
7	Elaboración y aprobación del **SOPORTE JURÍDICO** a la e-Administración **(ORDENANZA).**	
8	Creación de la **SEDE ELECTRÓNICA,** según la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.	
9	**FORMACIÓN DEL PERSONAL EMPLEADO PÚBLICO** para el trabajo en el nuevo escenario.	
10	**PLANIFICACIÓN PRIORIZADA** (trámites de mayor impacto, más facilidad de implantación, etc.) de la implantación de procedimientos en la plataforma de Administración Electrónica.	
11	Gestión de la **INTEROPERABILIDAD** y colaboración electrónica con otras administraciones.	
12	Implantación del **PORTAL DE TRANSPARENCIA** y **OPEN DATA**.	



ADMINISTRAZIO ELEKTRONIKOAREN EZARPENEKO FASEAK

Proiektuaren balizko antolaketa bat:

0	**EGOERAREN ANALISIA**	• Prozeduren **egungo egoera**. Hobetzeko eta sinplifikatzeko aukerak ebaluatzea. • Prozeduren **mekanizazio-maila**. • Kudeaketako aplikazioak izapidetze elektroniko osoaren helburura egokitzea. • **Informazio Sistemaren Integrazioa** eta batik bat hirugarrenen baterakuntza.
1	**DIZIPLINA ANITZEKO LANTALDE BAT SORTZEA**, proiektuaren arduradun tekniko bat finkatuz.	
2	**PROZESUEN BERRINGENIARITZA**	• Administrazio-prozeduren katalogo bat prestatzea, haietako bakoitzerako, arrazionalizazioa eta sinplifikazioa eginez; euskarri dokumental elektronikoak normalizatuz, eta beste erakunde batzuekiko elkarreragingarritasuneko beharrizan/aukerak ezarriz. • Fase honetan funtsezkoa da aurrez aurreko arretaren (leihatila bakarra), telefonozko arretaren (010) eta **kanal-aniztasun** osoa lortzeko informazio/izapidetze telematikoaren arteko elkarreragina, koordinazioa eta osagarritasuna behar den bezala egituratzea.
3	Prozedura normalizatuak e-Administrazioaren prozesuei **EGOKITUTAKO ESPEDIENTE KUDEAKETAKO SISTEMA** batean ezartzea. «Bigarren mailako» aplikazioak integratzea.	
4	**DOKUMENTUAK KUDEATZEKO SISTEMA ELEKTRONIKOA** ezartzea.	
5	**Administrazio elektronikoaren PLATAFORMA KORPORATIBO** bat ezartzea, **INFORMAZIO- ETA IZAPIDETZE-ZERBITZUETARA bideratuta.** Hau guztia bildu beharko du:	• **Sarbide eta identifikaziorako** sistema bat, konfiantzazko zerbitzu elektronikoen emaile batek babestua (IZENPE, ziurtatze-agintari gisa EAEko administrazioetarako, haren identifikazio elektronikoko irtenbidearekin -BakQ-, identifikaziorako eta sinadurarako). • **Urratsez urrats izapidetzeko** plataforma bat, espediente-kudeaketarekin integratua. • **Erregistro Telematikoa**, denbora-zigilatzea duena, sarrerako erregistro nagusiarekin integratua. • Baliotasun juridikoa duen **jakinarazpen elektronikoko** sistema bat, ahal izanez gero, aurreabisuko sistemetan (sms, posta elektronikoa) oinarritua. • **Ordainketa elektronikoa**. Zentzuzkoena Eusko Jaurlaritzaren pasabide elektronikoa erabiltzea da. • Pertsona fisiko eta juridikoentzako **ordezkapeneko sistema** bat.
6	**PLATAFORMA KORPORATIBO** bat ezartzea. **BARNEKO PROZESUETARA zuzendutako Administrazio Elektronikoa**	• Kanpotik papereko euskarrian datorren **dokumentazioa digitalizatzeko** sistema. • **Sinadura-karpeta elektronikoa**. • **Euskarri elektronikoa <-> papera intermodalitatea** erabiltzeko sistematikak ezartzea (balioztapen- kodeak, konpultsa elektronikoa). • **Legezko / Luzaroko artxiboa** ezartzea.
7	e-Administrazioaren **EUSKARRI JURIDIKOA** prestatzea eta onartzea **(ORDENANTZA).**	
8	**EGOITZA ELEKTRONIKOA** sortzea, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen arabera.	
9	**LANGILE PUBLIKOAK PRESTATZEA** egoera berrian lan egiteko.	
10	**PLANGINTZA LEHENETSIA** (eragin handieneko izapideak, ezartzeko erraztasun handiagoa, etab.) Administrazio Elektronikoko plataformako prozedurak ezartzerakoan.	
11	Beste administrazio batzuekiko **ELKARRERAGINGARRITASUNAREN** eta lankidetza elektronikoaren kudeaketa.	
12	**GARDENTASUN ATARIA** eta **OPEN DATA** ezartzea.	



IMPLANTACIÓN DE LA ADMINISTRACIÓN ELECTRÓNICA SOBRE BASES E INFRAESTRUCTURAS COMUNES

Tal como se ha señalado anteriormente, salvo en los ayuntamientos de menor tamaño y menores recursos y capacidad para la adopción de las TIC, en los que las sociedades informáticas de las diputaciones forales han facilitado una infraestructura de Sistema de Información razonablemente integrada, los sistemas de información de los ayuntamientos se han ido construyendo a lo largo de más de tres décadas sin que hayan existido unas bases de desarrollo coherentes y coordinadas, ni un aprovechamiento y reutilización de aplicaciones.

Nos encontramos así, a la hora de afrontar un proyecto de e-Administración, con sistemas de información diversos, si bien se están abordando iniciativas y soluciones que persiguen facilitar el desarrollo de los proyectos de e-Administración en las Administraciones Locales, buscando que este desarrollo sea más coherente y colaborativo. A continuación, se citan, en esta línea de colaboración y coherencia constructiva, varias estrategias y herramientas a disposición de los ayuntamientos:

REINGENIERÍA DE PROCESOS	La Asociación de Municipios Vascos, EUDEL, a partir del Plan de acción 2014 de la Agenda de Innovación Local (AIL) y de la Comisión de Nuevas Tecnologías, desarrolló un **Proyecto de Simplificación de Cargas Administrativas** para la determinación de un catálogo de procedimientos que sirviera de referencia para el conjunto de municipios. Se basa en el aprovechamiento de la experiencia de los municipios más avanzados, y en el acompañamiento a los ayuntamientos en el proceso de revisión, optimización y descripción de los procedimientos administrativos, para su posterior implantación.
PLATAFORMA de Administración Electrónica	**IZENPE**, la Entidad de Certificación Electrónica para las Administraciones Vascas, ofrece un amplio abanico de soluciones para la implantación de los principales servicios: • Medios de identificación y firma para la ciudadanía (BaK, de nivel básico, y BakQ, de nivel cualificado), así como certificados de profesionales y de representantes, dirigidos a profesionales y empresas respectivamente. Ofrece además una APP móvil, IZENPE MOBILE, que permite usar el teléfono móvil como medio de identificación electrónica segura. • Sellado de tiempo, necesario para el Registro Electrónico de documentos, y para la gestión de otros trámites que requieran verificación fehaciente de la integridad de un documento electrónico, de que éste no ha sufrido modificaciones desde el instante temporal en el que se generó el sello emitido por IZENPE como Tercero Confiable. • Portafirmas electrónico (IZENBOX), para la sustitución de la firma manuscrita en los expedientes electrónicos. • Constancia de publicación, para la acreditación fehaciente del momento del inicio de la difusión pública de una información, lo que es de especial utilidad para el Perfil del Contratante.
PAGO ELECTRÓNICO	La **Pasarela de Pagos del Gobierno Vasco** ofrece a las Administraciones de la CAPV un instrumento sencillo, versátil y seguro para la gestión de los procedimientos electrónicos que requieren pago, permitiendo integrar con ella los trámites electrónicos, recuperando la verificación de la materialización de los pagos, y posibilitando una adecuada gestión contable de las operaciones realizadas por el canal electrónico.
INTEROPERABILIDAD	La interoperabilidad electrónica es una pieza fundamental en la construcción de la e-Administración, generando eficiencia en el desarrollo de procedimientos 100% electrónicos, evitando la incorporación de certificaciones en papel de otras Administraciones y, sobre todo, ahorrando a la ciudadanía molestias para la obtención de esos certificados, de ventanilla en ventanilla.
ARCHIVO LEGAL DE DOCUMENTOS	La gestión de los expedientes electrónicos exige disponer de **sistemas de custodia de documentos electrónicos** que garanticen su autenticidad, calidad y protección, así como su integridad desde su creación hasta el final de su ciclo de vida (periodo previsto de conservación), para equipararla legalmente con el proceso en papel, constituyéndose así las evidencias electrónicas. Una solución colaborativa para disponer de estas costosas infraestructuras la ofrece METAPOSTA, la sociedad constituida por diversas instituciones y empresas de la CAPV para ofrecer servicios de almacenamiento y buzón seguros en Internet a la ciudadanía, empresas e instituciones, a partir de su solución **METABOX**.


ADMINISTRAZIO ELEKTRONIKOAREN EZARPENA OINARRI ETA AZPIEGITURA KOMUNAK

Aurretik azaldu den bezala, albo batera utzita txikiak diren eta IKTak ezartzeko baliabide eta gaitasun txikiagoa duten udalak (haietan, foru-aldundietako informatika-sozietateek zuzen integratutako informazio-sistemaren azpiegitura ezarri dute), udalen informazio-sistemak hiru hamarkada baino gehiagoan eraikitzen joan dira, eta denbora horretan ez da egon garapen-oinarri koherente eta koordinaturik, ezta aplikazioen aprobetxamendu eta berrerabilerarik ere.


Gauzak horrela, e-Administrazioko proiektu bati aurre egin behar diogunean, informazio-sistema desberdinak ditugu. Nolanahi ere, Tokiko Administrazioetan e-Administrazioko proiektuak garatzea eta garapen koherentea eta kolaboratiboa izatea ahalbidetzen duten ekimenak eta konponbideak lantzen ari dira. Ondoren, lankidetza eta koherentzia eraikitzailearen ildo horretan, udalen eskura dauden zenbait estrategia eta tresna aipatzen dira.

PROZESUEN BERRINGENIARITZA	EUDEL Euskadiko Udalen Elkarteak, Tokiko Berrikuntza Agendaren (TBA) eta Teknologia Berrien Batzordearen 2014ko Ekintza Planetik abiatuta **Administrazio Kargak Sinplifikatzeko Proiektu** bat garatu du udalerri guztiek erreferentzia gisa erabili ahal izateko prozedura-katalogo bat zehazteko. Udalerri aurreratuenen esperientzia aprobetxatzen du eta udalei laguntzen die administrazio-prozedurak berrikusteko, optimizatzeko eta deskribatzeko prozesuan, eta gero ezarri egiten du.
Administrazio elektronikorako PLATAFORMA	**IZENPE**k, Euskal Administrazioentzako Ziurtapen Elektronikoko Erakundeak irtenbide-aukera zabala eskaintzen du zerbitzu nagusiak ezartzeko: • Herritarrentzako identifikazio- eta sinadura-bitartekoak (BaK —oinarrizkoa— eta BakQ —maila kualifikatukoa—), eta langileen eta ordezkarien ziurtagiriak, hurrenez hurren profesionalei eta enpresei zuzendutakoak. Gainera, telefono mugikorretarako APP bat ere badu, IZENPE MOBILE izenekoa, eta berarekin, telefono mugikorra erabili daiteke identifikazio-elektronikoko bitarteko seguru gisa. • Denbora-zigilua, ezinbestekoa dokumentuen Erregistro Elektronikoa egiteko eta dokumentu elektroniko baten osotasunaren egiaztapen sinesgarria (IZENPEk Hirugarren Fidagarri gisa emandako zigilua eman zen unetik aurrera dokumentuak aldaketarik izan ez duela egiaztatzen duena), behar duten beste izapide batzuk kudeatzeko. • Sinadura-karpeta elektronikoa (IZENBOX), eskuz idatzitako sinadura ordeztuko duena espediente elektronikoetan. • Argitalpenaren berri jasota uztea, informazio baten hedapen publikoa egiten hasten denetik aurrera egiaztapen sinesgarria egiteko, eta hori bereziki baliagarria da Kontratugilearen Profilerako.
ORDAINKETA ELEKTRONIKOA	**Eusko Jaurlaritzaren ordainketa-pasabideak** EAEko administrazio publikoei tresna erraza, moldakorra eta segurua eskaintzen die ordaindu beharreko prozedura elektronikoak kudeatzeko, eta pasabide horretan sartu daitezke izapide elektronikoak (ordainketak egin izanaren ziurtapenak berreskuratuz), eta horrez gain, pasabideak ahalbidetzen du elektronikoki egindako eragiketen kontabilitate-kudeaketa egokia izatea.
ELKARRERAGINGARRITASUNA	Elkarreragingarritasun elektronikoa funtsezko elementua da e-Administrazioaren eraikuntzan, oso-osorik elektronikoak diren prozedurak garatzen efizientzia sortuz, beste administrazio batzuen paperezko ziurtagiriak sartzea saihestuz, eta, batez ere, herritarrek leihatilaz leihatila joan beharrik izan ez dezaten ziurtagiriok lortzeko eragozpenak kenduz.
DOKUMENTUEN LEGEZKO ARTXIBATZEA	Espediente elektronikoak kudeatzeko, **dokumentu elektronikoak zaintzeko sistemak** behar dira, dokumentu horien benetakotasuna, kalitatea eta babesa bermatuko dutenak, baita dokumentu horiek sortzen direnetik beren bizi-zikloaren amaiera arte (kontserbatzeko aurreikusitako aldia) haien osotasuna bermatuko dutenak ere, kudeaketa hori paperezko prozesuarekin legez parekatzeko; eta horrela ebidentzia elektronikoak eratuko dira. Azpiegitura garesti horiek eskuratzeko konponbide kolaboratiboa METAPOSTAk —EAEko hainbat erakundek eta enpresak herritarrei Interneteko biltegiratze-eta postontzi-zerbitzu seguruak eskaintzeko eratutako sozietateak— eskaintzen du, bere **METABOX** soluzioan oinarrituta.

Un ejemplo de esquema general del modelo de Administración Electrónica puede ser el siguiente:



Hau izan daiteke Administrazio Elektronikoaren ereduaren eskema orokorraren adibide bat:



SISTEMÁTICA DE CATALOGACIÓN

El desarrollo de la Administración Electrónica debe ser un **proceso paulatino de incorporación de trámites, servicios y procedimientos al nuevo canal telemático,** que **deben quedar adecuadamente catalogados** tras las fases de análisis y reingeniería de procesos (fases de la implantación de la administración electrónica).

Esta catalogación debe realizarse de acuerdo con una **SISTEMÁTICA** como la siguiente:

- El equipo de trabajo de la e-Administración, de común acuerdo con las Áreas funcionales afectadas y previo informe de los Servicios Jurídicos, realiza la **NORMALIZACIÓN Y FIJACIÓN DE LOS PROCEDIMIENTOS** asociados a cada uno de los trámites a ofrecer a través del canal electrónico, elaborando un **Manual de Procedimiento**.
- El **MANUAL DE PROCEDIMIENTO** determinará los **documentos y datos en el registro de entrada telemático**, así como las **condiciones de funcionamiento** y los **requisitos jurídicos y/o técnicos** a establecer en la actuación del ciudadano o ciudadana a través del canal electrónico en cada procedimiento.
- Los manuales de procedimiento deberán ser **aprobados por el órgano competente** (Resolución de Alcaldía, etc.).
- El **CATÁLOGO DE TRÁMITES** estará disponible en la **sede electrónica,** así como en los servicios de **ventanilla única** presenciales y telefónicos.

REFERENTES DE ÁREA

Es de vital importancia la fijación de una figura de Referente de Área, básica en la **coordinación de los canales de atención directa a la ciudadanía con cada uno de los servicios municipales**. Sus **FUNCIONES** pueden resumirse en:

- Servir de **INTERLOCUTOR** o puente entre los **servicios de atención a la ciudadanía y el Área correspondiente**, ofreciendo el apoyo necesario cuando sea requerido.
- Proponer **modificaciones y ampliaciones en el catálogo de trámites y procedimientos electrónicos**, en aquellos que competencialmente correspondan a su Área.
- **Mantener informados a los Servicios municipales** competentes sobre todas las **actuaciones del Área que tengan repercusión de cara a la ciudadanía**, tales como el estado de tramitación de los procedimientos, quejas y reclamaciones, anuncios, campañas, y en general de cuantas actividades desarrolle el Área.
- Velar y coordinar las **actuaciones necesarias de respuesta dentro de su Área** por las **demandas de la ciudadanía presentadas a través de la Sede Electrónica.**
- Controlar el **correcto cumplimiento de los Manuales de procedimiento** aprobados, y que por contenido funcional le corresponda.

NOTA: Tal como se ha indicado anteriormente, el «Proyecto de Simplificación de Cargas Administrativas» desarrollado por EUDEL, es una valiosa referencia a la hora de establecer el Catálogo de Trámites, Servicios y Procedimientos en general, y su aplicación al canal electrónico en particular.

Guía Local - ISBN 978-84-7777-690-8

KATALOGAZIO-SISTEMATIKA

Administrazio Elektronikoaren garapena **pausoz pausoko prozesu bat izan behar da, izapide, zerbitzu eta prozedura-kanal telematiko berrira txertatuz joango dena**. Horiek guztiek **behar den bezala katalogatuta geratu behar dute** prozesuen analisiko eta berringeniaritzako faseen ondoren (administrazio elektronikoa ezartzeko faseen ondoren).

Katalogazio hori honakoa bezalako **SISTEMATIKA** baten arabera egin behar da:

- e-Administrazioaren lantaldeak, eraginpeko arlo funtzionalekin adostuta eta zerbitzu juridikoek irizpidea eman ondoren, kanal elektronikoaren bidez eskaini beharreko izapideetako bakoitzari lotutako **PROZEDUREN NORMALIZAZIOA ETA FINKAPENA** egiten du, eta, horretarako, **prozedurako eskuliburu** bat prestatzen du.
- **PROZEDURAKO ESKULIBURUAK sarrera-erregistro telematikorako agiriak eta datuak zehaztuko ditu**, baita prozedura bakoitzean kanal elektronikoaren bidez herritarraren jardueran ezarri beharreko **funtzionamenduko baldintzak** eta **eskakizun juridiko eta/edo teknikoak** ere.
- Prozedurako eskuliburuak **organo eskudunak** (alkatetzaren ebazpena, eta abar) onartuak izan beharko dira.
- **IZAPIDE-KATALOGOA** eskuragarri egongo da **egoitza elektronikoan,** baita aurrez aurreko edo telefonozko **leihatila bakarreko** zerbitzuetan ere.

ARLOKO ERREFERENTEAK

Garrantzi handikoa da arloko erreferentearen figura bat finkatzea, oinarrizkoa baita **herritarrek udal-zerbitzuetako bakoitzarekin dituzten zuzeneko arretarako kanalak koordinatzeko**. Haien **FUNTZIOAK** honela laburbil daitezke:

- **Herritarrentzako arreta-zerbitzuen eta kasuan kasuko arloaren** arteko **SOLASKIDE** izatea edo zubi-lana egitea, hori egitea eskatzen zaionean.
- **Izapide eta prozedura elektronikoen katalogoan aldaketak eta zabalpenak proposatzea**, eskumen aldetik beraren arloari dagozkion gaietan.
- **Udaleko zerbitzu eskudunak informatuta edukitzea**, **arloaren jarduketa guztiei buruz, batik bat herritarrari begira eragina dutenei buruz**, hala nola prozedura, kexu eta erreklamazioen izapidetze-egoera, iragarpenak, kanpainak, eta, oro har, arloak garatzen dituen bestelako jarduerak.
- **Bere arloaren barruan erantzun beharreko jarduerak** zaintzea eta koordinatzea, **herritarren egoitza elektronikoaren bidez aurkezten dituzten eskariak direla-eta**.
- Onartzen diren **prozedurako eskuliburuen betetze-maila egokia kontrolatzea**, eduki funtzionalen arabera berari egokitzen bazaizkio.

OHARRA: Arestian esan dugunez, EUDELek garatutako «Administrazio Kargak Soiltzeko Proiektua» erreferentzia baliotsua da Izapide, Zerbitzu eta Prozeduren Katalogoa ezartzeko garaian orokorrean, eta Katalogo hori bide elektronikoan aplikatzeko bereziki.

La Ley 11/2007, de 22 de junio, de acceso electrónico de los ciudadanos a los Servicios Públicos, creó el concepto de «sede electrónica», y en la nueva Ley 40/2015, de Régimen Jurídico del Sector Público se mantiene en términos casi idénticos:

> *La **Sede Electrónica** es aquella dirección electrónica, disponible para los ciudadanos a través de redes de telecomunicaciones, cuya titularidad corresponde a una Administración Pública, o bien a una o varios organismos públicos o entidades de Derecho Público en el ejercicio de sus competencias (art. 38.1 Ley 40/2015).*

CARACTERÍSTICAS PRINCIPALES DE LA SEDE ELECTRÓNICA

➢	• El establecimiento de una sede electrónica conlleva la **RESPONSABILIDAD DEL TITULAR** respecto de la **integridad, veracidad y actualización de la información y los servicios** a los que pueda accederse a través de la misma.
➢	• **Cada Administración Pública** determinará las **CONDICIONES E INSTRUMENTOS DE CREACIÓN DE LAS SEDES ELECTRÓNICAS,** con sujeción a los **principios** de transparencia, publicidad, responsabilidad, calidad, seguridad, disponibilidad, accesibilidad, neutralidad e interoperabilidad. • En todo caso deberá garantizarse la **identificación del órgano titular de la sede**, así como los medios disponibles para la formulación de **sugerencias y quejas.**
➢	Las sedes electrónicas dispondrán de sistemas que permitan el establecimiento de **COMUNICACIONES SEGURAS** siempre que sean necesarias.
➢	La **publicación, en las sedes electrónicas,** de informaciones, servicios y transacciones respetará los **PRINCIPIOS** de accesibilidad y usabilidad, de acuerdo con las normas establecidas al respecto, estándares abiertos y, en su caso, aquellos otros que sean de uso generalizado por la ciudadanía. Los sistemas normalizados de solicitud podrán incluir comprobaciones automáticas de la información aportada respecto de datos almacenados en sistemas propios o pertenecientes a otras Administraciones u ofrecer el formulario cumplimentado, en todo o en parte, con objeto de que la persona interesada verifique la información y, en su caso, la modifique y complete.
➢	Las sedes electrónicas utilizarán, **para identificarse y garantizar una comunicación segura** con las mismas, **CERTIFICADOS RECONOCIDOS O CUALIFICADOS DE AUTENTICACIÓN DE SITIO WEB** o medio equivalente.

Guía Local - ISBN 978-84-7777-690-8

11/2007 Legeak, ekainaren 22koak, herritarrek zerbitzu publikoetan sarbide elektronikoa izateari buruzkoak, sortu zuen «egoitza elektronikoa» kontzeptua, eta berdin mantentzen du, ia hitzez hitz, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Lege berriak:

> ***Egoitza elektronikoa*** *herritarrek balia dezaketen helbide elektroniko bat da, telekomunikazio-sareen bitartez eskainia; helbide elektroniko hori administrazio publiko batena edo erakunde publiko edo zuzenbide publikoko entitate batena edo batzuena da eta horien eskumenen artean dago. (40/2015 Legea, 38.1 art.).*

EGOITZA ELEKTRONIKOAREN EZAUGARRI NAGUSIAK

➢	• Egoitza elektroniko bat ezarriz gero, **TITULARRAREN ERANTZUKIZUNA** izango da haren bidez irits daitezkeen **zerbitzuak eta informazioak osoak, egiazkoak eta eguneratuak** izatea.
➢	• **Administrazio publiko bakoitzak** zehaztuko ditu **EGOITZA ELEKTRONIKOEK IZAN BEHAR DITUZTEN BALDINTZAK ETA TRESNAK**, honako **printzipio** hauek betez: gardentasuna, publikotasun ofiziala, erantzukizuna, kalitatea, segurtasuna, baliagarritasuna, irisgarritasuna, neutraltasuna eta elkarreragingarritasuna. • Nolanahi ere, **egoitzaren organo titularra identifikatzeko** modua bermatu beharko da, baita **iradokizunak eta kexak** aurkezteko erabili daitezkeen baliabideak ere.
➢	Egoitza elektronikoek **KOMUNIKAZIO SEGURUAK** bermatzen dituzten sistemak eduki behar dituzte, baldin eta beharrezkoak badira.
➢	**Egoitza elektronikoetan** informazioak, zerbitzuak eta transakzioak **argitaratzen** direnean, irisgarritasun eta erabilgarritasun **PRINTZIPIOAK** zaindu beharko dira, horri buruz ezarritako arauekin bat etorriz. Gainera, estandar irekiak baliatuko dira, eta hala balegokio, baita herritarren artean erabilera hedatua duten beste batzuk ere. Eskaera-sistema normalizatuek modua eskain dezakete ematen den informazioa automatikoki egiaztatzeko administrazio horren beraren edo beste administrazio batzuen sistemetan biltegiratutako datuekin, edo formularioa guztiz edo partez beterik eskain dezakete, interesdunak informazioa egiazta dezan edo, hala badagokio, alda eta osa dezan.
➢	Egoitza elektronikoek **WEBGUNEAK AUTENTIFIKATZEKO ZIURTAGIRI AITORTUAK EDO KALIFIKATUAK** edo balio bereko bitartekoak erabiliko dituzte **identifikatzeko eta berekiko komunikazio segurua bermatzeko**.

IDENTIFICACIÓN Y FIRMA DE LAS PERSONAS INTERESADAS POR MEDIOS ELECTRÓNICOS

Las Administraciones Públicas deben exigir, **obligatoriamente, la firma electrónica de las personas interesadas, para:** formular solicitudes, presentar declaraciones responsables o comunicaciones, interponer recursos, desistir de acciones y renunciar a derechos. (art.11.2 Ley 39/2015).

MEDIOS ADMITIDOS

a) Sistemas de **firma electrónica reconocida o cualificada y avanzada** basados en certificados electrónicos reconocidos o cualificados de firma electrónica expedidos por prestadores incluidos en la «Lista de confianza de prestadores de servicios de certificación». A estos efectos, se entienden comprendidos entre los citados certificados electrónicos reconocidos o cualificados los de persona jurídica y de entidad sin personalidad jurídica.

b) Sistemas de **sello electrónico reconocido o cualificado y de sello electrónico avanzado** basados en certificados electrónicos reconocidos o cualificados de sello electrónico incluidos en la «Lista de confianza de prestadores de servicios de certificación».

c) **Cualquier otro sistema que las Administraciones Públicas consideren válido** en los términos y condiciones que se establezcan, siempre que cuenten con un registro previo como usuario que permita garantizar su identidad y previa comunicación a la Secretaría General de Administración Digital del Ministerio de Asuntos Económicos y Transformación Digital**.**

Las Administraciones Públicas deberán garantizar que la utilización de uno de los sistemas previstos en las letras a) y b) sea posible para todo procedimiento, aun cuando se admita para ese mismo procedimiento alguno de los previstos en la letra c).

Cuando las **personas interesadas utilicen un sistema de firma**, su **identidad se entenderá ya acreditada** mediante el propio acto de la firma. (art.10.4 Ley 39/2015).

APLICACIÓN PRÁCTICA DE LA IDENTIFICACIÓN Y FIRMA ELECTRÓNICA

- **La mayoría de los trámites municipales (licencias, declaraciones responsables, subvenciones y ayudas…) requieren de firma electrónica**, y, por tanto, ya que al utilizar un sistema de firma electrónica queda ya acreditada la identidad, en la práctica apenas se utilizan sistemas de identificación electrónica, sino que se utiliza la firma electrónica directamente.

- Los **CIUDADANOS y CIUDADANAS PODRÁN UTILIZAR,** en su relación con las Administraciones Públicas, **DIVERSOS SISTEMAS DE FIRMA ELECTRÓNICA:** los incorporados al DNI, así como los facilitados por Autoridades de Certificación reconocidas como IZENPE, la Entidad de Certificación Electrónica para las Administraciones Vascas.

SISTEMAS DE IDENTIFICACIÓN Y FIRMA ELECTRÓNICA

Los sistemas de firma electrónica de obligada aceptación por todas las AAPP de la UE deben ser expedidos por prestadores incluidos en la «Lista de confianza de prestadores de servicios de certificación».

A nivel del Estado España, los más relevantes y conocidos son:

- Dirección General de Policía (que emite el DNIe)
- Fábrica Nacional de Moneda y Timbre

Para las Administraciones Vascas, la referencia es **Izenpe S.A, Empresa de certificación y servicios:**

- Proporciona servicios de firma electrónica a las administraciones vascas.
- Impulsada por el Gobierno Vasco y las Diputaciones Forales.
- Constituida a través de sus sociedades informáticas: EJIE, LANTIK, IZFE y CCASA.

SISTEMAS DE IDENTIFICACIÓN Y FIRMA ELECTRÓNICA EMITIDOS POR IZENPE

 **CERTIFICADO CIUDADANO**	• Permite a las **personas físicas particulares** identificarse y firmar electrónicamente en las relaciones telemáticas con las distintas administraciones públicas.
 **CERTIFICADO DE REPRESENTANTE de ENTIDAD y Entidad Sin Personalidad Jurídica**	• La persona solicitante deberá ser representante legal o apoderada general con facultad inscrita para representar a la organización ante toda clase de personas privadas o públicas.

Guía Local - ISBN 978-84-7777-690-8

INTERESDUNEN IDENTIFIKAZIOA ETA SINADURA BITARTEKO ELEKTRONIKOEN BIDEZ

Administrazio publikoek nahitaez eskatu behar dute interesdunen sinadura honako hauetarako: eskabideak egiteko, erantzukizunpeko adierazpenak edo komunikazioak aurkezteko, errekurtsoak jartzeko, ekintzetan atzera egiteko eta eskubideei uko egiteko. (39/2015 Legea, 11.2 art.).

ONARTUTAKO BITARTEKOAK

a) Sinadura elektronikoko ziurtagiri elektroniko aitortu edo kualifikatuetan oinarritzen diren **sinadura elektroniko aitortu edo kualifikatu eta aurreratuko** sistemak. Ziurtagiri horien emaileek sartuta egon behar dute «ziurtapen-zerbitzuen emaileen konfiantzako zerrendan». Ondorio horietarako, aipatutako ziurtagiri elektroniko aitortu edo kualifikatuen artekotzat jotzen dira pertsona juridikoarenak eta nortasun juridikorik gabeko erakundearenak.

b) Zigilu elektronikoko ziurtagiri elektroniko aitortu edo kualifikatuetan oinarritzen diren **zigilu elektroniko aitortu edo kualifikatuko eta zigilu elektroniko aurreratuko** sistemak. Ziurtagiri horien emaileek sartuta egon behar dute «ziurtapen-zerbitzu emaileen konfiantzazko zerrendan».

c) **Administrazio publikoek baliozkotzat jotzen duten beste edozein sistema, ezartzen diren termino eta** baldintzetan, baldin eta aldez aurretik haien nortasuna erabiltzaile gisa bermatzen duen erregistro bat badute, eta aldez aurretik jakinaren gainean jarrita Administrazio Digitaleko Idazkaritza Nagusia, Ekonomia Gaietako eta Transformazio Digitaleko Ministeriokoa**.**

Administrazio publikoek bermatu beharko dute edozein prozeduratarako erabil daitekeela a) eta b) letretan aurreikusitako sistemetako bat, nahiz eta c) letran aurreikusitakoren bat onartu prozedura bererako.

Interesdunek sinadura-sistema bat erabiltzen dutenean, **haien nortasuna egiaztatutzat joko da** sinatze-egintzarekin berarekin. (39/2015 Legea, 10.4 art.).

IDENTIFIKAZIO ETA SINADURA ELEKTRONIKOAREN APLIKAZIO PRAKTIKOA

- **Udal-izapide gehienak egiteko (lizentziak, erantzukizunpeko adierazpenak, dirulaguntzak eta laguntzak...), sinadura elektronikoa behar da**, eta sinadura elektronikoko sistema bat erabiltzea nahikoa denez nortasuna egiaztatzeko, praktikan ia batere ez dira erabiltzen identifikazio elektronikoko sistemak, gehienetan sinadura elektronikoa erabiltzen delako zuzenean.

- Horretarako, **HERRITARREK**, administrazio publikoekiko harremanetan, **SINADURA ELEKTRONIKOKO HAINBAT SISTEMA erabili ahal izango dituzte**, eta batik bat Nortasun Agiri Nazionalari txertatutakoak, bai eta ziurtapeneko agintaritza aintzatetsiek eskainitakoak ere, hala nola IZENPEren kasua, hau da, EAEko administrazioetarako ziurtapen elektronikoko erakundea.

IDENTIFIKAZIO ETA SINADURA ELEKTRONIKORAKO SISTEMAK

Europar Batasuneko administrazio publiko guztiek nahitaez onartu behar dituzten sinadura elektronikoko sistemek «ziurtapen-zerbitzuen emaileen konfiantzazko zerrendan» dauden zerbitzu-emaileek emandakoak izan behar dute.

Espainian, garrantzitsu eta ezagunenak honako hauek dira:

- Poliziaren Zuzendaritza Nagusia (NAN elektronikoa ematen du)
- Monetaren eta Tinbrearen Fabrika Nazionala

Euskal Administrazioen erreferentzia **Izenpe SA da, Ziurtagiri eta zerbitzuen enpresa:**

- Sinadura elektronikoko zerbitzuak ematen dizkie euskal administrazioei.
- Eusko Jaurlaritzak eta foru-aldundiek sustatzen dute.
- Bere sozietate informatikoen bidez dago sortua: EJIE, LANTIK, IZFE eta CCASA.

IZENPEK EMANDAKO IDENTIFIKAZIO ETA SINADURA ELEKTRONIKOKO SISTEMAK

 **HERRITARREN ZIURTAGIRIA**	• **Pertsona fisiko partikularrei** aukera ematen die administrazio publikoekiko harreman telematikoetan elektronikoki identifikatzeko eta sinatzeko.
 **ENTITATEAREN eta Nortasun Juridikorik Gabeko ENTITATEAREN ORDEZKARIAREN ZIURTAGIRIA**	• Eskatzailea legezko ordezkari bat edo ahaldun orokor bat izango da, pertsona pribatu edo publiko ororen aurrean erakundea ordezkatzeko ahalmena duena.

 **CERTIFICADOS PROFESIONALES: CORPORATIVOS Y PERSONAL EMPLEADO PÚBLICO**	• Dirigidos tanto a empresas privadas como públicas y funcionarios/as. • Identifica a la persona firmante como persona ligada laboralmente con su empresa o institución. • Permite a sus titulares la realización de trámites digitales con distintas Administraciones Públicas y en los trámites internos profesionales.
 **CERTIFICADO DE SELLO DE ADMINISTRACIÓN**	• Permite la identificación y autenticación del ejercicio de la competencia de la Administración Pública mediante un certificado cualificado. • Está dirigido a la Actuación Administrativa Automatizada.
 **CERTIFICADO DE SEDE ELECTRÓNICA Y SERVIDOR SEGURO (SSL)**	• Identifica la titularidad y seguridad de un dominio web.
 **BAKQ**	• De modo análogo al Certificado Ciudadano, permite a las personas físicas particulares identificarse y firmar electrónicamente en las relaciones telemáticas con las distintas administraciones públicas. • Se puede utilizar tanto en ordenadores, como en móviles y tabletas, en cualquier sistema operativo y sin necesidad de instalar nada. • Se compone de: → Usuario (DNI/NIE del usuario). → Contraseña (8 caracteres). → OTP: a un correo electrónico o teléfono móvil por SMS. • Es un certificado ciudadano «en la nube», es decir, no necesita de soporte físico. • Para las entidades públicas que colaboren en la emisión de BakQ, Izenpe ofrece la posibilidad de que la emisión sea vía email o se incorpore en cualquier otro soporte físico.
 **PROFESIONALES EN LA NUBE**	• De modo análogo a los Certificados Profesionales Corporativos y de Personal empleado público, identifica a la persona firmante como persona ligada laboralmente con su empresa o institución. • Se puede utilizar tanto en ordenadores, como en móviles y tabletas, en cualquier sistema operativo y sin necesidad de instalar nada. • Se compone de: → Usuario (DNI/NIE del usuario). → Contraseña (8 caracteres). → OTP: a un correo electrónico o teléfono móvil por SMS. • Es un Certificado Profesional Corporativo o de Personal empleado público «en la nube», es decir, no necesita de soporte físico.
 **EGOITZA «TARJETA VIRTUAL»**	• Es un ligero software que se instala en el ordenador, que permite utilizar certificados «en la nube» de Izenpe para identificarse en cualquier sede electrónica u oficina virtual que permita el uso de certificados digitales.

 **ZIURTAGIRI PROFESIONALAK: KORPORATIBOAK ETA LANGILE PUBLIKOAK**	• Enpresa pribatu zein publikoentzat eta funtzionarioentzat. • Sinatzailea bere enpresarekin edo erakundearekin lan-lotura duen pertsona gisa identifikatzen du. • Hainbat administrazio publikorekin izapide digitalak egiteko aukera ematen die titularrei, bai eta barne-izapide profesionaletan ere.
 **ADMINISTRAZIO-ZIGILUAREN ZIURTAGIRIA**	• Administrazio Publikoaren eskumenaren erabilera identifikatzeko eta egiaztatzeko aukera ematen du, ziurtagiri kualifikatu baten bidez. • Administrazio-jarduera automatizaturako erabiltzen da.
 **EGOITZA ELEKTRONIKOAREN ETA ZERBITZARI SEGURUAREN ZIURTAGIRIA (SSL)**	• Web domeinu baten titulartasuna eta segurtasuna identifikatzen ditu.
 **BAKQ**	• Herritarren ziurtagiriak bezala, pertsona fisiko partikularrei aukera ematen die administrazio publikoekiko harreman telematikoetan elektronikoki identifikatzeko eta sinatzeko. • Ordenagailuetan, mugikorretan eta tabletetan erabil daiteke, edozein sistema eragiletan, eta ezer instalatu beharrik gabe. • Honako atal hauek ditu: → Erabiltzailea (erabiltzailearen NAN/AIZ). → Pasahitza (8 karaktere). → OTP: posta elektroniko edo telefono mugikor batera SMS bidez. • «Hodeiko» herritar-ziurtagiri bat da; beraz, ez du euskarri fisikorik behar. • BaKQ ematen laguntzen duten erakunde publikoentzat, lzenpek aukera ematen du gako hori posta elektronikoz emateko edo beste edozein euskarri fisikotan sartzeko.
 **PROFESIONALAK HODEIAN**	• Ziurtagiri profesional korporatiboen eta langile publikoen ziurtagirien antzera, sinatzailea bere enpresarekin edo erakundearekin lan-lotura duen pertsona gisa identifikatzen du. • Ordenagailuetan, mugikorretan eta tabletetan erabil daiteke, edozein sistema eragiletan, eta ezer instalatu beharrik gabe. • Honako atal hauek ditu: → Erabiltzailea (erabiltzailearen NAN/AIZ). → Pasahitza (8 karaktere). → OTP: posta elektroniko edo telefono mugikor batera SMS bidez. • «Hodeiko» ziurtagiri profesional korporatiboa edo langile publikoen ziurtagiri profesionala da, eta beraz, ez du euskarri fisikorik behar.
 **EGOITZA «TXARTEL BIRTUALA»**	• Ordenagailuan instalatzen den software arin bat da, aukera ematen duena lzenperen «hodeiko» ziurtagiriak erabiltzeko, ziurtagiri digitalen erabilera ahalbidetzen duen edozein egoitza elektronikotan edo bulego birtualetan.

LA REPRESENTACIÓN EN LA ADMINISTRACIÓN ELECTRÓNICA

Para el desarrollo efectivo de la Administración Electrónica, es imprescindible que la **ciudadanía y las personas jurídicas puedan actuar por medio de representantes** en los procedimientos y trámites administrativos electrónicos frente a la Administración Municipal.

REPRESENTANTES	Podrán actuar en representación de otras personas físicas o jurídicas ante las AAPP: • Las personas físicas con capacidad de obrar (no los menores de edad, incapacitados judicialmente…). • Las personas jurídicas, siempre que ello esté previsto en sus Estatutos.
MECANISMOS DE REPRESENTACIÓN	**Deberán establecerse los mecanismos válidos** para la acreditación de la representación (Documento público o privado con firma notarialmente legitimada, comparecencia personal o electrónica de la persona representada y del representante, etc.).
REGISTRO ELECTRÓNICO DE APODERAMIENTOS	Se deberá habilitar un **registro electrónico de apoderamientos**. En dicho registro **habrá que inscribir:** • Identificación del **poderdante.** • Identificación del **apoderado.** • **Fecha de inscripción.** • **Periodo** del apoderamiento. • **Tipo de apoderamiento:** a) Un poder general para que el apoderado pueda actuar en nombre del poderdante en cualquier actuación administrativa y ante cualquier Administración. b) Un poder para que el apoderado pueda actuar en nombre del poderdante en cualquier actuación administrativa ante una Administración u Organismo concreto. c) Un poder para que el apoderado pueda actuar en nombre del poderdante únicamente para la realización de determinados trámites especificados en el poder. Los **registros electrónicos de apoderamientos** de las Administraciones **deberán ser plenamente interoperables** entre sí y con los registros mercantiles, de la propiedad, y de los protocolos notariales, de modo que se garantice su interconexión, compatibilidad informática, así como la transmisión telemática de las solicitudes, escritos y comunicaciones que se incorporen a los mismos. **Permitirán comprobar válidamente la representación de quienes actúen ante las Administraciones Públicas** en nombre de un tercero.
ACREDITACIÓN DEL PODER DE REPRESENTACIÓN	Debe acreditarse la representación para: Formular **solicitudes**, presentar **declaraciones responsables o comunicaciones previas.** • Interponer **recursos.** • **Desistir** de acciones y **renunciar** a derechos. Deberá **quedar acreditado que se tiene poder de representación** de la persona física o entidad en nombre de la que se realizarán trámites: • Acompañando poder/autorización a cada solicitud/documentación presentada. • Acreditando su inscripción en el registro electrónico de apoderamientos Las inscripciones pueden realizarse como consecuencia de: → Solicitud acompañada de ***documento acreditativo*** del poder/autorización. → ***Apud acta*** («en el acto»): ⇒ Comparecencia personal: firma de ambas personas ante personal funcionario e inscripción de la representación en el momento. ⇒ Comparecencia electrónica en la correspondiente sede electrónica. → ***Habilitación*** con carácter general o específico a personas físicas o jurídicas autorizadas para la realización de determinadas transacciones electrónicas en representación de las personas interesadas. Se deberán especificar las condiciones y obligaciones a las que se comprometen los que así adquieran la condición de representantes, y determinará la presunción de validez de la representación, salvo que la normativa de aplicación prevea otra cosa. Las Administraciones Públicas podrán requerir, en cualquier momento, la acreditación de dicha representación.

ORDEZKARITZA ADMINISTRAZIO ELEKTRONIKOAN

Administrazio elektronikoaren garapen eraginkorrerako, ezinbestekoa da **herritarrek eta pertsona juridikoek ordezkarien bidez** jardun ahal izatea udal-administrazioan egiten dituzten administrazio-prozedura eta -izapide elektronikoetan.

ORDEZKARIAK	Beste pertsona fisiko edo juridiko batzuen ordezkari gisa jardun ahal izango dute administrazio publikoetan: • Jarduteko gaitasuna duten pertsona fisikoak (ez, ordea, adingabeak, judizialki ezgaituak…). • Pertsona juridikoak, beren estatutuetan hala aurreikusia badute.
ORDEZKARITZA MEKANISMOAK	Ordezkaritza-ahala egiaztatzeko **mekanismo baliodunak ezarri beharko dira** (notarioak legeztatutako sinadura duen dokumentu publikoa edo pribatua, ordezkatua bera eta ordezkaria pertsonalki edo elektronikoki agertzea, etab.).
AHALORDETZEEN ERREGISTRO ELEKTRONIKOA	**Ahalordetzeen erregistro elektroniko** bat jarri beharko da. Erregistro horretan **hauek inskribatu beharko dira:** • **Ahalorde-emailearen** identifikazioa. • **Ahalordedunaren** identifikazioa. • **Inskripzioaren data.** • **Zenbat denborarako** ematen den ahalordea. • **Ahalorde-mota:** a) Ahalorde orokor bat, ahalordedunak ahalorde-emailearen izenean jardun ahal izan dezan edozein administrazio-jarduketatan eta edozein administrazioren aurrean. b) Ahalorde bat, ahalordedunak ahalorde-emailearen izenean jardun ahal izan dezan edozein administrazio-jarduketatan administrazio edo organismo jakin batean. c) Ahalorde bat, ahalordedunak ahalorde-emailearen izenean jardun ahal izan dezan ahalordean zehaztutako izapide jakin batzuetarako bakarrik. Administrazioen **ahalordetze-erregistro elektronikoek elkarreragingarritasun osoa izan behar dute** beren artean, eta baita merkataritza- eta jabetza-erregistroekin eta notario-protokoloen erregistroekin ere, modu horretan bermatuta geratzeko elkarrekiko konexioa, bateragarritasun informatikoa, eta orobat haietan sartzen diren eskaera, idatzi eta komunikazioen transmisio elektronikoa. **Erregistro horien bidez, baliozko moduan egiaztatu ahal izango da administrazio publikoetan** hirugarren baten izenean **jarduten dutenen ordezkaritza**.
ORDEZKATZEKO AHALA EGIAZTATZEA	Ordezkaritza egiaztatu behar da: **Eskaerak** egiteko, **erantzukizunpeko adierazpenak edo aurretiazko jarkinarazpenak** aurkezteko. • **Errekurtsoak** jartzeko. • Akzioetan **atzera egiteko** eta eskubideei **uko egiteko**. Izapideak egingo dira pertsona fisiko edo erakunde baten izenean; **bada, haiek ordezkatzeko ahala duela egiaztatu behar da.** • Ahalordea/baimena aurkeztuko da eskaerarekin/dokumentazioarekin batera. • Ahalordetzeen erregistro elektronikoan inskribatuta dagoela egiaztatzea. Inskripzioak honako hauen ondorioz egin daitezke: → Eskabidea, ahalordea/baimena ***egiaztatzen duen agiriarekin*** batera. → ***Apud acta*** («egintzan»): ⇒ Agerraldi pertsonala: bi pertsonen sinadura funtzionarioaren aurrean eta ordezkaritza unean bertan inskribatzea. ⇒ Agerraldi elektronikoa dagokion egoitza elektronikoan. → ***Gaikuntza*** orokor edo espezifikoa eman ahal izango zaie interesdunen ordezkari gisa transakzio elektronikoak egiteko baimenduta dauden pertsona fisiko edo juridikoei. Gaikuntza horretan, zehaztu beharko da zer baldintza eta betebeharretan konprometitzen diren ordezkaritza horrela hartzen dutenak, eta ordezkaritza baliozkoa delako presuntzioa ekarriko du, non eta aplikatzekoa den araudiak ez duen besterik aurreikusten. Administrazio publikoek edozein unetan eskatu ahal izango dute ordezkaritza horren egiaztagiria.

<tr><td>PROCESOS</td><td>Los procesos en los que hay que aplicar las citadas herramientas son:
• CAPTURA: es el proceso de ingreso en el sistema de gestión documental de los documentos electrónicos, incluye la asignación de metadatos y la firma del documento.
• REGISTRO: es el proceso que proporciona rastro evidente de la entrada y salida de un documento de una organización.
• CLASIFICACIÓN: tiene por objeto la identificación y estructuración sistemática de los documentos de las organizaciones.
• DESCRIPCIÓN: para permitir la recuperación de los documentos y su contexto.
• ACCESO: se establecerá en función de la calificación de la información y las responsabilidades de los agentes.
• CALIFICACIÓN: se califican los documentos como esenciales y se aplican la seguridad y el acceso.
• VALORACIÓN: a través del análisis contextual de los documentos se establecen los plazos de conservación, transferencia y acceso.
• CONSERVACIÓN: es el proceso por el que se garantizan la conservación y el acceso y la disponibilidad de los documentos valorados.
• TRANSFERENCIA: es el proceso por el cual se transfieren los documentos y expedientes y la responsabilidad de su custodia.

Es imprescindible que las aplicaciones informáticas que ejecutan esos procesos contemplen en sus estructuras de datos los esquemas de metadatos necesarios para una buena gestión de documentos.</td></tr>
</table>

Ver apartado «Gestión documental y archivos» de «Archivos» de esta misma Guía.

- UNE ISO 30300:2011 sobre gestión documental
- ISO 14721:2015 (OAIS)

Legislación:
Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, art. 17
Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público, art. 46
Real Decreto 203/2021, de 30 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de actuación y funcionamiento del sector público por medios electrónicos, arts. 54 y 55
Real Decreto 4/2010, de 8 de enero, por el que se regula el Esquema Nacional de Interoperabilidad en el ámbito de la Administración Electrónica
Real Decreto 3/2010, de 8 de enero, por el que se regula el Esquema Nacional de Seguridad en el ámbito de la Administración Electrónica
Normas técnicas de interoperabilidad y Guías de aplicación

DOKUMENTUAK ELEKTRONIKOKI ARTXIBATZEA. LEGE ARTXIBOA

39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 17. artikuluan arautzen du agirien artxibatzea, eta administrazio digitalaren eta prozedura elektronikoen ingurune berri honetarako egokitzen du, zehazki:

- Amaitutako prozedurei dagokien artxibo bakar elektroniko bat izan beharko du administrazio bakoitzak.

- Agiri elektronikoak haien **frogatze-gaitasuna**, **benetakotasuna, osotasuna eta kontserbazioa** bermatuko dituen formatu batean gorde behar dira, sortzen direnetik beren bizi-zikloaren amaiera arte, dokumentu mota bakoitzerako ezartzen den kontserbazio-aldiaren arabera, eta orobat bermatu behar da haiek kontsultatzeko modua izango dela, eman zirenetik igaro den denbora gorabehera. Ziurtatu behar da, beti, aukera izan dadila datuak beste formatu eta euskarri batzuetara aldatzeko, bestelako aplikazioen bitartez ere haietarako sarbidea izateko.
- Agiriak biltegiratzeko bitarteko edo euskarriek **segurtasun-neurriak izan beharko dituzte, Segurtasun Eskema Nazionalean aurreikusitakoaren arabera. Bereziki, erabiltzaileen identifikazioa eta sarbideen kontrola segurtatu beharko dute**, eta, orobat, datuen babeserako legerian aurreikusitako bermeak betetzen direla.
- Lege-artxiboko sistema batek —edo frogatze-gaitasuna duen artxibo elektroniko batek— honako **ELEMENTU** hauek eduki behar ditu:
  1. Dokumentu elektronikoen **kontserbazioa**: Beharrezkoa da hori denboraren poderioz ez degradatzea, etorkizuneko sistema eragile eta aplikazioetarako ulergarri ahal izatea, eta beraren autentikotasuna eta sinadurak egiaztatu ahal izatea, edozein unetan.
  2. **Iraupen luzeko zaintza**: Sistemak bermatu behar du espediente elektroniko batek bere elementuak kontserbatzea, bertan integratzera pasa ziren bezala, hau da, trazabilitatea segurtatu behar da, eta ziurtatu behar da «konfiantzazko katea» ez dela inoiz hautsi «birzigilatzeak» eginez sinaduraren denbora-baliozkotasunari eusteko.
  3. **Elkartrukeen kudeaketa:** Bermatu behar du ez dela hautsiko frogatze-balioaren katea aldeen arteko transmisioan.

DOKUMENTU ELEKTRONIKOEN KUDEAKETA EZARTZEA

<table>
<tr><td>DOKUMENTU ELEKTRONIKOAK KUDEATZEKO POLITIKA</td><td>Beharrezkoa da, beraz, dokumentu elektronikoak kudeatzeko politika bat ezartzea: erakunde bat definitzen duten orientabide edo jarraibideak, dokumentu autentiko, fidagarri eta denboran zehar eskuragarri daudenak sortzeko eta kudeatzeko, berari dagozkion eginkizun eta jardueren arabera.</td></tr>
<tr><td></td><td>Ziurtatu behar da dokumentu elektronikoek ESKAKIZUN hauek betetzen dituztela:
<table>
<tr><td>AUTENTIKOTASUNA</td><td>Frogatzeko aukera eman behar du esaten duen hura dela, sortu edo bidali duela esaten duen pertsonak sortu edo bidali duela, eta bidali edo sortu dela dioen unean bidali edo sortu dela.</td></tr>
<tr><td>FIDAGARRITASUNA</td><td>Lekukotza ematen duen eragiketa, jarduera edo egintzen irudikapen osoa eta zehatza izan behar da, bere edukian, eta ondorengo eragiketa edo jarduerak egiten diren bitartean haietara jo daiteke.</td></tr>
<tr><td>INTEGRITATEA</td><td>Dokumentu batek osorik eta aldatu gabe irauteko duen gaitasuna da.</td></tr>
<tr><td>ESKURAGARRITASUNA</td><td>Dokumentuak aurkitua, berreskuratua, aurkeztua eta interpretatua izateko duen gaitasuna.</td></tr>
</table></td></tr>
<tr><td></td><td>Politika hori erakundearen mailarik gorenean onartzen da, eta erantzukizunak esleitzen ditu dokumentuak beren bizi-zikloan zehar tratatzeko programaren koordinazio, aplikazio, gainbegiratze eta kudeaketari dagokionez.</td></tr>
<tr><td>DOKUMENTU ELEKTRONIKOAK KUDEATZEKO TRESNAK</td><td>Beharrekoa da dokumentu elektronikoak kudeatzeko tresnak ezartzea.
• Taula: funtzio-sailkapena.
• Serie-mapa.
• Dokumentu tipologien katalogoa.
• Eragileen zerrenda, eta dokumentuen sarbide- eta erabilera-maila denboran zehar.
• Kontserbazio-egutegia.
• Dokumentu eta espediente elektronikoak zaintzeko eredua.</td></tr>
<tr><td>PROZESUAK</td><td>Aipatutako tresnak honako prozesu hauetan aplikatu behar dira:
• ATZITZEA: dokumentu elektronikoak dokumentuak kudeatzeko sisteman sartzeko prozesua da, metadatuak esleitzea eta dokumentua sinatzea sartzen dira barruan.
• ERREGISTROA: erakunde baten dokumentu baten sarrera eta irteeraren arrasto nabarmena ematen duen prozesua da.
• SAILKAPENA: helburu du erakundeen dokumentuak sistematikoki identifikatzea eta egituratzea.
• DESKRIBAPENA: dokumentuak eta haien testuingurua berreskuratu ahal izateko.
• SARBIDEA: informazioaren kalifikazioaren eta egileen erantzukizunen arabera ezarriko da.
• KALIFIKAZIOA: funtsezkotzat jotzen dira dokumentuak, eta segurtasuna eta sarbidea aplikatzen zaie.
• BALORAZIOA: dokumentuen testuinguru-analisien bidez kontserbazio-, transferentzia-, eta sarbide-epeak ezartzen dira.
• KONTSERBAZIOA: prozesu honen bidez baloratutako dokumentuen kontserbazioa, haiekiko sarbidea eta haiek eskuragarri egotea bermatzen da.
• TRANSFERENTZIA: prozesu honen bidez dokumentuak eta espedienteak transferitzen dira, eta haren zainketarekiko erantzukizuna baita ere.
Ezinbestekoa da prozesu horiek exekutatzen dituzten aplikazio informatikoek beren datu-egituretan dokumentuak ondo kudeatzeko behar diren metadatuen eskemak jasotzea.</td></tr>
</table>

Ikusi gida honetako «Artxiboak» ataleko «Dokumentu-kudeaketa eta artxiboak».

- UNE ISO 30300:2011, agirien kudeaketari buruzkoa
- ISO 14721:2015 (OAIS)

Legeria:

39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena (APEL), 17. artikulua
40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena, 46. art.
Martxoaren 30eko 203/2021 Errege Dekretua, Sektore publikoak bitarteko elektronikoen bidez jarduteko eta funtzionatzeko erregelamendua onartzen duena, 54. eta 55. artikuluak
4/2010 Errege Dekretua, urtarrilaren 8koa, Elkarreragingarritasun Eskema Nazionala arautzen duena Administrazio Elektronikoaren eremuan
3/2010 Errege Dekretua, urtarrilaren 8koa, Segurtasun Eskema Nazionala arautzen duena Administrazio Elektronikoaren eremuan
Elkarreragingarritasunari buruzko arau teknikoak eta aplikazio-gidak

IMPLANTACIÓN DEL SISTEMA DE GESTIÓN DOCUMENTAL

CONFIABILIDAD	Una vez se tiene definida la política de gestión de documentos electrónicos, las herramientas y los procesos en los que se aplican, es necesario conseguir la **confiabilidad** del propio sistema de gestión documental.
METADATOS	Para lograr esa confiabilidad es imprescindible que los documentos electrónicos se pongan en su **contexto**. El contenido informativo del documento debe ir acompañado por tanto de los **METADATOS** sobre:

CONTEXTO	Indica los aspectos del **quién**, **qué**, **por qué**, **dónde** y **cómo** asociados a la creación del objeto.
ESTRUCTURA	Se refiere a la serie formal de **asociaciones** dentro, o entre, objetos de información individuales.
REPRESENTACIÓN	Un documento electrónico es, en último extremo, una secuencia de ceros y unos, y lo que la persona usuaria ve en la pantalla es una **representación inteligible** de todo el documento.
COMPORTAMIENTO	Son las **características interactivas** de un documento.

	Cada uno de estos aspectos requiere una serie de metadatos, que van con el documento electrónico desde que se crea hasta su eliminación o conservación permanente. Esto obliga necesariamente a gestionar no sólo los ficheros donde tenemos la información, sino **los metadatos**.
	Todo ello nos lleva a crear un **sistema de gestión de documentos electrónicos** cuyo objetivo final es generar las condiciones de **confianza** en el uso de medios electrónicos.
REQUISITOS DEL SISTEMA DE GESTIÓN DE DOCUMENTOS ELECTRÓNICOS	

FIABILIDAD	El sistema debe funcionar de modo **regular y continuado** mediante **procedimientos fiables**.
INTEGRIDAD	Se deben aplicar **medidas** de **control de acceso**, **identificación** de personas usuarias, **destrucción** autorizada y **seguridad**.
CONFORMIDAD	El sistema cumple los **requisitos normativos** y los **de la propia organización**.
EXHAUSTIVIDAD	El sistema debe gestionar los **documentos** procedentes **de todas las actividades** de la organización.
CARÁCTER SISTEMÁTICO	Los documentos deben crearse, conservarse y gestionarse de manera **sistemática**.

ARCHIVO ELECTRÓNICO ÚNICO

ARCHIVO ELECTRÓNICO ÚNICO	La legislación **obliga** a la implantación de la **Administración digital**. En consecuencia, tendremos documentos y expedientes electrónicos que deberemos conservar y almacenar también por medios electrónicos en **repositorios**. Estos repositorios deben cumplir las normas de seguridad definidas en el **Esquema Nacional de Seguridad.** La ley 39/2015 habla de archivo electrónico único y dice: «cada Administración deberá mantener un archivo electrónico único de los documentos electrónicos que correspondan a procedimientos finalizados, en los términos establecidos en la normativa reguladora aplicable».
PROTOCOLO OAIS	El **protocolo OAIS** (Open Archival Information System) define un **sistema de preservación digital** destinado a garantizar la conservación, custodia y acceso a los documentos electrónicos. El modelo OAIS establece tres paquetes de información con fines diferenciados: • **SIP** (Submission Information Package), dirigido a la ingesta en el Archivo Único Electrónico. • **AIP** (Archival Information Package), dirigido al almacenamiento definitivo en el Archivo Único Electrónico. • **DIP** (Dissemination Information Package), dirigido a la difusión de lo almacenado en el mismo. En el paquete SIP se deben definir y aplicar los **metadatos adicionales y complementarios** necesarios **para la ingesta y para definir las responsabilidades sobre la custodia.**

METAPOSTA

Una solución colaborativa para disponer de estas costosas infraestructuras de archivo legal/longevo la ofrece **METAPOSTA**, la sociedad constituida por diversas instituciones y empresas de la CAPV para ofrecer **servicios de almacenamiento y buzón seguros en Internet a la ciudadanía, empresas e instituciones, a partir de su plataforma METABOX.**

Ver apartado «Gestión documental y archivos» de «Archivos» de esta misma Guía.

- UNE ISO 30300:2011 sobre gestión documental
- ISO 14721:2015 (OAIS)

Legislación:
Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, art. 17
Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público, art. 46
Real Decreto 203/2021, de 30 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de actuación y funcionamiento del sector público por medios electrónicos, arts. 54 y 55
Real Decreto 4/2010, de 8 de enero, por el que se regula el Esquema Nacional de Interoperabilidad en el ámbito de la Administración Electrónica
Real Decreto 3/2010, de 8 de enero, por el que se regula el Esquema Nacional de Seguridad en el ámbito de la Administración Electrónica
Guías de aplicación
Normas técnicas de interoperabilidad

DOKUMENTUEN KUDEAKETA-SISTEMA EZARTZEA

FIDAGARRITASUNA	Behin dokumentu elektronikoen politika, tresnak eta haiek aplikatzen diren prozesuak definitu ondoren, beharrezkoa da dokumentuen kudeaketa-sistemaren **fidagarritasuna** lortzea.
METADATUAK	Fidagarritasun hori lortzeko, ezinbestekoa da dokumentu elektronikoak beren **testuinguruan** jartzea. Horrenbestez, dokumentuaren informazioarekin batera, **METADATUAK** joan behar dira, honi guztiari buruz:

TESTUINGURUA	Objektuaren sorrerari lotutako alderdi hauek adierazten ditu: **nork**, **zer**, **zergatik**, **non** eta **nola**.
EGITURA	Banakako informazio-objektuen barneko edo informazio-objektu horien arteko **elkarteen** serie formala aipatzen du.
FORMA/IRUDIKAPENA	Dokumentu elektroniko bat, azken batean, zero eta baten sekuentzia bat da, eta erabiltzaileak pantailan ikusten duena dokumentu osoaren **irudikapen ulergarri** bat da.
PORTAERA	Dokumentu baten **ezaugarri elkarreragileak dira**.

Horrela, horietako alderdi bakoitzak metadatu multzo bat eskatzen du, eta haiek dokumentu elektronikoarekin batera doaz, sortzen denetik ezabatzen den arte edo kontserbazio iraunkorra arte. Horrek, nahitaez, informazioa gordeta daukagun fitxategiak kudeatzera ez ezik, **metadatuak** kudeatzera ere behartzen dute antolakundea.

Horrek guztiak **dokumentu elektronikoak kudeatzeko sistema** bat sortzera garamatza, eta azken helburua bitarteko elektronikoen erabileran **konfiantzazko** baldintzak sorraraztea da.

DOKUMENTU ELEKTRONIKOAK KUDEATZEKO SISTEMAREN BETEKIZUNAK

FIDAGARRITASUNA	Sistemak modu **erregular eta jarraitu batean** funtzionatu behar du, **prozedura fidagarri** batzuen bitartez.
INTEGRITATEA	**Sarbide-kontroleko**, erabiltzaileen **identifikazioko**, **suntsipen** baimenduko eta **segurtasuneko neurri** batzuk aplikatu behar dira.
ADOSTASUNA	Sistemak **arau-eskakizunak** eta **erakundearenak berarenak** bete behar ditu.
ZORROZTASUNA	Sistemak erakundearen **jarduera guztietatik** datozen **dokumentuak** kudeatu behar ditu.
SISTEMATIKOTASUNA	Dokumentuak modu **sistematikoan** sortu, kontserbatu eta kudeatu behar dira.

ARTXIBO ELEKTRONIKO BAKARRA

ARTXIBO ELEKTRONIKO BAKARRA	Legeriak **administrazio digitala** ezartzera **behartzen du**. Ondorioz, elektronikoki **biltegietan** kontserbatu eta gorde behar ditugun agiri eta espediente elektronikoak izango ditugu. Biltegi horiek **Segurtasuneko Eskema Nazionaleko** segurtasun-arauak bete behar dituzte. 39/2015 Legeak hauxe dio artxibo elektroniko bakarren inguruan: «Amaitutako prozedurei dagokien artxibo elektroniko bakar bat izan beharko du administrazio bakoitzak, aplikatzekoa den araudian ezarritako moduan».
PROTOKOLOA OAIS	**OAIS protokoloak** (Open Archival Information System) **zainketa digitala egiteko sistema** bat definitzen du, dokumentu elektronikoak kontserbatzea, zaintzea eta haietarako sarbidea izatea bermatzeko. OAIS ereduak hiru informazio-multzo ezartzen ditu, helburu desberdinduak dituztenak: • **SIP** (Submission Information Package), Artxibo Elektroniko Bakarrean sartzera zuzendua. • **AIP** (Archival Information Package), Artxibo Elektroniko Bakarrean behin betiko gordetzera zuzendua. • **DIP** (Dissemination Information Package), bertan gordetakoa zabaltzera zuzendua. SIP paketean **sartzeko eta zaintza-erantzukizunak definitzeko** beharrezkoak diren **metadatu gehigarriak eta osagarriak** definitu eta aplikatu behar dira.

METAPOSTA

Legezko/luzaroko artxiboko azpiegitura garesti horiek eskuratzeko konponbide kolaboratiboa **METAPOSTAk** —EAEko hainbat erakundek eta enpresak **herritarrei enpresei eta erakundeei Interneteko biltegiratze- eta postontzi-zerbitzu seguruak eskaintzeko eratutako sozietateak— eskaintzen du, bere METABOX soluzioan oinarrituta.**

Ikusi gida honetako «Artxiboak» ataleko «Dokumentu-kudeaketa eta artxiboak».

- UNE ISO 30300:2011, agirien kudeaketari buruzkoa
- ISO 14721:2015 (OAIS)

Legeria:

39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena (APEL), 17. artikulua
40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena, 46. art.
Martxoaren 30eko 203/2021 Errege Dekretua, Sektore publikoak bitarteko elektronikoen bidez jarduteko eta funtzionatzeko erregelamendua onartzen duena, 54. eta 55. artikuluak
4/2010 Errege Dekretua, urtarrilaren 8koa, Elkarreragingarritasun Eskema Nazionala arautzen duena Administrazio Elektronikoaren eremuan
3/2010 Errege Dekretua, urtarrilaren 8koa, Segurtasun Eskema Nazionala arautzen duena Administrazio Elektronikoaren eremuan
Aplikazio-gidak
Elkarreragingarritasunari buruzko arau teknikoak

MEDIOS DE PAGO ELECTRÓNICOS

- Son **pieza clave** en la construcción de la Administración Electrónica, como lo son ya para los procesos de compra-venta en el e-commerce, cuya generalización de uso es incontestable.
- Aportan muy evidentes **ventajas** de comodidad, reducción de **costes** y eficiencia, y también **seguridad** máxima en las transacciones, necesaria para generar confianza y potenciar así el uso del canal electrónico.

LA FACTURA ELECTRÓNICA (e-Factura)

CONCEPTO	La factura electrónica tiene los **mismos efectos legales** que una factura en papel. Es una factura que se expide y recibe en **formato electrónico**. Es, en definitiva, un documento electrónico que cumple con los requisitos legal y reglamentariamente exigibles a las facturas y que, además, garantiza la autenticidad de su origen y la integridad de su contenido, lo que permite atribuir la factura a su obligado tributario emisor.
YA OBLIGATORIA	A partir del 15-1-2015, conforme a la Ley 25/2013, de 27 de diciembre, de impulso de la factura electrónica y creación del registro contable de facturas en el Sector Público, las facturas que se remiten a las Administraciones Públicas **deben ser electrónicas**, ajustándose al formato estructurado de factura electrónica Facturae con firma electrónica XAdES.
FORMATO, GENERACIÓN Y PRESENTACIÓN	• Las facturas deben ser emitidas en el **formato Facturae**, de acuerdo con la ley 25/2013 y sus disposiciones de desarrollo (https://www.facturae.gob.es). • La factura electrónica es un fichero informático generado en formato Facturae y firmado electrónicamente. La firma electrónica garantiza la integridad del contenido en la factura. Actualmente existen soluciones integradas en los ERP comerciales, y otras públicas y gratuitas como las ofrecidas en http://www.facturae.es/ y https://www.ef4ktur.com/inicio/. • Cada Administración decide si se adhiere al punto general de entrada de facturas electrónicas del Estado, Comunidad Autónoma del País Vasco o Diputación Foral, o si determina la creación de un punto general de entrada propio. Ello será indicado con claridad a los proveedores.
ef4ktur	Es una **solución gratuita de factura electrónica facilitada por las Diputaciones Forales Vascas** que, de forma sencilla y práctica, permite a las empresas trabajar entre sí y con las administraciones vascas, ya que ofrece en una misma aplicación informática una solución integral gratuita para la facturación electrónica totalmente legal y compatible con las administraciones públicas. Esta aplicación permite: • Generar todas las facturas en formato «Facturae», es decir, en formato electrónico (si se desea, también permite generar facturas en papel). • Gestionar las propias bases de datos de clientes y de productos. • Firmar la factura con certificado digital. • Enviar desde la propia aplicación la factura electrónica a la Administración cliente.

PAGO ELECTRÓNICO

La adopción de sistemas de pago electrónicos por las Administraciones permite tanto el **pago directo** de tributos y tasas, sanciones, etc. (a partir de una liquidación en papel por ejemplo), como, en un grado de sofisticación y eficacia superior, la **integración de estos medios de pago con la tramitación electrónica,** de tal modo que se ofrezca así a la ciudadanía una gestión electrónica integral de los procedimientos, conectando automáticamente el trámite electrónico en realización con la pasarela de pagos, gestionando de forma transparente a la persona usuaria la indicación de concepto y cuantía, así como la verificación del pago para la entidad receptora.

Las **pasarelas de pago** se constituyen en los servicios de pago telemático que facilitan el pago electrónico, ofreciendo una interfaz única de pago independiente de la entidad financiera de la que el ciudadano o ciudadana es cliente, estableciendo todas las garantías de seguridad y la privacidad (no se manejan números de cuenta o de tarjetas) en la transacción ya que ésta se efectúa «dentro» de la banca online de la entidad financiera. A pesar de que en el ámbito del e-commerce hay una tendencia creciente hacia la desintermediación bancaria, con el creciente peso de servicios como PayPal, especialmente, y otros como Google Wallet, WePay, etc. parece claro que hoy por hoy los sistemas de colaboración con la banca aportan un factor de confianza para la persona usuaria que es un valor en el proceso de construcción de la e-Administración.

El Gobierno Vasco ha desarrollado **la Pasarela de Pagos de la Administración Vasca («Mi Pago»)**, puesta a disposición de todas las administraciones vascas, facilitando a la ciudadanía un sistema de pago seguro y homogéneo que permite iniciar un trámite en cualquier sede electrónica de la Administración y finalizarlo en el entorno de la entidad financiera con la que la persona usuaria trabaja habitualmente. Se distingue, además de por las características de seguridad, privacidad y confianza indicadas, y por facilitar la personalización de los documentos de liquidación, por sus amplias posibilidades de interacción para las administraciones, mediante herramientas software que permiten, a los desarrolladores de las administraciones, integrar los procesos de gestión con el sistema de pago de manera completamente transparente para la persona usuaria.

«Mi Pago» ha incorporado recientemente los servicios MiPago Wallet, monedero digital en el teléfono móvil que ofrece a la persona usuaria la posibilidad de realizar pagos a través de la lectura del código de barras o del código QR del recibo, y también mediante la plataforma Bizum habilitada por Kutxabank.

ORDAINBIDE ELEKTRONIKOAK

- **Giltzarri** dira Administrazio Elektronikoa eraikitzeko, baita e-commerceko salerosketa-prozesuetarako ere, ezin baita zalantzan jarri haien erabilera orokorra dela.
- Hau guztia ekartzen dute: **abantaila** oso nabarmenak, erosotasunaren, **kostuak** gutxitzearen eta efizientziaren aldetik, eta, orobat, **segurtasun** handiena transakzioetan (hura beharrezkoa da konfiantza sortzeko eta modu horretan bide elektronikoaren erabilera sustatzeko).

FAKTURA ELEKTRONIKOA (e-Faktura)

KONTZEPTUA	Faktura elektronikoak paperezko fakturak dituen **legezko ondorio berak** ditu. **Formatu elektronikoan** eman eta jasotzen den faktura da. Azken batean, fakturei legez eta erregelamenduz galdatu dakizkiekeen baldintzak betetzen dituen dokumentu elektroniko bat da, eta, gainera, bere jatorriaren benetakotasuna eta bere edukiaren osotasuna bermatzen du, eta horrek faktura beraren zergapeko igorleari egoztea ahalbidetzen du.
DAGOENEKO NAHITAEZKOA	2015-01-15etik aurrera, faktura elektronikoa sustatzeko eta Sektore Publikoan fakturen kontularitza-erregistroa sortzeko den abenduaren 27ko 25/2013 Legearen arabera, administrazio publikoei igortzen zaizkien fakturek **elektronikoak izan behar dute**, eta XAdES sinadura elektronikoa duen Facturae faktura elektronikoaren formatu egituratura egokituko dira.
FORMATUA, SORRERA ETA AURKEZPENA	• Fakturak **Facturae formatuan** egin beharko dira 25/2013 Legearen eta hura garatzen duten xedapenen arabera (https://www.facturae.gob.es). • Faktura elektronikoa Facturae formatuan sortutako eta elektronikoki sinatutako fitxategi informatikoa da. Sinadura elektronikoak fakturaren edukiaren osotasuna bermatzen du. Gaur egun, merkataritzako ERP soluzioetan txertatutako soluzioak eta bestelako soluzio publikoak eta doakoak daude; esate baterako hemen eskaintzen direnak: http://www.facturae.es/ eta https://www.ef4ktur.com/inicio/. • Administrazio bakoitzak erabakiko du Estatuko, Euskal Autonomia Erkidegoko edo foru-aldundiko faktura elektronikoen sargune orokorrari atxikiko zaion edo bere sargune orokor propioa sortuko duen. Hartzen duen erabakia argi eta garbi jakinaraziko die hornitzaileei.
ef4ktur	**Faktura elektronikoaren doako soluzioa da, EAEko foru-aldundiek eskaintzen dutena**. Haren bitartez, modu sinplean eta praktikoan, enpresek elkarren artean eta euskal administrazioekin lan egin dezakete, aplikazio informatiko berean fakturazio elektronikorako doako soluzio integral bat eskaintzen duelako, guztiz legezkoa eta administrazio publikoekiko bateragarria. Aplikazio horrek honako hauek ahalbidetzen ditu: • Faktura guztiak «Facturae» formatuan, hau da, formatu elektronikoan egitea (nahi izanez gero, papereko fakturak sortzea ere ahalbidetzen du). • Bezeroen eta produktuen datu-base propioak kudeatzea. • Faktura ziurtagiri digitalarekin sinatzea. • Aplikaziotik bertatik bidaltzea sinadura elektronikoa bezero den Administraziora.

ORDAINKETA ELEKTRONIKOA

Administrazioek ordaintzeko sistema elektronikoak erabiltzeak aukera bi hauek ematen ditu: **zuzenean ordaintzea** tributuak eta tasak, zehapenak, eta abar (paperean egindako kitapen batetik abiatuta, esate baterako), eta modu sofistikatuago eta eraginkorrago batez, **ordaintzeko bide horiek tramitazio elektronikoarekin integratzea**, modu horretan herritarrei prozeduren kudeaketa elektroniko integrala eskainiz, automatikoki konektatuz izapide elektronikoa ordainketa-pasabidearekin, erabiltzaileari gardentasunez kudeatuz kontzeptuaren eta zenbatekoaren adierazpena, eta erakunde jasotzailearentzat ordainketa egiaztatuz.

Ordainketa-pasabideak ordainketa elektronikoa errazten duten ordainketa telematikoko zerbitzuak dira, eta ordainketako interfaze bakarra eskaintzen dute, herritarra bezero deneko finantza-erakundeaz bestelakoa, eta segurtasuneko eta pribatutasuneko berme guztiak ezartzen dituzte (ez da erabiltzen kontu- edo txartel-zenbakirik) transakzioan, hura finantza-erakundearen online bankuaren barruan egiten baita. Nahiz eta e-commerceren eremuan banku-desintermediaziorako joera gero eta handiagoa den hainbat zerbitzuk gero eta garrantzi handiagoa hartu dutelako (PayPal zerbitzuak bereziki, eta baita beste batzuk ere, hala nola, Google Wallet, WePay, eta abar), badirudi argi dagoela gaur egun bankuarekiko lankidetza-sistemek konfiantzazko faktore bat eskaintzen dietela erabiltzaileei, eta hori kontuan hartzekoa da e-Administrazioa eraikitzeko prozesuan.

Eusko Jaurlaritzak **EAEko Administrazioaren Ordainketa Pasabidea («Nire ordainketa»)** garatu du, eta erkidego osoko administrazio guztien eskura jarri. Haren bidez sistema seguru eta homogeneoa jarri du herritarren eskura, administrazioren edozein egoitza elektronikotan izapideak egiten hasteko eta erabiltzaileak normalean baliatzen duen finantza erakundearen ingurunean amaitzeko. Bereizten da adierazitako segurtasunaren, pribatutasunaren eta konfiantzaren ezaugarriak dituelako eta likidazio-dokumentuak pertsonalizatzeko aukera ematen duelako, baina baita software tresnen bitartez administrazioei elkarrekintza-aukera handiak eskaintzen dizkielako ere. Tresna horien bitartez, administrazioetako garatzaileek kudeaketa-prozesuak ordainketa-sisteman txerta ditzakete erabat gardena izanik erabiltzailearentzat.

«Nire ordainketa» pasabidean NireOrdainketa Wallet zerbitzuak sartu dira orain dela gutxi; telefono-mugikorretarako diru-zorro digitala da eta erabiltzaileei aukera ematen die barra-kodea edo ordainagiriko QR kodea irakurrita ordainketak egiteko, eta Kutxabanken Bizum plataforman baita ere.

La **interoperabilidad** es la capacidad de los sistemas de información y de los procedimientos a los que éstos dan soporte, de compartir datos y posibilitar el intercambio de información y conocimiento entre ellos.


La interoperabilidad electrónica entre Administraciones incrementa la eficiencia al automatizar y simplificar la obtención de datos externos necesarios para la realización de un trámite, evita molestias a la ciudadanía, que no debe solicitar documentos a una Administración para entregarlos a otra, y reduce costes administrativos y papel. En definitiva, resulta necesaria para la cooperación, el desarrollo, la integración y la prestación de servicios conjuntos por las Administraciones Públicas, y es pieza imprescindible para la construcción y el desarrollo de la administración electrónica y de la Sociedad de la Información.

NORMATIVA Y ÁMBITO ESTATAL

Ley 40/2015, **de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público**	Esta norma pretende la regulación de las formas administrativas internas y la relación -conexión- entre las Administraciones Públicas, determinando la imprescindible colaboración electrónica entre Administraciones: Art. 3.2: «*Las Administraciones Públicas se relacionarán entre sí y con sus órganos, organismos públicos y entidades vinculados o dependientes a través de medios electrónicos, que aseguren la interoperabilidad y seguridad de los sistemas y soluciones adoptadas por cada una de ellas, garantizarán la protección de los datos de carácter personal, y facilitarán preferentemente la prestación conjunta de servicios a los interesados*». Art. 155: De conformidad con la legislación de protección de datos personales «*cada Administración deberá facilitar el acceso de las restantes Administraciones Públicas a los datos relativos a los interesados que obren en su poder, especificando las condiciones, protocolos y criterios funcionales o técnicos necesarios*». En su art. 156 se contemplan los dos esquemas nacionales que garantizan la interoperabilidad y la seguridad: el **Esquema Nacional de Interoperabilidad** (ENI) y el **Esquema Nacional de Seguridad** (ENS).
Esquema Nacional de Interoperabilidad (ENI) y Normas Técnicas	Regulado por el Real Decreto 4/2010, de 8 de enero, establece el conjunto de **criterios y recomendaciones de carácter tecnológico y organizativo** que deben ser tenidos en cuenta por las Administraciones Públicas para garantizar la interoperabilidad. Complementariamente, las Normas Técnicas de Interoperabilidad, determinan los estándares tecnológicos de obligado cumplimiento para todas las Administraciones Públicas (documento electrónico, digitalización de documentos, procedimientos de copiado auténtico, protocolos de intermediación de datos, modelo de datos para el intercambio de asientos entre Registros, etc.).

NISAE: NODO DE INTEROPERABILIDAD Y SEGURIDAD DE LAS ADMINISTRACIONES DE EUSKADI

NISAE es la plataforma común para todas las administraciones y entidades del sector público vasco constituido como nodo autonómico para implementar el intercambio de datos electrónicos entre ellas y con el resto de administraciones, aunando sinergias. Es, por lo tanto, el **nodo encargado de articular e implementar en la práctica el intercambio de datos que sustituyen a los certificados en papel entre las Administraciones Públicas Vascas** (ofreciendo un instrumento para hacer efectivos los estándares de intercambio acordados entre Gobierno Vasco, las diputaciones forales y EUDEL)**, y entre éstas y el resto de administraciones del Estado**, especialmente con la Administración General del Estado.



NISAE cumple con la Norma Técnica del ENI, ofreciendo, entre otras, las siguientes **funciones**:

- Gestionar Cesionarios y Requirentes según las condiciones establecidas por cada Cedente.
- Asegurar la confidencialidad e integridad de la información intercambiada.
- Dar soporte a las organizaciones y gestionar todas las comunicaciones e incidencias producidas colaborando para ello con Requirentes y Emisores.
- Mantener un centro de atención a personas usuarias e integradoras que canalice todas las incidencias relativas al sistema e informará sobre los datos de contacto del mismo.
- Elaborar informes de actividad y uso de la plataforma.
- Evolucionar y mantener sus sistemas garantizando la seguridad y privacidad de los datos acorde a la normativa aplicable.
- Colaborar en las labores de auditoría que sean requeridas, conservando datos de trazabilidad y estadísticos.

Elkarreragingarritasuna datuak partekatzeko eta informazioa eta jakintza trukatzeko gaitasuna da; kasu honetan, informazio-sistemen artean eta sistema horietaz baliatzen diren prozeduren artean.


Administrazioen arteko elkarreragingarritasun elektronikoak efizientzia handitzen du izapide bat egiteko behar diren kanpoko datuak eskuratzeko prozesua automatizatzen eta sinplifikatzen baitu, herritarrei enbarazuak ekiditen dizkie —ez baitute agiririk eskatu behar administrazio batean gero beste batean entregatzeko—, eta administrazio-eta paper-kostuak gutxitzen ditu. Azken finean, beharrezkoa da administrazio publikoek, lankidetzan, zerbitzu erkideak garatu, integratu eta batera emateko, eta ezinbesteko elementua da ere, administrazio elektronikoa eta Informazioaren Gizartea eraikitzeko eta garatzeko.

ESTATUKO ARAUAK ETA EREMUA

40/2015 Legea, **urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena**	Arau honen asmoa da barneko administrazio-formak eta administrazio publikoen arteko harremanak eta konexioak arautzea, eta zehazten du ezinbestekoa dela administrazioen arteko lankidetza elektronikoa: 3.2. artikulua: «*Administrazio publikoek, beren artean eta beren organoekin, erakunde publikoekin eta haiei lotutako nahiz haien mendeko entitateekin harremanetan jartzeko, bitarteko elektronikoak erabiliko dituzte, haietariko bakoitzak hartutako sistema eta konponbideen elkarreragingarritasun eta segurtasuna ziurtatuta; datu pertsonalen babesa bermatuko dute, eta ahal dela, interesdunei zerbitzuak batera emateko bidea emango dute*». 155. artikulua: Datu pertsonalak babesteko legearekin bat etorriz, «*administrazio bakoitzak irispidea erraztu egin beharko du interesdunen inguruan dauzkan datuak gainerako administrazio publikoek eskuratu ahal izan ditzaten, eta zehaztu egingo du zein baldintza, protokolo eta irizpide funtzional edo tekniko behar diren*». 156. artikuluan, bi eskema nazional jasotzen dira, elkarreragingarritasuna eta segurtasuna bermatzen dituztenak: **Elkarreragingarritasunaren Eskema Nazionala** (EEN) eta **Segurtasunaren Eskema Nazionala** (SEN).
Elkarreragingarritasunaren Eskema Nazionala (ENI) eta arau teknikoak	Urtarrilaren 8ko 4/2010 Errege Dekretuak arautzen du, eta administrazio publikoek elkarreragingarritasuna bermatzeko kontuan izan behar dituzten **teknologia- eta antolamendu-arloetako irizpide- eta gomendio-sorta** ezartzen du. Modu osagarrian, Elkarreragingarritasunari buruzko arau teknikoek administrazio publikoek nahitaez bete beharreko estandar teknologikoak zehazten dituzte (agiri elektronikoa, agirien digitalizazioa, kopiatze autentikoen prozedurak, datuen bitartekaritza-protokoloak, erregistroen artean idazpenak trukatzeko datu-eredua, etab.).

NISAE: EUSKADIKO ADMINISTRAZIOEN SEGURTASUNERAKO ETA ELKARRERAGINGARRITASUNERAKO NODOA

NISAE euskal sektore publikoko administrazio eta erakunde guztientzako plataforma komuna da, autonomia-erkidegoko nodo gisa eratua, haien artean eta gainerako administrazioen artean datu elektronikoak trukatzea ezartzeko, sinergiak batuta. Horrenbestez, **praktikan euskal administrazio publikoen artean paperezko ziurtagiriak ordezkatzen dituen datuen trukea egituratu eta ezartzen duen nodoa da** (tresna bat eskaintzen du Eusko Jaurlaritzak, foru-aldundiek eta EUDELek erabakitako trukatze-estandarrak betetzeko)**, eta aurrekoen artean ez ezik, horien eta estatuko gainerako administrazioen artean baita ere**, bereziki Estatuko Administrazio Orokorrarekin.



NISAEk ENIren arau teknikoa betetzen du, eta, besteak beste, **eginkizun** hauek betetzen ditu:

- Lagapen-hartzaileak eta errekeritzaileak kudeatzea, lagatzaile bakoitzak ezartzen dituen baldintzen arabera.
- Trukatutako informazioaren konfidentzialtasuna eta osotasuna ziurtatzea.
- Erakundeei laguntza ematea eta komunikazio eta gorabehera guztiak kudeatzea, horretarako eskatzaileei eta igortzaileei laguntduz.
- Erabiltzaileei eta integratzaileei arreta emateko zentro bat edukitzea, sistemaren inguruko gorabehera guztiak bideratzeko, eta haren kontaktu-datuei buruzko informazioa ematea.
- Plataformaren jarduera eta erabilerari buruzko txostenak egitea.
- Sistemak garatzea eta mantentzea eta datuen segurtasuna eta pribatutasuna araudi aplikagarriaren arabera bermatzea.
- Eskatzen diren auditoretza-lanetan parte hartzea, trazabilitate eta estatistika-datuak gordez.

El preámbulo de la Ley 18/2015, de 9 de julio, por la que se modifica la Ley 37/2007*, de 16 de noviembre, sobre* **reutilización de la información** del sector público, determina que «la información que generan las Administraciones Públicas y los organismos del sector público constituye un importante recurso para promover la economía del conocimiento. De este modo, la reutilización y la puesta a disposición de la información del sector público con fines privados o comerciales, favorecen la circulación de información hacia los agentes económicos y la ciudadanía con el fin de fomentar el crecimiento económico, el compromiso social y la transparencia».

Por otra parte, la **Directiva 2013/37/UE del Parlamento Europeo y del Consejo***,* de 26 de junio de 2013, por la que se modificaba la **Directiva 2003/98/CE***,* estableció un marco normativo para potenciar el uso transfronterizo de datos y la superación de los obstáculos derivados de las diferentes normas adoptadas en los Estados miembros.

Finalmente, la **Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi**, en su artículo 60, sobre Reutilización de la información, determina que las entidades locales fomentarán la reutilización de la información pública, conforme a la legislación básica en materia de reutilización de la información del sector público, promoviendo la reutilización libre de los datos, sin someterla a solicitud previa ni sujetar su ejercicio mediante el otorgamiento de licencias tipo.

¿QUÉ ES OPEN DATA?	Open Data es una iniciativa a nivel global que surge, a partir de proyectos desarrollados en EEUU y el Reino Unido, como una de las herramientas de la filosofía de Gobierno abierto y consiste en poner a disposición de la sociedad los datos que gestiona la Administración Pública en formatos fáciles de manipular. Cualquier ciudadano o ciudadana o empresa puede analizar, reutilizar y redistribuir estos datos, generando nuevas aplicaciones y servicios, permitiendo que la Administración Pública mejore en transparencia y fomente la generación de riqueza a través de la gestión inteligente de los recursos. Para ser considerados Open Data los datos ofrecidos tienen que ser **públicos** (sin estar sujetos a licencias ni restricciones), **detallados** y «en bruto» (sin tratar, tal cual están en los procesos de gestión), **actualizados**, **accesibles** (sin solicitudes ni registros previos), **automatizados y automatizables** (estructurados y en formatos reutilizables de forma automática), **abiertos** (en formatos no ligados a un fabricante tecnológico concreto), y **libres** (de derechos, patentes y copyright).
OBJETIVOS	• **Generación de valor y riqueza.** Obteniendo productos derivados de los datos por parte de empresas o ciudadanos o ciudadanas, a los que se denomina «infomediarios» o «reutilizadores». Permite la generación de nuevos servicios de valor social y la creación de puestos de trabajo. • **Transparencia en la Administración Pública.** Permitiendo la reutilización de los datos expuestos para analizar y evaluar la gestión pública, de acuerdo con los principios del Gobierno Abierto. • **Interoperabilidad entre Administraciones.** Facilitando la creación de servicios para la ciudadanía que utilicen datos de diferentes administraciones públicas. • **Ordenación interna de la información de la Administración.** Promoviendo la eficiencia en la documentación y clasificación de datos. • **Impulso a la construcción, cohesión y desarrollo de la Unión Europea.** Facilitando la creación de productos y servicios de información basados en documentos del sector público, y garantizando la eficacia en el uso transfronterizo de los mismos por empresas privadas y ciudadanía, promoviendo la libre circulación de información.
OPEN DATA *vs* RISP	Los términos **Open Data y RISP** (Reutilización de la Información del Sector Público) están **muy relacionados**. En ambos casos se trata de **poner a disposición de la sociedad datos «en bruto» elaborados o custodiados por la Administración.** Aunque son términos aparentemente similares, el concepto **Open Data** surge del activismo relacionado con el conocimiento libre u open knowledge y persigue abrir los datos en formatos libres y estándares (no propietarios), sin restricciones ni pago por su utilización; la gratuidad es característica fundamental. Sin embargo, **RISP** es un término surgido en Europa desde las Administraciones Públicas, vinculado al derecho a la reutilización de los datos. Puede darse la posibilidad del pago por el uso de estos datos, los denominados costes marginales, y su publicación debe producirse preferentemente en formatos estándar, aunque pueden ofrecerse en cualquier formato.
CONJUNTOS DE DATOS	Los datos públicos ofrecidos bajo esta filosofía se categorizan en **catálogos o conjuntos de datos** («dataset» en inglés). Los datos en bruto se organizan así en datasets para ser más fácilmente indexados y localizados. Los datasets incluyen campos de especificación que definen el conjunto de datos como la descripción, la frecuencia de actualización, el formato, etc. Los formatos de datos más utilizados son **CSV** («valores separados por coma», formato de texto plano usado para representar datos tabulados de fácil exportación a hojas de cálculo), **XML** («lenguaje etiquetado extensible», el estándar más importante para el intercambio de datos entre diferentes plataformas tecnológicas), **RDF** («infraestructura para descripción de recursos», modelo universal basado en XML para intercambiar datos y recursos entre diferentes aplicaciones) u **ODATA** («open data protocol», protocolo abierto que permite realizar directamente consultas y selecciones sobre los conjuntos de datos ofrecidos, así como descargar los resultados de esas operaciones). Además, hay **otros formatos** utilizados en Open Data especializados en determinados tipos de aplicaciones o informaciones, destacando los orientados a la representación de información geográfica, estando entre los más utilizados los estándares KML, WMS, WFS o WCS.
EXCEPCIONES DE APLICACIÓN	La Ley 18/2015 clarifica con nitidez los tipos de documentos sobre los que **no es de aplicación**, entre los que destacan: • Los documentos que afecten a la defensa nacional, la seguridad del Estado, la protección de la seguridad pública… y, en general, los documentos relacionados con actuaciones sometidas por una norma al deber de reserva, secreto o confidencialidad. • Los documentos para cuyo acceso se requiera ser titular de un derecho o interés legítimo. • Los documentos que obran en las Administraciones y organismos del sector público para finalidades ajenas a las funciones de servicio público. • Los documentos sobre los que existan derechos de propiedad intelectual o industrial por parte de terceros. Además, no podrá ser objeto de reutilización la información en que la ponderación a la que se refieren los artículos 5.3 y 15 de la Ley 19/2013, de 9 de diciembre, de transparencia, acceso a la información pública y buen gobierno, arroje como resultado la prevalencia del derecho fundamental a la protección de datos de carácter personal, a menos que se realice la disociación de los datos.
BUENAS PRÁCTICAS	Existe un gran número de experiencias ya asentadas, y un gran número de proyectos en desarrollo. A nivel planetario podemos destacar como buenas prácticas los servicios Open Data de las Naciones Unidas o del Banco Mundial. A nivel estatal el proyecto más destacable sería el Catálogo de Información Pública de la Administración General del Estado. Como iniciativas autonómicas, además de Open Data Euskadi, uno de los pioneros y más completos en este ámbito, hay múltiples iniciativas como el Portal Abert@s de la Xunta de Galicia, los Portales de Datos Abiertos de Andalucía y de Castilla y León, Dato Abierto Rioja, Open Data Navarra, Aragón Open Data, Datos Abiertos Gencat de Cataluña, etc. A nivel local destacan las experiencias Barcelona, Badalona, Bilbao, Madrid, Gijón, Zaragoza, Vitoria-Gasteiz, Terrassa o Lleida. Además, las Diputaciones Forales también han desarrollado portales específicos para sí mismos y en algunos casos, también para los Ayuntamientos de sus territorios, como Gipuzkoa Irekia, Open Data Bizkaia. Araba Irekia.

18/2015 Legeak, uztailaren 9koak, Sektore Publikoko **Informazioa Berrerabiltzeari** buruzko **azaroaren 16ko 37/2007 Legea aldaraztekoak**, hitzaurrean zehazten duenez, «sektore publikoko administrazio publikoek eta organismoek sortzen duten informazioa bitarteko garrantzitsua da jakintzaren ekonomia sustatzeko. Horrela, sektore publikoko informazioa xede pribatuetarako edo merkataritza-xedeetarako berrerabiltzeak eta erabilgarri jartzeak informazioa eragile ekonomikoen eta herritarren esku geratzea errazten dute, hazkunde ekonomikoa, gizarte-konpromisoa eta gardentasuna sustatzeko helburuarekin».

Bestalde, **Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren** 2013ko ekainaren 26ko **2013/37/EB Zuzentarauak**, **2003/98/EE Zuzentaraua** aldatu zuenak, araudi-esparrua ezarri zuen datuak mugaz gaindi erabiltzea bultzatzeko eta Batasuneko estatuek emandako askotariko arauen eraginez sortutako oztopoak gainditzeko.

Azkenik, **2/2016 Legeak, apirilaren 7koak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak**, 60. artikuluan, Informazioaren berrerabilpena arautzean xedatzen duenez, toki-erakundeek informazio publikoa berrerabil dadin bultzatuko dute, sektore publikoko informazioa berrerabiltzearen inguruko oinarrizko legeriarekin bat, eta datuak nahi erara berrerabiltzea bultzatuko dute, aurrez eskaerarik egin beharrik izan gabe, eta berrerabilpen hori inolako baimenak eskuratzearen mende utzi gabe.

ZER DA OPEN DATA?	Open Data ekimen global bat da, AEBn eta Erresuma Batuan garatutako proiektuetatik abiatuta sortu zena Gobernu irekiaren filosofiaren tresnetako bat bezala, haren helburua izanik Administrazio Publikoak kudeatzen dituen datuak gizartearen esku jartzea erraz manipulatzeko formatutan. Edozein herritarrek edo enpresak aztertu, berrerabili eta birbanatu ditzake datu horiek, eta aplikazio eta zerbitzu berriak sor ditzake, eta ahalbidetzen du Administrazio Publikoak hobetzea gardentasunari dagokionez eta aberastasuna sor dadin sustatzea bitartekoen kudeaketa adimentsua eginez. Eskainitako datuak Open Datatzat hartzeko, datu horiek honelakoak izan behar dute: **publikoak** (ez dute lizentzien eta murrizketen mende egon behar), **xehatuak** eta «gordinak» (landu gabe, kudeaketa prozesuetan dauden bezala), **eguneratuak**, **irisgarriak** (aurretiko eskaerarik eta erregistrorik gabe), **automatizatuak eta automatizagarriak** (egituratuak eta formatutan modu automatikoan erabili ahal izateko), **irekiak** (fabrikatzaile teknologiko jakin bati lotuta ez dauden formatutan), eta **askeak** (eskubideei, patenteei eta copyrightari dagokienez).
HELBURUAK	• **Balioa eta aberastasuna sortzea.** Enpresek edo herritarrek («infobitartekariak» edo «berrerabiltzaileak» deitzen zaie) datuetatik eratorritako produktuak lortuz. Ahalbidetzen du balio sozialeko zerbitzu berriak eta lanpostuak sortzea. • **Administrazio Publikoaren gardentasuna.** Kudeaketa publikoa aztertzeko eta ebaluatzeko jarritako datuak berrerabiltzea ahalbidetzen du, Gobernu Irekiaren printzipioen arabera. • **Administrazioen arteko elkarreragingarritasuna.** Hainbat administrazio publikotako datuak erabiltzen dituzten herritarrentzako zerbitzuak sortzea ahalbidetzen du. • **Administrazioaren informazioaren barne-antolamendua.** Datuen dokumentazioan eta sailkapenean efizientzia sustatuta. • **Europar Batasunaren eraikuntza, kohesioa eta garapena bultzatzea.** Sektore publikoko dokumentuetan oinarritutako informazio-produktu eta -zerbitzuak sortuz, produktu eta zerbitzu horiek enpresa pribatuek zein herritarrek mugaz gaindi efikaziaz erabiliko dituztela bermatuz, eta informazioaren zirkulazio librea sustatuz.
OPEN DATA *vs* SPIB	**Open Data eta SPIB** (Sektore Publikoko Informazioaren Berrerabilera) terminoak elkarri **oso lotuta** daude. Bi kasuetan, **gizartearen eskura jarri nahi dira Administrazioak egindako edo zaindutako datu «gordinak».** Itxuraz bi terminoak antzekoak badira ere, **Open Data** terminoa jakintza librearekin edo open knowledge delakoarekin lotutako aktibismotik sortzen da eta datuak formatu asketan eta estandarretan (ez jabedunak), murrizketarik gabe eta erabiltzeagatik ordaindu beharrik izan gabe irekitzea nahi du; doakoa izatea da funtsezko ezaugarria. Aitzitik, **SPIB** Europan Administrazio Publikoek sortutako terminoa da, datuak berrerabiltzeko eskubidearekin lotuta dagoena. Litekeena da datu horiek erabiltzeagatik kostu marjinalak deiturikoak ordaindu behar izatea, eta datu horiek, ahal bada, formatu estandarretan argitaratu behar dira, nahiz eta edozein formatutan eskain daitezkeen.
DATU-MULTZOAK	Filosofia hori erabiliz eskainitako datu publikoak **katalogotan edo datu-multzotan** («dataset» ingelesez) sailkatzen dira. Beraz, datu gordinak datasetetan antolatzen dira, errazago indexatzeko eta aurkitzeko. Datasetek espezifikazio-eremuak dituzte eta hainbat datu multzo zehazten dituzte, hala nola deskribapena, eguneratzeko maiztasuna, formatua eta abar. Gehien erabiltzen diren datu formatuak honako hauek dira: **CSV** («koma bidez banatutako balioak», kalkulu-orrietara erraz esporta daitezkeen datu tabulatuak irudikatzeko erabiltzen den testu lauko formatua), **XML** («etiketatutako lengoaia hedagarria», plataforma desberdinen artean datuak trukatzeko estandar garrantzitsuena), **RDF** («baliabideak deskribatzeko azpiegitura», XMLn oinarritutako eredu unibertsala datuak eta baliabideak aplikazio desberdinetan trukatzeko) eta **ODATA** («open data protocol»), eskainitako datu multzoei buruzko kontsultak eta hautaketak zuzenean egiteaz gain, eragiketa horien emaitzak behera kargatzea ahalbidetzen duen protokolo irekia). Horrez gain, Open Datan erabiltzen diren **beste formatu batzuk** daude, aplikazio edo informazio mota jakin batzuetan espezializatuta daudenak, eta haien artean informazio geografikoa irudikatzera bideratuta daudenak nabarmentzen dira. Erabilienen artean honako estandar hauek daude: KML, WMS, WFS edo WCS.
APLIKAZIO-SALBUESPENAK	18/2015 Legeak oso argi zehazten du zein dokumenturi **ez zaien aplikatuko**, horien artean aipagarrienak: • Defentsa nazionalari, Estatuaren segurtasunari eta segurtasun publikoaren babesari... eragiten dieten dokumentuak, eta, oro har, arau bati jarraikiz gordetzekoak, sekretupean uztekoak edo konfidentzialtasunez tratatzekoak diren jarduerekin lotutako dokumentuak. • Eskubide edo bidezko interes baten titularrek soilik eskura ditzaketen dokumentuak. • Zerbitzu publikoko eginkizunekin zerikusirik ez duten sektore publikoko administrazioen eta organismoen eskuetan dauden dokumentuak. • Hirugarrenen jabetza intelektual edo industrialaren eskubideen mende dauden dokumentuak. Gainera, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 5.3 eta 15. artikuluetan adierazitako haztapenaren emaitza datu pertsonalak babesteko oinarrizko eskubidea lehenestea bada, informazioa ezingo da inolaz ere berrerabili, non eta ez den datuen disoziazioa egiten.
JARDUNBIDE EGOKIAK	Mundu osoan dagoeneko finkatuta dauden esperientzia asko daude, baita garapen-bidean dauden proiektu asko ere. Mundu osoan, Nazio Batuetako edo Munduko Bankuko Open Data zerbitzuak nabarmendu ditzakegu jardunbide egoki gisa. Estatu osoan, gehien nabarmendu daitekeen proiektua Estatuko Administrazio Orokorraren Informazio Publikoaren Katalogoa da. Autonomia-erkidegoen ekimen gisa, Open Data Euskadi ekimenaz gain (eremu horretako aitzindarietakoa eta osatuenetakoa), beste ekimen asko daude, hala nola Galiziako Xuntaren Portal Abert@s, Andaluziako eta Gaztela eta Leongo Datu Atari Irekiak, Errioxako Datu Irekia, Nafarroako Open Data, Aragoiko Open Data, Kataluniako Gencat Datu Irekiak, eta abar. Tokian-tokian, Bartzelonako, Badalonako, Bilboko, Madrilgo, Gijongo, Zaragozako, Vitoria-Gasteizko, Terrassako edo Lleidako esperientziak nabarmendu behar dira. Gainera, foru-aldundiek beraientzako atari espezifikoak ere garatu dituzte, eta kasu batzuetan beren lurraldeetako udalentzat ere bai, hala nola Gipuzkoa Irekia eta Open Data Bizkaia. Araba Irekia.

LA ADMINISTRACIÓN ELECTRÓNICA ES:

- una realidad —en construcción—
- una obligación

PERO TAMBIÉN

Un **MARCO EVOLUTIVO**
de los servicios de las Administraciones
y de los **instrumentos de gobernanza**,
de enorme proyección y posibilidades

LÍNEAS DE TRABAJO DE LA ADMINISTRACIÓN ELECTRÓNICA

LA ADMINISTRACIÓN ELECTRÓNICA TRABAJA

EN

El ofrecimiento a **ciudadanía y empresas**
de la mayor parte
de sus procedimientos y trámites
a través del canal telemático

HACIA

La **gestión interna**
de los procedimientos y trámites de forma
completamente digital, hacia el objetivo
de una Administración más eficiente y sin papel

ADEMÁS

Se abren en el ámbito de la aplicación de las TICs
nuevas líneas de trabajo en innovación en la Administración

ALGUNOS APUNTES DE ESTAS NUEVAS LÍNEAS DE TRABAJO EN INNOVACIÓN EN LA ADMINISTRACIÓN

Las instituciones más avanzadas e innovadoras centran sus esfuerzos en los nuevos ámbitos evolutivos de la e-Administración dirigidos al aprovechamiento de la Web 2.0 y de la tecnología de movilidad, como nuevas formas de relación con la ciudadanía y de potenciación de las políticas de Buen Gobierno; y en el desarrollo tecnológico que posibilita una Administración con menos papel, y con procedimientos simplificados y optimizados:

- **Impulsando la TRANSPARENCIA** de la Administración, buscando, además del ya claro objetivo de la tramitación online, que los procedimientos sean comprensibles, más sencillos y claros, y poniendo a disposición de la ciudadanía informaciones y datos en tiempo real sobre su actividad, planes y objetivos. La filosofía «Open Government» tiene un claro exponente en las iniciativas «Irekia» y «Open Data Euskadi» del Gobierno Vasco y de diversos ayuntamientos vascos.
- **Realizando un aprovechamiento inteligente de las REDES SOCIALES**, como herramienta para evolucionar la comunicación institucional (newsletters, Youtube, etc.), como instrumento para facilitar un modo de gobernar más abierto y participativo, para ofrecer respuestas más ágiles a las demandas de la ciudadanía, y para disponer de un mejor feed-back a través de la «escucha activa».
- **Promoviendo la utilización de la WEB SOCIAL hacia el INTERIOR DE LAS ORGANIZACIONES,** para modernizarlas y mejorarlas, desarrollando una cultura de participación, de compartición y de trabajo en red, posibilitando una gestión más avanzada y abierta del conocimiento mediante wikis, blogs, sindicación de contenidos RSS, mashups… buscando empleados públicos más motivados a través de la implicación y la participación.
- **Eliminando el papel de los procesos**, mediante la digitalización de los registros de entrada de documentos y la tramitación electrónica interna con la implantación de sistemas de Portafirmas.
- **Implantando soluciones de movilidad (APPs, realidad aumentada, etc.)**, también como nuevas vías de comunicación inmediata, de ofrecimiento de nuevos servicios de valor para la ciudadanía y las empresas, de promoción turística y cultural, y de colaboración y participación de la ciudadanía en la gestión de la ciudad, ayudando a mejorarla.
- **Simplificando las plataformas de e-Administración generalizando el uso de los nuevos medios de IZENPE de identificación y firma BaK y BakQ,** basados en certificados «en la nube» y, en su caso, en el sistema de juego de barcos desarrollado por esta Entidad de Certificación, evitando los problemas operativos que la firma electrónica reconocida ha presentado, especialmente en su uso ciudadano.
- **Avanzando en la INTEROPERABILIDAD** entre las instituciones, simplificando al máximo para la ciudadanía las complejas interacciones entre administraciones, y generando eficiencia (reducción de tiempos y de costes) en la tramitación de los procedimientos.
- **Implantando soluciones basadas en TERMINALES DE AUTOSERVICIO,** para aligerar a los servicios de atención presenciales de los trámites más sencillos y repetitivos, y que puedan centrar sus esfuerzos en las gestiones más complejas y en las que el personal especializado aporta más valor.
- En la construcción de una Administración Electrónica con **BASE SOCIAL**, que evite la brecha digital, ofreciendo instrumentos de acceso gratuitos (oficinas electrónicas, aulas de Internet, zonas WiFi públicas y gratuitas, potenciación en número y servicios de los KZ Guneak), formación TIC de la ciudadanía, potenciando el desarrollo social (asociacionismo en la red, apoyo a la tercera edad…), etc.

ADMINISTRAZIO ELEKTRONIKOA DA:

- errealitate bat —eraikitzen ari dena—
- betebehar bat

BAINA, HAU ERE

Administrazioen zerbitzuen
eta gobernantza-tresnen
GARAPEN-ESPARRUA
proiekzio eta ahalmen handiak dituena

ADMINISTRAZIO ELEKTRONIKOAREN LAN-LERROAK

ADMINISTRAZIO ELEKTRONIKOAK LAN EGITEN DU

HEMEN

Herritarrei eta enpresei
bere prozedura
eta izapide gehienak
telematikoki eskaintzea

ZER LORTZEKO?

Prozedura eta izapideen **barne-kudeaketa**
guztiz digitala, helburu hau lortze aldera:
Administrazio eraginkorragoa eta paperik
erabiltzen ez duena

GAINERA

IKTen aplikazio-eremuan
Administrazio-berrikuntzan lanerako lerro berriak irekitzen dira

ADMINISTRAZIOKO BERRIKUNTZAREN ALORREKO LAN-LERRO BERRI HORIEI BURUZKO OHAR BATZUK

Erakunde aurreratu eta berritzaileenek bi alderditan egin dituzte ahaleginak: alde batetik, e-Administrazioaren eremu ebolutibo berrietan, 2.0 webgunea eta mugikortasun-teknologia herritarrekin harremanetan jartzeko eta Gobernu Egokiaren politikak sustatzeko modu gisa aprobetxatzera bideratuta daudenak; eta bestetik, paper gutxiagoko eta prozedura sinplifikatuak eta hobeak izango dituen Administrazioa izatea ahalbidetuko duen garapen teknologikoa lortzeko:

- Horretarako, Administrazioaren **GARDENTASUNA bultzatzen da**, eta, gainera, online izapidetzearen helburu argia bilatzeaz gain, bilatzen da prozedurak ulergarriak, sinpleagoak eta argiagoak izatea, eta administrazioaren jarduerari, planei eta helburuei buruzko informazioak eta datuak jartzen dira herritarren eskura denbora errealean. «Open Government» filosofiaren adierazgarri argiak dira Eusko Jaurlaritzaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko hainbat udalen «Irekia» eta «Open Data Euskadi» ekimenak.
- **SARE SOZIALAK adimenarekin aprobetxatuz**, horiek komunikazio instituzionala eraldatzeko tresna gisa (newsletterrak, Youtube, etab.) erabiliz, bai eta gobernatzeko modu irekiagoa eta parte-hartzaileagoa izan dadin ahalbidetzeko, eta herritarrek egiten dituzten eskaerei arinago erantzun ahal izateko eta «entzute aktiboaren» bitartez feedback hobea edukitzeko ere.
- **WEB SOZIALA ERAKUNDEEN BARNERANTZ erabil dadin sustatuz**, partaidetzako, partekatzeko eta sareko laneko kultura bat garatzeko tresna moduan, ezagutzaren kudeaketa aurreratuagoa eta irekiagoa ahalbidetuz, hainbat tresnaren bitartez: wikiak, blogak, sare sozialetako eduki-sindikazioa, mashup-ak,.... langile publiko motibatuagoak bilatuz, inplikazioaren eta partaidetzaren bidez.
- **Prozesuetako papera desagerraraziz**, dokumentuen sarrera-erregistroak digitalizatuz eta barne izapidetze elektronikoaren bitartez, Sinadura-karpeten sistema ezarriz.
- **Mugikortasunerako baliabideak ezarriz (APPak, errealitate areagotua, etab.)** baita berehalako komunikazioa emateko, herritarrentzako eta enpresentzako balio-zerbitzu berriak eskaintzeko, turismoa eta kultura sustatzeko eta herritarrek hiriaren kudeaketan (hiria hobetzen lagunduz) laguntzeko eta parte hartzeko bide berri gisa ere.
- **e-Administrazioaren plataformak sinplifikatuz eta identifikaziorako IZENPE eta sinadurarako BaK eta BakQ bitartekoen erabilera orokortuz.** Aurrekoak «hodeiko» ziurtagirietan oinarrituta daude, eta hala dagokionean, erakunde honek garatutako ziurtapenerako ontzien-jokoa erabiliko da, aitortutako sinadura elektronikoak izan dituen operazio-arazoak ekidinez, bereziki, herritarrek erabili dutenean.
- Erakundeen arteko **ELKARRERAGINGARRITASUNEAN aurrera eginez,** eta gehienera sinplifikatuz herritarrentzat administrazioen arteko harreman konplexuak, eta efizientzia sortuz (denbora- eta kostu-murrizketa) prozedurak izapidetzean.
- **AUTOZERBITZUKO TERMINALETAN oinarritutako soluzioak ezarriz**, izapide sinpleenak eta errepikakorrak artatzeko zerbitzuak arintzeko, eta ahaleginak kudeaketa konplexuenetan eta langile espezializatuek balio gehien ematen dieten kudeaketan egin ahal izateko.
- **OINARRI SOZIALA** duen Administrazio Elektronikoa eraikitzen denean, eten digitala saihestu dezala, doako sarbideko tresnak eskainiz (bulego elektronikoak, Interneteko gelak, WiFi aldeak, KZguneak kopuruan eta zerbitzuetan indartzea), herritarren IKTen arloko prestakuntza, garapen soziala indartuz (sareko elkarte-mugimendua, hirugarren adinekoei laguntzea...) eta abar.

XIII.

PERTSONAK KUDEATZEKO SISTEMA (GIZA BALIABIDEAK)

SISTEMA DE GESTIÓN DE PERSONAS (RECURSOS HUMANOS)

XIII.

Sistema de gestión de personas (recursos humanos)


1. Organización.
2. Gestión por competencias.
3. Entrada.
4. Desarrollo de los recursos humanos.
5. Comunicación.
6. Reconocimiento.
7. Espacio social.
8. Prevención riesgos laborales.

Guía Local - ISBN 978-84-7777-690-1

XIII.


Pertsonak kudeatzeko sistema (giza baliabideak)

1. Antolaketa.
2. Gaitasunen araberako kudeaketa.
3. Sarrera.
4. Giza baliabideen garapena.
5. Komunikazioa.
6. Lana aitortzea.
7. Eremu soziala.
8. Laneko arriskuen prebentzioa.



LAS ORIENTACIONES QUE HAN DE DARSE SON:

- La atención prioritaria a la **eficacia** y **eficiencia** en la gestión, que tiene como origen la necesidad de prestar determinados servicios y las políticas de contención del gasto público.
- La necesidad de **adaptar los recursos humanos a la evolución de un entorno social** en transformación, y un **cambio acelerado del papel de las administraciones locales,** cada vez más ligado a la prestación de servicios, la dinamización social, la promoción económica y la gestión integral de las ciudades.
- La promoción de la **igualdad de oportunidades** y trato de mujeres y hombres.
- La **mejora de la capacidad gestora** de los agentes públicos.
- La **opción por la uniformidad o dualidad del régimen jurídico del personal,** estableciendo en el primer caso los mecanismos de integración del personal laboral, fijo o temporal, como funcionarios de carrera o funcionarios interinos (de puesto o de ejecución de programas).
- La implantación de la figura del **directivo público.**
- La **ponderación en el ejercicio de la discrecionalidad en el sistema de libre designación**, al crear dichos puestos y al proceder a su provisión y cese.
- La **implicación y responsabilización de los gestores** en la gestión de los recursos humanos; la desconcentración parcial de una parte de las responsabilidades sobre el personal, siempre con directrices y modelos claros.
- La **opción o no por relaciones de puestos abiertas**; limitando al máximo, en el primer caso, el requisito de pertenencia a un determinado Grupo o Cuerpo o la posesión de una concreta titulación académica.
- La sustitución de esquemas de dirección muy jerarquizados y compartimentados por fórmulas más flexibles y horizontales: **los equipos de trabajo.**
- La **flexibilización del reclutamiento y la selección**, que tiende a mejorar la eficacia y efectividad de las organizaciones.
- La **creciente importancia de la formación,** para conseguir el máximo desarrollo de la organización mediante el perfeccionamiento de las personas que trabajan en ella.
- La implantación de **políticas retributivas** con capacidad de potenciar la **adecuada valoración de los servicios** y atraer y mantener **profesionales altamente cualificados**.
- Aplicación de técnicas de **evaluación del desempeño** y la **incentivación de la productividad**.
- El establecimiento de **itinerarios de carrera profesional** para cada Cuerpo o Escala.
- **Redistribución de efectivos**, en función de las necesidades de servicio.
- La opción o no por la existencia de un **horario general flexible**, con excepciones tasadas.
- Tendencia creciente a la **participación y el compromiso de los agentes y de sus representantes** en la puesta en funcionamiento de **innovaciones y transformaciones.**



HAUEK DIRA EMAN BEHARREKO ORIENTABIDEAK:

- Kudeaketa **eraginkorra** eta **efizientea** izatea hartzea lehentasuntzat, eta hor jartzea arreta, zerbitzu jakin batzuk emateko eta gastu publikoari eusteko politikak betetzeko.
- **Giza baliabideak egokitzea ingurune sozialaren bilakaerara**, ingurune soziala eraldatzen ari baita, eta **toki-administrazioen eginkizuna azkar aldatzea**; zeregin hori gero eta lotuago dago zerbitzuak ematearekin, gizartea dinamizatzearekin, ekonomia bultzatzearekin eta hirien osoko kudeaketarekin.
- Emakumeen eta gizonen arteko **aukera-** eta tratu-**berdintasuna** sustatzea.
- Eragile publikoen **kudeaketa-gaitasuna hobetzea**.
- **Langileen araubide juridikoaren bateratasunaren edo dualtasunaren alde** egitea, lehenengo kasuan mekanismo egokiak ezarriz langile lan-kontratudunak —finkoak eta aldi batekoak— karrerako funtzionario gisa edo bitarteko funtzionario gisa integratzeko (postuko edo programak betearazteko funtzionario gisa).
- **Zuzendaritza kide publikoa**ren figura ezartzea.
- **Izendapen libreko sisteman diskrezionaltasuna baliatzean ponderazioa erabiltzea**, lanpostu horiek sortzeko, betetzeko eta uzteko.
- **Kudeatzaileek** giza baliabideen kudeaketan **parte hartzea eta erantzukizunak hartzea**; langileek dituzten erantzukizuneko batzuk hein batean deskontzentratzea, betiere jarraibide eta eredu argiak erabilita.
- **Lanpostu-zerrenda irekien aukera ematea edo ez**; ahalik eta gehien mugatuz, lehenengo kasuan, talde edo kidego jakin bateko kide izateko eskakizuna edo titulazio akademiko zehatz baten jabe izatekoa.
- Zuzendaritza-eskema oso hierarkizatu eta zatikatuen ordez, formula malguago eta horizontalak erabiltzea: **lantaldeak**.
- **Errekrutamendua eta hautaketa malgutzea**, erakundeen eraginkortasuna eta eragimena hobetzen baita hala.
- **Prestakuntza ematea, gero eta garrantzi handiagoa baitu**, erakundea ahal den gehiena garatu dadin bertan lan egiten duten langileak ondo prestatuta.
- **Zerbitzuen balorazio egokia** sustatzeko eta **goi-mailako kualifikazioa duten profesionalak** erakartzeko eta mantentzeko ahalmena duten **ordainketa-politikak** ezartzea.
- **Jarduna ebaluatzeko teknikak** aplikatzea eta **produktibitatea sustatzea**.
- Kidego edo eskala bakoitzerako **lanbide-karrerako ibilbide batzuk** ezartzea.
- **Giza baliabideak birbanatzea**, zerbitzu beharren arabera.
- **Ordutegi orokor malgu bat** izatea edo ez izatea, salbuespen neurtu batzuekin.
- **Eragileek eta haien ordezkariek** gero eta **parte-hartze eta konpromiso handiagoa** izatea **berrikuntzak eta eraldaketak** plantan ezartzean.


NORMA JURÍDICA		Aplicación en la administración local	
		ESTATAL	CAPV
RDL 5/2015	**Texto refundido de la Ley del Estatuto Básico del Empleado Público.**	X	X
Ley 11/2022	**Ley de Empleo Público Vasco (LEPV).**		X
Ley 7/1985 (LRBRL)	**Ley Reguladora de las Bases del Régimen Local.** (El Estatuto Básico del Empleado Público deroga el artículo 92 y el Capítulo III del Título VII de esta Ley).	X	X
Ley 2/2016	**Ley de Instituciones Locales de Euskadi.**		X
RDL 781/1986 (TRRL)	**Texto refundido de las disposiciones legales vigentes en materia de Régimen Local.** (El Estatuto Básico del Empleado Público deroga el Capítulo III del Título VII de esta norma).	X	X
RD 128/2018	**Régimen jurídico de los funcionarios de Administración Local con habilitación de carácter nacional.**	X	X
Ley 53/1984	**Incompatibilidades del personal al servicio de las Administraciones Públicas.** (Ver Disposición Final Tercera del Estatuto Básico del Empleado Público que introduce modificaciones en esta Ley).	X	X
Ley 9/1987	**Órganos de representación, determinación de las condiciones de trabajo y participación del personal al servicio de las Administraciones Públicas.** (Únicamente atender al artículo 7 de esta Ley, y a lo expresado en la Disposición Transitoria Quinta del Estatuto Básico del Empleado Público respecto al procedimiento electoral general).	X	X
RD 896/1991	**Reglas básicas de los programas mínimos a los que se han de ajustar los procedimientos de selección de los funcionarios de la Administración Local.**	X	X
RD 364/1995	**Ingreso y provisión de puestos y promoción profesional de los funcionarios de la Administración General del Estado.** (Vigente en lo que no se oponga al Estatuto Básico del Empleado público, y aplicable únicamente con carácter supletorio).	X	X
D 190/2004	**Reglamento de provisión de puestos de trabajo del personal funcionario de las Administraciones Públicas Vascas.**		X
D 207/1990	**Retribuciones de los Funcionarios de las Administraciones Públicas Vascas.**		X
D 339/2001	**Reglamento de Situaciones Administrativas del personal funcionario de las Administraciones Públicas Vascas.**		X

Nota: El 27 de diciembre de 2022 entró en vigor la Ley 11/2022, de 1 de diciembre, de Empleo Púbico Vasco, que deroga la Ley 6/1989, de 6 de julio, de la Función Pública Vasca.

ARAU JURIDIKOA		Toki-administrazioan duen aplikazioa	
		ESTATUA	EAE
5/2015 ELD	**Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina.**	X	X
11/2022 Legea	**Euskal Enplegu Publikoaren Legea (EEPL).**		X
7/1985 Legea (TAOL)	**Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legea.** (Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuak lege honetako 92. artikulua eta VII. tituluko III. kapitulua indargabetu ditu).	X	X
2/2016 Legea	**Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legea.**		X
781/1986 ELD (TATB)	**Toki-araubidearen arloan indarrean dauden legezko xedapenen testu bategina.** (Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuak arau horren VII. tituluko III. kapitulua indargabetu du).	X	X
128/2018 ED	**Estaturako gaikuntza duten toki-administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa.**	X	X
53/1984 Legea	**Herri Administrazioen zerbitzura dauden langileen bateraezintasunak.** (Ikus Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren azken xedapenetako hirugarrena, aldaketak egin baititu lege horretan).	X	X
9/1987 Legea	**Administrazio Publikoen zerbitzura dauden langileen ordezkaritza-organoak, lan-baldintzen zehaztapena eta partaidetza.** (Lege horretako 7. artikuluari soilik egin kasu, bai eta hauteskunde-prozedura orokorrari buruz Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuko bosgarren xedapen iragankorrean adierazten denari ere).	X	X
896/1991 ED	**Toki-administrazioko funtzionarioak aukeratzeko prozedurak jarraitu beharreko gutxieneko programen oinarrizko arauak.**	X	X
364/1995 ED	**Estatuko Administrazio Orokorreko funtzionarioen sarrera, lanpostu-kopurua eta lanbide-sustapena.** (Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuari kontra egiten ez dion guztia dago indarrean, eta osagarri gisa soilik aplikatu ahal izango da).	X	X
190/2004 D	**EAEko Administrazio Publikoetako Funtzionarioen Lanpostuak Betetzeko Araudia.**		X
207/1990 D	**EAEko Administrazio Publikoetako Funtzionarioen Ordainsariak.**		X
339/2001 D	**EAEko Administrazio Publikoetako Funtzionarioen Administrazio Egoerei buruzko Araudia.**		X

Oharra: 2022ko abenduaren 27an, Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legea jarri zen indarrean, eta Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legea indargabetu zuen.


La Constitución otorga a los **Entes Locales** la **capacidad de autoorganizarse** dentro de los **límites y restricciones** impuestos por la legislación básica estatal y la normativa de desarrollo autonómica en materia de régimen local; todo ello en atención a la mejor prestación de los servicios que tienen encomendados y a la atención del interés público.



Legislación: Constitución Española, arts. 137 y 140
Ley Reguladora de las Bases del Régimen Local, art. 4
Ley de Empleo Público Vasco, art. 24.1

Guía Local - ISBN 978-84-7777-690-1

Konstituzioak **toki-erakundeei beren burua antolatzeko ahalmena** ematen die, Estatuaren oinarrizko legeek eta toki-araubideari dagokionez autonomien garapenerako araudiak ezarritako **mugen eta murrizketen barruan**; hori guztia, beren ardurapean dauden zerbitzuak ahalik eta ondoen emateko eta interes publikoa kontuan hartuta.



Legeria: Espainiako Konstituzioa, 137. eta 140. artikuluak
Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legea, 4. artikulua
Euskal Enplegu Publikoaren Legea, 24.1. artikulua

PERSONAL FUNCIONARIO, LABORAL Y EVENTUAL

FUNCIONARIOS DE CARRERA	• Son los que, en virtud del **nombramiento legal,** superadas las pruebas de selección y, en su caso, de formación y/o prácticas, prestan **servicios profesionales de carácter permanente** en una Entidad Local, ocupan plazas de plantilla y perciben **salarios** con cargo a las consignaciones de personal del presupuesto del Ayuntamiento, y tienen una relación de **derecho administrativo**. • Los funcionarios de carrera pueden ser también **funcionarios con habilitación de carácter nacional** (Subescalas de Secretaría, de Intervención-Tesorería y de Secretaría-Intervención).
FUNCIONARIOS INTERINOS	• Son los que, por razones justificadas de necesidad y urgencia, en virtud del **nombramiento legal,** realizan servicios con **carácter temporal** y ocupan **puestos de trabajo reservados a funcionarios de carrera**, ya sea porque se encuentran vacantes (por un plazo máximo de 3 años); o porque sustituyen transitoriamente a la persona que, bien como titular de la plaza bien como funcionario interino, desempeña el puesto, en supuestos de ausencia de esa persona de carácter completo o parcial (reducción de jornada, acciones formativas…). • También lo son los nombrados para la **ejecución de programas temporales (**que no podrán tener una duración superior a tres años, prorrogable hasta un máximo de otro año)**,** o por **exceso o acumulación de tareas** por un plazo máximo de 6 meses dentro de un periodo de 12 (aunque no ocupen puestos permanentes). • El personal interino **cesa** en su relación con el Ayuntamiento: a) Por cobertura reglada del puesto por funcionario de carrera (OPE, concursos…). b) Por reincorporación del funcionario sustituido o la asignación a funcionario de carrera sin reserva de plaza que reingresa. c) Por amortización de la plaza, desaparición de las razones de necesidad y urgencia que motivaron el nombramiento, o por incumplimiento sobrevenido de los requisitos del puesto. d) Por finalización del programa temporal o el transcurso de 48 meses desde su nombramiento en ese programa. e) Por el transcurso de 6 meses en nombramientos por exceso o acumulación de tareas. f) Por cualquiera de las causas del artículo 63 del EBEP, para el cese de funcionarios (renuncia, jubilación total…).
PERSONAL LABORAL	• El que, en virtud de un **contrato laboral** ocupa un puesto de trabajo definido como tal. Puede ser de carácter **fijo, por tiempo indefinido a consecuencia de sentencia o temporal.** • La contratación del personal laboral fijo y temporal ha de hacerse mediante **convocatoria pública** y respetando los principios igualdad, mérito, capacidad, **publicidad y libre concurrencia**. • Se rige por el **Estatuto de los trabajadores y demás normativa laboral** aplicable (especialmente, por los convenios colectivos) y por el **Estatuto Básico del Empleado Público** (normas de acceso, régimen disciplinario, readmisión por despido improcedente, promoción interna, provisión de puestos y movilidad...). • El personal laboral de carácter directivo está sometido a la relación laboral de carácter especial de alta dirección. • La norma **administrativa** sólo regula a este personal cuando se refiere a él expresamente.
PERSONAL EVENTUAL	• Es el que, en virtud de **libre nombramiento** y en **régimen no permanente,** ocupa un puesto de trabajo no reservado a funcionarios de carrera ni personal laboral, y cumple estas **condiciones:** → Realiza funciones de confianza o asesoramiento personal. → El puesto se encuentra descrito en la relación de puestos de trabajo o instrumento similar. → El nombramiento y el cese son libres y corresponden al alcalde, y han de ser publicados en el Boletín Oficial de la Provincia. El cese se produce, en todo caso, en el momento que expira el mandato de la autoridad que lo ha nombrado.

Legislación: Estatuto Básico del Empleado Público, arts. 8 a 12
Ley de Empleo Público Vasco, arts. 26 a 30
LRBRL, arts. 104, 104bis y Disposiciones Adicionales Segunda, Undécima y Decimoquinta.

FUNTZIONARIOAK, LAN-KONTRATUDUNAK ETA BEHIN-BEHINEKOAK

KARRERAKO FUNTZIONARIOAK	• **Legezko izendapenaren arabera**, behin hautatze-probak eginda eta, hala badagokio, prestakuntza-edota praktika-probak eginda toki-entitate batean **zerbitzu profesional iraunkorrak ematen diharduten** dira. Plantillako plazak betetzen dituzte, eta udaleko aurrekontuan langileentzat jarrita dauden diruetatik jasotzen dute **soldata**; **administrazio-zuzenbideko** harremana dute. • Karrerako funtzionarioak, era berean, **Estaturako gaikuntzako funtzionarioak** izan daitezke (Idazkaritzako, Kontu-ikuskaritza-Diruzaintzako eta Idazkaritza-Kontu-ikuskaritzako azpieskalak).
BITARTEKO FUNTZIONARIOAK	• Premia- eta urgentzia-arrazoi justifikatuak direla medio, **legezko izendapenaren arabera**, **aldi baterako** zerbitzuak egiten dituzte eta **karrerako funtzionarioentzat gordetako lanpostuak** betetzen dituzte, bai hutsik daudelako (gehienez hiru urterako), bai lanpostua betetzen duen pertsona titularra edo bitarteko funtzionarioa aldi baterako ordezkatzen dutelako pertsona hori inoiz ez dagoenean edo lanpostua partzialki betetzen duenean (lanaldi-murrizketa, prestakuntza-ekintzak...). • **Aldi baterako programak betetzeko** izendatzen direnak ere badira (programa horiek ezin izango dute iraun hiru urtetik gora, eta urtebete luzatu ahalko dira), eta **zeregin gehiegi izateagatik edo zereginak pilatzeagatik** hamabi hilabeteko aldiaren barruan gehienez ere sei hilabeterako izendatzen direnak ere bai (lanpostu iraunkorrik ez bete arren). • Bitarteko langileek Udalarekin duten harremana kasu hauetan **eteten** da: a) Lanpostua karrerako funtzionario batek arauz betetzen duenean (enplegu publikoaren eskaintza, lehiaketak...). b) Ordezkatutako funtzionarioa lanpostura itzultzen denean edo plazarik gorde ez zaion eta lanera itzultzen den karrerako funtzionario bati esleitzen zaionean. c) Lanpostua kentzen denean, izendapena eragin zuten premia- eta presa-arrazoiak desagertzen direnean edo gerora lanposturako betekizunak betetzeari uzten zaionean. d) Aldi baterako programa amaitzen denean edo programa horretarako izendatu zutenetik 48 hilabete igarotzen direnean. e) Zeregin gehiegi izateagatik edo zereginak pilatzeagatik izendatutako kasuetan sei hilabete igarotzen direnean. f) EPOEren 63. artikuluko edozein arrazoi dagoenean (uko egitea, erretiro osoa...); funtzionarioek lanpostua uzteari buruzkoa da artikulu hori.
LANGILE LAN-KONTRATUDUNAK	• Lan-kontratukotzat zehaztu den lanpostu bat **lan-kontratu baten arabera** betetzen dutenak dira. **Finkoak, mugagabeak (epai baten ondorioz) edo aldi baterakoak** izan daitezke. • Langile lan-kontratudun finkoak edo aldi baterakoak kontratatzeko, **deialdi publikoa** egin behar da eta berdintasunaren, merezimenduen, gaitasunaren, **publikotasunaren eta lehia askearen** printzipioak bete behar dira. • **Langileen estatutuak eta aplikagarri zaien bestelako lan-araudiek** arautzen dituzte (bereziki, hitzarmen kolektiboek), bai eta **Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuak** ere (sarbideko arauak, diziplina-araubidea, bidegabeko kaleratzea dela eta lanean berriz hartzea, barne-sustapena, lanpostuak betetzea eta mugikortasuna...). • Zuzendaritzako langile lan-kontratudunak goi-mailako zuzendaritzako lan-harreman bereziaren mende daude. • **Administrazio**-arauak berariaz aipatzen dituenean bakarrik arautzen ditu langile hauek.
BEHIN-BEHINEKO LANGILEAK	• Karrerako funtzionarioentzat eta langile lan-kontratudunentzat gordeta ez dagoen lanpostu bat **izendapen librearen bidez eta behin-behinean** betetzen dutenak. Gainera, **baldintza hauek** bete behar dituzte: → Konfiantzako zereginak edo aholkularitzako zereginak betetzen dituzte. → Lanpostua lanpostuen zerrendan edo antzeko tresna batean deskribaturik egoten da. → Izendapena eta kargu-uztea libreak dira, alkateari dagozkio eta probintziako aldizkari ofizialean argitaratu behar dira. Izendatu zituen agintariari agintaldia amaitzen zaionean utzi behar dute betiere lanpostua.

Legeria: Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutua, 8. artikulutik 12.era
Euskal Enplegu Publikoaren Legea, 26. artikulutik 30.era
TAOL, 104. artikulua, 104 bis artikulua eta bigarren, hamaikagarren eta hamabosgarren xedapen gehigarriak

DEFINICIÓN Y RASGOS EN LA LEY BÁSICA	• Son puestos de trabajo que desarrollan **funciones directivas profesionales** (definidas por cada administración). • Su **régimen específico y los criterios** para determinar su condición se fijarán **reglamentariamente.** • Puede reunir la condición laboral como **personal de alta dirección** u **otra diferente** a ésta. • Su número máximo lo establece el órgano de gobierno de la entidad. Su número y retribuciones serán públicas. El nombramiento, retribuciones y dedicación se publicarán en el Boletín Oficial del Territorio Histórico.
COMPETENCIA PARA DETERMINAR LOS PUESTOS DIRECTIVOS Y LAS ÁREAS EN QUE SE INSCRIBEN	• La entidad local define su **estructura de puestos directivos (autoorganización),** según las políticas que quiera impulsar. • El **Pleno** ostenta la **competencia** para determinar las **áreas en que se insertarán los puestos directivo**s de la entidad. La **propuesta** la realizará la alcaldía o presidencia de la entidad. • La determinación **de los puestos directivos, en cada área, y su denominación** se llevarán a cabo mediante un **instrumento de ordenación diferenciado** de la relación de puestos de trabajo de la entidad, que no es objeto de negociación colectiva, y que **contendrá, AL MENOS, los siguientes datos: denominación del puesto, requisitos generales para su provisión (funcionario de carrera, laboral fijo, abierto a personal de otras administraciones, o a quienes no son empleados públicos), requisitos específicos del puesto, grado profesional exigido (si se reserva a funcionario de carrera), perfil lingüístico y fecha de preceptividad, retribuciones, periodo de desempeño del puesto (que no será inferior a 5 años).** • Este instrumento **lo aprobará el Pleno** (a propuesta de la alcaldía o presidencia), salvo en los municipios de gran población, en los que lo aprobará la **junta de gobierno local y** se publicará en el Boletín Oficial del Territorio Histórico.
PUESTOS QUE PUEDEN DEFINIRSE COMO DIRECTIVOS	• Puestos de **entidades con población superior a 40.000 habitantes** (modificable por Gobierno Vasco, previo contraste con Ayuntamientos y Asociación de Municipios) y que respondan a una de **estas tipologías**: → Asumen **funciones de coordinación general, gerencia** municipal o de sector o de **dirección** de área. → **Máxima responsabilidad** de organismos públicos, sociedades mercantiles, consorcios o fundaciones de sector público local. • Podrán tener la condición de directivo (no estructurales), si así se acuerda por el órgano competente, los puestos de **mayor responsabilidad de estructuras o programas que se creen, por razones coyunturales o excepcionales**, para desarrollar proyectos de gestión o encomiendas especiales temporales para llevar a cabo una determinada política sectorial. El puesto será amortizado cuando finalice el proyecto o la encomienda especial. • Municipios **de gran población: especiales previsiones** en legislación básica y en la Ley 2/2016.
FUNCIONES DE LOS DIRECTIVOS LOCALES	• LAS **QUE LES ASIGNE LA ENTIDAD,** e **INCLUIRÁN EN TODO CASO, siempre respecto de la unidad a que se les asigna y las funciones encomendadas**: la dirección y coordinación técnica; la gestión técnica de los servicios y el personal; la propuesta de la política presupuestaria; el impulso de la administración electrónica, la transparencia y el gobierno abierto, la escucha activa y la participación ciudadana; la garantía de la rendición de cuentas; la promoción de la innovación permanente; el seguimiento y evaluación de las políticas y del personal; la elaboración de informes y propuesta de resolución; y cualquiera otras que les puedan asignar, de modo complementario, por proximidad material o por especial cualificación.
SELECCIÓN Y PROVISIÓN DE LOS PUESTOS	• Provisión mediante **convocatoria pública** (boletín correspondiente, sede electrónica y página web o portal de transparencia), y a través de los **sistemas previstos en la legislación de empleo público**. Expresará las características y competencias exigidas, los requisitos (deberá incluirse experiencia mínima en determinados ámbitos) y podrá incluir periodo de prácticas. • Principios **del procedimiento de selección o provisión**: principios de mérito, capacidad, objetividad, publicidad, concurrencia e idoneidad de las personas en relación con los puestos convocados. • Acreditación **de competencias**: por la propia entidad o encomienda al Instituto Vasco de Administración Pública. • Designación **discrecional**: necesidad de cumplir requisitos y acreditar el mínimo de competencia exigido. • El nombramiento **o la formalización del contrato laboral de alta dirección** compete al **alcalde o presidente** y se pondrá en conocimiento del pleno, en la sesión inmediatamente siguiente. • Continuidad **en el puesto:** según evaluación de resultados y limitada en el tiempo en los términos de la Ley.
RÉGIMEN JURÍDICO	• Son directivos públicos profesionales los titulares de los puestos así calificados. • Cada puesto ha de tener su monografía con las funciones asignadas y las competencias requeridas para su desempeño. • Podrán ser funcionarios de carrera, laborales fijos de la administración o, incluso, no ser empleados públicos. • Todos ellos, habrán de tener titulación universitaria de grado o equivalente. • Si el directivo es funcionario de carrera, la designación para un puesto directivo de un Ayuntamiento, organismo autónomo o ente público de derecho privado, se realizará mediante un nombramiento administrativo, y el funcionario de carrera quedará en: → Servicio activo, con reserva de puesto de trabajo, cuando sea designado en puesto directivo de su propia administración. → Servicio como personal directivo público profesional con reserva de puesto de trabajo, si es designado para un puesto correspondiente a otra administración distinta a la propia o al sector público local. • **La designación como directivo de quienes no son funcionarios de carrera se realizará** mediante nombramiento administrativo (si se le designa para una administración vasca) y mediante contrato laboral de alta dirección (si se le designa en el resto del sector público). Los laborales fijos quedarán en excedencia forzosa, con reserva del puesto de trabajo del que fueran titulares. • **Sus condiciones de empleo no son objeto de negociación colectiva. Se fijan unilateralmente por los órganos locales de gobierno.** • **Siguen el régimen de altos cargos o cargos públicos en:** incompatibilidades y conflictos de intereses; código de conducta, transparencia y buen gobierno; el del Estatuto de los trabajadores (respecto a suspensión del contrato). • **Sujetos a evaluación** por eficacia, eficiencia, responsabilidad por su gestión y control de resultados.

DEFINIZIOA ETA EZAUGARRIAK OINARRIZKO LEGEAN	• Administrazio bakoitzak definitutako **zuzendaritza-eginkizun profesionalak** betetzen dituzten lanpostuak dira. • Haien **berariazko araubidea eta** haien izaera finkatzeko **irizpideak erregelamendu bidez** ezartzen dira. • Langile lan-kontratudunak izan daitezke, **goi-zuzendaritzako langile**, edo **bestelakoak**. • Haien gehieneko kopurua erakundeko gobernu-organoak ezartzen du. Haien kopurua eta ordainsariak publikoak dira. Izendapenak, ordainsariak eta arduraldia lurralde historikoaren aldizkari ofizialean argitaratu behar dira.
ZUZENDARITZA-POSTUAK ETA HAIEN ARLOAK ZEHAZTEKO ESKUMENA	• Toki-erakundeak **zuzendaritzako postuen egitura** definitzen du **(autoantolaketa)**, bultzatu nahi dituen politiken arabera. • **Osoko bilkurak** du **erakundeko zuzendaritzako postuak zer arlotan txertatuko** diren erabakitzeko **eskumena**. **Proposamena** alkateak edo entitateko presidenteak egingo du. • **Arlo bakoitzeko zuzendaritza-postuak** eta **haien izena** zehazteko, erakundearen lanpostu-zerrendatik **bereizitako antolamendu-tresna bat** erabiliko da. Tresna hori ez da negoziazio kolektiboaren xede, eta **datu hauek jasoko ditu, GUTXIENEZ: lanpostuaren izena, lanpostua betetzeko baldintza orokorrak (karrerako funtzionarioa, lan-kontratudun finkoa, beste administrazio batzuetako langileei edo enplegatu publiko ez direnei irekia), lanpostuaren betekizun espezifikoak, eskatutako gradu profesionala (karrerako funtzionarioentzat gordetzen bada), hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun-data, ordainsariak, lanpostua betetzeko aldia (gutxienez bost urtekoa izango da).** • Tresna hori **osoko bilkurak onetsiko du** (alkateak edo presidenteak proposatuta), udalerri handietan izan ezik, horietan **tokiko gobernu-batzarrak** onetsiko baitu, eta lurralde historikoaren aldizkari ofizialean argitaratuko da.
ZUZENDARITZA-POSTU GISA DEFINI DAITEZKEEN POSTUAK	• **40.000 biztanletik gorako entitateetakoak** (Eusko Jaurlaritzak aldatu ahal izango du, udalekin eta udal-elkarteekin kontrastatuta), **tipologia hauetako batekoak** direnak: → **Koordinazio orokorreko zereginak**, udaleko edo sektoreko **kudeaketa-lanak** edo arloko **zuzendaritza-lanak** dituzte. → Tokiko sektore publikoaren barruan, **erantzukizun gorena** dute organismo publiko, merkataritza-sozietate, partzuergo edo fundazioetan. • Zuzendaritza-postutzat jo ahal izango dira (baina ez dira egiturazkoak izango) **egitura edo programa batzuen erantzukizun handieneko postuak**, egitura eta programa horiek **salbuespenezko edo koiunturazko arrazoiengatik**, aldi baterako kudeaketa-proiektu edo enkargu bereziak garatzeko eta politika sektorial jakin bat aurrera eramateko sortzen direnak badira eta organo eskudunak hala erabakitzen badu. Proiektua edo enkargu berezia amaitzen denean kenduko da lanpostua. • **Biztanle-kopuru handiko** udalerriak: aurreikuspen bereziak oinarrizko legedian eta 2/2016 Legean.
TOKIKO ZUZENDARITZA-KIDEEN EGINKIZUNAK	• **ERAKUNDEAK EMATEN DIZKIENAK**, eta, **EDOZEIN KASUTAN, hauek sartuko dira, esleitzen zaien unitateari eta agindutako eginkizunei dagokienez**: zuzendaritza eta koordinazio teknikoa; zerbitzuen eta langileen kudeaketa teknikoa; aurrekontu-politika proposatzea; administrazio elektronikoa, gardentasuna eta gobernu irekia bultzatzea, eta orobat entzute aktiboa eta herritarren parte-hartzea sustatzea; kontu-ematea bermatzea; etengabeko berrikuntza sustatzea; politiken eta langileen jarraipena eta ebaluazioa; txostenak eta ebazpen-proposamenak egitea; eta hurbiltasun materialagatik edo kualifikazio berezia izateagatik modu osagarrian esleitzen zaien beste edozein eginkizun.
HAUTATZEA ETA POSTUAK BETETZEA	• **Deialdi publiko** bidez beteko dira (deialdia aldizkari ofizialean, egoitza elektronikoan eta webgunean edo gardentasun-atarian argitaratuta), eta **enplegu publikoa arautzen duen legedian ezarritako sistemen bidez**. Deialdian zehaztu beharko da nolako ezaugarriak eta konpetentziak eskatzen diren, eta bestelako eskakizunak (gutxieneko esperientzia izatea eremu jakin batzuetan), eta praktikaldia ere ezarri ahal izango da. • **Hautatzeko edo lanpostua betetzeko prozeduraren** printzipioak: deialdiko postuak betetzeko meritua, gaitasuna, objektibotasuna, publizitatea, lehia eta pertsonen egokitasuna. • **Konpetentziak** egiaztatzea: erakundeak berak zuzenean edo Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen bidez. • Hautapena **diskrezionala** da: ezarritako eskakizunak bete behar dira eta eskatutako gutxieneko gaitasuna egiaztatu. • Izendatzea edo **goi-zuzendaritzako lan-kontratua formalizatzea alkateari edo presidenteari** dagokio, eta osoko bilkurari jakinaraziko zaio, organo horren hurrengo osoko bilkuran. • **Lanpostuan** jarraitzea: emaitzen ebaluazioaren arabera eta denboraz mugatuta, legeak ezarritako moduan.
ARAUBIDE JURIDIKOA	• Zuzendaritza-kide publiko profesionalak kalifikazio hori duten postuen titularrak dira. • Lanpostu bakoitzak bere monografia izan behar du, lanpostua betetzeko esleitutako funtzioak eta eskatzen diren gaitasunak zehaztuta. • Karrerako funtzionarioak edo Administrazioko langile lan-kontratudun finkoak izan daitezke, baita enplegatu publikoak ez direnak ere. • Guztiek graduko unibertsitate-titulua edo balio berekoa izan behar dute. • Zuzendaritza-kidea karrerako funtzionarioa bada, udal, organismo autonomo edo zuzenbide pribatuko entitate publiko bateko zuzendaritza-postu baterako izendapena administrazio-izendapen baten bidez egingo da, eta karrerako funtzionarioa honela geratuko da: → Zerbitzu aktiboan, lanpostua gordeta, bere administrazioko zuzendaritza-posturako izendatzen dutenean. → Zerbitzuan, zuzendaritzako langile publiko profesional gisa, lanpostua gordeta, berarena ez den beste administrazio bati edo tokiko sektore publikoari dagokion lanpostu baterako izendatzen badute. • **Karrerako funtzionario ez direnak zuzendaritza-kide izendatzeko**, administrazio-izendapena erabiliko da (euskal administrazio baterako izendatzen badute), eta goi-zuzendaritzako lan-kontratua (gainerako sektore publikoan izendatzen badute). Langile lan-kontratudun finkoak nahitaezko eszedentzian geratuko dira, eta titular diren lanpostua gordeko zaie. • **Haien lan-baldintzak ez dira negoziazio kolektiboetako eztabaidagai. Tokiko gobernu-organoek finkatzen dituzte, beren kasa.** • **Goi-karguei edo kargu publikoei aplikatzen zaien araubide bera dute alor hauetan**: bateraezintasunak eta interes-gatazkak; jokabide-kodea, gardentasuna eta gobernu ona; Langileen Estatutua (lan-kontratua eteteari dagokionez). • **Ebaluatu egingo dira** haien eraginkortasuna eta efizientzia, kudeaketaren erantzukizuna eta emaitzen kontrola.

PRINCIPIO GENERAL:

- El **personal al servicio de la Administración Pública** será **funcionario.**
- No obstante, **algunos puestos pueden —no deben— desempeñarse por personal laboral.** La determinación de estos puestos concretos se llevará a cabo por las **Leyes autonómicas** que desarrollan el Estatuto Básico del Empleado Público.

EN TODO CASO,
HAN DE SER RESERVADOS A FUNCIONARIOS PÚBLICOS AQUELLOS PUESTOS DE TRABAJO QUE:

Conlleven el ejercicio de autoridad y de funciones que impliquen la participación directa o indirecta en el ejercicio de las **potestades públicas** o en la **salvaguardia de los intereses generales de cada administración pública, entre las que encuentran:**

- La instrucción o la elaboración de propuestas de resolución de expedientes administrativos.
- La inspección, vigilancia, control del cumplimiento de normas o resoluciones administrativas.
- Las órdenes de policía.
- El control y fiscalización de la gestión económico-financiera y presupuestaria.
- La contabilidad.
- La tesorería.
- La fe pública y asesoramiento legal preceptivo.
- La recaudación ejecutiva.
- La inscripción, anotación, cancelación y demás actos de administración de registros cuya titularidad corresponda a las administraciones públicas vascas.
- La elaboración de normas jurídicas.
- La imposición de sanciones.
- El ejercicio de la potestad arbitral y de mediación.
- La formación de los precios de contratación.
- Las funciones de autorización.
- La concesión de ayudas y subvenciones.
- Las actuaciones relacionadas con el área de transparencia y buen gobierno.
- La gestión de emergencias y protección civil.

LA LEY DE EMPLEO PÚBLICO VASCO

DISPONE QUE DETERMINADOS PUESTOS DE TRABAJO PODRÁN SER DESEMPEÑADOS POR PERSONAL LABORAL, EN LOS SIGUIENTES PUESTOS O ÁMBITOS QUE:

- Satisfagan necesidades de carácter periódico y discontinuo.
- **Sean de carácter instrumental** (mantenimiento, artes gráficas, encuestas).
- Sean **Singularizados y que no requieran formación académica concreta** correspondiente a un Cuerpo o Escala.
- Conlleven **únicamente** tareas de **vigilancia, recepción, información, custodia, transporte y reproducción de documentos**.
- Sean **docentes**, personal **auxiliar y especialista de centros educativos** que no pertenezcan al sistema de educación reglada o universitaria y de centros de reeducación de menores.
- Estén **reservados a las personas con discapacidad** que, en razón de su tipo o grado, les impidan demostrar sus competencias o habilidades mediante el sistema general de acceso para personas con discapacidad.
- Estén vinculados **únicamente** con funciones de **protocolo y organización de eventos o congresos.**
- Sean personal **docente de Religión** de la enseñanza reglada primaria y secundaria.
- Estén **en el extranjero con funciones auxiliares**.
- **Se determinen por Ley** del Parlamento.
- Pertenezcan a **Organismos autónomos y entes instrumentales** que desarrollen funciones sobre las políticas de **servicios sociales, de empleo, culturales y deportivas.**
- Pertenezcan a **Entes públicos sometidos a derecho privado** (sociedades públicas, consorcios, mancomunidades…), **que tendrán la condición de personal laboral, salvo que la ley de creación disponga lo contrario.**

Legislación: Ley Reguladora de las Bases del Régimen Local, arts. 92 y 92 bis
Estatuto Básico del Empleado Público, arts. 9.2 y 11.2
Ley de Empleo Público Vasco, art. 44

PRINTZIPIO OROKORRA:

- **Administrazio publikoaren zerbitzura diharduten langileak funtzionarioak** izango dira.
Es importante usar una **SEGMENTACIÓN ADECUADA PARA PODER ANALIZAR LOS RESULTADOS**, si bien ha de equilibrarse con la garantía de **anonimato**. En todo caso, ha de recogerse la segmentación por sexo y es recomendable contemplar la edad, la antigüedad y el perfil profesional. La segmentación ha de realizarse con criterios que permitan la comparación con otras organizaciones.

ENTREVISTAS	**Se realizan de manera individual.**
GRUPOS FOCALES	**Se realizan en grupo de 6 a 12 personas.**

a) Según el tamaño de la plantilla, ha de seleccionarse una muestra de personas a entrevistar. Se utiliza un **cuestionario semiestructurado** para guiar la entrevista o el grupo focal.

b) Las opiniones pueden verse afectadas por la **falta de anonimato**. Por otra parte, **permite profundizar con más precisión** en los motivos de satisfacción o insatisfacción.

c) Ambos métodos pueden usarse **de manera complementaria a la encuesta**.

d) Estos métodos se pueden **completar con la recogida de evidencias e indicadores** que midan aspectos de satisfacción e insatisfacción de las personas (por ejemplo: quejas, sugerencias, nivel de participación, resultados del trabajo, absentismo, bajas, rotación, movilidad, etc.).

PROCEDIMIENTO

1. **Planificación y diseño del proceso**, asumiendo la responsabilidad de establecer y llevar a cabo un plan de acción con los temas identificados y priorizados. Definir aspectos como: objetivo de la medición, publico objetivo, tipo de segmentación, método, momento en el que se va a realizar, preguntas abiertas o cerradas, tiempo o plazo para responder o participar, validación y contraste con las personas, momento apropiado para el lanzamiento, elaboración de informe, análisis y comunicación de los resultados, …
2. Es conveniente que el **diseño sea lo más participativo posible**, buscando también la implicación de la representación sindical. A partir de una propuesta previa se puede contrastar con un grupo representativo de personas (¿Qué falta? ¿Qué sobra? ¿Qué cambiarían?), con el fin de adaptarlo a las personas y a medida del tamaño y tipo del organismo. También se puede crear un equipo que lidere este proceso.
3. **Comunicar, al conjunto de la plantilla, los objetivos y el sentido de la evaluación.** Es clave la implicación de los responsables de equipos, servicios y departamentos. Elegir el momento adecuado para su lanzamiento. Comprometerse en este momento también con la fecha en la que se comunicarán los resultados y cuáles serán los pasos siguientes tras el análisis de los resultados.
4. Es conveniente **realizar un piloto** para testar la metodología a utilizar y validar las preguntas o cuestionario del método elegido, adaptando así el cuestionario al lenguaje utilizado por las personas, y asegurar que las preguntas se interpreten internamente de la forma adecuada.
5. **Realizar la encuesta, entrevistas y/o grupos focales**. Si se tienen datos de años anteriores, es aconsejable recordar el resultado anterior obtenido y qué acciones de mejora se han realizado, con el fin de transmitir confianza y dar fiabilidad al proceso.
6. **Analizar los resultados**. **Compararlos** con los obtenidos en anteriores evaluaciones, así como con los de otras organizaciones equivalentes, especialmente con las que más destaquen por sus buenos resultados en la gestión de personas.
7. **Elaborar un informe y plan de acción** para la mejora de los aspectos identificados como peor valorados.
8. **Difundir y comunicar los resultados y los compromisos de acción** asumidos por las personas con responsabilidades directivas.
9. **Seguimiento del plan de acción** e i**nformación a la organización sobre su desarrollo**.
10. Realizar la **evaluación y ajuste del propio método utilizado**, sacando lecciones aprendidas y mejoras para la planificación y diseño del siguiente proceso de medición de la satisfacción de las personas.

NOLA EBALUATU BEHAR DA? METODOAK

INKESTAK

- **GALDE SORTA ANONIMO BAT** da, eta langile guztiei bidali ahal zaie, bete dezaten. Elektronikoki edo paperean bete daiteke.
- **Ez** da komeni **GALDETEGIAK LUZEEGIAK IZATEA**. Galde sorta pertsonek erabiltzen duten **HIZKUNTZARA** egokitu behar da, eta galderak barruan behar bezala interpretatzen direla ziurtatu. Formulazio baldintzatzaileak saihestu behar dira. **GALDERA BAKOITZEAN, IDEIA BAKARRA SARTU BEHAR DA**, termino anbiguoak saihestu, ulertzen dela ziurtatu, eta galderetan erantzun-jarraibideak sartzea saihestu.

GALDERA MOTAK

a) Galdera **itxiak**:
- Dikotomikoak: bi erantzun-aukera: BAI / EZ
- Eskala: 1etik 5era, 1etik 10era

b) Galdera **irekiak**:
- Pertsonak, itxietan ez bezala, luze erantzun diezaiekeen horiexek dira.
- Galdera mailakatuak dituen galdetegia amaitzean, adibidez, ekarpenetarako tarte bat sartzea komeni da: Zer alderdi dira indarguneak? Zein dira hobetu beharreko arloak? Zer iradokitzen duzu?
- Era berean, puntuazio jakin batetik beherakoa duten erantzun guztiei ekarpen edo iradokizun bat eransteko eska daiteke.

c) Tarteen arabera sailkatutako **identifikazio**-galderak (segmentatzeko asmoz).

Garrantzitsua da **SEGMENTAZIO EGOKIA** erabiltzea, **EMAITZAK AZTERTU AHAL IZATEKO**, **anonimotasunaren** bermearekin orekatu behar den arren. Nolanahi ere, segmentazioa sexuaren arabera jaso behar da, eta adina, antzinatasuna eta profil profesionala kontuan izatea komeni da. Segmentazioa egitean erabiliko diren irizpideek aukera eman behar dute beste erakunde batzuekin alderaketak egiteko.

ELKARRIZKETAK	**Banaka-banaka egin behar dira.**
FOKU-TALDEAK	**6 eta 12 pertsona arteko talde batean egiten dira.**

a) Langile asko badaude, elkarrizketatuko direnen lagin bat hartuko da. Elkarrizketa edo foku-taldea gidatzeko, **nolabaiteko egitura duen galde sorta bat** erabiltzen da.

b) **Anonimotasunik ez** dagoenez, horrek iritziak baldintzatu ditzake. Bestalde, **aukera ematen du** gogobetetzen dituzten eta gogobetetzen ez dituzten alderdietan **zehatzago sakontzeko**.

c) Metodo biak inkestarekin batera erabil daitezke, **modu osagarrian**.

d) Metodo horiek **osatzeko**, pertsonen gogobetetasunaren eta asegabetasunaren alderdiak neurtzen dituzten **ebidentziak eta adierazleak bil daitezke** (adibidez: kexak, iradokizunak, parte-hartze maila, lanaren emaitzak, absentismoa, bajak, txandakatzea, mugikortasuna, eta abar).

PROZEDURA

1. **Prozesua planifikatzea eta diseinatzea**, identifikatutako eta lehenetsitako gaiekin ekintza-plan bat eratzeko eta betetzeko erantzukizuna hartuta. Alderdi hauek definitu behar dira, besteak beste: neurketaren helburua; xede-taldea; segmentazio mota; metodoa; noiz egingo den; galdera irekiak edo itxiak; erantzuteko edo parte hartzeko denbora edo epea; baliozkotzea eta pertsonekin kontrastatzea; egiteko une egokia; txostena egitea; emaitzak aztertzea eta jakinaraztea.
2. **Diseinuan zenbat eta jende gehiagok parte hartu,** orduan eta **hobeto**; ahal dela, ordezkari sindikalak ere inplikatu behar dira. Aurretiko proposamen batetik abiatuta, pertsona talde adierazgarri batekin kontrastatu daiteke (zer falta da?, zer dago sobran?, zer aldatuko lukete?), hura pertsonei eta organismoaren tamainara eta motara egokitzeko asmoz. Prozesua gidatuko duen talde bat ere sor daiteke.
3. **Langile guztiei ematea ebaluazioaren helburuen eta nondik norakoen berri.** Funtsezkoa da talde-, zerbitzu- eta arlo-arduradunak inplikatzea. Egiteko une egokia aukeratzea. Une honetan ere konpromisoa hartzea emaitzak egun jakin batean jakinarazteko eta emaitzak aztertu ondoren hurrengo urratsak zein izango diren adierazteko.
4. Komeni da **saio bat egitea** erabili beharreko metodologia probatzeko eta hautatutako metodoaren galderak edo galdetegia baliozkotzeko, galdetegia pertsonek erabilitako hizkuntzara egokitzeko, eta galderak barruan behar bezala interpretatzen direla ziurtatzeko.
5. **Inkesta, elkarrizketak edo foku-taldeak aurrera eramatea**. Aurreko urteetako datuak izanez gero, komeni da aurreko emaitza eta hartutako hobekuntza-neurriak gogoraraztea, konfiantza emateko eta prozesuari fidagarritasuna emateko.
6. **Emaitzak aztertzea**. Aurreko ebaluazioetako emaitzekin **alderatu** behar dira, bai eta antzeko erakundeen emaitzekin ere, eta, batez ere, pertsonen kudeaketaren arloan emaitza onak lortzeagatik nabarmentzen diren erakundeen emaitzekin.
7. Txartoen baloratutako alderdiak hobetzeko **txosten bat eta ekintza-plan bat prestatzea**.
8. **Lortutako emaitzak eta** zuzendaritzaren arloan ardura dutenek euren gain hartutako **lan-konpromisoak zabaltzea eta jakinaraztea**.
9. **Ekintza-planaren jarraipena egitea** eta **plan horren garapenaren berri ematea erakundeari**.
10. **Erabilitako metodoa bera ebaluatzea eta doitzea**, pertsonen gogobetetasuna neurtzeko hurrengo prozesua planifikatzeko eta diseinatzeko irakaspenak ateraz eta hobekuntzak eginez.

LA COMUNICACIÓN EN LAS ORGANIZACIONES

LOGRAR EL COMPROMISO DE LAS PERSONAS CON EL PROYECTO es un **RETO PARA CUALQUIER ORGANIZACIÓN** y también para un Ayuntamiento. Para ello **HAN DE CREARSE LAS CONDICIONES**, siendo **LA COMUNICACIÓN UN FACTOR INDISPENSABLE**.

Las personas directivas y las responsables pueden promover una **cultura de comunicación abierta, de diálogo y de motivación** para el trabajo en equipo, siendo **proactivos** en la creación de un **entorno que propicie la aportación de ideas, así como en la generación de espacios para la participación** de las personas, permitiendo así que se incorporen sus opiniones, necesidades y expectativas a la toma de decisiones.

A ESTE RESPECTO, SERÁ NECESARIO:

- **Identificar las carencias** de comunicación y **elaborar un plan de información-comunicación interna**.
- Establecer una **dinámica de comunicación** con las personas de la *organización* que garantice que éstas tienen **conocimiento de los objetivos definidos y de la evolución** para su logro, poniendo de manifiesto **su contribución** al proyecto común.
- Establecer las **expectativas y los objetivos para cada persona** mediante el **diálogo y el consenso**, dándole retroalimentación continuada sobre su desempeño.
- **Facilitar a las personas la información necesaria** (técnica, económica, jurídica, sobre proyectos, etc.) para dar sentido a su trabajo.
- Potenciar los **métodos de trabajo que aumentan la comunicación y la cooperación eficaz y ágil** (trabajo en equipo, en red, proyectos transversales o interdisciplinares, comunidades de aprendizaje, etc.).
- Establecer los **métodos necesarios** para **asegurarse de conocer la opinión de las personas empleadas** de la *organización* sobre el entorno de trabajo, el trabajo en equipo, el desempeño de sus responsables directos y otros aspectos vinculados a su satisfacción con el trabajo.

TIPOS DE COMUNICACIÓN		
Desde el punto de vista de QUIÉN ES EL RECEPTOR	**COMUNICACIÓN INTERNA**	Persigue **informar A LAS PERSONAS DE UNA ORGANIZACIÓN** acerca de sus **objetivos**, facilitarles la información necesaria para un **adecuado desempeño**, una rápida **adaptación** de las nuevas personas y realizar el reconocimiento oportuno por los logros conseguidos. Lo ideal es que tomen parte en **ella todas las personas** de una organización.
	COMUNICACIÓN EXTERNA	Es la que mantiene la organización **CON LOS GRUPOS DE INTERÉS EXTERNOS** (otras administraciones, personas usuarias, ciudadanía, sociedad en general, proveedores y contratistas, entidades sociales, etc.).
Teniendo en cuenta EL NIVEL DE LOS INTERVINIENTES	**COMUNICACIÓN HORIZONTAL**	La que se da **al mismo nivel organizativo**.
	COMUNICACIÓN ASCENDENTE	**De los niveles bajos a los altos**.
	COMUNICACIÓN DESCENDENTE	**De los niveles altos a los bajos.**

CANALES DE COMUNICACIÓN	
Si una organización **no tiene sistematizado un plan de información y comunicación** las posibilidades de **murmuraciones** aumentan considerablemente. Una organización **debe establecer los canales oportunos** para facilitar la comunicación.	
CANALES DE COMUNICACIÓN FORMALES	Los **establecidos por la organización**, con el objetivo de **hacer llegar o recibir** la **información necesaria** en el **momento preciso** y a la **persona adecuada**.
REDES DE COMUNICACIÓN INFORMAL	**Surgidas de las relaciones interpersonales**, que crean lazos de colaboración y que están sujetas a la **interpretación subjetiva** del emisor y puede producir rumorología.

EJEMPLOS DE CANALES DE COMUNICACIÓN	
• Reuniones informativas. • Reuniones de trabajo. • Equipos de trabajo específicos, comités. • Correo electrónico. • Documentación oficial. • Directorios o repositorios en Intranet. • Entrevistas personales. • Encuestas. • Revista interna.	• Buzones de sugerencias o similar. • Grupos focales. • Teléfono. • Comunicación Informal. • Jornadas, encuentros, buenas prácticas. • Tablón de anuncios o similar. • Guía/programa de acogida. • Blog. • Aplicaciones y Herramientas informáticas (Ej. Teams…).

EJEMPLOS DE CONTENIDOS DE LA COMUNICACIÓN	
• Objetivos y planes generales del Ayuntamiento. • Información general de la organización. • Condiciones de trabajo. • Decisiones adoptadas por los órganos de la corporación y por otras administraciones. • Actividades de otros Departamentos. • Decretos y Acuerdos. • Informes y resultados de encuestas.	• Planes de mejora. • Normativa. • Actas de Pleno y Junta de Gobierno. • Información relacionada con el trabajo diario. Elementos específicos del trabajo de cada equipo. • Debate y resolución de temas de su competencia. • Experiencias y buenas prácticas.

KOMUNIKAZIOA ERAKUNDEETAN

PERTSONEK PROIEKTUAREKIKO KONPROMISOA IZATEA ERRONKA BAT da **EDOZEIN ERAKUNDERENTZAT**, baita udalentzat ere. Helburu horrekin, **BEHARREZKOAK DIREN BALDINTZAK SORTU BEHAR DIRA**, eta **KOMUNIKAZIOA EZINBESTEKO FAKTOREA** da.

Komunikazio irekiaren, elkarrizketaren eta motibazioaren kultura sustatu behar dute zuzendariek eta arduradunek, elkarlanean aritzeko; proaktiboa izan behar da, **ideiak mahai gainean jartzea eragingo duen giroa** sortzeko, eta, horrekin batera, jendeak **parte hartzeko guneak** egon behar dira. Baldintza horietan, pertsonen iritziak, beharrizanak eta igurikimenak ezagutzeko modua egongo da.

HORRI DAGOKIONEZ, BEHARREZKOA IZANGO DA:

- Komunikazioan dauden **hutsuneak identifikatzea** eta **barneko informazio nahiz komunikazioko plan bat lantzea**.
- Ataleko pertsonekiko **komunikazio-dinamika** bat finkatzea, pertsonok **zehaztu diren helburuak zein diren eta bilakaera zein den jakin** dezaten; gainera, agerian utzi beharko litzateke denona den proiektuan **bakoitzak egindako ekarpena**.
- **Pertsona bakoitzari dagozkion aurreikuspenak eta helburuak** ezartzea, **elkarrizketaren eta adostasunaren bitartez**, bakoitzaren eginkizun-betetzeari buruzko etengabeko atzeraelikadura emanez.
- **Pertsonei behar duten informazioa ematea** (teknikoa, ekonomikoa, juridikoa, proiektuei buruzkoa, eta abar), egiten duten lanak zentzua izan dezan.
- **Komunikazio eta elkarlan eraginkorra eta azkarra areagotzen duten lan-metodoak** sustatzea (taldean lan egitea, sarean lan egitea, zeharkako proiektuak edo diziplinartekoak, ikaskuntza-komunitateak, eta abar).
- **Behar diren metodoak** erabiltzea **ziur jakiteko zer pentsatzen duten erakundeko langileek** laneko inguruneaz, talde-lanaz, zuzeneko arduradunen egitekoez eta lanean gogobeteta aritzearekin zerikusia duten beste kontu batzuez.

KOMUNIKAZIO MOTAK		
HARTZAILEAREN ikuspegitik	**BARNE-KOMUNIKAZIOA**	**ERAKUNDE BATEKO PERTSONEI erakundearen helburuen berri ematea** du helburu, **eginkizunak modu egokian betetzeko** beharrezkoa den informazioa ematea, pertsona berriak erraz **egokitzeko** eta erdietsitako lorpenak modu aproposean aitortzeko. Egokiena erakundeko **pertsona guztien parte-hartzea** izatea litzateke.
	KANPO-KOMUNIKAZIOA	**KANPOKO INTERES-TALDEEKIN** (beste administrazioak, erabiltzaileak, biztanleria, gizartea, orokorrean, hornitzaileak eta kontratistak, gizarte-erakundeak, eta abar) erakundeak duen komunikazioa da.
ESKU HARTZEN DUTENEN MAILAREN arabera	**KOMUNIKAZIO HORIZONTALA**	**Antolamendu-maila berean** gertatzen dena.
	GORANZKO KOMUNIKAZIOA	**Beheko mailetatik goikoetara**.
	BEHERANZKO KOMUNIKAZIOA	**Goiko mailetatik behekoetara.**

KOMUNIKAZIO-KANALAK	
Erakunde batek **informazio- eta komunikazio-plan sistematizaturik ez** badu, **zurrumurruak** sortzeko arriskua nabarmen areagotzen da. Erakundeek komunikazioa errazteko **kanal egokiak ezarri behar dituzte**.	
KOMUNIKAZIO-KANAL FORMALAK	**Erakundeak ezartzen dituenak** dira, **beharrezkoa den informazioa une zehatzean eta pertsona egokiari** helarazteko helburuarekin.
KOMUNIKAZIO INFORMALERAKO SAREAK	**Pertsonen arteko harremanetatik sortzen dira**, lankidetza-loturak sortzen dituzte eta igorlearen **interpretazio subjektiboaren mende** daude eta zurrumurruak eragin ditzakete.

KOMUNIKAZIO-KANALEN ADIBIDEAK		KOMUNIKAZIO-EDUKIEN ADIBIDEAK	
• Informazio-bilerak. • Lan-bilerak. • Berariazko lantaldeak, batzordeak. • Posta elektronikoa. • Dokumentazio ofiziala. • Intraneteko direktorioak edo biltegiak. • Elkarrizketa pertsonalak. • Inkestak. • Barne-aldizkaria.	• Iradokizun-postontziak edo antzekoak. • Foku-taldeak. • Telefonoa. • Komunikazio informala. • Jardunaldiak, topaketak, jardun onak. • Iragarki-taula edo antzekoa. • Harrera-gida/-programa. • Bloga. • Aplikazio eta tresna informatikoak (adibidez, Teams).	• Udalaren helburuak eta plan orokorrak. • Erakundearen informazio orokorra. • Lan-baldintzak. • Korporazioko organoek eta beste administrazioek hartutako erabakiak. • Beste departamentu batzuetako jarduerak. • Dekretuak eta akordioak. • Inkesten emaitzak eta txostenak.	• Hobekuntza-planak. • Araudia. • Osoko Bilkurako eta Gobernu Batzarreko aktak. • Eguneroko lanarekin lotutako informazioa. Talde bakoitzaren lanari dagozkion elementu espezifikoak. • Haren eskumeneko gaien inguruko eztabaidak eta ebazpenak. • Esperientziak eta jardun onak.

LA REUNIÓN

La reunión es uno de los canales de comunicación más utilizados en algunas organizaciones. Podemos **DEFINIR UNA REUNIÓN** como el **encuentro de varias personas en un mismo lugar físico o electrónico** durante un tiempo, **predispuestas a colaborar** en el **logro de unos objetivos**, en un **clima de intercambio** integral de contenidos.

DEFINIENDO LOS ELEMENTOS DE LA DEFINICIÓN DE UNA REUNIÓN	
PERSONAS PREDISPUESTAS A COLABORAR	Son las personas convocadas. Pero, además, conviene convocar también a aquellas personas que puedan contribuir al tema o temas que van a ser tratados y aquellas otras que **se puedan ver afectadas** por la decisión que se pueda tomar. Es decir las **personas necesarias, implicadas e interesadas** en el objetivo de la reunión.
LOGRO DE OBJETIVOS	Los **objetivos** que se persiguen en la reunión tienen que ser **claros, concretos y precisos**. Además, conviene que **se consensuen** al inicio de la reunión. Es importante **no confundir el objetivo de la reunión con el tema** de la misma. Una pregunta poderosa podría ser: ¿Para qué nos reunimos? ¿Qué queremos lograr como resultado de esta reunión?
INTERCAMBIO INTEGRAL	Se refiere a la necesidad de que **todas las personas participen** y a la **aportación de recursos necesarios** para el logro de los objetivos, eliminando las tensiones y creando un equipo cohesionado.

FASES DE UNA REUNIÓN

Aunque en muchas reuniones lo único que se hace es perder el tiempo, también **una reunión cumple una serie de funciones** que nunca serían sustituidas por **ningún otro instrumento tecnológico**. Hay que partir de la base de que los seres humanos somos seres sociales. Si no se celebrasen reuniones en los lugares de trabajo, el **sentido de pertenencia** de las personas a las organizaciones para las que trabajan podría ser pequeño. Por eso buscaremos la celebración de una **REUNIÓN EFECTIVA**, que es aquella en la que se logran los objetivos (**eficacia**) con ahorro de recursos (**eficiencia**) y con un alto nivel de **satisfacción** entre las personas participantes.

ANTES DE LA REUNIÓN	Es imprescindible **plantearse la necesidad de la reunión**. Si llegamos a la conclusión de que es necesaria, entonces debemos proponer un **orden del día** claro, con temas priorizados y asignar un **tiempo concreto** a cada uno de ellos. Y, por supuesto, habrá que implementar el **aspecto logístico** de dicha reunión (lugar, materiales, recursos tecnológicos, etc.).
LA REUNIÓN	Debe comenzar y finalizar con **puntualidad**. Es aconsejable designar una persona que haga labores de **secretaría** y tome el **acta**. El **ambiente** debe ser distendido y tendente a la **participación** de todo el mundo, respetando todas las opiniones de todas las personas, pero teniendo claro que hay que ceñirse al orden del día, respetando los tiempos asignados a cada tema y tratando de que se manejen **datos objetivos** y no meras conjeturas u opiniones subjetivas. Por último, conviene hacer un **pequeño resumen** de la reunión y establecer un **calendario de tareas y de próximas reuniones**. Y, por supuesto, evitando interrupciones y terminando a la hora prevista.
DESPUÉS DE LA REUNIÓN	Hay que asumir y **responsabilizarse de las tareas**, así como hacer **seguimiento** de las mismas. El **éxito de una reunión** lo veremos en esta fase, cuando observemos que se ha cumplido lo acordado durante la reunión y el propósito de la misma.

EJEMPLO DE DECÁLOGO DE REUNIÓN

Antes de la reunión	Durante la reunión	Después de la reunión
1. Plantearse la necesidad de la reunión. Planificar otras opciones y alternativas. 2. Convocar con suficiente antelación, buscando el momento, día, hora y lugar más adecuado para el tipo de reunión e identificando a quién convocar. 3. La convocatoria incluye: • Objetivos claros. Definir qué tipo de reunión (informativa, participativa). • Orden del día (con tiempos por temas). • Tiempo de inicio y finalización. • Documentación e indicaciones de qué es necesario realizar antes de acudir a la reunión. 4. Recibir las aportaciones de puntos a incluir en el orden del día por parte de las personas asistentes a la reunión.	1. Comenzar a la hora programada, realizando un breve *check-in*: ¿Cómo vengo? ¿Qué traigo? 2. Exponer al principio los objetivos y metodología a seguir (Organizar y priorizar tiempos). 3. Asignar a una persona como secretaria y a otra como facilitadora (rotando roles). 4. Mantener centrada la reunión al orden del día, respetar turnos de palabra. 5. Lograr buena actitud, disposición, clima de trabajo, empatía y asegurarse de que todas las personas participan. 6. Evitar interrupciones y apagar móviles. 7. Aportar evidencias objetivas. 8. Escuchar atentamente, sin interrumpir, y evitar conversaciones paralelas. 9. Realizar el acta recogiendo compromisos y establecer el plan de tareas concreto para próximas reuniones. 10. Realizar una breve ronda de *check-out*: ¿Qué me llevo? ¿Cómo me voy? Finalizar a la hora prevista.	1. Asumir, responsabilizarse y comunicar las decisiones acordadas a las personas. 2. Tener un encuentro informal (si procede al terminar la reunión). 3. Leer y revisar el acta recibida. 4. Asumir y realizar los compromisos.

BILERA

Bilera antolakunde batzuetan gehien erabiltzen diren kanaletako bat da. **Helburu batzuk lortzeko lankidetzan aritzeko eta edukiak modu integralean partekatzeko prest dauden zenbait pertsonak** denbora-tarte jakin batean **leku fisiko edo elektroniko berean elkartzea**, hala definitu ditzakegu **BILERAK**.

BILERA DEFINITZEKO ELEMENTUAK DEFINITZEN	
AURRETIAZ LANKIDETZARAKO PREST DAUDEN PERTSONAK	Deialdia jaso duten pertsonak dira. Baina, gainera, komeni da jorratzen den gaiari edo gaiei ekarpenak egiteko ahalmena duten pertsonei ere deitzea, bai eta hartuko den erabakiak **eragiten dien guztiei** ere. Hau da, bileraren helburuan **beharrezkoak diren, esku hartzen duten eta interesa duten pertsonei**.
HELBURUAK LORTZEA	Bileran erdietsi nahi diren **helburuak argiak, zehatzak eta doiak** izan behar dira. Gainera, komeni da horiek bilera hasieran **adostea**. Garrantzitsua da **bileraren helburua eta bileraren gaia ez nahastea**. Galdera ona izan daiteke hau: Zertarako biltzen gara? Zer lortu nahi dugu bilera honekin?
PARTEKATZE INTEGRALA	Tentsioak ezabatuz eta talde kohesionatua sortuz **pertsona guztiek parte hartzea** eta helburuak lortzeko **behar diren baliabideak ekartzea** da.

BILEREN FASEAK

Bilera asko denbora-galtze hutsa izan arren, **bilerek funtzio jakin batzuk betetzen dituzte**, eta horiek ezin dira inoiz **bestelako tresna teknologikoekin** ordezkatu. Gizakiak izaki sozialak garela hartu behar da abiapuntutzat. Lantokietan bilerarik egingo ez balitz, pertsonek lan egiten duten erakundeko **kide izatearen sena** txikia izango litzateke beharbada. Hori dela eta, **BILERA ERAGINKOR** bat egiten saiatuko gara, hau da, helburuak betetzen dituen bilera bat (**eraginkortasuna**), baliabideak aurrezten dituena (**efizientzia**) eta parte-hartzaileen **gogobetetasuna** handia duena.

BILERA AURRETIK	Ezinbestekoa da **bilera beharrezkoa ote den galdetzea**. Bilera beharrezkoa dela ondorioztatzen badugu, orduan, **gai-zerrenda** argi bat proposatu behar da, lehentasuna zer gaik duten zehaztuta eta gai bakoitzari **denbora-tarte zehatz bat** esleituta. Eta, noski, bilera horren **alderdi logistikoa** ezarri behar da (lekua, materialak, baliabide teknologikoak, eta abar).
BILERA	**Puntualtasunez** hasi eta amaitu behar da. Komenigarria da pertsona batek **idazkari**-lanak egitea eta **akta** idaztea. **Giroa** lasaia izan behar da eta denek **parte hartzeko** modukoa, pertsona guztien iritziak errespetatuz, baina gai-zerrendari eutsi behar zaiola argi izanda, gai bakoitzari esleitutako denbora-tarteak errespetatuz eta **datu objektiboak** erabiltzen saiatuz eta usteak eta iritzi subjektiboak ekidinez. Azkenik, bileraren **laburpen txiki bat** egitea komeni da, eta **zereginen eta hurrengo bileren egutegi bat** ezartzea. Eta, noski, etenak saihestu behar dira eta aurreikusitako orduan amaitu.
BILERA OSTEAN	**Zereginak onartu** behar dira, **eta horien ardura hartu**, zereginen **jarraipena** egitearekin batera. **Bileraren arrakasta** fase honetan ikusiko dugu, bileran adostutakoa eta haren helburua bete ote diren jakiten dugunean.

BILEREN DEKALOGOAREN ADIBIDEA

Bilera aurretik	Bilerak dirauen bitartean	Bilera ostean
1. Bilera beharrezkoa den galdetzea. Beste aukera eta alternatiba batzuk planifikatzea. 2. Behar besteko aurrerapenaz egitea deialdia, bilera motarako unerik, egunik, ordurik eta lekurik egokiena bilatuz eta deialdia nori egin behar zaion identifikatuz. 3. Deialdian, hauek azaldu behar dira: • Helburu argiak. Zer bilera mota den zehaztu behar da (informatiboa, parte-hartzailea). • Gai-zerrenda (gai bakoitzarentzako denbora zehaztuta). • Hasteko eta amaitzeko ordua. • Dokumentazioa eta bilerara joan aurretik zer egin behar den azaltzen duten jarraibideak. 4. Bilerara joango diren pertsonek gai-zerrendan sartu beharreko puntuen ekarpenak jaso behar dira.	1. Programatutako orduan hastea, *check-in* labur bat eginez: Nola etorri naiz? Zer ekarri dut? 2. Hasieran, helburuak eta jarraitu beharreko metodologia azaltzea (denborak antolatu eta lehenetsi). 3. Pertsona bat idazkari eta beste bat bideratzaile izendatzea (rolak txandakatu). 4. Bilera gai-zerrendaren arabera egitea eta hitz egiteko txandak errespetatzea. 5. Jarrera ona, prestasuna, lan-giroa eta enpatia lortzea eta pertsona guztiek parte hartzen dutela ziurtatzea. 6. Etenak saihestea eta mugikorrak itzaltzea. 7. Ebidentzia objektiboak ematea. 8. Arretaz entzutea, hizlariaren jarduna eten gabe, eta elkarrizketa paralelorik ez izatea. 9. Akta egitea eta bertan konpromisoak jasotzea, eta hurrengo bileretarako zereginen plan zehatza ezartzea. 10. *Check-out* txanda labur bat egitea: zer ikasi dut?, zer ondorio atera ditut? Esandako orduan amaitu.	1. Hartutako erabakiak bere gain hartzea, erantzukizuna hartzea eta erabakiak pertsonei jakinaraztea. 2. Topaketa informala izatea (hala badagokio, bilera amaitzean). 3. Jasotako akta irakurtzea eta berrikustea. 4. Konpromisoak hartzea eta betetzea.

POSIBLES DIFICULTADES EN UNA REUNIÓN

FASE DE PREPARACIÓN	• Demasiadas reuniones («reunionitis») o ausencia total de las mismas. • Exceso o defecto en el número de las personas participantes. • Inadecuación de las personas participantes. • Falta de información previa a la reunión. • Inadecuación de la convocatoria. • Inadecuación del lugar de la reunión y recursos necesarios.	**Cuando un equipo planifica un calendario de reuniones,** una **buena práctica** es definir, de forma consensuada, el **DECÁLOGO QUE SE COMPROMETEN A SEGUIR** Y puede servir de **guía recordatoria,** al principio de la reunión, y, como **evaluación del proceso,** al finalizar.
FASE DE INICIO	• Hora de comienzo. • Desconocimiento de las personas participantes. • Desconocimiento de los roles organizativos y funciones que desempeñan. • Falta del orden del día o de los temas a tratar. • No identificación del tipo de reunión que es (informativa, creativa, decisoria, consultiva, etc.…). • No aclaración de la metodología a utilizar.	
FASE DE DESARROLLO	• Pobre participación. • El grupo desvía el tema. • El grupo se muestra agresivo. • Una persona participante domina la reunión. • Circunstancias ambientales dificultan el normal avance de la reunión.	
FASE DE CIERRE	• La duración de la reunión no se ajusta a lo previsto. • No está claro si se ha llegado a alguna conclusión. • No hay responsables ni fechas de realización para las acciones acordadas. • Los participantes se van con sensación de fracaso. • No se expresa el cómo se van, ni qué se llevan tras la reunión. • No hay evaluación de la reunión.	
FASE DE CONTROL Y SEGUIMIENTO	• El acta de la reunión no se realiza o no se sabe quién es el responsable. • Cambios en las acciones previstas.	

CÓMO MANTENER CONVERSACIONES DIFÍCILES O CONVERSACIONES PENDIENTES

1. Preparación individual y del contexto	*Pararnos a pensar el porqué y el para qué de la conversación y si compensa o es necesaria tenerla. Pensar y diseñar el tipo de conversación que necesitamos tener. Si es un feed back positivo, puede ser en público; si fuera negativo, en privado.*
2. Cuando «yo» veo, escucho, percibo…	*Hechos y observaciones. Hablando siempre sobre el «hacer» y nunca sobre el «ser».*
3. … Me siento	*Emociones, en primera persona, hablando de mí.*
4. … porque pienso, creo, interpreto, etc. que	*Opiniones y posibles consecuencias para el equipo y organización.*
5. ¿Qué piensas tú?	*Escuchando de forma activa, actitud abierta y sincera.*
6. Silencio, resumen y verificación	*Dejando espacio para la respuesta.*
7. Lo que yo quisiera es que	*Deseo.*
8. Lo que te pido (sugiero, ruego, invito, etc.) es que	*Petición, hablando de lo que va a pasar a partir de ahora y pidiendo en concreto qué quiero que haga.*
9. ¿Qué te parece?	
10. Silencio, resumen y verificación	
11. Negociación y compromisos para la acción futura	*Seguimiento del compromiso y declaraciones, si procede, pensando siempre en el para qué de la conversación.*
12. Aprendizaje	*Diseño de procedimientos futuros, si procede.*

Guía Local - ISBN 978-84-7777-690-1

BILERETAN SOR DAITEZKEEN ZAILTASUNAK

PRESTAKETA-FASEA	• Bilera gehiegi egitea («bileritisa») edo bilerarik ez egitea. • Parte-hartzaile gehiegi edo gutxiegi egotea. • Parte-hartzaileak egokiak ez izatea. • Bilera aurretik informaziorik ez edukitzea. • Deialdia egokia ez izatea. • Bilera-lekua edo beharrezkoak ziren baliabideak egokiak ez izatea.	**<u>Talde batek bilera-egutegi bat planifikatzen duenean</u>, ohitura ona** da **JARRAITZEKO PREST DAUDEN DEKALOGOA** definitzea denon artean, eta **gogoratzeko gida** gisa balio dezake bileraren hasieran, eta **prozesua ebaluatzeko** amaitzean.
HASIERA-FASEA	• Hasteko ordua. • Parte-hartzaileak nor diren ez jakitea. • Antolamenduaren rolak eta horiek betetzen dituzten funtzioak zein diren ez jakitea. • Gai-zerrendarik ez izatea edo jorratuko diren gaien berri ez izatea. • Zer bilera mota den ez jakitea (informazioa ematekoa, sortzekoa, erabakitzekoa, kontsultak egitekoa, eta abar). • Zer metodologia erabiliko den ez argitzea.	
GARAPEN-FASEA	• Parte-hartze txikia. • Taldeak gaia desbideratzen du. • Taldeak jarrera oldarkorra du. • Parte-hartzaile batek agintzen du bileran. • Bilerak behar bezala aurrera egitea eragozten duten ingurune-baldintzak.	
AMAIERA-FASEA	• Bileraren iraupena ez da aurreikusitakoa izan. • Ez dago argi ondoriorik atera ote den. • Ez dago adostutako ekintzetarako arduradunik eta egunik. • Parte-hartzaileak porrot-sentsazioarekin joaten dira. • Ez dute adierazten nola joaten diren, ezta bileratik zer atera duten ere. • Ez da bileraren ebaluaziorik egiten.	
KONTROL- ETA JARRAIPEN-FASEA	• Ez da bileraren akta egiten edo inork ez daki nork egin behar duen. • Aldaketak aurreikusitako ekintzetan.	

NOLA EDUKI ELKARRIZKETA ZAILAK EDO EGIN GABE DAUDENAK

1. Banako prestaketa eta testuinguruaren prestaketa	*Elkarrizketaren zergatian eta helburuan pentsatuko dugu, eta elkarrizketa edukitzea merezi duen edo beharrezkoa den. Eduki behar dugun elkarrizketa motan pentsatu eta elkarrizketa diseinatu. Feed back-a positiboa bada, jendaurrean izan daiteke elkarrizketa hori; negatiboa bada, aldiz, pribatuan egin behar da.*
2. «Nik» ikusten, entzuten, antzematen... dudanean	*Gertaerak eta oharrak. Beti «egiteari» buruz hitz eginez eta inoiz ez «izateari» buruz.*
3. ...Sentitzen naiz	*Emozioak, lehenengo pertsonan, niri buruz hitz eginez.*
4. ...pentsatzen dudalako, uste dudalako, iruditzen zaidalako...	*Iritziak eta taldearentzat eta erakundearentzat izan ditzakeen ondorioak.*
5. Zer pentsatzen duzu zuk?	*Modu aktiboan entzutea, jarrera irekiarekin eta zintzo.*
6. Isiltasuna, laburpena eta egiaztapena	*Erantzuna emateko tartea utziz.*
7. Nik nahiko nukeena da...	*Guraria.*
8. Zera eskatzen dizut (iradokitzen dizut, erregutzen dizut, gonbidatzen zaitut...)	*Eskaera, une honetatik aurrera gertatuko denari buruzkoa, zeinaz zehazki zer nahi dudan eskatzen den.*
9. Zer deritzozu?	
10. Isiltasuna, laburpena eta egiaztapena	
11. Negoziazioa eta etorkizuneko ekintzarako konpromisoak	*Konpromisoaren eta adierazpenen jarraipena, hala dagokionean, beti elkarrizketaren helburuan pentsatuz.*
12. Ikaskuntza	*Etorkizuneko prozedurak diseinatzea, hala dagokionean.*

PLAN DE INFORMACIÓN Y COMUNICACIÓN

La planificación, implantación y seguimiento de un **PLAN DE I+C (INFORMACIÓN Y COMUNICACIÓN) EN LA ORGANIZACIÓN** es una **herramienta imprescindible**.	
Para ello, ES NECESARIO CONTESTAR A LAS SIGUIENTES CUESTIONES:	
¿QUIÉN Y A QUIÉN HAY QUE INFORMAR?	• Es necesario que **todas las personas de la organización** cuenten con la **información necesaria** para llevar a cabo su tarea, a través de un **sistema estructurado de información** y tanto a nivel ascendente como descendente y horizontal. • Sin embargo, no todas las personas tienen que estar informadas en todos los casos o no tienen por qué tener toda la información disponible. Por lo tanto, **es importante determinar qué persona o personas van a informar, a quién lo van a hacer y en qué grado o con qué criterio**.
¿CÓMO HAY QUE INFORMAR?	• **De forma sistemática y estructurada**, teniendo en cuenta que el **contacto directo** y el «cara a cara» siempre es mejor y más efectivo. Y, por supuesto, con **objetividad** y en el **momento adecuado**. • Hay que **establecer el modo de hacerlo**: una reunión específica para ello, aprovechando alguna habitual, personalmente una por una, vía e-mail…
¿CUÁNDO HAY QUE INFORMAR?	• Siempre que **haya algo que comunicar** o que **se solicite información**, mejor en tiempo real y según lo planificado. Piensa en un **momento adecuado**, en el que la receptividad de las personas sea la mayor posible.
¿DÓNDE HAY QUE INFORMAR?	• A través **del medio más eficaz**: cara a cara, en mano, teléfono, e-mail… • **El lugar importa**. Si le queremos dar valor, que no sea en un lugar de paso, con muchas interrupciones, sino en un espacio que facilite el proceso de comunicación. • Cuando es algo **positivo,** podría realizarse **en público** y cuando es algo negativo o a mejorar, siempre **en privado**.

ELEMENTOS QUE DEBEN TENERSE EN CUENTA PARA MANTENER
UNA CREDIBILIDAD ALTA ANTE LAS PERSONAS

- Cuidar la **calidad de la comunicación**.
- Comunicar el **máximo posible de información necesaria** que les **satisfaga** para que no tengan que buscar otras fuentes.
- **Conocer las necesidades más importantes** en materia de información y comunicación.
- **Dar respuestas** acordes con **sus expectativas** y a un alto porcentaje de **sus preguntas**.
- Actuar con **rectitud y honestidad**.
- Dar **importancia a la comunicación**.

Guía Local - ISBN 978-84-7777-690-1

INFORMAZIO- ETA KOMUNIKAZIO-PLANA

ERAKUNDEAN I+K (INFORMAZIO ETA KOMUNIKAZIO) PLANA prestatzea, ezartzea eta haren jarraipena egitea **ezinbestekoa** da.	
Hori egiteko, GALDERA HAUEI ERANTZUN BEHAR DIEGU:	
NORK INFORMATU BEHAR DU ETA NORI?	• Beharrezkoa da **erakundeko pertsona guztiek** beren zereginak aurrera eramateko **behar den informazioa** izatea, **informatzeko sistema egituratu baten bitartez**, eta behetik gora, goitik behera eta maila horizontalean. • Hala ere, pertsonak guztiek ez dute zertan kasu guztietan informazioa jaso, edo eskura dagoen informazio guztia eduki. Beraz, **garrantzitsua da erabakitzea nork emango duen edo duten informazioa, nori emango dioten eta zer neurritan eta irizpiderekin egingo duten hori**.
NOLA INFORMATU BEHAR DA?	• **Modu sistematiko eta egituratuan**, kontuan hartuz **zuzeneko harremanak** izatea eta gauzak «aurrez aurre» esatea beti dela onena eta eraginkorrena. Eta, noski, **objektibotasunez** eta **une egokian**. • **Informatzeko modua ezarri** behar da: bilera espezifiko bat (ohiko bileraren bat baliatuta), pertsonalki banan-banan, posta elektronikoaren bitartez...
NOIZ INFORMATU BEHAR DA?	• **Zerbait jakinarazi behar denean edo informazioa eskatzen denean**, eta hobe denbora errealean eta plangintzaren arabera bada. Pentsatu **une egokiren batean**, pertsonak irekien dauden une batean.
NON INFORMATU BEHAR DA?	• **Biderik eraginkorrena** erabiliz: aurrez aurre, eskuan emanda, telefonoz, posta elektronikoaren bitartez... • **Lekua garrantzitsua da**. Balioa eman nahi badiogu, ez du pasaerako eta eten ugariko leku bat izan behar, komunikazio-prozesua erraztuko duen espazio bat baizik. • Zerbait **positiboa** denean, **jendaurrean** informatu daiteke, eta zerbait negatiboa edo hobetu beharrekoa denean, hobe da beti **pribatuan** informatzea.

JENDARTEAN SINESGARRITASUN HANDIA IZATEKO KONTUAN HARTU BEHARREKO ELEMENTUAK
• **Komunikazioaren kalitatea** zaintzea. • **Gogobetetzen dituen eta beharrezkoa den ahalik eta informazio gehien** jakinaraztea, beste iturri batzuk bilatzeko beharrik izan ez dezaten. • Informazioarekin eta komunikazioarekin lotutako **beharrik garrantzitsuenak ezagutzea**. • **Itxaropenen araberako erantzunak ematea** eta haien galderen ehuneko handi bati erantzutea. • **Zuzentasunez eta zintzotasunez** jokatzea. • **Komunikazioari garrantzia** ematea.

En nuestra gestión, nos encontramos con retos complejos y con **LA NECESIDAD DE LOGRAR UNA FORMA DE TRABAJAR SOSTENIBLE** para todo el sistema E **INVOLUCRANDO A TODAS LAS PERSONAS Y TODAS SUS VOCES**. Dicen que las mejores decisiones son aquellas en las que un grupo de personas piensan juntas y deciden autónomamente, sin embargo, no sabemos o no dedicamos tiempo al **DISEÑO Y CREACIÓN DE LAS CONDICIONES** de contexto para **ASEGURAR EL MAYOR NIVEL DE PARTICIPACIÓN** Y LA **CONSECUCIÓN DEL OBJETIVO MARCADO**.

PASO 1: Necesidad de parar a **reflexionar y planificar** cómo se puede **lograr el mejor resultado participativo**. Recuerda: «Las personas participan sólo si quieren y si no quieren resisten» y «La velocidad mata».

PASO 2:

Cualquier proceso de participación persigue la **consecución de un cambio** en una situación que es susceptible de mejora. Es por ello que debemos dotarle de **un objetivo o tarea clara**, así como del **mayor nivel de participación posible** para que dicho cambio disfrute de un alto grado de legitimidad.

¿Qué cambio se quiere lograr? En toda situación de cambio nos encontramos con diferentes fuerzas o elementos:

a) **Permanencia**: lo que se mantiene a lo largo del tiempo y da sentido e identidad a la organización. *¿Qué no se quiere cambiar?* ¿En qué no estáis dispuestos a cambiar, aunque pudiera suponer una mejora? ¿Cuáles son los no negociables?

b) **Fuerza del Cambio adaptativo**: para dar respuesta al entorno. Es un proceso «no intencional» se dará en la organización de todas maneras. *¿Qué cambio se está dando y se dará de todas maneras?*

c) **Fuerza del Cambio intencional**: Resultados y Efectos que se quieren lograr. En este espacio se sitúa la gestión de la participación. ¿Cuál es la insatisfacción de la que se parte? ¿Qué cambio se quiere lograr? *¿Qué tarea nos marcamos*?

d) **Fuerza de la Continuidad:** siempre que hay un cambio hay una resistencia ¿Qué resistencias hay al cambio? ¿Tiene motivos esta persona para confiar en el proceso de participación? ¿Quién puede boicotear esto? ¿Hay alguien que perdería algo si esto saliera bien? ¿Cómo se pueden dar voz a las resistencias? ¿Se da permiso para que los que no están de acuerdo lo expresen? ¿Qué perderemos con el cambio?

PASO 3: ¿Qué cambios se quieren lograr? Redacción de la **tarea y objetivo.**

PASO 4:

Definición de los **requisitos** para que se pueda iniciar un proceso participativo.


- Tarea compleja y con diversidad.
- Sin solución conocida.
- Potencialmente conflictiva.

- Voluntad de transparencia.
- Voluntad de confianza.
- Voluntad de diversidad.

- Posibilidad de nuevas interacciones:
  - → Invitar a personas nuevas.
  - → Cambiar el espacio, «quitar la mesa».
- Garantías de seguridad.

PASO 5:

Definir y aclarar el nivel de participación al que se **invita** y nivel de participación con el que **acuden.** Si será un diseño de participación dirigido, facilitado, auto-organizado, etc.



PASO 6:

Identificar las personas y actores del proceso, quiénes son y sus funciones.

Persona facilitadora

- Ayudar a que las personas con poder puedan ceder parte de él y a que las personas participantes asuman ese espacio de poder, logrando así salvar los impedimentos a la participación.
- Ayudar a las personas que disponen de poder a que tengan menos miedo y puedan soltar poder y control.
- Ayudar a las personas participantes a asumir el espacio de poder que les dejan quienes lo tienen.
- Lograr eliminar los impedimentos a la participación.
- ¡*Cuidado de que se no conviertan en los promotores ni provocar con su entusiasmo una resistencia al cambio*¡

Participante

- Los participantes son las personas que toman parte en el proceso participativo. No hay que enseñar a nadie a participar. Todos sabemos.
- Trabajan ellas, aprenden ellas. Ellas son responsables de su aprendizaje. Les une la pasión por la Tarea.
- ¿Con qué nivel se les convocan y acuden?

Promotora

- Fija los límites.
- Asume compromisos.
- Convoca y decide el nivel de participación al que se invita.
- Hace la presentación, apertura y seguimiento.
- Explica la tarea, las condiciones de contexto.
- Tiene que tener claro el mensaje, la metodología y su papel.

- Pensar juntos, decidir separados.
- ¿Crea resistencia el mismo por su forma de comportarse?
- ¿Cuál es su nivel de compromiso con el cambio?
- Pregunta: ¿crees que esta presentación inicial llevará a que la gente se ponga a trabajar y aporten?

César

- Papel más institucional. Abre y cierra. Da permiso.
- Avala el programa.

Logística

- Por último, es necesario contar con un apoyo logístico que aporte los aspectos materiales para que el proceso participativo sea cómodo para las personas participantes (materiales, salas, horarios, documentación…).
- Materiales, salas, documentación, comidas, agendas, horarios, reuniones, convocatorias, recordatorios…

PASO 7:

Diseño de la **apertura de la sesión de participación. Una secuencia posible** a la hora de diseñar esta apertura:

1. Tenemos esta TAREA…
2. Os hemos invitado a VOSOTROS/ VOSOTRAS.
3. Para obtener este RESULTADO.
4. Os solicitamos la participación de esta MANERA.
5. Dentro de estos LIMITES…
6. Para obtener estos EFECTOS...
7. Y me COMPROMETO a …

PASO 8: Tan importante como el comienzo será el **cierre de la sesión**, sin olvidar el agradecimiento y **realización y seguimiento de los compromisos acordados**.

Gure kudeaketan, erronka korapilatsuei egin behar diegu aurre, eta sistema osoarentzat eta **PERTSONA GUZTIAK ETA PERTSONEN IRITZI GUZTIAK BARNEAN HARTUZ LAN EGITEKO MODU IRAUNKOR BAT LORTZEKO BEHARRA** dugu. Erabakirik onenak pertsonek elkarrekin pentsatuz eta modu autonomoan erabakiz hartzen dituzten horiek omen dira. Dena den, ez dakigu edo ez diogu denborarik hartzen **TESTUINGURUAREN BALDINTZAK DISEINATU ETA SORTZEARI AHALIK ETA PARTE-HARTZE HANDIENA LORTZEKO** ETA **EZARRITAKO HELBURUA LORTZEKO**.

1. URRATSA: Parte-hartze ahalik eta onena nola lortu hausnartzeko eta horren **plangintza egiteko** gelditzeko beharra. Gogoan izan: «Pertsonek nahi badute soilik hartzen dute parte, eta, nahi ez badute, erresistentzia sortzen dute» eta «Lan azkarra, lan kaskarra».

2. URRATSA:

Edozein parte-hartze prozesuk hobe daitekeen egoera bat aldatzea du helburu. Hori dela eta, **helburu edo zeregin argi bat** eman behar diogu, eta **parte-hartzerik ahalik eta handiena**, aldaketa horrek zilegitasun handia izan dezan.

Zer aldatu nahi da? Aldaketa-egoera guztietan, hainbat indar edo elementu daude:

a) **Iraunkortasuna**: denboran irauten duen eta erakundeari zentzua eta identitatea ematen dion hori. *Zer ez dugu aldatu nahi?* Zer ez dugu aldatu nahi, hori aldatzeak hobekuntzak eragin ditzakeen arren? Zertzuk ezin daitezke negoziatu?

b) **Aldaketa egokitzailearen indarra**: inguruari erantzuteko. «Asmorik gabe» eta dena dela erakundean gertatuko den prozesu bat da. *Zer aldatzen ari da eta aldatuko da derrigor?*

c) **Nahitako aldaketaren indarra**: Lortu nahi diren Emaitzak eta Eraginak. Eremu horretan kokatzen da parte-hartzearen kudeaketa. Zer nahigabe da abiapuntua? Zer aldatu nahi da? Zer zeregin ezarriko diogu geure buruari?

d) **Jarraitutasunaren indarra**: zerbait aldatzen den bakoitzean, erresistentzia bat sortzen da. Zer erresistentzia daude aldaketaren aurka? Pertsona horrek parte-hartze prozesuan konfiantza izateko arrazoirik ba al du? Nork boikotatu dezake hau? Inork ezer galduko al luke hau ongi ateraz gero? Nola eman hitza erresistentziei? Baimena ematen al diegu ados ez daudenei hori adierazteko? Zer galduko dugu aldaketarekin?

3. URRATSA: Zer aldatu nahi da? Zeregina eta helburua idaztea.

4. URRATSA:

Parte-hartze prozesua hasi ahal izateko bete behar diren **baldintzak** definitzea.


- Zeregin korapilatsua eta aniztasun handikoa.
- Irtenbidea zein den ez dakigunean.
- Gatazkatsua izan daitekeena.

- Gardentasun-borondatea.
- Konfiantza-borondatea.
- Aniztasun-borondatea.

- Elkarreragin berriak gertatzeko aukera.
  - → Beste pertsona batzuk gonbidatzea.
  - → Gunea aldatzea, «mahaia kentzea».
- Segurtasun-bermeak.

5. URRATSA:

Zer parte-hartze mailarekin gonbidatzen den eta joaten den definitzea eta argitzea. Parte-hartzea zuzendua, erraztua, bere kabuz antolatutakoa eta abar izango den definitzea.



6. URRATSA:

Prozesuko **pertsonak eta eragileak identifikatzea,** nor diren eta zer funtzio dituzten.

Bideratzailea	• Boterea duten pertsonei boterearen zati bat lagatzen laguntzea, eta parte-hartzaileei botere-eremu hori bereganatzen laguntzea, parte hartzeko dauden oztopoak saihesteko. • Boterea duten pertsonei hain beldur ez izaten laguntzea, boterea eta kontrola askatzeko gai izan daitezen. • Parte-hartzaileei boterea zutenek lagatzen dieten botere-eremua bereganatzen laguntzea. • Parte hartzeko dauden oztopoak ezabatzea. • *Kontuz! Ez daitezela bilakatu sustatzaile eta ez dezatela aldaketarekiko erresistentzia eragin beren gogo beroarekin!*	
Parte-hartzailea	• Parte-hartzaileak parte-hartze prozesuan parte hartzen duten pertsonak dira. Ez zaio inori parte hartzen irakatsi behar. Denok dakigu parte hartzen. • Haiek lan egiten dute, haiek ikasten dute. Haiek dira beren ikasbidearen arduradunak. Zereginarekiko pasioa dute guztiek. • Zer mailarekin egiten zaie deialdia eta zer mailarekin bertaratzen dira?	
Sustatzailea	• Mugak ezartzen ditu. • Konpromisoak bereganatzen ditu. • Deialdia egiten du eta gonbidapenaren partaidetza-maila zein den erabakitzen du. • Aurkezpena, irekiera eta jarraipena egiten ditu. • Zeregina eta testuinguruaren baldintzak azaltzen ditu. • Mezua, metodologia eta bere zeregina argi izan behar ditu.	• Elkarrekin pentsatzea, bananduta erabakitzea. • Bere jarrerarekin erresistentzia sortzen al du? • Zenbaterainoko konpromisoa du aldaketarekin? • Galdera: hasierako aurkezpen honek jendea lan egiten hastera eta ekarpenak egitera bultzatuko duela uste al duzu?
Zesar	• Zeregin instituzionalagoa. Ireki eta itxi egiten du. Baimena ematen du. • Programa bermatzen du.	
Logistika	• Azkenik, beharrezkoa da, parte-hartze prozesua parte-hartzaileentzat erosoa izan dadin, alderdi materialak jarriko dituen laguntza logistikoa izatea (materialak, aretoak, ordutegiak, dokumentazioa...). • Materialak, aretoak, dokumentazioa, janaria, agendak, ordutegiak, bilerak, deialdiak, oroigarriak...	

7. URRATSA:

Partaidetza-saioaren irekiera diseinatzea. Irekiera diseinatzeko orduan jarraitzeko moduko **sekuentziaren adibide bat**:

1. ZEREGIN hau dugu...
2. ZUEI egin dizuegu gonbidapena.
3. EMAITZA hau lortzeko.
4. HONELA parte har dezazuen eskatzen dizuegu.
5. MUGA hauek errespetatuz...
6. ONDORIO hauek lortzeko...
7. Eta KONPROMISOA HARTZEN DUT...

8. URRATSA: Saioaren hasiera bezain garrantzitsua da **saioaren itxiera**, eskerrak ematea ahaztu gabe, eta **adostutako konpromisoak betetzea eta horien jarraipena egitea**.

ESQUEMA DE LA ESTRUCTURA RETRIBUTIVA DE LOS FUNCIONARIOS

<table>
<tr><td colspan="2">RETRIBUCIONES BÁSICAS</td><td colspan="2">• SUELDO: Asignado a cada Subgrupo o Grupo de clasificación profesional.
Legislación: Estatuto Básico del Empleado Público, arts. 95 y siguientes
Ley de Empleo Público Vasco, arts. 177 y siguientes

PRINTZIPIO OROKORRA	**FALTA** izango da eta **ZEHAPENA** eragingo du langileak berezko dituen **BETEBEHAR ETA ZEREGINAK EZ BETETZEAK**

FALTA OSO ASTUNAK

- **Indarrean dagoen antolamendu juridikoa errespetatu** beharra ez betetzea eginkizun publikoetan jardutean.
- **Arraza, sexua edo bestelako arrazoiengatik diskriminazioa** dakarten jarduketak.
- Arraza edo etnia, erlijioa edo sinesmenak, ezintasuna eta abar direla-eta **jazartzea**.
- Funtzionario izateagatik eskaintzen zaion eta gizarte-usadioetatik harago doan **opari, mesede edo zerbitzu abantailatsua onartzea**.
- **Zerbitzua uztea**.
- **Nabarmenki legez kontrakoak diren akordioak hartzea**, Administrazioari edo herritarrei kalte larria eragiten dietenak.
- **Behar ez den moduan argitaratzea edo erabiltzea** kargua edo eginkizuna dela-eta eskuragarri izan den **dokumentazioa**.
- **Sekretu ofizialak zaintzeko orduan, arduragabekeriaz jokatzea**, baldin eta, horren ondorioz, sekretuak argitaratu, edo behar ez den moduan zabaldu edo jakinarazten badira.
- Interes-gatazken espedienteak izapidetzean jakiten den informazioa **isilpean gordetzeko betebeharra ez betetzea**.
- Lanpostuari lotutako **funtsezko eginkizunak** edo jarritako eginkizunak **ez betetzea, modu nabarmenean**.
- **Inpartzialtasuna urratzea**, langileak esleituak dituen ahalmenak hauteskunde-prozesuetan eragina izateko erabilita.
- Nagusien aginduei **nabarmen desobeditzea**, agindu horiek argi eta garbi ordenamendu juridikoaren aurkakoak direnean izan ezik.
- **Enplegatu publikoaren izaeratik abantaila ateratzea** norberak nahiz beste batek bidegabe onuraren bat lortzeko.
- **Grebetan funtsezko zerbitzuak ez betetzea** eta **berariaz debekatua duten langileek grebetan parte hartzea**.
- **Adierazpen-, pentsaera-, ideia- eta iritzi-askatasuna mugatzeko** ekintzak.
- Arduragabekeriaz edo asmo txarrez **Udalaren ondareari oso kalte larriak eragitea**.
- **Falta astuna egitea, urtebetean beste bi falta astunengatik zigortua izan bada.**
- **Bateraezintasunei** buruzko arauak **ez betetzea**.
- **Arrazoirik gabe huts egitea** Eusko Legebiltzarreko, Batzar Nagusietako edo Gorte Nagusietako ganberetako bateko **ikerketa-batzordeen bilerak**.
- **Herri Kontuen Euskal Epaitegiarekiko lankidetzarik eza, arrazoirik gabea.**
- **Laneko jazarpena**.
- **Greba-eskubidearen erabilera mugatzea**, eta greba egin nahi ez dutenei lanera joatea galaraztea.
- **Laneko arriskuen prebentzioaren arloko betebeharrak ez betetzea**, funtzionarioei edo hirugarrenei kalte egiten bazaie edo arriskuan jartzen badira.
- **Sektore publikoko kontratuei buruzko araudia urratzea**, gutxienez zabarkeria larriz jokatu denean.
- **Lanaldiaren barruan**, behin eta berriz edo irabazteko asmoz, jarduera pertsonalak edo profesionalak **egitea**.
- **Hirugarrenei** (pertsonei zein ondasunei) **kalte larria egitea, laneko segurtasunaren eta laneko arriskuen prebentzioaren arloko neurriak ez betetzeagatik**.
- **Legeek falta oso astuntzat jotzen dituzten beste jokabide batzuk.**

Legeria: Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutua, 95. artikulua eta hurrengoak
Euskal Enplegu Publikoaren Legea, 177. artikulua eta hurrengoak

FALTAS GRAVES

- **Incumplimiento de las órdenes o instrucciones**, cuando no sean constitutivas de falta muy grave.
- La **falta grave de respeto a los ciudadanos** y **no facilitarles el ejercicio de sus derechos o el cumplimiento de sus deberes.**
- Causar, por negligencia o mala fe, graves **daños en los bienes y documentos del Ayuntamiento** o no velar por su conservación.
- **Utilizar indebidamente de forma reiterada los medios, incluidos los telemáticos,** dispuestos por el Ayuntamiento.
- **Aceptar un regalo, favor,** más allá de los usos sociales y de cortesía, cuando no sea constitutivo de falta muy grave.
- **Incumplimiento del deber de discreción profesional y de reserva** respecto de los asuntos que conozcan por razón del puesto de trabajo cuando causen perjuicio a la Administración o se utilicen en provecho propio.
- **Tolerancia de las personas responsables de la unidad ante faltas** cometidas por el personal subordinado.
- Emisión de **informes, formulación de propuestas manifiestamente ilegales,** que causen perjuicio al Ayuntamiento o a la ciudadanía y no sean falta muy grave.
- **Falta grave de atención y respeto hacia el personal** responsable, subordinado, directivo o hacia el resto de personal empleado público.
- **Incumplimiento de las normas de incompatibilidades**, cuando no sean falta muy grave.
- **Falta de diligencia, rendimiento** que afecte al normal funcionamiento de los servicios y no constituya falta muy grave.
- **Abuso de autoridad.**
- **Intervención en un procedimiento administrativo cuando existan causas de abstención** legalmente establecidas, salvo que sea constitutivo de falta muy grave.
- **Incumplimiento injustificado de la jornada de trabajo** que suponga un mínimo de diez horas al mes natural.
- **Acciones u omisiones dirigidas a evadir los sistemas de control horario** o a impedir que sean detectados los incumplimientos horarios.
- Tres **faltas injustificadas de asistencia** en un período de tres meses, cuando las dos anteriores hubieran sido sancionadas por falta leve.
- **Incumplimiento de las obligaciones en materia de prevención de riesgos laborales**, cuando no sea falta muy grave.
- **Incumplimiento de las normas sobre bajas por enfermedad o accidente.**
- **Simulación de enfermedad o accidente** cuando comporte ausencia del trabajo.
- **Ausencia injustificada del puesto de trabajo** durante la jornada laboral.
- **Emplear o autorizar para usos particulares o de terceros recursos de carácter oficial**, salvo que por su escasa entidad sea falta leve.
- **Falta de asistencia reiterada**, sin causa justificada, **a los programas de formación** en que estén inscritos y se desarrollen en horario laboral.
- **Negativa no motivada a participar como miembro de la junta electoral** en las elecciones a representantes de personal.
- **Publicación, utilización indebida de documentos o información** a que tengan o hayan tenido acceso por razón de su cargo o función, cuando no sea falta muy grave.
- **Emisión de informes sobre asuntos de servicio que desnaturalicen la verdad** valiéndose de términos ambiguos, confusos o tendenciosos, o la alteren mediante inexactitudes, cuando desvirtuarla tenga por objeto la obtención de un beneficio propio o ajeno, o cause perjuicio a la Administración o a la ciudadanía.

FALTAS LEVES

- La **falta de consideración, atención o respeto** a la ciudadanía, a las personas superiores jerárquicas, compañeras o subordinadas, si no es falta grave.
- **No proporcionar a la ciudadanía la información debida**, siempre que sea de la competencia de la unidad en la que presta sus funciones.
- **Causar daños en los bienes y documentos del Ayuntamiento** y no velar con la diligencia debida por su conservación, si no es falta grave.
- **Uso indebido de los medios telemáticos** que el Ayuntamiento ha puesto a su disposición para el cumplimiento de sus funciones, si no es falta grave.
- **Ausencia injustificada del puesto de trabajo** durante la jornada laboral, si no es falta grave.
- **No cumplimentar las encuestas que sobre los puestos de trabajo y sus funciones** les sean remitidas por la Administración pública con el fin de racionalizar sus estructuras.
- **Incumplimiento injustificado del horario de trabajo**, si no es falta grave.
- **Falta de asistencia injustificada de un día.**
- **Negligencia en el cumplimiento de tareas** que no sean constitutiva de falta grave.
- **Incumplimiento de los deberes, principios éticos o de conducta**, si no es falta grave o muy grave.

Legislación: Estatuto Básico del Empleado Público, arts. 95 y siguientes
Ley de Empleo Público Vasco, arts. 177 y siguientes

FALTA ASTUNAK

- **Aginduak edo jarraibideak ez betetzea**, falta oso astuntzat jotzen ez denean.
- **Herritarrei modu larrian begirunea galtzea** eta **erraztasunik ez ematea beren eskubideez baliatzeko edo betebeharrak betetzeko**.
- **Udalaren ondasun eta agirietan**, zabarkeriaz edo asmo txarrez, **kalte larriak** eragitea, edo ondasun eta dokumentu horien kontserbazioa ez zaintzea.
- Udalak jarritako **baliabideak, telematikoak barne, behin eta berriz behar ez den eran erabiltzea**.
- **Mesede edo opari bat onartzea** gizartearen ohiturez eta kortesiaz harago, falta oso astuna ez denean.
- Lanpostua dela-eta ezagutzen dituzten gaiei buruzko **diskrezio profesionalaren eta zuhurtziaren betebeharra ez betetzea**, Administrazioari kalte egiten diotenean edo norberaren onurarako erabiltzen direnean.
- **Unitateko arduradunek** mendeko langileen **faltak toleratzea**.
- **Argi eta garbi legez kontrakoak diren txostenak eta proposamenak** egitea, Udalari edo herritarrei kalte egiten dietenak eta falta oso astuntzat jotzen ez direnak.
- Arduradun, mendeko, zuzendaritza-kide edo gainerako enplegatu publikoei **kasurik ez egitea eta begirunea galtzea modu larrian**.
- **Bateraezintasunen arauak ez betetzea**, falta oso astuntzat jotzen ez denean.
- Zerbitzuaren ohiko funtzionamenduari eragiten dion **arreta edo errendimendu eskasa**, falta oso astuna ez denean.
- **Agintekeriaz jokatzea.**
- **Administrazio-prozedura batean esku hartzea legez ezarritako abstentzio-kausak daudenean**, non eta ez den falta oso astuna.
- **Bidezko arrazoirik gabe lan-ordutegia ez betetzea**, hilean gutxienez hamar ordu huts egiten badira.
- **Ordutegi-kontroleko sistemak saihesteko** edo ordutegia betetzen ez denean hori ez detektatzeko **ekintzak edo omisioak**.
- Hiru hilabetean hirugarrenez **ez agertzea eta bidezko arrazoirik ez ematea** (baldin eta aurreko biak falta arin modura zehatu badira).
- **Laneko arriskuen prebentzioaren arloko betebeharrak ez betetzea**, falta oso astuna ez denean.
- **Gaixotasun-bajaren edo istripuengatiko bajaren arauak ez betetzea.**
- Lanera ez joateko **gaixotasun- edo istripu-itxura egitea**.
- Lanaldian, **inolako justifikaziorik gabe, lanera ez joatea**.
- **Baliabide ofizialak baliatzea edo baimentzea norberak edo hirugarrenek erabiltzeko**, garrantzi txikikoak izateagatik falta arina denean izan ezik.
- Izena emanda dauden eta lanorduetan diren **prestakuntza-programetako saioak behin eta berriz huts egitea**, justifikatutako arrazoirik gabe.
- Langileen ordezkariak hautatzeko hauteskundeetan **hauteskunde-batzordeko kide gisa parte hartzeari uko egitea horretarako arrazoirik eman gabe**.
- Karguaren edo eginkizunaren ondorioz eskura dituzten edo izan dituzten **dokumentuak edo informazioa behar ez bezala argitaratzea edo erabiltzea**, falta oso astuna ez bada.
- **Laneko gaiei buruzko txostenak egitean, egia lausotzea**, hitz anbiguoak, nahasgarriak edo joera jakin batekoak erabiliz, edo egia aldatzea baieztapen okerren bidez, horren helburua norberarentzat edo besterentzat onuraren bat lortzea edo Administrazioari edo herritarrei kaltea eragitea bada.

FALTA ARINAK

- Herritarrei, hierarkian gorago daudenei, lankideei edo mendekoei **begirunea galtzea, kasurik ez egitea edo errespeturik ez izatea**, falta astuna ez bada.
- **Herritarrei behar duten informazioa ez ematea**, baldin eta informazio hori berak lan egiten duen unitatearen eskumenekoa bada.
- **Udalaren ondasun eta agirietan kalteak eragitea** eta behar bezalako arretaz ez zaintzea, falta astuna ez bada.

- Bere eginkizunak betetzeko Udalak eskura jarri dizkion **baliabide telematikoak behar ez bezala erabiltzea**, falta astuna ez bada.
- Lanaldian, **inolako justifikaziorik gabe, lanera ez joatea**, falta astuna ez bada.
- Administrazio publikoak, bere egiturak arrazionalizatzeko asmoz, **lanpostuei eta haien eginkizunei buruz bidaltzen dizkien inkestak ez betetzea**.
- **Lan-ordutegia ez betetzea eta bidezko arrazoirik ez ematea**, falta astuna ez bada.
- **Egun batean lanera ez joatea eta ez justifikatzea.**
- **Zabarkeriaz jokatzea zereginak betetzean**, falta astuna ez bada.
- **Betebeharrak, printzipio etikoak edo jokabide-printzipioak ez betetzea**, falta astuna edo oso astuna ez bada.

Legeria: Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutua, 95. artikulua eta hurrengoak
Euskal Enplegu Publikoaren Legea, 177. artikulua eta hurrengoak

SANCIONES POR FALTAS	
Por la comisión de faltas MUY GRAVES	• La **separación** del servicio del personal funcionario de carrera, Si se trata del personal funcionario interino se revocará su nombramiento y, en su caso, se procederá a la baja definitiva de las bolsas de trabajo. • **Despido disciplinario** del personal laboral e inhabilitación para ser titular de un nuevo contrato. • **Revocación del nombramiento** del personal funcionario interino o extinción del contrato laboral temporal, con baja del derecho a ser llamado de bolsas de trabajo por un período entre 2 años y 1 día y 6 años. • **Suspensión firme de funciones** por un período entre 2 años y 1 día y 6 años. • **Traslado forzoso a otro puesto y destino** por un período como mínimo de 1 año y 1 día (máximo 3 años). • **La pérdida de un nivel de desarrollo profesional** ya acreditado. • **Demérito**, que es la penalización a efectos de carrera, con la suspensión de los efectos económicos del último grado alcanzado de desarrollo profesional, grado personal etc. por un periodo máximo de 5 años y en la forma que reglamentariamente se determine.
Por la comisión de faltas GRAVES	• La **suspensión** de funciones por un periodo entre 31 días y dos años. • El **traslado** de puesto por el periodo máximo de 1 año. • **Revocación del nombramiento** de funcionario interino o extinción del contrato laboral temporal y suspensión del derecho a ser nombrado por un periodo entre 31 días y dos años. • **Demérito**, penalización para la carrera profesional, promoción, movilidad voluntaria con un máximo de 2 años. • La **destitución** del cargo (únicamente será de aplicación a los funcionarios con habilitación de carácter nacional). • La **deducción proporcional de las retribuciones**.
Por la comisión de faltas LEVES	• La **suspensión de funciones y retribuciones** de 1 a 30 días. • **Apercibimiento**. • **Realización de cursos de formación sobre ética pública**.

El GOBIERNO VASCO APROBARÁ POR, DECRETO, la regulación del procedimiento disciplinario.
Las administraciones locales podrán adaptarlo a sus peculiaridades organizativas.

PROCEDIMIENTO SANCIONADOR

- Las sanciones por **FALTAS GRAVES Y MUY GRAVES** no se pueden imponer si no es en virtud de **EXPEDIENTE instruido al efecto**, con audiencia del interesado. La fase de instrucción estará separada de la fase sancionadora y encomendada a órganos diferentes. La duración máxima del procedimiento no podrá exceder de los 6 meses.
- Las FALTAS **LEVES se tramitarán por un procedimiento sumario y simplificado**, dando en todo caso audiencia al interesado. La duración máxima del procedimiento no podrá exceder de 1 mes.
- La Autoridad que ha de resolver la imposición de sanciones puede adoptar, en tanto se tramita el expediente, **MEDIDAS CAUTELARES**.
- La incoación y resolución de los expedientes sancionadores debe comunicarse a los órganos de representación de los trabajadores.

Para la **GRADACIÓN DE LA GRAVEDAD DE FALTAS Y SANCIONES**
se atenderá a:

- La i**ntencionalidad, descuido o negligencia**.
- La **gravedad de los daños** causados.
- Los **daños producidos** a la Administración y al administrado.
- La **reincidencia**.
- El **grado de participación**.
- La **intensidad de la falta de respeto** hacia ciudadanos o empleados públicos.

Legislación: Estatuto Básico del Empleado Público, arts. 96 y siguientes
Ley de Empleo Público Vasco, arts. 182 y siguientes

FALTENGATIKO ZEHAPENAK	
Falta OSO ASTUNAK egiteagatik	• Karrerako funtzionarioak zerbitzutik **kentzea**. Bitarteko funtzionarioak badira, izendapena ezeztatu egingo da, eta, hala badagokio, lan-poltsetan behin betiko baja emango zaie. • Langile lan-kontratudunen **diziplinazko kaleratzea**, eta beste kontratu baten titular izateko desgaitzea. • Bitarteko funtzionarioen **izendapena errebokatzea** edo aldi baterako lan-kontratua azkentzea, eta lan-poltsetatik deitua izateko eskubidean baja ematea bi urte eta egun bat eta sei urte bitartean. • **Eginkizun-gabetze irmoa**, bi urte eta egun bat eta sei urte artekoa. • **Beste lanpostu eta destino batera nahitaez lekualdatzea** gutxienez urtebete eta egun baterako (gehienez, hiru urterako). • Egiaztatutako **garapen profesionalaren maila bat galtzea**. • **Demeritua**, hau da, karreraren ondorioetarako zigorra, garapen profesionalean lortutako azken graduaren, gradu pertsonalaren eta abarren ondorio ekonomikoak gehienez bost urtez etenda, erregelamendu bidez zehazten den moduan.
Falta ASTUNAK egiteagatik	• **Eginkizun-gabetzea**, 31 egun eta bi urte bitartekoa. • **Lanpostuz aldatzea**, urtebeterako gehienez ere. • Bitarteko funtzionarioen **izendapena errebokatzea** edo aldi baterako lan-kontratua azkentzea, eta izendatua izateko eskubidea etetea 31 egun eta bi urte bitartean. • **Demeritua**, karrera profesionalerako, sustapenerako eta borondatezko mugikortasunerako zigorra (gehienez, bi urterako). • **Kargutik kentzea** (Estaturako gaikuntza duten funtzionarioen kasuan soilik). • **Ordainsariak proportzioan murriztea**.
Falta ARINAK egiteagatik	• **Enplegua eta soldata etetea** egun bat eta 30 egun bitartean. • **Ohartarazpena**. • **Etika publikoari buruzko prestakuntza-ikastaroak egitea**.

EUSKO JAURLARITZAK, DEKRETU BIDEZ, diziplina-prozeduraren erregulazioa onartuko du.
Toki-administrazioek beren antolamendu-berezitasunetara egokitu ahal izango dute.

ZEHAPEN-PROZEDURA

- **FALTA ASTUN EDO OSO ASTUNENGATIKO** zehapenak ezin dira ezarri, harik eta kasuari dagokion **ESPEDIENTEAREN instrukzioa egin** arte eta interesdunak esan beharrekoa entzun arte. Instrukzio-faseak eta zehapen-faseak bereizita egon behar dute, eta organo banaren esku. Prozedurak ezin du iraun sei hilabete baino gehiago.
- FALTA **ARINAK prozedura sumario eta sinplifikatu baten bidez izapidetu behar dira**. Nolanahi ere, interesdunak esateko duena entzun behar da. Prozedurak ezin du iraun hilabete baino gehiago.
- Zehapena ezartzeaz ebatzi behar duen agintariak **KAUTELAZKO NEURRIAK** har ditzake espedientea izapidetu bitartean.
- Zehapen-espedienteen hasiera eta ebazpena langileen ordezkaritza-organoei jakinarazi behar zaizkie.

FALTAK ETA ZEHAPENAK ASTUNTASUNAREN arabera mailakatzeko,
hauek hartuko dira kontuan:

- **Intentzionalitatea, arduragabekeria edo zabarkeria**.
- Egindako **kalteen zenbaterainokoa**.
- Administrazioari eta herritarrari **eginiko kalteak**.
- **Berrerortzea**.
- **Parte-hartzearen zenbaterainokoa**.
- Herritarrekiko edo enplegatu publikoekiko **errespetu galeraren zenbaterainokoa**.

Legeria: Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutua, 96. artikulua eta hurrengoak
Euskal Enplegu Publikoaren Legea, 182. artikulua eta hurrengoak

SITUACIÓN ADMINISTRATIVA	DESCRIPCIÓN
SERVICIO ACTIVO	• **Desempeño de puesto** reservado a funcionario, en adscripción definitiva, adscripción provisional o en comisión de servicios. • El tiempo que transcurre **entre el cese en el puesto de trabajo anterior y la toma de posesión en el nuevo**, obtenido por concurso o libre designación. • Por prestar **servicios en el sector público y así se establezca mediante ley**. • Por estar de **vacaciones, permisos, situaciones de incapacidad temporal, riesgo durante el embarazo o riesgo durante la lactancia natural**. • **Se computarán como servicio activo**: las situaciones de servicios especiales, expectativa de destino, excedencia para el cuidado de familiares, excedencia por motivos de violencia de género, excedencia por motivos de violencia terrorista, excedencia forzosa temporal y excedencia forzosa. No así el periodo de suspensión firme de funciones.
SERVICIOS ESPECIALES	• Por adquirir la condición de funcionarios al **servicio de organizaciones internacionales**. • Por realizar una misión por más de seis meses en **organizaciones internacionales, gobierno o entidades públicas extranjeras o programas de cooperación** nacionales o internacionales. • Por desempeñar **cargos electos o políticos** con **dedicación exclusiva y retribuida**. • Por desempeñar **puestos en Órganos Constitucionales**. • Por desempeñar puestos directivos municipales. • Por desempeñar puestos reservados a personal eventual. • Por ser **activado como personal reservista voluntario para prestar servicios en las Fuerzas Armadas.** • Por cualquier **otro supuesto determinado mediante ley del Parlamento Vasco.**
	• Derecho a **reserva del puesto** del que fueren titulares y a la **percepción de trienios.** • Cómputo del tiempo en esta situación a efectos de carrera profesional, reconocimiento de nuevos trienios y de **derechos pasivos**.
SERVICIO EN OTRAS ADMINISTRACIONES PÚBLICAS	• Por **haber pasado a ocupar un puesto de trabajo en otra Administración Pública** mediante procedimientos de provisión de puestos (concurso o libre designación), procesos de transferencia, reasignación de efectivos o movilidad interadministrativa.
	• El personal funcionario declarado en esta situación **conservará la condición de personal funcionario de carrera en la administración de origen, sin reserva de puesto ni destino.** • El tiempo de servicios en esta situación será **computable a los efectos de trienios y carrera profesional como servicio prestado en la administración de origen**.
SERVICIOS COMO PERSONAL DIRECTIVO PÚBLICO PROFESIONAL EN EL SECTOR PÚBLICO	• **Por desempeñar**, el funcionario de carrera, **puesto de directivo público profesional**.
	• Si se trata de un **puesto directivo municipal o cargo político incompatible** con el ejercicio de la función pública, se le declarará en la **situación de servicios especiales**. • **Conservará la condición de personal funcionario de carrera en la administración de origen** y tendrá derecho a la reserva del puesto del que resulta ser titular. • Obtendrá el **reconocimiento profesional de los progresos alcanzados** en el sistema de carrera profesional y sus efectos sobre la posición retributiva. • Tendrá **derecho a participar en las convocatorias para la provisión de puestos de trabajo** que se efectúen por la administración de origen.

Legislación: Estatuto Básico del Empleado Público, arts. 85 a 92
Ley de Empleo Público Vasco, arts. 136 y siguientes

ADMINISTRAZIO-EGOERA	DESKRIBAPENA
ZERBITZU AKTIBOA	• Funtzionarioentzako **postu batean aritzea**, postu hori langileari behin betiko esleituta, behin-behinean esleituta edo zerbitzu-eginkizunetan. • **Aurreko lanpostua uzten denetik berriaz** lehiaketa bidez edo izendapen askez **jabetu arte** igarotzen den denbora. • **Sektore publikoan zerbitzuak** emateagatik, **legeak hala ezartzen badu**. • **Oporretan** egoteagatik, **baimenak** izateagatik **edo aldi baterako ezintasun-egoeretan, haurdunaldiko arrisku-egoeran edo edoskitzaro naturaleko arrisku-egoeran** egoteagatik. • **Zerbitzu aktibotzat hartuko dira** egoera hauek: zerbitzu bereziak, destinoaren zain egotea, senideak zaintzeko eszedentzia, genero-indarkeriagatiko eszedentzia, indarkeria terroristagatiko eszedentzia, aldi baterako nahitaezko eszedentzia eta nahitaezko eszedentzia. Ez, ordea, eginkizun-gabetze irmoan emandako aldia.
ZERBITZU BEREZIAK	• **Nazioarteko erakundeen zerbitzura** diharduten funtzionarioen izaera hartzeagatik. • Sei hilabetean baino gehiagoan **nazioarteko antolakundeetan, gobernuan edo atzerriko entitate publikoetan edo** estatuko zein nazioarteko **lankidetza-programetan** eginkizun bat betetzeagatik. • **Hautatutako karguetan edo kargu politikoetan dedikazio esklusibo eta ordainduarekin** aritzeagatik. • **Konstituzio-organoetako postuetan** aritzeagatik. • Udaleko zuzendaritza-postuak betetzeagatik. • Behin-behineko langileei gordetako lanpostuak betetzeagatik. • **Indar Armatuetan zerbitzuak emateko erreserbista boluntario gisa egoera aktiboan jartzeagatik**. • **Eusko Legebiltzarraren lege baten bidez zehaztutako beste edozein kasutan**.
	• Titular direneko **postua gordetzeko eta hirurtekoak jasotzeko** eskubidea. • Egoera honetan eginiko denbora kontuan hartzen da lanbide-karrerarako eta hirurteko berriak eta **eskubide pasiboak** aitortzeari dagokionez.
BESTE ADMINISTRAZIO PUBLIKO BATZUETAN ZERBITZUA BETETZEA	• **Beste administrazio publiko batean lanpostu bat betetzera igaro izana**, lanpostuak hornitzeko prozeduren bidez (lehiaketa edo izendapen askea), transferentzia-prozesuen bidez, langileen berresleipenaren bidez edo administrazioen arteko mugikortasunaren bidez.
	• Egoera honetan deklaratutako funtzionarioak **karrerako funtzionario izango dira aurrerantzean ere jatorrizko administrazioan, baina ez zaie gordeko ez lanposturik eta ez destinorik**. • Egoera honetan emandako zerbitzu-denbora **kontuan hartuko da hirurtekoetarako eta karrera profesionalerako, jatorrizko administrazioan emandako zerbitzu gisa**.
SEKTORE PUBLIKOAN ZUZENDARITZAKO LANGILE PUBLIKO PROFESIONAL GISA ZERBITZUAK BETETZEA	• Karrerako funtzionarioak **zuzendaritza-kide publiko profesionalaren lanpostua betetzeagatik**.
	• Funtzio publikoa betetzearekin **bateraezina den kargu politiko bat edo udaleko zuzendaritza-postu bat** bada, **zerbitzu berezietako egoeran** deklaratuko da. • **Karrerako funtzionario izango da aurrerantzean ere jatorrizko administrazioan**, eta titular gisa duen lanpostua gordetzeko eskubidea izango du. • **Egindako aurrerapenaren aitorpen profesionala** jasoko du lanbide-karreraren sisteman, eta, ondorioz, ordainsarietan. • Jatorrizko administrazioak **lanpostuak hornitzeko egiten dituen deialdietan parte hartzeko eskubidea** izango du.

Legeria: Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutua, 85. artikulutik 92.era
Euskal Enplegu Publikoaren Legea, 136. artikulua eta hurrengoak

SITUACIÓN ADMINISTRATIVA		DESCRIPCIÓN
EXCEDENCIA VOLUNTARIA	**POR INTERÉS PARTICULAR**	• **Se exige** haber prestado 2 años de servicio efectivo (inmediatamente anteriores). • La **duración** mínima es de 2 años. • **Puede producirse por** transcurso de plazos máximos de reingreso desde otras situaciones administrativas. • **No tienen reserva del puesto, no devengarán retribuciones, ni les será computable el tiempo** de permanencia en esa situación a efectos de carrera profesional, trienios y derechos en el régimen de la Seguridad Social que les sea de aplicación.
	CON RESERVA DE PUESTO Y DESTINO	• **Se exige** ser funcionario de carrera y haber prestado 3 años de servicio efectivos. • La **duración mínima** será de 6 meses y la máxima de 1 año. • **No podrán desempeñar puestos de trabajo en el sector público** bajo ningún tipo de relación funcionarial o contractual, ya sea esta de carácter laboral o administrativo, así como desempeñar puestos en calidad de personal eventual o de personal directivo público profesional. • **No devengarán retribuciones, ni les será computable el tiempo** de permanencia en esa situación a efectos de carrera profesional, trienios y derechos en el régimen de la Seguridad Social que les sea de aplicación.
	POR AGRUPACIÓN FAMILIAR	• **Si dos cónyuges residen en distinto municipio**, **por haber obtenido y desempeñar puesto definitivo como funcionario de carrera o laboral,** uno de ellos puede solicitarla. • **Período mínimo** de 2 años, **sin periodo máximo** de permanencia (antes 15 años). • **No hay reserva de puesto, ni devengará retribuciones ni les será computable el tiempo** de permanencia en esa situación a efectos de carrera profesional, trienios y derechos en el régimen de la Seguridad Social que les sea de aplicación.
	POR CUIDADO DE FAMILIARES	• **Causa:** cuidado de hijos, ya sea por naturaleza, adopción, acogimiento o familiar a su cargo hasta el segundo grado que no pueda valerse por sí mismo y no desempeñe actividad retribuida. • **Duración máxima** 3 años. • **Se puede disfrutar de manera fraccionada.** • El tiempo de permanencia será **computable a efectos de trienios, carrera profesional y Seguridad Social.** • **Reserva de puesto y destino durante los tres años, salvo que** se trate de un puesto de trabajo reservado a personal eventual o a personal directivo público profesional.
	POR VIOLENCIA DE GÉNERO O VIOLENCIA TERRORISTA	• **No se exige tiempo mínimo de servicios previos** para solicitarla y **tampoco se exige plazo de permanencia** en la situación, pero sí ser funcionario de carrera. • **Durante los 6 primeros meses:** derecho a percibir las retribuciones íntegras, a la reserva del puesto desempeñado y al cómputo de los servicios a efectos de antigüedad, carrera y derechos pasivos. • **Se pueden prorrogar los periodos por 3 meses, con un límite de 18 meses**, manteniendo sus efectos. • **Tendrán derecho** a una mensualidad de las retribuciones básicas y complementarias del último puesto. • **No hay reserva de puesto**.
	INCENTIVADA	• **Duración máxima 5 años**. • **Prohibición de desempeñar durante ese periodo cualquier puesto de trabajo en el sector público** ya sea de naturaleza funcionarial o laboral. • Funcionarios afectados por planes de ordenación de empleo púbico, que **se encuentren en un proceso de reasignación de efectivos, en expectativa de derecho o excedencia forzosa y que así lo soliciten**.
	PARA PRESTAR SERVICIOS EN EL SECTOR PÚBLICO	• **Funcionario de carrera en servicio activo que pasa a prestar servicios, no compatibles, en el sector público, cuando no le corresponde ninguna otra situación administrativa.** • **En tanto se mantenga la relación de servicio en el sector público** que la motiva. • **No hay reserva de puesto ni de destino** y se le aplica el **régimen de la administración de destino**.

Legislación: Estatuto Básico del Empleado Público, arts. 85 a 92
Ley de Empleo Público Vasco, arts. 136 y siguientes

ADMINISTRAZIO-EGOERA		DESKRIBAPENA
BORONDATEZKO ESZEDENTZIA	**NORBERAREN INTERESEKOA**	• Bi urtez (aurreko bi urteetan) lan-zerbitzua eman izana **eskatzen da**. • Gutxienez bi urte **iraun** behar du. • Beste administrazio-egoera batzuetatik itzultzeko gehieneko epeak igaro izanaren ondorio **izan daiteke.** • **Ez zaie gordeko postua, ez dute ordainsaririk sorraraziko eta** egoera horretan emandako **denbora ez zaie aintzakotzat hartuko** karrera profesionala, hirurtekoak eta aplikatu beharreko Gizarte Segurantzako erregimeneko eskubideak onartzeko orduan.
	LANPOSTU- ETA DESTINO-ERRESERBADUNA	• Karrerako funtzionarioa izatea **eskatzen da**, eta benetan hiru urtez lanean aritu izana. • Sei hilabete **irauten du gutxienez**, eta urtebete gehienez. • **Ezin dute arlo publikoan beste inolako lanposturik bete**, ez funtzionario-harremanaren bidez ez kontratu-harremanaren bidez (dela lan-zuzenbidearen araberako kontratua, dela administrazio-zuzenbidearen araberako kontratua), eta ezingo dute ez behin-behinerako beste lanik egin eta ez zuzendaritza-kide profesional publiko modura lan egin. • **Ez dute ordainsaririk sorraraziko, eta** egoera horretan emandako **denbora ez zaie aintzakotzat hartuko** karrera profesionala, hirurtekoak eta aplikatu beharreko Gizarte Segurantzako erregimeneko eskubideak onartzeko orduan.
	FAMILIA ELKARTZEKOA	• **Bi ezkontide udalerri banatan bizi badira, karrerako funtzionario edo langile izanda behin betiko postua badute eta betetzen ari badira**, bietako batek eskatu ahal izango du. • **Gutxienez**, bi urte; **gehieneko denborarik ez** (hamabost urte lehen). • **Ez zaie gordeko postua, ez dute ordainsaririk sorraraziko eta** egoera horretan emandako **denbora ez zaie aintzakotzat hartuko** karrera profesionala, hirurtekoak eta aplikatu beharreko Gizarte Segurantzako erregimeneko eskubideak onartzeko orduan.
	SENITARTE-KOAK ZAINTZEKOA	• **Arrazoia:** seme-alabak zaintzea, dela norberarena, dela adoptatua, dela harrerakoa, edo bere kargura duen bigarren mailarainoko senidea zaintzea, bere kabuz moldatu ezin dena eta ordaindutako jarduerarik egiten ez duena. • **Gehienez ere**, hiru urtez iraungo du. • **Zatika har daiteke.** • Denbora hori **aintzakotzat hartuko da hirurtekoetarako, karrera profesionalerako eta Gizarte Segurantzarako**. • **Lanpostua eta destinoa hiru urtez gordetzen dira, non eta** ez den behin-behineko langileentzat edo zuzendaritzako langile publiko profesionalentzat gordetako lanpostua.
	GENERO-INDARKERIAGATIK EDO INDARKERIA TERRORISTAGATIK	• **Ez da beharrezkoa aurretik zerbitzuak eman izanaren gutxieneko denbora-tarte bat izatea** eszedentzia eskatzeko, **eta ez da eskatzen eszedentzian egoteko epe jakinik**; bai, ordea, karrerako funtzionarioa izatea. • **Eszedentziaren lehenbiziko sei hilabeteetan**, eskubidea du ordainsari guztiak kobratzeko, betetzen duen lanpostua gorde diezaioten eta epe hori kontuan har dezaten antzinatasunerako, karrerako eta eskubide pasiboetarako. • **Aldiak hiru hilabete luza daitezke, hemezortzi hilabeteko mugarekin**, eta ondorioak ez dira aldatuko. • Azken lanpostuaren oinarrizko ordainsarien eta ordainsari osagarrien hileko soldata bat jasotzeko **eskubidea** izango dute. • **Ez da gordetzen lanpostua**.
	SUSTATU-TAKOA	• **Gehienez ere, bost urtez iraungo du**. • **Aldi horretan sektore publikoko edozein lanpostu betetzeko debekua**, dela funtzionarioena, dela lan-kontratudunena. • Enplegu publikoa antolatzeko planek eragiten dieten funtzionarioak, **giza baliabideak berresleitzeko prozesu batean, eskubidea izan zain edo nahitaezko eszedentzian dauden eta eskatzen duten horiexek**.
	SEKTORE PUBLIKOAN ZERBITZUAK EMATEKOA	• **Zerbitzu aktiboan dagoen karrerako funtzionarioa, zerbitzu bateraezinak ematen hasten dena sektore publikoan, beste administrazio-egoerarik ez dagokiona.** • Eszedentzia eragin duten **sektore publikoarekiko zerbitzu-harremanek irauten duten bitartean**. • **Ez da gordetzen lanpostua, ezta destinoa ere, eta xede-administrazioaren araubidea** aplikatzen zaio.

Legeria: Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutua, 85. artikulutik 92.era
Euskal Enplegu Publikoaren Legea, 136. artikulua eta hurrengoak

EXPECTATIVA DE DESTINO Y EXCEDENCIA FORZOSA

EXPECTATIVA DE DESTINO	• **Afectados por procedimientos de reasignación de efectivos.** • **Se perciben** las retribuciones básicas, el complemento de carrera profesional o en su defecto el grado personal consolidado y el 50% del complemento específico. • **Se está obligado a** aceptar puestos de similares características y a participar en concursos, en el Territorio Histórico donde se estaba destinado. • **Duración máxima** de un año.
EXCEDENCIA FORZOSA TEMPORAL	• **Si transcurre el plazo máximo de 1 año en la situación de expectativa de destino o no acepta puestos de características similares o no participa en los concursos, en el Territorio Histórico donde estaba destinado**, será declarado en excedencia forzosa temporal. • **Duración máxima** de 3 años transcurridos los cuales pasará a la situación de excedencia forzosa. • **Se perciben** las retribuciones básicas, y el complemento de carrera profesional o en su defecto el grado personal consolidado. • **El tiempo de permanencia en esta situación será computable** a efectos de trienios, derechos pasivos y, en su caso, consolidación del grado personal o de nivel de carrera profesional.
EXCEDENCIA FORZOSA	• **En los supuestos de adscripción provisional, cuando no sea posible asignarle un puesto por falta de vacante.** • **Cumplido el periodo suspensión firme de funciones** el funcionario **solicita el reingreso** y **no hubiere puesto vacante** de su cuerpo, escala… • Procedente **de una situación de excedencia forzosa temporal ha agotado el periodo máximo** de 3 años **o ha incumplido las obligaciones prevista**s para los funcionarios declarados en expectativa de destino. • **Derecho a percibir** las retribuciones básicas y el 50% del complemento de carrera profesional reconocido, o en su defecto del grado personal consolidado. • **Cómputo de tiempo** para derechos pasivos, trienios y consolidación del grado personal.

SUSPENSIÓN DE FUNCIONES

SUSPENSIÓN DE FUNCIONES	**PROVISIONAL**	• **Medida cautelar** con ocasión de la **tramitación de procedimiento judicial o disciplinario.** • **Se perciben** las retribuciones básicas, **salvo** incomparecencia o dilación del expediente imputable al suspenso.
	FIRME	• En virtud de **condena penal o sanción disciplinaria firmes**. • **Si excede de 6 meses**, determinará la **pérdida del puesto de trabajo** y de destino.

Legislación: Estatuto Básico del Empleado Público, arts. 85 a 92
Ley de Empleo Público Vasco, arts. 136 y siguientes

DESTINOAREN ZAIN EGOTEA ETA NAHITAEZKO ESZEDENTZIA

DESTINOAREN ZAIN EGOTEA	• **Langileak berresleitzeko prozedurek eragindakoak.** • Oinarrizko ordainsariak, karrera profesionaleko osagarria —edo, hura ezean, gradu pertsonal finkatua— eta berariazko osagarriaren % 50 **jasotzen dira**. • Antzeko ezaugarriak dituzten postuak onartzeko eta lehiaketetan parte hartzeko **betebeharra izaten da**, dagokion lurralde historikoan. • **Gehienez**, urtebete irauten du.
ALDI BATERAKO NAHITAEZKO ESZEDENTZIA	• **Destinoaren zain urtebeteko gehieneko epea igarotzen bada, edo antzeko ezaugarriak dituzten lanpostuak onartzen ez baditu edo lehiaketetan parte hartzen ez badu destinoa zuen lurralde historikoan**, aldi baterako nahitaezko eszedentzian deklaratuko da. • **Gehienez ere**, hiru urte irauten du aldi baterako nahitaezko eszedentziak. Urte horiek igaro ondoren, nahitaezko eszedentziaren egoerara pasatuko da funtzionarioa. • Oinarrizko ordainsariak eta karrera profesionaleko osagarria edo, hura ezean, gradu pertsonal finkatua **jasotzen dira**. • **Egoera horretan emandako denbora aintzat hartuko da** hirurtekoetarako, eskubide pasiboetarako eta, hala badagokio, gradu pertsonala edo karrera profesionalaren maila finkatzeko.
NAHITAEZKO ESZEDENTZIA	• **Behin-behineko atxikipenen kasuetan, lanpostu hutsik ez dagoelako lanpostu bat esleitu ezin zaionean.** • **Eginkizun-gabetze irmoaren aldia betetakoan**, funtzionarioak **itzultzea eskatzen du**, eta ez dago haren kidegoan, eskalan... lanpostu hutsik. • **Aldi baterako nahitaezko eszedentzia-egoera baten ondorioz**, hiru urteko **gehieneko epea bete du edo ez ditu bete** destinoaren zain dauden funtzionarioentzat **aurreikusitako betebeharrak**. • Oinarrizko ordainsariak eta karrera profesionaleko osagarri aitortuaren % 50 edo, hura ezean, gradu pertsonal finkatuaren % 50 **jasotzeko eskubidea**. • **Denbora kontuan hartzen da** eskubide pasiboetarako, hirurtekoetarako eta gradu pertsonala finkatzeko.

EGINKIZUN-GABETZEA

EGINKIZUN-GABETZEA	**BEHIN-BEHINEKOA**	• **Kautelazko neurria, prozedura judizial bat edo diziplina-espediente bat izapidetzean hartutakoa**. • Oinarrizko ordainsariak **jasotzen dira**, **non eta** eginkizunez gabetua ez den berataratu edo espedientea ez den atzeratu haren erruz.
	IRMOA	• **Kondena penal irmo bati edo diziplina-zehapen irmo bati** jarraikiz. • **Sei hilabetetik gorakoa bada, lanpostua** eta destinoa **galtzea** ekarriko du.

Legeria: Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutua, 85. artikulutik 92.era
Euskal Enplegu Publikoaren Legea, 136. artikulua eta hurrengoak

1. PUEDEN SER OBJETO DE NEGOCIACIÓN		a) La aplicación del incremento de las retribuciones dentro de los límites establecidos por las normas presupuestarias del Estado y la CAPV. b) La determinación y aplicación de las retribuciones complementarias del personal funcionario. c) Las normas que fijen los criterios generales en materia de acceso, carrera, provisión, sistemas de clasificación de puestos de trabajo, y planes e instrumentos de planificación de recursos humanos. d) Las normas que fijen los criterios y mecanismos generales en materia de evaluación del desempeño. e) Los planes de previsión social complementaria. f) Los criterios generales de los planes y fondos para la formación y la promoción interna. g) Los criterios generales para la determinación de prestaciones sociales y pensiones de clases pasivas. h) Las propuestas sobre derechos sindicales y de participación. i) Los criterios generales de acción social. j) Las que así se establezcan en la normativa de prevención de riesgos laborales. k) Las que afecten a las condiciones de trabajo y a las retribuciones del personal funcionario, cuya regulación exija norma con rango de ley. l) Las relaciones de puestos de trabajo o instrumentos equivalentes. m) Los criterios generales sobre ofertas de empleo público. n) Calendario laboral, horarios, jornadas, vacaciones, permisos, movilidad funcional y geográfica, así como los criterios generales sobre la planificación estratégica de los recursos humanos en aquellos aspectos que afecten a condiciones de trabajo de las personas empleadas públicas.
2. EL PROCESO DE NEGOCIACIÓN		• El proceso de negociación **COMPRENDERÁ**, de entre las materias relacionadas anteriormente, **las que ambas partes estimen oportuno**. • ESTÁN **EXCLUIDAS,** de la obligatoriedad de la negociación, las decisiones de las Administraciones Públicas que afecten a sus **potestades de organización**, al ejercicio del **derecho de los ciudadanos** ante los funcionarios públicos y al **procedimiento de formación de los actos y disposiciones** administrativas. • Los Acuerdos versarán sobre materias competencia de los órganos correspondientes de las Entidades Locales. Para su validez y eficacia será necesaria la **aprobación expresa y formal** de estos órganos en su ámbito respectivo. • Por acuerdo de las partes, podrán establecerse **comisiones de seguimiento** de los Pactos y Acuerdos.
3. AGENTES	3. 1 **AGENTES QUE INTERVIENEN EN LA NEGOCIACIÓN EN CADA AYTO.**	a) Representantes de las **Organizaciones sindicales más representativas** y las que hayan obtenido **el 10% o más de los representantes de Juntas y Comités de Personal (los eligen los afiliados a dichos sindicatos).** b) Representantes del **Ayuntamiento**.
	3.2 **AGENTES QUE INTERVIENEN EN LA NEGOCIACIÓN EN EL MARCO GENERAL DE LA ADMINISTRACIÓN FORAL Y LOCAL**	a) **Sindicatos más representativos**. b) Sindicatos que hayan obtenido **el 10% o más de los representantes** en las **elecciones de la Administración Foral y Local** de la Comunidad Autónoma. c) **Asociaciones de municipios,** y en concreto EUDEL (Asociación de Municipios Vascos) o la que resulte la más representativa de los municipios vascos, **así como las Entidades Locales de ámbito supramunicipal**. A tales efectos, los municipios **podrán adherirse con carácter previo o de manera sucesiva** a la negociación colectiva que se lleve a cabo en el ámbito correspondiente. Asimismo, una Administración o Entidad Pública **podrá adherirse a los Acuerdos alcanzados** dentro del territorio de cada Comunidad Autónoma, o a los Acuerdos alcanzados en un ámbito supramunicipal.
	3.3 **CONSTITUCIÓN DE LAS MESAS**	En todo caso, **LA VÁLIDA CONSTITUCIÓN DE LAS MESAS** exige que los **sindicatos representen, al menos, el 50% de los miembros de los órganos unitarios de representación** del ámbito de que se trate.
4. FORMALIZACIÓN DE LOS ACUERDOS SURGIDOS DE LA NEGOCIACIÓN		a) Los Acuerdos y los Convenios reguladores de las relaciones entre los trabajadores y los Ayuntamientos, deben concretarse **en forma separada para funcionarios y para laborales.** b) El Acuerdo, o propuesta que se realice para toda la Administración Foral y Local, para que pueda ser aplicado, debe ser **expresamente aprobado** por cada Ayuntamiento y la representación de sus empleados. c) El Estatuto Básico del Empleado Público admite también, por primera vez, que los Pactos y Acuerdos que, de conformidad con lo establecido en el artículo 37, contengan materias y condiciones generales de trabajo comunes al personal funcionario y laboral, **tendrán la consideración y efectos previstos** en el propio Estatuto Básico del Empleado Público para los funcionarios y **la consideración y efectos previstos en el artículo 83 del Estatuto de los Trabajadores** para el personal laboral. Señala igualmente que los Pactos celebrados y los Acuerdos, una vez ratificados, **deberán ser remitidos a la Oficina Pública** que cada Administración competente determine **y la Autoridad respectiva ordenará su publicación en el Boletín Oficial** que corresponda en función del ámbito territorial.

Legislación: Estatuto Básico del Empleado Público, arts. 31 a 46 y Disposición Transitoria Quinta
Ley de Empleo Público Vasco, arts. 191 y ss.
Ley 9/1987, de 12 de junio, de órganos de representación, determinación de las condiciones de trabajo y participación del personal al servicio de las Administraciones Públicas

1. **NEGOZIA DAITEZKEEN GAIAK**		a) Ordainsarien igoera Estatuko eta EAEko aurrekontu-arauek ezarritako mugen barruan aplikatzea. b) Funtzionarioen ordainsari osagarrien zenbatekoa erabakitzea eta aplikatzea. c) Arlo hauetan irizpide orokorrak finkatzeko arauak: enplegu publikora iritsi, karrera egin eta lanpostuak betetzeko moduak, lanpostuak sailkatzeko sistemak eta giza baliabideak antolatzeko planak eta planifikazio-tresnak. d) Jarduna ebaluatzeari begira irizpide eta mekanismo orokorrak ezartzen dituzten arauak. e) Gizarte-aurreikuspen osagarrirako planak. f) Prestakuntzako eta barne-sustapeneko planei eta funtsei buruzko irizpide orokorrak. g) Gizarte-prestazioak eta klase pasiboen pentsioak zehazteko irizpide orokorrak. h) Eskubide sindikalei eta parte hartzeko eskubideari buruzko proposamenak. i) Gizarte-ekintzarako irizpide orokorrak. j) Lan-arriskuen prebentziorako araudian zehaztutakoak. k) Funtzionarioen lan-baldintzetan eta ordainsarietan eragina dutenak, baldin eta, horiek arautzeko, lege-mailako araua behar bada. l) Lanpostu-zerrendak edo tresna baliokideak. m) Enplegu publikoaren eskaintzei buruzko irizpide orokorrak. n) Lan-egutegia, ordutegiak, lanaldiak, oporrak, baimenak eta mugigarritasun funtzionala eta geografikoa, baita giza baliabideak estrategikoki planifikatzeko irizpide orokorrak ere, enplegatu publikoen lan-baldintzetan eragina duten alderdiei dagokienez.
2. **NEGOZIAZIOA**		• Negoziazioak, aurrez zerrendaturiko gaien artean, **bi aldeek egoki iritzitakoak JASO BEHAR DITU**. • Negoziatzeko betebeharretik **KANPO** DAUDE beren **antolaketa-eskubideei, herritarrek** funtzionario publikoen aurrean **eskubidea erabiltzeari** eta administrazio-**egintzak eta -xedapenak prestatzeko prozedurari** eragiten dieten administrazio publikoen erabakiak. • Akordioak toki-erakundeei dagozkien organoen eskumeneko gaiei buruzkoak izango dira. Akordioek balio izan dezaten eta eraginkorrak izan daitezen, organo horiek dagokien esparruan **berariaz eta formalki onetsi** behar dituzte. • Aldeak bat etorrita, itunen eta akordioen **jarraipena egiteko batzordeak** ezar daitezke.
3. AGENTEAK	3. 1 **UDAL BAKOITZEKO NEGOZIAZIOAN ESKU HARTZEN DUTEN AGENTEAK**	a) **Ordezkaritza handiena duten sindikatuen** ordezkariak eta **langileen batzordeetako eta komiteetako ordezkarien % 10 edo gehiago** lortu dituztenak **(sindikatu horietako afiliatuek aukeratzen dituzte)**. b) **Udaleko** ordezkariak.
	3.2 **FORU- ETA TOKI-ADMINISTRAZIOAREN ESPARRU OROKORREKO NEGOZIAZIOAN ESKU HARTZEN DUTEN AGENTEAK**	a) Ordezkari gehien duten sindikatuak. b) Autonomia-erkidegoko **foru- eta toki-administrazioko hauteskundeetan ordezkarien % 10 edo gehiago** lortu dituzten sindikatuak. c) **Udalerrien elkarteak**, eta, zehazki, EUDEL (Euskadiko Udalen Elkartea) edo euskal udalerrietan ordezkaritza handiena duena, **bai eta udalez gaindiko toki-entitateak ere**. Ondorio horietarako, udalerriek **aukera izango dute** tokian tokiko negoziazio kolektiboari **atxikitzeko, negoziazioa hasi aurretik edo hura hasi eta gero**. Halaber, administrazio edo entitate publikoak autonomia-erkidego bakoitzeko lurraldearen barruan **lortutako akordioetara** edo udalerriez gaindiko esparruan lortutako akordioetara **atxiki daitezke**.
	3.3 **MAHAIAK ERATZEA**	Nolanahi ere, **MAHAI BALIODUNAK ERATZEKO, sindikatuek** dena delako eremuko **ordezkatze-organo bateratuetako kideen % 50 ordezkatu behar dituzte gutxienez**.
4. **NEGOZIAZIOAREN ONDORIOZKO AKORDIOAK FORMALIZATZEA**		a) Langileen eta udalen arteko harremanak arautzen dituzten akordioak eta hitzarmenak **bereizita zehaztu behar dira funtzionarioentzat eta langileentzat**. b) Foru- eta toki-administrazio osorako egiten den akordioa edo proposamena aplikatu ahal izateko, **berariaz onetsi** behar dute udal bakoitzak eta bere enplegatuen ordezkariek. c) Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuak lehenengo aldiz onartzen du 37. artikuluan ezarritakoaren arabera funtzionarioen eta langile lan-kontratudunen gai eta lan-baldintza orokor berberak jasotzen dituzten itun eta akordioek Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuan bertan aurreikusitako kontsiderazioa eta ondorioak izango dituela funtzionarioentzat eta **Langileen Estatutuaren 83. artikuluan aurreikusitako kontsiderazioa eta ondorioak** izango dituela langile lan-kontratudunentzat. Era berean, adierazten du eginiko itun eta akordioak, berretsi ondoren, berriz administrazio eskudun bakoitzak zehazturiko **Bulego Publikora bidali behar** direla eta **dagokion agintaritzak** lurralde-esparruaren arabera dagokion **aldizkari ofizialean argitaratzeko aginduko** duela.

Legeria: Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutua, 31. artikulutik 46.era eta bosgarren xedapen iragankorra
Euskal Enplegu Publikoaren Legea, 191. artikulua eta hurrengoak
9/1987 Legea, ekainaren 12koa, Administrazio Publikoen zerbitzura dauden langileen ordezkaritza-organo, lan-baldintzen zehaztapen eta partaidetzari buruzkoa

¿QUÉ ES UN CONFLICTO?

EL CONFLICTO FORMA PARTE DE LA NATURALEZA HUMANA	Las personas **somos diferentes** y esas diferencias generan puntos de vista diversos, intereses contrapuestos, valores en contradicción...
EL CONFLICTO ES, EN CONSECUENCIA, **MUESTRA DE VIDA**	Los conflictos, en sí mismos, no son ni buenos ni malos. Es **la forma en que los afrontamos la que puede convertirlos en fuente de riqueza y aprendizaje o de dolor y sufrimiento**. **El objetivo** no es lograr un equipo o una organización sin conflictos, sino **que sepan afrontarlos y convertirlos en energía positiva,** para el equipo o la organización. **No hay vida sin conflicto**. El problema no son los conflictos, sino nuestra **habilidad para manejarlos**. El conflicto puede ser una oportunidad si se sabe gestionar.
DESDE UNA PERSPECTIVA ORGANIZACIONAL, **TODO CONFLICTO CUMPLE UNA FUNCIÓN**	**Sirve a algo**, aunque sea a **dar voz a un malestar**. Por ello, el conflicto organizacional ha de ser considerado como un síntoma de algo que está ocurriendo en la organización y las personas que le dan voz hacen **una importante contribución a la organización**, al permitir hacer visible algo que no lo está de manera explícita. El **conflicto es un síntoma** y nos dice mucho sobre lo que está pasando y no aflora de manera explícita.
ASPECTOS MANIFIESTOS Y **ASPECTOS LATENTES** DEL CONFLICTO	En todo conflicto, podemos identificar unos **aspectos manifiestos**, como lo que se dice, lo que se hace, las estrategias que se utilizan, los aspectos objetivos planteados… y unos **aspectos latentes** de carácter emocional y sistémico.
PODEMOS **DEFINIR CONFLICTO** COMO	**Aquella situación en la que dos o más personas, grupos u organizaciones sostienen, simultáneamente y en competencia, intereses, objetivos, valores o explicaciones diferentes**. Los conflictos son situaciones en las que **dos o más personas entran en oposición o desacuerdo** porque sus posiciones, intereses, necesidades, deseos o valores son incompatibles o son percibidos como incompatibles, donde **juegan un papel muy importante las emociones y sentimientos** y donde **la relación entre las partes en conflicto puede salir fortalecida o deteriorada** en función de cómo sea el proceso de resolución del conflicto
SIN EMBARGO, **UN CONFLICTO ES UNA EXPERIENCIA SUBJETIVA**	**Se sustenta en una valoración por parte de quién lo define como tal**. Así, **podemos encontrar situaciones objetivamente iguales** que, en un caso, suponen un fuerte conflicto, mientras que en otro pasan como algo prácticamente intrascendente. Esta base subjetiva del conflicto permite entender por qué mientras una parte se siente cómoda ante unos determinados acontecimientos, la otra puede sentir que hay un conflicto intenso. Una **actitud de escucha** nos ayudará a identificar, de manera temprana, situaciones de conflicto que son vividas como tal por otras personas o grupos, aunque para mí no tengan esa característica.
LOS CONFLICTOS GENERAN CAMPOS EMOCIONALES	Es **necesario contemplar y gestionar esos campos emocionales, para poder abordarlos de una manera efectiva**. No es posible una resolución adecuada de un conflicto que no tenga presente esos aspectos emocionales y sistémicos. En el conflicto siempre están presentes las emociones, y la principal dificultad para gestionar adecuadamente un conflicto reside en ser capaces de evitar que nuestras emociones nos atrapen. Necesitamos lograr **tener a nuestras emociones como aliadas.** Si no son considerados, cualquier resolución del conflicto tendrá un carácter más o menos temporal, ya que no se ha dado salida a aspectos significativos que están en su base.
EL CONFLICTO ES MOTOR DE CAMBIO ORGANIZACIONAL	Es motor del cambio organizacional, **al provocar el cuestionamiento de las situaciones existentes** Puede ser una significativa **fuente de cohesión grupal,** cuando se manifiesta como confrontación con otro grupo u organización. Asimismo, el conflicto también tiene consecuencias positivas, derivadas del incremento de tensión que produce, y que, mientras se mantenga en determinados umbrales, **puede provocar un incremento de la motivación de las personas del equipo, despertando su lado más creativo e innovador**.

ZER DA GATAZKA?

GATAZKA PERTSONEN IZAERAREN ALDERDI BAT DA	Pertsonak **desberdinak gara**, eta desberdintasun horiek hainbat ikuspegi sortzen dituzte, interes kontrajarriak, balio kontraesankorrak...
GATAZKA, BERAZ, **BIZITZAREN ADIERAZGARRI BAT DA**	Gatazkak, bere horretan, ez dira ez onak, ez txarrak. **Gatazkei aurre egiteko modua da horiek aberastasun- eta ikasbide-iturri bihur ditzakeena, edo min- eta sufrimendu-iturri bihur ditzakeena**. **Helburua** ez da gatazkarik gabeko talde edo erakundea lortzea; aitzitik, **gatazkei aurre egiten jakitea eta horiek energia positiboa bilakatzea da**, talde eta erakunde guztiarentzat. **Ez dago gatazkarik gabeko bizitzarik**. Arazoa ez dira gatazkak, gatazkak **kudeatzeko dugun trebetasuna baizik**. Gatazka aukera bat izan daiteke, kudeatzen jakinez gero.
ANTOLAMENDUAREN IKUSPEGITIK, **GATAZKA OROK BETETZEN DU FUNTZIO BAT**	**Zerbaitetarako balio du**, **ezinegonen bati ahotsa emateko** bada ere. Hori dela eta, antolamendu-gatazka erakundean gertatzen ari den zerbaiten sintomatzat hartu behar da, eta horri ahotsa ematen diotenek **erakundeari ekarpen garrantzitsua egiten diote**, modu esplizituan agerian ez dagoen zerbait azaleratzen dutelako. **Gatazka sintoma bat da**, eta asko esaten digu gertatzen ari denari eta esplizituki azaleratzen ez denari buruz.
GATAZKAREN **AGERIKO ETA EZKUTUKO ALDERDIAK**	Gatazka guztietan, **ageriko alderdiak** (esaten eta egiten dena, erabiltzen diren estrategiak, proposatzen diren alderdi objektiboak...) eta **ezkutuko alderdiak** (izaera emozionala eta sistemikoa dutenak) identifika daitezke.
HONELA DEFINI DEZAKEGU **GATAZKA**	**Aldi berean eta elkarrekiko lehian bi pertsona, talde, antolakunde edo gehiagok interes, helburu, balio edo azalpen desberdinak dituzten egoera**. Gatazketan, **bi pertsona edo gehiago elkarren aurka jartzen dira edo ez datoz bat**, beren jarrerak, interesak, beharrak, nahiak edo balioak bateraezinak direlako edo bateraezintzat hartzen direlako, eta hor **emozioek eta sentimenduek zeregin garrantzitsua dute**, eta **gatazkan dauden alderdien arteko harremana indartuta edo hondatuta atera daiteke**, gatazka konpontzeko prozesuaren arabera.
DENA DEN, **GATAZKA ESPERIENTZIA SUBJEKTIBOA DA**	**Gatazka gisa definitzen duenak egiten duen balorazioa du oinarri**. Hori horrela, **objektiboki berdinak diren egoerak aurki ditzakegu** eta kasu batean gatazka handitzat har daitezke, eta beste kasuetan inolako garrantzirik ez duen zerbait balitz bezala geratu. Gatazkaren oinarri subjektibo horri esker uler dezakegu zergatik sentitzen den eroso alde bat gertakizun jakin batzuen aurrean, eta zergatik senti dezakeen besteak gatazka bizia dagoela. **Entzuteko jarrera** hartzen badugu, laster identifikatu ahal izango ditugu beste pertsona edo taldeek gatazkatsutzat jotzen dituzten egoerak, guretzat gatazkatsuak ez badira ere.
GATAZKEK EREMU EMOZIONALAK SORTZEN DITUZTE	**Eremu emozional horiek aintzat hartu eta kudeatu behar dira, horiei modu eraginkorrean heldu ahal izateko**. Ez da posible gatazka bati irtenbide egoki bat ematea alderdi emozional eta sistemiko horiek aintzat hartu gabe. Gatazkan beti daude emozioak, eta gure emozioen mende ez erortzeko gai izatea da gatazkak behar bezala kudeatzeko zailtasun nagusia. **Gure emozioak aliatu gisa izatea** lortu behar dugu. Horiek aintzat hartzen ez badira, gatazkari ematen zaion edozein irtenbide aldi baterakoa izango da, ez baitzaie irtenbiderik eman gatazkaren oinarrian dauden alderdi garrantzitsu horiei.
ERAKUNDEAN ALDAKETAK ERAGITEKO MOTORRA DA GATAZKA	Erakundean aldaketak eragiteko motorra da, dauden egoerak zalantzan jartzea dakarrelako. **Taldea kohesionatzeko iturri** nabarmena izan daiteke, beste talde edo antolakunde batekiko aurkaritza gisa agertzen denean. Horretaz gainera, gatazkak ondorio positiboak ere baditu, tentsioak gora egiten duelako eta, hori maila jakin batzuetan mantentzen bada, **taldea osatzen duten pertsonen motibazioak gora egitea eragin dezakeelako eta horien alderdirik sortzaileena eta berritzaileena piztu**.

Los conflictos pueden tener **CAUSAS VARIADAS** que incluso pueden articularse y complementarse entre sí	
CONFLICTOS **RELACIONADOS CON LA INFORMACIÓN O LOS DATOS DISPONIBLES**	• Las partes en conflicto **no disponen de toda la información** y cada una posee una parte diferente. • **No se han dejado claras las expectativas**, lo que se espera de la otra persona, lo que genera una percepción de incumplimiento o frustración. • Hay **errores** en la información que se maneja. • Los datos disponibles son **interpretados de manera diferente**. • **No se da el mismo peso** a las diferentes informaciones disponibles. • Se utilizan **diferentes criterios para evaluar** la información disponible.
CONFLICTOS DE **COMUNICACIÓN**	• Los **estilos de comunicación** de cada una de las partes son muy diferentes y generan **incomprensión mutua**. • La **manera en que se expresan** las partes despierta **agresividad** en la otra. • Hay **falta de claridad** en lo que se quiere decir. • Lo que se dice es puesto **bajo sospecha** por falta de credibilidad en la persona interlocutora.
CONFLICTOS DE **RELACIÓN**	• Se atribuyen a la otra parte **intenciones negativas**. • Se considera que la otra parte se coloca, en la relación, en **un lugar que no le corresponde**. • Existen **percepciones erróneas de la otra persona**. • Se clasifica a la otra persona sobre la base de **estereotipos**. • Se han producido de manera reiterada **comportamientos que valoramos negativamente**. • Consideramos que la otra persona se comporta de una manera que **nos falta al respeto** o **pone en riesgo nuestra seguridad** (física, de nuestra imagen pública…). • El tema o la otra persona nos genera **emociones intensas de carácter negativo**.
CONFLICTOS DE **INTERESES**	• El tema que genera el conflicto es percibido o realmente implica que **una de las dos partes pierde si la otra obtiene** lo que desea. • Un determinado **procedimiento** de abordar el asunto es visto como **perjudicial** por una de las partes. • La resolución del asunto puede suponer una **pérdida de poder, real o percibido**, para una de las partes. • Solo se considera factible una resolución al tema que satisfaga los **deseos de venganza** por historias pasadas. • **Se desconfía** de los intereses reales de la otra parte.
CONFLICTOS DE **VALORES**	• Las partes tienen **modos de vida** muy diferentes. • Se sostienen **creencias, ideologías y/o religiones** distintas. • La **manera de llevar a la práctica los valores compartidos** es muy diferente y una de las partes la considera contradictoria con esos valores. • Se da **diferente peso a valores** aparentemente compartidos. • Se valoran las estrategias de la otra parte como **juego sucio**. • Una de las partes considera que la otra **no respeta sus valores**.
CONFLICTOS **ESTRUCTURALES**	• Hay una **desigualdad de poder y de autoridad**. • Los **recursos materiales están desigualmente distribuidos**. • Existen unas **pautas de comportamiento o de interacción que son destructivas**. • Hay **limitaciones de tiempo**. • Existen **factores geográficos, físicos o ambientales** que dificultan la cooperación.

Gatazkek **ASKOTARIKO ARRAZOIAK** izan ditzakete, beren artean antolatu eta osatu ere egin daitezkeenak	
DAGOEN INFORMAZIOAREKIN EDO DAUDEN DATUEKIN LOTUTAKO GATAZKAK	• Gatazka duten aldeek **ez dute informazio guztia**, eta bakoitzak informazioaren zati bat du. • **Asmoak ez dira argi utzi**, hau da, zer espero den bestearengandik, eta, beraz, frustrazioaren edo hutsegitearen sentsazioa sortzen da. • Darabilten informazioan **akatsak** daude. • Datuak **modu desberdinean interpretatzen dira**. • **Ez zaio garrantzi bera ematen** informazio guztiari. • **Irizpide desberdinak** erabiltzen dira dagoen informazioa **ebaluatzeko**.
KOMUNIKAZIO-GATAZKAK	• Alde bakoitzak komunikatzeko bere estiloa du, eta, hori dela eta, **ez dute elkar ulertzen**. • **Aldeek duten adierazteko moduak oldarkortasuna** eragiten du beste aldean. • **Ez dute argi esaten** esan nahi dutena. • Esaten dena **susmopean** jartzen da solaskidearen sinesgarritasun falta dela eta.
HARREMAN-GATAZKAK	• Beste aldeari **asmo txarrak** egozten zaizkio. • Harremanean beste aldea **ez dagokion leku batean** kokatzen dela irizten zaio. • **Beste pertsonari buruzko pertzepzio okerrak** daude. • Beste pertsona **estereotipoetan** oinarrituz sailkatzen da. • **Txartzat jotzen ditugun jokabideak** gertatu dira behin eta berriz. • Beste pertsonak bere jokabidearekin **errespetua galtzen** digula deritzogu, edo **gure segurtasuna arriskuan** jartzen duela (fisikoa, gure irudi publikoarena...). • Gaiak edo beste pertsonak **emozio negatibo biziak** eragiten dizkigu.
INTERES-GATAZKAK	• Gatazka eragiten duen auziak berekin dakar **aldeetako batek nahi duena lortuz gero beste aldeak galdu egiten duela**, edo hala iruditzen zaie. • Gaiari heltzeko **prozedura** jakin bat **kaltegarritzat** jotzen du alde batek. • Gaia konpontzeak ekar dezake alderen batek **boterea galtzea benetan edo itxura batean**. • Iraganeko istorioek eragindako **mendeku-nahia** asetzen duen irtenbide bat soilik hartzen da egingarritzat. • Beste aldearen benetako interesekiko **mesfidantza dago**.
BALIOEN ARTEKO GATAZKAK	• Aldeek **bizimodu** oso desberdinak dituzte. • **Sinesmen, ideologia edota erlijio** desberdinak dituzte. • **Partekatutako balioak gauzatzeko modua** oso desberdina da, eta aldeetako batek uste du modu hori ez datorrela bat balio horiekin. • Itxuraz partekatzen diren balioei **ez diete garrantzi bera ematen**. • Beste aldearen estrategiak **joko zikintzat** hartzen dira. • Aldeetako batek uste du besteak **ez dituela errespetatzen beraren balioak**.
EGITURAZKO GATAZKAK	• **Aldeak** daude **boterean eta agintean**. • **Baliabide materialak ez dira berdin banatzen**. • **Jokamolde edo elkarreragin-modu suntsigarriak** daude. • **Denbora-mugak** daude. • Lankidetza eragozten duten **faktore geografikoak, fisikoak edo ingurunekoak** daude.

CONFLICTO → **AL MENOS** → **DOS PARTES IMPLICADAS**

ES CLAVE IDENTIFICAR A TODAS LAS PERSONAS O GRUPOS AFECTADOS por el conflicto,	• Los **afectados** directamente • Los **afectados** indirectamente
TODAS TIENEN UN PAPEL A CONSIDERAR EN EL PROCESO DE GESTIÓN DEL CONFLICTO, si bien no se puede perder de vista quienes son las partes directamente afectadas	

Cada una de las personas o grupos que participan en la situación tienen **su propia explicación de lo que ocurre** **PARA PODER AFRONTAR UN CONFLICTO CON ÉXITO ES NECESARIO EXPLORAR:**	• Cómo **percibe cada** parte la situación. • Cómo **interpreta** lo que ocurre. • Qué **miedos** le genera. Qué teme que ocurra. Qué emociones le despierta. • Qué papel atribuye a unos y otros.	**Si somos una de las partes implicadas** tendremos inclinación a dar por buena nuestra versión de la situación. No tenemos por qué rechazarla, pero **si queremos hacer del conflicto una oportunidad, debemos entender qué es lo que las otras partes ven.**
Especialmente significativo es IDENTIFICAR LOS INTERESES PROFUNDOS que cada parte pone en juego en el conflicto ya que, finalmente, serán esos intereses los que influyan de manera determinante en la respuesta que se dé a la situación	En muchas ocasiones, los **intereses expresados inicialmente** son solo un síntoma o la punta del iceberg de otros **intereses latentes.**	
	La búsqueda de una resolución positiva de un conflicto pasa por **buscar un punto de encuentro** y ese punto **puede ser más fácil de alcanzar en torno a esos intereses profundos** que sobre los aspectos concretos que han generado la situación.	
Una vez identificadas las partes afectadas y su diferente nivel de implicación, es necesario valorar su diferente **GRADO DE PODER**	Se entiende por poder la **capacidad que una persona o grupo tiene para lograr que otro haga o deje de hacer algo**, independientemente de que lo desee o no.	
	¿Qué capacidad tiene cada una de las partes de influir en las otras? ¿De qué forma ejerce esa influencia: la fuerza, la presión psicológica, la seducción, la recompensa, etc.? ¿Es una relación entre iguales o hay desigualdades estructurales? ¿Qué coaliciones se dan o se podrían dar? ¿Qué partes están más alejadas y cuales más próximas? **Según cuál sea la respuesta a estas preguntas** pueden abrirse **diferentes opciones de abordar la situación**.	
También es importante tomar conciencia de **QUÉ EMOCIONES** produce el tema, el conflicto y las otras personas implicadas a cada uno de quienes participan en la situación	Estas emociones **pueden hacerse presentes de diferentes maneras** en el proceso de desarrollo del conflicto.	
	Asimismo, cada persona tiene diferente grado de expresividad de las emociones y las formas en que las expresa son también diferentes. Hemos de ser conscientes de ello y **dar cabida a las diferentes formas de manifestación emocional,** siempre dentro de los límites del respeto.	
	En los inicios de un conflicto, pueden aflorar las emociones con más intensidad. Es importante **evitar situaciones, en esos momentos, que acentúen la confrontación y** puedan llevar a hacer o decir cosas que hagan más difícil la resolución positiva del conflicto. En esas fases es importante **serenar los ánimos reconociendo el papel de todas las partes interesadas y dando oportunidad** a que puedan poner sobre la mesa sus puntos de vista sin ser inmediatamente cuestionadas.	

Guía Local - ISBN 978-84-7777-690-1

GATAZKA → **GUTXIENEZ** → **GATAZKA BI ALDE TARTEAN**

FUNTSEZKOA DA gatazkaren ERAGINA JASATEN DUTEN PERTSONA EDO TALDE GUZTIAK IDENTIFIKATZEA,	• **Zuzenean** jasaten dutenak • **Zeharka** jasaten dutenak
DENEN ZEREGINA HARTU BEHAR DA AINTZAT GATAZKA KUDEATZEKO PROZESUAN, baina ezin zaigu ahaztu zer aldek jasaten duten zuzeneko eragina	

Egoeran parte hartzen duen **pertsona edo talde bakoitzak bere modura azaltzen du gertatzen ari dena** **GATAZKEI ONDO HELTZEKO, BEHARREZKOA DA HAUEK AZTERTZEA:**	• Nola **hautematen** duen egoera alde bakoitzak. • Nola **interpretatzen** duen gertatzen dena. • Zer **beldur** sortzen dizkion. Zer gertatzeko beldur den. Zer emozio pizten dizkion. • Zer zeregin egozten dizkien batzuei eta besteei.	**Esku hartzen duten aldeetako bat bagara**, joera izango dugu egoerari buruz dugun bertsioa ontzat jotzeko. Ez dugu zertan gure bertsioa ukatu; baina, **gatazka aukera bihurtu nahi badugu, beste aldeek zer ikusten duten ulertu behar dugu**.
Biziki garrantzitsua da alde bakoitzak gatazkan arriskatzen dituen **INTERES SAKONAK IDENTIFIKATZEA**; izan ere, azkenik, interes horiek eragin erabakigarria izango dute egoerari ematen zaion irtenbidean	Sarritan, **hasiera batean adierazten diren interesak horien azpian dauden** bestelako **interesen sintoma** edo icebergaren tontorra baino ez dira.	
	Gatazketan irtenbide positibo bat bilatzeko, **adostasun-puntu bat bilatu** behar da, eta **errazagoa da** puntu hori **interes sakon horien inguruan lortzea**, egoera eragin duten alderdi zehatzen inguruan baino.	
Kaltetutako aldeak eta haien esku-hartzea identifikatu ostean, haietako bakoitzaren **BOTEREA** zenbaterainokoa den baloratu behar da	Boteretzat hartzen da **pertsona edo talde batek beste pertsona edo talde bati zerbait eginarazteko edo utzarazteko duen gaitasuna**, alde batera utzita azken horiek hori egin nahi duten edo ez.	
	Zer eragin-gaitasun du alde bakoitzak besteen gainean? Nola lortzen du eragin hori izatea: indarrez, presio psikologikoa eginez, limurtuz, sarien bidez...? Berdinen arteko harremana da edo egiturazko aldeak daude? Zer koalizio daude edo egon daitezke? Zein alde dago urrunago eta zein gertuago? **Galdera horiei ematen zaien erantzunaren arabera, egoerari aurre egiteko hainbat aukera** zabal daitezke.	
Garrantzitsua da, era berean, gaiak, gatazkak eta tartean diren beste pertsonek egoeran parte hartzen dutenei **ZER EMOZIO** sortzen dizkieten jabetzea	Emozio horiek **hainbat eratara azalera daitezke** gatazkaren garapenean.	
	Horretaz gainera, pertsona bakoitzak bere erara eta gehiago edo gutxiago azaltzen ditu emozioak. Horretaz konturatu behar dugu, eta **leku eman behar diegu emozioak adierazteko modu guztiei**, errespetuzkoak baldin badira.	
	Gatazka bat hasi berri denean, emozioak biziagoak izan daitezke. **Une horietan, garrantzitsua da borroka areagotu dezaketen egoerak saihestea**, gatazkari irtenbide positiboa ematea zailduko duten gauzak ez egitea edo ez esatea. Fase horietan, garrantzitsua da **giroa baretzea, alde interesdun guztien zeregina onartuz eta haiei aukera emanez** beren ikuspegiak inork berehala zalantzan jarri gabe mahaian jartzeko.	

Un conflicto **es VIVIDO MAYORITARIAMENTE COMO UNA SITUACIÓN DE RIESGO** y, **ante ella, se producen DIFERENTES TIPOS DE ACTITUDES** que pueden resumirse en **huir, luchar o acordar.**

ACTITUD	COMPORTAMIENTOS
1. EVITAR	• Esquivar el tema o a las personas implicadas. • Sacar otros temas para desviar la atención hacia ellos. • Hacer preguntas que no vienen a cuento. • Hacer comentarios para trivializar el asunto. • Posponer con cualquier excusa.
2. ACOMODARSE	• No plantear los propios puntos de vista, sus deseos y necesidades. • Dar prioridad a las necesidades o peticiones de la otra parte por encima de las suyas. • Aceptar lo que la otra parte plantea.
3. CONFRONTACIÓN DIRECTA	• Oponerse abiertamente a los otros. • Cuestionar lo que plantean. • Ignorar sus puntos de vista y sus necesidades para tratar de sacar adelante su punto de vista.
4. RESISTENCIA	• Poner todo tipo de pegas a lo que la otra parte plantea. • Convertir el debate sobre las formas y el procedimiento a seguir en el punto central. • Desviar la atención hacia aspectos marginales o secundarios.
5. BUSCAR UN ACUERDO	• Tratar de encontrar opciones que pueden ser aceptables por ambas partes. • Intentar entender el punto de vista de las otras partes para proponer opciones intermedias. • Ceder o modificar los propios planteamientos para facilitar un punto de encuentro.

POR OTRA PARTE, A LA HORA DE AFRONTAR UN CONFLICTO, HAY **ACTITUDES QUE INFLUYEN NEGATIVAMENTE** EN SU RESOLUCIÓN	
Estas actitudes están **RELACIONADAS CON LA FORMA EN LA QUE VEMOS A LAS OTRAS PERSONAS**, las **historias que nos contamos** sobre ellas, las **actitudes que les atribuimos.**	
Estas actitudes están INFLUIDAS POR nuestras experiencias previas, la influencia de nuestro entorno, la cultura o las características de personalidad:	
Búsqueda de culpables	Si algo me perjudica o me sienta mal, alguien ha de tener la culpa de ello y, en consecuencia, tiene que pagar por ello.
Desconfianza	No te puedes fiar de nadie. Cualquier ambigüedad es interpretada como una amenaza.
Agresividad	Esta actitud queda bien reflejada en algunos refranes populares: «La mejor defensa es un buen ataque», «El que da primero da dos veces».
Intolerancia ante las diferencias	La diferencia genera recelo e incomodidad. Es vivida de manera agresiva.
Maniqueísmo	El mundo se divide en buenos y malos. Los que no están conmigo están contra mí.
Suma cero	Si el otro saca algo positivo, necesariamente eso implica que yo obtengo algo negativo. No es posible que las dos partes ganen. Si una gana, la otra pierde.
Despersonalización	La otra parte deja de ser percibida como un ser humano.

Gatazkak **ARRISKU-EGOERATZAT HARTZEN DIRA GEHIENBAT**, eta, **haien aurrean, ERA BATEKO ETA BESTEKO JARRERAK har daitezke**, hiru hauetara bildu daitezkeenak: **ihes egitea, borrokatzea edo ados jartzea**.

JARRERA	JOKABIDEAK
1. SAIHESTEA	• Gaia edo esku hartu duten pertsonak saihestea. • Beste gai batzuk ateratzea, arreta horietara joan dadin. • Gaiarekin zerikusirik ez duten galderak egitea. • Gaia arinkeriaz jorratzeko adierazpenak egitea. • Edozein aitzakiarekin geroko uztea.
2. EGOKITZEA	• Norberaren ikuspegiak, nahiak eta beharrak ez adieraztea. • Beste aldeen behar edo eskakizunei norberaren behar eta eskakizunei baino garrantzi handiagoa ematea. • Beste aldeak proposatzen duena onartzea.
3. ZUZENEKO BORROKA	• Argi eta garbi besteen aurka azaltzea. • Proposatzen dutena zalantzan jartzea. • Haien ikuspegi eta beharrei jaramonik ez egitea, norberaren ikuspegia gailentzeko.
4. ERRESISTENTZIA	• Era guztietako trabak jartzea beste aldeak proposatzen duenari. • Moduari eta prozedurari buruzko eztabaida eztabaidaren muinean jartzea. • Arreta bazterreko edo bigarren mailako gaietara bideratzea.
5. ADOS JARTZEN SAIATZEA	• Bi aldeek onar ditzaketen aukerak bilatzen saiatzea. • Beste aldeen ikuspegia ulertzen saiatzea, erdibideko aukerak proposatu ahal izateko. • Norberaren iritzietan amore ematea edo horiek aldatzea, errazago ados jarri ahal izateko.

BESTALDE, GATAZKEI AURRE EGITEAN ETA HAIEK KONPONTZEKO ORDUAN, **JARRERA BATZUK KALTEGARRIAK IZATEN DIRA**	
Jarrera horiek **BESTE PERTSONAK IKUSTEKO DUGUN MODUAREKIN LOTUTA** DAUDE, haiei buruz **elkarri kontatzen dizkiogun kontuekin eta haiei egozten dizkiegun jarrerekin**.	
Jarrera horietan ERAGITEN DUTE aurretik izan ditugun bizipenek, gure inguruneak, kulturak edo nortasunaren ezaugarriek:	
Errudunak bilatzea	Zerbaitek kalte egiten badit, edo gaizki hartzen badut, norbaitek du horren errua eta, ondorioz, ordaindu egin behar du.
Mesfidantza	Ezin zara inorekin fidatu. Edozein anbiguotasun mehatxu gisa hartzen da.
Oldarkortasuna	Jarrera hori oso ongi islatzen dute zenbait esaerak: «Defentsarik onena, eraso ona», «Lehenengo jotzen duenak, bi bider jotzen du».
Intolerantzia desberdintasunen aurrean	Mesfidantza eta deserosotasuna sortzen ditu desberdintasunak. Modu oldarkorrean hartzen da.
Manikeismoa	Mundua on eta gaiztoen artean banatzen da. Nire alde ez daudenak nire aurka daude.
Zero batura	Besteak positiboa den ezer eskuratzen badu, nik zerbait negatiboa eskuratzen dudala esan nahi du. Ez da posible bi alderdiek irabaztea. Batek irabazten badu, besteak galdu egiten du.
Despertsonalizazioa	Beste aldea ez da gizakitzat hartzen.

MÉTODO	CARACTERÍSTICAS	SUJETO DE LA DECISIÓN
EVITACIÓN	Se **elude el conflicto** por lo que no hay ni vencedores ni vencidos. Riesgo de que resurja con más fuerza o con otras formas.	Partes implicadas
CONVERSACIÓN	**Abordaje informal** que busca un acuerdo bueno para ambas partes.	
NEGOCIACIÓN	**Proceso formal** en el que las partes van **planteando propuestas**. Puede contar con apoyo externo.	
MEDIACIÓN	**Proceso formal** con apoyo de un tercero que ejerce de **mediador**. El acuerdo lo toman las partes implicadas.	
ARBITRAJE	Se acude a un tercero para que **adopte una decisión**. Las partes acuerdan aceptar la decisión que el **árbitro** adopte.	Árbitro
SENTENCIA	Se acude a **una instancia legal** para que **tome una decisión**.	Juez
ACCIÓN DIRECTA NO VIOLENTA	Se opta por la **confrontación, pero sin usar la violencia**. La dinámica es de **vencedores y vencidos** lo que puede ser **germen de futuros conflictos.**	La parte vencedora
VIOLENCIA	Se resuelve mediante el **uso de la fuerza**. Hay un **vencedor y un vencido** lo que suele ser **germen de conflictos futuros**.	

La **SUPERACIÓN DE UN CONFLICTO** de manera saludable y sostenible implica **ENCONTRAR UNA ALTERNATIVA que permita que TODAS LAS PARTES IMPLICADAS PUEDAN VALORAR QUE GANAN CON EL RESULTADO («ganar-ganar»).** Las dinámicas que se cierran con vencedores y vencidos pueden sentar las bases para un nuevo conflicto. Cuando se aborda un conflicto en el marco de una organización, la resolución del conflicto **ha de conllevar que también la organización como tal gane** («ganar-ganar-ganar»).

LOS ELEMENTOS BÁSICOS QUE PUEDEN AYUDARNOS A SUPERAR CON ÉXITO UN CONFLICTO SON:		
1. PREPARARSE	La preparación es una parte esencial para la resolución de un conflicto. Los expertos en negociación afirman que se requiere **un minuto de preparación por cada minuto de negociación**.	**PREPARARSE IMPLICA** • Revisar las historias que te cuentas a ti mismo. • Clarificar qué es lo que se quiere obtener y reflexionar sobre cuáles son los intereses detrás de lo evidente en cada una de las partes. • Concretar cuál sería su mejor alternativa a un acuerdo negociado. • Prepararse emocionalmente. • Reflexionar sobre las características de la otra persona y tratar de anticipar sus respuestas y reacciones. • Planificar la forma en que se va a enfocar la conversación. • Elegir un momento y un lugar adecuado.
2. COMENZAR CREANDO SEGURIDAD	No reaccione emocionalmente. Tome distancia para ver con perspectiva la situación. Presente la situación como si fuera una tercera historia. Póngase del lado de la otra parte subrayando que comprende que pueda tener una posición diferente. Busque neutralizar la ira, el temor y la inseguridad de la otra parte.	
3. EXPLORAR LOS OTROS PUNTOS DE VISTA	Trate de entender sus razonamientos y las emociones que subyacen. Pregunte para replantear el problema desde otras perspectivas.	
4. PLANTEAR PROPUESTAS	Sea claro y específico. Haga participar a la otra persona en la concreción de cómo llevar a cabo esas propuestas. Solicite su opinión sobre ellas, qué ve de positivo y qué ve de negativo. No presione, construya una pista donde pueda aterrizar con dignidad y sin sentirse derrotado.	
5. BUSCAR UN COMPROMISO	Haga explícitos los acuerdos y busque su ratificación por la otra parte. Concrete una forma de realizar el seguimiento a lo acordado. Ayude a la otra parte a conseguir comprensión con lo acordado por parte de quienes le apoyan.	
6. ESCUCHAR	Permanentemente, de manera activa, a lo largo de todo el proceso.	

METODOA	EZAUGARRIAK	ERABAKIAREN SUBJEKTUA
SAIHESTEA	**Gatazka saihesten denez**, ez dago ez garailerik, ez garaiturik. Indar handiagoarekin edo beste itxura batekin berriz sortzeko arriskua.	Esku hartu duten aldeak
ELKARRIZKETA	Bi aldeentzat akordio ona lortzeko **saio informala**.	
NEGOZIAZIOA	Aldeek **proposamenak egiten dituzten prozesu formala**. Kanpoko laguntza izan dezake.	
BITARTEKARITZA	**Bitartekari**-lana egiten duen hirugarren bat duen **prozesu formala**. Akordioa esku hartu duten aldeek egiten dute.	
ARBITRAJEA	Hirugarren batengana jotzen da, **erabaki bat har dezan**. **Arbitroak** hartzen duen erabakia onartzea adosten dute aldeek.	Arbitroa
EPAIA	**Lege-instantzia batera** jotzen da **erabaki bat har dezan**.	Epailea
INDARKERIAZKOA EZ DEN ZUZENEKO EKINTZA	**Konfrontazioa** erabiltzen da, **baina indarkeriarik erabili gabe**. **Garaileak eta garaituak** izaten dira, eta horrek **gatazkak eragin ditzake etorkizunean**.	Alde garailea
INDARKERIA	**Indarra erabiliz** ebazten da. **Garaile bat eta garaitu bat** egon ohi dira, eta horrek **gatazkak eragin ohi ditu etorkizunean**.	

Gatazkak modu osasungarrian eta iraunkorrean **gainditzeko**, lortu behar den **irtenbidean, alde guztiei bide eman behar zaie emaitzarekin irabazian gertatzen direla iruditzeko («irabazi-irabazi»)**. Garaile eta garaituekin amaitzen diren dinamikak beste gatazka bat sortzeko oinarria izan daitezke. Erakunde baten esparruan gatazka bati eusten zaionean, gatazkaren irtenbideak **ekarri behar du erakundeak berak ere irabaztea** («irabazi-irabazi-irabazi»).

HAUEK DIRA GATAZKAK BEHAR BEZALA GAINDITZEN LAGUN DIEZAGUKETEN OINARRIZKO ELEMENTUAK:		
1. PRESTATZEA	Prestatzea funtsezko elementua da gatazkak konpontzeko. Negoziazioan adituak direnek **negoziazio-minutu bakoitzeko prestatzeko minutu bat** behar dela baieztatzen dute.	**PRESTATZEAK ZERA DAKAR** • Zeure buruari kontatzen dizkiozun istorioak berrikustea. • Zer lortu nahi den argitzea eta alde bakoitzak agerikoa denaren atzean dituen interesen inguruan hausnartzea. • Eskain dezakezun negoziatutako akordiorik onenaren alternatiba zein litzatekeen zehaztea. • Emozionalki prestatzea. • Beste pertsonaren ezaugarrien inguruan hausnartzea, eta haren erantzun eta erreakzioak asmatzen saiatzea. • Elkarrizketari nola helduko zaion planifikatzea. • Une eta leku aproposak aukeratzea.
2. SEGURTASUNA SORTUZ HASTEA	Ez izan erreakzio emozionalik. Hartu distantzia, egoera ikuspegi zabalarekin ikusteko. Aurkeztu egoera hirugarren istorio bat balitz bezala. Jarri beste aldearen alde, beste jarrera bat izan dezakeela ulertzen duzula nabarmenduz. Saia zaitez beste aldearen sumina, beldurra eta ziurtasunik eza neutralizatzen.	
3. BESTELAKO IKUSPEGIAK ESPLORATZEA	Saiatu horien azpian dauden arrazoibideak eta emozioak ulertzen. Galdetu, arazoa beste ikuspegi batzuetatik planteatu ahal izateko.	
4. PROPOSAMENAK EGITEA	Izan argia eta zehatza. Proposamen horiek aurrera eramateko modua zehazteko orduan parte harrarazi beste pertsonari. Eskatu horiei buruzko iritzia, galdetu zer iruditzen zaion ona eta zer txarra. Ez eragin presiorik, eraiki duintasunez eta menderatuta sentitu gabe lur hartzeko moduko pista bat.	
5. KONPROMISO BAT BILATZEA	Esplizitu egin akordioak eta saiatu beste aldeak horiek berrets ditzan. Zehaztu adostutakoaren jarraipena egiteko modu bat. Lagundu beste aldeari aldekoek adostutakoa uler dezan.	
6. ENTZUTEA	Etengabean, modu aktiboan, prozesu guztian.	

MODALIDAD PREVENTIVA	
DESIGNACIÓN DE UNO O VARIOS TRABAJADORES O TRABAJADORAS	Sólo para empresas con menos de 500 personas trabajadoras (250 si incluyen trabajos peligrosos). Se designará a personas con **capacidad para desarrollar** las **funciones preventivas**, a las que se dotará de **medios y tiempo** para el ejercicio de sus funciones.
SERVICIO DE PREVENCIÓN PROPIO (SPP)	El ayuntamiento deberá constituir un **servicio de prevención propio** cuando concurra alguno de los siguientes supuestos: Que cuenten con más de 500 trabajadores/as. a) Que tengan entre 250 y 500 trabajadores/as con trabajos peligrosos. b) Que, tratándose de empresas no incluidas en los apartados anteriores, así lo decida la autoridad laboral, salvo que se opte por el concierto con un Servicio de Prevención Ajeno.
SERVICIO DE PREVENCIÓN MANCOMUNADO (SPM)	Podrán constituirse servicios de prevención mancomunados entre aquellas empresas y ayuntamientos que desarrollen **simultáneamente actividades en un mismo centro de trabajo, edificio o centro comercial**, siempre que quede **garantizada** la **operatividad y eficacia**. Por negociación colectiva o mediante los acuerdos a que se refiere el artículo 83, apartado 3, del Estatuto de los Trabajadores, o, en su defecto, por decisión de las empresas afectadas, podrá acordarse, igualmente, la constitución de servicios de prevención mancomunados entre aquellas empresas pertenecientes a un mismo sector productivo o grupo empresarial o que desarrollen sus actividades en un polígono industrial o área geográfica limitada.
SERVICIO DE PREVENCIÓN AJENO (SPA)	Cuando la designación de personas trabajadoras sea insuficiente, se haya asumido sólo parcialmente el desarrollo de las actividades preventivas por parte del SPP o no se hayan dado las obligaciones de creación de Servicio de Prevención, el Ayuntamiento deberá recurrir a uno o varios **servicios de prevención ajenos**, que colaborarán entre sí cuando sea necesario. Los y las **representantes de las personas trabajadoras deberán ser consultados con carácter previo** a la adopción de la decisión de concertar la actividad preventiva con uno o varios servicios de prevención ajenos. Los **criterios para la selección** de la entidad, así como las **características técnicas** del concierto, se debatirán, y en su caso **se acordarán, en el seno del Comité de Seguridad y Salud del Ayuntamiento.** La mayoría de los ayuntamientos, por tanto, tienen esta modalidad preventiva.
DELEGADOS DE PREVENCIÓN Y COMITÉ DE SEGURIDAD Y SALUD (CSS)	
DELEGADOS o DELEGADAS DE PREVENCIÓN	Los Delegados y Delegadas de Prevención son los representantes de las personas trabajadoras con **funciones específicas en materia de prevención de riesgos en el trabajo.** Serán designados por y entre los representantes del personal con arreglo a la siguiente escala: • Hasta 30 trabajadores/as: el Delegado/a de Prevención será el Delegado/a de Personal. • De 31 a 49 trabajadores/as: 1 Delegado/a de Prevención que será elegido por y entre los Delegados/as de Personal. • De 50 a 100 trabajadores/as: 2 Delegados/as de Prevención. • De 101 a 500 trabajadores/as: 3 Delegados/as de Prevención. • De 501 a 1.000 trabajadores/as: 4 Delegados/as de Prevención. • De 1.001 a 2.000 trabajadores/as: 5 Delegados/as de Prevención. • De 2.001 a 3.000 trabajadores/as: 6 Delegados/as de Prevención. • De 3.001 a 4.000 trabajadores/as: 7 Delegados/as de Prevención. • De 4.001 en adelante: 8 Delegados/as de Prevención.
COMITÉ DE SEGURIDAD Y SALUD	El Comité de Seguridad y Salud es el **órgano paritario y colegiado de participación destinado a la consulta regular y periódica de las actuaciones de la empresa en materia de prevención de riesgos**. • Se constituirá en todas las empresas o centros de trabajo que cuenten con 50 o más trabajadores/as. • Estará formado por los Delegados/as de Prevención, de una parte, y por el empresario/a y/o sus representantes en número igual al de los Delegados/as de Prevención, de la otra. • En las reuniones podrán participar, con voz, pero sin voto, los Delegados/as Sindicales y el personal responsable técnico de la prevención en la empresa que no estén incluidos en la composición a la que se refiere el párrafo anterior, trabajadores/as de la empresa que cuenten con una especial cualificación o información respecto de concretas cuestiones que se debatan en este órgano y personal técnico en prevención ajeno a la empresa, siempre que así lo solicite alguna de las representaciones en el Comité. • Se reunirá trimestralmente y siempre que lo solicite alguna de las representaciones en el mismo. • Estará facultado para: → Conocer directamente la situación relativa a la prevención de riesgos en el centro de trabajo, realizando a tal efecto las visitas que estime oportunas. → Conocer cuantos documentos e informes relativos a las condiciones de trabajo sean necesarios para el cumplimiento de sus funciones, así como los procedentes de la actividad del servicio de prevención, en su caso. → Conocer y analizar los daños producidos en la salud o en la integridad física de las personas trabajadoras, al objeto de valorar sus causas y proponer las medidas preventivas oportunas. → Conocer e informar la memoria y programación anual de servicios de prevención.

Legislación: Ley 31/1995, de 8 de noviembre, de Prevención de Riesgos Laborales
Real Decreto 39/1997, de 17 de enero, por el que se aprueba el Reglamento de los Servicios de Prevención

PREBENTZIO-MODALITATEA	
LANGILE BAT EDO GEHIAGO IZENDATZEA	500 langile baino gutxiagoko enpresentzat bakarrik (250, lan arriskutsuak egiten badituzte). **Prebentzio-eginkizunak** betetzeko **gai direnak** izendatuko dira, eta beren eginkizunak betetzeko **bitartekoak eta denbora** emango zaizkie.
PREBENTZIO-ZERBITZU PROPIOA (PZP)	Udalak **prebentzio-zerbitzu propioa** osatu beharko du egoera hauetan: 500 langile baino gehiago izatea. a) Lan arriskutsuak dituzten 250 eta 500 langile artean izatea. b) Aurreko apartatuetako enpresak ez izan arren hala erabakitzea lan-agintaritzak, salbu eta kanpoko prebentzio-zerbitzu batekin akordioa egiten denean.
PREBENTZIO-ZERBITZU MANKOMUNATUA (PZM)	Prebentzio-zerbitzu mankomunatuak osatu ahal izango dira **lantoki, eraikin edo merkataritza-zentro berean jarduerak aldi berean garatzen dituzten** enpresen eta udalen artean, baldin eta zerbitzuaren **eraginkortasuna eta efikazia** bermatzen badira. Negoziazio kolektibo bidez edo Langileen Estatutuko 83. artikuluaren 3. paragrafoan adierazten diren hitzarmenen bidez, edo, halakorik izan ezean, tartean diren enpresen erabakiz, prebentzio-zerbitzu mankomunatuak osatzea erabaki ahal izango da ekoizpen-sektore berari edo enpresa-talde berari dagozkion enpresen artean ere edo industrialde batean edo eremu geografiko mugatu batean diharduten enpresen artean ere.
KANPOKO PREBENTZIO-ZERBITZUA (KPZ)	Langileak izendatzea nahikoa ez denean, PZPk prebentzio-jarduerak bakarrik zati batean bere gain hartu dituenean edo Prebentzio Zerbitzua sortzeko betebeharrik ez denean, udalak **kanpoko prebentzio-zerbitzu** batera edo gehiagotara jo beharko du, eta, beharrezkoa denean, elkarrekin lan egingo dute. **Langileen ordezkariei aurretiaz galdetu beharko zaie,** hau da, kanpoko prebentzio-zerbitzu batekin edo gehiagorekin prebentzio-jarduera hitzartzeko erabakia hartu baino lehen. Entitatea **aukeratzeko irizpideak** eta akordioaren **ezaugarri teknikoak** eztabaidatu egingo dira, eta, hala badagokio, **Udalaren Segurtasun eta Osasun Batzordeak erabakiko ditu.** Beraz, udal gehienek dute prebentzio-modalitate hori.
PREBENTZIO-ORDEZKARIAK ETA SEGURTASUN- ETA OSASUN-BATZORDEA (SOB)	
PREBENTZIO-ORDEZKARIAK	**Laneko arriskuen prebentzioaren alorrean eginkizun zehatzak** dituzten langile-ordezkariak dira prebentzio-ordezkariak. Langileen ordezkariek izendatuko dituzte, beren artekoetatik, eskala honen arabera: • 30 langilera arteko enpresetan: prebentzio-delegatua langileen ordezkaria izango da. • 31-49 langile: prebentzio-delegatu bat, langileen ordezkariek beren artekoetatik hautatua. • 50-100 langile: 2 prebentzio-delegatu. • 101-500 langile: 3 prebentzio-delegatu. • 501-1000 langile: 4 prebentzio-delegatu. • 1.001-2.000 langile: 5 prebentzio-delegatu. • 2.001-3.000 langile: 6 prebentzio-delegatu. • 3.001-4.000 langile: 7 prebentzio-delegatu. • 4.001 langiletik gora: 8 prebentzio-delegatu.
SEGURTASUN- ETA OSASUN- BATZORDEA	Segurtasun eta Osasun Batzordea **parte hartzeko eta kide anitzeko organo paritario bat da, arriskuak prebenitzeari dagokionez enpresaren jarduerez erregularki eta aldizka kontsulta egitekoa.** • 50 langile edo gehiago dituzten enpresa edo lantoki guztietan eratu behar da. • Batzorde hori, batetik, prebentzio-ordezkariek eta, bestetik, enpresaburuak eta/edo haren ordezkariek osatuko dute. Zenbat prebentzio-ordezkari, hainbat ordezkari izango ditu enpresaburuak. • Bileretan parte har dezakete sindikatuetako delegatuek eta aurreko paragrafoan aipatzen den eraketaren barnean ez dauden enpresako prebentzioko arduradun teknikoek, gaitasun berezia edo organo honetan eztabaidatzen diren gai zehatzei buruzko informazioa duten enpresako langileek eta enpresatik kanpoko prebentzio-teknikariek, baldin eta batzordeko ordezkarietako batek hala eskatzen badu. Hitza izango dute, baina botorik ez. • Batzordea hiru hilean behin bilduko da, eta batzordeko ordezkaritzetako batek eskatzen duen bakoitzean. • Ahalak izango ditu: → Lantokian arriskuen prebentzioa zertan den zuzenean jakitekoa, eta horretarako egokitzat jotzen dituen bisitak egitekoa. → Bere eginkizunak betetzeko beharrezkoak diren lan-baldintzen inguruko agiri eta txostenen berri izatekoa, bai eta, hala denean, prebentzio-zerbitzuaren jardueraren ondoriozko agiri eta txostenen berri izatekoa ere. → Langileen osasun edo segurtasun fisikoari kalte egiten dioten faktoreen berri izatekoa eta faktoreok aztertzekoa, kalte horien arrazoiak pisatu eta behar diren prebentzio-neurriak proposatzeko. → Prebentzio-zerbitzuen urteroko memoria eta programazioa aztertzekoa eta irizpena ematekoa.

Legeria: 31/1995 Legea, azaroaren 8koa, Lan Arriskuen Prebentzioari buruzkoa
39/1997 Errege Dekretua, urtarrilaren 17koa, Prebentzio Zerbitzuen Erregelamendua onesten duena

OBJETIVOS DE LA PRL	
FIN PRINCIPAL	La **promoción de la mejora de las condiciones de trabajo** dirigida a **elevar el nivel de protección de la Seguridad y Salud** de los trabajadores y las trabajadoras. Además de **prevenir los riesgos laborales**, la mejora de las condiciones de trabajo implica que el trabajo se desarrolle en condiciones adecuadas que permitan el **crecimiento integral** de las personas a través del trabajo, pues la Prevención de Riesgos Laborales no se limita a una mera reducción de los daños, sino que, junto a una mejora de las condiciones de trabajo, debe perseguir un **avance notable del rendimiento, eficiencia y competitividad** del Ayuntamiento. En la tarea de mejora de las condiciones de trabajo a través de la actuación sobre aquellos problemas que puedan presentarse en el ambiente laboral, bien sea mediante su eliminación o minoración en el caso de que no sea posible su supresión, nos encontramos con las **disciplinas preventivas**. Éstas técnicas son interdependientes, de forma que su concatenación y la colaboración entre profesionales dentro de las mismas, permitirá alcanzar la mejora de las condiciones de trabajo.
LAS DISCIPLINAS PREVENTIVAS	
SEGURIDAD EN EL TRABAJO	Seguridad en el trabajo es la disciplina cuyo propósito fundamental es **evitar los accidentes de trabajo**. Puede definirse como el conjunto de técnicas y procedimientos que persiguen la **eliminación o disminución del riesgo** que puede dar lugar a dichos accidentes. Los accidentes ocurridos en el Ayuntamiento deben ser investigados para encontrar las causas que los motivaron y proponer medidas para la no repetición de los mismos.
HIGIENE INDUSTRIAL	La Higiene Industrial centra su estudio en el **ambiente que rodea al personal trabajador**, por cuanto es en ese ambiente donde se encuentran las causas básicas del proceso que desemboca en la enfermedad profesional. Se trata de identificar, evaluar y controlar aquellos factores o agentes ambientales, originados por el puesto de trabajo o presentes en el mismo, que pueden causar enfermedad, disminución de la salud o el bienestar, o incomodidad o ineficiencia significativos entre las personas trabajadoras o los restantes miembros de la comunidad.
ERGONOMÍA Y PSICOSOCIOLOGÍA APLICADA	**Ergonomía** es el conjunto de **técnicas** cuyo objetivo es la **adecuación entre el trabajo y la persona**. Hay que destacar de esta definición que la ergonomía es multidisciplinar, es decir, requiere la aplicación de distintas ciencias con el fin de conseguir su finalidad: la correcta acomodación entre el puesto de trabajo y su entorno y las características de la persona. La ergonomía es el estudio sistemático de las personas en su entorno de trabajo con el fin de mejorar su situación laboral, sus condiciones de trabajo y las tareas que realizan. La **psicosociología aplicada** es la disciplina que aborda las **condiciones de trabajo psicosociales u organizativas**, también llamadas factores psicosociales. Dentro de los factores de riesgo psicosocial pueden señalarse, entre otros, la carga y ritmo de trabajo, el contenido y tiempo de trabajo, el desempeño de rol o las relaciones interpersonales.
MEDICINA DEL TRABAJO	La medicina del trabajo es el conjunto de **actividades de las ciencias de la salud dirigidas hacia la promoción de la calidad de vida** del personal trabajador **a través del mantenimiento y mejora de las condiciones de salud**. La principal diferencia con la Higiene Industrial radica en que su actuación se centra en el personal trabajador, mientras que aquella lo hace sobre el ambiente del trabajo. Estudia la **relación Salud-Trabajo**, que comienza con el examen previo a la incorporación al empleo o tras el inicio del mismo, pasando por los exámenes de control periódico, investigaciones de la interacción salud con los ambientes de trabajo, materias primas, factores de riesgo ergonómicos y psicosociales y en ocasiones actividades de medicina preventiva como control de factores de riesgo cardiovascular, campañas de vacunación (tétanos, hepatitis, gripe…) y prevención del cáncer, entre otras.

Legislación: Ley 31/1995, de 8 de noviembre, de Prevención de Riesgos Laborales
Real Decreto 39/1997, de 17 de enero, por el que se aprueba el Reglamento de los Servicios de Prevención

LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOAREN HELBURUAK	
XEDE NAGUSIA	**Lan-baldintza hobeak sustatzea**, langileen **segurtasuna eta osasuna hobeto babesteko** asmoz. **Lan-arriskuak prebenitzeaz gain,** lan-baldintzak hobetzeak esan nahi du lana baldintza egokietan egin behar dela, lanaren bitartez langileak **osoki hazteko**, laneko arriskuen prebentzioa ez baita kalteak murriztea bakarrik: helburua da lan-baldintzak hobetuz udalaren **errendimendua, efizientzia eta lehiakortasuna nabarmenki hobetzea.** Lanean sortzen diren arazoak deuseztatzeko —edo, hori posible ez denean, gutxitzeko— eta lan-baldintzak hobetzeko eginkizunean, **prebentzio-diziplinak** ditugu. Teknika horiek interdependenteak dira, eta, hala, haiek uztartuz gero eta profesionalek haietan batera lan eginez gero, lan-baldintzak hobetzeko modua izango da.
PREBENTZIO-DIZIPLINAK	
LANEKO SEGURTASUNA	Laneko segurtasuna izeneko diziplinaren helburu nagusia **laneko istripuak eragoztea** da. Istripu horiek eragiten dituen **arriskua ezabatzeko edo gutxitzeko** tekniken eta prozeduren multzoa da. Udalean gertatzen diren istripuak ikertu egin behar dira, horien arrazoiak aurkitzeko eta neurriak proposatzeko, berriro gerta ez daitezen.
INDUSTRIA-HIGIENEA	Industria-higieneak **langileen inguruko giroa** du aztergai, giro horretan baitaude gaixotasun profesionalak dakartzan prozesuaren oinarrizko kausak. Helburua da lanpostuak sortzen dituen edo bertan dauden eta langileek edo komunitateko gainerako kideek gaixotasunak harrapatzea, haien osasuna edo ongizatea apaltzea edo eraginkortasun falta eta deserosotasun nabarmena izatea dakarten inguruneko faktore edo eragileak identifikatu, ebaluatu eta kontrolatzea.
ERGONOMIA ETA PSIKOSOZIOLOGIA APLIKATUA	**Ergonomia** lana eta langileak egokitzeko **teknika multzo** bat da. Azpimarratu behar da ergonomia diziplina anitzekoa dela, hau da, hainbat zientzia aplikatu behar dira helburua lortzeko: lanpostua eta haren ingurunea eta langilearen ezaugarriak zuzen egokitzea. Ergonomiak langileak eta haien laneko ingurunea sistematikoki aztertzen ditu, haien lan-egoera, lan-baldintzak eta eginkizunak hobetzeko asmoz. **Psikosoziologia aplikatuak lan-baldintza psikosozialak edo antolamendukoak** jorratzen ditu, faktore psikosozialak ere deitzen direnak. Arrisku-faktore psikosozialak dira, beste batzuen artean, lan-karga eta -erritmoa, lanaren edukia eta denbora, rolen betearazpena edo pertsonen arteko harremanak.
LANEKO MEDIKUNTZA	Laneko medikuntza **osasun-baldintzak atxikiz eta hobetuz** langileen **bizi-kalitatea sustatzeko osasun-zientzien jarduera multzoa** da. Industria-higienearekiko ezberdintasun nagusia zera da: langileengan jartzen duela arreta, eta hark, berriz, laneko giroan. **Osasunaren eta lanaren arteko harremana** aztertzen du. Hasteko, laneratu aurretik edo lanean hasi eta gero azterketak egiten dira; gero, aldizkako kontroleko azterketak; osasunaren eta laneko giroen, lehengaien eta arrisku-faktore ergonomikoen eta psikosozialen arteko interakzioak ikertzen dira, eta, batzuetan, prebentzio-medikuntzako jarduerak egiten dira; besteak beste, arrisku kardiobaskularren faktoreen kontrola, txertaketa-kanpainak (tetanosa, hepatitisa, gripea...) eta minbiziaren prebentzioa.

Legeria: 31/1995 Legea, azaroaren 8koa, Lan Arriskuen Prebentzioari buruzkoa
39/1997 Errege Dekretua, urtarrilaren 17koa, Prebentzio Zerbitzuen Erregelamendua onesten duena

DOCUMENTACIÓN OBLIGATORIA	
PLAN DE PREVENCIÓN	La **prevención de riesgos laborales deberá integrarse en el sistema general de gestión** (tanto en el conjunto de sus actividades como en todos sus niveles jerárquicos) **a través de la implantación y aplicación de un plan de prevención.** El Plan de prevención de riesgos laborales debe ser aprobado por la dirección de la empresa / Ayuntamiento, asumido por toda su estructura organizativa, en particular por todos sus niveles jerárquicos, y conocido por todos sus trabajadores y trabajadoras.
EVALUACIÓN DE RIEGOS	El servicio de prevención (SPA, SPP, SPM) realizará la **evaluación de riesgos de los puestos de trabajo** del Ayuntamiento. Igual evaluación deberá hacerse con ocasión de la elección de los **equipos de trabajo**, de las **sustancias o preparados químicos** y del **acondicionamiento de los lugares de trabajo**. En dicha evaluación se identifican los factores de riesgo; los riesgos se valoran y se proponen medidas para la eliminación, reducción y control de los riesgos. La evaluación será **actualizada** cuando cambien las condiciones de trabajo. También se realizarán **controles periódicos** de las condiciones de trabajo y de la actividad del personal para detectar **situaciones potencialmente peligrosas**.
PLANIFICACIÓN DE LA ACTIVIDAD PREVENTIVA	Las medidas emanadas de la evaluación de riesgos serán objeto de planificación, incluyendo para cada actividad preventiva el **plazo** para llevarla a cabo, la designación de **responsables** y los **recursos** humanos y materiales necesarios para su ejecución. El Ayuntamiento deberá asegurarse de la efectiva ejecución de las actividades preventivas incluidas en la planificación, efectuando para ello un **seguimiento continuo**.
DOCUMENTO ÚNICO	Los ayuntamientos de hasta 50 trabajadores que no desarrollen actividades del anexo I del RD 39/1997 podrán reflejar en un **único documento** el **plan de prevención** de riesgos laborales, la **evaluación de riesgos** y la **planificación de la actividad preventiva.**
DOCUMENTACIÓN OBLIGATORIA POR CADA PERSONA TRABAJADORA	**INFORMACIÓN**: Justificante de que ha sido informada de los riesgos y medidas preventivas de su puesto de trabajo, así como de las medidas de emergencia y evacuación. **FORMACIÓN**: Justificante de que ha sido formada en materia preventiva relacionada con su puesto de trabajo. **RECONOCIMIENTO MÉDICO**: Aptitud para el puesto de trabajo. **ENTREGA DE EPI**: Justificante de entrega de los equipos de protección individuales facilitados por el Ayuntamiento y compromiso de la persona en cuanto a utilización y mantenimiento.
PLANES DE EMERGENCIA Y PLANES DE AUTOPROTECCIÓN	Cada edificio o centro de trabajo del Ayuntamiento debe disponer de uno de los dos documentos (ver ficha 13.8.4).

Legislación: Ley 31/1995, de 8 de noviembre, de Prevención de Riesgos Laborales
Real Decreto 39/1997, de 17 de enero, por el que se aprueba el Reglamento de los Servicios de Prevención

NAHITAEZKO AGIRIAK	
PREBENTZIO-PLANA	**Lan-arriskuen prebentzioa kudeaketa-sistema orokorrean** sartu beharko da (bai haren jardueren multzoan, bai haren maila hierarkiko guztietan), eta, horretarako, **prebentzio-plan bat ezarri eta aplikatuko da.** Lan-arriskuen prebentziorako plana enpresaren zuzendaritzak edo udalak onartu behar du, eta antolamendu-egitura osoak bereganatu behar du, hierarkia-maila guztiek bereziki, eta langile guztiek ezagutu behar dute.
ARRISKUEN EBALUAZIOA	Prebentzio-zerbitzuak (KPZ, PZP, PZM) udaleko **lanpostuen arriskuak ebaluatuko ditu**. Ebaluazio berbera egin behar da **lan ekipamenduak** aukeratzeko, **substantziak edo prestakin kimikoak** erabiltzeko eta **lan egiteko lekuak egokitzeko**. Ebaluazio horretan identifikatzen dira arrisku-faktoreak. Gero, ebaluatu egiten dira eta neurriak proposatzen dira arriskuok deuseztatu, murriztu eta kontrolatzeko. Ebaluazioa **eguneratu** egin behar da lan-baldintzak aldatzen direnean. Gainera, **aldizka kontrolak** egin behar dira lan-baldintzetan eta langileen jardueran, **arriskutsuak izan daitezkeen egoerak** detektatzeko.
PREBENTZIO-JARDUERAREN PLANGINTZA	Arriskuen ebaluazioaren arabera hartu behar diren neurriak planifikatu egingo dira, eta datu hauek zehaztu beharko dira prebentzio-jarduera bakoitzerako: gauzatzeko **epea**; **arduradunen** izendapena, eta jarduerak betearazteko behar diren **giza baliabideak** eta baliabide materialak. Udalak ziurtatu beharko du plangintza horretara bildutako prebentzio-jarduerak benetan betetzen diren; horretarako, plangintzaren gainean **etengabeko jarraipena** egingo du.
AGIRI BAKARRA	50 langile edo gutxiago dituzten eta 39/1997 Errege Dekretuaren I. eranskineko jarduerak gauzatzen ez dituzten udalek **dokumentu bakar** batean jaso ahal izango dituzte lan-arriskuen **prebentzio-plana**, **arriskuen ebaluazioa eta prebentzio-jardueraren plangintza.**
LANGILE BAKOITZAREN NAHITAEZKO AGIRIAK	**INFORMAZIOA:** ziurtagiria, bere lanpostuak dituen arrisku eta prebentzio-neurrien berri eta larrialdi- eta ebakuazio-neurrien berri eman zaiola dioena. **PRESTAKUNTZA:** ziurtagiria, bere lanposturako prebentzio-prestakuntza jaso duela dioena. **AZTERKETA MEDIKOA:** lanposturako gaitasuna. **NBE-AK BANATZEA**: udalak norbera babesteko ekipamendua eman izanaren ziurtagiria eta langileak ekipoa erabili eta mantentzeko hartutako konpromisoa.
LARRIALDI-PLANAK ETA AUTOBABESERAKO PLANAK	Udaleko eraikin edo lantoki bakoitzean bi agirietako bat egon behar da (ikus 13.8.4 fitxa).

Legeria: 31/1995 Legea, azaroaren 8koa, Lan Arriskuen Prebentzioari buruzkoa
39/1997 Errege Dekretua, urtarrilaren 17koa, Prebentzio Zerbitzuen Erregelamendua onesten duena

PLAN DE EMERGENCIA Y PLAN DE AUTOPROTECCIÓN

Cada edificio o centro de trabajo del Ayuntamiento debe disponer de **uno de los dos documentos** y realizar un **SIMULACRO anual**.

En el ámbito de la Prevención de Riesgos Laborales, es común encontrar los conceptos «plan de emergencia» y «plan de autoprotección» usados indistintamente y en contextos similares, a pesar de que son cuestiones diferentes que se deben tener claras.

PLAN DE EMERGENCIA	PLAN DE AUTOPROTECCION
CONCEPTO **Documento** que prevé la organización de la **respuesta ante situaciones de emergencia** clasificadas, para el control inicial de las mismas, garantizándose la **alarma**, la **evacuación** y el **socorro**. Cualquier centro de trabajo debe tenerlo, según art. 20 de la LPRL, a menos que tenga que elaborar otro tipo de Plan más complejo. Es un documento de uso interno, que debe implantarse en el centro de trabajo. También puede ser el **procedimiento perteneciente al plan de autoprotección** en el que se prevé la organización de la respuesta ante situaciones de emergencias clasificadas, las medidas de protección e intervención a adoptar, y los procedimientos y secuencia de actuación para dar respuesta a las posibles emergencias.	**CONCEPTO** Documento que **sustituye al Plan de emergencia general**, cuando el centro, instalación o establecimiento desarrolla **actividades consideradas generadoras de riesgos o susceptibles de resultar afectadas por situaciones de emergencia.** Establece el **marco orgánico y funcional** previsto para una actividad, centro, establecimiento, espacio, instalación o dependencia, con el objeto de **prevenir y controlar los riesgos** sobre las personas y los bienes y **dar respuesta adecuada a las posibles situaciones de emergencia**, en la zona bajo responsabilidad del titular de la actividad, garantizando la **integración de estas actuaciones con el sistema vasco de atención de emergencias.**
REGISTRO **No requiere su registro** en ningún órgano administrativo, debe estar a disposición de la Autoridad Laboral como parte de la documentación preventiva del Ayuntamiento. Es un documento de uso interno, que debe implantarse en el centro de trabajo.	**REGISTRO** Requiere **presentación y registro en el sistema vasco de atención de emergencias.**
REVISIÓN No hay fecha obligatoria de revisión; debe ser revisado **cuando se identifiquen situaciones de emergencia**, y/o haya **cambios físicos, técnicos y de personal** en el centro.	**REVISIÓN** Debe ser revisado **además de como los planes de emergencia, como máximo cada 3 años**, y debe ser registrado en el órgano competente de la comunidad autónoma en la que se encuentre el centro de trabajo.
REGULACIÓN – ÁMBITO DE APLICACIÓN Está regulado por la **LPRL**, que extiende su esfera de aplicación tanto en el ámbito de las relaciones laborales reguladas en el texto refundido de la Ley del Estatuto de los Trabajadores, como en el de las relaciones de carácter administrativo o estatutario del personal al servicio de las Administraciones Públicas, con las peculiaridades que, en este caso, se contemplan en la citada Ley o en sus normas de desarrollo. Cualquier centro de trabajo debe tenerlo, según art. 20 de la LPRL, a menos que tenga que elaborar el Plan de Autoprotección.	**REGULACIÓN – ÁMBITO DE APLICACIÓN** La obligatoriedad del Plan de Autoprotección se aplica a las **actividades comprendidas en el Anexo I del Decreto 277/2010, de 2 de noviembre**, por el que se regulan las obligaciones de autoprotección exigibles a determinadas actividades, centros o establecimientos para hacer frente a situaciones de emergencia.
QUIÉN LO REALIZA Debe ser elaborado por un **técnico/a competente**. **No** tiene que tener **acreditación específica** para la elaboración de planes de emergencia.	**QUIÉN LO REALIZA** Debe ser elaborado por un técnico/a que cuente con una **acreditación personal como técnico competente para la elaboración de planes de autoprotección**. En la CAE, la Orden de 3 de agosto de 2012, del Consejero de Interior, regula la acreditación del personal técnico competente para la elaboración de planes de autoprotección; en su artículo 2 establece los requisitos.
CONTENIDO Para su **elaboración**, **no existe un criterio especificado** sobre su contenido. Se deben **analizar las posibles situaciones de emergencia y adoptar las medidas necesarias** en materia de primeros auxilios, lucha contra incendios y evacuación de los/las trabajadores/as, designando para ello al personal encargado de poner en práctica estas medidas, comprobando periódicamente, en su caso, su correcto funcionamiento. El Plan de Emergencia recopila documentalmente el conjunto de medidas de prevención y protección previstas y/o implantadas en la empresa, así como la secuencia de actuaciones a llevar a cabo por el personal ante la aparición de un siniestro. Se persigue de esta forma la optimización de los recursos disponibles para **reducir al mínimo los posibles daños personales y los deterioros de las propias instalaciones.**	**CONTENIDO** Para su **elaboración**, se debe **seguir lo dispuesto en la normativa de aplicación** (Real Decreto 393/2007 y Decreto 277/2010). El Plan de Autoprotección **constará, al menos, de los siguientes capítulos:** • Capítulo 1. Identificación de los **titulares** y del **emplazamiento** de la actividad. • Capítulo 2. Descripción detallada de la **actividad** y del **medio físico** en el que se desarrolla. • Capítulo 3. **Inventario, análisis y evaluación de riesgos**. • Capítulo 4. Inventario y descripción de las **medidas y medios de autoprotección**. • Capítulo 5. Programa de **mantenimiento de instalaciones**. • Capítulo 6. Plan de **actuación ante emergencias**. • Capítulo 7. **Integración** del plan de autoprotección en otros de ámbito superior. • Capítulo 8. **Implantación** del plan de autoprotección. • Capítulo 9. Mantenimiento de la **eficacia y actualización** del plan de autoprotección. • Apéndice I. **Directorio de comunicación**. • Apéndice II. **Formularios** para la gestión de emergencias. • Apéndice III. **Planos**.

Legislación:
Ley 31/1995, de 8 de noviembre, de Prevención de Riesgos Laborales
Real Decreto 393/2007, de 23 de marzo, por el que se aprueba la Norma Básica de Autoprotección de los centros, establecimientos y dependencias dedicados a actividades que puedan dar origen a situaciones de emergencia
Decreto 277/2010, de 2 de noviembre, por el que se regulan las obligaciones de autoprotección exigibles a determinadas actividades, centros o establecimientos para hacer frente a situaciones de emergencia
Decreto 21/2019, de 12 de febrero, de segunda modificación del Decreto por el que se regulan las obligaciones de autoprotección exigibles a determinadas actividades, centros o establecimientos para hacer frente a situaciones de emergencia
Orden de 3 de agosto de 2012, del Consejero de Interior, por la que se regula la acreditación del personal técnico competente para la elaboración de planes de autoprotección

LARRIALDI-PLANA ETA AUTOBABESERAKO PLANA

Udaleko eraikin edo lantoki bakoitzean **bi agirietako bat egon behar da eta urtean behin SIMULAKROA** egin behar da.

Lan-arriskuen prebentzioaren esparruan, ohikoa da «larrialdi-plana» eta «autobabeserako plana» kontzeptuak bereizi gabe eta antzeko testuinguruetan ikustea, nahiz eta gai ezberdinak diren eta argi eduki behar diren.

LARRIALDI-PLANA	AUTOBABESERAKO PLANA
KONTZEPTUA **Dokumentu** bat da, zeinaz aurreikusten baita sailkatutako **larrialdi-egoerak** hasiera batean kontrolatzeko **haiei eman beharreko erantzuna**, betiere **alarma, ebakuazioa eta sorospena** bermatu behar dituena. Lantoki guztiek izan behar dute, Laneko Arriskuak Prebenitzeko Legearen 20. artikuluaren arabera, non eta ez duten bestelako plan bat egin behar, plan konplexuagoren bat. Barne-erabilerarako agiri bat da, lantokian ezarri behar dena. **Autobabeserako planaren barruan dagoen prozedura bat** ere izan daiteke, sailkatutako larrialdi-egoeretan eman beharreko erantzuna, hartu beharreko babes-neurriak, egin beharreko esku-hartzeak eta larrialdi-egoerei erantzuteko prozedurak eta jarduera-sekuentziak aurreikusten dituena.	**KONTZEPTUA** Dokumentu bat da, **larrialdi-plan orokorra ordezkatzen duena** zentroak instalazioak edo establezimenduak **arriskutsutzat jotzen diren jardueretan** diharduenean edo **larrialdi-egoerek eragin diezaieketen jardueretan** diharduenean. Jarduera, zentro, establezimendu, espazio, instalazio edo bulego baterako aurreikusitako **esparru organiko eta funtzionala** ezartzen du. Helburua pertsonen eta ondasunen gaineko **arriskuak prebenitzea eta kontrolatzea** da, bai eta **izan daitezkeen larrialdi-egoerei erantzun egokia ematea ere** jardueraren titularraren ardurapean dagoen eremuan, **neurri horiek larrialdien arretarako euskal sisteman integratzen direla bermatuz.**
ERREGISTROA **Ez da erregistratu behar** inolako administrazio-organotan, baina Lan Agintaritzak eskuragarri izan behar du, udalaren prebentzio-dokumentazioaren parte gisa. Barne-erabilerarako agiri bat da, lantokian ezarri behar dena.	**ERREGISTROA** **Larrialdiei aurre egiteko euskal sisteman aurkeztu eta erregistratu behar da.**
BERRIKUSPENA Ez dago berrikuspenerako nahitaezko datarik; **larrialdi-egoerak identifikatzen direnean edo zentroan aldaketa fisikoak, teknikoak edo langileei lotutakoak** gertatzean berrikusi behar da.	**BERRIKUSPENA** **Larrialdi-planak bezala** berrikusi behar da, eta**, gehienez ere, 3 urtean behin**, eta lantokia dagoen autonomia-erkidegoko organo eskudunean erregistratu behar da.
ERREGULAZIOA – APLIKAZIO-EREMUA **Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko Legeak** arautzen du, eta lege horixe aplikatzen da bai Langileen Estatutuaren Legearen testu bateginean araututako lan-harremanen esparruan, bai administrazio publikoen zerbitzura dauden langileen administrazio- edo estatutu-harremanen esparruan, legean edo hura garatzen duten arauetan kasu honetan aurreikusten diren berezitasunekin. Lantoki guztiek izan behar dute, Laneko Arriskuak Prebenitzeko Legearen 20. artikuluaren arabera, non eta ez duten autobabeserako plan bat egin behar.	**ERREGULAZIOA – APLIKAZIO-EREMUA** Autobabeserako plana nahitaezkoa da **azaroaren 2ko 277/2010 Dekretuak I. eranskinean ezartzen dituen jardueretan** (larrialdi-egoerei aurre egiteko jarduera, zentro edo establezimendu zehatz batzuei ezartzen zaizkien autobabeserako betebeharrak arautzen ditu dekretu horrek).
NORK EGITEN DU? **Gaitutako teknikari batek** egin behar du. **Ez** du **akreditazio espezifikorik** izan behar larrialdi-planak sortzeko.	**NORK EGITEN DU?** **Autobabeserako planak idazteko gaitutako teknikari gisa lan egiteko akreditazio pertsonala** duen teknikari batek egin behar du. EAEn, Herrizaingo sailburuaren 2012ko abuztuaren 3ko Aginduak arautzen du autobabes-planak egiteko gaitutako teknikarien akreditazioa, eta 2. artikuluan betekizunak ezartzen ditu.
EDUKIA Plana **egiteko**, ez dago haren edukia zehazten duen **irizpide berariazkorik**. **Izan daitezkeen larrialdi-egoerak aztertu eta neurri egokiak ezarri beharko dira**, lehen sorospenei, suteen aurkako borrokari eta langileen ebakuazioari dagokienez. Horretarako, neurri horiek praktikan jarriko dituzten langileak izendatu beharko dira, eta aldian-aldian egiaztatu beharko da, hala badagokio, neurri horiek egoki funtzionatzen duten. Larrialdi-planean agiri bidez jasotzen dira enpresan aurreikusitako edo ezarritako prebentzioko eta babeseko neurriak, bai eta ezbeharren bat egonez gero langileek egin beharrekoen sekuentzia ere. Hala, optimizatu egin nahi dira dauden baliabideak, **kalte pertsonalak eta instalazioen gaineko kalteak ahalik eta txikienak izateko.**	**EDUKIA** Plana **egiteko, aplikagarri zaion araudian xedatutakoa bete behar da** (393/2007 Errege Dekretua eta 277/2010 Dekretua). Autobabeserako planak, **gutxienez, kapitulu hauek bilduko ditu**: • 1. kapitulua. Jardueraren **titularren eta kokapenaren** identifikazioa. • 2. kapitulua. **Jardueraren** eta hura garatzen den **ingurune fisikoaren** deskribapen zehatza. • 3. kapitulua. **Arriskuen inbentarioa, azterketa eta ebaluazioa.** • 4. kapitulua. **Autobabeserako neurrien eta bitartekoen** inbentarioa eta deskribapena. • 5. kapitulua. **Instalazioen mantentze-lanetarako** programa. • 6. kapitulua. **Larrialdiei aurre egiteko plana.** • 7. kapitulua. Autobabeserako plana goragoko eremuetako beste plan batzuetan **sartzeko** prozedura. • 8. kapitulua. Autobabeserako plana **ezartzea**. • 9. kapitulua. Autobabeserako planaren **eraginkortasunari eta eguneratzeari** eusteko prozedura. • I. eranskina. **Komunikazio-direktorioa.** • II. eranskina. Larrialdiak kudeatzeko **inprimakiak**. • III. eranskina. **Planoak.**

Legeria:

31/1995 Legea, azaroaren 8koa, Lan Arriskuen Prebentzioari buruzkoa
393/2007 Errege Dekretua, martxoaren 23koa, Larrialdi-egoerak sor ditzaketen jardueretara zuzendutako zentro, establezimendu eta egoitzen autobabeseko oinarrizko araua onartzen duena
277/2010 Dekretua, azaroaren 2koa, Zenbait jarduera, zentro edo establezimenduren autobabes-betebeharrak arautzen dituena, larrialdiei aurre egiteko
21/2019 Dekretua, otsailaren 12koa, zeinaren bidez bigarrenez aldatzen baita Larrialdi-egoerei aurre egiteko jarduera, zentro edo establezimendu zehatz batzuei ezartzen zaizkien autobabeserako betebeharrak arautzen dituen dekretua
Herrizaingo sailburuaren 2012ko abuztuaren 3ko Agindua, Autobabes-planak egiteko gaitutako teknikarien akreditazioa arautzen duena

COORDINACIÓN DE ACTIVIDADES EMPRESARIALES (CAE)		
CONCEPTO	La **coordinación de actividades empresariales** es un protocolo de actuación que tiene como objetivo principal garantizar la seguridad y salud de las personas trabajadoras cuando en los centros de trabajo concurren personal empleado de dos o más empresas y/o autónomos. Su objetivo es reforzar la seguridad y la salud en los centros de trabajo.	
DEFINICIONES	**Centro de trabajo:** cualquier área, edificada o no, en la que las personas trabajadoras deban permanecer o a la que deban acceder por razón de su trabajo.	
	Empresario titular del centro de trabajo[1]: la persona que tiene la capacidad de poner a disposición y gestionar el centro de trabajo.	
	Empresario principal[1]: empresario/a que contrata o subcontrata con otros la realización de obras o servicios correspondientes a la propia actividad de aquél y que se desarrollan en su propio centro de trabajo.	
¿CUÁNDO APLICA?	Cuando exista solapamiento de trabajos con presencia de personas trabajadoras de la empresa titular o, aun no existiendo simultaneidad, cuando los trabajos afecten a la seguridad y salud de las personas trabajadoras.	
INTERCAMBIO DOCUMENTAL	Antes del inicio de la actividad en su centro de trabajo o cuando se produzcan cambios en los riesgos existente, se **enviará por escrito**:	
	Empresario/a titular / Empresario/a principal	• Riesgos y medidas preventivas de los centros de trabajo y de aquellas tareas que realicen las personas trabajadoras con afección a terceros. • Medidas a adoptar en caso de emergencias y evacuación (ver ficha 13.8.4). • En caso de producirse un accidente de trabajo, el empresario/a deberá informar de aquél a los demás empresarios/as presentes en el centro de trabajo.
	Empresas contratistas y subcontratistas	• Modalidad de la organización preventiva adoptada. • Certificado de haber realizado el Plan de prevención de su empresa. • La identificación/evaluación de riesgos que pueda generar la actividad, abarcando las tareas realizadas y sus equipos de trabajo y sus medidas preventivas. • Certificado de información y/o formación de los riesgos laborales y medidas preventivas a las personas trabajadoras. • Entrega de equipos de protección individual (EPI) si fuera necesario, y en su caso de las medidas de protección colectivas a aplicar. • Certificado de la vigilancia de la salud del personal aportando, en su caso, las aptitudes médicas y/o renuncia según la legislación vigente. • Comunicará los accidentes e incidentes de trabajo, así como su investigación y las medidas correctoras que deriven de la misma. • Si es necesaria la presencia de recurso preventivo, la identidad de la persona designada (ver ficha 13.8.7 sobre necesidad de presencia de recurso preventivo).

[1] **Los ayuntamientos** pueden tener doble condición:

- **Ser propietario del centro de trabajo** y no desarrollar actividades en el centro de trabajo; en este caso debe velar porque las empresas concurrentes realicen el intercambio documental y en su caso elaboren plan de emergencias conjunto. También debe informar, en su caso, sobre los riesgos y medidas preventivas a adoptar en el centro de trabajo.
- Los ayuntamientos pueden simultanear **ser propietario del centro de trabajo y ser empresa principal**, trabajando en concurrencia con otras empresas, debiendo aplicar el intercambio documental entre empresas.

Legislación: Ley 31/1995, de 8 de noviembre, de Prevención de Riesgos Laborales
Real Decreto 171/2004, de 30 de enero, por el que se desarrolla el artículo 24 de la Ley 31/1995, de 8 de noviembre, de Prevención de Riesgos Laborales, en materia de coordinación de actividades empresariales

ENPRESA-JARDUEREN KOORDINAZIOA (EJK)		
KONTZEPTUA	**Enpresa-jardueren koordinazioa** jarduketa-protokolo bat da, eta haren helburu nagusia da langileen segurtasuna eta osasuna bermatzea lantokietan batera daudenean bi enpresa edo gehiagoko langileak edo langile autonomoak. Helburua da lantokietan segurtasuna eta osasuna indartzea.	
DEFINIZIOAK	**Lantokia**: langileek beren lana dela-eta egon behar duten eta joan behar duten edozein eremu, eraikia edo eraiki gabea.	
	Lantokiaren[1] enpresari titularra: lantokia eskuragarri jartzeko eta kudeatzeko gaitasuna duen pertsona.	
	Enpresari nagusia[1]: bere jarduerako lanak edo zerbitzuak egiteko eta bere lantokian bertan egiteko beste enpresa batzuk kontratatzen edo azpikontratatzen dituen enpresaria.	
NOIZ APLIKATZEN DA?	Enpresa titularreko langileak bertan direla lanak gainjartzen direnean edo aldi berean jardun gabe ere lanek langileen segurtasun eta osasunari eragiten dietenean.	
AGIRIAK TRUKATZEA	Lantokian lanean hasi baino lehen, edo arriskuak aldatzen direnean, **hauek bidaliko dira, idatziz**:	
	Enpresari titularra / Enpresari nagusia	• Lantokietako arriskuak eta prebentzio-neurriak, eta langileek hirugarrenei eraginez betetzen dituzten eginkizunenak. • Larrialdietan eta ebakuazioetan ezarri beharreko neurriak (ikus 13.8.4 fitxa). • Lan-istripu bat gertatuz gero, enpresariak horren berri eman beharko die lantokian dauden gainerako enpresariei.
	Enpresa kontratistak eta azpikontratistak	• Ezarritako prebentzio-antolaketaren modalitatea. • Bere enpresaren prebentzio-plana egin izanaren ziurtagiria. • Jarduerak ekar ditzakeen arriskuen identifikazioa/ebaluazioa, barnean direla egindako lanak, lantaldeak eta prebentzio-neurriak. • Langileei laneko arriskuen eta prebentzio-neurrien informazio edo prestakuntza eman izanaren ziurtagiria. • Beharrezkoa bada, norbera babesteko ekipamenduak (NBE) ematea, eta, hala badagokio, aplikatzekoak diren babes-neurri kolektiboak. • Langileen osasun-zaintzaren ziurtagiria; eta, hala badagokio, indarreko legeria betez, gaitasun medikoak edo ukoak aurkeztuko dira. • Laneko istripu eta gorabeherak jakinaraziko ditu, bai eta haien gaineko ikerketa eta hortik datozen neurri zuzentzaileak ere. • Prebentzio-baliabidea egotea beharrezkoa bada, esleitutako pertsonaren izena (ikus 13.8.7 fitxa, prebentzio-baliabidea egon beharrari buruzkoa).

[1] **Udalek** bi izaera izan ditzakete:

- **Lantokiaren jabeak** izan daitezke eta lantoki horretan batere jarduerarik ez izan. Kasu horretan, zaindu beharko dute enpresek agiriak trukatzen dituztela eta, hala badagokie, baterako larrialdi-plana idazten dutela. Eta, hala badagokio, lantokian ezarri beharreko prebentzio-neurriei eta arriskuei buruzko informazioa eman behar du.
- Udalak, aldi berean, **lantokiaren jabeak eta enpresa nagusiak** izan daitezke eta beste enpresa batzuekin batera lan egin ahal izango dute. Halakoetan, agiriak trukatu behar dituzte enpresen artean.

Legeria: 31/1995 Legea, azaroaren 8koa, Lan Arriskuen Prebentzioari buruzkoa
171/2004 Errege Dekretua, urtarrilaren 30ekoa, Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legearen 24. artikulua garatzen duena enpresa-jardueren koordinazioaren arloan

<table>
<tr><th colspan="4">OBRAS DE CONSTRUCCIÓN</th></tr>
<tr><td>CONCEPTO</td><td colspan="3">Las obras de construcción u obras, disponen de singularidad propia ya que existe un real decreto específico (RD 1627/1997). En función de los supuestos previstos en esta legislación, será necesario la elaboración de diferentes documentos preventivos y/o nombramientos de personal encargado de la vigilancia de la seguridad y salud, todo ello condicionado a las características de la obra.

Resumiendo, y pudiendo dejar fuera de los supuestos de la legislación algún caso, se puede asumir como obra aquella que necesite licencia municipal o elaboración de un proyecto para su ejecución.</td></tr>
<tr><td rowspan="9">DEFINICIONES</td><td colspan="3">Obra de construcción u obra: lugar donde se desarrolla con carácter temporal cualquiera de las actividades señaladas en el anexo 1 del RD 1627/1997, o de las relacionadas en el apartado 45 de la Clasificación Nacional de Actividades Económicas CNAE 93, siempre que estén referidas a trabajos intrínsecamente asociados a actividades de construcción (edificación e ingeniería civil) y se ejecuten con tecnologías propias de este tipo de industrias.</td></tr>
<tr><td colspan="3">Promotor/a: cualquier persona física o jurídica por cuenta de la cual se realice una obra (en este caso ayuntamiento y área/departamento perteneciente al mismo).</td></tr>
<tr><td colspan="3">Proyectista: autor o autores, por encargo del promotor, de la totalidad o parte del proyecto de obra.</td></tr>
<tr><td colspan="3">Coordinador/a en materia de seguridad y de salud durante la elaboración del proyecto de obra: personal técnico competente designado y contratado por el promotor para coordinar, durante la fase del proyecto de obra.</td></tr>
<tr><td colspan="3">Coordinador en materia de seguridad y de salud durante la ejecución de la obra: personal técnico competente integrado en la dirección facultativa, designado por el promotor (ayuntamiento o área contratante).</td></tr>
<tr><td colspan="3">Dirección facultativa: personal técnico competente designado por el promotor, encargado de la dirección y del control de la ejecución de la obra.</td></tr>
<tr><td colspan="3">Contratista: persona física o jurídica que asume contractualmente ante el promotor, con medios humanos y materiales, propios o ajenos, el compromiso de ejecutar la totalidad o parte de las obras con sujeción al proyecto y al contrato.</td></tr>
<tr><td colspan="3">Subcontratista: persona física o jurídica que asume contractualmente ante el contratista, empresario principal, el compromiso de realizar determinadas partes o instalaciones de la obra, con sujeción al proyecto por el que se rige su ejecución.</td></tr>
<tr><td colspan="3">Trabajador/a autónomo: persona física distinta del contratista y del subcontratista, que realiza de forma personal y directa una actividad profesional, sin sujeción a un contrato de trabajo, y que asume contractualmente ante el promotor, el contratista o el subcontratista el compromiso de realizar determinadas partes o instalaciones de la obra.

* Cuando el trabajador/a autónomo emplee en la obra a trabajadores o trabajadoras por cuenta ajena tendrá la consideración de contratista o subcontratista.</td></tr>
<tr><td>¿CUÁNDO APLICA?</td><td colspan="3">Cuando se realice una obra cuya relación no exhaustiva se incluye en el anexo I del RD 1627/1997.</td></tr>
<tr><td rowspan="5">DOCUMENTOS A GENERAR (fase proyecto)</td><td>Obras en las que se den alguno de los siguientes supuestos:</td><td>Documento a generar</td><td>Quién lo elabora</td></tr>
<tr><td>Presupuesto de ejecución por contrata incluido en el proyecto sea igual o superior a 75 millones de pesetas (450.759,09 €).</td><td rowspan="4">Estudio de seguridad y salud</td><td rowspan="4">Promotor (Ayuntamiento o área contratante)</td></tr>
<tr><td>Duración estimada sea superior a 30 días laborables, empleándose en algún momento a más de 20 trabajadores/as simultáneamente.</td></tr>
<tr><td>Volumen de mano de obra estimada, entendiendo por tal la suma de los días de trabajo del total de los trabajadores/as en la obra, superior a 500.</td></tr>
<tr><td>Obras de túneles, galerías, conducciones subterráneas y presas.</td></tr>
<tr><td>Obras no incluidas en ninguno de los supuestos previstos en el apartado anterior.</td><td>Estudio básico de seguridad y salud</td><td>Promotor (Ayuntamiento o área contratante)</td></tr>
<tr><td rowspan="3">DOCUMENTOS A GENERAR (fase ejecución)</td><td>Documento</td><td>¿Quién lo elabora?</td><td>¿Quién lo aprueba?</td><td>¿Quién se adhiere?</td></tr>
<tr><td rowspan="2">Plan de seguridad y salud en el trabajo</td><td>Cada Contratista

(en aplicación del estudio de seguridad y salud o, en su caso, del estudio básico).</td><td rowspan="2">Administración pública que haya adjudicado la obra.

(Es necesario Informe del coordinador/a en materia de seguridad y de salud durante la ejecución de la obra).</td><td>Subcontratas</td></tr>
<tr><td>Promotor (Ayuntamiento o área contratante)*

(*si el ayuntamiento o área contrata directamente trabajadores autónomos, elaborar el plan de la parte de los trabajos que estos ejecuten).</td><td>Trabajadores/as autónomos</td></tr>
<tr><td rowspan="3">MEDIOS PREVENTIVOS NECESARIOS EN OBRA</td><td>Interviene más de una empresa</td><td rowspan="3">→</td><td>Coordinador/a de seguridad y salud</td></tr>
<tr><td>Interviene una empresa y trabajadores/as autónomos/as</td><td rowspan="2">Dirección facultativa*

(*si asume algunas de las funciones del Coordinador/a de Seguridad y Salud, incluyendo la de informe del Plan de Seguridad y Salud).</td></tr>
<tr><td>Intervienen varios trabajadores/as autónomos/as</td></tr>
</table>

Legislación: Ley 31/1995, de 8 de noviembre, de Prevención de Riesgos Laborales
Real Decreto 1627/1997, de 24 de octubre, por el que se establecen disposiciones mínimas de seguridad y de salud en las obras de construcción

<table>
<tr><th colspan="4">ERAIKUNTZA-OBRAK</th></tr>
<tr><td>KONTZEPTUA</td><td colspan="3">Eraikuntza-obrak edo obrak bereziak dira, berariaz errege-dekretu bat baitago haientzat (1627/1997 ED). Legeria honetan aurreikusitako kasuen arabera, beharrezkoa izango da hainbat prebentzio-agiri egitea eta/edo segurtasuna eta osasuna zaintzeko langile arduradunen izendapenak egitea, eta hori guztia, obraren ezaugarrien arabera betiere.

Laburbilduz, eta kasuren bat legeri kanpo uzteko arriskua hartuta, esan daiteke obratzat jotzen dela egingo bada udal-lizentzia edo proiektua behar duena.</td></tr>
<tr><td rowspan="9">DEFINIZIOAK</td><td colspan="3">Eraikuntza-obra edo obra: 1627/1997 Errege Dekretuaren 1. eranskinean adierazitako edozein jarduera edo Ekonomia Jardueren Sailkapen Nazionalean (EJSN 93) 45. apartatuan adierazitako jardueraren bat aldi baterako egiten den lekua, baldin eta eraikuntza-jarduerekin berezko lotura duten lanak egiten badira (eraikuntza eta ingeniaritza zibila) eta industria mota horretako teknologiekin egiten badira.</td></tr>
<tr><td colspan="3">Sustatzailea: beraren izenean obrak egiten diren edozein pertsona fisikoa edo juridikoa (kasu honetan, udala eta beraren menpeko arloa edo saila).</td></tr>
<tr><td colspan="3">Proiektu egilea: sustatzailearen enkarguz obra-proiektua osorik edo horren zati bat egiten duena (bat baino gehiago izan daitezke).</td></tr>
<tr><td colspan="3">Obra-proiektua idaztean segurtasuna eta osasuna koordinatzen dituen langilea: gaitutako teknikariak dira, sustatzaileak izendatu eta kontratatutakoak obra-proiektuaren fasea koordinatzeko.</td></tr>
<tr><td colspan="3">Obra egitean segurtasuna eta osasuna koordinatzen dituen langilea: gaitutako teknikariak dira, zuzendaritza fakultatiboaren barnean daudenak eta sustatzaileak (udalak edo arlo kontratatzaileak) izendatzen dituenak.</td></tr>
<tr><td colspan="3">Zuzendaritza fakultatiboa: gaitutako teknikariak dira, sustatzaileak izendatzen ditu eta obra egitean hura zuzentzeaz eta kontrolatzeaz arduratzen dira.</td></tr>
<tr><td colspan="3">Kontratista: pertsona fisiko edo juridikoa, sustatzailearen aurrean kontratu bidez konpromisoa hartzen duena bere edo besteren giza baliabideez eta baliabide materialez baliatuz obra osoa edo obraren zati bat egiteko proiektuari eta kontratuari jarraituz.</td></tr>
<tr><td colspan="3">Azpikontratista: pertsona fisikoa edo juridikoa, kontratu bidez kontratistaren aurrean (enpresari nagusia) konpromisoa hartzen duena obraren zati edo instalazio jakin batzuk egiteko proiektuak agindutakoari jarraituz.</td></tr>
<tr><td colspan="3">Langile autonomoa: kontratista eta azpikontratista ez den pertsona fisiko bat, modu pertsonal eta zuzenean jarduera profesional bat egiten duena lan-kontraturik gabe, eta sustatzailearekiko, kontratistarekiko edo azpikontratistarekiko konpromisoa hartzen duena obra baten zati edo instalazio batzuk egiteko.

*Langile autonomoa, obran besteen konturako langileak erabiltzen dituenean, kontratista edo azpikontratista izango da.</td></tr>
<tr><td>NOIZ APLIKATZEN DA?</td><td colspan="3">Obra bat egiten denean eta haren zerrenda osatugabea 1627/1997 EDren I. eranskinean jasota dagoenean.</td></tr>
<tr><td rowspan="5">SORTU BEHARREKO AGIRIAK (proiektu-fasean)</td><td>Ezaugarri hauetakoren bat duen obra:</td><td>Sortu beharreko agiria</td><td>Nork egiten du?</td></tr>
<tr><td>Proiektuan 75 milioi pezetako aurrekontua (450.759,09 €) edo hortik gorakoa egotea kontrata bidez betearazteko.</td><td rowspan="4">Segurtasunari eta osasunari buruzko azterlana</td><td rowspan="4">Sustatzaileak (Udala edo arlo kontratatzailea)</td></tr>
<tr><td>Gutxi gorabehera 30 lanegunetik gorako iraupena izatea eta uneren batean 20 langile baino gehiago batera erabiltzea.</td></tr>
<tr><td>Eskulanaren bolumena gutxi gorabehera 500etik gorakoa izatea, langile guztiek obran lan egindako egunen batuketa hartuz eskulantzat.</td></tr>
<tr><td>Tunelak, galeriak, lurpeko hodiak eta urtegiak egiteko obrak.</td></tr>
<tr><td>Aurreko apartatuko kasuetan ez dauden obrak.</td><td>Segurtasun eta osasunaren oinarrizko azterketa</td><td>Sustatzaileak (Udala edo arlo kontratatzailea)</td></tr>
<tr><td rowspan="3">SORTU BEHARREKO AGIRIAK (betearazpen-fasean)</td><td>Agiria</td><td>Nork egiten du?</td><td>Nork onesten du?</td><td>Zein dago atxikita?</td></tr>
<tr><td rowspan="2">Laneko segurtasun- eta osasun-plana</td><td>Kontratista bakoitzak

(segurtasun- eta osasun-azterlana aplikatuta, edo, hala badagokio, oinarrizko azterlana aplikatuta).</td><td rowspan="2">Obra adjudikatu duen administrazio publikoak.

(beharrezkoa da obra egiten den bitartean segurtasun- eta osasun-koordinatzaileak txosten bat idaztea).</td><td>Azpikontratak</td></tr>
<tr><td>Sustatzaileak (udala edo arlo kontratatzailea)*

(*udalak edo arloak zuzenean langile autonomoak kontratatzen baditu, horiek egiten dituzten lanen zatiaren plana egin behar da).</td><td>Langile autonomoak</td></tr>
<tr><td rowspan="3">OBRAN BEHARREZKOAK DIREN PREBENTZIO-BITARTEKOAK</td><td>Enpresa batek baino gehiagok jarduten du</td><td rowspan="3">→</td><td colspan="2">Segurtasun- eta osasun-koordinatzailea</td></tr>
<tr><td>Enpresa batek eta langile autonomoek esku hartzen dute</td><td colspan="2">Zuzendaritza fakultatiboa*

(*segurtasun- eta osasun-koordinatzailearen eginkizunen bat bere gain hartzen badu, segurtasun- eta osasun-planaren txostena egitea barne).</td></tr>
<tr><td>Hainbat langile autonomok esku hartzen dute</td></tr>
</table>

Legeria: 31/1995 Legea, azaroaren 8koa, Lan Arriskuen Prebentzioari buruzkoa
1627/1997 Errege Dekretua, urriaren 24koa, Eraikuntza-lanetarako segurtasun- eta osasun-arloko gutxieneko xedapenak ezartzen dituena

RECURSO PREVENTIVO	
CONCEPTO	El Recurso Preventivo es una o varias **personas designadas por la empresa** y **capacitadas en el nivel de formación** adecuado en prevención de riesgos laborales, que **disponen de los medios y conocimientos necesarios**, y son **suficientes** en número **para vigilar el cumplimiento de las actividades preventivas** que así lo requieran.
¿CUÁNDO ES OBLIGATORIA SU PRESENCIA?	• Cuando los riesgos puedan verse **agravados o modificados** en el desarrollo del proceso o la actividad, por la concurrencia de operaciones diversas que se desarrollan sucesiva o simultáneamente y que hagan preciso el control de la correcta aplicación de los métodos de trabajo. • Cuando se realicen actividades o procesos que **reglamentariamente** sean **considerados como peligrosos o con riesgos especiales**: → Trabajos con riesgos especialmente graves de caída desde altura, por las particulares características de la actividad desarrollada, los procedimientos aplicados, o el entorno del puesto de trabajo. → Trabajos con riesgo de sepultamiento o hundimiento. → Actividades en las que se utilicen máquinas que carezcan de declaración CE de conformidad, por ser su fecha de comercialización anterior a la exigencia de tal declaración con carácter obligatorio, que sean del mismo tipo que aquellas para las que la normativa sobre comercialización de máquinas requiere la intervención de un organismo notificado en el procedimiento de certificación, cuando la protección del trabajador no esté suficientemente garantizada no obstante haberse adoptado las medidas reglamentarias de aplicación. → Trabajos en espacios confinados. A estos efectos, se entiende por espacio confinado el recinto con aberturas limitadas de entrada y salida y ventilación natural desfavorable, en el que pueden acumularse contaminantes tóxicos o inflamables o puede haber una atmósfera deficiente en oxígeno, y que no esté concebido para su ocupación continuada por los trabajadores. → Trabajos con riesgo de ahogamiento por inmersión (salvo lo dispuesto en el apartado 8.a) del artículo 22 bis del RD 39/1997, por el que se aprueba el Reglamento de los Servicios de Prevención, referido a los trabajos en inmersión con equipo subacuático). → Trabajos que impliquen la exposición a radiaciones ionizantes. → Trabajos realizados en cajones de aire comprimido. → Trabajos con riesgo de explosión por la presencia de atmósferas explosivas. → Actividades donde se manipulan, transportan y utilizan explosivos, incluidos artículos pirotécnicos y otros objetos o instrumentos que contengan explosivos. → Trabajos con riesgos eléctricos. → Trabajos en la proximidad de líneas eléctricas de alta tensión. → Trabajos en los que la exposición a agentes químicos o biológicos suponga un riesgo de especial gravedad. → Actividades en obras de excavación de túneles, pozos y otros trabajos que supongan movimientos de tierra subterráneos. → Trabajos que requieran montar o desmontar elementos prefabricados pesados. • Cuando la necesidad de dicha presencia sea **requerida por la Inspección de Trabajo y Seguridad Social**, si las circunstancias del caso así lo exigieran debido a las condiciones de trabajo detectadas.
¿QUIÉN PUEDE SER?	• Uno o varios trabajadores/as **designados por la empresa/ayuntamiento** (según artículo 30 de la Ley de Prevención de Riesgos laborales) con formación específica para ser Recurso Preventivo. • Uno o varios **miembros del servicio de prevención propio SPP o servicio de prevención mancomunado SPM**. • Uno o varios **miembros del o de los servicios de prevención ajenos concertados por la empresa**. (Se puede concertar con un servicio de prevención ajeno, mediante un concierto específico, aunque la empresa no tenga contratada con el mismo la realización de la actividad preventiva).

Legislación:
Ley 31/1995, de 8 de noviembre, de prevención de Riesgos Laborales
Real Decreto 39/1997, de 17 de enero, por el que se aprueba el Reglamento de los Servicios de Prevención
Ley 54/2003, de 12 de diciembre, de reforma del marco normativo de la prevención de riesgos laborales
Real Decreto 604/2006, de 19 de mayo, por el que se modifican el Real Decreto 39/1997, de 17 de enero, por el que se aprueba el Reglamento de los Servicios de Prevención, y el Real Decreto 1627/1997, de 24 de octubre, por el que se establecen las disposiciones mínimas de seguridad y salud en las obras de construcción
Criterio Técnico de la Inspección de Trabajo n.º 83/2010
NTP (Nota Técnica de Prevención) n.º 994 El Recurso Preventivo

PREBENTZIO-BALIABIDEA	
KONTZEPTUA	Prebentzio-baliabidea **enpresak izendatutako pertsona** bat edo gehiago dira, **prestakuntza egokia** dutenak lan-arriskuen prebentzioan, **behar diren bitartekoak eta ezagutzak dituztenak** eta kopuruz **nahikoak direnak prebentzio-jarduerak betetzen direla zaintzeko.**
NOIZ DA NAHITAEZKOA EGOTEA?	• Lan-metodoak egoki aplikatzen direla kontrolatu behar den aldibereko edo ondoz ondoko eragiketak direla-eta prozesuan edo jardueran arriskuak **larritu edo aldatzen** direnean. • **Erregelamenduen arabera arriskutsu diren edo arrisku bereziak** dituzten prozesuak edo jarduerak egiten direnean: → Jardueraren ezaugarriengatik, aplikatutako prozedurengatik edo lanpostuaren inguruneagatik toki garai batetik erortzeko arrisku larria duten lanak. → Lurperatuta geratzeko edo hondoratzeko arrisku handia duten lanak. → CE adierazpenik gabeko makinak erabiltzen diren jarduerak, ezaugarri hori derrigorrezkoa izan baino lehen merkaturatu zirelako. Makina horiek merkaturatzeko egiaztapen-prozesuan erakunde jakinarazle bat edukitzea behar duten makinen mota berekoak izan behar dute, beharrezko neurriak hartu arren langilearen segurtasuna behar bezala bermatuta ez badago. → Esparru itxietan egin beharreko lanak. Eremu itxitzat hau jotzen da: irteerako eta sarrerako irekiera mugatuak dituena, aireztapen natural kaltegarria duena, han elementu kutsagarri toxikoak edo sukoiak pilatzeko edo hango atmosferan oxigeno gutxi egoteko arriskua duena eta langileek han denbora luzean lan egiteko pentsatuta ez dagoena. → Murgilduta itotzeko arriskua duten lanak (salbuespena da 39/1997 EDaren 22 bis artikuluko 8.a) letran xedatutakoa; errege-dekretu horren bidez, prebentzio-zerbitzuen erregelamendua onartzen da, eta eta letra hura urpeko ekipoekin egiten diren murgiltze-lanei buruzkoa da). → Erradiazio ionizatzaileen eraginpean egotea dakarten lanak. → Aire konprimatuko kutxetan egindako lanak. → Atmosfera leherkorren presentzia dela-eta leherketak izateko arriskua duten lanak. → Lehergaiak —artikulu pirotekniko ak eta lehergaiak dituzten beste gauza edo erreminta batzuk barne— manipulatzen, garraiatzen eta erabiltzen diren jarduerak. → Arrisku elektrikoak dituzten lanak. → Goi-tentsioko linea elektrikoetatik gertu egiten diren lanak. → Agente kimikoekiko edo biologikoekiko esposizioagatik arrisku larria duten lanak. → Tunelak eta putzuak zulatzeko lanak, eta lurpeko lurrak mugitu behar diren beste lan batzuk. → Elementu prefabrikatu astunak muntatzeko edo desmuntatzeko lanak. • Detektatutako lan-baldintzak direla-eta egoerak eta **Lan eta Gizarte Segurantzako Ikuskaritzak** hala agintzen dutenean.
NOR IZAN DAITEKE?	• **Enpresak edo udalak izendatutako** langile bat edo gehiago (Lan Arriskuen Prebentziorako Legearen 30. artikuluaren arabera), prebentzio-baliabidea izateko prestakuntza espezifikoa dutenak. • **PZP prebentzio-zerbitzu propioko edo PZM prebentzio-zerbitzu mankomunatuko** partaide bat edo gehiago. • **Enpresak hitzartutako kanpoko prebentzio-zerbitzuko edo -zerbitzuetako** partaide bat edo gehiago. (Kanpoko prebentzio-zerbitzu batekin hitzartu daiteke, berariazko akordio baten bidez, nahiz eta enpresak berarekin kontratatuta ez izan prebentzio-jarduera).

Legeria:

31/1995 Legea, azaroaren 8koa, Lan Arriskuen Prebentzioari buruzkoa
39/1997 Errege Dekretua, urtarrilaren 17koa, Prebentzio Zerbitzuen Erregelamendua onesten duena
54/2003 Legea, abenduaren 12koa, Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko Lege Esparrua aldatzen duena
604/2006 Errege Dekretua, maiatzaren 19koa, errege-dekretu hauek aldatzen dituena: urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretua, Prebentzio Zerbitzuen Arautegia onartzen duena, eta urriaren 24ko 1627/1997 Errege Dekretua, Eraikuntza-obretarako segurtasunaren eta osasunaren arloko gutxieneko xedapenak ezartzen dituena
Lan-ikuskaritzaren 83/2010 irizpide teknikoa
994 prebentzioko ohar teknikoa, prebentzio-baliabidea

VIGILANCIA DE LA SALUD

CONCEPTO

Es un instrumento de la Medicina del Trabajo para el control y seguimiento sistemático de las repercusiones de las condiciones de trabajo sobre la salud del personal con el objetivo de:

- Identificar precozmente problemas de salud relacionados con los riesgos laborales.
- Detectar alguna especial sensibilidad a los riesgos laborales debido a las características individuales, estado biológico o discapacidad reconocida.
- Valorar la adaptación del puesto a las características, limitaciones o necesidades del trabajador/a.
- Valorar la capacidad psicofísica para el desarrollo de su trabajo habitual, sin que ello suponga un riesgo para el/la propio/a trabajador/a o terceras personas.

PLANIFICACIÓN

- La actividad de vigilancia de la salud debe ser **planificada**. Para cumplir con sus objetivos debe contar con la participación interdisciplinar de las diferentes disciplinas preventivas. La **evaluación de riesgos** es la base para su planificación y desarrollo integral. El/la Médico/a del Trabajo debe conocer los riesgos laborales de los diferentes puestos de trabajo, requerimientos de cada puesto, así como las tareas y los efectos sobre la salud para llevar a cabo la planificación de la vigilancia de la salud de forma específica. Para ello, debe participar en la identificación y evaluación de los riesgos laborales.
- La Especificidad de la Vigilancia de la salud conlleva la aplicación de protocolos sanitarios específicos a los riesgos laborales como instrumento para facilitar la toma de decisiones por parte de los profesionales de la Medicina del Trabajo, con el objetivo de elevar la calidad de la práctica clínica.

RECONOCIMIENTO MÉDICO

VOLUNTARIEDAD / OBLIGATORIEDAD

En el seno del Comité de Seguridad y Salud es **CONVENIENTE DEFINIR EL CARÁCTER VOLUNTARIO/OBLIGATORIO** de los reconocimientos médicos atendiendo a los criterios establecido en la LPRL. El artículo 22 LPRL establece que esta vigilancia sólo podrá llevarse a cabo cuando el trabajador preste su consentimiento; del carácter voluntario sólo se exceptuarán, previo informe de los representantes de los trabajadores, los supuestos en los que la realización de los reconocimientos sea imprescindible para evaluar los efectos de las condiciones de trabajo sobre la salud de los trabajadores o para verificar si el estado de salud del trabajador puede constituir un peligro para el mismo, para los demás trabajadores o para otras personas relacionadas con la empresa o cuando así esté establecido en una disposición legal en relación con la protección de riesgos específicos y actividades de especial peligrosidad.

EN QUÉ MOMENTO

La vigilancia de la salud se llevará a cabo al inicio de la actividad, de forma periódica y tras ausencias por motivos de salud.

- En la administración local, hay que reseñar el carácter obligatorio del **RECONOCIMIENTO MÉDICO INICIAL** para:
  - → El acceso a la plaza cuando así lo establezcan las bases de la convocatoria.
  - → Con carácter especial, los reconocimientos médicos para el acceso a los puestos de Policía Local y Bomberos, o similares, en los que existen criterios médicos de exclusión, específicos de cada entidad local.
  - → Personal con discapacidad reconocida. Precisando informe emitido por la entidad correspondiente (Diputación foral) en relación al tipo, grado de discapacidad y adaptaciones/limitaciones para el desarrollo de su profesión.
- La **PERIODICIDAD DE LA VIGILANCIA DE LA SALUD**: Se planificará en función de los riesgos laborales de cada puesto de trabajo, magnitud del riesgo, severidad y estado de salud de los trabajadores. Deberá incorporar el factor edad, considerando la realización de pruebas complementarias para determinar la capacidad psicofísica y valorar la periodicidad de los reconocimientos médicos.
- **RECONOCIMIENTO MÉDICO TRAS AUSENCIA PROLONGADA POR MOTIVOS DE SALUD**: El/la Médico/a del Trabajo debe conocer las enfermedades que se produzcan entre las personas trabajadoras y las ausencias del trabajo por motivos de salud, a los solos efectos de identificar cualquier relación entre la causa de enfermedad o de ausencia y los riesgos para la salud que puedan presentarse en los lugares de trabajo.

  No debemos olvidar la necesidad de valorar la capacidad psicofísica ante posibles secuelas, medicaciones... que afecten dicha capacidad (de suma relevancia en actividades de especial peligrosidad como policías, bomberos, conductores…).

  En este sentido, en la Resolución de 28 de abril de 2009, Osalan elaboró la Ficha Medico Laboral, con la cual el/la Médico/a del Trabajo podrá solicitar informes médicos relacionados con el proceso de Incapacidad Laboral.
- **VIGILANCIA DE LA SALUD POSTOCUPACIONAL**: El/la Médico/a del Trabajo deberá actuar según establece el Decreto 306/1999 en relación a la vigilancia de salud postocupacional, cuando la naturaleza de los riesgos lo haga necesario.

CONTENIDO

- Los exámenes de salud incluirán, en todo caso, una **historia clínico-laboral**, en la que además de los datos de anamnesis, exploración clínica y control biológico y estudios complementarios en función de los riesgos inherentes al trabajo, se hará constar una descripción detallada del puesto de trabajo, el tiempo de permanencia en el mismo, los riesgos detectados en el análisis de las condiciones de trabajo, y las medidas de prevención adoptadas. Deberá constar igualmente, en caso de disponerse de ello, una descripción de los anteriores puestos de trabajo, riesgos presentes en los mismos, y tiempo de permanencia para cada uno de ellos.
- Posibilidad de que el personal aporte datos de salud a través del **CUESTIONARIO DE AUTO DECLARACIÓN DE SALUD** (Decreto 38/2012).

CONFIDENCIALIDAD Y DEBER DE INFORMACIÓN

- Obligado cumplimiento de la **normativa sobre protección de datos personales**.
- En relación al uso, accesos, custodia y conservación de la **Historia clínico-laboral** cumplirá lo dictado en el Decreto 38/2012.
- El personal debe ser **informado** del resultado de la vigilancia de la salud por el/la Médico/a del Trabajo, mediante la explicación de los resultados de las pruebas efectuadas y entrega del informe médico a la finalización del examen de salud.
- Se deberá emitir la **aptitud psicofísica** del personal y **posibles limitaciones** que se comunicarán de forma obligatoria a la persona interesada, así como al responsable correspondiente, guardando la confidencialidad relativa a la patología.

Legislación:

Ley 31/1995, de 8 de noviembre, de prevención de Riesgos Laborales
Real Decreto 39/1997, de 17 de enero, por el que se aprueba el Reglamento de los Servicios de Prevención
Decreto 38/2012, de 13 de marzo, sobre historia clínica y derechos y obligaciones de pacientes y profesionales de la salud en materia de documentación clínica
Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales

OSASUNAREN ZAINTZA

KONTZEPTUA

Laneko medikuntzaren tresna bat da, lan-baldintzek langileen osasunaren gainean duten eraginaren kontrol eta jarraipen sistematikorako, eta honako hau du helburu:

- Lan-arriskuekin lotutako osasun-arazoak goiz identifikatzea.
- Lan-arriskuekiko sentikortasun bereziren bat atzematea, ezaugarri indibidualen, egoera biologikoaren eta ezintasun aitortuaren ondoriozkoa.
- Lanpostua langilearen ezaugarrietara, mugetara edo beharrizanetara egokitzen den baloratzea.
- Langileak ohiko lana beretzat arriskurik hartu gabe eta beste inori arriskurik eragin gabe egiteko daukan gaitasun psikofisikoa baloratzea.

PLANGINTZA

- Osasuna zaintzeko jarduera **planifikatu** egin behar da. Bere helburuak betetzeko, prebentzio-diziplina batzuen eta besteen diziplinarteko parte-hartzea bildu behar du. **Arriskuen ebaluazioa** da plangintza eta garapen integralerako oinarria. Laneko medikuak berariaz ezagutu behar ditu lanpostuen lan-arriskuak, lanpostu bakoitzeko errekerimenduak, bai eta zereginak eta osasunaren gaineko ondorioak ere, osasunaren zaintza berariaz planifikatzeko. Horretarako, lan-arriskuak identifikatzeko eta ebaluatzeko lanean parte hartu behar du.
- Osasunaren zaintzaren espezifikotasuna dela eta, lan-arriskuen osasun-protokolo zehatzak aplikatu behar dira, laneko medikuntzako profesionalei erabakiak hartzea erraztu dakien, eta, hala, praktika klinikoaren kalitatea igo dadin.

AZTERKETA MEDIKOA

BORONDATEZKOA/NAHITAEZKOA

Segurtasun eta Osasun Batzordean, **KOMENIGARRIA DA** azterketa medikoak **BORONDATEZKOAK ALA NAHITAEZKOAK DIREN ZEHAZTEA,** lan-arriskuen prebentzioari buruzko Legean ezarritako irizpideei jarraikiz. Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen 22. artikuluaren arabera, zaintza hori egiteko, langileak baimena eman behar du. Kasu hauetan, ez da borondatezkoa izango, langileen ordezkariak txostena eman ondoren: lan-baldintzek langileen osasunean duten eragina ebaluatzeko osasun-azterketak egitea nahitaezkoa bada, edo langilearen osasun-egoera langilearentzat berarentzat, gainerako langileentzat edo enpresarekin lotura duten beste pertsona batzuentzat arriskutsua ote den egiaztatzeko bada, edo arrisku berezietatik babesteari eta arriskugarritasun bereziko jarduerei buruz lege-xedapen batean horrela ezarrita badago.

ZEIN UNETAN?

Jardueraren hasieran, aldian-aldian eta osasun-arrazoiengatik lanera joan gabe egon ondoren helduko zaio osasunaren zaintzari.

- Tokiko administrazioan, nahitaezkoa da **HASIERAKO AZTERKETA MEDIKOA** egitea, honako haueta-rako:
  - → Lanpostua eskuratzeko, baldin eta deialdiaren oinarriek hala ezartzen badute.
  - → Kasu berezietan, Udaltzaingoaren edo suhiltzaileen lanpostuetara edo antzekoetara sartzeko, baldin eta tokiko erakunde bakoitzean bazterketa-irizpide mediko zehatzak baldin badaude.
  - → Desgaitasun aitortua duten langileen kasuan. Erakunde egokiak igorritako txostena behar da (foru-aldundiarena), ezintasun mota, ezintasun-maila eta bere lanbidean aritzeko egokitzapenak/mugak zehazten dituena.
- **OSASUNAREN ZAINTZA ETA MAIZTASUNA:** Lanpostu bakoitzaren arriskuen, arriskuen magnitudearen, larritasunaren eta langileen osasun-egoeraren arabera zehaztuko da maiztasuna. Adina kontuan hartu beharko da, eta, horrez gain, proba osagarriak egin beharra ezarri daiteke, gaitasun psikofisikoa zehaztu eta azterketa medikoen maiztasuna baloratze aldera.
- **OSASUN-ARRAZOIENGATIK LUZARO LANIK EGIN GABE EGON ONDORENGO AZTERKETA MEDIKOA:** Laneko medikuak jakin egin behar du zer gaixotasun sortzen diren langileen artean eta zer absentzia dauden osasun-arrazoiek eraginda, besterik gabe harremanak identifikatu ahal izateko gaixotasunaren edo absentziaren kausen eta lantokietan egon daitezkeen osasun-arriskuen artean.

  Ezin dugu ahaztu gaitasun psikofisikoari eragiten dioten medikazio, sekuela eta abarren aurrean gaitasun hori ebaluatu beharra dagoela (biziki garrantzitsua da hori arriskutsuak diren jardueretan, hala nola polizia-, suhiltzaile- eta gidari-jardueretan).

  Horren harira, 2009ko apirilaren 28ko ebazpenean Osalanek laneko fitxa medikoa egin zuen, eta, horren bidez, laneko medikuak laneko ezintasun-prozedurarekin lotutako txosten medikoak eskatu ahal izango ditu.
- **LANA UTZI OSTEKO OSASUNAREN ZAINTZA:** Laneko medikuak 306/1999 Dekretuan ezarritakoaren arabera jardun beharko du lana utzi osteko osasunaren zaintzan, baldin eta arriskuen izaera dela-eta beharrezkoa bada.

EDUKIA

- Osasun-azterketetan, betiere, **laneko historia klinikoa** sartuko da; bertan, anamnesiaren, esplorazio klinikoaren eta kontrol biologikoaren datuez eta lan motak berekin dituen arriskuen araberako azterketa osagarrien datuez gain, hau ere jasoko da: lanpostuaren deskribapen zehatza zein den, iraupena zenbatekoa den, lan-baldintzak aztertzean zer arrisku atzeman diren eta zer prebentzio-neurri hartu diren. Era berean, aurreko lanpostuen, horietan dauden arriskuen eta horietako bakoitzerako egonaldiaren deskribapen bat jasoko da, horrelakorik izanez gero.
- Langileak osasunari buruzko datuak aurkeztu ahalko ditu, **OSASUNAREN AUTO-AITORPENEKO GALDETEGIAREN** bidez (38/2012 Dekretua).

KONFIDENTZIALTASUNA ETA INFORMAZIOA EMATEKO BETEBEHARRA

- **Datu pertsonalak babesteari buruzko araudia** nahitaez bete behar da.
- **Laneko historia klinikoa** erabili, eskuratu, zaindu eta gordetzeko, 38/2012 Dekretuan ezarritakoa bete beharko da.
- Langileei **jakinarazi** egin behar zaie laneko medikuak egindako osasun-zaintzaren emaitza zein den. Horretarako, egindako proben emaitzak azalduko zaizkie, eta osasun-azterketa amaitzean txosten medikoa entregatuko zaie.
- Langileen **gaitasun psikofisikoa** eta **muga posibleak** zein diren nahitaez jakinarazi beharko zaio interesdunari, bai eta dagokion arduradunari ere, patologiaren gaineko konfidentzialtasun zainduta.

Legeria:

31/1995 Legea, azaroaren 8koa, Lan Arriskuen Prebentzioari buruzkoa
39/1997 Errege Dekretua, urtarrilaren 17koa, Prebentzio Zerbitzuen Erregelamendua onesten duena
38/2012 Dekretua, martxoaren 13koa, Historia klinikoari eta osasun-arloko paziente eta profesionalek dokumentazio klinikoaren arloan dituzten eskubide eta obligazioei buruzkoa
3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa

XIV.

TOKI ERAKUNDEEN ONDASUNAK

BIENES DE LOS ENTES LOCALES

XIV.

Bienes de los entes locales

1. Definición, finalidad, regulación, clasificación, características, prerrogativas y alteración de la calificación jurídica.
2. Tráfico jurídico de los bienes.
3. Disfrute y aprovechamiento de los bienes.
4. Inventario y registro de bienes.
5. Expropiación forzosa.

Guía Local - ISBN 978-84-7777-690-1

XIV.

Toki erakundeen ondasunak

1. Kalifikazio juridikoaren definizioa, xedea, erregulazioa, sailkapena, ezaugarriak, prerrogatibak eta aldaketa.
2. Ondasunen trafiko juridikoa.
3. Ondasunen gozamen eta aprobetxamendua.
4. Ondasunen inbentarioa eta erregistroa.
5. Nahitaezko desjabetzea.

<table>
<tr><td>DEFINICIÓN DE PATRIMONIO</td><td colspan="3">Conjunto de bienes y derechos cualquiera que sea su naturaleza y título de adquisición o aquel en virtud del cual hayan sido atribuidos, sin que deban entenderse incluidos dinero, valores, créditos, recursos financieros ni recursos que constituyan su tesorería.</td></tr>
<tr><td>FINALIDAD</td><td colspan="3">• General: Ser aplicados al cumplimiento de funciones y fines públicos.
• Específica de los bienes del patrimonio municipal del suelo (PMS):
→ Regular el mercado de suelo.
→ Regular el mercado de la vivienda.
→ Facilitar el desarrollo territorial y urbanístico, mediante consecución de suelo para actuaciones públicas.</td></tr>
<tr><td>REGULACIÓN
(Orden de prelación)</td><td colspan="3">1. Legislación básica del Estado en materia de régimen local (LRBRL, arts. 79 a 83 y TRRL, arts. 74 a 87).
2. Legislación básica del Estado en materia de bienes (LPAP, DF 2.ª).
3. Legislación de la CAPV (LSPV en lo relativo a régimen de disposición de PMS).
4. Legislación estatal no básica en materia de régimen local y bienes públicos (RBEL, LPAP, RLPAP).
5. Ordenanzas propias de cada Entidad.
6. Supletoriamente, restantes normas de los ordenamientos jurídicos, administrativo y civil.</td></tr>
<tr><td rowspan="4">CLASIFICACIÓN DE LOS BIENES Y DERECHOS QUE INTEGRAN EL PATRIMONIO DE LOS ENTES LOCALES</td><td rowspan="4">POR RAZÓN DEL RÉGIMEN JURÍDICO AL QUE ESTÁN SUJETOS</td><td rowspan="3">DOMINIO PÚBLICO O DEMANIALES
(Régimen jurídico público)</td><td>Servicio público: los afectos a un servicio público.</td></tr>
<tr><td>Uso público: los afectos al uso público.</td></tr>
<tr><td>Comunales: exclusivamente en Municipios y Entidades Locales Menores, de aprovechamiento común por los vecinos.</td></tr>
<tr><td>Patrimoniales o de Propios
(Régimen jurídico privado)</td><td>Aquellos bienes que no están destinados a uso público ni afectados a algún servicio público o comunal, salvo afectación específica de los bienes del Patrimonio Municipal del Suelo (PMS).
Se incluyen en esta categoría:
• Bienes que integran el Patrimonio Municipal del Suelo.
• Parcelas Sobrantes.
• Efectos no utilizables.</td></tr>
<tr><td rowspan="2">CARACTERÍSTICAS DE LOS BIENES</td><td>DOMINIO PÚBLICO</td><td colspan="2">• Inalienables.
• Inembargables.
• Imprescriptibles.
• No están sujetos a tributo alguno.</td></tr>
<tr><td>BIENES PATRIMONIALES</td><td colspan="2">• General: Pueden constituir fuentes de ingresos para el erario de la entidad.
• Específica del PMS: Afectación permanente al cumplimiento de los fines específicos de los bienes de esta naturaleza.</td></tr>
<tr><td>PRERROGATIVAS DE LAS ENTIDADES LOCALES RESPECTO DE SUS BIENES
(Obligatoriedad de la protección y defensa del patrimonio)</td><td colspan="3">• Investigación: de los que presumiblemente les pertenecen, siempre que no conste de modo cierto.
• Deslinde: de otros pertenecientes a terceros, cuando límites imprecisos o existan indicios de usurpación.
• Recuperación de oficio: de la posesión indebidamente perdida (usurpación).
• Desahucio administrativo:
→ LPAP: únicamente de los bienes demaniales sobre los que se haya extinguido el título y bienes expropiados.
→ RBEL: se extiende también a bienes patrimoniales sobre los que se haya extinguido el título (derechos personales, arrendamientos, y viviendas cedidas a funcionarios y de protección oficial).</td></tr>
<tr><td rowspan="2">ALTERACIÓN DE LA CALIFICACIÓN JURÍDICA</td><td colspan="2">AFECTACIÓN
(al dominio público)</td><td>• Automática:
→ Aprobación definitiva de planes de ordenación urbana y proyectos de obras y servicios (en el momento de la cesión de derecho a la Administración actuante).
→ Afectación, por más de 25 años, a un uso o servicio público o comunal.
→ Adquisición por usucapión, con arreglo a Derecho Civil, del dominio de una cosa destinada a un uso o servicio público.
• Expediente de afectación (previa decisión cuando no automática).</td></tr>
<tr><td colspan="2">DESAFECTACIÓN
(del dominio público)</td><td>• No automática.
• Expediente de desafectación:
→ Justificación de la legalidad y oportunidad.
→ Información pública.
→ Recepción formal como bien desafectado.</td></tr>
</table>

Legislación: LRBRL, arts. 79 al 81
Texto Refundido de Régimen Local, arts. 74 al 78
Ley de Patrimonio de las Administraciones Públicas (LPAP), Exposición de Motivos, y arts. 3, 28, 41, 42, 44, 45, 46.1, 48, 50, 55, 58, 68.2
Ley de Suelo y Urbanismo del País Vasco, arts. 111, 112, 113, 115
Reglamento de Bienes, arts. 1 al 8, 16, 44 al 73

<table>
<tr><td>ONDAREAREN DEFINIZIOA</td><td colspan="3">Ondasun eta eskubideen multzoa, haien izatasuna eta eskurapen- edo esleipen-titulua edozein delarik ere, baina ez dira ondaretzat hartuko dirua, baloreak, kredituak, finantza-baliabideak, ezta diruzaintzan sartzen diren baliabideak ere.</td></tr>
<tr><td>XEDEA</td><td colspan="3">• Orokorra: Funtzio eta xede publikoak betetzeko orduan aplikatzea.
• Zehatza, udalaren lurzoru ondareko (ULO) ondasunekin lotua:
→ Lurzoruaren merkatua arautzea.
→ Etxebizitzaren merkatua arautzea.
→ Lurraldearen eta hirigintzaren garapena erraztea, jarduketa publikoetarako lurzorua eskuratuta.</td></tr>
<tr><td>ERREGULAZIOA
(lehentasun-ordena)</td><td colspan="3">1. Estatuko oinarrizko legeria, toki-araubideari buruzkoa (TAOL, 79-83. artikuluak eta TATB, 74-87. artikuluak).
2. Estatuko oinarrizko legeria, ondasunei buruzkoa (HAOL, azken xedapenetatik bigarrena).
3. EAE-ko legeria (ELHL, LOA izateko araubideari dagokionez).
4. Oinarrizkoa ez den estatuko legeria, tokiko araubideari eta ondasun publikoei buruzkoa (TEOE, HAOL, HAOLE).
5. Erakunde bakoitzaren ordenantza propioak.
6. Ordezko gisa, antolamendu juridiko, administratibo eta zibileko gainerako arauak.</td></tr>
<tr><td rowspan="4">TOKI-ERAKUNDEEN ONDAREA OSATZEN DUTEN ONDASUN ETA ESKUBIDEEN SAILKAPENA</td><td rowspan="4">ONDASUN EDO ESKUBIDE HORIEN ARAUBIDE JURIDIKOAREN ARABERA</td><td rowspan="2">JABARI PUBLIKOA EDO HERRI-JABARIA
(Araubide juridiko publikoa)</td><td>Zerbitzu publikoa: zerbitzu publikoari lotutakoak.</td></tr>
<tr><td>Erabilera publikoa: erabilera publikoari lotutakoak.</td></tr>
<tr><td>Herri-ondasunak: soilik udalerrietan eta toki-erakunde txikietan, auzokideek aprobetxa ditzaten.</td></tr>
<tr><td>Ondarearekin lotuak edo Propioak
(Araubide juridiko pribatua)</td><td>Erabilera publikorako edo zerbitzu publiko eta herri-zerbitzu baterako erabiltzen ez diren ondasunak, Udalaren Lurzoru Ondareari (ULO) berariaz atxikita daudenak izan ezik.
Kategoria honetan sartzen dira:
• Udalaren Lurzoru Ondarea osatzen duten ondasunak.
• Soberan geratutako partzelak.
• Erabili ez daitezkeen efektuak.</td></tr>
<tr><td rowspan="2">ONDASUNEN EZAUGARRIAK</td><td>JABARI PUBLIKOA</td><td colspan="2">• Besterenezinak.
• Enbargaezinak.
• Preskribaezinak.
• Ez daude zergapetuta.</td></tr>
<tr><td>ONDARE-ONDASUNAK</td><td colspan="2">• Orokorra: Erakundearen altxorrean diru-sarrerak eragin ditzakete.
• ULOren zehatza: Izaera hori duten ondasunen xede zehatzak betetzearekin etengabe atxikita.</td></tr>
<tr><td>TOKI-ERAKUNDEEK BEREN ONDASUNEKIKO DITUZTEN PRERROGATIBAK
(Ondarea babestu eta defendatzeko betebeharra)</td><td colspan="3">• Ikerketa: aurreikuspenen arabera dituzten ondareen gainean, argi eta garbi jasota ez daudenean.
• Mugaketa: hirugarrenen beste ondare batzuena, mugak zehatzak ez direnean edo usurpatu izanaren zantzuak daudenean.
• Ofiziozko berreskuratzea: behar ez bezala galdutako ondasunarena (usurpazioa).
• Utzarazpen administratiboa:
→ HAOL: titulua iraungi zaien herri-jabariko ondasunen eta desjabetutako ondasunen gainean soilik.
→ TEOE: titulua iraungi zaien ondare-ondasunen gainean ere aplikatzen da (eskubide pertsonalak, errentamenduak eta funtzionarioei lagatako etxebizitzak eta babes ofizialekoak).</td></tr>
<tr><td rowspan="2">KALIFIKAZIO JURIDIKOAREN ALDAKETA</td><td>ATXIKIPENA
(jabari publikora)</td><td colspan="2">• Automatikoa:
→ Hiri-antolamenduko planak eta obra eta zerbitzuen proiektuak behin betiko onartzea (administrazio jarduleari eskubidea lagatzeko unean).
→ Erabilera edo zerbitzu publiko edo komunal batera 25 urte baino gehiagorako atxikitzea.
→ Zuzenbide Zibilak xedatutakoaren arabera, erabilera edo zerbitzu publiko baterako gauza baten jabaria usukapio bidez eskuratzea.
• Atxikipen-espedientea (aurrez erabakita, automatikoa ez denean).</td></tr>
<tr><td>DESATXIKIPENA
(jabari publikotik)</td><td colspan="2">• Ez automatikoa.
• Desatxikipen-espedientea:
→ Legezkotasuna eta bidezkotasuna justifikatzea.
→ Informazioa jendaurrean jartzea.
→ Harrera formala desatxikitako ondasun moduan.</td></tr>
</table>

Legeria: TAOL, 79-81. artikuluak
Toki Araubidearen testu bategina, 74-78. artikuluak
Herri Administrazioen Ondarearen Legea (HAOL), zioen azalpena eta 3, 28, 41, 42, 44, 45, 46.1, 48, 50, 55, 58, eta 68.2. artikuluak
Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legea (ELHL), 111, 112, 113, eta 115. artikuluak
Ondasunen Erregelamendua, 1-8, 16, eta 44-73. artikuluak

<table>
<tr><td rowspan="4">ADQUISICIÓN</td><td>MODOS</td><td colspan="3">• Atribución de la ley.
• A título oneroso, con ejercicio o no de la facultad de expropiación.
• Por herencia, legado o donación.
• Por prescripción.
• Por ocupación.
• Por cualquier otro modo legítimo con arreglo al ordenamiento jurídico.</td></tr>
<tr><td rowspan="2">FORMAS</td><td><u>Regla general</u></td><td colspan="2">Concurso.
Licitación restringida.</td></tr>
<tr><td><u>Adquisición directa:</u>
Supuestos:</td><td>• Peculiaridades del bien.
• Condiciones del mercado inmobiliario.
• Urgencia derivada de acontecimientos imprevisibles.
• Especial idoneidad del bien.</td><td>• Cuando el vendedor sea otra Administración Pública o persona jurídica pública o privada del sector público.
• Cuando se adquiera una cuota en caso de un condominio.
• Cuando la adquisición se efectúe en virtud de ejercicio de un derecho de adquisición preferente.</td></tr>
<tr><td>PROCEDIMIENTO</td><td>Expediente
(Con arreglo a la normativa patrimonial)</td><td colspan="2">• Justificación de la forma de adquisición.
• Identificación del bien: titularidad, datos catastrales, registrales.
• Tasación.
• Acreditación de crédito adecuado y suficiente.
• Datos de la oferta y del ofertante.</td></tr>
<tr><td></td><td>Reglas especiales</td><td colspan="2">• Inmuebles: informe pericial.
• Expropiación forzosa: normativa específica.
• Bienes de valor histórico-artístico: informe Diputación Foral.
• Con modalidad onerosa: informe valor de gravamen (no supera valor de lo adquirido).
• Herencias: a beneficio de inventario.</td></tr>
<tr><td rowspan="5">ENAJENACIÓN</td><td rowspan="4">FORMAS</td><td rowspan="3">BIENES PATRIMONIALES</td><td><u>Regla general</u></td><td>• Subasta.</td></tr>
<tr><td><u>Excepciones</u></td><td>• Permuta:
→ Justificación de la necesidad de esta fórmula.
→ Limitación de que la diferencia de valor entre los bienes a permutar no sea superior al 40% del que tenga mayor valor.
• Adjudicación directa: parcelas sobrantes a favor de colindantes.
• Cesión gratuita: a favor de entidades o instituciones públicas o privadas sin ánimo de lucro, para fines que redunden en beneficio de los habitantes del término municipal (necesidad de justificación en el expediente de la personalidad y los fines).</td></tr>
<tr><td rowspan="2">BIENES INTEGRANTES DEL PATRIMONIO MUNICIPAL DEL SUELO</td><td><u>Regla general</u></td><td>• Concurso.
• Permuta.</td></tr>
<tr><td><u>Excepción:</u>
Enajenación directa</td><td>• Convenio entre Administraciones Públicas, éstas o sus entes instrumentales.
• A favor de entidad asistencial o social sin ánimo de lucro y para VPO.
• A favor de ocupante legal de Vivienda Protección Pública.
• Concurso previo desierto.
• Construcción de VPO por organismos públicos o entidades que tengan por objeto específico esa actividad.
• Construcción de edificios públicos que requieran un determinado emplazamiento en suelo dotacional.
• Construcción de edificios de servicio público o entidades sin ánimo de lucro que requieran un determinado emplazamiento y estuviesen calificados por la ordenación como centros asistenciales, culturales, sanitarios, instalaciones deportivas.</td></tr>
<tr><td><u>Caso especial:</u>
Enajenación gratuita o por debajo de valor</td><td>• Adquirente: Administración Pública para destino de PMS.
• Adquirente: entidad sin ánimo de lucro y destino Viviendas de Protección Oficial (VPO) o equipamiento de interés social y uso común o general.
• Adquirente: ocupante legal de la vivienda sujeto a realojo.</td></tr>
<tr><td>PROCEDIMIENTO</td><td>Expediente
• Común a todas las formas de enajenación
• Con arreglo a la normativa patrimonial</td><td colspan="2">• Depuración de la situación física y jurídica del inmueble: datos jurídicos, catastrales y registrales.
• Valoración técnica que acredite su justiprecio.
• Certificación del Secretario de la Corporación en la que conste que los bienes figuran en el inventario.
• Informe del Interventor de fondos en el que pruebe no haber deuda pendiente de liquidación con cargo al presupuesto municipal.
• Informe técnico de que los bienes no se hallan comprendidos en ningún plan de ordenación, reforma o adaptación, no son necesarios para la Entidad local ni es previsible que lo sean en los diez años inmediatos.
• Información pública por plazo no inferior a quince días.
• Comunicación a Diputación Foral.</td></tr>
<tr><td></td><td>Reglas especiales</td><td colspan="2">• Si bienes de valor histórico-artístico: informe de Diputación Foral.
• Si bienes de valor superior a 25% de los recursos ordinarios del Presupuesto: autorización de Diputación.</td></tr>
</table>

Legislación: Texto Refundido de Régimen Local, arts. 79 y 80
Ley de Suelo y Urbanismo del País Vasco, arts. 116 y 117
Reglamento de Bienes, arts. 9 al 16 y 109 al 119
Ley de Patrimonio de las Administraciones Públicas (LPAP), arts. 116.4, 138 y ss.
Reglamento Ley de Patrimonio de las Administraciones Públicas, arts. 95 y ss.
Ley de Contratos del Sector Público, arts. 4 y 9

<table>
<tr><td rowspan="5">ESKURATZEA</td><td rowspan="1">MODUAK</td><td colspan="3">• Legearen egozpena.
• Kostu bidez, jabetza kenduta edo kendu gabe.
• Jaraunspen, legatu edo dohaintza bidez.
• Preskripzio bidez.
• Okupazio bidez.
• Antolamendu juridikoaren araberako beste edozein modu zilegiren bidez.</td></tr>
<tr><td rowspan="3">ERAK</td><td><u>Arau orokorra</u></td><td colspan="2">Lehiaketa.
Lizitazio murriztua.</td></tr>
<tr><td><u>Zuzeneko eskurapena:</u>
Kasuak:</td><td>• Ondasunaren berezitasunak.
• Higiezin-merkatuaren baldintzak.
• Ezusteko gertaeren ondoriozko larritasuna.
• Ondasunaren egokitasun berezia.</td><td>• Saltzailea beste Administrazio publiko bat edo sektore publikoko pertsona juridiko publiko edo pribatua denean.
• Jabekidetasunaren kasuan, kuota bat eskuratzen denean.
• Lehentasunez eskuratzeko eskubidea erabiliz egindako eskuraketa denean.</td></tr>
<tr><td rowspan="2">PROZEDURA</td><td>Espedientea
(Ondarearen gaineko araudiaren arabera)</td><td colspan="2">• Eskuratzeko eraren justifikazioa.
• Ondasunaren identifikazioa: titulartasuna, katastro-datuak, erregistro-datuak.
• Tasazioa.
• Kreditua egokia eta aski delako egiaztapena.
• Eskaintzaren eta eskaintzailearen datuak.</td></tr>
<tr><td>Arau bereziak</td><td colspan="2">• Higiezinak: adituen txostena.
• Nahitaezko desjabetzea: berariazko araudia.
• Balio historiko-artistikoko ondasunak: Foru Aldundiaren txostena.
• Kostu bidezko modalitatea: karga-balioaren txostena (ez du gainditzen eskuratutakoaren balioa).
• Jaraunspenak: inbentario-onuraren arabera.</td></tr>
<tr><td rowspan="5">BESTERENTZEA</td><td rowspan="3">ERAK</td><td rowspan="2">ONDARE-ONDASUNAK</td><td><u>Arau orokorra</u></td><td>• Enkantea.</td></tr>
<tr><td><u>Salbuespenak</u></td><td>• Trukaketa:
→ Trukatzea egitearen beharrizana justifikatzea.
→ Trukatu beharreko ondasunen arteko balio-diferentzia balio handia duenaren % 40tik gorakoa ez denean.
• Zuzeneko esleipena: soberan geratutako partzelak mugakideen alde.
• Doako lagapena: irabazi-asmorik gabeko erakunde edo instituzio publiko edo pribatuen alde, udal-mugarteko biztanleen onura ekarriko duten xedeetarako (espedientean nortasuna eta xedeak justifikatu behar dira).</td></tr>
<tr><td>UDALAREN LURZORU ONDAREA OSATZEN DUTEN ONDASUNAK</td><td><u>Arau orokorra</u></td><td>• Lehiaketa.
• Trukaketa.</td></tr>
<tr><td></td><td><u>Salbuespena:</u>
Zuzenean besterentzea</td><td>• Administrazio publikoen edo horien tresna-erakundeen arteko hitzarmena.
• Irabazi-asmorik gabeko laguntza- edo gizarte-izaerako erakunde baten alde eta Babes Ofizialeko Etxeak egiteko.
• Babes Publikoko Etxebizitzaren legezko okupatzailearen alde.
• Aldez aurretik hutsik geratutako lehiaketa.
• Erakunde publikoek Babes Ofizialeko Etxebizitzak eraikitzea, edo jarduera hori berariazko xede duten erakundeek.
• Zuzkidura-lurzoruan kokapen jakin bat eskatzen duten eraikin publikoak eraikitzea.
• Kokapen jakin bat behar duten zerbitzu publikoko edo irabazi-asmorik gabeko erakundeentzako eraikinak eraikitzea, antolamenduaren arabera laguntza-zentro, kultura-zentro, osasun-zentro edo kirol-instalaziotzat jotzen badira.</td></tr>
<tr><td></td><td><u>Kasu berezia:</u>
Doako besterentzea edo balio azpikoa</td><td>• Eskuratzailea: Administrazio publikoa, ULOra bideratzeko.
• Eskuratzailea: irabazi-asmorik gabeko erakundea, Babes Ofizialeko Etxebitzak (BOE)-ra edo gizarte-intereseko eta erabilera komun edo orokorreko ekipamendura bideratzeko.
• Eskuratzailea: berriz ostatua emateko prozedura pean dagoen etxebizitzaren legezko okupatzailea.</td></tr>
<tr><td>PROZEDURA</td><td>ESPEDIENTEA
• Besterentzearen guztietan komuna
• Ondarearen gaineko araudiaren arabera</td><td colspan="2">• Higiezinaren egoera fisikoa eta juridikoa araztea: datu juridikoak, katastro-datuak eta erregistro-datuak.
• Balio justua egiaztatzen duen balioespen teknikoa.
• Udalbatzaren idazkariaren ziurtagiria, ondasunak inbentarioan jasota daudela adierazten duena.
• Funtsen kontu-hartzailearen txostena, udal-aurrekontuaren kargura likidatu gabeko zorrik ez dagoela frogatzen duena.
• Txosten teknikoa, honako hau adierazten duena: ondasunak ez daudela antolamenduko, erreformako edo egokitzapeneko ezein planetan sartuta, toki-erakundeak ez dituela behar eta, aurreikuspenen arabera, datozen hamar urteetan ere ez dituela behar izango.
• Jendaurreko informazioa gutxienez hamabost eguneko epean.
• Foru-aldundiari jakinaraztea.</td></tr>
<tr><td>Arau bereziak</td><td colspan="2">• Balio historiko-artistikoko ondasunak badira: Foru Aldundiaren txostena.
• Aurrekontuko ondasun arrunten % 25etik gorako balioa duten ondasunak badira: Foru Aldundiaren baimena.</td></tr>
</table>

Legeria: Toki Araubidearen testu bategina, 79 eta 80. artikuluak
Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legea, 116 eta 117. artikuluak
Ondasunen Erregelamendua, 9-16 eta 109-119. artikuluak
Herri Administrazioen Ondarearen Legea (HAOL), 116.4. eta 138. artikuluak eta hurrengoak
Herri Administrazioen Ondarearen Legearen Erregelamendua, 95. artikulua eta hurrengoak
Sektore Publikoko Kontratuen Legea, 4. eta 9. artikuluak.

PRINCIPIOS RELATIVOS A SU GESTIÓN Y ADMINISTRACIÓN	**DOMINIO PÚBLICO**	• Adecuación y suficiencia para servir a los fines de uso público o servicio público. • Aplicación efectiva al uso o servicio público salvo excepciones de interés público justificadas. • Dedicación preferente al uso común. • Ejercicio diligente de las prerrogativas relativas a los mismos. • Identificación y control a través de inventarios adecuados. • Cooperación y colaboración interadministrativa en el ejercicio de competencias sobre dominio público.		
	BIENES PATRIMONIALES	• Eficiencia y economía. • Eficacia y rentabilidad en la explotación. • Publicidad, transparencia, concurrencia, y objetividad en su adquisición, explotación y enajenación. • Identificación y control a través de inventarios adecuados. • Colaboración y coordinación interadministrativa para optimizar su utilización y rendimiento.		
UTILIZACIÓN DE LOS BIENES DE DOMINIO PÚBLICO	**USO COMÚN**	**GENERAL**	• Correspondiente **por igual a cualquier ciudadano**, sin que concurra ninguna circunstancia singular. • Se ejerce libremente.	
		ESPECIAL	• Correspondiente **por igual a cualquier ciudadano** en principio, pero **concurriendo circunstancias singulares** por la peligrosidad, intensidad del uso o cualquier otra semejante. • Se ejerce sujeto a **licencia/autorización**: → Otorgada, directamente o excepcionalmente, mediante licitación o sorteo. → No transmisible, si adjudicación personal o número limitado. → Gratuita o con contraprestación. → Plazo máximo 4 años.	
	USO PRIVATIVO	• Constituido por la ocupación de una porción de dominio público, de modo que **limite o excluya la utilización por los demás**. • Se ejerce sujeto a **concesión**: → Otorgada mediante licitación, o directamente en casos excepcionales. → Se formalizará en documento administrativo. → Gratuita o con contraprestación. → Plazo máximo 75 años.		
	USO NORMAL	**Conforme con el destino principal** del dominio público al que afecte.		
	USO ANORMAL	• **No conforme con el destino principa**l del dominio al que afecte. • Se ejerce sujeto a **concesión** (ver reglas establecidas para el uso privativo).		
UTILIZACIÓN DE LOS BIENES PATRIMONIALES	**MODOS**	• **Negocio típico: Arrendamiento.** • **Otros:** → Cesión gratuita a favor de entidades o instituciones públicas o privadas sin ánimo de lucro, para fines que redunden en beneficio de los habitantes del término municipal. Necesidad de justificar en el expediente la personalidad y los fines del cesionario. → Otras formas de cesión de uso de los bienes patrimoniales conforme a la normativa civil.		
	FORMAS	**REGLA GENERAL**	• **Concurso**	
		EXCEPCIÓN: ADJUDICACIÓN DIRECTA	• Peculiaridades del bien. • Limitación en la demanda. • Singularidad de la operación.	• Urgencia derivada de acontecimientos imprevisibles.
	PROCEDIMIENTO	• Con arreglo a la normativa patrimonial. • Expediente (ver apartado expediente de Enajenación). • Peculiaridad: Si no gratuita, canon no inferior al 6% precio venta.		
UTILIZACIÓN DE LOS BIENES COMUNALES	**REGLA GENERAL**	**Explotación común o cultivo colectivo.**		
	EXCEPCIONES	• **Si no es posible la regla general:**	→ Aprovechamiento peculiar. → Según costumbre local.	→ Adjudicación por lotes o suertes.
		• **En defecto de las anteriores**: mediante precio.		
UTILIZACIÓN DE LOS BIENES INTEGRANTES DEL PMS	**MODOS**	Derecho de superficie: uso temporal (máximo 75 años).		
	FORMAS	**REGLA GENERAL**	• **Concurso.**	
		EXCEPCIÓN ADJUDICACIÓN DIRECTA	• Convenio entre AAPP, éstas o sus entes instrumentales. • A favor de entidad asistencial o social sin ánimo de lucro y para VPO. • A favor de ocupante legal de VPP. • Concurso previo desierto. • Construcción de VPO por organismos públicos o entidades que tengan por objeto específico esa actividad. • Construcción de edificios públicos que requieran un determinado emplazamiento en suelo dotacional. • Construcción de edificios de servicio público o entidades sin ánimo de lucro que requieran un determinado emplazamiento y estuviesen calificados por la ordenación como centros asistenciales, culturales, sanitarios, instalaciones deportivas.	
	PROCEDIMIENTO	• Con arreglo a la normativa patrimonial. • Expediente (ver apartado expediente de Enajenación).		

Legislación: Texto Refundido de Régimen Local, art. 75
Ley de Patrimonio de las Administraciones Públicas (LPAP), arts. 6, 8.1, 84, 91.4, 92.1, 92.2, 92.4, 93, 94, 97, 100, 106.1, 107.1, 109.3
Ley del Suelo y Urbanismo del País Vasco, arts. 116-118 y 128-130
Reglamento de Bienes, arts. 74 al 108

<table>
<tr><td rowspan="2">ONDASUNEN KUDEAKETARI ETA ADMINISTRAZIOARI BURUZKO PRINTZIPIOAK</td><td>JABARI PUBLIKOA</td><td colspan="3">• Erabilera publikoko edo zerbitzu publikoko xedeetarako erabiltzeko egokitasuna eta nahikotasuna.
• Erabilera edo zerbitzu publikorako aplikazio eraginkorra, interes publikoko salbuespen justifikatu batzuk izan ezik.
• Lehentasunezko dedikazioa erabilera komunari.
• Ondasun horiei buruzko prerrogatiben erabilera prestua.
• Identifikazioa eta kontrola, inbentario egoki batzuen bidez.
• Administrazioen arteko kooperazioa eta lankidetza jabari publikoaren gaineko eskumenen erabileran.</td></tr>
<tr><td>ONDARE-ONDASUNAK</td><td colspan="3">• Eraginkortasuna eta ekonomia.
• Eraginkortasuna eta errentagarritasuna ustiaketan.
• Eskuraketaren, ustiaketaren eta inorenganatzearen publizitatea, gardentasuna, lehia eta objektibotasuna.
• Identifikazioa eta kontrola, inbentario egoki batzuen bidez.
• Administrazioen arteko kooperazioa eta lankidetza, ondasunen erabilpena eta errendimendua optimizatzeko.</td></tr>
<tr><td rowspan="4">JABARI PUBLIKOKO ONDASUNEN ERABILERA</td><td rowspan="2">ERABILERA ERKIDEA</td><td>OROKORRA</td><td colspan="2">• Herritar guztiek dute erabiltzeko eskubidea, eta ez dago inolako inguruabar berezirik.
• Askatasunez erabiltzen da.</td></tr>
<tr><td>BEREZIA</td><td colspan="2">• Printzipioz herritar guztiek dute erabiltzeko eskubidea, baina inguruabar berezi batzuk daudenean bakarrik, arriskua, erabileraren intentsitatea edo beste zernahi antzeko direla eta.
• Lizentzia/baimen bati atxikita erabiltzen dira:
→ Zuzenean edo salbuespenez ematen da, lizitazio edo zozketa bidez.
→ Ez dira eskualdagarriak, esleipen pertsonalik edo kopuru mugaturik gabe.
→ Doakoa edo kontraprestazioduna.
→ Gehienezko epea, 4 urte.</td></tr>
<tr><td>ERABILERA PRIBATIBOA</td><td colspan="3">• Jabari publikoaren zati bat okupatzeak eratzen duena, gainerako interesdunen erabilera mugatzen edo baztertzen duena, hain zuzen ere.
• Emakida bati atxikita erabiltzen da:
→ Lizitazio bitartez ematen da, edo zuzenean, salbuespenezko kasuetan.
→ Administrazio-dokumentu batean formalizatuko da.
→ Doakoa edo kontraprestazioduna.
→ Gehienezko epea, 75 urte.</td></tr>
<tr><td>ERABILERA NORMALA</td><td colspan="3">Atxikitzen zaion jabari publikoaren erabilera nagusiaren araberakoa.</td></tr>
<tr><td>ONDARE-ONDASUNEN ERABILERA</td><td>EZOHIKO ERABILERA</td><td colspan="3">• Atxikitzen zaion jabariaren erabilera nagusiaren araberakoa ez dena.
• Emakida bati atxikita erabiltzen da (ikus erabilera pribatiborako ezarritako arauak).</td></tr>
<tr><td rowspan="3">ONDARE-ONDASUNEN ERABILERA</td><td>MODUAK</td><td colspan="3">• Negozio tipikoa: Errentamendua:
• Bestelakoak:
→ Doako lagapena irabazi-asmorik gabeko erakunde edo instituzio publiko edo pribatu baten alde, udal-mugarteko biztanleen onura ekarriko duten xedeetarako. Espedientean lagapen-hartzailearen nortasuna eta xedeak justifikatzeko beharrizana.
→ Ondare-ondasunen erabilera lagatzeko beste era batzuk, araudi zibilaren arabera.</td></tr>
<tr><td rowspan="2">ERAK</td><td><u>ARAU OROKORRA</u></td><td colspan="2">• Lehiaketa</td></tr>
<tr><td><u>SALBUESPENA:</u>
ZUZENEKO ESLEIPENA</td><td>• Ondasunaren berezitasunak.
• Murrizketa eskarian.
• Eragiketaren berezitasuna.</td><td>• Ezusteko gertaeren ondoriozko larritasuna.</td></tr>
<tr><td>PROZEDURA</td><td colspan="3">• Ondarearen gaineko araudiaren arabera.
• Espedientea (ikus Besterentze-espedientearen atala).
• Berezitasuna: Doakoa ez bada, salmenta-prezioaren % 6tik gorako kanona.</td></tr>
<tr><td rowspan="2">HERRI-ONDASUNEN ERABILERA</td><td colspan="2">ARAU OROKORRA</td><td colspan="2">Ustiapen komuna edo lanketa kolektiboa.</td></tr>
<tr><td colspan="2">SALBUESPENAK</td><td>• Arau orokorra posible ez bada:
→ Aprobetxamendu berezia.
→ Bertako ohituraren arabera.
→ Lotekako edo sortakako esleipena.</td><td>• Aurrekoak ezin badira aplikatu: prezio bidez.</td></tr>
<tr><td rowspan="4">UDALAREN LURZORU ONDAREA OSATZEN DUTEN ONDASUNEN ERABILERA</td><td colspan="2">MODUAK</td><td colspan="2">Azalera-eskubidea: aldi baterako erabilera (gehienez 75 urte).</td></tr>
<tr><td rowspan="2">ERAK</td><td><u>ARAU OROKORRA</u></td><td colspan="2">• Lehiaketa.</td></tr>
<tr><td><u>SALBUESPENA</u>
ZUZENEKO ESLEIPENA</td><td colspan="2">• Administrazio publikoen edo horien tresna-erakundeen arteko hitzarmena.
• Irabazi-asmorik gabeko laguntza- edo gizarte-izaerako erakunde baten alde eta Babes Ofizialeko Etxeak egiteko.
• Babes Publikoko Etxebizitzaren legezko okupatzailearen alde.
• Aldez aurretik hutsik geratutako lehiaketa.
• Erakunde publikoek Babes Ofizialeko Etxebizitzak eraikitzea, edo jarduera hori berariazko xede duten erakundeek.
• Zuzkidura-lurzoruan kokapen jakin bat eskatzen duten eraikin publikoak eraikitzea.
• Kokapen jakin bat behar duten zerbitzu publikoko edo irabazi-asmorik gabeko erakundeentzako eraikinak eraikitzea, antolamenduaren arabera laguntza-zentro, kultura-zentro, osasun-zentro edo kirol-instalaziotzat jotzen badira.</td></tr>
<tr><td colspan="2">PROZEDURA</td><td colspan="2">• Ondarearen gaineko araudiaren arabera.
• Espedientea (ikus Besterentze-espedientearen atala).</td></tr>
</table>

Legeria: Toki Araubidearen Testu Bategina, 75. artikulua
Herri Administrazioen Ondarearen Legea (HAOL), 6, 8.1, 84, 91.4, 92.1, 92.2, 92.4, 93, 94, 97, 100, 106.1, 107.1 eta 109.3. artikuluak
Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legea, 116-118 eta 128-130. artikuluak
Ondasunen Erregelamendua, 74-108. artikuluak

INVENTARIO	**CONCEPTO**	**Registro administrativo obligatorio** de los bienes y derechos que integran el **patrimonio** de la Entidad, sus organismos autónomos y sociedades públicas, con el suficiente detalle **para reflejar**: • Su identificación. • Su situación jurídica. • Su destino o uso.
	PRINCIPIOS	• **Formación obligatoria**. • Carácter **no constitutivo**: Por sí sólo ni prueba, ni crea, ni constituye derecho alguno a favor de la Corporación. • Sirve de recordatorio constante para que la **Corporación ejercite las facultades** que le corresponden respecto de sus bienes. • **Acceso público.**
	NOTAS CARACTERÍSTICAS	• Se **organiza** en **epígrafes.** • Se **autoriza** por el Secretario de la Corporación, con el Visto Bueno del Alcalde. • Se debe **rectificar anualmente**. • Se debe **comprobar** cada vez que se **renueva la Corporación**. • **Obligatoriedad de comunicación** a la **Administración General del Estado y Administración Autonómica**. • Corresponden al **Pleno** las competencias relativas al mismo.
REGISTRO DE EXPLOTACIÓN DE PATRIMONIOS PÚBLICOS DE SUELO	**CONCEPTO**	**Registro administrativo obligatorio** de bienes y recursos integrantes del **patrimonio público del suelo**, así como el registro de las **operaciones de administración y disposición** relativos a los mismos.
	PRINCIPIOS	• **Formación obligatoria.** • Carácter **no constitutivo**. • Sujeto a **fiscalización** del Tribunal de Cuentas del País Vasco.
REGISTRO DE LA PROPIEDAD	**CONCEPTO**	Registro que tiene por objeto la inscripción o anotación de **actos o contratos relativos al dominio y demás derechos reales** sobre bienes **inmuebles.**
	PRINCIPIOS RESPECTO DE LOS BIENES PÚBLICOS	• **Es obligatoria la inscripción de**: → Los bienes y derechos propiedad de la entidad, con independencia de su naturaleza jurídica (patrimonial o demanial). → Los actos y contratos relativos a los anteriores que puedan tener acceso a dichos registros. → La depuración física y jurídica de los bienes inscritos. • **Es potestativa la inscripción** de los arrendamientos inscribibles. • La inscripción se rige por la **LEGISLACIÓN HIPOTECARIA.** • Deberán promoverse **actuaciones de regularización** en los **supuestos** de: → Existencia de bien o derecho sin título de dominio. → Inexistencia o imposibilidad de localización física de inmueble inscrito. → Doble inmatriculación. → Derecho de tercero sobre finca inscrita. • **Se reconoce como título inscribible la certificación administrativa** para supuestos como: → Inmatriculación, cuando se carezca de título escrito de dominio. → Actos de naturaleza urbanística. → Regularización registral.

Legislación: Texto Refundido de Régimen Local, art. 86
Ley de Patrimonio de las Administraciones Públicas, arts. 28, 32 y 36
Reglamento de Patrimonio de las Administraciones Públicas, arts. 46.1 y 48
Ley del Suelo y Urbanismo del País Vasco, arts. 112-113
Reglamento de Bienes, arts. 17 al 36
Ley Hipotecaria, arts. 1 y 206
Reglamento Hipotecario, arts. 303 y ss.
Reglamento de inscripción de actos de naturaleza urbanística

INBENTARIOA	**KONTZEPTUA**	Erakundearen, bere organismo autonomoen eta sozietate publikoen **ondarea** osatzen duten ondasun eta eskubideen **nahitaezko administrazio-erregistroa**, nahikoa xehetasunez, **honako hau jasotzeko**: • Ondasun eta eskubideen identifikazioa. • Egoera juridikoa. • Norakoa edo erabilera.
	PRINTZIPIOAK	• **Nahitaezko prestakuntza**. • Izaera **ez eratzailea**: Bere kabuz ez du Udalbatzaren aldeko eskubiderik frogatzen, ez sortzen, ez eratzen. • Etengabeko gogoangarria da **Udalbatzak** bere ondasunei buruz dagozkion **ahalmenak egikari ditzan**. • **Sarbide publikoa.**
	OHAR BEREIZGARRIAK	• **Epigrafetan antolatzen** da. • Udalbatzaren idazkariak **baimentzen** du, alkatearen onespenarekin. • **Urtero zuzendu** behar da. • **Udalbatza berritzen** den aldiro **egiaztatu** behar da. • **Estatuko Administrazio Orokorrari eta Administrazio Autonomikoari jakinarazteko betebeharra**. • **Osoko Bilkurari** dagozkio hari buruzko eskumenak.
LURZORU-ONDARE PUBLIKOEN USTIAPEN-ERREGISTROA	**KONTZEPTUA**	**Lurzoru-ondare publikoa** osatzen duten ondasun eta baliabideen **nahitaezko administrazio-erregistroa**, baita ondasun horien **administrazio eta erabilpen-eragiketen** erregistroa ere.
	PRINTZIPIOAK	• **Nahitaezko prestakuntza.** • Izaera **ez eratzailea**. • Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Kontuen Epaitegiaren **fiskalizaziopean** egongo da.
JABETZA-ERREGISTROA	**KONTZEPTUA**	Ondasun **higiezinen gaineko jabariari eta gainerako eskubide errealei buruzko egintzak edo kontratuak** inskribatzea edo jasotzea xede duen erregistroa**.**
	ONDASUN PUBLIKOEN GAINEKO PRINTZIPIOAK	• **Honakoak inskribatzea nahitaezkoa da:** → Erakundearen jabetzako ondasun eta eskubideak, haien izatasun juridikoa (ondare-ondasuna edo herri-ondasuna) alde batera utzita. → Aurrekoei buruzko egintza eta kontratuak, erregistro horietan sarrera izan badezakete. → Inskribatutako ondasunen arazketa fisikoa eta juridikoa. • Inskribatzeko modukoak diren errentamenduak **inskribatzea aukerakoa da.** • **HIPOTEKARI BURUZKO LEGERIA** bete behar du inskripzioak. • **Erregularizazio-jarduketak** sustatu beharko dira, **baldin eta**: → Jabari-titulurik gabeko ondasun edo eskubiderik badago. → Inskribatutako higiezina fisikoki kokatzea ezinezkoa bada edo existitzen ez bada. → Immatrikulazio bikoitza badago. → Hirugarren batek eskubidea badu inskribatutako finkaren gainean. • **Inskribatzeko moduko titulutzat onartzen da** honako kasu hauetarako **administrazio-ziurtapena**: → Immatrikulazioa, jabariaren idatzizko titulurik ez dagoenean. → Hirigintza-izaerako egintzak. → Erregistro-erregularizazioa.

Legeria:

Toki Araubidearen testu bategina, 86. artikulua
Herri Administrazioen Ondarearen Legea, 28, 32 eta 36. artikuluak
Herri Administrazioen Ondarearen Erregelamendua, 46.1 eta 48. artikuluak
Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legea, 112-113. artikuluak
Ondasunen Erregelamendua, 17-36. artikuluak
Hipoteken Legea, 1 eta 206. artikuluak
Hipoteken Erregelamendua, 303. artikulua eta hurrengoak
Hirigintza-izaerako egintzak inskribatzeko erregelamendua

ORIGEN	• La regulación moderna viene de la **Revolución Francesa** y se plasmó en la Declaración de **Derechos del Hombre y del Ciudadano de 1789** como reconocimiento de un **límite a la propiedad** y como un **sistema de garantías**. • En **España** se introduce en la **Ley de 17 de julio de 1836 y las Constituciones sucesivas** le prestarán su respaldo expreso. El 10 de enero de 1879 se dicta una **segunda Ley general de expropiación**, que persiste aún durante la II República. • Hoy en día está EN VIGOR la **Ley de Expropiación Forzosa de 16 de diciembre de 1954 (LEF)**, desarrollada reglamentariamente por el **Decreto de 26 de abril de 1956 (REF). La Ley de 1954 debe ser renovada.**
REGULACIÓN CONSTITUCIONAL	• Según la Constitución **la legislación sobre expropiación forzosa se atribuye al Estado** sin matices, ni limitaciones de ningún tipo. • La **Constitución** reconoce el **derecho a la propiedad privada y a la herencia**, y establece que: → La **función social de estos derechos delimitará su contenido**, de acuerdo con las **leyes**. → Nadie podrá ser **privado de sus bienes y derechos** sino por **causa justificada de utilidad pública o interés social**, mediante la **correspondiente indemnización** y **de conformidad con lo dispuesto por las leyes.** • Por tanto, **la propiedad no es un derecho absoluto**.
DEFINICIÓN LEGAL	• Según el artículo 1.1 de la **LEF** adaptada a la Constitución, constituye el **objeto de esta Ley** la **expropiación forzosa por causa de utilidad pública o interés social** a que se refiere el artículo **33.3 de la Constitución**. • **NOTAS DESTACADAS de la noción de expropiación forzosa**: → Se concreta siempre **en una privación singular de la propiedad o de derechos o intereses patrimoniales legítimos, cualesquiera que fueran las personas o entidades a que pertenezcan.** → **Se acuerda imperativamente,** de manera **deliberada y querida, distinguiéndose así de la responsabilidad civil.** → **Esta privación puede revestir forma de venta, permuta, censo, arrendamiento, ocupación temporal o mera cesación de su ejercicio,** → Hay una **exigencia legal de abono de una indemnización o justo precio** de los bienes y derechos afectados por la misma**.**
POTESTAD ADMINISTRATIVA	• Es una **potestad administrativa** consistente en el **poder jurídico** reconocido por el ordenamiento jurídico para **desarrollar actuaciones ejecutivas concretas, productoras de efectos**. • La potestad es una expresión de **supremacía administrativa** por razón del **interés general**. • Ha de **ajustarse estrictamente a la Ley**. • **Características:** → Generalidad y abstracción. → Vinculación plena al interés público. → Obligatoriedad de ejercicio. → Indisponible e irrenunciable. → Intransmisible. → No sujeta a transacción.

JATORRIA	• Erregulazio modernoa **Frantziako Iraultzatik** dator, eta **1789ko Gizakiaren eta Herritarren Eskubideen Adierazpenean** jaso zen **jabetza-mugaren** aitorpen gisa eta **berme-sistema** gisa. • **Espainian**, **1836ko uztailaren 17ko Legearen bidez sartu zen, eta ondorengo konstituzioetan** berariazko babesa jaso izan du. 1879ko urtarrilaren 10ean, **desjabetzeari buruzko bigarren lege orokorra** eman zen, II. Errepublikan oraindik indarrean egon zena. • Gaur egun, **Nahitaezko Desjabetzeari buruzko 1954ko abenduaren 16ko Legea (NDL) DAGO INDARREAN**, **1956ko apirilaren 26ko Dekretuak erregelamendu bidez garatua (NDE)**. **1954ko Legea berritu egin beharra dago.**
ARAUTZE KONSTITUZIONALA	• Konstituzioaren arabera, **nahitaezko desjabetzeari buruzko legeria Estatuari dagokio**, soil-soilik, ñabardurarik eta inolako mugarik gabe. • **Konstituzioak jabetza pribaturako eta jarauntsirako eskubideak** aitortzen ditu, eta ezartzen du: → **Eskubideon gizarte-eginkizunak legeen** arabera mugatuko du haien edukia. → Inori **ez zaio bere ondasun eta eskubiderik kenduko**, **onura publikoko edo gizarte-interesko arrazoi justifikaturik** izan ezean; halakoetan, **kalte-ordain egokia** emango zaio eta **legeetan xedatutakoaren arabera** jokatuko da betiere. • Beraz, **jabetza ez da eskubide absolutua**.
LEGEZKO DEFINIZIOA	• **NDLren** 1.1 artikuluaren arabera (Konstituzioari egokitu zaio), **lege honen xedea** da **onura publikoak edo gizartearen interesak justifikaturiko nahitaezko desjabetzea**, zeina **Konstituzioaren 33.3** artikuluan jasotzen baita. • **Nahitaezko desjabetzearen nozioari buruzko OHAR NABARMENAK**: → **Jabetzaren edo ondare-eskubide nahiz -interes legitimoen gabetze berezian** gauzatzen da beti, **berdin izanik zein pertsona edo entitaterenak diren ondasun edo eskubide horiek.** → **Aginduz erabakitzen da**, **nahita eta berariaz; hartara, erantzukizun zibiletik bereizten da.** → **Gabetze horrek salmenta, trukea, zentsua, errentamendua, aldi baterako okupazioa edo besterik gabe jarduera egikaritzeari uztea ekar dezake.** → **Kalte-ordaina edo prezio justu bat ordaintzeko legezko betebeharra** dago, eragindako ondasun eta eskubideengatik**.**
ADMINISTRAZIO-AHALA	• **Administrazioaren ahal** bat da; hots, ordenamendu juridikoak aitortzen duen **botere juridikoa**, **ondorioak sortzen dituzten jarduketa betearazle zehatzak garatzeko**. • Ahala **administrazioaren nagusitasunaren** adierazpen bat da, **interes orokorra** dela eta. • **Legeari hertsiki egokitu** behar zaio. • **Ezaugarriak:** → Orokorra eta abstraktua da. → Erabat lotuta dago interes publikoari. → Nahitaez jardun beharra dago. → Xedaezina eta ezin zaio uko egin. → Eskualdaezina da. → Ez dago transakzioaren mende.

SUJETOS DE LA EXPROPIACIÓN FORZOSA	**EXPROPIANTE** **Art. 2 LEF** **Art. 3 REF**	TITULAR DE LA POTESTAD EXPROPIATORIA Y ÓRGANO COMPETENTE	• La titular de la potestad expropietaria es la **Administración de base territorial**. Por tanto, el expropiante será el **Estado, las Comunidades Autónomas, las Provincias y los municipios**. • Por **regla general, esta potestad** se **niega a la Administración Institucional y Corporativa, las sociedades públicas y los consorcios**. El **sujeto activo** es una **administración con base territorial** (Administración del Estado, Comunidad Autónoma, Provincia o Municipio). • La potestad expropiatoria de la Administración Local **se fundamenta** en el artículo **4.1.d) de la Ley de Bases de Régimen Local**. • **Órgano competente en los municipios:** → **municipios de régimen común: Pleno de la Corporación Local** (el Alcalde o Presidente solo puede actuar en actos de trámite). → **municipios de gran población: Junta de Gobierno** (salvo actos de trámite)**.**
	BENEFICIARIO **Art. 2.2 LEF** **Art. 3.1.4 REF** **Art. 3.1.5 REF**	PERSONAS O ENTES	• **La Administración Pública expropiante** (supuesto frecuente en el que expropiante y beneficiario coinciden). • **Persona o entidad distinta de aquella, por causa de utilidad pública o de interés social**.
		ATRIBUCIONES	• **Impulsar el procedimiento e informar,** a su arbitrio, sobre las incidencias y pronunciamientos del mismo. • Formular la **relación de bienes y derechos afectados**. • **Convenir libremente con el expropiado** la adquisición amistosa del bien. • Actuar en la pieza separada de justiprecio, **presentando la hoja de aprecio** y **aceptando o rechazando la valoración propuesta por los propietarios.** • **Pagar o consignar** la cantidad fijada como justiprecio. • Abonar las **indemnizaciones de demora**. • Obligaciones y derechos derivados de la **reversión**.
	EXPROPIADO **Art. 3-7 LEF** **Art. 31.6 REF** **Art. 31.7 REF**	CONCEPTO	• Es el **propietario de la cosa o el titular del derecho objeto de expropiación** y **los titulares de derechos e intereses económicos directos afectados** por la expropiación. • **Normalmente será un sujeto privado,** pero puede ser una persona jurídico-pública en relación con sus bienes patrimoniales. La **transmisión de la propiedad** lleva consigo la **subrogación en la condición de expropiado.** • Salvo prueba en contrario, la **Administración expropiante considerará propietario o titular:** a quien, con este carácter, conste en registros públicos que produzcan presunción de titularidad, o a quien aparezca, con tal carácter, en registros fiscales, o al que lo sea pública y notoriamente.
		TITULARIDAD LITIGIOSA	• **Las actuaciones han de entenderse con el Ministerio Fiscal.** • También **son parte quienes posean títulos contradictorios sobre el objeto que se trata de expropiar,** que **tienen una serie de derechos y obligaciones**: derecho a ser citados, derecho a convenir con la Administración la adquisición amistosa y por mutuo acuerdo del bien, derecho a formular hojas de aprecio, derecho a percibir el justiprecio, obligación de acreditar su condición, obligación de presentar los títulos contradictorios, obligación de comunicar las transmisiones...
OBJETO	**ÁMBITO OBJETIVO**		• **Cualquier bien mueble o inmueble o derecho de contenido patrimonial** (real o personal, por ejemplo, usufructo y arrendamiento), quedando **excluidos los derechos de contenido no patrimonial** (familia, personalidad) y los bienes de dominio público. • **A título de ejemplo**: se consideran expropiables los derechos del usufructuario, el acreedor hipotecario, servidumbres, arrendamientos, censos, concesiones administrativas, valores mobiliarios, propiedad industrial, propiedad intelectual, edificabilidad urbanística, aprovechamientos de montes comunales. • Expropiación parcial: en los casos en que la privación de la propiedad o derechos privados sobre fincas rústicas o urbanas no afecta a la totalidad de los bienes o derechos sobre los que recae.
	LIBRE DE CARGAS **Art. 8 LEF**		• **La cosa expropiada se adquirirá libre de cargas.** MODELO 1: **SOLICITUD CERTIFICADO DE DOMINIO Y CARGAS** • Es **importante inscribir en el Registro de la Propiedad la nota que anuncia la existencia del expediente expropiatorio**, ya que el dominio, las cargas, los gravámenes, derechos reales y limitaciones inscritos con posterioridad se cancelarán.
	CONSERVACIÓN DE DERECHOS SOBRE LA COSA EXPROPIADA		Podrá conservarse algún derecho sobre el bien expropiado, **siempre que resulte compatible con el fin a que tal bien haya de quedar afectado** como consecuencia de la expropiación, **correspondiendo a la Administración decidir** sobre la subsistencia del derecho, **oyendo previamente al titular expropiado principal.**
CAUSA EXPROPIANDI	Constituyen la **causa** o el **presupuesto esencial** de la expropiación: **Art. 33.3 de la CE**	LA UTILIDAD PÚBLICA	• Se refiere a **la propia actuación administrativa** en el marco de obras públicas (carreteras, obras hidráulicas...), servicios, dotaciones y demás aspectos relacionados con el giro administrativo.
		EL INTERÉS SOCIAL	• Un **fin u objetivo supraindividual**; por ejemplo, actuar contra incumplimientos de la función social de la propiedad, protección de un bien de interés cultural...
			• **La utilidad pública y el interés social pueden concurrir conjuntamente, como causas.** • **Deberán estar declarados en una Ley, aunque sea de modo genérico.**

Guía Local - ISBN 978-84-7777-690-1

<table>
<tr><td rowspan="5">NAHITAEZKO DESJABETZEAREN SUBJEKTUAK</td><td>DESJABETZAILEA
NDL, 2. artikulua
NDE, 3. artikulua</td><td>DESJABETZEKO AHALAREN TITULARRA ETA ORGANO ESKUDUNA</td><td>• Desjabetzeko ahalaren titularra lurralde-mailako administrazioa da. Hortaz, Estatua, autonomia-erkidegoak, probintziak eta udalerriak izango dira desjabetzaileak.
• Arau orokor gisa, ahal hori ez dagokie administrazio instituzionalari eta korporatiboari, sozietate publikoei eta partzuergoei. Subjektu aktiboa lurralde-oinarria duen administrazio bat da (Estatuko administrazioa, autonomia-erkidegoa, probintzia edo udalerria).
• Toki-administrazioaren desjabetze-ahala Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 4.1.d) artikuluan oinarritzen da.
• UDALERRIETAKO ORGANO ESKUDUNA:
→ ARAUBIDE ERKIDEKO UDALERRIAK: toki-korporazioko osoko bilkura (alkateak edo lehendakariak izapide-egintzetan baino ezin du jardun).
→ BIZTANLE ASKOKO UDALERRIAK: gobernu-batzarra (izapide-egintzak izan ezik).</td></tr>
<tr><td rowspan="2">ONURADUNA
NDL, 2.2. artikulua
NDE, 3.1.4. artikulua
NDE, 3.1.5. artikulua</td><td>PERTSONAK EDO ENTEAK</td><td>• Administrazio publiko desjabetzailea (ohiko kasua da: desjabetzailea eta onuraduna ente bera dira).
• Beste pertsona edo entitate bat, onura publikoak edo gizartearen interesak justifikatuta.</td></tr>
<tr><td>ESKUDANTZIAK</td><td>• Prozedura bultzatzea eta, berak nahi duen moduan, prozeduraren gorabeheren eta erabakien berri ematea.
• Eragindako ondasun eta eskubideen zerrenda egitea.
• Desjabetuarekin libreki adostea ondasuna modu adiskidetsuan eskuratzea.
• Balio justuko pieza bananduan jardutea; zehazki, prezamendu-orria aurkeztea, bai eta jabeek proposatutako balioespena onartu edo ukatzea ere.
• Finkatutako balio justuaren zenbatekoa ordaintzea edo kontsignatzea.
• Berandutzeagatiko kalte-ordainak ordaintzea.
• Itzulketaren ondoriozko betebeharrak eta eskubideak.</td></tr>
<tr><td rowspan="2">DESJABETUA
NDL, 3.-7. artikuluak
NDE, 31.6. artikulua
NDE, 31.7. artikulua</td><td>KONTZEPTUA</td><td>• Desjabetua da: desjabetzearen xede den gauzaren jabea edo eskubidearen titularra, eta desjabetzeak eragindako eskubideen eta zuzeneko interes ekonomikoen titularra.
• Eskuarki subjektu pribatua izango da, baina pertsona juridiko-publikoa ere izan daiteke, bere ondare-ondasunei dagokienez. Jabetza eskualdatzeak desjabetua subrogatzea dakar berekin.
• Kontrakorik frogatu ezean, Administrazio desjabetzaileak jabe edo titulartzat joko du titulartasun-presuntzioa sortzen duten erregistro publikoetan izaera horrekin ageri dena edo, bestela, erregistro fiskaletan izaera horrekin ageri dena edo modu publiko eta agerikoan izaera horrekin jokatzen duena.</td></tr>
<tr><td>AUZIGAIAREN TITULARTASUNA</td><td>• Jarduketak Fiskaltzarekin adostu behar dira.
• Alderdi dira, halaber, desjabetzearen xedeari buruzko kontraesaneko tituluak dituztenak, zeinek eskubide eta betebehar jakin batzuk baititutze: zitatuak izateko eskubidea, Administrazioarekin ondasuna adiskidetasunez eta elkarren adostasunez eskuratzeko hitzarmena egiteko eskubidea, prezamendu-orriak formulatzeko eskubidea, balio justua jasotzeko eskubidea, alderdi direla egiaztatzeko betebeharra, kontraesaneko tituluak aurkezteko betebeharra, eskualdaketak komunikatzeko betebeharra...</td></tr>
<tr><td rowspan="3">XEDEA</td><td>EREMU OBJEKTIBOA</td><td colspan="2">• Edozein ondasun higigarri edo higiezin, edo ondare-edukia duen eskubide (erreala edo pertsonala, adibidez, gozamena edo errentamendua); ez dira sartzen ondarezkoak ez diren eskubideak (familia, nortasuna...) eta jabari publikoko ondasunak.
• Adibide gisa, honako hauek hartzen dira desjabetzearen xedetzat: gozamendunaren eskubideak, hipoteka-hartzekodunarenak, zortasunak, errentamenduak, zentsuak, emakida administratiboak, balore higigarriak, jabetza industriala, jabetza intelektuala, hiri-eraikigarritasuna eta herri-basoen aprobetxamenduak.
• Desjabetze partziala: landa- edo hiri-finken gaineko jabetza edo eskubide pribatuak kentzeak ez die eragiten finka horien gaineko ondasun edo eskubide guztiei.</td></tr>
<tr><td>KARGARIK GABE
NDL, 8. artikulua</td><td colspan="2">• Desjabetutako gauza kargarik gabe eskuratuko da. 1. EREDUA: JABARIAREN ETA KARGEN ZIURTAGIRIAREN ESKAERA
• Garrantzitsua da Jabetza Erregistroan desjabetze-espedientearen berri ematen duen oharra inskribatzea, deuseztatu egingo baitira gerora inskribatutako jabaria, zamak, kargak, eskubide errealak eta mugapenak.</td></tr>
<tr><td colspan="2">DESJABETUTAKO GAUZAREN GAINEKO ESKUBIDEAK ATXIKITZEA</td><td colspan="2">Desjabetutako ondasunari buruzko eskubideren bat atxiki ahal izango da, baldin eta eskubide hori bateragarria bada desjabetzearen ondorioz ondasun horri lotuko zaion helburuarekin. Administrazioari dagokio erabakitzea eskubide horrek indarrean jarraituko duen, desjabetutako titular nagusiari entzun ondoren.</td></tr>
<tr><td rowspan="3">DESJABETZEKO ARRAZOIA</td><td rowspan="3">Hauek dira desjabetzeko kausa edo funtsezko oinarri:
EK, 33.3. artikulua</td><td>ONURA PUBLIKOA</td><td>• Administrazioaren jarduketa propioari egiten dio erreferentzia, esparru hauetan: herri-lanak (errepideak, obra hidraulikoak...), zerbitzuak, zuzkidurak eta administrazioaren igorpenarekin lotutako gainerako alderdiak.</td></tr>
<tr><td>INTERES SOZIALA</td><td>• Banakakoaz gaindiko helburua edo xedea; adibidez, jabetzaren funtzio soziala ez betetzearen aurka jardutea, interes kulturaleko ondasun bat babestea...</td></tr>
<tr><td colspan="2">• Onura publikoa eta interes soziala biak batera ager daitezke kausa gisa.
• Lege batean aitortuta egon beharko dute, modu orokorrean bada ere.</td></tr>
</table>

<table>
<tr><td rowspan="5">PREVIA DECLARACIÓN PÚBLICA DE UTILIDAD PÚBLICA O INTERÉS SOCIAL
Arts. 9-14 LEF</td><td colspan="2">• La potestad de expropiación ha de ejercitarse a través de un procedimiento formal estricto que constituye una garantía de rango constitucional. El procedimiento es tasado, riguroso, formal y reglado.
• La LEF diseña un procedimiento general y varios procedimientos especiales.
• Es INDISPENSABLE la previa declaración de utilidad pública o interés social del fin al que se haya de afectar el bien o el derecho expropiado.
• IMPLICA la autorización de expropiación de los bienes y derechos precisos.</td></tr>
<tr><td>IMPLÍCITA</td><td>• La utilidad pública se entiende implícita, en relación con la expropiación de inmuebles, en todos los planes de obras y servicios del Estado, Provincia y Municipio. Hay que describir la obra y actuaciones con detalle. MODELO 2: APROBACIÓN DEL PROYECTO DE EXPROPIACIÓN DE LOS BIENES Y DERECHOS AFECTADOS POR EL PLAN/PROYECTO XXXX. RELACIÓN DE BIENES, DERECHOS Y TITULARES AFECTADOS
• No es suficiente hacerlo mediante ordenanza local si no hay habilitación legal.
• La aprobación del plan normalmente será un acuerdo plenario.
• Está sometida al trámite inexcusable de la información pública.</td></tr>
<tr><td>GENÉRICA con especificación posterior</td><td>• Declaración genérica por Ley que se concreta por un Reglamento, generalmente se trata de expropiaciones supramunicipales de grandes infraestructuras.</td></tr>
<tr><td>POR NORMA LEGAL</td><td>• Reflejo del principio de legalidad de la expropiación.</td></tr>
<tr><td>SUPUESTOS ESPECÍFICOS</td><td>• Aguas, costas, sistema eléctrico, telecomunicaciones, carreteras, hidrocarburos, urbanismo, ordenación del territorio, minas, residuos : legislación específica.</td></tr>
<tr><td rowspan="6">ACUERDO DE DECLARACIÓN DE NECESIDAD DE OCUPACIÓN DE BIENES O DE ADQUISICIÓN DE DERECHOS
Arts. 15-23 LEF</td><td colspan="2">• Según el artículo 21.1 de la LEF el acuerdo de necesidad de ocupación inicia el expediente expropiatorio.
• No puede extenderse a más de lo necesario y la ocupación se refiere a los bienes estrictamente indispensables.
• El beneficiario de la expropiación estará obligado a formular una relación concreta e individualizada, en la que se describan, en todos los aspectos, material y jurídico, los bienes o derechos que considere de necesaria expropiación.
• Si el proyecto de obras y servicios comprende la descripción material detallada de bienes y derechos de necesaria ocupación, la necesidad de ocupación se entenderá implícita en la aprobación del proyecto, pero el beneficiario estará igualmente obligado a formular la relación de bienes y derechos objeto de expropiación, a los solos efectos de la determinación de los interesados (art. 17.2 LEF).
• La relación debe de indicar: estado físico de los bienes, situación jurídica, identificación de las personas físicas y jurídicas titulares de los bienes y derechos afectados con expresión del domicilio, identificación de los sujetos titulares de cualquier derecho o interés legítimos.</td></tr>
<tr><td>INFORMACIÓN PÚBLICA
Art. 18 LEF</td><td>• Recibida la relación de bienes y derechos afectados se abrirá un plazo de información pública de 15 días hábiles, con publicación en el Boletín Oficial de la Provincia y en uno de los diarios de mayor circulación de la misma.
• Los plazos se cuentan desde el día siguiente a la última de las publicaciones preceptivas mencionadas y se computan únicamente los días hábiles (art. 24 REF).
• Es un trámite esencial. Su ausencia genera indefensión y es causa de nulidad del expediente.</td></tr>
<tr><td>ALEGACIONES
Art. 19 LEF</td><td>• Cualquier persona podrá aportar por escrito los datos oportunos para rectificar posibles errores de la relación publicada u oponerse, por razones de fondo o forma, a la necesidad de la ocupación. En este caso indicará los motivos por los que deba considerarse preferente la ocupación de otros bienes o la adquisición de otros derechos distintos y no comprendidos en la relación, como más conveniente al fin que se persigue. No se limita a aquellos que pudieran tener la consideración de expropiados.
• En el supuesto de declaración implícita de necesidad de ocupación (art.17.2 LEF), cualquier persona podrá formular alegaciones, a los solos efectos de subsanar posibles errores en la relación.
• Pueden aportarse certificados u otros documentos de comprobación.
• Es el momento oportuno para discutir las posibles alternativas de ocupación de bienes distintos, es decir, la localización de la obra o servicio en lugar diferente. La alternativa de localización más adecuada es un concepto jurídico indeterminado fiscalizable en vía judicial.</td></tr>
<tr><td>RESOLUCIÓN O ACUERDO</td><td>• A la vista de las alegaciones formuladas por quienes comparezcan en la información pública, previas las comprobaciones que estime oportunas, resolverá, en el plazo máximo de veinte días, sobre la necesidad de la ocupación, describiendo en la resolución detalladamente los bienes y derechos a que afecta la expropiación, y designando nominalmente a los interesados con los que hayan de entenderse los sucesivos trámites.</td></tr>
<tr><td>PUBLICACIÓN</td><td>• El acuerdo se publicará en igual forma que la prevista en el artículo 18 para el acto por el que se ordene la apertura de la información pública, es decir, en el Boletín Oficial de la Provincia y en uno de los diarios de mayor circulación de la misma.</td></tr>
<tr><td>NOTIFICACIÓN</td><td>• Habrá de notificarse individualmente a cuantas personas aparezcan como interesadas en el procedimiento expropiatorio (con texto íntegro del acto y la referencia de los recursos procedentes).
• El defecto conduce a la invalidez de la ocupación. Hay que extremar las precauciones.</td></tr>
<tr><td>RECURSOS</td><td>• El acuerdo o resolución puede ser recurrido en reposición ya que en la Administración Local agotará la vía administrativa.</td></tr>
</table>

<table>
<tr><td rowspan="5">AURRETIK ONURA PUBLIKOTZAT EDO GIZARTE-INTERESEKOTZAT DEKLARATZEA

NDL, 9.-14. artikuluak</td><td colspan="2">• Desjabetzeko ahala prozedura formal zorrotz baten bidez egikaritu behar da; prozedura hori konstituzio-mailako bermea da. Prozedura tasatua, zehatza, formala eta arautua da.
• NDLk prozedura orokor bat eta zenbait prozedura berezi diseinatzen ditu.
• Nahitaezkoa da aldez aurretik onura publikoko edo gizarte-intereseko deklaratzea desjabetutako ondasun edo eskubideari lotuko zaion xedea.
• Behar diren ondasunak eta eskubideak desjabetzeko baimena ematen du.</td></tr>
<tr><td>INPLIZITUA</td><td>• Higiezinen desjabetzetan, onura publikoa inplizitu dagoela ulertzen da Estatuko, probintziako eta udalerriko obra- eta zerbitzu-plan guztietan. Obra eta jarduketak xehe-xehe deskribatu behar dira. 2. EREDUA: XXXX PLANAK/PROIEKTUAK ERAGINDAKO ONDASUN ETA ESKUBIDEAK DESJABETZEKO PROIEKTUA ONARTZEA. ERAGINDAKO ONDASUN, ESKUBIDE ETA TITULARREN ZERRENDA
• Ez badago legezko gaikuntzarik, ez da nahikoa tokiko ordenantzen bitartez egitea.
• Normalean, osoko bilkuraren erabaki baten bidez onartuko da plana.
• Nahitaezkoa da jendaurreko informazioaren izapidea egitea.</td></tr>
<tr><td>GENERIKOA,
geroago zehaztekoa</td><td>• Legearen bidez egindako deklarazio generiko bat, erregelamenduz zehaztuko dena; normalean, udalez gaindiko desjabetzeak dira, azpiegitura handienak.</td></tr>
<tr><td>LEGE-ARAUZ</td><td>• Desjabetzearen legezkotasun-printzipioa adierazten du.</td></tr>
<tr><td>BERARIAZKO KASUAK</td><td>• Urak, kostak, sistema elektrikoa, telekomunikazioak, errepideak, hidrokarburoak, hirigintza, lurralde-antolamendua, meategiak, hondakinak...: berariazko legeria.</td></tr>
<tr><td rowspan="6">ONDASUNAK OKUPATZEKO EDO ESKUBIDEAK ESKURATZEKO BEHARRA DEKLARATZEKO ERABAKIA

NDL, 15.-23. artikuluak</td><td colspan="2">• NDLren 21.1 artikuluaren arabera, okupatzeko beharraren erabakiarekin hasten da desjabetze-espedientea.
• Ezin da beharrezkoa den horretatik harago joan, eta behar-beharrezkoak diren ondasunei soilik eragiten die okupazioak.
• Desjabetzearen onuradunak nahitaez aurkeztu beharko du zerrenda zehatz eta banakatu bat, non deskribatuko baitira, alderdi guztietan (materiala eta juridikoa), desjabetu beharrekotzat jotzen dituen ondasun edo eskubideak.
• Obra eta zerbitzuen proiektuak okupatu beharreko ondasun eta eskubideen deskribapen material xehatua barne hartzen badu, ulertuko da okupazio-beharra inplizituki doala proiektuaren onarpenean, baina onuradunak nahitaez aurkeztu beharko du desjabetu beharreko ondasun eta eskubideen zerrenda, interesdunak zehazteko baino ez bada ere (NDL, 17.2 artikulua).
• Zerrendan, honako hauek adierazi behar dira: ondasunen egoera fisikoa eta juridikoa, eragindako ondasun eta eskubideen titular diren pertsona fisiko eta juridikoen identifikazioa (helbidea adierazita), eta edozein eskubide edo interes legitimoren subjektu titularren identifikazioa.</td></tr>
<tr><td>JENDAURREKO INFORMAZIOA

NDL, 18. artikulua</td><td>• Eragindako ondasun eta eskubideen zerrenda jaso ondoren, 15 egun baliodunekо epea irekiko da jendaurrean jartzeko, eta probintziako aldizkari ofizialean argitaratuko da, baita probintzia horretan hedadura handiena duten egunkarietako batean ere.
• Aipatutako nahitaezko argitalpenetatik azkenaren hurrengo egunetik aurrera kontatzen dira epeak, eta egun baliodunak baino ez dira zenbatzen (NDE, 24. artikulua).
• Funtsezko izapidea da. Halakorik ez egiteak defentsa-gabezia eragiten du, eta espedientea deuseztatzeko arrazoia da.</td></tr>
<tr><td>ALEGAZIOAK

NDL, 19. artikulua</td><td>• Edozein pertsonak aurkez ditzake idatziz argitaratutako zerrendan egon daitezkeen akatsak zuzentzeko datuak, edo aurka egin diezaioke, funtsari edo formari lotutako arrazoiengatik, okupazio-beharrari. Azken kasu horretan, adierazi beharko du zergatik jotzen den lehentasunezkotzat, lortu nahi den helbururako, zerrenda horretan jasotzen direnak ez, beste ondasun batzuk okupatzea edo beste eskubide batzuk eskuratzea. Desjabetutzat jo daitezkeenek ez ezik, beste edozeinek ere egin ditzake alegazioak.
• Okupatu beharraren deklarazio inplizitua eginez gero (NDL, 17.2 artikulua), edozein pertsonak aurkeztu ahal izango ditu alegazioak, zerrendan egon daitezkeen akatsak zuzentzeko baino ez.
• Ziurtagiriak edo bestelako egiaztapen-dokumentuak aurkez daitezke.
• Une egokia da beste ondasun batzuk okupatzeko bestelako aukerak eztabaidatzeko, hau da, obra edo zerbitzua beste leku batean kokatzeaz mintzatzeko. Obra edo zerbitzua kokatzeko hautabiderik egokiena zehaztu gabeko kontzeptu juridiko bat da, bide judizialean fiskalizatu daitekeena.</td></tr>
<tr><td>EBAZPENA EDO ERABAKIA</td><td>• Jendaurreko informazioan aurkezten direnek egindako alegazioak ikusita, eta egoki iritzitako egiaztapenak egin ondoren, ebatziko da, hogei eguneko gehieneko epean, okupatzearen beharrari buruz; ebazpen horretan, zehatz-mehatz deskribatuko dira desjabetzeak eraginpean hartzen dituen ondasun eta eskubideak, eta izen-abizenekin izendatuko dira ondorengo izapideetako interesdunak.</td></tr>
<tr><td>ARGITARATZEA</td><td>• 18. artikuluan jendaurreko informazioa irekitzea agintzen egintzarako aurreikusitako modu berean argitaratuko da erabakia, hau da, probintziako aldizkari ofizialean eta probintzia horretan hedadura handiena duten egunkarietako batean.</td></tr>
<tr><td>JAKINARAZPENA</td><td>• Banan-banan jakinarazi beharko zaie desjabetze-prozeduran interesdun gisa agertzen diren pertsona guztiei (egintzaren testu osoa jasota eta zer errekurtso aurkez daitezkeen adierazita).
• Hori ez egiteak okupazioa baliogabetuko luke. Arreta handiz jardun behar da.</td></tr>
<tr><td>ERREKURTSOAK</td><td>• Erabakiaren edo ebazpenaren aurka, berraztertzeko errekurtsoa aurkez daiteke, toki-administrazioan administrazio-bidea amaituko baita.</td></tr>
</table>

CONCEPTO DE JUSTIPRECIO	• Se trata de **la necesaria indemnización al titular de los bienes y derechos objeto de la expropiación**. • Constituye una **pieza separada dentro del expediente** de expropiación forzosa. • **Una vez firme el acuerdo por el que se declara la necesidad de ocupación de bienes o adquisición de derechos** expropiables, se procederá a determinar su justo precio. • Es **imperativo** e **inherente a la función social de la propiedad**; y **es un concepto jurídico indeterminado**. • La **regla general** es que **primero se paga el justiprecio y luego se ocupa** el bien.
FECHA DE REFERENCIA PARA LA VALORACIÓN	• Las tasaciones se efectuarán con arreglo al **valor que tengan los bienes o derechos expropiables al tiempo de iniciarse el expediente de justiprecio,** sin tenerse en cuenta las plusvalías que sean consecuencia directa del plan o proyecto de obras que dan lugar a la expropiación y las previsibles para el futuro. • Las **mejoras realizadas con posterioridad** a la incoación del expediente de expropiación no serán objeto de indemnización, a no ser que se demuestre que eran indispensables para la conservación de los bienes. • Las **mejoras anteriores** son indemnizables, salvo cuando se hubieran realizado de mala fe.

VALORACIONES: EN FUNCIÓN DE LAS SITUACIONES BÁSICAS DEL SUELO

R. D. Legislativo 7/2015, de 30 de octubre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Suelo y Rehabilitación Urbana (T.R. 2015)

CRITERIOS GENERALES DE VALORACIÓN DE INMUEBLES		• **En ningún caso podrán considerarse expectativas** derivadas de la asignación de edificabilidades y usos por la ordenación territorial o urbanística que no hayan sido aún plenamente realizados. • Las **edificaciones, construcciones e instalaciones, los sembrados y las plantaciones en el suelo rural, se tasarán con independencia de los terrenos siempre que** se ajusten a la legalidad al tiempo de la valoración, sean compatibles con el uso o rendimiento considerado en la valoración del suelo y no hayan sido tenidos en cuenta en dicha valoración por su carácter de mejoras permanentes (artículo 35.3 TR 2015). • Se entiende que las **edificaciones, construcciones e instalaciones se ajustan a la legalidad al tiempo de su valoración cuando** se realizaron de conformidad con la ordenación urbanística y el acto administrativo legitimante que requiriesen, o han sido posteriormente legalizadas de conformidad con lo dispuesto en la legislación urbanística. • **La valoración de las edificaciones o construcciones tendrá en cuenta** su antigüedad y su estado de conservación. Si han quedado fuera de ordenación, su valor se reducirá en proporción al tiempo transcurrido de su vida útil.
VALORACIÓN DEL SUELO EN SITUACIÓN DE RURAL (ARTÍCULO 36 TR 2015)		• **Los terrenos se tasarán mediante** la capitalización de la renta anual real o potencial, la que sea superior, de la explotación según su estado en el momento al que deba entenderse referida la valoración. → **La renta potencial se calculará** atendiendo al rendimiento del uso, disfrute o explotación de que sean susceptibles los terrenos conforme a la legislación que les sea aplicable, utilizando los medios técnicos normales para su producción. Incluirá, en su caso, como ingresos las subvenciones que, con carácter estable, se otorguen a los cultivos y aprovechamientos considerados para su cálculo y se descontarán los costes necesarios para la explotación considerada. → **El valor del suelo rural así obtenido podrá ser corregido al alza** en función de factores objetivos de localización, como la accesibilidad a núcleos de población o a centros de actividad económica o la ubicación en entornos de singular valor ambiental o paisajístico, cuya aplicación y ponderación habrá de ser justificada en el correspondiente expediente de valoración, todo ello en los términos que reglamentariamente se establezcan. • **Las edificaciones, construcciones e instalaciones, cuando deban valorarse con independencia del suelo, se tasarán por el método de coste de reposición** según su estado y antigüedad en el momento al que deba referirse la valoración. • **Las plantaciones y los sembrados preexistentes, así como las indemnizaciones por razón de arrendamientos rústicos u otros derechos se tasarán** con arreglo a los criterios de las leyes de expropiación forzosa y de arrendamientos rústicos**.**
VALORACIÓN DEL SUELO EN SITUACIÓN DE URBANIZADO (ARTÍCULO 37 TR 2015)	**NO EDIFICADO o en el que la edificación existente o en curso de ejecución es ilegal o se encuentra en situación de ruina física**	• **Se considerarán como uso y edificabilidad de referencia** los atribuidos a la parcela por la ordenación urbanística, incluyendo, si estuviera sujeta a algún régimen de protección que fije precio de tasación máximo de venta o alquiler, este precio de tasación máximo. • **Si los terrenos no tienen asignada edificabilidad o uso privado por la ordenación urbanística**, se les atribuirá la edificabilidad media y el uso mayoritario en el ámbito espacial homogéneo en que por usos y tipologías la ordenación urbanística los haya incluido. • **Se aplicará a dicha edificabilidad el valor de repercusión del suelo** según el uso correspondiente, determinado por el método residual estático. • **De la cantidad resultante, se descontará, en su caso,** el valor de los deberes y cargas pendientes para poder realizar la edificabilidad prevista.
	EDIFICADO o en curso de edificación	**El valor de la tasación será el superior de los siguientes:** • La tasación conjunta del suelo y de la edificación existente que se ajuste a la legalidad, por el método de comparación, aplicado exclusivamente a los usos de la edificación existente o la construcción ya realizada. • El determinado por el método residual aplicable al suelo no edificado, aplicado exclusivamente al suelo, sin consideración de la edificación existente o la construcción ya realizada.
	ACTUACIONES DE REFORMA O RENOVACIÓN	**El método residual** aplicable al suelo urbanizado considerará los **usos y edificabilidades atribuidos por la ordenación en su situación de origen.**
PREMIO DE AFECCIÓN (ART. 47 LEF)		De acuerdo con el artículo 47 de la Ley de Expropiación Forzosa, en todos los casos de expropiación se abonará al expropiado, **además del justo precio fijado, un 5% como premio de afección. No integra técnicamente la valoración, sino que se añade a la misma**. Su fundamento es **indemnizar el «dolor» del propietario** al verse desposeído de los bienes, por tanto, no se aplica a las ocupaciones temporales.	

BALIO JUSTUAREN KONTZEPTUA	• **Desjabetzearen xede diren ondasun eta eskubideen titularrari eman beharreko kalte-ordaina** da. • **Pieza banandu** bat da, nahitaezko desjabetze-**espedientearen barruan**. • **Behin irmoa denean desjabetu beharreko ondasunak okupatzeko edo eskubideak eskuratzeko beharra deklaratzen duen erabakia**, balio justua zehaztuko da. • **Aginduzkoa** da eta **jabetzaren funtzio sozialari atxikia dago**; eta **kontzeptu juridiko zehaztugabea da**. • **Arau orokorraren** arabera, **lehendabizi balio justua ordainduko da, eta gero ondasuna okupatu**.
BALIOESPENERAKO ERREFERENTZIA-DATA	• Tasazioak **desjabetzearen xede diren ondasun eta eskubide horiek balio justuaren espedientea hasten denean duten balioaren** arabera egingo dira, kontuan hartu gabe desjabetzea eragin duen obra-planaren edo -proiektuaren zuzeneko ondorio diren gainbalioak eta etorkizunerako aurreikus daitezkeenak. • Desjabetze-espedientea hasi **ondoren egiten diren hobetze-lanengatik** ez da jasoko kalte-ordainik, non eta ez den frogatzen ezinbestekoak zirela ondasunak kontserbatzeko. • **Aurretiaz egindako hobekuntzengatik** kalte-ordainak jaso daitezke, salbu eta fede txarrez eginak badira.

BALIOESPENAK: LURZORUAREN OINARRIZKO EGOEREN ARABERA

7/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testu bategina onartzen duena (2015eko testu bategina)

HIGIEZINAK BALIOESTEKO IRIZPIDE OROKORRAK		• EZINGO DIRA INOLAZ ERE KONTUAN HARTU lurralde- edo hirigintza-antolamenduak esleituriko eraikigarritasun eta erabileretatik eratorritako ITXAROKIZUNAK, baldin eta eraikigarritasun eta erabilerok oraindik ez badira guztiz gauzatu. • LANDA-LURZORUKO ERAIKUNTZA, ERAIKIN ETA INSTALAZIO ETA EREINDAKO ETA LANDATUTAKO SAILAK LURSAILAK ALDE BATERA UTZITA TASATUKO DIRA, betiere balioesteko unean legearen araberakoak badira, lurzoruaren balioespenean kontuan izandako erabilera edo errendimenduarekin bateragarriak badira eta hobekuntza finkoak izateagatik balioespen horretan kontuan hartu ez badira (2015eko TB, 35.3 artikulua). • Honako baldintza hauek betetzen direnean jotzen da ERAIKIN, ERAIKUNTZA ETA INSTALAZIOAK LEGEAREN ARABERAKOAK DIRELA BALIOESTEN DIREN UNEAN: hirigintza-antolamenduarekin eta beharrezko zuten administrazio-egintza legitimatzailearekin bat etortzea, edota geroago legeztatuak izatea hirigintza-legerian xedatutakoari jarraikiz. • ERAIKIN ZEIN ERAIKUNTZEN BALIOESPENAK KONTUAN IZANGO DITU haien antzinatasuna eta kontserbazio-egoera. Antolamenduz kanpo geratu badira, beren balio-bizitzatik igarotako denboraren proportzioan gutxituko zaie balioa.
LANDA-EGOERAN DAGOEN LURZORUAREN BALIOESPENA (2015EKO TB, 36. ARTIKULUA)		• Ustiapenaren urteko errenta erreala edo potentziala —bietan handiena— KAPITALIZATZEAREN BIDEZ TASATUKO DIRA LURSAILAK, balioespena egiten den unean duten egoeraren arabera. → **Errenta potentziala kalkulatzeko**, aplikagarri den legeriaren arabera eta ekoizpenerako bitarteko tekniko normalak erabiliz lursailek izan dezaketen erabileraren, gozamenaren edo ustiapenaren errendimendua hartuko da kontuan. Errenta horretan diru-sarreratzat joko dira, hala badagokio, kalkulua egiterakoan kontuan hartutako laboreei eta aprobetxamenduei modu iraunkorrez ematen zaizkien dirulaguntzak, eta ustiapenerako beharrezko diren kostuak deskontatuko dira. → **Hala ateratako landa-lurzoruaren balioa gorantz zuzendu ahal izango da**, kokalekuari buruzko elementu objektiboen arabera, hala nola biztanleguneetara edo jarduera ekonomikoko guneetara duen irisgarritasuna, edota ingurumen- eta paisaia-balio bereziko inguruetan egotea. Faktore horien aplikazioa eta haztapena dagokion balioespen-espedientean justifikatu beharko da, eta hori guztia erregelamendu bidez ezartzen diren baldintzen arabera egingo da. • ERAIKIN, ERAIKUNTZA ETA INSTALAZIOAK, LURZORUA ALDE BATERA UTZITA BALIOETSI BEHAR DIRENEAN, BERREZARTZE-KOSTUAREN METODOAREN BIDEZ TASATUKO DIRA, balioespen horri dagokion unean duten egoera eta antzinatasunaren arabera. • ALDEZ AURRETIK LANDATUTA ETA EREINDA ZEUDEN SAILAK, BAI ETA LANDA-ERRENTAMENDUAK EDO BESTE ESKUBIDE BATZUK DIRELA-ETA EMAN BEHARREKO KALTE-ORDAINAK ERE, nahitaezko desjabetze eta landa errentamenduen legeetako irizpideen arabera TASATUKO DIRA.
URBANIZATU-EGOERAN DAGOEN LURZORUAREN BALIOESPENA (2015EKO TB, 37. ARTIKULUA)	ERAIKI GABEA **edo han dauden nahiz egiten ari diren eraikinak legez kontrakoak badira edo aurri fisikoko egoeran badaude**	• Hirigintza-antolamenduak partzelari esleitzen dizkion **erabilera eta eraikigarritasuna hartuko dira** erreferentziazkotzat, gehieneko tasazio-prezio hori barne, baldin eta salmentako edo alokairuko gehieneko tasazio-prezioa finkatzen duen babes-araubideren baten mende badago. • **Hirigintza-antolamenduak eraikigarritasunik edo erabilera pribaturik esleitu ez badie lursailei**, erabilera eta tipologiengatik hirigintza-antolamenduak haiek sartuak dituen espazio-eremu homogeneoko batez besteko eraikigarritasuna eta erabilera nagusia esleituko zaie. • **Eraikigarritasun horri lurzoruaren eragin-balioa aplikatuko zaio**, dagokion erabileraren arabera, hondar-metodo estatikoaren bidez zehaztua. • **Ateratako zenbatekotik,** aurreikusitako eraikigarritasuna gauzatu ahal izateko zor diren eginbehar eta kargen balioa **deskontatuko da, hala badagokio**.
	ERAIKIA EDO **eraikitzeko bidean dagoena**	**Tasazioaren balioa honako hauetan handiena izango da:** • Lurzoruaren eta han lehendik legearen arabera eraikitakoaren tasazio bateratua, tasaziorako konparazio-metodoa erabilita, eta metodo hori lehendik dauden eraikin edo eraikuntzen erabilerei bakarrik aplikaturik. • Eraiki gabeko lurzoruari aplikagarri zaion hondar-metodoak zehazturiko balioa, metodoa lurzoruari bakarrik aplikaturik, kontuan hartu gabe lehendik dauden eraikin edo eraikuntzak.
	ERABERRITZEKO EDO BERRIZTATZEKO JARDUKETAK	Lurzoru urbanizatuari aplikagarri zaion **hondar-metodoak** kontuan izango ditu **antolamenduak lurzoruari jatorrizko izaeran esleituriko erabilerak eta eraikigarritasunak.**
AFEKZIO-SARIA (NDL, 47. ARTIKULUA)		Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 47. artikuluaren arabera, desjabetze-kasu guztietan, **finkatutako prezio justua ez ezik, % 5 ordainduko zaio desjabetuari, afekzio-sari gisa. Ez da balioespenaren osagai teknikoa, baizik eta hari eransten zaio**. **Jabeak** ondasunez gabetuta dagoela ikusita duen **«minagatik» kalte-ordaina ematea** du oinarri; beraz, ez zaie aldi baterako okupazioei aplikatzen.

PROCEDIMIENTO DE DETERMINACIÓN DEL JUSTIPRECIO	**MUTUO ACUERDO O ADQUISICIÓN AMISTOSA**	• La Administración y el particular a quien se refiera la expropiación podrán **convenir la adquisición de los bienes o derechos que son objeto de aquélla libremente y por mutuo acuerdo**, en cuyo caso, una vez convenidos los términos de la **adquisición amistosa**, se dará por **concluido el expediente** iniciado. • Rige el principio antiformalista del Derecho Administrativo, y **no es preciso elevar el acuerdo a escritura pública**. • En caso de que en el **plazo de quince días no se llegara a tal acuerdo**, se **seguirá el procedimiento** para determinar el justiprecio, sin perjuicio de que **en cualquier estado posterior** ambas partes puedan llegar a dicho **mutuo acuerdo**.
	HOJA DE APRECIO	• Es **vinculante para las partes**. • Se abre **un expediente individual por cada uno de los propietarios**, siendo **un expediente único en el caso en que el objeto expropiado pertenezca a varias personas o a una comunidad**. El expediente **lo encabeza la exacta descripción** del bien concreto que haya de expropiarse. • En cada uno de los expedientes así formados **la Administración requerirá a los propietarios** para que, en el **plazo de veinte días**, a contar desde el siguiente al de la notificación, **presenten hoja de aprecio**, en la que se **concrete el valor en que estimen** el objeto que se expropia, y **realicen las alegaciones** que estimen pertinentes. • La valoración habrá de ser **forzosamente motivada** y **podrá estar avalada por la firma de un perito** (según la naturaleza del bien a expropiar), cuyos honorarios habrán de acomodarse a las tarifas que apruebe la Administración, siendo siempre estos gastos **de cuenta de los propietarios**. • La **Administración expropiante habrá de aceptar o rechazar** la valoración de los propietarios en igual **plazo de 20 días**. → En el **primer caso** se entenderá **determinado definitivamente el justo precio**, y la Administración procederá al **pago** del mismo, como requisito previo a la ocupación o disposición. → En el **segundo supuesto**, la **Administración extenderá hoja de aprecio** fundada del valor del objeto de la expropiación, que se **notificará al propietario**, el cual, dentro de los diez días siguientes, podrá **aceptarla** lisa y llanamente o bien **rechazarla,** y en este segundo caso tendrá derecho a hacer **las alegaciones** que estime pertinentes, **empleando los métodos valorativos que juzgue más adecuados** para justificar su propia valoración. → **Si la administración no formula hoja de aprecio, no estamos ante silencio administrativo positivo.**
	JURADO DE EXPROPIACIÓN PROVINCIAL Y TERRITORIAL	• Si el propietario rechazare el precio fundado ofrecido por la Administración, se pasará **el expediente de justiprecio** al **Jurado. El Jurado Provincial de Expropiación**, que se constituirá en cada capital de provincia, **estará** formado por un Presidente, que lo será el Magistrado que designe el Presidente de la Audiencia correspondiente, y cuatro Vocales. • El **Jurado de Expropiación**, a la vista de las hojas de aprecio formuladas por los propietarios y por la Administración, **decidirá ejecutoriamente sobre el justo** precio que corresponda a los bienes o derechos objeto de la expropiación. • La **resolución** del Jurado de Expropiación habrá de ser necesariamente **motivada**, razonándose los criterios de valoración seguidos por el mismo en relación con lo dispuesto en la LEF. • Las **resoluciones** del Jurado Territorial son **susceptibles de recurso de reposición**.
PAGO Y CONSIGNACIÓN	**PAGO** Art. 48 LEF	• **Determinado el justo precio**, se procederá al **pago** de la cantidad resultante, en el **plazo máximo de 6 meses**. • El pago se hará **a quienes figuren como dueños del bien o titulares del derecho expropiado.** • El pago se verificará mediante **talón nominativo al expropiado o por transferencia bancaria**, en el caso en que el expropiado haya manifestado su deseo de recibir el precio precisamente por este medio. • En materia de urbanismo, se prevé, también, el **pago del justiprecio en aprovechamiento urbanístico.** • **Se levantará un acta.**
	CONSIGNACIÓN	**Es un deber impuesto legalmente:** • Cuando el **propietario rehusare recibir el precio** o cuando **existiere cualquier litigio o cuestión** entre el interesado y la Administración, se consignará el justiprecio por la cantidad que sea objeto de discordia, en la Caja General de Depósitos, a disposición de la autoridad o Tribunal competente. • En caso de **ausencia del expropiado al acto de pago.**
	LÍMITE DE CONFORMIDAD	El **expropiado** tendrá derecho a que se le entregue, aunque exista litigio o recurso pendiente, la indemnización hasta el límite en que exista conformidad entre aquél y la Administración, quedando en todo caso subordinada dicha entrega provisional al resultado del litigio.
	INTERESES	• La cantidad que se fije definitivamente como justo precio devengará el **interés legal correspondiente** a favor del expropiado **hasta que se proceda a su pago** y desde el momento en que hayan transcurrido los 6 meses a que se refiere el art. 48 LEF. • Cuando hayan transcurrido **seis meses desde la iniciación legal del expediente expropiatorio sin haberse determinado por resolución definitiva el justo precio** de las cosas o derechos, la Administración expropiante culpable de la demora estará obligada a abonar al expropiado una indemnización que consistirá en **el interés legal del justo precio** hasta el momento en que se haya determinado que se liquidará con efectos retroactivos, una vez que el justiprecio haya sido efectuado.
	RETASACIÓN	• Artículo 58 LEF: **Si transcurrieran cuatro años sin que el pago de la cantidad fijada como justo precio se haga efectivo o se consigne**, habrá de procederse a **evaluar de nuevo** las cosas o derechos objeto de expropiación. • Una vez **efectuado el pago o realizada la consignación**, aunque haya trascurrido el plazo de cuatro años, **no procederá el derecho a la retasación.**

Modelo 3: **aprobación de la valoración municipal de la finca nº xxxx del expediente de expropiación para la ejecución de xxxx**
Modelo 4: **traslado valoración municipal**
Modelo 5: **resolución abono justiprecio jurado**
Modelo 6: **acta de incomparecencia**

BALIO JUSTUA ZEHAZTEKO PROZEDURA	**ELKARREN ARTEKO ADOSTASUNA ETA ESKURATZE ADISKIDETSUA**	• Administrazioak eta desjabetzeak eragiten dion partikularrak **hitzartu ahal izango dute libreki eta elkarrekin adostuta eskuratzea** desjabetzearen xede diren ondasunak edo eskubideak; kasu horretan, eta **eskuratze adiskidetsuaren** baldintzak adostu ondoren, **bukatutzat joko da hasitako espedientea**. • Administrazio-zuzenbidearen printzipio antiformalistak agintzen du; hori horrela, **ez da beharrezkoa akordioa eskritura publiko bihurtzea**. • **15 eguneko epean ez bada akordiorik lortzen**, balio justua zehazteko **prozedurari jarraituko zaio**, hargatik eragotzi gabe gerora, **edozein unetan**, bi alderdiek **elkarren arteko akordio** hori lortzea.
	PREZAMENDU-ORRIA	• **Loteslea** da **alderdientzat**. • **Banakako espediente bat** irekiko da **jabe bakoitzarentzat**; **desjabetutako gauza hainbat pertsonarena edo komunitate batena bada, berriz, espediente bakarra irekiko da**. Espedientearen **hasieran,** desjabetu behar den ondasun zehatzaren **deskribapen xehatua** agertuko da. • Horrela eratutako espediente bakoitzean, **Administrazioak jabeei errekerimendua egingo die prezamendu-orria aurkez dezaten**, desjabetzearen xede den objektuari **ematen dioten balioa zehaztuta**, eta egoki iritzitako **alegazioak egin ditzaten**, **hogei eguneko epean**, jakinarazpenaren hurrengo egunetik aurrera kontatuta. • Balioespena **nahitaez arrazoitu** beharko da; **peritu baten sinadurak ziurtatuta egon daiteke** (desjabetu beharreko ondasunaren izaera zein den). Perituaren ordainsariak Administrazioak onartzen dituen tarifetara egokitu beharko dira, eta gastu horiek **jabeek ordaindu beharko dituzte** beti. • **Administrazio desjabetzaileak** jabeen balioespena **onetsi edo ezetsi egingo du**, **20 eguneko epean**. → **Lehenengo kasuan**, **balio justua behin betiko zehaztuta** dagoela ulertuko da, eta Administrazioak **ordaindu** egingo du, okupatzeko eta erabiltzeko aurretik bete beharreko betekizuna baita. → **Bigarren kasuan**, **Administrazioak** desjabetzearen xede den objektuaren balioaren **prezamendu-orri** oinarritu bat **egingo du**, eta **jabeari jakinaraziko dio**, zeinak, hurrengo hamar egunen epean, besterik gabe **onartuko** baitu, edo, bestela, **baztertu**. Baztertzen badu, egoki iritzitako **alegazioak** aurkeztu ahal izango ditu, bere balioespen propioa justifikatzeko **egokien iruditzen zaizkion balioespen-metodoak erabiliz**. → **Administrazioak ez badu prezamendu-orririk aurkezten, ez da administrazio-isiltasun positiboa.**
	PROBINTZIAKO ETA LURRALDEKO DESJABETZE-EPAIMAHAIA	• Jabeak uko egiten badio Administrazioak eskainitako prezio oinarrituari, **balio justuaren espedientea epaimahaiari** igorriko zaio. **Desjabetzeen lurralde-epaimahaia** probintzia bakoitzeko hiriburuan eratuko da, **honela osatuta**: epaimahaiburua —dagokion auzitegiko lehendakariak izendatutako magistratua— eta lau bokal. • Jabeek eta Administrazioak aurkeztutako prezamendu-orriak ikusita, **desjabetzeen epaimahaiak betearazpen-aginduz erabakiko du zer prezio justu** dagokien desjabetzearen xede diren ondasun eta eskubideei. • Desjabetzeen epaimahaiaren **ebazpena arrazoitu** egin beharko da nahitaez, NDLn ezarritakoaren arabera erabilitako balioespen-irizpideak azalduz. • Lurralde-epaimahaiaren **ebazpenen** aurka **berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango da**.
ORDAINKETA ETA KONTSIGNAZIOA	**ORDAINKETA** NDL, 48. artikulua	• **Prezio justua zehaztuta**, dagokion zenbatekoa **ordainduko** da, **sei hilabeteko epean gehienez** ere. • **Desjabetutako ondasunaren jabe edo eskubidearen titular gisa agertzen direnei** egingo zaie ordainketa. • Ordainketa desjabetuari **txeke izenduna** emanez gauzatuko da, **edo banku-transferentzia baten bidez** baldin eta desjabetuak prezioa modu horretan jaso nahi duela adierazi badu. • Hirigintzaren arloan, **hirigintza-aprobetxamenduan balio justua ordaintzea** ere aurreikusten da. • **Akta bat egingo da.**
	KONTSIGNAZIOA	**Legez ezarritako betebeharra da:** • **Jabeak prezioa jasotzeari uko eginez** gero edo interesdunaren eta Administrazioaren artean **auzi edo arazoren bat egonez** gero, balio justua auziaren xede den zenbatekoan kontsignatuko da, Gordailuen Kutxa Nagusian, agintaritza edo auzitegi eskudunaren eskura. • **Desjabetua ordainketa-egintzara joaten** ez bada.
	MUGA ADOSTUA	Nahiz eta ebazteko auzi edo errekurtso bat egon, **desjabetuak** eskubidea izango du kalte-ordaina eman dakion, Administrazioarekin adostutako mugaraino; nolanahi ere, auziaren emaitzaren mende geratuko da behin-behineko kalte-ordain hori.
	INTERESAK	• Finkatzen den behin betiko prezio justuaren zenbatekoak **dagokion legezko interesa** sortuko du desjabetuaren alde, **harik eta ordaintzen den arte**, NDLren 48. artikuluan ezarritako sei hilabeteak igarotzen diren unetik aurrera. • Baldin eta **desjabetze-espedientea legez hasten denetik sei hilabete igarotzen badira gauzen edo eskubideen balio justua zehazten duen behin betiko ebazpena eman gabe**, berandutze horren errudun den administrazio desjabetzaileak kalte-ordain bat ordaindu beharko dio nahitaez desjabetuari, zehazki **prezio justuari dagokion legezko interesa**, atzeraeraginez ordainduko dela erabakitzen den momentura artekoa, balio justua gauzatu ondoren.
	BIRTASATZEA	• NDL, 58. artikulua: **Lau urte igarotzen badira prezio justutzat finkatutako zenbatekoa ordaindu edo kontsignatu gabe**, **berriro ebaluatu** beharko dira desjabetzearen xede diren gauzak edo eskubideak. • Behin **ordainketa edo kontsignazioa eginda**, **ez da berriro tasatzeko eskubiderik egongo**, lau urteko epea igaro bada ere.

3. eredua: **xxxx exekutatzeko desjabetze-espedienteko xxxx zenbakidun finkaren udal-balioespena onartzea**
4. eredua: **udal-balioespena helaraztea**
5. eredua: **epaimahaiak finkatutako balio justua ordaintzeko ebazpena**
6. eredua: **ez agertzearen akta**

MOMENTO DE LA OCUPACIÓN	• **Hecho efectivo el justo precio, o consignado**, **podrá ocuparse la finca por vía administrativa o hacer ejercicio del derecho expropiado, sin auxilio judicial.** • Se **comunicará, a los ocupantes de la finca, el plazo del desalojo**. • **La ocupación de domicilios o lugares cuyo acceso dependa del consentimiento del titular** exige autorización de éste, o, en su defecto, autorización judicial.
ACTA DE OCUPACIÓN Artículos 54 y 55 Reglamento de Expropiación Forzosa	• **Se extenderá acta de ocupación** de la cosa o derecho expropiados a continuación de la de pago o consignación. **Si se tratase de bienes o derechos reales inscribibles en el Registro de la Propiedad, el acta de ocupación deberá contener las prevenciones siguientes:** a) Nombres, apellidos y estado civil del beneficiario, si es persona natural, y si es persona jurídica, la denominación con que fuese conocida, domicilio y nombre y circunstancias de las personas que en su representación intervinieren en el acta de ocupación. b) Las mismas circunstancias de la persona o personas que, según el acta de pago, reciben el justo precio, y si tuvo lugar la consignación, la razón por la que se llevó a cabo ésta, según el artículo 51 del Reglamento de Expropiación Forzosa. c) La naturaleza, situación y linderos de los bienes inmuebles objeto de la expropiación o a los cuales afecte el derecho que debe inscribirse o cuya inscripción cancele y su medida superficial. d) La naturaleza y extensión del derecho a que la expropiación se refiera. e) La obra o servicio que motivó la expropiación. • Además, en las inscripciones en el Registro de la Propiedad del dominio y demás derechos reales sobre bienes inmuebles adquiridos por expropiación forzosa se hará constar el **derecho preferente de los reversionistas frente a terceros posibles adquirentes para recuperar el bien o derecho expropiados**, sin cuya constancia registral el derecho de reversión no será oponible a los terceros adquirentes que hayan inscrito los títulos de sus respectivos derechos conforme a lo previsto en la Ley Hipotecaria. • De acuerdo con el artículo 8 de la LEF, **la cosa expropiada se adquirirá libre de cargas.** Sin embargo, **podrá conservarse algún derecho real sobre el objeto expropiado, si resultase compatible con el nuevo destino** que haya de darse al mismo y existiera acuerdo entre el expropiante y el titular del derecho. • **La expropiación produce la extinción de arrendamientos**.
INSCRIPCIÓN Artículos 60-62 Reglamento de Expropiación Forzosa	• **Cuando los bienes objeto de la expropiación sean inscribibles en algún Registro público**, el **expropiante o el beneficiario solicitarán la inscripción** en el mismo de la transmisión, constitución o extinción de los derechos que hayan tenido lugar para la expropiación forzosa. • A tal efecto, será **título bastante el acta de pago o resguardo de depósito** a que se refiere el artículo 50 de la LEF, en su caso, y el acta de ocupación. • Para el caso específico de los **inmuebles**, el artículo 62 REF dispone que, si la expropiación tuviese por objeto bienes inmuebles o derechos reales sobre los mismos, la inscripción a que se refiere el artículo 60 tendrá lugar en el **Registro de la Propiedad**. • **Cuando la finca expropiada no estuviere inscrita**, se practicará la correspondiente **inmatriculación**, **excepto si ha adquirido la condición de dominio público** como consecuencia de la expropiación. En los demás casos se inscribirá la transmisión, constitución o extinción de los derechos objeto de la expropiación. • **Si la expropiación tuviere por objeto el dominio del inmueble,** se inscribirá la correspondiente transmisión y se verificará en su caso la cancelación de cargas, gravámenes y derechos reales a que estuviere afecta la cosa expropiada, excepto aquellos que, por ser compatibles con el nuevo destino del inmueble, sean conservados. • Las **titularidades de bienes y derechos inscritas con posterioridad a la expedición de la nota marginal de la certificación de dominio y cargas**, se cancelan al practicarse la inscripción a favor del expropiante. • Las **titularidades de bienes y derechos inscritas antes de la expedición de la nota marginal de certificación de dominio y cargas** han de citarse en el expediente y se ha de verificar el pago o consignación, para proceder a su cancelación.

OKUPATZEKO UNEA	• **Prezio justua ordainduta edo kontsignatuta**, **finka administrazio-bidetik okupatu ahal izango da, edo desjabetutako eskubidea egikaritu, laguntza judizialik gabe.** • **Finka uzteko epea jakinaraziko zaie hura okupatzen dutenei**. • **Bizilekuak edo sartzeko titularraren baimenaren mende dauden lekuak okupatzeko**, baimena eman beharko du titularrak, edo, halakorik eman ezean, epailearen baimena beharko da.
OKUPAZIO-AKTA Nahitaezko Desjabetzearen Erregelamenduaren 54. eta 55. artikuluak	• Ordainketa- edo kontsignazio-akta egin ondoren, desjabetutako gauzaren edo eskubidearen **okupazio-akta egingo da**. **Jabetza-erregistroan inskribatzekoak diren ondasun edo eskubide errealak izanez gero, okupazio-aktak honako prebentzio hauek jaso beharko ditu:** a) Pertsona naturala baldin bada, onuradunaren izen-abizenak eta egoera zibila; pertsona juridikoa bada, berriz, izena eta okupazio-aktan haren izenean parte hartzen duten pertsonen izena, helbidea eta datuak. b) Lehengo datu berberak ordainketa-aktaren arabera prezio justua jasotzen du(t)en pertsonari edo pertsonei buruz; kontsignazioa gertatu bada, hura egiteko arrazoia, Nahitaezko Desjabetzearen Erregelamenduaren 51. artikuluari jarraikiz. c) Desjabetzearen xede diren ondasun higiezinen izaera, kokapena eta mugak —edota inskribatu beharreko eskubideak ukitzen zaizkienenak edota inskripzioa ezerezten zaienenak— eta haien azalera-neurria. d) Desjabetzearen xede den eskubidearen izaera eta hedadura. e) Desjabetzea eragin zuen obra edo zerbitzua. • Gainera, hau jasoko da nahitaezko desjabetzearen bitartez eskuratutako ondasun higiezinei buruzko jabaria eta gainerako eskubide errealak jabetza-erregistroan inskribatzean: **itzultzea eskatzen dutenek lehentasuneko eskubidea dutela, izan litezkeen hirugarren eskuratzaileen aurrean**, desjabetutako ondasun edo eskubidea errekuperatzeko; izan ere, erregistroan ez bada horrela jasotzen, ezin izango da itzulketa-eskubiderik baliatu beren eskubideen tituluak Hipoteka Legearen arabera inskribatu dituzten hirugarren eskuratzaileen kontra. • NDLren 8. artikuluarekin bat etorriz, **desjabetutako gauza kargarik gabe eskuratuko da**. Hala ere, **desjabetutako objektuaren gaineko eskubide errealen bat atxiki ahal izango da, baldin eta desjabetuari eman beharreko erabilera berriarekin bateragarria bada** eta desjabetzailearen eta eskubidearen titularraren artean akordioa badago. • **Desjabetzeak errentamenduak azkentzea dakar berekin**.
INSKRIPZIOA Nahitaezko Desjabetzearen Erregelamenduaren 60.-62. artikuluak	• **Desjabetzearen xede diren ondasunak erregistro publikoren batean inskribatzekoak direnean**, **desjabetzaileak edo onuradunak eskatu egin beharko dute** nahitaezko desjabetzerako gertatu diren eskubide-eskualdaketa, -eraketa edo -azkentzea erregistro horretan **inskribatzeko**. • Horretarako, **titulu nahikoa izango da ordainketa-akta edo**, hala badagokio, **gordailu-frogagiria** (NDLren 50. artikulua) eta okupazio-akta. • **Higiezinen** kasu espezifikorako, NDLren 62. artikuluak ezartzen duenez, desjabetzearen xedea ondasun higiezinak edo haien gaineko eskubide errealak badira, 60. artikuluan aipatzen den inskripzioa **jabetza-erregistroan** egingo da. • **Desjabetutako finka ez badago inskribatuta**, dagokion **immatrikulazioa** egingo da, **salbu eta desjabetzearen ondorioz jabari publikoaren** izaera eskuratu badu. Gainerako kasuetan, desjabetzearen xede diren eskubideen eskualdaketa, eraketa edo azkentzea inskribatuko dira. • **Desjabetzearen xedea higiezinaren jabaria bada**, dagokion eskualdaketa inskribatuko da, eta, hala badagokio, desjabetutako gauzari lotutako kargak, zamak eta eskubide errealak ezereztuko dira, salbu eta higiezinaren erabilera berriarekin bateragarriak izateagatik kontserbatzen direnak. • **Jabariaren eta zamen ziurtagiriaren bazterreko oharra egin ondoren inskribatutako ondasun eta eskubideen titulartasunak** ezereztu egiten dira inskripzioa desjabetzailearen izenean egitean. • **Jabariaren eta kargen ziurtagiriaren bazterreko oharra egin aurretik inskribatutako ondasun eta eskubideen titulartasunak** espedientean aipatu behar dira, eta ordainketa edo kontsignazioa egin beharra dago, haiek ezereztu ahal izateko.

CONCEPTO **Art. 54.1 LEF**	• En el caso **de no ejecutarse la obra o no establecerse el servicio que motivó la expropiación, así como si hubiera alguna parte sobrante de los bienes expropiados, o desapareciese la afectación**, el **primitivo dueño o sus causahabientes podrán recobrar la totalidad o la parte sobrante de lo expropiado**, mediante el abono a quien fuera su titular de la correspondiente **indemnización**. • Es **la garantía última** que el sistema legal exige **en beneficio del expropiado o de sus causahabientes**, y se manifiesta con posterioridad a la íntegra consumación de la expropiación. • Es un **derecho real de adquisición sobre la cosa**, y es autónomo respecto del originario dominio o propiedad.
NO PROCEDENCIA **Art. 54.2 LEF**	1. Cuando **simultáneamente a la desafectación** del fin que justificó la expropiación se acuerde justificadamente una **nueva afectación a otro fin que haya sido declarado de utilidad pública o interés social.** En este supuesto la Administración dará publicidad a la sustitución, **pudiendo el primitivo dueño o sus causahabientes alegar** cuanto estimen oportuno en defensa de su derecho a la reversión, si consideran que no concurren los requisitos exigidos por la ley**, así como solicitar la actualización del justiprecio** si no se hubiera ejecutado la obra o establecido el servicio inicialmente previsto. 2. Cuando la **afectación** al fin que justificó la expropiación o a otro declarado de utilidad pública o interés social se prolongue **durante diez años** desde la terminación de la obra o el establecimiento del servicio.
LEGITIMACIÓN ACTIVA Y PASIVA	• Se reconoce el derecho de reversión **al expropiado y a sus causahabientes**, y se admite **tanto su transmisión inter vivos como mortis causa.** • Ha de **solicitarse a la Administración expropiante**. • **No se admite legitimación a los arrendatarios**.
PLAZOS PARA EJERCER EL DERECHO	• El plazo para que el dueño primitivo o sus causahabientes puedan solicitarla será de **tres meses, a contar desde la fecha en que la Administración hubiera notificado** el exceso de expropiación, la desafectación del bien o derecho expropiados o su propósito de no ejecutar la obra o de no implantar el servicio. • **En defecto de esa notificación**, el derecho de reversión podrá ejercitarse por el expropiado y sus causahabientes **en los casos y con las condiciones siguientes:** a) Cuando se hubiera producido un **exceso de expropiación o la desafectación del bien** o derecho expropiados y **no hubieran transcurrido veinte años** desde la toma de posesión de aquéllos. b) Cuando hubieran transcurrido **cinco años** desde la toma de posesión del bien o derecho expropiados **sin iniciarse la ejecución de la obra o la implantación del servicio**. c) Cuando la ejecución de **la obra o las actuaciones para el establecimiento del servicio** estuvieran **suspendidas más de dos años por causas imputables a la Administración o al beneficiario** de la expropiación sin que se produjera por parte de éstos ningún acto expreso para su reanudación.
REQUISITOS	• Es presupuesto del ejercicio del derecho de reversión la **restitución de la indemnización expropiatoria percibida** por el expropiado, actualizada **conforme a la evolución del índice de precios al consumo** en el período comprendido entre la fecha de iniciación del expediente de justiprecio y la de ejercicio del derecho de reversión. La **determinación de este importe** se efectuará por la Administración en el mismo acuerdo que reconozca el derecho de reversión. • Por excepción, si el bien o derecho expropiado hubieran experimentado **cambios en su calificación jurídica que condicionaran su valor o hubieran incorporado mejoras aprovechables por el titular de aquel derecho o sufrido menoscabo de valor**, se procederá a una **nueva valoración** de los mismos, referida a la fecha de ejercicio del derecho. Las **discrepancias en los justiprecios** también se resuelven ante el **Jurado**. • La **toma de posesión del bien o derecho revertido** no podrá tener lugar sin el previo **pago o consignación del importe resultante** conforme a los apartados anteriores. Dicho pago o consignación deberá tener lugar en el **plazo máximo de tres meses** desde su determinación en vía administrativa.
ENTREGA Y PRECIO	• El precio es el valor que tenga la finca, el bien o derecho afectado, cuando se solicita la reversión. • Por excepción, si el bien o derecho expropiado hubiera experimentado cambios en su calificación jurídica que condicionaran su valor o hubieran incorporado mejoras aprovechables por el titular de aquel derecho o sufrido menoscabo de valor, se procederá a una nueva valoración del mismo, referida a la fecha de ejercicio del derecho. • La toma de posesión del bien o derecho revertido no podrá tener lugar sin el previo pago o consignación del importe que resulte como indemnización que ha de abonarse en el plazo máximo de tres meses desde su determinación en vía administrativa, bajo pena de caducidad del derecho de reversión. • Frente a la caducidad del derecho cabrá recurso contencioso-administrativo. Las diferencias que pudieran resultar de la sentencia que se dicte, en ese recurso, deberán, satisfacerse o reembolsarse, según proceda, incrementadas con los intereses devengados al tipo de interés legal desde la fecha del primer pago, en el plazo de tres meses desde la notificación de la sentencia bajo pena de caducidad del derecho de reversión en el primer supuesto (artículo 55.3 de la Ley de Expropiación Forzosa).

Modelo 7**: acta de reversión**

KONTZEPTUA **NDL, 54.1 artikulua**	• **Desjabetzea eragin zuen obra ez bada exekutatzen, edo zerbitzua ez bada ezartzen, edo desjabetutako ondasunen zati bat sobera gelditzen bada, edo lotura desagertzen**, **jatorrizko jabeak edo haren kausadunek desjabetutakoa berreskuratu ahal izango dute, osorik edo sobera dagoena,** desjabetutako ondasun horien titularra izandakoari dagokion **kalte-ordaina** eman ondoren. • Lege-sistemak **desjabetuaren edo haren kausadunen onurarako** eskatzen duen **azken bermea** da, eta desjabetzea osoki gauzatu ondoren agertzen da. • **Gauza eskuratzeko eskubide erreala** da, eta autonomoa da jatorrizko jabariarekiko edo jabetzarekiko.
ITZULKETA-ESKUBIDERIK EZ **NDL, 54.2 artikulua**	1. Desjabetzea justifikatu zuen helburua **desafektatzearekin batera onura publikoko edo gizarte-intereseko deklaratutako beste helburu baterako beste afektazio** bat erabakitzen bada behar bezala justifikatuta. Kasu horretan, Administrazioak publizitatea emango dio ordezkapen horri, **eta hasierako jabeak edo haren kausadunek egoki iritzitako alegazioak** egin ahal izango dituzte beren itzulketa-eskubidea defendatzeko baldin eta uste badute ez direla betetzen legeak ezarritako betekizunak**, edo balio justua eguneratzea eska dezakete** baldin eta obra ez bada exekutatu edo hasieran aurreikusitako zerbitzua ez bada ezarri. 2. Desjabetzea justifikatu zuen helburura edo onura publikoko edo interes sozialeko deklaratutako beste helburu batera egindako **lotura hamar urtez** luzatzen bada obra bukatu zenetik edo zerbitzua ezarri zenetik.
LEGITIMAZIO AKTIBOA ETA PASIBOA	• Itzulketa-eskubidea aitortzen zaie **desjabetuari eta haren kausadunei**, eta **hura inter vivos zein mortis causa eskualdatzea** onartzen da. • **Administrazio desjabetzaileari eskatu** behar zaio. • **Errentariei ez zaie legitimaziorik onartzen**.
ESKUBIDEA BALIATZEKO EPEAK	• Jatorrizko jabeak edo haren kausadunek eskatu ahal izateko epea **hiru hilabete** izango da, **Administrazioak** gehiegizko desjabetzea, desjabetutako ondasun edo eskubidearen desafektazioa edo obra ez exekutatzeko edo zerbitzua ez ezartzeko asmoa **jakinarazten duenetik aurrera zenbatuta**. • **Ez bada jakinarazten**, desjabetuak eta haren kausadunek **honako kasu eta baldintza hauetan** baliatu ahal izango dute itzulketa-eskubidea: a) **Gehiegizko desjabetzea edo desjabetutako ondasun edo eskubidearen desafektazioa** gertatzen denean, betiere **ez badira hogei urte igaro** haiek eskuratu zirenetik. b) Desjabetutako ondasuna edo eskubidea eskuratu zenetik **bost urte** igaro direnean **obraren exekutatzen edo zerbitzua ezartzen hasi gabe**. c) **Obra exekutatzeko lanak edo zerbitzua ezartzeko jarduketak bi urtez baino gehiagoz etenda egon direnean Administrazioari edo desjabetzearen onuradunari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik**, eta ez Administrazioak, ez onuradunak, ez badute haiek berrabiarazteko egintza espresurik gauzatu.
BETEKIZUNAK	• Itzulketa-eskubidea gauzatzeko baldintza da desjabetuak **jasotako desjabetze-kalte-ordaina itzultzea**, eguneratuta, balio justuaren espedientea hasten den egunetik itzulketa-eskubidea baliatzen den egunera arteko aldian **kontsumoko prezioen indizeak izandako bilakaeraren arabera**. **Zenbateko hori** Administrazioak **zehaztuko du**, itzulketa-eskubidea aitortzen duen erabakian bertan. • Salbuespenez, baldin eta desjabetutako ondasunen edo eskubideen **kalifikazio juridikoa aldatzen bada, eta horrek ondasun edo eskubide horien balioa baldintzatzen badu, edo eskubide haren titularrarentzat hobekuntza probetxugarriak sortu baditu edo balio-galera izan badu**, **berriro balioetsiko dira**, eskubidea baliatzen duen data aintzat hartuta. **Balio justuei buruzko desadostasunak** ere **epaimahaian** ebatziko dira. • **Itzulitako ondasuna edo eskubidea** ezin izango da eskuratu aurretiaz ez bada **ordaindu edo kontsignatu** lehengo paragrafoen arabera **zehaztutako zenbatekoa**. Ordainketa edo kontsignazio hori egiteko **gehieneko epea hiru hilabete** izango da, administrazio-bidean zehazten den unetik aurrera zenbatuta.
ENTREGATZEA ETA PREZIOA	• Eragindako finkak, ondasunak edo eskubideak itzulketa eskatzen denean duen balioa da prezioa. • Salbuespenez, baldin eta desjabetutako ondasunaren edo eskubidearen kalifikazio juridikoa aldatzen bada, eta horrek ondasun edo eskubide horien balioa baldintzatzen badu, edo eskubide haren titularrarentzat hobekuntza probetxugarriak sortu baditu edo balio-galera izan badu, berriro balioetsiko da, eskubidea baliatzen duen data aintzat hartuta. • Itzulitako ondasunaren edo eskubidearen jabetza ezin izango da hartu aldez aurretik ordaindu edo kontsignatu ez bada kalte-ordain gisa dagokion zenbatekoa; horretarako, hiru hilabeteko epea dago gehienez ere, zenbatekoa administrazio-bidean zehazten denetik zenbatuta, bestela itzulketa-eskubidea iraungita geratuko baita. • Eskubidea iraungitzearen aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da. Errekurtso horretan ematen den epaiaren ondorioz egon daitezkeen aldeak ordaindu edo itzuli egin beharko dira —kasuan-kasuan—, lehen ordainketaren egunetik legezko interes-tasaren arabera sortutako interesak gehituta, epaia jakinarazten denetik hiru hilabeteko epean; hori ez egiteak itzulketa-eskubidea iraungitzeko zigorra ekarriko du, lehen kasuan (Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 55.3 artikulua).

7. eredua**: itzulketa-akta**

CONCEPTO Y CARACTERES DEL PROCEDIMIENTO DE URGENCIA	• Teóricamente es una **excepción a la regla**, pero se ha convertido en el procedimiento **habitual**. • La **fijación del justiprecio y el pago** del mismo se tramitan y realizan **después de la ocupación.** • La **declaración de urgencia** faculta al Ayuntamiento a formular una **valoración provisional del bien**, previo **depósito** de la cual puede proceder a la **ocupación** de la finca. • **Realizada la ocupación** el expediente de expropiación **seguirá tramitándose (fases de justiprecio y pago).**
DECLARACIÓN DE URGENCIA Artículo 52 LEF	• Es **requisito o presupuesto habilitante y sustituye al acuerdo de necesidad de ocupación**. • Es un **concepto jurídico indeterminado** con claras connotaciones de **excepcionalidad**. • Es **susceptible de impugnación directa y separada**. • Podrá hacerse **en cualquier momento**. • Tendrá que incorporar la **oportuna retención de crédito**. • **Se entenderá cumplido el trámite de declaración de necesidad de la ocupación de los bienes** que hayan de ser expropiados, según el **proyecto y replanteo aprobados y los reformados posteriormente**. También es posible declarar la urgencia después de la necesidad de ocupación. • Dará **derecho a la ocupación inmediata**. • Ha de ser **motivada**, la falta de motivación es causa de nulidad. • El órgano competente para su declaración será el **Alcalde/Alcaldesa o la Junta de Gobierno Local**.
ACTA PREVIA A LA OCUPACIÓN Artículos 52.2 y 52.1 LEF	• Es el **documento púbico administrativo** que con la **participación contradictoria de todos los interesados describe el bien que va a ser objeto de expropiación total o parcial**. • Su **naturaleza** es la de un **acto de trámite**. No es susceptible de impugnación autónoma. • Su **finalidad** es **constatar el estado físico y jurídico de los bienes**. • Se **notificará a los interesados** afectados el **día y hora en que ha de levantarse el acta previa a la ocupación**, con una **antelación mínima de ocho días y mediante cédula**. Caso de que no conste o no se conozca el domicilio del interesado o interesados, se entregará la cédula al inquilino, colono u ocupante. • Se publicarán, con una antelación mínima de ocho días **edictos en los tablones oficiales**, y, en resumen, en el **Boletín Oficial de la Provincia** y en **dos diarios de la capital de la provincia, si los hubiere**. • Es un acto **no susceptible de impugnación autónoma**. • **En el día y hora anunciados se constituirán en la finca que se trate de ocupar** el representante de la Administración, acompañado de un Perito y del Alcalde o Concejal en que delegue, y los propietarios y demás interesados que concurran. **Los interesados pueden hacerse acompañar** de sus Peritos y un Notario. • **Levantarán un acta**, en la que **describirán el bien o derecho** expropiable y **harán constar:** → Todas las manifestaciones y datos que aporten unos y otros y que sean útiles para determinar los derechos afectados, sus titulares, el valor de aquéllos y los perjuicios determinantes de la rápida ocupación. → Tratándose de terrenos cultivados el estado y extensión de las cosechas, los nombres de los cultivadores y el precio del arrendamiento o pactos de aparcería en su caso. → Si son fincas urbanas, el nombre de los arrendatarios, el precio del alquiler y, en su caso, la industria que ejerzan.
DEPÓSITO PREVIO A LA OCUPACIÓN Artículo 52.4 LEF	• **Garantía del expropiado**, que **se impone a la Administración** como requisito inexcusable la obligación de constituir el depósito previo, **so pena de incurrir en vía de hecho**. • A la vista del acta previa a la ocupación y de los documentos que obren o se aporten en el expediente, y dentro del plazo que se fije al efecto, la **Administración formulará las hojas de depósito previo a la ocupación**. • El depósito **equivaldrá a** la capitalización, al interés legal del líquido imponible, declarado con dos años de antelación, aumentado en un 20 por 100 en el caso de propiedades amillaradas. → **En la riqueza catastrada**, La Ley de Expropiación Forzosa señala que el importe del depósito habrá de ser equivalente a la cantidad obtenida capitalizando al interés legal el líquido imponible o la renta líquida, según se trate de fincas urbanas o rústicas, respectivamente. Habida cuenta de que esos términos ya no concuerdan con la legislación vigente de Haciendas Locales, hoy en día se aplica, de modo general, «el valor catastral o un porcentaje sobre el mismo». → **En las expropiaciones parciales** se prorrateará el importe. Si el bien no tuviera asignada riqueza imponible, servirá de módulo la fijada a los bienes análogos del mismo término municipal. • La cantidad así fijada, que devengará a favor del titular expropiado **el interés legal**, será **consignada en la Caja de Depósitos**. Al efectuar el pago del justiprecio se hará la **liquidación definitiva de intereses**. En definitiva, **es una cantidad a cuenta del justiprecio.**
INDEMNIZACIÓN POR RÁPIDA OCUPACIÓN Artículo 52.5 LEF	• La **Administración fijará** igualmente las cifras de **indemnización por el importe de los perjuicios derivados de la rapidez de la ocupación**, tales como mudanzas, cosechas pendientes y otras igualmente justificadas, contra cuya determinación **no cabrá recurso alguno**, si bien **caso de disconformidad del expropiado,** el Jurado Provincial reconsiderará la cuestión en el momento de la determinación del justiprecio.
OCUPACIÓN Art. 51 LEF Art. 52.6 LEF	• **Efectuado el depósito y abonada o consignada, en su caso, la previa indemnización por perjuicios**, la Administración procederá a la inmediata ocupación del bien de que se trate, en el **plazo máximo de 15 días.** • **No le es posible** al poseedor entablar **interdictos de retener y recobrar**. • Respecto a la **toma de posesión** son de aplicación las normas del procedimiento ordinario.
JUSTIPRECIO	• **Ocupadas las fincas, se tramitará el expediente de expropiación en sus fases de justiprecio y pago** según la regulación general, y dando **preferencia a estos expedientes** para su rápida resolución. • Será **fecha inicial para el cómputo de la indemnización correspondiente** la siguiente a aquella en que se hubiera producido la **ocupación** de que se trate.

MODELO 8: **CONVOCATORIA ACTA PREVIA A LA OCUPACIÓN**

MODELO 9: **ACTA PREVIA DE OCUPACIÓN**

MODELO 10: **ACTA DE PAGO POR MUTUO ACUERDO**

PRESAZKO PROZEDURAREN KONTZEPTUA ETA EZAUGARRIAK	• Teorian, **arauaren salbuespen** bat da, baina **ohiko** prozedura bihurtu da. • **Balio justuaren ezarpena eta ordainketa okupazioaren ostean** izapidetu eta gauzatzen dira. • **Presako okupazioaren deklarazioak** ahalmena ematen dio udalari **ondasunaren behin-behineko balioespena** egiteko; behin-behineko kopuru hori **gordailutu** ondoren, finka **okupatu** dezake. • **Okupatu ondoren**, desjabetze-espedientea **izapidetzen jarraituko da (balio justuaren eta ordainketaren faseak).**
PRESA-DEKLARAZIOA NDL, 52. artikulua	• **Gaitzen duen baldintza edo oinarria da, eta okupatu beharraren akordioa ordezten du**. • **Kontzeptu juridiko zehaztugabea** da, eta **salbuespen**-konnotazio nabarmenak ditu. • **Zuzenean eta bereiz aurkara daiteke**. • **Edozein momentutan** egin daiteke. • **Dagokion kreditu-atxikipena** gehitu beharko zaio. • Desjabetzekoak diren **ondasunak okupatu beharraren deklarazioaren izapidea eginda dagoela ulertuko da**, **onartutako proiektu eta zuinketaren, eta gero erreformatutakoen, arabera**. Halaber, presakoa dela deklaratu daiteke okupazio-beharraren ondoren. • **Berehala okupatzeko eskubidea** emango du. • **Arrazoituta** egon behar du; hala ez egitea deuseztatzeko kausa da. • Deklarazioa egiteko organo eskuduna **alkatea edo tokiko gobernu-batzarra** izango da.
OKUPAZIOAREN AURREKO AKTA NDL, 52.2 eta 52.1 artikuluak	• **Dokumentu publiko administratibo** bat da, eta bertan **deskribatzen da**, **interesdun guztien parte-hartze kontrajarriarekin**, **erabat edo partzialki desjabetuko den ondasuna**. • **Izapide-egintza** baten **izaera** du. Ezin izango da modu autonomoan aurkaratu. • **Ondasunen egoera fisikoa eta juridikoa egiaztatzea** du **helburu**. • Eragindako **interesdunei jakinaraziko zaie zein egunetan eta ordutan egin behar den okupazioaren aurreko akta**, **zortzi egun lehenago gutxienez eta zedula bidez**. Interesdunaren edo interesdunen helbiderik ez badago edo ezagutzen ez bada, dena delako ondasunaren maizter, kolono edo okupatzaileari emango zaio zedula. • Gutxienez zortzi egun lehenago, **ediktuak argitaratuko dira iragarki-ohol ofizialetan**, bai eta, laburbilduta, **probintziako aldizkari ofizialean** eta **probintziako hiriburuko bi egunkaritan ere, halakorik balego**. • Egintza hau **ezin izango da modu autonomoan aurkaratu**. • **Iragarritako egun eta orduan, okupatuko den finkan honako hauek eratuko dira**: Administrazioaren ordezkaria (peritu batek eta alkateak edo haren eskuordetza duen zinegotziak lagunduta) eta jabeak eta parte hartzen duten gainerako interesdunak. **Interesdunek** beren perituak eta notario bat **eraman ditzakete**. • **Akta egingo dute**; bertan, desjabetzen den **ondasuna edo eskubidea deskribatuko da**, eta **hauek jasoko dira**: → Batzuen eta besteen adierazpenak eta ekartzen dituzten datu guztiak, baldin eta baliagarriak badira zehazteko zein diren ukitutako eskubideak, haien titularrak, eskubide horien balioa eta azkar okupatzearen ondoriozko kalteak. → Landutako lurren kasuan, zein den laboreen egoera eta hedadura, zein diren laborarien izenak eta errentamenduaren prezioa edo, hala badagokio, apartzeria-itunak. → Hiri-finkak badira, zer izen duten errentariek, zer prezio duen alokairuak eta, hala badagokio, zer industriatan aritzen diren.
OKUPAZIOAREN AURRETIKO GORDAILUTZEA NDL, 52.4 artikulua	• **Desjabetuaren bermea**; **Administrazioari ezartzen zaio**, nahitaezko baldintza gisa, aurretiazko gordailua eratzeko betebeharra, **egitate-bidean ez erortzeko**. • Okupazioaren aurretiko akta eta espedientean dauden edo ekartzen diren dokumentuak aztertuta, **Administrazioak okupazioaren aurretiko gordailu-orriak egingo ditu**, horretarako finkatzen den epearen barruan. • Gordailua bi urte lehenago deklaratutako likido zergapegarria legezko interesaren arabera kapitalizatuz lortutako zenbatekoaren **baliokidea izango da**, eta amilaramenduan dauden jabetzen kasuan, 100eko 20 gehiago. → **Katastroko aberastasunean**, Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legeak adierazten du likido zergapegarria edo errenta likidoa legezko interesaren arabera kapitalizatuz lortutako zenbatekoaren baliokidea gordailutuko dela, hurrenez hurren, kontuan hartuta zer diren, hiri-finkak edo landa-finkak. Nolanahi ere, termino horiek ez datoz bat toki-ogasunei buruz indarrean dagoen legeriarekin, eta, beraz, gaur egun, oro har, «katastro-balioa edo haren gaineko ehuneko bat» aplikatzen da. → **Desjabetze partzialetan**, hainbanatu egingo da zenbatekoa. Ondasunak aberastasun zergapegarririk ez badauka, udalerri berean antzeko ondasunei ezarritakoa hartuko da modulutzat. • Horrela finkatutako zenbatekoa, zeinak desjabetutako titularraren aldeko **legezko interesa** sortuko baitu, **Gordailu Kutxan kontsignatuko da**. Balio justua ordaintzerakoan, **interesen behin betiko likidazioa** egingo da. Azken batean, **balio justuaren konturako zenbateko bat da.**
OKUPAZIO AZKARRAGATIKO KALTE-ORDAINA NDL, 52.5 artikulua	• Orobat **finkatuko ditu Administrazioak kalte-ordainen zenbatekoak, azkar okupatzearen ondoriozko kalteei dagozkienak**: mudantzak, jaso gabeko laboreak eta justifikatutako beste batzuk; horren kontra **ezin izango da inolako errekurtsorik jarri**, baina, **desjabetua ez badago ados**, lurralde-epaimahaiak berriro aztertuko du gaia, balio justua zehazten den unean.
OKUPAZIOA NDL, 51. artikulua NDL, 52.6 artikulua	• **Gordailutu ostean eta kalteengatiko kalte-ordaina ordainduta edo, hala badagokio, kontsignatuta,** Administrazioak berehala okupatuko du dena delako ondasuna, **15 eguneko epean gehienez ere**. • Edukitzaileak **ezin izango du atxikitzeko eta berreskuratzeko interdikturik** aurkeztu. • **Jabetza hartzearen** esparruan, prozedura arrunteko arauak aplikatuko dira.
BALIO JUSTUA	• **Finkak okupatuta, balio justuaren eta ordainketaren faseak izapidetuko dira desjabetze-espedientean,** araudi orokorraren arabera; **horrelako espedienteei lehentasuna** emango zaie, azkar ebatz daitezen. • **Dagokion kalte-ordaina zenbatzeko hasierako data** dena delako **okupazioa** egiten den egunaren hurrengoa izango da.

8. EREDUA: **OKUPAZIO-AURRETIKO AKTARAKO DEIALDIA**

9. EREDUA: **OKUPAZIO-AURRETIKO AKTA**

10. EREDUA: **ORDAINKETA ADOSTUAREN AKTA**

XV.

EKONOMIA- ETA AURREKONTU-KUDEAKETA

GESTIÓN ECONÓMICA Y PRESUPUESTARIA

XV.

Gestión económica y presupuestaria

1. Gestión económico presupuestaria.
2. Gestión del ingreso.
3. Gestión del gasto.
4. Gestión financiera.

Guía Local - ISBN 978-84-7777-690-1

XV.

Ekonomia- eta aurrekontu-kudeaketa

1. Ekonomia- eta aurrekontu-kudeaketa.
2. Diru-sarreraren kudeaketa.
3. Gastuaren kudeaketa.
4. Finantza-kudeaketa.

<table>
<tr><td colspan="2">DEFINICIÓN</td><td colspan="2">Expresión numérica del programa anual de actuación de la Corporación, a través del que han de ser alcanzados los objetivos del Gobierno Local y por el que se asignan los recursos previsibles a la consecución de las finalidades pretendidas.

Es un instrumento de control de la correcta administración de los recursos. Conlleva una limitación máxima de gasto del órgano ejecutivo para la realización del programa directivo.</td></tr>
<tr><td rowspan="7">PRINCIPIOS</td><td>ANUALIDAD</td><td colspan="2">El ejercicio económico o presupuestario coincidirá con el año natural.</td></tr>
<tr><td>EQUILIBRIO FINANCIERO</td><td colspan="2">Los ingresos deberán cubrir los gastos y, además, los ingresos corrientes deben ser superiores o iguales a los gastos de igual naturaleza más los gastos de amortización por endeudamiento.</td></tr>
<tr><td>UNIVERSALIDAD</td><td colspan="2">Los presupuestos comprenderán todos los derechos y obligaciones, sin excepción alguna, que, en cada caso, prevea liquidar y sea necesario atender, respectivamente.</td></tr>
<tr><td>NO AFECCIÓN</td><td colspan="2">Cualquier ingreso debe utilizarse indistintamente para financiar cualquiera de sus gastos, salvo los ingresos específicamente afectados.</td></tr>
<tr><td>INTEGRIDAD</td><td colspan="2">Los derechos liquidados y las obligaciones reconocidas deben contabilizarse por su importe bruto, no cabe compensación de los primeros con las segundas.</td></tr>
<tr><td>ESTABILIDAD PRESUPUESTARIA</td><td colspan="2">La elaboración, aprobación y ejecución de los Presupuestos se realizará en un marco de estabilidad presupuestaria, coherente con la normativa europea.</td></tr>
<tr><td>SOSTENIBILIDAD FINANCIERA</td><td colspan="2">Consistente en la capacidad para financiar compromisos de gasto presentes y futuros dentro de los límites del déficit.</td></tr>
<tr><td>PLURIANUALIDAD</td><td colspan="2">La elaboración de los presupuestos anuales se encuadra en un marco presupuestario a medio plazo.</td></tr>
<tr><td rowspan="4">ESTRUCTURA</td><td>CLASIFICACIÓN PRIMARIA</td><td colspan="2">• Estado de ingresos Þ estimativo.
• Estado de gastos Þ limitativo.</td></tr>
<tr><td>CLASIFICACIÓN ECONÓMICA</td><td colspan="2">Se distinguen, tanto en ingresos como en gastos, las operaciones corrientes (capítulos 1 a 5), de capital (capítulos 6 y 7) y financieras (capítulos 8 y 9).

El código tiene carácter de cerrado y obligatorio en los niveles de capítulo (un dígito) y artículo (dos dígitos). Por lo que se refiere a concepto (tres dígitos) subconcepto (cuatro dígitos) es abierto, en tanto no se recojan en la normativa.</td></tr>
<tr><td>CLASIFICACIÓN POR PROGRAMAS</td><td colspan="2">Pretende responder a la pregunta de ¿PARA QUÉ SE GASTA?, es decir, determinar las finalidades y objetivos que se quieren alcanzar con los gastos presupuestarios.

Sólo se aplica a los gastos.

El código tiene carácter de cerrado y obligatorio en sus niveles de áreas de gasto (un dígito), políticas de gasto (dos dígitos), grupos de programas y programas que están especificados en la misma. Por lo que se refiere a programas (tres dígitos) o subprogramas (cuatro dígitos), se considera abierto, en tanto no se recojan en la normativa.</td></tr>
<tr><td>CLASIFICACIÓN ORGÁNICA</td><td colspan="2">Pretende responder a la pregunta ¿QUIÉN GASTA?

Se trata de identificar el órgano, unidad que, de acuerdo con el organigrama de la Entidad, está realizando el gasto o gestionando el ingreso. Tiene carácter opcional.</td></tr>
<tr><td>APLICACIÓN PRESUPUESTARIA</td><td colspan="2">Su expresión cifrada constituye el crédito presupuestario, vendrá definida, al menos por la conjunción de las estructuras por programas y económica, a nivel de grupo de programa y concepto respectivamente. La contabilidad de los gastos se realizará sobre la aplicación presupuestaria y el control interventor sobre el nivel de vinculación determinado jurídicamente.</td></tr>
<tr><td rowspan="3">CONTENIDO DEL PRESUPUESTO</td><td>ENTIDADES LOCALES Y ENTES DEPENDIENTES CON PRESUPUESTO LIMITATIVO</td><td>• Un estado de ingresos y de gastos.
• Cuadro de grupos de programas.
• Memoria del contenido del presupuesto.
• Anexo de los créditos de compromiso.</td><td>• Anexo de inversiones.
• Anexo de transferencias corrientes y de capital.
• Anexo de endeudamiento.
• Anexo de personal.</td></tr>
<tr><td>ENTIDADES DEPENDIENTES CON PRESUPUESTO ESTIMATIVO</td><td>• Cuenta de pérdidas y ganancias previsional.
• Balance previsional.
• Memoria que incluirá el cuadro de financiación.
• El estado previsional de cambios del patrimonio neto.</td><td>• Anexo de inversiones.
• Anexo de transferencias corrientes y de capital.
• Anexo de endeudamiento.
• Anexo de personal.</td></tr>
<tr><td>PRESUPUESTO GENERAL</td><td colspan="2">• El presupuesto consolidado del sector público local.
• La norma de ejecución presupuestaria.
• La liquidación de los presupuestos generales del último ejercicio, grado de ejecución alcanzado, y un avance del desarrollo del presupuesto corriente, referido a un mínimo de 6 meses.
• Una memoria explicativa de las modificaciones más significativas de los presupuestos.
• Un informe económico-financiero que recoja las bases utilizadas para la evaluación de los ingresos y de las operaciones de crédito previstas, la efectiva nivelación del Presupuesto, la suficiencia de los recursos municipales para financiar los créditos de compromiso, entre otros.
• La información precisa para relacionar el saldo resultante de los ingresos y gastos del presupuesto, la capacidad o necesidad de financiación conforme al Sistema Europeo de Cuentas.</td></tr>
</table>

Legislación: Ley Orgánica 2/2012, de Estabilidad Presupuestaria y Sostenibilidad Financiera, arts. 3 a 5
NF 3/2004, Presupuestaria de las Entidades Locales del TH de Álava, arts. 3 a 5, 6 a 8 y 10 a 13
NF 10/2003, Presupuestaria de las Entidades Locales del TH de Bizkaia, arts. 3 a 5, 6 a 8 y 10 a 13
NF 21/2003, Presupuestaria de las Entidades Locales del TH de Gipuzkoa, arts. 3 a 5, 6 a 8 y 10 a 13

<table>
<tr><td colspan="2">DEFINIZIOA</td><td colspan="2">Udalbatzaren urteko jarduketa-programaren zenbakizko irudikapena da; horren bitartez, toki-gobernuaren helburuak lortu behar dira, eta horiek lortzeko beharrezkoak direla aurreikusten diren baliabideak esleitzen dira.

Baliabideak modu egokian administratzen direla kontrolatzeko tresna da. Organo betearazleak zuzendaritza-programa garatzeko egin dezakeen gastuaren gehieneko muga dakar.</td></tr>
<tr><td rowspan="8">PRINTZIPIOAK</td><td>URTEKOTASUNA</td><td colspan="2">Ekitaldi ekonomikoa edo aurrekontuena urte naturalarekin bat etorriko da.</td></tr>
<tr><td>FINANTZA-OREKA</td><td colspan="2">Diru-sarrerek gastuak estali beharko dituzte, eta, horrez gain, diru-sarrera arruntak izaera bereko gastuen gehi zorpetzeagatiko amortizazio-gastuen adinakoak edo handiagoak izan beharko dira.</td></tr>
<tr><td>UNIBERTSALTASUNA</td><td colspan="2">Kasu bakoitzean kitatzea aurreikusten diren eta aintzat hartu behar diren eskubide eta betebehar guztiak agertu behar dira aurrekontuetan, inolako salbuespenik gabe.</td></tr>
<tr><td>EZ-ATXIKITZEA</td><td colspan="2">Edozein diru-sarrera bereizketarik gabe erabili behar da bere gastuetako edozein finantzatzeko, bereziki atxikitako diru-sarrerak salbu.</td></tr>
<tr><td>INTEGRITATEA</td><td colspan="2">Eskubide likidatuak eta betebehar onartuak beren zenbateko gordinaz kontabilizatu behar dira; lehenak ezin dira bigarrenen bitartez konpentsatu.</td></tr>
<tr><td>AURREKONTU-EGONKORTASUNA</td><td colspan="2">Aurrekontu-egonkortasuneko esparru batean egin, onartu eta betearaziko dira aurrekontuak, Europako araudiarekin bat etorriz.</td></tr>
<tr><td>FINANTZA-IRAUNKORTASUNA</td><td colspan="2">Defizitaren mugen barruan, oraingo eta etorkizuneko gastu-konpromisoak finantzatzeko gaitasuna da.</td></tr>
<tr><td>URTEANIZTASUNA</td><td colspan="2">Urteko aurrekontuak epe ertainerako aurrekontu-esparru batean egiten dira.</td></tr>
<tr><td rowspan="4">EGITURA</td><td>LEHEN MAILAKO SAILKAPENA</td><td colspan="2">• Diru-sarreren egoera Þ gutxi gorabeherakoa.
• Gastuen egoera Þ mugatzailea.</td></tr>
<tr><td>SAILKAPEN EKONOMIKOA</td><td colspan="2">Hala sarreretan nola gastuetan, eragiketa arruntak (1.-5. kapituluak), kapital-eragiketak (6. eta 7. kapituluak) eta finantza-eragiketak (8. eta 9. kapituluak) bereizi daitezke.

Kodea itxia eta nahitaezkoa da kapituluaren mailetan (digitu bat) eta artikuluaren mailetan (bi digitu). Kontzeptuari (hiru digitu) eta azpikontzeptuari (lau digitu) dagokienez, irekia da, araudian jasotzen ez diren bitartean.</td></tr>
<tr><td>PROGRAMEN ARABERAKO SAILKAPENA</td><td colspan="2">«ZERTARAKO GASTATZEN DA?» galderari erantzun nahi dio; hau da, zehaztu nahi du zer helburu eta xede lortu nahi diren aurrekontuko gastuekin.

Gastuei aplikatzen zaie soilik.

Kodea itxia eta nahitaezkoa da honako maila hauetan: gastu-arloak (digitu bat), gastu-politikak (bi digitu), bertan zehaztuta dauden programa-taldeak eta programak. Programei (hiru digitu) eta azpiprogramei (lau digitu) dagokienez, irekitzat jotzen da, araudian jasotzen ez diren bitartean.</td></tr>
<tr><td>SAILKAPEN ORGANIKOA</td><td colspan="2">«NORK GASTATZEN DU?» galderari erantzun nahi dio.

Honen bidez, erakundearen organigramarekin bat, gastua egiten ari den edo diru-sarrera kudeatzen ari den organoa edo unitatea identifikatu nahi da. Aukerakoa da.</td></tr>
<tr><td>AURREKONTU-APLIKAZIOA</td><td colspan="2">Haren adierazpen zifratuak aurrekontu-kreditua osatzen du, eta programen eta ekonomiaren araberako egituren uztarketak definituko du gutxienez, programa multzoaren eta kontzeptuaren mailan, hurrenez hurren. Gastuen kontabilitatea aurrekontu-aplikazioaren gainean egingo da; kontu-hartzailetzako kontrola, berriz, juridikoki zehazten den lotura mailaren gainean.</td></tr>
<tr><td rowspan="3">AURREKONTUAREN EDUKIA</td><td>TOKI-ERAKUNDEAK ETA AURREKONTU MUGATZAILEA DUTEN MENDEKO ENTEAK</td><td>• Diru-sarreren eta gastuen egoera-orria.
• Programa multzoen taula.
• Aurrekontuaren edukiaren memoria.
• Konpromiso-kredituen eranskina.</td><td>• Inbertsioen eranskina.
• Transferentzia arrunten eta kapital-transferentzien eranskina.
• Zorpetzearen eranskina.
• Pertsonalaren eranskina.</td></tr>
<tr><td>GUTXI GORABEHERAKO AURREKONTUA DUTEN MENDEKO ERAKUNDEAK</td><td>• Aurreikusitako galdu-irabazien kontua.
• Aurreikusitako balantzea.
• Memoria, finantzaketa-taula eta guzti.
• Ondare garbiaren aldaketen aurreikusitako egoera-orria.</td><td>• Inbertsioen eranskina.
• Transferentzia arrunten eta kapital-transferentzien eranskina.
• Zorpetzearen eranskina.
• Pertsonalaren eranskina.</td></tr>
<tr><td>AURREKONTU OROKORRA</td><td colspan="2">• Tokiko sektore publikoaren aurrekontu bateratua.
• Aurrekontua betearazteko araua.
• Azken ekitaldiko aurrekontu orokorren likidazioa, lortutako betearazpen-maila, eta egungo aurrekontu arruntaren garapenaren aurrerapena (sei hilabeteren gainekoa, gutxienez).
• Aurrekontuen aldaketa esanguratsuenak azaltzen dituen memoria.
• Ekonomia- eta finantza-arloko txostena; besteak beste, hau jasoko du: aurreikusitako diru-sarrerak eta kreditu-eragiketak ebaluatzeko erabilitako oinarriak, aurrekontua orekatuta dagoela eta udalak konpromiso-kredituak finantzatzeko baliabide nahiko dituela.
• Aurrekontuaren diru-sarrera eta gastuen ondoriozko saldoa erlazionatzeko beharrezkoa den informazioa, Kontuen Europako Sistemaren arabera finantzatzeko gaitasuna edo premia.</td></tr>
</table>

Legeria: 2/2012 Lege Organikoa, Aurrekontu Egonkortasun eta Finantza Nahikotasunarena, 3.-5. artikuluak
3/2004 Foru Araua, Arabako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoa, 3.-5., 6.-8. eta 10.-13. artikuluak
10/2003 Foru Araua, Bizkaiko Lurralde Historikoko toki-erakundeen Aurrekontuei buruzkoa, 3.-5., 6.-8. eta 10.-13. artikuluak
21/2003 Foru Araua, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoa, 3.-5., 6.-8. eta 10.-13. artikuluak

ESTABILIDAD PRESUPUESTARIA Y SOSTENIBILIDAD FINANCIERA

<table>
<tr><td colspan="2">OBJETO</td><td colspan="2">El establecimiento de los PRINCIPIOS RECTORES, que vinculan a todos los poderes públicos, a los que deberá adecuarse la política presupuestaria del sector público orientada a la estabilidad presupuestaria y la sostenibilidad financiera, como garantía del crecimiento económico sostenido y la creación de empleo.</td></tr>
<tr><td colspan="2">PRINCIPIOS GENERALES</td><td>Principio de estabilidad presupuestaria.
Principio de plurianualidad.
Principio de eficiencia en la asignación y utilización de los recursos públicos.</td><td>Principio de responsabilidad.
Principio de sostenibilidad financiera.
Principio de transparencia.
Principio de lealtad institucional.</td></tr>
<tr><td rowspan="5">INSTRUMENTACIÓN</td><td>PRINCIPIO DE ESTABILIDAD PRESUPUESTARIA</td><td colspan="2">Las entidades locales deberán cumplir el objetivo de estabilidad presupuestaria en el marco de los acuerdos que se adopten en el Consejo Vasco de Finanzas Públicas, a la vista de los alcanzados con el Estado para el conjunto de las administraciones públicas del País Vasco en la Comisión Mixta de Concierto Económico.

Sin perjuicio de lo anterior, se entiende que se cumple el objetivo de estabilidad presupuestaria cuando la entidad local presenta equilibrio o superávit presupuestario.</td></tr>
<tr><td>REGLA DE GASTO</td><td colspan="2">La variación del gasto computable de las entidades locales no podrá superar lo acordado en el seno de la Comisión Mixta del Concierto Económico.

DESTINO DEL SUPERÁVIT PRESUPUESTARIO: En el supuesto de que la liquidación presupuestaria se sitúe en superávit, este se destinará a reducir el endeudamiento neto.</td></tr>
<tr><td>PRINCIPIO DE SOSTENIBILIDAD FINANCIERA</td><td colspan="2">Las actuaciones de las Administraciones Públicas estarán sujetas al principio de sostenibilidad financiera, es decir, la capacidad para financiar compromisos de gasto presentes y futuros dentro de los límites de déficit y deuda pública:
El volumen de deuda pública de las entidades locales se determinará por los territorios históricos, teniendo en cuenta los acuerdos que se adopten en el Consejo Vasco de Finanzas Públicas.
El pago de los intereses y el capital de la deuda pública gozará de prioridad absoluta frente a cualquier otro gasto. Para el cumplimiento del principio de sostenibilidad financiera las operaciones financieras se someterán al principio de prudencia financiera.</td></tr>
<tr><td>PRINCIPIO DE PLURIANUALIDAD</td><td colspan="2">La elaboración de los Presupuestos se encuadrará en un marco presupuestario a medio plazo, con un periodo mínimo de tres años, compatible con el principio de anualidad.</td></tr>
<tr><td>PRINCIPIO DE TRANSPARENCIA</td><td colspan="2">La contabilidad de las entidades locales, así como sus Presupuestos, liquidaciones y cuenta general, deberán contener información suficiente y adecuada que permita verificar su situación financiera, el cumplimiento de los objetivos de estabilidad presupuestaria y de sostenibilidad financiera.

Las entidades locales calcularán el coste efectivo de los servicios que prestan, partiendo de los datos contenidos en la liquidación del presupuesto general y, en su caso, de las cuentas anuales aprobadas de las entidades vinculadas o dependientes, correspondiente al ejercicio inmediato anterior. Las diputaciones forales procederán a su publicación.</td></tr>
</table>

AURREKONTU-EGONKORTASUNA ETA FINANTZA-JASANGARRITASUNA

<table>
<tr><td colspan="2">XEDEA</td><td colspan="2">Botere publiko guztiak lotzen dituzten PRINTZIPIO GIDARIAK ezartzea. Aurrekontu-egonkortasuna eta finantza-jasangarritasuna helburu duen sektore publikoaren aurrekontu-politika printzipio horietara egokituko da, hazkunde ekonomiko jarraituaren eta enplegu-sorkuntzaren berme gisa.</td></tr>
<tr><td colspan="2">PRINTZIPIO OROKORRAK</td><td>Aurrekontu-egonkortasunaren printzipioa.
Urteaniztasunaren printzipioa.
Baliabide publikoak esleitzeko eta erabiltzeko efizientziaren printzipioa.</td><td>Erantzukizunaren printzipioa.
Finantza-jasangarritasunaren printzipioa.
Gardentasunaren printzipioa.
Erakundeen arteko leialtasunaren printzipioa.</td></tr>
<tr><td rowspan="5">ANTOLAKUNTZA</td><td>AURREKONTU-EGONKORTASUNAREN PRINTZIPIOA</td><td colspan="2">Toki-erakundeek aurrekontu-egonkortasunaren helburua bete beharko dute Herri Dirubideen Euskal Kontseiluan hartzen diren akordioen esparruan, Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoan Estatuarekin Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publiko guztientzat lortutako akordioak aintzat hartuta.
ESTRUCTURA	• Todo **proyecto** de gasto se identificará con un **código único, invariable** a lo largo de toda su vida. • Cada proyecto de gasto **podrá desglosarse en niveles inferiores.**

GASTO CON FINANCIACIÓN AFECTADA	
CONCEPTO	• Es cualquier **proyecto de gasto que se financie, en todo o en parte, con recursos concretos** que en caso **de no realizarse el gasto no podrían percibirse**, o si se hubieran percibido deberían reintegrarse a los agentes que los aportaron.
SEGUIMIENTO Y CONTROL CONTABLE	• Ha de garantizar el cumplimiento de los siguientes **FINES**: a) **Asegurar que la ejecución** de todo gasto con financiación afectada se efectúe en su totalidad, de modo tal que se cumplan las condiciones que se hubiesen acordado para la percepción de los recursos afectados. b) **Calcular**, en la liquidación de cada uno de los presupuestos a que afecte la realización, las **desviaciones de financiación** que, en su caso, se hayan producido como consecuencia de desfases en el ritmo de ejecución del gasto y de los ingresos específicos que los financien. c) **Controlar la ejecución presupuestaria** de cada gasto con financiación afectada, tanto la del gasto como la de los ingresos afectados. • Cuando un gasto con financiación afectada se ejecute en varias anualidades, con cargo a más de una aplicación presupuestaria, y la financiación afectada proceda de más de un concepto presupuestario de ingresos, se realizará su seguimiento y control para cada una de las anualidades y conceptos presupuestarios de ingreso.
COEFICIENTE DE FINANCIACIÓN	• **Es el resultado de dividir la totalidad de los ingresos presupuestarios** (reconocidos y pendientes de reconocer) **afectados a la realización de un gasto presupuestario, por el importe total de éste** (realizado y a realizar). • El coeficiente de financiación será **GLOBAL** cuando exprese la parte del gasto que queda cubierta con la totalidad de los ingresos a él afectados, y será **parcial** cuando exprese la parte del gasto que queda cubierta con una parte de los ingresos.
DESVIACIONES DE FINANCIACIÓN	• La desviación de financiación **es** la **magnitud que representa el desfase** existente entre los **ingresos presupuestarios reconocidos** durante un periodo determinado, para la realización de un gasto con financiación afectada y los que, en función de la parte del mismo efectuada en ese periodo, **deberían haberse reconocido**, si la ejecución de los ingresos afectados se realizase armónicamente con la del gasto presupuestario. • Las desviaciones de financiación, para cada gasto con financiación afectada, **SE CALCULARÁN** por **DIFERENCIA entre los derechos reconocidos netos por ingresos afectados** y el **producto del coeficiente de financiación por el total de obligaciones reconocidas netas,** referidos unos y otras al periodo considerado. • Las desviaciones **de financiación del ejercicio SE CALCULARÁN TOMANDO EN CONSIDERACIÓN** el coeficiente de financiación parcial por agente financiador y el importe de las obligaciones y los derechos reconocidos relativos al agente de que se trate, referidos unas y otros al ejercicio presupuestario. Esta desviación financiera del ejercicio (positiva o negativa) **ajustará el resultado presupuestario** del ejercicio con signo contrario a su resultado. • Las desviaciones **DE FINANCIACIÓN ACUMULADAS** se calcularán del mismo modo que las imputables al ejercicio, pero **tomando en consideración** las obligaciones y los derechos reconocidos desde el inicio de la ejecución del gasto con financiación afectada hasta el final del ejercicio. Las desviaciones positivas son el exceso de financiación afectada producido.

Legislación: Decreto Foral 139/2015, de 28 de julio, por el que se aprueba el marco regulatorio contable de las entidades locales de Bizkaia, Título II, Capítulo 2, Sección 3
Decreto Foral 86/2015, de 15 de diciembre, por el que se aprueba el marco regulatorio contable de las entidades locales de Gipuzkoa, Título II, Capítulo 2, Sección 3
Decreto Foral 56/2015, de 3 de noviembre, que aprueba el marco regulatorio contable de las entidades locales del Territorio Histórico de Álava, Título II, Capítulo 2, Sección 3

GASTU-PROIEKTUAK

KONTZEPTUA

- Gastu-proiektua **argi eta garbi identifika daitekeen aurrekontuko gastu-unitatea da**, eta ezaugarri hauek ditu: aurrekontu-aplikazio baten edo batzuen kredituen kontura eginda dago, ekitaldi batean edo batzuetan egiten da, eta banan-banakako jarraipena eta kontrola eskatzen du.
- **Honako hauek hartuko dira gastu-proiektutzat:**
  - → Aurrekontuko inbertsioen eranskinak jasotzen dituen inbertsio-proiektuak.
  - → Finantzaketa lotuko gastuak.
  - → Aurrekontuetako beste edozein gastu-unitate, erakundeak banan-banakako jarraipena eta kontrola egin nahi badizkio.

EGITURA

- Gastu-**proiektu** orok identifikazioko **kode bakar bat izango du, eta ez da aldatuko** proiektuak irauten duen artean.
- Gastu-proiektua **azpimailatan banakatu ahal izango da**.

FINANTZAKETA LOTUKO GASTUAK

KONTZEPTUA

- Finantzaketa lotuko gastua da **baliabide jakin batzuei esker, osoki edo hein batean, finantzatzen den edozein gastu-proiektu**, **gastua egin ezean, baliabideak jasotzeko aukerarik ematen ez duena**, edo jaso izanez gero, eman zituzten eragileei itzularaztea eskatzen duena.

KONTABILITATE-JARRAIPENA ETA -KONTROLA

- Honako **HELBURU** hauek betetzen direla bermatu behar du:
  - a) Finantzaketa lotuko gastu oro guztiz **exekutatzen dela bermatzea**, lotutako baliabideak jasotzeko adostu ziren baldintzak betetzen direla ziurtatzeko.
  - b) Egiteak eragiten dion aurrekontuetako bakoitzaren likidazioan, **kalkulatzea** gastua egiteko eta haiek finantzatzeko diru-sarrera espezifikoen erritmoen arteko desoreken ondorioz gertatu diren **finantzaketa-desbideratzeak**.
  - c) Finantzaketa lotuko gastu bakoitzaren **aurrekontua betearazten dela kontrolatu**, bai lotutako gastuarena, bai diru-sarrerena.
- Finantzaketa lotuko gastu bat hainbat urterokotan betearazten bada, aurrekontu-aplikazio baten baino gehiagoren kargura, eta ukitutako finantzaketa diru-sarreren aurrekontu-kontzeptu batetik baino gehiagotik badator, haren jarraipena eta kontrola gauzatuko dira urteroko bakoitzerako eta diru-sarreren aurrekontuko kontzeptu bakoitzerako.

FINANTZAKETA-KOEFIZIENTEA

- **Aurrekontuko gastu bat egiteari lotutako aurrekontuko sarrera guztiak** (onartuak eta onartzeko daudenak) **aurrekontuko gastu horren guztizko kopuruaz** (egindakoa eta egitekoa) **zatitzetik ateratzen den emaitza da**.
- Finantzaketa-koefizientea OROKORRA izango da, berari atxikitako diru-sarrera guztiekin estalita geratzen den gastuaren zatia adierazten denean, eta **partziala** izango da, diru-sarreren zati batekin estalitako gastuen zatia adierazten denean.

FINANTZAKETA-DESBIDERATZEAK

- Finantzaketa-desbideratzea **da** lotutako finantzaketa duen gastu bat egiteko aldi jakin batean **aitortutako aurrekontuko diru-sarreren** eta aldi horretan bertan haren zati baten arabera **aitortu beharko liratekeen** horien artean dagoen **desoreka adierazten duen magnitudea**, baldin eta atxikitako diru-sarrerak aurrekontuko gastuarekin modu harmoniatsuan betetzen badira.
- Lotutako finantzaketa duen gastu bakoitzerako finantzaketa-desbideratzeak **KALKULATZEKO**, kontuan hartuko da **lotutako diru-sarreren zioz eskubide onartu garbien** eta **betebehar onartu garbi guztien ziozko finantzaketa-koefizienteko produktuaren** arteko ALDEA, batzuek zein besteak aipatu aldiarekin lotuta.
- **Ekitaldiko finantzaketa**-desbideratzeak **KALKULATZEKO, HAUEK HARTUKO DIRA KONTUAN**: finantzaketa-koefiziente partziala, agente finantzatzailearen arabera eta, kasuan kasuko agenteari dagokionez, betebehar eta eskubide onartuen zenbatekoa, guztiak ere aurrekontu-ekitaldiari dagozkionak. Ekitaldiko finantza-desbideratzeak (positiboa zein negatiboa) **ekitaldiko aurrekontu-emaitza doituko du**, emaitzaren kontrako zeinuarekin.
- **FINANTZAKETA-DESBIDERATZE METATUAK** ekitaldiari egotz dakizkiokeenak bezala kalkulatuko dira, baina **kontuan hartuta,** betebehar eta eskubide onartuak kontatzean, finantzaketa lotuko gastua hasten zenetik ekitaldiaren amaiera arte onartutako guztiak. Desbideratze positiboak eragin den gehiegizko finantzaketa lotua dira.

Legeria:

139/2015 Foru Dekretua, uztailaren 28koa, Bizkaiko toki entitateen kontabilitatearen arau esparrua ezartzen duena, II. titulua, 2. kapitulua, 3. atala
86/2015 Foru Dekretua, abenduaren 15ekoa, Gipuzkoako toki entitateen kontabilitatearen arau esparrua ezartzen duena, II. titulua, 2. kapitulua, 3. atala
56/2015 Foru Dekretua, azaroaren 3koa, Araba Lurralde Historikoko toki erakundeen kontabilitatearen arau esparrua onartzen duena, II. titulua, 2. kapitulua, 3. atala

FECHA DE CIERRE

Los **Presupuestos generales del ejercicio se cerrarán el 31 de diciembre** de cada año, en lo que respecta al **reconocimiento de derechos y obligaciones**.

No obstante, a efectos de cierre del ejercicio, **durante el periodo de cierre presupuestario, podrán reconocerse gastos con cargo al presupuesto a cerrar,** aunque el correspondiente acto administrativo se haya producido en el ejercicio vigente, siempre que se correspondan con gastos que hayan devengado en el ejercicio a cerrar. **A estos efectos,** se considerará periodo de **cierre presupuestario el plazo de tiempo comprendido entre los días 1 y 31 de enero.**

PONE DE MANIFIESTO

- **Respecto del presupuesto de Gastos**, y por cada aplicación presupuestaria: los créditos iniciales, sus modificaciones y los créditos definitivos, los gastos autorizados y comprometidos, las obligaciones reconocidas, los pagos ordenados y los pagos realizados.
- **Respecto del presupuesto de Ingresos**, y para cada concepto: las previsiones iniciales, sus modificaciones y las previsiones definitivas, los derechos reconocidos cancelados y anulados, así como los recaudados netos.

COMPRENDE

1. La **liquidación del presupuesto** del ejercicio, integrado por:
   - Cuenta resumen.
   - Estado de ingresos del ejercicio corriente.
   - Estado de gastos de créditos de pago.
   - Estado de gastos de créditos de compromiso.
2. Estado de **variaciones de los presupuestos cerrados**, con expresión de las producidas en el ejercicio sobre los derechos a cobrar y las obligaciones a pagar.
3. Estado de los **saldos de deudores y acreedores no presupuestarios**, incluidos los pagos e ingresos pendientes de aplicación.
4. Saldo total de **acreedores por devolución de ingresos indebidos**, existentes al cierre del ejercicio.
5. Cuenta **de tesorería** del ejercicio.
6. **Acta de arqueo** al cierre, mostrando los fondos de las distintas cuentas y su conciliación.
7. **Análisis de los derechos pendientes de cobro** cuya realización, en el ejercicio siguiente al que se liquida, se estima **difícil o imposible**.
8. **Análisis** de las **desviaciones de financiación** en gastos con ingresos afectados.
9. **Resultado presupuestario** del ejercicio, distinguiendo el generado por el presupuesto del ejercicio y los presupuestos cerrados.
10. **Remanente de tesorería** al cierre del ejercicio.

REMANENTE DE TESORERÍA TOTAL	**=**	**FONDOS LÍQUIDOS DE TESORERÍA** **+ DERECHOS PENDIENTES DE COBRO** **– OBLIGACIONES PENDIENTES DE PAGO** **– COBROS PENDIENTES DE APLICACIÓN** **+ PAGOS PENDIENTES DE APLICACIÓN** **– DERECHOS DE DUDOSO COBRO**

SE DISTRIBUYE ENTRE:

- **Remanente de tesorería para gastos con financiación afectada**, deberá utilizarse necesariamente para la incorporación de los proyectos que generaron las desviaciones positivas de financiación.
- **Remanente de tesorería para gastos generales**:
- **Cuando es positivo**: constituye un recurso financiero para la realización de modificaciones presupuestarias.
- **Cuando es negativo:** muestra un desequilibrio económico financiero, debiendo adoptarse las medidas de saneamiento establecidas por la normativa presupuestaria:
  - → Reducción de gastos del presupuesto vigente en igual cuantía que el déficit.
  - → Concertar una operación de crédito excepcional para su financiación.
  - → Aprobar el presupuesto del ejercicio siguiente con un superávit inicial de cuantía no inferior al déficit indicado.

PLAZO PARA SU APROBACIÓN	**Antes del 31 de marzo** del ejercicio siguiente.
ÓRGANO COMPETENTE PARA SU APROBACIÓN	**La presidencia de la Entidad Local**, previo informe de la intervención y, posterior comunicación al Pleno.

Legislación:

NF 3/2004, Presupuestaria de las Entidades Locales del TH de Álava, arts. 46 a 49
DF 56/2015, del Consejo de Diputados de 3 de noviembre, que aprueba el marco regulatorio contable de las entidades locales del Territorio Histórico de Álava. PRIMERA PARTE Marco conceptual de la contabilidad pública, 5.º Criterios de registro o reconocimiento contable de los elementos de las cuentas anuales, 4. Gastos e ingresos presupuestarios
NF 10/2003, Presupuestaria de las Entidades Locales del TH de Bizkaia, arts. 46 a 49
DF 139/2015, de la Diputación Foral de Bizkaia, de 28 de julio, por el que se aprueba el marco regulatorio contable de las entidades locales de Bizkaia. PRIMERA PARTE Marco conceptual de la contabilidad pública, 5.º Criterios de registro o reconocimiento contable de los elementos de las cuentas anuales, 4. Gastos e ingresos presupuestarios
NF 21/2003, Presupuestaria de las Entidades Locales del TH de Gipuzkoa, arts. 46 a 49
DF 86/2015, de 15 de diciembre, por el que se aprueba el marco regulatorio contable de las entidades locales de Gipuzkoa. PRIMERA PARTE Marco conceptual de la contabilidad pública, 5º Criterios de registro o reconocimiento contable de los elementos de las cuentas anuales, 4. Gastos e ingresos presupuestarios

ITXIERA-DATA

Ekitaldiko aurrekontu orokorrak urte bakoitzeko abenduaren 31n itxiko dira, **eskubideak eta betebeharrak onartzeari** dagokienez.

Hala ere, ekitaldia ixtearen ondorioetarako, **aurrekontua ixteko aldian, gastuak onartu ahal izango dira itxi beharreko aurrekontuaren kargura**, nahi eta dagokion administrazio-egintza indarrean dagoen ekitaldian gertatu den, betiere itxi beharreko ekitaldian sortutako gastuei badagozkie. **Horri dagokionez**, **urtarrilaren 1etik 31ra bitarteko epea hartuko da aurrekontua ixteko alditzat**.

HAUEK ADIERAZTEN DITU:

- **Gastu-aurrekontuari dagokionez**, eta aurrekontu-aplikazio bakoitzeko: hasierako kredituak, haien aldaketak eta behin betiko kredituak, baimendutako eta konprometitutako gastuak, onetsitako betebeharrak, agindutako ordainketak eta egindako ordainketak.
- **Diru-sarreren aurrekontuari dagokionez**, aldiz, honako hauek kontzeptu bakoitzeko: hasierako aurreikuspenak, aldaketak, behin betiko aurreikuspenak, ezeztaturiko eta deuseztatutako eskubide onartuak eta bildutako garbiak.

HAUEK HARTZEN DITU BARNE:

1. Ekitaldiko **aurrekontuaren likidazioa**, honako hauek dituela:
   - Laburpen-kontua.
   - Uneko ekitaldiko diru-sarreren egoera-orria.
   - Ordainketa-kredituen gastuen egoera-orria.
   - Konpromiso-kredituen gastuen egoera-orria.
2. **Aurrekontu itxien aldakuntzen** egoera-orria, ekitaldian kobratzeko eskubideen eta ordaintzeko betebeharren gainean gertatutakoak adierazten dituela.
3. **Aurrekontukoak ez diren zordunen eta hartzekodunen saldoen** egoera-orria, aplikatzeke dauden ordainketa eta diru-sarrerak barne.
4. **Hartzekodunen** saldo osoa, ekitaldia ixtean **bidegabe egin diren kobratzeen itzulketagatik**.
5. Ekitaldiko **diruzaintza**-kontua.
6. Itxierako **kontaketa-akta**, kontuetako funtsak eta haien bat-etortzea erakusten dituztela.
7. **Kobratzeke dauden eskubideen azterketa**, hain zuzen likidatu ondorengo hurrengo ekitaldian egitea **zaila edo ezinezkoa** dela ikusten den haiena.
8. Diru-sarrera lotuak dituzten gastuen **finantzaketa-desbideratzeen azterketa**.
9. Ekitaldiko **aurrekontu-emaitza**; bertan bereiziko dira, batetik, ekitaldiko aurrekontuak sortutako emaitza eta, bestetik, itxitako aurrekontuena.
10. Ekitaldiaren itxierako **diruzaintzako gerakina**.

DIRUZAINTZAKO GERAKINA GUZTIRA	**=**	**DIRUZAINTZAKO FUNTS LIKIDOAK** **+ KOBRATZEKE DAUDEN ESKUBIDEAK** **– ORDAINTZEKO DAUDEN BETEBEHARRAK** **– APLIKATZEKO DAUDEN KOBRANTZAK** **+ APLIKATZEKO DAUDEN ORDAINKETAK** **– KOBRANTZA ZALANTZAGARRIKO ESKUBIDEAK**

HONELA BANATUTA:

- **Finantzaketa lotuko gastuetarako diruzaintzako gerakina**, finantzaketako desbiderapen positiboak sorrarazi zituzten proiektuak txertatzeko erabili beharko da, nahitaez.
- **Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina**:
- **Positiboa baldin bada**: aurrekontu-aldaketak gauzatzeko finantza-baliabide bat da.
- **Negatiboa baldin bada**: desoreka ekonomiko finantzarioa dagoela erakusten du, eta aurrekontu-araudiak ezartzen dituen saneamenduko neurriak hartu behar dira:
  - → Indarrean dagoen aurrekontuko gastuak defizitaren zenbateko berean murriztea.
  - → Haiek finantzatzeko ohiz kanpoko kreditu-eragiketa bat ituntzea.
  - → Hurrengo ekitaldirako aurrekontua aipaturiko defizita baino txikiagoa izango ez den hasierako superabitarekin onartzea.

ONARTZEKO EPEA

Hurrengo ekitaldiko **martxoaren 31 baino lehen**.

ONARTZEKO ESKUMENA DUEN ORGANOA

Toki-erakundeko lehendakaria; aldez aurretik kontu-hartzaileak txostena egin behar du, eta, ondoren, osoko bilkurari jakinarazi behar dio.

Legeria:


3/2004 Foru Araua, Arabako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoa, 46.-49. artikuluak
Diputatuen Kontseiluaren 56/2015 Foru Dekretua, azaroaren 3koa, Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeen kontabilitatearen arau esparrua onartzen duena. LEHENENGO ZATIA Kontabilitate publikoaren kontzeptu-esparrua, 5. Urteko kontuetako elementuak kontabilitatean erregistratzeko edo aintzatesteko irizpideak, 4. Aurrekontuko gastuak eta sarrerak
10/2003 Foru Araua, Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoa, 46.-49. artikuluak
139/2015 Foru Dekretua, Bizkaiko Foru Aldundiarena, uztailaren 28koa, Bizkaiko toki entitateen kontabilitatearen arau esparrua ezartzen duena. LEHENENGO ZATIA Kontabilitate publikoaren kontzeptu-esparrua, 5. Urteko kontuetako elementuak kontabilitatean erregistratzeko edo aintzatesteko irizpideak, 4. Aurrekontuko gastuak eta sarrerak
21/2003 Foru Araua, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoa, 46.-49. artikuluak
86/2015 Foru Dekretua, abenduaren 15ekoa, Gipuzkoako toki entitateen kontabilitatearen arau esparrua ezartzen duena. LEHENENGO ZATIA Kontabilitate publikoaren kontzeptu-esparrua, 5. Urteko kontuetako elementuak kontabilitatean erregistratzeko edo aintzatesteko irizpideak, 4. Aurrekontuko gastuak eta sarrerak

LA CUENTA GENERAL	
DELIMITACIÓN	Las Entidades locales, **a la terminación del ejercicio presupuestario**, formarán la Cuenta General que pondrá de manifiesto la **gestión realizada en los aspectos económico, financiero, patrimonial y presupuestario**, y que **ESTARÁ INTEGRADA POR:** • La cuenta de la Entidad Local. • La cuenta de sus Organismos Autónomos. • La cuenta de las sociedades mercantiles en las que la entidad participe con más de un 50% del capital social. • La de las entidades públicas empresariales. • La de los de los consorcios adscritos.
CONTENIDO	• **BALANCE**: por un lado, recoge los bienes y derechos que constituyen el **activo** del Ente Local y, por otro lado, las obligaciones y recursos propios que forman el **pasivo**; unos y otros ordenados en función de su liquidez o su exigibilidad, respectivamente. • **CUENTA DEL RESULTADO ECONÓMICO PATRIMONIAL: comprende los ingresos y gastos del ejercicio, incluyendo la diferencia entre los ingresos y gastos desde el punto de vista económico-patrimonial.** • **EL ESTADO DE CAMBIOS EN EL PATRIMONIO NETO.** • **EL ESTADO DE FLUJOS DE EFECTIVO: informa sobre el origen y destino de los movimientos habidos en las partidas monetarias de activo representativas de efectivo y otros activos líquidos equivalentes, e indica la variación neta sufrida por las mismas en el ejercicio.** • **MEMORIA: la memoria completa, amplía y comenta la información contenida en los otros documentos que integran las cuentas anuales.** • **LA LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO**.
ACOMPAÑA A LOS ESTADOS ANUALES	• Estados consolidados de las cuentas anuales de las entidades del grupo, multigrupo y asociadas (a partir del ejercicio 2024).

TRAMITACIÓN Y APROBACIÓN DE LA CUENTA GENERAL

Los estados y cuentas de la Entidad Local serán rendidos por su **presidencia,** antes del día **30 de abril** del ejercicio siguiente al que correspondan.

Las de los organismos autónomos, entidades públicas empresariales, sociedades públicas y consorcios, **rendidas y propuestas** inicialmente por los órganos competentes de los mismos, serán remitidas a la Entidad Local en el mismo plazo.




Legislación: NF 3/2004, Presupuestaria de las Entidades Locales del TH de Álava, arts. 62 a 64
NF 10/2003, Presupuestaria de las Entidades Locales del TH de Bizkaia, arts. 62 a 64
DF 139/2015, de la Diputación Foral de Bizkaia, de 28 de julio, por el que se aprueba el marco regulatorio contable de las entidades locales de Bizkaia. TERCERA PARTE. Cuentas anuales
NF 21/2003, Presupuestaria de las Entidades Locales del TH de Gipuzkoa, arts. 62 a 64

KONTU OROKORRA	
MUGAKETA	Toki-erakundeek, **aurrekontu-ekitaldia amaitzean**, kontu orokorra egingo dute, **ekonomia-, finantza-, ondare- eta aurrekontu-esparruan egindako kudeaketa** azaltzeko, **HONAKO HAUEK OSATUA:** • Toki-erakundearen kontua. • Haren erakunde autonomoen kontua. • Erakundearen partaidetza kapital sozialaren % 50 baino handiagoa den merkataritza-sozietateen kontua. • Enpresa-erakunde publikoen kontua. • Atxikitako partzuergoen kontua.
EDUKIA	• **BALANTZEA**: alde batetik, toki-erakundearen **aktiboa** osatzen duten ondasun eta eskubideak biltzen ditu, eta, beste alde batetik, **pasiboa** osatzen duten betebehar eta baliabideak, likideziaren edo galdagarritasunaren arabera ordenaturik, hurrenez hurren. • **ONDARE-EMAITZA EKONOMIKOAREN KONTUA: ekitaldiko diru-sarrera eta gastuak hartzen ditu barne; ondare- eta ekonomia-ikuspuntutik diru-sarreren eta gastuen artean dagoen aldea ere jasotzen du.** • **ONDARE GARBIAREN ALDAKETEN EGOERA-ORRIA.** • **DIRU-FLUXUEN EGOERA-ORRIA: dirua adierazten duten aktiboen moneta-partidetan eta baliokideak diren beste aktibo likido batzuetan izan diren aldaketen jatorriaren eta xedearen berri ematen du, eta ekitaldian izan duten aldakuntza garbia erakusten du.** • **MEMORIA: memoriak urteko kontuak jasotzen dituzten beste agiri batzuetan jasotako informazioa osatu, sakondu eta iruzkindu egiten du.** • **AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA**.
URTEKO EGOERA-ORRIEKIN BATERA DOA	• Taldeko erakundeen, talde anitzekoen eta elkartuen urteko kontuen egoera-orri bateratuak (2024ko ekitalditik aurrera).

KONTU OROKORRA IZAPIDETU ETA ONARTZEA

Toki-erakundeko **lehendakariak** aurkeztuko ditu erakundearen egoera-orriak eta kontuak, dagokien ekitaldiaren ondorengoaren **apirilaren 30a** baino lehen.

Erakunde autonomo, enpresa-erakunde publiko, sozietate publiko eta partzuergoenak, berriz, hasiera batean haien organo eskudunek **aurkeztu eta proposatu** behar dituzte, eta epe berean helaraziko zaizkio toki-erakundeari.



Legeria:

3/2004 Foru Araua, Arabako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoa, 62.-64. artikuluak
10/2003 Foru Araua, Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoa, 62.-64. artikuluak
139/2015 Foru Dekretua, Bizkaiko Foru Aldundiarena, uztailaren 28koa, Bizkaiko toki entitateen kontabilitatearen arau esparrua ezartzen duena. HIRUGARREN ZATIA. Urteko kontuak
21/2003 Foru Araua, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoa, 62.-64. artikuluak

CONFIGURACIÓN Y RÉGIMEN JURÍDICO		La **hacienda local vasca ESTÁ CONSTITUIDA** por el **conjunto de derechos y obligaciones de naturaleza económico-financiera** de los **municipios y del resto de entidades locales** de Euskadi. La hacienda de las entidades locales de la Comunidad Autónoma de Euskadi **SE REGULA** por las **disposiciones normativas que, referentes a las materias propias de aquella, aprueben los órganos forales de los territorios históricos** y, en su caso, por las previsiones recogidas en la **Ley 2/2016,** de Instituciones Locales de Euskadi, así como por las manifestaciones de la **potestad normativa local**.
PRINCIPIOS DE ACTUACIÓN	**AUTONOMÍA FINANCIERA**	**Ejercicio de las potestades de ordenación y gestión en materia económico-financiera y presupuestaria**, sin perjuicio de las competencias sobre estas materias de los órganos forales de los Territorios Históricos.
	ESTABILIDAD PRESUPUESTARIA Y SOSTENIBILIDAD FINANCIERA	**Cumplimiento de los requerimientos que se establezcan** en materia de déficit público, deuda pública y regla de gasto, de acuerdo con la **legislación general** en relación con esta materia y, en particular, de conformidad con la **normativa específica que al efecto aprueben los órganos forales** de los Territorios Históricos.
	SUFICIENCIA FINANCIERA	Disponibilidad por parte de las haciendas locales de los **recursos necesarios para el ejercicio de las competencias atribuidas** por la **Ley 2/2016**, de Instituciones Locales de Euskadi, así como por **otras leyes** del Parlamento Vasco o **normas forales** de los Territorios Históricos.
	OTROS PRINCIPIOS	**Legalidad, transparencia, objetividad, economía, eficacia, eficiencia, control, unidad de caja y racionalidad en la gestión de sus recursos**.
FINANCIACIÓN	**REGLA GENERAL**	La financiación de los municipios y demás entidades locales vascas será, **POR REGLA GENERAL, DE CARÁCTER INCONDICIONADO.** Salvo que se estableciera otra cosa en la normativa específica de cada **ingreso**, el producto del mismo se destinará a **financiar el conjunto de las obligaciones** de las que sea titular la entidad.
	EXCEPCIONES	El establecimiento de **MECANISMOS DE FINANCIACIÓN CONDICIONADA**, de acuerdo con los principios de la Carta Europea de Autonomía Local, solo podrá adoptarse de manera excepcional a través de **disposición normativa autonómica o foral, o a través de una política subvencional específica** de las instituciones autonómicas o forales, debiendo ajustarse a los **SIGUIENTES PRINCIPIOS**: a) Principio de **participación de las entidades locales: los planes** que, como consecuencia de esa normativa, se elaboren por las instituciones autonómicas o forales dirigidos a las entidades locales garantizarán la participación de estas en lo que respecta a la **fijación de prioridades**, procurando **conciliar los intereses de las entidades locales con los intereses de ámbito autonómico o foral**, en su caso. b) **Principio de estabilidad presupuestaria y sostenibilidad financiera**: se deberá facilitar la gestión económica con **carácter plurianual**, pudiendo la entidad local planificar las inversiones, así como decidir y elegir de conformidad con sus planes de actuación municipal y sus prioridades, de acuerdo con la normativa de estabilidad presupuestaria y sostenibilidad financiera que resulte de aplicación. c) **Principios de eficiencia y eficacia y calidad en la prestación de los servicios públicos**: los servicios que se presten como consecuencia de sistemas de financiación condicionados deberán garantizar la calidad de la prestación del servicio a las personas destinatarias y asegurar la sostenibilidad y la continuidad de su provisión.

Legislación: Ley 2/2016, de Instituciones Locales de Euskadi, arts. 109 a 111 y 113

KONFIGURAZIOA ETA ARAUBIDE JURIDIKOA		Euskal Autonomia Erkidegoko **udalerriek eta gainerako toki-erakundeek ekonomiaren eta finantzen arloan dituzten eskubide eta betebeharren multzoak OSATZEN DU EAEko toki-ogasuna**. Euskal Autonomia Erkidegoko toki-erakundeen ogasuna **lurralde historikoetako foru-organoek ogasunaren arloan onartzen dituzten xedapenen** bidez **ARAUTZEN DA**, eta, hala badagokio, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko **2/2016 Legean** jasotako aurreikuspenen bidez, bai eta **tokiko araugintza-ahalez** baliatuta onartutako arauen bidez ere.
JARDUTEKO PRINTZIPIOAK	**FINANTZA-AUTONOMIA**	**Ekonomia, finantzak eta aurrekontuak antolatzeko eta kudeatzeko ahalak baliatuko dituzte**, baina ezertan eragotzi gabe lurralde historikoetako foru-organoek gai horietan dituzten eskumenak.
	AURREKONTU-EGONKORTASUNA ETA FINANTZA-JASANGARRITASUNA	Defizit publikoaren, zor publikoaren eta gastu-arauen arloan **ezartzen diren betekizunak beteko dituzte**, gai horien inguruko **legeria orokorrarekin** eta, bereziki, **lurralde historikoetako foru-organoek hartarako onartzen dituzten arau bereziekin** bat etorrita.
	FINANTZA-NAHIKOTASUNA	Toki-ogasunek **behar beste baliabide izan behar dute** bai Euskadiko Toki Erakundeei buruzko **2/2016 Legeak**, bai Eusko Legebiltzarraren **beste lege batzuek** edo lurralde historikoetako **foru-arauek** ematen dizkieten eskumenak egikaritzeko.
	BESTE PRINTZIPIO BATZUK	**Legezkotasuna, gardentasuna, objektibotasuna, ekonomia, eraginkortasuna, efizientzia, kontrola, kutxa bakarra eta arrazionaltasuna beren baliabideak kudeatzean**.
FINANTZAKETA	**ARAU OROKORRA**	**ARAU OROKOR gisa**, EAEko udalerrien eta gainerako toki-erakundeen finantzaketa **BALDINTZARIK GABEKOA** izango da. **Diru-sarrera** bakoitzaren araudian bestela ezartzen ez bada, diru-sarreren emaitza **erakundearen betebeharren multzoa** finantzatzeko erabiliko da.
	SALBUESPENAK	Toki Autonomiaren Europako Gutunean ezarritako printzipioei jarraituz, **BALDINTZATUTAKO FINANTZAKETARAKO MEKANISMOAK** salbuespenez baino ezingo dira ezarri, eta **arauzko xedapen autonomiko edo arauzko foru-xedapen bidez, edota EAEko erakundeen edo foru-erakundeen dirulaguntzei buruzko politika espezifiko baten bitartez**. Honako **PRINTZIPIO HAUEK** bete beharko dira: a) **Toki-erakundeen parte-hartzearen** printzipioa: araudi horren ondorioz autonomia-erkidegoko edo lurralde historikoetako erakundeek toki-erakundeei zuzenduta egiten dituzten **planek**, **lehentasunak ezartzeko orduan**, toki-erakundeek ere esku hartu ahal izatea bermatuko dute, eta **toki-erakundeen interesak, kasuaren arabera, autonomia-erkidegoaren edo lurralde historikoen interesekin bateratzen saiatuko dira**. b) **Aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-jasangarritasunaren printzipioa**: kudeaketa ekonomikoa **urte anitzekoa** izatea erraztuko da; toki-erakundeak inbertsioak nola egin planifikatu ahal izango du, eta erabakitzeko edo hautatzeko orduan, udaleko jarduera-planak eta lehentasunak izango ditu kontuan, aplikagarria den aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-jasangarritasunari buruzko araudiarekin bat etorrita. c) **Ematen diren zerbitzu publikoen efizientzia, efikazia eta kalitatearen printzipioak**: finantzaketa baldintzatuko sistemen ondorioz eskainiko diren zerbitzuetan bermatuta egongo da hartzaileentzat kalitatezkoak direla, zerbitzua jasangarria izango dela eta eskaintzen jarraituko dela.

Legeria: 2/2016 Legea, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa, 109.-111. eta 113. artikuluak

CLASIFICACIÓN DE LOS RECURSOS FINANCIEROS DE LAS ENTIDADES LOCALES
⇒ INGRESOS DERIVADOS DEL **PATRIMONIO** Y DEMÁS DE **DERECHO PRIVADO**.
⇒ **TRIBUTOS PROPIOS**: IMPUESTOS, TASAS Y CONTRIBUCIONES ESPECIALES.
⇒ PARTICIPACIÓN EN **TRIBUTOS CONCERTADOS**, EN TRIBUTOS NO-CONCERTADOS, Y DEMÁS INGRESOS PÚBLICOS.
⇒ **SUBVENCIONES**.
⇒ LOS PERCIBIDOS EN CONCEPTO DE **PRECIOS PÚBLICOS**.
⇒ EL PRODUCTO DE LAS **OPERACIONES DE CRÉDITO**.
⇒ EL PRODUCTO DE LAS **MULTAS Y SANCIONES** DE COMPETENCIA LOCAL.
⇒ **EL RESTO DE LAS PRESTACIONES DE DERECHO PÚBLICO**.

Legislación: NF 41/1989, Reguladora de las Haciendas Locales (Álava), art. 2
NF 9/2005, de Haciendas Locales (Bizkaia), art. 2
NF 11/1989, Reguladora de las Haciendas Locales (Gipuzkoa), art. 2

TOKI-ERAKUNDEEN FINANTZA-BALIABIDEEN SAILKAPENA
⇒ **ONDARETIK** ETA **ZUZENBIDE PRIBATUKO** GAINERAKO BALIABIDEETATIK ETORRITAKO DIRU-SARRERAK.
⇒ **TRIBUTU PROPIOAK**: ZERGAK, TASAK ETA KONTRIBUZIO BEREZIAK.
⇒ **TRIBUTU ITUNDUETAN**, TRIBUTU ITUNDUGABEETAN ETA GAINERAKO DIRU-SARRERA PUBLIKOETAN DUEN PARTAIDETZA.
⇒ **DIRULAGUNTZAK**.
⇒ **PREZIO PUBLIKO** MODUAN JASOTAKOAK.
⇒ **KREDITU-ERAGIKETEN** EMAITZA.
⇒ TOKI-ERAKUNDEAREN ESKUMENEKO **ISUN ETA ZEHAPEN** EMAITZA.
⇒ **ZUZENBIDE PUBLIKOKO GAINERAKO PRESTAZIOAK**.

Legeria: 41/1989 Foru Araua, Toki Ogasunak arautzen dituena (Araba), 2. artikulua
9/2005 Foru Araua, Toki Ogasunei buruzkoa (Bizkaia), 2. artikulua
11/1989 Foru Araua, Toki Ogasunak arautzen dituena (Gipuzkoa), 2. artikulua

DEFINICIÓN
• Componen los ingresos de derecho privado, los **RENDIMIENTOS O PRODUCTOS DERIVADOS DEL PATRIMONIO** de las Entidades Locales, así como las **ADQUISICIONES A TÍTULO DE HERENCIA, DE LEGADOS O DONACIONES**. • Estas operaciones están sujetas a las normas y procedimientos del **derecho privado**. • Se considerará **patrimonio** de las Entidades Locales, el constituido por bienes de su propiedad, así como por los derechos reales o personales de que sea titular, susceptibles de valoración económica, siempre que **no se hallen afectos al uso o servicio público**.

CLASES DE INGRESOS DE DERECHO PRIVADO	
ADQUISICIÓN DE BIENES A TÍTULO LUCRATIVO	• Bienes obtenidos como consecuencia de **herencias, legados y donaciones**. • Si la donación, herencia o legado comporta una **condición, carga o gravamen**, solamente pueden ser **aceptadas cuando el valor del bien es superior** al de estas obligaciones, cosa que ha de ser determinada mediante tasación de un perito.
INGRESOS DERIVADOS DE SU PATRIMONIO	• Ingresos procedentes de la **enajenación de bienes patrimoniales**. • Ingresos financieros: **intereses de títulos-valores,** depósitos**, anticipos y préstamos** concedidos. • **Rentas de bienes inmuebles**: arrendamientos, traspaso de locales, censos.
	Los ingresos obtenidos por enajenación y gravamen **NO PODRÁN ser destinados a la financiación del gasto corriente, SALVO** los procedentes de la enajenación de parcelas sobrantes y efectos no utilizables.

Legislación: NF 41/1989, Reguladora de las Haciendas Locales (Álava), arts. 3, 4 y 5
NF 9/2005, de Haciendas Locales (Bizkaia), arts. 3, 4 y 5
NF 11/1989, Reguladora de las Haciendas Locales (Gipuzkoa), arts. 3, 4 y 5

DEFINIZIOA
• Zuzenbide pribatuko diru-sarrerak osatzen dituzte, batetik, toki-erakundeen **ONDARETIK ERATORRITAKO ETEKIN EDO PRODUKTUEK**, eta, bestetik, **JARAUNTSI, LEGATU EDO DOHAINTZEN ONDORIOZ ESKURATUTAKOEK**. • Eragiketa horiek guztiak **zuzenbide pribatuko** arau eta prozedurei loturik daude. • Toki-erakundeen **ondaretzat** hartuko da erakundeek jabetzan dituzten ondasunek osatutakoa, eta baita haien titulartasunpeko eskubide erreal edo pertsonalak ere, balorazio ekonomikoa izan badezakete eta **erabilera edo zerbitzu publikoari atxikita ez badaude**, betiere.

ZUZENBIDE PRIBATUKO DIRU-SARRERAK: MOTAK	
ONDASUNAK IRABAZI-ASMOAREKIN ESKURATZEA	• **Jarauntsi, legatu edo dohaintzen** ondorioz lortutako ondasunak. • Dohaintzak, jarauntsiak edo legatuak berekin **baldintza, zama edo kargaren** bat baldin badakar, **ondasunaren balioa betebehar horiek baino handiagoa** bada soilik **onartu** ahal izango da ondasuna; hori guztia peritu baten tasazioak zehaztuko du.
BERE ONDARETIK ETORRITAKO DIRU-SARRERAK	• **Ondare-ondasunak besterentzearen** ondoriozko diru-sarrerak. • Diru-sarrera finantzarioak: **balore-tituluen interesak**, gordailuenak, **aurrerakinenak eta emandako maileguenak**. • **Ondasun higiezinen errentak**: errentamenduak, lokalen eskualdaketak, zentsuak.
	Besterentzeen eta kargen ondorioz lortutako diru-sarrerak **EZIN IZANGO DIRA gastu arrunta finantzatzeko erabili**, soberako lursailen eta erabilgarriak ez diren salgaiak besterentzetik datozenak **SALBU**.

Legeria: 41/1989 Foru Araua, Toki Ogasunak arautzen dituena (Araba), 3., 4. eta 5. artikuluak
9/2005 Foru Araua, Toki Ogasunei buruzkoa (Bizkaia), 3., 4. eta 5. artikuluak
11/1989 Foru Araua, Toki Ogasunak arautzen dituena (Gipuzkoa), 3., 4. eta 5. artikuluak

PRINCIPIOS DE TRIBUTACIÓN LOCAL		Los tributos locales respetarán los siguientes **principios**: a) **No someter a gravamen bienes** situados, **actividades** desarrolladas, **rendimientos** originados, ni **gastos** realizados **fuera del territorio** de la respectiva entidad. b) **No gravar**, como tales, **negocios**, **actos** o **hechos** celebrados o realizados **fuera del territorio** de la entidad impositora, ni el ejercicio o la transmisión de bienes, derechos u obligaciones que no hayan nacido, ni hubieran de cumplirse, en dicho territorio. c) Respetar y garantizar la **libertad de circulación** de bienes, capitales y servicios y de **establecimiento** de las personas, sin que se produzcan efectos discriminatorios, ni menoscabo de las posibilidades de competencia empresarial, ni distorsión en la asignación de recursos.
FUENTES DEL ORDENAMIENTO TRIBUTARIO LOCAL		La **Norma Foral General Tributaria** será aplicable a las Entidades Locales, con las especialidades contenidas en la Norma Foral de Haciendas Locales. Asimismo, las Entidades Locales deberán adaptarse a las **Normas Forales** reguladoras de los **impuestos locales** y **disposiciones de desarrollo**. Las **disposiciones dictadas en desarrollo de la Norma Foral General Tributaria** serán de aplicación, cuando expresamente se establezca en las ordenanzas fiscales. A través de sus **ordenanzas fiscales** las Entidades Locales podrán adaptar la normativa anterior, al régimen de organización y funcionamiento interno propio de cada una de ellas, sin que tal adaptación pueda contravenir el contenido material de dicha normativa.
COLABORACIÓN		Las **Entidades Locales y la Diputación Foral** colaborarán mediante la suscripción del oportuno **Convenio**, en todos los órdenes de la aplicación de los tributos y de los restantes ingresos de derecho público.
REVISIÓN EN VÍA ADMINISTRATIVA		Los actos y actuaciones de **aplicación de los tributos** y los de **imposición de sanciones tributarias** podrán revisarse, en vía administrativa, mediante: a) Los **procedimientos especiales de revisión**: • Revisión de actos nulos de pleno derecho. • Declaración de lesividad de actos anulables. • Revocación. • Rectificación de errores. • Devolución de ingresos indebidos. b) El **recurso de reposición**.
ORDENANZAS FISCALES	**CONTENIDO MÍNIMO**	⇒ Determinación del **hecho imponible, obligado tributario, responsables**, **exenciones, reducciones y bonificaciones; base imponible y liquidable, tipo de gravamen o cuota tributaria, período impositivo y devengo**. ⇒ Regímenes de **declaración y de ingreso**. ⇒ **Fechas** de su aprobación y comienzo de su aplicación.
	APROBACIÓN O MODIFICACIÓN	• Acuerdo provisional. • Anuncio en Boletín Oficial del acuerdo provisional. • Exposición en el tablón de anuncios de la entidad durante treinta días, a efectos de reclamaciones. • Acuerdo definitivo resolviendo, en su caso, las reclamaciones. En el caso de que no se hubieran presentado reclamaciones, se entenderá definitivamente adoptado el acuerdo, hasta entonces provisional, sin necesidad de acuerdo plenario. • Publicación del texto íntegro de las ordenanzas o de sus modificaciones en el Boletín Oficial para que entren en vigor. • Los acuerdos de modificación de las ordenanzas fiscales **deberán contener la nueva redacción** de las normas afectadas y las fechas de su aprobación y comienzo de aplicación.
	FORMA DE IMPUGNACIÓN	Contra la aprobación definitiva de las ordenanzas, dado que ponen fin a la vía administrativa, sólo cabe **recurso contencioso-administrativo**, en la forma y plazos que establecen las normas reguladoras de dicha jurisdicción. En todo caso, se podrá impugnar la propia ordenanza **de forma indirecta**, a través de los actos de aplicación.
	ALCANCE DE LAS SENTENCIAS JUDICIALES	Si por resolución judicial firme resultaren anulados o modificados los acuerdos municipales o el texto de las ordenanzas fiscales, la corporación vendrá obligada a adecuar a los términos de la sentencia **todas las actuaciones que lleve a cabo con posterioridad** a la fecha en que aquélla le sea notificada. Salvo que expresamente lo prohibiera la sentencia, se mantendrán los **actos firmes o consentidos dictados al amparo de la ordenanza** que posteriormente resulte anulada o modificada.

Legislación: NF 41/1989, Reguladora de las Haciendas Locales (Álava), arts. 6 a 18
NF 9/2005, de Haciendas Locales (Bizkaia), arts. 6 a 18
NF 11/1989, Reguladora de las Haciendas Locales (Gipuzkoa), arts. 6 a 18


TOKIKO TRIBUTAZIOAREN PRINTZIPIOAK	Tokiko tributuek honako **printzipio** hauek errespetatuko dituzte: a) **Ez zergapetzea** erakundearen **lurraldetik kanpo** dagoen **ondasunik**, egindako **jarduerarik**, sortutako **errendimendurik** ez eta egindako **gasturik** ere. b) **Ez zergapetzea**, berez, zerga ezartzen duen erakundearen lurraldetik kanpo izan edo egindako **negoziorik**, **egintzarik** edo **ekintzarik**, ezta lurralde horretan sortu eta bete behar ez diren ondasun, eskubide edo betebeharren erabilera edo eskualdaketa ere. c) Errespetatzea eta bermatzea ondasun, kapital eta zerbitzuen **zirkulaziorako askatasuna** eta pertsonen **establezimendurako** askatasuna, ondorio baztertzailerik sortu gabe, enpresen lehiakortasun-aukerei kalte egin gabe, eta baliabideen esleipena distortsionatu gabe.
TOKIKO ZERGA-ANTOLAMENDUAREN ITURRIAK	**Zergei buruzko Foru Arau Orokorra** toki-erakundeei aplikagarria izango da, Toki Ogasunei buruzko Foru Arauak jasotzen dituen berezitasunak aintzat hartuta. Era berean, toki-erakundeek **tokiko zergak** arautzeko **foru-arauetara** eta haiek **garatzeko xedapenetara** egokitu beharko dute. **Zergei buruzko Foru Arau Orokorra garatzeko emandako xedapenak** ordenantza fiskaletan berariaz ezartzen bada soilik aplikatu ahalko dira. **Ordenantza fiskalen** bitartez, toki-erakundeek aurreko araudi hori egokitu ahal izango dute, beren barne-antolamendura eta funtzionamendura egokitzeko, baina moldaketak inoiz ezin izango du araudi horren eduki materiala urratu.
LANKIDETZA	Tributuak eta zuzenbide publikoko gainerako diru-sarrerak aplikatzeari dagokion orotan, **toki-erakundeek eta foru-aldundiak** lankidetzan jardungo dute, eta, horretarako, dagokion hitzarmena sinatuko dute.
ADMINISTRAZIO-BIDEAN BERRIKUSTEA	**Tributuak aplikatzeko** egintzak eta jarduketak eta **zerga-zehapenak ezartzeari** buruzkoak administrazio-bidean berrikusteko, bi aukera hauek daude: a) **Berrikusteko prozedura bereziak**: • Erabat deusezak diren egintzak berrikustea. • Egintza deuseztagarriak kaltegarritzat jotzea. • Baliogabetzea. • Hutsak zuzentzea. • Bidegabeko diru-sarrerak itzultzea. b) **Berraztertze-errekurtsoa**.

ORDENANTZA FISKALAK	**GUTXIENEKO EDUKIA**	⇒ Ondorengoak zehaztu behar dituzte: **zein den zerga-egitatea, zergapekoa, arduradunak**; **salbuespenik, murriztapenik edo hobaririk badagoen; zerga-oinarria eta likidazio-oinarria, karga-tasa edo zerga-kuota, zergaldia eta sortzapena**. ⇒ **Aitorpenen eta diru-sarreren** erregimenak. ⇒ Ordenantzak onartu diren **eguna** eta aplikatzen hasteko **eguna**.
	ONARTZEA EDO ALDATZEA	• Behin-behineko erabakia. • Behin-behineko erabakia aldizkari ofizialean argitaratzea. • Erakundearen iragarki-oholean jartzea hogeita hamar egunez, erreklamazioak egin ahal izateko. • Behin betiko erabakia, erreklamazioak ebatziko dituena, halakorik baldin badago. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, ordura arte behin-behinekoa zen erabakia behin betikotzat joko da; horretarako, ez da osoko bilkuraren erabakirik behar. • Ordenantzen testu osoa edo haien aldaketak aldizkari ofizialean argitaratzea, indarrean jar daitezen. • Ordenantza fiskalak aldatzeko erabakirik hartzen bada, erabakietan **berridatzita jasoko dira** aldatu diren arauak, eta adierazi egingo da noiz onartu diren eta noiz sartuko diren indarrean.
	AURKARATZEKO MODUA	Ordenantzen behin betiko onespenak amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, horrenbestez, haren aurka **administrazioarekiko auzi-errekurtsoa** baino ezin da aurkeztu, jurisdikzio hori arautzen duten arauek ezartzen duten moduan eta epeetan. Nolanahi ere, ordenantza bera **zeharka** ere aurkaratu ahal izango da, aplikazio-egintzen bitartez.
	EPAIEN HELMENA	Epai irmo baten bidez udal-erabakiak edo ordenantza fiskalen testua deuseztatu edo aldatzen badira, udalbatzak, ezinbestean, epai horretara egokitu beharko ditu hura jakinarazten zaion egunaren **ostean egiten dituen jarduketa guztiak**. Epaiak berariaz debekatzen ez badu, bere horretan utziko dira ondoren deuseztatu edo aldatu den **ordenantzaren babesean emandako egintza irmoak edo baimenduak**.

Legeria: 41/1989 Foru Araua, Toki Ogasunak arautzen dituena (Araba), 6.-18. artikuluak
9/2005 Foru Araua, Toki Ogasunei buruzkoa (Bizkaia), 6.-18. artikuluak
11/1989 Foru Araua, Toki Ogasunak arautzen dituena (Gipuzkoa), 6.-18. artikuluak

La **exacción de tributos propios** requiere su regulación en la correspondiente **ORDENANZA FISCAL**.

ESQUEMA DE TRAMITACIÓN DE LAS ORDENANZAS FISCALES:



Legislación: NF 41/1989, Reguladora de las Haciendas Locales (Álava), art. 16
NF 9/2005, de Haciendas Locales (Bizkaia), art. 16
NF 11/1989, Reguladora de las Haciendas Locales (Gipuzkoa), art. 16

Tributu propioak ordainarazteko, ezinbestekoa da **ORDENANTZA FISKALEAN** arautzea.

ORDENANTZA FISKALAK IZAPIDETZEKO ESKEMA:

ALDEZ AURREKO LANAK:
- Kostuari eta errendimenduei buruzko ekonomia-azterketak
- Testuak idaztea

- **INFORMAZIO-BATZORDEAREN IRIZPENA**
- **ARAUDIAK ESKATZEN DITUEN GAINERAKO IZAPIDEAK**

OSOKO BILKURAK BEHIN-BEHINEKO ONESPENA EMATEA
(gehiengo soila)

JENDAURREAN JARTZEA, 30 EGUNEZ (EGUN BALIODUNAK)
- Iragarkiak: ediktu-oholean eta **lurraldeko aldizkari ofizialean**.
- **10.000 biztanletik gorako** udalerrietan, lurralde historikoan zabalkunde handiena duten **egunkarietako** batean ere argitaratuko da.

ERREKLAMAZIOAK

EZ

BAI

OSOKO BILKURAREN BERARIAZKO EBAZPENA

ISILBIDEZ EZESTEA

ERABAKIA BEHIN BETIKO EGITEA

OSOKO BILKURAK BEHIN BETIKO ONESPENA EMATEA

ORDENANTZAREN EDO HAREN ALDAKETAREN TESTU OSOA ARGITARATZEA
lurraldeko aldizkari ofizialean eta ediktu-oholean.

(**20.000 biztanletik gorako** udalerrietan, ordenantza fiskalen testu osoa **argitaratuko da** dagokion ekitaldiko lehen lauhilekoan).

INDARREAN JARTZEA
(osorik argitaratzen denean)

Legeria: 41/1989 Foru Araua, Toki Ogasunak arautzen dituena (Araba), 16. artikulua
9/2005 Foru Araua, Toki Ogasunei buruzkoa (Bizkaia), 16. artikulua
11/1989 Foru Araua, Toki Ogasunak arautzen dituena (Gipuzkoa), 16. artikulua

IMPUESTOS MUNICIPALES	IMPUESTOS **DE IMPOSICIÓN VOLUNTARIA**	⇒ Impuesto sobre **construcciones, instalaciones y obras**. ⇒ Impuesto sobre el **incremento de valor de los terrenos de naturaleza urbana.**
	IMPUESTOS **DE IMPOSICIÓN OBLIGATORIA**	⇒ Impuesto sobre **bienes inmuebles**. ⇒ Impuesto sobre **vehículos de tracción mecánica**. ⇒ Impuesto sobre **actividades económicas**.

CARACTERÍSTICAS / DENOMINACIÓN/IMPUESTO			Bienes inmuebles	Actividades económicas	Vehículos tracción mecánica	Construcciones, instalaciones y obras	Incremento valor terrenos urbanos
NATURALEZA ECONÓMICA	**CARÁCTER REAL**		**X**	**X**			
	DIRECTOS	**SOBRE EL CAPITAL**	**X**		**X**		**X**
		SOBRE LA ACTIVIDAD		**X**			
	INDIRECTOS					**X**	
OBLIGATORIEDAD	**OBLIGATORIO**		**X**	**X**	**X**		
	VOLUNTARIO					**X**	**X**
GESTIÓN	**DIRECTA**				**X**	**X**	**X**
	COMPARTIDA		**X**	**X**			

Legislación: NF 41/1989, Reguladora de las Haciendas Locales (Álava), art. 19
NF 9/2005, de Haciendas Locales (Bizkaia), art. 20
NF 11/1989, Reguladora de las Haciendas Locales (Gipuzkoa), art. 19

UDAL-ZERGAK	**BORONDATEZ** EZARTZEKOAK DIREN ZERGAK	⇒ **Eraikuntzen, instalazioen eta obren** gaineko zerga. ⇒ **Hiri-lurren balio-gehikuntzaren** gaineko zerga.
	NAHITAEZ EZARTZEKOAK DIREN ZERGAK	⇒ **Ondasun higiezinen** gaineko zerga. ⇒ **Trakzio mekanikoko ibilgailuen** gaineko zerga. ⇒ **Ekonomia-jardueren** gaineko zerga.

EZAUGARRIAK / IZENA/ZERGA			Ondasun higiezinak	Ekonomia-jarduerak	Trakzio mekanikoko ibilgailuak	Eraikuntzak, instalazioak eta obrak	Hiri-lurren balio-gehikuntza
EKONOMIA-IZAERA	IZAERA ERREALA		X	X			
	ZUZENEKOAK	KAPITALAREN GAINEKOAK	X		X		X
		JARDUERAREN GAINEKOAK		X			
	ZEHARKAKOAK					X	
BETEBEHAR-INDARRA	NAHITAEZKOA		X	X	X		
	BORONDATEZKOA					X	X
KUDEAKETA	ZUZENEKOA				X	X	X
	PARTEKATUA		X	X			

Legeria: 41/1989 Foru Araua, Toki Ogasunak arautzen dituena (Araba), 19. artikulua
9/2005 Foru Araua, Toki Ogasunei buruzkoa (Bizkaia), 20. artikulua
11/1989 Foru Araua, Toki Ogasunak arautzen dituena (Gipuzkoa), 19. artikulua

	IMPUESTOS DE IMPOSICIÓN OBLIGATORIA		
	IMPUESTO SOBRE BIENES INMUEBLES	**IMPUESTO SOBRE ACTIVIDADES ECONÓMICAS**	**IMPUESTO SOBRE VEHÍCULOS DE TRACCIÓN MECÁNICA**
HECHO IMPONIBLE	La **titularidad** de los siguientes derechos sobre los bienes inmuebles rústicos y urbanos de: • Una **concesión administrativa** sobre los propios inmuebles o sobre los servicios públicos a que se hallen afectos. • Un **derecho real de superficie**. • Un **derecho real de usufructo**. • El **derecho de propiedad**.	El **ejercicio** en el término municipal del territorio histórico de **actividades empresariales, profesionales y artísticas**.	La **titularidad** de **vehículos de tracción mecánica** aptos para circular por la vía pública, cualquiera que sea su clase y categoría cuando el domicilio del permiso de circulación corresponde al municipio.
EXENCIONES	Se establecen exenciones **objetivas y subjetivas.**	Se establecen exenciones objetivas y subjetivas. En cualquier caso, quedan **exentos** los sujetos pasivos que tengan un **volumen de operaciones inferior a 2.000.000 de euros**.	Se establecen exenciones **objetivas y subjetivas.**
SUJETO PASIVO	**Titulares del derecho** que, en cada caso, sea constitutivo del hecho imponible.	Las personas físicas y jurídicas que **realicen actividades** que originen el hecho imponible.	Las personas físicas y jurídicas **titulares del permiso de circulación** del vehículo.
BASE IMPONIBLE	**Valor catastral** del bien, con el límite del valor de mercado del mismo.		
CUOTA	Resultado de la aplicación del **tipo de gravamen** vigente en cada ejercicio a la **base imponible**. Los ayuntamientos podrán establecer tipos de gravamen **diferenciados** por usos urbanos. **Pueden** existir **bonificaciones** sobre la misma.	Aplicación de las **tarifas fijadas** por la Administración Foral y los **coeficientes, índices y bonificaciones** que fije el Ayuntamiento.	Aplicación de las **tarifas** determinadas en función de la **potencia y clase del vehículo** incrementados por los coeficientes que fije cada Ayuntamiento.
PERÍODO IMPOSITIVO Y DEVENGO	El período impositivo coincide con el **año natural**. El impuesto se devenga el **primer día del año**.	El período impositivo coincide con el **año natural**, excepto en casos de altas que abarca desde ese momento hasta el fin del ejercicio. El devengo se produce al **inicio del ejercicio** o cuando se produce el **alta**.	El período impositivo coincide con el **año natural**, **salvo** en el caso de **primera adquisición o baja** de los vehículos. En estos casos, el período impositivo comenzará el día en que se produzca dicha adquisición, o terminará el día en que se produzca la baja en la Jefatura de Tráfico, respectivamente. Se devenga el **primer día del período impositivo**. En caso de alta y baja de vehículo, la cuota se prorratea por trimestres.

	IMPUESTOS DE IMPOSICIÓN VOLUNTARIA	
	IMPUESTO SOBRE CONSTRUCCIONES, INSTALACIONES Y OBRAS	**IMPUESTO SOBRE EL INCREMENTO DEL VALOR DE LOS TERRENOS DE NATURALEZA URBANA**
HECHO IMPONIBLE	Realización dentro del término municipal del territorio histórico de cualquier **construcción, instalación y obra,** por la que sea exigida licencia de obras o urbanística, siempre que la expedición corresponda al Ayuntamiento de imposición.	El **incremento de valor de los terrenos de naturaleza urbana** que se ponga de manifiesto como consecuencia de la **transmisión de la propiedad** por cualquier título o de la **constitución** o transmisión de cualquier **derecho real** sobre los referidos terrenos.
EXENCIONES		Existen exenciones **subjetivas y objetivas**.
SUJETO PASIVO	A título de **contribuyentes**, las personas físicas y jurídicas que sean dueñas de la construcción, instalación u obra, sean o no propietarios del inmueble sobre el que se realice aquélla. Tendrán la condición de **sujetos pasivos sustitutos** quienes soliciten las correspondientes licencias o realicen las construcciones, instalaciones u obras.	En la transmisión de terrenos y constitución o transmisión de derechos **a título lucrativo**, el **adquiriente** o persona en favor de quien se constituye o transmite el derecho. En las transmisiones de terrenos y constitución o transmisión de derechos **a título oneroso**, el **transmitente** o persona que constituya o transmita el derecho.
BASE IMPONIBLE	**Coste real y efectivo** de la construcción, instalación u obra.	El **incremento del valor de los terrenos**, calculado por la aplicación de determinados porcentajes anuales que determine el Ayuntamiento, en función de la antigüedad de la última transmisión, sobre el valor de los terrenos en dicho momento a efectos del Impuesto sobre Bienes Inmuebles. El **periodo máximo es de 20 años.**
CUOTA TRIBUTARIA	Resultado de aplicar a la base imponible el **tipo de gravamen** que fije el Ayuntamiento dentro de los límites marcados por la normativa vigente. **Pueden existir** bonificaciones sobre la misma.	La cuota de este impuesto será el resultado de aplicar a la base imponible el **tipo de gravamen**. Las ordenanzas fiscales podrán regular una bonificación de hasta el 100%, en transmisiones a título lucrativo por causa de muerte a favor de descendientes y adoptados, los cónyuges o parejas de hecho.
DEVENGO	El impuesto se devenga al **inicio de la construcción**, instalación u obra.	El impuesto se devenga en el momento en que se **transmite** la propiedad o se constituye o transmite el derecho.

Legislación: Norma Foral correspondiente a cada impuesto y Territorio Histórico

	NAHITAEZ EZARTZEKOAK DIREN ZERGAK		
	ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGA	**EKONOMIA-JARDUEREN GAINEKO ZERGA**	**TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEN GAINEKO ZERGA**
ZERGA-EGITATEA	Landa- eta hiri-ondasun higiezinen gaineko honako eskubide hauen **titulartasuna**: • Higiezinen beren edo haiei atxikita dauden zerbitzu publikoen gaineko **administrazio-emakida**. • **Azaleraren gaineko eskubide erreala**. • **Gozamen-eskubide erreala**. • **Jabetza-eskubidea**.	**Enpresa-, lanbide- eta arte-jarduerak egitea** lurralde historiko horretako udal-mugartean.	Bide publikoetan ibiltzeko gaitutako **trakzio mekanikoko ibilgailuen titulartasuna**, haien mota eta kategoria edozein dela ere, baldin eta zirkulazio-baimenaren helbidea udalerri horri badagokio.
SALBUES-PENAK	Salbuespen **objektiboak eta subjektiboak** ezartzen dira.	Salbuespen objektiboak eta subjektiboak ezartzen dira. Edonola ere, **salbuetsita** daude **2.000.000 eurotik beherako eragiketa-bolumena** duten subjektu pasiboak.	Salbuespen **objektiboak eta subjektiboak** ezartzen dira.
SUBJEKTU PASIBOA	Kasu bakoitzean, zerga-egitatea osatzen duen **eskubidearen titularrak**.	Zerga-egitatea sortzen duten **jarduerak egiten dituzten** pertsona fisiko edo juridikoak.	Ibilgailuaren **zirkulazio-baimenaren titularrak** diren pertsona fisiko eta juridikoak.
ZERGA-OINARRIA	Ondasunaren **katastro-balioa**; ondasunaren merkatu-balioa du muga.		
KUOTA	Ekitaldi bakoitzean indarrean dagoen **karga-tasa zerga-oinarriari** aplikatuta lortzen den emaitza. Udalek karga-tasa **desberdinak** ezarri ahal izango dituzte, hiri-erabileren arabera. **Hobariak** izan **ditzake**.	Foru-administrazioak **finkatutako tarifen** eta udalak finkatutako **koefiziente, indize eta hobarien** aplikazioa.	Ibilgailuaren **potentziaren eta motaren** arabera zehaztutako **tarifen** aplikazioa, udal bakoitzak finkatzen dituen koefizienteak gehituta.
ZERGALDIA ETA SORTZAPENA	Zergaldia **urte naturalarekin** bat dator. Zerga **urteko lehen egunean** sortzen da.	Zergaldia **urte naturalarekin** bat dator, alten kasuan salbu; horrelakoetan, alta-unetik ekitaldia amaitu artekoa da. Sortzapena **ekitaldiaren hasieran** edo **alta** ematen denean izaten da.	Zergaldia **urte naturalarekin** bat dator, ibilgailuen **lehen eskuratzea edo baja** bada **salbu**. Horrelako kasuetan, eskurapen hori izaten den egunean hasiko da zergaldia, edo Trafikoko Buruzagitzan baja ematen denean amaituko, hurrenez hurren. Sortzapena **zergaldiaren lehen egunean** hasiko da. Ibilgailuaren altaren eta bajaren kasuan, kuota hiruhilekoka hainbanatuko da.

	BORONDATEZ EZARTZEKOAK DIREN ZERGAK	
	ERAIKUNTZEN, INSTALAZIOEN ETA OBREN GAINEKO ZERGA	**HIRI-LURREN BALIO-GEHIKUNTZAREN GAINEKO ZERGA**
ZERGA-EGITATEA	Lurralde historikoko udal-mugartearen barruan edozein **eraikuntza, instalazio eta obra** egitea, baldin eta hura egiteko obra- edo hirigintza-lizentzia eskatu behar bada, betiere lizentzia ematea zerga ezartzen duen udalari badagokio.	**Jabetza** edozein tituluren bidez **eskualdatzearen** ondoriozko **hiri-lurren balio-gehikuntza**, edo aipaturiko lurzoruen gaineko edozein **eskubide erreal eratzearen** edo eskualdatzearen ondoriozkoa.
SALBUESPENAK		Salbuespen **subjektiboak eta objektiboak** daude.
SUBJEKTU PASIBOA	**Zergadun** gisa, eraikuntzaren, instalazioaren edo obraren jabe diren pertsona fisiko eta juridikoak, hura egiten den higiezinaren jabeak izan edo ez. **Ordezko subjektu pasibotzat** hartuko dira kasuan kasuko lizentziak eskatu edo eraikuntzak, instalazioak edo obrak egiten dituztenak.	Lurzoruen kostu gabeko eskualdaketan eta eskubideen **kostu gabeko** eraketan edo eskualdaketan, **eskuratzailea** edo, bestela, eskubidea eratzen edo eskualdatzen zaion pertsona. Lurzoruen kostu bidezko eskualdatzeetan eta eskubideen **kostu bidezko** eraketan edo eskualdaketan, **eskualdatzailea** edo eskubidea eratu edo eskualdatzen duen pertsona.
ZERGA-OINARRIA	Eraikuntzaren, instalazioaren edo obraren **kostu erreala eta benetakoa**.	**Lurzoruen balioaren gehikuntza**, honela kalkulatuta: une horretan lurzoru horiek ondasun higiezinen gaineko zergaren arabera duten balioari udalak (azken eskualdaketaren antzinatasunaren arabera) zehaztuko dituen urteko portzentaje jakin batzuk aplikatuz. **Gehienezko aldia 20 urtekoa da.**
ZERGA-KUOTA	Zerga-oinarriari udalak, indarrean dagoen araudiak ezarritako mugen barnean, finkatzen duen **karga-tasa** aplikatzearen emaitza da. Hobariak **izan ditzake.**	Zerga horren kuota zerga-oinarriari **karga-tasa** aplikatzearen emaitza izango da. Ordenantza fiskalek % 100erainoko hobaria arautu dezakete kostu gabeko eskualdatzeetan, heriotzak eragindakoetan, ondorengo edo adoptatuen, ezkontideen edo izatezko bikotekideen alde.
SORTZAPENA	**Eraikuntzaren**, instalazioaren edo obraren **hasieran** sortuko da zerga.	Jabetza **eskualdatzen** den unean edo eskubidea eratu edo eskualdatzen den unean sortuko da zerga.

Legeria: Zerga bakoitzari eta lurralde historiko bakoitzari dagokion Foru Araua

HECHO IMPONIBLE	Los Ayuntamientos podrán establecer tasas **por la UTILIZACIÓN PRIVATIVA O POR EL APROVECHAMIENTO ESPECIAL DEL DOMINIO PÚBLICO** local, así como por la **PRESTACIÓN DE SERVICIOS PÚBLICOS o por la REALIZACIÓN DE ACTIVIDADES ADMINISTRATIVAS** de competencia local. **En todo caso <u>TENDRÁN LA CONSIDERACIÓN DE TASAS</u>:** La utilización privativa o el aprovechamiento especial del dominio público local, la prestación de un servicio público o la realización de una actividad administrativa, en los que se cumplan estas condiciones: a) que no sean de solicitud o recepción voluntaria. b) que no se presten o realicen por el sector privado.
SUJETO PASIVO	**A TÍTULO DE CONTRIBUYENTE**, las personas físicas o jurídicas que **disfruten o utilicen** el dominio público local en beneficio particular o que resulten beneficiados o afectados por los servicios o actividades locales. Son **SUSTITUTOS DEL CONTRIBUYENTE**: • En el caso de servicios o actividades que afecten a **bienes inmuebles**: los propietarios, quienes podrán repercutir las cuotas ante los beneficiarios. • En las tasas de **licencias urbanísticas**: los constructores y contratistas de obras. • En las tasas por prestación de servicios de **extinción de incendios** y, en general, de **protección de personas y cosas**: las empresas aseguradoras del riesgo. • En las tasas establecidas por **entradas de vehículos a través de las aceras** y por su construcción, mantenimiento, modificación o supresión: los propietarios de las fincas y locales a que den acceso dichas entradas.
CUOTA	Será **FIJADA POR LA ORDENANZA FISCAL** correspondiente y **PODRÁ CONSISTIR EN**: • Una **cantidad fija**. • Resultado de **aplicar una tarifa.** • **Combinación de ambos**. Los acuerdos deberán basarse en **informes técnico-económicos** en los que se ponga de manifiesto el **valor de mercado** o la **previsible cobertura del coste** de aquellos.
DEVENGO	**INICIO** de la **prestación** del servicio, del **uso** privativo, del **aprovechamiento** especial o con la presentación de la solicitud que inicie la actuación o el expediente.
NO PODRÁN INTERPONERSE TASAS POR	• Abastecimiento de agua en fuentes públicas. • Alumbrado de vías públicas. • Vigilancia pública en general. • Protección civil. • Limpieza de la vía pública. • Enseñanza en los niveles de educación obligatoria.

Legislación: NF 41/1989, Reguladora de las Haciendas Locales (Álava), arts. 20 a 27
NF 9/2005, de Haciendas Locales (Bizkaia), arts. 21 a 28
NF 11/1989, Reguladora de las Haciendas Locales (Gipuzkoa), arts. 20 a 27

ZERGA-EGITATEA	Udalek tasak ezarri ahal izango dituzte tokiko **JABARI PUBLIKOAREN ERABILERA PRIBATIBOA EGITEAGATIK EDO APROBETXAMENDU BEREZIAGATIK**, bai eta toki-eskumeneko **ZERBITZU PUBLIKOAK EMATEAGATIK edo ADMINISTRAZIO-JARDUERAK EGITEAGATIK** ere. **Nolanahi ere, honako hauek <u>TASATZAT HARTUKO DIRA</u>:** Tokiko jabari publikoaren erabilera pribatua edo aprobetxamendu berezia, zerbitzu publiko bat ematea edo administrazioaren jarduerak egitea, honako baldintzok betetzen badira, betiere: a) ez daitezela borondatez eskatzekoak edo jasotzekoak izan. b) ez ditzala sektore pribatuak eskaini edo egin.
SUBJEKTU PASIBOA	**ZERGADUN GISA**, tokiko jabari publikoa nork bere onura lortzeko **erabiltzen edo baliatzen** duten pertsona fisiko edo juridikoak, edo tokiko zerbitzu edo jardueren onura edo eragina jasotzen dutenak. **ZERGADUNAREN ORDEZKOAK** dira: • **Ondasun higiezinei** eragiten dieten zerbitzu edo jarduerak direnean: jabeak; kuotak onuradunen aurrean jasanarazteko aukera izango dute jabeok. • **Hirigintza-lizentzien** tasak direnean: eraikitzaileak eta obra-kontratistak. • **Suteak itzaltzeko** zerbitzuak emateagatiko tasak eta, oro har, **pertsonak eta gauzak babesteko zerbitzuengatikoak** badira: arriskua aseguratzen duten enpresak. • **Ibilgailuak espaloien bidez sartzeagatik** eta sarrerak eraiki, mantendu, aldatu edo kentzeagatik ezarritako tasak badira: sarrera horiek sarbidea ematen dieten finka eta lokalen jabeak.
KUOTA	Dagokion **ORDENANTZA FISKALAK FINKATUKO** du, eta **HONAKO HAUETAKO BAT** izan daiteke: • **Kopuru finko** bat. • **Tarifa bat aplikatzearen** emaitza. • **Bi horien konbinazioa**. Erabakiak **txosten tekniko-ekonomikoetan** oinarrituta egongo dira; haietan adierazi beharko da **merkatu-balioa** edota haien **kostua estaltzea aurreikusten** dela.
SORTZAPENA	Zerbitzua **ematen**, **erabilera** pribatua egiten edo **aprobetxamendu** berezia **HASTEN** denean, edo, bestela, jarduera edo espedientea hasiko duen eskabidea aurkezten denean.
EZIN IZANGO DA TASARIK EZARRI HONAKO HAUENGATIK:	• Iturri publikoetako ur-hornidura. • Bide publikoen argiztapena. • Zaintza publikoa, oro har. • Babes zibila. • Bide publikoen garbiketa. • Derrigorrezko hezkuntzako mailetako irakaskuntza.

Legeria: 41/1989 Foru Araua, Toki Ogasunak arautzen dituena (Araba), 20.-27. artikuluak
9/2005 Foru Araua, Toki Ogasunei buruzkoa (Bizkaia), 21.-28. artikuluak
11/1989 Foru Araua, Toki Ogasunak arautzen dituena (Gipuzkoa), 20.-27. artikuluak

CONTRIBUCIONES ESPECIALES

Será **NECESARIO** el acuerdo previo de imposición y la aprobación de la **ORDENANZA FISCAL**.

HECHO IMPONIBLE	• La **OBTENCIÓN POR EL SUJETO PASIVO DE UN BENEFICIO** por la realización de **OBRAS** o por el establecimiento o ampliación de **SERVICIOS PÚBLICOS MUNICIPALES**. • EL **AUMENTO DE VALOR DE LOS BIENES** propiedad del sujeto pasivo, como consecuencia de la realización de las obras o servicios mencionados.
OBLIGADO TRIBUTARIO	Personas físicas o jurídicas que resultan **especialmente beneficiadas** por la realización de las obras municipales o por el establecimiento o ampliación de servicios. **Se consideran especialmente beneficiados** en las contribuciones especiales: • Por realización de obras o por el establecimiento de servicios que afecten a bienes inmuebles: **los propietarios** de los mismos. • Por realización de obras de establecimiento, ampliación de servicios que afecten a explotaciones empresariales: **las personas o entidades titulares** de éstas. • Por el establecimiento y ampliación de los servicios de extinción de incendios: además de **los propietarios** de los bienes afectados, **las compañías de seguros** que desarrollan su actividad en el término municipal correspondiente. • Por construcción de galerías subterráneas: **las empresas suministradoras** que deban utilizarlas.
BASE IMPONIBLE	Está constituida**, como máximo, por el 90% del coste que la entidad local soporte** para la realización de las obras o por el establecimiento o ampliación del servicio. El referido coste será el resultado de **restar a la cifra del coste total el importe de las subvenciones y auxilios que el municipio obtenga**.
CUOTA TRIBUTARIA	La base imponible de las contribuciones especiales se **REPARTIRÁ ENTRE LOS SUJETOS PASIVOS** conforme a las siguientes **REGLAS**: • Se utilizarán con **carácter general, conjunta o separadamente, como módulo de reparto, los metros lineales de fachada de los inmuebles, su superficie, el volumen edificable**, el valor catastral asignado al inmueble. • Si se trata del establecimiento o mejora del servicio de **extinción de incendios**, se distribuirá entre las **compañías que cubran el riesgo** por bienes sitos en el municipio en proporción al importe de las primas recaudadas en el año inmediatamente anterior. • Si las contribuciones especiales se exigen por la **construcción de galerías subterráneas**, su importe se distribuirá entre las **empresas que hayan de utilizarlas** en razón al espacio reservado a cada una. Una vez determinadas las cuotas a satisfacer, se podrá conceder el **fraccionamiento o aplazamiento** de aquellas a petición del sujeto pasivo por un plazo máximo de 5 años.
DEVENGO	Las contribuciones especiales se **DEVENGARÁN** una vez se hayan **realizado las obras o el servicio** haya comenzado a prestarse; no obstante, **se podrá exigir POR ANTICIPADO** el pago de las cuotas en función del coste previsto para el año siguiente, procediéndose a efectuar **LIQUIDACIONES DEFINITIVAS,** una vez conocido el coste real soportado por el municipio de la imposición.
IMPOSICIÓN Y ORDENACIÓN	La exacción de contribuciones especiales precisará la **previa adopción del ACUERDO DE IMPOSICIÓN** en cada caso. El **acuerdo relativo a la realización de una obra o al establecimiento o ampliación de un servicio que deba costearse con contribuciones especiales**, no podrá ejecutarse hasta que se haya aprobado la ordenación concreta de éstas. **En este acuerdo deberá constar** el **costo previsto** de las obras o servicios; la cantidad a repartir entre los beneficiarios y los **criterios de reparto**. Una vez adoptado el acuerdo y determinadas las cuotas a satisfacer, éstas serán notificadas individualmente a cada obligado tributario.

Legislación: NF 41/1989, Reguladora de las Haciendas Locales (Álava), arts. 28 a 38
NF 9/2005, de Haciendas Locales (Bizkaia), arts. 29 a 39
NF 11/1989, Reguladora de las Haciendas Locales (Gipuzkoa), arts. 28 a 38

KONTRIBUZIO BEREZIAK

EZINBESTEKOA izango da haiek ezartzeko aldez aurreko erabakia eta dagokion **ORDENANTZA FISKALA** onartzea.

ZERGA-EGITATEA	• **SUBJEKTU PASIBOAK ONURA JASOTZEA OBRAK** egiteagatik edo **UDAL-ZERBITZU PUBLIKOAK** ezarri edo handitzeagatik. • Subjektu pasiboaren **ONDASUNEN BALIOAREN GEHIKUNTZA**, aipaturiko obra edo zerbitzuak egin izanaren ondorioz.
ZERGAPEKOA	Udal-obrak egiteagatik edo zerbitzuak ezarri edo handitzeagatik **onurak bereziki eskuratzen dituzten** pertsona fisiko edo juridikoak. Kontribuzio berezietan, honako hauek **hartuko dira bereziki onuraduntzat**: • Ondasun higiezinei eragiten dieten obrak egiteagatik edo zerbitzuak ezartzeagatik: ondasun horien **jabeak**. • Enpresa-ustiategiei eragiten dieten zerbitzuak ezartzeko edo handitzeko obrak egiteagatik: ustiategien **titularrak diren pertsonak edo entitateak**. • Suteak itzaltzeko zerbitzuak ezarri eta handitzeagatik: eragindako ondasunen **jabeez** gain, dagokien udalerrian diharduten **aseguru-konpainiak**. • Lurpeko galeriak eraikitzeagatik: galeria horiek erabili behar dituzten **enpresa hornitzaileak**.
ZERGA-OINARRIA	**Gehienez ere udalak obrak egiteko edo zerbitzua ezartzeko edo handitzeko ordaindu behar duenaren % 90** izango da. Kostu hori kalkulatzeko, **kostu osoari udalerriak lortzen dituen dirulaguntzen eta laguntzen zenbatekoa kenduko zaio**.
ZERGA-KUOTA	Kontribuzio berezien zerga-oinarria **SUBJEKTU PASIBOEN ARTEAN BANATUKO DA**, honako **ARAU** hauei jarraikiz: • **Oro har**, hauek hartuko dira, **banaketa-modulu gisa denak batera edo banan-banan: higiezinen fatxada-metro linealak, azalera, bolumen eraikigarria** eta higiezinaren katastro-balioa. • **Suteak itzaltzeko** zerbitzua ezartzean edo hobetzean badatza, udalerrian ondasun sailkatuen **arriskua estaltzen duten konpainien** artean banatuko da, aurreko urtean jasotako primen zenbatekoarekiko proportzioan. • Kontribuzio bereziak **lur azpiko galeriak eraikitzeagatik** eskatu baldin badira, haien zenbatekoa galeriak **erabiliko dituzten enpresen** artean banatuko da, haietako bakoitzari gordetako espazioaren arabera. Ordaindu beharreko kuotak zehaztu ostean, haiek **zatikatzea edo geroratzea** baimendu ahal izango da, subjektu pasiboak hala eskatuz gero, 5 urtean gehienez ere.
SORTZAPENA	Kontribuzio bereziak **obrak egin edo zerbitzua eskaintzen** hasi den unean **hasiko dira eskubidea SORTZEN**; hala ere, **ALDEZ AURRETIK eskatu ahal izango da** kuotak ordaintzea, hurrengo urterako aurreikusitako kostuaren arabera, eta **BEHIN BETIKO LIKIDAZIOAK** egingo dira obrak edo zerbitzuak ordaindu dituen udalak izan duen kostu erreala zein izan den jakin ondoren.
ZERGAK EZARRI ETA ARAUPETZEA	Kontribuzio bereziak ordaintzeko eskatu ahal izateko, **aldez aurretik ZERGA EZARTZEKO ERABAKIA hartu beharko da**, kasu bakoitzean. **Kontribuzio bereziekin ordaindu beharreko obra bat egiteari edo zerbitzu bat ezarri edo zabaltzeari buruzko erabakirik ezingo da onartu**, ez bada kontribuzio horien araupetze zehatza onartu. **Erabaki horretan**, obren edo zerbitzuen **aurreikusitako kostua azalduko da**, eta onuradunen artean banatu beharreko kopurua eta **banatzeko irizpideak**. Behin erabakia hartzen denean eta ordaindu beharreko kuotak zehazten direnean, kuota horiek banan-banan jakinaraziko zaizkie zergapekoei.

Legeria: 41/1989 Foru Araua, Toki Ogasunak arautzen dituena (Araba), 28.-38. artikuluak
9/2005 Foru Araua, Toki Ogasunei buruzkoa (Bizkaia), 29.-39. artikuluak
11/1989 Foru Araua, Toki Ogasunak arautzen dituena (Gipuzkoa), 28.-38. artikuluak

RENDIMIENTO DE LOS TRIBUTOS CONCERTADOS	**PARTICIPACIÓN**	Las haciendas locales participarán en el rendimiento de los tributos que los Territorios Históricos obtengan **en virtud del Concierto Económico**, **una vez descontado el cupo a satisfacer al Estado y las aportaciones a la Comunidad Autónoma**.
	GARANTÍA NIVEL DE RECURSOS	Deberá garantizarse, para el conjunto de los municipios, un **nivel de recursos de conformidad con las competencias y servicios de su titularidad previstos en el ordenamiento jurídico**, que, en ningún caso, será inferior al que les correspondería por aplicación de la legislación de régimen común.
	PARTICIPACIÓN EN EL CONSEJO VASCO DE FINANZAS PÚBLICAS	Al objeto de garantizar que los municipios obtengan un nivel adecuado y equilibrado en los recursos procedentes de los rendimientos de los tributos concertados, estos **participarán, a través de sus representantes en el Consejo Vasco de Finanzas Públicas**, en los trabajos de reforma de las leyes que definen la metodología de distribución de los recursos y de determinación de las aportaciones de los Territorios Históricos a la financiación de los presupuestos de la Comunidad Autónoma de Euskadi. En todo caso, participarán en la determinación de los **criterios para el establecimiento del modelo de distribución horizontal y de los coeficientes horizontales de contribución de cada Territorio Histórico**, así como en el establecimiento de **aquellos mecanismos que fueran necesarios para corregir posibles desequilibrios** en la distribución horizontal de los mencionados recursos.
DETERMINACIÓN DE LA PARTICIPACIÓN EN CADA TERRITORIO HISTÓRICO	**COMPETENCIA**	La determinación de la **participación que en cada Territorio Histórico corresponde a cada una de sus entidades locales es competencia de los órganos forales de dicho Territorio Histór**ico, y, en consecuencia, la ejercitará libremente, de acuerdo con lo previsto en las normas forales. La participación de los municipios en la determinación de los criterios de distribución de los tributos concertados tendrá lugar mediante la **propuesta de designación de representantes locales en los consejos territoriales de finanzas existentes**, elevada a los órganos forales correspondientes por parte de la asociación vasca de municipios de mayor implantación, con el ánimo de garantizar plenamente el respeto al principio de autonomía local.
	CRITERIOS DE REPARTO	El **Consejo Vasco de Finanzas Públicas**, con el fin de ejercitar sus atribuciones en materia de estabilidad presupuestaria y garantizar la estabilidad financiera de los municipios, podrá establecer, **con carácter de recomendación de política fiscal, los criterios para el citado reparto**, que atenderán a los **principios de suficiencia financiera y riesgo compartido**, así como a **estimular el esfuerzo fiscal** y a procurar una **política de gasto corriente global equitativa y solidaria**. En este sentido, el **Consejo Vasco de Finanzas Públicas recomienda** a los órganos forales que destinen, a través de la financiación general y en su caso de los planes específicos de inversión, a los entes locales de ellos dependientes, en concepto de participación en la recaudación por tributos concertados**, como mínimo el 39,23%** de los recursos disponibles.
APLICACIÓN DE RECURSOS		La financiación que corresponde a los municipios y demás entidades locales constituirá un **recurso ordinario** de sus respectivas haciendas locales para el sostenimiento y prestación de los servicios de su competencia.
LIQUIDACIÓN		Los importes que resulten para cada ejercicio y que hayan sido puestos a disposición de los municipios y demás entidades locales en cada Territorio Histórico serán objeto **de liquidación definitiva a la finalización del ejercicio**, de acuerdo con los **datos reales relativos a los ingresos procedentes de la recaudación por tributos concertados y demás elementos** considerados para su determinación.

Legislación: Ley 2/2016, de Instituciones Locales de Euskadi, arts. 117 a 120 y DA Sexta
Ley 4/2021, de 7 de octubre, de metodología de distribución de recursos y de determinación de las aportaciones de las diputaciones forales a la financiación de los presupuestos de la Comunidad Autónoma del País Vasco aplicable al periodo 2022-2026

TRIBUTU ITUNDUEN ETEKINAK	**PARTAIDETZA**	**Ekonomia Itunaren arabera** lurralde historikoek eskuratzen dituzten tributuen etekinetan partaidetza izango dute toki-ogasunek, **Estatuari ordaindu beharreko kupoa eta autonomia-erkidegoari egin beharreko ekarpenak kendu eta gero**.
	BALIABIDE-MAILA BERMATZEA	Udalerriei, oro har, **ordenamendu juridikoak aurreikusten dizkien eskumenen eta zerbitzuen arabera egokia den baliabide-maila** bermatu behar zaie. Baliabide-maila hori inola ere ez da izango araubide erkideko legeria aplikatuz gero legokiekeena baino apalagoa.
	HERRI-DIRUBIDEEN EUSKAL KONTSEILUAN PARTE HARTZEA	Tributu itunduetatik eratorritako etekinetatik udalerriei baliabide-maila egokia eta orekatua iritsiko zaiela bermatze aldera, udalerriek **parte hartuko dute, Herri Dirubideen Euskal Kontseiluan dituzten ordezkarien bitartez,** baliabideak banatzeko eta lurralde historikoek Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontuak finantzatzeko egin beharreko ekarpenen zehaztapenerako metodologia definitzen duten legeak erreformatzeko lanetan. Nolanahi ere, parte hartuko dute hala **banaketa horizontaleko eredua nola lurralde historiko bakoitzaren ekarpenaren koefiziente horizontalak ezartzeko irizpideen** zehaztapenean, bai eta baliabide horien banaketa horizontalean **gerta daitezkeen desorekak zuzentzeko beharrezkoak izan litezkeen mekanismoen** ezarpenean ere.
PARTAIDETZA ZEHAZTEA LURRALDE HISTORIKO BAKOITZEAN	**ESKUMENA**	**Lurralde historiko bakoitzean, toki-erakunde bakoitzak zenbateko partaidetza izango duen zehaztea lurralde historikoko foru-organoen eskumena da**, eta, ondorioz, organo horiek askatasun osoz baliatuko dute eskumen hori, foru-arauetan aurreikusitakoarekin bat. Tributu itunduak banatzeko irizpideak ezartzerakoan, udalerriek ere parte hartuko dute. Parte-hartze hori bideratzeko, **dauden finantzen lurralde-kontseiluetarako toki-ordezkarien izendapen-proposamena** egingo die ezarpen handiena duen udalerrien euskal elkarteak dagokien foru-organoei, era horretara toki-autonomiaren printzipioa erabat bermatze aldera.
	BANATZEKO IRIZPIDEAK	**Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak**, aurrekontu-egonkortasunaren arloan dituen eskumenak baliatuz eta udalerrien finantza-egonkortasuna bermatzeko**, politika fiskaleko gomendio gisa baino ez, banaketa egiteko irizpide batzuk zehaztu ahal izango ditu**. Irizpide horiek aintzat hartuko dituzte **finantza-nahikotasunaren eta arrisku partekatuaren printzipioak**, eta **ahalegin fiskala sustatzen** eta **gastu arruntari buruz berdintasunezko eta elkartasunezko politika globala lortzen saiatzea** izango dute helburu. Horren harira, **Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak foru-organoei gomendatzen die** finantzaketa orokorraren bidez, eta, hala badagokio, inbertsio-plan zehatzen bidez, eskuragarri dituzten baliabideen **% 39,23 gutxienez** bidera dezatela beren mendeko toki-erakundeetara, tributu itunduen ziozko bilketako partaidetza gisa.
BALIABIDEEN APLIKAZIOA		Udalerriei eta gainerako toki-erakundeei dagokien finantzaketa toki-erakunde horien ogasunen **baliabide arrunta** izango da, haien eskumenekoak diren zerbitzuei eusteko eta zerbitzuok eman ahal izateko.
LIKIDAZIOA		Ekitaldi bakoitzerako lurralde historiko bakoitzean udalerrien eta gainerako toki-erakundeen esku jarritako zenbatekoen **behin betiko likidazioa egingo da ekitaldia amaitzean**, **tributu itunduen bidezko diru-sarrerei eta zehaztapenerako kontuan hartu beharreko gainerako elementuei buruzko datu errealen** arabera.

Legeria: 2/2016 Legea, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa, 117.-120. artikuluak eta seigarren xedapen gehigarria
4/2021 Legea, urriaren 7koa, baliabideak banatzeko eta foru-aldundiek Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontuak finantzatzeko egin beharreko ekarpenak zehazteko 2022-2026 aldian aplikatuko den metodologiari buruzkoa

CONCEPTO	La participación de los municipios en los tributos concertados se canaliza a través de los **fondos forales de financiación municipal**, que son el instrumento de las diputaciones forales encaminados a dotar a los municipios de recursos financieros para hacer frente a las obligaciones derivadas del ejercicio de sus competencias. Se trata de **uno de los ingresos más significativos** de los municipios del País Vasco. La dotación anual de esta participación se determinará en función del **criterio de riesgo compartido.**

PARTICIPACIÓN DE LOS MUNICIPIOS EN LOS TRIBUTOS CONCERTADOS	
TERRITORIO HISTÓRICO ÁLAVA	**Participación = 42,09 por ciento sobre los recursos disponibles del Territorio Histórico (RDa), definidos por:** • RDa = Ra – Da – Pa – AGa – Ta ± FGa **Donde***:* → ***RDa =*** *recursos disponibles del Territorio Histórico de Álava.* → ***Ra =*** *ingresos sujetos a reparto.* → ***Da*** *= deducciones procedentes de la metodología de señalamiento del cupo.* → ***Pa*** *= deducción especial.* → ***AGa*** *= aportación general a las instituciones comunes.* → ***Ta*** *= valoración de los nuevos traspasos desde las instituciones comunes a las diputaciones forales.* → ***FGa*** *= importe neto del Fondo General de Ajuste.* (El porcentaje global del 42,09% incluye el Fondo Foral de Financiación de las Entidades Locales de Araba —*39,23*%—, el Plan Foral de Obras y Servicios —*2,52*%— y el Plan de Obras Menores y Veredas —0,34%—).
TERRITORIO HISTÓRICO BIZKAIA	Se instrumenta en dos fondos: Udalkutxa y fondo de servicios sociales. La participación de los municipios en los tributos concertados (Udalkutxa y fondo de servicios sociales) se determinará por aplicación de la siguiente fórmula: • **PM TCUD = PPM UD × (RD)** **Donde***:* → ***PM TCUD =*** *Participación de los municipios en los tributos concertados del Territorio Histórico de Bizkaia.* → ***PPM =*** ⇒ Porcentaje de participación de los municipios en los tributos concertados del Territorio Histórico, en Udalkutxa, que se establece en el 39,29%. ⇒ Porcentaje de participación de los municipios en los tributos concertados del Territorio Histórico, en el fondo de servicios sociales, que se establece en el 0,37%. → ***RD =*** ⇒ Los recursos disponibles del Territorio Histórico de Bizkaia, que se determinarán de acuerdo con la Ley 4/2021, de 7 de octubre, de metodología de distribución de recursos y de determinación de las aportaciones de las diputaciones forales a la financiación de los presupuestos de la Comunidad Autónoma del País Vasco aplicable al periodo 2022-2026.
TERRITORIO HISTÓRICO GIPUZKOA	**XDotación = 39,96% s/ RDg, siendo:** • **RDg los recursos disponibles del territorio histórico, definidos por:** • **RDg = Rg – Dg – Pg – AGg – Tg ± FGg** **Donde***:* → ***Rg****: ingresos sujetos a reparto.* → ***Dg****: deducciones procedentes de la metodología de señalamiento del cupo.* → ***Pg****: deducción especial para financiar las políticas a que se refiere el artículo 22.3 de la Ley 27/1983.* → ***AGg****: aportación general a las instituciones comunes.* → ***Tg****: valoración de los nuevos traspasos desde las instituciones comunes a las diputaciones forales.* → ***FGg****: importe neto del Fondo General de Ajuste.*

KONTZEPTUA	Udalerriek tributu itunduetan duten partaidetza **udal-finantzaketarako foru-funtsen** bidez bideratzen da. Funts horiek foru-aldundiek duten tresnak dira, udalei finantza-baliabideak emateko, beren eskumenak erabiltzetik etorritako betebeharrak ordaindu ditzaten. Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrien **diru-sarrera nagusietakoa** da. Partaidetza horren urteko diru-hornidura, **partekatutako arriskuaren irizpidearen** arabera zehaztuko da.

UDALERRIEN PARTAIDETZA TRIBUTU ITUNDUETAN	
ARABAKO LURRALDE HISTORIKOA	**Partaidetza = lurralde historikoko baliabide erabilgarrien (RDa) gaineko ehuneko 42,09, honela zehaztuta:** • RDa = Ra – Da – Pa – AGa – Ta ± FGa **Azalpena***:* → ***RDa =*** *Arabako Lurralde Historikoaren baliabide erabilgarriak.* → ***Ra =*** *banatu beharreko diru-sarrerak.* → ***Da =*** *kupoa zehazteko metodologiatik datozen kenkariak.* → ***Pa =*** *kenkari berezia****.*** → ***AGa =*** *erakunde erkideentzako ekarpen orokorra.* → ***Ta =*** *erakunde erkideek foru-aldundiei egindako eskualdaketa berrien balioespena.* → ***FGa =*** *Egokitzapenerako Funts Orokorraren zenbateko garbia****.*** (% 42,09ko portzentaje orokorraren barruan hauek sartzen dira: Arabako Toki Erakundeetako Finantzen Foru Funtsa —% *39,23*—, Obra eta Zerbitzuen Foru Plana —% *2,52*— eta Obra Txikien eta Bidezidorren Plana —% 0,34—).
BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOA	Bi funts ditu: Udalkutxa eta gizarte-zerbitzuen funtsa. Udalerriek tributu itunduetan (Udalkutxa eta gizarte-zerbitzuen funtsa) izango duten partaidetza zehazteko, honako formula hau erabiliko da: • **PM TCUD = PPM UD × (RD)** **Azalpena***:* → ***PM TCUD =*** *Udalerrien partaidetza Bizkaiko Lurralde Historikoko tributu itunduetan .* → ***PPM =*** ⇒ Udalerriek lurralde historikoko tributu itunduetan duten partaidetzaren ehunekoa, Udalkutxan: % 39,29. ⇒ Udalerriek lurralde historikoko tributu itunduetan duten partaidetzaren ehunekoa, gizarte-zerbitzuen funtsean: % 0,37. → ***RD =*** ⇒ Bizkaiko Lurralde Historikoko baliabide erabilgarriak, baliabideak banatzeko eta foru-aldundiek Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontuak finantzatzeko egin beharreko ekarpenak zehazteko 2022-2026 aldian aplikatuko den metodologiari buruzko urriaren 7ko 4/2021 Legearen arabera zehaztuko direnak.
GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOA	**Zuzkidura = % 39,96 s/ RDg.** • **RDg: lurralde historikoaren baliabide erabilgarriak dira, honela zehaztuta:** • **RDg = Rg – Dg – Pg – AGg – Tg ± FGg** **Azalpena***:* → ***Rg:*** *banatu beharreko diru-sarrerak****.*** → ***Dg:*** *kupoa zehazteko metodologiatik datozen kenkariak.* → ***Pg:*** *kenkari berezia, 27/1983 Legearen 22.3 artikuluak aipatzen dituen politikak finantzatzeko.* → ***AGg:*** *erakunde erkideentzako ekarpen orokorra.* → ***Tg:*** *erakunde erkideek foru-aldundiei egindako eskualdaketa berrien balioespena.* → ***FGg:*** *Egokitzapenerako Funts Orokorraren zenbateko garbia****.***

PARTICIPACIÓN EN LOS TRIBUTOS CONCERTADOS: CRITERIOS DE DISTRIBUCIÓN	
TERRITORIO HISTÓRICO ÁLAVA (Financiación no condicionada)	1. **Participación por prestación de servicios traspasados** a las Entidades Locales. 2. **Participación fija** de 67.613,86 euros a cada Cuadrilla, en atención a los gastos de infraestructura administrativa y de funcionamiento. 3. **Participación básica** de Concejos, Ayuntamientos, y Cuadrillas: un **27%** del Fondo Foral de Financiación Municipal, deducidas las participaciones 1 y 2, en función de la prestación en cada núcleo de población de servicios públicos locales (abastecimiento y distribución de agua, alumbrado público, cementerio, centros sociales, recogida de residuos, escuelas y consultorios médicos). 4. **Participación complementaria** de los Ayuntamientos: un **73%** del Fondo Foral de Financiación Municipal, deducidas las participaciones 1 y 2, de la forma siguiente: 4.1. **Asignación fija**, de 21.035,42 euros a cada Ayuntamiento. 4.2. La **cantidad restante**: • Un 59% en proporción a la población de derecho. • Un 5% en función del esfuerzo fiscal per cápita de cada municipio ponderado por su población de derecho. • Un 12,25% entre los Ayuntamientos con más de 1.000 habitantes, en función de su población. • Un 9,5% entre los Ayuntamientos con más de 5.000 habitantes, en función de su población. • Un 9,25% entre los Ayuntamientos con más de 15.000 habitantes, en función de su población. • Un 5% entre los Ayuntamientos con más de 50.000 habitantes, en función de su población.
TERRITORIO HISTÓRICO BIZKAIA	1. **El fondo Udalkuxa se reparte conforme a los siguientes CRITERIOS**: • 0,75% del Fondo Foral de Financiación Municipal se destinará a **imprevistos** de difícil previsión presupuestaria. • 0,15% del Fondo Foral de Financiación Municipal se destinará a la financiación de **EUDEL**. • A Bilbao, se le asignaron en 2002 171.684.877 euros, aplicando para los años sucesivos la variación porcentual del Fondo Foral de Financiación Municipal. • Resto de municipios: → Componente fijo 81.137 euros. → El 80% en función de la población de derecho. → El 13% en función de la población ponderada por el esfuerzo fiscal. → El 7% restante, en función del número de unidades escolares (60%), playas (4%), paro (18%) y dispersión (18%). 2. **El fondo de servicios sociales se reparte conforme al siguiente CRITERIO**: personas en situación de dependencia grado I, II, y III, así como los niveles 23 y 24.
TERRITORIO HISTÓRICO GIPUZKOA	1. El **0,15%**, se destina a la financiación de **EUDEL**. 2. El **99,85%** restante se distribuirá: • El **1,2%** como **asignación fija** entre municipios de población inferior a 1.100 habitantes. • El **90%** en función de la **población** de derecho. • El **2,15%** se asignará a **Donostia-San Sebastián** en función de la capitalidad. • El **3%** en proporción inversa a la **renta** ponderada por el número de habitantes. • El **3,5%**, en proporción directa al **esfuerzo fiscal** ponderado por el número de habitantes.

PARTICIPACIÓN EN TRIBUTOS CONCERTADOS: GESTIÓN	
TERRITORIO HISTÓRICO ÁLAVA	El **abono** de la asignación aprobada para cada **Ayuntamiento y Cuadrilla** se librará **trimestralmente**, a partes iguales, el último día hábil de **enero**, **abril, julio y octubre** de cada año. El abono de la asignación aprobada para cada **Concejo**, se librará **semestralmente**, a partes iguales, el último día hábil de **enero** y **julio** de cada año. Finalizado el ejercicio se practicará la **liquidación** de la dotación presupuestaria del Fondo Foral de Financiación **de las Entidades Locales. Las diferencias a favor o en contra de las Entidades Locales se regularizarán con las asignaciones que les correspondan** percibir en el ejercicio siguiente. Las Entidades Locales podrán solicitar **anticipos de Tesorería** de la Diputación Foral, a cuenta de las cantidades que les corresponda percibir del Fondo Foral de Financiación, para hacer frente a los desfases de tesorería.
TERRITORIO HISTÓRICO BIZKAIA	Se articula el mecanismo de las **entregas a cuenta** a efectuar con carácter **mensual**. Practicada la liquidación de los fondos forales de financiación municipal se practicará la **liquidación** de la participación de cada municipio en los tributos concertados.
TERRITORIO HISTÓRICO GIPUZKOA	Entre los días 20 y 25 de los meses de **febrero, mayo, agosto y noviembre**, la Diputación Foral hará efectivo el pago de la **entrega a cuenta** correspondiente a la cuarta parte de las cantidades inicialmente previstas. En **febrero** del ejercicio siguiente se practicará la **liquidación definitiva**, en base a la liquidación definitiva de las aportaciones a la Comunidad Autónoma del País Vasco. Se contempla la posibilidad de efectuar **anticipos** del Fondo Foral de Financiación Municipal a los municipios.

PARTICIPACIÓN EN LOS TRIBUTOS NO CONCERTADOS	
CONCEPTO	Los municipios participan en los tributos no concertados.
Gipuzkoa	La Diputación Foral distribuirá las cantidades a tenor de las normas de reparto de carácter general.
Álava	Se ordenarán por los mismos importes y con la misma periodicidad con que se libren por la Administración General del Estado.
Bizkaia	Se distribuirá de acuerdo con los criterios de los tributos concertados – Udalkutxa.

Legislación:
NF 41/1989, Reguladora de las Haciendas Locales (Álava), arts. 39 a 40
NF 19/1997, Reguladora del Fondo Foral de Financiación de las Entidades Locales de Álava
NF 9/2005, de Haciendas Locales (Bizkaia), arts. 40 a 42
NF de Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Bizkaia
NF 11/1989, Reguladora de las Haciendas Locales (Gipuzkoa), arts. 39 a 40
NF 15/1994, Reguladora del Fondo Foral de Financiación Municipal (Gipuzkoa)

PARTAIDETZA TRIBUTU ITUNDUETAN: BANAKETA-IRIZPIDEAK	
ARABAKO LURRALDE HISTORIKOA (baldintzarik gabeko finantzaketa)	1. Toki-erakundeei **eskualdatutako zerbitzuak eskaintzeagatiko partaidetza**. 2. 67.613,86 euroko **partaidetza finkoa** kuadrilla bakoitzarentzat, administrazio-azpiegiturak eta funtzionamenduak sortzen dituzten gastuak estaltzeko. 3. Kontzeju, Udal eta Kuadrillen **oinarrizko partaidetza**: Udal Finantzaketarako Foru Funtsaren **% 27**, 1 eta 2 partaidetzak kenduta, biztanlegune bakoitzean eskaintzen diren tokiko zerbitzu publikoen arabera (ur-hornidura eta -banaketa, argiteria publikoa, hilerria, gizarte-etxeak, hondakinen bilketa, eskolak eta osasun-kontsultategiak). 4. Udalen **partaidetza osagarria**: Udal Finantzaketarako Foru Funtsaren **% 73**, 1 eta 2 partaidetzak kenduta, honelaxe banatuta: 4.1. **Diru-esleipen finkoa**, 21.035,42 eurokoa, udal bakoitzarentzat. 4.2. **Gainerako kopurua**: • % 59 zuzenbideko biztanleriaren proportzioan. • % 5 udalerri bakoitzaren *per capita* ahalegin fiskalaren arabera, zuzenbideko biztanleria kontuan hartuz haztatuta. • % 12,25 banatuko da 1.000 biztanletik gorako udalen artean, biztanle kopuruaren arabera. • % 9,5 banatuko da 5.000 biztanletik gorako udalen artean, biztanle kopuruaren arabera. • % 9,25 banatuko da 15.000 biztanletik gorako udalen artean, biztanle kopuruaren arabera. • % 5 banatuko da 50.000 biztanletik gorako udalen artean, biztanle kopuruaren arabera.
BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOA	1. **Udalkutxa funtsa honako IRIZPIDE hauen arabera banatzen da**: • Udal Finantzaketarako Foru Funtsaren % 0,75 aurrekontuan aurreikusten zailak diren **ustekabeetarako** erabiliko da. • Udal Finantzaketarako Foru Funtsaren % 0,15 **EUDEL** finantzatzeko erabiliko da. • 2002. urtean, 171.684.877 euroko diru-esleipena eman zitzaion Bilbori, eta, hurrengo urteetan, Udal Finantzaketarako Foru Funtsaren portzentaje-aldaketa aplikatu zaio. • Gainerako udalerriak: → Osagai finkoa: 81.137 euro. → % 80, zuzenbideko biztanleriaren arabera. → % 13, biztanleriaren arabera, ahalegin fiskalaz haztatuta. → Gainerako % 7a, eskola-unitateen kopuruaren (% 60), hondartzen (% 4), langabeziaren (% 18) eta sakabanaketaren (% 18) arabera. 2. **Gizarte-zerbitzuen funtsa honako IRIZPIDE honen arabera banatzen da**: I., II. eta III. graduko mendekotasun-egoeran dauden pertsonak, baita 23. eta 24. mailak ere.
GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOA	1. **% 0,15 EUDEL** finantzatzeko erabiltzen da. 2. Gainerako **% 99,85a** honelaxe banatuko da: • **% 1,2 diru-esleipen finko** gisa, 1.100 biztanle baino gutxiagoko udalerrien artean. • **% 90**, zuzenbideko **biztanleriaren** arabera. • **% 2,15 Donostiari** emango zaio, hiriburutzagatik. • **% 3**, **errentaren** (biztanle kopuruaz haztatuta) alderantzizko proportzioan. • **% 3,5 ahalegin fiskalaren** (biztanle kopuruaz haztatuta) zuzeneko proportzioan.

PARTAIDETZA TRIBUTU ITUNDUGABEETAN: KUDEAKETA	
ARABAKO LURRALDE HISTORIKOA	**Udal eta kuadrilla** bakoitzarentzat onetsitako diru-esleipenaren **ordainketa hiru hilean behin** egingo da, zenbateko berarekin, urte bakoitzeko **urtarrilaren**, **apirilaren, uztailaren eta urriaren** azken egun baliodunean. **Kontzeju** bakoitzarentzat onetsitako diru-esleipena **sei hilean behin** ordainduko da, zenbateko berarekin, urte bakoitzeko **urtarrilaren** eta **uztailaren** azken egun baliodunean. Ekitaldia amaituta, **Toki Erakundeak** Finantzatzeko Foru Funtsaren aurrekontuko diru-zuzkiduraren **likidazioa** egingo da. **Toki-erakundeen aldeko edo kontrako diferentziak hurrengo ekitaldian jasotzea dagokien diru-esleipenekin erregularizatuko dira**. Toki-erakundeek foru-aldundiko **diruzaintzaren aurrerakinak** eskatu ahal izango dituzte, Finantzaketarako Foru Funtsetik jasotzea dagokien zenbatekoaren kontura, diruzaintzako desorekei aurre egiteko.
BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOA	**Hilean behin** egin beharreko **konturako entregen** mekanismoa antolatzen da. Udalak finantzatzeko foru-funtsak likidatu ostean, udalerri bakoitzaren tributu itunduetako partaidetzaren **likidazioa** egingo da.
GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOA	**Otsail, maiatz, abuztu eta azaroaren** 20. eta 25. egunen artean, foru-aldundiak **konturako entregak** ordainduko ditu. Haietako bakoitzean, hasieran aurreikusitako guztizko kopuruaren laurdena emango du. Hurrengo ekitaldiko **otsailean**, **behin betiko likidazioa** egingo da, Euskal Autonomia Erkidegoari egindako ekarpenen behin betiko likidazioa oinarri hartuta. Udalerriei Udalak Finantzatzeko Foru Funtsaren **aurrerakinak** egiteko aukera ere badago.

PARTAIDETZA TRIBUTU ITUNDUGABEETAN	
KONTZEPTUA	Udalerriek partaidetza dute tributu itundugabeetan.
Gipuzkoa	Foru-aldundiak banaketa-arau orokorren arabera banatuko ditu zenbatekoak.
Araba	Estatuko Administrazio Orokorrak jaulkitzen dituen zenbateko eta maiztasun berberen arabera antolatuko dira.
Bizkaia	Tributu itunduen irizpideei jarraikiz banatuko da – Udalkutxa.

Legeria:
41/1989 Foru Araua, Toki Ogasunak arautzen dituena (Araba), 39.-40. artikuluak
19/1997 Foru Araua, Arabako Toki Erakundeak Finantzatzeko Foru Funtsa arautzen duena.
9/2005 Foru Araua, Toki Ogasunei buruzkoa (Bizkaia), 40.-42. artikuluak
Bizkaiko Lurralde Historikoko Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Araua
11/1989 Foru Araua, Toki Ogasunak arautzen dituena (Gipuzkoa), 39.-40. artikuluak
15/1994 Foru Araua, Udal finantzaketarako Foru Fondoa arautzen duena (Gipuzkoa)

SUBVENCIONES

CONCEPTO	Son las **entregas dinerarias** que se reciben de entidades públicas o privadas, **sin contraprestación directa** pero que supone la **obligación de cumplir un determinado objetivo**, ejecutar un proyecto, realizar una actividad, adoptar un comportamiento singular, ya realizados o por desarrollar.
CLASIFICACIÓN	• **SUBVENCIONES CORRIENTES**: se destinan a financiar **gastos ordinarios** como los de personal, arrendamientos, gastos de funcionamiento, suministros, etc. • **SUBVENCIONES DE CAPITAL**: las destinadas a la financiación de **operaciones de capital, inversiones, amortización de préstamos**, etc.
DESTINO	Las subvenciones de toda índole que obtengan las Entidades Locales del Territorio Histórico, **NO PODRÁN SER APLICADAS** a finalidades distintas de aquéllas para las que fueron otorgadas, salvo, en su caso, los sobrantes no reintegrables cuya utilización no estuviese prevista en la concesión.
FISCALIZACIÓN	Las Entidades Públicas **otorgantes de las subvenciones podrán verificar** el destino dado a las mismas. Si tras las actuaciones de verificación resultase que las subvenciones no fueron destinadas a los fines para los que se hubieran concedido, la Entidad Pública otorgante **podrá exigir el reintegro** de su importe **o compensarlo con otras subvenciones o transferencia**s a que tuviere derecho la entidad afectada, con independencia de las responsabilidades a que haya lugar.

Legislación: NF 41/1989, Reguladora de las Haciendas Locales (Álava), art. 42
NF 9/2005, de Haciendas Locales (Bizkaia), art. 43
NF 11/1989, Reguladora de las Haciendas Locales (Gipuzkoa), art. 42

DIRULAGUNTZAK

KONTZEPTUA	Erakunde publiko edo pribatuetatik jasotzen diren **diru-emateak** dira; **zuzeneko kontraprestaziorik gabe**, baina **helburu jakin bat betetzeko**, proiektu bat gauzatzeko, jarduera bat egiteko edo jokabide berezi bat hartzeko **betebeharra** dakarte, dagoeneko eginak edo garatzeko daudenak.
SAILKAPENA	• **DIRULAGUNTZA ARRUNTAK**: **gastu arruntak** finantzatzeko izaten dira, hala nola langile-gastuak, errentamenduak, funtzionamendu-gastuak, hornidurak, eta abar. • **KAPITALEKO DIRULAGUNTZAK**: **kapital-eragiketak, inbertsioak, mailegu-amortizazioa** eta abar finantzatzekoak.
HELBURUA	Lurralde historikoko toki-erakundeek lortzen dituzten edozein motatako dirulaguntzak eman diren helbururako baino **EZIN IZANGO DIRA ERABILI**, baina bada salbuespen bat: dirulaguntza ematean erabilera aurreikusi ez eta itzuli ezin diren soberakinak; halakorik badago, beste helburu baterako erabili ahal izango dira.
FISKALIZAZIOA	**Dirulaguntzak ematen dituzten** erakunde publikoek haiek zertarako erabili diren **egiaztatu ahal izango dute**. Egiaztatzeko jarduerak eginda, dirulaguntzak ez direla eman ziren xederako erabili atzematen bada, dirulaguntza eman duen erakunde publikoak **eskatu ahalko du** emandako diru kopurua itzul diezaioten edo erakunde horrek eskubidez izan ditzakeen **beste dirulaguntza edo transferentzia batzuen bidez konpentsa** diezaioten, eta sor litezkeen erantzukizunak eskatu ahal izango zaizkio.

Legeria: 41/1989 Foru Araua, Toki Ogasunak arautzen dituena (Araba), 42. artikulua
9/2005 Foru Araua, Toki Ogasunei buruzkoa (Bizkaia), 43. artikulua
11/1989 Foru Araua, Toki Ogasunak arautzen dituena (Gipuzkoa), 42. artikulua

PRECIOS PÚBLICOS

CONCEPTO	Son los ingresos obtenidos por la **prestación de servicios o la realización de actividades administrativas** que: • **no** sean de **solicitud** o recepción **obligatoria**. • sean **susceptibles** de ser prestados por el sector **privado**.
OBLIGADOS AL PAGO	Los **beneficiarios** de los servicios o actividades por los que deban satisfacerse los precios públicos.
CUANTÍA	El importe de los precios públicos deberá cubrir, **como mínimo**, el **coste del servicio** prestado o de la actividad realizada, **excepto** cuando existan razones de tipo social, benéfico, cultural o de interés público que aconsejen fijarlos por debajo de ese mínimo.
DEVENGO	La obligación de pago nace en el momento en que se **inicia la prestación del servicio o actividad**. Puede ser exigido **depósito previo** total o parcial.
FIJACIÓN	El establecimiento o modificación de los precios públicos corresponderá al **Pleno** de la Corporación, sin perjuicio de sus facultades de delegación en la **Junta de Gobierno Local,** conforme a la normativa vigente.

Legislación: NF 41/1989, Reguladora de las Haciendas Locales (Álava), arts. 43 a 50
NF 9/2005, de Haciendas Locales (Bizkaia), arts. 44 a 50
NF 11/1989, Reguladora de las Haciendas Locales (Gipuzkoa), arts. 43 a 50

PREZIO PUBLIKOAK

KONTZEPTUA	**Zerbitzuak eskaintzeagatik edo administrazio-jarduerak gauzatzeagatik** lortutako diru-sarrerak dira. Betiere, zerbitzu eta jarduerok: • **ez** badira **nahitaez eskatu** edo jaso **beharrekoak.** • sektore **pribatuak** eskain **baditzake**.
ORDAINTZERA BEHARTUAK	Prezio publikoak ordaintzea eragiten duten zerbitzu edo jardueren **onuradunak**.
ZENBATEKOA	Prezio publikoen zenbatekoak, **gutxienez**, emandako **zerbitzuaren** edo egindako jardueraren **kostua** estali behar du, **salbu eta** kuotak minimo horren azpitik finkatzea gomendatzen duten gizarte-, ongintza-, kultura- edo interes publikoko arrazoiak badaude.
SORTZAPENA	Ordaintzeko betebeharra **zerbitzua eskaintzen hasten edo jarduera egiten hasten** den unean sortzen da. **Aurretik gordailua** eska daiteke (osoa edo zati batena).
FINKATZEA	Prezio publikoak ezartzea edo aldatzea udalbatzako **osoko bilkurari** dagokio; hala ere, **tokiko gobernu-batzarraren** esku utz dezake eskumen hori, indarrean dagoen araudiarekin bat.

Legeria: 41/1989 Foru Araua, Toki Ogasunak arautzen dituena (Araba), 43.-50. artikuluak
9/2005 Foru Araua, Toki Ogasunei buruzkoa (Bizkaia), 44.-50. artikuluak
11/1989 Foru Araua, Toki Ogasunak arautzen dituena (Gipuzkoa), 43.-50. artikuluak

CUANDO EL **HECHO IMPONIBLE** CONSISTE EN
LA **«PRESTACIÓN DE UN SERVICIO O LA REALIZACIÓN DE UNA ACTIVIDAD ADMINISTRATIVA»**
QUE ES COMÚN PARA LA TASA Y EL PRECIO PÚBLICO

VARIOS SON LOS **CRITERIOS,**
QUE HAN DE UTILIZARSE DE MODO CONJUNTO,
QUE PERMITEN **CALIFICAR A LA PRESTACIÓN PATRIMONIAL COMO TASA O COMO PRECIO PÚBLICO**

	TASA	PRECIO PÚBLICO
SOLICITUD O RECEPCIÓN DEL SERVICIO O ACTIVIDAD	La solicitud o recepción del servicio o la realización de la actividad es **obligatoria** para el administrado.	La solicitud o recepción del servicio o la realización de la actividad es **voluntaria** para el administrado.
POSIBILIDAD DE QUE EL SERVICIO O ACTIVIDAD SE PRESTE POR INICIATIVA PRIVADA	**No puede ser prestado** o realizado por la actividad **privada**	**Podrá ser prestado** por la actividad **privada**.
CARÁCTER COACTIVO O CONTRACTUAL	Tiene carácter **coactivo**.	Tiene carácter **contractual**; es voluntaria.
RANGO DE LA NORMATIVA DE IMPOSICIÓN	Corresponde al **pleno** la determinación de los recursos propios de carácter tributario, siendo indelegable la competencia. Su ordenación se realizará a través de una **ordenanza fiscal.**	El establecimiento o modificación de los precios públicos corresponderá al **Pleno** de la corporación, sin perjuicio de sus facultades de delegación en la Junta de Gobierno Local. La regulación se podrá hacer a través de un **acuerdo basado en una memoria económico-financiera**. Dicho acuerdo se deberá publicar.
CUANTÍA	La cuantía de la tasa **no debe exceder del coste del servicio**. No se exige, por tanto, autofinanciación.	La cuantía del precio público **exige como mínimo cubrir el costo** del servicio prestado. Cuando existan razones sociales, benéficas, culturales o de interés público que así lo aconsejen, la entidad podrá fijar **precios públicos por debajo del límite previsto** en el párrafo anterior.
CAPACIDAD ECONÓMICA DEL OBLIGADO	Rige el principio de beneficio económico y **podrá tener en cuenta la capacidad económica de las personas** obligadas.	

Legislación: NF 41/1989, Reguladora de las Haciendas Locales (Álava), arts. 20 a 27 y 43 a 50
NF 9/2005, de Haciendas Locales (Bizkaia), arts. 21 a 28 y 44 a 50
NF 11/1989, Reguladora de las Haciendas Locales (Gipuzkoa), arts. 20 a 27 y 43 a 50

ZERGA-EGITATEA HONETAN BADATZA:
«ZERBITZU BAT ESKAINTZEAN EDO ADMINISTRAZIO-JARDUERA BAT EGITEAN»
ETA TASARAKO ETA PREZIO PUBLIKORAKO BERDINA BADA

ZENBAIT **IRIZPIDE** DAUDE,
MODU BATERATUAN ERABILI BEHARREKOAK,
ONDARE-PRESTAZIOA TASA EDO PREZIO PUBLIKOA GISA SAILKATU AHAL IZATEKO

	TASA	PREZIO PUBLIKOA
ZERBITZUA EDO JARDUERA ESKATZEA EDO JASOTZEA	Zerbitzua eskatu edo jasotzea edo jarduera egitea **nahitaezkoa** da herritarrarentzat.	Zerbitzua eskatu edo jasotzea edo jarduera egitea **borondatezkoa** da herritarrarentzat.
ZERBITZUA EDO JARDUERA EKIMEN PRIBATUAK ESKAINTZEKO AUKERA	Jarduera **pribatuak ezin du eskaini** edo egin.	Jarduera **pribatuak eskaini ahalko du**.
IZAERA HERTSATZAILEA EDO KONTRATUZKOA	**Hertsatzailea** da.	**Kontratuzkoa** da; borondatezkoa da.
EZARPEN-ARAUDIAREN MAILA	**Osoko bilkurari** dagokio zerga-izaerako baliabide propioak zehaztea, eta eskumen hori ezin da eskuordetu. **Ordenantza fiskal** baten bidez arautuko dira.	Prezio publikoak ezartzea edo aldatzea udalbatzako **osoko bilkurari** dagokio; hala ere, tokiko gobernu-batzarraren esku utz dezake eskumen hori. **Memoria ekonomiko-finantzario batean oinarritutako erabaki** baten bidez arautu ahal izango da. Erabaki hori argitaratu egin beharko da.
ZENBATEKOA	Tasaren zenbatekoak **ezin du zerbitzuaren kostua gainditu**. Beraz, ez da autofinantzaketarik eskatzen.	Prezio publikoaren zenbatekoak **gutxienez** eskainitako zerbitzuaren **kostua estaltzea eskatzen du**. Halaxe gomendatzen duten gizarte-, ongintza-, kultura-, edo interes publikoko arrazoiak baldin badaude, erakundeak aurreko paragrafoan **aurreikusitako mugen azpiko prezio publikoak** ezar ditzake.
BEHARTUAREN EKONOMIA-AHALMENA	Ekonomia-onuraren printzipioak agintzen du, eta **behartuta daudenen ekonomia-ahalmena aintzat har dezake**.	

Legeria: 41/1989 Foru Araua, Toki Ogasunak arautzen dituena (Araba), 20.-27. eta 43.-50. artikuluak
9/2005 Foru Araua, Toki Ogasunei buruzkoa (Bizkaia), 21.-28. eta 44.-50. artikuluak
11/1989 Foru Araua, Toki Ogasunak arautzen dituena (Gipuzkoa), 20.-27. eta 43.-50. artikuluak

La **Normativa Foral de los Territorios Históricos** del País Vasco marca unas **PAUTAS PARA DETERMINAR EL COSTE REAL O PREVISIBLE DEL SERVICIO O ACTIVIDAD QUE SE PRESTE.**

<table>
<tr><td>APROXIMACIÓN</td><td colspan="2">Las Entidades Locales calcularán, antes del día 1 de noviembre de cada año, el coste efectivo de los servicios que prestan, partiendo de los datos contenidos en la liquidación del presupuesto general y, en su caso, de las cuentas anuales aprobadas de las entidades vinculadas o dependientes, correspondiente al ejercicio inmediato anterior.

El cálculo del coste efectivo de los servicios tendrá en cuenta los costes reales directos e indirectos de los servicios, conforme a los datos de ejecución de gastos mencionados en el párrafo anterior.

Todas las Entidades Locales comunicarán los costes efectivos de cada uno de los servicios a la Diputación Foral correspondiente.

En el caso de las tasas por aprovechamiento especial o privativo de dominio público no se pueden obtener datos de la liquidación, por lo que habrá que recurrir a otras fuentes de información, como valores catastrales, valores mínimos atribuibles o precios medios de los alquileres, entre otros.</td></tr>
<tr><td rowspan="2">CÁLCULO DE COSTES</td><td>COSTES DIRECTOS</td><td>• Gastos de personal (retribuciones básicas y complementarias, en especie y Seguridad Social a cargo de la Entidad Local).
• Compra de bienes y servicios (materiales consumidos, gastos de financiación, de entretenimiento y conservación, electricidad, calefacción, combustible, etc.).
• Intereses y otros gastos de la deuda contraída para inversiones en dichos servicios.
• Amortizaciones técnicas (teniendo en cuenta la depreciación efectiva experimentada por los elementos de inmovilizado).</td></tr>
<tr><td>COSTES INDIRECTOS</td><td>Son aquellos gastos no directamente imputables, pero que guardan cierta relación con el servicio o la actividad de que se trate.

Los criterios para asignar los gastos indirectos entre los diferentes servicios o actividades han de ser lo más objetivos posible.</td></tr>
<tr><td colspan="2">TARIFA O CUOTA</td><td>El importe de la tarifa o cuota se obtendrá dividiendo el costo estipulado del servicio o actividad prestada por el número de viviendas, locales, establecimientos, etc.

Para la determinación de la cuantía de las tasas podrán tenerse en cuenta criterios genéricos de capacidad económica de los sujetos obligados a satisfacerlas.</td></tr>
</table>

Legislación:
LRBRL, arts. 36 y 116.ter
NF 41/1989, Reguladora de las Haciendas Locales (Álava), art. 24
Decreto Foral 59/2015, del Consejo de Diputados de 9 de diciembre, que establece los plazos y los criterios de cálculo del coste efectivo de los servicios prestados por las entidades locales del Territorio Histórico de Álava
NF 9/2005, de Haciendas Locales (Bizkaia), art. 25
Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 45/2015, de 24 de marzo, por el que se establecen los plazos y los criterios de cálculo del coste efectivo de los servicios prestados por las entidades locales del Territorio Histórico de Bizkaia
NF 11/1989, Reguladora de las Haciendas Locales (Gipuzkoa), art. 24
Orden Foral 309/2016, de 10 de junio, por la que se establecen los plazos y los criterios de cálculo del coste efectivo de los servicios prestados por las entidades locales de Gipuzkoa

Euskal Autonomia Erkidegoko **lurralde historikoen foru-araudiak JARRAIBIDE** batzuk ezartzen ditu **EMATEN DEN ZERBITZU EDO JARDUERAREN BENETAKO KOSTUA EDO KOSTU AURREIKUSGARRIA ZEHAZTEKO**.

<table>
<tr><td>HURBILKETA</td><td colspan="2">Toki-erakundeek urte bakoitzeko azaroaren 1a baino lehen kalkulatuko dute eskaintzen dituzten zerbitzuen benetako kostua, aurrekontu orokorraren likidazioan bildutako datuetatik abiatuta, eta, hala badagokio, lotutako edo mendeko erakundeei dagokienez aurreko ekitaldian onartutako urteko kontuetatik abiatuta.

Zerbitzuen benetako kostua kalkulatzeko, aintzat hartuko dira zerbitzuen zuzeneko eta zeharkako kostu errealak, aurreko paragrafoan gastuak exekutatzeari dagokionez jasotako datuei jarraikiz.

Toki-erakunde guztiek beren lurraldeko foru-aldundiari emango diote zerbitzu bakoitzaren benetako kostuen berri.

Jabari publikoaren aprobetxamendu bereziagatiko edo pribatiboagatiko tasen kasuan, ezin da likidazioaren daturik lortu; hortaz, beste informazio-iturri batzuetara jo beharko da, hala nola katastro-balioetara, egotz daitezkeen gutxieneko balioetara edo alokairuen batez besteko prezioetara, besteak beste.</td></tr>
<tr><td rowspan="2">KOSTUEN KALKULUA</td><td>ZUZENEKO KOSTUAK</td><td>• Langile-gastuak (toki-erakundearen kontura oinarrizko ordainsariak eta osagarriak, gauzazkoak eta Gizarte Segurantza).
• Ondasun eta zerbitzuen erosketa (kontsumitutako materialak, finantzaketa-, mantentze- eta kontserbazio-gastuak, elektrizitatea, berokuntza, erregaia, eta abar).
• Zerbitzu horietan inbertitzeko hartutako zorraren interesak eta beste gastu batzuk.
• Amortizazio teknikoak (ibilgetuko elementuek benetan jasandako balio-galera kontuan hartuta).</td></tr>
<tr><td>ZEHARKAKO KOSTUAK</td><td>Egindako zerbitzuari edo jarduerari zuzenean egotzi ezin zaizkion gastuak dira, baina harekin nolabaiteko zerikusia dute.

Zeharkako gastuak zerbitzu edo jardueren artean esleitzeko irizpideek ahal bezain objektiboak izan behar dute.</td></tr>
<tr><td colspan="2">TARIFA EDO KUOTA</td><td>Tarifa edo kuotaren zenbatekoa honela lortuko da: eskainitako zerbitzuaren edo jardueraren aurreikusitako kostua zati etxebizitza, lokal, establezimendu eta abarren kopurua.

Tasen zenbatekoa zehazteko, haiek ordaintzera behartuta dauden subjektuen gaitasun ekonomikoaren irizpide orokorrak hartu ahalko dira kontuan.</td></tr>
</table>

Legeria:

TAOL, 36. eta 116.ter artikuluak
41/1989 Foru Araua, Toki Ogasunak arautzen dituena (Araba), 24. artikulua
Diputatuen Kontseiluaren 59/2015 Foru Dekretua, abenduaren 9koa, ezartzen dituena Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeek emandako zerbitzuen benetako kostuaren kalkulurako epeak eta irizpideak
9/2005 Foru Araua, Toki Ogasunei buruzkoa (Bizkaia), 25. artikulua
Bizkaiko Foru Aldundiaren 45/2015 Foru Dekretua, martxoaren 24koa. Honen bidez, Bizkaiko Lurralde Historikoko toki-erakundeek emandako zerbitzuen benetako kostua kalkulatzeko irizpideak eta epeak ezartzen dira
11/1989 Foru Araua, Toki Ogasunak arautzen dituena (Gipuzkoa), 24. artikulua
309/2016 Foru Agindua, ekainaren 10ekoa, Gipuzkoako toki entitateek emandako zerbitzuen benetako kostua kalkulatzeko irizpideak ezartzen dituena

GESTIÓN DIRECTA	• **Liquidación.** • **Autoliquidación.** • **Cobro mediante recibo**. → **Entidad Local**
GESTIÓN INDIRECTA	• **Encomienda de gestión**, mediante convenio.

CONFECCIÓN Y ACTUALIZACIÓN DE PADRONES TRIBUTARIOS	Realizar correctamente y actualizar los padrones resulta **fundamental para CONCRETAR LA NATURALEZA DE LOS INGRESOS** que se liquidan.
LIQUIDACIÓN	La liquidación tiene **GRAN IMPORTANCIA PORQUE**: • Por medio de ella **se concretan las previsiones de las ordenanzas fiscales** a cada sujeto y supuesto determinados. • Resultan ser una buena **fuente de información** para otros impuestos o para otras liquidaciones que se lleven a cabo por medio de los padrones.
AUTOLIQUIDACIÓN	Corresponde al **OBLIGADO TRIBUTARIO** realizar la liquidación de los tributos y los precios públicos, y también realizar el ingreso.
RECIBOS	Se aplican generalmente en la **LIQUIDACIÓN DE IMPUESTOS DE DEVENGO PERIÓDICO, LAS TASAS Y PRECIOS PÚBLICOS**. El contribuyente ingresa la cantidad correspondiente en el propio Ayuntamiento o en un número de cuenta correspondiente a éste.
INSPECCIÓN TRIBUTARIA	Corresponde a los **AYUNTAMIENTOS** la inspección de sus propios tributos y precios públicos. La inspección del impuesto de bienes inmuebles y la del de actividades económicas, se **pueden delegar** en las Diputaciones Forales.
RECAUDACIÓN	**PODRÁ REALIZARSE**: • En período **voluntario**. • Por vía de **apremio**. El **AYUNTAMIENTO** la gestiona. **CABE LA DELEGACIÓN** en las **Diputaciones Forales**.

Legislación: Ley 2/2016, de Instituciones Locales de Euskadi, arts. 115 y 116

ZUZENEKO KUDEAKETA	• **Likidazioa.** • **Autolikidazioa.** • **Ordainagiri bidezko kobrantza.** → **Toki-erakundea**
ZEHARKAKO KUDEAKETA	• **Kudeaketa-gomendioa,** hitzarmen bidez.

ZERGA-ERROLDAK EGITEA ETA EGUNERATZEA	Zerga-erroldak behar bezala egitea eta eguneratzea **nahitaezkoa da likidatzen diren DIRU-SARREREN IZAERA ZEHAZTEKO**.
LIKIDAZIOA	Likidazioak **BEREBIZIKO GARRANTZIA du; IZAN ERE**: • Likidazioari esker, **ordenantza fiskalen aurreikuspenak** subjektu eta egoera jakin bakoitzari **egokitzen zaizkio**. • **Informazio-iturri** onak dira, beste zerga batzuetarako edo errolden bitartez egiten diren beste likidazio batzuetarako.
AUTOLIKIDAZIOA	**ZERGAPEKOARI** dagokio tributuen eta prezio publikoen likidazioa egitea, eta baita diru-sarrera egitea ere.
ORDAINAGIRIAK	Oro har, **ALDIAN BEHIN SORTZEN DIREN ZERGEN, TASEN ETA PREZIO PUBLIKOEN LIKIDAZIOAN** aplikatzen dira. Zergadunak dagokion zenbatekoa sartzen du udalean bertan edo udalaren kontu-zenbaki batean.
TRIBUTU-IKUSKAPENA	**UDALEI** dagokie beren tributuak eta prezio publikoak ikuskatzea. Ondasun higiezinen eta jarduera ekonomikoen gaineko zergak ikuskatzeko lanak **foru-aldundien esku utz daitezke**.
BILKETA	**HONELA EGIN AHALKO DA**: • **Borondatezko** aldian. • **Premiamendu** bidez. **UDALAK** kudeatzen du. **Foru-aldundien ESKU UTZ** daiteke.

Legeria: 2/2016 Legea, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa, 115. eta 116. artikuluak

RÉGIMEN DE ENDEUDAMIENTO	**CONCERTACIÓN OPERACIONES DE CRÉDITO**	En los términos en que se regule por las **normas que aprueben los órganos forales de los Territorios Históricos,** las entidades locales y sus organismos autónomos, entes públicos de derecho privado, sociedades públicas, fundaciones y consorcios dependientes podrán **concertar operaciones de crédito en todas sus modalidades**, así como aquellas **operaciones financieras accesorias** destinadas a asegurar, disminuir o diversificar su riesgo o coste.
	COORDINACIÓN Y ARMONIZACIÓN	A los efectos de una **plena articulación de las haciendas** locales con las haciendas forales y con la Hacienda General del País Vasco, las **operaciones de crédito de plazo superior a un año** que deseen concertar los municipios y demás entidades locales vascas se **coordinarán y armonizarán con las de los Territorios Históricos y con la política de endeudamiento de la Comunidad Autónoma** en el seno del Consejo Vasco de Finanzas Públicas. A tal efecto, las **diputaciones forales remitirán un informe anual** con el resumen de las operaciones de crédito concertadas por los municipios y demás entidades locales, en sus respectivos Territorios, al **Consejo Vasco de Finanzas Públicas**.
	COMPETENCIAS DE LOS ÓRGANOS FORALES	El régimen de endeudamiento, presupuestario y de contabilidad de los sectores públicos de las entidades locales se regulará por las **normas que aprueben los órganos forales de los Territorios Históricos**.
PLANES ECONÓMICO-FINANCIEROS DE LAS ENTIDADES LOCALES	**FACULTADES DE TUTELA FINANCIERA**	Las facultades de tutela financiera a través de la **autorización o informe de las operaciones de crédito** y, en relación con estas las referidas a los **planes económico financieros por incumplimiento de los objetivos anuales de deuda,** serán asimismo ejercidas por las **DIPUTACIONES FORALES** en los términos previstos en la **normativa estatal** o foral que sea de aplicación, así como de acuerdo con lo dispuesto en la **Ley 2/2016**, de Instituciones Locales de Euskadi.

FINALIDAD, INSTRUMENTACIÓN Y PLAZOS DE LAS OPERACIONES DE CRÉDITO

FINALIDAD	TIPOS DE INSTRUMENTOS	PLAZO	OBSERVACIONES
Financiación de **necesidades transitorias de tesorería** (Operaciones de tesorería)	• **Anticipos** de entidades financieras. • **Préstamos y créditos**. • Emisiones de **deuda**.	**Corto** plazo.	**No podrán superar en su conjunto** el 30% de sus ingresos liquidados por operaciones corrientes en el ejercicio anterior. En el Territorio Histórico de Gipuzkoa no existe limitación.
Financiación de **inversiones**	• **Préstamos y créditos**. • Emisión de **deuda** pública. • Cualquier otra apelación al **crédito público o privado**.	**Medio/Largo** plazo.	**No existen limitaciones** legales en cuanto al **mínimo.**
Refinanciación de operaciones existentes	• **Préstamos y créditos.** • Emisión de **deuda** pública. • Cualquier otra apelación al **crédito público o privado**.	**Medio/largo** plazo.	
Financiación de **operaciones corrientes declaradas urgentes y necesarias** en expedientes de crédito adicional	• **Préstamos y créditos**.	**Medio plazo.** Las operaciones deberán ser canceladas antes de la renovación de la Corporación.	• El **importe total anual** no puede superar el 5% de los recursos por operaciones corrientes del presupuesto. • La **carga financiera** que derive de ello no puede exceder del 25% de los recursos expresados.
Financiación **remanente de tesorería negativo**	• **Préstamos y créditos**.	**Medio plazo.** Deberán ser cancelados antes de la renovación de la Corporación.	• **El importe total anual** no puede superar el 5% de los recursos por operaciones corrientes del presupuesto. • La **carga financiera** que derive de ello no puede exceder del 25% de los recursos expresados.

Legislación:
LRBRL, art. 21
NF 41/1989, Reguladora de las Haciendas Locales (Álava), arts. 51 a 53
NF 3/2004, Presupuestaria de las Entidades Locales del TH de Álava, arts. 34, 49 y 56
NF 9/2005, de Haciendas Locales (Bizkaia), arts. 51 a 56
NF 10/2003, Presupuestaria de las Entidades Locales del TH de Bizkaia, arts. 34, 49 y 56
NF 10/2022, de 28 de diciembre, de Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Bizkaia para el año 2023, art. 42
NF 11/1989, Reguladora de las Haciendas Locales (Gipuzkoa), arts. 51 a 53
NF 21/2003, Presupuestaria de las Entidades Locales del TH de Gipuzkoa, arts. 34, 49 y 56

XV. EKONOMIA- ETA AURREKONTU-KUDEAKETA	2. DIRU-SARRERAREN KUDEAKETA
	4. ZUZENBIDE PUBLIKOKO DIRU-SARRERAK
	11. Kreditu-eragiketak
	1. Araubidea, helburua, tresnak eta epeak

ZORPETZE-ARAUBIDEA	**KREDITU-ERAGIKETAK ITUNTZEA**	**Lurralde historikoetako foru-organoek emandako arauetan** aurreikusitako moduan, toki-erakundeek eta haien mendeko erakunde autonomo, zuzenbide pribatuko erakunde publiko, sozietate publiko, fundazio eta partzuergoek **era guztietako kreditu-eragiketak ituntzeko** aukera izango dute, bai eta eragiketa horiek aseguratzeko edo haien arriskua edo kostua murriztu edo dibertsifikatzeko finantza-arloko beste **eragiketa osagarri batzuk** egiteko aukera ere.
	KOORDINAZIOA ETA HARMONIZAZIOA	Toki-**ogasunak** foru-ogasunekin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiarekin **erabat artikulatzearren**, EAEko udalerriek eta gainerako toki-erakundeek itundu nahi dituzten **urtebetetik gorako eperako kreditu-eragiketak**, betiere, **lurralde historikoen kreditu-eragiketekin eta Euskal Autonomia Erkidegoaren zorpetze-politikarekin koordinatu eta harmonizatuko dira**, Herri Dirubideen Euskal Kontseiluaren barruan. Horretarako, **foru-aldundiek txosten bat bidaliko diote urtero Herri Dirubideen Euskal Kontseiluari**, udalerriek eta gainerako toki-erakundeek, dagokien lurralde historikoan, itundutako kreditu-eragiketen laburpenarekin.
	FORU-ORGANOEN ESKUMENAK	Toki-erakundeetako sektore publikoen zorpetze-, aurrekontu- eta kontabilitate-araubidea **lurralde historikoetako foru-organoek onesten dituzten arauek** ezarriko dute.
TOKI-ERAKUNDEEN PLAN EKONOMIKO-FINANTZARIOAK	**FINANTZA-BABESEKO AHALMENAK**	Halaber, finantza-babeseko ahalmenak —**kreditu-eragiketen baimenaren edo txostenaren** bidez egikaritzen direnak—, eta, haiei dagokienez, **zorraren urteko helburuak ez betetzearen ondoriozko plan ekonomiko-finantzarioei** buruzkoak, **FORU-ALDUNDIEK** baliatuko dituzte, bat etorriz aplikatzekoa den **Estatuko araudian** edo foru-araudian aurreikusitakoarekin, bai eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko **2/2016 Legean** xedatutakoarekin ere.

KREDITU-ERAGIKETEN HELBURUA, ANTOLAKUNTZA ETA EPEAK			
HELBURUA	**TRESNA MOTAK**	**EPEA**	**OHARRAK**
DIRUZAINTZAKO BEHAR IRAGANKORRAK finantzatzea (Diruzaintzako eragiketak)	• Finantza-erakundeen **aurrerakinak**. • **Maileguak eta kredituak**. • **Zor**-jaulkipenak.	Epe **laburra**.	**Denera, ezin izango dute** aurreko ekitaldian eragiketa arruntengatik likidatutako diru-sarreren **% 30 gainditu**. Gipuzkoako Lurralde Historikoan ez dago mugarik.
INBERTSIOAK finantzatzea	• **Maileguak eta kredituak**. • **Zor** publikoaren jaulkipena. • **Kreditu publiko edo pribatuko** beste edozein tresna.	Epe **ertaina/luzea**.	**Ez dago gutxienekoari** buruzko **lege-mugarik**.
Dauden eragiketak **BIRFINANTZATZEA**	• **Maileguak eta kredituak.** • **Zor** publikoaren jaulkipena. • **Kreditu publiko edo pribatuko** beste edozein tresna.	Epe **ertaina/luzea**.	
Kreditu gehigarriko espedienteetan **PRESAZKO ETA BEHARREZKOTZAT JOTZEN DIREN ERAGIKETA ARRUNTAK** finantzatzea	• **Maileguak eta kredituak**.	**Epe ertaina.** Udalbatza berritu baino lehen kitatu beharko dira eragiketak.	• **Urteko zenbateko osoak** ezin izango du aurrekontuko eragiketa arruntengatiko baliabideen % 5 gainditu. • Hortik sortzen den **finantza-kargak** ezin izango du aipaturiko baliabideen % 25 gainditu.
DIRUZAINTZAKO GERAKIN NEGATIBOA finantzatzea	• **Maileguak eta kredituak**.	**Epe ertaina.** Udalbatza berritu baino lehen kitatu beharko dira.	• **Urteko zenbateko osoak** ezin izango du aurrekontuko eragiketa arruntengatiko baliabideen % 5 gainditu. • Hortik sortzen den **finantza-kargak** ezin izango du aipaturiko baliabideen % 25 gainditu.

Legeria:

TAOL, 21. artikulua
41/1989 Foru Araua, Toki Ogasunak arautzen dituena (Araba), 51.-53. artikuluak
3/2004 Foru Araua, Arabako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoa, 34., 49. eta 56. artikuluak
9/2005 Foru Araua, Toki Ogasunei buruzkoa (Bizkaia), 51.-56. artikuluak
10/2003 Foru Araua, Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoa, 34.,49. eta 56. artikuluak
10/2022 Foru Araua, abenduaren 28koa, Bizkaiko Lurralde Historikoaren 2023. urteko aurrekontu orokorrei buruzkoa, 42. artikulua
11/1989 Foru Araua, Toki Ogasunak arautzen dituena (Gipuzkoa), 51.-53. artikuluak
21/2003 Foru Araua, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoa, 34. ,49. eta 56. artikuluak

XV. GESTIÓN ECONÓMICA Y PRESUPUESTARIA	2. GESTIÓN DEL INGRESO
	4. INGRESOS DE DERECHO PÚBLICO
	11. Operaciones de crédito
	2. Autorizaciones y limitaciones

ÓRGANO COMPETENTE
Corresponde a la **ALCALDÍA concertar operaciones de crédito**, CON EXCLUSIÓN DE las destinadas a la financiación de créditos adicionales con destino a gasto corriente, siempre que aquéllas estén **previstas en el Presupuesto** y su importe acumulado dentro de cada ejercicio económico **no supere el 10% de sus recursos ordinarios del presupuesto**, salvo las de tesorería que le corresponderán cuando el importe acumulado de las operaciones vivas en cada momento no supere el 15% de los ingresos corrientes liquidados en el ejercicio anterior. **En otro caso la competencia será** del PLENO.

RÉGIMEN DE AUTORIZACIONES La concertación de operaciones de crédito precisará **autorización de la Diputación Foral cuando concurra alguna de las siguientes circunstancias**:	**ÁLAVA** **BIZKAIA**	• **Ahorro neto negativo**. • **Volumen total del capital vivo exceda del 110%** de los ingresos corrientes liquidados. • Operaciones formalizadas **en el exterior o con entidades no residentes**. • Operaciones instrumentadas con **emisiones de deuda u otras apelaciones de crédito público**. • En cualquier caso, **cuando el importe supere el 5% de los ingresos corrientes en Álava y el 10% en Bizkaia**, será preciso **solicitar a la Diputación Foral un informe de carácter preceptivo no vinculante.** • **En Bizkaia, las entidades locales de más de 75.000 habitantes** podrán optar por **sustituir las autorizaciones por la presentación de un escenario de consolidación presupuestaria.**
	GIPUZKOA	• Cuando la **cuantía** de la operación proyectada **rebase el 5% de los recursos liquidados por operaciones corrientes**. • La **carga financiera anual** derivada de la **suma de las operaciones vigentes así como de la proyectada, exceda del 25% de sus recursos por operaciones corrientes.**

LIMITACIÓN AL ENDEUDAMIENTO DE LAS ENTIDADES LOCALES Por Normas Forales de Presupuestos Generales o de medidas económico financieras del Territorios Histórico	**BIZKAIA**	Las entidades locales necesitan la **autorización de la Diputación Foral de Bizkaia** para concertar **operaciones de crédito a largo plazo,** en caso de que concurra alguna de las siguientes condiciones: • Que se deduzca un ahorro neto negativo de la actividad ordinaria del último ejercicio. • Que se mantenga un volumen total de capital formalizado en operaciones de crédito y avales vigentes a corto y largo plazo, incluyendo la operación proyectada, superior al 110% de los ingresos corrientes liquidados en el ejercicio inmediatamente anterior o, en su defecto, en el precedente a este último. Las **Normas Forales de Presupuestos** de la Diputación Foral de Bizkaia **podrán, anualmente fijar límites** de acceso al crédito de las entidades locales. **Así para el ejercicio 2023,** las entidades locales y sus entidades dependientes clasificadas en el sector administraciones públicas, de acuerdo con la definición y delimitación del Sistema Europeo de Cuentas **NO PODRÁN** concertar operaciones a largo plazo las entidades locales que liquiden el ejercicio 2022 con ahorro neto negativo; y **PODRÁN** concertar operaciones de crédito a largo plazo: • SIN AUTORIZACIÓN de la Diputación Foral de Bizkaia, las entidades locales que liquiden el ejercicio 2022 con ahorro neto positivo, y el volumen total del capital vivo no exceda del 60% de los ingresos corrientes liquidados o devengados según las cifras deducidas de los estados contables consolidados. • CON AUTORIZACIÓN de la Diputación Foral de Bizkaia, las entidades locales que liquiden el ejercicio 2022 con ahorro neto positivo, y el volumen total del capital vivo exceda del 60%, pero sea inferior al 110% de los ingresos corrientes liquidados o devengados según las cifras deducidas de los estados contables consolidados. • ÚNICAMENTE PARA REFINANCIAR otras operaciones de crédito a largo plazo vigentes, si liquidan el ejercicio 2022 con ahorro neto positivo y el volumen total del capital vivo es superior al 110% de los ingresos corrientes liquidados o devengados según las cifras deducidas de los estados contables consolidados.

Legislación:
LRBRL, art. 21
NF 41/1989, Reguladora de las Haciendas Locales (Álava), arts. 51 a 53
NF 3/2004, Presupuestaria de las Entidades Locales del TH de Álava, arts. 34, 49 y 56
NF 9/2005, de Haciendas Locales (Bizkaia), arts. 51 a 56
NF 10/2003, Presupuestaria de las Entidades Locales del TH de Bizkaia, arts. 34, 49 y 56
NF 10/2022, de 28 de diciembre, de Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Bizkaia para el año 2023, art. 42
NF 11/1989, Reguladora de las Haciendas Locales (Gipuzkoa), arts. 51 a 53
NF 21/2003, Presupuestaria de las Entidades Locales del TH de Gipuzkoa, arts. 34, 49 y 56

XV. EKONOMIA- ETA AURREKONTU-KUDEAKETA	2. DIRU-SARRERAREN KUDEAKETA
	4. ZUZENBIDE PUBLIKOKO DIRU-SARRERAK
	11. Kreditu-eragiketak
	2. Baimenak eta mugak

ORGANO ESKUDUNA

ALKATEARI dagokio **kreditu-eragiketak ituntzea** —gastu arrunterako kreditu gehigarriak finantzatzekoak **SALBU**—, betiere eragiketa horiek **aurrekontuan aurreikusirik** badaude eta ekonomia-ekitaldi bakoitzean metatutako zenbatekoak **ez badu aurrekontuko baliabide arrunten % 10 gainditzen**, diruzaintzakoak salbu, zeinak alkatearen ardurapean egongo baitira une bakoitzeko eragiketen zenbateko metatuak ez badu aurreko ekitaldian likidatutako diru-sarrera arrunten % 15 gainditzen. **Gainerako kasuetan**, **OSOKO BILKURAK izango du eskumena**.

BAIMENEN ARAUBIDEA Kreditu-eragiketak ituntzeko, **foru-aldundiaren baimena beharko da honako baldintza hautakoren bat badago**:	**ARABA** **BIZKAIA**	• **Aurrezki garbi negatiboa** badago. • **Kapital biziaren bolumen osoak** likidatutako diru-sarrera arrunten **% 110 gainditzen** badu. • **Kanpoan edo erakunde ez egoiliarrekin** formalizatutako eragiketak badaude. • **Zor-jaulkipenaren bidez edo kreditu publikoko beste tresnaren** batez egindako eragiketak badira. • Nolanahi ere, **zenbatekoak diru-sarrera arrunten % 5 gainditzen badu Araban eta % 10 Bizkaian**, beharrezkoa izango da **foru-aldundiari derrigorrezko txostena eskatzea, ez-loteslea**. • **Bizkaian, 75.000 biztanle baino gehiago dituzten toki-erakundeek**, araututako **baimenen ordez, aurrekontu-finkapenerako egitasmo bat aurkeztu ahal izango dute**.
	GIPUZKOA	• Aurreikusitako eragiketaren **zenbatekoak eragiketa arruntengatik likidatutako baliabideen % 5 gainditzen** badu. • **Indarrean dauden eragiketen eta etorkizunerakoen baturatik** datorren **urteko finantza-kargak eragiketa arruntengatiko baliabideen % 25 gainditzen** badu.

TOKI-ERAKUNDEEN ZORPETZEARI BURUZKO MUGA Lurralde historikoetako aurrekontu orokorrei edo ekonomia- eta finantza-neurriei buruzko foru-arauen bitartez	**BIZKAIA**	Toki-erakundeek **Bizkaiko Foru Aldundiaren baimena** behar dute **epe luzerako kreditu-eragiketak** ituntzeko, baldintza hauetakoren bat betetzen bada: • Azken ekitaldiko ohiko jardueraren emaitzetan aurrezki garbi negatiboa ondorioztatzea. • Epe labur eta luzean indarrean dauden kreditu-eragiketetan eta abaletan formalizatutako kapitalaren bolumen osoari eustea, proiektatutako eragiketaren zenbatekoa barne, aurreko ekitaldian likidatutako ohiko sarreren % 110 baino kopuru handiagoan; bestela, aurreko ekitaldiaren aurrekoa hartuko da kontuan. Bizkaiko Foru Aldundiaren **aurrekontuei buruzko foru-arauek**, **urtero,** toki-erakundeek kreditua eskuratzeko **mugak ezarri ahal izango dituzte**. **Hala, 2023ko ekitaldirako**, toki-erakundeek eta administrazio publikoen sektorean sailkatutako haien mendeko erakundeek, Kontuen Europako Sistemaren definizioarekin eta mugaketarekin bat etorriz, **EZIN IZANGO DUTE** epe luzerako eragiketarik itundu 2022ko ekitaldia aurrezki garbi negatiboarekin likidatzen duten toki-erakundeek; aldiz, epe luzeko kreditu-eragiketak itundu **AHAL IZANGO DITUZTE** honako hauek: • Bizkaiko Foru Aldundiaren BAIMENIK GABE, 2022ko ekitaldian aurrezki garbi positiboarekin likidatzen duten toki-erakundeek, kapital biziaren bolumen osoak ez badu gainditzen likidatutako edo sortutako sarrera arrunten % 60, kontabilitate-egoera bateratuetatik kendutako zifren arabera. • Bizkaiko Foru Aldundiaren BAIMENAREKIN, 2022ko ekitaldian aurrezki garbi positiboarekin likidatzen duten toki-erakundeek, baldin eta kapital biziaren bolumen osoa, kontabilitate-egoera bateratuetatik kendutako zifren arabera, likidatutako edo sortutako sarrera arrunten % 60tik gorakoa bada, baina % 110 baino txikiagoa. • Indarrean dauden epe luzeko beste kreditu-eragiketa batzuk BIRFINANTZATZEKO SOILIK, 2022ko ekitaldia aurrezki garbi positiboarekin likidatzen badute eta kapital biziaren bolumen osoa likidatutako edo sortutako sarrera arrunten % 110 baino handiagoa bada, kontabilitate-egoera bateratuetatik kendutako zifren arabera.

Legeria: TAOL, 21. artikulua
41/1989 Foru Araua, Toki Ogasunak arautzen dituena (Araba), 51.-53. artikuluak
3/2004 Foru Araua, Arabako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoa, 34., 49. eta 56. artikuluak
9/2005 Foru Araua, Toki Ogasunei buruzkoa (Bizkaia), 51.-56. artikuluak
10/2003 Foru Araua, Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoa, 34.,49. eta 56. artikuluak
10/2022 Foru Araua, abenduaren 28koa, Bizkaiko Lurralde Historikoaren 2023. urteko aurrekontu orokorrei buruzkoa, 42. artikulua
11/1989 Foru Araua, Toki Ogasunak arautzen dituena (Gipuzkoa), 51.-53. artikuluak
21/2003 Foru Araua, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoa, 34.,49. eta 56. artikuluak

<table>
<tr><td rowspan="2">EL NIVEL DE ENDEUDAMIENTO</td><td>CONCEPTO</td><td>El nivel de endeudamiento informa sobre los diferentes recursos considerados ordinarios que deberán destinarse a satisfacer los intereses y amortizaciones de los préstamos que el Ente tiene concertados.

Es a la vez una ratio presupuestaria que indica la proporción de los recursos ordinarios de un presupuesto que se compromete al pago de los intereses y amortización de la deuda del Ente Local y una ratio que indica al Ayuntamiento la necesidad o no de recurrir a la autorización previa de las operaciones de endeudamiento que se quieran concertar.

A los efectos de determinar el nivel de endeudamiento para la concertación de nuevas operaciones, se tendrán en cuenta todas las operaciones a corto y largo plazo formalizadas, a lo que se añadirá el riesgo deducido de los avales prestados y la operación proyectada.</td></tr>
<tr><td>CLASES</td><td>• Nivel de endeudamiento sobre importes presupuestados: se relaciona la carga financiera presupuestada con los ingresos ordinarios presupuestados.
• Nivel de endeudamiento sobre importes liquidados: se calcula el nivel de endeudamiento a partir de la carga financiera efectivamente satisfecha, sobre los ingresos ordinarios efectivamente liquidados a fin del ejercicio.
• Nivel de endeudamiento sobre importes recaudados: compara la carga financiera satisfecha con los recursos ordinarios efectivamente recaudados.
• Nivel de endeudamiento corregido: se calcula la carga financiera según las anualidades teóricas y por tanto corrigiendo el efecto de los períodos de carencia.</td></tr>
<tr><td colspan="2">AHORRO NETO DEL PRESUPUESTO</td><td>Es el indicador de la capacidad del Ayuntamiento de generar recursos que, procedentes de operaciones corrientes, pueden ser destinados a inversiones o a satisfacer la carga financiera de nuevas operaciones.

Se entenderá por ahorro neto de las Entidades Locales y sus Organismos Autónomos la diferencia entre los derechos liquidados por los capítulos uno a cinco, ambos inclusive, del estado de ingresos, y de las obligaciones reconocidas por los capítulos uno, dos y cuatro del estado de gastos, minorada en el importe de una anualidad teórica de amortización de la operación proyectada y de cada uno de los préstamos y empréstitos propios y avalados a terceros pendientes de reembolso.

A mayor ahorro neto, mayor capacidad del Ayuntamiento para endeudarse. En contrapartida, el Ayuntamiento no puede concertar operaciones de crédito cuando la carga financiera que comporte sea superior al ahorro neto del presupuesto.</td></tr>
<tr><td colspan="2">PLAZOS DE LAS OPERACIONES</td><td>Las operaciones de tesorería han de tener un plazo inferior a un año.

Los préstamos por gastos extraordinarios y urgentes y los que se destinen a financiar remanentes de tesorería negativos han de ser cancelados con anterioridad a la finalización del mandato del consistorio que los ha concertado.

Para los préstamos destinados a la financiación de inversiones o los préstamos para refinanciación de operaciones, no existe ninguna limitación.

Para poder determinar el plazo más razonable de una operación han de tenerse en consideración las siguientes cuestiones:
• Vida útil de las inversiones que se financian: los préstamos por inversiones no deberán tener un vencimiento superior a la vida útil de lo que financian.
• Margen ordinario disponible: el ahorro neto del presupuesto condiciona como límite inferior la capacidad del Ayuntamiento para hacer frente a las operaciones a concertar.
• Planificación financiera a medio y largo plazo: el Ayuntamiento habrá de disponer de una planificación a medio y largo plazo que le permita conocer sus necesidades y/o disponibilidades financieras a largo plazo.</td></tr>
<tr><td colspan="2">TIPO DE INTERÉS</td><td>Habrá que tener en cuenta si el interés es fijo o variable.

Todas las operaciones de crédito, así como la concesión de avales u otra clase de garantías públicas, están sujetas al principio de prudencia financiera. Se entiende por prudencia financiera el conjunto de condiciones que deben cumplir las operaciones financieras para minimizar su riesgo y coste.</td></tr>
</table>

<table>
<tr><td rowspan="2">ZORPETZE-MAILA</td><td>KONTZEPTUA</td><td>Zorpetze-mailak honen berri ematen du: zer baliabide arrunt erabili behar diren erakundeak itunduta dituen maileguen interesak eta amortizazioak egiteko.

Horrez gain, bi gauza adierazten dizkigun aurrekontuko ratio bat da: batetik, adierazten du toki-erakundearen baliabide arrunten zer portzentaje konprometitzen den toki-erakundearen zorraren interesak eta amortizazioak ordaintzeko; eta, bestetik, udalari adierazten dio itundu nahi diren zorpetze-eragiketek aldez aurretiko baimena behar duten ala ez.

Eragiketa berriak ituntzeko zorpetze-maila zehazte aldera, aintzat hartuko dira formalizatutako epe laburreko eta luzeko eragiketa guztiak, eta haiei erantsiko zaie emandako abaletatik eta proiektatutako eragiketatik ondorioztatutako arriskua.</td></tr>
<tr><td>MOTAK</td><td>• Aurrekontuko zenbatekoen gaineko zorpetze-maila: aurrekontuko finantza-karga aurrekontuko diru-sarrera arruntekin lotzen da.
• Likidatutako zenbatekoen gaineko zorpetze-maila: zorpetze-maila kalkulatzeko, kontuan hartzen da benetan ordaindutako finantza-karga, ekitaldiaren amaieran benetan likidatutako diru-sarrera arrunten gainean.
• Bildutako zenbatekoen gaineko zorpetze-maila: ordaindutako finantza-karga benetan bildutako baliabide arruntekin alderatzen du.
• Zorpetze-maila zuzendua: finantza-karga urteko teorikoen arabera kalkulatzen da, eta, beraz, gabealdien eragina zuzentzen da.</td></tr>
<tr><td colspan="2">AURREKONTUAREN AURREZKI GARBIA</td><td>Udalak baliabideak sortzeko duen gaitasunaren adierazlea da; alegia, eragiketa arruntetatik etorri eta inbertsioetarako edo eragiketa berrien finantza-karga ordaintzeko erabil daitezkeen baliabideak sortzeko duen gaitasuna.

Toki-erakundeen eta haien erakunde autonomoen aurrezki garbitzat ulertuko da diru-sarreren egoeraren lehenengo kapitulutik bosgarreneraino (haiek biak barne) likidatutako eskubideen eta gastuen egoeraren 1., 2. eta 4. kapituluek onartutako betebeharren arteko aldea, aurreikusitako eragiketaren eta ordaindu gabe dauden mailegu eta jesapenak (norberarenak eta hirugarrenei abaletan emandakoak) amortizatzeko urte teoriko baten zenbatekoan murriztuta.

Aurrezki garbia zenbat eta handiagoa izan, orduan eta gaitasun handiagoa izango du Udalak zorpetzeko. Ordainetan, udalak ezin izango ditu kreditu-eragiketak itundu haien finantza-karga aurrekontuko aurrezki garbia baino handiagoa bada.</td></tr>
<tr><td colspan="2">ERAGIKETEN EPEAK</td><td>Diruzaintzako eragiketek urtebeteko epea baino laburragoa izan behar dute.

Aparteko eta presazko gastuengatiko maileguak eta diruzaintzako gerakin negatiboak finantzatzeko erabiltzen direnak itundu dituen udalbatzaren agintaldia amaitu baino lehen kitatu behar dira.

Inbertsioak finantzatzeko maileguetarako edo eragiketak birfinantzatzeko maileguetarako, ez dago inolako mugarik.

Eragiketa baten eperik arrazoizkoena zehazteko, honako gai hauek hartu behar dira aintzat:

• Finantzatzen diren inbertsioen balio-bizitza: inbertsioengatiko maileguen muga-egunak ezin izango du finantzatzen duenaren balio-bizitza gainditu.
• Marjina arrunt erabilgarria: aurrekontuaren aurrezki garbiak baldintzatzen du udalak itundu beharreko eragiketak egiteko duen gaitasunaren beheko muga.
• Epe ertain eta luzerako finantza-plangintza: udalak epe ertain eta luzerako plangintza egin beharko du, epe luzera zer finantza-behar eta/edo -baliabide izango dituen jakiteko.</td></tr>
<tr><td colspan="2">INTERES-TASA</td><td>Interesa finkoa edo aldakorra den aintzat hartu beharko da.

Kreditu-eragiketa guztiek, bai eta abalak edo bestelako berme publikoak emateak ere, finantza-zuhurtasunaren printzipioa bete beharko dute. Finantza-eragiketek euren arriskua eta kostua minimizatzeko bete behar dituzten baldintzen multzoa da finantza-zuhurtasuna.</td></tr>
</table>

FACTORES PARA MEJORAR LA GESTIÓN DEL GASTO A CORTO PLAZO	
COMISIÓN DE COMPRAS	**Órgano consultivo** responsable de la **definición de normas y criterios** de compras.
UNIDAD DE COMPRAS	Órgano responsable de **gestionar y tramitar las compras** de bienes y servicios, según normas y criterios fijados por la comisión.
PROGRAMACIÓN DEL GASTO	Tiene en cuenta el **carácter repetitivo de determinados consumos** de la organización.
CONTRATO DE SUMINISTRO	A veces puede resultar **aconsejable**, con **ventajas** en cuanto al precio, simplificación administrativa, garantía de suministro, estabilidad, etc., la celebración de un contrato de suministro.
CONDICIONES DE PAGO	Resulta **aconsejable** atender a las **condiciones de pago** en la gestión y tramitación de las compras de bienes y servicios.
DESCENTRALIZACIÓN DE LA GESTIÓN DEL GASTO	Para evitar que la totalidad de funciones relacionadas con el ámbito presupuestario, financiero y contable estén atribuidas al área contable del Ayuntamiento, se tiende a la **descentralización de funciones en los directivos y jefes de las distintas áreas**.

FÓRMULAS QUE PERMITEN AGILIZAR LA GESTIÓN DEL GASTO	
DESCONCENTRACIÓN Y DELEGACIÓN DE FUNCIONES	**Autorizando a cada órgano**, dentro de los límites legales, las competencias para autorizar, disponer y reconocer obligaciones en su ámbito de responsabilidad.
ACUMULACIÓN DE LAS FASES DE EJECUCIÓN DEL GASTO	La realización de distintas fases en un mismo acto puede ser conveniente en la tramitación de compras de **reducido montante** o en supuestos de **urgencia** y **otros**.
FISCALIZACIÓN E INTERVENCIÓN LIMITADA DE REQUISITOS BÁSICOS	Para aquellos **casos en los que el pleno acuerde la fiscalización e intervención limitada previa**, el **órgano interventor** se limitará a **comprobar los requisitos básicos que se determinen**.
ÓRDENES DE PAGO «A JUSTIFICAR»	Mecanismo que permite hacer frente a gastos **cuando no pueden acompañarse los documentos justificativos** en el momento de su expedición.
AGILIZACIÓN DE LA GESTIÓN PRESUPUESTARIA	Los créditos del estado de gastos del presupuesto son limitativos, por tanto, **previa a la autorización de gastos no previstos en el presupuesto**, se hace necesaria la aprobación de **modificaciones presupuestarias**.
PROCEDIMIENTO DE EJECUCIÓN DEL GASTO	La **Norma municipal de ejecución presupuestaria** tiene que **prever** las **adaptaciones de la normativa presupuestaria** a la organización y características de la Entidad.

EPE LABURRERA GASTU-KUDEAKETA HOBETZEKO ALDERDIAK	
EROSKETA-BATZORDEA	Erosteko **arauak eta irizpideak zehazteko** ardura duen **organo aholku-emailea**.
EROSKETA-UNITATEA	Ondasun eta zerbitzuen **erosketak kudeatzeaz eta izapidetzeaz** arduratzen den organoa, batzordeak ezarritako arau eta irizpideei jarraikiz.
GASTUAREN PROGRAMAZIOA	Erakundearen **kontsumo jakin batzuk aldian-aldian errepikatu egiten direla** hartzen du aintzat.
HORNIDURA-KONTRATUA	Batzuetan, **gomendagarria** izan daiteke hornidura-kontratua izatea, **onurak** ekar baitiezazkioke prezioari, administrazio-sinplifikazioari, hornidura-bermeari, egonkortasunari eta abarri dagokienez.
ORDAINKETA-BALDINTZAK	**Gomendagarria** da **ordainketa-baldintzak** aintzat hartzea ondasun eta zerbitzuak kudeatzean eta izapidetzean.
GASTU-KUDEAKETAREN DESZENTRALIZAZIOA	Aurrekontu-, finantza- eta kontabilitate-esparruekin zerikusia duten eginkizun guztiak udaleko kontabilitate-arloaren menpe egon ez daitezen, **arloetako zuzendari eta nagusien artean funtzioak deszentralizatzen saiatzeko** joera dago.

GASTU-KUDEAKETA ARINTZEKO AUKERA EMATEN DUTEN FORMULAK	
DESKONTZENTRAZIOA ETA FUNTZIOAK ESKUORDETZEA	**Organo bakoitzari** —bere erantzukizun-eremuan— betebeharrak baimendu, erabili eta onartzeko **eskumena emanez**, legezko mugen barnean, betiere.
GASTUA BETEARAZTEKO FASEAK METATZEA	Zenbait fase egintza bakar batean gauzatzea gomendagarria izan daiteke **zenbateko txikiko** erosketak izapidetu behar badira edo **presazko** eta **bestelako** kasuak badira.
OINARRIZKO BETEKIZUNEN FISKALIZAZIO ETA KONTU-HARTZE MUGATUA	**Osoko bilkurak aldez aurreko fiskalizazio eta kontu-hartze mugatua erabakitzen duen kasuetan**, **zehazten diren oinarrizko betekizunak egiaztatu** besterik ez du egingo **organo kontu-hartzaileak**.
«JUSTIFIKATU BEHARREKO» ORDAINKETA-AGINDUAK	Gastuei aurre egiteko aukera ematen duen mekanismoa, gastuok egin direnean haiek **justifikatzen dituen dokumenturik eman ezin bada**.
AURREKONTU-KUDEAKETA BIZKORTZEA	Gastuen egoera-orriko kredituak mugatzaileak dira; hortaz, **aurrekontuan aurreikusi ez diren gastuak baimendu aurretik**, beharrezkoa da **aurrekontu-aldaketak** onartzea.
GASTUA BETEARAZTEKO PROZEDURA	**Aurrekontua betearazteko udal-arauak aurrekontu-araudia** erakundearen antolamendura eta ezaugarrietara **egokitzea aurreikusi** behar du.

CONCEPTO DE SUBVENCIÓN	La acción de **fomento municipal** a través de las subvenciones tiene una **gran trascendencia**, tanto desde el punto de vista económico, como desde el punto de vista social. **SUBVENCIÓN es la disposición dineraria** realizada por la Administración Local **a favor de personas físicas o jurídicas, públicas o privadas,** siempre y cuando se cumplan los **siguientes requisitos:** • Que la entrega se realice **sin contraprestación.** • Que se cumpla **un determinado objetivo**, que se ejecute un proyecto, que se realice una actividad, que se adopte un comportamiento singular, ya realizados o por desarrollar, o que se dé la concurrencia de una situación determinada. La persona beneficiaria **deberá cumplir las obligaciones** materiales y formales establecidas. • El proyecto, actividad, etc. financiado deberá tener por objeto **el fomento de una actividad de utilidad pública o interés social, o de promoción de una finalidad pública**.
FACULTADES DE TUTELA FINANCIERA	Las facultades de **tutela financiera** y, en relación con estas, las atribuciones en materia de **asistencia técnica, seguimiento y evaluación de los planes económico-financieros** que aprueben los municipios o, en su caso, la propia diputación, como consecuencia del incumplimiento de los objetivos anuales de estabilidad presupuestaria y sostenibilidad financiera, serán asimismo ejercidas por las **DIPUTACIONES FORALES** en los términos previstos en la normativa estatal o foral que sea de aplicación, así como de acuerdo con lo dispuesto en la Ley 2/2016, de Instituciones Locales de Euskadi.
PLANES ECONÓMICO-FINANCIEROS	Los planes económico-financieros **identificarán las causas de desviación y las medidas que permitan retornar al cumplimiento de los objetivos,** e **incluirán medidas que sean proporcionadas a la desviación**, en su caso, de los objetivos de déficit, deuda pública o regla de gasto, de conformidad con los umbrales o criterios que, mediante acuerdo, se establezcan por el Consejo Vasco de Finanzas Públicas en ejercicio de sus competencias en materia de estabilidad presupuestaria y sostenibilidad financiera. El **Consejo Vasco de Finanzas Públicas** podrá definir, mediante acuerdo, cuáles son los **umbrales de desviación de los objetivos de estabilidad** presupuestaria y sostenibilidad financiera que, debido a su **limitada cuantía o reducido peso porcentual** sobre el volumen presupuestario, de deuda o de gasto público, **NO CONLLEVARÁN EN NINGÚN CASO MEDIDAS ADICIONALES** que afecten a la cartera de servicios municipales, ni obliguen a la gestión compartida de los servicios públicos por parte de otra instancia o entidad o requieran la racionalización de estructuras organizativas de entidades locales o instrumentales.

Legislación: Ley 1/88, de 5 de febrero, del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas
NF 3/2004, Presupuestaria de las Entidades Locales del TH de Álava, art. 49.4. y Título IV
NF 10/2003, Presupuestaria de las Entidades Locales del TH de Bizkaia, art. 49.4. y Título IV
NF 21/2003, Presupuestaria de las Entidades Locales del TH de Gipuzkoa, art. 49.4. y Título IV

DEFINIZIOA		Toki-administrazioaren eta haren mendeko erakunde eta sozietate guztien kontuen eta kudeaketa ekonomikoaren kanpo-fiskalizazioa **Kontu Auzitegiak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak (HKEE) egiten dute, oro har**. Haren **HELBURUA** zera da, toki-administrazioen **ekonomia- eta finantza-jarduera ordenamendu juridikora egokitzen dela egiaztatzea**. Eginkizun ditu, halaber, **jarduera ekonomiko-finantzarioaren eraginkortasuna eta efizientzia egiaztatzea** eta **arrazionalizatzeko eta hobetzeko neurriak proposatzea**.
FISKALIZAZIOA		**Fiskalizazioak**, gaur egun, **HIRU JARDUERA-ESPARRU DITU**: 1. **Finantza-auditoretza**: toki-administrazioaren kontuak kontabilitateko arauetara egokitzen direla egiaztatzen du. 2. **Legezkotasun-kontrola**: erakundeen jarduketek kasuan-kasuan aplikatzekoak diren aginduak betetzen dituztela egiaztatzen du**.** 3. **Auditoretza operatiboa edo kudeaketako auditoretza**: administrazioaren kudeaketaren emaitza neurtzen saiatzen da, hura hobetze aldera**.**
HERRI KONTUEN EUSKAL EPAITEGIAK EGINDAKO FISKALIZAZIOA	**XEDEA, HELBURUAK ETA ESKUMENAK**	• **HERRI KONTUEN EUSKAL EPAITEGIA** da e**uskal sektore publikoaren jarduera ekonomikoa eta finantza-jarduera fiskalizatzeaz arduratzen den organoa.** • Hau da haren **EGITEKOA**: → **Administrazio publikoen jarduna kontrolatzea**, besteak beste, toki-erakundeena (udalak) eta haien mendekoak diren ente instituzional eta sozietate publiko guztiena. → **Eusko Legebiltzarrari aholkularitza eskaintzea**, ekonomiaren eta finantzen arloan nahiz bere eskumenekoa den beste edozein gaitan, haren jarduera arautzen duen legearen arabera. • Herri Kontuen Euskal Epaitegiak **toki-administrazioetatik laguntza ekonomikoak edo finantza-laguntzak jasotzen dituen beste edozein pertsona fisiko edo juridikoren jarduera aztertzeko** eskumena ere badu (adibidez, dirulaguntzak eta laguntzak jasotzen dituztenena).
	TOKI-ADMINISTRAZIOARI ERAGITEN DIOTEN TXOSTENEN TIPOLOGIAK	**Toki-administrazio jakin bati zuzenduta dagoen ekitaldi jakin bati buruzko fiskalizazio**-txostena; Eusko Legebiltzarrak onartutako urteko lan-programan jasota dago. **Eremua**: aurrekontuak, kontu orokorra, kontratazioa, langileak, eta abar.
		Gai jakin baten inguruan **toki-administrazio bati edo gehiagori eragin** diezaioketen **txosten sektorialak** (adibidez, 10.000 biztanletik gorako toki-administrazioetako lurzoruaren udal-ondarearen inguruan).
		Euskal Autonomia Erkidegoko toki-erakundeen ekitaldi ekonomiko bakoitzeko kontuei buruzko txostena. Txosten orokor bat da, toki-administrazioek **kontu orokorrari** buruz nahitaez bidali behar dizkioten datuen arabera honako hauek **aztertzen dituena**: • Eduki **formalean** antzemandako **akatsak**. • Kontu orokorraren edukian atzemandako **akats kualitatiboak** (bai aurrekontuko, bai ondareko alderdiei dagokienez). • Aurrekontua, likidazioa eta kontu orokorra onartzeko **epeetan izandako akatsak**.

TOKI-ERAKUNDEEN FINANTZA-BABESA ETA PLAN EKONOMIKO-FINANTZARIOAK

FINANTZA-BABESEKO AHALMENAK	**FORU ALDUNDIEK** beteko dituzte **finantza-babeseko** ahalmenak, bai eta, ahalmen horiei dagokienez, udalerriek edo —aurrekontu-egonkortasunerako eta finantza-jasangarritasunerako urtean urteko helburuak bete ez badira— aldundiak berak onartzen dituzten **plan ekonomiko-finantzarioei buruzko laguntza teknikorako, jarraipenerako eta ebaluaziorako** eskumenak ere. Hori guztia, aplikagarriak diren Estatuko arauetan edo foru-arauetan aurreikusitakoaren arabera, eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legean xedatutakoarekin bat etorrita.
PLAN EKONOMIKO-FINANTZARIOAK	Plan ekonomiko-finantzarioek **adieraziko dute zergatik gertatu den desbideratzea eta zein neurriren bidez itzuli ahal izango den ezarritako helburuak betetzera**; eta defizitaren, zor publikoaren edo gastu-arauaren helburuetan izandako **desbideratzearekin proportzionalak diren neurriak jasoko dituzte**, hartarako erreferentziatzat hartuz Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak, aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-jasangarritasunaren gaietan dituen eskumenak baliatuz, erabaki bidez ezartzen dituen atalase edo irizpideak. **Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak** zehaztu ahal izango du, erabaki bidez, zein diren aurrekontu-**egonkortasunerako eta finantza-jasangarritasunerako helburuekiko desbideratze-atalaseak**, zeinek, **zenbateko txikia edo ehuneko pisu murritza** egiten dutelako aurrekontuaren, zorraren edo gastu publikoaren bolumenarekiko, **INOLA ERE EZ BAITUTE EKARRIKO HONELAKO NEURRI OSAGARRIAK hartzea**: udalaren zerbitzu-zorroan eragingo duten neurriak, edo zerbitzu publikoen kudeaketa beste erakunde batekin partekatzera behartuko dutenak, edo toki-erakundeen nahiz erakunde instrumentalen antolamendu-egiturak arrazionalizatzea eskatuko dutenak.

Legeria:
1/88 Legea, otsailaren 5ekoa, Herri Kontuen Euskal Epaitegiarena
3/2004 Foru Araua, Arabako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoa, 49.4 artikulua eta IV. titulua
10/2003 Foru Araua, Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoa, 49.4 artikulua eta IV. titulua
21/2003 Foru Araua, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoa, 49.4 artikulua eta IV. titulua

INDICADORES ECONÓMICO-FINANCIEROS

ASPECTOS GENERALES	⇒ Los indicadores económico-financieros no constituyen una finalidad en sí mismos sino un **instrumento** para **analizar la Entidad Local desde una perspectiva económico-financiera.** ⇒ Los indicadores económico-financieros **no se encuentran estandarizados por ningún tipo de normativa**. No obstante, en esta Guía, se expondrán **algunos considerados de general utilización**. ⇒ Los indicadores económico-financieros **no deben** considerarse **de manera aislada**, sino conjuntamente con aquellos otros que ofrecen información complementaria de la situación a analizar. ⇒ Es importante analizar el valor que arrojan los indicadores económico-financieros, **no sólo durante un ejercicio económico**, sino durante un escenario temporal más amplio, con el objeto de poder interpretar tendencias. ⇒ Finalmente, con el objeto de poder efectuar **comparaciones entre diferentes entidades**, se va a proceder en la medida de lo posible a homogeneizar los ratios, ofreciéndose los resultados en términos relativos.
INFORMACIÓN PARA EL ANÁLISIS	⇒ En general, **la información necesaria para el cálculo de los indicadores** económico-financieros que se exponen a continuación, **se obtendrá de la liquidación de los presupuestos de la Entidad Local**, facilitándose de esta manera su cálculo. ⇒ En **consecuencia**, los indicadores a analizar **con carácter preferente** debieran ser los procedentes **de la última liquidación presupuestaria** practicada por la Entidad Local.

ADIERAZLE EKONOMIKO-FINANTZARIOAK

ALDERDI OROKORRAK	⇒ Ekonomia- eta finantza-adierazleak ez dira helburuak berez, **toki-erakundea ekonomia- eta finantza-ikuspegitik aztertzeko tresnak** baizik. ⇒ Ekonomia- eta finantza-adierazleak **ez ditu inongo araudik estandarizatzen**. Hala ere, gida honetan, **oro har denek erabiltzen dituzten batzuk** azalduko dira. ⇒ Ekonomia- eta finantza-adierazleak **ez dira banan-banan** aintzat hartu behar, baizik eta aztertu beharreko egoerari buruzko informazio osagarria eskaintzen dutenekin modu bateratuan. ⇒ Garrantzitsua da ekonomia- eta finantza-adierazleen balioa aztertzea, **ez ekonomia-ekitaldi bakar batean soilik**, denbora-tarte luzeagoan baizik, joerak interpretatu ahal izateko helburuarekin. ⇒ Azkenik, **erakundeen arteko alderaketak** egin ahal izateko xedearekin, ratioak ahal bezainbeste homogeneizatzen saiatu behar da, eta hartara emaitzak modu erlatiboan eman.
AZTERKETARAKO INFORMAZIOA	⇒ Oro har, ondoren adierazten diren ekonomia- eta finantza-**adierazleak kalkulatzeko behar den informazioa toki-erakundeko aurrekontuen likidaziotik lortuko da**, kalkulatzea errazagoa izan dadin. ⇒ **Ondorioz**, **lehentasunez** aztertu beharreko adierazleak toki-erakundeak egindako **azken aurrekontu-likidaziokoak** izan beharko lirateke.

INDICADORES PRESUPUESTARIOS DEL RESULTADO PRESUPUESTARIO Y/O REMANENTE DE TESORERÍA	
Índice de ahorro bruto no financiero	((Derechos reconocidos netos (Cap. 1 a 5) – Obligaciones reconocidas netas (Cap. 1, 2 y 4)) / Derechos reconocidos netos (Cap. 1 a 5)) × 100
Índice de ahorro neto	((Derechos reconocidos netos (Cap. 1 a 5) – Obligaciones reconocidas netas (Cap. 1, 2, 3, 4 y 9)) / Derechos reconocidos netos (Cap. 1 a 5)) × 100
Superávit o déficit por habitante	Resultado presupuestario ajustado / Número de habitantes
Contribución del presupuesto al remanente de tesorería	(Resultado presupuestario ajustado / Remanente de tesorería para gastos generales) × 100
Resultado por ingresos corrientes	(Resultado presupuestario ajustado / Derechos reconocidos netos (Cap. 1 a 5)) × 100
Remanente por ingresos corrientes	(Remanente de tesorería para gastos generales / Derechos reconocidos netos (Cap. 1 a 5)) × 100
Índice de deudores de dudoso cobro	(Saldos dudoso cobro / Derechos pendientes de cobro) × 100

INDICADORES PRESUPUESTARIOS DEL PRESUPUESTO DE INGRESOS	
Ejecución del presupuesto de ingresos	(Total derechos reconocidos netos / Previsiones definitivas de ingresos) × 100
Autonomía	(Derechos reconocidos netos (Cap. 1 a 3, 5, 6 y 8 + subconceptos 400.01 y 420.01) / Total derechos reconocidos netos) × 100
Autonomía fiscal	(Derechos reconocidos netos (de ingresos de naturaleza tributaria) / Total derechos reconocidos netos) × 100
Presión fiscal	Derechos reconocidos netos (Cap. 1 a 3) / Número de habitantes
Dependencia de las transferencias corrientes	(Derechos reconocidos netos (Cap. 4) / Obligaciones reconocidas netas (Cap. 1 a 5)) × 100
Índice de dependencia de las subvenciones recibidas	(Derechos reconocidos netos (Cap. 4 y 7 – subconceptos 400.01 y 420.01) / Total derechos reconocidos netos) × 100
Margen interno no financiero	(Derechos reconocidos netos (Cap. 1, 2, 3, 5 y 6) / Obligaciones reconocidas netas (Cap. 1 a 7)) × 100
Índice de pendiente de cobro	(Derechos pendientes de cobro presup. ingresos corrientes de remanente tesorería / Derechos reconocidos netos (Cap. 1 a 9)) × 100
Realización de cobros	(Recaudación neta / Total derechos reconocidos netos) × 100
Periodo medio de cobro global de capítulos 1 a 3 (nº de días)	(Derechos pendientes de cobro (Cap. 1 a 3) / Derechos reconocidos netos (Cap. 1 a 3)) × 365

INDICADORES PRESUPUESTARIOS DEL PRESUPUESTO DE GASTOS	
Ejecución del presupuesto de gastos	(Total obligaciones reconocidas netas / Créditos definitivos de gastos) × 100
Índice de gastos de personal	(Obligaciones reconocidas netas (Cap. 1) / Derechos reconocidos netos (Cap. 1 a 5)) × 100
Índice de subcontrataciones	(Obligaciones reconocidas netas (Concepto 227) / Derechos reconocidos netos (Cap. 1 a 5)) × 100
Índice de gastos en subvenciones a otros entes	(Obligaciones reconocidas netas de subvenciones a otros entes (Artículos 42 y 43) / Derechos reconocidos netos (Cap. 1 a 5)) × 100
Índice de gastos de funcionamiento	(Obligaciones reconocidas netas (Cap. 1, 2 y 4) / Derechos reconocidos netos (Cap. 1 a 5)) × 100
Carga financiera del ejercicio	(Obligaciones reconocidas netas (Cap. 3 y 9) / Derechos reconocidos netos (Cap. 1 a 5)) × 100
Carga financiera por habitante	Obligaciones reconocidas netas (Cap. 3 y 9) / Número de habitantes
Composición carga financiera (intereses)	(Obligaciones reconocidas netas (Cap. 3) / Obligaciones reconocidas netas (Cap. 3 y 9)) × 100
Composición carga financiera (amortización)	(Obligaciones reconocidas netas (Cap. 9) / Obligaciones reconocidas netas (Cap. 3 y 9)) × 100
Gastos por habitante	Total obligaciones reconocidas netas / Número de habitantes
Nivel de inversión	(Obligaciones reconocidas netas (Cap. 6) / Obligaciones reconocidas netas (Cap. 1, 2, 3, 4, 6, 7, 8 y 9)) × 100
Esfuerzo inversor	(Obligaciones reconocidas netas (Cap. 6 y 7) / Total obligaciones reconocidas netas) × 100
Inversión total por habitante	Obligaciones reconocidas netas (Cap. 6 y 7) / Número de habitantes
Realización de pagos	(Pagos realizados / Total obligaciones reconocidas netas) × 100
Periodo medio de pago global de capítulos 2 y 6 (nº de días)	(Obligaciones pendientes de pago (Cap. 2 y 6) / Obligaciones reconocidas netas (Cap. 2 y 6)) × 365

INDICADORES PRESUPUESTARIOS DE DEUDA	
Índice de deuda formalizada	(Deuda viva formalizada / Derechos reconocidos netos (Cap. 1 a 5)) × 100
Índice de deuda viva	(Deuda viva / Derechos reconocidos netos (Cap. 1 a 5)) × 100
Deuda formalizada por habitante	Deuda viva formalizada / Número de habitantes
Deuda viva por habitante	Deuda viva / Número de habitantes

Fuente: Bizkaia: UDALNET (https://apps.bizkaia.net/UDIT/index.jsp?IDIOMA=C&restringido=false)
Gipuzkoa: UDALGIDA (https://w390w.gipuzkoa.net/WAS/HACI/HUGUdalgidaWEB/indSocio/ultimaSituacion?locale=es_ES)

AURREKONTU-EMAITZAREN ETA DIRUZAINTZAKO GERAKINAREN AURREKONTU-ADIERAZLEAK	
Aurrezki gordin ez-finantzarioaren indizea	((Eskubide onartu garbiak (1.-5. kap.) – Betebehar onartu garbiak (1.,2. eta 4. kap.)) / Eskubide onartu garbiak (1.-5. kap.)) × 100
Aurrezki garbiaren indizea	((Eskubide onartu garbiak (1.-5. kap.) – Betebehar onartu garbiak (1.,2., 3., 4. eta 9. kap.)) / Eskubide onartu garbiak (1.-5. kap.)) × 100
Biztanleko superabita edo defizita	Aurrekontu-emaitza doitua / Biztanle kopurua
Aurrekontuaren ekarpena diruzaintzako gerakinean	(Aurrekontu-emaitza doitua / Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina) × 100
Sarrera arrunten emaitza	(Aurrekontu-emaitza doitua / Eskubide onartu garbiak (1.-5. kap.)) × 100
Sarrera arrunten gerakina	(Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina / Eskubide onartu garbiak (1.-5. kap.)) × 100
Kobrantza zalantzagarriko zordunen indizea	(Kobrantza zalantzagarriko saldoak / Kobratzeko dauden eskubideak) × 100

SARRERA-AURREKONTUAREN AURREKONTU-ADIERAZLEAK	
Sarrera-aurrekontuaren betearazpena	(Eskubide onartu garbiak guztira / Diru-sarreren behin betiko aurreikuspenak) × 100
Autonomia	(Eskubide onartu garbiak (1.-3., 5, 6 eta 8. kap. + 400.01 eta 420.01 azpikontzeptuak) / Eskubide onartu garbiak guztira) × 100
Autonomia fiskala	(Eskubide onartu garbiak (tributu-arloko sarrerenak) / Eskubide onartu garbiak guztira) × 100
Presio fiskala	Eskubide onartu garbiak (1.-3. kap.) / Biztanle kopurua
Transferentzia arrunten mendekotasuna	(Eskubide onartu garbiak (4. kap.) / Betebehar onartu garbiak (1.-5. kap.)) × 100
Jasotako dirulaguntzekiko mendekotasunaren indizea	(Eskubide onartu garbiak (4. eta 7. kap. – 400.01 eta 420.01 azpikontzeptuak) / Eskubide onartu garbiak guztira) × 100
Barneko marjina ez-finantzarioa	(Eskubide onartu garbiak (1., 2., 3., 5. eta 6. kap.) / Betebehar onartu garbiak (1.-7. kap.)) × 100
Kobratzeko dagoenaren indizea	(Aurrekontutik kobratzeko dauden eskubideak, diruzaintzako gerakineko diru-sarrera arruntak / Eskubide onartu garbiak (1.-9. kap.)) × 100
Kobrantzak egitea	(Diru-bilketa garbia / Eskubide onartu garbiak guztira) × 100
1.-3. kapituluetako batez besteko kobrantza-epe globala (egun kopurua)	(Kobratzeko dauden eskubideak (1.-3. kap.) / Eskubide onartu garbiak (1.-3. kap.)) × 365

GASTU-AURREKONTUAREN AURREKONTU-ADIERAZLEAK	
Gastu-aurrekontuaren betearazpena	(Betebehar onartu garbiak guztira / Gastuen behin betiko kredituak) × 100
Pertsonal-gastuen indizea	(Betebehar onartu garbiak (1. kap.) / Eskubide onartu garbiak (1.-5. kap.)) × 100
Azpikontratazioen indizea	(Betebehar onartu garbiak (227. kontzeptua) / Eskubide onartu garbiak (1.-5. kap.)) × 100
Beste ente batzuentzako dirulaguntzetako gastuen indizea	(Beste ente batzuentzako dirulaguntzen betebehar onartu garbiak (42. eta 43. artikuluak) / Eskubide onartu garbiak (1.-5. kap.)) × 100
Funtzionamendu-gastuen indizea	(Betebehar onartu garbiak (1., 2. eta 4. kap.) / Eskubide onartu garbiak (1.-5. kap.)) × 100
Ekitaldiko finantza-karga	(Betebehar onartu garbiak (3. eta 9. kap.) / Eskubide onartu garbiak (1.-5. kap.)) × 100
Biztanleko finantza-karga	Betebehar onartu garbiak (3. eta 9. kap.) / Biztanle kopurua
Finantza-kargaren osaera (interesak)	(Betebehar onartu garbiak (3. kap.) / Betebehar onartu garbiak (3. eta 9. kap.)) × 100
Finantza-kargaren osaera (amortizazioa)	(Betebehar onartu garbiak (9. kap.) / Betebehar onartu garbiak (3. eta 9. kap.)) × 100
Biztanleko gastuak	Betebehar onartu garbiak guztira / Biztanle kopurua
Inbertsio-maila	(Betebehar onartu garbiak (6. kap.) / Betebehar onartu garbiak (1., 2., 3., 4., 6., 7., 8. eta 9. kap.)) × 100
Inbertsio-ahalegina	(Betebehar onartu garbiak (6. eta 7. kap.) / Betebehar onartu garbiak guztira) × 100
Biztanleko guztizko inbertsioa	Betebehar onartu garbiak (6. eta 7. kap.) / Biztanle kopurua
Ordainketak egikaritzea	(Egindako ordainketak / Betebehar onartu garbiak guztira) × 100
2.-6. kapituluetako batez besteko ordainketa-epe globala (egun kopurua)	(Ordaintzeko dauden betebeharrak (2. eta 6. kap.) / Betebehar onartu garbiak (2. eta 6. kap.)) × 365

ZORRAREN AURREKONTU-ADIERAZLEAK	
Zor formalizatuaren indizea	(Zor bizi formalizatua / Eskubide onartu garbiak (1.-5. kap.)) × 100
Zor biziaren indizea	(Zor bizia / Eskubide onartu garbiak (1.-5. kap.)) × 100
Biztanleko zor formalizatua	Zor bizi formalizatua / Biztanle kopurua
Biztanleko zor bizia	Zor bizia / Biztanle kopurua

Iturria: Bizkaia: UDALNET (https://apps.bizkaia.net/UDIT/index.jsp?IDIOMA=E&restringido=false)
Gipuzkoa: UDALGIDA (https://w390w.gipuzkoa.net/WAS/HACI/HUGUdalgidaWEB/indSocio/ultimaSituacion?locale=eu_ES)

TESORERÍA DE LA ENTIDAD LOCAL	Constituyen la Tesorería de la Administración de la Entidad Local **todos los recursos financieros**, sean dinero, valores o créditos de la Entidad, **tanto por operaciones presupuestarias como extrapresupuestarias.**
FUNCIONES	• **Recaudación de derechos**. • **Pago** de obligaciones. • Servir al principio de unidad de caja, **centralizando los fondos** del Ayuntamiento. • **Distribución en el tiempo de las disponibilidades dinerarias**. • **Responder de los avales** contraídos por la Entidad Municipal.
UBICACIÓN DE LOS FONDOS	• **Se pueden concertar servicios financieros de la tesorería con entidades de crédito y ahorro** con la apertura de **cuentas de la siguiente naturaleza**: → Cuentas operativas de ingresos y pagos. → Cuentas restringidas de recaudación. → Cuentas restringidas de pagos. → Cuentas financieras de colocación de excedentes de tesorería. → Cuentas de depósitos y fianzas. • **Asimismo**, las Entidades locales podrán autorizar la existencia de **Cajas de efectivo, para los fondos de las operaciones diarias.**
COMPETENCIA	La **presidencia** de la Corporación y de los organismos autónomos y entidades públicas empresariales, ejercitarán **todas las competencias** relacionadas con la situación de los fondos y valores, recaudación de derechos, pago de obligaciones y demás materias propias de la Tesorería de las entidades locales, en su más amplio sentido, de conformidad con lo dispuesto en las normas presupuestarias. **La disposición de los fondos requerirá, como mínimo, la firma mancomunada de la presidencia de la entidad, de la persona responsable de la tesorería y de la intervención**.
PLANIFICACIÓN	Habrá de realizarse un **PLAN** para determinar las **previsiones de tesorería,** tomando en cuenta los **SIGUIENTES PUNTOS**: • En todo caso, tendrán **preferencia** los **gastos de personal y las obligaciones contraídas en ejercicios anteriores**. • Han de efectuarse tanto **a corto como a medio y largo plazo**. • Es necesario efectuar el **seguimiento** y **analizar desviaciones**. • Han de ser un **elemento** a considerar en la determinación del **calendario fiscal** de la Entidad. • Hay que **romper con la tendencia a afectar cobros a pagos**. • Han de **fijarse plazos de pago que puedan respetarse**. • La **planificación** ha de hacerse teniendo en cuenta **minimizar el coste de las operaciones de tesorería**.

Legislación: NF 3/2004, Presupuestaria de las Entidades Locales del TH de Álava, arts. 51 a 58
NF 10/2003, Presupuestaria de las Entidades Locales del TH de Bizkaia, arts. 51 a 58
NF 21/2003, Presupuestaria de las Entidades Locales del TH de Gipuzkoa, arts. 51 a 58

TOKI-ERAKUNDEAREN DIRUZAINTZA	Toki-erakundeko administrazioaren diruzaintza osatzen dute **finantza-baliabide guztiek**, berdin dio dirutan, baloretan edo kreditutan dauden, **nola aurrekontu-eragiketetatik hala aurrekontuetatik kanpoko eragiketetatik datozenak**.
FUNTZIOAK	• **Eskubideak bildu**. • Betebeharrak **ordaindu**. • Kutxa-batasunaren printzipioa bete, udalaren **funtsak zentralizatuz**. • **Erabilgarri dagoen dirua denboran zehar banatu**. • Udal-erakundeak hartutako **abalen erantzule izan**.
FUNTSEN KOKAPENA	• **Diruzaintzaren finantza-zerbitzuak kreditu- eta aurrezki-erakundeekin itundu daitezke**; horretarako, **honako kontu mota hauek** ireki ahal izango dira: → Diru-sarrera eta ordainketen eragiketa-kontuak. → Diru-bilketaren kontu murriztuak. → Ordainketen kontu murriztuak. → Diruzaintzako soberakinak ezartzeko finantza-kontuak. → Gordailu eta fidantzen kontuak. • **Era berean**, toki-erakundeek **diru-kutxak** egoteko **baimena eman ahalko dute, eguneroko eragiketen funtsetarako**.
ESKUMENA	Udalbatzaren eta erakunde autonomoen zein enpresa-erakunde publikoen **lehendakaritzek** toki-erakundeen diruzaintzaren berezko funtsen eta baloreen egoerarekin, eskubideen bilketarekin, betebeharrak ordaintzearekin eta diruzaintzari dagozkion gainerako gaiekin zerikusia duten **eskumen guztiak** baliatuko dituzte, zentzu zabalenean, aurrekontu-arauetan xedatutakoari jarraikiz. **Funtsak eskuratu ahal izateko, erakundeko lehendakariaren, diruzaintzako arduradunaren eta kontu-hartzailetzaren baterako sinadura beharko da, gutxienez**.
PLANGINTZA	**Diruzaintza-aurreikuspenak** zehazteko **PLAN** bat taxutu beharko da; horretarako, **HONAKO PUNTU HAUEK** hartuko dira aintzat: • Beti, **lehentasuna** izango dute **pertsonal-gastuek eta aurreko ekitaldietan hartutako betebeharrek**. • **Epe laburrera, ertainera zein luzera** egin beharko dira. • Nahitaezkoa da **jarraipena** egitea eta **desbideratzeak** aztertzea. • Erakundearen **zerga-egutegia** zehazteko aintzat hartu beharreko **elementua** izan behar dute. • **Kobrantzak ordainketei lotzeko joera hautsi** behar da. • **Bete daitezkeen ordainketa-epeak finkatu** behar dira. • **Plangintza** egiterakoan, kontuan hartu behar da **diruzaintzako eragiketen kostuak ahalik eta txikiena izan** behar duela.

Legeria: 3/2004 Foru Araua, Arabako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoa, 51.-58. artikuluak
10/2003 Foru Araua, Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoa, 51.-58. artikuluak
21/2003 Foru Araua, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoa, 51.-58. artikuluak

ANTICIPOS DE CAJA FIJA

CONCEPTO	Instrumento que permite realizar al **contado un gasto de escasa cuantía o de carácter repetitivo y periódico.** La provisión de anticipos de caja fija, así como su reintegro, tendrán **carácter extrapresupuestario**. La **aprobación de la cuenta justificativa** producirá **la imputación económica y presupuestaria de los gastos** en ellos incluidos y la **reposición de fondos** al cajero.
CARACTERÍSTICAS	⇒ Se asignan fondos con indicación de las **limitaciones cuantitativas y por razón de objeto del pago**. ⇒ De la dotación inicial se hacen **pagos dentro de los límites autorizados**. ⇒ Con la **periodicidad** que se establezca en la Norma de ejecución presupuestaria, y como mínimo, dentro del mes de diciembre de cada ejercicio, han de **justificarse los pagos efectuados** que serán objeto de la **correspondiente contabilización**. ⇒ Se completa el proceso **reponiendo a la caja los fondos justificados**. ⇒ Se determinarán por una **resolución dictada por la autoridad competente para ordenar pagos** y se **aplicarán inicialmente al concepto no presupuestario que se determine**. ⇒ Los f**ondos no invertidos al final del ejercicio** podrán **utilizarse en el nuevo ejercicio** para **iguales atenciones**. ⇒ Ha de **determinarse dónde han de situarse los fondos** y la **persona, o personas, que puedan disponer** de los mismos. ⇒ Han de **establecerse la forma de contabilidad y control** de las cantidades entregadas en tal concepto.

Legislación: NF 3/2004, Presupuestaria de las Entidades Locales del TH de Álava, art. 43.3
NF 10/2003, Presupuestaria de las Entidades Locales del TH de Bizkaia, art. 43.3
NF 21/2003, Presupuestaria de las Entidades Locales del TH de Gipuzkoa, art. 43.3

KUTXA FINKOKO AURRERAKINAK

KONTZEPTUA	**Zenbateko txikiko gastuak edo aldiro-aldiro errepikatzen direnak eskura ordainduz** egiteko aukera ematen duen tresna. Kutxa finkoko aurrerakinen hornidurak eta itzulketak **aurrekontuz kanpokoak** izango dira. **Justifikazioko kontua onartzeak** berekin ekarriko du hor sartutako **gastuen ekonomia- eta aurrekontu-egozpena** eta kutxazainari **funtsak birjartzea**.
EZAUGARRIAK	⇒ Funtsak esleitzen direnean, **zenbatekoen mugak ezarri behar dira, eta ordainketa-xedea zehaztu**. ⇒ Hasierako zuzkiduratik egiten dira **ordainketak, baimendutako mugen barnean**. ⇒ Aurrekontua betearazteko arauan ezartzen den **aldizkakotasunaz** eta, gutxienez, ekitaldi bakoitzeko abenduan, **egindako ordainketak justifikatu** eta **kontabilizatuko** dira. ⇒ Prozesua burutzeko, **kutxara itzuli behar dira justifikatutako funtsak**. ⇒ **Ordainketak agintzeko eskumena duen agintaritzak emandako ebazpen** baten bidez zehaztuko dira, eta, **hasiera batean, zehaztuko den aurrekontuz kanpoko kontzeptuari aplikatuko zaizkio**. ⇒ **Ekitaldi-bukaeran inbertitu ez diren funtsak hurrengo ekitaldian erabili** ahalko dira, **helburu bererako**. ⇒ **Funtsak non kokatu daitezkeen** eta haiek **erabiltzeko ahalmena duen pertsona edo pertsonak zehaztu** behar dira. ⇒ Kontzeptu horri dagokionez entregatutako kopuruak **kontabilizatzeko eta kontrolatzeko modua ezarri** behar da.

Legeria: 3/2004 Foru Araua, Arabako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoa, 43.3 artikulua
10/2003 Foru Araua, Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoa, 43.3 artikulua
21/2003 Foru Araua, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoa, 43.3 artikulua

XVI.

LURRALDE ANTOLAMENDUA ETA HIRIGINTZA

ORDENACIÓN DEL TERRITORIO Y URBANISMO

Udal Gida - ISBN 978-84-7777-691-8

XVI.

Ordenación del territorio y urbanismo

1. Introducción.
2. Planificación urbanística.
3. Gestión urbanística.
4. Disciplina urbanística.
5. Licencias de actividad clasificada y comunicaciones previas de actividad.
6. Promoción del suelo.
7. Viviendas de Protección Pública (VPP).

XVI.

Lurraldearen antolamendua eta hirigintza

1. Sarrera.
2. Hirigintzako plangintza.
3. Hirigintzaren kudeaketa.
4. Hirigintza-diziplina.
5. Jarduera sailkaturako lizentziak eta jardueraren aurretiko komunikazioak.
6. Lurzoruaren sustapena.
7. Babes Publikoko Etxebizitzak (BPE).

LA ACTUAL CONCEPCIÓN DEL URBANISMO

A partir de la Ley de Suelo de 1956, el núcleo del urbanismo se centró en la regulación de los derechos y obligaciones de los propietarios de suelo: Derecho a apropiarse de la edificabilidad, deber de urbanizar, deber de edificar, deber de cesión de los espacios públicos de la ciudad, deber de cesión de un porcentaje de derechos edificatorios, deber de edificar.

La Ley (Estatal 8/2007) de Suelo cambió el foco, señalando en su exposición de motivos que la iniciativa privada y, en particular, la reserva a la propiedad del suelo, en la actividad de urbanización por parte del urbanismo tradicional, hizo que se perdiera la perspectiva de los derechos constitucionales afectados:

- Participación ciudadana en los asuntos públicos,
- Derecho a la libre empresa,
- Derecho a un medio ambiente adecuado y
- (sobre todo) Derecho a una vivienda digna, adecuada y asequible.

La misma Ley señala que «*la del urbanismo español contemporáneo es una historia desarrollista… pero hoy parece claro que el urbanismo debe responder a los requerimientos de un desarrollo sostenible, minimizando el impacto del crecimiento y apostando por la regeneración de la ciudad existente*».

Por ello, desde las competencias estatales, se impuso con esta Ley a la actividad urbanística un cambio de paradigma. Sin embargo, la renuencia de administraciones y operadores así como la reducción de actividad a consecuencia de los efectos de la crisis financiera, ha determinado que los efectos de este cambio hayan calado en la actividad urbanística de forma tardía y mitigada.

DESARROLLO TERRITORIAL Y URBANO SOSTENIBLE

El Informe Brundtland (ONU, 1987) definió el Desarrollo Sostenible como aquel que satisface las necesidades del presente sin comprometer las necesidades de las futuras generaciones. La concepción actual del desarrollo sostenible, sin perder de vista los efectos a largo plazo, también integra «*el empleo de calidad, la igualdad de oportunidades y la cohesión social*» (art. 2 LES).

En virtud del principio de desarrollo sostenible las políticas públicas de regulación, ordenación, ocupación, transformación y uso del suelo deben propiciar el uso racional de los recursos naturales armonizando los requerimientos de la economía, el empleo, la cohesión social, la igualdad de trato y de oportunidades, la salud y la seguridad de las personas y la protección del medio ambiente.

Asimismo, en el medio urbano se propiciará que esté suficientemente dotado, se ocupe el suelo eficientemente y se combinen los usos de forma funcional, garantizando:

- Movilidad en coste y tiempo razonable, con preferencia del transporte público y colectivo y potenciando los desplazamientos peatonales y en bicicleta.
- Accesibilidad universal.
- Uso eficiente de recursos y de la energía, preferentemente de generación propia, así como la introducción de energías renovables.
- La minimización de residuos urbanos y de la contaminación acústica.

DERECHOS Y DEBERES DEL CIUDADANO

El nuevo modelo antepone los derechos del ciudadano a las expectativas de la propiedad, con el siguiente alcance:

- Acceder y disfrutar de una **vivienda digna**, adecuada, en condiciones asequibles y accesible, libre de ruido e inmisiones contaminantes y en un medio ambiente y paisaje adecuados.
- Acceder a una vivienda digna y adecuada y al disfrute de la misma en condiciones asequibles.
- Acceder a las **dotaciones y equipamientos públicos**.
- Acceder a la **información** y ser informado de los planes, régimen y condiciones urbanísticas.
- **Participar** efectivamente en la elaboración y aprobación de los instrumentos de ordenación urbanística.
- Respetar y contribuir a **preservar el medio ambiente** y el paisaje natural.
- Usar las mejores técnicas disponibles y respetar las condiciones en orden a **minimizar** los efectos de las **actividades molestas**, insalubres, nocivas y peligrosas.
- **Respetar** y usar racionalmente los **bienes de dominio público** y las infraestructuras y servicios urbanos.
- **Respetar** y contribuir a preservar el **paisaje** urbano y el **patrimonio** arquitectónico y cultural.

RÉGIMEN DEL DERECHO DE PROPIEDAD DEL SUELO Y LA VIVIENDA

El derecho de propiedad de los terrenos, las instalaciones, construcciones y edificaciones comporta los siguientes deberes y derechos:

- Destinarlos a usos compatibles con la ordenación territorial y urbanística (régimen estatutario de la propiedad).
- Conservarlos en condiciones adecuadas para dicho uso.
- Realizar obras adicionales por motivos turísticos, culturales o para la mejora de la calidad y sostenibilidad del medio urbano.
- La previsión por la ordenación de edificabilidad, por sí misma, no la integra en el contenido del derecho de propiedad.
- La ejecución de las actuaciones de transformación urbanística no es obligatoria para los propietarios (*participación facultativa*). Por contra, en el caso de las actuaciones sobre el Medio Urbano (Rehabilitación Edificatoria y de Regeneración y Renovación Urbanas, en Euskadi denominadas Declaración de necesidad de Rehabilitación y Área de Regeneración Urbana), el propietario está obligado a contribuir a los costes de la actuación con el límite del deber de conservación (50% del coste de construcción a nuevo de un inmueble de la misma superficie útil y adaptado a la normativa actual).

- En suelo ya urbanizado, deber de completar la urbanización y de edificar en los plazos previstos por el planeamiento.

- En cuanto a la vivienda, destinarla al uso habitacional previsto por el ordenamiento jurídico, en el marco de los instrumentos de ordenación territorial y urbanística, así como de mantenerla, conservarla y rehabilitarla.

Legislación:
Constitución Española (CE), arts. 33, 45 a 47, 128 y 132
Sentencia del Tribunal Constitucional (STC) 37/1987, de 26 de marzo
Ley de Economía Sostenible (LES), art. 2
Texto Refundido de la Ley de Suelo y Rehabilitación Urbana (TRLSR), arts. 2 a 9, 36 y 37
Ley 2/2006 de Suelo y Urbanismo País Vasco (LSU), arts. 3 a 9, 18 a 35 y 189 a 193
Ley 3/2015 de Vivienda (LvV), arts. 1 a 6 y 40 a 43
Ley 12/2023 por el Derecho a la Vivienda (LeV), arts. 1 a 11

HIRIGINTZAREN EGUNGO IKUSMOLDEA

1956. urteko Lurzoruari buruzko Legeaz geroztik, hirigintzaren ardatza lurzoru-jabeen eskubide eta betebeharrak arautzea izan da: eraikigarritasunaz jabetzeko eskubidea, urbanizazio-lanak egiteko betebeharra, eraikitzeko betebeharra, hiriko espazio publikoak lagatzeko betebeharra, eraikitzeko eskubideen ehuneko jakin bat lagatzeko betebeharra, eraikitzeko betebeharra.

Lurzoruari buruzko (Estatuko 8/2007) Legean, ordea, ardatz hori aldatu egin zen; zioen azalpenaren arabera, hirigintza tradizionalean, hirigintza-jarduerako ekimen pribatuaren, eta, bereziki, lurzoruaren jabetza gorde izanaren ondorioz, eraginpeko konstituzio-eskubideen ikuspegia galdu zen:

- Herritarrek gai publikoetan parte hartzeko eskubidea,
- Enpresa librerako eskubidea,
- Behar bezalako ingurumena izateko eskubidea eta
- (batik bat) Etxebizitza duina, egokia eta eskuragarria izateko eskubidea.

Legean bertan xedatzen denez, «*Espainiako hirigintza garaikidearen historia desarrollista da… baina gaur egun argi dago, halaber, hirigintzak garapen iraunkorraren eskakizunei erantzun behar diela, hazkundearen inpaktua ahalik eta gehien gutxituz eta egungo hiria berroneratzearen alde apustu eginez*».

Hori dela eta, estatuko eskumenek Lege horrekin paradigma aldatu zuten hirigintza-jardueran. Hala ere, finantza-krisiaren ondorioz jarduera murriztu zenez eta administrazio eta operadoreak herabe egon direnez, aldaketa horren ondorioak berandu eta motel finkatu dira hirigintza-jardueran.

LURRALDE- ETA HIRIGINTZA-GARAPEN JASANGARRIA

Brundtland txostenaren arabera (NBE, 1987), garapen jasangarria zera da, etorkizuneko belaunaldien premiak arriskuan jarri gabe egungo premiak asetzen dituena. Garapen jasangarriaren egungo ikusmoldeak, epe luzeko ondorioak ahaztu gabe, kontuan hartzen ditu, halaber, «*kalitatezko enplegua, aukera-berdintasuna eta gizarte-kohesioa*» (Ekonomia Jasangarriaren Legea, 2. art.).

Garapen jasangarriaren printzipioari jarraikiz, lurzorua arautzeko, antolatzeko, okupatzeko, eraldatzeko eta erabiltzeko politika publikoek natura-baliabideen zentzuzko erabilera sustatu behar dute, ekonomiaren errekerimenduak, enplegua, gizarte-kohesioa, tratu- eta aukera-berdintasuna, pertsonen osasuna eta segurtasuna eta ingurumenaren babesa uztartuta.

Halaber, hirigunean, behar adina zuzkidura egotea, lurzorua modu eraginkorrean okupatzea eta erabilerak modu funtzionalean uztartzea lortu behar da, honako hauek bermatzearren:

- Mugikortasuna zentzuzko denboran eta zentzuzko kostuarekin, garraio publiko eta kolektiboari lehentasuna emanez, eta joan-etorriak oinez eta bizikletaz egin daitezen sustatuta.
- Irisgarritasun unibertsala.
- Baliabideak eta energia modu efizientean erabiltzea, ahal dela norberak sortutakoa, eta energia berriztagarriak txertatzea.
- Hiri-hondakinak eta kutsadura akustikoa minimizatzea.

HERRITARRAREN ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK

Eredu berriak herritarren eskubideak lehenesten ditu jabetzaren espektatiben gainetik, honako helburu hauekin:

- **Etxebizitza duina**, egokia eta irisgarria eskuratzea eta edukitzea, zaratarik eta immisio kutsatzailerik gabe, eta ingurumen eta paisaia egokiak dituela.
- Etxebizitza duina eta egokia eskuratzea eta arrazoizko baldintzetan gozatzea.
- **Zuzkidura eta ekipamendu publikoak** eskuragarri izatea.
- **Informazioa** eskuragarri izatea eta hirigintza-arloko planen, araubidearen eta baldintzen berri izatea.
- Hirigintza antolatzeko tresnak lantzen eta onartzen modu eraginkorrean **parte hartzea**.
- **Ingurumena** eta paisaia naturala errespetatzea eta hura **zaintzen laguntzea**.
- Eskura dauden teknika onenak erabiltzea eta baldintzak betetzea **jarduera gogaikarri**, osasungaitz, kaltegarri eta arriskutsuen efektuak **minimizatzeko**.
- **Jabari publikoko ondasunak errespetatzea** eta zentzuz erabiltzea, baita hiriko azpiegiturak eta zerbitzuak ere.
- Hiriko **paisaia** eta arkitektura- eta kultura-arloetako **ondarea errespetatzea** eta zaintzen laguntzea.

LURZORUAREN ETA ETXEBIZITZAREN JABETZA-ESKUBIDEAREN ARAUBIDEA

Lursail, instalazio, eraikuntza eta eraikinen jabetza-eskubideak honako betebehar eta eskubide hauek dakartza berekin:

- Haiek lurraldearen eta hirigintzaren antolamenduarekin uztargarriak diren erabileretara bideratzea (jabetzaren estatutu-araubidea).
- Erabilera horretarako baldintza egokietan izatea.
- Obra gehigarriak egitea, turismoarekin edo kulturarekin lotutako arrazoiengatik, edo hiri-ingurunearen kalitatea eta jasangarritasuna hobetzeko.
- Eraikigarritasun-antolamenduan aurreikusteak, bere kabuz, ez du jabetza-eskubidearen edukian txertatzen.
- Hirigintza-eraldaketako jarduketak egikaritzea ez da nahitaezkoa jabeentzat (*aukerako parte-hartzea*). Aitzitik, hiri-ingurunearen gaineko jarduketak direnean (eraikinak birgaitu eta hiria berroneratu eta berritzekoak, Euskal Autonomia Erkidegoan Birgaitzeko premiaren deklarazioa eta Hiri-berroneratzeko eremua deitzen zaienak), jarduketaren kostuak ordaintzen parte hartu beharko du jabeak, kontserbatzeko eginbeharraren mugarekin (azalera erabilgarri berdineko higiezin berri bat, oraingo araudiari egokitua, eraikitzeko kostuaren % 50).
- Jada urbanizatuta dagoen lurzoruan, urbanizazio-lanak osatzeko eta plangintzan aurreikusitako epeen barruan eraikitzeko betebeharra.
- Etxebizitzari dagokionez, ordenamendu juridikoan aurreikusitako bizitegi-erabilerarako erabiltzea, lurralde- eta hirigintza-antolamenduko tresnen esparruan, bai eta hura mantentzea, kontserbatzea eta birgaitzea ere.

Legeria:

Espainiako Konstituzioa (EK), 33., 45.-47., 128. eta 132. artikuluak
Konstituzio Auzitegiaren 37/1987 epaia (KAE), martxoaren 26koa
Ekonomia Jasangarriaren Legea (EJL), 2. artikulua
Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testu bategina (LHBLTB), 2-9., 36. eta 37. artikuluak
2/2006 Legea, EAEko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa (LHL), 3.-9., 18.-35., eta 189.-193. artikuluak
3/2015 Legea, Etxebizitzarena (EL), 1.-6., eta 40-43. artikuluak
12/2023 Legea, Etxebizitzarako Eskubidearen Aldekoa, 1.-11. artikuluak

VIABILIDAD ECONÓMICA FRENTE A SOSTENIBILIDAD ECONÓMICA

CONCEPTO DE VIABILIDAD ECONÓMICA: El modelo urbanístico instaurado con la Ley de Suelo de 1956, obligaba a que la ejecución de los planeamientos reportara a los propietarios beneficios a corto plazo (el valor de los solares edificables resultantes de la actuación debía superar significativamente a los costes de la transformación, incluidas las indemnizaciones por preexistencias) de modo que, cuando la actuación no reportara tal magnitud de beneficios o fuera deficitaria, corría de cuenta de la administración pública.

El modelo, vigente hasta la Ley de Suelo de 2007, era garantista para el propietario y podía ser insostenible para la administración en tanto que, cuando fuera rentable a corto plazo, las plusvalías correspondían a los particulares y cuando no lo fuera los costes correspondían a la administración y, sobre todo, por no considerar los costes de la actuación a medio y largo plazo, que siempre recaían sobre la colectividad.

CONCEPTO DE SOSTENIBILIDAD ECONÓMICA: Con la Ley de Suelo de 2007, el Plan tiene que ser sostenible para las Haciendas Públicas, lo que unido al carácter público de la acción urbanística, a la valoración del suelo sin consideración de expectativas edificatorias (salvo excepciones) y a la intervención privada optativa, configura un nuevo modelo en el que parece no ser preceptiva la viabilidad económica a corto plazo de cada actuación sino que se desplaza este requisito a la viabilidad a largo plazo (sostenibilidad) para las Haciendas Públicas, presentes, a diferencia del propietario, en el conjunto de actuaciones.

Con la Ley 8/2013 de Rehabilitación, Regeneración y Renovación Urbanas (L3R, ahora refundida en el TRLSR), que impone a los propietarios la participación obligatoria, se introduce un concepto novedoso de **viabilidad económica**, referido a las Actuaciones sobre el Medio Urbano (AMU), en virtud del cual la actuación es viable aunque los costes superen a los ingresos siempre que la contribución del propietario no exceda del Deber de Conservación (50% del coste de construcción a nuevo de un inmueble de la misma superficie útil y adaptado a la normativa actual).

No obstante, debe tenerse en cuenta que la falta de sincronización de la normativa ha dado lugar a diversos pronunciamientos judiciales en que continua exigiéndose la antigua viabilidad económica (p.ej. ROJ: STSPV 471/2015 y STS 4284/2014, FJ5, o STS 1405/2016, FJ4).

La sostenibilidad económica:

- Comporta que el ejercicio de la potestad de planeamiento debe ser evaluado en función de la sostenibilidad de la acción urbanística en el tiempo. Así, de acuerdo con este principio, toda actuación de transformación urbanística deberá incluir un **informe o memoria de sostenibilidad económica** (ISE), en el que se ponderará, en particular, el impacto de la actuación en las Haciendas Públicas afectadas por la implantación y el mantenimiento de las infraestructuras necesarias o la puesta en marcha y la prestación de los servicios resultantes, así como la suficiencia y adecuación del suelo destinado a usos productivos.
- Está íntimamente ligada al cálculo de los posibles ingresos (fundamentalmente de origen tributario) y a la determinación de los costes efectivos de los servicios públicos para la conservación de la ciudad y la amortización de las infraestructuras. Los ingresos serán definidos por las Normas Forales de cada Territorio Histórico, mientras que los costes efectivos, contemplarán los costes reales directos, indirectos y los gastos generales asociados conforme a los datos de ejecución de gastos contenidos en la liquidación del prepuesto general municipal correspondiente al ejercicio inmediatamente anterior.

La aprobación de las actuaciones sobre el Medio Urbano requiere, además, de informe específico de sostenibilidad económica acorde con las características de estas actuaciones.

CÁLCULO DE LA SOSTENIBILIDAD ECONÓMICA DEL PLANEAMIENTO

Ingresos públicos - Costes de mantenimiento y de Administración ≥ 0

INGRESOS PÚBLICOS

Ingresos puntuales

ICIO y Tasas de intervención pública.

Incrementos de los patrimonios públicos de suelo.

Ingresos recurrentes

Transferencias por incremento de población.
Transferencias por impuestos cedidos.

IBI (urbana)
IAE
IIVTNU
IVTM
Otros impuestos.

Tasas y Precios públicos.
Cánones o concesiones.

COSTES PARA LAS HACIENDAS PÚBLICAS

Costes puntuales

Obtención de suelo.
Gastos de urbanización imputables a las Haciendas Públicas.
Gastos de edificación, instalaciones y mobiliario.

Costes recurrentes

Costes de mantenimiento de la urbanización y del espacio público.
Coste de explotación de los servicios y equipamientos públicos.
Costes de suministros (agua, energía…).
Reposiciones, averías e imprevistos.

Amortizaciones de las dotaciones, infraestructuras y edificios

Coste de amortización de la urbanización en función de la vida útil máxima de la misma.

- Viales, patios pavimentados, aparcamientos al aire libre y similares (40 años).
- Infraestructuras de transporte sobre raíles, carriles y cable (50 años).
- Parques, instalaciones y servicios (20 años).

Coste de amortización del edificio e instalaciones (75 años).
Coste de amortización de mobiliario y equipos.

En su caso, coste de las políticas públicas que garanticen la suficiencia y adecuación de la tasa de actividad productiva efectiva.

Legislación: Texto Refundido de la Ley de Suelo y Rehabilitación Urbana (TRLSR), arts. 7 y 22
Reglamento de Valoraciones de la Ley de Suelo (RVal) Anexo III
Ley 27/2013, de 27 de diciembre, de racionalización y sostenibilidad de la Administración Local (LRSAL)
Normas Forales Fiscales vinculadas a la estabilidad presupuestaria y sostenibilidad financiera:

- Araba-Álava: Normas Forales 17/2014 y 4/2015
- Bizkaia: Norma Foral 2/2015, Decreto Foral 139/2015 y Orden Foral 1793/2016
- Gipuzkoa: Norma Foral 13/2014

BIDERAGARRITASUN EKONOMIKOA *VERSUS* JASANGARRITASUN EKONOMIKOA

BIDERAGARRITASUN EKONOMIKOAREN KONTZEPTUA 1956ko Lurzoruaren Legeak ezarritako hirigintza-ereduak agintzen zuen plangintzen egikaritzeak epe laburrera onura ekarri behar ziela jabeei (jarduketaren ondorioz sortzen ziren orube eraikigarrien balioak nabarmenki handiagoa izan behar zuen eraldaketa-kostuak baino, lehendik zeudenengatik emandako kalte-ordainak barne) eta, beraz, jarduketak horrelako onurarik ez bazekarren edo defizitarioa baldin bazen, administrazio publikoaren kontura egingo zela.

Eredu hori, 2007ko Lurzoruaren Legera arte egon zen indarrean, berme bat zen jabearentzat, baina administrazioarentzat, aldiz, jasanezina izan zitekeen; izan ere, epe laburrerako errentagarria zenean gainbalioak partikularrentzat ziren, eta ez zenean, kostuak administrazioarenak ziren; horrez gain eta batez ere, epe ertain eta luzeko jarduketa-kostuak ez ziren kontuan hartzen, beti baitzegozkion kolektibitateari.

JASANGARRITASUN EKONOMIKOAREN KONTZEPTUA: 2007ko Lurzoruaren Legea indarrean dagoenetik, Planak jasangarria izan behar du ogasun publikoentzat, eta horri eransten bazaio hirigintzako ekintza publikoa dela, lurzorua eraikuntza-espektatibak kontuan hartu gabe baloratuko dela (salbuespenak salbuespen) eta parte-hartze pribatua aukerakoa dela, eredu berri bat eratu da. Eredu horretan, dirudienez, ez da nahitaezkoa jarduketa bakoitza epe laburrean ekonomikoki bideragarria izatea, baizik ogasun publikoentzat epe luzera bideragarria izateko betekizuna (jasangarritasuna) ezartzen da, jarduketa guztietan baitaude, jabea ez bezala.

8/2013 Legea, Birgaitze, hiri-berroneratze eta -berritzeari buruzkoa (3BL) etorri zen gero (orain Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testu bateginean, LHBLTBn, bildua); lege horrek ezartzen du jabeek nahitaez parte hartu behar dutela, eta **bideragarritasun ekonomikoaren** kontzeptua berritu zuen, Hiri Ingurunearen gaineko Jarduketei (HIJ) buruz; horren arabera, jarduketa bat bideragarria izango da, kostuak sarrerak baino handiagoak izan arren, baldin eta jabearen ekarpena ez bada kontserbatzeko eginbeharra baino handiagoa (azalera berdineko higiezin berri bat, oraingo araudiari egokitua, eraikitzeko kostuaren % 50).

Hala ere, kontuan izan behar da, araudiaren sinkronizazio-ezaren ondorioz, epai batzuetan lehengo bideragarritasun ekonomikoa exijitzen jarraitu dela (adib., Jurisprudentzia Gordailu Ofiziala: 471/2015 EAEJANE eta 4284/2014 EAEJANE, 5. oinarri juridikoa, edo 1405/2016 AGE, 4. oinarri juridikoa).

Jasangarritasun ekonomikoa:

- Esan nahi du plangintza-ahalaren egikaritzea ebaluatzeko hirigintza-ekintzak denboran zehar izango duen jasangarritasuna hartu behar dela aintzat. Hori horrela, printzipio horri jarraikiz, hirigintza eraldatzeko jarduketa orok **jasangarritasun ekonomikoari buruzko txosten edo memoria** bat izan behar du. Txosten horretan baloratuko da, bereziki, zer-nolako inpaktua izango duen ogasun publikoetan jarduketa horretarako behar diren azpiegiturak ezartzeak edo mantentzeak edo sortzen diren zerbitzuak martxan jartzeak, eta, halaber, nahikoa eta egokia den produkzio-erabileretara bideratutako lurzorua.
- Lotura estu-estua du izan daitezkeen diru-sarreren kalkuluarekin (batik bat, zergetatik etorriko direnak), eta hiria kontserbatzeko eta azpiegiturak amortizatzeko zerbitzu publikoen benetako kostuak zehaztearekin. Diru-sarrerak lurralde historiko bakoitzeko foru-arauen bidez zehaztuko dira; aldiz, benetako kostuetan sartuko dira zuzeneko kostu errealak, zeharkakoak eta lotutako gastu orokorrak, betiere aurreko ekitaldiari dagokion udal-aurrekontu orokorraren likidazioan bildutako gastuen egikaritzeari buruzko datuei jarraituz.

Hiri-ingurunearen gaineko jarduketak onartzeko, gainera, jasangarritasun ekonomikoari buruzko txosten espezifiko bat egin behar da, jarduketen ezaugarrien arabera.

PLANGINTZAREN JASANGARRITASUN EKONOMIKOAREN KALKULUA

Diru-sarrera publikoak - Mantentze- eta administrazio-kostuak ≥ 0

DIRU-SARRERA PUBLIKOAK

Diru-sarrera puntualak

Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga (EIOZ) eta esku-hartze publikoaren tasak.

Ondare publiko diren lurzoruen gehikuntzak.

Diru-sarrera errepikatuak

Biztanleria hazteagatiko transferentziak.
Lagatako zergengatiko transferentziak.

Ondasun higiezinen gaineko zerga (hirikoa).
Ekonomia-jardueren gaineko zerga.
Hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zerga.
Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga.
Beste zerga batzuk.

Tasak eta prezio publikoak.
Kanonak edo emakidak.

OGASUN PUBLIKOENTZAKO KOSTUAK

Kostu puntualak

Lurzorua lortzea.
Ogasun publikoei egotz dakizkiekeen urbanizazio-gastuak.
Eraikingintzako, instalazioen eta altzarien gastuak.

Kostu errepikatuak

Urbanizazioa eta espazio publikoa mantentzeko kostuak.
Zerbitzu eta ekipamendu publikoak ustiatzeko kostua.
Hornigaien (ura, energia…) kostuak.
Birjartzeak, matxurak eta ezustekoak.

Zuzkiduren, azpiegituren eta eraikinen amortizazioak

Urbanizazio-lanak amortizatzearen kostua, lanen gehieneko bizitza baliagarriaren arabera.

- Bideak, zolatutako patioak, aire zabaleko aparkalekuak eta haien antzekoak (40 urte).
- Trenbide gaineko, errepidezko eta kable bidezko garraio-azpiegiturak (50 urte).
- Parkeak, instalazioak eta zerbitzuak (20 urte).

Eraikina eta instalazioak amortizatzearen kostua (75 urte).
Altzariak eta ekipoak amortizatzearen kostua.

Hala badagokio, ekoizpen-jarduera eraginkorraren tasa nahikoa eta egokia dela bermatzen duten politika publikoen kostua.

Legeria:

Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testu bategina (LHBLTB), 7. eta 22. artikuluak
Lurzoruari buruzko Legearen Balorazio Erregelamendua, III. eranskina
27/2013 Legea, abenduaren 27koa, Toki-administrazioaren arrazionalizazio eta Iraunkortasunari buruzkoa (TAAIL)
Aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-jasangarritasunaren inguruko foru-arau fiskalak

- Araba-Álava: 17/2014 eta 4/2015 Foru Arauak
- Bizkaia: 2/2015 Foru Araua, 139/2015 Foru Dekretua eta 1793/2016 Foru Agindua
- Gipuzkoa: 13/2014 Foru Araua

ANTECEDENTES

Desde 1956, el carácter desarrollista de la acción urbanística se ha centrado en la expansión de la ciudad, careciendo de herramientas específicas para la intervención en la ciudad existente, y ha incentivado el régimen de tenencia en propiedad, para lo que se ha garantizado la posición del propietario mediante sistemas cerrados de clasificación de suelo (Consolidado y No Consolidado), desarmando a la colectividad para el derecho-obligación a la mejora de la ciudad, al limitarse de facto las intervenciones al fomento (subvenciones, de alcance muy limitado), dada la limitada cuantía del deber de conservación y su escasa exigencia.

La combinación de estos dos aspectos ha dado lugar a la concentración de la oferta en la periferia de las ciudades y a la aceleración de la obsolescencia de la ciudad existente, salvo los espacios centrales que hayan mantenido su competitividad.

Ante esta situación se afronta el concepto de la **sostenibilidad urbana integral**, en 2007 conceptualmente (LS07) y en 2010 con unos primeros pasos (**Ley de Economía Sostenible**, LES), alcanzando a la sostenibilidad.

Así, la sostenibilidad se entiende no solo con la clásica fórmula de satisfacer las necesidades presentes sin hipotecar a las generaciones futuras sino como «*un patrón de crecimiento que concilie el desarrollo económico, social y ambiental en una economía productiva y competitiva, que favorezca el empleo de calidad, la igualdad de oportunidades y la cohesión social, y que garantice el respeto ambiental y el uso racional de los recursos naturales, de forma que permita satisfacer las necesidades de las generaciones presentes sin comprometer las posibilidades de las generaciones futuras para atender sus propias necesidades*» (Ley de Economía Sostenible, LES, 2010).

Pero, también, **sostenibilidad** definida como:

- **Física**: La conservación de lo construido y la integración del factor tiempo.
- **Medioambiental**: La acción de la ocupación del suelo en el medioambiente.
- **Social**: La comprensión del fenómeno urbano como un concepto sociológico más allá de lo puramente físico.
- **Económica**: Como dualidad de una misma moneda, urbanismo y actividad económica y generadora de empleo.

Como respuesta a esta necesidad y a este reto surgen las actuaciones sobre el medio urbano, sobre la ciudad existente que, como norma especial, se superpone sobre los modelos de intervención urbanísticos típicos.

EL MODELO URBANÍSTICO, TRLSR (TRLS + L3R + STC)

Para alcanzar los objetivos del desarrollo urbano sostenible e integrado, **el Texto Refundido de la Ley de Suelo y Rehabilitación Urbana** establece un régimen específico de intervención, de acuerdo con la capacidad y competencias legislativas del Estado (fundamentalmente, de legislación básica sobre bases y coordinación de la planificación general de la actividad económica, así como las condiciones básicas que garantizan la igualdad y la legislación de protección del medio ambiente). Este modelo se caracteriza por:

- Instaurar un régimen de intervención específico y particular, que supera el concepto de la clasificación del suelo e, incluso, la situación básica y los tipos de actuación.
- Incorporar el concepto de sostenibilidad como el eje central de toda intervención urbana, promoviendo la acción integrada entendida como una estrategia administrativa global unitaria.
- Definir la acción urbanística como un modelo flexible de ordenación, intervención y equidistribución de beneficios y cargas.
- Establecer mecanismos flexibles de delimitación de ámbitos de intervención, con una única regla económica.
- Alejarse de estándares y parámetros numéricos físicos concretos como reconocimiento de que cada tejido urbano requiere su solución y articulación concreta.
- Entender que la acción urbana debe ser unitaria, aunando edificios, urbanización, medidas ambientales, sociales y económicas (no hay proceso bifásico, urbanización primero, edificación después).
- Afrontar una nueva realidad socio-económica, en conceptos tales como:
  - → Conservación y caducidad del medio urbano.
  - → Accesibilidad universal.
  - → Eficiencia energética y movilidad.
  - → Consumo de materias primas y residuos.
  - → Integración social.
  - → Comercio y empleo.
  - → Cultura y relaciones sociales.
  - → Servicios públicos vs. privados.
  - → Regulación y cambio del modelo financiero.
  - → Nuevos modelos de administración.
  - → Calidad urbana…
- Superar las rigideces y protecciones de modelos urbanísticos precedentes para posibilitar la recuperación de la ciudad y la calidad de vida sin comprometer las necesidades de las futuras generaciones.

TRASPOSICIÓN A EUSKADI (LvV 3/2015)

Con la **Ley de Vivienda de Euskadi** se configura el derecho a disfrutar de una vivienda y su realización efectiva que facilitan al ser humano llevar una vida digna. Un derecho que no solo se remite al goce de un espacio habitable, de una morada, de un domicilio, sino también el derecho a un entorno y un medio urbano o rural digno y adecuado, entendiendo este como el lugar complejo en el que, además de la vivienda, se ubican los servicios, actividades, equipamientos y demás elementos en los que se desenvuelve la vida personal y comunitaria. De este modo, la rehabilitación de edificios y la regeneración de espacios urbanos y su revitalización económica y social, bajo el prisma del mestizaje de usos urbanísticos (cohesión social), cobran una importancia de primer orden que se plasman en el **Pacto Social por la Vivienda en Euskadi** a través de:

- La reducción de las necesidades de desplazamiento.
- La reducción de la exigencia de consumo de servicios e infraestructuras.
- La menor intervención en el territorio y la ocupación racional del suelo.
- La incentivación del modelo de ciudad compacta frente a la ciudad expansiva, respetando las singularidades propias de cada lugar y de forma armonizada con el entorno.

Así mismo, en las actuaciones sobre la edificación y en los conjuntos urbanos y rurales se definen los mecanismos y técnicas jurídicas necesarias para lograr los objetivos de sostenibilidad urbana integrada del citado Pacto Social, así como para cumplir los derechos y obligaciones sobre las edificaciones que delimita la función social de la propiedad.

DETERMINACIONES ADICIONALES (LeV 12/2023)

Con la **Ley de Vivienda del Estado** la acción pública debe priorizar la atención y la aplicación de los programas de ayuda a aquellas personas, familias y unidades de convivencia que se encuentren en las situaciones de mayor vulnerabilidad social y económica identificadas por los servicios sociales, y en emergencia habitacional por estar afectados por procedimientos de desahucio o lanzamiento de su vivienda habitual, debiéndose promover su adecuado realojo y el acceso a una vivienda digna y adecuada, atendiendo a sus condiciones de vulnerabilidad social y económica, así como a sus circunstancias personales y familiares, reforzando para ello los mecanismos de cooperación con las administraciones territoriales competentes.

Además, deberá asumir el **enfoque territorial de las políticas en materia de vivienda, rehabilitación, regeneración y renovación**, adoptando medidas para atender las necesidades de vivienda tanto en los entornos urbanos y metropolitanos como en el medio rural, en municipios que puedan estar afectados por la despoblación, promoviendo programas específicos con viviendas de alquiler social, asequibles y adecuadas a cada contexto social, económico y territorial.

Deberá tener en cuenta a las personas, familias y unidades de convivencia que viven en asentamientos y barrios altamente **vulnerables y segregados**, ya sea tanto en entornos urbanos como en zonas rurales, a las personas sin hogar, a las personas con discapacidad, a los menores en riesgo de pobreza o exclusión social, a los menores tutelados que dejen de serlo y a cualesquiera otras personas vulnerables que se definan en el momento de la actuación, preferentemente de carácter integrado e intersectorial (especialmente en el ámbito sanitario, social, educativo y de empleo).

Los instrumentos principales de actuación del Estado en política de vivienda serán los **planes estatales en materia de vivienda y en materia de rehabilitación, regeneración y renovación urbana y rural** (que incluirán la planificación plurianual de los mismos).

Legislación: Texto Refundido de la Ley de Suelo y Rehabilitación Urbana (TRLSR)
Ley 8/2013, de 26 de junio, de Rehabilitación, Regeneración y Renovación Urbanas (L3R)
Ley 3/2015 de Vivienda (LvV)
Ley 12/2023 por el Derecho a la Vivienda (LeV), arts.12, 16 y 24

AURREKARIAK

1956az geroztik, hirigintza-jarduketaren izaera desarrollistaren xede nagusia hiria hedatzea izan da, eta ez du tresna zehatzik garatu lehendik zegoen hirian esku hartzeko. Era berean, jabetza-araubidea sustatu du, eta, horretarako, jabearen posizioa bermatu da, lurzorua sailkatzeko sistema itxien bitartez (finkatua eta finkatu gabea); hartara, hiria hobetzeko eskubiderik / betebeharrik gabe utzi du kolektibitatea, berez mugatu baitira sustapenerako esku-hartzeak (dirulaguntzak, oso irismen mugatukoak), zaintza-betebeharraren zenbateko mugatua eta eskakizun urria direla eta.

Bi alderdi horiek uztartuta, hirien kanpoaldean metatu da eskaintza, eta bizkortu egin da lehendik dagoen hiriaren zaharkitzea, beren lehiakortasunari eutsi dioten erdiguneetan izan ezik.

Egoera horri aurre egiteko, **hiri-jasangarritasun integrala** deritzon kontzeptua sortu zen, kontzeptualki 2007. urtean (LL07), eta lehen urratsak 2010. urtean egin zituen, jasangarritasunera iritsita (**Ekonomia Jasangarriaren Legea**, EJL).

Hori horrela dela, jasangarritasuna ez da soilik egungo beharrizanak asetzea etorkizuneko belaunaldien etorkizuna hipotekatu gabe, baizik eta *«hazkunde-eredu jakin bat da; ekonomiaren, gizartearen eta ingurumenaren garapena ekonomia produktibo eta lehiakor batekin uztartuko duen hazkunde-eredua, kalitatezko enplegua, aukera-berdintasuna eta gizarte-kohesioa bultzatuko dituen eredua, eta ingurumena errespetatuko dela eta baliabide naturalak zentzuz erabiliko direla bermatuko duen eredua, egungo belaunaldien beharrizanak asetzeko moduan, baina betiere etorkizuneko belaunaldiek beren beharrizanak asetzeko izango dituzten aukerak arriskuan jarri gabe».* (Ekonomia Jasangarriaren Legea, EJL, 2010).

Baina, era berean, **jasangarritasuna** zera da:

- **Fisikoa**: Eraikitakoa kontserbatzea eta denbora-faktorea txertatzea.
- **Ingurumenekoa**: Lurzoruaren okupazioak ingurumenean duen eragina.
- **Soziala**: Hirigintza-fenomenoa kontzeptu soziologikotzat hartzea, alderdi fisiko hutsa gainditua.
- **Ekonomikoa**: Txanpon beraren bi aldeak: hirigintza eta jarduera ekonomiko enplegu-sortzailea.

Premia eta erronka horiei erantzun nahian, hiri-ingurunean, lehendik baden hirian egiteko jarduketak sortu dira, eta, arau berezia izanik, hirigintzako esku-hartze eredu tipikoei gailentzen zaie.

HIRIGINTZA-EREDUA, LHBLTB (LURZORUARI BURUZKO LEGEAREN TESTU BATEGINA + 3BL + KAE)

Hiri-garapen jasangarri eta integratuaren helburuak betetzeko, **Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testu bateginean** esku hartzeko araubide espezifiko bat ezartzen da, Estatuaren legegintzako ahalmenarekin eta eskumenekin bat etorriz (funtsean, jarduera ekonomikoaren plangintza orokorraren oinarriei eta koordinazioari buruzko oinarrizko legeriari dagokionez, baita berdintasuna bermatzen duten oinarrizko baldintzei eta ingurumena babesteko legeriari dagokionez ere). Eredu horren ezaugarriak honako hauek dira:

- Esku hartzeko araubide espezifiko eta berezia ezartzen du, lurzoruaren sailkapenaren kontzeptua ez ezik, oinarrizko egoera eta jarduteko modalitateak ere gainditzen dituena.
- Jasangarritasunaren kontzeptua txertatzen du hirigintzako esku-hartze ororen ardatz nagusitzat, administrazio-estrategia global bateratutzat hartzen den ekintza integratua sustatuta.
- Hirigintza-ekintza zehazteko garaian, antolamenduko, esku-hartzeko eta onuren eta kargen banaketa orekatua egiteko eredu malgua finkatzen du.
- Mekanismo malguak ezartzen ditu esku hartzeko eremuak mugatzeko, arau ekonomiko bakarrarekin.
- Zenbakizko parametro eta estandar fisiko zehatzetatik urruntzen da, hiri-ehun bakoitzak konponbide eta egituratze zehatza eskatzen duela onartuta.
- Hirigintza-ekintzak bateratua izan behar duela ulertzen da, eraikinak, urbanizazio-lanak eta ingurumenaren, gizartearen zein ekonomiaren arloetako neurriak bat eginda (ez dago prozesu bifasikorik, hots, lehenik urbanizazio-lanak, eta horren ondoren eraikuntza-lanak).
- Errealitate sozioekonomiko berriari aurre egiten dio, honelako kontzeptuen bitartez:
  - → Hiri-ingurunearen kontserbazioa eta iraungitzea.
  - → Irisgarritasun unibertsala.
  - → Energia-efizientzia eta mugikortasuna.
  - → Lehengaien kontsumoa eta hondakinak.
  - → Gizarteratzea.
  - → Merkataritza eta enplegua.
  - → Kultura eta gizarte-harremanak.
  - → Zerbitzu publikoak versus pribatuak.
  - → Finantza-ereduaren erregulazioa eta aldaketa.
  - → Administrazio-eredu berriak.
  - → Hiri-kalitatea…
- Aurreko hirigintza-ereduen zurruntasunak eta babesak gainditzen ditu, hiria eta bizi-kalitatea berreskuratu ahal izateko, baina etorkizuneko belaunaldien beharrizanak arriskuan jarri gabe.

TRANSPOSIZIOA EAE-RA (3/2015 Legea, EL)

EAEko Etxebizitzaren Legearen bidez eratu dira etxebizitza bat izateko eskubidea eta benetan hura baliatzeko aukera, gizakiari bizitza duina emate aldera. Bizitzeko espazio egoki batez, bizileku batez edo egoitza batez gozatzeko eskubideaz gain, inguru eta hiri- edo landa-ingurune egokia izateko eskubidea ere aitortzen du, alegia, etxebizitzaz gain pertsonaren eta erkidegoaren bizitzan behar diren zerbitzu, jarduera, ekipamendu eta gainerakoak dauden leku konplexu hori, izateko eskubidea. Horrela, berebiziko garrantzia hartzen dute eraikinak birgaitzeak eta hiriguneak hobetu eta ekonomikoki eta sozialki suspertzeak, hirigintzako erabileren mestizajearen ikuspuntutik (gizarte-kohesioa). **Etxebizitzaren aldeko Euskadiko Gizarte Itunean** islatzen dira, honako hauen bidez:

- Joan-etorrien premia txikiagotzea.
- Zerbitzu eta azpiegiturak kontsumitzeko eskakizuna gutxitzea.
- Lurraldean gutxiago esku hartzea eta lurzorua modu arrazoizkoan okupatzea.
- Hiri trinkoaren eredua sustatzea hiri hedakorraren ereduaren ordez; toki bakoitzaren berezitasunak errespetatzea eta inguruarekin bat egitea.

Era berean, eraikuntzaren gaineko jarduketetan eta hiri- eta landa-multzoetan, beharrezko mekanismo eta teknika juridikoak zehazten dira, bai Gizarte Ituneko hiri-jasangarritasun integratuko helburuak lortzeko, bai eta jabetzaren funtzio soziala mugatzen duten eraikuntzen gaineko eskubideak eta betebeharrak betetzeko ere.

ZEHAZTAPEN GEHIGARRIAK (Estatuko 12/2023 Legea, Etxebizitzarako Eskubidearen Aldekoa)

Estatuko Etxebizitzaren Legea indarrean jarrita, akzio publikoak lehentasuna eman behar die gizarte-zerbitzuek identifikatutako kalteberatasun sozial eta ekonomiko handieneko egoeretan dauden pertsonei, familiei eta bizikidetza-unitateei, bai eta ohiko etxebizitza utzarazteko edo handik botatzeko prozeduren eraginpean egoteagatik bizitoki-larrialdian daudenei ere. Hartarako, beste bileku bat ematea eta etxebizitza duin eta egokia eskuratzea sustatu behar da, kalteberatasun sozial eta ekonomikoko baldintzei eta inguruabar pertsonal eta familiarrei erreparatuta, eta, horretarako, indartu egin behar dira lurralde-administrazio eskudunekiko lankidetza-mekanismoak.

Gainera, bere gain hartu beharko du **etxebizitzaren, birgaitzearen, berroneratzearen eta berritzearen arloko politiken lurralde-ikuspegia**; era berean, neurriak hartu beharko ditu etxebizitza-premiei erantzuteko hiri- eta metropoli-inguruneetan zein landa-ingurunean, despopulazioaren eraginpean egon daitezkeen udalerrietan, eta programa espezifikoen bidez alokairu sozialeko etxebizitzak sustatu beharko ditu, eskuragarriak eta kasuan kasuko gizarte-, ekonomia- eta lurralde-testuingurura egokituak.

Honako hauek hartu beharko ditu aintzat: oso **kalteberak eta bereiziak** diren kokaleku eta auzoetan bizi diren pertsonak, familiak eta bizikidetza-unitateak, hiri-inguruneetan nahiz landa-eremuetan; etxerik gabeko pertsonak; desgaitasuna duten pertsonak; pobrezia- edo bazterkeria-arriskuan dauden adingabeak; tutoretzapeko adingabe izateari uzten dioten adingabeak, eta jarduketaren unean definitzen den beste edozein pertsona kaltebera, (ahal dela izaera integratuko eta sektorearteko jarduketa, bereziki osasun-, gizarte-, hezkuntza- eta enplegu-eremuan).

Etxebizitza-politikan jarduteko, **etxebizitza-arloko eta hiri- eta landa-birgaitzearen, -berroneratzearen eta -berritzearen arloko estatu-planak** izango ditu tresna nagusi Estatuak (plan horien urte anitzeko plangintza hartuko dute barne).

Legeria:
Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testu bategina (LHBLTB)
8/2013 Legea, ekainaren 26koa, Birgaitzeari eta hiri-berroneratze eta -berrikuntzari buruzkoa (3BL)
3/2015 Legea, Etxebizitzarena (EL)
12/2023 Legea, Etxebizitzarako Eskubidearen Aldekoa, 12., 16. eta 24. artikuluak

OBJETO

La Ley de Rehabilitación, Regeneración y Renovación Urbanas (ahora refundida en el TRLSR) definió **un nuevo modelo de intervención urbanística, un modelo por la ciudad**. Este modelo tiene como **objetivos** la **recuperación económica** y del sector de la construcción, la **integración social** como elemento vertebrador de la trama urbana, el despliegue de los objetivos y directivas europeas en materia de **accesibilidad y eficiencia energética** y la **garantía de la calidad de vida** de sus habitantes. Todo ello en un marco de crisis, «*de contexto desfavorable para la financiación pública, debido a los procesos de estabilización presupuestaria, y también para la financiación privada, por las restricciones en el acceso a los créditos, derivadas de la crisis del sector financiero y del empobrecimiento de muchas familias a consecuencia de los altos niveles de desempleo*».

Por ello, y teniendo presente la complejidad de las actuaciones en el medio urbano, el Texto Refundido de la Ley de Suelo y Rehabilitación Urbana tiene por objeto «*regular las condiciones básicas que garanticen un desarrollo sostenible, competitivo y eficiente del medio urbano, mediante el impulso y el fomento de las actuaciones que conduzcan a la rehabilitación de los edificios y a la regeneración y renovación de los tejidos urbanos existentes, cuando sean necesarias para asegurar a los ciudadanos una adecuada calidad de vida y la efectividad de su derecho a disfrutar de una vivienda digna y adecuada*».

Para ello «*los poderes públicos formularán y desarrollarán en el medio urbano las políticas de su respectiva competencia de acuerdo con los principios de sostenibilidad económica, social y medioambiental, cohesión territorial, eficiencia energética y complejidad funcional*» para:

- El uso residencial en condiciones de habitabilidad, seguridad, accesibilidad, eficiencia energética y de manera socialmente integrada.
- La dinamización económica y social mediante la recuperación del sector de la construcción.
- La hibridación de usos, la mejora de la funcionalidad de las dotaciones y equipamientos públicos y privados para el desarrollo del empleo.
- Garantizar la accesibilidad universal.
- La puesta en valor del turismo y la cultura como mecanismo para la revitalización urbana.
- El ahorro de recursos naturales y energéticos y la reducción de generación de residuos e impactos ambientales.

LAS ACTUACIONES

Las **Actuaciones sobre el Medio Urbano (AMU**) establecen un nuevo régimen jurídico que desborda los conceptos hasta ahora definidos por las anteriores legislaciones y su jurisprudencia. Por tanto, cabe definir estas actuaciones como *aquellas que tienen por objeto realizar obras de **rehabilitación edificatoria**, cuando existan situaciones de insuficiencia o degradación de los requisitos básicos de funcionalidad, seguridad y habitabilidad de las edificaciones, y **de regeneración y renovación urbanas**, cuando afecten, tanto a edificios, como a tejidos urbanos, pudiendo llegar a incluir obras de nueva edificación en sustitución de edificios previamente demolidos.*

Las actuaciones de regeneración y renovación urbanas tendrán, además, carácter integrado cuando articulen medidas sociales, ambientales y económicas enmarcadas en una estrategia administrativa global y unitaria. Cabe la ejecución aislada, aunque las actuaciones de regeneración y renovación urbanas normalmente serán conjuntas. Así mismo, para facilitar su ejecución cabe que sean continuas o discontinuas.

La Ley de Vivienda define **Área de regeneración urbana (ARU)** como**:** *aquel ámbito de intervención sobre el conjunto edificatorio urbano o rural cuya delimitación es aprobada por el Gobierno Vasco a instancia del ayuntamiento correspondiente y que debe ser sometido a una acción especial por parte de la administración pública en atención a las condiciones de necesidad de actualización o adecuación de su patrimonio urbanizado o edificado, así como a las condiciones socioeconómicas de la población a la que va dirigida. En dicho ámbito cabe los siguientes tipos de intervención:*

- ***Regeneración urbana**: Es el proceso de intervención pública que integra los aspectos relacionados con el medio ambiente y las condiciones físicas, urbanas, sociales y económicas y plantea alternativas para mejorar la calidad de vida de la población y las condiciones de la edificación, urbanización y dotaciones de un conjunto urbano o núcleo de población.*
- ***Rehabilitación**: Acción de planificar, gestionar y ejecutar las obras o trabajos de adecuación urbanística, estructural o constructiva de un edificio, incluyendo las medidas precisas para su sostenibilidad, todo ello con el fin de devolverle las condiciones adecuadas al uso para el que se halla calificado. A los efectos de esta ley, la rehabilitación viene siempre referida al patrimonio edificado.*
- ***Renovación de la edificación o reedificación**: Es la acción de sustitución del edificio o patrimonio edificado por otro de nueva construcción.*
- ***Reurbanización**: Es la acción de planificar, gestionar y ejecutar las obras o trabajos de intervención en el suelo urbanizado y que tiene por objeto la adecuación de espacios libres, zonas verdes, viales y redes de infraestructuras.*
- ***Revitalización urbana**: Acción o conjunto de acciones vinculadas a las operaciones de regeneración urbana de un barrio, núcleo o conjunto edificatorio con la adopción de medidas incentivadoras de la actividad comercial, económica y social de este.*

La Ley de Vivienda contempla la **Declaración de Necesidad de Rehabilitación (DNR)***: Adicionalmente a la inclusión en el seno de un área de regeneración urbana o figura urbanística asimilable, los ayuntamientos o, en caso de inactividad de estos, el departamento competente en materia de vivienda del Gobierno Vasco podrá declarar, motivadamente, en estado de necesidad de rehabilitación edificios específicos o conjuntos de ellos.*

CAPA (ARU Y DNR)		ALCANCE			ESTADO (AMU)
		Edificios	Tejido urbano	Medidas sociales, económicas y medioambientales	
Área de regeneración urbana (ARU)	Revitalización urbana	—	—	√	Actuación Integrada de Regeneración y Renovación Urbanas (aMURRi)
	Regeneración urbana	√	√	√	
	Renovación de la edificación o reedificación	√	√	—	Actuación de Regeneración y Renovación Urbanas (aMURR)
	Reurbanización	—	√	—	
	Rehabilitación	√	—	—	Actuación de rehabilitación (aMUr)
Declaración de Necesidad de Rehabilitación (DNR)		√	—	—	

La **medida prioritaria** de estas actuaciones es la eliminación de infravivienda (seguridad, salubridad, habitabilidad, accesibilidad y uso racional de la energía).

SUJETOS OBLIGADOS E INICIATIVA

Los obligados a la realización de las obras derivadas de las actuaciones del medio urbano son:

- Los propietarios y los titulares de derechos de uso.
- Las comunidades de propietarios (asociaciones, sociedades cooperativas, etc.).
- Las agrupaciones de comunidades de propietarios.
- La Administración respecto de la urbanización, cuando no exista el deber legal para los propietarios de asumir su coste en los supuestos de ejecución subsidiaria a costa de los obligados.

Paralelamente los **habilitados para iniciar la ordenación** de las actuaciones podrán ser:

- Las Administraciones Públicas, las entidades públicas adscritas o dependientes de las mismas.
- Los propietarios (las comunidades y agrupaciones de comunidades de propietarios; las cooperativas de vivienda constituidas al efecto; los propietarios de terrenos, construcciones, edificaciones y fincas urbanas; los titulares de derechos reales o de aprovechamiento; y las empresas, entidades o sociedades que intervengan en nombre de cualesquiera de los sujetos anteriores).

Legislación: Texto Refundido de la Ley de Suelo y Rehabilitación Urbana (TRLSR), arts. 8, 9, 10, 14, 17, 19, 22, 24, 31, 32, 33, 42 y 43
Ley 3/2015 de Vivienda (LvV), arts. 3.b), de 3.ñ) a 3.r), y de 42 a 45

XEDEA

Birgaitzeari eta hiri-berroneratze eta -berrikuntzari buruzko Legean (orain LHBLTBn jasoa) **hirigintzan esku hartzeko eredu berri bat zehaztu zen, hiriaren aldeko eredua**. Eredu horren **helburuak** honako hauek dira: **ekonomia** eta eraikuntzaren sektorea **suspertzea**; **gizarteratzea**, hiri-bilbea egituratzen duen elementu den aldetik; Europako helburu eta zuzentarauak hedatzea **irisgarritasunari eta energia-efizientziari** dagokionez; eta biztanleen **bizi-kalitatea bermatzea**. Hori guztia krisialdi-testuinguru batean, «*finantzaketa publikoari dagokionez egoera ez delako inolaz ere positiboa, aurrekontuak egonkortzeko prozesuen ondorioz; horretaz gain, finantzaketa pribaturako ere ez da garai ona, kredituak lortzeko murrizketa handiak baitaude finantza-sektoreko krisialdiaren ondorioz eta langabezia-maila handiagatik familia asko pobretzearen ondorioz*».

Horregatik, eta hiri-inguruneko jarduketak konplexuak izaten direla kontuan izanik, Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testu bategina «*hiri-ingurunearen garapen jasangarri, lehiakor eta efizientea bermatuko duten oinarrizko baldintzak arautzeko da; horretarako, egun dauden hiri-sareak berroneratu eta berritzera eta eraikinak birgaitzera bideratuko gaituzten jarduketak indartu eta sustatu behar dira, ezinbestekoak direnean herritarrei bizi-kalitate egokia eta etxebizitza duina eta egokia izateko eskubidea baliatzeko aukera bermatzeko*».

Ildo horretan, «*botere publikoek, nork bere eskumenaren barruan, dagozkien politikak formulatu eta garatuko dituzte hiri-ingurunean, ekonomia-, gizarte- eta ingurumen-jasangarritasunaren eta lurralde-kohesioaren, energia-efizientziaren eta konplexutasun funtzionalaren printzipioekin bat etorriz*», honako hauek lortzeko:

- Bizitegitarako erabilera, bizigarritasuneko, segurtasuneko, irisgarritasuneko eta energia-efizientziako baldintzetan eta gizartean integratuta.
- Ekonomiaren eta gizartearen dinamizazioa, eraikuntza-sektorea suspertuta.
- Erabilera hibridoak, zuzkidura eta ekipamendu publiko eta pribatuen funtzionaltasuna hobetzea enplegua garatzeko.
- Irisgarritasun unibertsala bermatzea.
- Turismoari eta kulturari balioa ematea, hiria biziberritzeko mekanismo diren aldetik.
- Natura- eta energia-baliabideak aurreztea, eta hondakin nahiz ingurumen-inpaktu gutxiago sortzea.

JARDUKETAK

Hiri Ingurunearen gaineko Jarduketek (HIJ) araubide juridiko berria finkatu dute, aurreko legerietan eta haien jurisprudentzian definitutako kontzeptuak gainditua. Hortaz, hiri-ingurunearen gaineko jarduketak honako hauek dira: batetik, ***eraikinak birgaitzeko*** *obrak egitea xede dutenak, eraikinen funtzionaltasuneko, segurtasuneko eta bizigarritasuneko oinarrizko baldintzetan gabezia- edo degradazio-egoerak gertatzen direnean, eta, bestetik,* ***hiria berroneratzeko eta berritzeko*** *egoerak, eraikinei edo hiri-sareei eragiten dietenean; eraikuntza berriko obrak ere izan daitezke, aldez aurretik eraitsitako eraikinak ordezteko badira.*

Hiria berroneratzeko eta berritzeko jarduketak, gainera, integratuak izango dira, gizartearen, ingurumenaren eta ekonomiaren arloko neurriak uztartzen dituztenean administrazio-estrategia global eta bateratu baten baitan. Egikaritze isolatua gerta daiteke, baina hiria berroneratzeko eta berritzeko jarduketak batera egikaritzen dira, normalean. Gainera, egikaritzea errazteko, jarraituak edo etenkakoak izan daitezke.

Honela definitzen du Etxebizitzaren Legeak **Hiri-berroneratzeko eremua (HBE):** *hiriko edo landako eraikin-multzo bat da, dagokion udalak eskatu eta Eusko Jaurlaritzak onartutako mugaketa duena eta Administrazio publikoaren ekintza berezi bat jaso beharko duena, kontuan hartuta haren ondare urbanizatu edo eraikia eguneratu edo egokitzeko premia eta helburu diren herritarren egoera sozioekonomikoa. Eremu horretan, era hauetako esku-hartzeak egin daitezke:*

- ***Hiri-berroneratzea****: Ingurumenaren eta baldintza fisiko, urbano, sozial eta ekonomikoen inguruko alderdiak integratzen dituen esku-hartze publikoko prozesua da, eta hiriguneko multzo bateko edo biztanlegune bateko biztanleriaren bizi-kalitatea eta eraikinen, urbanizazioaren eta zuzkiduren baldintzak hobetzeko aukerak ematen dituena.*
- ***Birgaitzea****: Eraikin bat hirigintzari, egiturari edo eraikuntzari dagokionez egokitzeko obrak edo lanak planifikatu, kudeatu eta exekutatzeko ekintza da, eraikinaren iraunkortasunerako beharrezko neurriak barne direlarik, kalifikatu zaion erabilerarako baldintza egokietara itzultzeko. Lege horren ondorioetarako, birgaitzeak ondare eraikiari egiten dio beti erreferentzia.*
- ***Eraikina berritzea edo berreraikitzea****: Eraikina edo ondare eraikia eraikuntza berriko beste batekin ordeztea.*

- ***Berrurbanizatzea****: Lurzoru urbanizatuan esku hartzeko obrak edo lanak planifikatu, kudeatu eta exekutatzeko ekintza da, espazio libreak, berdeguneak, bideak eta azpiegitura-sareak egokitzea duena helburu.*
- ***Hiri-biziberritzea****: Auzo, hirigune edo eraikin-multzo bat jarduera komertzial, ekonomiko eta soziala sustatzeko neurrien bidez berroneratzeko eragiketei lotutako ekintza edo ekintza-multzoa da.*

Etxebizitzaren Legeak **Birgaitzeko premiaren deklarazioa (BPD)** aurreikusten du*: Udalek edo, haiek ekin ezean, etxebizitza-arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailak deklaratu ahal izango dute, betiere arrazoituz, birgaitzeko premian daudela eraikin zehatz batzuk edo eraikin-multzo batzuk, hiri-berroneratzeko eremu baten barruan edo hirigintza-figura parekagarri batean sartuta daudenez gain.*

EAE (HBE eta BPD)		NORAINOKOA			EGOERA (HIJ)
		Eraikinak	Hiri-ehuna	Gizartearen, ekonomiaren eta ingurumenaren arloko neurriak	
Hiri-berroneratzeko eremua (HBE)	Hiri-biziberritzea	—	—	√	Hiria berroneratzeko eta berritzeko jarduketa integratua
	Hiri-berroneratzea	√	√	√	
	Eraikina berritzea edo berreraikitzea	√	√	—	Hiria berroneratzeko eta berritzeko jarduketa
	Berrurbanizatzea	—	√	—	
	Birgaitzea	√	—	—	Birgaitzeko jarduketa
Birgaitzeko premiaren deklarazioa (BPD)		√	—	—	

Jarduketa hauen **lehentasunezko neurria** infraetxeak ezabatzea da (segurtasuna, osasungarritasuna, bizigarritasuna, irisgarritasuna eta energiaren zentzuzko erabilera).

BEHARTUTAKO SUBJEKTUAK ETA EKIMENA

Hiri-ingurunearen gaineko jarduketetan sartzen diren obrak egitera **behartuta** daude honako hauek:

- Jabeak eta erabilera-eskubideen titularrak.
- Jabeen erkidegoak (elkarteak, kooperatiba-sozietateak eta abar).
- Jabeen erkidegoen elkarteak.
- Administrazioak, obrek hirigintzaren berezko elementuei eragiten dietenean, baldin eta jabeek ez badute legezko betebeharrik haren kostua beren gain hartzeko behartutakoen kontura egindako egikaritze subsidiarioen kasuetan.

Aldi berean, jarduketen **antolamenduari ekiteko gaitutakoak** honako hauek izan daitezke:

- Administrazio publikoak, eta haiei atxikitako eta haien mendeko entitate publikoak.
- Jabeak (jabe-erkidegoak eta jabe-erkidegoen elkarteak; horretarako eratutako etxebizitza-kooperatibak; lursail, eraikuntza, eraikin eta hiri-finken jabeak; eskubide errealen edo aprobetxamendu-eskubideen titularrak; eta aurreko subjektuetako edozeinen izenean jarduten duten enpresak, erakundeak edo sozietateak).

Legeria: Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testu bategina (LHBLTB), 8., 9., 10., 14., 17., 19., 22., 24., 31., 32., 33., 42. eta 43. artikuluak
3/2015 Legea, Etxebizitzarena (EL), 3.b), 3.ñ) - 3.r) eta 42.-45. artikuluak

REGLAS BÁSICAS PARA LA ORDENACIÓN Y EJECUCIÓN DE LAS ACTUACIONES

En las actuaciones sobre el Medio Urbano o en las intervenciones en la edificación y en los conjuntos urbanos y rurales, la Ley de Vivienda establece una clara diferencia entre las actuaciones que precisen un cambio de ordenación y las que no.

En ambos casos: La delimitación puede ser continua o discontinua (más flexible, capacidad de vincular zonas distantes).

SIN modificación de la ordenación: Basta la delimitación y aprobación en el caso de las conjuntas o la simple identificación y autorización en el caso de las aisladas, a elección del Ayuntamiento.

CON modificación de la ordenación (instrumentos de planeamiento):

- Tramitación: Según la ley urbanística como Plan Especial, con aprobación simultanea o independiente con los mismos efectos que los planes urbanísticos (incluso sobrepasando las determinaciones estructurantes y estructurales de los planes generales).
- Documentación: El acuerdo administrativo mediante el cual se delimiten los ámbitos de actuación conjunta, garantizándose en todo caso el trámite de información al público y las notificaciones requeridas por la legislación aplicable, contendrá, como mínimo, la delimitación espacial que corresponda, acompañada de los siguientes extremos:
  - → Justificación de los fines e intereses públicos que persigue, así como de la necesidad y conveniencia de la propuesta.
  - → Identificación de todos los inmuebles incluidos en el ámbito espacial de aplicación, incluyendo su referencia catastral y su certificación catastral descriptiva y gráfica, así como de sus propietarios y ocupantes legales.
  - → Memoria que justifique la idoneidad técnica y viabilidad económica de la intervención, teniendo en cuenta la proporción de las cargas respecto a los beneficios obtenidos para los propietarios incluidos en el ámbito de actuación.
  - → Avance de la equidistribución entre todos los afectados de los costes derivados de la ejecución de la actuación y de los beneficios imputables a esta, incluyendo entre ellos las ayudas públicas y todos los que permitan generar algún tipo de ingreso vinculado a la operación. La equidistribución tomará como base las cuotas de participación que correspondan a cada uno de los propietarios, así como la participación que, en su caso, corresponda, de conformidad con el acuerdo al que se haya llegado, a las empresas, entidades o sociedades que vayan a intervenir en la operación.
  - → Avance del plan de realojo temporal y definitivo, y de retorno a que dé lugar, en su caso.
  - → Descripción de las actuaciones a realizar, forma de gestión elegida para la actuación y proyectos en su caso necesarios para la ejecución de las obras, de conformidad con la legislación de ordenación territorial y urbanística y calendario de aquellas.

MEMORIA DE VIABILIDAD ECONÓMICA

La delimitación de una **Actuación sobre el Medio Urbano (AMU) y, consecuentemente, de las Áreas de Regeneración Urbana (ARU) y Declaración de Necesidad de Rehabilitación (DNR),** únicamente queda limitada por la viabilidad económica de la misma (comprobación en términos de rentabilidad, de adecuación a los límites del deber legal de conservación (TRLSR, art. 15.1) y de un adecuado equilibrio entre los beneficios y las cargas derivados de la misma, para los propietarios incluidos en su ámbito de actuación (TRLSR, art. 22.5).

Todos los Costes – Todos los Ingresos ≤ ∑ Deber de conservación individual*

* Siendo el deber de conservación individual de cada propietario, el 50% del coste de construcción de un edificio nuevo de la misma superficie útil y adaptado a las exigencias del Código Técnico de la Edificación vigente.

En caso de que el valor de las aportaciones supere la suma de los deberes de conservación individuales se plantean las siguientes **alternativas**: La actuación no es viable y ha de ser redefinida, o la administración cubre el diferencial.

La **memoria de viabilidad económica** de las AMU, ARU y DNR debe contener **obligatoriamente** la justificación de la proporción de las cargas respecto a los beneficios obtenidos para los propietarios incluidos en el ámbito de actuación **y orientativamente** (STS 733/2021 sobre el Antiguo Taller de Artillería del Ministerio de Defensa, en la calle Raimundo Fernández Villaverde de Madrid):

- El estudio comparado de los parámetros existentes y propuestos: edificabilidad, usos y tipologías edificatorias y redes públicas, analizando los posibles ingresos e incrementos de valor, para lograr un mayor acercamiento al equilibrio económico, a la rentabilidad de la operación y a la no superación de los límites del deber legal de conservación.
- Las determinaciones económicas básicas relativas a los valores de repercusión de cada uso urbanístico propuestos, estimación del importe de la inversión, incluyendo, tanto las ayudas públicas, directas e indirectas, como las indemnizaciones correspondientes, así como la identificación del sujeto o sujetos responsables del deber de costear las redes públicas.
- Capacidad de la actuación de generar ingresos suficientes para financiar la mayor parte del coste de la transformación, garantizando el menor impacto posible en el patrimonio personal de los particulares, dentro de los límites del deber legal de conservación.
- El horizonte temporal para garantizar la amortización de las inversiones y la financiación de la operación.
- La evaluación de la capacidad pública necesaria para asegurar la financiación y el mantenimiento de las redes públicas que deban ser financiadas por la Administración, así como su impacto en las correspondientes Haciendas Públicas.

EFECTOS DE LA DELIMITACIÓN DE LOS ÁMBITOS DE GESTIÓN Y EJECUCIÓN DE LAS ACTUACIONES Y LAS FORMAS DE EJECUCIÓN

La **delimitación del ámbito** de una AMU provoca los siguientes efectos:

- Comporta la **declaración de la utilidad pública** o, en su caso, el interés social, a los efectos de la aplicación de los regímenes de expropiación, venta y sustitución forzosas de los bienes y derechos necesarios para su ejecución, además de aquellos otros que expresamente se deriven de lo dispuesto en la legislación aplicable.
- **Legitima la ocupación** de las superficies de espacios libres o de dominio público de titularidad municipal que sean indispensables para la instalación de ascensores u otros elementos para garantizar la accesibilidad universal, siendo la aprobación definitiva causa suficiente para que se establezca una cesión de uso del vuelo por el tiempo en que se mantenga la edificación o, en su caso, su recalificación y desafectación, con enajenación posterior a la comunidad o agrupación de comunidades de propietarios correspondiente, siempre que resulte inviable técnica o económicamente cualquier otra solución y quede garantizada la funcionalidad del dominio público correspondiente.
- Marca el **inicio de las** actuaciones a realizar, de conformidad con la forma de gestión establecida por la Administración actuante.
- Determina la **afección real** directa e inmediata, por determinación legal, de las **fincas** constitutivas de elementos privativos de regímenes de propiedad horizontal o de complejo inmobiliario privado, cualquiera que sea su propietario, al cumplimiento del deber de costear las obras (igual que la afección de las cargas de urbanización).

Para llevar a cabo las determinaciones de la actuación, el Texto Refundido de la Ley de Suelo y Rehabilitación Urbana ha previsto que se puedan adoptar todos los sistemas de gestión que sean precisos y que estén habilitados por la legislación (concertación, cooperación, agente urbanizador y expropiación en el caso de Euskadi), con las novedades y/o singularidades siguientes:

- En la **expropiación**, no será preciso el consentimiento del propietario para pagar el correspondiente justiprecio expropiatorio en especie, cuando el mismo se efectúe dentro del propio ámbito de gestión y dentro del plazo temporal establecido para la terminación de las obras correspondientes.
- En la **ejecución subsidiaria** a cargo de la Administración Pública, ésta sustituirá al titular o titulares del inmueble o inmuebles, asumiendo la facultad de edificar o de rehabilitarlos con cargo a aquéllos.

Legislación: Texto Refundido de la Ley de Suelo y Rehabilitación Urbana (TRLSR), arts. 8, 9, 10, 14, 17, 19, 22, 24, 31, 32, 33, 42 y 43
Ley 3/2015 de Vivienda (LvV), arts. 3.b), de 3.ñ) a 3.r), y de 40 a 51

JARDUKETAK ANTOLATZEKO ETA GAUZATZEKO OINARRIZKO ARAUAK

Hiri-ingurunearen gaineko jarduketei edo eraikuntzen edo hiri- eta landa-multzoen gaineko esku-hartzeei dagokienez, Etxebizitzaren Legeak argi bereizten ditu antolamendua aldatzea eskatzen duten jarduketak eta aldaketarik eskatzen ez dutenak.

Bietan ala bietan: Mugatzea jarraitua edo etena izan daiteke (malguagoa, elkarrengandik urrun dauden guneak lotzeko ahalmena).

Antolamendua aldatu GABE: Nahikoa da mugaketa eta onarpena bateratuen kasuan, edo, bestela, identifikazio eta baimen hutsa isolatuen kasuan, udalaren aukeran.

Antolamendua (plangintzako tresnak) ALDATUTA:

- Izapidetzea: Hirigintza-legearen arabera, Plan Berezi gisa, aldi berean edo modu independentean onartuta, hirigintza-planen ondorio berberak dituztela (plan orokorren zehaztapen egituratzaile eta egiturazkoak ere gaindituta).
- Dokumentuak: Jarduketa bateraturako eremuak mugatzen dituen administrazio-erabakian, edonola ere jendaurreko informazioaren izapidea eta legeria aplikagarriak eskatutako jakinarazpenak bermatuta, gutxienez jaso behar da kasuan kasuko espazio-mugaketa, honako alderdi hauek erantsita:
  - → Lortu nahi dituen xede eta interes publikoen justifikazioa, bai eta proposamena beharrezkoa edo komenigarria den ere.
  - → Aplikagarri den espazio-eremuko higiezin guztien identifikazioa, katastro-erreferentzia eta katastro-ziurtagiri deskribatzailea eta grafikoa, bai eta haien jabe eta legezko okupatzaileena ere.
  - → Esku-hartzearen egokitasun teknikoa eta bideragarritasun ekonomikoa justifikatzen dituen memoria, kontuan hartuta zein den jarduketa-eremuan sartzen diren jabeentzat eskuratutako onuren gainean kargen proportzioa.
  - → Berdinbanaketaren aurrerapena: jarduketak eragiten dien guztien artean banatzea jarduketa exekutatzeak eragindako kostuak, bai eta jarduketaren ondoriozko irabaziak ere, baldin eta jarduketari egotzi ahal bazaizkio, laguntza publikoak eta eragiketarekin loturiko diru-sarreraren bat sortzea ahalbidetzen duten irabaziak barne. Berdinbanaketaren oinarrian jabeetako bakoitzari dagozkion partaidetza-kuotak hartuko dira oinarri, bai eta, hala badagokio, eraginetan esku hartuko duten enpresa, erakunde edo sozietateei dagokien partaidetza ere, lortu den adostasunaren arabera.
  - → Ordezko etxebizitza aldi baterako eta behin betiko emateko planaren aurrerapena, eta, hala badagokio, lehengo bizilekura itzultzekoarena.
  - → Egin beharreko jarduketen, jarduteko hautatutako moduaren eta, hala badagokio, obrak egiteko beharrezkoak diren proiektuen deskribapena, lurralde- eta hirigintza-antolamenduaren legerian ezarritakoaren arabera; halaber, jarduketen egutegia.

BIDERAGARRITASUN EKONOMIKOARI BURUZKO MEMORIA

Hiri Ingurunearen gaineko Jarduketa (HIJ) baten, eta, horrenbestez, hiri-berroneratzeko eremuen (HBE) eta Birgaitzeko premiaren deklarazioaren (BPD) mugaketak jarduketaren bideragarritasun ekonomikoa izango du muga bakartzat (ea bideragarria den errentagarritasunaren aldetik, kontserbatzeko legezko eginbeharraren mugei egokitzearen aldetik (LHBLTB, 15.1 artikulua), eta jarduketa-eremuan sartutako jabeei ekarriko dizkien onura eta kargen arteko oreka egokiaren aldetik (LHBLTB, 22.5 artikulua).

Kostu guztiak – Diru-sarrera guztiak ≤ ∑ Banakako kontserbazio-eginbeharra*

* Jabe bakoitzaren banakako kontserbazio-betebeharra da azalera erabilgarri bereko eta indarreko Eraikingintzaren Kode Teknikoaren eskakizunetara egokitutako eraikin berri bat eraikitzeko kostuaren % 50.

Ekarpenen balioak banakako kontserbazio-betebeharren batura gainditzen badu, honako **aukera** hauek proposatuko dira: Jarduketa ez da bideragarria eta birmoldatu egin behar da, edo administrazioak aldea estali.

HIJ, HBE eta BPDen **bideragarritasun ekonomikoaren memoriak nahitaez** jaso behar du karga-proportzioaren justifikazioa, jarduketa-eremuan sartuta dauden jabeentzat lortutako onurekiko, eta **orientabide gisa** (Auzitegi Gorenaren 733/2021 Epaia, Defentsa Ministerioaren Artilleria Tailer Zaharrari buruzkoa, Madrilgo Raimundo Fernández Villaverde kalean) honako hauek:

- Lehendik dauden hirigintza-parametroen eta proposatutakoen arteko konparazio-azterlana: eraikigarritasuna, eraikinen erabilera nahiz tipologiak eta sare publikoak, izan daitezkeen diru-sarrerak eta balio-handitzeak aztertuta, areago hurbiltzeko oreka ekonomikora, eragiketaren errentagarritasunera eta kontserbatzeko lege-betebeharraren mugak ez gainditzera.
- Proposaturiko hirigintza-erabilera bakoitzaren eraginaren balioei dagozkien oinarrizko zehaztapen ekonomikoak, inbertsioaren gutxi gorabeherako zenbatekoa (zuzenean eta zeharka lortutako laguntza publikoak eta kalte-ordainak barnean hartuta), bai eta sare publikoak ordaintzeko betebeharraren erantzule d(ir)en subjektu(ar)en identifikazioa ere.
- Jarduketak eraldaketaren kostuaren zati handiena ordaintzeko adina diru-sarrera sortzeko duen ahalmena, partikularren ondare pertsonalean ahalik eta inpaktu txikiena eragiten dela bermatuta, eta kontserbatzeko lege-betebeharraren mugen barruan neurtuta.
- Inbertsioen amortizazioa eta eragiketaren finantzaketa bermatzeko zenbat denbora behar izango den.
- Administrazioak finantzatu behar dituen sare publikoen finantzaketa eta mantentzea ziurtatzeko behar izango den ahalmen publikoaren ebaluazioa, bai eta dagozkion ogasun publikoetan izango duen inpaktua ere.

JARDUKETEN KUDEAKETA ETA GAUZATZE-EREMUAK MUGATZEAREN ONDORIOAK ETA EXEKUTATZEKO MODUAK

Hiri Ingurunearen gaineko Jarduketa (HIJ) baten **eremua mugatzeak** ondorio hauek eragiten ditu:

- **Onura publikoaren deklarazioa** dakar berekin, edo, hala badagokio, gizarte-intereseko deklarazioa, jarduketa exekutatzeko beharrezkoak diren eskubide eta ondasunen nahitaezko desjabetze-, salmenta- eta ordezte-araubideak aplikatzearen ondorioetarako, baita legeria aplikagarrian esanbidez xedatutakoaren ondoriozkoak ere.
- Udalarenak diren espazio libreetako edo jabari publikoko eremuen **okupazioa legitimatzen du**, baldin eta beharrezkoak badira igogailuak edo irisgarritasun unibertsala bermatzeko bestelako elementuak jartzeko; behin betiko onespena nahikoa izaten da lurrazaletik gorako espazioaren erabileraren lagapena ezartzeko eraikinak irauten duen bitartean edo, hala badagokio, eraikinaren birkalifikazioa eta desafektazioa ezartzeko, eta, ondoren, dagokion jabe-komunitateari edo jabe-erkidegoen elkarteari besterentzeko, betiere beste konponbiderik ematea ezinezkoa denean teknikoki edo ekonomikoki eta dagokion jabari publikoaren funtzionaltasuna bermatuta geratzen bada.
- Egin beharreko jarduketen **hasiera** dakar, administrazio jarduleak ezarri duen kudeatzeko moduarekin bat etorriz.
- Jabetza horizontaleko araubideko elementu pribatiboak edo higiezin-konplexu pribatua eratzen duten **finken** lege-zehaztapen bidezko zuzeneko eta berehalako **afektazio erreala** dakar, jabea edozein izanik ere, obrak ordaintzeko betebeharra betetzeari dagokionez (hirigintza-kargen afektazioaren berdina izango da).

Jarduketaren zehaztapenak gauzatze aldera, legerian gaituta dauden eta beharrezkoak diren kudeaketa-sistema guztiak (ituntzea, lankidetza, eragile urbanizatzailea eta desjabetzea, EAEren kasuan) ezartzeko aukera aurreikusi da Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testu bateginean, honako berrikuntza eta/edo berezitasun hauekin:

- **Desjabetzean**, ez da beharrezkoa izango jabearen adostasuna desjabetzearen balio justua gauzatan ordaintzeko, baldin eta dena delako administrazioaren kudeaketa-eremuaren barruan eta dagozkion obrak bukatzeko finkatutako epearen barruan egiten bada.
- Administrazio publikoaren kargurako **exekuzio subsidiarioan**, administrazioa higiezin(ar)en titularr(ar)en ordezko izango da, eta eraikitzeko edo birgaitzeko ahalmena hartuko du bere gain, haren/haien kontura.

Legeria: Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testu bategina (LHBLTB), 8., 9., 10., 14., 17., 19., 22., 24., 31., 32., 33., 42. eta 43. artikuluak
3/2015 Legea, Etxebizitzarena (EL), 3.b), 3.ñ) - 3.r) eta 40.-51. artikuluak

OBJETO

TRLSR 15.1: *El derecho de propiedad de los terrenos, las instalaciones, construcciones y edificaciones comprende con carácter general, cualquiera que sea la situación en que se encuentren, los deberes siguientes: a) Dedicarlos a usos que sean compatibles con la ordenación territorial y urbanística. b) Conservarlos en las condiciones legales de seguridad, salubridad, accesibilidad universal, ornato y las demás que exijan las leyes para servir de soporte a dichos usos. c) Realizar las obras adicionales que la Administración ordene por motivos turísticos o culturales, o para la mejora de la calidad y sostenibilidad del medio urbano, hasta donde alcance el deber legal de conservación. En este último caso, las obras podrán consistir en la adecuación a todas o alguna de las exigencias básicas establecidas en el Código Técnico de la Edificación, debiendo fijar la Administración de manera motivada el nivel de calidad que deba ser alcanzado para cada una de ellas.*

Por todo ello, tanto la Ley de Vivienda como el TRLSR (art. 29.1) configuran un instrumento para la acreditación del estado de conservación, el cumplimiento de la normativa de accesibilidad universal y el grado de eficiencia energética, la INSPECCIÓN TÉCNICA DE EDIFICIOS (ITE), cuya competencia es municipal (LvV art. 52.7 y LRBRL art. 25.2.a).

ALCANCE DE LA INSPECCIÓN

La ITE aborda **tres conceptos por edificios completos y con un alcance de inspección mínimo (DITE art. 6.4)**:

- Mediante la identificación, pre diagnosis, clasificación (5 grados) y dictamen, **el Estado de conservación** (estabilidad estructural, seguridad, estanqueidad de la envolvente y de las instalaciones comunes de saneamiento y abastecimiento).
- **Cumplimiento de la normativa de accesibilidad**.
- Información sobre el **Grado de eficiencia energética**.

Se excluye (sin prejuicio de desarrollo mediante ordenanza municipal):

- Instalaciones o elementos de edificios sometidos a revisión o inspección técnica sectorial, tales como ascensores, instalaciones eléctricas, de telecomunicaciones, de calefacción, o de producción de agua caliente sanitaria. Se informará exclusivamente sobre su existencia y composición, así como sobre la posesión de documentación obligatoria tanto administrativa como técnica.

SUJETOS OBLIGADOS

Los **sujetos obligados** a la realización y presentación de la ITE, así como sus posibles subsanaciones son **los propietarios**, las comunidades de propietarios o agrupación de comunidades y con carácter subsidiario y a costa de los obligados, la administración local. Todo ello sin perjuicio de la aplicación de las medidas disciplinarias y sancionadoras que procedan de acuerdo con la normativa urbanística aplicable. Según la STS 73/2022 y de acuerdo con la LOE se establece la reserva de la ITE para arquitectos y arquitectos técnicos.

EDIFICIOS, CONSTRUCCIONES Y RECURRENCIA

Están **sujetos a la presentación** de la ITE:

- Los edificios de uso predominantemente residencial (de uso vivienda) y los edificios asimilados a uso residencial colectivo (no vivienda) (TRLSR art. 29.1, LvV art. 52.1 y DITE art. 2.1).
- Salvo en el caso de los edificios de uso residencial unifamiliar que no tengan fachada a vía o espacio de uso público que lo deberán presentar ante el ayuntamiento a requerimiento de este (DITE art. 11.1).

Están **exentos a la presentación** de la ITE los edificios:

- De uso predominantemente residencial que hubieran sido objeto de una declaración de situación legal de ruina (DITE art. 2.2).
- (En suspenso) los que sean objeto de un procedimiento de declaración de situación legal de ruina en trámite (DITE art. 11.1).

Plazo: para la presentación de la primera ITE: Con carácter general, la presentación de la ITE para los edificios sujetos será obligatoria en el año siguiente al que cumplan una edad superior a 50 años, a contar desde la fecha de finalización de las obras de nueva planta o de la rehabilitación integral del edificio (DITE arts. 2.1, 3.c y 11.1). Así mismo, previo a su solicitud, todos aquellos edificios que quieran acogerse a ayudas del Gobierno Vasco (en materia de conservación, accesibilidad o eficiencia energética).

Recurrencia: 10 años en todos los casos, incluso cuando la presentación anterior se hubiera realizado de forma voluntaria. El plazo de recurrencia computa desde la presentación de la ITE en el registro municipal o desde la presentación del certificado de subsanación de deficiencias en los casos de grados de intervención 1.- Inmediata (24 horas), 2.- Muy urgente (24 horas a 3 meses) y 3.- Urgente (3 meses a 1 año).

Los ayuntamientos mediante ordenanza pueden establecer condiciones más exigentes.

EFECTOS Y EJECUCIÓN FORZOSA

La ITE establece en materia de:

- **Conservación**, 5 grados de intervención, en los grados 1, 2 y 3 deviene en la enervación de los mecanismos de ejecución forzosa de la Ley de Suelo y Urbanismo, art. 203, con carácter debido (LvV art. 52.6, DITE art. 18).

- **Accesibilidad**, la verificación del cumplimiento de las condiciones básicas de accesibilidad universal y no discriminación de las personas con discapacidad para el acceso y utilización del edificio, de acuerdo con la normativa vigente (Decreto 68/2000, OVIV/561/2010 y CTE DB-SUA/2), estableciendo si el edificio es susceptible o no de realizar ajustes razonables (TRLSR art. 2.5 y, en su caso, LPH art. 10.1.b) para satisfacerlas.

- **La calificación de la eficiencia energética del edificio (que no certificación)**, con el contenido y mediante el procedimiento establecido para la misma por la normativa vigente (RD 235-13, Dv226-14).
- La obligatoriedad de **disponer en el plazo máximo de 3 meses desde la presentación de la ITE o del certificado de subsanación, del Plan de Uso y Mantenimiento** de acuerdo con el Decreto 250/2003, de 21 de octubre, por el que se regula el Libro del Edificio destinado a vivienda.

El incumplimiento de cualquiera de los deberes (presentación de la ITE en forma y plazo, la ejecución de las obras precisas, así como la presentación del certificado de subsanación de deficiencias) desplegará las acciones y determinaciones de ejecución forzosa señalados en el artículo 203 de la Ley de Suelo y Urbanismo y en los artículos 97 y siguientes de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del procedimiento administrativo común de las administraciones públicas.

Presentada tanto la ITE como la certificación de subsanación de deficiencias en su caso, el Ayuntamiento procederá a su registro en el Registro de Inspección Técnica de Edificios de la CAPV (EuskoRegite), todo ello de acuerdo con los formatos y procedimiento señalados en el DITE art. 15.

Legislación: Texto Refundido de la Ley de Suelo y Rehabilitación Urbana (TRLSR), art. 29.1
Ley 3/2015 de Vivienda (LvV), arts. 52, 83.m), 84.t), 84.y)
Ley 2/2006 de Suelo y Urbanismo País Vasco (LSU), art. 203
Decreto 117/2018, de 24 de julio, de la inspección técnica de los edificios en la Comunidad Autónoma del País Vasco (DITE)

XEDEA

LHBLTB, 15.1 artikulua: *Lurren, instalazioen, eraikuntzen eta eraikinen jabetza-eskubideak, haien egoera edozein izanik ere, oro har honako eginbehar hauek hartzen ditu barne: a) Lurralde- eta hirigintza-antolamenduarekin bateragarri diren erabileretara bideratzea. b) Segurtasun, osasungarritasun, irisgarritasun unibertsal eta apaintasuneko legezko baldintzetan eta legeek erabilera horien euskarri izateko eskatzen dituzten gainerakoetan edukitzea. c) Administrazioak turismo- edo kultura-arrazoiz edo hiri-ingurunearen kalitatea edo jasangarritasuna hobetzeko agintzen dituen lan gehigarriak egitea, kontserbatzeko legezko betebeharra iristen den punturaino. Azken kasu horretan, Eraikingintzaren Kode Teknikoan ezarritako oinarrizko eskakizunetako batzuetara edo guztietara egokitzea izan ahalko dira lan horiek, eta Administrazioak ezarri beharko du bakoitzean lortu beharreko kalitate-maila, arrazoituta betiere.*

Horregatik guztiagatik, hala Etxebizitzaren Legean, nola LHBLTBn (29.1 artikulua) tresna bat xedatu dute, hain zuzen, kontserbazio-egoera egiaztatzeko, irisgarritasun unibertsala betetzen ote den zaintzeko eta energia-efizientziaren maila begiratzeko: ERAIKINEN IKUSKAPEN TEKNIKOA (EIT). Udalari dagokio azterketa horren eskumena (Etxebizitzaren Legea, 52.7 artikulua, eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legea, 25.2.a artikulua).

IKUSKAPENAREN NORAINOKOA

Eraikuntzen ikuskapen teknikoak **hiru kontzeptu jorratzen ditu eraikin osoetan, gutxieneko ikuskapen-norainokoari jarraikiz (EIT Dekretua, 6.4 artikulua**):

- Identifikazioa, aurretiko diagnostikoa, sailkapena (bost maila) eta irizpena eginez, **kontserbazio-egoera** (egituraren egonkortasuna, segurtasuna, inguratzailearen eta saneamendu-instalazio komunen estankotasuna eta hornidura).
- **Irisgarritasunari buruzko araudia betetzea**.
- **Energia-efizientziaren mailari** buruzko informazioa.

Ez dira sartzen (udal-ordenantza bidez garatzeko aukera alde batera utzi gabe):

- Azterketa edo ikuskapen teknikoa sektore-araudi espezifiko baten arabera egin behar duten eraikineko instalazio edo elementuak; hala nola, igogailuak, instalazio elektrikoak, telekomunikazio-instalazioak, berokuntzakoak, eta ur bero sanitarioa ematekoa. Halakoen existentziaren eta osaeraren berri baino ez da eman behar, eta nahitaezko dokumentazio administratiboa zein teknikoa dagoen ala ez jakinarazi.

BEHARTUTAKO SUBJEKTUAK

Eraikinen **jabeak**, jabe-erkidegoak eta jabe-erkidegoen elkarteak dira eraikinen ikuskapen teknikoa egitera eta aurkeztera **behartuta dauden subjektuak**, baita egin beharreko zuzenketak egitera ere; eta toki-administrazioa, subsidarioki eta behartutakoen kontura. Hori guztia dagozkion diziplina- eta zehapen-neurriak aplikatzea alde batera utzi gabe, betiere aplikatu beharreko hirigintza-araudiari jarraikiz. 73/2022 AGEren arabera, eta LOEren arabera, arkitektoek eta arkitekto teknikoek baino ezingo dute EIT azterketa gauzatu.

ERAIKINAK, ERAIKUNTZAK ETA ERREPIKAPENA

EIT **aurkezteko betebeharra dutenak** honako hauek dira:

- Nagusiki bizitegi-erabilera (etxebizitza-erabilera) duten eraikinak eta bizitegi-erabilera kolektiboaren parekoa duten eraikinak (ez etxebizitza) (LHBLTB, 29.1 artikulua; Etxebizitzaren Legea (EL), 52.1 artikulua eta EIT Dekretua, 2.1 artikulua).
- Familia bakarreko bizitegi-erabilera duten eraikinetan, ordea, fatxadak bidera ematen ez badu edo erabilera publikoko espaziorik ez badute, udalean aurkeztu beharko dute, hark eskatuta (EIT Dekretua, 11.1 artikulua).

EIT **aurkezteko betebeharrik ez dute** honako eraikin hauek:

- Nagusiki bizitegi-erabilera duten eta legezko aurri-egoeraren deklarazioa duten eraikinak (EIT Dekretua, 2.2 artikulua).
- (Etenda) izapidetzen ari den legezko aurri-egoera deklaratzeko prozedura baten gai diren direnak (EIT Dekretua, 11.1 artikulua).

Epea: lehenengo EIT aurkezteko: Oro har, EIT aurkeztea nahitaezkoa izango da behartutako eraikinentzat, 50 urtetik gora bete eta hurrengo urtearen barruan, oin berriko obrak edo eraikina guztiz berrizteko obrak amaitu ziren datatik hasita (EIT Dekretua, 2.1, 3.c, eta 11.1 artikuluak). Era berean, Eusko Jaurlaritzak ematen dituen laguntzak (kontserbazioarekin, irisgarritasunarekin edo energia-efizientziarekin lotuta) eskatu nahi dituzten eraikin guztiek, eskaera egin aurretik aurkeztu beharko dute EIT.

Errepikatzeko epea: 10 urte, kasu guztietan, baita aurreko aurkezpena beren borondatez egin bazuten ere. Errepikatzeko epea zenbatzen hasiko da EIT udal-erregistroan aurkezten denean edo akatsak zuzendu izanaren ziurtagiria aurkezten denean, esku-hartzeen honako maila hauen kasuan: 1.- Berehalakoa (24 ordu), 2.- Oso premiazkoa (24 ordu-3 hilabete) eta 3.- Premiazkoa (3 hilabete-1 urte).

Udalek neurri zorrotzagoak ezarri ahal izango dituzte, ordenantza bidez.

ONDORIOAK ETA NAHITAEZ EGIKARITZEA

EITk honako hau ezartzen du:

- **Kontserbazioaren** arloan, esku-hartzeen bost maila bereizi dira; 1., 2. eta 3. mailetan, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legearen 203. artikuluan aipatzen diren nahitaez egikaritzeko mekanismoak ezerezean uzten dira, derrigorrezko izaeraz (EL, 52.6 artikulua; EIT Dekretua, 18. artikulua).
- **Irisgarritasunaren** arloan, eraikinerako sarbideari eta erabilerari dagokienez, desgaitasunen bat dutenen diskriminaziorik ezaren eta irisgarritasun unibertsalaren oinarrizko baldintzak betetzen ote diren egiaztatu behar da, indarreko araudiari jarraikiz (68/2000 Dekretua, VIV/561/2010 Agindua eta EKT Erabileraren Segurtasuna eta Irisgarritasuna-Oinarrizko Dokumentua/2), eta, baldintza horiek betetzearren, eraikinean arrazoizko egokitzapenak egin behar ote diren ere zehaztu behar da (LHBLTB, 2.5 artikulua, eta, hala badagokio, JHL, 10.1.b art.).
- **Eraikinaren energia-efizientziaren kalifikazioa (ez ziurtapena)**, indarreko araudian horretarako xedatutako prozeduraren bitartez eta xedatutako edukiarekin (235-13 ED eta 226/2014 Dekretua).
- **EIT edo zuzenketa-ziurtagiria aurkezten denetik gehienez ere hiru hilabeteko epean nahitaez eduki behar da Erabilera eta Mantentze Plana**, Etxebizitzarako Eraikinaren Liburua arautzen duen urriaren 21eko 250/2003 Dekretuan ezarritakoari jarraikiz.

Eginbeharretakoren bat betetzen ez bada (EIT behar den moduan eta epean aurkeztea, egin beharreko obrak egikaritzea, akatsak zuzendu izanaren ziurtagiria aurkeztea), nahitaez betearazteko zehaztapenak eta ekintzak aplikatuko dira, hain zuzen Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legearen 203. artikuluan eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 97. artikuluan eta hurrengoetan aipatzen direnak.

Eraikinen Ikuskapen Teknikoa bera eta, halakorik badago, akatsak, zuzendu izanaren ziurtagiria aurkeztutakoan, Udalak EAEko Eraikinen Ikuskapen Teknikoen Erregistroan erregistratuko ditu (EuskoRegite), betiere EIT Dekretuaren 15. artikuluan jasotako formatuen eta prozeduren arabera.

Legeria:

Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testu bategina (LHBLTB), 29.1 artikulua
3/2015 Legea, Etxebizitzarena (EL), 52, 83.m), 84.t) eta 84.y) artikuluak
2/2006 Legea, EAEko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa (LHL), 203. artikulua
117/2018 Dekretua, uztailaren 24koa, Euskal Autonomia Erkidegoko eraikinen ikuskapen teknikoarena (EIT Dekretua)

OBJETIVOS

- **Desarrollo socioeconómico equilibrado** de las regiones y mejora de la calidad de vida, con eliminación de las grandes diferencias existentes entre los sectores de la población, para lo que se definirán los usos aceptables o potenciables para la consecución de las infraestructuras necesarias precisas, el acceso de la población a los equipamientos, la gestión de los recursos naturales y la protección del medio ambiente.
- **Adecuar** el crecimiento a las **previsiones de crecimiento poblacional**.
- Permitir el **cumplimiento** de los **programas públicos de vivienda**.
- El derecho de todos al disfrute del patrimonio cultural.
- Evitar la especulación de suelo.
- Suficiencia del suelo destinado a usos productivos, pudiendo destinarse suelo a la implantación de actividades económicas de fomento o interés público.

ESTÁNDARES URBANÍSTICOS

Se entiende por estándar urbanístico la determinación legal o reglamentaria referida a dotaciones, equipamientos, límites de edificabilidad, edificabilidad protegida o alojamientos dotacionales que resulta vinculante e irreductible para el planeamiento urbanístico.

Estándar de los instrumentos de ordenación estructural: Espacios libres y parques urbanos de titularidad pública a razón de 5 m^2 de superficie por habitante previsto (o por cada 25 m^2 construidos de uso residencial).

Estándar de los instrumentos de ordenación pormenorizada : Espacios

	Unidades	Uso Predominante Residencial		Otros usos	
		Urbanizable	**No Consolidado**	**Urbanizable**	**No Consolidado**
Edificabilidad Máxima	m^2t/m^2s	**1,3** (Mun ≤ 7.000 h: 1,1)	**2,3** (ampliable excepc)	—	—
Edificabilidad Mínima		**0,4** m^2t/m^2s(Pend≥15%: 0,3)		**30%** de ocupación	
VPS (municipios > 3.000 hab y…)	m^2t	55%	20%	—	—
VPP (municipios > 3.000 hab y…), incluida VPS		75%	40%	—	—
Reserva de VPP en alquiler de todas las VPP de la actuación	%	>50%			
Alojamientos dotacionales (municipios > 20000)	$m^2s/100\ m^2t$ resid.	1,5		—	—
Zonas Verdes	% de superficie	15%	15%	6%	6%
Otras Dotaciones Públicas		**0,4** m^2s/m^2tsru (incl. ZV)		**0,2** m^2s-t/ m^2tsru	**12%** ocup. (incl. ZV) / -
Aparcamiento en parcela privada	plazas / 100 m^2tsru	1,4	1,4	—	Terciario: 1,4 Resto: 0
Aparcamiento uso público		0,6	—	—	—
Equipamiento privado	m^2t/m^2tsru	0,038	—	—	—
Arbolado	Árbol	Vivienda		100 m^2t Industrial o Terciario	
Fondo negro= sobre incremento					

En las Actuaciones de Regeneración Urbana definidas en la LvV puede haber exención de estándares (LvV arts. 43.5 y 49.4).

INICIATIVA DE LOS PARTICULARES

La ordenación territorial y urbanística son funciones públicas no susceptibles de transacción.

La legislación garantiza la dirección y control por las administraciones del proceso urbanístico en sus fases de ocupación, urbanización, construcción o edificación y utilización del suelo.

La falta de aprobación en plazo de los instrumentos de ordenación de iniciativa particular implica su desestimación, excepto en el caso de los planes de sectorización (Ley de Suelo y Urbanismo, art. 93.4).

VINCULACIÓN AL SUELO Y A LAS EDIFICACIONES

La ordenación territorial y urbanística determinan las facultades y deberes del derecho de propiedad del suelo conforme a su destino, sin derecho a indemnización, salvo en los casos expresamente previstos.

El suelo queda vinculado a los destinos previstos en la ordenación, debiendo dedicarse los terrenos, las instalaciones, construcciones y edificaciones a usos compatibles con la ordenación urbanística.

Legislación:
Ley 4/1990 de Ordenación del Territorio del País Vasco
Decreto 128/2019, de 30 de julio, por el que se aprueban definitivamente las Directrices de Ordenación Territorial de la Comunidad Autónoma del País Vasco, en lo relativo a la cuantificación residencial
Texto Refundido de la Ley de Suelo y Rehabilitación Urbana (TRLSR), arts. 4, 11, 15, 16, 20 y 22
Ley 2/2006 de Suelo y Urbanismo País Vasco (LSU), arts. 4, 14, 73 a 83, 93, 95 y 98
Decreto 123/2012 de estándares urbanísticos
Ley 12/2023 por el Derecho a la Vivienda (LeV), art. 15.1.d
Decreto 46/2020, de 24 de marzo, de regulación de los procedimientos de aprobación de los planes de ordenación del territorio y de los instrumentos de ordenación urbanística
Ley 3/2015 de Vivienda (LvV), arts. 3.a), 3.c), 7.4), 19 a 24, 43.5, 49.4, DT4, DF7 y DF8

HELBURUAK

- Eskualdeen **garapen sozioekonomiko orekatua** eta bizitza-kalitatearen hobekuntza, biztanle sektoreen artean dauden alde handiak deuseztatuz; horretarako, erabilera onargarri eta bultzagarriak zehaztu behar dira, beharrezko azpiegiturak lortzeko, herritarrei ekipamenduetarako sarbidea eskaintzeko, natura-baliabideak kudeatzeko eta ingurumena zaintzeko.

- Hazkundea **aurreikusitako biztanle-hazkundearen** arabera **egokitzea**.
- **Etxebizitza-programa publikoak bete daitezen** ahalbidetzea.
- Kultura-ondareaz baliatzeko eskubidea guztiok izatea.
- Lurzoruaren espekulazioa saihestea.
- Produkzio-erabileretara bideratutako lurzorua behar adinakoa izatea; sustapen edo interes publikoko jarduera ekonomikoak ezartzera bidera daiteke lurzorua.

HIRIGINTZAKO ESTANDARRAK

Hirigintzako estandartzat ulertuko da zuzkidurei, ekipamenduei, eraikigarritasun-mugei, eraikigarritasun babestuari edo zuzkidura-bizitokiei buruzko legezko xedapena, hirigintza-plangintzarako loteslea eta murrizgaitza dena.

Egiturazko antolamenduko tresnen estandarra: Titulartasun publikoko espazio libre eta hiri-parkeak, 5 m²-ko azalera aurreikusitako biztanle bakoitzeko (edo bizitegi-erabilerarako eraikitako 25 m² bakoitzeko).

Antolamendu xehatuko tresnen estandarra: Espazioak

	Unitateak	Nagusiki bizitegi-erabilera		Beste erabilera batzuk	
		Urbanizagarria	**Finkatugabea**	**Urbanizagarria**	**Finkatugabea**
Gehieneko eraikigarritasuna	m²sabai/m²orube	**1,3** (≤ 7.000 biztanleko udalerriak: 1,1)	**2,3** (handitu daiteke salbuespenez)	—	—
Gutxieneko eraikigarritasuna		**0,4** m²sabai/m²orube (malda≥% 15: 0,3)		okupazioa **% 30**	
GBE (udalerriak > 3000 bizt. eta…)	m²sabai	% 55	% 20	—	—
BPE (udalerriak > 3000 bizt. eta…), GBE barne		% 75	% 40	—	—
Alokairuko BPEen erreserba, jarduketako BPE guztien gainean	%	>% 50			
Zuzkidura-bizitokiak (udalerriak > 20000)	m²orube/100 m²sabai bizit.	1,5		—	—
Berdeguneak	azaleraren %-a	% 15	% 15	% 6	% 6
Beste zuzkidura publiko batzuk		**0,4** m²orube hirigintza-eraikigarritasuneko sestraren gainean eraikitako m²sabaiko (berdeguneak barne)		**0,2** m² lurzoru-sabai hirigintza-eraikigarritasuneko sestraren gainean eraikitako m²sabaiko	Okup. **% 12** (berdeguneak barne) —
Aparkalekuak lurzati pribatuan	plazak hirigintza-eraikigarritasuneko sestraren gainean eraikitako 100 m²sabaiko	1,4	1.4	—	Hirugarren sektorea: 1,4 Gainerakoa: 0
Erabilera publikoko aparkalekuak		0,6	—	—	—
Ekipamendu pribatua	m² sabai hirigintza-eraikigarritasuneko sestraren gainean eraikitako m² sabaiko	0,038	—	—	—
Arbolak	Zuhaitza	Etxebizitza		100 m²sabai Industria edo Hirugarren sektorea	
Atzealde beltza= hazkundearen gainean					

Etxebizitzaren Legean zehaztutako hiria berroneratzeko jarduketetan estandarrak salbuetsi daitezke (EL, 43.5 eta 49.4. artikuluak).

PARTIKULARREN EKIMENA

Lurralde-antolamendua eta hirigintza-antolamendua transakziorik onartzen ez duten funtzio publikoak dira.

Legeriak bermatu egiten du administrazioak zuzentzen eta kontrolatzen duela hirigintza-prozesua, lurzorua okupatu, urbanizatu, eraikuntzak zein eraikinak egin eta erabiltzeko faseetan.

Partikularren ekimenezko antolamendu-tresnak dagokien epean onartzen ez badira, ezetsi egin direla esan nahiko du, sektorizazio-planen kasuan izan ezik (Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legea, 93.4 artikulua).

LURZORUARI ETA ERAIKINEI ATXIKITZEA

Lurralde- eta hirigintza-antolamenduan xedatzen dira lurzoruaren gaineko jabetza-eskubideak dakartzan ahalmen eta betebeharrak, betiere xedearen arabera eta kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik gabe, espresuki aurreikusten diren kasuetan izan ezik.

Lurzorua antolamenduan aurreikusitako erabilerei atxikia geratzen da, eta lursail, instalazio, eraikuntza eta eraikinak hirigintza-antolamenduarekin bateragarriak diren erabileretarako baliatu behar dira.

Legeria:

4/1990 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-antolamenduari buruzkoa
128/2019 Dekretua, uztailaren 30ekoa, zeinaren bidez behin betiko onartzen baitira Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak, bizitegi-kuantifikazioari dagokionez
Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testu bategina (LHBLTB), 4., 11., 15., 16., 20. eta 22. artikuluak
2/2006 Legea, EAEko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa (LHL), 4., 14., 73.-83., 93., 95. eta 98. artikuluak
123/2012 Dekretua, Hirigintzako estandarrei buruzkoa
12/2023 Legea, Etxebizitzarako Eskubidearen Aldekoa, 15.1.d artikulua
46/2020 Dekretua, martxoaren 24koa, Lurralde-antolamenduko planak eta hirigintza-antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituena
3/2015 Legea, Etxebizitzarena (EL), 3.a), 3.c), 7.4), 19.-24., 43.5, eta 49.4 artikuluak, 4. xedapen iragankorra, azken xedapenetako 7. eta 8.a

LA ORDENACIÓN DEL TERRITORIO Y EL PLANEAMIENTO URBANÍSTICO

Las determinaciones de la ordenación del territorio prevalecen sobre el planeamiento urbanístico.

La promulgación de un Plan Territorial Parcial determina la automática incoación de un procedimiento de revisión o modificación para integrar sus determinaciones incompatibles.

El planeamiento urbanístico debe ser interpretado en la forma más favorable a la más plena e inmediata efectividad de los instrumentos de ordenación del territorio.

Las obras públicas previstas en los Planes Territoriales Sectoriales que tengan marcado carácter territorial, a juicio de la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco, no estarán sometidas a los actos de control preventivo municipal.

La Ordenación del Territorio incide severamente en la capacidad de planificación municipal tanto por la apuntada superioridad jurídica de sus instrumentos como, sobre todo, por el carácter expansivo de sus determinaciones que, en algunos casos, establecen determinaciones de ordenación muy detalladas.

INSTRUMENTOS

- **Directrices de Ordenación del Territorio** (DOT) que delimitan las Áreas Funcionales en que se divide la CAPV.
- **Planes Territoriales Parciales** (PTP) que desarrollan las DOT en el ámbito del Área Funcional a que se refieren.
- **Planes Territoriales Sectoriales** (PTS) que son los planes de los Departamentos del Gobierno Vasco o de los Órganos Forales de los Territorios Históricos con incidencia territorial.
- Las contradicciones de los Planes Territoriales Sectoriales con las Directrices de Ordenación del Territorio o un Plan Territorial Parcial, determinan la nulidad del Plan Territorial Sectorial, salvo el Plan General de Carreteras del País Vasco que obligará a la adaptación de los Planes Territoriales Parciales al mismo.

Los instrumentos aprobados y en tramitación pueden consultarse en la página web de Planificación Territorial y Agenda Urbana del Gobierno Vasco (en el momento de edición de esta guía:
https://www.euskadi.eus/gobierno-vasco/planificacion-territorial-agenda-urbana/)

Legislación:
Ley 4/1990 de Ordenación del Territorio del País Vasco
Decreto 128/2019, de 30 de julio, por el que se aprueban definitivamente las Directrices de Ordenación Territorial de la Comunidad Autónoma del País Vasco, en lo relativo a la cuantificación residencial
Decreto 46/2020, de 24 de marzo, de regulación de los procedimientos de aprobación de los planes de ordenación del territorio y de los instrumentos de ordenación urbanística
Texto Refundido de la Ley de Suelo y Rehabilitación Urbana (TRLSR), arts. 3, 4, 5 y 7
Ley 2/2006 de Suelo y Urbanismo País Vasco (LSU), art. 52
Distintos PTPs y PTSs
Normativa sobre regulación de usos en zonas inundables: Real Decreto 849/1986, de 11 de abril, por el que se aprueba el Reglamento del Dominio Público Hidráulico y Normativa del Plan Hidrológico y del Plan de Gestión del Riesgo de Inundación de la demarcación hidrográfica del Cantábrico Oriental, recogida en el Anexo I del Real Decreto 35/2023, de 24 de enero

LURRALDE-ANTOLAMENDUA ETA HIRIGINTZAKO PLANGINTZA

Lurraldearen antolamenduaren zehaztapenek lehentasuna dute hirigintzako plangintzaren gainetik.

Lurralde-plan partzial bat promulgatzen denean, plana berrikusteko edo aldatzeko prozedura bat abiarazten da automatikoki, bateraezinak diren zehaztapenak txertatzeko.

Lurraldea antolatzeko tresnen berehalako eta erabateko eraginkortasunari gehien lagunduko dion moduan interpretatu behar da hirigintzako plangintza.

Lurralde-plan sektorialetan aurreikusitako herri-lanak, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Batzordearen ustez lurralde-izaera nabarmena baldin badute, ez dira udalaren prebentziozko kontrol-egintzen eraginpean egongo.

Lurralde-antolamenduak berebiziko eragina du udalaren plangintza-ahalmenean; izan ere, alde batetik, antolamenduaren tresnak maila juridiko handiagokoak dira, eta, bestetik, eta batez ere, antolamenduaren zehaztapenak hedakorrak dira, zenbait kasutan, antolamenduko zehaztapen oso zehatzak xedatzen baitituzte.

TRESNAK

- **Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak** (LAG): EAE osatzen duten eremu funtzionalak mugatzen dituzte.
- **Lurralde-plan partzialak** (LPP): Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak garatzen dituzte dagokien eremu funtzionalaren esparruan.
- **Lurralde-plan sektorialak** (LPS): Eusko Jaurlaritzako sailen edo lurralde historikoetako foru-organoen planak dira, lurraldean eragiten dutenak.
- Lurralde-plan sektorialen zehaztapenak bat ez badatoz Lurralde Antolamenduaren Gidalerroekin edo lurralde-plan partzial batekin, lurralde-plan sektoriala deuseza izango da; ez, ordea, Euskal Autonomia Erkidegoko Errepideen Plan Orokorra, lurralde-plan partzialak haren arabera egokitu beharko baitira.

Onartuta dauden eta izapidetzen ari diren tresnak Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Plangintza eta Hiri Agendaren webgunean kontsulta daitezke (gida hau editatzeko unean, hauxe da helbidea:
https://www.euskadi.eus/lurraldea/eu/)

Legeria:

4/1990 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-antolamenduari buruzkoa
128/2019 Dekretua, uztailaren 30ekoa, zeinaren bidez behin betiko onartzen baitira Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak, bizitegi-kuantifikazioari dagokionez
46/2020 Dekretua, martxoaren 24koa, Lurralde-antolamenduko planak eta hirigintza-antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituena
Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testu bategina (LHBLTB), 3., 4., 5. eta 7. artikuluak
2/2006 Legea, EAEko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa (LHL), 52. artikulua
Lurralde-plan partzialak (LPP) eta lurralde-plan sektorialak (LPS)
Uholde-arriskuko eremuetako erabileren erregulazioari buruzko araudia: 849/1986 Errege Dekretua, apirilaren 11koa, Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamendua onartzen duena eta Plan Hidrologikoaren eta Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Uholde Arriskua Kudeatzeko Planaren Araudia; araudi hori urtarrilaren 24ko 35/2023 Errege Dekretuaren I. eranskinean jasota dago

INTRODUCCIÓN

La Ley 2/2006 de Suelo y Urbanismo (LSU) establece dos fases de ordenación: la estructural y la pormenorizada.

Forman parte de la ordenación estructural las determinaciones así calificadas por la Ley de Suelo y Urbanismo, las restantes determinaciones de los instrumentos de ordenación tienen carácter pormenorizado.

INSTRUMENTOS

Los instrumentos de ordenación estructural son:

- El **Plan General de Ordenación Urbana** (PGOU) que tiene por objeto establecer la ordenación urbanística básica del término municipal.
- El **Plan de Sectorización** (PS) que tiene por objeto programar y establecer la ordenación estructural del suelo potencialmente urbanizable (urbanizable no sectorizado) definido por el PGOU.
- El **Plan de Compatibilización** (PC) cuya finalidad es resolver las incompatibilidades entre las determinaciones estructurales de distintos municipios.

El Plan General de Ordenación Urbana y el Plan de Sectorización pueden contener también ordenación pormenorizada, en cuyo caso deberán identificar expresamente las determinaciones que tengan esta naturaleza (art. 103.2 de la Ley de Suelo y Urbanismo).

DETERMINACIONES

Las principales determinaciones de **ordenación estructural** son (arts. 53 y 54 de la Ley de Suelo y Urbanismo):

- La **estrategia de evolución urbana** (arts. 53.1.a y 55.1.a) y plazos para la elaboración.
- La **clasificación del suelo** en urbano, urbanizable, sectorizado y no sectorizado, y no urbanizable, con identificación de los núcleos rurales.
- El establecimiento de los **usos globales** (calificación global).
- Las **directrices** de protección del **medio ambiente** e incidencia de los riesgos, condiciones de vulnerabilidad y posibles amenazas y predicciones de situaciones peligrosas (mapas de riesgos).
- La **red de sistemas generales**, incluso su inclusión o adscripción a efectos de cesión y ejecución, de Espacios libres y zonas verdes, Equipamientos colectivos, de titularidad pública y privada, Infraestructuras de servicios, vías públicas y, en su caso, la dotación residencial protegida.
- Los **ámbitos de planeamiento pormenorizado** (áreas en suelo urbano y sectores en suelo urbanizable).
- La **edificabilidad lucrativa** (edificabilidad urbanística), el uso predominante y los porcentajes de usos compatibles.

TRAMITACIÓN (art. 90 de la Ley de Suelo y Urbanismo)

1. Programa de participación ciudadana (Ley de Suelo y Urbanismo art. 108).
2. Solicitud de informes sectoriales sobre condicionantes.
3. Informe del Consejo Asesor del Planeamiento.
4. Avance y Documento Inicial Estratégico.
5. Exposición Pública (>2 meses).
6. Solicitud de Documento de Alcance.
7. [Autoridad ambiental] Documento de Alcance.
8. Fijación de criterios y objetivos.
9. Documento y Estudio Ambiental Estratégico.
10. Informes sectoriales preceptivos previos a la Aprobación Inicial.
11. Aprobación inicial.
12. Exposición pública (>45 días) e informes sectoriales preceptivos.
13. Aprobación Provisional, salvo cambios sustanciales, en cuyo caso, se acordará su nueva Aprobación Inicial (11 o, en su caso, 10).
14. En Álava, notificación a las Juntas Administrativas.
15. Solicitud de informe a la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco (3 meses).
16. Solicitud de Declaración Ambiental Estratégica.

17.a. Municipios > 7.000 hab.

- 17.a.1. Incorporación de criterios vinculantes de la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco y de la Declaración Ambiental Estratégica.
- 17.a.2. Aprobación Definitiva.

17.b. Municipios ≤ 7000 hab.

- 17.b.1. [Diputación Foral] Incorporación de criterios vinculantes de la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco y de la Declaración Ambiental Estratégica.
- 17.b.2. [Diputación Foral] Aprobación Definitiva (3 meses).

18. Registro y Publicación.

* Las Modificaciones Puntuales no requieren avance (4 y 8), pero su alcance está restringido (art. 105 de la Ley de Suelo y Urbanismo).

Legislación:
Ley 2/2006 de Suelo y Urbanismo País Vasco (LSU), arts. 50 a 110
Ley 21/2013 de Evaluación Ambiental (LEA)
Decreto 105/2008 de Medidas Urgentes…, arts. 13 a 14, 23 y 29 a 34
Decreto 46/2020, de 24 de marzo, de regulación de los procedimientos de aprobación de los planes de ordenación del territorio y de los instrumentos de ordenación urbanística, arts. 26 a 30 y 34 a 36
Ley 17/2015 del Sistema Nacional de Protección Civil, arts. 10, 11 y 15

ATARIKOA

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen (LHL) arabera, antolamenduak bi fase ditu: egiturazkoa eta xehatua.

Egiturazko antolamenduan sartzen dira Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legean halakotzat jotzen diren zehaztapenak; antolamendu-tresnen gainerako zehaztapenak xehatuak dira.

TRESNAK

Egiturazko antolamenduko tresnak honako hauek dira:

- **Hiri-antolamenduko plan orokorra** (HAPO); udal-mugarteko oinarrizko hirigintza-antolamendua finkatzea du xede.
- **Sektorizatze-plana** (SP); HAPOn zehaztutako lurzoru potentzialki urbanizagarriaren (sektorizatu gabeko urbanizagarria) egiturazko antolamendua programatzea eta finkatzea du xede.
- **Bateragarritze-plana** (BP); udalerrietako egiturazko zehaztapenen artean sor daitezkeen bateraezintasunak ebaztea du xede.

Hiri-antolamenduko plan orokorrean eta sektorizatze-planean antolamendu xehatua ere bil daiteke; horrelako kasuetan, espresuki identifikatu beharko dira zehaztapen xehatuok (Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legea, 103.2 artikulua).

ZEHAZTAPENAK

Egiturazko antolamenduko zehaztapen nagusiak honako hauek dira (Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legea, 53. eta 54. artikuluak):

- **Hiri-bilakaerarako estrategia** (53.1.a eta 55.1.a artikuluak) eta lantzeko epeak.
- **Lurzoruaren sailkapena** hiri-lurzoruan, urbanizagarrian, sektorizatuan eta sektorizatu gabean, eta urbanizaezinean, landaguneak identifikatuta.
- **Erabilera orokorrak** (kalifikazio orokorra) ezartzea.
- **Ingurumena** babesteko **jarraibideak** eta arriskuen intzidentzia, zaurgarritasuna eta egon daitezkeen mehatxuak eta egoera arriskutsuei buruzko iragarpenak (arrisku-mapak).
- **Sistema orokorren sarea** zehaztea; barnean hartu behar da, halaber, espazio libreak eta berdeguneak, ekipamendu kolektiboak —titulartasun publikokoak zein pribatukoak—, zerbitzu-azpiegiturak, bide publikoak eta, hala badagokio, babestutako bizitegitarako zuzkidura txertatzea edo atxikitzea, lagapenari eta egikaritzeari dagokienez.
- **Plangintza xehatuaren eremuak** (hiri-lurzoruko areak eta lurzoru urbanizagarriko sektoreak).
- **Irabazizko eraikigarritasuna** (hirigintzako eraikigarritasuna), erabilera nagusia eta erabilera bateragarrien ehunekoak.

IZAPIDETZEA (Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legea, 90. artikulua)

1. Herritarrek parte hartzeko programa (Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legea, 108. artikulua).
2. Baldintzatzaileei buruzko txosten sektorialak eskatzea.
3. Plangintzako Aholku Batzordearen txostena.
4. Aurrerapena eta hasierako dokumentu estrategikoa idaztea.
5. Jendaurrean jartzea (>2 hilabete).
6. Irismeneko dokumentua eskatzea.
7. [Ingurumen-agintaritza] Irismeneko dokumentua.
8. Irizpideak eta helburuak zehaztea.
9. Dokumentua eta ingurumen-azterketa estrategikoa.
10. Hasierako onespena eman aurreko nahitaezko txosten sektorialak.
11. Hasierako onespena.
12. Jendaurrean jartzea (>45 egun) eta nahitaezko txosten sektorialak.
13. Behin-behineko onespena, funtsezko aldaketak izan ezean; horrelakorik baldin badago, hasierako onespen berria erabakiko da (11 edo, hala badagokio, 10).
14. Araban, administrazio-batzarrei jakinaraztea.
15. Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Batzordeari txostena eskatzea (3 hilabete).
16. Ingurumen-adierazpen estrategikoa eskatzea.

17.a. Udalerriak > 7.000 bizt.

- 17.a.1. Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Batzordearen eta ingurumen-adierazpen estrategikoaren irizpide lotesleak txertatzea.
- 17.a.2. Behin betiko onespena.

17.b. Udalerriak ≤ 7000 bizt.

- 17.b.1. [Foru-aldundia] Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Batzordearen eta ingurumen-adierazpen estrategikoaren irizpide lotesleak txertatzea.
- 17.b.2. [Foru Aldundia] Behin betiko onespena (3 hilabete).

18. Erregistratzea eta argitaratzea.

* Aldaketa puntualak egiteko, ez da aurrerapena aurkeztu beharko (4 eta 8), baina norainokoa mugatua du (Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legea, 105. artikulua).

Legeria:

2/2006 Legea, EAEko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa (LHL), 50.-110. artikuluak
21/2013 Legea, Ingurumen Ebaluazioari buruzkoa (IEL)
105/2008 Dekretua, premiazko neurriei buruzkoa, 13.-14., 23., eta 29.-34. artikuluak
46/2020 Dekretua, martxoaren 24koa, lurralde-antolamenduko planak eta hirigintza-antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituena, 26.-30. eta 34.-36. artikuluak
17/2015 Legea, Babes Zibilaren Sistema Nazionalarena,10., 11. eta 15. artikuluak

INSTRUMENTOS

El **Plan Especial de Ordenación Urbana** (PEOU) y el **Plan Parcial** (PP) son los instrumentos fundamentales de ordenación pormenorizada y su objeto es desarrollar la ordenación estructural en las Áreas y Sectores, respectivamente, delimitados por esta.

El **Plan Especial de Renovación Urbana** (PERU) tiene por objeto el desarrollo de actuaciones concretas de descongestión del suelo urbano, creación de dotaciones, saneamiento de barrios…

El **Plan Especial de Protección y Conservación** (PEPC) completa la ordenación mediante normas complementarias de protección de elementos naturales o artificiales.

Caben otros **Planes Especiales** autónomos o de desarrollo de la ordenación estructural (art. 59.2.c) de la Ley de Suelo y Urbanismo).

Adicionalmente todos los tipos de actuaciones recogidas en el capítulo de Intervención en la edificación y en los conjuntos urbanos y rurales de la Ley de Vivienda requerirán Plan Especial (LvV art. 43.2).

El Plan General de Ordenación Urbana y el Plan de Sectorización pueden contener ordenación pormenorizada. Estas determinaciones podrán ser modificadas mediante Plan Especial, dado su carácter pormenorizado.

DETERMINACIONES

- La parcelación, con fijación de alienaciones y rasantes.
- La edificabilidad física y los usos compatibles.
- La categorización del suelo urbano en consolidado y no consolidado, y la identificación de las parcelas y solares susceptibles de ser edificados en actuación aislada.
- La definición de los sistemas locales.
- La definición de las características de la edificación.
- Los coeficientes de ponderación (revisables por los instrumentos de equidistribución).

TRAMITACIÓN (arts. 95 a 97 de la Ley de Suelo y Urbanismo)

1. [posible] Consulta pública previa (art. 133 LPAC).
2. Documento y Documento Ambiental Estratégico.
3. Solicitud de Inicio de la Evaluación Ambiental.

4.a) Si el plan puede tener efectos significativos sobre el medio ambiente.

- 4.a.1. Documento y Estudio Ambiental Estratégico.
- 4.a.2. Informes sectoriales preceptivos previos a la Aprobación Inicial.
- 4.a.3. Aprobación inicial.
- 4.a.4. Exposición pública (>45 días) e informes sectoriales preceptivos.
- 4.a.5. En Álava, notificación a las Juntas Administrativas afectadas.
- 4.a.6. Aprobación Provisional. Si hay cambios sustanciales, nueva aprobación inicial (4.a.4 o, en su caso, 4.a.3).
- 4.a.7. Declaración Ambiental Estratégica.

4.b) Si no es probable que el plan tenga efectos significativos sobre el medio ambiente.

- 4.b.1. Informe Ambiental Estratégico.
- 4.b.2. Informes sectoriales preceptivos previos a la Aprobación Inicial.
- 4.b.3. Aprobación inicial.
- 4.b.4. Exposición pública (>20 días) e informes sectoriales preceptivos.
- 4.b.5. En Álava, notificación a las Juntas Administrativas afectadas.

5.a) Municipio > 3.000 hab.

- 5.a.1. Aprobación Definitiva. Si hay cambios sustanciales, nueva aprobación inicial (4.a.4 y 4.b.3 o, en su caso, 4.a.3 y 4.b.2).

5.b) Municipio ≤ 3.000 hab.

- 5.b.1. Aprobación Provisional. Si hay cambios sustanciales, nueva aprobación inicial (4.a.4 y 4.b.3 o, en su caso, 4.a.3 y 4.b.2).
- 5.b.2. [Diputación Foral] Aprobación Definitiva.

6. Registro y Publicación.

Legislación:
Ley 2/2006 de Suelo y Urbanismo País Vasco (LSU), arts. 56, 57, 59 y 67 a 72
Ley 21/2013 de Evaluación Ambiental (LEA)
Ley 3/2015 de Vivienda (LvV), arts. 3.b), 3.ñ) a 3.r) y 42 a 45
Decreto 46/2020, de 24 de marzo, de regulación de los procedimientos de aprobación de los planes de ordenación del territorio y de los instrumentos de ordenación urbanística, arts. 31 a 33 y 34 a 36
Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, art. 133 y DA1

TRESNAK

Hiri-antolamenduko plan berezia (HAPB) eta **plan partziala** (PP) dira antolamendu xehaturako tresna garrantzitsuenak, eta areetan eta sektoreetan egiturazko antolamendua garatzea dute xede, hurrenez hurren.

Hiri-berrikuntzako plan berezia (HBPB); haren xedea jardun zehatzak garatzea da, hiri-lurzoruko kongestioa arintzeko, zuzkidurak sortzeko, auzoak saneatzeko…

Babesteko eta kontserbatzeko plan berezia (BKPB); antolamendua osatzen du, elementu naturalak edo artifizialak babesteko arau osagarrien bitartez.

Beste **plan berezi** batzuk ere egon daitezke, autonomoak edo egiturazko antolamendua garatzekoak (Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legea, 59.2.c) artikulua).

Gainera, Etxebizitzaren Legean eraikinetan eta eraikita dauden hiriguneko eta landaguneko multzoetan esku hartzeari buruzko kapituluan jasotako jarduketa mota guztiek plan berezia beharko dute (EL, 43.2 artikulua).

Hiri-antolamenduko plan orokorrean eta sektorizatze-planean antolamendu xehatua ere bil daiteke. Zehaztapen horiek plan berezi bidez alda daitezke, xehatuak diren aldetik.

ZEHAZTAPENAK

- Partzelazioa, lerrokadurak eta sestrak finkatuta.
- Eraikigarritasun fisikoa eta erabilera bateragarriak.
- Hiri-lurzorua finkatu gisa eta finkatugabe gisa sailkatzea, eta jarduketa isolatuan eraiki daitezkeen partzelak eta orubeak identifikatzea.
- Tokiko sistemak definitzea.
- Eraikuntzaren ezaugarriak zehaztea.
- Haztapen-koefizienteak (berdinbanaketako tresnen bitartez berrikus daitezke).

IZAPIDETZEA (Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legea, 95.-97. artikuluak)

1. [aukeran] Aurretiko kontsulta publikoa (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legea –APEL–, 133. artikulua).
2. Agiria eta Ingurumen-dokumentu estrategikoa.
3. Ingurumen-ebaluazio estrategikoa hasteko eskaera.

4.a) Planak ingurumenaren gainean ondorio nabarmenak eduki ahal baditu.

- 4.a.1. Dokumentua eta ingurumen-azterketa estrategikoa.
- 4.a.2. Hasierako onespena eman aurreko nahitaezko txosten sektorialak.
- 4.a.3. Hasierako onespena.
- 4.a.4. Jendaurrean jartzea (>45 egun) eta nahitaezko txosten sektorialak.
- 4.a.5. Araban, eraginpeko administrazio-batzarrei jakinaraztea.
- 4.a.6. Behin-behineko onespena. Funtsezko aldaketarik badago, hasierako onespen berria (4.a.4 edo, hala badagokio, 4.a.3).
- 4.a.7. Ingurumen-adierazpen estrategikoa.

4.b) Seguru asko, planak ingurumenaren gainean ondorio nabarmenik edukiko ez badu.

- 4.b.1. Ingurumen-txosten estrategikoa.
- 4.b.2. Hasierako onespena eman aurreko nahitaezko txosten sektorialak.
- 4.b.3. Hasierako onespena.
- 4.b.4. Jendaurrean jartzea (>20 egun) eta nahitaezko txosten sektorialak.
- 4.b.5. Araban, eraginpeko administrazio-batzarrei jakinaraztea.

5.a) Udalerriak > 3000 bizt.

- 5.a.1. Behin betiko onespena. Funtsezko aldaketarik badago, hasierako onespen berria (4.a.4 eta 4.b.3 edo, hala badagokio, 4.a.3 eta 4.b.2).

5.b) Udalerriak ≤ 3000 bizt.

- 5.b.1. Behin-behineko onespena. Funtsezko aldaketarik badago, hasierako onespen berria (4.a.4 eta 4.b.3 edo, hala badagokio, 4.a.3 eta 4.b.2).
- 5.b.2. [Foru Aldundia] Behin betiko onespena.

6. Erregistratzea eta argitaratzea.

Legeria:

2/2006 Legea, EAEko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa (LHL), 56., 57., 59. eta 67.-72. artikuluak
21/2013 Legea, Ingurumen Ebaluazioari buruzkoa (IEL)
3/2015 Legea, Etxebizitzarena (EL), 3.b), 3.ñ)-3.r) eta 42.-45. artikuluak
46/2020 Dekretua, martxoaren 24koa, lurralde-antolamenduko planak eta hirigintza-antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituena, 31.-33. eta 34.-36. artikuluak
39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena (APEL), 133. artikulua eta 1. xedapen gehigarria

ESTUDIOS DE DETALLE	**CONCEPTO**	• Instrumento para **adaptar o completar las determinaciones de la ordenación pormenorizada en suelo urbano y urbanizable**. • **No pueden** desconocer las previsiones del planeamiento superior, ni alterar el destino del suelo, ni reducir viales o dotaciones, ni tampoco incrementar la edificabilidad.
	FINALIDAD	• El señalamiento, la rectificación o el complemento de las **alineaciones y rasantes.** • La **reordenación de volúmenes**, incluso con la calificación de suelo para nuevos viales o dotaciones públicas. • La regulación de las **características estéticas** de urbanización, edificación y demás elementos complementarios.
ORDENANZAS		• Tienen como finalidad **regular las características concretas de la construcción, edificación y urbanización de municipios o partes de ellos**, en especial los sujetos a protección cultural o por razones de accesibilidad, estéticas o ambientales. • Las ordenanzas, adicionalmente a las determinaciones establecidas para la tramitación de las disposiciones generales en el seno del procedimiento administrativo, precisan de una **consulta pública previa** (LPAC art. 133) que sirva como cauce para involucrar de forma activa y real a la ciudadanía en los procesos tendentes a mejorar la corrección, acierto y eficacia en la identificación, impulso, ejecución y evaluación de las políticas públicas, en los procesos de elaboración de normas y planes, así como en los diferentes procedimientos administrativos y en las decisiones de los órganos de gobierno locales. • El **Gobierno Vasco deberá aprobar el modelo** básico de referencia.
CATÁLOGOS		• Identifican y relacionan los **bienes naturales o artificiales objeto de especial protección** por la ordenación urbanística, especificando características y categorías y régimen de su conservación. • Pueden **tramitarse y aprobarse** simultáneamente con el Plan General. Se **formalizarán** como registro administrativo de acceso público.

Legislación: Ley 2/2006 de Suelo y Urbanismo del País Vasco (LSU), arts. 73 a 76
Ley 2/2016 de Instituciones Locales de Euskadi, arts. 43, 53, 67, 69 y 78
Decreto 46/2020, de 24 de marzo, de regulación de los procedimientos de aprobación de los planes de ordenación del territorio y de los instrumentos de ordenación urbanística, arts. 31 a 33 y 34 a 36
Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, art. 133 y DA1

XEHETASUN-AZTERKETAK	**KONTZEPTUA**	• **Hiri-lurzoruko eta lurzoru urbanizagarriko antolamendu xehatuaren xedapenak egokitzeko edo osatzeko** tresnak dira. • **Ezin dute** maila handiagoko plangintza-arauen aurka egin, lurzoruaren sailkapena aldatu, bideak edo zuzkidurak murriztu, eta ezin dute, halaber, eraikigarritasuna handitu.
	HELBURUA	• **Lerrokadurak eta sestrak** adieraztea, zuzentzea edo osatzea. • **Bolumenak berrantolatzea**, eta, beharrezkoa bada, lurzorua sailkatzea bide berriak edo zuzkidura publikoak egiteko. • Urbanizazio-lanen, eraikuntzen eta gainerako elementu osagarrien **ezaugarri estetikoak** arautzea.
ORDENANTZAK		• **Udalerrietako edo udalerrien eremu batzuetako eraikuntza-lanen, eraikuntzen eta urbanizazio-lanen ezaugarri zehatzak arautzea** dute xede; batik bat, kultura-babesa dutenak edo irisgarritasunari, alderdi estetikoei eta ingurumen-alderdiei erreparatuta. • Administrazio-prozeduraren barruan izapideak egiteko ezarritako xedapen orokorretan ezartzen diren zehaztapenez gain, ordenantzek **aurretiazko kontsulta publikoa** behar dute (APEL, 133. art.), helburu hau izango duena: bideak eskaintzea herritarrak modu aktibo eta errealean sar daitezen politika publikoak identifikatu, bultzatu, gauzatu eta ebaluatzerakoan zuzentasuna, egokitasuna eta eraginkortasuna hobetzeko prozesuetan; arau eta planak egiteko prozesuetan, eta, orobat, administrazio-prozeduretan eta tokiko gobernu-organoen erabakietan. • **Eusko Jaurlaritzak onartu behar du** erreferentziako oinarrizko **eredua**.
KATALOGOAK		• Hirigintza-antolamenduak **bereziki babestutako ondasun naturalak eta artifizialak** identifikatu eta zerrendatzen dituzte; halaber, haien ezaugarriak, kategoriak eta kontserbazio-araubidea zehazten dituzte. • Plan orokorrarekin batera **izapidetu eta onartu** daitezke. Sarbide publikoko administrazio-erregistro gisa **formalizatuko** dira.

Legeria:

2/2006 Legea, EAEko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa (LHL), 73.-76. artikuluak
2/2016 Legea, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa, 43., 53., 67., 69. eta 78. artikuluak
46/2020 Dekretua, martxoaren 24koa, lurralde-antolamenduko planak eta hirigintza-antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituena, 31.-33. eta 34.-36. artikuluak
39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena (APEL), 133. artikulua eta 1. xedapen gehigarria

INTRODUCCIÓN

La Ley 8/2007 de Suelo (LS07 y Texto Refundido de la Ley de Suelo) supuso un importante cambio en el modelo urbanístico tradicional concretado, sobre todo, en materia de ejecución del planeamiento:

- Cuando el planeamiento prevea la posibilidad de edificar en un terreno, esta posibilidad no se incorpora a la propiedad, de modo que, en caso de expropiación o modificación anticipada del plan, el suelo no se valora por lo que valdría de haberse desarrollado el negocio y este hubiera sido un éxito.
- La adquisición de las posibilidades edificatorias solo se produce con la ejecución efectiva de la transformación urbanística.
- El particular carece del derecho a transformar el suelo (y, con su ejercicio, a apropiarse de los derechos edificatorios).
- La transformación del suelo es una función pública, que solo pueden ejercer los particulares cuando no deba realizarse por la comunidad y esta no lo haga.
- La posibilidad de que los particulares realicen la transformación del suelo no se deriva de la condición de propietario sino de la libertad de empresa.
- Por último, la transformación del suelo deja de ser una obligación que pueda imponerse al particular.

La Ley 2/2006 de Suelo y Urbanismo (LSU) regula algunos de estos aspectos de forma diferente, p.ej., el deber de transformar el suelo por parte de los propietarios establecido en el art. 25.1 LSU.

La modificación del Texto Refundido de la Ley de Suelo, dispuesta por la Ley 8/2013 de Rehabilitación, Regeneración y Renovación Urbanas (L3R), matizó algunos aspectos como la declaración del carácter público de la función de «*hacer ciudad*».

EL URBANISMO COMO FUNCIÓN PÚBLICA

Como se ha indicado, la Ley de Suelo declaró la **transformación urbanística como función pública**, posibilitando la intervención subsidiaria de los particulares: «*La legislación sobre ordenación territorial y urbanística regulará: a) El derecho de iniciativa de los particulares, sean o no propietarios de los terrenos, en ejercicio de la libre empresa, para la actividad de ejecución de la urbanización cuando ésta no deba o no vaya a realizarse por la propia Administración competente*» (art. 6.1).

El vigente Texto Refundido de la Ley de Suelo y Rehabilitación Urbana suaviza la reserva a favor de la comunidad, posibilitando que la legislación autonómica regule con mayor margen la iniciativa privada en la transformación urbanística (art. 8.1), reconociendo expresamente esta potestad al propietario de suelo (art. 9.7) y contemplando la ejecución conjunta de la urbanización por los propietarios (art. 14.a).

La Ley de Suelo y Urbanismo contempla sistemas «privados» de actuación (concertación y agente urbanizador) y reconoce al ayuntamiento la capacidad de elegir entre sistemas públicos y privados con «plena libertad» (art. 159.3).

FUNCIÓN SOCIAL DE LA PROPIEDAD Y LA VIVIENDA

El derecho de propiedad de los terrenos, las instalaciones, construcciones y edificaciones queda vinculado a los destinos fijados por el planeamiento debiendo:

- Destinarlos a usos compatibles con la ordenación.
- Conservarlos en condiciones legales para servir de soporte a dichos usos (deber de actualización).
- Realizar obras adicionales por motivos turísticos o culturales, o para la mejora de la calidad y sostenibilidad del medio urbano.
- Completar la urbanización.
- Edificar en el plazo previsto en el planeamiento.

Estos deberes forman parte del contenido de la propiedad, no procediendo derecho a indemnización más que en los supuestos expresamente previstos por la legislación. El derecho a la expropiación garantiza la justa compensación en caso de pérdida total de utilidad individual para el propietario (Sentencia del Tribunal Constitucional 37/1987).

La Ley de Suelo y Urbanismo prevé en suelo urbano consolidado la cesión gratuita y obligatoria de los terrenos de propiedad privada que la ordenación califique como dotacionales públicos, así como su urbanización con cargo al propietario (art. 26.1.b). Dicho deber, que tradicionalmente estaba vinculado a la edificación de los terrenos, es exigible desde la aprobación del planeamiento (art. 34).

La Ley de Vivienda vasca establece que todas las personas con vecindad administrativa en cualesquiera municipios de la Comunidad Autónoma de Euskadi tienen el derecho a disfrutar de una vivienda digna, adecuada y accesible. Siendo posibles todas las modalidades de acceso que sean legalmente factibles y viables con arreglo a la legislación civil o administrativa, comprendiendo tanto la titularidad dominical como el arrendamiento con o sin opción a compra, o cualesquiera derechos reales o de uso que sean adecuados para satisfacer el referido derecho. El Gobierno Vasco y las administraciones públicas de carácter territorial orientarán los recursos disponibles en materia de vivienda preferentemente a la promoción de viviendas en régimen de alquiler, para destinarlas a los colectivos más desfavorecidos.

Adicionalmente, la Ley de Vivienda del Estado establece la función social del derecho de propiedad de la vivienda, por la cual:

- Se faculta su uso, disfrute y disposición conforme a su calificación, estado y características objetivas, de acuerdo con la legislación en materia de vivienda y la demás que resulte de aplicación.
- Se puede consultar a las Administraciones competentes, sobre su situación urbanística y del edificio en que se ubica.
- Se faculta la realización de las obras de conservación, rehabilitación, accesibilidad universal, ampliación o mejora, de conformidad con las condiciones establecidas por la Administración competente y, en su caso, el título habilitante de tales actuaciones, cuando éste sea legalmente exigible.

Además de los definidos según su situación básica de suelo, el derecho de propiedad de la vivienda queda delimitado por su función social y comprende los siguientes deberes:

- Su uso y disfrute propio y efectivo conforme a su calificación, estado y características objetivas, de acuerdo con la legislación en materia de vivienda y la demás que resulte de aplicación, garantizando en todo caso la función social de la propiedad.
- Mantenerla, conservarla y rehabilitarla según las leyes de ordenación territorial, urbanística y de vivienda, y de los instrumentos aprobados a su amparo.
- Evitar su sobreocupación o el arrendamiento para usos y actividades que incumplan los requisitos y condiciones de habitabilidad legalmente exigidos.
- En las operaciones de venta o arrendamiento de la vivienda, proporcionar la información establecida en la LeV.
- En caso de que la vivienda se ubique en una zona de mercado residencial tensionado (art. 18 LeV), cumplir las obligaciones de colaboración con la Administración competente y suministro de información en los términos establecidos en los arts. 30 y 31 LeV.

PARTICIPACIÓN OPCIONAL DE LOS PARTICULARES

Sin embargo, los particulares no tienen la obligación de participar en las actuaciones de transformación urbanísticas.

Respecto a las actuaciones de transformación en suelo rural, el art. 13.2.c del Texto Refundido de la Ley de Suelo y Rehabilitación Urbana establece el derecho de los particulares a decidir si intervienen en la transformación o se apartan de ella, y obliga a facilitar información adecuada para la toma de esta posición, sin perjuicio de que el terreno quede afecto a la transformación.

Respecto a las actuaciones de transformación en suelo urbanizado, los arts. 17.2 y 17.5 del Texto Refundido de la Ley de Suelo y Rehabilitación Urbana solo obligan a participar a los propietarios en las AMU, ARU y DNR, siendo facultativa la participación en los demás casos (art. 14.c TRLSR).

La Ley de Suelo y Urbanismo establece el deber de los propietarios de reparcelar y urbanizar en suelo urbanizable y urbano no consolidado por la urbanización (art. 25.1), lo que desborda las condiciones básicas de igualdad del derecho de propiedad establecidas posteriormente por el Estado.

Legislación:
Ley 8/2007 de Suelo (LS07), arts. 6, 7 y 8
Texto Refundido de la Ley de Suelo y Rehabilitación Urbana (TRLSR), arts. 8, 9, 13, 14 y 17
Ley 2/2006 de Suelo y Urbanismo (LSU), arts. 25, 26, 34, 159 y 189
Ley 3/2015, de Vivienda (LvV), arts. 7 a 9, 42 a 49 y Disposición Final 4ª
Ley 12/2023 por el Derecho a la Vivienda (LeV), arts. 10, 11 y 18

ATARIKOA

Lurzoruari buruzko 8/2007 Legeak (LL07 eta Lurzoruari buruzko Legearen testu bategina) aldaketa garrantzitsua eragin zuen hirigintza-eredu tradizionalean, batik bat, plangintza egikaritzeari dagokionez:

- Lursail batean eraikitzeko aukera aurreikusten bada plangintzan, aukera hori ez zaio jabetzari atxikitzen; hartara, desjabetuz gero edo plana aurretiaz aldatuz gero, lurzorua ez da balioetsiko negozioa garatu izan balitz eta arrakastatsua izan balitz izango lukeen balioaren arabera.
- Eraikitzeko aukerei dagokienez, hirigintza-eraldaketa benetan egikaritzen denean soilik eskuratzen dira.
- Partikularrak ez du lurzorua eraldatzeko eskubiderik (ez eta, hura baliatuta, eraikitzeko eskubideak bereganatzekoa ere).
- Lurzorua eraldatzea eginkizun publiko bat da, eta partikularrek baliatu ahal izango dute, soilik erkidegoak bete behar ez duenean eta betetzen ez duenean.
- Partikularrek lurzorua eraldatzeko aukera ez da jabe izatearen ondorio, baizik eta enpresa-askatasunaren ondorio.

- Azkenik, lurzoru-eraldaketa jadanik ez da partikularrari ezar dakiokeen betebeharra.

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legean (LHL) beste modu batera arautzen dira alderdi horietako zenbait; adibidez, jabeek lurzorua eraldatzeko duten betebeharra (LHL, 25.1 artikulua).

Birgaitzeari eta hiri-berroneratze eta -berrikuntzari buruzko 8/2013 Legearen (3BL) bitartez Lurzoruari buruzko Legearen testu bategina aldatu zen. Aldaketak alderdi batzuk zehaztea ekarri du, hala nola, publikotzat jotzea «*hiria egiteko*» funtzioa.

HIRIGINTZA, FUNTZIO PUBLIKOA

Lehen adierazi dugunez, Lurzoruari buruzko Legean **funtzio publikotzat jo zen hirigintza-eraldaketa**, baita partikularren esku-hartze subsidiarioa ahalbidetu ere: «*Lurralde- eta hirigintza-antolamenduari buruzko legeriak honako hauek arautuko ditu: a) Partikularrek, lurren jabe izan nahiz ez, enpresa-askatasunaren eskubidea baliatuz, urbanizatze-jarduketak exekutatzeko duten ekimen-eskubidea, urbanizatze-jarduketa hori administrazio eskudunak berak egin behar ez duenean edo bera egitera ez doanean*» (6.1 artikulua).

Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen indarreko testu bateginean leundu egiten da erkidegoaren aldeko erreserba; izan ere, autonomia-erkidegoko legeriari aukera ematen dio hirigintza-eraldaketa marjina handiagoz arautzeko (8.1. artikulua), espresuki aitortzen dio ahalmen hori lurzoruaren jabeari (9.7 artikulua), eta urbanizazio-lanak jabeek batera exekutatzea jasotzen du (14.a artikulua).

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legeak jarduteko sistema pribatuak (ituntzea eta eragile urbanizatzaile) ezartzen ditu, eta sistema publiko eta pribatuen artean «askatasun osoz» hautatzeko ahalmena esleitzen dio udalari (159.3 artikulua).

JABETZAREN ETA ETXEBIZITZAREN EGINKIZUN SOZIALA

Lursailen, instalazioen, eraikuntzen eta eraikinen jabetza-eskubidea plangintzan xedatutako erabilerei atxikita geratzen da, eta betebehar hauek dakartza:

- Antolamenduarekin bateragarriak diren erabileretara bideratzea.
- Legezko baldintzetan mantentzea, erabilera horien euskarri izateko (eguneratzeko betebeharra).
- Obra gehigarriak egitea, turismoarekin edo kulturarekin lotutako arrazoiengatik, edo hiri-ingurunearen kalitatea eta jasangarritasuna hobetzeko.
- Urbanizazioa osatzea.
- Plangintzan aurreikusitako epe barruan eraikitzea.

Betebehar horiek jabetzaren edukian sartzen dira, eta ez da izango kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik, legerian berariaz aurreikusitako kasuetan baino. Desjabetzeko eskubideak bidezko konpentsazioa bermatzen du, baldin eta jabeak baliagarritasun indibiduala erabat galtzen badu (Konstituzio Auzitegiaren 37/1987 Epaia).

Hiri-lurzoru finkatuaren kasuan, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legeak aurreikusten du doan eta nahitaez laga behar direla antolamenduan zuzkidura publikoetarako izendatu diren jabetza pribatuko lursailak, baita urbanizazio-obrak jabearen kargura egitea ere (26.1.b artikulua). Betebehar hori lursailen eraikuntzarekin loturik egon izan da, baina orain plangintza onartzen denetik eska daiteke (34. artikulua).

EAEko Etxebizitzaren Legeak ezartzen du administrazio-egoitza Euskal Autonomia Erkidegoko edozein udalerritan duen pertsona orok eskubidea duela etxebizitza duina, egokia eta irisgarria izateko. Legeria zibilaren edo administratiboaren arabera legez egingarriak eta bideragarriak diren eskuratze-modalitate guztiak izango dira bideragarri, barne hartuta jabari-titulartasuna nahiz errentamendua, erosteko aukerarekin edo gabe, edo eskubide hori betetzeko egokiak diren eskubide errealak edo erabilera-eskubideak. Eusko Jaurlaritzak eta lurralde-izaerako administrazio publikoek egoera txarrenean dauden kolektiboentzako alokairuko etxebizitzak sustatzera bideratuko dituzte, lehentasunez, erabilgarri dauden etxebizitza-baliabideak.

Horrez gain, Estatuko Etxebizitzaren Legean ezartzen da etxebizitzaren gaineko jabetza-eskubideak funtzio soziala duela, eta horren arabera:

- Baimena ematen da etxebizitza erabili, gozatu eta eskuratzeko, haren kalifikazioaren, egoeraren eta ezaugarri objektiboen arabera, etxebizitza-arloko legeriarekin eta aplikatu beharreko gainerakoarekin bat etorriz.
- Administrazio eskudunei kontsulta egin dakieke haren hirigintza-egoerari eta kokatuta dagoen eraikinari buruz.
- Ahalmena ematen da kontserbazio-, birgaitze-, irisgarritasun unibertsaleko, zabaltze- edo hobetze-obrak egiteko, administrazio eskudunak ezarritako baldintzei jarraituz; era berean gaitzen da, hala badagokio, jarduketa horietarako gaikuntza-titulua eskuratzeko, legez eska daitekeenean.

Oinarrizko lurzoru-egoeraren arabera zehaztutakoez gain, etxebizitzaren gaineko jabetza-eskubidea haren eginkizun sozialak mugatzen du, eta honako betebehar hauek hartzen ditu barnean:

- Haren erabilera eta gozamen propioa eta eraginkorra, kalifikazioaren, egoeraren eta ezaugarri objektiboen arabera, etxebizitza-arloko legeriarekin eta aplikatu beharreko gainerakoarekin bat etorriz, eta jabetzaren funtzio soziala bermatuta betiere.
- Etxebizitza mantendu, kontserbatu eta birgaitzea, lurralde-, hirigintza- eta etxebizitza-antolamenduari buruzko legeen eta haien babesean onartutako tresnen arabera.
- Ez gainokupatzea eta ez eman errentan legez eskatzen diren bizigarritasun-betekizunak eta -baldintzak betetzen ez dituzten erabilera eta jardueretarako.
- Etxebizitzaren salmenta- edo errentamendu-eragiketetan, Etxebizitzarako Eskubidearen Aldeko Legean ezarritako informazioa ematea.
- Etxebizitza bizitegi-merkatu tentsionatuko eremu batean baldin badago (Etxebizitzarako Eskubidearen Aldeko Legea, 18. art.), administrazio eskudunarekin lankidetzan aritzeko eta informazioa emateko betebeharrak betetzea, Etxebizitzarako Eskubidearen Aldeko Legearen 30. eta 31. artikuluetan ezarritako moduan.

PARTIKULARREN AUKERAKO PARTE-HARTZEA

Alabaina, partikularrek ez dute hirigintza-eraldaketako jarduketetan parte hartzeko betebeharrik.

Landa-lurzorua eraldatzeko jarduketei dagokienez, Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testu bateginaren 13.2.c artikuluak ezartzen du partikularrek eskubidea dutela eraldaketan esku hartuko duten edo eraldaketatik aldenduko diren erabakitzeko, eta erabaki hori hartzeko informazio egokia ematera behartzen du, lursaila eraldaketari atxikita geratzearen kalterik gabe.

Lurzoru urbanizatuko eraldaketa-jarduketei dagokienez, Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testu bateginaren 17.2. eta 17.5. artikuluen arabera, jabeek nahitaez parte hartu behar dute soilik HIJ, HBE eta BPDetan; parte-hartzea aukerakoa da gainerako kasuetan (LHBLTB, 14.c artikulua).

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legeak xedatzen du jabeek eginbeharra dutela lurzoru urbanizagarrian eta urbanizazio bidez finkatu gabeko hiri-lurzoruan urbanizatzeko eta birpartzelatzeko (25.1 artikulua), eta horrek gainditu egiten ditu gerora Estatuak finkatu zituen jabetza-eskubidearen oinarrizko berdintasun-baldintzak.

Legeria:

8/2007 Legea, Lurzoruarena (LL07), 6., 7. eta 8. artikuluak
Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testu bategina (LHBLTB), 8., 9., 13., 14. eta 17. artikuluak
2/2006 Legea, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko (LHL), 25., 26., 34., 159. eta 189. artikuluak
3/2015 Legea, Etxebizitzarena (EL), 7.-9., 42.-49. artikuluak eta azken xedapenetako 4.a
12/2023 Legea, Etxebizitzarako Eskubidearen Aldekoa, 10., 11. eta 18. artikuluak

CONCEPTOS GENERALES	
SUELO **RURAL**	Es el suelo preservado de transformación a consecuencia de medidas de protección o a consecuencia de riesgos naturales y tecnológicos, y el suelo que no sea urbanizado, incluso para el que se prevea la transformación.
SUELO **URBANIZADO**	Es el que, estando legalmente integrado en la malla urbana (red de viales, dotaciones y parcelas) cumpla alguna de las siguientes condiciones: • Haberse urbanizado en ejecución del correspondiente instrumento de ordenación. • Tener instaladas y operativas las infraestructuras y servicios necesarios para los usos y edificaciones existentes o previstos por la ordenación o poder contar con ellos sin otras obras que las de conexión. • Estar ocupado por la edificación en el porcentaje establecido por la legislación urbanística, de acuerdo con el instrumento de planificación.
EDIFICACIÓN LEGAL	Se entiende que la edificación se ajusta a la legalidad cuando su hubiera realizado de conformidad con la ordenación urbanística y la licencia o haya sido legalizada con posterioridad.
ACTUACIÓN DE URBANIZACIÓN	Es la que crea infraestructuras, dotaciones y una o más parcelas aptas para la edificación o uso independiente, conectadas con la red de servicios. Tiene dos modalidades: La de **Nueva Urbanización**, que es la que se produce en suelo rural para transformarlo en suelo urbanizado, y la de **Reforma o Renovación**, que reordena suelo urbanizado. Produce en suelo urbanizado el mismo objeto que la actuación de Nueva Urbanización (crear ciudad, TRLSR, art. 7.1.a).
ACTUACIÓN DE DOTACIÓN	Es la que permite obtener dotaciones urbanizadas (mejorar la ciudad) con cargo a incrementos de edificabilidad (TRLSR, art. 7.1.b).
ACTUACIÓN EDIFICATORIA	Toda actuación urbanística que no sea de urbanización o de dotación, comprendiendo tanto las de nueva edificación como la sustitución o rehabilitación, incluyendo posibles obras complementarias de urbanización (TRLSR, art. 7.2).
INICIO DE LA ACTUACIÓN	Las actuaciones de Urbanización se entienden iniciadas cuando den comienzo las obras de urbanización y estas cuenten con todos los instrumentos requeridos para ello (ordenación pormenorizada, Programa de Actuación Urbanizadora, Reparcelación y Proyecto de Urbanización).

CRITERIOS DE VALORACIÓN

Suelo **Rural**

Se valora mediante **capitalización del rendimiento de la explotación real o potencial del suelo**, **corregido en función del uso considerado y de la localización del terreno** (Anexo 1 del Reglamento de Valoraciones de la Ley de Suelo).

Como tipo de capitalización se toma el valor promedio de los datos anuales publicados por el Banco de España de la rentabilidad de las Obligaciones del Estado a 30 años, correspondientes a los tres años anteriores a la fecha a la que deba entenderse referida la valoración.

Ejemplo: Para un terreno con uso de huerta que produzca un rendimiento anual de 2.000 €, y considerando el tipo de capitalización de 2023 de 1,74% anual, teniendo en cuenta un coeficiente de uso (Anexo I RVal) de 0,78 resulta un valor de 2.000 ÷ (0,78 × 1,74%) = 147.362 €. Dado el emplazamiento, próximo a núcleos de población y centros de comunicaciones, el coeficiente de localización es 2,5 resultando un valor de 368.405 €.*

Nota: Téngase en cuenta que los coeficientes de uso del Anexo I RVal fueron anulados por la STS 1747/2020 y debe realizarse una comparación con los precios de mercado y corregir el tipo de capitalización en función del desvío significativo resultante.*

Las **edificaciones, construcciones e instalaciones:** en caso de que la valoración del suelo considere la explotación real, no son objeto de valoración separada, excepto que no estuvieran vinculadas a la explotación; en caso de que se considere una explotación potencial, solo se pueden valorar si fueran compatibles con la explotación considerada. En todo caso, la valoración requiere que sean legales. Cuando sean susceptibles de producir rentas se valoran por capitalización del rendimiento neto y, en caso contrario, por su coste de reposición a nuevo depreciado por antigüedad y estado de conservación.

Ejemplo de valoración de edificación en suelo rural. El suelo se valora según su explotación real de huerta. En la finca existe un pabellón de 200 m^2 construidos no vinculado a la explotación, no susceptible de producir rentas, de 15 años de antigüedad y presenta defectos permanentes sin estar comprometidas las condiciones de estabilidad (estado regular*). El coste de construcción a nuevo es 270 €/m^2t, el edificio tiene agotado el 30% de su vida útil (Anexo III del Reglamento de Valoraciones de la Ley de Suelo) correspondiéndole un coeficiente corrector por antigüedad y estado de conservación de 0,3158 (Anexo II del Reglamento de Valoraciones de la Ley de Suelo), estimando un valor al final de la vida útil del 10% (27 €/m^2t), el valor actual sería: 200 × [270 – ((270 – 27) × 0,3158)] = 38.652 €.*

Suelo **Urbanizado**

1. Suelo **no edificado** (o con edificación no legal) que no esté incluido en actuación de urbanización y cuente con edificabilidad atribuida por la ordenación urbanística: se valora según la edificabilidad prevista en el planeamiento vigente mediante la aplicación del método residual del art. 22 RVal.

   Ejemplo: Parcela con una edificabilidad de 2.000 m^2t de vivienda. El precio de venta de la vivienda libre en el emplazamiento es de 2.500 €/m^2t, el coste de construcción, incluidos los gastos asociados a la construcción es de 1.000 €/m^2t. El valor de la parcela es: 2.000 × [(2.500 ÷ 1,4) – 1.000]= 1.571.429 €.

2. Suelo **no edificado** (o con edificación no legal) que no esté incluido en actuación de urbanización y carezca de edificabilidad atribuida por la ordenación urbanística: El valor del suelo se obtiene según la edificabilidad media y el uso mayoritario, determinados en la forma prevista en el art. 21 RVal, de la zona urbanística (aquella que tiene unos parámetros jurídico urbanísticos diferenciadores de otras zonas sobre usos, tipologías e intensidades). El valor de la edificabilidad se determina mediante el método residual del art. 22 RVal.

   Ejemplo: Parcela no edificable de 200 m^2 en zona industrial en la que la edificabilidad media de las parcelas edificables de la zona es 0,8 m^2t/m^2; el precio de venta de la zona es de 2.000 €/m^2t, el coste total de la construcción es de 600 €/m^2t. El valor de la parcela es: 200 × 0,8 × [(2.000 ÷ 1,4) – 600]= 132.571 €

3. Suelo incluido en **actuación de urbanización** (reforma o renovación): Se valora según la edificabilidad prevista por la ordenación en su situación de origen (la prevista en el plan inmediatamente anterior al que legitima la expropiación, según criterio jurisprudencial, ROJ: STS 1159/2016).

   Ejemplo: Parcela de 1.500 m^2 urbanizada en ejecución de un Plan Parcial en que se le atribuía una edificabilidad de 0,8 m^2t/ m^2 de uso industrial. Se aprobó un plan que no se ejecutó en que se preveía una edificabilidad de 3,5 m^2t/m^2 de uso residencial. Se expropia en ejecución de un plan que prevé una edificabilidad de 2 m^2t/m^2 de uso residencial; los valores de venta y costes de construcción son los de los ejemplos de los apartados 1 y 2. El valor de la parcela, de acuerdo con la edificabilidad de origen, según la jurisprudencia indicada sería: 1.500 × 3,5 × [(2.500 ÷ 1,4) – 1.000]= 4.125.000 €. Si se considerara como edificabilidad de origen la adquirida por haber participado en el proceso de transformación el valor sería: 1.500 × 0,8 × [(2.000 ÷ 1,4) – 600] = 994.286 €.

   • En caso de que la parcela de los supuestos 1 a 3 tuviera **cargas pendientes**, el importe de estas se debe deducir mayorado en la Prima de Riesgo (fijada en el Anexo IV del Reglamento de Valoraciones de la Ley de Suelo) y en la Tasa Libre de Riesgo (rendimiento interno de la deuda pública de plazo entre dos y seis años).

   Ejemplo: La parcela del ejemplo del apartado 1 tiene pendiente de ejecutar una acera perimetral presupuestada en 25.000 €. La Prima de Riesgo es del 8% y se considera una Tasa Libre de Riesgo del 1%. El valor de la parcela sería: 1.571.429 – [25.000 × (1+8%+1%)] = 1.544.179 €.

4. Suelo con **edificación ajustada a la legalidad**: Se considera el superior de los dos siguientes valores: a) El que resulte de valorar el suelo en caso de que no estuviera edificado, apartados 1 a 3 anteriores, o b) El que resulte de la valoración conjunta de suelo y edificación según mercado.

   Ejemplo: La parcela del ejemplo del apartado 3 tiene edificado un pabellón de 300 m^2t. El valor de mercado de un pabellón de esta superficie con una zona privada no edificada de 1.700 m^2 es de 750.000 €. Como el valor del suelo en caso de no estar edificado es superior, este determina el valor de la parcela (4.125.000 €) sin que proceda compensación adicional alguna por la edificación existente.

Legislación: Texto Refundido de la Ley de Suelo y Rehabilitación Urbana (TRLSR), arts. 7, 21 y 34 a 41
Reglamento de Valoraciones de la Ley de Suelo (RVal)

KONTZEPTU OROKORRAK	
LANDA-LURZORUA	Babes-neurrien edo arrisku natural eta teknologikoen ondorioz eraldatzetik babesturiko lurzorua da, baita urbanizatu gabeko lurzorua ere, nahiz eta hura eraldatzea aurreikusita izan.
LURZORU **URBANIZATUA**	Hiri-bilbean (bideen sarea, zuzkidurak eta partzelak) legez txertatuta dagoena, baldin eta honako baldintza hauetakoren bat betetzen badu: • Dagokion antolamendu-tresna egikarituta urbanizatu izana. • Instalatuta eta abian izatea lehendik dauden edo antolamenduak aurreikusten dituen erabileretarako eta eraikinetarako beharrezkoak diren azpiegiturak eta zerbitzuak, edo haiek erabilgarri egotea soilik konexio-obrak eginda. • Hirigintza-legeriak ezartzen duen ehunekoan okupatuta egotea eraikuntzarekin, plangintza-tresnarekin bat etorriz.
LEGEZKO ERAIKUNTZA	Eraikuntza bat dator legeekin, baldin eta hirigintza-antolamenduari eta lizentziari jarraikiz egina bada, edo, bestela, gerora legeztatu bada.
URBANIZAZIO-JARDUKETA	Azpiegiturak, zuzkidurak eta eraikigarria(k) edo erabilera bereizirako baliagarria(k) d(ir)en partzela bat edo gehiago sortzen dituena, zerbitzuen sarearekin funtzionalki lotuak. Bi modalitate ditu: **urbanizazio berrikoa**, hau da, landa-lurzoruan gauzatzen dena, lurzoru urbanizatu bihurtzeko; eta **erreforma edo berritzekoa**, hots, lurzoru urbanizatua berrantolatzen duena. Lurzoru urbanizatuan urbanizazio berriko jarduketak duen xede berbera eragiten du (hiria sortzea, LHBLTB, 7.1.a artikulua).
ZUZKIDURA-JARDUKETA	Eraikigarritasun-igoeren kargura zuzkidura urbanizatuak eskuratzeko aukera ematen du (hiria hobetzea) (LHBLTB, 7.1.b artikulua).
ERAIKINGINTZA-JARDUKETA	Urbanizaziokoa edo zuzkidurakoa ez den hirigintza-jarduketa oro, barnean hartuta bai eraikuntza berrikoak, bai ordezkatzekoak edo birgaitzekoak, baita urbanizatzeko obra osagarriak ere (LHBLTB, 7.2. artikulua).
JARDUKETAREN HASIERA	Urbanizazio-jarduketak hasitzat joko dira urbanizazio-obrak hasten direnean eta obra horiek egiteko beharrezkoak diren tresna guztiak dituztenean (antolamendu xehatua, urbanizatzeko jarduketa-programa, birpartzelazioa eta urbanizazio-proiektua).

BALORATZEKO IRIZPIDEAK

Landa-lurzorua

Lurzoruaren ustiapenaren —benetakoa edo potentzialа— errendimendua kapitalizatzearen bidez baloratuko da, **aintzat hartutako erabileraren eta lursailaren kokapenaren arabera zuzenduta** (Lurzoruari buruzko Legearen Balioespenen Erregelamendua, 1. eranskina).

Espainiako Bankuak estatuaren 30 urterako obligazioen errentagarritasunari buruz argitaratutako urteko datuen batez besteko balioa erabiliko da kapitalizazio-tasa modura; balioespena dagokion dataren aurreko hiru urtekoak izango dira datu horiek.

Adibidea: Baratzeetarako erabiltzen den lursail batek urtean 2.000 euroko etekina ematen badu, eta 2023ko kapitalizazio-tasa urteko % 1,74 bada, kontuan izanda erabilera-koefizientea 0,78 dela (Lurzoruari buruzko Legearen Balorazio Erregelamendua, I. eranskina), balio hau ateratzen da: 2.000 ÷ (0,78 × % 1,74)= 147.362 €. Baratzea herriguneetatik eta komunikazio-zentroetatik gertu dagoenez, kokapen-koefizientea 2,5 izanik, balioa 368.405 €-koa izango da.*

Oharra: Kontuan izan behar da Auzitegi Gorenaren 1747/2020 Epaiak baliogabetu egin zituela Balorazio Erregelamenduaren (BalE) I. eranskineko erabilera-koefizienteak; hala, merkatuko prezioekin alderaketa egin behar da, eta kapitalizazio-tasa zuzendu behar da, ondoriozko desbideratze esanguratsuaren arabera.*

Eraikuntza, eraikin eta instalazioak: lurzoruaren balorazioan benetako ustiapena hartzen bada aintzat, ez dira bereizita baloratuko, ustiapenari lotuta ez badaude izan ezik; ustiapen potentzial bat izanez gero, aintzat hartutako ustiapenarekin bateragarriak baldin badira soilik baloratu ahal izango dira. Nolanahi ere, legezkoak izan beharko dute baloratzeko. Errentak sor ditzaketenean, etekin garbiaren kapitalizazioaren arabera baloratuko dira; eta, bestela, berria berrezartzeko kostuaren bidez, kontserbazio-egoeraren eta antzinatasunaren balio-galera kenduta.

Landa-lurzoruko eraikuntza baten balorazioaren adibidea. Benetako baratze-ustiapenaren arabera baloratuko da lurzorua. Finkan pabiloi bat dago: 200 m^2 eraiki ditu, ez du ustiapenarekin loturarik eta ez du errentak sortzeko aukerarik ematen; eraikuntzak 15 urte ditu eta akats iraunkorrak ditu, baina ez diete eragiten egonkortasun-baldintzei (egoera hala moduzkoa*). Berria eraikitzearen kostua 270 €/m^2sabai da, eta eraikinaren balio-bizitzaren % 30 agortuta dagoenez (Lurzoruari buruzko Legearen Balorazio Erregelamenduaren III. eranskina), antzinatasunagatik eta kontserbazio-egoeragatik 0,3158ko koefiziente zuzentzailea dagokio (Lurzoruari buruzko Legearen Balorazio Erregelamenduaren II. eranskina); balio-bizitzaren amaieran % 10eko balioa izango duela aintzat hartuta (27 €/m^2sabai), hau da egungo balioa: 200 × [270 – ((270 – 27) × 0,3158)] = 38.652 €.*

Lurzoru **urbanizatua**

1. Lurzoru **eraiki gabea** (edo legez kanpoko eraikuntzaduna), urbanizazio-jarduketan sartzen ez dena eta hirigintza-antolamenduak esleitutako eraikigarritasuna duena: indarreko plangintzan aurreikusitako eraikigarritasunaren arabera baloratzen da, BalE erregelamenduaren 22. artikuluko hondar-metodoa aplikatuta.

   Adibidea: Etxebizitzari dagozkion 2.000 m^2sabai-ko eraikigarritasuna duen partzela. Kokaleku horretan, etxebizitza librearen salmenta-prezioa 2.500 €/m^2sabai da; eta eraikuntza-kostua —eraikuntzarekin lotutako gastuak barnean hartuta— 1.000 €/m^2 sabai. Partzelaren balioa hau izango da: 2.000 × [(2.500 – 1,4) – 1.000]= 1.571.429 €.
2. Lurzoru **eraiki gabea** (edo legez kanpoko eraikuntzaduna), urbanizazio-jarduketan sartuta ez dagoena eta hirigintza-antolamenduak esleitutako eraikigarritasunik ez duena: Lurzoruaren balioa lortzeko, hirigintza-eremu horretako (erabilera, tipologia eta intentsitateei dagokienez, beste eremu batzuetatik bereizten dituen hirigintza-parametro juridikoak dituena) batez besteko eraikigarritasuna eta erabilera nagusia hartu behar dira kontuan, BalE erregelamenduaren 21. artikuluan aurreikusitako moduan. Eraikigarritasunaren balioa BalE erregelamenduaren 22. artikuluko hondar-metodoaren bidez zehaztuko da.

   Adibidea: Industria-eremu batean dagoen 200 m^2-ko partzela ez-eraikigarria; eremu horretako partzela eraikigarrien batez besteko eraikigarritasuna 0,8 m^2sabai/m^2 da. Eremu horretan, salmenta-prezioa 2.000 €/m^2sabai da, eta eraikuntzaren kostu osoa 600 €/m^2sabai. Partzelaren balioa hau izango da: 200 × 0,8 × [(2.000 ÷ 1,4) – 600]= 132.571 €
3. **Urbanizatzeko jarduketan** sartutako lurzorua (erreforma edo berrikuntza): Jatorrizko egoeran zegoen antolamenduan aurreikusitako eraikigarritasunaren arabera baloratuko da (desjabetzea legitimatzen duen planaren aurre-aurreko planean aurreikusitakoa, Jurisprudentzia Gordailu Ofiziala: 1159/2016 AGE).

   Adibidea: 1.500 m^2-ko partzela bat, plan partzial bat egikaritzean urbanizatua; plan horretan erabilera industrialeko 0,8 m^2 sabai/ m^2-ko eraikigarritasuna esleitu zitzaion. Beste plan bat onartu zen, egikaritu ez zena, eta han bizitegi-erabilerako 3,5 m^2 sabai/m^2-ko eraikigarritasuna aurreikusten zen. Orain desjabetu egin dute, bizitegi-erabilerako 2 m^2sabai/m^2-ko eraikigarritasuna aurreikusten duen plan bat egikarituta; salmenta-balioa eta eraikuntza-kostuak 1. eta 2. apartatuetako adibideetan jasotakoak dira. Partzelaren balioa, lehen azaldutako jurisprudentziaren arabera eta jatorrizko eraikigarritasunari jarraikiz, honako hau da: 1.500 × 3,5 × [(2.500 ÷ 1,4) – 1.000]= 4.125.000 €. Jatorrizko eraikigarritasuna eraldaketa-prozesuan parte hartzeagatik lortutakoa dela iritzi gero, honako hau izango da balioa: 1.500 × 0,8 × [(2.000 ÷ 1,4) – 600] = 994.286 €.

   • 1. kasutik 3. kasura bitartean azaldutako partzelak **kitatu gabeko kargarik** badu, karga horien zenbatekoa mayoratuta kendu beharko da arrisku-priman (Lurzoruari buruzko Legearen Balorazio Erregelamenduaren IV. eranskinean finkatua) eta arriskurik gabeko tasan (bi eta sei urtera arteko zor publikoaren batez besteko barne-errendimendua).

   Adibidea: 1. apartatuko adibideko partzelan, perimetroan espaloi bat exekutatzeko dago; aurrekontua: 25.000 €. Arrisku-prima % 8 da, eta arriskurik gabeko tasa, berriz, % 1. Partzelaren balioa honako hau izango da: 1.571.429 – [25.000 × (1+% 8+% 1)] = 1.544.179 €.
4. **Legearen araberako eraikuntza** duen lurzorua: Honako bi balio hauen artetik handiena hartuko da aintzat: a) Lurzorua eraiki gabe egongo balitz bezala baloratuta ateratzen dena, aurreko 1-3 apartatuak, edo b) Lurzorua eta eraikuntza batera baloratuta —merkatuaren arabera— ateratzen dena.

   Adibidea: 3. apartatuko adibideko partzelan 300 m^2sabaiko pabiloi bat dago eraikia. Azalera hori duen eta eraiki gabeko 1.700 m^2-ko eremu pribatu bat duen pabiloi baten merkatu-balioa 750.000 € da. Eraiki gabe baldin badago lurzoruaren balioa handiagoa denez, horrek baldintzatuko du partzelaren balioa (4.125.000 €), eta ez du konpentsaziorik izango lehendik dagoen eraikuntzagatik.

Legeria: Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testu bategina (LHBLTB), 7., 21. eta 34.-41. artikuluak
Lurzoruari buruzko Legearen Balorazio Erregelamendua (BalE)

INDEMNIZACIÓN DE LA FACULTAD

La indemnización de la Facultad **compensa las expectativas generadas**, por la previsión de realización de una actuación de nueva urbanización, cuando dichas expectativas se vean defraudadas por la ejecución mediante expropiación, o por la alteración de planeamiento que deje sin efecto dicha previsión o modifique las condiciones de desarrollo de la misma.

Es requisito de la indemnización que **no se hubiera iniciado la actuación y no hubieran vencido los plazos** previstos para iniciarla, salvo que tal retraso fuera imputable a la administración.

En el caso de la alteración de las condiciones de desarrollo, es necesario que la actuación reúna los requisitos para iniciarla (Plan Parcial, Programa de Actuación Urbanizadora, Proyecto de Reparcelación y Proyecto de Urbanización).

La **indemnización se calculaba** (hasta la STC 218/2015 referida más adelante) aplicando el mismo porcentaje de la cesión gratuita de edificabilidad, a la diferencia entre el valor a actuación terminada que hubiera adquirido el terreno y el valor resultante de la expropiación o de la alteración de condiciones de origen y actuación terminada o, en caso de alteración de las condiciones, a la diferencia entre los valores a actuación terminada antiguo y el resultante de la alteración.

Ejemplo 1: Indemnización de la facultad a consecuencia de la ejecución mediante expropiación de un Sector de 50.000 m2 con una edificabilidad de 1,1 m2t/m2 de vivienda, el valor del suelo a origen es de 13,97 €/m2t (según la metodología de valor del suelo rural de la página anterior); el precio de venta de la vivienda es de 2.000 €/m2t y el coste de construcción de 1.000 €/m2t.

El valor del suelo a origen es: 50.000 × 13,97= 698.500 €

El valor a actuación terminada de las parcelas resultantes correspondientes al suelo es de 85% × 1,1 × 50.000 × [(2.000 ÷ 1,4) – 1.000]= 20.035.714 €

La indemnización era 15% × (20.035.714 – 698.500)= 2.900.582 €

Ejemplo 2: Indemnización de la facultad a consecuencia de la modificación del planeamiento, la edificabilidad prevista en un sector de 50.000 m^2 con una edificabilidad de 1,1 m^2t/m^2 de vivienda libre cambiando la calificación a VPS; el precio de venta de la vivienda es de 2.000 €/m^2t y el coste de construcción de 1.000 €/m^2t, el precio de la vivienda de VPS es de 1.370 €/m^2t y su coste de construcción es de 800 €/m^2t.

El valor a actuación terminada de las parcelas resultantes antes de la modificación correspondientes al suelo es de 85% × 1,1 × 50.000 × [(2.000 ÷ 1,4) – 1.000]= 20.035.714 €.

Tras la modificación, el valor a actuación terminada de las parcelas resultantes correspondientes al suelo es de 85% × 1,1 × 50.000 × [(1.370 ÷ 1,4) – 800]= 8.348.214 €.

La indemnización es 15% × (20.035.714 – 8.348.214)= 1.753.125 €.

La STC 218/2015, que anuló el criterio de determinación de la cuantía de la indemnización, señala que el legislador ha de fijar dicho criterio de forma uniforme para todas las Comunidades Autónomas y estableciendo «*un complemento indemnizatorio que responda al valor real de la facultad de la que los propietarios se han visto privados*». El legislador no ha establecido dicho criterio de valoración a la fecha de esta edición. La STC anula únicamente el criterio de valoración para el supuesto de expropiación pero no para el de alteración de las condiciones, aunque es posible el mismo resultado ante cualquier recurso que se plantee al respecto.

INDEMNIZACIÓN DE LA INICIATIVA

Los **gastos realizados para la ejecución de las actuaciones de urbanización** o edificación deben ser indemnizados cuando devengan inútiles para quien los haya realizado a consecuencia de una **decisión de la administración.**

La indemnización consiste en el importe de los gastos incrementados en la Prima de Riesgo, PR (fijada en el Anexo IV RVal) y en la Tasa Libre de Riesgo, TLR (rendimiento interno de la deuda pública de plazo entre dos y seis años).

Indemnización= Gastos inútiles × (1 + TLR + PR)

Ejemplo: Indemnización de la iniciativa a consecuencia de la modificación de planeamiento que impida el desarrollo de una actuación de urbanización en que se contempla la reordenación de un ámbito para pasar de una edificabilidad industrial de 0,8 m^2t/m^2a una edificabilidad residencial de 2 m^2t/m^2. Un propietario había encargado y abonado por la redacción de un Plan Especial para el desarrollo de la actuación 90.000 €.

La PR es del 8% y se considera una TLR del 1%. La indemnización sería: 90.000 × (1+8%+1%)= 98.100 €.

En el caso de que la actuación sea **declarada ilegal** los **gastos realizados para la ejecución de las actuaciones de urbanización** o edificación deben ser indemnizados siempre que éste acredite haber sufrido por dicha causa un daño efectivo e indemnizable en la forma y condiciones del artículo 32 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de régimen jurídico del sector público y por tanto sin incremento de PR y TLR (LEF, DAdic.; LRJSP).

Indemnización= Gastos inútiles

INDEMNIZACIÓN DE LA PROMOCIÓN

Una vez **iniciada la actuación**, si esta se desarrollara de acuerdo con los instrumentos de ordenación y sin incumplimiento de plazos, la **imposibilidad de continuación o la modificación de las condiciones** que reduzca su valor se indemnizara con la superior de las tres siguientes cantidades:

- Los gastos realizados, incrementados en la Prima de Riesgo y la Tasa Libre de Riesgo.
- La indemnización de la Facultad.
- En proporción al grado de ejecución de la actuación y, en caso de que se impida la actuación, la diferencia entre el valor a origen y si estuviera terminada la actuación o, en caso de alteración de las condiciones, la reducción de valor a actuación terminada.

En caso de no encontrarse al corriente en el cumplimiento de deberes y obligaciones, la indemnización se limitará a los gastos efectuados.

Ejemplo: Indemnización de la promoción a consecuencia del cambio de calificación de vivienda libre a Vivienda Social de un solar en suelo urbano no consolidado por la urbanización (urbanizado en reforma o renovación) con una edificabilidad de 4.000 m^2t; el precio de venta de la vivienda es de 2.000 €/m^2t y el coste de construcción de 1.000 €/m^2t, el precio de la vivienda de VPO de régimen general es de 1.370 €/m^2t y su coste de construcción es de 800 €/m^2t. El presupuesto de la urbanización imputable al solar es de 400.000 €; la obra realizada es de 100.000 € (un 25%).

El valor del solar de vivienda libre a actuación terminada es de 4.000 × [(2.000 ÷ 1,4) – 1.000]= 1.714.286 €.

El valor del solar de VPO a actuación terminada es de 4.000 × [(1.370 ÷ 1,2) – 800]= 1.366.667 €.

No procede la indemnización por los gastos realizados porque estos no resultan inútiles al propietario.

No procede la indemnización de la facultad por no ser actuación de nueva urbanización.

La indemnización por el grado de desarrollo de la actuación es de 25% × (1.714.286 – 1.366.667)= 86.905 €.

La indemnización de la promoción es la mayor de las tres: 86.905 €.

Legislación: Texto Refundido de la Ley de Suelo y Rehabilitación Urbana (TRLSR), arts. 7, 21 y 34 a 41
Sentencia del Tribunal Constitucional (STC) 218/2015 (BOE 27 de noviembre de 2015): declara inconstitucional y nulo el art. 25.2 a) del TRLR (ahora TRLSR 38.2.a)
Reglamento de Valoraciones de la Ley de Suelo (RVal), arts. 28 y 29
Ley de 16 de diciembre de 1954 sobre expropiación forzosa, Disposición Adicional

AHALMENARI DAGOKION KALTE-ORDAINA

Ahalmenari dagokion kalte-ordainak urbanizazio berriko jarduketa bat egiteko aurreikuspenak **eragindako espektatibak konpentsatzen ditu**, baldin eta espektatiba horiek zapuztuta geratzen badira desjabetze bidez egikaritzeagatik, edo plangintza aldatzeagatik, eta horren ondorioz aurreikuspen hori indarrik gabe geratzen bada edo aurreikuspena garatzeko baldintzak aldatzen badira.

Kalte-ordaina eskuratzeko, ezinbestekoa da **jarduketa hasi gabe egotea eta hasteko aurreikusitako epeak ere bukatu gabe egotea**, salbu eta atzerapenaren erantzukizuna administrazioari leporatu dakiokeenean.

Garatzeko baldintzak aldatuz gero, jarduketak hasteko bete behar dituen eskakizunak bete beharko ditu (plan partziala, urbanizatzeko jarduketa-programa, birpartzelazio-proiektua eta urbanizazio-proiektua).

Kalte-ordaina kalkulatzeko (218/2015 KAE arte, aurrerago aipatua bera), eraikigarritasunaren doako lagapenaren ehuneko bera aplikatzen zitzaion lursailak eskuratutako jarduketa amaituko balioaren eta desjabetzearen ondoriozko balioaren arteko aldeari, edo jatorrizko baldintzen edo jarduketa amaituaren aldaketaren arteko aldeari, edo —baldintzak aldatuz gero— jarduketa amaitu zaharreko balioen eta aldaketaren ondoriozko balioaren arteko aldeari.

1. adibidea: Ahalmenari dagokion kalte-ordaina, 50.000 m2-ko sektore bat desjabetze bidez egikaritu delako; sektorearen eraikigarritasuna etxebizitzako 1,1 m2sabai/m2 da, lurzoruaren jatorrizko balioa 13,97 €/m2sabai (aurreko orrialdeko landa-lurzoruaren balorazioaren adibidearen arabera); etxebizitzaren salmenta-prezioa 2.000 €/m2sabai da, eta eraikuntza-kostua, 1.000 €/m2sabai.

Lurzoruaren jatorrizko balioa hau izango da: 50.000 × 13,97= 698.500 €

Lurzoruari dagozkion partzelen jarduketa amaituko balioa: % 85 × 1,1 × 50.000 × [(2.000 ÷ 1,4) – 1.000]= 20.035.714 €.

Kalte-ordaina hauxe zen: % 15 × (20.035.714 – 698.500)= 2.900.582 €.

2. adibidea: Ahalmenari dagokion kalte-ordaina, aurreikusitako eraikigarritasuna plangintzaren ondorioz aldatzeagatik: 50.000 m^2-ko sektorea, sektorearen eraikigarritasuna 1,1 m^2sabai/m^2 etxebizitza librekoa, GBE kalifikaziora aldatuta; etxebizitzaren salmenta-prezioa 2.000 €/m^2sabai da, eta eraikuntza-kostua, 1.000 €/m^2sabai; GBEaren prezioa 1.370 €/m^2sabai da, eta eraikuntza-kostua, 800 €/m^2sabai.

Aldaketaren aurretik, lurzoruari dagozkion partzelen jarduketa amaituko balioa: % 85 × 1,1 × 50.000 × [(2.000 ÷ 1,4) – 1.000]= 20.035.714 €.

Aldaketaren ondoren, lurzoruari dagozkion partzelen jarduketa amaituko balioa hau da: % 85 × 1,1 × 50.000 × [(1.370 ÷ 1,4) – 800]= 8.348.214 €.

Kalte-ordaina: % 15 × (20.035.714 – 8.348.214)= 1.753.125 €.

Konstituzio Auzitegiaren 218/2015 epaiak deuseztatu egin zuen kalte-ordainaren munta zehazteko irizpidea, eta zehaztu zuen legegileak finkatu beharko duela irizpide hori autonomia erkidego guztientzat modu uniformean, eta *jabeei kentzen zaien ahalmenaren benetako balioari dagokion kalte-ordainaren osagarria* ezarriz. Edizio hau argitaratzeko egunean, balorazio-irizpide hori ezarri gabe dauka oraindik legegileak. Konstituzio Auzitegiaren epaiak balorazio-irizpidea indargabetzen du soilik desjabetze-kasuetan, baina ez baldintzak aldatzen direnean, baina emaitza bera izan daiteke horren gainean planteatzen den edozein errekurtsotan.

EKIMENARI DAGOKION KALTE-ORDAINA

Urbanizatze- zein eraikitze-jarduketak exekutatzeko egin diren gastuei kalte-ordaina dagokie, baldin eta, **administrazioaren erabaki baten ondorioz**, izan dituenarentzat alferreko gertatzen badira.

Kalte-ordaina honako hauetan gehitutako gastuen zenbatekoa izango da: arrisku prima (AP) —BalE erregelamenduaren IV. eranskinean finkatua) eta arriskurik gabeko tasa (AGT) —bi eta sei urte bitarteko epeko zor publikoaren barne-errendimendua—.

Kalte-ordaina= Alferreko gastuak × (1 + AGT + AP)

Adibidea: Ekimenari dagokion kalte-ordaina plangintza aldatu delako, eta aldaketa horren ondorioz urbanizazio-jarduketa ezin delako garatu; jarduketa horretan, 0,8 m^2sabai/ m^2-ko industria-eraikigarritasuna 2 m^2sabai/m^2-ko bizitegitarako eraikigarritasun bihurtu behar zen. Jabe batek plan berezi bat idazteko agindua zuen jarduketa garatzeko, eta 90.000 € ordaindu zituen.

AP % 8koa da, eta % 1eko AGT kalkulatu da. Kalte-ordaina honako hau izango da: 90.000 × (1+% 8+% 1)= 98.100 €.

Jarduketa **legez kanpokotzat jotzen** bada, eraikuntza edo **urbanizazio- edo eraikingintza-jarduketak gauzatzeko egindako gastuek** kalte-ordaina sortuko dute, baldin eta horren zioz egiazko kalte ordaingarri eragin bada, Sektore publikoaren araubide juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeak 32. artikuluan ezarritako forman eta baldintzetan, eta, beraz, AP eta AGT gehitu gabe (NDL, xedapen gehigarria; SPAJL).

Kalte-ordaina= Alferreko gastuak

SUSTAPENARI DAGOKION KALTE-ORDAINA

Jarduketa hasi eta gero, antolamendu-tresnen arabera garatzen bada eta ezarritako epeak bete badira, **jarraitu ezinik geratuz gero edo baldintzak aldatuz gero** eta, horren ondorioz, balioa murriztu egiten bada, honako hiru zenbateko hauen artetik handienarekin ordainduko da kaltea:

- Egindako gastuak, arrisku-prima eta arrisku gabeko tasa gehituta.
- Ahalmenari dagokion kalte-ordaina.
- Jarduketaren exekuzio-mailaren proportzioan eta, jarduketa galarazi bada, lurzoruak jatorrizko izaeran zuen balioaren eta jarduketa amaituta balego legokiokeen balioaren arteko aldea; edo, baldintzak aldatuz gero, bukatutako jarduketaren balioak izan duen murrizketa.

Eginbehar eta betebeharrak betetzen atzeratuta ibiliz gero, egindako gastuei dagokien kalte-ordaina jasoko da soilik.

Adibidea: Sustapenari dagokion kalte-ordaina, etxebizitza libre bat etxebizitza sozial bihurtu delako urbanizazio bidez finkatu gabe dagoen eta 4.000 m^2sabaiko eraikigarritasuna duen hiri-lurzoruko orube batean; etxebizitzaren salmenta-prezioa 2.000 €/m^2sabai da, eta eraikuntza-kostua, 1.000 €/m^2sabai; araubide orokorreko babes ofizialeko etxebizitzaren prezioa 1.370 €/m^2sabai da, eta eraikuntza-kostua, 800 €/m^2sabai. Orubeari dagozkion urbanizazio-lanen aurrekontua 400.000 € da; egindako obraren kostua 100.000 € da (% 25).

Etxebizitza librearen orubean, jarduketa amaituko balioa hau da: 4.000 × [(2.000 ÷ 1,4) – 1.000]= 1.714.286 €.

Babes ofizialeko etxebizitzaren orubean, jarduketa amaituko balioa hau da: 4.000 × [(1.370 ÷ 1,2) – 800]= 1.366.667 €.

Egindako gastuengatiko kalte-ordaina ez da bidezkoa kasu honetan, gastu horiek ez baitira alferrekoak jabearentzat.

Ahalmenari dagokion kalte-ordaina ere ez da bidezkoa kasu honetan, ez baita urbanizazio berriko jarduketa.

Jarduketaren garapen-mailaren araberako kalte-ordaina hau da: % 25 × (1.714.286 – 1.366.667)= 86.905 €.

Sustapenari dagokion kalte-ordaina hiruretan handiena da: 86.905 €.

Legeria:

Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testu bategina (LHBLTB), 7., 21. eta 34.-41. artikuluak
Konstituzio Auzitegiaren 218/2015 Epaiak (KAE) (2015eko azaroaren 27ko BOE) konstituzio-kontrako eta deusez deklaratu zuen LLTBren 25.2 a) artikulua (orain, LHBLTB 38.2 a)
Lurzoruari buruzko Legearen Balorazio Erregelamendua (BalE), 28. eta 29. artikuluak
1954ko abenduaren 16ko Legea, nahitaezko desjabetzeari buruzkoa, xedapen gehigarria

CONCEPTOS	
Urbano	El **suelo integrado en la trama urbana existente, por contar con los servicios urbanos básicos** (acceso rodado, abastecimiento de agua, evacuación de pluviales y fecales y suministro de energía eléctrica, todos ellos de capacidad suficiente) **o por encontrarse en un área consolidada por la urbanización en sus dos terceras partes**. Es **no consolidado por la urbanización** el que carezca de los servicios, dotaciones e infraestructuras precisos previstos por el planeamiento (sin perjuicio de las cesiones y urbanización compatible con el suelo urbano consolidado, art. 26 de la Ley de Suelo y Urbanismo), o sea objeto de reordenación o renovación urbana que precise la renovación, mejora o rehabilitación de la urbanización. Es **no consolidado por edificabilidad** el que, no siendo no consolidado por la urbanización, tenga atribuida una edificabilidad ponderada superior a la previa existente.
Urbanizable	El suelo que, **no siendo urbano**, esté **destinado por el planeamiento a usos urbanísticos**. Es **sectorizado** el que tenga fijadas sus condiciones para su desarrollo mediante Plan Parcial, o cuente con ordenación pormenorizada; y **no sectorizado** el que todavía no tenga establecidas las condiciones básicas para su desarrollo.
Carga dotacional	La obligación de incrementar dotaciones públicas, que grava los incrementos de edificabilidad del suelo urbano no consolidado por edificabilidad.
Sistema General	La dotación pública calificada en la ordenación estructural que dé servicio a más de un ámbito de ordenación (Área o Sector).

TIPOS DE ACTUACIÓN PARA LA EJECUCIÓN DEL PLANEAMIENTO

PREVALENCIA

De acuerdo con el principio de prevalencia (SSTC 102, 116 y 127 de 2016) el operador primario (Tribunales y Administración) debe otorgar preferencia a la legislación básica estatal cuando dos leyes (básica y autonómica) entren en conflicto, desplazando la autonómica en favor de la básica y sin necesidad de suscitar cuestión de inconstitucionalidad.

Por tanto, a la hora de definir el alcance y determinaciones de los tipos de actuación de la legislación urbanística, debe partirse de la premisa de las determinaciones básicas prevalentes y dar por inaplicables las determinaciones urbanísticas que las contradigan:

- Tipos de actuación básicos (TRLSR, art. 7).
- Régimen urbanístico del derecho de propiedad del suelo (TRLSR, art. 11).
- Contenido del derecho de propiedad del suelo en situación rural y urbanizado: facultades (TRLSR, arts. 12, 13 y 14).
- Contenido del derecho de propiedad del suelo en situación rural o vacante de edificación, y urbanizado: deberes y cargas (TRLSR, arts. 16 y 17).
- Deberes vinculados a la promoción de las actuaciones de transformación urbanística y a las actuaciones edificatorias (TRLSR, art. 18).
- Los derechos de realojamiento y de retorno (TRLSR, art. 19).

LA ACTUACIÓN INTEGRADA

Es el **modo típico de ejecución del planeamiento** y consiste en la **programación, reparcelación y urbanización de modo conjunto de los propietarios afectados** con la finalidad de dar lugar a uno o varios solares. Requiere que el suelo esté clasificado como urbano no consolidado por la urbanización o urbanizable. La LSU exige que, además, el coste de la urbanización exceda del 5% de los costes de la edificación prevista; sin embargo, no debe entenderse que este requisito puede impedir la aplicación de los efectos de la actuación de urbanización de la legislación del estado (básicamente, estándar de VPP y equidistribución, ROJ: STS 2971/2017).

LA ACTUACIÓN AISLADA

Tiene por objeto la edificación de solares o parcelas y se produce **cuando no se den los requisitos de la actuación integrada**.

Característica fundamental: **ausencia de reparto de beneficios y cargas** (lo que la doctrina ha calificado como la «lotería del planeamiento») y comporta la **posibilidad de solicitud directa de licencia de edificación**.

En caso de que la parcela no fuera solar, deben realizarse las cesiones y obras de urbanización necesarias para que la parcela adquiera este carácter.

En el caso de que se tratara de suelo urbano no consolidado por edificabilidad, previa o simultáneamente con la licencia, deberá levantarse la eventual carga dotacional.

En el supuesto de parcelas en *pro indiviso* o que deba actuarse conjuntamente con parcelas contiguas, cabe la posibilidad de reparcelación interior para, en su caso, agrupar las parcelas, y adjudicar la parcela edificable a un solo propietario.

LA ACTUACIÓN DE DOTACIÓN

Es **complementaria de la actuación aislada** y se produce cuando el solar o parcela edificable sea suelo no consolidado por edificabilidad, su objeto es levantar la carga dotacional que se corresponda con dicho incremento de edificabilidad.

Además de la cesión gratuita de edificabilidad del 15%, el incremento de edificabilidad ponderada puede generar nuevas dotaciones imputables a la parcela edificable. En tal caso la actuación de dotación tiene por objeto identificar la obligación y materializar la cesión o, en caso de «imposibilidad», su sustitución económica para la obtención posterior por la administración con cargo a dichos fondos (téngase en cuenta la legislación básica del estado, ROJ STSJPV 1737/2016).

LA ACTUACIÓN DE EJECUCIÓN DE DOTACIONES PÚBLICAS

Tiene por objeto la **obtención de terrenos con destino dotacional público**, cuando no esté prevista otra forma de obtención.

Las dotaciones públicas previstas que no sean de titularidad pública y no tengan previsto otro modo de obtención, han de obtenerse mediante expropiación con cargo a presupuestos públicos.

En el caso de los sistemas generales en suelo urbano no consolidado y urbanizable sectorizado, la expropiación debe realizarse en el plazo de cuatro años desde la aprobación de la ordenación estructural, pudiendo instar la expropiación el propietario en caso de que no se hiciera (expropiación por ministerio de ley).

Legislación: Ley 2/2006 de Suelo y Urbanismo (LSU), arts. 11, 14, 25.2, 26, 27, 53, 54, 136 a 139 y 186
Decreto 123/2012 de estándares urbanísticos (DEU), arts. 2, 6 y 7
Texto Refundido de la Ley de Suelo y Rehabilitación Urbana (TRLSR), arts. 7 a 19

KONTZEPTUAK	
Hirikoa	**Lehendik dagoen hiriaren bilbean integratuta dagoen lurzorua, badituelako oinarrizko hiri-zerbitzuak** (ibilgailuen sarbidea, ur-hornidura, euri-urak eta ur beltzak husteko sarea eta energia elektrikoaren hornidura, denak ere behar besteko ahalmenarekin) **edo urbanizazio bidez bi herenak finkatuta dituen eremu batean dagoelako**. **Urbanizazio bidez finkatu gabekoa** da, baldin eta ez badu plangintzan aurreikusitako beharrezko zerbitzu, zuzkidura eta azpiegiturarik (alde batera utzi gabe finkatutako hiri-lurzoruarekin bateragarria den urbanizazioa eta lagapenak, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legearen 26. art.), edo urbanizazioa berritzea, hobetzea edo birgaitzea eskatzen duen hiri-berritzearen edo berroneratzearen xede bada. **Eraikigarritasun bidez finkatu gabekoa** da, baldin eta, urbanizazio bidez finkatu gabea izan gabe, lehendik zegoena baino eraikigarritasun haztatu handiagoa esleitua badu.
Urbanizagarria	**Hiri-lurzoru izan gabe**, **plangintzaren arabera hirigintza-erabileretara bideratuta** dagoen lurzorua. **Sektorizatua** da, baldin eta garapen-baldintzak plan partzialaren bidez finkatuak baditu, edo antolamendu xehatua baldin badu; eta **sektorizatugabea**, aldiz, garatzeko oinarrizko baldintzak oraindik finkatu gabe baditu.
Zuzkidura-karga	Zuzkidura publikoak areagotzeko betebeharra; eraikigarritasun bidez finkatu gabeko hiri-lurzoruaren eraikigarritasun-gehikuntzak zergapetzen ditu.
Sistema orokorra	Egiturazko antolamenduan kalifikatutako zuzkidura publikoa, antolamendu-eremu (area edo sektorea) bati baino gehiagori zerbitzu ematen diona.

PLANGINTZA EGIKARITZEKO JARDUKETA MOTAK

NAGUSITASUNA

Nagusitasun-printzipioaren arabera (2016ko 102 KAE, 116 KAE eta 127 KAE), lehen mailako operadoreak (auzitegiek eta administrazioak) lehentasuna eman behar dio oinarrizko estatu-legediari, baldin eta bi legeren artean (oinarrizkoa eta autonomikoa) gatazkarik badago. Beraz, autonomikoa baztertuko da eta oinarrizkoa gailendu, konstituzio-kontrakotasuneko arazorik abiarazi gabe.

Ondorioz, hirigintza-legediko jarduketa moten irismena eta zehaztapenak ezartzean, kontuan hartu behar da oinarrizko zehaztapen nagusien abiapuntua, eta, beraz, aplikaezintzat jo haien kontra doazen hirigintza-zehaztapenak:

- Oinarrizko jarduketa motak (LHBLTB, 7. artikulua).
- Lurzoruaren jabetza-eskubidearen hirigintza-araubidea (LHBLTB, 11. artikulua).
- Landa-lurzoruaren eta lurzoru urbanizatuaren jabetzarako eskubidearen edukia: eskumenak (LHBLTB, 12., 13. eta 14. artikuluak).
- Landa-lurzoruaren edo eraikinik gabekoaren eta lurzoru urbanizatuaren jabetza-eskubidearen edukia: eginbeharrak eta kargak (LHBLTB, 16. eta 17. artikuluak).
- Hirigintza-eraldaketako jarduketen sustapenari eta eraikingintza-jarduketei dagozkien eginbeharrak (LHBLTB, 18. artikulua).
- Ordezko bizitokia izateko eta lehengo bizitokira itzultzeko eskubideak (LHBLTB, 19. artikulua).

JARDUKETA INTEGRATUA

Plangintza egikaritzeko ohiko modua da: **eraginpeko jabeek batera programatzean, birpartzelatzean eta urbanizatzean** datza, orube bat edo batzuk sortze aldera. Horretarako, lurzoruak urbanizazioaren ondoriozko hiri-lurzoru finkatugabea edo lurzoru urbanizagarria izan behar du. LHLren arabera, gainera, urbanizazioaren kostua aurreikusitako eraikuntza-kostuen % 5etik gorakoa izan behar da; hala ere, ezin da ulertu betekizun horrek estatuko legediko urbanizazio-jarduketaren ondorioak aplikatzea galaraz dezakeenik (funtsean, BPEren estandarra eta berdinbanaketa, Jurisprudentzia Gordailu Ofiziala: 2971/2017 AGE).

JARDUKETA ISOLATUA

Orubeak edo partzelak eraikitzea du xede, eta **jarduketa integratuaren betekizunak betetzen ez direnean** gertatzen da.

Funtsezko ezaugarria: **onurak eta kargak ez dira banatzen** (doktrinan «plangintzaren loteriatzat» hartzen da), eta **eraikitzeko lizentzia zuzenean eskatzeko aukera** ematen du.

Partzela orubea ez bada, egin beharreko lagapen eta urbanizazio-obrak egin behar izango dira partzela orube bihur dadin.

Eraikigarritasuna handitzearen ondoriozko hiri-lurzoru finkatugabea izanez gero, lizentziarekin batera edo hura eskuratu aurretik, dagokion zuzkidura-karga gauzatu beharko da.

Partzela indibisoen kasuan edo ondoko partzelekin batera jardun beharrekoak baldin badira, barne-birpartzelazioa egin daiteke, partzelak elkartzeko eta partzela eraikigarria jabe bakarrari esleitzeko, hala badagokio.

ZUZKIDURA-JARDUKETA

Jarduketa isolatuaren osagarri da, eta orube edo partzela eraikigarria eraikigarritasuna handitzearen ondoriozko lurzoru finkatugabea denean gertatzen da; eraikigarritasun-hazkunde horrekin bat datorren zuzkidura-karga gauzatzea du xede.

% 15eko eraikigarritasuna doan lagatzeaz gain, haztatutako eraikigarritasuna handitzeak zuzkidura berriak eragin ditzake, partzela eraikigarriari egotz dakizkiokeenak. Halakoetan, betebeharra identifikatu eta lagapena gauzatzea da zuzkidura-jarduketaren xedea, edo, «ezinezkoa» bada, ekonomikoki ordezkatzea ondoren administrazioak funts horien kargura eskura dezan (kontuan hartu behar da estatuko oinarrizko legeria, Jurisprudentzia Gordailu Ofiziala: 1737/2016 EAEJANE).

ZUZKIDURA PUBLIKOAK EGIKARITZEKO JARDUKETA

Zuzkidura publikorako diren lursailak eskuratzea du xede, lursailak eskuratzeko beste modurik aurreikusi ez denean.

Aurreikusitako zuzkidura publikoak, ez badira titulartasun publikokoak eta ez badaukate eskuratzeko beste modurik aurreikusita, desjabetze bidez eskuratu beharko dira, aurrekontu publikoen kargura.

Hiri-lurzoru finkatugabeetako eta lurzoru urbanizagarri sektorizatuetako sistema orokorren kasuan, desjabetzea lau urteko epean gauzatu behar da, egiturazko antolamendua onartu zenetik aurrera, eta jabeak eska dezake desjabetzea, halakorik egin ezean (desjabetzea legeak agintzen duelako).

Legeria: 2/2006 Legea, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa (LHL), 11., 14., 25.2, 26., 27., 53., 54., 136.-139. eta 186. artikuluak
123/2012 Dekretua, hirigintzako estandarrei buruzkoa, 2., 6. eta 7. artikuluak
Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testu bategina (LHBLTB), 7.-19. artikuluak

PROCEDIMIENTO

1. **Ordenación pormenorizada.**
2. **Programa de Actuación Urbanizadora (PAU)**, que tiene por objeto programar y organizar la ejecución del planeamiento, estableciendo fases de ejecución autónomas **(Unidades de Ejecución)** para las que se establece el sistema de actuación.
3. **Reparcelación**, para adecuar el parcelario a la nueva ordenación y distribuir equitativamente los beneficios y las cargas.
4. **Proyecto de Urbanización**, comprensivo de las obras de dotación de infraestructuras, servicios y dotaciones.

DELIMITACIÓN DE UNIDADES DE EJECUCIÓN

La **unidad de ejecución** es el **ámbito de reparto pleno de beneficios y cargas y de ejecución de la urbanización**; por lo que debe posibilitar la equitativa distribución de beneficios y cargas y tener autonomía operativa.

Las unidades de ejecución que se delimiten tienen que estar **equilibradas en aprovechamiento** respecto a las demás unidades del mismo ámbito de ordenación (Área o Sector), admitiéndose una desviación máxima del 5%, salvo que la desigual distribución espacial de las cargas aconseje diferencias que excedan de dicho 5%.

SISTEMAS DE ACTUACIÓN

El sistema de actuación es el conjunto de reglas reguladoras de las relaciones entre los interesados, desde la delimitación de la unidad de ejecución hasta la conclusión de las obras de urbanización y la liquidación de su coste.

La Ley de Suelo y Urbanismo prevé **cuatro sistemas de actuación**:

- **Expropiación,** que consiste en la adquisición de la actuación, que pasa a ser de propietario único. Puede desarrollarse mediante concesionario privado.
- **Cooperación**, en el que la administración se encarga de ejecutar el planeamiento girando los costes a los propietarios.
- **Agente Urbanizador**, en el que un empresario privado se encarga de la ejecución del planeamiento con cargo a los propietarios privados, recibiendo por ello una remuneración que puede llegar al 12% de los costes de la obra de urbanización.
- **Concertación**, es el sistema en que los propietarios se constituyen en Junta para ejecutar el planeamiento.

La Ley de Suelo y Urbanismo califica los sistemas de Agente Urbanizador y Concertación como privados, a pesar de tener naturaleza concesional o asimilada (art. 169.4 LSU y art. 9.7 TRLSR).

REPARCELACIÓN

La reparcelación consiste en la **adecuación a la nueva ordenación de la distribución parcelaria, sustituyéndose las propiedades originales por las parcelas privadas resultantes**, y **adjudicando al municipio la parte correspondiente al 15% de cesión gratuita de edificabilidad**; así como en la distribución de las cargas de urbanización y en el establecimiento de las compensaciones entre los partícipes por los desajustes en la adjudicación.

- La **cuota de participación en la comunidad** o derechos de los participe se determina en **proporción a la superficie de suelo aportado**, excepto: a) el 15% que corresponde al municipio en concepto de cesión gratuita de edificabilidad, b) los terrenos dotacionales públicos preexistentes que hubieran sido obtenidos por cesión gratuita, en tanto se sustituyan por los resultantes de la ordenación y c) los sistemas generales ya existentes que se consolidan en la nueva ordenación.
- Una vez identificado el alcance de las cargas de la actuación y los criterios de su distribución entre los afectados, se debe ofrecer a estos, por plazo de un mes, la opción entre tomar parte en la actuación o quedarse al margen de ella, en cuyo caso deberían ser expropiados con cargo a la actuación.
- **Las parcelas privadas resultantes se valoran** según el **valor de repercusión de la edificabilidad** de cada parcela, cediéndose al municipio los terrenos dotacionales públicos.
- Las parcelas privadas resultantes **se distribuyen en proporción a las cuotas de participación** teniendo en cuenta que: 1) los derechos municipales por el 15% tienen preferencia a la adjudicación de parcelas de vivienda protegida, 2) la propiedad de los terrenos edificados compatibles con la ordenación debe ser conservada y 3) los demás terrenos se adjudicarán respetando la localización o procurando guardar la mayor proximidad a las fincas originales. En cualquier caso, pueden evitarse las adjudicaciones en *pro indiviso* aunque la adjudicación no se corresponda exactamente con los derechos de cada participe.
- Se **indemnizan** el traslado de actividades y la extinción de derechos sobre las fincas originales que no sean compatibles con la ordenación, así como las obras, instalaciones y plantaciones y sembrados que deban demolerse.
- Dichas indemnizaciones, junto con los honorarios profesionales necesarios y con el coste previsto de las obras de urbanización, así como los costes que pudiera generar la satisfacción de los derechos de realojo, se distribuirán entre todos los adjudicatarios de parcelas privadas resultantes en proporción al valor de las mismas, excepto las parcelas correspondientes al 15% de cesión gratuita de edificabilidad, que está exenta de cargas de urbanización.
- Los **excesos y defectos de adjudicación** respecto a los derechos de cada participe son objeto de compensación, que se valorará según el valor de las fincas resultantes una vez terminada la actuación, con deducción de los costes de urbanización pendientes, incrementados en la prima de riesgo y la tasa libre de riesgo.
- Se elabora una **cuenta de liquidación** con las indemnizaciones, la cuota de urbanización y las compensaciones por diferencias de adjudicación. Dicha cuenta tendrá carácter provisional, debiendo elaborarse la cuenta de liquidación definitiva cuando concluyan las obras de urbanización.

Legislación: Ley 2/2006 de Suelo y Urbanismo (LSU), arts. 42 a 49 y 143 a 174
Texto Refundido de la Ley de Suelo y Rehabilitación Urbana (TRLSR), arts. 8, 9, 13, 14 y 18
Decreto 105/2008 de Medidas urgentes…, art. 42
Reglamento de Gestión Urbanística, arts. 89, 90, 92 y 95

PROZEDURA

1. **Antolamendu xehatua.**
2. **Urbanizatzeko jarduketa programa (HJP).** Haren xedea plangintza egikaritzeko prozesua programatu eta antolatzea da, jarduketa-sistema ezartzen den egikaritze-fase autonomoak **(egikaritze-unitateak)** finkatuta.
3. **Birpartzelazioa**, partzelak antolamendu berriaren arabera egokitzeko eta onurak nahiz kargak modu orekatuan banatzeko.
4. **Urbanizazio-proiektua**, azpiegiturak, zerbitzuak eta zuzkidurak hornitzeko obrak barne hartzen dituena.

EGIKARITZE-UNITATEAK MUGATZEA

Egikaritze-unitatea zera da, **onurak eta kargak erabat banatzeko eta urbanizazioa egikaritzeko eremua**; beraz, onurak eta kargak modu orekatuan banatzea ahalbidetu behar du, eta autonomia operatiboa izan.

Mugatzen diren egikaritze-unitateek **orekatuak izan behar dute aprobetxamenduari dagokionez** antolamendu-eremu (area edo sektorea) bereko gainerako unitateen aldean; gehienez ere % 5eko desbideratzea onartuko da, kargen banaketa espazial desorekatuaren ondorioz % 5etik gorako aldeak izatea komeni denean izan ezik.

JARDUKETA-SISTEMAK

Jarduketa-sistema bat zera da, interesdunen arteko harremanak arautzen dituzten arauen multzoa, egikaritze-unitatea mugatzen denetik urbanizazio-obrak bukatu eta haien kostua likidatzen den arte.

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legean **lau jarduketa-sistema** aurreikusten dira:

- **Desjabetzea**: jarduketa eskuratzean datza, jabe bakarraren esku geratzen dela. Emakidadun pribatu bidez garatu daiteke.
- **Lankidetza**; administrazioaren erantzukizuna da plangintza egikaritzea, kostuak jabeei ordainarazita.
- **Eragile urbanizatzailea**; enpresaburu pribatu bat arduratzen da plangintza egikaritzeaz, jabe pribatuen kargura, eta horren truke ordainsaria jasoko du. Urbanizazio-obraren kostuen % 12ra irits daiteke ordainsaria.
- **Ituntzea**; jabeek batzarra eratzen dute plangintza egikaritzeko.

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legean eragile urbanizatzailearen eta ituntzearen sistemak pribatutzat jotzen dira, emakida edo antzekoa izan arren (LHL, 169.4. artikulua eta LHBLTB, 9.7. artikulua).

BIRPARTZELAZIOA

Birpartzelazioa zera da, **partzelen banaketa antolamendu berrira egokitzea, jatorrizko jabetzen ordez sortzen diren partzela pribatuak ezarrita**, eta **udalerriari esleituta eraikigarritasunaren doako lagapenaren % 15i dagokion zatia**; era berean, urbanizazio-kargak banatzen dira eta partaideen arteko konpentsazioak ezartzen dira, esleipenean izandako desorekengatik.

- **Erkidegoko partaidetza-kuota** edo partaideen eskubideak zehazteko garaian, **eskainitako lurzoruaren azaleraren proportzioa** hartuko da aintzat, honako hauek izan ezik: a) udalari dagokion % 15, eraikigarritasunaren doako lagapenarengatik; b) lehendik dauden zuzkidura-lursail publikoak, doako lagapen bidez eskuratu direnak, betiere antolamenduaren ondoriozkoekin ordezten badira; eta c) lehendik zeuden eta antolamendu berrian finkatzen diren sistema orokorrak.
- Jarduketa-kargen norainokoa zein den eta ukituen artean karga horiek banatzeko irizpideak zein diren jakindakoan, ukituei hilabeteko epea eman behar zaie jarduketan parte hartu edo jarduketatik kanpo geratu erabaki dezaten. Kanpo geratzea erabakiz gero, desjabetu egin beharko lirateke, jarduketaren kargura.
- **Sortzen diren partzela pribatuak** partzela bakoitzaren **eraikigarritasunaren eragin-balioaren** arabera **balioetsiko dira**, eta udalerriari lagako zaizkio zuzkidura publikoetarako lursailak.
- Sortzen diren partzela pribatuak **partaidetza-kuoten arabera banatuko dira, proportzioan**, honako alderdi hauek aintzat hartuta: 1) % 15engatiko udal-eskubideek lehentasuna dute etxebizitza babestuko partzelak esleitzearen gainetik, 2) eutsi egin behar zaio antolamenduarekin bateragarriak diren lursail eraikien jabetzari eta 3) gainerako lursailak esleitzeko garaian kokapena errespetatuko da edo jatorrizko finkekiko ahalik eta hurbilen egongo dira. Nolanahi ere, indibisoko esleipenak saihestu daitezke, nahiz eta esleipena ez datorren guztiz bat partaide bakoitzaren eskubideekin.
- **Kalte-ordaina jasoko da** antolamenduarekin bateragarriak ez diren jatorrizko finken gaineko eskubideak iraungitzen badira eta jarduera tokiz aldatzen bada, baita eraitsi behar diren obra, instalazio, sail eta soroengatik ere.
- Kalte-ordain horiek, eta haiekin batera beharrezkoak diren ordainsari profesionalak nahiz urbanizazio-obretan aurreikusitako kostua eta ordezko bizileku bat emateko eskubidea baliatzeak eragin ditzakeen kostuak, ondoriozko partzela pribatuen esleipendun guztien artean banatuko dira, bakoitzaren balioaren araberako proportzioan, eraikigarritasunaren doako lagapenaren % 15i dagozkion partzelak izan ezik, ez baitute urbanizazio-kargarik.
- Partaide bakoitzaren eskubideekiko **esleipenean falta dena edo sobera dagoena** konpentsatu ahal izango da, eta sortzen diren finken balioaren arabera baloratuko da, jarduketa amaitutakoan, gauzatzeko dauden urbanizazio-kostuak kenduta eta arrisku-prima eta arrisku gabeko tasa gehituta.
- Kalte-ordainak, urbanizazio-kuota eta esleipen-aldeengatiko konpentsazioa batuta, **likidazio-kontua** egingo da. Kontu hori behin-behinekoa izango da, eta behin betiko likidazioaren kontua urbanizazio-obrak burutzen direnean egingo da.

Legeria:

2/2006 Legea, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa (LHL), 42.-49. eta 143.-174. artikuluak
Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testu bategina (LHBLTB), 8., 9., 13., 14. eta 18. artikuluak
105/2008 Dekretua, premiazko neurriei buruzkoa..., 42. artikulua
Hirigintza Kudeaketari buruzko Erregelamendua, 89., 90., 92. eta 95. artikuluak

CRITERIOS GENERALES

De acuerdo con las funciones de garantía y protección de la ordenación urbanística:

- Corresponde a los ayuntamientos **velar por el cumplimiento** de las disposiciones de la Ley de Suelo y Urbanismo y de las normas y demás instrumentos que la complementan o desarrollan, para cumplir las finalidades y promover los principios proclamados en la misma.
- El ejercicio de las **potestades** reguladas en el ámbito disciplinario tiene **carácter irrenunciable**. A tal efecto, las autoridades y los funcionarios están obligados a iniciar y tramitar, en los plazos previstos en cada caso, los procedimientos establecidos para el ejercicio de tales potestades. El incumplimiento de este deber dará lugar a responsabilidad disciplinaria.

A su vez el régimen de control de las actividades y los actos regulados por la ordenación urbanística estarán sujetos al **control de legalidad** a través de:

- La **inspección urbanística**.
- La **autorización y la licencia**.
- Las **órdenes de ejecución**.
- El sometimiento a **comunicación previa o declaración responsable**, de conformidad con lo establecido en el artículo 69 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

La **inspección urbanística** es una potestad dirigida a comprobar que todos los actos, las operaciones y las actividades sometidos a licencia se sujetan a la legalidad y la ordenación territorial y urbanística aplicables. Para ello los ayuntamientos ostentarán, respecto a cualquier actuación de urbanización, edificación y uso del suelo, las siguientes potestades:

- De **inspección, verificación y control**, incluso mediante la realización de pruebas o ensayos de las obras o instalaciones para la comprobación del cumplimiento de normas o condiciones técnicas.
- De **imposición de la realización de operaciones o actividades urbanísticas**, en caso de incumplimiento de los compromisos adquiridos en virtud de acto o convenio.

De acuerdo con los derechos y deberes del ciudadano, así como con el régimen urbanístico del derecho de propiedad en cuanto a sus facultades, deberes y cargas contemplados en el Texto Refundido de la Ley de Suelo y Rehabilitación Urbana, la **disciplina urbanística supone el control, tanto preventivo como reactivo, de la Administración sobre la actuación urbanística de los administrados para la protección de la legalidad urbanística y de las determinaciones del planeamiento.**

PRINCIPIOS

No obstante, a la hora de ejercer dicho control debe regirse por los **principios básicos del derecho administrativo** (Ley 39/2015): Preservación de los derechos del ciudadano, libertad, legalidad, jerarquía normativa, publicidad de las normas, irretroactividad de las disposiciones sancionadores no favorables o restrictivas de los derechos individuales, seguridad jurídica, responsabilidad, interdicción de la arbitrariedad de los poderes públicos y garantía por la instrucción de un previo procedimiento. Así mismo, el principio *favor libertatis* obliga a interpretar las normas reguladoras de la forma menos restrictiva para el desenvolvimiento de la actividad de los particulares (art. 5 Reglamento de Servicios de las Corporaciones Locales).

Pero, más aún, el derecho de la UE, mediante la **Directiva 2006/123/CE** del Parlamento Europeo y del Consejo, de 12 de diciembre de 2006, relativa a los **servicios en el mercado interior**, en adelante la Directiva, ha venido a modular dichos principios rectores al establecer una serie de principios de aplicación general para la normativa reguladora del acceso a las actividades de servicios y su ejercicio dentro de la Unión Europea, que en parte se encuentran afectas a la disciplina urbanística (Traspuesta al ordenamiento jurídico español por la Ley 17/2009, de 23 de noviembre, sobre el libre acceso a las actividades de servicios y su ejercicio y la Ley 25/2009, de 22 de diciembre, de modificación de diversas leyes para su adaptación a la Ley sobre el libre acceso a las actividades de servicios y su ejercicio).

> ***Los regímenes de autorización son uno de los trámites más comúnmente aplicados a los prestadores de servicios, constituyendo una restricción a la libertad de establecimiento. La Ley establece un principio general según el cual el acceso a una actividad de servicios y su ejercicio no estarán sujetos a un régimen de autorización. Únicamente podrán mantenerse regímenes de autorización previa cuando no sean discriminatorios, estén justificados por una razón imperiosa de interés general y sean proporcionados. En particular, se considerará que no está justificada una autorización cuando sea suficiente una comunicación o una declaración responsable del prestador, para facilitar, si es necesario, el control de la actividad.*** *Los procedimientos y trámites para la obtención de las autorizaciones deberán ser claros y darse a conocer con antelación. Se aplicará el silencio administrativo positivo a estos procedimientos salvo en los casos en los que esté debidamente justificado por una razón imperiosa de interés general.*

Con lo cual a los principios anteriormente señalados debemos añadir el triple criterio de: **NO DISCRIMINACIÓN, NECESIDAD Y PROPORCIONALIDAD.**

Y, más aún, en lo que afecta a la técnicas autorizatorias, estas deben regirse por la adopción de los requisitos menos gravosos y más predecibles para el acceso a las actividades de servicios y el ejercicio de las mismas, de lo que resultan los instrumentos autorizatorios de la comunicación o la declaración responsable del prestador, mediante la que se manifieste, en su caso, el cumplimiento de los requisitos exigidos y se facilite la información necesaria a la autoridad competente para el control de la actividad.

Legislación:
Constitución Española (CE), art. 9.3
Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas (LPAC), art. 69
Ley 17/2009 sobre el libre acceso a las actividades de servicios y su ejercicio, arts. 3 a 11
Ley 25/2009 de modificación de diversas leyes para su adaptación a la Ley sobre el libre acceso a las actividades de servicios y su ejercicio, arts. 1 a 3
Texto Refundido de la Ley de Suelo y Rehabilitación Urbana (TRLSR), arts. 11 a 17
Ley 2/2006 de Suelo y Urbanismo País Vasco (LSU), arts. 204 a 206 y 219 a 224

IRIZPIDE OROKORRAK

Hirigintza-antolamenduaren berme- eta babes-funtzioei jarraikiz:

- Udalak arduratuko dira Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legearen xedapenak eta legea osatzeko edo garatzeko emandako arauak eta gainerako tresnak **betetzen direla zaintzeaz**, legean ezarritako helburuak betetzearren eta aldarrikatutako printzipioak sustatzearren.
- Diziplina-eremuan araututako **ahalez** baliatzeari **ezingo zaio uko egin**. Horretarako, agintari eta funtzionarioak behartuta daude ahal horietaz baliatzeko ezarritako prozedurak hastera eta izapideak egitera, kasu bakoitzerako aurreikusitako epearen barruan. Eginbehar hori ez betetzeak diziplina-erantzukizuna ekarriko du.

Era berean, hirigintza-antolamenduak arautzen dituen jarduera eta egintzen kontrol-araubidea **legezkotasun-kontrolari** atxikita egongo da, honako hauen bitartez:

- **Hirigintzako ikuskapena**.
- **Baimena eta lizentzia**.
- **Betearazteko aginduak**.
- **Aurretiazko jakinarazpena edo erantzukizunpeko adierazpena**, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 69. artikuluan zehazturik dagoen moduan.

Hirigintzako ikuskapena da ahal bat, lizentzia behar duten ekintza, operazio eta jarduera oro ezarri beharreko legearen eta lurralde- eta hirigintza-antolamenduaren araberakoak direla egiaztatzeko erabiltzen dena. Horretarako, udalek honako ahal hauek izango dituzte hirigintzarekin, eraikuntzarekin eta lurzoruaren erabilerarekin zerikusia duten jarduerei dagokienez:

- **Ikuskatzea, egiaztatzea eta kontrolatzea**. Arau eta baldintza teknikoak betetzen direla frogatzeko, obra edo instalazioetan probak edo saioak ere egin ahal izango dira.
- **Hirigintza-lanak edo -jarduerak egiteko agintzea**, baldin eta egintza edo hitzarmen baten bidez hartutako konpromisoak betetzen ez badira.

Herritarren eskubide eta betebeharrak aintzat hartuta, eta jabetza-eskubidearen hirigintza-araubideari jarraikiz —Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testu bateginean jasotako ahalmen, eginbehar eta kargei dagokienez—, **hirigintza-diziplinak berekin dakar Administrazioak administratuen hirigintza-jarduketa kontrolatzea, bai prebentziorako eta bai erreakzionatzeko, betiere hirigintzari buruzko legeria eta plangintzaren zehaztapenak babestearren.**

PRINTZIPIOAK

Dena dela, kontrol hori gauzatzeko garaian, **administrazio-zuzenbidearen oinarrizko printzipioak** bete behar dira (39/2015 Legea): Herritarren eskubideak babestea, askatasuna, legezkotasuna, araudi-hierarkia, arauen publikotasuna, zehatze-xedapen kaltegarrien edo norbanakoen eskubideak murrizten dituzten zehatze-xedapenen atzeraeraginik eza, segurtasun juridikoa, erantzukizuna, botere publikoen nahierakeriaren debekua eta aurretiazko prozedura izapidetzeagatiko bermea. Era berean, *favor libertatis* printzipioak behartzen du arau erregulatzaileak partikularren jarduera garatzeko gutxien murrizten duen moduan interpretatzera (Toki Korporazioen Zerbitzuen Erregelamendua, 5. artikulua).

Baina, are gehiago, **barne-merkatuko zerbitzuei buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006ko abenduaren 12ko 2006/123/EE Zuzentarauaren** bitartez (aurrerantzean, Zuzentaraua) EBren zuzenbideak modulatu egin ditu printzipio gidari horiek, zerbitzu-jardueretan sartzea eta Europar Batasunean jarduketa horiek gauzatzea arautzen duen araudian aplikazio orokorreko hainbat printzipio ezarri baititu; eta zerbitzu-jarduera horiek, hein batean, hirigintza-diziplinari atxikita daude (Zerbitzu-jardueretan askatasunez sartzeari eta aritzeari buruzko azaroaren 23ko 17/2009 Legearen bidez eta zerbitzu-jardueretan askatasunez sartzeari eta aritzeari buruzko legeari egokitzeko hainbat lege aldatzen dituen abenduaren 22ko 25/2009 Legearen bidez txertatu zen Espainiako ordenamendu juridikoan).

> ***Zerbitzu-emaileei ohiko moduan aplikatzen zaien izapideetako bat dira baimen-araubideak, eta ezartzeko askatasuna mugatzen dute. Legeak ezartzen duen printzipio orokor baten arabera, zerbitzu-jarduera batean sartzea eta jarduera horretan aritzea ez dira baimen-araubide baten mende egongo. Aurretiazko baimenaren araubideak bere horretan utzi ahalko dira, soilik baldin eta ez badira baztertzaileak, interes orokorreko eta premiazko arrazoi batek justifikatzen baditu eta proportzionalak badira. Bereziki, baimen bat justifikatu gabekotzat hartuko da zerbitzu-emailearen jakinarazpena edo erantzukizunpeko adierazpena nahikoa baldin bada jardueraren kontrola ahalbidetzeko, behar izanez gero.*** *Baimenak lortzeko prozedura eta izapideak argiak izan beharko dira, eta aldez aurretik jakinarazi beharko dira. Administrazio-isiltasun positiboa aplikatuko zaie prozedura horiei, interes orokorreko premiazko arrazoi batek behar bezala justifikatzen duenean izan ezik.*

Horrenbestez, goian aipatutako printzipioei honako irizpide hirukoitz hau gehitu behar diegu: **DISKRIMINAZIORIK EZA, PREMIA ETA PROPORTZIONALTASUNA.**

Eta, are gehiago, baimendutako teknikek zerbitzu-jardueretan sartzeko eta haietan aritzeko ez hain gaitzak eta aurreikusgarriagoak diren betekizunen araberakoak izan beharko dute, zerbitzu-emailearen erantzukizunpeko adierazpena edo jakinarazpena baimentzeko tresnen baldintzekin alderatuta; adierazpen horren bitartez, hala badagokio, eskatutako baldintzak betetzen direla adierazi beharko da, eta agintaritza eskudunari jarduera kontrolatzeko beharrezkoa duen informazioa eman beharko zaio.

Legeria:

Espainiako Konstituzioa (EK), 9.3 artikulua
39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena (APEL), 69. artikulua
17/2009 Legea, zerbitzu-jardueretan askatasunez sartzeari eta aritzeari buruzkoa, 3.-11. artikuluak
25/2009 Legea, zerbitzu-jardueretan askatasunez sartzeari eta aritzeari buruzko legeari egokitzeko hainbat lege aldatzen dituena, 1.-3. artikuluak
Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testu bategina (LHBLTB), 11.-17. artikuluak
2/2006 Legea, EAEko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa (LHL), 204.-206. eta 219.-224. artikuluak

LAS AUTORIZACIONES Y LICENCIAS URBANÍSTICAS

La legislación básica (Texto Refundido de la Ley de Suelo y Rehabilitación Urbana) define una nueva regulación de los procedimientos autorizatorios. Así:

- **Todo acto de edificación requerirá del acto de conformidad, aprobación o autorización administrativa que sea preceptivo según la legislación de ordenación territorial y urbanística, debiendo ser motivada su denegación. En ningún caso podrán entenderse adquiridas por silencio administrativo facultades o derechos que contravengan la ordenación territorial, urbanística o sectorial.**
- Con independencia de lo anterior, serán expresos, con **silencio administrativo negativo**, los actos que autoricen:

  → Movimientos de tierras y explanaciones.
  → Todas las obras de edificación y la construcción e implantación de instalaciones de nueva planta (sólo en suelo rural).
  → La ubicación de casas prefabricadas y similares, ya sean provisionales o permanentes (suelo en situación básica rural).
  → La tala de masas arbóreas o de vegetación arbustiva cuando dicha tala disponga de protección del dominio público.
- Cuando la legislación de ordenación territorial y urbanística aplicable sujete la primera ocupación o utilización de las edificaciones a un régimen de comunicación previa o de declaración responsable, y de dichos procedimientos no resulte que la edificación cumple los requisitos necesarios para el destino al uso previsto, la Administración a la que se realice la comunicación deberá adoptar las medidas necesarias para el cese de la ocupación o utilización comunicada. Si no adopta dichas medidas en el plazo de seis meses, será responsable de los perjuicios que puedan ocasionarse a terceros de buena fe por la omisión de tales medidas. La Administración podrá repercutir en el sujeto obligado a la presentación de la comunicación previa o declaración responsable el importe de tales perjuicios.
- Tanto la práctica de la comunicación previa a la Administración competente, como las medidas de restablecimiento de la legalidad urbanística que aquella pudiera adoptar en relación con el acto comunicado, deberán hacerse constar en el Registro de la Propiedad, en los términos establecidos por la legislación hipotecaria y por la propia Ley de Suelo y Rehabilitación Urbana.

Por tanto, **salvo lo expresamente manifestado por la legislación básica con carácter restrictivo,** debe contemplarse que:

- Con carácter general, el sometimiento al régimen de comunicación previa o declaración responsable de los procesos autorizatorios (régimen autorizatorio *ex-post*).
- El silencio administrativo será positivo.

En cuanto a los **tipos de autorizaciones administrativas *ex-ante* (licencias),** debe distinguirse entre las licencias de obras y las de actividad. (Apertura, funcionamiento, clasificada y primera utilización).

- **Condiciones comunes** de las licencias:
  → Tienen carácter de acto reglado, real y son transmisibles.
  → Son actos de control preventivo (*ex-ante*), tienen como finalidad verificar el cumplimiento de unos requisitos.
  → Se otorgan a salvo del derecho de propiedad y sin perjuicio de terceros.
- Las **licencias de obras** se vinculan a las determinaciones de ordenación y planeamiento existentes al momento de su concesión, son de tracto único, simple o con función de control.
- Las **licencias de actividad** son de tracto sucesivo, cuyas cláusulas mantendrán su vigencia mientras subsistan las condiciones que justificaron su otorgamiento y sin perjuicio de que estas puedan ser actualizadas.
- **Las autorizaciones de eventos o espectáculos (en espacio público o privado)** son análogas a las de actividad y remiten al cumplimiento de las condiciones de compatibilidad con el urbanismo y las condiciones medioambientales. Están sometidas a la intervención supramunicipal en función del aforo real o potencial.

SUJECIÓN


Actos sujetos a licencia

- Los actos de edificación y obras y utilización de edificios y sus demoliciones, actos de uso del suelo y división del mismo determinados en la legislación (art. 11 del Texto Refundido de la Ley de Suelo y Rehabilitación Urbana y art. 207 de la Ley de Suelo y Urbanismo), indistintamente de su titularidad.
- Otros señalados expresamente en los planes.

Actos no sujetos a licencia (Por estar autorizados de otro modo o por otra administración)

- Las obras de urbanización, totales o parciales (excepto las complementarias).
- Las obras de marcado carácter territorial expresamente excluidas por la legislación sectorial (carreteras, transportes, costas, etc.).
- Los actos de construcción y usos promovidos por el propio Ayuntamiento en su término municipal.
- Las actuaciones sometidas al régimen de Comunicación Previa (CP) o Declaración Responsable (DR).

EJEMPLO DE UNA TRAMITACIÓN DE LICENCIA URBANÍSTICA



Legislación: Texto Refundido de la Ley de Suelo y Rehabilitación Urbana (TRLSR), arts. 11.4 y 15
SSTC 143/2017 y 75/2018
Ley 2/2006 de Suelo y Urbanismo País Vasco (LSU), arts. 207 a 216 y 219 a 224
Ley 10/2015 de Espectáculos Públicos y Actividades Recreativas, arts. 1 a 6, 11, 12 y 15 a 39

HIRIGINTZAKO BAIMENAK ETA LIZENTZIAK

Oinarrizko legeriak (Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testu bategina) baimen-prozeduren erregulazio berria zehazten du. Zehazki, honela:

- **Eraikitze-egintza orok hartarako nahitaezkoa den administrazioaren adoste-, oneste- edo baimentze-egintza beharko du, lurralde- eta hirigintza-antolamenduaren araudiaren arabera. Hura ukatzea arrazoiturik egin beharko da. Ezingo dira ezein kasutan administrazio-isiltasunez lortutzat jo lurralde-, hirigintza- edo sektore-antolamenduaren kontrakoak diren ahalmen zein eskubideak.**
- Aurrekoa gorabehera, honako hauek baimentzen dituzten egintzak esanbidez adieraziko dira, eta **administrazio-isiltasuna negatiboa** izango da:
  - → Lur-mugimenduak eta lur-berdinketak.
  - → Eraikuntza-obra guztiak eta oin berriko instalazioak eraiki eta ezartzea (landa-lurzoruan bakarrik).
  - → Etxe prefabrikatuak eta antzekoak jartzea, direla behin-behinekoak, direla iraunkorrak (landa-lurzoruaren oinarrizko egoeran).
  - → Zuhaitz-masak edo zuhaixka-formako landareak moztea, baldin eta mozketa hori jabari publikoa babesteko legeriaren ondorio bada.
- Baldin lurralde- eta hirigintza-antolamenduko legerian eraikinen lehen okupazioa edo erabilera aurretiazko jakinarazpen edo erantzukizunpeko adierazpen baten araubidearen pean badago, eta prozedura horien ondorioz eraikinak ez baditu betetzen aurreikusitako erabilerarako bete beharreko eskakizunak, komunikazioa egiten zaion administrazioak neurri egokiak hartu beharko ditu komunikatutako okupazioa edo erabilera eten dadin. Neurri horiek sei hilabeteko epean hartzen ez baditu, onustez ari diren hirugarrenei eragin dakizkiekeen kalteen erantzule izango da, neurri horiek ez hartzeagatik. Administrazioak aurretiazko jakinarazpena edo erantzukizunpeko adierazpena aurkeztera behartuta zegoen subjektuari jasanarazi ahal izango dio kalte horien zenbatekoa.
- Jabetza Erregistroan jasota geratu behar dute bai administrazio eskudunari egindako aurretiazko jakinarazpena, bai, komunikatutako egintzari dagokionez, administrazio horrek hartzen dituen hirigintza-legezkotasuna berrezartzeko neurriak, hipoteka-legerian eta Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legean xedatutakoaren arabera.

Hortaz, **oinarrizko legerian murrizteko asmoz espresuki adierazten dena salbuespen izanik**, honako alderdi hauek hartu behar dira kontuan:

- Oro har, baimentzeko prozedurak aurretiazko jakinarazpenaren edo erantzukizunpeko adierazpenaren araubidearen eraginpean daude (baimentzeko *ex–post* araubidea).
- Administrazio-isiltasuna positiboa izango da.

***Ex-ante* administrazio-baimenei** (lizentziak) dagokienez, obra-lizentziak eta jarduera-lizentziak bereizi behar dira. (Irekitzekoa, funtzionamendukoa, sailkatua eta lehen erabilerakoa).

- Lizentzien **baldintza komunak**:
  - → Egintza arautuak, errealak dira, eta eskualda daitezke.
  - → Prebentzio-kontroleko (*ex-ante*) egintzak dira, eta baldintza jakin batzuk betetzen direla egiaztatzea dute xede.
  - → Lizentziak ematean, ezin da inoiz urratu jabetza-eskubidea, eta ezin zaie hirugarrenei kalte egin.
- **Obra-lizentziak** ematen diren uneko antolamenduaren eta plangintzaren zehaztapenei lotzen zaizkie, traktu bakarreko edo sinplekoak dira, edo kontrol-eginkizunak dituzte.
- **Jarduera-lizentziak** segidako traktukoak dira, eta klausulak indarrean egongo dira lizentzia ematea justifikatu zuten baldintzek irauten duten bitartean; baldintza horiek eguneratu egin daitezke.
- **Ikuskizun edo ekitaldietarako baimenak (eremu publikoan zein pribatuan egitekoak)** jarduera-baimenen antzekoak dira, eta hirigintzarekin eta ingurumen-baldintzekin bateragarriak izateko baldintza guztiak bete behar dituzte. Udalez gaindiko esku-hartzearen eraginpean egongo dira, edukiera errealaren edo potentzialaren arabera.

ERAGINPEKO EGINTZAK


<u>Lizentzia behar duten egintzak</u>

- Legerian adierazitako eraikitzeko egintzak, eraikinen obrak eta eraikinak erabiltzeko eta eraisteko egintzak, eta lurzorua erabiltzeko eta zatikatzeko egintzak (Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testu bateginaren 11. artikulua eta Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legearen 207. Artikulua), <u>titulartasuna gorabehera.</u>
- Planetan espresuki adierazitako beste batzuk.

<u>Lizentziarik behar ez duten egintzak (bestelako baimena edo beste administrazio baten baimena dutelako)</u>

- Urbanizazio-obrak, osoak edo partzialak (osagarriak izan ezik).
- Lurralde-izaera nabarmena duten obrak, sektoreko legeriak (errepideak, garraioak, kostak, eta abar) berariaz salbuesten baititu.
- Udalak udal-mugartean bertan sustatutako eraikuntza-egintzak eta erabilerak.
- Aurretiazko jakinarazpenaren edo erantzukizunpeko adierazpenaren araubideari lotutako jarduketak.

HIRIGINTZA-LIZENTZIA BATEN IZAPIDEEN ADIBIDEA



Legeria: Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testu bategina (LHBLTB), 11.4. eta 15. artikuluak
143/2017 KAE eta 75/2018 KAE
2/2006 Legea, EAEko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa (LHL), 207.-216. eta 219.-224. artikuluak
10/2015 Legea, Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jarduerena, 1.-6., 11., 12., eta 15.-39. artikuluak

TRAMITACIÓN, ASPECTOS SIGNIFICATIVOS	
COMPETENCIA	Corresponde al Ayuntamiento el otorgamiento de las licencias, normalmente a la Alcaldía, que puede delegar la competencia.
DECISIÓN MOTIVADA	La denegación de una licencia urbanística ha de ser siempre motivada (explicada y justificada).
SILENCIO ADMINISTRATIVO	• Aunque el **sentido del silencio en general es positivo**, el art 11.4 del Texto Refundido de la Ley de Suelo y Rehabilitación Urbana establece los casos concretos de silencio negativo. • El plazo es variable según el tipo de licencia. • No pueden ser adquiridas por silencio administrativo las licencias contrarias a la legislación y al planeamiento urbanístico.
TRANSMISIBILIDAD	Las licencias urbanísticas son **transmisibles**, con la única condición de **comunicarlo**, por escrito, al Ayuntamiento. Se presume su transmisión con la del terreno o construcción.
CADUCIDAD	• La licencia ha de fijar los términos para el inicio, interrupción máxima y finalización de las obras, de conformidad con la normativa aplicable. • El incumplimiento de estos términos comporta la extinción del derecho a edificar, siendo necesaria la declaración formal, previa audiencia al interesado. • Caducada la licencia, sin autorización del Ayuntamiento, el interesado sólo podrá efectuar las obras estrictamente necesarias para garantizar la seguridad de las personas, de los bienes y de la edificación realizada.
REVOCACIÓN	• Si al modificarse o revisarse el planeamiento existiesen licencias urbanísticas otorgadas, y no se hubieran iniciado las obras, aquéllas quedarán extinguidas en aquello que sea disconforme con el nuevo planeamiento, con obligación del Ayuntamiento de indemnizar al interesado por la reducción de aprovechamiento que resulta de las nuevas condiciones urbanísticas. • Si la edificación ya se hubiera iniciado, el Ayuntamiento podrá modificar o revocar la licencia, indemnizando por la lesión causada.

INSPECCIÓN URBANÍSTICA

- Es la función administrativa dirigida a **comprobar** que los actos sujetos a licencia se realizan conforme a la **legalidad**, ordenación y autorización aplicables.
- Tiene efectos preventivos de las infracciones, al asegurar el respeto y cumplimiento de las normas y planes.
- Supone importantes actuaciones de información a los interesados y, en su caso, de preparación de propuestas y pruebas en la disciplina urbanística, que son determinantes del control de infracciones y expedientes sancionadores.

ACTUACIONES CLANDESTINAS

- Son las actuaciones **sujetas a autorización** o licencia y que **se realizan sin ellas**, o en contravención de sus determinaciones, y por ello deben ser paralizadas y, en su caso, legalizadas con posterioridad.
- Para la efectividad de la paralización ordenada legalmente, pueden utilizarse, previo apercibimiento, diferentes medios de ejecución forzosa y en especial multas coercitivas sin carácter sancionador pero muy eficaces.

Legislación: Ley 2/2006 de Suelo y Urbanismo del País Vasco (LSU), arts. 204 a 206, 208 a 218 y 224
Texto Refundido de la Ley de Suelo y Rehabilitación Urbana (TRLSR), arts. 11 y 48
SSTC 143/2017 y 75/2018

IZAPIDETZEA - ALDERDI JAKINGARRIAK	
ESKUMENA	Udalari dagokio lizentziak ematea. Normalean, alkateari dagokio eskumena, baina eskuordetu ahal du.
ERABAKI ARRAZOITUA	Hirigintza-lizentzia ukatzen bada, zergatik ukatu den arrazoitu behar da (azaldu eta justifikatu).
ADMINISTRAZIO-ISILTASUNA	• **Isiltasunaren esanahia, oro har, positiboa izaten den** arren, Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testu bateginaren 11.4 artikuluan isiltasun negatiboaren kasu zehatzak zehaztu dira. • Epea ez da beti berdina: lizentzia nolakoa, halakoa izango da epea. • Ezin da administrazio-isiltasunez eskuratu hirigintza-legearen eta -plangintzaren aurkako lizentziarik.
ESKUALDAGARRITASUNA	Hirigintza-lizentziak **eskualdatu egin daitezke**, baina idatziz **jakinarazi** behar zaio udalari. Lurzorua edo eraikina eskualdatuz gero, lizentzia ere eskualdatzen dela ulertuko da.
IRAUNGITZEA	• Lizentzian zehaztu behar da obrak hasteko epea zein den, bai eta gehienez zenbat denbora eten daitekeen eta noizko amaitu behar diren, aplikatzekoa den araudiaren arabera. • Epeak ez betetzeak eraikitzeko eskubidea iraungitzea ekarriko du. Hori berariaz aitortu beharko da, interesdunari entzun ondoren. • Lizentzia iraungita dagoela, interesdunak, udalaren baimenik gabe, lan hauek bakarrik egin ahal izango ditu: pertsonen, ondasunen eta egindako eraikuntzaren segurtasuna bermatzeko beharrezkoak diren lanak bakar-bakarrik.
ERREBOKAZIOA	• Plangintza aldatu edo berrikusten denean obrak hasita ez baina hirigintza-lizentzia baduenik baldin badago, lizentzia horiek azkendu egingo dira plangintza berriarekin bat ez datozen alderdi orotan; baina udalak interesdunari kalte-ordainak eman beharko dizkio hirigintza-baldintza berriak direla-eta aprobetxamenduan murriztapenik badu. • Eraikuntza-lanak hasita badaude, udalak lizentzia aldatu edo errebokatu ahal izango du, eta egindako kalteak ordainduko dizkio interesdunari.


HIRIGINTZAKO IKUSKAPENA

- Hirigintza-ikuskapena da lizentzia jaso duten ekintzak haiei ezar dakiekeen **legeriari**, antolamenduari eta baimenei jarraikiz egin direla **egiaztatzeko** administrazio-eginkizuna.
- Arau-hausterik ez gertatzeko dira, arauak eta planak errespetatu eta betetzen direla bermatzen dute-eta.
- Interesdunei informazioa emateko ekintza asko egiten dira, eta, beharrezkoa denean, hirigintza-diziplinan proposamenak eta frogak prestatzekoak ere bai —haiek berebiziko garrantzia dute arau-hausteen kontrolean eta zehapen-espedienteetan—.


JARDUKETA KLANDESTINOAK

- **Baimena edo lizentzia behar** eta **horrelakorik gabe egiten diren** jarduketak dira, edo haietan ezarritakoa bete gabe egiten direnak, eta, horregatik, geldiarazi egin behar dira, eta hala badagokio, gerora legeztatu.
- Legez agindutako geldiaraztea eraginkorra izan dadin, zenbait baliabide erabil daitezke, aurretik ohartarazita: batetik, nahitaezko betearazpeneko zenbait bide, eta, bestetik, eta bereziki, isun hertsatzaileak, zehapenak izan ez arren oso eraginkorrak baitira.

Legeria: 2/2006 Legea, EAEko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa (LHL), 204.-206., 208.-218. eta 224. artikuluak
Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testu bategina (LHBLTB), 11. eta 48. artikuluak
143/2017 KAE eta 75/2018 KAE



Legislación: Ley 2/2006 de Suelo y Urbanismo del País Vasco (LSU), arts. 219 a 224



Legeria: 2/2006 Legea, EAEko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa (LHL), 219.-224. artikuluak

INEXIGIBILIDAD DE LA LICENCIA

De acuerdo con el Derecho Comunitario (traspuesto por las leyes 17/2009 y 25/2009) y con la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, se han de adoptar los requisitos menos gravosos y más predecibles para el acceso a las actividades de servicios y el ejercicio de las mismas, de lo que resultan los instrumentos autorizatorios de la **comunicación o la declaración responsable** del prestador mediante la que se manifieste, en su caso, el cumplimiento de los requisitos exigidos y se facilite la información necesaria a la autoridad competente para el control de la actividad.

Paralelamente, las siguientes disposiciones articulan a qué procesos es aplicable el régimen de **Comunicación Previa (CP) y Declaración Responsable (DR) y la inexigibilidad de la licencia:**

- Ley 17/2009, de 23 de noviembre, sobre el libre acceso a las actividades de servicios y su ejercicio.
- Ley 25/2009, de 22 de diciembre, de modificación de diversas leyes para su adaptación a la Ley sobre el libre acceso a las actividades de servicios y su ejercicio (Criterios Generales).
- Ley 10/2021, de 9 de diciembre, de Administración Ambiental de Euskadi.
- Ley 12/2012, de 26 de diciembre, de medidas urgentes de liberalización del comercio y de determinados servicios.

LEY OMNIBUS (L25/2009)

En esta Ley se modifican varias leyes:

- **Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local:**
  - → Ventanilla única y electrónica.
  - → Mecanismos de intervención sobre las actividades (Ordenanzas, bandos, licencias y mecanismos de control preventivo, Comunicación Previa y Declaración Responsable, Órdenes de ejecución).
  - → Interrelación con autorizaciones otorgadas por Administraciones sectoriales.
- **Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas:**
  - → Elección de medida menos restrictiva en la tramitación administrativa.
  - → Mecanismo de verificación del cumplimiento de los requisitos.
  - → Silencio administrativo positivo en procedimientos iniciados a solicitud del interesado (criterio general y excepciones con reserva de ley).
  - → Régimen de Comunicación Previa (CP) y Declaración Responsable (DR).

LEY OMNIBUS VASCA (Lv7/2012)

En esta Ley se modifican varias leyes:

- **Ley 7/1994, de 27 de mayo, de la Actividad Comercial:**
  - → Supresión de la Licencia de apertura comercial.
  - → Informe de adecuación en la implantación o ampliación de la actividad gran comercial.
- **Ley 2/2006 de Suelo y Urbanismo del País Vasco:**
  - → Habilitación del régimen de Comunicación Previa o Declaración Responsable en las licencias
  - → Licencia de apertura para determinados casos comerciales.
  - → Exigencia de proyecto básico.

LEY AMBIENTAL VASCA (Lv10/2021)

En esta Ley se establece:

- Régimen de aplicación y de identificación de actividad clasificada sometida a Licencia de actividades clasificadas (arts. 49 a 55 y Anexo I.C.).
- Régimen de aplicación y de identificación de actividad sometida a Comunicación Previa de actividad clasificada (arts. 56 a 59 y Anexo I.D.).

LEY LIBERALIZACIÓN COMERCIAL (L12/2012)

El ámbito de aplicación son las **actividades comerciales minoristas y la prestación de determinados servicios realizados en establecimientos cuya superficie útil no sea superior a 750 metros cuadrados:**

- **Inexigibilidad de licencia** previa de instalaciones, de funcionamiento o de actividad, ni otras de clase similar o análogas que sujeten a previa autorización el ejercicio de la actividad comercial a desarrollar o la posibilidad misma de la apertura del establecimiento correspondiente.
- Tampoco están sujetos a licencia los **cambios de titularidad de las actividades comerciales y de servicios**. En estos casos será exigible comunicación previa a la administración competente a los solos efectos informativos.
- **No será exigible licencia o autorización previa para la realización de las obras** ligadas al acondicionamiento de los locales para desempeñar la actividad comercial, cuando no requieran de la redacción de un proyecto de obra de conformidad con el artículo 2.2 de la Ley 38/1999, de 5 de noviembre, de Ordenación de la Edificación.
- **Excepción:** Obras de edificación (según la Ley de Ordenación de la Edificación), las cuales se seguirán regulando, en cuanto a la exigencia de licencia previa, requisitos generales y competencia para su otorgamiento, por su normativa correspondiente.

Adicionalmente contempla:

- **Cuando no sea exigible la licencia serán sustituidas por Declaración Responsable o Comunicación Previa.**

Legislación: Ley 17/2009 sobre el libre acceso a las actividades de servicios y su ejercicio, arts. 3 a 11
Ley 25/2009 de modificación de diversas leyes para su adaptación a la Ley sobre el libre acceso a las actividades de servicios y su ejercicio, arts. 1 a 3
Ley 10/2021, de 9 de diciembre, de Administración Ambiental de Euskadi, arts.49 a 59 y Anexos I.C y I.D.
Ley 12/2012, de 26 de diciembre, de medidas urgentes de liberalización del comercio y de determinados servicios, arts. 1 a 5 y Anexo

LIZENTZIARIK ESKATU EZIN IZATEA

Bat etorriz Europako Erkidegoko zuzenbidearekin (17/2009 eta 25/2009 legeen bitartez txertatua) eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearekin, zerbitzu-jardueretan sartzeko eta jarduteko ez hain gaitzak eta aurreikusgarriagoak diren betekizunak eskatu behar dira, zerbitzu-emailearen **erantzukizunpeko adierazpena edo jakinarazpena** baimentzeko tresnen baldintzekin alderatuta; adierazpen horren bitartez, hala badagokio, eskatutako baldintzak betetzen direla adierazi beharko da, eta agintaritza eskudunari jarduketa kontrolatzeko beharrezkoa duen informazioa eman beharko zaio.

Aldi berean, honako xedapen hauen bitartez xedatzen da zer prozesutan aplika daitezkeen **aurretiazko jakinarazpenaren eta erantzukizunpeko adierazpenaren araubidea eta lizentziarik eskatu ezin izatea:**

- 17/2009 Legea, azaroaren 23koa, zerbitzu-jardueretan askatasunez sartzeari eta aritzeari buruzkoa.
- 25/2009 Legea, abenduaren 22koa, zerbitzu-jardueretan askatasunez sartzeari eta aritzeari buruzko legeari egokitzeko hainbat lege aldatzen dituena (irizpide orokorrak).
- 10/2021 Legea, abenduaren 9koa, Euskadiko Ingurumen Administrazioarena.
- 12/2012 Legea, abenduaren 26koa, merkataritza eta zenbait zerbitzu liberalizatzeko premiazko neurriei buruzkoa.

OMNIBUS LEGEA (25/2009 Legea)

Lege horren bitartez, hainbat lege aldatu dira:

- **7/1985 Legea, apirilaren 2koa, toki-araubidearen oinarriak arautzen dituena:**
  - → Leihatila bakar eta elektronikoa.
  - → Jardueren gainean esku hartzeko mekanismoak (ordenantzak, bandoak, lizentziak eta prebentzio-kontroleko mekanismoak, aurretiazko jakinarazpena eta erantzukizunpeko adierazpena, betearazteko aginduak).
  - → Sektoreko administrazioek emandako baimenekiko interrelazioa.
- **39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena:**
  - → Administrazioko izapideetan gutxien murrizten duen neurria hautatzea.
  - → Betekizunak bete direla egiaztatzeko mekanismoa.
  - → Interesdunak eskatuta hasitako prozeduretan, administrazio-isiltasun positiboa (irizpide orokorra eta salbuespenak, lege-erreserbarekin).
  - → Aurretiazko jakinarazpenaren eta erantzukizunpeko adierazpenaren araubidea.

EAEko OMNIBUS LEGEA (EAEko 7/2012 Legea)

Lege horren bitartez, hainbat lege aldatu dira:

- **7/1994 Legea, maiatzaren 27koa, Merkataritza Jarduerari buruzkoa:**
  - → Merkataritza-irekierako lizentzia ezabatzea.
  - → Merkataritza handiaren jarduera ezartzean edo handitzean, egokitasunari buruzko txostena.
- **2/2006 Legea, EAEko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa:**
  - → Lizentzietan, aurretiazko jakinarazpenaren edo erantzukizunpeko adierazpenaren araubidea gaitzea.
  - → Irekitzeko lizentzia merkataritza-kasu jakin batzuetarako.
  - → Oinarrizko proiektuaren eskakizuna.

EAEko INGURUMEN LEGEA (EAEko 10/2021 Legea)

Lege horrek honako hau ezartzen du:

- Jarduera sailkatuen lizentzia behar duen jarduera sailkatua aplikatzeko eta identifikatzeko araubidea (49.-55. artikuluak eta I.C eranskina).
- Jarduera sailkatuaren aurretiazko jakinarazpena behar duen jarduera sailkatua aplikatzeko eta identifikatzeko araubidea (56.-59. artikuluak eta I.D eranskina).

MERKATARITZA LIBERALIZATZEARI BURUZKO LEGEA (12/2012 Legea)

Lege horren aplikazio-eremuan sartzen dira **txikizkako merkataritza-jarduerak eta zerbitzu jakin batzuk, baldin eta establezimenduen azalera erabilgarria 750 metro koadrotik gorakoa ez bada:**

- **Lizentziarik ezin eskatzea** aldez aurretik instalazioei, funtzionamenduari edo jarduerei dagokienez, ezta bestelakorik ere, baldin garatu beharreko merkataritza-jarduera gauzatzeko edo establezimendua bera zabaltzeko baldintza gisa aurretiazko baimena izatea eskatzen badute.
- Ez da lizentziarik eskatu behar izango **merkataritzako eta zerbitzuetako jardueren titularra aldatuz gero** ere. Kasu horietan, administrazio eskudunari aldez aurretik jakinaraztea nahikoa izango da, informatzeko helburu soilarekin.
- **Ezi izango da aurretiazko lizentzia edo baimenik eskatu** merkataritza-jardueretan aritzeko lokalak egokitzeko **obrak egiteko**, baldin eta obra horiek ez badute eskatzen obra-proiekturik egitea, Eraikuntzaren Antolamenduari buruzko azaroaren 5eko 38/1999 Legearen 2.2 artikuluaren arabera.
- **Salbuespena:** Eraikingintzako obrak (Eraikuntzaren Antolamenduari buruzko Legearen arabera). Obra horiek dagokien araudiaren bidez arautuko dira oraindik ere, aldez aurreko lizentziaren, betekizun orokorren eta emateko eskumenari dagokienez.

Horretaz gain, honako hau ere jasotzen da:

- **Lizentzia eskatu ezin denean, erantzukizunpeko adierazpena edo aurretiazko jakinarazpena eskatuko dira haren ordez.**

Legeria:

17/2009 Legea, zerbitzu-jardueretan askatasunez sartzeari eta aritzeari buruzkoa, 3.-11. artikuluak
25/2009 Legea, zerbitzu-jardueretan askatasunez sartzeari eta aritzeari buruzko legeari egokitzeko hainbat lege aldatzen dituena, 1.-3. artikuluak
10/2021 Legea, abenduaren 9koa, Euskadiko Ingurumen Administrazioarena, 49.-59. artikuluak eta I.C eta I.D eranskinak
12/2012 Legea, abenduaren 26koa, merkataritza eta zenbait zerbitzu liberalizatzeko premiazko neurriei buruzkoa, 1.-5. artikuluak eta eranskina

LAS ÓRDENES DE EJECUCIÓN

Las órdenes de ejecución tienen como **finalidad la prohibición o la ejecución de un acto** y disponen de las siguientes características:

- Son **actos administrativos de mandato** y como tales autorizan a realizar **sin necesidad de licencia**.
- Son actos **reglados**, por tanto, no discrecionales y obligatorios según las circunstancias establecidas legalmente.
- Son **revocables** *motu proprio* por ser actos desfavorables o de gravamen.
- Se **inician de oficio,** aunque pueden ser instados por la acción pública.
- Su ejecución es **obligatoria** para el receptor.
- Su **finalidad es la restauración de la legalidad urbanística**, ya sea por la vía de la disciplina, ya por la del cumplimiento de los deberes del derecho de propiedad.

En el ámbito urbanístico, las órdenes de ejecución se dictarán para la ejecución de obras de **reparación, conservación y rehabilitación de los edificios y construcciones deteriorados o en condiciones deficientes** para su uso efectivo legítimo; así como para la ejecución de obras de reparación, conservación, rehabilitación y mejora en toda clase de edificios para el aseguramiento estructural del edificio, para evitar riesgos a terceros o para disponer de los servicios urbanísticos mínimos de suministro de agua, energía eléctrica y red de aguas, en las condiciones fijadas por la ordenación urbanística; así como para el cumplimiento de la normativa de accesibilidad. Los trabajos y las obras ordenadas deberán fijar plazos y condiciones para su ejecución.

Los ayuntamientos, además, deberán dictar órdenes de ejecución cuando constaten la realización de **actos o el desarrollo de usos no previstos o no permitidos** por la ordenación territorial y urbanística, para la minimización del impacto de unos y otros y la reposición al estado originario.

Las órdenes de ejecución tendrán carácter ejecutivo y forzoso. El **incumplimiento** injustificado de las órdenes de ejecución habilitará a la administración actuante para adoptar cualquiera de estas medidas:

- **Ejecución subsidiaria** a costa del obligado y hasta el límite del deber normal de conservación.
- Imposición de hasta diez **multas coercitivas** con periodicidad mínima mensual, por valor máximo, cada una de ellas, del 10% del coste estimado de las obras ordenadas. En todo caso, transcurrido el plazo para el cumplimiento voluntario derivado de la última multa coercitiva impuesta, la administración actuante estará obligada a ejecutar subsidiariamente la reposición de la realidad física alterada, con cargo al infractor.
- Incoación del expediente de **expropiación forzosa**.
- Formulación de un **programa de rehabilitación y adjudicación**, mediante procedimiento concursal.

CLASES DE ÓRDENES DE EJECUCIÓN

ÓRDENES DE EJECUCIÓN POR INCUMPLIMIENTO DEL DEBER DE CONSERVACIÓN	**CONCEPTO**	• Destacan como las más frecuentes y de mayor transcendencia, en cuanto a seguridad, economía y complicaciones. • Las órdenes de conservación son actos administrativos por los que se obliga a los propietarios de terrenos y construcciones a mantenerlos en las debidas condiciones de seguridad, salubridad y decoro. • El mandato contenido en la orden obliga y autoriza al destinatario para realizar lo ordenado (equivale a una licencia).
	COMPETENCIA	Normalmente corresponde a la **Alcaldía** y es delegable.
	PROCEDIMIENTO	• **Iniciación**: de oficio, por denuncia, o por petición razonada de otra Administración o autoridad. • **Inspección y comprobación** de la situación y deficiencias apreciables. • **Informe**: habitualmente la comprobación de la causa de la orden requiere de un informe técnico en el que se especifiquen todos los aspectos relevantes para precisar el mandato a incorporar a la orden, así como sus destinatarios: → Localización. → Relación detallada de las obras. → Condiciones y plazo adecuado para el cumplimiento. → Cuantificación del importe de lo ordenado. → Identificación del titular o responsable y su domicilio a efectos de notificaciones y demás datos que pueden facilitar la eficacia de lo pretendido. • En el caso de la **Declaración de Necesidad de Rehabilitación**, «*descripción de la solución técnica y de valoración económica*». • **Audiencia** al interesado. • **Emisión por decreto** de la orden y **apercibimientos** de posible desobediencia y **ejecución forzosa** (en su caso). • **Control** de cumplimiento y plazo. • **Ejecución forzosa**, subsidiaria, multas coercitivas, etc. (en su caso).
OTRAS CLASES		De **suspensión de obras y actuaciones clandestinas**.
		De **presentación de documentación para legalización**.
		De **conservación y rehabilitación**.
		De **prohibición de usos** y **demolición** y **otros** actos de restauración de la legalidad y ordenación urbanísticas.

Legislación:
Texto Refundido de la Ley de Suelo y Rehabilitación Urbana (TRLSR), arts.15, 49, 50 y 59
Ley 2/2006 de Suelo y Urbanismo del País Vasco (LSU), arts. 199 a 203, 219, 224 y 227
Ley 7/1985 Reguladora de las Bases del Régimen Local (LRBRL), art. 84
Ley 3/2015 de Vivienda (LvV), art. 42.
Decreto de 17 de junio de 1955, por el que se aprueba el Reglamento de Servicios de las Corporaciones Locales, arts. 1 a 6
Ley 39/2015 del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, arts. 97 a 105

BETEARAZTEKO AGINDUAK

Betearazteko aginduen **helburua egintza bat debekatzea edo betearaztea da**, eta honako ezaugarri hauek izaten dituzte:

- **Mandatuzko administrazio-egintzak** dira; beraz, **lizentziarik behar izan gabe** jarduteko baimena ematen dute.
- Egintza **arautuak** dira; hortaz, ez-diskrezionalak eta nahitaezkoak dira, legez ezarritako inguruabarren arabera.
- *Motu proprio* **ezeztagarriak** dira, kalterako diren kargak ezartzen dituzten egintzak baitira.
- **Ofizioz abiarazten dira**, baina akzio publikoak eska ditzake.
- Hartzaileak **nahitaez** bete behar ditu.
- **Hirigintza-legezkotasuna berrezartzea du xede**, dela diziplinaren bidetik, dela jabetza-eskubidearen betebeharrak betetzearen bidetik.

Hirigintza-eremuan, honako obra hauek egiteko emango dira betearazteko aginduak: **hondatuta dauden edo** legezko erabilera eraginkorra izateko **baldintza eskasetan dauden eraikin eta eraikuntzak konpontzeko, kontserbatzeko eta birgaitzeko obrak**; halaber, eraikin mota guztiak konpontzeko, kontserbatzeko, birgaitzeko eta hobetzeko obrak egiteko ere emango dira, eraikinaren egitura finkatzeko, hirugarrenek arriskurik izan ez dezaten edo uraren, energia elektrikoaren eta ur-sarearen horniduraren gutxieneko hirigintza-zerbitzuak erabilgarri izatearren, hirigintza-antolamenduak finkatutako baldintzetan; irisgarritasun-araudia betetzeko ere emango dira. Agindutako lan eta obra horietan, egikaritzeko epeak eta baldintzak finkatu beharko dira.

Udalek, gainera, betearazteko aginduak eman beharko dituzte lurralde- eta hirigintza-antolamenduan **jasotzen ez diren edo baimentzen ez diren ekintzak egin edo erabilerak garatzen** ari direla antzematen dituztenean ere, ekintza eta erabilera horien inpaktua minimizatzeko eta jatorrizko egoerara leheneratzeko.

Betearazteko aginduak betearazleak eta nahitaezkoak izango dira. Betearazteko aginduak justifikaziorik gabe **betetzen ez badira**, administrazio jarduleak honako neurri hauetako edozein ezarri ahal izango du:

- **Betearazte subsidiarioa**, betebeharpekoaren kontura eta kontserbazio-betebehar arrunta muga izanik.
- Gehienez ere hamar **hertsapen-isun** ezartzea, gutxienez hilean behin; isun bakoitzaren balioa agindutako obren gutxi gorabeherako kostuaren % 10 izango da, gehienez ere. Nolanahi ere, jarritako azken hertsapen-isuna ordaintzeko borondatezko epea igarotakoan, administrazio jardulea behartuta egongo da eraldatutako errealitate fisikoa modu subsidiarioan leheneratzera, arau-hauslearen kargura.
- **Nahitaezko desjabetzerako** espedientea hastea.
- **Birgaitzeko programa bat** prestatzea eta programa hori lehiaketa bidez **esleitzea**.

BETEARAZTEKO AGINDUEN MOTAK

<table>
<tr><td rowspan="3">BETEARAZTEKO AGINDUAK KONTSERBAZIO-EGINBEHARRA EZ BETETZEAGATIK</td><td>KONTZEPTUA</td><td>• Ohikoenak eta garrantzitsuenak izan ohi dira, segurtasuna, dirua eta dakartzaten arazoak aintzat hartuta.
• Kontserbatzeko aginduak administrazio-egintzak dira, eta, haien bidez, segurtasun-, osasungarritasun- eta txukuntasun-baldintza onetan edukitzera behartzen dira lursailen eta eraikinen jabeak.
• Aginduan jasotako manuak betebeharra ezartzen eta baimena ematen dio hartzaileari agindu zaiona betetzeko (lizentziaren baliokidea da).</td></tr>
<tr><td>ESKUMENA</td><td>Oro har, alkateari dagokio, baina hark eskuordetu egin dezake.</td></tr>
<tr><td>PROZEDURA</td><td>• Hastea: ofizioz, salaketa bidez, edo beste administrazio edo agintari batek egindako eskaera arrazoituaren bidez.
• Egoera eta begi-bistako akatsak ikuskatu eta egiaztatzea.
• Txostena: aginduaren arrazoia egiaztatzeko, txosten tekniko bat behar izaten da, normalean; bertan zehaztu behar dira aginduan zein manu sartu diren adierazteko alderdi garrantzitsu guztiak, bai eta hartzaileak ere. Eduki hau izaten du:
→ Kokalekua.
→ Obrak, zehatz-mehatz adierazita.
→ Baldintzak, eta haiek betetzeko epe egokia.
→ Agindutakoak dakarren kostua.
→ Titularra edo arduraduna zein den eta zer helbide duen –jakinarazpenetarako– ; eta lortu nahi dena lortzeko egoki den gainerako datu oro.
• Birgaitzeko premiaren deklarazioa eman bada, «irtenbide teknikoaren eta balorazio ekonomikoaren deskribapena».
• Interesdunari entzunaldia ematea.
• Agindua dekretuz ematea, eta ez betetzeak dakartzan ondorioen eta nahitaezko betearazpenaren inguruko ohartarazpenak (hala badagokio).
• Betetzearen eta epearen kontrola.
• Nahitaezko betearazpena, betearazpen subsidiarioa, hertsapen-isunak eta abar, (hala badagokio).</td></tr>
<tr><td colspan="2">BESTE MOTA BATZUK</td><td>Obra eta jarduketa klandestinoak etetekoak.</td></tr>
<tr><td colspan="2"></td><td>Legeztatzeko dokumentazioa aurkeztekoak.</td></tr>
<tr><td colspan="2"></td><td>Kontserbatzekoak eta birgaitzekoak.</td></tr>
<tr><td colspan="2"></td><td>Erabilerak debekatzekoak eta eraistekoak, eta hirigintza-legezkotasuna eta -antolamendua leheneratzeko beste ekintza batzuk agintzekoak.</td></tr>
</table>

Legeria:

Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testu bategina (LHBLTB), 15., 49., 50. eta 59. artikuluak
2/2006 Legea, EAEko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa (LHL), 199.-203., 219., 224. eta 227. artikuluak
7/1985 Legea, toki-araubidearen oinarriak arautzen dituena (TAOL), 84. artikulua
3/2015 Legea, Etxebizitzarena (EL), 42. artikulua
Dekretua, 1955eko ekainaren 17koa, Toki Korporazioen Zerbitzuei buruzko Erregelamendua onartzen duena, 1.-6. artikuluak
39/2015 Legea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena, 97.-105. artikuluak

<table>
<tr><th colspan="4">INFRACCIONES</th></tr>
<tr><td>CONCEPTO</td><td colspan="3">Son infracciones urbanísticas las acciones y omisiones que vulneren las prescripciones contenidas en la legislación y planeamiento urbanístico, que estén tipificadas y sancionadas.

Toda infracción urbanística ha de comportar la imposición de sanciones a los responsables, así como la obligación de resarcir e indemnizar por los perjuicios causados.</td></tr>
<tr><td rowspan="4">CLASIFICACIÓN</td><td>MUY GRAVES</td><td colspan="2">• Conductas graves que afecten a sistemas generales, a suelo no urbanizable protegido o al dominio público.
• Destrucción de bienes catalogados e inventariados.
• Actos de parcelación en suelo no urbanizable especialmente protegido.</td></tr>
<tr><td rowspan="2">GRAVES</td><td>EL INCUMPLIMIENTO DE LAS NORMAS Y DETERMINACIONES RELATIVAS A:</td><td>• Parcelación.
• Usos del suelo.
• Altura de edificaciones.
• Superficie y volumen de edificación.
• Densidad residencial, situación de edificación y ocupación permitida de parcelas.</td></tr>
<tr><td>OTRO TIPO DE INFRACCIONES GRAVES</td><td>• Realización de obras mayores sin proyecto técnico ni licencia.
• Usos incompatibles y sin licencia.
• Excesos de edificación o volumen.
• Edificación de sótanos, semisótanos, áticos o entreplantas no permitidos por el planeamiento.
• Obras no autorizables en edificios e instalaciones declaradas fuera de ordenación.
• Movimientos de tierra y extracciones sin licencia o autorización.
• Deterioro de paisaje por vertidos de escombros o residuos.
• Incumplimientos en materia de ejecución.
• Incumplimiento de compromisos convenidos por el agente urbanizador.
• Incumplimiento de normas sobre destino de bienes y recursos del Patrimonio Público del Suelo.
• Desobediencia a las órdenes de paralización de obras o usos clandestinos.</td></tr>
<tr><td>LEVES</td><td colspan="2">Toda infracción urbanística no tipificada como muy grave o grave, en especial, las actuaciones formales o iniciadas o realizadas sin autorización.</td></tr>
<tr><td rowspan="2">SANCIONES</td><td>MULTA</td><td colspan="2">• Infracciones leves: desde 500 a 5.000 €.
• Infracciones graves: desde 5.001 a 50.000 €.
• Infracciones muy graves: desde 50.001 hasta el importe que sea superior: 500.000 € o el 150% del valor de obras o instalaciones o coste de reposiciones.</td></tr>
<tr><td>OTRAS SANCIONES</td><td colspan="2">• Inhabilitación en concursos de actuaciones urbanizadoras o edificatorias.
• Publicación en boletines y prensa de la infracción, sanción impuesta y medidas de legalización.
• Incautación del beneficio o resultado económico obtenido.</td></tr>
<tr><td rowspan="6">PRESCRIPCIÓN</td><td rowspan="3">INFRACCIONES</td><td>MUY GRAVES</td><td>5 años</td></tr>
<tr><td>GRAVES</td><td>4 años</td></tr>
<tr><td>LEVES</td><td>2 años</td></tr>
<tr><td rowspan="3">SANCIONES</td><td>MUY GRAVES</td><td>5 años</td></tr>
<tr><td>GRAVES</td><td>3 años</td></tr>
<tr><td>LEVES</td><td>1 año</td></tr>
</table>

Legislación: Ley 2/2006 de Suelo y Urbanismo del País Vasco (LSU), arts. 225, 226, 229, 230 y 233 a 240
Texto Refundido de la Ley de Suelo y Rehabilitación Urbana (TRLSR), arts. 55, 56 y DA11
Ley 3/2015 de Vivienda (LvV), arts. 82 a 93 (únicamente en materia de vivienda)

<table>
<tr><th colspan="4">ARAU-HAUSTEAK</th></tr>
<tr><td>KONTZEPTUA</td><td colspan="3">Hirigintzako arau-hauste dira hirigintzako legerian eta plangintzan jasotako aginduak urratzen dituzten ekintzak eta ez-egiteak, baldin eta arauetan jasota eta zehatuta badaude.

Hirigintzako arau-hauste ororen ondorioz zehapenak jarri behar zaizkie erantzuleei, eta eragindako kalteen ordaina eman beharko dute ezinbestean.</td></tr>
<tr><td rowspan="4">SAILKAPENA</td><td>OSO ASTUNAK</td><td colspan="2">• Sistema orokorrei, lurzoru urbanizaezinari eta herri-jabariari eragiten dioten jokabide larriak.
• Ondasun katalogatuak eta inbentariatuak suntsitzea.
• Bereziki babestutako lurzoru urbanizaezinean partzelazioak egitea.</td></tr>
<tr><td rowspan="2">ASTUNAK</td><td>HAUEI BURUZKO ARAUAK ETA ZEHAZTAPENAK EZ BETETZEA:</td><td>• Partzelazioa.
• Lurzoruaren erabilerak.
• Eraikinen altuera.
• Eraikuntza-azalera eta -bolumena.
• Etxebizitza-dentsitatea, eraikingintzaren egoera eta partzelen baimendutako okupazioa.</td></tr>
<tr><td>BESTE MOTA BATEKO ARAU-HAUSTE ASTUNAK</td><td>• Obra handiak egitea, proiektu teknikorik eta lizentziarik gabe.
• Erabilera bateraezinak eta lizentziarik gabeak.
• Gehiegizko eraikuntza edo bolumena.
• Plangintzak onartzen ez dituen soto, erdisoto, teilatupe edo solairuarteak eraikitzea.
• Baimendu ezin daitezkeen obrak, antolamenduz kanpo aitortutako eraikin eta instalazioetan.
• Lur-mugimenduak eta -erauzketak, lizentziarik edo baimenik gabe.
• Paisaia hondatzea, obra-hondakinak edo bestelako hondakinak isurtzeagatik.
• Egikaritzeen arloko ez-betetzeak.
• Eragile urbanizatzaileak hartutako konpromisoak ez betetzea.
• Lurzoru-ondare publikoko ondasun eta baliabideen xedeari buruzko arauak ez betetzea.
• Obrak gelditzeko edo erabilera klandestinoak egiteari uzteko aginduak ez betetzea.</td></tr>
<tr><td>ARINAK</td><td colspan="2">Oso astuntzat edo astuntzat jota ez dagoen hirigintzako arau-hauste oro; bereziki, jarduketa formalak edo baimenik gabe hasitako edo egindako jarduketak.</td></tr>
<tr><td rowspan="2">ZEHAPENAK</td><td>ISUNA</td><td colspan="2">• Arau-hauste arinak: gutxienez 500 € eta gehienez 5.000 €.
• Arau-hauste astunak: gutxienez 5.001 € eta gehienez 50.000 €.
• Arau-hauste oso astunak: gutxienez 50.001 € eta gehienez bi hauetatik handiena den kopurua: 500.000 € edo obra zein instalazioen balioaren edo lehengoratzeen kostuaren % 150.</td></tr>
<tr><td>BESTE ZEHAPEN BATZUK</td><td colspan="2">• Hirigintza- edo eraikingintza-jardueren lehiaketetan parte hartzeko desgaitzea.
• Aldizkari ofizialetan eta prentsan argitaratzea arau-haustea, ezarritako zehapena eta legeztatzeko neurriak.
• Lortutako onura edo emaitza ekonomikoa konfiskatzea.</td></tr>
<tr><td rowspan="6">PRESKRIPZIOA</td><td rowspan="3">ARAU-HAUSTEAK</td><td>OSO ASTUNAK</td><td>5 urte</td></tr>
<tr><td>ASTUNAK</td><td>4 urte</td></tr>
<tr><td>ARINAK</td><td>2 urte</td></tr>
<tr><td rowspan="3">ZEHAPENAK</td><td>OSO ASTUNAK</td><td>5 urte</td></tr>
<tr><td>ASTUNAK</td><td>3 urte</td></tr>
<tr><td>ARINAK</td><td>1 urte</td></tr>
</table>

Legeria: 2/2006 Legea, EAEko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa (LHL), 225., 226., 229., 230. eta 233.-240. artikuluak
Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testu bategina (LHBLTB), 55. eta 56. artikuluak eta 11. xedapen gehigarria
3/2015 Legea, Etxebizitzarena (EL), 82.-93. artikuluak (soilik etxebizitzaren arloan)

<table>
<tr><td rowspan="4">RESPONSABILIDAD</td><td rowspan="2">PERSONAS RESPONSABLES</td><td>OBRAS SIN LICENCIA O CON INCUMPLIMIENTO DE LAS CLÁUSULAS DE LA MISMA</td><td>• El promotor y el propietario no promotor.
• Los titulares, directores o beneficiarios de usos o establecimientos.
• El empresario de las obras.
• El técnico director de las mismas.</td></tr>
<tr><td>OBRAS CON LICENCIA O CON LICENCIA CUYO CONTENIDO ES MANIFIESTAMENTE CONSTITUTIVO DE INFRACCIÓN URBANÍSTICA GRAVE</td><td>• El facultativo que ha informado favorablemente el proyecto.
• Los miembros de la corporación que votaron a favor de la propuesta sin disponer de los informes previos exigidos o cuando éstos fuesen desfavorables.</td></tr>
<tr><td>AGRAVANTES</td><td colspan="2">• Haber cometido la infracción haciendo uso de la condición de cargo público.
• La utilización de la violencia o coacción sobre autoridades o funcionarios.
• Soborno a autoridades o funcionarios.
• Alteración de los supuestos de hecho o la falsificación de documentos.
• Realizar aprovechamiento o explotar en su beneficio una grave necesidad pública o de los particulares que resultasen afectados.
• Reiteración y reincidencia.
• Desobediencia o resistencia a las órdenes de la autoridad.</td></tr>
<tr><td>ATENUANTES</td><td colspan="2">• No haber tenido intención de causar daño.
• Haber procedido a reparar o minorar los daños causados previo al inicio de las actuaciones sancionadoras.</td></tr>
<tr><td>MIXTAS (AGRAVANTES O ATENUANTES)</td><td colspan="2">Son circunstancias que agravan o atenúan la responsabilidad, según el supuesto:
• El mayor o menor beneficio obtenido de la infracción.
• El mayor o menor perjuicio causado por la infracción.
• El mayor o menor conocimiento técnico en relación a la actuación.
• Mayor o menor dificultad técnica para reposición de la realidad física alterada.</td></tr>
<tr><td rowspan="3">PROCEDIMIENTO SANCIONADOR</td><td>INICIO</td><td colspan="2">El inicio del expediente sancionador corresponde al Alcalde o, en su caso, a los órganos que tengan atribuidas facultades de inspección y fiscalización del planeamiento.
Debe iniciarse simultáneamente con el procedimiento de protección de la legalidad urbanística.</td></tr>
<tr><td>TRAMITACIÓN</td><td colspan="2">Han de seguirse los trámites establecidos en la legislación del procedimiento sancionador.</td></tr>
<tr><td>INFRACCIONES CONSTITUTIVAS DE DELITO O FALTA</td><td colspan="2">Si de la tramitación del expediente sancionador se ponen de manifiesto indicios de delito o falta, han de ser puestos en conocimiento del Ministerio Fiscal, y ha de detenerse el procedimiento mientras la autoridad judicial no se haya pronunciado.
La sanción penal excluye la sanción administrativa, no así la adopción de medidas de reposición.</td></tr>
</table>

Legislación: Ley 2/2006 de Suelo y Urbanismo del País Vasco (LSU), arts. 228 a 244
Ley 3/2015 de Vivienda (LvV), arts. 82 a 93 (únicamente en materia de vivienda)
LPV 2/1998, de 20 de febrero, de la Potestad Sancionadora de las Administraciones Públicas de la Comunidad Autónoma del País Vasco

<table>
<tr><td rowspan="5">ERANTZUKIZUNA</td><td rowspan="2">ERANTZULEAK</td><td>LIZENTZIARIK GABEKO OBRAK EDO LIZENTZIAKO BALDINTZAK BETETZEN EZ DITUZTENAK</td><td>• Sustatzailea eta sustatzaile ez den jabea.
• Erabileren edo establezimenduen titularrak, zuzendariak edo onuradunak.
• Obren ardura duen enpresaburua.
• Obren zuzendari teknikoa.</td></tr>
<tr><td>LIZENTZIA DUTEN OBRAK, EDO LIZENTZIAREN EDUKIA HIRIGINTZAKO ARAU-HAUSTE ASTUNA BADA</td><td>• Proiektuaren aldeko txostena eman duen teknikaria.
• Egin beharreko aurretiko txostenak eskuratu gabe edo txostenak aurkakoak izanda, proposamenari baiezkoa eman zioten udalbatzako kideak.</td></tr>
<tr><td>ASTUNGARRIAK</td><td colspan="2">• Kargu publiko izateaz baliatzea arau-haustea egiteko.
• Agintarien edo funtzionarioen aurkako bortizkeria edo derrigortzea erabiltzea.
• Agintariak edo funtzionarioak erostea.
• Gertakariak aldatzea edo dokumentuak faltsutzea.
• Beharrizan publiko larriren bat, edo ukitutako partikularrena, norberaren onurarako erabiltzea edo ustiatzea.
• Berriro egitea eta berrerortzea.
• Agintarien aginduei men ez egitea edo haiek betetzeko eragozpenak jartzea.</td></tr>
<tr><td>ARINGARRIAK</td><td colspan="2">• Kalterik egiteko asmorik ez izatea.
• Eragindako kalteak konpondu edo arindu izana, zehapen-jarduketak hasi aurretik.</td></tr>
<tr><td>MISTOAK (ASTUNGARRIAK EDO ARINGARRIAK)</td><td colspan="2">Inguruabar hauek erantzukizuna larritu edo astuntzen dute, kasuan-kasuan:
• Arau-haustetik lortutako etekina handia edo txikia izatea.
• Arau-hausteak eragindako kaltea handia edo txikia izatea.
• Jarduketari buruzko ezagutza teknikoa handia edo txikia izatea.
• Aldatutako errealitate fisikoa leheneratzeko zailtasun teknikoa handia edo txikia izatea.</td></tr>
<tr><td rowspan="3">ZEHAPEN-PROZEDURA</td><td>HASIERA</td><td colspan="2">Zehapen-espedientea hastea alkateari dagokio, edo, bestela, plangintza betetzen dela ikuskatzeko eta fiskalizatzeko ahalmena eman zaien organoei.
Hirigintza-legezkotasuna babesteko prozedurarekin batera hasi behar da.</td></tr>
<tr><td>IZAPIDETZEA</td><td colspan="2">Zehapen-prozedurako legerian ezarritako izapideei jarraitu behar zaie.</td></tr>
<tr><td>DELITUA EDO FALTA DIREN ARAU-HAUSTEAK</td><td colspan="2">Zehapen-espedientea izapidetzen ari denean delitu edo falta baten zantzuak sumatzen baldin badira, Fiskaltzari jakinarazi behar zaizkio, eta prozedura eten behar da agintaritza judizialak epaia eman arte.
Zehapen penala badago, ezin da administrazio-zehapenik jarri, baina eska daiteke lehengoratzeko neurriak har daitezen.</td></tr>
</table>


Legeria: 2/2006 Legea, EAEko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa (LHL), 228.-244. artikuluak
3/2015 Legea, Etxebizitzarena (EL), 82.-93. artikuluak (soilik etxebizitzaren arloan)
2/1998 Legea, otsailaren 20koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzkoa

REGULACIÓN Y TÍTULOS JURÍDICOS HABILITANTES
• **REGULACIÓN: LEY 10/2021, DE 9 DE DICIEMBRE, DE ADMINISTRACIÓN AMBIENTAL DE EUSKADI.** **Licencia de actividad clasificada:** artículos 49 a 55; **Comunicación Previa de Actividad Clasificada**: arts. 56 a 59. **Caducidad**: art. 20. **Cambio de titularidad**: art. 28. **Modificación de actividad**: art. 30. **Restauración legalidad**: arts. 97 a 101. **Principales novedades de la Ley 10/2021:** Crea la **Autorización Ambiental Única** (de competencia autonómica). → Si la actividad estuviera sujeta a autorización ambiental autonómica (ya fuera «Integrada» o «Única») ya no está sujeta a los medios de intervención municipal (ni a licencia ni a Comunicación). → En cuanto a la licencia municipal de actividad clasificada, la imposición de medidas protectoras y correctoras corresponderá: » Para municipios < 10.000 habitantes: Diputaciones Forales. » Para municipios ≥ 10.000 habitantes: el propio Ayuntamiento o lo pueden solicitar a las Diputaciones Forales. → Asimismo, **se crea INGURUNET**, sistema de información y de tramitación ambiental. • Para la implantación o modificación sustancial de las actividades e instalaciones **PÚBLICAS O PRIVADAS** susceptibles de originar daños al medio ambiente, a las personas o a sus bienes, generar riesgos de producir tales daños o causar molestias a las personas y que no estén sujetas a autorización ambiental integrada ni a autorización ambiental única **se deberá obtener licencia de actividad clasificada** (actividades del anexo I.C) **o presentar la Comunicación Previa de Actividad Clasificada** (actividades del anexo I.D). El inicio de las actividades sujetas a licencia de actividad clasificada requerirá Comunicación Previa de Actividad Clasificada. La presentación tiene lugar una vez ejecutadas las obras amparadas por licencia o comunicación de obra. • En caso de que la actividad clasificada deba someterse al procedimiento de **evaluación de impacto ambiental ordinaria** (actividades del Anexo II.D) **o evaluación de impacto ambiental simplificada** (actividades del Anexo II.E), la declaración de impacto ambiental y el informe de impacto ambiental serán previos a la licencia de actividad clasificada o a la presentación de la Comunicación Previa de Actividad Clasificada, y vinculantes para la autoridad local.


ALGUNOS ASPECTOS SIGNIFICATIVOS DE LAS LICENCIAS DE ACTIVIDADES CLASIFICADAS	
COMPETENCIA	• Para los denominados **municipios de régimen común**, el art. 21.1.q) LRBRL atribuye la competencia del otorgamiento de las licencias, con carácter general, **al alcalde,** siendo delegable (art. 21.3 LRBRL). • Para los **municipios acogidos a la categoría de Gran Ciudad** (que supere los 250.000 hab. y otros previstos en art. 121.1 LRBRL) la competencia corresponde a la **Junta de Gobierno** al amparo de lo establecido en el art. 127.1.e) LRBRL, siendo delegable (art. 127.2).
ORDENANZAS MUNICIPALES	El Ayuntamiento, dentro de su potestad reglamentaria, puede dictar **ORDENANZAS** que, no contraviniendo lo dispuesto en la normativa vigente, y dentro del ámbito de sus competencias, respeten los **principios** de legalidad, igualdad y proporcionalidad.
DECISIÓN FUNDADA	El **CARÁCTER REGLADO** de las licencias exige que la concesión/denegación se fundamente en la conformidad/disconformidad de lo solicitado con la **normativa urbanística y sectorial**.
SILENCIO ADMINISTRATIVO	Transcurrido el plazo de **CUATRO MESES** sin que se haya dictado y notificado la resolución, **SE ENTENDERÁ DESESTIMADA** la solicitud. Tanto el plazo (4 meses en vez de 6) como el sentido del silencio constituyen novedad de la Ley 10/2021.
INICIO DE LA ACTIVIDAD	• Desde el día de la presentación de la **COMUNICACIÓN PREVIA** ante el Ayuntamiento. • La comunicación deberá acompañarse de **certificado técnico acreditativo del cumplimiento** del proyecto presentado y de los requisitos de la normativa sectorial vigente, sin lo cual no será título jurídico válido para el funcionamiento de la actividad. • El titular de la actividad deberá también cumplir con **otros controles** (previos o concurrentes) exigidos por la normativa. Son previos por ejemplo: la concesión administrativa del dominio público, la declaración de utilidad pública o interés social en suelo no urbanizable, la declaración de impacto ambiental, declaración de calidad del suelo si el emplazamiento es potencialmente contaminado, la autorización de la Diputación Foral para la intervención sobre bienes culturales de protección especial o media.
ACTOS PROMOVIDOS POR LAS ADMINISTRACIONES PÚBLICAS	Están igualmente **SUJETOS a licencias de actividad clasificada y Comunicaciones Previas,** SALVO grandes obras públicas de interés general (art 212.1 Ley Vasca Suelo 2/2006) recogidas en legislación de carreteras, sector ferroviario, Ley de Puertos, las realizadas por AENA en zona de servicio del aeropuerto; también por razones de urgencia o excepcional interés público (Disposición Adicional 10.ª Ley Estatal Suelo y Disposición Adicional 3 de Ley Ordenación Territorio 4/1990).
INFORMACIÓN PREVIA	Quienes promuevan actividades clasificadas podrán realizar **consulta ante el Ayuntamiento** sobre los **requisitos** para la legalización de la actividad.
REGISTRO DE ACTIVIDADES CLASIFICADAS	Los **ayuntamientos deben** mantener un registro de las actividades e instalaciones sujetas a licencia de actividad clasificada y a comunicación previa de actividad clasificada que se desarrollen en su término municipal
INFORME AL ÓRGANO MEDIOAMBIENTAL AUTONÓMICO O FORAL	Los Ayuntamientos deben, además, **INFORMAR** al órgano ambiental de la CAE y al órgano con competencias ambientales de la diputación foral correspondiente, en el supuesto de que haya emitido informe de imposición de medidas correctoras, de la concesión de licencias de actividad clasificada, de sus modificaciones sustanciales y del cese definitivo de la actividades e instalaciones previamente autorizadas.

ARAUKETA ETA GAITZEN DUTEN TITULU JURIDIKOAK
• **ARAUKETA: 10/2021 LEGEA, ABENDUAREN 9KOA, EUSKADIKO INGURUMEN ADMINISTRAZIOAREN.** **Jarduera sailkatuaren lizentzia:** 49-55 artikuluak; **Jarduera sailkatuaren aurretiazko jakinarazpena**: 56-59 artikuluak. **Iraungitzea**: 20. artikulua. **Titulartasuna aldatzea**: 28. artikulua. **Jarduera aldatzea**: 30. artikulua. **Legezkotasuna berrezartzea**: 97-101 artikuluak. **10/2021 Legearen berritasun nagusiak:** **Ingurumen-baimen bakarra** sortzen du (autonomiaren eskumenekoa). → Autonomiako ingurumen baimenaren mende badago jarduera (izan «integratua» ala «bakarra»), dagoeneko ez da egongo udalaren esku-hartzeko bitartekoen mende (ez lizentziaren ez jakinarazpenaren mende). → Jarduera sailkatuaren udal lizentziari dagokionez, hauek ezarri beharko dituzte babes-neurriak eta neurri zuzentzaileak: » 10.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietarako: foru-aldundiak. » 10.000 biztanle edo gehiago dituzten udalerrietarako: Udalek eurek, edo foru-aldundiari eskatu. → Era berean, **INGURUNET** sortzen da, ingurumen informaziorako eta tramitaziorako sistema. • Ingurumen-baimen bateratua eta ingurumen-baimen bakarra behar ez duten eta ingurumenari, pertsonei edo haien ondasunei kalteak eragin diezazkiekeen, kalte horiek eragiteko arriskua sor dezakeen edo pertsonei eragozpenak sor diezazkiekeen titulartasun **PUBLIKO EDO PRIBATUKO** edozein jarduera eta instalazio ezarri edo funtsezko aldaketaren bat egin ahal izateko, **jarduera sailkatuaren lizentzia eskuratu beharko da** (I.C eranskineko jarduerak), **edo jarduera sailkatuaren aurretiazko jakinarazpena** aurkeztu (I.D eranskineko jarduerak). Jarduera sailkatuaren lizentziarekin lotutako jardueraren bat hasi ahal izateko, jarduera sailkatuaren aurretiazko jakinarazpena egin beharko da. Lizentziaren edo aurretiazko jakinarazpenaren babespeko obrak egin ondoren egiten da aurkezpena. • Jarduera sailkatu horrek **ingurumen-inpaktuaren ebaluazio arrunteko** prozedura (II.D eranskineko jarduerak) edo **ingurumen-inpaktuaren ebaluazio sinplifikatuko** prozedura (II.E eranskineko jarduerak) bete behar duenean, jarduera sailkatuaren lizentzia eman edo jarduera sailkatuaren aurretiazko jakinarazpena aurkeztu baino lehen egin beharko dira ingurumen-inpaktuaren adierazpena eta ingurumen-inpaktuaren txostena, eta lotesleak izango dira toki-agintaritzarentzat.

JARDUERA SAILKATUEN LIZENTZIEI BURUZKO ALDERDI AIPAGARRI BATZUK	
ESKUMENA	• **Araubide orokorreko udalerrietarako**, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen Legearen 21.1.q) artikuluak **alkateari** ematen dio, oro har, lizentziak emateko eskumena, baina eskuordetzan eman daiteke eskumen hori (TAOLen 21.3 art.). • **Biztanle-kopuru handiko udalerrietarako** (250.000 bizilagun baino gehiago dutenak eta TAOLen 121.1 artikuluan aurreikusitako beste batzuk), **tokiko gobernu-batzarrari** dagokio eskumena, baina eskuordetzan eman daiteke eskumen hori (TAOLen 127.2 art.).
UDAL ORDENANTZAK	Udalak, erregelamenduak egiteko duen ahalmenaren barruan, **ORDENANTZAK** egin ditzake, baldin eta indarrean dauden arauak urratzen ez badituzte eta, bere eskumenen barruan, legezkotasun-, berdintasun- eta proportzionaltasun-**printzipioak** errespetatzen badituzte.
OINARRITUTAKO ERABAKIA	Lizentziek duten **ERREGELA IZAERA** dela-eta, **hirigintzako eta sektoreko arauekin** bat datorren ala ez hartuko da kontuan lizentzia emateko ala ukatzeko.
ADMINISTRAZIO-ISILTASUNA	**LAU HILABETE** igaro eta ebazpenik eman eta jakinarazi ez bada, ulertuko da eskaera **EZETSI** egin dela. Bai epea (4 hilabete 6 izan beharrean), bai isiltasunaren esanahia 10/2021 Legearen berritasuna dira.
JARDUERAREN HASIERA	• **AURRETIAZKO JAKINARAZPENA** Udalean aurkezten den egunetik. • Jakinarazpenarekin batera, aurkeztutako proiektua eta indarrean diren sektoreko arauetako betekizunak **betetzen direla egiaztatzen duen ziurtagiri teknikoa** ere aurkeztu beharko da; ziurtagiri hori gabe, titulu juridikoa ez da balioduna izango jardueraren funtzionamendurako. • Jardueraren titularrak, gainera, arauek eskatutako **beste kontrol batzuk** (aldez aurrekoak edo aldi berekoak) bete beharko ditu. Aldez aurrekoak dira, esaterako: jabari publikoaren administrazio-emakida, lurzoru urbanizaezina onura publikokoa edo gizarte-interesekoa dela adieraztea, ingurumen-inpaktuaren adierazpena, lurzoruaren kalitatearen adierazpena baldin eta kokalekua kutsatuta egon badaiteke, foru-aldundiaren baimena babes bereziko edo ertaineko kultura-ondasunetan esku-hartzeko.
ADMINISTRAZIO PUBLIKOEK SUSTATUTAKO EKINTZAK	**Jarduera sailkatuaren lizentzia eta jardueraren aurretiazko jakinarazpena BEHARKO DITUZTE**, SALBU interes orokorreko obra publiko handiak (Lurzoruari buruzko EAEko 2/2006 Legearen 212.1 artikulua), errepideen legerian bildu badira, trenbide-sektorea, Portuen Legea, AENAk aireportuaren zerbitzu-gunean egindakoak; era berean, presazko zein ezohiko interes publikoko arrazoiak direla eta (Lurzoruari buruzko Estatuko Legearen 10. xedapen gehigarria eta Lurraldearen Antolamendurako 4/1990 Legearen 3. xedapen gehigarria)
AURRETIAZKO INFORMAZIOA	Jarduera sailkatuak sustatzen dituztenek **kontsulta** egin ahal izango dute **Udalean**, jarduera legeztatzeko **betekizun**ei buruz.
JARDUERA SAILKATUEN ERREGISTROA	Udalerrian garatzen diren eta jarduera sailkatuaren lizentziak eta jarduera sailkatuaren aurretiazko jakinarazpena behar dituzten jarduera eta instalazioen erregistroa **izan behar dute Udalek**.
TXOSTENA INGURUMEN ARLOKO AUTONOMIA- EDO FORU-ORGANOARI	Jarduera sailkatuaren lizentziak ematen direnean, lizentziaren bat nabarmen aldatzen denean eta aurretiaz baimendutako jarduera edo instalazioren bat behin betiko amaitzen denean, Udalek **JAKINARAZI** egin beharko diete Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen-organoari eta dagokion foru-aldundian ingurumen-eskumenak dituen organoari (neurri zuzentzaileak ezartzeko txostena egin badu).



Guía Local - ISBN 978-84-7777-691-8


JARDUERA SAILKATUA
I.C ERANSKINA
10/2021 Legea, Ingurumen Administrazioarena
JARDUERA SAILKATUAREN LITZENTZIAREN MENDE
JARDUERA SAILKATUAREN LITZENTZIA
OBRA-LIZENTZIA EDO OBREN AURRETIAZKO JAKINARAZPENA
AURRETIAZKO JAKINARAZPENA aurkeztea = JARDUERA HASTEA
IKUSKAPENA
I.D ERANSKINA
10/2021 Legea, Ingurumen Administrazioarena
AURRETIAZKO JAKINARAZPENAREN ERREGIMENAREN MENDE
OBRA-LIZENTZIA EDO OBREN AURRETIAZKO JAKINARAZPENA
AURRETIAZKO JAKINARAZPENA aurkeztea = JARDUERA HASTEA
IKUSKAPENA

ACTIVIDADES E INSTALACIONES CLASIFICADAS SOMETIDAS A LICENCIA DE ACTIVIDAD

ANEXO I.C de la Ley 10/2021, de 9 de diciembre, de Administración Ambiental de Euskadi

Siempre que se trate de **actividades NO INCLUIDAS en los apartados A** (Instalaciones sometidas a autorización ambiental integrada) **y B** (Actividades e instalaciones sometidas a autorización ambiental única) **de este Anexo I**, se someterán a licencia municipal de actividad clasificada las siguientes actividades e instalaciones:

1	Actividades **extractivas**.
2	Instalaciones **nucleares y radiactivas**.
3	Instalaciones productoras de **energía eléctrica**, incluyendo las instalaciones de captación y transformación de energía renovable en energía eléctrica, con una potencia instalada superior a 100 kW (quedan excluidas las instalaciones de energía fotovoltaica que se sitúen en terrenos urbanizados ya consolidados, o bien sobre edificios preexistentes).
4	**Industrias** en general.
5	Talleres que realicen **tratamientos superficiales** u operaciones de **barnizado o pintado a pistola** y similares.
6	**Talleres y obradores varios** (mantenimiento y reparación de vehículos a motor y similares, carpinterías, caldererías, montaje, mecanización, obradores de panadería, pastelería, catering...), cuando la **potencia total instalada** (potencia mecánica y eléctrica, excluida la correspondiente al alumbrado) sea igual o superior a 25 kW y la **superficie** específicamente destinada a la producción supere los 300 m^2.
7	Actividades o instalaciones de **almacenamiento, comercio y exposición** que dispongan de productos y materiales catalogados como **tóxicos, peligrosos o inflamables** en cantidad superior a 500 kg en instalaciones ubicadas en suelo urbano residencial, y 1.000 kg en el resto de suelos.
8	Estaciones de servicio y parque de suministro, instalación **distribuidora** o instalación análoga de **combustibles líquidos o gaseosos**.
9	Instalaciones de **almacenamiento de combustibles líquidos o gaseosos** ubicadas en cualquier tipo de suelo con una capacidad superior a 50.000 litros.
10	**Rellenos de tierras y rocas** con una capacidad superior a 500.000 m^3 cuya ejecución se prolongue por un tiempo superior a un año, excepto aquellos vinculados a obras de infraestructura lineal.
11	Instalaciones de depuración de **aguas** residuales y de tratamiento de agua potable.
12	**Piscifactorías**.
13	**Mataderos**.
14	Los establecimientos destinados a **salas de fiestas, discotecas**, discotecas de juventud, **disco-bares, karaokes, bares especiales, pubs** o similares, así como las plazas de toros permanentes.
15	Otros establecimientos de **espectáculos públicos o actividades recreativas**, siempre y cuando, en todos los casos, cumplan alguno de los **siguientes requisitos**: • Disponer de una capacidad o aforo igual o superior a 300 personas. • Disponer de algún recinto catalogado de riesgo especial alto de acuerdo con la normativa técnica en vigor. • Que se trate de edificios de valor cultural cuyas características arquitectónicas no permitan el pleno cumplimiento de las condiciones técnicas establecidas con carácter general. • Que se trate de establecimientos de régimen especial conforme a la normativa de espectáculos y actividades recreativas.
16	**Centros de culto** con una capacidad o aforo igual o superior a 300 personas.

JARDUERA SAILKATUAREN LIZENTZIA BEHAR DUTEN JARDUERAK ETA INSTALAZIOAK

10/2021 Legea, abenduaren 9koa, Euskadiko Ingurumen Administrazioarena. I.C ERANSKINA

I. eranskin honen A (Ingurumen-baimen bateratua behar duten instalazioak) **eta B** (Ingurumen-baimen bakarra behar duten jarduerak eta instalazioak) **ataletan JASO EZ DIREN** jardueren kasuan, sailkatutako jardueretarako udal-lizentziaren mende egongo dira honako jarduera eta instalazio hauek:

1	**Erauzte**-jarduerak.
2	Instalazio **nuklearrak eta erradioaktiboak**.
3	**Energia elektrikoa** ekoizten duten instalazioak, energia berriztagarria energia elektrikoa bihurtzeko biltze- eta eraldatze-instalazioak barne, potentzia instalatua 100 kW baino handiagoa baldin badute (ez dira sartzen energia fotovoltaikoko instalazioak, baldin eta finkaturik dauden lurzoru urbanizatuetan edo lehendik dauden eraikinetan badaude).
4	**Industriak**, oro har.
5	**Azaleraren tratamenduak**, **pistola bidezko bernizatze- eta pintatze-lanak** edo antzekoak egiten dituzten tailerrak.
6	**Hainbat tailer eta lantegi** (ibilgailu motordunen mantentzea eta konponketa eta antzekoak, aroztegiak, galdaragintza-tailerrak, muntatze-tailerrak, mekanizaziokoak, okindegiak, gozotegiak, cateringak...), baldin eta **instalatutako potentzia totala** (mekanikoa eta elektrikoa, argiarena kenduta) 25 kW-ekoa edo handiagoa bada eta ekoizpenerako **azalera** 300 m^2-tik gorakoa bada
7	**Biltegiratzeko, salerosketarako eta erakusketarako** jarduerak edo instalazioak, **toxiko, arriskutsu edo sukoi** gisa katalogatuta dauden produktuak eta materialak baldin badituzte (500 kg-tik gora, bizitegirako hiri-lurzoruan, edo 1.000 kg-tik gora, gainerako lurzoruetan).
8	Gasolina-zerbitzuguneak eta hornitegiak, eta **erregai likidoak edota gaseosoak banatzeko** instalazioak edo antzeko instalazioa.
9	Edozein motatako lurzoruan kokatutako **erregai likido eta gaseosoak biltzeko** instalazioak, 50.000 litrotik gorako edukiera badute.
10	500.000 m^3 baino gehiagoko edukiera duten **lurrezko eta harrizko betelanak**, betiere lanek urte bat baino gehiago irauten badute, azpiegitura linealetarako obrei lotuta daudenak izan ezik.
11	Hondakin-**urak** arazteko instalazioak eta edateko ura tratatzeko instalazioak.
12	**Arrain-haztegiak**.
13	**Abere-hiltegiak**.
14	**Dantzalekuak, diskotekak**, gazteentzako diskotekak, **disko-barak, karaokeak, bar bereziak, pubak** edo antzeko establezimenduak, baita zezen-plaza egonkorrak ere.
15	**Jendaurreko ikuskizunetarako eta jolas-jardueretarako** beste establezimendu batzuk, baldin eta, betiere, honako **baldintza hauetakoren** bat betetzen badute: • 300 lagun edo gehiagorentzako tokia izatea. • Indarrean dagoen araudi teknikoaren arabera arrisku bereziki altuko gisa katalogatutako instalazioren bat edukitzea. • Kultura-balio handiko eraikinak izatea, beren ezaugarriek izaera orokorrez finkatutako baldintza teknikoak erabat betetzeko aukera ematen ez badute. • Ikuskizunei eta jolas-jarduerei buruzko araudiaren arabera erregimen bereziko establezimenduak izatea.
16	300 lagun edo gehiagorentzako lekua duten **gurtzarako zentroak**.

ACTIVIDADES E INSTALACIONES CLASIFICADAS SOMETIDAS A COMUNICACIÓN PREVIA DE ACTIVIDAD CLASIFICADA

ANEXO I.D de la Ley 10/2021, de 9 de diciembre, de Administración Ambiental de Euskadi

Siempre que se trate de actividades no incluidas en los apartados A, B y C de este Anexo I, se someterán a comunicación previa de actividad clasificada las siguientes actividades e instalaciones:


1	Instalaciones productoras de **energía eléctrica** e instalaciones de captación y transformación de **energía renovable en energía eléctrica** con una potencia instalada superior a 50 kW e inferior o igual a 100 kW. Quedan excluidas las instalaciones de energía fotovoltaica que se sitúen en terrenos urbanizados ya consolidados, o bien sobre edificios preexistentes.
2	**Talleres y obradores varios** (mantenimiento y reparación de vehículos a motor y similares, carpinterías, caldererías, montaje, mecanización, obradores de panadería, pastelería, catering...), salvo los incluidos en los puntos 5 y 6 del Anexo I.C.
3	Actividades o instalaciones de **almacenamiento, comercio y exposición de productos y materiales no incluidas en el punto 7 del anexo anterior**.
4	Instalaciones de **almacenamiento de combustibles líquidos o gaseosos** que no superen los 50.000 litros de capacidad, exceptuadas aquellas que forman parte de una estación de servicio, parque de suministro, instalación distribuidora o instalación análoga.
5	**Guarderías de vehículos** cuya superficie construida supere los 100 m^2.
6	**Actividades de servicios** tales como guarderías infantiles, centros de enseñanza, centros sanitarios y de atención farmacéutica, clínicas veterinarias, comisarías y centros de seguridad, oficinas, peluquerías, salas de masaje y funerarias.
7	**Hoteles, pensiones**, albergues, casas de agroturismo, residencias comunitarias, residencias de personas mayores y establecimientos similares.
8	**Establecimientos de espectáculos públicos o actividades recreativas** que no se encuentren sujetos a licencia de actividad clasificada.
9	**Centros de culto** que no se encuentren sujetos a licencia de actividad clasificada.
10	**Pequeñas explotaciones ganaderas y corrales domésticos** no incluidos en el anexo en el que se prevén las instalaciones y actividades sujetas a licencia municipal de actividad clasificada.
11	**Centros de transformación**.
12	Servicios de **tratamiento y comunicación de la información** (centros de cálculo, bancos de datos, repetidores de radio y televisión, repetidores vía satélite, antenas y estaciones base de telefonía móvil, centros de tratamiento electrónico o informático de la información, estaciones radiotelefónicas y radiotelegráficas, emisoras de radio y televisión y centrales de control de alarmas) y similares.
13	**Instalaciones complementarias**: 1.1. Salas de **calderas**. 1.2. Instalaciones de **aire acondicionado**. 1.3. Instalaciones de **cámaras frigoríficas**. 1.4. Instalaciones de **radiodiagnóstico médico**, entendiendo por tales los equipos e instalaciones de rayos X con fines de diagnóstico médico, de acuerdo con la reglamentación que resulte de aplicación.
14	**Cementerios y tanatorios sin crematorio**.
15	**Rellenos de tierras** y rocas con una capacidad de hasta 500.000 m^3 cuya ejecución se prolongue por un tiempo inferior a un año, excepto aquellos vinculados a obras de infraestructura lineal.
16	**Otras actividades** que puedan tener efectos análogos sobre la salud y el medio ambiente.


JARDUERA SAILKATUAREN AURRETIAZKO JAKINARAZPENA BEHAR DUTEN JARDUERA ETA INSTALAZIO SAILKATUAK


10/2021 Legea, abenduaren 9koa, Euskadiko Ingurumen Administrazioarena. I.D ERANSKINA


I. eranskin honen A, B eta C ataletan jasota ez dauden jarduerak direnean, jarduera sailkatuaren aurretiazko jakinarazpena beharko dute honako jarduera eta instalazio hauek:

1	**Energia elektrikoa** ekoizten duten instalazioak eta **energia berriztagarria energia elektrikoa** bihurtzeko biltze- eta eraldatze-instalazioak, potentzia instalatua 50 kW-ekoa baino handiagoa eta 100 kW-ekoa edo txikiagoa baldin badute. Ez dira sartzen energia fotovoltaikoko instalazioak, baldin eta finkaturik dauden lurzoru urbanizatuetan edo lehendik dauden eraikinetan badaude.
2	**Hainbat tailer eta lantegi** (ibilgailu motordunen eta antzekoen mantentzea eta konponketa, aroztegiak, galdaragintza-tailerrak, muntatze-tailerrak, mekanizaziokoak, okindegiak, gozotegiak, cateringak...), I.C eranskineko 5. eta 6. puntuetan daudenak izan ezik.
3	**Aurreko eranskineko 7. puntuan sartzen ez diren biltegiratze-, salerosketa- eta erakusketa-**jarduerak eta -instalazioak.
4	**Erregai likidoak edo gaseosoak biltzeko** instalazioak, 50.000 litroko edukia gainditzen ez badute; sailkapen honetatik kanpo geratzen dira gasolindegi batean, hornitegi-parke batean, banatze-instalazio batean edo horren pareko instalazio batean daudenak.
5	100 m^2-tik gorako azalera eraikia duten **ibilgailuak zaintzeko lekuak**.
6	Zenbait **zerbitzu-jarduera**: adibidez, haurtzaindegiak, ikastetxeak, osasun- eta botika-zentroak, albaitaritza-klinikak, polizia-etxeak eta segurtasun-zentroak, bulegoak, ile-apaindegiak, masaje-etxeak eta hiltegi-zerbitzuak.
7	**Hotelak, pentsioak**, aterpetxeak, landa-turismoko etxeak, egoitza komunitarioak, adinduen egoitzak eta antzeko establezimenduak.
8	Jarduera sailkatuaren lizentziaren mende ez dauden **jendaurreko ikuskizunak edo jolas-jarduerak eskaintzen dituzten establezimenduak**.
9	Jarduketa sailkatuaren lizentziarik behar ez duten **gurtzarako zentroak**.
10	Jarduera sailkatuen udal-lizentzia behar ez duten instalazioak eta jarduerak aurreikusten dituen eranskinean ez dauden **abeltzaintza-ustiategi txikiak eta etxeko eskortak**.
11	**Eraldaketa-zentroak**.
12	**Informazioa tratatzeko eta komunikatzeko** zentroak (kalkulu-zentroak, datu-bankuak, irrati- eta telebista-hedagailuak, satelite bidezko hedagailuak, telefonia mugikorreko antenak eta oinarri-estazioak, informazioaren tratamendu elektroniko edo informatikorako zentroak, estazio irratitelefonikoak eta estazio irratitelegrafikoak, irrati- eta telebista- instalazioak eta alarmak kontrolatzeko zentralak) eta antzekoak.
13	**Instalazio osagarriak**: 1.1. **Galdara**-gelak. 1.2. **Airea girotzeko** instalazioak. 1.3. **Hotz-ganberen** instalazioak. 1.4. **Erradio-diagnosi medikoa** egiteko instalazioak; alegia, aplikatzekoa den erregelamenduaren arabera, diagnosi medikoak egiteko helburua daukaten X izpien ekipamenduak eta instalazioak.
14	**Errauste-laberik gabeko hilerriak eta beilatokiak**.
15	**Lurrezko eta harrizko betelanak**, 500.000 m^3 arteko edukiera dutenak, betiere lanek urte bat baino gutxiago irauten badute, azpiegitura linealeko obrei lotuta daudenak izan ezik.
16	Osasunean eta ingurumenean antzeko eragina izan dezaketen **bestelako jarduerak**.


SOLICITUD
REGISTRO GENERAL
SERVICIO MUNICIPAL QUE CORRESPONDA
INFORME URBANÍSTICO
INFORME FAVORABLE
INFORME DESFAVORABLE
DENEGACIÓN
• INFORMACIÓN PÚBLICA Y PUBLICAR EN SEDE ELECTRÓNICA MPAL.
• INFORMES TÉCNICOS
INFORME/S FAVORABLE/S
IMPOSICIÓN MEDIDAS CORRECTORAS
• Para municipios < 10.000 habitantes: DIPUTACIÓN FORAL
• Para municipios ≥ 10.000 habitantes: el propio AYUNTAMIENTO; o puede solicitar a DIPUTACIÓN FORAL
INFORME FAVORABLE
INFORME DESFAVORABLE
LICENCIA DE ACTIVIDAD CLASIFICADA
DENEGACIÓN
LICENCIA DE OBRAS O COMUNICACIÓN DE OBRAS
LIQUIDACIÓN DE TASAS
COMUNICACIÓN PREVIA = INICIO ACTIVIDAD
LIQUIDACIÓN DE TASAS
INSPECCIÓN
SI DESFAVORABLE:
EJERCICIO POTESTAD DISCIPLINARIA


ESKAERA
ERREGISTRO OROKORRA
DAGOKION UDAL ZERBITZUA
HIRIGINTZA-TXOSTENA
ALDEKO TXOSTENA
AURKAKO TXOSTENA
UKATZEA
• JENDAURREAN JARRI ETA UDALAREN EGOITZA ELEKTRONIKOAN ARGITARATU.
• TXOSTEN TEKNIKOAK
ALDEKO TXOSTENA(K)
IMPOSICIÓN MEDIDAS CORRECTORAS
• 10.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietarako: FORU-ALDUNDIAK
• 10.000 biztanle edo gehiago dituzten udalerrietarako: UDALEN eurek, edo FORU-ALDUNDIARI eskatu
ALDEKO TXOSTENA
AURKAKO TXOSTENA
JARDUERA SAILKATUAREN LIZENTZIA
UKATZEA
OBRA-LIZENTZIA EDO OBREN JAKINARAZPENA
TASA-KITAPENA
AURRETIAZKO JAKINARAZPENA = JARDUERA HASTEA
TASA-KITAPENA
IKUSKAPENA
AURKAKOA BADA: DISZIPLINA-AHALA ERABILTZEA


PRESENTACIÓN DE LA COMUNICACIÓN PREVIA DE ACTIVIDAD CLASIFICADA
REGISTRO GENERAL
SERVICIO MUNICIPAL QUE CORRESPONDA
INSPECCIÓN:
control sobre: documentación y actividad
LIQUIDACIÓN DE TASAS SEGÚN ORDENANZAS MUNICIPALES
SI COMPROBACIÓN DESFAVORABLE:
EJERCICIO POTESTAD DISCIPLINARIA
• Si el incumplimiento fuera insubsanable o no se subsana tras requerimiento: declaración de ineficacia de la CPA.
• Si el incumplimiento fuera subsanable: requerir antes de declarar ineficacia.


JARDUERA SAILKATUAREN AURRETIAZKO JAKINARAZPENA AURKEZTEA
ERREGISTRO OROKORRA
DAGOKION UDAL ZERBITZUA
IKUSKAPENA:
dokumentazioaren eta jardueraren kontrola
TASA-KITAPENA, UDAL ORDENANTZEN ARABERA
EGIAZTAPENA AURKAKOA BADA:
DIZIPLINA-AHALA ERABILTZEA
• Zuzendu ezin bada edo eskaera egin ostean zuzentzen ez bada: jardueraren aurretiazko jakinarazpenaren eragingarritasunik eza deklaratuko da.
• Zuzendu badaiteke: eskaera egin eragingarritasunik eza declaratu aurretik.

CONCEPTO Y FINES	Conjunto de **bienes inmuebles**, **derechos reales** sobre los mismos, **derechos urbanísticos** o **dinero**, que constituyen un patrimonio separado, cuya finalidad es la **intervención en el mercado inmobiliario o del suelo**, es decir, regular los mercados de suelo y de vivienda, y facilitar el desarrollo territorial y urbanístico mediante la obtención de suelo para actuaciones de iniciativa pública y, en particular, para la construcción de viviendas sometidas a algún régimen de protección pública.
ADMINISTRACIONES TITULARES	**PATRIMONIO MUNICIPAL DE SUELO (PMS)**: Todos los **ayuntamientos están legalmente obligados** a constituir, mantener y gestionar el patrimonio público de suelo. Las normas sustantivas son de obligado cumplimiento, incluso aunque no se haya constituido. Otros patrimonios públicos de suelo: La Ley de Vivienda creó el de la Comunidad Autónoma del País Vasco. En el caso de los órganos forales de los territorios históricos es potestativo. El patrimonio público de suelo de cada administración pública integra un patrimonio **independiente y separado** del resto de su patrimonio, afecto al cumplimiento de los fines establecidos.
REGISTRO DE EXPLOTACIÓN	Las administraciones titulares de patrimonios públicos de suelo deben llevar un registro de explotación que comprenderá un **inventario de los bienes y recursos** integrantes de los mismos y las **operaciones de administración y disposición** relativas a dichos bienes y recursos, con indicación del destino final de los mismos. Dicho registro de explotación estará sujeto a la **fiscalización del Tribunal de Cuentas del País Vasco.**
COMPOSICIÓN DEL PMS	Forman parte de los **patrimonios municipales de suelo** los siguientes **bienes**, sean de titularidad **municipal**, de **sociedades públicas** municipales u **organismos públicos** locales: a) Los **bienes patrimoniales** municipales clasificados como **suelo urbano o urbanizable**, excepto aquellos cuyo título de adquisición los vincule a un fin distinto o incompatible con los del PMS. b) Los terrenos y derechos obtenidos en la **ejecución del planeamiento urbanístico** y por **cesión obligatoria y gratuita**, tanto para dotaciones como por cesión de edificabilidad**.** c) Los terrenos **adquiridos** para **constituir**, mantener o incrementar el **PMS**. d) Los **terrenos** adquiridos mediante **expropiación** y **no afectados** al uso o servicio público. Téngase en cuenta que el cambio de calificación de terrenos expropiados para la construcción de VPP o para actividades económicas de fomento o interés público se entenderá como calificación de uso dotacional a los efectos de la eventual reversión. e) Terrenos adquiridos por **permuta con otros bienes del PMS**. f) Bienes adquiridos mediante el ejercicio de los **derechos de tanteo y retracto**. g) **Viviendas públicas de titularidad municipal.** También forman parte del PMS los recursos que se señalan más adelante (la cantidad consignada en los presupuestos, los ingresos por monetización de la cesión de edificabilidad…).
DESTINO DEL PATRIMONIO MUNICIPAL DE SUELO	• **Preferente**: los bienes no destinados a dotaciones públicas y los recursos integrantes de los patrimonios públicos de suelo, se destinarán preferentemente a la **construcción de viviendas** sometidas a algún régimen de **protección pública** (incluyendo los alojamientos dotacionales) y al costeamiento de obras de urbanización en ámbitos residenciales con viviendas de protección pública. Comprende la adquisición de suelo, incluso urbanizado, destinado a VPP y la adquisición de VPP ya construidas para su destino a alquiler. • Adquisición de bienes y derechos en **áreas de reserva municipal de suelo y en áreas sometidas a los derechos de tanteo y retracto.** • Rehabilitación o construcción de **dotaciones públicas y sistemas generales en zonas degradadas**. • Adquisición y promoción pública de suelo para **actividades económicas de fomento o interés público**. • Rehabilitación del **patrimonio histórico y cultural.** • Construcción, rehabilitación o mejora de **equipamientos colectivos municipales**. **Excepcionalmente**, el PMS podrá destinarse a **reducir la deuda comercial y financiera del Ayuntamiento**, siempre que se cumplan una serie de **requisitos**. El importe del que se disponga deberá ser repuesto en las condiciones fijadas en el acuerdo de disposición, en un plazo máximo de diez años.
MEDIDAS FINANCIERAS	Se prevén ayudas financieras —financiación cualificada y ayudas económicas directas— para la adquisición de patrimonio público de suelo.
ADQUISICIÓN EN LA REPARCELACIÓN	Las **administraciones públicas competentes** —y sus entidades y organismos dependientes o adscritos—, respecto de los suelos calificados en el planeamiento para la construcción de VPP o para la implantación de actividades económicas de fomento o interés público, **podrán**, a su elección, **participar en la reparcelación** aportando a favor de la comunidad reparcelatoria constituida una compensación económica a cuenta de los costes de la futura urbanización, al objeto de obtener participación en la edificabilidad urbanística.
PONDERACIÓN DE VALOR	Las calificaciones de suelo para la construcción de VPP (en venta y alquiler) o para la implantación de actividades económicas de fomento o interés público, se tendrán en cuenta en la determinación ponderada de la edificabilidad urbanística a efectos de la valoración del suelo.

KONTZEPTUA ETA HELBURUAK	Ondare bereizia osatzen duten ondasun higiezinak, horien gaineko eskubide errealak, hirigintza-eskubideak edo dirua, helburu gisa higiezinen edo lurzoruaren merkatuan esku-hartzea dutenak, alegia, lurzoruaren eta etxebizitzaren merkatua arautzea, eta hirigintza- eta lurralde-arloko garapena bultzatzea —eta horretarako lurzorua lortu behar dute, bai ekimen publikoko jardueretarako, bai babes publikoko araubideren bati atxikitako etxebizitzetarako ere, berezi-bereziki—.
ADMINISTRAZIO TITULARRAK	**UDALAREN LURZORU-ONDAREA: Udal guztiak behartuta daude legez** lurzoru-ondare publikoak eratu, mantendu eta kudeatzera. Arau substantiboak nahitaez bete behar dira, baita eratu ez badira ere. Beste lurzoru-ondare publiko batzuk: Etxebizitzaren Legeak Euskal Autonomia Erkidegokoa sortu zuen. Lurralde historikoetako foru-organoei dagokienez, aukerakoa da. Administrazio publiko bakoitzaren lurzoruaren ondare publikoak bere gainerako ondarearekiko **independentea den eta bereizita** dagoen ondarea osatzen du, eta ezarritako helburuak betetzeari lotuta dago.
USTIAPEN-ERREGISTROA	Lurzoruaren ondare publikoaren titularrak diren administrazioek hori osatzen duten **ondasun eta baliabideen** eta ondasun eta baliabide horiei dagozkien **administrazio- eta erabilera-eragiketen** ustiapen-erregistroa egingo dute, eta haien azken-erabilera adieraziko. Ustiapen-erregistroa **Kontuen Euskal Epaitegiaren fiskalizaziopean** egongo da.
UDALAREN LURZORU-ONDAREAREN OSAERA	**Udalaren lurzoru-ondarea**ren parte izango dira honako **ondasun hauek**, kontuan hartu gabe **udalaren**, **udal-sozietate publiko**en edo **toki-erakunde publiko**en titulartasunaren mendekoak diren: a) **Hiri-lurzoru edo lurzoru urbanizagarri** gisa sailkatutako **udal-ondareko ondasunak**, udalaren lurzoru-ondarearena ez den helburu bati edo horrekin bateragarria ez den helburu bati atxikitakoak salbu. b) **Hirigintza-plangintza gauzatzean**, **doako eta nahitaezko lagapen bidez** eskuratutako lurrak eta eskubideak, bai dotazioetarako, bai eraikigarritasuna lagatzeagatik. c) Udalaren lurzoru-ondarea **osatzeko**, mantentzeko eta handitzeko **eskuratutako lurrak**. d) **Desjabetze bidez lortutako lurrak**, erabilera edo zerbitzu publikora atxikita ez daudenak. Desjabetutako lursail baten kalifikazioa babes publikoko etxebizitzak (BPE) egiteko edo sustapen edo interes publikoko ekonomia-jarduerak egiteko aldatzen bada, kalifikazioa zuzkidura-erabilerakoa dela ulertuko da, itzultzeko eskatzen bada. e) **Udalaren lurzoru-ondareko beste ondasun batzuen truke** lortutako lurrak. f) **Lehentasunez erosteko eskubidea eta atzera eskuratzeko eskubidea** erabiliz lortutako ondasunak. g) **Udal-titulartasuneko etxebizitza publikoak.** Era berean, Lurzoru Ondare Publikoaren parte dira aurrerago adieraziko diren baliabideak (aurrekontuetan esleitutako zenbatekoa, eraikigarritasun-lagapenaren monetizazioaren ondoriozko diru-sarrerak...).
UDALAREN LURZORU-ONDAREAREN XEDEA	• **Lehentasunezko** xedea: diru-zuzkidura publikoetarako ez diren ondasunak eta lurzoru-ondare publikoa osatzen duten baliabideak **babes publikoko** araubideren baten mende egongo diren **etxebizitzak eraikitzeko** erabiliko dira (zuzkidura-bizitokiak ere bai), eta baita hirigintza-obrak ordaintzeko ere, babes publikoko etxebizitzak dituzten bizitegi-guneetan. BPEak egiteko lurrak, baita urbanizatuak ere, eskuratzea esan nahi du, eta baita eraikita dauden BPEak eskuratzea ere, alokatzeko. • **Udalaren lurzoru-erreserbako eremuetan eta lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubideen mendeko eremuetan** ondasunak eta eskubideak eskuratzea. • **Degradatutako eremuetan zuzkidura publikoak eta sistema orokorrak** birgaitzeko edo eraikitzeko obrak egitea. • Lurzorua erostea eta sustapen publikoa egitea, **sustapen edo interes publikoko ekonomia-jardueretarako**. • **Historia- eta kultura-ondarea** birgaitzea. • **Udal-ekipamendu kolektiboak** eraikitzea, birgaitzea edo hobetzea. **Salbuespen gisa**, lurzoru-ondare publikoa **udalaren merkataritza- eta finantza-zorra murrizteko** erabil daiteke, baldin eta **baldintza** jakin batzuk betetzen badira. Erabiliko den zenbatekoa erabiltzeakordioan ezarritako baldintzetan itzuli beharko da, gehienez ere hamar urteko epean.
FINANTZA-NEURRIAK	Finantza-laguntzak aurreikusten dira —finantzaketa kualifikatua eta zuzeneko dirulaguntzak— lurzoru-ondare publikoa eskuratzeko.
BIRPARTZELAZIOAN PARTE HARTZEA	**Eskumena duten administrazio publikoek** —eta horien mendeko edo horiei atxikitako entitate eta erakundeek—, plangintzan babes publikoko etxebizitzak egiteko edo sustapen edo interes publikoko ekonomia-jarduerak egiteko kalifikatutako lurzoruei dagokienez, **parte hartu ahal izango dute birpartzelazioan**. Horretarako, egin beharreko urbanizazio-lanen kostuak direla eta, konpentsazio ekonomiko bat ordainduko diote eratutako birpartzelazio-komunitateari, hirigintza-eraikigarritasunean parte hartu ahal izateko.
BALIOA HAZTATZEA	Babes publikoko etxebizitzak eraiki (saldu edo alokatzeko) edo sustapen edo interes publikoko ekonomia-jarduerak ezartzea helburu duten lurren kalifikazioak kontuan hartuko dira hirigintza-eraikigarritasunaren zehaztapen haztatuan, lurzoruaren balorazioa egiteko orduan.

RECURSOS		Los recursos afectos a los correspondientes patrimonios municipales de suelo son: • La **cantidad consignada en los presupuestos** para el cumplimiento de esta finalidad. • Los **ingresos** derivados de la administración de los bienes. • Las cantidades abonadas en **sustitución de la cesión de suelo**. La monetización de esta cesión obligatoria de edificabilidad puede producirse en las actuaciones de dotación, cuando no sea posible la adjudicación de parcelas de VPP o no dé lugar al pleno dominio por la Administración Local de, al menos, un solar o parcela edificable. • Las cantidades ingresadas en concepto de **multas** procedentes de la potestad sancionadora prevista en la **Ley de Suelo y Urbanismo**. • **Créditos que tengan como garantía hipotecaria los bienes del patrimonio municipal de suelo**.
DOTACIÓN PRESUPUESTARIA		Es la **consignación presupuestaria** con destino al patrimonio municipal de suelo. La cantidad consignada por los ayuntamientos **no podrá ser inferior al 10%** de la suma total de los capítulos I y II de ingresos del presupuesto municipal. Se permite el cumplimiento del promedio del 10% anual señalado en el apartado anterior en **periodos cuatrienales**. Esta **obligación de dotación del presupuesto** es de aplicación para los **municipios de más de 3.000** habitantes y para aquellos que cuenten con **núcleos de suelo urbano con población superior a 2.000** habitantes.
INFRACCIONES EN MATERIA DE PMS		Se prevén **sanciones** importantes para los **miembros de las Corporaciones Locales**, los funcionarios y las autoridades con competencia en materia de patrimonios públicos de suelo que incumplan las determinaciones legales en esta materia, así como el **reintegro del menoscabo ocasionado**.
ENAJENACIÓN	**NORMA GENERAL:** **A título oneroso mediante concurso**	Los bienes del PMS pueden **enajenarse libremente por concurso o permuta,** debiendo incorporarse al **PMS** los **ingresos** o bienes recibidos. Como excepción se prohíbe la enajenación onerosa de los bienes y derechos calificados como dotacionales.
	ENAJENACIÓN DIRECTA: **Sin concurso**	a) **Convenio** entre **administraciones** públicas o sus entes instrumentales. b) Entidades de **carácter asistencial** o social sin ánimo de lucro (fundaciones, mutualidades, cooperativas…). c) En el caso de viviendas de titularidad pública: cuando los peticionarios sean sus **ocupantes legales**. d) Cuando el concurso quede **desierto**: en el plazo de un año y con arreglo al mismo pliego de condiciones. e) Construcción de VPP promovidas por organismos públicos o sus entes instrumentales: cuando esta actividad constituya su objeto específico. f) Construcción de **edificios públicos** destinados a organismos **oficiales** en suelos dotacionales. g) Construcción de **edificios** de servicio y titularidad públicos que requieran un **determinado emplazamiento** y así estuvieran calificados por la ordenación urbanística.
	ENAJENACIÓN GRATUITA O POR DEBAJO DE SU VALOR	a) Que el **cesionario sea una administración pública** —o ente instrumental— y el **destino** uno de los previstos para el **PMS**. b) Que el peticionario sea una **entidad privada de interés público** y sin ánimo de lucro, y el destino la construcción de **VPP o equipamientos de interés social** y uso común o general. c) Que el **cesionario sea ocupante legal** de la vivienda afectada por acuerdo de **realojo**.
	LÍMITE DE VALOR	Los terrenos obtenidos por una Administración, en virtud de la cesión de edificabilidad, que estén destinados a la construcción de viviendas de protección pública que permita tasar su precio máximo de venta, alquiler u otras formas de acceso a la vivienda, no podrán ser adjudicados, ni en dicha transmisión ni en las sucesivas, por un **precio superior al valor máximo de repercusión del suelo sobre el tipo de vivienda** de que se trate, conforme a su legislación reguladora. Las **limitaciones, obligaciones, plazos o condiciones de destino** de las fincas del PMS que se hagan constar en las enajenaciones, son inscribibles en el Registro de la Propiedad.

Legislación: Texto Refundido de la Ley de Suelo y Rehabilitación Urbana (TRLSR), arts. 18.1.b, 39, 47, 51 a 52 y D.F. 2
Ley 2/2006 de Suelo y Urbanismo País Vasco (LSU), arts. 4, 16, 25, 26, 27, 48, 50, 53, 111 a 130, 176, 177, 183 y D.A. 10
Ley 3/2015 de Vivienda (LvV), arts. 14 a 18 y D.A. 4 (en lo referido al PMS de la CAPV) y 19 (en cuanto a la calificación de los alojamientos dotacionales como parque residencial protegido)
Decreto 105/2008, de 3 de junio, de medidas urgentes en desarrollo de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo (DMU), arts. 37 a 39 y D.T. 5

<table>
<tr><td colspan="2">BALIABIDEAK</td><td>Udalaren lurzoru-ondareak baliabide hauek ditu atxikita:
Helburu hori lortzeko aurrekontuan emandako diru-kopurua.
Ondasunen administraziotik jasotako diru-sarrerak.
Lurzorua lagatzearen truke jasotako kopuruak. Eraikigarritasunaren nahitaezko lagapen horren monetizazioa zuzkidura-jarduketetan gerta daiteke, BPEko partzelak esleitzea ezinezkoa denean edo Toki Administrazioak gutxienez orube edo partzela eraikigarri baten jabari osoa sortzen ez duenean.
Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legean aurreikusitako zigor-eskumena duenak ezarritako isunetan jasotako diru-kopurua.
Hipoteka-berme gisa udalaren lurzoru-ondareko ondasunak dituzten kredituak.</td></tr>
<tr><td colspan="2">AURREKONTU-ZUZKIDURA</td><td>Udalaren lurzoru-ondarerako aurrekontuko diru-kopurua da.

Udalek beren udal-aurrekontuetatik bideratzen duten diru-kopurua ezin izango da diru-sarreren I. eta II. kapituluen batura osoaren % 10 baino txikiagoa izan.

Goian aipatutako % 10eko urteko batez bestekoa lau urteko alditan bete ahal izango da.

Aurrekontu-zuzkiduraren betebehar hori 3.000 biztanletik gorako udalerriei eta 2.000 biztanle baino gehiagoko hiri-lurzoruko nukleoak dituzten udalerriei aplikatu behar zaie.</td></tr>
<tr><td colspan="2">UDALAREN LURZORU-ONDAREAREN ARLOKO ARAU-HAUSTEAK</td><td>Zehapen gogorrak daude aurreikusita lurzoru-ondare publikoen arloan eskumena duten toki-korporazioetako kide, funtzionario eta agintarientzat, arlo honetako lege-zehaztapenak betetzen ez badituzte; eragindako kaltea itzultzea ere aurreikusita dago.</td></tr>
<tr><td rowspan="3">BESTERENTZEA</td><td>ARAU OROKORRA:

Kostu bidezko lehiaketa bidez</td><td>ULOko ondasunak askatasunez besterendu daitezke lehiaketa edo truke bidez, eta jasotako diru-sarrerak edo ondasunak ULOn sartu behar dira. Debekatuta dago zuzkidurarako gisa sailkatutako ondasunak eta eskubideak diruaren truke besterentzea.</td></tr>
<tr><td>ZUZENEAN BESTERANTZEA:

Lehiaketarik gabe</td><td>a) Administrazio publikoen edo horien tresna-erakundeen arteko hitzarmena egiten denean.
b) Irabazi-asmorik gabeko laguntza- edo gizarte-izaerako erakundeak direnean (fundazioak, mutualitateak, kooperatibak…).
c) Titulartasun publikoko etxebizitzak badira: eskaera legezko okupatzaileek egiten dutenean.
d) Lehiaketa hutsik geratzen baldin bada: besterentzea, gehienez ere, urtebeteko epean egingo da, baldintzen plegu berari jarraituta.
e) Erakunde publikoek edo horien tresna-erakundeek sustatutako babes publikoko etxebizitzak eraikitzen direnean, jarduera hori haien berariazko helburua bada.
f) Erakunde ofizialentzat zuzkidura-lurzoruetan eraikin publikoak egiten direnean.
g) Jabetza publikoko zerbitzu publikorako eraikinak egiten direnean, baldin eta toki jakin bat behar badute eta hirigintzako antolamenduak horrelakotzat kalifikatu baditu.</td></tr>
<tr><td>DOAN EDO BERE BALIOAREN AZPITIK BESTERENTZEA</td><td>a) Lagapen-hartzailea administrazio publikoa —edo tresna-erakundea— baldin bada, eta xedea udalaren lurzoru-ondarearentzat aurreikusitako bat denean.
b) Eskatzailea interes publikoko eta irabazi asmorik gabeko erakunde pribatu bat denean, eta lurzoruen xedea babes publikoko etxebizitzak egitea edo gizarte-intereseko edo denek erabiltzeko ekipamenduak eraikitzea denean.
c) Lagapen-hartzailea beste bizileku baterako akordioak eragindako etxebizitzako legezko okupatzailea denean.</td></tr>
<tr><td colspan="2">BALIOAREN MUGA</td><td>Eraikigarritasunaren lagapenaren bidez administrazio batek eskuratutako lurrak, babes publikoko etxebizitzak eraikitzeko badira, eta salmenta, alokairu edo etxebizitzara iristeko beste edozein modutan gehieneko prezioa tasatzea ahalbidetzen bada, ezin esleituko dira, ez eskualdatze horretan ez hurrengoetan, lurzoruak etxebizitza mota horren gainean duen gehieneko eragin-balioa baino prezio handiagoan, legeria arautzailearen arabera.

Besterentzeetan jasotzen diren udalaren lurzoru-ondareko finken mugak, betebeharrak, epeak edo helburu-baldintzak Jabetza Erregistroan inskriba daitezke.</td></tr>
</table>

Legeria:

Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testu bategina (LHBLTB), 18.1.b, 39., 47., 51. eta 52. artikuluak eta azken xedapenetako 2.a.
2/2006 Legea, Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa (LHL), 4., 16., 25., 26., 27., 48., 50., 53., 111. etik 130.era artekoak, 176., 177. eta 183. artikuluak, eta 10. xedapen gehigarria
3/2015 Legea, Etxebizitzarena (EL), 14.etik 18.era arteko artikuluak, eta 4. Xedapen gehigarria (EAEko udalen lurzoru-ondareari dagokionez), eta 19. artikulua (zuzkidura-bizitokiak babestutako egoitza-parketzat hartzeari dagokionez)
105/2008 Dekretua, ekainaren 3koa, Lurzoruari eta hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea garatzen duten premiazko neurriei buruzkoa, 37.etik 39.era arteko artikuluak, eta 5. xedapen iragankorra

RESERVAS DE SUELO	
RESERVAS MUNICIPALES DE SUELO	Los **Ayuntamientos podrán delimitar**, en suelo no urbanizable no sujeto a especial protección y en suelo urbanizable no sectorizado, reservas municipales de suelo para su adquisición, en el plazo máximo de ocho años, con destino al patrimonio municipal de suelo**.** Las reservas se delimitan en el Plan General o, en defecto de previsión o por agotamiento, mediante acuerdo específico. Las reservas **se destinarán** preferentemente a la construcción de VPP o de edificaciones e instalaciones industriales o terciarias, de fomento o interés público, así como a otros usos públicos o de interés social. **También pueden delimitarse** reservas en suelo no urbanizable de especial protección para la obtención de la propiedad pública y, en su caso, la explotación o utilización adecuada del mismo. **Efectos de la delimitación:** a) La sujeción de los terrenos, construcciones, edificaciones e instalaciones en ella comprendidos a los derechos municipales de tanteo y retracto. b) La declaración de la utilidad pública a efectos de su expropiación forzosa.
RESERVAS DE OTRAS ADMINISTRACIONES	La **Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco** (ver LvV) y los **órganos forales de los Territorios Históricos** también pueden establecer reservas de suelo en suelo no urbanizable y urbanizable no sectorizado para la constitución o ampliación de sus patrimonios públicos de suelo, en las mismas condiciones y con los mismos efectos previstos para las reservas municipales de suelo, si bien, con algunas especialidades, como el plazo de adquisición, que para estas administraciones no puede exceder de cuatro años desde la adopción del acuerdo de delimitación.

OTROS DERECHOS		
DERECHOS DE TANTEO Y RETRACTO	**CONTENIDO**	Están **sujetas al derecho de tanteo y, en su caso, de retracto** por el Ayuntamiento y demás administraciones competentes, las transmisiones onerosas de los siguientes bienes inmuebles —terrenos, edificaciones o viviendas—: • Los comprendidos en cualquier ámbito declarado fuera de ordenación por la ordenación urbanística o territorial, cuando así lo establezca expresamente el planeamiento. • Los comprendidos en las reservas de suelo delimitadas. • Los comprendidos en ámbitos sujetos a actuaciones de rehabilitación, cuando así lo establezcan los planes. • Los comprendidos en ámbitos delimitados a los efectos de garantizar el cumplimiento de los objetivos de la ordenación urbanística, incrementar el patrimonio municipal de suelo, o intervenir en el mercado inmobiliario. • Las viviendas de protección pública.
	DURACIÓN	El **plazo máximo** de sujeción de las transmisiones de los citados bienes al ejercicio de los derechos de tanteo y retracto será de **ocho años**, salvo las VPP, en que el tanteo y retracto están vinculados a la calificación que, normalmente, es de duración indefinida («*permanente*»).
DERECHO DE SUPERFICIE	**CONCEPTO**	El derecho real de superficie **atribuye al superficiario la facultad** de realizar construcciones o edificaciones en la rasante y en el vuelo y el subsuelo de una finca ajena —también sobre construcciones y edificaciones—, manteniendo la propiedad temporal de las construcciones y edificaciones realizadas. Los **planes de ordenación estructural** podrán establecer que la dotación residencial protegida sea en régimen de derecho de superficie y que el derecho superficiante sea de cesión obligatoria y gratuita a favor del Ayuntamiento.
	PLAZO	La duración del derecho de superficie **no podrá exceder de 99 años,** sin perjuicio de su carácter reconstituible. **Una vez extinguido**, el propietario del suelo hará suya la propiedad de lo edificado sin que deba satisfacer compensación alguna. El derecho de superficie se extinguirá también **si no se edifica** en el plazo establecido.
	FORMALIZACIÓN	Para su válida constitución se requiere su **formalización en escritura pública**, en la que se recogerán las condiciones del derecho, y su inscripción en el Registro de la Propiedad.
	CONTRAPRESTACIÓN	Cuando se constituya a título oneroso, la contraprestación del superficiario podrá consistir en el pago de una suma alzada o de un canon periódico, o en la adjudicación o arrendamiento de viviendas o locales…

Legislación: Texto Refundido de la Ley de Suelo y Rehabilitación Urbana (TRLSR), arts. 18, 53 a 54
Ley 2/2006 de Suelo y Urbanismo País Vasco (LSU), arts. 50, 53 a 54, 113 a 130, 177 y D.A. 8
Ley 3/2015 de Vivienda (LvV), arts. 65 a 69 (en lo referido a las VPP)

LURZORU-ERRESERBAK	
UDALEN LURZORU-ERRESERBAK	Babes berezirik gabeko lurzoru urbanizaezinean eta lurzoru urbanizagarri sektorizatugabean, **udalek lurzoru-erreserbak mugatu** ahal izango dituzte, gehienez ere zortzi urteko epean erosteko, eta horrekin udalaren lurzoru-ondarea eratzeko. Erreserbak Plan Orokorrean mugatzen dira, edo, aurreikusi ezean edo agortuz gero, akordio espezifiko baten bidez. Erreserbak batez ere babes publikoko etxebizitzak, edo sustapen edo interes publikoko instalazio industrialak edo tertziarioak eraikitzeko erabiliko dira, baita publikoak edo gizarte-interesekoak diren beste erabilera batzuetarako ere. Babes berezia duen lurzoru urbanizaezinean ere erreserbak **muga daitezke**, jabetza publikoa lortzeko, eta hala badagokio, horiek egoki ustiatzeko edo erabiltzeko. **Mugaketaren ondorioak:** a) Mugaketaren barruko lurrak, eraikinak, eraikuntzak eta instalazioak udalek lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubideen mende egotea. b) Onura publikoko gisa izendatzea, nahitaezko desjabetzeari ekin ahal izateko.
BESTE ADMINISTRAZIO BATZUEN ERRESERBAK	**Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak (ikusi Etxebizitzaren Legea) eta Lurralde Historikoetako foru-organoek** ere lurzoru-erreserbak mugatu ahal dituzte, lurzoru urbanizaezinean nahiz sektorizatu gabeko urbanizagarrian, beren lurzoru-ondare publikoak eratzeko edo handitzeko, udalen lurzoru-erreserbetarako aurreikusitako baldintza beretan eta ondorio berberekin, baina berezitasun batzuekin: adibidez, administrazio horiek mugaketa-akordioa egiten denetik gehienez lau urteko epea daukate lurrak eskuratzeko.

BESTE ZENBAIT ESKUBIDE		
LEHENTASUNEZ EROSTEKO ESKUBIDEA ETA ATZERA ESKURATZEKO ESKUBIDEA	**EDUKIA**	Udalek eta eskumena duten beste administrazioek **lehentasunez erosteko eta, hala badagokio, atzera eskuratzeko eskubidea**ri lotuta egongo dira ondoren zerrendatutako ondasun higiezinen —lur, eraikin edo etxebizitzen— kostu bidezko eskualdatzeak. Hona hemen ondasun horiek: • Hirigintza- edo lurralde-antolamenduak antolamenduz kanpokotzat jotako, eta plangintzan berariaz horrela jasotako, edozein eremutan daudenak. • Mugatutako lurzoru-erreserbetan daudenak. • Birgaitzeko jarduerei lotutako eremuetan daudenak, planetan jarduera horiek jasota daudenean. • Hirigintza-antolamenduaren helburuak betetzen direla bermatzeko, udalaren lurzoru-ondarea handitzeko, edo hirigintza-merkatuan esku hartzeko helburuarekin mugatutako eremuetan daudenak. • Babes publikoko etxebizitzak.
	IRAUPENA	Ondasun horien eskualdaketak lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubideen mende jartzeko gehieneko epea **zortzi urtekoa** izango da, BPEn kasuan izan ezik, horietan lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubidea kalifikazioari lotuta baitaude, eta kalifikazio hori, normalean, iraupen mugagabekoa izaten da (*«iraunkorra»*).
AZALERA-ESKUBIDEA	**KONTZEPTUA**	Azaleraren gaineko eskubide errealak **ahalmena ematen dio azalera-eskubidedunari** eraikuntzak egiteko berea ez den finka baten sestran, hegalean eta lurpean, —ahalmena eraikuntzen gainekoa ere bada—, egindako eraikuntzen jabetzari aldi baterako eusten diolarik. **Egiturazko antolamenduko planek** ezarri ahalko dute bizitegi-zuzkidura babestua azalera-eskubideko erregimenekoa izan behar dela eta azaleraren eskubide-emailearen eskubidea udalari nahitaez eta doan laga behar zaiola.
	EPEA	Azalera-eskubideak **ezin izango du 99 urte baino gehiago iraun**, nahiz eta berreratu egin daitekeen. Behin **epea iraungita**, lurzoruaren jabeak beretzat hartuko du eraikitakoaren jabetza, eta ez du inolako kalte-ordainik eman behar izango. Era berean, ezarritako epean **eraikitzen ez bada**, azalera-eskubidea iraungi egingo da.
	FORMALIZATZEA	Azalera-eskubidea legez eratzeko, **eskritura publikoan formalizatu behar da**, bertan eskubidearen baldintzak jasoko direlarik, eta Jabetza Erregistroan inskribatu.
	KONTRAPRESTAZIOA	Azalera-eskubidea kostu bidez eratzen bada, azalera-eskubidedunaren kontraprestazioa hauetako bat izan daiteke: oroharreko zenbateko bat edo aldizkako kanon bat ordaintzea, edo etxebizitzak edo lokalak esleitzea edo alokatzea…

Legeria: Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testu bategina (LHBLTB), 18., 53. eta 54. artikuluak
2/2006 Legea, Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa (LHL), 50., 53., 54., 113.etik 130.era arteko eta 177. artikuluak, eta 8. xedapen gehigarria
3/2015 Legea, Etxebizitzarena (EL), 65etik 69.era arteko artikuluak (babes publikoko etxebizitzei dagokienez)

DERECHO AL DISFRUTE DE UNA VIVIENDA DIGNA Y ADECUADA Y DERECHO DE ACCESO A LA OCUPACIÓN LEGAL DE UNA VIVIENDA O ALOJAMIENTO

- Todas las **personas con vecindad administrativa** en cualesquiera municipios de la Comunidad Autónoma de Euskadi tienen el **derecho a disfrutar de una vivienda digna, adecuada y accesible.**
- El **Gobierno Vasco**, a través de sus órganos competentes, así como las **entidades locales y demás instituciones públicas** con competencias en materia de vivienda, **promoverán y adoptarán las disposiciones y medidas oportunas** conducentes al acceso y ocupación legal de una vivienda o, en su caso, de un alojamiento dotacional por parte de quienes no dispongan de domicilio habitable o, disponiendo de él, resulte inseguro o inadecuado a sus necesidades.
- El Gobierno Vasco y las administraciones públicas de carácter territorial, orientarán los recursos disponibles en materia de vivienda **preferentemente a la promoción de viviendas en régimen de alquiler**, para destinarlas a los **colectivos más desfavorecidos**. Dicha preferencia significa que, exceptuando los destinados a rehabilitación, el 100% de los recursos en materia de vivienda se destinarán a políticas de alquiler, no siendo inferior a ese porcentaje el volumen edificatorio de protección pública.

ACCIÓN PÚBLICA Y DERECHO SUBJETIVO

- Será **pública la acción** para exigir ante los órganos administrativos la observancia del derecho a disfrutar de una vivienda digna, adecuada y accesible, así como de las normas, disposiciones, planes y programas que se dicten en su desarrollo y ejecución.
- Las personas que tengan derecho a acceder a la ocupación legal de una vivienda o alojamiento protegido podrán **reclamar su cumplimiento ante el departamento competente** en materia de vivienda del Gobierno Vasco, y las resoluciones de esta administración serán recurribles ante la **jurisdicción contencioso-administrativa**.
- Las **administraciones municipales** que dispongan de viviendas, de alojamientos dotacionales o de suelo residencial o de equipamiento dotacional calificado con posibilidad de construir alojamientos dotacionales, **colaborarán con el departamento competente** en materia de vivienda del Gobierno Vasco, poniéndolos a disposición del citado departamento, al objeto de dar satisfacción a la reclamación del derecho a la vivienda, cuando esta se formule por parte de personas empadronadas en su correspondiente término municipal.

NECESIDAD DE VIVIENDA

- Se reconoce el **derecho al acceso a la ocupación legal estable** de una vivienda o alojamiento protegido a toda persona, familia o unidad de convivencia que se halle en **causa de necesidad**.
- Se considera que tienen necesidad de vivienda:
  - → Una **persona, familia o unidad convivencial** cuando, **no disponiendo de alojamiento** estable o adecuado, **tampoco cuenta con los medios económicos precisos para obtenerlo**, encontrándose por ello en riesgo de caer en situación de **exclusión social.**
  - → Aquellas **personas** que, siendo **titulares de su vivienda habitual** y encontrándose ésta en un **procedimiento de desahucio por ejecución hipotecaria**, no puedan hacer frente a los pagos del préstamo hipotecario sin incurrir **en riesgo de exclusión social**.
  - → Aquellas **personas arrendatarias** que no puedan hacer frente a los pagos del arrendamiento sin incurrir **en riesgo de exclusión social** y que, encontrándose en las mismas circunstancias, sean objeto de **desahucio**, sin solución habitacional.

MODOS DE SATISFACCIÓN Y REQUISITOS DE EXIGENCIA DEL DERECHO SUBJETIVO

MODOS DE SATISFACCIÓN

Mediante la **puesta a disposición, en régimen de alquiler**, de una **vivienda** protegida o de un alojamiento protegido, o incluso de una vivienda libre en caso de su disponibilidad por causa de programas de intermediación u otros, con la renta o el canon que corresponda en cada caso.

Las unidades convivenciales que sean beneficiarias del derecho subjetivo tienen prioridad en la adjudicación de viviendas y alojamientos dotacionales del parque público de viviendas en alquiler del Gobierno Vasco.

En defecto de vivienda o alojamiento, y **con carácter subsidiario**, esta satisfacción podrá efectuarse mediante el **abono de prestaciones económicas de vivienda** (PEV). Esta prestación satisface subsidiariamente el derecho a la vivienda durante el tiempo en el que no se les pueda adjudicar una por falta de disponibilidad de las que sean adecuados para ellas.

Es **incompatible** con otras ayudas para el pago del alquiler como son la Prestación Complementaria de Vivienda (PCV), la Renta Básica de emancipación (RBE),-las Ayudas de Emergencia Social (AES) (gastos alquiler) o cualesquiera otras ayudas que pudieran existir para el pago de alquileres.

No obstante, se prevé la sustitución paulatina de la Prestación Complementaria de Vivienda (PCV) por la Prestación Económica de Vivienda (PEV) así como el acceso a esta última de las personas perceptoras de ingreso mínimo vital (IMV) y ayudas de emergencia social (AES).

REQUISITOS DE EXIGENCIA

- Ser mayores de edad o menores emancipados.
- Acreditar un año de residencia efectiva en la CAPV de forma ininterrumpida e inmediatamente anterior a la solicitud.
- **No hallarse en posesión de vivienda ni de alojamiento estable o adecuado**. La no adecuación de la vivienda podrá deberse a razones jurídicas, de habitabilidad, de tamaño, de capacidad económica o cualesquiera otras que dificulten una residencia cotidiana y normalizada.
- Hallarse válidamente **inscrito en el Registro de Solicitantes de Vivienda Protegida y Alojamientos Dotacionales** en la condición de demandante exclusivamente de alquiler, con una antigüedad mínima de tres o más años de forma ininterrumpida e inmediatamente anterior a la solicitud. (Salvo casos de ejecución hipotecaria o desahucio, con tres años de empadronamiento en la CAPV).
- Hallarse en riesgo de exclusión social por acreditar **unos ingresos anuales** comprendidos entre los siguientes límites:
  - → Unidades de convivencia **de tres o más miembros**, perceptoras de **ingresos inferiores a 19.000 euros anuales**.
  - → Unidades de convivencia de **dos miembros**, perceptoras de **ingresos anuales inferiores a 17.000 euros**.
  - → Unidades de convivencia compuestas por **un miembro**, perceptoras de **ingresos anuales en cuantía inferior a 13.000 euros**.

    No deben tener un patrimonio superior a cinco veces la cuantía de la renta máxima garantizada que les correspondería en un año de conformidad de la Ley 14/2022, de 22 de diciembre de Sistema Vasco de Garantía de Ingresos y para la Inclusión.

    No deben residir en arrendamiento en una vivienda libre cuya renta sea inferior o igual al 30% de sus ingresos o en una vivienda de protección pública.

Legislación: Ley 3/2015, de 18 de junio, de Vivienda (LvV), arts. 6, 7, 8, 9 y Disposición Transitoria cuarta
Decreto 147/2023, de 10 de octubre, del derecho subjetivo de acceso a la ocupación de una vivienda, arts. 3, 4 y 5 y Disposiciones Transitorias 2, 3, 4 y 5
Orden de 15 de octubre de 2012, del Consejero de Vivienda, Obras Públicas y Transportes, del registro de solicitantes de vivienda y de los procedimientos para la adjudicación de Viviendas de Protección Oficial y Alojamientos Dotacionales de Régimen Autonómico, art. 9 bis (Ver D.F. 2, apartado 3, del Decreto 147/2023)
Ver ficha 16.7.9

ETXEBIZITZA DUIN ETA EGOKI BAT GOZATZEKO ESKUBIDEA ETA ETXEBIZITZA BAT EDO BIZITOKI BAT LEGEZ OKUPATZEKO ESKUBIDEA

- **Administrazio-auzotasuna** Euskal Autonomia Erkidegoko edozein udalerritan duen pertsona orok **eskubidea du etxebizitza duin, egoki eta irisgarria izateko**.
- **Eusko Jaurlaritzak**, bere organo eskudunen bitartez, bai eta etxebizitza alorreko eskumenak dituzten **toki-entitateek eta gainerako erakunde publikoek** ere, **xedapen eta neurri egokiak sustatu eta hartuko dituzte** egoitza bizigarririk ez dutenek edo, izanda ere, hura segurua edo beren premien araberakoa ez dutenek etxebizitza bat edo, hala badagokio, zuzkidura-bizitoki bat lortu eta legez okupa dezaten.
- Eusko Jaurlaritzak eta lurralde-administrazio publikoek, **lehentasunez**, **egoera txarrenean dauden kolektiboentzako alokairuko etxebizitzak sustatzera** bideratuko dituzte erabilgarri dauden etxebizitza-baliabideak. Lehentasun horrek esan nahi du ezen, birgaitzera bideratutako baliabideak salbuetsita, etxebizitza-baliabideen % 100 alokatze-politiketara bideratuko dela, eta babes publikoko araubidean eraikitakoaren bolumena ez dela ehuneko hori baino txikiagoa izango.

AKZIO PUBLIKOA ETA ESKUBIDE SUBJEKTIBOA

- **Publikoak** izango dira, bai etxebizitza duin, egoki eta irisgarria izateko eskubidea bete dadila administrazio-organoetan exijitzeko bideratzen den **ekintza**, bai eta, halaber, ekintza hori garatzeko eta egikaritzeko ematen diren arau, xedapen, plan eta programak ere.
- Etxebizitza eta bizitoki babestu bat legez okupatzeko eskubidea duten herritarrek etxebizitza alorreko eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailari **erreklamatu ahal izango diote eskubide hori betetzea**, eta administrazio horren ebazpenak **administrazioarekiko auzien jurisdikzioan** errekurritu ahal izango dira.
- Zuzkidura-bizitokiak eraikitzeko aukera ematen duen bizitegi- edo ekipamendu-lurzorua, etxebizitzak edo zuzkidura-bizitokiak dituzten **udal-administrazioak** etxebizitza alorreko eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailarekin **lankidetzan jardungo dira** eta lurzoru, etxebizitza eta bizitoki horiek aipatutako sailaren eskura jarriko dituzte, etxebizitza eskubidearen erreklamazioari erantzuteko, dagokion udalerrian erroldatutako herritar batek aurkezten duenean erreklamazio hori.

ETXEBIZITZA-PREMIA

- Etxebizitza edo bizitoki babestu bat **legez modu egonkorrean okupatzeko eskubidea** aitortzen zaio **premia** duen pertsona, familia edo bizikidetza-unitate orori.
- Etxebizitza-premian daudela joko da:
  - → **Bizitoki egonkor edo egokirik** ez duten eta **halakorik lortzeko bitarteko ekonomikorik** ez duten eta horregatik **gizarte-bazterketako egoeran** erortzeko arriskua dauden **pertsona, familia edo bizikidetza-unitateak**.
  - → **Beren ohiko etxebizitzaren titularrak** izanda eta etxebizitza hori h**ipoteka-exekuzioaren ondoriozko etxegabetze-prozedura batean** sartuta egonda, hipoteka-mailegua ordaindu ezin dutenak **gizarte-bazterketaren arriskuan** gertatu gabe.
  - → **Gizarte-bazterketaren arriskuan** gertatu gabe errenta ordaindu ezin duten eta, egoera berean izanda, **etxegabetuak** diren **errentariak**, bizileku-konponbiderik jaso gabe.

ESKUBIDE SUBJEKTIBOA BETETZEKO MODUAK ETA EXIJITZEKO BALDINTZAK

BETETZEKO MODUAK

Alokairuan eskura jarrita etxebizitza babestu bat, bizitoki babestu bat, edo are etxebizitza libre bat ere baldin eta erabilgarri badago bitartekaritza-programaren baten ondorioz edo beste arrazoi batzuen ondorioz, kasu bakoitzean egoki den errenta edo kanona aplikatuta.

Eskubide subjektiboaren onuradun diren bizikidetza-unitateek lehentasuna izango dute Eusko Jaurlaritzaren alokairuko etxebizitzen parke publikoko etxebizitzak eta zuzkidura-bizitokiak esleitzeko garaian.

Etxebizitzarik edo bizitokirik ezean, **subsidiarioki**, **etxebizitzako prestazio ekonomikoa (EPE) ordaindu** ahal izango da eskubidea betetzeko. Prestazio horrek subsidiarioki betetzen du etxebizitza-eskubidea, etxebizitzarik esleitu ezin den bitartean, etxebizitza egokirik erabilgarri ez egoteagatik.

Bateraezina da alokairua ordaintzen laguntzeko beste prestazio batzuekin, hala nola EPO etxebizitzako gastuetarako prestazio osagarriarekin, EOE emantzipaziorako oinarrizko errentarekin eta GLL gizarte larrialdiko laguntzekin (alokairu-gastuak) edo alokairuak ordaintzeko egon daitezkeen bestelako laguntzekin.

Hala ere, etxebizitzarako prestazio osagarria (EPO) pixkanaka etxebizitzarako prestazio ekonomikoarekin (EPE) ordezkatzea aurreikusten da, baita bizitzeko gutxieneko diru-sarrera (BGDS) eta gizarte-larrialdietarako laguntzak (GLL) jasotzen dituzten pertsonek azken prestazio hori eskuratzea ere.

EXIJITZEKO BALDINTZAK

- Adin nagusikoak edo adingabe emantzipatuak izatea.
- EAEn urtebetez benetan bizi izana egiaztatzea, etenik gabe eta eskaera egin aurre-aurretik.
- **Etxebizitza edo bizitoki egonkor edo egokirik gabe egotea.** Etxebizitza egokia ez izatearen arrazoiak izan daitezke bai arrazoi juridikoak, bai bizigarritasunarekin loturikoak, edo tamaina, ahalmen ekonomikoa edo eguneroko bizitegi normalizatua izatea zailtzen duen beste edozeinekin loturikoak.
- **Etxebizitza Babestuen eta Zuzkidura Bizitokien Eskatzaileen Erregistroan behar bezala inskribatuta egotea**, soilik alokairua eskatzeko, eta erregistro horretan gutxienez hiru urteko edo gehiagoko antzinatasuna izatea, etenik gabe eta eskaera egin aurre-aurretik. (Hipoteka exekutatzeko edo etxea utzarazteko kasuetan izan ezik, EAEn hiru urtez erroldatuta egonda).
- Gizarte-bazterketako arriskuan egotea, **urteko diru-sarrerak** honako muga hauen artean daudela egiaztatzeagatik:
  - → **Hiru kide edo gehiagoko** bizikidetza-unitateak, **urtean 19.000 eurotik beherako diru-sarrerak** dituztenak.
  - → **Bi kideko** bizikidetza-unitateak, **urtean 17.000 eurotik beherako diru-sarrerak** dituztenak.
  - → **Kide bakarreko** bizikidetza-unitateak, **urtean 13.000 eurotik beherako diru-sarrera**k dituztenak.

  Bizikidetza-unitate horien ondareak ez du izan behar Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren abenduaren 22ko 14/2022 Legearen arabera urtebetez legokiekeen gehieneko errenta bermatuaren zenbatekoaren halako bost baino handiagoa.

  Ezin dira errentamenduan bizi haien diru-sarreren % 30eko edo gutxiagoko errenta duen etxebizitza libre batean edo babes publikoko etxebizitza batean.

Legeria: 3/2015 Legea, ekainaren 18koa, Etxebizitzarena (EL), 6., 7., 8. eta 9. artikuluak eta laugarren xedapen iragankorra
147/2023 Dekretua, urriaren 10ekoa, etxebizitza bat okupatzeko eskubide subjektiboari buruzkoa, 3., 4. eta 5. artikuluak eta 2., 3., 4. eta 5. xedapen iragankorrak
Agindua, 2012ko urriaren 15ekoa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, etxebizitza-eskatzaileen erregistroari eta babes ofizialeko etxebizitzak nahiz araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozedurei buruzkoa, 9 bis artikulua (Ikus 147/2023 Dekretuaren azken xedapenetako bigarrenaren 3. zenbakia)
Ikus 16.7.9 fitxa

SERVICIO DE INTERÉS GENERAL

A efectos de la homologación con la normativa europea en materia de vivienda, tienen la **condición de viviendas sociales** tanto las **viviendas de protección pública** como los **alojamientos dotacionales**, independientemente de si son resultado de procesos de nueva construcción o de rehabilitación o de si se obtienen en virtud de programas sociales de mediación o cesión.

Las actividades públicas de fomento de la **regeneración, renovación y rehabilitación del patrimonio edificado o urbanizado** se considerarán igualmente de interés general. Todas las viviendas afectadas por estas intervenciones tendrán la consideración de viviendas sociales a los efectos de poder recibir ayudas públicas.

COMPETENCIAS EN MATERIA DE VIVIENDA

El **apartado n.º 7** del **art. 17.1 de la Ley de Instituciones Locales de Euskadi** establece que los municipios **podrán** ejercer, en el marco de lo dispuesto en esta ley y en la legislación que sea de aplicación, **competencias propias** en el ámbito material referente a la **planificación, programación y gestión de viviendas**.

La **Ley 3/2015, de 18 de junio, de Vivienda** establece que el Gobierno Vasco, los territorios históricos y las **entidades locales** de carácter territorial, a través de sus órganos correspondientes, ostentan competencias y responsabilidades en materia de vivienda.

Establece también que **corresponden a los ayuntamientos:**

- **Las competencias de ordenación, promoción, gestión, adjudicación y control de los alojamientos dotacionales** de su titularidad, así como de las **viviendas**, **locales** y **anejos** de régimen tasado municipal, ya sean de nueva construcción o derivados de planes específicos de rehabilitación y regeneración urbana.
- Las facultades y potestades de intervención pública en materia de **inspección, adopción de medidas provisionales e intervención** para garantizar el uso adecuado de las edificaciones, así como de incidencia en el mercado de la vivienda, y el ejercicio de la **potestad sancionadora** en materia de vivienda.

INSTRUMENTOS DE PLANIFICACIÓN Y PROGRAMACIÓN EN MATERIA DE VIVIENDA

- **Directrices de ordenación del territorio** del País Vasco (DOT) y **planes territoriales parciales** (PTP) en cuanto incidan en materia de vivienda, según lo previsto en la legislación de ordenación del territorio del País Vasco.
- **Plan territorial sectorial de vivienda** (PTSV), que será elaborado y aprobado por el Gobierno Vasco, de conformidad con la legislación de ordenación del territorio del País Vasco.
- **Plan director de vivienda** (PDV) del Gobierno Vasco, que tendrá una naturaleza directriz y orientadora de las políticas públicas en materia de vivienda. El Gobierno remitirá este plan al Parlamento Vasco, para su tramitación como comunicación, cada tres años.
- **Planeamiento urbanístico** en todo lo concerniente a vivienda.
- **Planes directores de las entidades locales de carácter territorial** (PDL), potestativos para ellas, que resultarán coherentes con el planeamiento director del Gobierno Vasco, coordinándose además con el planeamiento urbanístico.

ESTADÍSTICA DE ACTUACIONES MUNICIPALES EN MATERIA DE VIVIENDA

Los Ayuntamientos deben comunicar anualmente, a efectos estadísticos, al Departamento de la Administración autonómica competente en materia de Vivienda:

a) La promulgación de las **ordenanzas municipales** reguladoras del régimen de protección pública de las viviendas tasadas municipales, así como la calificación de las mismas y la concesión de las oportunas licencias de obras.
b) La **calificación** de terrenos destinados a **alojamientos dotacionales** y la concesión de la oportuna **licencia.**
c) La **existencia, constitución y evolución del patrimonio municipal del suelo**, con indicación expresa de las superficies de terreno, edificabilidades urbanísticas de uso residencial y número de viviendas que lo integran.

Se regula la **obligatoriedad de la Estadística** de **Edificación y Vivienda (EDYVI)** y de la Estadística de **Viviendas Iniciadas y Terminadas (EVIT),** a fin de actualizar las obligaciones de tipo estadístico para la correcta prestación de este servicio del Gobierno Vasco.

Legislación: Ley 3/2015, de 18 de junio, de Vivienda (LvV), arts. 5, 10 y 11
Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi, art. 17.1.7
Ver ficha 16.7.9

INTERES OROKORREKO ZERBITZUAK

Etxebizitzaren alorreko Europako araudiarekin homologatzeko, **etxebizitza sozialtzat** joko dira bai **babes publikoko etxebizitzak**, bai **zuzkidura-bizitokiak**, alde batera utzita eraiki berriak diren, birgaituak diren edo bitartekotza edo lagapeneko gizarte-programen bitartez lortu diren.

Interes orokorrekotzat joko dira, halaber, **ondare eraiki edota urbanizatua berroneratzea, berritzea eta birgaitzea** sustatzeko jarduera publikoak ere. Esku-hartze horien eraginpean dauden etxebizitza guztiak etxebizitza sozialtzat hartuko dira laguntza publikoak jaso ahal izateko ondorioetarako.

ETXEBIZITZA ALORREKO ESKUMENAK

Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legearen 17.1 artikuluko 7. zenbakiak xedatzen duenez, lege horretan eta aplikatu beharreko legerian xedatutakoaren esparruan, udalek **beren eskumen propioak** erabili ahal izango dituzte **etxebizitzen plangintza, programazio eta kudeaketaren arloetan**.

Etxebizitzaren ekainaren 18ko 3/2015 Legeak ezartzen duenez, Eusko Jaurlaritzak, lurralde historikoek eta lurralde-izaerako **toki-entitateek** etxebizitza-gaietako eskumenak eta ardurak izango dituzte, dagozkien organoen bitartez.

Era berean, ezartzen du **udalei dagozkiela**:

- Beren titularitasuneko **zuzkidura-bizitokien antolamendu, sustapen, kudeaketa, esleipen eta kontroleko eskumenak**, bai eta udal-araubide tasatuko **etxebizitza, lokal eta eranskinenak** ere, eraiki berriak izan edo birgaitzeko eta hiri-berroneratzeko berariazko planen ondoriozkoak izan.
- **Ikuskatzeko, behin-behineko neurriak hartzeko** eta eraikinak egoki erabiliko direla bermatzeko **esku-hartze** publikoko ahalmen eta ahalak, baita etxebizitzaren merkatuan eragitekoak ere, eta orobat etxebizitza-alorrean **zehatzeko ahala** erabiltzea.

ETXEBIZITZA-ALORREKO PLANIFIKAZIORAKO ETA PROGRAMAZIORAKO TRESNAK

- Euskal Autonomia Erkidegoko **lurralde-antolamenduaren gidalerroak** (LAG) eta **lurralde-plan partzialak** (LPP), etxebizitza-gaiak jorratzen dituztenean, Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldea antolatzeko legerian aurreikusitakoaren arabera.
- **Etxebizitzen lurralde-plan sektoriala** (ELPS), zeina Eusko Jaurlaritzak prestatu eta onartuko baitu, Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldearen antolamenduko legeriari jarraikiz.
- Eusko Jaurlaritzaren **etxebizitzaren plan zuzentzailea** (EPZ), etxebizitzei buruzko politika publikoetarako gida- eta orientazioa izango baita. Jaurlaritzak hiru urtean behin bidali beharko dio plan hori Eusko Legebiltzarrari, komunikazio gisa izapidetzeko.
- Etxebizitzari dagokion guztiaren inguruko **hirigintza-plangintza**.
- **Lurralde izaerako toki-entitateen plan zuzentzaileak**, borondatezkoak entitateontzat; koherenteak izango dira Eusko Jaurlaritzaren plangintza zuzentzailearekin, eta, horrez gain, hirigintza-plangintzarekin koordinatuko dira.

ETXEBIZITZAREN ARLOKO UDAL-JARDUKETEN ESTATISTIKA

Estatistika-ondorioetarako, alderdi hauek **jakinaraziko dizkiote udalek urtero** etxebizitzaren arloan eskumena duen Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Sailari:

a) Udal-etxebizitza tasatuen babes publikoko araubidea erregulatzen duten **udal-ordenantzen** promulgazioa, bai eta etxebizitza horien kalifikazioa eta dagozkien obra-lizentziaren emakida ere.

b) **Zuzkidura-bizitokietarako** lursailen **kalifikazioa** eta dagokion **obra-lizentziaren** emakida.

c) **Udal lurzoru-ondarearen existentzia, eraketa eta bilakaera**; ondarea osatzen duten lursailen azalerak, bizitegi-erabilerako hirigintza-eraikigarritasunak eta etxebizitzen kopurua zehaztu behar dira.

Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistikaren eta **Hasitako eta Amaitutako Etxebizitzei buruzko Estatistikaren** nahitaezkotasuna arautzen dira, betebehar estatistikoak eguneratzeko, Eusko Jaurlaritzak zerbitzua behar den bezala eskaini ahal izan dezan.

Legeria: 3/2015 Legea, ekainaren 18koa, Etxebizitzarena (EL), 5., 10. eta 11. artikuluak
2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa, 17.1.7 artikulua
Ikus 16.7.9 fitxa

DEFINICIÓN	**Viviendas así calificadas por:** • Destinarse a **domicilio habitual y permanente.** • **Adjudicarse,** mediante **procedimiento específico,** a personas que cumplen las **condiciones legales, y** • **Reunir los requisitos y condiciones de habitabilidad, calidad, superficie, diseño, uso, y precio o renta** establecidos en la normativa correspondiente. La promoción de **Viviendas de Protección Pública (VPP**), su adquisición, su rehabilitación, la adquisición de suelo y su urbanización para la posterior promoción de VPP, y la promoción y construcción de alojamientos dotacionales, entre otras, están recogidas como **«actuaciones protegibles»** a las que son de aplicación las **ayudas financieras** —financiación cualificada y ayudas económicas directas— previstas en la normativa.
CARACTERES DE LAS VPP	• **Promoción de titularidad pública** (acometida por una administración pública o por entidades del sector público) **o de titularidad privada** (acometida por personas físicas o jurídicas privadas). • **Características técnicas** establecidas en las ordenanzas de diseño aprobadas por orden de ámbito autonómico u ordenanza municipal. • Transmisión a un **precio protegido. Rentas de alquiler y cánones a precios protegidos.** • Adjudicación ante fedataria o fedatario público mediante **baremación** de las solicitudes otorgando prioridad a los solicitantes en atención a la renta disponible y en relación con el número de miembros de la unidad de convivencia, y la antigüedad como demandante de vivienda; todo ello sin perjuicio de establecer cupos destinados a resolver necesidades de carácter social y de los procedimientos específicos. Se garantizarán los principios de publicidad y libre concurrencia. • **Adjudicatarios inscritos** en un registro público. Entre otros **requisitos**, deben carecer de vivienda en propiedad, tener ingresos máximos y mínimos determinados y estar empadronados, con residencia efectiva, en alguno de los municipios de la Comunidad Autónoma del País Vasco; si bien, será el Departamento competente en materia de vivienda quien declarará para cada promoción los municipios interesados, y, cuando intervengan los Ayuntamientos, serán éstos quienes podrán establecer procedimientos específicos reglados (empadronamiento, realojos, dependencia, discapacidad o riesgo de exclusión social) para acceder a las VPP, salvo en el caso de promociones que hayan sido objeto de convenio de ayudas con el citado Departamento, en el que la exigencia de empadronamiento no podrá exceder de tres años desde la fecha de la calificación provisional. • Debe destinarse la vivienda a **domicilio habitual y permanente**. • Están **sujetas a un precio máximo en primeras y posteriores transmisiones y al ejercicio de los derechos de tanteo o retracto** a favor de la administración actuante o de la Comunidad Autónoma (hay obligación de visado del contrato privado de transmisión). **Rentas máximas de alquiler** fijadas también administrativamente, en función de los ingresos efectivos de las unidades convivenciales y tipologías de viviendas. • Una vez calificadas definitivamente, **mantienen permanentemente la calificación** salvo las destinadas a realojo que pueden ser descalificadas una vez transcurridos veinte años, y las acogidas voluntariamente a la calificación de protección pública como consecuencia de un proceso de regeneración, renovación o rehabilitación. • En **caso de descalificación** podrá establecerse la devolución de todas o parte de las ayudas percibidas, en caso de enajenación de la vivienda con posterioridad a su descalificación, conforme se establezca en su normativa reguladora. Se considerará causa justificada a los efectos anteriores, la promoción de viviendas protegidas en suelos cuya calificación urbanística no impusiera dicho destino y no hubiesen contado con ayudas públicas para su promoción.
REGISTRO DE VPP Y ALOJAMIENTOS DOTACIONALES	• Tiene por **objeto la inscripción** en él de todas las viviendas de protección pública y alojamientos dotacionales existentes o que se promuevan, construyan o se califiquen como tales en el ámbito de la Comunidad Autónoma de Euskadi, así como sus titulares. • Quien promueva, con carácter público o privado, viviendas protegidas o alojamientos dotacionales tendrá la **obligación de inscribirlos** en este registro administrativo del Departamento competente en materia de vivienda del Gobierno Vasco.
REGISTRO DE SOLICITANTES DE VIVIENDA DE VPP Y DE ALOJAMIENTOS DOTACIONALES	• **Dependiente** del Departamento competente en materia de vivienda del Gobierno Vasco. • **Objeto**: puntual **conocimiento de las personas demandantes inscritas**, sirviendo como instrumento para la **gestión y control de la adjudicación de las VVP** y los **alojamientos dotacionales**, con pleno respeto a la protección de los datos personales y a los principios de igualdad y no discriminación. • Se diferenciarán con claridad la relación de **demandantes** de vivienda interesados **en compra** y la relación de **demandantes de alquiler**. Únicamente se considerarán demandantes del derecho subjetivo a la ocupación legal de una vivienda digna y adecuada las personas o unidades de convivencia demandantes de alquiler que cumplan además con el resto de requisitos requeridos. • Las **entidades locales de carácter territorial podrán disponer también de sus correspondientes registros de solicitantes**, ya sean de naturaleza temporal o permanente, que habrán de coordinarse con el Registro de Solicitantes de Vivienda Protegida y Alojamientos Dotacionales del Gobierno Vasco.

Legislación: Ver ficha 16.7.9

DEFINIZIOA

Zergatik duten izen hori:

- **Etxebizitza ohiko eta iraunkor gisa** erabiltzea delako haien xedea.
- **Prozedura espezifiko** baten bidez, **legezko baldintzak** betetzen dituzten pertsonei **esleitzen zaizkielako, eta**
- Dagokion araudian etxebizitzen **bizigarritasun, kalitate, azalera, erabilera eta prezioari edo errentari buruz ezarritako eskakizunak eta baldintzak** betetzen dituztelako.

Babes publikoko etxebizitzen (BPE) sustapena, etxebizitza horiek eskuratzea, birgaitzea, lurzorua eskuratzea eta lurzorua urbanizatzea gero BPEen sustapenerako, eta zuzkidura-bizitokiak sustatzea eta eraikitzea, besteak beste, araudian aurreikusitako **laguntza finantzarioak** aplikatuko zaizkien **«jarduketa babesgarri»** moduan jasota daude (finantzaketa kualifikatua eta zuzeneko laguntza ekonomikoak).

BPE-EN EZAUGARRIAK

- **Titulartasun publikoko sustapena** (administrazio publiko batek edo sektore publikoko entitateek egindakoa) **edo titulartasun pribatukoa** (pertsona fisiko edo juridiko pribatuek egindakoa).
- Eremu autonomikoko agindu baten edo udal-ordenantza baten bidez onartutako diseinuko ordenantzetan ezartzen diren **ezaugarri teknikoak**.
- **Prezio babestuan** eskualdatzen dira. **Alokairu-errentak eta kanonak, prezio babestukoak.**
- Fede-emaile publikoaren aurrean esleitzen dira, eskaerak **barematuz** eta lehentasunak zehaztuz eskatzailearen errenta erabilgarriaren arabera, kontuan izanda bizikidetza-unitateko kide-kopurua, eta etxebizitza-eskatzaile gisa duen antzinatasuna; horrek ez du eragozten kupo batzuk ere ezarri ahal izatea, beharrizan sozialei eta prozedura espezifikoei erantzuteko. Publikotasunaren eta lehia askearen printzipioak bermatuko dira.
- **Esleipendunak** erregistro publiko batean **izena emanda** egotea. Beste **baldintza** batzuen artean, ezin dute etxebizitzarik jabetzan eduki, gutxieneko eta gehieneko diru-sarrera jakin batzuk eduki behar dituzte, eta Euskal Autonomia Erkidegoko udalen batean erroldatuta egon eta benetan han bizi beharko dute, nahiz eta etxebizitzaren arloan eskumena duen sailak adieraziko duen sustapen bakoitzerako zein diren udal horiek, eta, udalek esku hartzen dutenean, haiek finkatuko dituzte BPEak eskuratzeko baldintzak (erroldatzea, ordezko etxebizitza ematea, mendekotasuna, desgaitasuna, gizarte-bazterketako arriskua), salbu eta sail horren laguntza-hitzarmenak baliatu dituzten sustapenetan, haietan erroldatze-eskakizunak gehienez ere 3 urte hartuko baititu, sustapenaren behin-behineko kalifikazio-dataren egunetik kontatzen hasita.
- Etxebizitza **bizitoki ohiko eta iraunkor** gisa erabili behar da.
- **Lehenengo eskualdatzeetan eta hurrengoetan gehieneko prezio bati lotuta egongo dira**, eta administrazio jardunleak edo autonomia-erkidegoak **lehentasunez erosteko edo atzera eskuratzeko eskubidea** izango du (eskualdaketako kontratu pribatua bisatu behar da nahitaez). **Gehieneko alokairu-errentak**, administrazioak finkatuak bizikidetza-unitateen benetako diru-sarreren eta etxebizitzen tipologien arabera.
- Behin betiko kalifikazioa lortzen dutenean, **kalifikazio hori betiko atxikitzen dute**, bi kasu hauetan izan ezik: ordezko etxebizitzarako erabiltzen direnean —deskalifikatu egin baitaitezke, hogei urte igaro ondoren—, eta berroneratze, berritze edo birgaitzeko prozesu bat dela-eta babes publikoko kalifikazioa borondatez hartu duten etxebizitzak direnean.
- **Deskalifikazioa gertatuz gero**, jasotako laguntza guztiak edo batzuk itzultzeko agindu ahal izango da, etxebizitza deskalifikatu ondoren besterentzen bada, araudi erregulatzailean ezarritakoaren arabera. Aurreko ondorioetarako, justifikatutako arrazoitzat hartuko da hirigintza-kalifikazioak xede hori ezartzen ez dien lurzoruetan etxebizitza babestuak sustatzea, baldin eta sustapenerako laguntza publikorik izan ez badute.


BPE-en ETA ZUZKIDURA-BIZITOKIEN ERREGISTROA

- Erregistroaren **helburua** izango da bertan **inskribatzea** Euskal Autonomia Erkidegoan dauden etxebizitza babestu eta zuzkidura-bizitoki guztiak edo sustatu, eraiki edo hala kalifikatzen direnak eta haien titularrak.
- Etxebizitza babestuen edo zuzkidura-bizitokien sustatzaile publiko nahiz pribatu ororen **betebeharra izango da haiek inskribatzea** etxebizitza-arloaren eskumena duen Eusko Jaurlaritzako saileko administrazio-erregistro honetan.

BPE-en ETA ZUZKIDURA-BIZITOKIEN ESKATZAILEEN ERREGISTROA

- Etxebizitza arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailaren **barruan kokatua**.
- **Helburua**: **izena emanda dauden eskatzaileak unean-unean ezagutzea**, **BPEen eta zuzkidura-bizitokien esleipenaren kudeaketa eta kontrola** behar bezala egiteko tresna izatea. Datu pertsonalak eta berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioak errespetatuz jardungo da.
- Argi bereiziko dira etxebizitza **erosteko interesa** duten eskatzaileen zerrenda eta **alokatzeko interesa** dutenena. Alokairuko etxebizitza eskatzen duten pertsona edo bizikidetza-unitateek, etxebizitza duin eta egoki bat legez okupatzeko eskubide subjektiboaren eskatzailetzat hartuko badira, eskatzen diren beste baldintza guztiak ere bete beharko dituzte.
- **Lurralde-izaerako toki-entitateek ere beren eskatzaileen erregistroak eduki ahal izango dituzte**, aldi baterako nahiz modu iraunkorrean, eta Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Babestuen eta Zuzkidura Bizitokien Eskatzaileen Erregistroarekin koordinatu beharko dituzte.

Legeria: Ikus 16.7.9 fitxa



VIVIENDAS DE PROTECCIÓN SOCIAL Y VIVIENDAS TASADAS DE RÉGIMEN AUTONÓMICO

- Las **características** de las viviendas de protección social y tasadas de régimen autonómico en cuanto a **su precio o renta** correspondiente, los **requisitos** que deben cumplir los interesados en el acceso a la ocupación legal de la vivienda, las **medidas financieras** y el **régimen jurídico** de las viviendas se regulan mediante **Decreto del Gobierno Vasco**, desarrollado ulteriormente, en su caso, por Órdenes del Consejero/a correspondiente.
- El departamento competente en materia de vivienda del Gobierno Vasco, las diputaciones forales, los ayuntamientos, los concejos y las entidades locales menores **podrán excluir del procedimiento de adjudicación** de viviendas de protección pública promovidas por ellos, **aquellas viviendas que se destinen a garantizar el derecho de realojo y a resolver situaciones de dependencia, de todo tipo de discapacidad o de riesgo de exclusión social.**

  Podrán excluirse, igualmente, del procedimiento de adjudicación las viviendas de protección pública **adquiridas en el ejercicio de los derechos de tanteo y retracto y que, por su antigüedad, estado de conservación u otras circunstancias que las singularicen y diferencien de las de nueva construcción, aconsejen un procedimiento de adjudicación específico o su destino a usos provisionales, de equipamiento, de alojamiento dotacional u otros que se consideren oportunos y se adecuen al interés público y función social.**
- Las diputaciones forales, los ayuntamientos y los concejos, y, en su caso, las entidades locales menores, **establecerán las bases para la adjudicación de las viviendas de protección pública y alojamientos dotacionales que promuevan**, respetando en todo caso el procedimiento y límites legales, el desarrollo reglamentario y la normativa sectorial vigente relativa a cupos de discriminación positiva.


  Estas bases podrán:

  → Incluir como requisito de admisión el **empadronamiento previo y con una antigüedad determinada**, siempre con respeto a los derechos individuales y a las necesidades derivadas de la cohesión social y territorial, así como de la movilidad geográfica.

  → Prever que el citado requisito de **empadronamiento pueda ser suplido** por la disposición de un contrato de trabajo, de una antigüedad y duración que también se contemple, con puesto de trabajo ya en el propio municipio o en su área funcional.
- La **adjudicación de los alojamientos** se realizará siguiendo los **principios definidos para las viviendas de protección social en régimen de alquiler**. No obstante, teniendo en cuenta su carácter de dotación al servicio de las necesidades de la sociedad, se **podrán establecer procedimientos específicos** para cada actuación en atención a sus características y peculiaridades. Estos procedimientos específicos deberán ser aprobados por el órgano competente en materia de vivienda del Gobierno Vasco.

TIPOS	• **Viviendas de protección social:** En tanto no se realice desarrollo reglamentario en esta materia siguen vigentes las tipologías de: → **Viviendas de protección oficial de régimen general**, más caras dentro del sistema de precios limitados y destinadas preferentemente a la venta. → **Viviendas de protección oficial de régimen especial o viviendas sociales**: son las más baratas y destinadas preferentemente al alquiler. • **Viviendas de protección oficial de régimen tasado de regulación autonómica:** el precio máximo de venta no podrá superar 1,7 veces el precio máximo de las viviendas de protección oficial de régimen general.
PRECIOS MÁXIMOS DE VENTA Y DE ALQUILER	El precio o la renta de referencia de las viviendas de protección pública y sus anejos vinculados, así como el importe del canon de los alojamientos dotacionales, se establecerán **por orden del consejero o consejera** del departamento competente en materia de vivienda del Gobierno Vasco, en función de la superficie de aquellos. Se considerará también el tipo de vivienda o alojamiento, su ubicación geográfica, su régimen de tenencia, estado de conservación, antigüedad y otros aspectos que se establezcan motivadamente. Durante el período legal de protección, cualquier acto de disposición o de arrendamiento de viviendas protegidas en primeras o posteriores transmisiones estará sujeto a un precio de venta o renta máximo.

Legislación: Ver ficha 16.7.9



BABES SOZIALEKO ETXEBIZITZAK ETA ARAUBIDE AUTONOMIKOKO ETXEBIZITZA TASATUAK

- Babes sozialeko etxebizitzen eta araubide autonomikoko etxebizitza tasatuen EZAUGARRIAK —besteak beste, dagokien **prezioa edo errenta**, etxebizitza legez okupatu nahi dutenek bete behar dituzten **baldintzak**, **finantza-neurriak** eta etxebizitzen **araubide juridikoa**— **Eusko Jaurlaritzaren dekretu bidez** arautzen dira, eta gero, behar izanez gero, dagokion sailburuak emandako aginduen bidez garatuko dira.
- Etxebizitza-arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailak, foru-aldundiek, udalek, kontzejuek eta toki-entitate txikiek beraiek sustatutako babes publikoko etxebizitzak ESLEITZEKO PROZEDURATIK KANPO **utz ditzakete ordezko etxebizitza izateko eskubidea bermatzera bideratutako etxebizitzak eta edozein desgaitasunek eragindako mendetasun-egoerak edo gizarte-bazterketaren arriskuko egoerak konpontzera bideratuak**.

  HALABER, esleipen-prozeduratik KANPO UTZ DAITEZKE eroslehentasun-eskubidea eta atzera eskuratzeko eskubidea erabiliz lortutako babes publikoko etxebizitzak, baldin eta, beren antzinatasuna, kontserbazio-egoera edo etxebizitza eraiki berrietatik bereizten dituzten beste ezaugarri batzuk direla-eta, komeni bada berariazko esleipen-prozedura izan dezaten edo behin-behineko erabileretarako izenda daitezen, dela ekipamendutarako, dela zuzkidura-bizitokitarako, dela egokitzat jotzen diren eta interes publikoaren edo funtzio sozialaren araberakoak diren beste batzuetarako.
- Foru-aldundiek, udalek eta kontzejuek, bai eta, hala badagokio, toki-erakunde txikiek ere, **beraiek sustatutako BABES PUBLIKOKO ETXEBIZITZAK ETA ZUZKIDURA-BIZITOKIAK ESLEITZEKO OINARRIAK ezarriko dituzte**, betiere errespetatuz legeetan, legeen erregelamendu bidezko garapenean eta diskriminazio positiboko kupoei buruz indarrean dagoen araudi sektorialean ezarritako prozedura eta mugak.

  OINARRI HORIETAN:

  → Onartzeko baldintza gisa jarri ahal izango da **aurrez eta antzinatasun jakin batekin udalean erroldatuta egon behar izatea**, betiere errespetatuz norbanakoaren eskubideak eta gizartearen eta lurraldearen kohesioak dakartzan premiak, bai eta mugikortasun geografikoak dakartzanak ere.

  → Edo, **erroldatuta egoteko betekizunaren ordez**, baldintza gisa ezar daiteke lan-kontratu bat edukitzea, antzinatasun eta iraupen jakin batekoa, udalerrian bertan edo haren eremu funtzionaleko lanpostu batean.
- **BIZITOKIAK ESLEITZEKO, alokairuko gizarte-babeseko etxebizitzetarako zehaztuta dauden printzipio berberak** erabiliko dira. Nolanahi ere, kontuan izanik gizartearen premien zerbitzurako dauden zuzkidurak direla, **berariazko prozedurak ezarri ahal izango dira** jarduketa bakoitzerako, dituen ezaugarriak eta berezitasunak aintzat hartuta. Berariazko prozedura horiek etxebizitza arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako organoak onartu beharko ditu.

MOTAK	• **BABES SOZIALEKO ETXEBIZITZAK:** Arlo hau erregelamendu bidez garatzen ez den bitartean, indarrean jarraituko dute orain arteko tipologiek: → **Araubide orokorreko babes ofizialeko etxebizitzak** garestiagoak dira prezio mugatuko sistemaren barruan, eta, oro har, saltzeko jartzen dira. → **Araubide bereziko babes ofizialeko etxebizitzak edo etxebizitza sozialak**: merkeenak dira, eta, oro har, alokatzeko erabiltzen dira. • **ERREGULAZIO AUTONOMIKOKO ARAUBIDE TASATUKO BABES OFIZIALEKO ETXEBIZITZAK:** etxebizitza horien gehieneko salmenta-prezioa, gehienez ere, araubide orokorreko babes ofizialeko etxebizitzen gehieneko prezioa halako 1,7 izango da.
SALMENTAKO ETA ALOKAIRUKO GEHIENEKO PREZIOAK	Babes publikoko etxebizitzen eta atxikitako eranskinen erreferentziako prezioa edo errenta, baita zuzkidura-bizitokien kanonaren zenbatekoa ere, etxebizitza arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako saileko **sailburuaren agindu bidez** ezarriko dira, duten azalera kontuan hartuta. Etxebizitza- edo bizitoki-mota ere kontuan hartuko da, baita kokapen geografikoa, edukitza-araubidea, kontserbazio-egoera, antzinatasuna eta arrazoituta ezarritako beste alderdi batzuk ere. Babesak irauten duen legezko epean, etxebizitza babestuen lehenengo eta ondorengo eskualdatzeetako edozein xedatze- edo alokatze-egintzak gehieneko salmenta- edo errenta-prezio bat izango du.

Legeria: Ikus 16.7.9 fitxa

VIVIENDAS TASADAS MUNICIPALES (VTM)

Las promociones de viviendas tasadas municipales tendrán las **mismas características y régimen jurídico que las viviendas de protección social, con las especialidades que se establezcan en las ordenanzas locales** que los ayuntamientos publiquen al efecto, y que deberán contemplar, como mínimo, las siguientes determinaciones:

- Características de las viviendas, locales y anejos de que se trate, con cumplimiento estricto de la normativa técnica de las viviendas de protección social y de habitabilidad.
- Régimen jurídico de las viviendas, locales y anejos de titularidad municipal, con indicación de su calificación, precios, rentas, porcentaje correspondiente a los costes máximos de suelo y urbanización, modo de adjudicación y cualesquiera otros aspectos que resulten procedentes.
- Requisitos que deban cumplir las personas que puedan resultar adjudicatarias de las citadas viviendas, anejos o locales.

TIPOS	• **De régimen especial**: el precio máximo de venta no podrá superar 1,7 veces el precio máximo de las viviendas de protección oficial de régimen general, y computan en el cumplimiento de los estándares establecidos como mínimos en la legislación del suelo para reserva de viviendas de VPP. • **De régimen general: según la regulación municipal concreta.** No computan a los efectos anteriores.
LIMITACIONES EN EL VALOR DE REPERCUSIÓN Y EN EL PRECIO DE TRANSMISIÓN DE SUELO	• El precio de los suelos que se destinen a la promoción de vivienda de protección pública, deberá **respetar los valores máximos de repercusión tanto de suelo como de urbanización** establecidos por sus normativas protectoras respectivas. • A falta de ulteriores reglamentaciones, y para el momento presente, **en ningún caso** el **valor de repercusión de suelo urbanizado** para la vivienda de protección oficial **podrá superar los siguientes límites:** → 15% del precio máximo de venta de las viviendas y demás edificaciones protegidas, en el caso de viviendas de protección oficial de régimen especial. → 20% del precio máximo de venta de las viviendas y demás edificaciones protegidas, en el caso de viviendas de protección oficial de régimen general. → 25% del precio máximo de venta de las viviendas y demás edificaciones protegidas, en el caso de viviendas de protección oficial de régimen tasado de regulación autonómica. Estos límites operan, asimismo, en las transmisiones onerosas de los terrenos, solares, parcelas y edificabilidades urbanísticas ya urbanizadas con destino a la promoción de VPP.
CALIFICACIÓN	• Las **obras de construcción** no pueden iniciarse hasta la obtención de la **calificación provisional** y ello es también requisito para la celebración del **sorteo para la selección de adjudicatarios**. • La **calificación definitiva** será otorgada una vez finalizadas las obras de edificación y urbanización. • Los promotores deben **entregar las viviendas** a los adjudicatarios en propiedad o en arrendamiento en el **plazo máximo de tres años** a contar desde la concesión de la calificación provisional. • La calificación puede afectar a una vivienda, anejo o local, **de forma individual** o formando parte de una promoción inmobiliaria **de forma conjunta.** • Los **anejos no vinculados** o los **locales que no estén calificados**, no tendrán la condición de protegidos, considerándose, por tanto, libres. • Las viviendas de protección pública y sus anejos, sea cual fuere su tipología o promoción, tendrán la **calificación permanente de protección pública**, con **dos excepciones**: → Las viviendas de protección pública adjudicadas en régimen de propiedad para garantizar el derecho al realojo al titular de una vivienda libre afectada por una actuación urbanística o expropiatoria. → Las viviendas, anejos y locales comerciales que se hayan acogido voluntariamente a la calificación de protección pública como consecuencia de un proceso de regeneración, renovación o rehabilitación.

Legislación: Ver ficha 16.7.9

UDAL-ETXEBIZITZA TASATUAK (UET)

Udal-etxebizitza tasatuen sustapenek **babes sozialeko etxebizitzen ezaugarri berak eta araubide juridiko bera** izango dituzte. **Berezitasunak udalek argitaratzen dituzten tokiko ordenantzetan ezarriko dira**, eta, gutxienez, zehaztapen hauek jaso beharko dituzte:

- Etxebizitzen, lokalen eta eranskinen ezaugarriak, zehatz-mehatz beteta babes sozialeko etxebizitzen arau teknikoak eta bizigarritasunari buruzkoak.
- Udal-titulartasuneko etxebizitzen, lokalen eta eranskinen araubide juridikoa, zehaztuta haien kalifikazioa, prezioak, errentak, lurzoruaren eta urbanizazioaren gehieneko kostuei dagokien ehunekoa, esleitzeko modua eta zehaztu beharreko beste edozer.
- Etxebizitza, eranskin edo lokal horien esleipena lor dezaketenek bete beharko dituzten baldintzak.

MOTAK	• **Araubide berezikoak**: gehieneko salmenta-prezioa ez da izango araubide orokorreko babes ofizialeko etxebizitzen gehieneko prezioa halako 1,70 baino altuagoa, eta kontaketan sartzen dira BPEtarako lurzorua erreserbatzeko legerian minimo gisa ezarritako estandarrak betetzeari dagokionez. • **Araubide orokorrekoak: udaleko erregulazio konkretuaren arabera.** Ez dira kontatzen aurreko ondorioetarako.
LURZORUAREN ERAGIN-BALIOAREN ETA ESKUALDATZE-PREZIOAREN MUGAK	• Babes publikoko etxebizitzak sustatzeko lurzoruaren prezioan, ezin dira gainditu dagozkien **babes-arauetan bai lurzorurako eta bai urbanizaziorako jarrita dauden gehieneko eragin-balioak**. • Geroagoko erregelamentaziorik ezean, eta gaur-gaurkoz, babes ofizialeko etxebizitzarako **lurzoru urbanizatuaren eragin-balioak ez ditu inolaz ere muga hauek gainditukо**: → Araubide bereziko babes ofizialeko etxebizitzak direnean, etxebizitza eta gainerako eraikin babestuen gehieneko salmenta-prezioaren % 15. → Araubide orokorreko babes ofizialeko etxebizitzak direnean, etxebizitza eta gainerako eraikin babestuen gehieneko salmenta-prezioaren % 20. → Erregulazio autonomikoko araubide tasatuko etxebizitzak direnean, etxebizitza eta gainerako eraikin babestuen gehieneko salmenta-prezioaren % 25. Muga horiek babes publikoko etxebizitzaren sustapenera zuzendutako lurzoru, orube, partzela eta jada urbanizatutako hirigintza-eraikigarritasunen kostu bidezko eskualdaketetan ere aplikatzen dira.
KALIFIKAZIOA	• **Eraikuntza-obrak** egiten ezingo da hasi, harik eta **behin-behineko kalifikazioa** lortu arte, eta baldintza hori bete beharko da, gainera, **esleipendunak hautatzeko zozketa** egiteko ere. • **Behin betiko kalifikazioa** gero emango da, eraikuntza- eta urbanizazio-obrak amaitu ondoren. • Behin betiko kalifikazioa ematen denetik, sustatzaileek **hiru urteko epea izango dute, gehienez**, esleipendunei **etxebizitza entregatzeko**, dela jabetzan edo dela alokairuan. • Kalifikazioa izan daiteke etxebizitza, eranskin edo lokal bati buruzkoa, **banaka** edo **besterekin batera** sustapen bateko parte izanez. • **Atxiki gabeko eranskinak** edo **kalifikatu gabeko lokalak** ez dira babestutzat hartuko, eta, hortaz, libretzat joko dira. • Babes publikoko etxebizitzek eta haien eranskinek —tipologia edo sustapena edozein dutela ere— **babes publikoko kalifikazio iraunkorra izango dute, bi salbuespenekin**: → Hirigintza- edo desjabetze-jarduketa batek eragindako etxebizitza libre baten titularrari ordezko etxebizitza izateko eskubidea bermatze aldera jabetzan esleitutako babes publikoko etxebizitzak. → Berroneratze-, berritze- edo birgaitze-prozesu bat dela-eta babes publikoko kalifikazioa borondatez hartu duten etxebizitza, eranskin eta merkataritza-lokalak.

Legeria: Ikus 16.7.9 fitxa

ESTÁNDARES Y CUANTÍAS MÍNIMAS DE VIVIENDAS SOMETIDAS A ALGÚN RÉGIMEN DE PROTECCIÓN PÚBLICA	El planeamiento urbanístico municipal puede **calificar cuantos terrenos considere precisos** para la construcción de viviendas sujetas a algún régimen de protección pública. La Ley de Suelo establece la obligación de reserva de estándares mínimos que, con carácter general, se extiende a los **municipios de más de 3.000 habitantes** y a los que cuenten con **núcleos continuos de suelo urbano con una población superior a los 2.000 habitantes.** • En cada área de **suelo urbano no consolidado**: 40% del incremento de la edificabilidad urbanística de uso residencial (un mínimo de un 20% VPO de régimen general y especial; y el resto VPO de régimen tasado). • En cada sector de **suelo urbanizable**: 75% del incremento de la edificabilidad urbanística de uso residencial (un mínimo de un 55% VPO de régimen general y especial y el resto VPO de régimen tasado). → En todo caso, el 40% de la edificabilidad residencial prevista en suelo urbanizable y el 20% en suelo urbano no consolidado por la urbanización. → En todo caso, al menos el 50% de todas las VPP de cada actuación integrada debe ser algún régimen de protección pública de alquiler. → El suelo de reserva de VPP no podrá modificarse, salvo en los casos excepcionales en los que el instrumento de ordenación urbanística justifique la innecesaridad de este tipo de viviendas o la imposibilidad sobrevenida de dicho destino, con independencia de que puedan modificarse las condiciones o características de la vivienda protegida para atender a la demanda y necesidades del ámbito territorial.
	El **cumplimiento de los estándares** se realizará individualmente por cada sector, área o unidad de ejecución, salvo que el planeamiento general, con autorización de la Administración Autónoma del País Vasco, establezca en su primera formulación o revisión otra forma de cumplimiento. En **expedientes de revisión parcial o modificación de planeamiento estructural**, además de la citada autorización, debe garantizarse la ejecución previa o simultánea del mismo número de viviendas de protección pública objeto de transferencia respecto de la edificabilidad liberada de dicho cumplimiento, En suelo urbanizable se establece un límite máximo para la transferencia del 25% del incremento de la edificabilidad urbanística de uso residencial de cada sector. En **modificaciones puntuales y en áreas de regeneración o renovación urbana** (en este caso a instancias del Ayuntamiento y de los afectados), se podrá exonerar total o parcialmente el cumplimiento del estándar mediante la transferencia de la edificabilidad correspondiente al patrimonio municipal de suelo o su equivalente económico.
	En suelo urbano, en las **unidades de ejecución exentas** de la obligación de reserva de suelo para viviendas sometidas a algún régimen de protección pública en las que se prevea un número de viviendas menor o igual a 20 unidades o a 2.000 m^2 de techo, la totalidad de las viviendas resultantes deberá destinarse a viviendas de régimen tasado municipal, salvo renuncia del promotor de la actuación a dicha exención y cumplimiento del porcentaje que le corresponda.
	Los municipios no obligados a reservar suelo con destino a vivienda protegida y que no contemplen reserva alguna de suelo con este fin, **deberán destinar a vivienda de protección pública las parcelas obtenidas por cesión obligatoria** de suelo consecuencia de la participación de la comunidad en las plusvalías generadas por la acción urbanística. Cuando esta cesión no dé lugar al derecho en pleno dominio de al menos un solar o parcela edificable, parte o toda la cesión podrá sustituirse por el abono en metálico de su valor, que quedará adscrito al patrimonio municipal del suelo.

INSPECCIÓN, INFRACCIONES Y SANCIONES	**CARACTERES**	• Las personas que ejercen labores de inspección se consideran **agentes de la autoridad**. • **Trámite previo de audiencia** a los interesados en diligencias previas. • **Resolución pertinente** tras instrucción procedimiento, bien con el archivo de las actuaciones cuando no se estime vulneración o infracción, o bien con la adopción de las medidas cautelares que se estimen oportunas y la incoación del procedimiento sancionador.
	INFRACCIONES Y SANCIONES	• **Muy graves**: Incumplir el deber de conservación y normas de edificación con riesgo seguridad personas, hacer uso de más de una vivienda protegida, sobreprecio, sobreocupación o infravivienda con grave peligro y otros con grave riesgo para las personas, etc. (20.001 - 300.000 €). • **Graves**: Incumplir el deber de conservación y normas de edificación, sobreocupación, infravivienda sin riesgo, no destinar la vivienda a residencia habitual, transmitir la vivienda incumpliendo la normativa, adjudicar viviendas sin procedimiento, etc. (3.001-20.000 €). • **Leves**: No someter a visado, no ocupar la vivienda en plazo, desocupar sin autorización la vivienda, no inscribir los contratos o no depositar la fianza, etc. (300-3.000 €).
	HASTA DESARROLLO REGLAMENTARIO PRECISO, SIGUE EN VIGOR:	• Infracciones por actuaciones punibles de **promotores, constructores y adjudicatarios de VPP.** • **Pueden consistir en**: multas —hasta 6.000 €—, inhabilitaciones de distintos tipos, entre ellas, para intervenir en la formación de proyectos o en la construcción de VPO, pérdida de beneficios financieros, descalificación de la vivienda, etc. • **Además, podrá imponerse** al infractor la obligación de reintegrar las cantidades indebidamente percibidas, así como la ejecución de obras de reparación y conservación y las necesarias para acomodar la edificación al proyecto aprobado y a las normas aplicables.

Legislación: Ver ficha 16.7.9

BABES PUBLIKOKO ARAUBIDEREN BATEN PEAN DAUDEN ETXEBIZITZETARAKO ESTANDAR ETA GUTXIENEKO ZENBATEKOAK	Udalaren hirigintza-plangintzaren bidez, babes publikoko araubideren bati atxikitako etxebizitzak eraikitzeko **nahi beste lursail kalifikatu ahal izango ditu** udal batek. Lurzoruaren Legeak gutxieneko estandarrak erreserbatzeko betebeharra ezartzen du, oro har, **3.000 biztanle baino gehiago dituzten udalerrietan** eta **hiri-lurzoruko gune jarraituak eta 2.000 biztanle baino gehiago dituzten udalerrietan**. • **Hiri-lurzoru finkatu gabeko eremu bakoitzean**: bizitegi-erabilerako hirigintza-eraikigarritasunaren gehikuntzaren % 40 (gutxienez % 20 araubide orokorreko eta bereziko BOEetan, eta gainerakoa araubide tasatuko BOEetan). • **Lurzoru urbanizagarriko** sektore bakoitzean: bizitegi-erabilerako hirigintza-eraikigarritasunaren gehikuntzaren % 75eko gehikuntza (gutxienez % 55 araubide orokorreko eta bereziko BOEetan, eta gainerakoa, araubide tasatuko BOEetan). → Betiere, lurzoru urbanizagarrian aurreikusitako bizitegi-eraikigarritasunaren % 40 eta urbanizazioak finkatu gabeko hiri-lurzoruan % 20. → Betiere, jarduketa integratu bakoitzeko BPE guztien % 50ek, gutxienez, alokairuko babes publikoko araubideren bat izan behar du. → BPEak erreserbatzeko lurzorua ezin izango da aldatu, hirigintza-antolamenduko tresnak mota horretako etxebizitzak beharrezkoak ez direla edo xede hori gerora ezinezkoa dela justifikatzen duen salbuespenezko kasuetan izan ezik, nahiz eta etxebizitza babestuaren baldintzak edo ezaugarriak aldatu lurralde-eremuko eskariari eta premiei erantzuteko.
	Estandarren betetzea banaka egiaztatuko da sektore, eremu edo egikaritze-unitate bakoitzean, salbu eta plangintza orokorrak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak baimenduta, betetzeko beste era bat ezartzen duen bere lehen formulazioan edo berrikuspen integralean. **Egitura-plangintza aldatu edo partzialki berrikusteko espedienteetan**, aipatutako baimenaz gain, bermatu egin behar da transferituko diren babes publikoko etxebizitzen kopuru bera egin behar dela aurretik edo aldi berean, betearazpen horren eraikigarritasun liberatua kontuan hartuta. Lurzoru urbanizagarrian, gehieneko muga sektore bakoitzeko bizitegi-erabilerako hirigintza-eraikigarritasunaren igoeraren % 20koa izango da transferentziarako. **Aldaketa zehatzetan eta hiria birsortu edo berritzeko guneetan** (azken kasu horretan, udalak edo ukituek eskatuta), estandarra betetzetik salbuetsi ahalko da, osorik edo partzialki, lurzoruaren udal-ondareari dagokion eraikigarritasuna edo haren baliokide ekonomikoa transferituta.
	Hiri-lurzoruan, babes publikoko araubideren baten mendeko etxebizitzetarako lurzorua erreserbatzeko betebeharraz **salbuetsitako egikaritze-unitateetan**, baldin eta 20 etxebizitza edo gehiago edo 2.000 m^2-ko sabaiko etxebizitza-kopurua aurreikusten bada, azken buruko etxebizitza guzti-guztiak udal-araubide tasatuko etxebizitzetara bideratu beharko dira. Ez da hala jokatuko baldin eta jardueraren sustatzaileak uko egiten badio eta salbuespen horri dagokion portzentajea betetzen bada.
	Etxebizitza babestuak egiteko lurzorua **erreserbatzera behartuta ez dauden** eta xede horretarako lurzorurik aurreikusten ez duten udalek **babes publikoko etxebizitzak egiteko erabili beharko dituzte lurzoruaren nahitaezko lagapenaren bidez lotutako lursailak**. Hirigintza-ekintzak sortutako gainbalioetan erkidegoak duen partaidetzaren ondorio dira lursail horiek. Lagapenaren ondorioz orube baten edo partzela eraikigarri baten jabetza betea, gutxienez, eskuratzen ez denean, lagapena dirutan ordaindu ahal izango da, dagokion balioaren arabera, lagapen osoarena edo zati batena. Diru hori udalaren lurzoru-ondareari atxikita geratuko da.

IKUSKAPENA, ARAU-HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK	**EZAUGARRIAK**	• Ikuskapen-lanak egiten dituzten pertsonek **agintaritza-agenteen** izaera dute. • Aurretiazko eginbideetan, interesdunei **entzuteko izapidea egingo da aldez aurretik**. • Prozedura instruitu ondoren, **ebazpena emango da**, dela jarduketak artxibatuz —aipatutako urratze edo arau-haustea egin denik uste ez bada—, dela bidezko iritzitako kautelazko neurriak hartuz eta zehapen-prozedurari hasiera emanez.
	ARAU-HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK	• **Oso astunak**: Kontserbatzeko eginbeharra ez betetzea eta eraikuntza-arauak ez betetzea pertsonen segurtasuna arriskuan jarriz; etxebizitza babestu bat baino gehiago erabiltzea; gehiegizko prezioa; gainokupazioa edo infraetxea arrisku larriarekin eta pertsonentzako arrisku larria dakarten beste batzuk, etab. (20.001 - 300.000 €). • **Astunak**: Kontserbatzeko eginbeharra ez betetzea eta eraikuntza-arauak ez betetzea; gainokupazioa; infraetxea arriskurik gabe; etxebizitza ez erabiltzea ohiko etxebizitza gisa; etxebizitza eskualdatzea araudia bete gabe; etxebizitzak esleitzea prozedurarik gabe, etab. (3.001 - 20.000 €). • **Arinak**: Ez bisatzea; etxebizitza ez okupatzea epearen barruan; baimenik gabe desokupatzea; kontratuak ez inskribatzea edo fidantza ez jartzea, etab. (300-3.000 €).
	ERREGELAMENDU BIDEZ GARATU ARTE, INDARREAN SEGITZEN DU:	• **BPEen sustatzaile, eraikitzaile eta esleipendunen** jarduketa okerren ondoriozko arau-hausteak. • **Honelakoak izan daitezke:** isunak —gehienez 6.000 €—, hainbat eratako desgaikuntzak, besteak beste, proiektuen prestakuntzan edo BOEen eraikuntzan esku hartzekoak, finantza-onuren galera, etxebizitzaren deskalifikazioa... • Gainera, behar ez bezala jasotako kopuruak itzultzeko betebeharra jarri ahal izango zaie arau-hausleei, bai eta konponketa- eta kontserbazio-lanak eta eraikina onartutako proiektura eta arau aplikagarrietara egokitzeko beharrezko diren lanak egikaritzea ere.

Legeria: Ikus 16.7.9 fitxa

DERECHO DE REALOJO

⇒ **El derecho de realojo consiste** en la puesta a disposición, por parte del promotor de la actuación urbanística y a favor de la persona afectada ocupante legal de una vivienda habitual cuyo régimen de tenencia se debe extinguir como consecuencia de dicha actuación urbanística, de una vivienda de protección pública en el mismo régimen de tenencia en que la persona afectada ocupaba su vivienda habitual.

No obstante, por acuerdo entre el promotor de la actuación y el afectado este derecho podrá ser materializado en vivienda libre —que podrá ser computada a los efectos del cumplimiento de la obligación de reserva de edificabilidad para viviendas de protección pública—, y en un régimen distinto de tenencia al extinguido.

⇒ La adjudicación de viviendas protegidas para realojo **tiene preferencia sobre los procedimientos ordinarios** de **adjudicación**. Puede eximirse a las personas con derecho a realojo del cumplimiento de todos o algunos de los requisitos de acceso a VPP. El precio concreto de venta o alquiler de la vivienda de realojo se determinará de modo proporcional a los ingresos de la persona o unidad convivencial afectada.

⇒ En las **actuaciones aisladas no expropiatorias**, los arrendatarios de las viviendas demolidas tienen **derecho,** regulado en la legislación de arrendamientos urbanos, **de retorno** a una vivienda de una superficie no inferior al 50 por 100 de la anterior, siempre que tenga al menos 90 metros cuadrados, o no inferior a la que tuviere, si no alcanzaba dicha superficie, de características análogas a aquélla y que esté ubicada en el mismo solar o en el entorno del edificio demolido o rehabilitado, derecho que se podrá ejercer frente al dueño de la nueva edificación.

⇒ En el **planeamiento pormenorizado y en el programa de actuación urbanizadora** deberá incluirse una relación exhaustiva de las personas con derecho a realojo —también las actividades que haya que trasladar o extinguir—, quienes serán parte en el expediente a todos los efectos.

⇒ En el **proyecto de reparcelación deberán constar**, en escritura pública, los acuerdos alcanzados con los titulares de derecho a realojo; en defecto de acuerdo, se acompañará una propuesta de convenio de realojo, traslado o extinción de actividad, que incluya, entre otras determinaciones, la puesta a disposición de una vivienda o instalación específica para realojo o traslado, temporal o definitivo, y las garantías de cumplimiento de los compromisos propuestos.

⇒ **Aprobada la propuesta de convenio** por el ayuntamiento, en caso de **falta de acuerdo o de contestación por el interesado** a la misma en el plazo de un mes, previa comprobación del efectivo cumplimiento de las condiciones de la propuesta por el promotor, el **ayuntamiento decretará el inmediato desalojo** de los inmuebles afectados, siendo de plena aplicación la legislación sobre expropiación forzosa.

Legislación: Texto Refundido de la Ley de Suelo y Rehabilitación Urbana (TRLSR), arts. 18, 19 y 24
Ley 2/2006 de Suelo y Urbanismo País Vasco (LSU), D.A. 2
Ley 3/2015, de 18 de junio, de Vivienda (LvV), arts. 34 y 50
Decreto 105/2008, de 3 de junio, de medidas urgentes en desarrollo de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo (DMU), art. 23
Ver ficha 16.7.9

ORDEZKO BIZITOKIRAKO ESKUBIDEA

⇒ **Ordezko bizitokirako eskubidea honetan datza**: hirigintza-jarduketa baten ondorioz etxebizitza baten edukitze-araubidea iraungi behar bada, jarduketaren sustatzaileak ohiko etxebizitza moduan erabiltzen duen legezko okupatzailearen eskura jartzea babes publikoko etxebizitza bat, ukitutako pertsona horrek bere ohiko etxebizitzan zuen edukitze-araubide bararekin.

Hala ere, jarduketa-sustatzailearen eta ukitutako pertsonaren arteko akordio bidez ere gauzatu ahal izango da eskubide hori, etxebizitza libre batean —eta hori zenbatu ahal izango da babes publikoko etxebizitzetarako eraikigarritasun-erreserbako eginbeharra betetze aldera— eta iraungitakoaz bestelako edukitze-araubide batean.

⇒ Etxebizitza babestuak ordezko bizitokia emateko esleitzeak **lehentasuna du, betiere, ohiko esleipen-prozeduren aldean**. Ordezko bizitokia izateko eskubidea duten pertsonak salbuetsi egin daitezke BPEak eskuratzeko baldintza guztiak edo batzuk betetzetik. Ordezko etxebizitzaren salmenta- edo errenta-prezio zehatza ukitutako pertsonaren edo bizikidetza-unitatearen diru-sarreren arabera kalkulatuko da.

⇒ Desjabetzekoak ez diren jarduera isolatuetan, eraitsitako etxebizitzen errentariek eskubidea dute, hiri-errentamenduen legedian ezarritakoaren arabera, aurrekoaren gutxienez 100eko 50eko azalera duen etxebizitza bat itzul dakien, baldin eta gutxienez 90 metro karratu, edo azalera horretara iritsi ezean, lehen zuena adinako azalera, badauka lehengoaren antzeko ezaugarriekin eta eraitsitako edo birgaitutako eraikinaren inguruan edo orube berean kokatua. Eskubide hori eraikuntza berriaren jabearen aurrean baliatu ahalko da.

⇒ Plangintza xehatuan eta urbanizatzeko jarduketa-programan, beste bizitoki baterako eskubidea duten pertsonen zerrenda orohartzaile bat erantsi beharko da —bai eta lekuz aldatu edo iraungi behar diren jarduerak ere—, eta haiek alderdi-izaera edukiko dute espedientean, ondorio guztietarako.

⇒ **Birpartzelazio-proiektuan jasoko dira**, eskritura publiko baten bidez, ordezko bizitokia hartzeko eskubidearen titularrekin lortutako akordioak; akordiorik lortu ezean, beste bizileku bat hartzeko, lekuz aldatzeko edo jarduera iraungitzeko hitzarmen-proposamen bat erantsiko zaio proiektuari, eta hark, besteak beste, zehaztapen hauek jasoko ditu: ordezko bizitokirako edo lekuz aldatzeko etxebizitza edo instalazio berariazko bat (aldi baterakoa edo behin betikoa), eskura jartzea, eta proposatutako konpromisoak betetzeko bermeak.

⇒ Udalak **hitzarmen-proposamena onartu duelarik**, **akordiorik ez badago edo interesdunak hari buruzko erantzunik eman ez badu** hilabeteko epean, sustatzaileak proposameneko baldintzak benetan betetzen dituela egiaztatu ondoren, eraginpeko higiezinak **berehala uzteko aginduko du udalak**, eta, kasu horretan, erabat aplikatzekoa izango da nahitaezko desjabetzeari buruzko legeria.

Legeria:

Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testu bategina (LHBLTB), 18., 19. eta 24. artikuluak
2/2006 Legea, EAEko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa (LHL), 2. xedapen gehigarria
3/2015 Legea, ekainaren 18koa, Etxebizitzarena (EL), 34. eta 50. artikuluak
105/2008 Dekretua, ekainaren 3koa, Lurzoruari eta hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea garatzen duten premiazko neurriei buruzkoa, 23. artikulua
Ikus 16.7.9 fitxa

ALOJAMIENTOS DOTACIONALES

⇒ Son **equipamientos de titularidad pública** construidos en parcelas de dominio y uso público, destinados tanto **a alojamiento transitorio** como a **alojamiento social** de colectivos **especialmente necesitados**.

⇒ **Los de régimen autonómico** dispondrán de **unidades de alojamiento** de entre 25 y 60 m² útiles; todas las instalaciones serán comunitarias, salvo las de telecomunicaciones; pueden tener zonas comunes de uso y acceso restringido desde el interior de los inmuebles para instalaciones y usos de servicio y de estancia que no sean resueltos en la propia unidad de alojamiento; el **régimen de acceso** se producirá mediante el abono de un canon mensual; y la **permanencia** se fijará por meses, con un plazo máximo de un año, susceptible de ser prorrogado anualmente en cuatro ocasiones.

⇒ El **planeamiento urbanístico** de municipios con población igual o superior a 20.000 habitantes **debe calificar** en ámbitos residenciales con destino a **alojamientos dotacionales** una superficie de suelo no inferior a 1,5 m² ni superior a 2,5 m² por cada incremento de 100 m² de techo de uso residencial o, en su defecto, por cada nueva vivienda prevista, suelo que será cedido en un 75% a favor de la Administración autonómica y en un 25% a favor del Ayuntamiento, salvo que éste decida reservarse un porcentaje mayor.

⇒ En suelo **urbano** consolidado el planeamiento podrá destinar a este fin **parcelas de equipamiento comunitario ya existentes**, siempre que se acredite la disponibilidad de parcelas suficientes para atender otras necesidades sociales que lo requieran.

Forma de cumplimiento: La localización concreta se establecerá en la ordenación pormenorizada, siendo posible el cumplimiento conjunto. Un 75% (las tres primeras de cada cuatro parcelas) será cedido a la administración autonómica y el resto al municipio, salvo que el municipio se reserve un porcentaje superior.

VIVIENDAS ASEQUIBLES

Son viviendas de titularidad privada, incluidas las entidades del tercer sector y de la economía social**,** a cuyo titular la Administración competente otorga beneficios de carácter urbanístico, fiscal, o de cualquier otro tipo, a cambio de destinarlas a residencia habitual en régimen de alquiler, o de cualquier otra fórmula de tenencia temporal, de personas cuyo nivel de ingresos no les permite acceder a una vivienda a precio de mercado. Los beneficios públicos que se asignen a estas viviendas estarán vinculados a las limitaciones de uso, temporales y de precios máximos que, en cada caso, determine la Administración competente.

- Son de uso exclusivo de residencia habitual y cuyos arrendatarios tengan dificultades para acceder a una vivienda a precios de mercado, de acuerdo con los criterios que fije la Administración.
- No son calificables como VPP, pero estarán sujetas a las reglas procedimentales que determine la Administración competente para garantizar el cumplimiento de las condiciones de renta de alquiler limitada.
- Pueden ser de nueva promoción o ya existentes, siempre que cumplan los requisitos legalmente establecidos, que aseguren la adecuación y calidad de las mismas, contribuyendo a favorecer la cohesión social.

Se entiende que un alquiler asequible es aquel que no suponga un esfuerzo financiero excesivo de los hogares teniendo en cuenta sus ingresos netos y sus características particulares, considerando, tanto la cuota hipotecaria o la renta arrendaticia, como los gastos y suministros básicos que corresponda satisfacer al propietario hipotecado o al arrendatario, no debiendo superar con carácter general el 30 por ciento de los ingresos de la unidad de convivencia.

En zonas rurales sujetas a fenómenos de pérdida de población, la vivienda asequible incentivada podrá acompañar el desarrollo de estrategias de dinamización social y económica, así como la creación de empleo y actividad en tales zonas.

Los instrumentos de ordenación urbanística podrán promover la puesta en el mercado de viviendas en régimen de alquiler durante períodos de tiempo determinados y a precios asequibles, permitiendo incrementos de edificabilidad o densidad o la asignación de nuevos usos a una vivienda o a un edificio de viviendas, incluidos en ámbitos delimitados al efecto.

Legislación: Ley 3/2015, de 18 de junio, de Vivienda (LvV), arts. 19 a 39 y D.A.
Ley 12/2023 por el derecho a la Vivienda (LeV), arts. 3.d, 3.f, 3.g, 16, 17 y DT 1.
Ver ficha 16.7.9

ZUZKIDURA-BIZITOKIAK

⇒ Jabari eta erabilera publikoko partzeletan eraikitako **titulartasun publikoko ekipamenduak** dira, bai **aldi baterako bizitoki** izateko bai **premia berezia** duten kolektiboentzako **bizitoki sozial** bihurtzeko bideratuak.

⇒ **Araubide autonomikokoek** 25 eta 60 m^2 erabilgarri bitarteko **bizitoki-unitateak** edukiko dituzte; instalazio guztiak komunitarioak izango dira, telekomunikazioetakoak izan ezik; erabilera eta sarrera mugatuko alde komunak ere izan ditzakete, higiezinen barnealdetik itxiak, bizitoki-unitate berean ebatziak ez dauden zerbitzuko eta egonaldiko instalazio eta erabileretarako; **sarbide-araubidea** hileko kanon bat ordainduz gauzatuko da, eta **iraupena** hileka ezarriko da, eta gehienez ere urtebetekoa izango da (epe hori, dena dela, urtero luzatu ahal izango da lau aldiz).

⇒ 20.000 biztanle edo gehiago duten udalerrien hirigintza-plangintzak lurzoru-azalera bat kalifikatu behar du erabilera nagusia bizitokirakoa izango duten eremuetan, **zuzkidura-etxebizitzak** egiteko. Azalera hori ez da izango 1,5 m^2 baino gutxiago, ez eta 2,5 m^2 baino gehiago ere, bizitoki-erabilerako sabaiko 100 m^2-ko gehikuntza bakoitzeko, edo, hori zehaztu ezin bada, aurreikusitako etxebizitza bakoitzeko. Lurzoru horren % 75 administrazio autonomikoari lagako zaio, eta % 25, udalari, salbu eta udalak ehuneko handiagoa erreserbatzea erabakitzen badu.

⇒ **Hiri-lurzoru** finkatuan, **erkidegoaren ekipamendurako lehendik dauden partzela batzuk** ere erabili ahal izango ditu plangintzak xede horretarako, betiere egiaztatzen baldin bada beste beharrizan sozial batzuei erantzuteko nahikoa ekipamendu-partzela daudela erabilgarri.

Betetzeko modua: Kokapen zehatza antolamendu xehatuan ezarriko da, eta batera bete ahal izango da. % 75 (lau partzelatatik lehenengo hirurak) administrazio autonomikoari lagako zaio, eta gainerakoa udalari, udalak ehuneko handiagoa erreserbatu ezean.

ETXEBIZITZA ESKURAGARRIAK

Titulartasun pribatuko etxebizitzak dira, hirugarren sektoreko eta gizarte-ekonomiako entitateak barne, zeinen titularrari onura urbanistikoak, fiskalak edo beste edozein motatakoak ematen baitizkio administrazio eskudunak, etxebizitza horiek ohiko bizileku gisa erabil ditzaten, alokairu-araubidean edo aldi baterako beste edozein edukitze-formula erabiliz, beren diru-sarreren mailaren ondorioz etxebizitza bat merkatuko prezioan eskuratu ezin dutenek. Etxebizitza horiei esleitzen zaizkien onura publikoak lotuta egongo dira administrazio eskudunak kasu bakoitzean ezartzen dituen erabilera-mugei, denbora-mugei eta gehieneko prezioei.

- Ohiko bizileku gisa baino ezin dira erabili, eta maizterrek zailtasunak izan behar dituzte merkatuko prezioetan etxebizitza bat eskuratzeko, Administrazioak finkatzen dituen irizpideen arabera.
- Ezin dira BPE gisa kalifikatu, baina administrazio eskudunak alokairu-errenta mugatuko baldintzak betetzen direla bermatzeko ezarritako prozedura-arauen mende egongo dira.
- Sustapen berrikoak edo lehendik daudenak izan daitezke, betiere legez ezarritako baldintzak betetzen badituzte, haien egokitasuna eta kalitatea bermatzen badute eta gizarte-kohesioaren alde egiten badute.

Alokairu eskuragarria da diru-sarrera garbiak eta ezaugarri partikularrak kontuan hartuta familiei gehiegizko finantza-ahalegina egitea ez dakarkiena; horretarako, hipoteka-kuota edo errentamendu-errenta eta jabe hipotekatuari edo errentariari ordaindu beharreko oinarrizko gastu eta hornidurak hartzen dira aintzakotzat, eta, oro har, ezin da bizikidetza-unitatearen diru-sarreren ehuneko 30 gainditu.

Biztanleria galtzen ari diren landa-eremuetan, sustatutako etxebizitza eskuragarriek dinamizazio sozial eta ekonomikorako estrategiak garatzen lagundu ahal izango dute, bai eta eremu horietan enplegua eta jarduera sortzen ere.

Hirigintza-antolamenduko tresnek alokairu-araubideko etxebizitzak merkaturatzea sustatu ahal izango dute denboraldi jakin batzuetan eta arrazoizko prezioetan, eta eraikigarritasuna edo dentsitatea handitzeko aukera emango dute, edo etxebizitza bati edo etxebizitza-eraikin bati erabilera berriak esleitzeko aukera, horretarako mugatutako eremuetan.

Legeria: 3/2015 Legea, ekainaren 18koa, Etxebizitzarena (EL), 19.etik 39. artikulura eta xedapen gehigarria
12/2023 Legea, Etxebizitzarako Eskubidearen Aldekoa, 3.d, 3.f, 3.g, 16. eta 17. artikuluak eta 1. xedapen iragankorra
Ikusi 16.7.9 fitxa

CONCEPTO Y FINES	Los parques de vivienda y alojamiento del tercer sector (PPV) son el conjunto de inmuebles de titularidad o gestionados por entidades sin ánimo de lucro con fines sociales vinculados a la vivienda, destinados a satisfacer la necesidad de vivienda o alojamiento de personas u hogares en situación de vulnerabilidad o en riesgo de exclusión social, o proveer vivienda asequible a amplias capas de la sociedad. Los PPV tienen por finalidad contribuir al buen funcionamiento del mercado de la vivienda y servir de instrumento a las distintas Administraciones públicas competentes en materia de vivienda para hacer efectivo el derecho a una vivienda digna y adecuada de los sectores de la población que tienen más dificultades de acceso en el mercado, con especial atención a personas jóvenes y colectivos sujetos a mayor vulnerabilidad. Todos Ayuntamientos y el Gobierno Vasco deberán elaborar y mantener actualizado un inventario del parque público de vivienda de su titularidad y de sus entes adscritos o dependientes, en el que se incluirá, al menos, la siguiente información: a) Identificación de las viviendas que lo componen. b) Características fundamentales de las viviendas. c) Situación de uso de las mismas. d) Características de las personas u hogares usuarios. Anualmente se elaborará, y publicará en la sede electrónica, la actualización del inventario que permita la conformación de un mapa de la vivienda social para facilitar su acceso por parte de la ciudadanía. Asimismo, se recogerá la información sobre las actuaciones previstas para reforzar el parque de vivienda social en los próximos cuatro años.
ADMINISTRACIONES TITULARES	Todas las Administraciones públicas competentes en materia de vivienda (Gobierno Vasco -LvV- y Ayuntamientos, -LILE-) pueden disponer de Parques Públicos de Vivienda y para ello: a) Crear, ampliar y gestionar, directa o indirectamente y sobre los suelos de su titularidad, incluidos los obtenidos para dotaciones públicas, parques públicos de vivienda, llevando a cabo, cuando proceda, la urbanización de los terrenos de conformidad con la ordenación territorial y urbanística. b) Otorgar derechos de superficie o concesiones administrativas a terceros para que edifiquen, rehabiliten y/o gestionen viviendas del parque público, siempre que quede garantizada la titularidad pública del suelo, mediante los correspondientes procedimientos que garanticen la transparencia y pública concurrencia en la concesión de estos derechos. c) Asignar recursos públicos a entidades sin ánimo de lucro con la finalidad de hacer más eficiente y próxima la gestión de las viviendas de los parques públicos, siempre que dicha gestión quede reservada a tales entidades o a la Administración territorial o ente instrumental correspondiente y que la asignación se realice acorde con los objetivos de cobertura del derecho a la vivienda y de conformidad con la normativa reguladora. d) Enajenar los bienes patrimoniales integrantes de los parques públicos de vivienda, mediante los procedimientos admitidos por la legislación aplicable, únicamente a otras Administraciones Públicas, sus entes instrumentales o a personas jurídicas sin ánimo de lucro, dedicadas a la gestión de vivienda con fines sociales, y mediante la obligación por parte del nuevo o nuevos titulares, de atenerse a las condiciones, plazos y rentas máximas establecidos, subrogándose en sus derechos y obligaciones.
COMPOSICIÓN DEL PPV	Sin perjuicio de los PMS de cada administración, pueden formar parte de los PPV los siguientes elementos: a) Las viviendas dotacionales públicas. b) Las viviendas sociales y protegidas construidas sobre suelo de titularidad pública, así como las que lo hayan sido en ejercicio del derecho de superficie, usufructo o cesión de uso y para alquiler con opción a compra, durante el tiempo en el que no se active la correspondiente opción. c) Las viviendas sociales adquiridas por las Administraciones Públicas en ejercicio de los derechos de tanteo y retracto, de conformidad con lo que disponga la legislación aplicable y las adquiridas a través de esos mismos derechos, en casos de ejecución hipotecaria o dación en pago de vivienda habitual de colectivos en situación de vulnerabilidad o en exclusión social, tal y como prevé la legislación autonómica. d) Las viviendas sociales adquiridas por las Administraciones Públicas en actuaciones de regeneración o de renovación urbanas, incluyendo las integradas en complejos inmobiliarios, tanto de forma gratuita en virtud del cumplimiento de los deberes y cargas urbanísticos correspondientes, como onerosa. e) Cualquier otra vivienda social adquirida por las Administraciones Públicas con competencias en materia de vivienda, o cedida a las mismas.
DESTINO DEL PPV	Todos Ayuntamientos y el Gobierno Vasco, con el fin de garantizar el derecho de acceso a la vivienda, el uso eficiente de los recursos públicos y la corresponsabilidad de los ocupantes de la vivienda, destinarán las viviendas del PPV a: • Las personas y hogares con mayores dificultades para acceder a una vivienda en el mercado, en razón de sus circunstancias sociales y económicas, atendiendo a factores específicos de vulnerabilidad como la presencia de menores de edad en el hogar o unidad de convivencia, así como a las características y particularidades del ámbito territorial. La ocupación y el disfrute de las viviendas que formen parte de parques públicos pueden producirse, de acuerdo con la correspondiente legislación y normativa de aplicación, en régimen de alquiler, cesión de uso, o cualesquiera otras formas legales de tenencia temporal en las condiciones de renta y con los requisitos que establezcan las respectivas Administraciones públicas en función de la demanda existente, las condiciones socioeconómicas de las personas, familias y unidades de convivencia destinatarias y las características del mercado de vivienda, incorporando criterios de inclusión, cohesión social y asequibilidad.

Legislación: Ley 2/2006 de Suelo y Urbanismo País Vasco (LSU), arts. 4, 16, 25, 26, 27, 48, 50, 53, 111 a 130, 176, 177, 183 y D.A. 10
Ley 3/2015, de 18 de junio, de Vivienda (LvV), arts. 14 a 18 y D.A. 4 (en lo referido al PMS de la CAPV) y 19 (en cuanto a la calificación de los alojamientos dotacionales como parque residencial protegido).
Ley 12/2023 por el derecho a la Vivienda (LeV), arts. 3.h, 27, 28, 29, 32 y D.T. 1

KONTZEPTUA ETA HELBURUAK	Hirugarren sektoreko etxebizitza- eta bizitoki-parkeak (EPP) dira titularra edo kudeatzailea irabazi-asmorik gabeko entitateak dituztenak, zeinen helburu sozialak etxebizitzari lotuta baitaude, eta zaurgarritasun-egoeran edo gizarte-bazterkeriako arriskuan dauden pertsonen edo familien etxebizitza- edo bizitoki-premiak asetzera edo gizarteko maila zabalei etxebizitza eskuragarria hornitzera bideratuta daudenak. EPPen xedea da etxebizitza-merkatuaren funtzionamendu egokiari laguntzea eta etxebizitzaren arloan eskumena duten administrazio publikoentzat tresna izatea, merkatuan sartzeko zailtasun handienak dituzten biztanleria-sektoreek etxebizitza duin eta egokia izateko duten eskubidea gauzatzeko, arreta berezia jarrita gazteengan eta zaurgarritasun handiena duten kolektiboengan. Udal guztiek eta Eusko Jaurlaritzak beren titulartasuneko eta atxikitako edo mendeko erakundeen etxebizitza-parke publikoaren inbentarioa egin beharko dute, eta eguneratuta eduki. Inbentario horretan informazio hau jasoko da, gutxienez: a) Inbentarioa osatzen duten etxebizitzak identifikatzea. b) Etxebizitzen ezaugarri nagusiak. c) Etxebizitzen erabilera-egoera. d) Pertsona edo etxe-erabiltzaileen ezaugarriak. Urtero, inbentarioa eguneratu eta egoitza elektronikoan argitaratuko da, etxebizitza sozialaren mapa osatu ahal izateko, herritarrek errazago eskuratu ahal izan dezaten. Halaber, hurrengo lau urteetan etxebizitza sozialen parkea indartzeko aurreikusitako jarduketei buruzko informazioa jasoko da.
ADMINISTRAZIO TITULARRAK	Etxebizitza alorrean eskumena duten administrazio publiko guztiek (Eusko Jaurlaritza —Etxebizitzaren Legea— eta udalek, —ETEL—) etxebizitza-parke publikoak izan ditzakete, eta, horretarako, ahalmen hauek baliatu ahal izango dituzte: a) Etxebizitza-parke publikoak sortu, handitu eta kudeatu, zuzenean edo zeharka, bere titulartasuneko lurzoruetan, baita zuzkidura publikoetarako lortutakoak ere; horretarako, hala behar denean, lursailak urbanizatuko dituzte, lurralde- eta hirigintza-antolamenduaren arabera. b) Hirugarrenei azalera-eskubideak edo administrazio-emakidak eman, parke publikoko etxebizitzak eraiki, birgaitu edo kudeatu ditzaten, betiere lurzoruaren titulartasun publikoa bermatzen bada, eskubide horiek ematean gardentasuna eta lehia publikoa bermatzen duten prozeduren bidez. c) Irabazi-asmorik gabeko entitateei baliabide publikoak esleitu, parke publikoetako etxebizitzen kudeaketa eraginkorragoa eta hurbilagoa izan dadin, baldin eta kudeaketa hori entitate horientzat edo dagokion lurralde-administrazioarentzat edo erakunde instrumentalarentzat erreserbatuta badago, eta esleipena egiten bada etxebizitza-eskubidearen estaldura-helburuekin bat etorriz eta araudi erregulatzailearen arabera. d) Etxebizitza-parke publikoak osatzen dituzten ondare-ondasunak besterendu, aplikatzekoa den legerian onartutako prozeduren bidez, soilik beste administrazio publiko batzuei, haien erakunde instrumentalei edo irabazi-asmorik gabeko pertsona juridikoei, baldin eta etxebizitzak xede sozialekin kudeatzera dedikatzen badira, eta titular berriek ezartzen diren baldintza, epe eta gehieneko errentei men egiteko betebeharra bere gain hartuz, haien eskubide eta betebeharretan subrogatuz.
EPPren OSAERA	Administrazio bakoitzaren ULOei kalterik egin gabe, elementu hauek parte har dezakete EPPetan: a) Zuzkidura-etxebizitza publikoak. b) Titulartasun publikoko lurzoruan eraikitako etxebizitza sozialak eta babestuak, bai eta azalera-eskubidea, usufruktua edo erabilera-lagapena baliatuz eraikitakoak eta erosteko aukera ematen duen alokairurako eraikitakoak ere, dagokion aukera aktibatzen ez den bitartean. c) Administrazio publikoek lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubideak baliatuz eskuratutako etxebizitza sozialak, aplikatu beharreko legeriak xedatzen duenaren arabera, eta eskubide horien bitartez eskuratutakoak, zaurgarritasun-egoeran edo gizarte-bazterketako egoeran dauden kolektiboek hipoteka exekutatzen dutenean edo ohiko etxebizitza ordainean ematen dutenean, autonomia-erkidegoko legeriak aurreikusten duen bezala. d) Administrazio publikoek hiri-berroneratzeko edo -berrikuntzako jarduketetan eskuratutako etxebizitza sozialak, higiezinen konplexuetan integratutakoak barne, bai doan, dagozkion hirigintza-eginbeharrak eta -kargak betez, bai kostu bidez. e) Etxebizitzaren arloan eskumenak dituzten administrazio publikoek eskuratutako edo haiei lagatako beste edozein etxebizitza sozial.
EPPren XEDEA	Udal guztiek eta Eusko Jaurlaritzak, etxebizitza eskuratzeko eskubidea, baliabide publikoen erabilera eraginkorra eta etxebizitzaren okupatzaileen erantzukidetasuna bermatzeko, helburu hauetara bideratuko dituzte EPPko etxebizitzak: • Beren egoera sozial eta ekonomikoa dela-eta, merkatuan etxebizitza bat eskuratzeko zailtasun handienak dituzten pertsonak eta familiak, zaurgarritasun-faktore espezifikoei erreparatuta, hala nola adingabeak etxean edo bizikidetza-unitatean egotea, bai eta lurralde-eremuaren ezaugarriak eta berezitasunak ere. Parke publikoak osatzen dituzten etxebizitzak alokairuan, erabilera-lagapenean edo aldi baterako edukitzaren legezko beste edozein modutan okupatu eta gozatu ahal izango dira, dagokion legeria eta araudi aplikagarriarekin bat etorriz, betiere administrazio publikoek ezarritako irizpideen arabera eta errentari buruzko baldintzak beteta (eskaria, hartzaileen, familien eta bizikidetza-unitateen baldintza sozioekonomikoak eta etxebizitza-merkatuaren ezaugarriak kontuan hartuta, eta gizarteratzeko, gizarte-kohesiorako eta eskuragarritasunerako irizpideak txertatuta).

Legeria: 2/2006 Legea, EAEko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa (LHL), 4., 16., 25., 26., 27., 48., 50., 53., 111.etik 130.era artekoak, 176., 177. eta 183. artikuluak, eta 10. xedapen gehigarria
3/2015 Legea, ekainaren 18koa, Etxebizitzarena (EL), 14.etik 18. artikulura eta 4. xedapen gehigarria ((EAEko udalen lurzoru-ondareari dagokionez), eta 19. artikulua (zuzkidura-bizitokiak babestutako egoitza-parketzat hartzeari dagokionez)
12/2023 Legea, Etxebizitzarako Eskubidearen aldekoa, 3.h, 27., 28. 29. 32. eta 1. xedapen iragankorra

La Ley 12/2023 por el derecho a la Vivienda (LeV)
ha articulado nuevos mecanismos de movilización de vivienda en precios de alquiler asequible.

DECLARACIÓN DE ZONAS DE MERCADO RESIDENCIAL TENSIONADO (DZMT)

Entre otras medidas para combatir la especulación y favorecer la movilización del parque de vivienda en un arrendamiento asequible, es posible **declarar zonas de mercado residencial tensionado** (DZMT), con el objeto de favorecer el equilibrio entre la oferta de vivienda y la necesidad de residencia habitual, promoviendo los instrumentos, la planificación y las medidas necesarias para revertir, desde los poderes públicos, tal situación; y donde es preciso movilizar todo el suelo que potencialmente pueda ser destinado a usos residenciales para hacer frente a la escasez de oferta asequible que caracteriza dichos entornos.

El Departamento de Vivienda del Gobierno Vasco podrá declarar DZMT, de acuerdo con los criterios y procedimientos establecidos en su normativa reguladora y en el ámbito de sus competencias, a los efectos de orientar las actuaciones públicas en materia de vivienda en aquellos ámbitos territoriales en los que exista un especial riesgo de oferta insuficiente de vivienda para la población, en condiciones que la hagan asequible para su acceso en el mercado, de acuerdo con las diferentes necesidades territoriales.

La DZMT requiere:

- Un procedimiento preparatorio dirigido a la obtención de información relacionada con la situación del mercado residencial en la zona, incluyendo los indicadores de los precios en alquiler y venta de diferentes tipos de viviendas y su evolución en el tiempo; los indicadores de nivel de renta disponible de los hogares residentes y su evolución en el tiempo que, junto con los precios de vivienda, permitan medir la evolución del esfuerzo económico que tienen que realizar los hogares para disponer de una vivienda digna y adecuada.
- La realización de un trámite de información en el que deberá ponerse a disposición pública la información sobre la que se basa tal declaración, incluyendo los estudios de distribución espacial de la población y hogares, su estructura y dinámica, así como la zonificación por oferta, precios y tipos de viviendas, o cualquier otro estudio que permita evidenciar o prevenir desequilibrios y procesos de segregación socio espacial en detrimento de la cohesión social y territorial.
- Motivar las deficiencias o insuficiencias del mercado de vivienda en la zona, en cualquiera de sus modalidades, para atender adecuadamente la demanda de vivienda habitual y, en todo caso, a precio razonable según la situación socioeconómica de la población residente y las dinámicas demográficas, así como las particularidades y características de cada ámbito territorial. La resolución del procedimiento de delimitación deberá ser comunicada a la Secretaría General de Agenda Urbana y Vivienda del Ministerio de Transportes, Movilidad y Agenda Urbana.
- La vigencia de la declaración de un ámbito territorial como zona de mercado residencial tensionado será de tres años, pudiendo prorrogarse anualmente siguiendo el mismo procedimiento, cuando subsistan las circunstancias que motivaron tal declaración y previa justificación de las medidas y acciones públicas adoptadas para revertir o mejorar la situación desde la anterior declaración. Para la aplicación de la declaración, con carácter trimestral, el Ministerio de Transportes, Movilidad y Agenda Urbana aprobará una resolución que recoja la relación de zonas de mercado residencial tensionado que hayan sido declaradas en virtud del procedimiento establecido legalmente.
- La redacción, por parte de la Administración competente, de un plan específico que propondrá las medidas necesarias para la corrección de los desequilibrios evidenciados en su declaración, así como su calendario de desarrollo.

La DZMT requerirá la elaboración de una memoria que justifique, a través de datos objetivos y fundamentada en la existencia de un especial riesgo de abastecimiento insuficiente de vivienda para la población residente, incluyendo las dinámicas de formación de nuevos hogares, en condiciones que la hagan asequible, **por producirse una de las circunstancias siguientes**:

a) Que la carga media del coste de la hipoteca o del alquiler en el presupuesto personal o de la unidad de convivencia, más los gastos y suministros básicos, supere el treinta por ciento de los ingresos medios o de la renta media de los hogares.
b) Que el precio de compra o alquiler de la vivienda haya experimentado en los cinco años anteriores a la declaración como área de mercado de vivienda tensionado, un porcentaje de crecimiento acumulado al menos tres puntos porcentuales superior al porcentaje de crecimiento acumulado del índice de precios de consumo de la comunidad autónoma correspondiente.

Los efectos de la DZMT son:

- El propietario de la vivienda incluida en una DZMT tiene el deber de colaboración con la Administración competente y el de suministrar la información que se le requiera, referida al año anterior, de:
  - → Los datos identificativos de la vivienda y el edificio en que se ubica, incluyendo la dirección postal, año de construcción y, en su caso, año y tipo de reforma, superficie construida de uso privativo por usos, referencia catastral y calificación energética.
  - → Régimen de utilización efectiva de la vivienda, en el contexto de los de usos previstos en los instrumentos de ordenación territorial y urbanística.
  - → Justificación del cumplimiento de los deberes asociados a la propiedad de vivienda.
- Los suelos obtenidos por el 15% de todas las actuaciones de urbanización (suelo urbanizable-SURBLE y suelo urbano no consolidado-SUNC) deberán destinarse necesariamente a la construcción y gestión de viviendas sociales o dotacionales, y no podrá sustituirse por ningún otro uso público o de interés social ni por otras formas de cumplimiento del deber, salvo que se acredite la necesidad de destinarlo a otros usos de interés social.
- La necesidad de diseñar políticas financieras y de vivienda para paliar la situación en dichas zonas al objeto de alcanzar un parque mínimo de viviendas destinadas a políticas sociales del 20 por ciento respecto al total de hogares del municipio.
- En los contratos de arrendamiento de vivienda habitual, cuando finalice el periodo de prórroga obligatoria o el periodo de prórroga tácita, previa solicitud del arrendatario, podrá prorrogarse de manera extraordinaria el contrato de arrendamiento por plazos anuales, por un periodo máximo de tres años, durante los cuales se seguirán aplicando los términos y condiciones establecidos para el contrato en vigor. Esta solicitud de prórroga extraordinaria deberá ser aceptada obligatoriamente por el arrendador, salvo que se hayan fijado otros términos o condiciones por acuerdo entre las partes, se haya suscrito un nuevo contrato de arrendamiento con las limitaciones en la renta, o en el caso de que el arrendador haya comunicado en los plazos y condiciones establecidos en la Ley 12/2023, la necesidad de ocupar la vivienda arrendada para destinarla a vivienda permanente para sí o sus familiares en primer grado de consanguinidad o por adopción o para su cónyuge en los supuestos de sentencia firme de separación, divorcio o nulidad matrimonial.
- En los contratos de arrendamiento de vivienda sujetos a la Ley 12/2023, la renta pactada al inicio del nuevo contrato no podrá exceder de la última renta de contrato de arrendamiento de vivienda habitual que hubiese estado vigente en los últimos cinco años en la misma vivienda, una vez aplicada la cláusula de actualización anual de la renta del contrato anterior, sin que se puedan fijar nuevas condiciones que establezcan la repercusión al arrendatario de cuotas o gastos que no estuviesen recogidas en el contrato anterior.
- Las rentas pactadas al inicio del nuevo contrato no podrán exceder del límite máximo del precio aplicable conforme al sistema de índices de precios de referencia atendiendo a las condiciones y características de la vivienda arrendada y del edificio en que se ubique, pudiendo desarrollarse reglamentariamente las bases metodológicas de dicho sistema y los protocolos de colaboración e intercambio de datos con los sistemas de información estatales y autonómicos de aplicación.
- Asimismo, cuando el propietario sea un gran tenedor, o en el caso de viviendas que no hubiesen estado arrendadas como vivienda habitual en los últimos cinco años cuando ello se justifique en la declaración de la zona, no podrá exceder del límite máximo del precio aplicable conforme al sistema de índices de precios de referencia, cuya aplicación se define a través de una nueva disposición transitoria que se introduce en la Ley 29/1994, de 24 de noviembre, de Arrendamientos Urbanos.

Legislación: Texto Refundido de la Ley de Suelo y Rehabilitación Urbana (TRLSR), art. 20.1.a.
Ley 2/2006 de Suelo y Urbanismo País Vasco (LSU), arts. 14.2.b, 16, 17, 80 y 81
Ley 3/2015, de 18 de junio, de Vivienda (LvV), arts. 6, 7, 8, 9 y D.T. 4
Ley 12/2023 por el derecho a la Vivienda (LeV), arts. 11, 15, 18, 19, 20, D.A. 2, D.A. 3 y D.F. 1
Ver ficha 16.7.9

Etxebizitzarako Eskubidearen aldeko
12/2023 Legeak etxebizitzak alokairu-prezio eskuragarrian mobilizatzeko mekanismoak antolatu ditu.

BIZITEGI-MERKATU TENTSIONATUKO GUNEEN DEKLARAZIOA (BTGD)

Espekulazioari aurre egiteko eta etxebizitza-parkea arrazoizko errentamendu batean mobilizatzen laguntzeko beste neurri batzuen artean, posible da **bizitegi-merkatu tentsionatuko guneak deklaratzea** (BTGD), etxebizitza-eskaintzaren eta ohiko bizilekuaren beharraren arteko orekari eusteko, botere publikoek egoera hori lehengoratzeko beharrezkoak diren tresnak, plangintza eta neurriak sustatuz; eta beharrezkoa da bizitegi-erabileretarako balia daitekeen lurzoru guztia mobilizatzea, ingurune horietan egon ohi den eskaintza eskuragarriaren eskasiari aurre egiteko.

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailak BTGDak deklaratu ahal izango ditu, bere araudi erregulatzailean ezarritako irizpide eta prozeduren arabera eta bere eskumenen esparruan, etxebizitza arloko jarduketa publikoak orientatzeko herritarrentzat nahikoa etxebizitza ez eskaintzeko arrisku berezia dagoen lurralde-eremuetan, merkatuan sartzeko aukera ematen duten baldintzetan, lurralde-beharrizan desberdinen arabera.

Zer eskatzen du BTGDak?

- Prestaketa-prozedura bat, gunean guneko bizitegi-merkatuaren egoerarekin lotutako informazioa lortzeko, barnean hartuta: etxebizitza mota ezberdinen alokairu- eta salmenta-prezioen adierazleak eta haien bilakaera denboran zehar; etxekoen unitate egoiliarren errenta erabilgarriaren adierazleak eta horien bilakaera denboran zehar, zeinak, etxebizitza-prezioekin batera, familiek etxebizitza duin eta egokia izateko egin behar duten ahalegin ekonomikoaren bilakaera neurtzeko aukera emango baitu.
- Informazio-izapide bat egitea, zeinean jendaurrean jarri beharko baita deklarazio horren oinarri den informazioa, barne hartuta biztanleriaren eta familien banaketa espazialari, egiturari eta dinamikari buruzko azterlanak, bai eta eskaintza, prezio eta etxebizitza moten araberako zonifikazioa ere, edo desorekak eta gizarte- eta lurralde-kohesioaren kalterako diren gizarte- eta espazio-bereizketako prozesuak agerian jartzea edo prebenitzea ahalbidetzen duen beste edozein azterlan.
- Guneko etxebizitza-merkatuaren gabeziak edo hutsak arrazoitzea, edozein modalitatetan, ohiko etxebizitzaren eskariari behar bezala erantzuteko eta betiere arrazoizko prezioan, biztanleria egoiliarraren egoera sozioekonomikoaren eta dinamika demografikoen arabera, eta lurralde-eremu bakoitzaren berezitasunen eta ezaugarrien arabera ere. Mugatzeko prozeduraren ebazpena Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendako Ministerioko Hiri Agenda eta Etxebizitzako Idazkaritza Nagusiari jakinarazi beharko zaio.
AGUAS	• Dar cumplimiento a la obligatoriedad existente, para todo municipio, de **prestar los servicios de abastecimiento** de agua potable y alcantarillado. En concreto, el artículo 17.1 apartado n.º 15 de la LILE establece que los municipios podrán ejercer, en el marco de lo dispuesto en esta ley y en la legislación que sea de aplicación, competencias propias en el ámbito material referente a la ordenación, gestión, prestación y control de servicios en el ciclo integral del agua de uso urbano. Incluye: → Abastecimiento de agua en alta o aducción. → Abastecimiento de agua en baja. → Saneamiento o recogida de las aguas residuales urbanas y pluviales de los núcleos de población. → Depuración de las aguas residuales urbanas. • Constituir entes supramunicipales —Mancomunidades, Consorcios u otras entidades semejantes— para la prestación de los servicios de abastecimiento y/o saneamiento y depuración para varias poblaciones. • Formar parte del Consejo del Agua del País Vasco. • Aprobar **Ordenanzas** reguladoras de los servicios de abastecimiento, de saneamiento y depuración. • Incoar, tramitar y resolver los **expedientes sancionadores**, en aplicación de sus propias ordenanzas. • Regular en sus ordenanzas locales un régimen de infracciones propio y establecer sanciones pecuniarias, de suspensión de autorizaciones, cierre de instalaciones o prohibición de utilización de instalaciones o servicios públicos.
ATMÓSFERA	• Aprobar **ordenanzas** y adaptar las ya existentes. • Incorporar a sus instrumentos de planificación territorial objetivos de calidad, valores límite y umbrales de alerta. • Incorporar **medidas de restricción** en la utilización de fuentes emisoras, de limitación de la implantación de nuevas fuentes emisoras y de reducción de emisiones. • Control e inspección. • Participar junto con las Comunidades Autónomas en la zonificación del territorio, según los niveles de contaminantes para los que se hayan establecido objetivos de calidad.
CONTAMINACIÓN LUMÍNICA	Promover la prevención y la reducción de la contaminación lumínica con la finalidad de: • Promover un uso eficiente del alumbrado exterior. • Prevenir, minimizar y corregir los efectos de la contaminación lumínica en el cielo nocturno. • Reducir la intrusión lumínica en entornos naturales y el interior de edificios.
CAMBIO CLIMÁTICO	• Desarrollo de acciones en materia de cambio climático en el marco de la Agenda Local 21. • Municipios de más de 50.000 habitantes: adoptar planes de movilidad urbana sostenibles que introduzcan medidas de mitigación que permitan reducir las emisiones derivadas de la movilidad; y municipios de más de 20.000 habitantes cuando superen los valores límite de contaminantes recogidos en el Real Decreto 102/2011, de 28 de enero, relativo a la mejora de la calidad del aire.
EVALUACIÓN AMBIENTAL	• Emisión de informes en relación con los procedimientos de evaluación ambiental estratégica de planes y programas. Plazo 45 días hábiles como mínimo. • Emisión de informes en relación con los procedimientos de evaluación de impacto ambiental de proyectos. Plazo: 30 día hábiles como mínimo.
COSTAS	• Informar las solicitudes de reservas, adscripciones, autorizaciones y concesiones para la **ocupación y aprovechamiento** del dominio público marítimo-terrestre • Informar sobre deslindes y establecimiento de servidumbres legales. • Otorgar autorizaciones para la explotación de servicios de temporada en playas. • Mantener **las playas y lugares públicos de baño** en las debidas condiciones de limpieza, higiene y salubridad.
ESPACIOS NATURALES, FLORA Y FAUNA	• Emitir **informe previo** en el procedimiento de elaboración y aprobación de los **Planes de Ordenación de los Recursos Naturales**. • Emitir **informe previo** en el procedimiento de elaboración y aprobación de los **Planes Rectores de Uso y Gestión**. • Ser incluido en las **áreas de influencia socioeconómica** de los espacios naturales protegidos. • Disponer de **representación en los patronatos gestores** de los parques naturales. • Establecer **medidas normativas o administrativas adicionales** de conservación del patrimonio natural y la biodiversidad (según sus competencias y la legislación aplicable).
CONTRATACIÓN PÚBLICA	• Introducción de criterios ambientales en la contratación de obras, servicios y suministros por parte de los municipios. https://www.contratacion.euskadi.eus/contenidos/informacion/kpecpe_jasesora_instrucciones/eu_def/adjuntos/Instruccion-1-2023-sobre-incorporacion-de-clausulas-ambientales-formato.pdf
PROYECTOS DE INTERÉS PÚBLICO SUPERIOR	• Emitir informe previo, en los procedimientos de declaración de proyectos de interés público superior con la finalidad de introducir en la planificación las infraestructuras, dotaciones e instalaciones de utilidad pública e interés social medioambiental para la CAPV, en garantía de su ejecución.

Legislación:
Ley 10/2021, de 9 de diciembre, de Administración Ambiental de Euskadi, arts. 49 a 59
Real Decreto Legislativo 1/2016, de 16 diciembre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de prevención y control integrados de la contaminación, arts. 15 y 18
Ley 34/2007, de calidad del aire y protección de la atmósfera, art. 53
Ley 1/2006, de 23 de junio, de aguas, arts. 34 y 35
Ley 22/1988, de 28 de julio, de Costas, art. 115 c)
Ley 42/2007, de 13 de diciembre, de Patrimonio Natural y Biodiversidad Disposición Adicional 2.ª
Ley 9/2021, de 25 de noviembre, de Conservación del Patrimonio Natural de Euskadi, arts. 10, 54 y 56
Ley 21/2013, de 9 de diciembre, de Evaluación Ambiental
Ley 3/2016, de 7 de abril, para la inclusión de determinadas cláusulas sociales en la contratación pública
Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público
Instrucción sobre incorporación de cláusulas ambientales en la CAPV

JARDUERA SAILKATUAK	• **Jarduera sailkatuaren udal-lizentzia** ematea eta **jarduera sailkatuaren aldez aurreko jakinarazpenaren araubidea kudeatzea**. • Erantzuna ematea jarduera-lizentzia behar duten eta **aldez aurreko jakinarazpenaren araubidea**ren mende dauden establezimenduak irekitzeko kontsultei.
INGURUMEN-BAIMEN BAKARRA	• Ingurumen-baimen bakarra emateko prozeduran **nahitaezko txostena** egitea.
KUTSADUREN PREBENTZIO ETA KONTROL BATERATUA	• Toki-erakundeak, **ingurumen-baimen bateratua emateko prozeduran**, instalazioa hirigintza-plangintzako tresnekin bateragarria den aztertzen duen **nahitaezko txostena** eman behar du. Txostenaren ezaugarriak: → Nahitaezkoa eta loteslea da. → Interesdunak eskatu behar du, eta ingurumen-baimen bateratuaren eskabideari atxiki beharko dio, eskatzen zaion gainerako dokumentazioarekin batera. → Hirigintza-plangintzarekiko bateragarritasuna edo bateraezintasuna adierazi behar du. → Bideratzeko epea: hogeita hamar egun. • Udalak **nahitaezko beste txosten bat** egin beharko du berari dagozkion gai guztiei dagokienez. Txostenaren ezaugarriak: → Nahitaezkoa da. → Ingurumen-baimen bateratua izapidetzeko eskumena duen organoak eskatu behar du. EAEn, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Sailburuordetzak. → Bideratzeko epea: hogeita hamar egun.
URAK	• Udalerri guztiek edateko uraren **hornidura-zerbitzua** eta estolderia-zerbitzua nahitaez **emateko** betebeharra betetzea. ETELaren 17.1. artikuluko 15. apartatuak xedatzen du ezen, lege honek ezarritakoaren esparruan eta aplikatzekoak diren legeen esparruan, udalerriek nork bere eskumen propioak egikaritu ahal izango dituztela hiri-erabilerako uraren ziklo integraleko zerbitzuak antolatu, kudeatu, eman eta kontrolatzeko eremu materialean. Hauek hartzen dira barne: → Uraren goi-hornidura edo adukzioa. → Uraren behe-hornidura. → Saneamendua edo biztanle-guneetako hondakin-uren eta euri-uren bilketa. → Hiriko hondakin-uren arazketa. • Udalerriz gaindiko erakundeak eratzea –mankomunitateak, partzuergoak edo antzeko beste erakunde batzuk–, hainbat udalerritarako horniketa- eta/edo saneamendu- eta arazketa- zerbitzuak emateko. • EAEko Ur Kontseiluko kide izatea. • Hornidura-, saneamendu- eta arazketa-zerbitzuak arautzen dituzten **ordenantzak** onartzea. • **Zehapen-espedienteak** hastea, izapidetzea eta ebaztea, erakundearen ordenantzak aplikatuta. • Toki-ordenantzetan arau-hausteen araubide bat erregulatzea eta zehapenak ezartzea: diruzko zehapenak, baimen-emateak etetekoak, instalazioak ixtekoak edo instalazio edo zerbitzu publikoak erabiltzea debekatzekoak.
ATMOSFERA	• **Ordenantzak** onartzea eta aurretik daudenak egokitzea. • Erakundearen lurralde-plangintzako tresnei kalitateko helburuak, gehieneko kontzentrazio onargarriak eta alertako atalaseak txertatzea. • Emisio-iturrien erabileran **murrizketa-neurriak** txertatzea, bai eta emisio-iturri berrien ezarpena mugatzeko eta emisioak murrizteko neurriak ere. • Kontrolatzea eta ikuskatzea. • Autonomia Erkidegoekin batera lurraldearen zonifikazioan parte hartzea, kalitate-helburuak finkatuta dauzkaten kutsatzaileen mailen arabera.
ARGI-KUTSADURA	Argi-kutsaduraren prebentzioa eta murrizketa sustatzea, helburu hauekin: → Kanpoko argien erabilera efizientea sustatzea. → Gaueko zeruan izaten den argi-kutsaduraren eraginak prebenitzea, minimizatzea eta zuzentzea. → Argi-intrusioa murriztea ingurune naturaletan eta eraikinen barnealdeetan.
KLIMA-ALDAKETA	• Klima-aldaketaren arloko ekintza garatzea Tokiko Agenda 21en barruan. • 50.000 biztanletik gorako udalerriak: hiri-mugikortasuneko plan jasangarriak egitea, mugikortasunak eragindako emisioak murrizteko arintze-neurriak hartzeko. Eta 20.000 biztanletik gorako udalerriak, kutsatzaileen gehieneko kontzentrazio onargarriak gainditzen dituztenean, Airearen Kalitatea Hobetzeari buruzko urtarrilaren 28ko 102/2011 Errege Dekretuan jasotakoak.
INGURUMEN-EBALUAZIOA	• Planen eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoa egiteko prozedurei buruzko txostenak egitea. 45 egun balioduneko epea, gutxienez. • Proiektuek ingurumenaren gainean duten eragina ebaluatzeko prozedurei buruzko txostenak egitea. Epea: 30 egun baliodun, gutxienez.
KOSTAK	• Txostena egitea itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoa **okupatzeko eta aprobetxatzeko** erreserba-, atxikipen-, baimen- eta emakida-eskaerei buruz. • Mugaketei eta lege-zortasunak ezartzeari buruzko txostena egitea. • Hondartzetan sasoiko zerbitzuak ustiatzeko baimenak ematea. • **Hondartzak eta bainurako toki publikoak** garbi edukitzea, eta hango higienea eta osasungarritasuna zaintzea.
ESPAZIO NATURALAK, FLORA ETA FAUNA	• **Natura-baliabideak antolatzeko planak** prestatzeko eta onartzeko prozeduran **aldez aurreko txostena** egitea. • **Erabilera eta kudeaketa zuzentzeko planak** prestatzeko eta onartzeko prozeduran **aldez aurreko txostena** egitea. • Naturagune babestuen **eragin sozioekonomikoko arloetan** sartua izatea. • Natura-parkeen **patronatu kudeatzaileetan ordezkaritza izatea**. • Natur ondarea eta biodibertsitatea kontserbatzeko **arau- edo administrazio-neurri gehigarriak** ezartzea (beren eskumenen eta aplikatzekoa den legediaren arabera).
KONTRATAZIO PUBLIKOA	• Udalerriek obrak, zerbitzuak eta hornidurak kontratatzen dituztenean ingurumen-irizpideak aintzat hartzea. https://www.contratacion.euskadi.eus/contenidos/informacion/kpecpe_jasesora_instrucciones/eu_def/adjuntos/1-2023-Ingurumen-klausulak-txertatzeari-buruzko-jarraibidea-formato.pdf
GOI-MAILAKO INTERES PUBLIKOKO PROIEKTUAK	• Aldez aurreko txostena egitea goi-mailako interes publikoko proiektuen deklarazio-prozeduretan, plangintzan EAErako onura publikoko eta ingurumen-interes sozialeko azpiegiturak, zuzkidurak eta instalazioak sartzeko eta gauzatuko direla bermatzeko.

Legeria:

10/2021 Legea, abenduaren 9koa, Euskadiko Ingurumen Administrazioarena, 49-59 artikuluak
1/2016 Legegintzako Errege Dekretua, abenduaren 16koa, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuaren Legearen testu bategina onartzen duena, 15. eta 18. artikuluak
34/2007 Legea, Airearen Kalitateari eta Atmosfera Babesteari buruzkoa, 53. artikulua
1/2006 Legea, ekainaren 23koa, Urarena, 34. eta 35. artikuluak
22/1988 Legea, uztailaren 28koa, Kostaldeei buruzkoa, 115.c) artikulua
42/2007 Legea, abenduaren 13koa, Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzkoa, bigarren xedapen gehigarria
9/2021 Legea, azaroaren 25ekoa, Euskadiko Natura Ondarea Kontserbatzeari buruzkoa, 10., 54. eta 56. artikuluak
21/2013 Legea, abenduaren 9koa, Ingurumen Ebaluazioari buruzkoa
3/2016 Legea, apirilaren 7koa, Zenbait Klausula Sozial Kontratazio Publikoan Sartzekoa
9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena
EAEn ingurumen-klausulak txertatzeari buruzko jarraibidea

MONTES		• Emisión de informe preceptivo en el procedimiento de elaboración de los **instrumentos de gestión** relativos a los montes de su titularidad incluidos en el Catálogo de Montes de Utilidad Pública. • Emisión de un informe previo en la elaboración de los **instrumentos de planificación forestal.** • Gestión de los **montes de su titularidad no incluidos en el Catálogo** de Montes de Utilidad Pública. • Gestión de los **montes catalogados** de su titularidad, cuando así se disponga en la legislación forestal de la Comunidad Autónoma. • Creación de un **fondo de mejoras,** para la conservación y mejora de los montes del Catálogo de Montes de Utilidad Pública; y administración del mismo si la Comunidad Autónoma se lo transfiere. • Intervención en la **prevención de los incendios forestales** mediante vigilancia disuasoria y movilización de personal y medios para la extinción.
RESIDUOS (ver ficha 20.4)	**RESIDUOS Y SUSTANCIAS PELIGROSAS**	• Los municipios con una población superior a **5.000 habitantes** están obligados a implantar sistemas de **recogida selectiva de residuos** urbanos que posibiliten su reciclado y otras formas de valorización. • Elaborar sus **propios planes de prevención y gestión de residuos urbanos**, de acuerdo con los planes de residuos de la Comunidad Autónoma. • Ejercer, como servicio público de titularidad local, todas o algunas de las operaciones de **gestión de determinados residuos**, previa declaración de la Comunidad Autónoma. • Gestionar los residuos comerciales no peligrosos y los residuos domésticos generados en la industria, en los términos que establezcan sus respectivas ordenanzas, sin perjuicio de que los productores de estos residuos puedan gestionarlos por sí mismos en los términos previstos en la normativa. • Recoger los residuos urbanos entregados por sus poseedores para su **reciclado, valorización o eliminación**, adquiriendo su propiedad, o autorizar alternativamente su entrega a un gestor autorizado o registrado, para su posterior reciclado o valorización. • Realizar las actividades de **gestión de residuos urbanos** directamente o mediante cualquier otra forma de gestión prevista en la LRBRL. • Realizar exámenes, controles, toma de muestras y recogida de información y cualquier otra operación en el ejercicio de la **inspección de la gestión de los residuos**. • A través de sus ordenanzas, obligar al productor o a otro poseedor de residuos peligrosos domésticos o de residuos cuyas características dificultan su gestión, a que adopten medidas para eliminar o reducir dichas características o a que los depositen en la forma y lugar adecuados. • Ejercer la **potestad sancionadora** en caso de abandono, vertido o eliminación incontrolado de cualquier tipo de residuos, no peligrosos, sin que se haya producido un daño o deterioro grave para el medio ambiente o se haya puesto en peligro grave la salud de las personas.
	ENVASES Y RESIDUOS DE ENVASES	• Participar en los **sistemas integrados de gestión** de residuos de envases y envases usados mediante la firma de convenios de colaboración con la entidad a la que se le asigne la gestión del sistema. Ello se realiza a través de la Comunidad Autónoma, cuando ésta tenga aprobados planes de gestión de residuos sólidos urbanos. • Realizar la **recogida selectiva** de los residuos de envases y envases usados incluidos en el sistema integrado de gestión de que se trate, y su transporte hasta los centros de separación y clasificación o, en su caso, directamente a los de reciclado o valorización, según lo que se establezca en estos convenios de colaboración. • Convenir con la Comunidad Autónoma, un procedimiento para posibilitar el cumplimiento, respecto de los residuos de envases generados en su ámbito territorial, de los objetivos de **reciclado, valorización y reducción** cuando no participan en sistemas integrados.
RUIDO		• Aprobar **ordenanzas** y adaptar las existentes. • **Adaptar el planeamiento** urbanístico a las disposiciones de la Ley del Ruido. • **Tipificar infracciones** en relación con el ruido procedente de personas usuarias de la vía pública, el producido por las actividades domésticas o los vecinos y vecinas. • Aplicar **sanciones,** por la comisión de infracciones previstas legalmente.
SUELOS CONTAMINADOS		• La recepción en el planeamiento urbanístico, en la gestión urbanística y en la disciplina urbanística de los principios establecidos en la Ley 4/2015 de 25 de junio, para la prevención y corrección de la contaminación del suelo. • El órgano ambiental de la Comunidad Autónoma, por su parte, comunicará a los ayuntamientos correspondientes las solicitudes de inicio del procedimiento de declaración de calidad del suelo o de declaración de aptitud del uso del suelo que reciba. • Se establecerán los instrumentos de colaboración interinstitucional necesarios para que los ayuntamientos tengan conocimiento de la finalización de los plazos de resolución de los expedientes de calidad de suelo de su término municipal.

Legislación:
Ley 43/2003, de 21 de noviembre, de montes, arts. 38.9 y 44
Ley 7/2022, de 8 de abril, residuos y suelos contaminados para una economía circular, art. 12.5
Real Decreto 1055/2022, de 27 de diciembre, de Envases y Residuos de Envases, art. 32.
Ley 37/2003, de 17 de noviembre, del Ruido, arts. 28.5 y 29.2
Ley 4/2015, de 25 de junio, para la prevención y corrección de la contaminación del suelo

MENDIAK		• Nahitaezko txostena egitea Erabilera Publikoko Mendien Katalogoan sartutako bere titulartasuneko mendiei buruzko **kudeaketa-tresnak** prestatzeko prozeduran. • **Baso-plangintzako tresnak prestatzean** aldez aurreko txosten bat egitea. • Erabilera Publikoko Mendien **Katalogoan sartuta ez dauden bere titulartasuneko mendiak** kudeatzea. • Bere titulartasuneko **mendi katalogatuak** kudeatzea, Autonomia Erkidegoaren baso-legedian hala xedatzen denean. • **Hobekuntza-funts bat** sortzea, Erabilera Publikoko Mendien Katalogoko mendien kontserbaziorako eta hobekuntzarako, eta funts hori administratzea, Autonomia Erkidegoak eskualdatzen badio. • **Baso-suteen prebentzioan** esku hartzea disuasio-zaintzaren bitartez eta sua iraungitzeko langileak eta bitartekoak mobilizatuz.
HONDAKINAK (Ikus 20.4. fitxa)	**HONDAKIN ETA SUBSTANTZIA ARRISKUTSUAK**	• **5.000 biztanle**tik gorako udalerriek hiriko **hondakinak gaika biltzeko** sistemak ezartzera behartuta daude, hondakin horiek birziklatu ahal izateko eta beste balorizazio-modu batzuk ahalbidetzeko. • **Hiriko hondakinak prebenitzeko eta kudeatzeko beren planak** prestatzea, Autonomia Erkidegoaren hondakin-planen arabera. • Tokiko titulartasuneko zerbitzu publiko direnez, **hondakin jakin batzuk** kudeatzeko eragiketa guztiak edo batzuk egikaritzea, Autonomia Erkidegoaren adierazpena jaso ondoren. • Merkataritzako hondakin arriskugabeak eta industrian sortutako etxeko hondakinak kudeatzea, bakoitzari dagokion ordenantzan xedatutakoaren arabera, baina hondakin horien ekoizleek beren kabuz kudeatzeko aukera alde batera utzi gabe, betiere araudian aurreikusitakoari jarraituz. • **Birziklatzeko, balioztatzeko edo ezabatzeko** entregatzen zaizkien hiriko hondakinak jasotzea eta haien jabetza eskuratzea, edo, bestela, kudeatzaile baimendu edo erregistratu bati entregatzea baimentzea, ondoren birziklatzeko edo balioztatzeko. • **Hiriko hondakinak kudeatzeko jarduerak** zuzenean egitea edo TAOLen aurreikusitako beste kudeaketa-era baten bitartez. • Azterketak eta kontrolak egitea, laginak hartzea, informazioa biltzea eta beste edozein eragiketa egitea **hondakinen kudeaketa ikuskatzean**. • Ordenantzen bitartez, etxeko hondakin arriskutsuak edo beren ezaugarriengatik kudeatzen zailak diren hondakinak dituen edonor edo ekoizlea ezaugarri horiek ezabatu edo murriztuko dituzten neurriak hartzera behartzea, edo, bestela, behar bezala eta toki egokian uztera. • **Zehapen-ahala** erabiltzea edozein motatako hondakin arriskugabeak kontrolik gabe abandonatzen, isurtzen edo ezabatzen direnean baina ingurumenerako kalte edo narriadura larririk gertatzen ez denean edo pertsonen osasuna arrisku larrian jartzen ez denean.
	ONTZIAK ETA ONTZI-HONDAKINAK	• Ontzi-hondakinak eta ontzi erabiliak **kudeatzeko sistema bateratuetan parte hartzea**, sistemaren kudeaketa esleitzen zaion entitatearekin lankidetza-hitzarmenak sinatuz. Hori Autonomia Erkidegoaren bidez egiten da erkidegoak hiriko hondakin solidoak kudeatzeko planak onartuak dituenean. • Kasuan kasuko kudeaketa-sistema bateratuan sartuta dauden ontzi-hondakinak eta ontzi erabiliak **gaika biltzea**, eta banatzeko eta sailkatzeko zentroetara eramatea, edo, behar izanez gero, birziklatzeko edo balioztatzeko zentroetara eramatea zuzenean, lankidetza-hitzarmen horiek ezartzen dutenaren arabera. • Sistema bateratuetan parte hartzen ez dutenean Autonomia Erkidegoarekin prozedura bat hitzartzea beren lurralde-eremuan sortutako ontzi-hondakinak **birziklatzea**ri, **balioztatzea**ri eta **murriztea**ri buruzko helburuak betetzen direla ahalbidetzeko.
ZARATA		• **Ordenantzak** onartzea eta daudenak egokitzea. • **Hirigintza-plangintza** Zaratari buruzko Legearen xedapenetara egokitzea. • Bide publikoen erabiltzaileek egiten duten zarataren, etxeko jarduerek eragindakoaren edo auzokoek eragindakoaren inguruko **arau-hausteak tipifikatzea**. • **Zehapenak** jartzea legez aurreikusitako arau-hausteak egiteagatik.
KUTSATUTAKO LURZORUAK		• Lurzorua Kutsatzea Saihestu eta Kutsatutakoa Garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legean xedatutako printzipioak hirigintza-plangintzan, hirigintza-kudeaketan eta hirigintza-diziplinan jasotzea. • Autonomia-erkidegoko ingurumen-organoak lurzoruaren kalitatearen adierazpenaren eta lurzoruaren erabilera-gaitasunaren adierazpenaren prozedurak hasteko jasotzen dituen eskaeren berri emango die tokian tokiko udalei. • Erakundeen arteko lankidetzarako behar diren bitartekoak ezarriko dira udalek beren udal-mugarteko lurzoruaren kalitatearen espedienteak ebazteko epeak noiz bukatzen diren jakin dezaten.

Legeria:

43/2003 Legea, azaroaren 21ekoa, Mendiei buruzkoa, 38.9 eta 44. artikuluak
7/2022 Legea, apirilaren 8koa, Hondakinena eta Lurzoru Kutsatuena, Ekonomia Zirkularra Bultzatzeko, 12.5 artikulua
1055/2022 Errege Dekretua, abenduaren 27koa, Ontziena eta Ontzien Hondakinena, 32. artikulua
37/2003 Legea, azaroaren 17koa, Zaratari buruzkoa, 28.5 eta 29.2 artikuluak
4/2015 Legea, ekainaren 25ekoa, Lurzorua Kutsatzea Saihestu eta Kutsatutakoa Garbitzekoa

POTESTADES DE LOS MUNICIPIOS Para la **regulación de sus competencias** en materia de medio ambiente, y para la **gestión de los servicios públicos** que tienen encomendados		
1.	**NORMATIVA**	• Aprobar **Ordenanzas** Municipales reguladoras del Medio Ambiente. • Aprobar los **Reglamentos** reguladores de los servicios públicos gestores de actividades medioambientales.
2.	**PRESTACIONAL**	• Obligación de **facilitar la información** en materia ambiental o notificar su denegación motivando la decisión. • Obligaciones para **promover la participación real y efectiva** del público, en los procedimientos relacionados con la materia ambiental.
3.	**ORGANIZACIÓN**	• **Determinar las modalidades de gestión** de los servicios públicos medioambientales. • **Crear y constituir entidades supramunicipales** —Mancomunidades y Consorcios— con otras entidades locales. • Constituir **Sociedades Públicas Municipales** y participar en **sociedades privadas** para la gestión de actividades medioambientales.
4.	**PLANIFICACIÓN**	• Aprobar **planes** en los sectores medioambientales, en desarrollo de planes de ámbito superior. • Incorporar, a sus instrumentos de planificación urbanística, **medidas de protección** de los recursos naturales propios del suelo, el **uso racional y sostenible** de los recursos naturales y **objetivos de calidad, valores límite y umbrales de alerta.** • Restringir la utilización de **suelos contaminados** y limitar la implantación de nuevas **fuentes emisoras**.
5.	**EJECUCIÓN FORZOSA Y MEDIDAS CAUTELARES**	• Dictar **órdenes de ejecución** de obligado cumplimiento. • Proceder a la **ejecución subsidiaria**, en caso de negativa de las personas obligadas. • Imponer **multas coercitivas**. • Adoptar, excepcionalmente, **medidas cautelares**: suspensión de obras o actividades, precintado de aparatos, equipos o vehículos y cualquier otra que impida la extensión del daño ambiental. • Exigir la **restitución** del medio alterado.
6.	**SANCIONADORA**	• **Vigilar, inspeccionar y controlar** las actividades radicadas en el término municipal. • **Tipificar infracciones y sanciones** en materia medioambiental, en las Ordenanzas. • Instruir **expedientes** e imponer **sanciones.**
7.	**TRIBUTARIA**	• Fijar **tasas**, por la utilización privativa o el aprovechamiento especial del dominio público y por la prestación de servicios o realización de actividades medioambientales. • Fijar **precios públicos**, por la prestación de servicios o realización de actividades medioambientales.
8.	**CON RESPECTO A LOS BIENES PÚBLICOS MUNICIPALES**	• Establecer **medidas de protección ambiental** de los Bienes de Dominio Público, incluidos los comunales, así como de los bienes patrimoniales.
9.	**DERECHOS Y DEBERES**	• El **apartado c) del art. 43.1 de la LILE** establece que uno de los derechos de las **personas vecinas** de un municipio es el de **disfrutar de un medio ambiente** y un espacio público urbano **adecuado y sostenible**. • El **apartado f) del art. 44.1 de la LILE** establece como uno de los **deberes y responsabilidades ciudadanas** de las personas vecinas de un municipio, el de **preservar y contribuir a la mejora del medio ambiente**, del espacio público y del paisaje urbano, mediante **comportamientos ecológicos y sostenibles.** • El **n.º 7 del apartado d) del art. 54 de la LILE** establece que se contendrá una **información agregada**, sucinta y clara sobre la **cartera del servicio de urbanismo y medio ambiente**.

UDALERRIEN AHALAK Ingurumenaren arloan **dituzten eskumenak erregulatzeko** eta esleiturik dauzkaten **zerbitzu publikoak kudeatzeko**		
1.	**ARAUTZEKOA**	• Ingurumena arautzen duten udal-**ordenantzak** onartzea. • Ingurumen-arloko jarduerak kudeatzen dituzten zerbitzu publikoak arautzen dituzten **erregelamenduak** onartzea.
2.	**ZERBITZUZKOA**	• Ingurumen-arloko **informazioa emateko** betebeharra, edo informazio hori ukatzeko erabakia jakinarazteko eta arrazoitzeko betebeharra. • Ingurumen-arloarekin zerikusia duten prozeduretan jendearen **parte-hartze egiazkoa eta eraginkorra sustatzeko** betebeharrak.
3.	**ANTOLAKETA**	• Ingurumen-arloko zerbitzu publikoak **kudeatzeko moduak zehaztea**. • **Udalaz gaindiko entitateak sortzea eta eratzea** (mankomunitateak eta partzuergoak) beste toki-entitate batzuekin. • Ingurumen-arloko jarduerak kudeatzeko **udal-sozietate publikoak** eratzea eta **sozietate pribatuetan** parte hartzea.
4.	**PLANIFIKAZIOA**	• Ingurumen-arloetan **planak** onartzea, goragoko esparruko planak garatuta. • Lurzoruari dagozkion baliabide naturalak **babesteko neurriak**, baliabide naturalen **erabilera arrazoizko eta jasangarria** eta **kalitateko helburuak, muga-balioak eta alertako atalaseak** txertatzea bere hirigintza-plangintzako tresnei. • **Lurzoru kutsatuen** erabilera murriztea, eta **emisio-iturri** gehiago ezartzea mugatzea.
5.	**NAHITAEZKO BETEARAZPENA ETA KAUTELAZKO NEURRIAK**	• Nahitaez bete beharreko **betearazpen-aginduak** ematea. • **Betearazpen subsidiarioari** ekitea, betebeharpekoek betearazpenari uko eginez gero. • **Hertsatzeko isunak** ezartzea. • Salbuespen moduan, **kautelazko neurriak** hartzea: obra edo jarduerak etetea, aparatu, ekipo edo ibilgailuak zigilatzea, eta ingurumen-arloko kaltea zabaltzea eragozten duen beste edozein neurri. • Aldarazi den ingurua **leheneratzeko** exijitzea.
6.	**ZEHATZEKOA**	• Udal-mugartean kokatutako jarduerak **zaintzea, ikuskatzea eta kontrolatzea**. • Ingurumen-arloko **arau-hauste eta zehapenak tipifikatzea** ordenantzetan. • **Espedienteen** instrukzioa egitea eta **zehapenak** ezartzea.
7.	**ZERGA-ARLOKOA**	• **Tasak** ezartzea jabari publikoa modu pribatuan erabiltzegatik edo modu berezian aprobetxatzeagatik eta ingurumen-zerbitzuak emateagatik edo ingurumen-jarduerak egiteagatik. • **Prezio publikoak** ezartzea ingurumen-zerbitzuak emateagatik edo ingurumen-jarduerak egiteagatik.
8.	**UDALAREN ONDASUN PUBLIKOEI DAGOKIENEZ**	• **Ingurumen-babeseko neurriak** ezartzea jabari publikoko ondasunentzat (herri-ondasunak barne) eta ondare-ondasunentzat.
9.	**ESKUBIDEAK ETA EGINBEHARRAK**	• **ETELen 43.1 artikuluaren c) letrak** ezartzen du udalerriko **auzotarrek** besteak beste eskubidea dutela **ingurumen** eta hiri-espazio publiko **egoki eta jasangarriez gozatzeko**. • **ETELen 44.1 artikuluaren f) letraren arabera**, udalerriko **auzotarren betebehar eta erantzukizunetako bat ingurumena**, espazio publikoa eta hiri-paisaia **zaintzea eta hobetzen laguntzea** da, **portaera ekologiko eta jasangarrien bidez**. • **ETELen 54. artikuluaren d) letrako 7. zenbakiak** ezartzen du **hirigintza- eta ingurumen-zerbitzuaren sailari** buruzko **informazio erantsi**, labur eta argia jaso behar dela.

UDALSAREA 2030 Y AGENDA 2030 LOCAL

Udalsarea 2030 es la Red vasca de municipios sostenibles que tiene como objetivo fomentar la sostenibilidad local y promueve la coordinación entre los distintos niveles de la administración pública de Euskadi —Gobierno Vasco, entidades públicas, Diputaciones Forales y entidades comarcales y municipios—, adquiriendo éstos un especial protagonismo. Además, es la encargada de dinamizar las políticas y planes de acción de sostenibilidad de las entidades locales que la conforman, alineadas siempre a los Objetivos de Desarrollo Sostenible (ODS).

Udalsarea 2030 tiene la misión de movilizar a los municipios y comarcas vascas para el logro de los Objetivos de Desarrollo Sostenible y la Agenda 2030, a través de la acción local transformadora y la alineación y coherencia de las políticas locales y supramunicipales.

La Agenda 2030 ofrece en todos los niveles de la administración un marco homogéneo para la planificación del desarrollo sostenible. En el caso de los municipios, la Agenda 2030 integradora de varias políticas sectoriales puede producir el cambio necesario para coordinar y transversalizar definitivamente aquellas políticas locales que contribuyen al desarrollo sostenible.

Más información: http://www.udalsarea2030.eus/publicaciones/agenda-2030-local-como-abordar-objetivos-desarrollo-sostenible-desde-ambito-local-guia-practica-2

UDALSAREA 2030 ETA TOKIKO AGENDA 2030

Udalsarea 2030 tokiko jasangarritasuna bultzatzeko udal jasangarrien euskal sarea da, eta koordinazioa sustatzen du Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoko mailen artean (Eusko Jaurlaritza, entitate publikoak, foru-aldundiak, eskualde-erakundeak eta udalak); horiek guztiek protagonismo berezia dute. Gainera, erakundea osatzen duten toki-entitateen jasangarritasuneko ekintza-planak eta politikak dinamizatzeaz arduratzen da, zeinak betiere Garapen Jasangarrirako Helburuekin (GJH) bat datozen.

Udalsarea 2030 sarearen egitekoa da EAEko udalerriak eta eskualdeak mobilizatzea Garapen Jasangarriko Helburuak eta Agenda 2030 lortzeko, tokiko ekintza eraldatzailearen bidez eta bat datozen tokiko eta udalaz gaindiko politika koherenteen bidez.

Agenda 2030 horrek garapen jasangarria planifikatzeko esparru homogeneo bat eskaintzen du Administrazioaren maila guztietan. Agenda 2030ek zenbait politika sektorial integratzen ditu, eta, udalerrien kasuan, behar diren aldaketa eragin dezake garapen jasangarriari laguntzen dioten tokiko politikak behin betiko koordinatzeko eta zeharkako bihurtzeko.

Informazio gehiago, hemen: http://www.udalsarea2030.eus/argitalpenak/tokiko030-agenda-nola-heldu-garapen-jasangarriaren-helburuei-tokiko-eremutik-gida-praktikoa-3

XVIII.

EKONOMIAREN GARAPENA ETA ENPLEGUAREN SUSTAPENA

DESARROLLO ECONÓMICO Y PROMOCIÓN DEL EMPLEO

Udal Gida - ISBN 978-84-7777-690-1

XVIII.

Desarrollo económico y promoción del empleo

1. Desarrollo económico y empleo.
2. Promoción del comercio y la industria.

Guía Local - ISBN 978-84-7777-690-1

XVIII.

Ekonomiaren garapena eta enpleguaren sustapena

1. Ekonomiaren garapena eta enplegua.
2. Merkataritzaren eta industriaren sustapena.

La Ley de Instituciones Locales de Euskadi 2/2016, de 7 de abril (BOPV 14-04-2016), establece, en su artículo 17, las competencias propias de los municipios entre las que se encuentra la gestión y promoción del turismo local y el **desarrollo local económico y social y políticas o planes locales de empleo.**

La mayoría de los municipios de la Comunidad Autónoma cuentan con **servicios propios** o tienen constituidas **Mancomunidades, Agencias de Desarrollo, o Sociedades** de Promoción y Fomento socio-económico de carácter local o comarcal para desarrollar programas y actuaciones en este campo.

OBJETIVOS

- **Impulsar la intervención de la Administración Local** en el fomento de la actividad económica, especialmente la que se origina en su propio ámbito, o endógena, así como la inserción socio-laboral.
- **Generar ecosistemas adecuados para un desarrollo económico** ajustado a las necesidades del tejido empresarial de pequeñas y medianas empresas, fomentando la vinculación entre ellas y la comunidad en la que se insertan.
- **Fomentar la colaboración y el trabajo común** con los agentes socio-económicos de su ámbito.
- **Facilitar** nuevos modelos de **gobernanza colaborativa**, **con otras instituciones** competentes en la materia, en el desarrollo de programas y actuaciones en los campos de la transformación social, la creación de empleo y el desarrollo económico-empresarial.
- **Habilitar servicios de orientación laboral**, de formación en competencias transversales, así como **de cualificación profesional** de las personas en disposición de trabajar.
- **Apoyar la intermediación y la inserción laboral** en el mercado de trabajo.
- **Impulsar sectores y actividades emergentes** con potencialidad de generación de actividad económica y empleo.

IMPULSO DE INICIATIVAS	• En la **promoción socio-económica** local y comarcal (territorio, empresas, personas). • En el desarrollo de **políticas y proyectos de colaboración** público-privada. • En el fomento de la **creación de pequeñas empresas** (autoempleo) y empleo de cercanía. • En el **acompañamiento integral** en el proceso de **inserción socio laboral**, así como el desarrollo de acciones individuales y colectivas orientadas a la **cualificación de las personas**. • En el impulso de la **economía circular y nuevos nichos de actividad económica**. • En la gestión de la **información** y la captación de **cofinanciación** de otras instituciones.

PRINCIPALES ÁMBITOS DE INTERVENCIÓN	**EL TERRITORIO Y LOS AGENTES SOCIO-ECONÓMICOS**	• Generación y difusión de **información** (guías de empresas, recursos educativos, recursos para la cualificación, recursos de apoyo a la inserción, redes de empresas y de cooperación público-privada). • **Promoción** interna y externa (información a la ciudadanía y potenciales usuarios/as de servicios, información turística, campañas informativas, programas de participación ciudadana). **Colaboración** con otras Instituciones competentes. • **Planificación y promoción** en el ámbito socio-económico (planes estratégicos, planes de gestión pública, proyectos de desarrollo socio-económico). • Desarrollo de **proyectos y dinámicas colaborativas** con entidades educativas, de investigación, de promoción del emprendimiento, agentes del tercer sector y otras. • Impulso de **infraestructuras de apoyo** al desarrollo económico y social, así como las relacionadas con la consolidación y creación de empresas. • Generación de **redes, foros e iniciativas transversales** con carácter multidisciplinar. • **Coordinación de redes** de agentes contra la exclusión y en favor de la inserción.
	LAS EMPRESAS	• Creación y dinamización de **clusters o foros locales de colaboración entre pymes**. • Impulso de **proyectos en colaboración** para el **desarrollo de nuevos productos** y servicios, así como su **comercialización**. • Fomento de la **colaboración** entre empresas tractoras y subcontratistas. • Creación de **grupos de trabajo de empresas** que integren **cadenas de valor** para desarrollo de nuevos proyectos. • Impulso de la **economía circular** y la **reducción de generación de residuos**. • **Anclaje y captación de talento** y acercamiento a los **recursos formativos y tecnológicos**. • Facilitación de la **continuidad y la sucesión en las pymes**. • **Apoyo a empresas** en situación de vulnerabilidad. Acceso a **financiación ventajosa**. • **Boletines electrónicos de información de ayudas y programas de mejora**. • Apoyo a la **internacionalización** (diagnósticos, jornadas país, misiones comerciales, etc.). • Desarrollo de **programas de mejora** de gestión, digitalización, modelos de negocio. • Impulso de la **participación de los/as trabajadores/as** en la empresa. • Desarrollo de programas para el incremento del **bienestar laboral** en las empresas. • Promoción de la **responsabilidad social de las empresas**. • Programas de promoción e implantación de **eficiencia energética y energías renovables** (bonificaciones IBI y otras medidas incentivadoras). • Desarrollo de programas de **reducción de emisiones** de CO2 (Descarbonización). • Impulso de **sectores estratégicos** y de iniciativas de **intra-emprendimiento**. • Apoyo a la **creación de nuevas empresas** y a la **consolidación** de las ya existentes.
	LAS PERSONAS	• Acompañamiento integral en acciones relacionadas con las **políticas activas de empleo**. • Facilitación para la realización de **prácticas en empresas**. **Becas** de estudio. • **Información y orientación** laboral y **programas de inserción** social. • **Itinerarios personalizados de inserción** (inmigrantes, personas en riesgo de exclusión). • Programas de **cualificación profesional** y **acreditación** de conocimientos y competencias. • Gestión de **intermediación laboral. Agencias de colocación**. • **Asesoramiento** al **autoempleo**, proyectos de **viabilidad**. Formación para el **emprendimiento**. • **Incubadoras** de promotores/as y nuevas empresas. Áreas de *coworking*. • Impulso de actividades de inserción a través de **iniciativas de empleo no formal**. • **Ubicación temporal de promotores/as y nuevas micro-empresas** y servicios a las mismas.

Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legeak (apirilaren 7ko 2/2016 Legea, 2016-04-14ko EHAA) 17. artikuluan ezartzen ditu udalerrien eskumen propioak, eta eskumen horien artean sartzen dira, hain zuzen ere, tokiko turismoa sustatzea eta kudeatzea, batetik, eta **tokiko ekonomia- eta gizarte-garapena, eta tokiko enplegu-planak edo -politikak**, bestetik.

Autonomia Erkidegoko udalerri gehienek **beren zerbitzuak** dituzte, edo sustapen sozio-ekonomikorako **mankomunitateak, garapen-agentziak edo elkarteak** osatzen dituzte, tokikoak nahiz eskualdekoak, arlo horretako programak eta ekintzak gauzatzeko.

HELBURUAK

- **Toki-administrazioaren esku-hartzea** bultzatzea jarduera ekonomikoa —batez ere bere eremuan sortzen dena edo endogenoa— eta gizarteratzea eta laneratzea suspertzeko.
- Enpresa txiki eta ertainen enpresa-sarearen beharretara egokitzen den **garapen ekonomikoa lortzeko ekosistema egokiak sortzea**, enpresa horien eta barne hartzen dituen komunitatearen artean lotura sustatuz.
- Esparru bereko eragile sozioekonomikoekin **lankidetza eta baterako lana sustatzea**.
- Arlo horretan eskumena duten **beste erakunde batzuekin lankidetzan aritzeko gobernantza**-eredu berriak erraztea, gizarte-eraldaketaren, enplegu-sorkuntzaren eta ekonomia- eta enpresa-garapenaren arloetan programak eta jarduerak garatzeko.
- **Lan-orientazioko zerbitzuak gaitzea**, zeharkako konpetentzietan prestatzekoak, baita lan egiteko moduan dauden pertsonen **lanbide-kualifikazioko zerbitzuak ere**.
- **Lan-bitartekotza eta laneratzea** babestea lan-merkatuan.
- Jarduera ekonomikoa eta enplegua sorraraz dezaketen **sektore eta jarduera berriak sustatzea.**

EKIMENAK BULTZATZEA	• Toki- eta eskualde-mailako **sustapen sozio-ekonomikoan** (lurraldea, enpresak, pertsonak). • Arlo publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzarako **proiektu eta politiken** garapenean. • **Enpresa txikiak sortzeko** (autoenplegua) eta enplegu hurbila garatzeko sustapenean. • **Laneratze- eta gizarteratze**-prozesuko **laguntza integralean** eta **pertsonen prestakuntzarako** ekintza indibidual eta kolektiboen garapenean. • **Ekonomia zirkularraren eta jarduera-nitxo berrien** sustapenean. • **Informazioaren** kudeaketan eta beste erakunde batzuen **finantzaketaren** erakarpenean.

ESKU-HARTZE EREMU NAGUSIAK	**LURRALDEA ETA ERAGILE SOZIOEKONOMIKOAK**	• **Informazioa** sortzea eta hedatzea (enpresentzako gidak, hezkuntza-baliabideak, prestakuntza-baliabideak, gizarteratzeko eta lan-munduan sartzeko baliabideak, enpresa-sareak eta arlo publiko eta pribatuaren lankidetzarako sareak). • Barneko eta kanpoko **sustapena** (herritarrentzako eta zerbitzuak erabil ditzaketen guztientzako informazioa, turismo-informazioa, informazio-kanpainak, herritarrek parte hartzeko programak, eta abar). **Lankidetza** beste erakunde eskudun batzuekin. • Esparru sozioekonomikoa **planifikatzea eta sustatzea** (plan estrategikoak, kudeaketa publikoko planak, garapen sozio-ekonomikoko proiektuak). • **Proiektuak eta lankidetza-dinamikak** garatzea hezkuntza-erakundeekin, ikerketa-erakundeekin, ekintzailetza sustatzen duten erakundeekin, hirugarren sektoreko agenteekin eta beste batzuekin. • Ekonomiaren eta gizartearen garapena **babesteko azpiegiturak** eta enpresak finkatu eta sortzearekin lotutakoak sustatzea. • Diziplina askoko **sare, foro eta ekimen zeharkakoak** sortzea. • Bazterkeriaren kontrako eta gizarteratzearen aldeko agente-**sareak koordinatzea.**
	ENPRESAK	• **Enpresa txiki eta ertainen arteko lankidetzarako tokiko foroak eta klusterrak** sortu eta dinamizatzea. • **Lankidetza-proiektuak** bultzatzea **produktu** eta zerbitzu **berriak garatzeko** eta haiek **merkaturatzeko**. • Trakzio-enpresen eta azpikontratisten arteko l**ankidetza** sustatzea. • Proiektu berriak garatzeko **balio-kateak** txertatzen dituzten **enpresetako lantaldeak** sortzea. • **Ekonomia zirkularra** eta **hondakinen ekoizpenaren murrizketa** sustatzea. • **Talentua atzeman eta ainguratzea** eta **prestakuntzarekin eta teknologiarekin lotutako baliabideak** hurbiltzea. • **Enpresa txiki eta ertainetan jarraitutasuna eta ondorengotza** erraztea. • Egoera ahulean dauden **enpresei babesa ematea**. **Finantzaketa abantailatsua** eskuratzea. • **Laguntzei eta hobekuntza-programei buruzko aldizkari elektronikoak** egitea. • **Nazioartekotzea** babestea (diagnostikoak, herrialdeko jardunaldiak, merkataritza-misioak, eta abar). • Kudeaketa, digitalizazioa edo negozio-ereduak **hobetzeko programak** garatzea. • **Langileek** enpresan **parte har dezatela** sustatzea. • Enpresetan **laneko ongizatea** areagotzeko programak garatzea. • **Enpresen gizarte-erantzukizuna** sustatzea. • **Efizientzia energetikoa eta energia berriztagarriak** sustatzeko eta ezartzeko programak (OHZ hobariak eta beste neurri pizgarri batzuk). • CO2 **emisioak murrizteko** programak garatzea (deskarbonizazioa). • **Sektore estrategikoak** eta **ekintzailetzaren barruko ekimenak** sustatzea. • Enpresa berriak sortzen eta daudenak sendotzen laguntzea.
	PERTSONAK	• **Enplegu-politika aktiboekin** lotutako ekintzetan laguntza integrala ematea. • Enpresetan **praktikak egiteko** erraztasunak ematea. Ikasketetarako **bekak** ematea. • **Informazioa** eta laneko **orientazioa** ematea, eta **gizarteratze-programak** gauzatzea. • **Gizarteratze-ibilbide pertsonalizatuak** prestatzea (immigranteak, bazterketa-arriskuan dauden pertsonak). • **Trebakuntza profesionalerako** eta ezagutzak eta gaitasunak **akreditatzeko** programak garatzea. • **Laneko bitartekotza** kudeatzea. **Enplegu-agentziak**. • **Autoenplegurako aholkuak** ematea, **bideragarritasun**-proiektuak egitea. **Ekintzailetzarako** prestakuntza ematea. • Sustatzaileak eta enpresa berriak **«inkubatzeko» guneak** ezartzea. *Coworking*-arloak. • Laneratzeko jarduerak sustatzea, **enplegu ez formaleko ekimenen bidez**. • **Sustatzaileak eta mikro-enpresa berriak** eta horientzako zerbitzuak **aldi baterako kokatzea**.

PLANIFICACIÓN ESTRATÉGICA	• **Impulsar**, conjuntamente con los agentes socio-económicos locales y comarcales, una **gobernanza colaborativa** que permita definir la misión y la visión de la comunidad local a partir de un análisis de las potencialidades y oportunidades del territorio. • **Dibujar** posibles **escenarios futuros** y **diseñar los proyectos** precisos que permitan alcanzar los escenarios deseados. • Vertebrar la **participación de los agentes sociales y económicos** tanto públicos como privados. • **Principales pasos**: → Diagnóstico preliminar. → Diseño de los procesos participativos. → Definición de la misión y la visión («escenarios» deseados). → Elaboración de un plan de acción. → Estudios de desarrollo sectorial. → Estudios de viabilidad de actividades y proyectos a nivel municipal. → Observatorios de la actividad económica y del mercado laboral. • **Seguimiento:** → Definición del cuadro de mando. → Planes de gestión anual. → Contraste de resultados y revisión periódica.
PROMOCIÓN E IMPULSO DE LA ACTIVIDAD ECONÓMICA	• Construcción de la **identidad local** y promoción de la **adhesión a la comunidad**. Para ello es necesario promover el conocimiento de la realidad local (Instituciones, empresas, agentes, etc.). • Apoyo a los **agentes socio-económicos** y desarrollo de su **responsabilidad social**. • **Promoción** de los **agentes generadores de riqueza y empleo**. • **Consolidación** de las **actividades económicas** existentes y apuesta estratégica por **nuevos sectores** de actividad (turismo, silver economy, energías renovables, nuevas fórmulas de movilidad, etc.). • **Impulso del entorno local** (comercio de proximidad, actividades y empresas culturales). • Desarrollo de **infraestructuras** (culturales, viarias, de ocio, deportivas, lúdicas, industriales, de transportes, comerciales, etc.). • Desarrollo de actividades de **regeneración urbana**. Rehabilitación de cascos antiguos, dotación de equipamientos y rehabilitación de vivienda. • Promoción del **sector primario**, fomentando el consumo de productos locales y saludables (huertas ecológicas, redes de consumo de productos locales). • Impulso de la generación compartida de energías renovables (Comunidades Energéticas) y las dirigidas al autoconsumo. • Captación de los **recursos económico-financieros** para el desarrollo de planes, a través de la iniciativa público-privada. Complementar los fondos municipales con recursos de programas y convocatorias de la Diputación Foral, del Gobierno Vasco, de la Administración Central y de Fondos Europeos.

Guía Local - ISBN 978-84-7777-690-1

PLANGINTZA ESTRATEGIKOA	• Tokiko agente sozioekonomikoekin batera **lankidetzan oinarritutako gobernantza sustatzea,** tokiko erkidegoaren xedea eta ikuspegia zehaztu ahal izateko, lurraldearen gaitasunen eta aukeren azterketa eginda. • **Etorkizuneko eszenatoki** posibleak **irudikatzea** eta lortu nahi diren eszenatokietara iristeko **proiektu zehatzak diseinatzea**. • **Gizarte- eta ekonomia-eragile** publiko eta pribatuen **partaidetza** antolatzea. • **Urrats nagusiak:** → Aurrediagnostikoa egitea. → Partaidetza-prozesuak diseinatzea. → Xedea eta ikuspegia zehaztea (lortu nahi diren «eszenatokiak»). → Ekintza-plana egitea. → Sektoreen garapena aztertzea. → Udalerri mailako jarduera eta proiektuen bideragarritasuna aztertzea. → Jarduera ekonomikoa eta lan-merkatua behatzea. • **Jarraipena:** → Aginte-taula zehaztea. → Urteko kudeaketa-planak finkatzea. → Emaitzak egiaztatu eta aldizka berrikustea.
JARDUERA EKONOMIKOA SUSTATZEA ETA BULTZATZEA	• **Toki-nortasuna** eraiki eta **erkidegoarekiko atxikipena** sustatzea. Horretarako, beharrezkoa da tokiko errealitatearen ezagutza sustatzea (erakundeak, enpresak, agenteak eta abar). • **Agente sozio-ekonomikoak** babestea eta haien **gizarte-erantzukizuna** garatzea. • **Aberastasuna eta enplegua sortzen dituzten agenteak sustatzea**. • Dauden **jarduera ekonomikoak finkatu** eta jarduera-**sektore berrien** aldeko apustu estrategikoa egitea (turismoa, silver economy, energia berriztagarriak, mugikortasuneko formula berriak, eta abar). • **Tokiko ingurua sustatzea** (hurbileko merkataritza, jarduera eta enpresa kulturalak). • **Azpiegiturak** sustatzea (adibidez, kultura, bideak, aisia, kirola, jolasa, industria, garraioa edo merkatua). • **Hiria berroneratzeko** jarduerak garatzea. Alde zaharrak birgaitzea, ekipamenduak hornitzea eta etxebizitzak birgaitzea. • **Lehen sektorea** sustatzea, tokiko produktu osasungarrien kontsumoa indartuz (ortu ekologikoak, tokiko produktuen kontsumo-sareak). • Energia berriztagarrien sorkuntza partekatua (energia-komunitateak) eta autokontsumora zuzendutakoak bultzatzea. • Planak garatzeko **baliabide ekonomiko-finantzarioak** erakartzea, ekimen publiko-pribatuaren bidez. Udal-funtsak Foru Aldundiaren, Eusko Jaurlaritzaren, Administrazio Nagusiaren eta Funts Europarren programa eta deialdietako baliabideekin osatzea.

CONSOLIDACIÓN Y CREACIÓN DE EMPRESAS	• Acciones de sensibilización para promover **actitudes favorables a la actividad empresarial y la figura del/de la emprendedor/a y empresario/a**. • Prestación de servicios de **información**, **formación** y **asesoramiento**. • Generación de condiciones favorables para la **consolidación y atracción de talento**. • Articulación de **ayudas económicas** para la **renovación del tejido** empresarial a nivel local, e implantación de **nuevas actividades** económicas y consolidación de **nuevas contrataciones** laborales. • Acompañamiento y apoyo a los procesos de **relevo generacional** y **transmisión de pequeños negocios y empresas**. • Revisión de la **ordenación urbanística** y de la **movilidad** para favorecer el comercio local. • Impulso de **foros locales de colaboración** entre empresas para la promoción de nuevos proyectos empresariales y de intra-emprendimiento. • Apoyo a la **colaboración entre empresas** que trabajen en la misma cadena de valor o en ámbitos de actividad específicos. • Impulso de la **economía circular** y la **reducción** de la producción de **residuos**. • Desarrollo de iniciativas de diversificación y generación de **nuevos productos y servicios.** • Apoyo a la apertura de **nuevos mercados** y la **internacionalización** de las empresas locales. • Servicios de asesoramiento y acompañamiento para garantizar los procesos de **continuidad y sucesión en empresas familiares**. • Impulso de la implantación de los **nuevos modelos de gestión empresarial**, y de la renovación de los modelos de negocio. • Apoyo a los procesos de mejora en relación **al desempeño medioambiental** de las empresas. • Facilitación del desarrollo de políticas de **responsabilidad social** de las empresas. • Facilitación de la implantación de procesos de **eficiencia energética** e implementación de **energías renovables**.
SERVICIOS A EMPRESAS	• Visitas a empresas para la prospección y detección de las **necesidades y demandas** del sector empresarial (digitalización, personas, continuidad, sucesión, infraestructuras de comunicación, formación continua, suelo y pabellones). • **Información** a las empresas: directorio de empresas, datos estadísticos, y socioeconómicos, ayudas, subvenciones, trámites, procesos legales, regímenes impositivos, bonificaciones. • Asesoramiento y apoyo al **intra-emprendimiento** (*spin-off*). • Apoyo a los **centros de formación profesional** y su acercamiento a las empresas para facilitar la cualificación de los/as trabajadores/as y la inserción de alumnos/as (fomento de prácticas laborales y sistemas duales). • Ayudas a la **incorporación de nuevas personas**. Información sobre modalidades y ayudas a la contratación. Creación y gestión de bolsas de trabajo locales. • Promoción de la **cooperación inter-empresarial** (ecosistemas industriales). • Fomento de la relación entre **empresas - sistema educativo - red vasca de ciencia y tecnología.** • Desarrollo de programas de **innovación y creatividad**. • Asesoramiento y ayudas para la implantación y utilización de las **Tecnologías de la Información y la Comunicación** (TICs). Procesos de digitalización en las empresas. • **Otros servicios**: centros tecnológicos, centros de empresas de servicios, industrialdeas y parques tecnológicos. • **Viveros o centros de empresas y servicios mixtos**. • Acceso a fuentes de **financiación**, préstamos bonificados, capital riesgo, business angels, etc.

ENPRESAK FINKATU ETA SORTZEA	• Enpresa-jardueraren aldeko jarrerak eta ekintzailearen eta enpresariaren figura indartzeko sentsibilizazio-ekintzak garatzea. • **Informazio-, prestakuntza- eta aholkularitza**-zerbitzuak ematea. • **Talentua finkatu eta erakartzeko** baldintza egokiak sortzea. • Tokiko **enpresa-ehuna berritzeko dirulaguntzak** antolatzea, **jarduera ekonomiko berriak** ezartzea eta **lan-kontratazio berriak** finkatzea. • **Belaunaldi-erreleboko** eta **negozio eta enpresa txikien transmisioko** prozesuetan babesa eta laguntza ematea. • **Hirigintza-antolamendua** eta **mugikortasuna** berrikustea, tokiko merkataritzari laguntzeko. • Enpresen arteko l**ankidetzarako tokiko foroak** sustatzea, ekintzailetzaren barruko edo enpresetako proiektu berriak indartzeko. • Balio-kate berean edo jarduera-eremu espezifikoetan lan egiten duten enpresen arteko **lankidetza bultzatzea**. • **Ekonomia zirkularra** sustatzea eta hondakinen ekoizpena **murriztea**. • **Produktu eta zerbitzu berriak** sortu eta dibertsifikatzeko ekimenak garatzea. • **Merkatu berriak** irekitzeko eta tokiko enpresak **nazioartekotzeko** babesa ematea. • **Familia-enpresetan jarraitutasuna eta ondorengotza** bermatzeko laguntza eta aholkularitza ematea. • **Enpresa-kudeaketako eredu berriak** ezartzeko eta negozio-ereduak berritzeko indarra ematea. • Enpresen **ingurumen-jarduna** hobetzeko prozesuak babestea. • Enpresetako **gizarte-erantzukizuneko** politikak garatzen laguntzea. • **Eraginkortasun energetikoko** prozesuak ezartzeko eta **energia berriztagarriak** ezartzeko erraztasunak ematea.
ZERBITZUAK ENPRESENTZAT	• Enpresak bisitatuz, enpresa-sektorearen **beharrak eta eskakizunak** arakatzea eta antzematea (digitalizazioa, pertsonak, jarraitutasuna, ondorengotza, komunikazio-azpiegiturak, etengabeko prestakuntza, lurzorua eta pabilioiak). • Enpresentzako **informazioa**: enpresen direktorioa, datu estatistikoak eta sozioekonomikoak, laguntzak, dirulaguntzak, izapideak, lege-prozesuak, zerga-araubideak, eta hobariak. • **Barruko ekintzailetza** babestea eta haren gaineko aholkua ematea (*spin-off*). • **Lanbide-heziketako zentroak** babestea eta enpresetara hurbiltzea, langileen kualifikazioa eta ikasleen laneratzea errazteko (lan-praktikak eta sistema dualak sustatzea). • **Pertsona berriak sar daitezen** laguntzak ematea. Kontrataziorako modalitateei eta laguntzei buruzko informazioa. Tokiko lan-poltsak sortu eta kudeatzea. • **Enpresen arteko lankidetza** sustatzea (ekosistema industrialak). • **Enpresen, hezkuntza-sistemaren eta zientzia eta teknologiaren euskal sarearen** arteko harremana indartzea. • **Berrikuntza- eta sormen-**programak garatzea. • **Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak** (IKTak) ezartzeko eta erabiltzeko aholkuak eta laguntzak ematea. Enpresak digitalizatzeko prozesuak garatzea. • **Beste zerbitzu batzuk**: teknologia-zentroak, zerbitzuen enpresaguneak, industrialdeak eta teknologia-parkeak. • **Enpresen haztegiak edo zentroak eta zerbitzu mistoak** sustatzea. • **Finantzaketa**-iturriak, hobaridun maileguak, arrisku-kapitala, business angels, eta abar eskuratzea.

ORIENTACIÓN LABORAL	• Diseñar itinerarios personalizados para la **inserción laboral.** • Desarrollar programas que permitan a las personas desempleadas recuperar la **autoestima** y el desarrollo de **conductas eficaces en la búsqueda de empleo**. • Facilitar las herramientas adecuadas y las estrategias necesarias para que las personas que buscan empleo puedan diseñar y gestionar, con mayores garantías de **éxito**, su propio **proyecto profesional**. • Posibilitar la adquisición de **competencias transversales** que faciliten procesos de empoderamiento y refuerzo de actitudes positivas en relación al desempeño laboral.
INSERCIÓN LABORAL	• **Informar** sobre la situación y las ofertas del mercado de trabajo. • **Acompañar y orientar** en la búsqueda activa de empleo. • **Desarrollar acciones formativas** para facilitar la **cualificación** de las personas interesadas en trabajar. • Articular el **contacto entre las empresas y las personas** que buscan empleo. • Desarrollar políticas de fomento de las **prácticas laborales** y actividades de **formación dual.** • Desarrollar actuaciones de **intermediación laboral.** • Utilizar los **programas de fomento del empleo** para posibilitar la **inserción** de personas en situación de vulnerabilidad o riesgo de exclusión. • **Facilitar las relaciones** de los agentes de inserción con las empresas. • **Sensibilizar** a las entidades locales para, cuando sea posible, impulsar la contratación de servicios mediante **contratos reservados**. • Orientar sobre **autoempleo** y las medidas de apoyo a la constitución de **nuevas empresas o pequeños negocios.** • Apoyar la impartición de programas de **formación profesional** que posibiliten la obtención de acreditaciones que avalen la capacitación profesional de las personas (ciclos de grado medio y superior, certificados de profesionalidad). • Posibilitar la obtención del **«arraigo» de inmigrantes** mediante acciones formativas. • **Prospección del mercado** de trabajo en busca de **necesidades formativas** inmediatas que no estén cubiertas por la oferta formativa existente. • Colaboración con centros de formación profesional para generar una **oferta de formación profesional** acorde a las necesidades, tanto de las empresas como de los/as trabajadores/as y desempleados/as. • Coordinar la **oferta de formación para el empleo a nivel comarcal**.

LAN ORIENTAZIOA	• **Laneratzeko** ibilbide pertsonalizatuak diseinatzea. • Langabetuei **autoestimua** berreskuratzeko eta **enplegua bilatzen jarrera eraginkorrak** garatzeko aukera emango dieten programak garatzea. • Enplegu bila dabiltzan pertsonei tresna egokiak eta beharrezko estrategiak ematea, beren **proiektu profesionala arrakasta**-berme handiagoekin diseinatu eta kudeatu ahal izan dezaten. • Lana egiteko jarrera positiboak indartuko dituzten eta ahalduntzea sustatuko duten prozesuak bultzatzeko **zeharkako gaitasunak** eskuratzen laguntzea.
LAN-MERKATURATZEA	• Lan-merkatuaren egoerari eta eskaintzei buruz **informazioa ematea**. • Enplegua aktiboki bilatzen **laguntzea** eta horren gaineko **aholkua ematea**. • **Prestakuntza-ekintzak** garatzea, lan egiteko interesa duten pertsonen **kualifikazioa** erraztekо. • **Enpresen eta** lan bila dabiltzan **pertsonen arteko** harremana erraztea. • **Lan-praktikak** eta **prestakuntza dualeko** jarduerak sustatzeko politikak garatzea. • **Laneko bitartekotzarako** jarduerak garatzea. • **Enplegua sustatzeko programak** erabiltzea, kalteberatasun-egoeran edo bazterketa-arriskuan dauden pertsonak **laneratzea** bideratzeko. • Laneratzeko eragileen eta enpresen arteko **harremanak erraztea**. • Toki-erakundeak **sentsibilizatzea**, ahal denean, **kontratu erreserbatuen bidez** zerbitzuen kontratazioa bultzatzeko. • **Autoenpleguari** eta enpresa berriak edo negozio txikiak sortzen laguntzeko neurriei buruzko orientazioa ematea. • Pertsonen **trebakuntza profesionala** (erdi- eta goi-mailako zikloak, profesionaltasun-ziurtagiriak) bermatzen duten akreditazioak eskuratu ahal izateko lanbide-heziketako programak ematen laguntzea. • **Immigranteak «sustraitzea»** lortzea ahalbidetzea, prestakuntza-ekintzen bidez. • **Lan-merkatuaren prospekzioak egitea**, dagoen prestakuntza-eskaintzak asetzen ez dituen berehalako **prestakuntza-beharren bila.** • Lanbide-heziketako ikastetxeekin elkarlanean aritzea, beharrizanen araberako **lanbide-heziketako eskaintza** sortzeko, enpresen zein langile eta langabeen beharrizanei erantzute aldera. • **Lanerako prestakuntzaren eskaintza** koordinatzea **eskualde-mailan**.

ÁREAS DE ACTUACIÓN	• Desarrollo de **web corporativa** con capacidad para la relación con la ciudadanía y las empresas. • Presencia regular y actualizada en **redes sociales**. • Desarrollo de la **imagen del municipio**. Proyectos de marca-ciudad. Impulso de **campañas específicas** en redes sociales. • Implementación de **proyectos de señalética** de los principales puntos de interés, así como de rutas y paseos. • Impulso a la elaboración de **presupuestos participativos** que incidan en actuaciones que contribuyan a la promoción del municipio. • **Ferias y mercados**. Promoción productos autóctonos. Organización de eventos culturales y festivos con oportunidad para venta directa. • **Comunicación clara y accesible** (web, redes) **de ordenanzas, bonificaciones, apoyos y subvenciones**. • **Colaboración en la tramitación de ayudas** de otras administraciones. • **Accesibilidad** y **tramitación electrónica** en las relaciones con las instituciones locales. • Promoción de **jornadas, seminarios, congresos**. • Impulso de **programas culturales** y de **visitas guiadas** en relación al patrimonio histórico-cultural, naturaleza, etc. • Creación de **oficinas de atención a la ciudadanía y ventanilla única**. • **Campañas específicas de comunicación y promoción del municipio** en relación con festividades, efemérides, eventos deportivos u otros.

JARDUERA-ARLOAK	• Herritarrekin eta enpresekin harremanak izateko gaitasuna duen **web korporatiboa** garatzea. • Presentzia erregularra eta eguneratua **sare sozialetan**. • **Udalerriaren irudia** garatzea. Hiri-markako proiektuak. Sare sozialetan **kanpaina espezifikoak** bultzatzea. • Interes-puntu nagusien **seinale-proiektuak** ezartzea, baita ibilbideena eta pasealekuena ere. • Udalerriaren sustapenean lagunduko duten jardueretan eragingo duten **aurrekontu parte-hartzaileak** egitea bultzatzea. • **Azokak eta merkatuak**. Bertako produktuak sustatzea Zuzeneko salmentarako aukera ematen duten ekitaldi kulturalak eta jaialdiak antolatzea. • **Ordenantzen, hobarien, laguntzen eta dirulaguntzen komunikazio argia eta eskuragarria** (webgunea, sareak). • Beste administrazioen **laguntzak bideratzen laguntzea**. • **Irisgarritasuna eta izapide elektronikoak erraztea** erakundeekiko harremanetan. • **Jardunaldiak, mintegiak, kongresuak** sustatzea. • **Kultura-programak** eta **bisita gidatuak** bultzatzea ondare historiko-kulturalari, naturari eta abarri dagokienez. • **Herritarren arreta-bulegoak eta leihatila bakarra** sortzea. • Jaiekin, efemerideekin, kirol-ekitaldiekin edo bestelakoekin lotutako udalerriko **komunikazio- eta sustapen-kanpaina espezifikoak**.

FOMENTO DE LA CREACIÓN DE PEQUEÑAS EMPRESAS (AUTOEMPLEO)	**ASISTENCIA TÉCNICA A LAS PYMES**	• **Formación** generalista para el/la emprendedor/a o formación específica dirigida al contenido y desarrollo del proyecto. • Apoyo para la elaboración del **plan de viabilidad y ayudas** centradas en el desarrollo de prototipos y primera instalación. • Apoyo a los **intercambios e incursiones en nuevos mercados**.
	VIVEROS DE EMPRESAS, CENTROS DE *COWORKING* Y CENTROS DE EMPRESAS	• Estructuras creadas por los Ayuntamientos y/o Agencias de Desarrollo Local o Comarcal como **soporte y apoyo a la creación y desarrollo de empresas.** En ellos, los/as promotores/as de empresas disponen de: → Espacio donde instalarse. → Formación empresarial. → Soporte técnico. → Servicios comunes. → Asesoramiento.
	OTRO TIPO DE AYUDAS	Apoyo a la gestión de ayudas de diversas administraciones para la creación de **microempresas**: • **Crédito ICO (Instituto de Crédito Oficial).** • **ELKARGI** (sociedad de garantía recíproca) apoyo a la financiación. • **SPRI** (Sociedad para la Promoción y Reconversión Industrial). • Disposición de **suelo y pabellones** industriales y de servicios. • Ayudas a **nuevos promotores** (Boletines informativos): → Ayudas al autoempleo (**Lanbide**). → Ayudas propias de los municipios. • Programas de ayudas de las Diputaciones Forales. • Programas de ayudas del Gobierno Vasco y organismos adscritos. • Ayudas a proyectos relacionados con la **energía** (EVE, IDAE).
PROGRAMAS DE EMPLEO Y CAPACITACIÓN PROFESIONAL	**OBSERVATORIO DEL MERCADO LABORAL**	**Seguimiento de los datos de actividad económica-ocupación-desempleo**, como instrumento para la planificación de los servicios de orientación ocupacional, y, en general, de las acciones municipales para el fomento de la ocupación y la formación para el empleo.
	PROGRAMAS DE ORIENTACIÓN PROFESIONAL	Servicios de **información y asesoramiento** para las personas que buscan trabajo o se encuentran en procesos de recualificación.
	CURSOS DE FORMACIÓN PROFESIONAL	**Actividades formativas** orientadas a la cualificación y acreditación de conocimientos y competencias (ciclos formativos y certificados de profesionalidad).
	SERVICIOS DE INTERMEDIACIÓN LABORAL	Conjunto de actuaciones dirigidas a facilitar la **relación de las personas que buscan trabajo con las empresas** que demandan cubrir puestos de trabajo disponibles: • **Bolsas de trabajo**: para acercar entre sí a demandantes de empleo y empresas oferentes de empleo. • **Prácticas en empresa**: articulación de programas que contengan prácticas en empresa. Facilitar el acceso a prácticas en empresa desde programas formativos (dual, grado, master…).
	ITINERARIOS DE INSERCIÓN LABORAL	Creación de **itinerarios personalizados para la inserción socio-laboral** de las personas en situación de desempleo y vulnerabilidad.
	FINANCIACIÓN DE LOS PLANES Y PROYECTOS	Estos planes y proyectos impulsados por las instituciones locales y comarcales, para la promoción socio-económica y del empleo, **pueden estar cofinanciados** con fondos europeos, del Servicio Vasco de Empleo-Lanbide, del Gobierno Vasco y de las Diputaciones Forales.

Guía Local - ISBN 978-84-7777-690-1

ENPRESA TXIKIAK SORTZEN LAGUNTZEA (AUTOENPLEGUA)	**LAGUNTZA TEKNIKOA ENPRESA TXIKI ETA ERTAINENTZAT**	• Ekintzailearentzat **prestakuntza** orokorra, edo proiektuaren edukiari eta garapenari bideratutako prestakuntza zehatza. • **Bideragarritasun- plana** egiteko babesa, eta prototipoetan eta lehen instalazioetan oinarritutako **laguntzen plana** egiteko ere bai. • **Merkatu berrien sarreretarako eta trukeetarako** laguntzak.
	ENPRESA-MINTEGIAK, *COWORKING*-ZENTROAK ETA ENPRESAGUNEAK	• Udalek edo/eta Toki eta Eskualde Garapenerako agentziek sortutako egiturak, **enpresen sorrera eta garapena babesteko**. Haietan, enpresa-sustatzaileen eskura dago: → Kokatzeko lekua. → Enpresa-prestakuntza. → Babes teknikoa. → Zerbitzu komunak. → Aholkularitza.
	BESTE LAGUNTZA BATZUK	**Mikroenpresak** sortzeko zenbait administrazioren laguntzak kudeatzen laguntzea: • **ICO kredituak (Kreditu Ofizialeko Institutua).** • **ELKARGI**k (elkarrekiko berme-baltzuak) finantzaketaren alde egiten du. • SPRI (Industriaren Sustapen eta Birmoldaketarako Sozietatea). • **Lurzorua** eta industria- eta zerbitzu-**pabiloiak** jartzea. • **Sustatzaile berrien**tzako laguntzak (informazio-buletinak): → Autoenplegurako laguntzak (**Lanbide**). → Udalerrien berezko laguntzak. • Foru-aldundietako laguntza-programak. • Eusko Jaurlaritzako eta atxikitako erakundeetako laguntza-programak. • **Energia**rekin lotutako proiektuetarako laguntzak (EVE, IDAE).
ENPLEGURAKO ETA LANBIDE-TREBAKUNTZARAKO PROGRAMAK	**LAN-MERKATUAREN BEHATOKIA**	**Jarduera ekonomikoaren, enpleguaren eta langabeziaren datuak** aintzat hartuz lanerako orientazio-zerbitzuak planifikatzea, baita, oro har, lana eta lanerako prestakuntza sustatzeko udalaren ekintzak ere.
	LANBIDE-ORIENTAZIORAKO PROGRAMAK	Lanpostu bila dabiltzan edo birkualifikazio-prozesuetan dauden pertsonentzako in**formazio- eta aholkularitza**-zerbitzuak.
	LANBIDE-HEZIKETAKO IKASTAROAK	Ezagutza eta eskumenen akreditazio eta kualifikaziorako **prestakuntza-jarduerak** (prestakuntza-zikloak eta profesionaltasun-ziurtagiriak).
	LANEKO BITARTEKOTZA-ZERBITZUAK	**Lan bila dabiltzan pertsonen** eta hutsik dauden lanpostuak bete nahi dituzten **enpresen artean harremanak** bultzatzeko ekintzak: • **Lan-poltsak**: enplegu-eskatzaileak eta enplegua eskaintzen duten enpresak elkarrengana hurbiltzeko. • **Enpresetako praktikak**: enpresatako praktikak barne hartzen dituzten programak antolatzea. Enpresako praktikaldiak eskuratzea eskaintzea prestakuntza-programetatik (duala, gradua, masterra...).
	LAN-MERKATUAN TXERTATZEKO BIDEAK	Langabezian dauden pertsonen **laneratze eta gizarteratzeko ibilbide pertsonalizatuak** sortzea.
	PLANEN ETA PROIEKTUEN FINANTZAKETA	Tokiko eta eskualdeko erakundeek sustapen sozioekonomikorako eta enpleguaren sustapenerako bultzatutako plan eta proiektu horiek Europako funtsekin, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuarekin, Eusko Jaurlaritzarekin eta foru-aldundiekin **batera finantza daitezke**.

El **apartado n.º 34** del **art. 17.1 de la LILE** establece que los municipios **podrán** ejercer, en el marco de lo dispuesto en esta ley y en la legislación que sea de aplicación, **competencias propias** en el ámbito material referente a la **ordenación y gestión del comercio interior.** En concreto, lo relativo a la ordenación y gestión sobre **mercados**, **abastos**, **ferias**, **lonjas**, **mataderos** y **comercio ambulante**, incluyendo igualmente la planificación y ordenación del **uso comercial al por menor y grandes equipamientos comerciales** atendiendo a criterios de ordenación urbanística y utilización racional del suelo, así como la ordenación, inspección y sanción en materia de **compraventa de vehículos y otros artículos en espacios públicos**.

LICENCIAS MUNICIPALES	
AUTORIZACIÓN ESPECIAL PARA CARGA Y DESCARGA	Es una autorización previa **especial para que los transportistas puedan hacer sus entregas con rapidez y fluidez**. **Se solicita** para los siguientes supuestos de **carga y descarga** de mercancías: • Cuando haya de realizarse la carga y descarga **fuera de las zonas** destinadas a carga y descarga. • Cuando pueda existir **peligro** para los peatones o los vehículos mientras se realicen las operaciones. • Cuando pueda verse dificultada la **circulación** de personas o vehículos. • Cuando las mercancías hayan de **depositarse en la vía pública**. • Cuando las operaciones hayan de realizarse en **horario extenso**.
COMUNICACIÓN PREVIA DE ACTIVIDAD	Es un **trámite ágil** que se realiza con anterioridad a la apertura de un negocio susceptible de originar **daños menores** al medio ambiente, a las personas o a sus bienes, o cuando se realicen modificaciones en el mismo. Se presenta en el ayuntamiento una vez finalizadas obras y/o instalaciones y habilita a la persona solicitante a comenzar con la actividad, sin perjuicio de que, para su inicio, deba disponer de otras autorizaciones o controles establecidos por diferente normativa sectorial.
ALTA EN EL IMPUESTO DE ACTIVIDADES ECONÓMICAS (IAE)	El Impuesto sobre Actividades Económicas es un **tributo directo de carácter real**, cuyo hecho imponible está constituido por el mero ejercicio de **actividades empresariales, profesionales o artísticas**, se ejerzan o no en local determinado y se hallen o no especificadas en las Tarifas del Impuesto. Lo pueden solicitar Personas físicas y jurídicas o sus representantes, en el momento en que vaya a iniciar actividades.
LICENCIA DE ACTIVIDAD	La licencia de actividad se debe solicitar cuando se pretenda la implantación o reforma de una actividad o instalación susceptible de originar mayores daños al medio ambiente, a las personas o a sus bienes, generar riesgos de producir tales daños o causar molestias a las personas. Estas actividades son limitadas en número y se encuentran listadas en el Anexo I.C de la Ley 10/2021, de 9 de diciembre, de Administración Ambiental de Euskadi. La solicitud de licencia la presenta la **persona interesada**, directamente o a través de su representante, y **de forma previa** a la puesta en funcionamiento de la actividad o a las obras de acondicionamiento.
LICENCIA INMEDIATA PARA OBRAS MENORES	Es un sistema alternativo al general que permite obtener autorización automática para ejecutar determinadas **obras menores**, una vez comprobada su corrección por la oficina de atención.
TRANSMISIONES	La correcta realización de los trámites faculta la **transmisión o cambio de titularidad** de los derechos administrativos relativos a la implantación y funcionamiento de actividades.
VADO	Es una **autorización de un uso común de un bien de dominio público**, que precisa la ejecución de unas obras en la zona de dominio público, que es el vado propiamente dicho, y que en ningún caso supone una reserva de aparcamiento a favor del titular de la licencia del paso de vehículos. Lo pueden solicitar las personas titulares de establecimientos comerciales o industriales en los que la índole de la actividad ha de exigir necesariamente la entrada y salida de vehículos, y las titulares de guarderías de vehículos.

Ver la ficha de esta Guía: Ordenación del Territorio y Urbanismo: Licencias de actividad clasificada y comunicaciones previas de actividad.

Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legearen (ETEL) 17.1. artikuluko 34. zenbakiak xedatzen duenez, lege horretan eta aplikatu beharreko araudian xedatutakoaren esparruan, udalerriek **eskumen propioa** izango dute **barne-merkataritza antolatzeko eta kudeatzeko** eremu materialean. Zehatzago esanda, **merkatu, hornidura-merkatu, azoka, lonja, hiltegi eta kalez kaleko merkataritza** antolatu eta kudeatuko dute. Hor sartzen dira, era berean, **txikizkako merkataritza eta merkataritzako ekipamendu handiak** planifikatu eta antolatzeko lanak, hirigintza-antolamenduko irizpideei eta lurzoruaren arrazoizko erabilerari erantzunez, bai eta **ibilgailuak eta bestelako salgaiak espazio publikoetan salerostea** antolatu, ikuskatu eta zehatzeko lanak ere.

UDAL-LIZENTZIAK	
ZAMALANETARAKO BAIMEN BEREZIA	Aurretiazko baimen **berezi** bat da, **garraiolariek beren entregak azkar eta erraz egin ahal izatea ahalbidetzen duena.** Salgaien **zamalanen** kasu hauetarako **eskatzen da**: • Zamalana horretarako berariaz baimendutako **guneetatik kanpo** egin behar denean. • Oinezko edo ibilgailuentzat **arriskua** egon daitekeenean, eragiketak egiten dituzten bitartean. • Pertsona edo ibilgailuen **zirkulazioa** oztopatu daitekeenean. • Salgaiak **bide publikoan jarri** behar direnean. • Eragiketak **ordu-tarte zabalean** egin behar direnean.
JARDUERAREN ALDEZ AURREKO KOMUNIKAZIOA	Ingurumenean, pertsonengan edo horien ondasunetan **kalte txikiak** eragin ditzakeen negozio bat ireki baino lehen edo negozioan aldaketak egitean burutzen den **izapide azkar** bat da. Udalean aurkezten da, obrak edo/eta instalazioak amaitutakoan, eta eskatzaileari baimena ematen dio jarduerarekin has dadin. Hala ere, lanak hasteko, bestelako arau sektorialek ezartzen dituzten gainerako kontrol eta baimenak eduki beharko dira.
EKONOMIA-JARDUEREN GAINEKO ZERGAREN (EJZ) ALTA	Ekonomia-jardueren gaineko zerga **zuzeneko zerga erreal bat** da, eta **enpresa-jardueretan, jarduera profesionaletan edo jarduera artistikoetan** jardute hutsa da haren zerga-egitatea, jarduera horiek lokal jakin batean egiten diren ala ez kontuan hartu gabe, eta zergaren tarifetan zehaztuta egon ala ez. Pertsona fisiko eta juridikoek edo haien ordezkariek eska dezakete, jarduerei ekin behar dieten unean.
JARDUERA-LIZENTZIA	Jarduera-lizentzia eskatu behar da jarduera edo instalazio bat ezarri edo berritu nahi denean, baldin eta jarduera edo instalazio hori ingurumenean, pertsonengan edo haien ondasunetan kalte handiak egin ditzakeena bada edo kalte horiek egiteko edo pertsonei eragozpenak eragiteko arriskuak sor ditzakeena bada. Jarduera horien kopurua mugatua da, eta Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen I. C eranskinean zerrendatuta daude. Lizentzia **interesdunak** eskatzen du, zuzenean edo ordezkari baten bidez, eta jarduera abian jarri **aurretik** edo egokitzapen-obrak egin **aurretik.**
OBRA TXIKIETARAKO BEREHALAKO LIZENTZIA	Sistema orokorraren bestelakoa da. Horri esker, baimen automatikoa lor daiteke **obra txiki** jakin batzuk egiteko, arreta-bulegoak obrak zuzenak direla egiaztatu ondoren.
ESKUALDAKETAK	Izapideak era egokian egiten badira, jarduerak ezarri eta martxan jartzeari buruzko administrazio-eskubideak **eskualdatzeko edo horien titulartasuna aldatzeko** aukera sortzen da.
IBIA	**Jabari publikoko ondasun baten erabilera komuna egiteko baimena** da, jabari publikoko eremuan (ibia bera) obrak egitea eskatzen duena; inola ere ez du esan nahi ibilgailuak igarotzeko lizentziaren titularrak aparkatzeko erreserba duenik. Jarduera mota dela-eta nahitaez ibilgailuen sarrera eta irteera behar duten merkataritza- edo industria-establezimenduen titularrek eta ibilgailuen gordelekuen titularrek eska dezakete.

Ikus Gida honetako fitxa: Lurraldearen Antolamendua eta Hirigintza: Jarduera sailkatuaren lizentziak eta jardueraren aurretiazko jakinarazpena.

MERCADOS MUNICIPALES	
DEFINICIÓN	Tienen la consideración de Mercados Municipales, los **inmuebles del dominio público destinados a la prestación del servicio público de mercados** que, bajo la denominación de puestos y espacios en zonas comerciales, agrupan establecimientos de alimentación y otros usos.
REGULACIÓN	El servicio de los mercados es **responsabilidad del ayuntamiento.** Puede llevarse a cabo mediante **gestión directa** (a través del propio ayuntamiento) o **indirecta** (mediante la contratación de una persona ajena al ayuntamiento que actuará como gestora). En ambos casos, el ayuntamiento ejercerá la intervención administrativa, la vigilancia sanitaria, la supervisión en la observación de los derechos de las personas consumidoras y usuarias, y cuantas otras funciones impliquen el ejercicio y cumplimiento de las competencias que le sean legalmente reconocidas.

VENTAS AMBULANTES	
DEFINICIÓN	Son ventas ambulantes las realizadas por personas naturales o jurídicas que ejerzan esta actividad habitual u ocasional **fuera de un establecimiento comercial, en puestos o instalaciones desmontables, así como en vehículos**. Tendrán las siguientes **modalidades**: • Mercados de carácter periódico. • Mercados ocasionales. • Venta realizada en puestos instalados en la vía pública con carácter no permanente.
REGULACIÓN	Corresponderá a los Ayuntamientos otorgar las **autorizaciones** para el ejercicio de la venta ambulante en sus respectivos términos municipales, de acuerdo con sus normas específicas y las contenidas en la legislación vigente, de acuerdo con el marco respectivo de competencias. El ejercicio de la venta ambulante, cualquiera que sea su modalidad, requerirá de **previa autorización municipal**, que tendrá carácter intransferible y una vigencia máxima anual.

GRANDES ESTABLECIMIENTOS COMERCIALES	
DEFINICIÓN	Toda aquella **implantación urbanística de edificación terciaria** que acumule de forma concentrada **dentro de un mismo área equipamientos comerciales, de servicio, ocio y hostelería** que, en su conjunto, alcance alguna de las siguientes **magnitudes urbanísticas** globales: • Superficie neta de explanada: 15.000 m^2. • Superficie de techo edificable: 5.000 m^2.
CLASIFICACIÓN	Se dividen en: • Establecimientos comerciales en **centros urbanos.** • Establecimientos comerciales en **ensanches urbanos.** • Establecimientos comerciales situados en la **periferia.**
REGULACIÓN	• La regulación urbanística de los Grandes Establecimientos Comerciales situados **en los núcleos** de las ciudades se regirá por el **planeamiento urbanístico municipal**. • La regulación de los establecimientos comerciales ubicados en ensanches urbanos o en la periferia se regirán mediante los criterios que se establezcan en el correspondiente **Plan Territorial Parcial.** • Para la concesión de licencias de implantación o ampliación de grandes superficies comerciales se precisa un **informe** del Departamento de Comercio **del Gobierno Vasco**. • La localización de los Centros Comerciales podrá regularse a través de los **Planes Territoriales Parciales** proponiendo zonas específicas idóneas para la instalación de estos establecimientos o con limitaciones en los ámbitos reservados para otras áreas.

Legislación:
Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi, art. 17.1.34
LRBRL
Ordenanza Reguladora de los Mercados Municipales
Ley 7/1996, de 15 de enero, de Ordenación del Comercio Minorista, modificada por la Ley 1/2010, de 1 de marzo
Ley 7/1994, de 27 de mayo, de la Actividad Comercial, modificada por Ley 7/2000, de 10 de noviembre, por Ley 7/2008, de 25 de junio, y por Ley 7/2012, de 23 de abril
Plan Territorial Sectorial de Creación Pública de Suelo para Actividades Económicas y Equipamientos Comerciales de la CAPV

UDAL-MERKATUAK	
DEFINIZIOA	Udal-merkatutzat jotzen dira **merkatuen zerbitzu publikoa emateko jabari publikoko higiezinak**, merkataritzaguneetako postu edo espazioen izendapenaren pean elikadurarako eta beste erabilera batzuetarako establezimenduak batzen dituztenak.
ERREGULAZIOA	Merkatuen zerbitzua **udalaren erantzukizuna** da. **Kudeaketa zuzenaren** (udalaren beraren bidez) nahiz **zeharkako kudeaketaren** (udalekoa ez den pertsona bat kontratatuta, kudeatzaile-lanetan aritu dadin) bidez gauzatu daiteke. Bi kasuetan, udalak honako zeregin hauek gauzatuko ditu: administrazio-jarduera, osasunaren zaintza, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen eskubideen ikuskaritza, bai eta legez aitortuta dituen eskumenak betetzeko eta jardunean aritzeko gainerako funtzio guztiak ere.

SALMENTA IBILTARIAK	
DEFINIZIOA	**Merkataritza-establezimendu batetik kanpo, desmuntatu daitezkeen postu eta instalazioetan nahiz ibilgailuetan** jarduera hau erregulartasunez edo aldian behin garatzen duten pertsona natural edo juridikoek egindakoak dira salmenta ibiltariak. Honako **modalitate** hauek daude: • Aldizkako merkatuak. • Noizean behingo merkatuak. • Bide publikoan modu iraunkorrean ez dauden postuetan egindako salmenta.
ERREGULAZIOA	Udalen ardura izango da kasuan kasuko udalerrietan salmenta ibiltarian aritzeko **baimenak** ematea, bai udaletako arau zehatzen arabera, bai indarreko legedian jasotakoaren arabera, bakoitzari dagozkion eskumenei jarraikiz. Salmenta ibiltarian aritzeko, bere modalitateetako edozeinetan, **udalaren aurretiazko baimena** beharko da. Baimen hori ezingo da eskualdatu, eta gehienez ere urtebetekoa izango da.

MERKATARITZAGUNE HANDIAK	
DEFINIZIOA	**Hirugarren sektoreko eraikuntzako hirigintza-ezarpen** oro, **gune beraren barruan merkataritza, zerbitzu, aisi edo ostalaritzako ekipamenduak** biltzen dituena eta osotara honako **hirigintza-magnitude** global hauetakoren baten irismena duena: • Lursailaren azalera garbia: 15.000 m^2. • Eraiki daitekeen sabai-azalera: 5.000 m^2.
SAILKAPENA	Honako hauetan banatzen dira: • Merkataritza-establezimenduak **herrietako erdiguneetan.** • Merkataritza-establezimenduak **herrietako zabalguneetan.** • Merkataritza-establezimenduak **periferian.**
ERREGULAZIOA	• **Herrietako erdiguneetan** dauden merkataritza-establezimendu handien hirigintza-erregulazioak **udaleko hirigintza-plangintza** beteko du. • Herrietako zabalguneetan edo periferian dauden merkataritza-establezimenduen erregulazioa kasuan kasuko **lurralde-plan partzialean** ezartzen diren irizpideen arabera arautuko da**.** • Merkataritza-azalera handiak ezarri edo handitzeko lizentziak emateko, **Eusko Jaurlaritzako** Merkataritza Sailaren **txostena** beharko da. • Merkataritza-guneen kokapena **lurralde-plan partzialean** bidez arautu ahalko da. Hala, gune zehatz egokiak proposatuko dira establezimendu horiek instalatzeko, edo mugak ezarriko dira beste arlo batzuetarako gordetako eremuetan.

Legeria:

2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa, 17.1.34. artikulua
TAOL
Udal-merkatuak arautzen dituen ordenantza
7/1996 Legea, urtarrilaren 15ekoa, Txikizkako Merkataritza Antolatzeari buruzkoa, martxoaren 1eko 1/2010 Legeak aldatuta
7/1994 Legea, maiatzaren 27koa, merkataritza-jarduerarena, azaroaren 10eko 7/2000 Legearen, ekainaren 25eko 7/2008 Legearen eta apirilaren 23ko 7/2012 Legearen bidez aldatuta
Euskal Autonomia Erkidegoko Jarduera Ekonomikoetarako Lurzorua Sortzeko eta Saltoki Handiak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana

XIX.

TOKIKO ERAKUNDEEI APLIKATZEKOAK ZAIZKIEN EUROPAR BATASUNEKO PROGRAMAK

PROGRAMAS DE LA UNIÓN EUROPEA APLICABLES A LAS ENTIDADES LOCALES

XIX.

Programas de la Unión Europea aplicables a las entidades locales

1. Medios de información.
2. Principales vías de financiación en la UE.
3. Enlaces de interés.

Guía Local - ISBN 978-84-7777-690-1

XIX.

Tokiko erakundeei aplikatzekoak zaizkien Europar Batasuneko programak

1. Informatzeko bideak.
2. Finantzabide nagusiak Europar Batasunean.
3. Lotura interesgarriak.

ELEMENTO BÁSICO DE INFORMACIÓN: LA REVIE

La **Red Vasca de Información Europea-REVIE,** creada el 3 de marzo de 1997, nace con el propósito de optimizar los medios disponibles en materia de información europea en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Su objetivo es, por un lado, facilitar dicha información de la manera más rápida y completa posible a los ciudadanos y entidades públicas y privadas de Euskadi y, por otro, lograr una mayor coordinación en las tareas de información y divulgación propias de las instituciones y organismos que integran la Red REVIE (Gobierno Vasco, Diputaciones, EUDEL, Cámaras de Comercio, Centros Europe Direct en Euskadi, SEA, Universidades, etc.).

Las áreas de trabajo de la REVIE son la **información**, el **asesoramiento** y la **divulgación** en todas aquellas cuestiones relacionadas con las Comunidades Europeas.

Los miembros de la REVIE son el **Gobierno Vasco**, las tres **Diputaciones Forales**, la Asociación de Municipios Vascos —**EUDEL**—, y los centros integrantes de las redes de información de la Comisión Europea.

LA REVIE TRANSMITE INFORMACIÓN A TRAVÉS DE:

- «**Europa Euskadi**»: Boletín quincenal de Información Europea.
- **Servidor REVIE en Internet** (https://www.revie.euskadi.eus): Todos los miembros de la REVIE están interconectados y, a través de su servidor en Internet, ofrecen sus servicios por vía electrónica a los respectivos usuarios.

Para agilizar el acceso de los destinatarios a la información y evitar posibles duplicidades de la oferta informativa, es conveniente que los municipios vascos encaucen sus consultas a través de EUDEL o de la DIPUTACIÓN FORAL.

ASESORAMIENTO Y APOYO EN BRUSELAS:

El apoyo en Bruselas de la REVIE es la Delegación de Euskadi en Bruselas que, en coordinación con los demás centros de la REVIE, presta **asesoramiento técnico y apoyo** en los contactos y encuentros **en la capital belga** entre las Instituciones Europeas y los agentes públicos y privados vascos. Su dirección y coordenadas de contacto son:

DELEGACIÓN DE EUSKADI EN BRUSELAS
27, Rue Deux Eglises/Tweekerkenstraat
Bruxelles 1000 Brussel

Tel:(0032) 2 2854510
Fax:(0032) 2 2854555

E-mail: bruselas@euskadi.eus

Guía Local - ISBN 978-84-7777-690-1

INFORMATZEKO BIDE NAGUSIA: EIES

EIES Europako Informazioaren Euskal Sarea 1997ko martxoaren 3an sortu zen, Europako informazioari buruz erabilgarri dauden bideak optimizatzeko Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan.

Helburu hau du: batetik, informazio hori erarik azkarren eta osoenean ematea Euskal Autonomia Erkidegoko herritarrei eta entitate publiko zein pribatuei, eta, bestetik, EIES sarea osatzen duten instituzioen eta organismoen informazio- eta zabalkunde-eginkizunetan koordinazioa handiagoa lortzea. EIESeko kideak hauek dira, besteak beste: Eusko Jaurlaritza, aldundiak, EUDEL, merkataritza-ganberak, Euskal Autonomia Erkidegoko Europe Direct zentroak, SEA eta Unibertsitateak.

EIESen lan-arloak Europako Erkidegoekin lotutako gai guztiei buruz **informatu**, **aholkatu** eta gai horiek **zabaltzearekin** lotutakoak dira.

Hauek dira EIESeko kideak: **Eusko Jaurlaritza**, hiru **foru-aldundiak**, Euskadiko Udalen Elkartea —**EUDEL**— eta Europako Batzordearen informazio-sareak osatzen dituzten zentroak.

EIES-EK INFORMAZIOA ZABALTZEKO DITUEN BIDEAK:

- **«Europa Euskadi»**: Europari buruzko hamabostekaria.
- **Interneteko EIES/REVIE zerbitzaria** (https://www.revie.euskadi.eus) EIESeko partaide guztiak elkarrekin konektaturik daude, eta, Interneteko zerbitzariaren bidez, beren zerbitzuak elektronikoki eskaintzen dizkiete erabiltzaileei.

Hartzaileek informazioa errazago eskuratzeko, eta informazio-eskaintza bikoizturik egon ez dadin, komenigarria da Euskal Autonomia Erkidegoko udalek EUDELen edo FORU ALDUNDIAren bitartez bideratzea beren kontsultak.

AHOLKULARITZA ETA LAGUNTZA BRUSELAN:

Bruselan, Euskadiren Bruselako Ordezkaritzan du egoitza EIESek, eta, EIESen beste zentroekin koordinaturik, **aholkularitza teknikoa eta laguntza** eskaintzen ditu **Belgikako hiriburuan** Europako erakundeen eta Euskadiko eragile publiko eta pribatuen arteko harreman eta topaketetan. Harremanetarako helbidea eta nondik norakoa:

EUSKADIREN BRUSELAKO ORDEZKARITZA
27, Rue Deux Eglises/Tweekerkenstraat
Bruxelles 1000 Brussel

Telefonoa: (0032) 2 2854510
Faxa:(0032) 2 2854555

E-mail: bruselas@euskadi.eus

PRINCIPALES VÍAS DE FINANCIACIÓN EN LA UNIÓN EUROPEA 2021-2027

Las **principales vías de financiación en la Unión Europea en el periodo 2021-2027 son:**

- **El Marco Financiero Plurianual 2021-2027 (MFP).**
- **Los Fondos Next Generation EU (NGEU).**

Dentro del MFP se incluyen la Política de Cohesión (FEDER, FSE+), la Política Agraria Común (PAC) y las Prioridades Nuevas y Reforzadas que abarcan, entre otros fondos y programas, el Fondo de Transición Justa, Erasmus+, RescEU, Programa LIFE, Fondo InvestEU, Mecanismo Conectar Europa.

La UE ha elaborado un paquete financiero global de **1,8 billones de euros** a precios de 2018 para los próximos años con objeto de hacer frente a las consecuencias socioeconómicas de la pandemia de COVID-19 y abordar las prioridades de la UE a largo plazo. En él se combina lo siguiente:

- el **Marco Financiero Plurianual (MFP) de 1,0743 billones de euros,**
- el **Instrumento de Recuperación, de carácter extraordinario, «Next Generation EU» (NGEU) de 750.000 millones de euros.**

El paquete contribuirá a transformar la UE apoyando el **Pacto Verde Europeo** y la **transformación digital** y aumentando la **resiliencia**.

EL MARCO FINANCIERO PLURIANUAL (2021-2027)

CONCEPTO

En este marco, la financiación de la UE se destinará a prioridades nuevas y reforzadas en todos los ámbitos de actuación de la UE y también a las transiciones ecológica y digital. La Política de Cohesión y la Política Agraria Común (PAC) seguirán recibiendo una financiación significativa y se actualizarán para garantizar que contribuyen del mejor modo posible a la recuperación económica de Europa y a los objetivos ecológicos y digitales de la UE.

Importe total: 1,0743 billones de euros.

Tras recibir la aprobación del Parlamento Europeo, el 17 de diciembre de 2020 el Consejo adoptó el Reglamento por el que se establece el presupuesto a largo plazo de la UE para el período 2021-2027.

El MFP abarca los siguientes ámbitos de gasto principales:

1. Mercado único, innovación y sector digital: 132.800 millones de euros.
2. Cohesión, resiliencia y valores: 377.800 millones de euros.
3. Recursos naturales y medio ambiente: 356.400 millones de euros.
4. Migración y gestión de las fronteras: 22.700 millones de euros.
5. Seguridad y defensa: 13.200 millones de euros.
6. Vecindad y resto del mundo: 98.400 millones de euros.
7. Administración pública europea: 73.100 millones de euros.

Guía Local - ISBN 978-84-7777-690-1

EUROPAR BATASUNEKO 2021-2027KO FINANTZABIDE NAGUSIAK

Hauek dira Europar Batasuneko finantzabide nagusiak 2021-2027ko aldirako:

- **2021-2027ko Urte Anitzeko Finantza Esparrua (UAFE).**
- **Next Generation EU (NGEU) funtsak.**

UAFE Urte Anitzeko Finantza Esparruaren barruan, Kohesio Politika (EGEF, EGIF+), Nekazaritza Politika Bateratua (NPB) eta Lehentasun Berri eta Indartuak sartzen dira, eta haiek, besteak beste, funts eta programa hauek dituzte: Bidezko Trantsiziorako Funtsa, Erasmus+, RescEU, LIFE programa, InvestEU funtsa eta Europa Konektatu Mekanismoa.

EBk **1,8 bilioi euroko** finantza-pakete global bat egin du datozen urteetarako, 2018ko prezioetan, COVID-19aren pandemiaren ondorio sozioekonomikoei aurre egiteko eta EBren epe luzerako lehentasunei heltzeko. Hauen konbinazioa da:

- **Urte Anitzeko Finantza Esparrua (UAFE): 1,0743 bilioi euro.**
- «Next Generation EU» (NGEU) berreskuratze-tresna berezia: 750.000 milioi euro.

Paketeak EB eraldatzen lagunduko du, **Europako Itun Berdea** eta **eraldaketa digitala** babestuz eta **erresilientzia** areagotuz.

URTE ANITZEKO FINANTZA ESPARRUA (2021-2027)

KONTZEPTUA

Esparru horretan, EBren finantzaketa lehentasun berri eta indartuetara bideratuko da EBren jarduera-eremu guztietan, bai eta trantsizio ekologiko eta digitaletara ere. Kohesio Politikak eta Nekazaritza Politika Bateratuak (NPB) finantzaketa nabarmena jasotzen jarraituko dute, eta eguneratu egingo dira, Europaren susperraldi ekonomikoari eta EBren helburu ekologiko eta digitalei ahalik eta hobekien laguntzen dietela bermatzeko.

Zenbatekoa, guztira: 1,0743 bilioi euro.

Europako Parlamentuak onartu eta gero, 2020ko abenduaren 17an, Europar Batasunaren 2021-2027ko aldirako epe luzeko aurrekontua ezartzen duen erregelamendua onartu zuen Kontseiluak.

UAFEk gastu-eremu nagusi hauek ditu:

1. Merkatu bakarra, berrikuntza eta sektore digitala: 132.800 milioi euro.
2. Kohesioa, erresilientzia eta balioak: 377.800 milioi euro.
3. Baliabide naturalak eta ingurumena: 356.400 milioi euro.
4. Migrazioa eta mugen kudeaketa: 22.700 milioi euro.
5. Segurtasuna eta defentsa: 13.200 milioi euro.
6. Bizilagunak eta gainerako mundua: 98.400 milioi euro.
7. Europar administrazio publikoa: 73.100 milioi euro.

INSTRUMENTOS DE FINANCIACIÓN POR ÁMBITOS TEMÁTICOS El presupuesto de la Unión Europa para el periodo 2021-2027 se agrupa en 7 categorías de gasto:	
1. **MERCADO ÚNICO, INNOVACIÓN Y SECTOR DIGITAL**	• **HORIZONTE EUROPA:** se reforzará para financiar investigaciones vitales en salud, resiliencia y transiciones ecológica y digital. Ayudará a Europa a mantenerse a la vanguardia de la investigación y la innovación mundiales. • **INVESTEU** será uno de los programas para reactivar la economía europea. Movilizará la inversión pública y privada a través de una garantía presupuestaria de la UE, proporcionará asesoramiento técnico y conectará a inversores de todo el mundo con proyectos que necesiten financiación. Además de proporcionar un apoyo crucial a las empresas, también garantizará que el enfoque de los inversores se desplace hacia las prioridades políticas de la UE, como el Pacto Verde Europeo, la transición digital y una mayor resiliencia. • **El PROGRAMA SOBRE EL MERCADO ÚNICO** contribuirá a mantener un mercado único que funcione correctamente e impulse la recuperación. El mercado único es el corazón palpitante de la UE, donde las personas, los bienes, los servicios y el dinero pueden circular casi tan libremente como dentro de un solo país. En el próximo presupuesto a largo plazo de la UE, un programa específico para el mercado único capacitará y protegerá a los consumidores, y permitirá que las numerosas pequeñas y medianas empresas (pymes) de Europa prosperen. • El **NUEVO PROGRAMA ESPACIAL DE LA UE** garantizará que la UE siga siendo un líder mundial en el ámbito espacial. La tecnología espacial, los datos y los servicios se han vuelto indispensables en la vida de las personas y desempeñan un papel estratégico esencial para Europa. El programa fomentará una industria espacial fuerte e innovadora y establecerá un sistema unificado y simplificado de gobernanza. Next Generation EU contribuirá a esta rúbrica con 541 millones de euros para Horizonte Europa y 607 millones de euros para InvestEU, a precios corrientes**.**
2. **COHESIÓN, RESILIENCIA Y VALORES**	Los principales programas de esta categoría de gasto tienen por objeto reforzar la cohesión entre los Estados miembros de la UE. De este modo, reducen las disparidades en las regiones de la UE, dentro de los Estados miembros y entre ellos, y promueven el desarrollo territorial sostenible. Además, a través de la inversión en los jóvenes, la salud y las acciones para proteger los valores de la UE, los programas buscan hacer que Europa sea más resistente a los diversos desafíos a los que nuestro continente se enfrenta y se enfrentará en el futuro. El Mecanismo de Recuperación y Resiliencia y REACT-UE, los dos principales programas de Next Generation EU, también se incluyen en esta categoría. Algunos ejemplos: • El **Fondo Social Europeo+ (FSE+)** apoyará el empleo juvenil, la mejora y el reciclaje profesional de los trabajadores y la reducción de la pobreza. • Sobre la base de su popularidad y éxito, el **nuevo programa Erasmus+** seguirá creando oportunidades para la educación, la formación y la movilidad de los jóvenes. • El **programa RescEU** seguirá protegiendo a las personas de las catástrofes, gestionando los riesgos derivados de las emergencias y garantizando la resiliencia a escala de la UE. Las medidas adoptadas en el marco de este programa van desde el suministro de una flota de aviones y helicópteros de extinción de incendios para hacer frente a los incendios forestales, hasta la garantía del almacenamiento de equipo médico y hospitales de campaña para responder a las emergencias sanitarias. • El **nuevo programa REACT-UE** también aumentará la resiliencia a nivel de la UE. REACT-UE se basa en las medidas adoptadas como respuesta inmediata al brote de coronavirus. En el marco de la política de cohesión, REACT-UE proporcionará fondos rápidamente (con un 50% de prefinanciación) a las regiones y Estados miembros más afectados por la crisis, para contribuir a una recuperación ecológica, digital y resiliente de la economía. Esta categoría se reforzará con 77.650 millones de euros (a precios corrientes) de Next Generation EU, que se dividirán entre el Mecanismo de Recuperación y Resiliencia (72.382 millones de euros), REACT-UE (5.062 millones de euros) y RescEU (206 millones de euros), todo ello a precios corrientes.

FINANTZAKETA-TRESNAK GAIKA Europar Batasunaren 2021-2027ko aldirako aurrekontuak zazpi gastu-kategoria ditu:	
1. **MERKATU BAKARRA, BERRIKUNTZA ETA SEKTORE DIGITALA**	• **HORIZON EUROPA:** indartu egingo da osasuneko, erresilientziako eta trantsizio ekologiko eta digitaleko ezinbesteko ikerketak finantzatzeko. Europari munduko ikerketaren eta berrikuntzaren abangoardian egoten lagunduko dio. • **INVESTEU** Europako ekonomia suspertzeko programetako bat izango da. Inbertsio publikoa eta pribatua mobilizatuko ditu, EBren aurrekontu-berme baten bidez; aholkularitza teknikoa emango du, eta finantzaketa behar duten proiektuekin konektatuko ditu mundu osoko inbertitzaileak. Enpresei laguntza erabakigarria emateaz gain, inbertitzaileak EBren lehentasun politikoetara begira jarriko ditu, hala nola Europako Itun Berdera, trantsizio digitalera eta erresilientzia handiago batera begira. • **MERKATU BAKARRARI BURUZKO PROGRAMAK** behar bezala funtzionatzen duen, susperraldia bultzatzen duen eta bakarra den merkatu bati eusten lagunduko du. Merkatu bakarra EBren bihotz taupakaria da, non pertsonak, ondasunak, zerbitzuak eta dirua herrialde bakar batean ia trabarik gabe ibil daitezkeen. EBren epe luzerako hurrengo aurrekontuan, merkatu bakarrerako berariazko programa batek kontsumitzaileak gaitu eta babestuko ditu, eta Europako enpresa txiki eta ertain (ETE) ugariei aukera emango die aurrera egiteko. • **EB-REN PROGRAMA ESPAZIAL BERRIARI** esker, EB espazioaren esparruan munduko liderretako bat izango da orain ere. Teknologia espaziala, datuak eta zerbitzuak ezinbesteko bihurtu dira pertsonen bizitzan, eta zeregin estrategikoa eta funtsezkoa dute Europarentzat. Programak espazio-industria indartsu eta berritzailea sustatuko du, eta gobernantza-sistema bateratu eta sinplifikatu bat ezarriko du. Next Generation EUk, atal honetan, 541 milioi euro jarriko ditu Horizon Europa programan eta 607 milioi euro InvestEU funtsean, uneko prezioetan.
2. **KOHESIOA, ERRESILIENTZIA ETA BALIOA**K	Gastu-kategoria honetako programa nagusien helburua EBko estatuen arteko kohesioa indartzea da. Horrela, EBko eskualdeetan, estatu kideen barruan eta haien artean dauden desberdintasunak murrizten dituzte, eta lurralde-garapen jasangarria sustatzen. Gainera, programek, gazteengan, osasunean eta EBren balioak babesteko ekintzetan egindako inbertsioaren bidez, lortu nahi dute Europa sendoagoa izatea gure kontinenteak aurre egin behar dien eta etorkizunean aurre egin beharko dien erronken aurrean. Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa eta REACT-UE ere, Next Generation EUren bi programa nagusiak, kategoria honetan sartzen dira. Hona hemen zenbait adibide: • **Europako Gizarte Funtsa+ (EGIF+)** funtsak lagundu egingo du gazteak enplegatzen, langileak lanerako hobetzen eta birziklatzen eta pobrezia murrizten. • Bere ospea eta arrakasta oinarri hartuta, **Erasmus+ programa berriak** gazteen hezteko, prestatzeko eta mugitzeko aukerak sortzen jarraituko du. • **RescEU programak** pertsonak hondamendietatik babesten, larrialdietatik eratorritako arriskuak kudeatzen eta erresilientzia bermatzen jarraituko du EBn. Programa honen esparruan hartutako neurriak askotarikoak dira: hasi baso-suteak itzaltzeko hegazkinen eta helikopteroen flota batez hornitzetik, eta osasun-larrialdiei erantzuteko mediku-ekipoen biltegiratzea eta behin-behineko ospitaleak bermatzerainokoak. • **REACT-UE programa berriak** ere erresilientzia areagotuko du EBn. REACT-UE koronabirusaren agerraldiari berehalako erantzun gisa hartutako neurrietan oinarritzen da. Kohesio-politikaren esparruan, REACT-UEk azkar emango dizkie funtsak (% 50eko aurrefinantzaketarekin) krisiak gehien eragin dien eskualde eta estatu kideei, ekonomiaren susperraldi ekologiko, digital eta erresilientea lortzen laguntzeko. Kategoria hau Next Generation EUren 77.650 milioi eurorekin indartuko da (uneko prezioetan), honela banatuta: Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa (72.382 milioi euro), REACT-UE (5.062 milioi euro) eta RescEU (206 milioi euro). Hori guztia, uneko prezioetan.

INSTRUMENTOS DE FINANCIACIÓN POR ÁMBITOS TEMÁTICOS El presupuesto de la Unión Europa para el periodo 2021-2027 se agrupa en 7 categorías de gasto:	
3. **RECURSOS NATURALES Y MEDIOAMBIENTE**	El presupuesto de la UE es y seguirá siendo un motor de la sostenibilidad: invertir en la agricultura sostenible y los sectores marítimos, junto con la acción por el clima, la protección del medio ambiente, la seguridad alimentaria y el desarrollo rural. Parte de los programas de esta categoría de gasto apoyan a los sectores agrícola y pesquero de Europa y tratan de hacerlos más competitivos. Otros programas están dedicados exclusivamente a los objetivos medioambientales y climáticos de la UE. • PAC. Se reformará y modernizará la **Política Agrícola Común (PAC**), lo que permitirá mantener un mercado único plenamente integrado para los productos agrícolas en la UE, al tiempo que lo hará más sostenible. La PAC también incluye pagos directos a los agricultores, a quienes se les paga por término medio un 40% menos que todos los demás empleos no agrícolas. Los pagos directos garantizan un suministro seguro, de alta calidad y asequible de alimentos producidos en la UE. • **El programa LIFE** es el instrumento de financiación de la UE para el medio ambiente y la acción por el clima. Financia, en particular, proyectos relacionados con la naturaleza, el agua, el aire, la mitigación del cambio climático y la adaptación al mismo para mejorar la calidad de vida de la UE. Gracias a LIFE, 1,5 millones de personas se benefician ahora de una mejor calidad del aire, mientras que el 42% de las especies objetivo están progresando hacia el estado de conservación. • **Fondo de Transición Justa**. Para abordar las consecuencias sociales y económicas derivadas del objetivo de alcanzar la neutralidad climática en la UE de aquí a 2050, un **Fondo de Transición Justa** ayudará a las regiones más vulnerables intensivas en carbón y carbono a abordar los costes económicos y sociales de la transición climática. El desarrollo rural y el Fondo de Transición Justa recibirán financiación adicional de Next Generation EU, respectivamente 807 millones de euros y 1.087 millones de euros, a precios corrientes.
4. **MIGRACIÓN Y GESTIÓN DE LAS FRONTERAS**	Los programas bajo este epígrafe abordan los desafíos relacionados con la migración y la gestión de las fronteras. Se aumentará el apoyo para reforzar nuestras fronteras exteriores a fin de salvaguardar el sistema de asilo dentro de la UE, y se reforzará el apoyo a los Estados miembros para intensificar la gestión y la integración de los migrantes. • El **FONDO DE ASILO Y MIGRACIÓN** reforzado ayudará a las autoridades nacionales a recibir a los solicitantes de asilo y migrantes en el período inmediatamente posterior a su llegada al territorio de la UE. Además, ayudará a desarrollar una política común de asilo y migración, y garantizará retornos efectivos. • El **FONDO PARA LA GESTIÓN INTEGRADA DE LAS FRONTERAS** contribuirá a facilitar la responsabilidad compartida de proteger las fronteras exteriores, proporcionando apoyo financiero a los Estados miembros. Al mismo tiempo, salvaguardará la libre circulación de personas dentro de la UE.
5. **SEGURIDAD Y DEFENSA**	Se incluyen programas que refuerzan la seguridad de los ciudadanos europeos, mejorando las capacidades de defensa de Europa y proporcionando las herramientas para responder a las crisis. Más allá de los retos en materia de seguridad interior, Europa se enfrenta a complejas amenazas externas que ningún Estado miembro puede hacer frente por sí solo. • **El Fondo de Seguridad Interior** se reforzó para desarrollar redes y sistemas comunes para una cooperación eficaz entre las autoridades nacionales. El Fondo también mejorará la capacidad de la UE para hacer frente a amenazas a la seguridad como el terrorismo, la radicalización, la delincuencia organizada y la ciberdelincuencia. • El apoyo financiero para ayudar al desmantelamiento de determinadas centrales nucleares garantizará la seguridad nuclear en Europa. • **El Fondo Europeo de Defensa** promoverá la cooperación en materia de defensa entre industrias de todos los tamaños, incluidas las pymes, y entre países de la UE. El objetivo es apoyar la innovación y desarrollar tecnología y productos de defensa de vanguardia. Esto, a su vez, redundará en ahorros para los Estados miembros.

FINANTZAKETA-TRESNAK GAIKA Europar Batasunaren 2021-2027ko aldirako aurrekontuak zazpi gastu-kategoria ditu:	
3. **BALIABIDE NATURALAK ETA INGURUMENA**	EBren aurrekontua jasangarritasunaren motor bat da eta hala izango da gero ere: nekazaritza jasangarrian eta itsas sektoreetan inbertitzen da, eta klimaren aldeko ekintzan, ingurumenaren babesean, elikagaien segurtasunean eta landa-garapenean. Gastu-kategoria honetako programetako batzuek Europako nekazaritzaren eta arrantzaren sektoreei laguntzen diete, eta haiek lehiakorrago egiten saiatzen dira. Beste programa batzuk EBren ingurumen- eta klima-helburuetara baino ez daude bideratuta. • NPB. **Nekazaritza Politika Bateratua (NPB)** aldatu eta modernizatuko da, eta, horri esker, EBn nekazaritza-produktuetarako guztiz integratutako merkatu bakarrari eutsiko zaio, eta, aldi berean, jasangarriagoa izango da. NPBren barruan, nekazarientzako zuzeneko ordainketak ere egiten dira; nekazariei, batez beste, % 40 gutxiago ordaintzen zaie, nekazaritzakoak ez diren gainerako enpleguetan aritzen direnei baino. Zuzeneko ordainketek bermatzen dute EBn ekoitzitako elikagaien hornidura segurua, kalitate handikoa eta eskuragarria izatea. • **LIFE programa** EBk ingurumenaren eta klimaren aldeko ekintza finantzatzeko duen tresna da. Bereziki, naturarekin, urarekin, airearekin, klima-aldaketa arintzearekin eta klima-aldaketara egokitzearekin lotutako proiektuak finantzatzen ditu, EBko bizi-kalitatea hobetzeko. LIFEri esker, 1,5 milioi pertsonak airearen kalitate hobea dute orain, eta helburuko espezieen % 42 aurrera egiten ari dira kontserbazio-egoerara iristeko bidean. • **Bidezko Trantsiziorako Funtsa.** Hemendik 2050era bitartean EBn klima-neutraltasuna lortzeko helburutik eratorritako ondorio sozial eta ekonomikoei aurre egiteko, bidezko trantsiziorako funts batek klima-trantsizioaren kostu ekonomiko eta sozialei aurre egiten lagunduko die ikatz- eta karbono-ustiapen intentsiboko eskualde ahulenei. Landa-garapenak eta Bidezko Trantsiziorako Funtsak finantzaketa gehigarria jasoko dute Next Generation EUtik, uneko prezioetan; 807 milioi euro eta 1.087 milioi euro, hurrenez hurren.
4. **MIGRAZIOA ETA MUGEN KUDEAKETA**	Epigrafe honetako programek migrazioarekin eta mugen kudeaketarekin lotutako erronkei heltzen diete. Laguntza handituko da gure kanpoko mugak indartzeko, EBren barruko asilo-sistema babesteko, eta estatu kideei ematen zaien laguntza indartuko da, migratzaileen kudeaketa eta integrazioa areagotzeko. • **ASILOAREN ETA MIGRAZIOAREN FUNTS** indartuari esker, agintari nazionalek errazago hartuko dituzte asilo-eskatzaileak eta migratzaileak EBko lurraldera iristean. Gainera, asilo- eta migrazio-politika erkide bat garatzen lagunduko du, eta benetako itzulerak bermatuko ditu. • **MUGAK MODU INTEGRATUAN KUDEATZEKO FUNTSAK** kanpoko mugak babesteko erantzukizun partekatua errazago hartzen lagunduko du, estatu kideei finantza-laguntza emanez. Aldi berean, pertsonen zirkulazio askea babestuko du EBren barruan.
5. **SEGURTASUNA ETA DEFENTSA**	Europako herritarren segurtasuna indartzen duten programak sartzen dira, Europaren defentsa-gaitasunak hobetzen dituztenak eta krisiei aurre egiteko tresnak eskaintzen dituztenak. Barne-segurtasunaren arloko erronketatik harago, Europak kanpoko mehatxu konplexuak ditu, eta estatu kide batek ere ezin die aurre egin bere kabuz. • **Barne Segurtasuneko Funtsa** indartu egin zen sare eta sistema komunak garatzeko eta agintari nazionalen arteko lankidetza eraginkorra izateko. Funtsak, halaber, EBk segurtasunaren aurkako mehatxuei aurre egiteko duen gaitasuna hobetuko du; adibidez, terrorismoari, erradikalizazioari, delinkuentzia antolatuari eta ziberdelinkuentziari aurre egiteko. • Zentral nuklear jakin batzuk desegiten laguntzeko finantza-laguntzak Europako segurtasun nuklearra bermatuko du. • **Europako Defentsa Funtsak** defentsaren arloko lankidetza sustatuko du tamaina guztietako industrien artean, ETEak barne, eta EBko herrialdeen artean. Berrikuntzaren alde egitea eta abangoardiako defentsarako teknologia eta produktuak garatzea da helburua. Horrek, aldi berean, aurrezpena ekarriko die estatu kideei.

INSTRUMENTOS DE FINANCIACIÓN POR ÁMBITOS TEMÁTICOS El presupuesto de la Unión Europa para el periodo 2021-2027 se agrupa en 7 categorías de gasto:	
6. **VECINDAD Y RESTO DEL MUNDO**	Los programas de esta categoría invierten en la acción exterior de la UE, en su vecindad, en los países en desarrollo y en el resto del mundo. El epígrafe también incluye la ayuda a los países que se preparan para la adhesión a la UE. Gracias a esta financiación, la UE puede mantener e incluso reforzar su papel como actor mundial, al tiempo que sigue siendo, junto con sus Estados miembros, el principal donante mundial de ayuda humanitaria y de desarrollo. • La mayoría de los instrumentos que financian la acción exterior de la UE se están fusionando en un Instrumento de Vecindad, Desarrollo y Cooperación Internacional (IVDCI). De este modo, la financiación de la acción exterior de la UE se vuelve más coherente, transparente y flexible. • Con este instrumento, la UE se centrará en prioridades estratégicas tanto geográfica como temáticamente. La financiación en el marco del IVDCI se centrará en la vecindad europea, África y los Balcanes Occidentales, así como en los países más necesitados. Abarcará la seguridad, la migración, el cambio climático y los derechos humanos. • Un instrumento de preadhesión ayudará a los países candidatos en su camino hacia el cumplimiento de los criterios de adhesión. • La ayuda humanitaria seguirá salvando vidas en tiempos de crecientes necesidades humanitarias. Ayudará a abordar las necesidades humanitarias más acuciantes: desde el empeoramiento de los desastres naturales debido al cambio climático hasta los desafíos causados por la pandemia de coronavirus y otras enfermedades infecciosas, los conflictos y la crisis mundial de refugiados.
7. **ADMINISTRACIÓN PÚBLICA EUROPEA**	La administración pública europea es pequeña en comparación con las administraciones nacionales e incluso con muchas administraciones regionales y locales. Sin embargo, desempeña un papel crucial a la hora de ayudar a la UE a cumplir sus prioridades y a aplicar políticas y programas en aras del interés común europeo. Esta categoría de gasto cubre principalmente los gastos administrativos de todas las instituciones de la UE, así como las pensiones de los funcionarios jubilados de la UE.


FINANTZAKETA-TRESNAK GAIKA Europar Batasunaren 2021-2027ko aldirako aurrekontuak zazpi gastu-kategoria ditu:	
6. **BIZILAGUNAK ETA GAINERAKO MUNDU**A	Kategoria honetako programek EBren kanpo-ekintzan inbertitzen dute, bere inguruko herrialdeetan, garapen-bidean dauden herrialdeetan eta munduko gainerakoetan. EBra atxikitzeko prestatzen ari diren herrialdeentzako laguntza ere sartzen da epigrafe honetan. Finantzaketa horri esker, EBk munduko eragile gisa duen zereginari eutsi diezaioke, eta are indartu ere, eta, aldi berean, bere estatuekin batera, laguntza humanitarioaren eta garapenaren munduko emaile nagusia da, orain arte bezala. • EBren kanpo-ekintza finantzatzen duten tresna gehienak Nazioarteko Auzotasun, Garapen eta Lankidetzako Tresna batean batzen ari dira. Horrela, EBren kanpo-ekintzaren finantzaketa koherenteagoa, gardenagoa eta malguagoa da. • Tresna horrekin, EBk lehentasun geografiko zein tematiko estrategikoetan jarriko du arreta. Nazioarteko Auzotasun, Garapen eta Lankidetzako Tresnaren esparruko finantzaketa Europaren inguruko herrialdeetan, Afrikan eta Balkanen mendebaldean oinarrituko da, baita premia handiena duten herrialdeetan ere. Segurtasunaren, migrazioaren, klima-aldaketaren eta giza eskubideen arloak hartuko ditu. • Atxiki aurreko tresna batek atxikipen-irizpideak betetzeko bidean lagunduko die herrialde hautagaiei. • Giza laguntzak biziak salbatzen jarraituko du gero eta premia humanitario handiagoko garaietan. Premia humanitario larrienei aurre egiten lagunduko du: klima-aldaketaren ondoriozko hondamendi natural gero eta okerragoak, koronabirusaren eta beste gaixotasun infekzioso batzuen pandemiak eragindako erronkak, gatazkak eta errefuxiatuen munduko krisia...
7. **EUROPAR ADMINISTRAZIO PUBLIKOA**	Europar administrazio publikoa txikia da administrazio nazionalekin alderatuta, baita eskualdeko eta tokiko administrazio askorekin alderatuta ere. Hala ere, zeregin erabakigarria du EBri bere lehentasunak betetzen eta Europaren interes komunaren aldeko politikak eta programak aplikatzen laguntzeko. Gastu-kategoria honek EBko erakunde guztien administrazio-gastuak estaltzen ditu nagusiki, baita EBko funtzionario erretiratuen pentsioak ere.

CONCEPTO	A partir de principios del año 2020, consecuencia de la irrupción de la pandemia del COVID-19, la Unión Europea responde a esta crisis económica y social sin precedentes, con una movilización adicional e histórica de recursos para amortiguar el impacto económico de la caída de actividad, con medidas que se fueron adaptando a la evolución de la situación sanitaria y económica, protegiendo el tejido productivo, el empleo y las rentas de las familias. En este contexto, como respuesta a la crisis del COVID-19, la Unión Europea creó un **Mecanismo de ayuda extraordinario suministrando ayudas económicas directas mediante una nueva herramienta**. A tal fin, el 21 de julio de 2020, el Consejo Europeo acordó la aprobación de un instrumento excepcional de recuperación temporal conocido como **NEXT GENERATION EU (NGEU), por un importe total de 750.000 millones de euros.**
EL **MECANISMO PARA LA RECUPERACIÓN Y LA RESILIENCIA (MRR)**	**Constituye el núcleo del Fondo NGEU y está dotado con 672.500 millones de euros, de los cuales 360.000 millones se destinarán a préstamos y 312.500 millones a transferencias no reembolsables.** Además del MRR, también está prevista la Ayuda a la Recuperación para la Cohesión y los Territorios de Europa **(REACT-UE). Es una nueva iniciativa, dotada con 47.500 millones de euros,** que continúa y amplía las medidas de respuesta y reparación de las crisis aplicadas a través de la Iniciativa de Inversión en Respuesta al Coronavirus y la Iniciativa de Inversión en Respuesta al Coronavirus Plus. Estos recursos se ejecutarán a través del Fondo Europeo de Desarrollo Regional (FEDER), el Fondo Social Europeo (FSE) y el Fondo de Ayuda Europea para las Personas Más Desfavorecidas (FEAD). Next Generation EU también aportará fondos adicionales a otros programas o fondos europeos, como Horizonte Europa, InvestEU, el Fondo Europeo Agrario de Desarrollo Rural (FEADER) o el Fondo de Transición Justa (FTJ). Del **MRR, a España se le asignó inicialmente 140.000 millones de euros, de los que 69.528 millones eran en forma de ayudas y subvenciones, y el resto, préstamos.**
PLAN DE RECUPERACIÓN, TRANSFORMACIÓN Y RESILIENCIA (PRTR) DE ESPAÑA	Tras la asignación, la Comisión Europea aprobó, el 13 de julio de 2021, el **PRTR de España**, que cubre la primera fase de ejecución y detalla las inversiones y reformas en el período 2021-2023. El objetivo es movilizar, durante este trienio, el 80% de los 69.528 millones de transferencias asignadas, a los que se sumará la movilización de créditos, a partir del año 2023. Con fecha de **30 de junio de 2022, la Comisión Europea confirmó que la cantidad inicialmente asignada a España de 140.000 millones de euros se ha incrementado hasta los 163.820 millones de euros**. Este incremento se produce como consecuencia de la actualización contemplada en el Reglamento del citado Mecanismo, calculada en base a los datos definitivos de crecimiento registrado en los países europeos en los últimos dos años, desde el inicio de la pandemia. Este incremento de 23.820 millones tiene su origen en 7.706 millones más de ayudas no reembolsables, a lo que se suma otro importe de 2.586 millones de euros en ayudas no reembolsables para conseguir la independencia del suministro energético de Rusia (REPowerEU), y el incremento de 13.528 millones de euros de los préstamos, que pasarían también de una cantidad inicial de 70.472 millones a 84.000 millones de euros. Una vez aprobada la cantidad total de transferencias no reembolsables disponibles para España en el marco del Mecanismo de Recuperación y Resiliencia, el Gobierno de España deberá actualizar el Plan de Recuperación para incluir las nuevas inversiones y reformas. En este sentido, se aprobó en Consejo de Ministros de 6 de junio de 2023 la Adenda al PRTR, para recoger los citados incrementos. La Adenda incluye inversiones y reformas adicionales dirigidas a impulsar la autonomía estratégica en el ámbito energético, agroalimentario, industrial, tecnológico y digital; las inversiones sostenibles de las empresas y el parque de vivienda para alquiler. A través de las inversiones previstas se canalizarán a las empresas y a la economía española un total de: • **7.700 millones de euros de transferencias adicionales.** • **2.644 millones de euros a través del programa REpowerEU.** • **Hasta 84.000 millones de euros en préstamos, que permitirán establecer una red de seguridad y prolongar el actual ciclo de inversión en los próximos años.**


KONTZEPTUA	2020. urtearen hasieratik aurrera, COVID-19aren pandemia zabaldu zela eta, Europar Batasunak inoiz ez bezalako krisi ekonomiko eta sozial horri erantzun zion, eta baliabideen mobilizazio gehigarri eta historikoa egin zuen jardueraren beherakadaren inpaktu ekonomikoa arintzeko. Osasun- eta ekonomia-egoeraren bilakaerara egokituz joan ziren hartutako neurriak, ekoizpen-sarea, enplegua eta familien errentak babestuz. Egoera hartan, COVID-19aren krisiari erantzuteko, Europar Batasunak **aparteko laguntza-mekanismo bat** sortu zuen, **zuzeneko laguntza ekonomikoak tresna berri baten bidez emango zituena**. Horretarako, 2020ko uztailaren 21ean, Europako Kontseiluak erabaki zuen **NEXT GENERATION EU (NGEU)** izeneko salbuespenezko tresna bat onartzea, **750.000 milioi euroz hornitua.**
SUSPERRALDIRAKO ETA ERRESILIENTZIARAKO MEKANISMOA (SEM)	**NGEU funtsaren muina da, eta 672.500 milioi euroko zuzkidura du; haietatik 360.000 milioi maileguetara bideratuko dira, eta 312.500 milioi, berriz, itzuli ezin diren transferentzietara.** SEMez gain, Kohesioa eta Europako Lurraldeak Berreskuratzeko Laguntza ere aurreikusita dago **(REACT-UE)**. **Ekimen berri horrek 47.500 milioi euro ditu**, eta jarraipena ematen die krisiei erantzuteko eta haiek konpontzeko Koronabirusari Erantzuteko Inbertsio Ekimenaren eta Koronabirusari Erantzuteko Plus Inbertsio Ekimenaren bidez aplikatutako neurriei, baita neurriak gehitzen ere. Baliabide horiek EGEF Eskualde Garapeneko Europako Funtsaren, EGIF Europako Gizarte Funtsaren eta FEAD Behartsuenei Laguntzeko Europako Funtsaren bidez erabiliko dira. Next Generation EUk Europako beste programa edo funts batzuei ere funts gehiago emango dizkie, hala nola Horizon Europari, InvestEU funtsari, Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsari (LGENF) edo Bidezko Trantsiziorako Funtsari (FTJ). **SEMetik, Espainiari 140.000 milioi euro esleitu zitzaizkion hasieran, eta haietatik 69.528 milioi laguntzak eta dirulaguntzak ziren, eta gainerakoa, maileguak.**
ESPAINIAKO SUSPERTZE-, ERALDATZE- ETA ERRESILIENTZIA-PLANA (SEEP)	Esleipenaren ondoren, Europako Batzordeak **Espainiako SEEPa** onartu zuen 2021eko uztailaren 13an. Exekuzioaren lehen fasea estaltzen du, eta 2021-2023ko aldiko inbertsioak eta erreformak zehazten ditu. Helburua da esleitutako transferentzien 69.528 milioien % 80 mobilizatzea hirurteko horretan, eta horiei kredituen mobilizazioa gehituko zaie, 2023tik aurrera. **2022ko ekainaren 30ean, Europako Batzordeak berretsi zuen Espainiari hasiera batean esleitutako 140.000 milioi euroko zenbatekoa 163.820 milioi eurora igo zela.** Igoera hori mekanismo horren erregelamenduan jasotako eguneratzearen ondorioz gertatu da, zeina pandemiaren hasieratik azken bi urteetan Europako herrialdeetan erregistratutako hazkundearen behin betiko datuen arabera kalkulatu baita. 23.820 milioiko gehikuntza hori hauei dagokie: 7.706 milioi gehiago itzuli behar ez diren laguntzetan; 2.586 milioi euroko beste zenbateko bat itzuli behar ez diren laguntzetan, Errusiako energia-horniduraren mendekotasunetik askatzeko (REPowerEU), eta 13.528 milioi euroko igoera maileguetan (hasieran, 70.472 milioi euroren maileguak ziren, eta, orain, 84.000 milioi). Espainiarako eskuragarri dauden eta itzuli behar ez diren transferentzien guztizko kopurua Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren esparruan onartu ondoren, Espainiako Gobernuak Suspertze Plana eguneratu beharko du, inbertsio eta erreforma berriak sartzeko. Hala, Ministro Kontseiluak SEEPerako gehigarria onartu zuen 2023ko ekainaren 6an, aipatutako gehikuntzak jasotzeko. Gehigarriak energiaren, nekazaritzako elikagaien, industriaren, teknologiaren eremuetan eta eremu digitalean autonomia estrategikoa sustatzeko inbertsio eta erreforma gehiago jasotzen ditu, eta enpresen inbertsio jasangarriak sustatzekoak eta alokairurako etxebizitza-parkea sustatzekoak. Egitekoak diren inbertsioen bidez, hauek bideratuko dira guztira Espainiako enpresetara eta ekonomiara: • **7.700 milioi euro transferentzia gehigarrietan.** • **2.644 milioi euro REpowerEU programaren bidez.** • **84.000 milioi euro arte maileguetan, segurtasun-sare bat ezarri eta hurrengo urteetan egungo inbertsio-zikloa luzatu ahal izatea ekarriko dutenak.**

CONTENIDO DE LA ADENDA	En síntesis, el contenido de la Adenda se resume en las siguientes inversiones y reformas adicionales: 10.300 millones de euros de transferencias adicionales de los fondos Next Generation EU y el programa Repower EU para reforzar los 12 proyectos estratégicos (PERTE) que ya están en marcha, e impulsar la autonomía estratégica en el ámbito energético, agroalimentario, industrial, tecnológico y digital; y 84.000 millones en préstamos que se canalizarán a través de los PERTE y de un conjunto de fondos que proporcionen una red de seguridad que permita mantener el impulso de las inversiones públicas y privadas. Además del ICO y otras entidades públicas, los préstamos se canalizarán a través de las entidades financieras y del Banco Europeo de Inversiones. Estos préstamos permitirán una financiación sostenible a un menor tipo de interés que la obtenida por el Tesoro Público y largos plazos de amortización, que se trasladarán a las Comunidades Autónomas y empresas, lo que garantiza el mantenimiento del flujo de financiación en un contexto marcado por la subida de los tipos de interés. En total, el Plan de Recuperación puede llegar a movilizar más de 160.000 millones de euros en el periodo 2021-2026, más del 12% del PIB de España, que se unirán a los 36.700 millones de euros de los Fondos Estructurales del marco financiero plurianual 2021-2027. Para consultar el detalle del contenido de la Adenda al PRTR, se puede acceder a través de los siguientes enlaces: • Adenda al PRTR: https://planderecuperacion.gob.es/sites/default/files/2023-06/06062023_adenda_plan_de_recuperacion.pdf • Presentación de la Adenda al PRTR: https://portal.mineco.gob.es/RecursosNoticia/mineco/prensa/noticias/2023/20230606_ppt_adenda.pdf • Nota de prensa del Ministerio de Asuntos Económicos y Transformación Digital, que incluye un cuadro resumen con el desglose de las principales reformas e inversiones de la Adenda al PRTR: https://portal.mineco.gob.es/RecursosNoticia/mineco/prensa/noticias/2023/20230606_ndp_adenda.pdf
INSTRUMENTOS	Tres instrumentos especiales temáticos ofrecerán medios de financiación adicionales para atender a determinados acontecimientos imprevistos: • Una **Reserva de Adaptación al *Brexit*** para brindar apoyo a los Estados miembros y a los sectores económicos más gravemente afectados por el *Brexit* (5.000 millones de euros). • El **Fondo Europeo de Adaptación a la Globalización** para prestar ayuda a los trabajadores que hayan perdido su empleo como consecuencia de reestructuraciones derivadas de la globalización (186 millones de euros anuales). • La **Reserva para Solidaridad y Ayudas de Emergencia** para responder a situaciones de emergencia causadas por grandes catástrofes en los Estados miembros y en los países en vías de adhesión, y para responder rápidamente a necesidades de emergencia específicas que surjan dentro de la UE o en terceros países (1.200 millones de euros anuales).

GEHIGARRIAREN EDUKIA	Laburbilduz, inbertsio eta erreforma gehigarri hauetan laburbiltzen da gehigarriaren edukia: 10.300 milioi euroren transferentzia gehigarriak Next Generation EU funtsetatik eta Repower EU programatik, dagoeneko martxan dauden hamabi proiektu estrategikoak (ESEPE, Ekonomia Suspertu eta Eraldatzeko Proiektu Estrategikoak) indartzeko eta energiaren, nekazaritzako elikagaien, industriaren, teknologiaren eremuetan eta eremu digitalean autonomia estrategikoa bultzatzeko; eta 84.000 milioiren maileguak, ESEPEen bidez eta inbertsio publiko eta pribatuen sustapenari eustea ahalbidetuko duen segurtasun-sare bat emango duten funtsen bidez bideratuko direnak. ICO Kreditu Ofizialeko Institutuaren eta beste entitate publiko batzuen bitartez ez ezik, finantza-entitateen eta Europako Inbertsio Bankuaren bitartez ere bideratuko dira maileguak. Mailegu horiei esker, finantzaketa jasangarria lortuko da, Altxor Publikoak lortutakoa baino interes-tasa txikiagokoa eta amortizazio-epe luzeagokoa. Horiek autonomia-erkidegoei eta enpresei aplikatuko zaizkie, eta, horri esker, finantzaketa-fluxua ez da etengo interes-tasen igoerak markatutako egoeretan. Guztira, Suspertze Planak 160.000 milioi euro baino gehiago mobilizatu ditzake 2021-2026ko aldian, Espainiako BPGd-aren % 12 baino gehiago, eta 2021-2027 urte anitzeko finantza-esparruaren egitura-funtsen 36.700 milioi euroei gehituko zaizkie. SEEParen gehigarriaren edukiaren xehetasunak kontsultatzeko, esteka hauek erabil daitezke: • SEEParen gehigarria: https://planderecuperacion.gob.es/sites/default/files/2023-06/06062023_adenda_plan_de_recuperacion.pdf • SEEParen gehigarriaren aurkezpena: https://portal.mineco.gob.es/RecursosNoticia/mineco/prensa/noticias/2023/20230606_ppt_adenda.pdf • Ekonomia Gaietako eta Transformazio Digitaleko Ministerioaren prentsa-oharra, SEEParen gehigarriaren erreforma eta inbertsio nagusien banakapena jasotzen duen laburpen-taula bat duela: https://portal.mineco.gob.es/RecursosNoticia/mineco/prensa/noticias/2023/20230606_ndp_adenda.pdf
TRESNAK	Gai banatako hiru tresna berezik finantzaketa-bitarteko gehiago eskainiko dituzte ezusteko gertaera jakin batzuei erantzuteko: • ***Brexit*era Egokitzeko Erreserba**, *Brexit*ak gehien eragindako estatu kideei eta sektore ekonomikoei laguntza emateko (5.000 milioi euro). • **Globalizaziora Egokitzeko Europako Funtsa**, globalizazioak ekarritako berregituraketen ondorioz enplegua galdu duten langileei laguntzeko (186 milioi euro urtean). • **Elkartasunerako eta Larrialdietarako Laguntzetarako Erreserba**, estatu kideetan eta atxikitze-bidean dauden herrialdeetan hondamendi handiek eragindako larrialdi-egoerei erantzuteko, eta EBn edo beste herrialde batzuetan sortzen diren larrialdi-premia espezifikoei azkar erantzuteko (1.200 milioi euro urtean).

CONCEPTO	Con la asignación de los Fondos Next Generation EU (NGEU) para España, se elabora el **Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia (PRTR)**, aprobado en julio de 2021, para contrarrestar así el impacto de la pandemia sobre la inversión y la actividad económica. También para impulsar la recuperación y abordar una modernización de la economía española, que permita retomar la senda de progreso y prosperidad anterior a la pandemia. Son nuevos **instrumentos financieros, que se unirán al resto de instrumentos previstos en el Marco Financiero Plurianual 2021-2027, para impulsar inversiones y reformas en los ámbitos prioritarios a nivel europeo: apoyar la transición ecológica y la transformación digital, impulsar el crecimiento potencial, la I+D y un mercado interior eficiente con fuertes pymes, reforzar la cohesión social y territorial, aumentar la resiliencia sanitaria, económica, social e institucional y desarrollar políticas para las generaciones futuras, niños y jóvenes, en particular mediante la educación y la capacitación profesional.** Los destinatarios pueden ser personas físicas o jurídicas, privadas o públicas.
PROCEDIMIENTO	El PRTR incorpora la agenda de inversiones y reformas estructurales, que se interrelacionan y retroalimentan para lograr cuatro objetivos transversales: avanzar hacia una España más verde, más digital, más cohesionada desde el punto de vista social y territorial, y más igualitaria. Estos cuatro ejes orientan las diez políticas palanca que determinan la evolución futura del país y dentro de estas diez políticas palanca, se recogen treinta componentes, que permiten articular los programas coherentes de inversiones y reformas del Plan. España contará con **tres líneas de distribución de los fondos del Plan de Recuperación**: 1. **Los Proyectos Estratégicos para la Recuperación y Transformación Económica (PERTE),** una nueva figura de colaboración público-privada con la que se identifican proyectos singulares. 2. **Subvenciones,** para la financiación de activos privados, a través de convocatorias de concurrencia competitiva. 3. **Contratos**, para la financiación de activos públicos, a través de licitaciones. La información sobre las diferentes ayudas y los aspectos generales y de gestión y ejecución están recogidos en esta guía. Fuente: https://planderecuperacion.gob.es/
EJES TRANSVERSALES	El Plan tiene **cuatro ejes transversales** dentro de los cuales se recogen treinta componentes, cada uno de los cuales se divide en una o varias medidas, ya sean reformas o inversiones, que permiten articular los programas coherentes del Plan: • la transición ecológica. • la transformación digital. • la cohesión social y territorial. • la igualdad de género.
POLÍTICAS TRACTORAS	El PRTR se estructura en torno a **diez «políticas palanca o tractoras» y treinta componentes, que se estructuran en 212 Medidas (102 Reformas y 110 Inversiones) para las que España se compromete a cumplir 220 hitos y 196 objetivos, que van a incidir directamente en aquellos sectores productivos con mayor capacidad de transformación de nuestro tejido económico y social.**  Fuente: https://planderecuperacion.gob.es/

Guía Local - ISBN 978-84-7777-690-1

KONTZEPTUA	Espainiari Next Generation EU (NGEU) funtsak esleituta, **Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana (SEEP)** egin zen, 2021eko uztailean onartua, pandemiak inbertsioan eta jarduera ekonomikoan duen eraginari aurre egiteko. Baita susperraldia bultzatzeko eta Espainiako ekonomia modernizatzeari ekiteko ere, pandemiaren aurreko aurrerapen- eta oparotasun-bideari berriro heldu ahal izateko. **Finantza-tresna** berriak dira, **2021-2027ko aldirako Urte Anitzeko Finantza Esparruan aurreikusitako gainerako tresnei gehituko zaizkienak, Europan lehentasunezko eremuetan inbertsioak eta erreformak bultzatzeko: trantsizio ekologikoa eta eraldaketa digitala bultzatzea, hazkunde potentzialа, I+G eta barne-merkatu eraginkorra bultzatzea ETE indartsuekin, gizarte- eta lurralde-kohesioa indartzea, osasun-, ekonomia-, gizarte- eta erakunde-erresilientzia handitzea, eta etorkizuneko belaunaldientzako, haurrentzako eta gazteentzako politikak garatzea, bereziki hezkuntzaren eta lanbide-trebakuntzaren bidez.** Hartzaileak pertsona fisikoak nahiz juridikoak izan daitezke, pribatuak nahiz publikoak.
PROZEDURA	SEEPean, inbertsio eta erreforma estrukturalen agenda dago. Horiek elkarri lotuta daude eta berrelikatu egiten dira, zeharkako lau helburu lortzeko: Espainia berdeago, digitalago, gizarte- eta lurralde-ikuspegitik kohesionatuago eta berdinzaleago bat lortzeko bidean aurrera egitea. Lau ardatz horiek herrialdearen etorkizuneko bilakaera zehazten duten hamar palanka-politikak bideratzen dituzte, eta hamar palanka-politika horien barruan hogeita hamar osagai daude, planaren inbertsio- eta erreforma-programa koherenteak artikulatzea ahalbidetzen dutenak. Espainiak **suspertze-planeko funtsak banatzeko hiru lerro** izango ditu: 1. **Ekonomia Suspertu eta Eraldatzeko Proiektu Estrategikoak (ESEPE)**, lankidetza publiko-pribatuko figura berri bat, proiektu bereziak identifikatzen dituena. 2. Aktibo pribatuak finantzatzeko **dirulaguntzak**, norgehiagoka-deialdien bidezkoak. 3. Aktibo publikoak finantzatzeko **kontratuak**, lizitazioen bidezkoak. Laguntzei eta alderdi orokorrei eta kudeaketa- eta exekuzio-alderdiei buruzko informazioa gida honetan jasota dago. Iturria: https://planderec uperacion.gob.es/
ZEHARKAKO ARDATZAK	Planak **zeharkako lau ardatz** ditu, eta, horien barruan, hogeita hamar osagai. Osagai horietako bakoitzak neurri bat edo gehiago ditu, izan erreformak, izan inbertsioak, planaren programa koherenteak artikulatzea ahalbidetzen dutenak: • trantsizio ekologikoa. • transformazio digitala. • gizarte- eta lurralde-kohesioa. • genero-berdintasuna.
TRAKZIO-POLITIKAK	SEEPa **hamar «palanka- edo trakzio-politikaren» eta hogeita hamar osagairen** inguruan egituratuta dago. **Horiek 212 neurritan egituratu dira (102 erreforma eta 110 inbertsio), eta Espainiak konpromisoa hartzen du 220 mugarri eta 196 helburu betetzeko, zeinek gure ekonomia- eta gizarte-ehuna eraldatzeko gaitasun handiena duten produkzio-sektoreetan zuzenean eragingo baitute.**  Iturria: https://planderecuperacion.gob.es/

CARACTERES	Con un 40% de los fondos destinados a la transición verde, un 30% a la transformación digital, un 10% a la I+D y un 7% a la educación y formación, las inversiones del Plan apuestan claramente por el capital humano, tecnológico, natural y científico del país. Además, **el Plan tiene un importante componente social, para reducir las brechas y desigualdades y lograr un crecimiento más sostenible y justo**.
HITOS Y OBJETIVOS	El Plan, aprobado en la Decisión de Ejecución del Consejo (CID: ***Council Implementing Decision*)**, el 13 de julio de 2021, **se basa en el cumplimiento de los Hitos y Objetivos**, cuya descripción y las disposiciones para su ejecución y seguimiento vienen determinadas tanto en el **Anexo de la propuesta de Decisión de Ejecución del Consejo relativa a la aprobación de la evaluación del plan de recuperación y resiliencia de España, como en las denominadas Disposiciones Operativas (OA: *Operational Arrangements*):** https://soportesgffee.zendesk.com/hc/es/articles/5835322758161-Anexo-de-la-propuesta-de-Decisi%C3%B3n-de-Ejecuci%C3%B3n-del-Consejo-relativa-a-la-aprobaci%C3%B3n-de-la-evaluaci%C3%B3n-del-plan-de-recuperaci%C3%B3n-y-resiliencia-de-Espa%C3%B1a https://soportesgffee.zendesk.com/hc/es/articles/5835689660049-Operational-Arrangements-between-the-Commission-and-Spain-pursuant-to-Regulation-EU-2021-241 Con la finalidad de hacer efectivo el cumplimiento de los Hitos y Objetivos (HyO) comprometidos, es necesario contar con un **modelo de gestión orientado a resultados. Para ello, se realiza la planificación operativa de Proyectos y Subproyectos cuya ejecución materializa las Reformas e Inversiones establecidas en el Plan.** En un modelo de gestión orientado a resultados, además del seguimiento y control de los Proyectos y Subproyectos, es fundamental la **gestión preventiva que permita anticiparse a eventuales desviaciones y tomar decisiones que eviten incumplimientos de los hitos y objetivos comprometidos**. El Plan de Recuperación, como ya se ha apuntado, debido a su ambición y complejidad, requiere de la implicación de todos los agentes económicos y sociales, y de todos los niveles de gobierno y del conjunto de las Administraciones Públicas. Es por ello por lo que el Plan contempla un **modelo de gobernanza basado en los principios de participación, cooperación y coordinación entre niveles de gobierno,** que asegure el despliegue ágil y eficiente de las inversiones y reformas.
MODELO DE GOBERNANZA	Además, se organiza, al amparo del RD 36/2020, la **estructura que va a determinar la gestión de los fondos, con el siguiente modelo de gobernanza**: 1. Una **Comisión para la Recuperación, Transformación y Resiliencia** que será la encargada de dirigir y coordinar el Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia. 2. Un **Comité Técnico**, que dará soporte técnico y legal a la Comisión (con fecha de 16 de febrero de 2021 se constituye la Comisión interministerial para la Recuperación, Transformación y Resiliencia y se crea el Comité Técnico con 20 miembros). (https://www.lamoncloa.gob.es/presidente/actividades/Documents/2021/160221-Miembros_comite_tecnico_para_el_plan_de_recuperacion.pdf) 3. La **Secretaría General de Fondos Europeos**, en el Ministerio de Hacienda, como Autoridad responsable del Plan de Recuperación ante la Comisión Europea. 4. La **Unidad de Seguimiento del Plan de Recuperación del Departamento de Asuntos Económicos y G20 de la Presidencia del Gobierno** que será la encargada de realizar el seguimiento del Plan de Recuperación Transformación y Resiliencia. 5. Con el fin de **fomentar la participación social**, el Real Decreto-ley también contempla la **posibilidad de que los Ministerios creen e impulsen foros y grupos de alto nivel de los principales sectores implicados.** 6. Una **Conferencia Sectorial del Plan de Recuperación** que canalizará la participación de las **Comunidades Autónomas y Entidades Locales.**
EJECUCIÓN PRTR	En cuanto a la ejecución del PRTR de España, en la web del Gobierno se incluye un apartado específico con los Informes periódicos donde se detallan de forma exhaustiva los avances en la ejecución del Plan en España. Estos informes se actualizan trimestralmente. https://planderecuperacion.gob.es/ejecucion/informe-de-ejecucion-del-plan

EZAUGARRIAK	Planaren inbertsioek herrialdeko giza kapitalaren, kapital teknologikoaren, naturalaren eta zientifikoaren alde egiten dute argi eta garbi: funtsen % 40 trantsizio berderako dira; funtsen % 30, eraldaketa digitalerako; funtsen % 10 I+Grako, eta funtsen % 7, hezkuntza eta prestakuntzarako. Gainera, **planak kutsu sozial nabarmena du, arrakalak eta desberdintasunak murrizteko eta hazkunde jasangarriagoa eta bidezkoagoa lortzeko**.
MUGARRIAK ETA HELBURUAK	Plana Kontseiluaren Betearazpen Erabakian onartu zen (CID: ***Council Implementing Decision***), 2021eko uztailaren 13an, eta **mugarriak eta helburuak betetzea du oinarri**. Haien deskribapena eta haiek betetzeko eta haien jarraipena egiteko xedapenak **Espainiako suspertze eta erresilientzia planaren ebaluazioa onartzeari buruzko Kontseiluaren Betearazpen Erabakiaren proposamenaren eranskinean daude zehaztuta, bai eta xedapen operatibo deitutakoetan ere (OA: *Operational Arrangements*):** https://soportesgffee.zendesk.com/hc/es/articles/5835322758161-Anexo-de-la-propuesta-de-Decisi%C3%B3n-de-Ejecuci%C3%B3n-del-Consejo-relativa-a-la-aprobaci%C3%B3n-de-la-evaluaci%C3%B3n-del-plan-de-recuperaci%C3%B3n-y-resiliencia-de-Espa%C3%B1a https://soportesgffee.zendesk.com/hc/es/articles/5835689660049-Operational-Arrangements-between-the-Commission-and-Spain-pursuant-to-Regulation-EU-2021-241 Hitzemandako mugarriak eta helburuak benetan bete daitezen, **emaitzetara bideratutako kudeaketa-eredu bat** eduki behar da. **Horretarako, planean ezarritako erreforma eta inbertsioak gauzatzen dituzten proiektu eta azpiproiektuen plangintza operatiboa egiten da.** Emaitzetara bideratutako kudeaketa-ereduetan, proiektuen eta azpiproiektuen jarraipena eta kontrol-lana egiteaz gain, funtsezkoa da **prebentzioaren kudeaketa, bide zuzenetik ez ateratzeko batetik eta hitzemandako mugarriak eta helburuak ez betetzea saihesteko erabakiak hartzeko bestetik**. Lehen esan bezala, suspertze-planak, asmo handikoa eta konplexua izanik, eragile ekonomiko eta sozial guztien, gobernu-maila guztien eta administrazio publiko guztien parte-hartzea behar du. Horregatik, **gobernu-mailen arteko parte-hartzearen, lankidetzaren eta koordinazioaren printzipioetan oinarritutako gobernantza-eredu bat** jasotzen du planak, inbertsio eta erreformak arin eta era efizientean zabaltzea bermatuko duena.
GOBERNANTZA-EREDUA	Gainera, 36/2020 Errege Dekretuaren babesean, **funtsen kudeaketa zehaztuko duen egitura** antolatzen da, **gobernantza-eredu honekin**: 1. **Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Batzordea**, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana zuzendu eta koordinatuko duena. 2. **Komite tekniko** bat, batzordeari laguntza teknikoa eta legezkoa emango dizkiona (2021eko otsailaren 16an, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientziarako Ministerioarteko Batzordea eratu zen, eta Komite Teknikoa sortu, hogei kiderekin). (https://www.lamoncloa.gob.es/presidente/actividades/Documents/2021/160221-Miembros_comite_tecnico_para_el_plan_de_recuperacion.pdf) 3. **Europako Funtsen Idazkaritza Nagusia**, Europako Batzordearen aurrean suspertze-planaren ardura duen agintaritza; Ogasun Ministerioaren barruan dago. 4. **Suspertze Planaren Jarraipena Egiteko Unitatea, Gobernuaren Presidentetzako Ekonomia Gaietako eta G20ko Sailekoa**; Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren jarraipena egiteaz arduratuko da. 5. **Gizartearen parte-hartzea sustatzeko**, **ministerioek tartean diren sektore nagusietako goi-mailako foroak eta taldeak sortzeko eta bultzatzeko aukera** ere ematen du errege lege-dekretuak. 6. **Suspertze Planaren Konferentzia Sektoriala**; hark **autonomia-erkidegoen eta toki-entitateen** parte-hartzea bideratuko du.
SEEP-A GAUZATZEA	Espainiako SEEPa gauzatzeari dagokionez, Gobernuaren webgunean atal espezifiko bat dago, aldizkako txostenak dituena, eta haiek zehatz-mehatz zehazten dituzte plana Espainian gauzatzean egindako aurrerapenak. Txosten horiek hiru hilean behin eguneratzen dira. https://planderecuperacion.gob.es/ejecucion/informe-de-ejecucion-del-plan

NORMATIVA

- REGLAMENTO (UE) 2020/2094 del Consejo de 14 de diciembre de 2020 por el que se establece un Instrumento de Recuperación de la Unión Europea para apoyar la recuperación tras la crisis de la COVID-19. https://www.boe.es/doue/2020/433/M00023-00027.pdf
- Reglamento (UE) 2021/241 del Parlamento Europeo y del Consejo de 12 de febrero de 2021 por el que se establece el Mecanismo de Recuperación y Resiliencia (MRR). https://www.boe.es/doue/2021/057/L00017-00075.pdf
- Real Decreto-Ley 36/2020, de 30 de diciembre, por el que se aprueban medidas urgentes para la modernización de la Administración Pública y para la ejecución del Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia. https://www.boe.es/boe/dias/2020/12/31/pdfs/BOE-A-2020-17340.pdf

Esta norma tiene por objeto **establecer las disposiciones que faciliten la programación, presupuestación, gestión y ejecución de las actuaciones financiables con fondos europeos, en especial los provenientes del Instrumento Europeo de Recuperación (Next Generation EU),** con la finalidad de:

- impulsar el crecimiento económico y la creación de empleo, recuperar y reparar los daños de la crisis ocasionada por la pandemia del SARS-CoV-2, y
<tr><td>RECURSOS PARA PROFESIONALES QUE TRABAJAN CON JUVENTUD</td><td colspan="2"><u>Observatorio Vasco de la Juventud</u>: Estudios, investigaciones y estadísticas, formación de profesionales, Centro de Documentación: http://www.gazteaukera.euskadi.eus/behatokia/inicio/</td></tr>
<tr><td>RECURSOS PARA LA JUVENTUD</td><td colspan="2">• Portal de la juventud de Euskadi Gazteaukera: http://www.gazteaukera.euskadi.eus/inicio
• Buscador de información juvenil Gazte informazioa: http://www.gazteaukera.euskadi.eus/gaztein-formazioa/inicio
• Implantación del servicio GAZ de asesoramiento y acompañamiento personalizado para impulsar itinerarios de autonomía y emancipación para personas jóvenes.
• Gazte-txartela: http://www.gazteaukera.euskadi.eus/gaztetxartela/inicio
• Red de Albergues juveniles de Euskadi (EAS-RAE): https://www.gazteaukera.euskadi.eus/albergues/
• Escuelas de formación de educadores y educadoras en el tiempo libre infantil y juvenil:
https://www.gazteaukera.euskadi.eus/educacion-tiempo-libre/inicio/
• Portal europeo de la Juventud: https://europa.eu/youth/EU_es
• Puesto de información Eurodesk, para consultas sobre programas e iniciativas europeas: gaztein-formazioa@euskadi.eus</td></tr>
</table>

Legislación: Ley 2/2022, de10 marzo, de Juventud
Normativa sobre Juventud: https://www.gazteaukera.euskadi.eus/normativa-juventud/webgaz00-ovjmenu4/es/

Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legearen (**ETEL**) **17.1 artikuluko 36. zenbakiak** xedatzen duenez, lege horretan eta aplikatu beharreko legerian xedatutakoaren esparruan, udalerriek **eskumen propioa** izan **ahalko** dute **gazteria planifikatu, antolatu eta kudeatzeko** eremu materialean.

<table>
<tr><th colspan="3">GAZTERIA-POLITIKAREN PLANGINTZA, ANTOLAMENDUA ETA KUDEAKETA</th></tr>
<tr><td rowspan="2">GAZTERIA-POLITIKA: EREMUAK</td><td>GAZTEEN SUSTAPENA: Haur eta gazteei berariaz zuzendutako jarduerak, zerbitzuak eta ekipamenduak eskaintzen dira, gizartean eta kulturan garatu daitezen, bai maila pertsonalean, bai taldean.

Helburuak: Ekimena, sormena, mugikortasuna eta aisia gozatzeko modu partaidea sustatzea haur eta gazteen artean, bai eta erraztasunak ematea ere informazioa, aholkularitza, hezkuntza ez formala eta beste ondasun eta zerbitzu batzuk eskuratzeko.</td><td rowspan="2">Helburu horiekin, parte hartzeko moduak ezarri behar dira, gizarte-ekimenaren bidez eta gazteen nahiz gazte-elkarteen parte-hartzea sustatuz.</td></tr>
<tr><td>GAZTERIAREN ARLOKO ZEHARKAKO POLITIKA: Gazteriarekin lotutako sailen eta beste erakunde publiko eta gizarte-agente batzuen esku-hartzeak sustatzean datza.

Xedea: Gazteen emantzipazioa eta autonomia sustatzea.</td></tr>
<tr><th colspan="3">1. GAZTERIAREN GAINEKO ZEHARKAKO POLITIKA</th></tr>
<tr><td colspan="3">• Erakundearen Gazte Plana egin, onartu, gauzatu eta ebaluatzea, legealdirako.
• Erakundeko gazteriaren arloko Sailarteko Batzordea sortzea.
• Sail bakoitzeko programazioa eta urteko ebaluazioa.</td></tr>
<tr><td>Erreferentziak</td><td colspan="2">• 2/2022 Legea, martxoaren 10ekoa, Gazteriarena.
• Gazteen emantzipazioa laguntzeko 2030 Euskal Estrategia.
https://www.gazteaukera.euskadi.eus/contenidos/informacion/ovj_emancipacion/es_def/adjuntos/2030-euskal-estrategia-gazteen-emantzipazioa-laguntzeko-l.pdf
• Gazteria-arloko planak eta programak programatu eta ebaluatzeko eskuliburua.</td></tr>
<tr><th colspan="3">2. GAZTEEN SUSTAPENA: GAZTEEN JARDUERAK, ZERBITZUAK ETA EKIPAMENDUAK</th></tr>
<tr><td>JARDUERAK Erregulazioa</td><td colspan="2">• 18 urtetik beherako pertsonen partaidetzarako edozein jarduerak, denbora librea okupatzeko edo prestakuntza jasotzeko helburua duenak eta familia-izaera ez duenak, bete egin behar ditu ekainaren 25eko 170/1985 Dekretuan (neska-mutikoen eta gazteen kanpamenduen, kolonien, koloni-irekien, lan-kanpaketen eta ibilaldietako kanpaketen jaurpidea araupetzen duenean) jasotako baldintzak.
• 18 urtetik beherako 6 pertsona baino gehiagoren partaidetza duten eta ondoz ondoko hiru gauetik gorako iraupena duten jarduerak aurrez jakinarazi beharko zaizkio Eusko Jaurlaritzako Gazteria Zuzendaritzari edo Foru Aldundiari, jarduera hasi baino gutxienez 30 egun lehenago.
• Aire zabaleko lursail bat erabiltzen bada, udalaren edo administrazio-batzarraren aldeko txostenaren kopia erantsi beharko da, jardueraren lekuko baldintzen gainean.

Aurretiazko komunikazio-eredua, lursailaren edo instalazioaren jabearen baimena, udalaren edo administrazio-batzarraren txostena, eta 170/85 Dekretua: https://www.gazteaukera.euskadi.eus/aisialdiko-jardueren-komunikazioa/webgaz00-tielibr2/eu/</td></tr>
<tr><td>GAZTEEN ZERBITZUAK ETA EKIPAMENDUAK</td><td colspan="2">• Gazteentzako jarduera soziokulturalen eta baliabideen eskaintzarako eta topaketarako espazioak.
Gipuzkoako Foru Aldundiko erreferentziazko materialak: a) «Haurrentzako balio anitzeko zerbitzua» zehazteko oinarrizko dokumentua; b) «Nerabeentzako balio anitzeko zerbitzua» zehazteko oinarrizko dokumentua; c) «Gazteentzako balio anitzeko zerbitzuak».
• Gazteentzako informazio, orientazio eta aholkularitzarako zerbitzua: <u>Gazte informazioa</u>:
https://www.gazteaukera.euskadi.eus/gazte-informazioa-nortzuk-gara/webgaz00-ginform2/eu/
→ Helburuak:
⇒ Gazteei interesa dakiekeen informazio guztia ematea, hainbat hedapen-kanalen bidez (aurrez aurre edo online).
⇒ Udalerrian gazteentzako dauden zerbitzuak eta programak hedatzea.
→ Udalerriko bulegoak eta puntuak:
⇒ Aitortzeko baldintzak: 211/1993 Dekretua, uztailaren 20koa, Gazteentzako Informazio Zerbitzuen onespen ofiziala arautzen duena.
⇒ Aitortutako bulegoentzat eskuragarri dagoen aplikazio informatikoa. Horretan, udalek honako hauek egin ditzakete:
• Tokiko, lurraldeko, Euskadiko, beste autonomia-erkidego batzuetako eta nazioarteko gazteentzako informazioa kontsultatzea.
• Udalerriak berak sortzen duen eta Euskadiko Gazte Informazioko Bulegoen Sarearen bidez hedatu nahi den informazioa sartzea (Eusko Jaurlaritzako Gazteria Zuzendaritzari erabiltzailea eta pasahitza eskatu behar zaizkio).
⇒ Aitortutako bulegoek gazteentzako nazioarteko txartelak eskatzeko aukerak errazten dituzte (ikasleenak, irakasleenak, Go-25, aterpekideenak), Eusko Jaurlaritzako Gazteriak eskaintzen duen aplikazio informatikoaren bidez.</td></tr>
<tr><th colspan="3">3.- GAZTEEN PARTAIDETZARAKO BIDEAK</th></tr>
<tr><td colspan="3">• Gazteriaren Kontseilua, tokikoa, eta, hala badagokio, eskualdekoa eta lurraldekoa.
• Euskadiko Gazteriaren Kontseilua (EGK): http://egk.eus/eu/hasiera/
• Gazteek toki-mailan parte hartzeko beste esperientzia batzuk.</td></tr>
<tr><th colspan="3">KONTUAN HARTZEKO BESTE BALIABIDE BATZUK</th></tr>
<tr><td>UDALERRIENTZAKO BALIABIDEAK</td><td colspan="2">• Gazteentzat eskuragarri dauden eskualdeko edo mankomunitateko zerbitzuak kontsultatzea komeni da.
• Era berean, udalerriei haurren eta gazteen arloan laguntzea helburu duen lurralde-plangintza kontsultatzea komeni da, kasu bakoitzean dagokion foru-aldundiarena, bai eta egon daitezkeen laguntzak eta hitzarmenak kontsultatzea ere.
• Eusko Jaurlaritzaren deialdia, Auzolandegiak programako proiektuak/Gazteen boluntario-eremua aurkezteko, bai eta egon daitezkeen beste deialdi batzuk ere.
• Gazte-emantzipaziorako tokiko planak egiteko eta ekimenak diseinatzeko Eusko Jaurlaritzako deialdia.</td></tr>
<tr><td>GAZTERIAREKIN LAN EGITEN DUTEN PROFESIONALENTZAKO BALIABIDEAK</td><td colspan="2"><u>Gazteen Euskal Behatokia:</u> Ikasketak, ikerketak eta estatistikak, profesionalen prestakuntza, Dokumentazio Zentroa: http://www.gazteaukera.euskadi.eus/r58-854/eu</td></tr>
<tr><td>GAZTEENTZAKO BALIABIDEAK</td><td colspan="2">• Euskadiko Gazteriaren Ataria Gazteaukera: http://www.gazteaukera.euskadi.eus/r58-2279/eu/
• Gazte informazioa bilatzailea: https://www.gazteaukera.euskadi.eus/gazte-informazioa/hasiera/

• Gazteentzako autonomia- eta emantzipazio-ibilbideak bultzatzeko aholkularitza eta laguntza pertsonalizatuko GAZ zerbitzua ezartzea.
• Gazte-txartelaren eskaria: http://www.gazteaukera.euskadi.eus/gaztetxartela/hasiera/
• Euskadiko Gazte Aterpetxeen Sarea (EAS-RAE): https://www.gazteaukera.euskadi.eus/aterpetxeak/
• Umeen eta gazteen aisialdirako hezitzaileak prestatzeko eskolak:
https://www.gazteaukera.euskadi.eus/aisialdirako-heziketa/hasiera/
• Gazteriaren Europako Ataria: https://europa.eu/youth/EU_es
• Eurodesk informazio-postua, programa eta ekimen europarrei buruzko kontsultak egiteko: gazteinformazioa@euskadi.eus</td></tr>
</table>

Legeria: 2/2022 Legea, martxoaren 10ekoa, Gazteriarena
Gazteriari buruzko Araudia: https://www.gazteaukera.euskadi.eus/gazteria-araudia/webgaz00-ovjmenu4/eu/

INTERVENCIÓN PÚBLICA MUNICIPAL CON LAS PERSONAS MAYORES	
FINALIDAD	Garantizar para éstas y sus familiares unas **condiciones de vida normalizadas**, contribuyendo a mantener a la persona mayor **en su entorno habitual** en las mejores condiciones posibles**, satisfaciendo sus necesidades, alcanzando una mayor autonomía personal y mejorando así su calidad de vida.**
PUNTO DE PARTIDA	La propuesta en política municipal, por tanto, se sitúa en clave de **integralidad**, concibiendo a las **personas mayores como personas sociales**, **miembros de una comunidad,** dentro de un colectivo diverso **con realidades y necesidades distintas y procesos vitales diferentes para cada persona**, que precisan respuestas distintas a cada situación, dentro de la necesaria coordinación y trabajo en red con otros sistemas (salud, cultura, desarrollo de la comunidad...), y según los distintos niveles competenciales, que garanticen la continuidad en su atención.
POSIBLES EJES DE ARTICULACIÓN	Programas y servicios en respuesta a las necesidades de **APOYO Y ATENCIÓN** para el mantenimiento de la **AUTONOMÍA EN EL PROPIO DOMICILIO**: • **Tramitación de la valoración de dependencia.** El reconocimiento del grado de dependencia es un requisito necesario para poder acceder al catálogo de servicios y prestaciones del Sistema de Atención a la Dependencia. • **Servicio de ayuda a domicilio.** Servicio de carácter comunitario, destinado a las personas con dificultades para desarrollar actividades elementales de la vida diaria, proporcionando atención personal, doméstica y tareas de carácter educativo en el domicilio, con el objeto de potenciar la autonomía personal e incrementar la calidad de vida, evitar o atrasar el ingreso en centros residenciales o socio-sanitarios y apoyar a las familias en la atención a la persona usuaria que presenta la necesidad. • **Programas de apoyo y acompañamiento.** Servicio que proporciona acompañamiento para aquellas personas que se encuentran solas, sin apoyo familiar y sin compañía durante periodos de tiempo prolongados, cuyo objetivo es fomentar su autonomía, favoreciendo sus relaciones con el entorno y evitando situaciones de soledad. • **Mejoras en prestación del servicio de ayuda a domicilio** (convenios de colaboración con los colegios oficiales de farmacéuticos para la mejora del uso de la medicación, programas préstamo de ayudas técnicas…). • **Apoyo a familiares cuidadores.** Servicio que ofrece a las personas cuidadoras de la red sociofamiliar de personas en riesgo o situación de dependencia, la posibilidad de adquirir conocimientos, actitudes y habilidades de cuidado y autocuidado con el fin de mejorar la calidad de vida de las personas cuidadoras y de las personas a las que cuidan. • **Colaboración** con el servicio de **Teleasistencia (Gobierno Vasco).** Servicio técnico de ayuda inmediata que permite a las personas usuarias, a través de un equipamiento específico, disponer de un servicio de atención permanente las 24 horas del día, todos los días del año, con el fin de dar respuesta a situaciones de necesidad social o de emergencia. • **Programa de atención diurna para personas mayores.** Facilita el acceso a un dispositivo al que pueden acudir las personas mayores en riesgo o situación de dependencia durante el día, en el que se ofrece apoyo de baja intensidad. Su objetivo es contribuir al mantenimiento de la autonomía de las personas en su entorno habitual y su socialización compensando, en su caso, situaciones de aislamiento. • **Centro de atención diurna para la promoción de la autonomía, dirigido a la atención directa de personas en situación de fragilidad social (funcional y relacional),** e **intervención comunitaria en clave de proximidad** mediante la creación de una red que trabaje de forma coordinada en la prevención de estas situaciones. Programas y servicios en respuesta a la necesidad de **ALOJAMIENTO para personas mayores** cuando las condiciones personales o del entorno no aconsejan la continuidad en el domicilio: • **Programa de alojamiento para personas mayores.** Proporciona cobertura residencial temporal o de larga estancia a personas en riesgo o situación de dependencia con necesidad de alojamiento, problemas de convivencia graves y/o soledad/aislamiento social **(vivienda tutelada, vivienda comunitaria, hogares compartidos…).** • **Convenio de colaboración con los colegios oficiales de farmacéuticos** para la mejora del uso de la medicación a las personas usuarias del servicio municipal de alojamiento para personas mayores. Programas y servicios para el **ENVEJECIMIENTO ACTIVO Y LA PARTICIPACIÓN SOCIAL:** • Incorporación del municipio dentro de la **Red Mundial de Ciudades Amigables con los Mayores.** • **Servicio de orientación jurídica** para personas mayores. • **Programa destinado a la detección, prevención y atención de situaciones de soledad y/o fragilidad social mediante:** → La colaboración ciudadana para detectar a personas mayores que vivan solas o aisladas mediante **Red Activa de Identificación** (Antenas sociales y Observatorio). → **Red activa relacional** cuyo objetivo es paliar las situaciones de soledad mediante la promoción de vínculos estables de relación: Nagusi kafeguneak, salidas grupales de ocio y cultura, Servicio para la participación comunitaria y Konektate. • Subvenciones a asociaciones de personas mayores. • **Cursos o programas** que faciliten el acceso a las nuevas tecnologías. • **Talleres** sobre temas o problemas específicos del colectivo. • **Promoción de las relaciones intergeneracionales**.

ADINEKOEKIKO UDAL ESKU-HARTZE PUBLIKOA	
XEDEA	Adinekoei eta haien senideei **bizi-baldintza normalizatuak** bermatzea, adinekoei **euren ohiko ingurunean** ahalik eta ondoena egon daitezen lagunduz eta **haien beharrei erantzunez, autonomia pertsonal handiagoa eta bizi-kalitate hobea izan dezaten.**
ABIAPUNTUA	Udal-politikaren proposamenak, beraz, oinarri du **integraltasuna**: **adinekoak pertsona sozialak dira**, **komunitate bateko kideak, askotariko errealitate eta beharrak dituen kolektibo batekoak; pertsona bakoitzak bizi-prozesu desberdinak ditu**, eta erantzun desberdinak eman behar zaizkio egoera bakoitzari, beste sistema batzuekin koordinatuz eta sarean lan eginez (osasuna, kultura, komunitatearen garapena...), eskumen-mailen arabera, arreta jarraitua emango zaiela bermatzeko.

ARTIKULAZIO-ARDATZ POSIBLEAK

ETXEAN AUTONOMIA izateko **LAGUNTZA ETA ARRETA** beharrei erantzuteko programak eta zerbitzuak:

- **Mendekotasunaren balorazioaren tramitazioa.** Mendekotasun-maila onartua izatea behar-beharrezkoa da Mendetasunari Arreta Eskaintzeko Sistemaren zerbitzu eta prestazioen katalogoa erabili ahal izateko.
- **Etxeko laguntza-zerbitzua.** Zerbitzu komunitarioa da, eguneroko bizitzako oinarrizko jarduerak egiteko zailtasunak dituzten pertsonentzat pentsatua. Arreta pertsonala eman eta jarduera hezigarriak egiten dira etxean, adinekoen autonomia pertsonala areagotzeko eta bizi-kalitatea hobetzeko, adinekoak egoitza-zentroetan edo zentro soziosanitarioetan ez sartzeko edo geroago sartzeko, eta familiei premia duen erabiltzailearenganako arretan laguntzeko.

- **Babes- eta laguntza-programak.** Zerbitzu honek laguntza ematen die bakarrik, familiaren babesik gabe eta konpainiarik gabe luzaroan egon ohi diren pertsonei, haien autonomia sustatzeko helburuz, ingurunearekiko harremanak hobetu ditzaten eta bakardadean egon ez daitezen.
- **Hobekuntzak etxeko laguntza-zerbitzuan** (medikazioa hobeto erabiltzeko lankidetza-hitzarmenak farmazialarien elkargo ofizialekin, laguntza teknikoak mailegatzeko programak...).
- **Senide zaintzaileentzako laguntza.** Zerbitzu honek mendekotasun-arriskuan edo -egoeran dauden pertsonen sare soziofamiliarreko zaintzaileei aukera ematen die zaintzarekin eta autozainketarekin lotutako ezagutzak, jarrerak eta trebetasunak ikasteko, zaintzaileen euren eta haiek zaintzen dituzten pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko xedez.
- **Lankidetza Telelaguntza** zerbitzuarekin (Eusko Jaurlaritza). Berehalako laguntzaren zerbitzu tekniko honi esker, erabiltzaileek, ekipamendu espezifiko baten bitartez, etengabeko arreta-zerbitzu bat izan dezakete eguneko 24 orduetan, urteko egun guztietan, behar sozialei edo larrialdiei erantzuteko.
- **Adinekoentzako eguneko arretarako programa.** Zerbitzu honek egunez erabil dezaketen gailu bat jartzen du mendekotasun-arriskuan edo -egoeran dauden pertsonen eskura, eta, gailu horren bitartez, intentsitate txikiko laguntza ematen zaie. Helburua da pertsonei ohiko ingurunean autonomia mantentzen eta sozializatzen laguntzea, eta bakardade-egoerak konpentsatzea, hala badagokio.

- **Autonomia sustatzeko eguneko arreta-zentroa, gizarte-hauskortasuneko egoeran (funtzionala eta harremanetakoa) dauden pertsonei zuzeneko arreta emateko, eta esku-hartze komunitarioa hurbiltasunaren ikuspegitik,** egoera horien prebentzioan modu koordinatuan lan egingo duen sare bat sortuz.

Adinekoentzako OSTATUAREN beharrari erantzuteko programak eta zerbitzuak, egoera pertsonala edo ingurunea dela-eta etxean gelditzea gomendagarria ez denerako:

- **Adinekoentzako ostatu-programa.** Aldi baterako edo luzerako egoitza ematen die mendekotasun-arriskuan edo -egoeran dauden eta ostatu-beharra, bizikidetza-arazo larriak edo bakardade/isolamendu soziala dituzten pertsonei **(tutoretzapeko etxebizitza, etxebizitza komunitarioa, etxe partekatuak…).**
- **Lankidetza-hitzarmena farmazialarien elkargo ofizialekin**, adinekoentzako ostatu-udal zerbitzuaren erabiltzaileei medikazioaren erabilera hobetzeko.

ZAHARTZE AKTIBORAKO ETA PARTE-HARTZE SOZIALERAKO programak eta zerbitzuak:

- Udalerria **Adinekoekin Adiskidetsuak diren Hirien Sarearen** barruan sartzea.
- Adinekoentzako **aholkularitza juridikoaren zerbitzua**.
- **Bakardade-egoerak edo gizarte-hauskortasuna detektatzeko, prebenitzeko eta saihesteko programa; horretarako erabiliko da:**
  - → Herritarren laguntza bakarrik edo isolatuta bizi diren adinekoak detektatzeko **Identifikazio Sare Aktiboa**ren bidez (Antena sozialak eta Behatokia).
  - → **Harreman-sare aktiboa**; horren helburua da bakardade-egoerak arintzea, harreman-lotura egonkorrak sustatuz: Nagusi kafeguneak, aisia eta kulturako talde-irteerak, partaidetza komunitariorako zerbitzua eta Konektate.

- Adinekoen elkarteentzako **dirulaguntzak**.
- Teknologia berriak erabiltzen ikasteko **ikastaroak edo programak.**
- Kolektiboaren gai edo arazo espezifikoei buruzko **tailerrak**.
- **Belaunaldi arteko harremanen sustapena**.

INTERVENCIÓN PÚBLICA MUNICIPAL CON LAS PERSONAS CON DISCAPACIDAD

FINALIDAD	Ofrecer una adecuada **ATENCIÓN Y PROMOCIÓN** de las personas con discapacidad, a través de la **planificación y coordinación efectiva con otras administraciones y asociaciones a fin de garantizar el EJERCICIO EFECTIVO DE LOS DERECHOS y el desarrollo de un proyecto de vida** con la **MAYOR AUTONOMÍA POSIBLE**.

POSIBLES EJES DE ARTICULACIÓN

- Colaboración en la **DETECCIÓN DE NECESIDADES**.
- **INFORMACIÓN** básica y **ORIENTACIÓN**. Inclusión en la **página web** municipal de un apartado dedicado a este colectivo, en el que se recoja toda la información de interés.
- **ACCIONES MATERIALES** que **garanticen la accesibilidad** de las personas con discapacidad a todos los servicios de atención al público, así como para la realización de cualquier trámite administrativo.
- **Colaboración** en la tramitación o tramitación de las **VALORACIONES DE DEPENDENCIA Y DISCAPACIDAD.**
- **TRAMITACIÓN** del servicio de **TELEASISTENCIA (Gobierno Vasco).**
- **INFORMACIÓN** general sobre **acceso a FORMACIÓN Y EMPLEO** que, aun no siendo especializada, facilitará el acceso a la misma constituyendo una información básica y orientación inicial.

- Servicios de **AYUDA A DOMICILIO,** especialmente vinculados a la existencia de una situación de dependencia o de riesgo de dependencia.
- Programas de atención diurna (**CENTROS DE DÍA**) o de **ALOJAMIENTO ALTERNATIVO** (recursos residenciales, viviendas tuteladas, estancias para convalecientes…).
- **Apoyo a FAMILIARES CUIDADORES.**
- **BONIFICACIONES O EXENCIONES EN IMPUESTOS** municipales (obras en edificios para favorecer la accesibilidad, impuestos sobre vehículos de tracción mecánica…).
- **BONIFICACIONES EN ABONOS** a **centros cívicos e instalaciones deportivas**.
- Facilitar la **ORIENTACIÓN** a los servicios vinculados a los **préstamos o subvenciones** para la adquisición de **PRODUCTOS DE APOYO**.
- **Ayudas de TRANSPORTE**: Tarjetas de estacionamiento para vehículos de personas discapacitadas, bonificaciones por discapacidad en el transporte público…
- **ACCESIBILIDAD**:
  - → Los municipios con competencia en materia de **transporte público de viajeros** (municipios con más de 50.000 habitantes), garantizarán la accesibilidad a dicho transporte; a su vez, los edificios e instalaciones destinadas al transporte público, dispondrán de adecuados sistemas de información y comunicación acústica, visual y sensorial, que garanticen su utilización autónoma y con la debida seguridad.
  - → **Reservas en el entorno urbano**, espacios públicos y edificaciones de uso público de espacios reservados de uso prioritario para personas con movilidad reducida. En los aparcamientos y garajes de uso público se reservarán plazas destinadas al uso exclusivo de vehículos de personas con movilidad reducida (1 por cada 40 o fracción).
  - → En las **promociones de viviendas** de protección oficial **se reservará** una vivienda por cada 25 o fracción.
  - → **Reservas en el transporte**: en poblaciones superiores a 3.000 habitantes, los Ayuntamientos promoverán la existencia de un vehículo o taxi acondicionado que cubra las necesidades de desplazamiento de personas con movilidad reducida.
  - → Los ayuntamientos están obligados a elaborar **programas cuadrienales para la promoción de la accesibilidad**.
- En las **OFERTAS PÚBLICAS DE EMPLEO**: se reservará un **cupo no inferior al siete por ciento** de las vacantes para ser cubiertas entre personas con discapacidad, siempre que superen los procesos selectivos y acrediten su discapacidad y la compatibilidad con el desempeño de las tareas, de modo que progresivamente se alcance el dos por ciento de los efectivos totales en cada Administración Pública. De ese mínimo, se reservará, al menos, el dos por ciento para personas con discapacidad intelectual y el resto para personas con otro tipo de discapacidad.
- **Promoción de las ASOCIACIONES** de personas con discapacidad y sus familias.
- Programas de **OCIO Y TIEMPO LIBRE.**
- **TALLERES** sobre temas o problemas específicos del colectivo.

De interés: Libro blanco de la discapacidad en Euskadi

Legislación: Ley 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales
Ley 20/1997, de 4 de diciembre, para la Promoción de la Accesibilidad

DESGAITASUNA DUTEN PERTSONEKIKO UDAL ESKU-HARTZE PUBLIKOA

XEDEA	Desgaitasuna duten pertsonei **ARRETA ETA SUSTAPEN** egokia ematea, **beste administrazio eta elkarte batzuekin modu eraginkorrean planifikatu eta koordinatuta, ESKUBIDEAK BENETAN BETETZEN direla eta bizi-proiektua AHALIK ETA AUTONOMIA HANDIENAREKIN garatzen dela bermatze aldera.**

ANTOLAKETA-ARDATZ POSIBLEAK

- **BEHARRIZANAK ANTZEMATEN** lankidetzan aritzea.
- Oinarrizko **INFORMAZIOA** eta **ORIENTAZIOA** ematea. Udalaren **webgunean** kolektibo honi buruzko atal bat sartzea, informazio interesgarri guztia jasoko duena.
- **EKINTZA MATERIALAK** garatzea, desgaitasuna duten pertsonei jendearen arreta-zerbitzu guztiak eskuratzeko eta edozein administrazio-izapide egiteko **irisgarritasuna bermatze aldera.**
- **Lankidetzan aritzea MENDETASUNAREN ETA DESGAITASUNAREN BALORAZIOAK** izapidetzean**.**
- **TELELAGUNTZA**-zerbitzua **IZAPIDETZEA (Eusko Jaurlaritza).**
- **INFORMAZIO** orokorra ematea **PRESTAKUNTZA ETA ENPLEGUA eskuratzeko** prozedurari buruz; espezializatua izan ez arren, erraztasunak emango baititu enplegua eskuratzeko, eta, era berean, oinarrizko informazioa eta hasierako orientazioa izango baita.
- **ETXEKO LAGUNTZA** zerbitzuak eskaintzea, batez ere mendetasuneko edo mendetasun-arriskuko egoera bat dagoenean.
- Eguneko arretarako programak (**EGUNEKO ZENTROAK**) edo **BESTELAKO OSTATUAK** eskaintzea (egoitza-baliabideak, tutoretzapeko etxebizitzak, eriondoentzako egonaldiak...).
- **SENIDE ZAINTZAILEENTZAKO babesa ematea.**
- **HOBARIAK EDO SALBUESPENAK** aplikatzea udal-**zergetan** (eraikinetan irisgarritasuna sustatzeko obrak, trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergak...).
- **HOBARIAK aplikatzea gizarte-etxeei eta kirol-instalazioei egiten zaizkien ordainketetan**.
- **ORIENTAZIOA** ematea **BABES-PRODUKTUAK** eskuratzeko **mailegu edo dirulaguntzekin** lotutako zerbitzuetan.
- **GARRAIORAKO laguntzak ematea**: Aparkatzeko txartelak desgaitasuna duten pertsonen ibilgailuentzat, desgaitasunaren ziozko hobariak garraio publikoan…
- **IRISGARRITASUNA**:
  - → **Bidaiarien garraio publikoaren** gaineko eskumena duten udalerriek (50.000 biztanletik gorako udalerriek) bermatu egingo dute garraio horretarako irisgarritasuna; era berean, garraio publikorako eraikin eta instalazioek informazio eta komunikazio akustiko, bisual eta sentsorialerako sistema egokiak edukiko dituzte, horiek modu autonomoan eta segurtasun-maila egokiarekin erabil daitezen.
  - → **Erreserbak egitea hiri-inguruan,** espazio publikoetan eta erabilera publikoko eraikinetan, mugikortasun murriztua duten pertsonek lehentasunez erabiltzeko erreserbatutako espazioak bermatzeko. Erabilera publikoko aparkaleku eta garajeetan mugikortasun murriztua duten pertsonen ibilgailuek soilik erabiltzeko izango diren plazak gordeko dira (40tik edo atal bakoitzetik bat).
  - → Babes ofizialeko **etxebizitzen sustapenetan etxebizitza bat gordeko da** 25etik edo atal bakoitzetik.
  - → **Erreserbak egitea garraioan**: 3.000 biztanletik gorako herrietan, Udalek ibilgailu edo taxi egokitu bat egon dadila sustatuko dute, mugikortasun murriztuko pertsonen lekualdaketarako beharrizanak estaltze aldera.
  - → Udalek **lau urtean behin programak** egin beharko dituzte **irisgarritasuna sustatzeko**.
- **LAN ESKAINTZA PUBLIKOETAN**: lanpostu hutsen **ehuneko zazpitik gorako kupoa** gordeko da desgaitasuna duten pertsonen artean betetzeko, baldin eta hautaprobak gainditzen badituzte eta berariaz egiaztatzen badituzte beren desgaitasuna eta zereginak egiteko bateragarritasuna; hartara, apurka-apurka lortuko da administrazio publiko bakoitzean langile guztien ehuneko bira iristea. Gutxiengo horretatik gutxienez ehuneko bi gordeko da desgaitasun intelektuala duten pertsonentzat, eta gainerakoa bestelako degaitasun-motaren bat duten pertsonentzat.
- Desgaitasuna duten pertsonen eta beren familien **ELKARTEAK sustatzea.**
- **AISIA ETA DENBORA LIBREKO** programak garatzea**.**
- Kolektiboaren gai edo arazo zehatzei buruzko **TAILERRAK** ematea.

Interesgarriak: Euskadiko desgaitasunaren liburu zuria

Legeria: 12/2008 Legea, abenduaren 5ekoa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa
20/1997 Legea, abenduaren 4koa, Irisgarritasuna Sustatzekoa

ENFOQUE INTERCULTURAL

- Un número creciente de Entidades Locales está implantando progresivamente el enfoque intercultural en la gobernanza de la ciudad (en fases de diagnóstico, planificación, diseño, desarrollo y evaluación).
- El enfoque intercultural es un **marco político para lograr la cohesión, la igualdad y el desarrollo en sociedades que han experimentado un aumento de la diversidad sociocultural** ya existente con la llegada, asentamiento y arraigo de personas inmigrantes extranjeras, solicitantes de protección internacional y refugiadas. Esto implica un aumento de diversidad de orígenes nacionales y culturales, lenguas, religiones/creencias, así como costumbres que deben ajustarse al marco normativo de las sociedades democráticas. En el caso de los procesos migratorios es preciso señalar que los estatus jurídicos diferenciados limitan el acceso a derechos y ejercicio de ciudadanía plena (por virtud de la legislación estatal de extranjería o la comunitaria de la UE).
- La interculturalidad considera la diversidad socio-cultural como una realidad estructural que hay que reconocer y que plantea oportunidades y complejidades que hay que abordar de manera proactiva. El enfoque intercultural surge como evolución y alternativa a otros modelos que han mostrado diversas debilidades, como el asimilacionista o el multiculturalismo.
- El enfoque intercultural se basa en la **aplicación simultánea de tres principios**:
  - → Igualdad y no discriminación.
  - → Reconocimiento de la diversidad.
  - → Interacción positiva.
- Los **elementos operativos clave** de la integración intercultural son:
  - → Compartir espacios de decisión (incluyendo personas de diferentes orígenes culturales en diferentes roles en instituciones y estructuras de gobierno).
  - → Fomentar la mezcla e interacción cultural en las instituciones públicas y el espacio público.
  - → Hacer que las instituciones sean culturalmente competentes y receptivas a la innovación, a través de aportaciones de la diversidad, así como resilientes a conflictos culturales, prejuicios y discriminación.
  - → Favorecer la participación de personas y colectivos de diferentes orígenes en el diseño, implementación y ejecución de las políticas locales, así como en la vida social, económica y cultural.
- La Ley para la Igualdad de Hombres y Mujeres de Euskadi establece (artículo 3.1.c) que los poderes públicos «han de promover un **enfoque interseccional**, lo que, a los efectos de esta ley, supone tener en cuenta cómo el sexo y/o género se interrelacionan e interaccionan con el resto de los referidos factores en múltiples y, a menudo, simultáneos niveles, cómo se generan identidades solapadas e intersecadas, así como diferentes e interrelacionadas situaciones y ejes de poder y opresión».

Más información:

- ***Manual para el diseño de políticas interculturales***[1] (RECI-Red de Ciudades Interculturales[2]). Contiene STEP BY STEP *Guía práctica para aplicar el modelo urbano de integración intercultural (Consejo de Europa)*.
- Paradigma intercultural: ***Bridging the equality, diversity and inclusion***[3] ***agendas (Intercultural Cities, Consejo de Europa).***
- **Intercultural Cities Index**[4]: El Índice de Ciudades Interculturales es una herramienta capaz de ilustrar visualmente el nivel de logro de cada ciudad, su progreso a lo largo del tiempo y su comparación con otras ciudades. Esta herramienta contiene un número limitado de indicadores que facilitan la identificación y comunicación de la situación de una ciudad en relación con la integración intercultural, los puntos en los que deben concentrarse los esfuerzos en el futuro y qué otras ciudades podrían ser una fuente de buenas prácticas en estos ámbitos concretos.
- ***Manual de competencias interculturales aplicadas al desarrollo de proyectos en la Administración Pública***[5]**.**

MARCO JURÍDICO

- **Ley de Instituciones Locales de Euskadi**: **el apartado n.º 35** del **art. 17.1** establece que los municipios **podrán** ejercer, en el marco de lo dispuesto en esta ley y en la legislación que sea de aplicación, **competencias propias** en el ámbito material referente a la **gestión de las políticas de integración social en materia de inmigración,** de acuerdo con la legislación en materia de extranjería y en cooperación con las instituciones autonómicas.
- **Ley Orgánica 4/2000, de 11 de enero, sobre derechos y libertades de los extranjeros en España y su integración social:**
  - → El artículo 2 ter se ocupa de la integración de los inmigrantes, su necesaria promoción por parte de los poderes públicos, y la incorporación transversal a todas las políticas públicas.
  - → Se establece un sistema de cooperación Administración Central/CCAA/Ayuntamientos en el marco de un Plan Estratégico Plurianual. Cuenta con la ayuda económica de un Fondo para la Integración de los Inmigrantes (sin embargo, los Presupuestos Generales del Estado de 2012 eliminaron dicho Fondo).
- La **Agenda 2030 para el Desarrollo Sostenible**, aprobada por la Asamblea General de Naciones Unidas el 25 de septiembre de 2015, establece como objetivo 10 «*reducir la desigualdad en los países y entre ellos*». Para ello, fija como meta (10.7): «*Facilitar la migración y la movilidad ordenadas, seguras, regulares y responsables de las personas, incluso mediante la aplicación de políticas migratorias planificadas y bien gestionadas*». La Agenda 2030 reconoce la contribución positiva de las personas migrantes al crecimiento inclusivo y al desarrollo sostenible. El objetivo 11 plantea lograr que las ciudades y los asentamientos humanos sean inclusivos, seguros, resilientes y sostenibles. Se trata de configurar asentamientos humanos fundamentados en la equidad, la justicia y la paz, bajo el principio global de no dejar a nadie atrás. El objetivo 16 plantea promover sociedades pacíficas e inclusivas para el desarrollo sostenible, facilitar el acceso a la justicia para todos y crear instituciones eficaces, responsables e inclusivas a todos los niveles. Por último, pero no menos importante, el objetivo 5 subraya la necesidad de atender a aquellas mujeres que puedan sufrir una discriminación múltiple para trabajar y lograr la igualdad de género y empoderar a todas las mujeres y niñas.
- El **Pacto Mundial para una Migración Segura, Ordenada y Regular**, aprobado en la Asamblea General de Naciones Unidas el 19 de diciembre de 2018, se estructura en torno a 23 grandes objetivos, de los cuales son reseñables los números 7,15,16 y 18 (*Abordar y reducir las vulnerabilidades en la migración / Proporcionar a las personas migrantes acceso a servicios básicos / Empoderar a las y los migrantes y las sociedades para lograr la plena inclusión y la cohesión social / Invertir en el desarrollo de aptitudes y facilitar el reconocimiento mutuo de aptitudes, cualificaciones y competencias*).
- **Referencias europeas *(soft law)*:**
  1. **Agenda Europea para la integración de nacionales de terceros países COM (2011) 455** establece que es preciso *más intervención a nivel local*.
     - *(…) Deben adoptarse y aplicarse **políticas de integración con la participación activa de las autoridades locales**. Las autoridades locales son responsables de una amplia gama de servicios y actividades, y desempeñan un papel importante en la configuración de la interacción entre los migrantes y la sociedad de acogida.*
     - *(…) La integración efectiva sólo puede lograrse mediante la **colaboración** entre una amplia gama de partes interesadas, como las **Instituciones europeas**, los **Estados miembros** y los **actores nacionales, regionales y locales.***
     - *(…) La **financiación** de la integración por la UE debe basarse en un enfoque local, más específico, en apoyo de estrategias coherentes especialmente destinadas a fomentar la integración a nivel local.*
  2. **Plan de Acción en materia de Integración e Inclusión para 2021-2027**[6] **de la Comisión Europea.**
  3. **Una Unión de la igualdad: Plan de Acción de la UE Antirracismo para 2020-2025**[7].
  4. **Recomendación del Comité de Ministros del Consejo de Europa** a los Estados miembros en materia de Integración Intercultural (21 de enero de 2015).

     Basada en la experiencia del programa *Intercultural Cities*, apoya el *enfoque intercultural* de diversidad e inclusión. Las ciudades son espacios para la innovación política y social, mediante la adopción del *enfoque intercultural* que contribuye a la cohesión social.
  5. **Recomendación CM/REC (2022)10 del Comité de Ministros** a los Estados miembros sobre las políticas y la gobernanza multinivel para la integración intercultural[8].
- **Referencias ámbito estatal:**
  - → **Marco Estratégico de ciudadanía e inclusión contra la xenofobia y racismo**[9]**.**
  - → **Estrategia Nacional para la Igualdad, Inclusión y Participación del Pueblo Gitano 2021-2030**[10]**.**
- En EUSKADI avalan el importante papel de las autoridades locales en materia de gestión intercultural de la diversidad:
  - → **VI Plan Intercultural de ciudadanía, inmigración y asilo. 2022-2025**[11]**.**
  - → **Pacto Social Vasco para la Migración. Un compromiso común por la convivencia**[12].
  - → **Estrategia Vasca con el Pueblo Gitano (2022-2026)**[13].

[1] https://rm.coe.int/16803o1bc4
[2] https://www.ciudadesinterculturales.com/
[3] https://www.coe.int/en/web/interculturalcities/documents
[4] https://www.coe.int/en/web/interculturalcities/about-the-index
[5] https://rm.coe.int/manual-de-competencias-interculturales/1680a10d80
[6] https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/?uri=CELEX:52020DC0758
[7] https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/?uri=CELEX%3A52020DC0565&qid=1682666192769
[8] https://rm.coe.int/1680aa97fc
[9] https://www.el-futuro-es-la-inclusion.es/
[10] https://www.mdsocialesa2030.gob.es/derechos-sociales/poblacion-gitana/docs/estrategia_nacional/Estrategia_nacional_21_30/Estrategia_Nacional_COM_2021_2030.pdf
[11] https://www.euskadi.eus/planes-y-proyectos/web01-a2migra/es/
[12] https://www.euskadi.eus/pacto-social-vasco-para-la-migracion-un-compromiso-comun-por-la-convivencia/web01-s2enple/es/
[13] https://www.euskadi.eus/contenidos/noticia/xiileg_planes_departamentales/es_def/Estrategia_Vasca_con_el_Pueblo_Gitano_2022_2026.pdf

KULTURARTEKO IKUSPEGIA

- Gero eta toki-erakunde gehiago ari da ezartzen apurka-apurka kulturarteko ikuspegia hiriaren gobernantzan (diagnostikatzeko, planifikatzeko, diseinatzeko, garatzeko eta ebaluatzeko faseetan).
- Kulturarteko ikuspegiak **esparru politiko bat eskaintzen du aniztasun soziokulturala areagotu den gizarteetan kohesioa, berdintasuna eta garapena lortzeko**. Lehendik ere bazegoen aniztasun hori, baina igo egin da atzerriko etorkinak, nazioarteko babesa eskatu duten pertsonak eta errefuxiatuak iritsi, finkatu eta errotzean. Horrenbestez, nazio- eta kultura-jatorrien, hizkuntzen, erlijioen, sinesmenen nahiz ohituren aniztasuna areagotu egin da, eta gizarte demokratikoen araudi-esparrura egokitu beharra dago. Migrazio-prozesuen kasuan, azpimarratzekoa da estatus juridiko bereiziek mugatu egiten dutela eskubideak edukitzeko eta herritar oso izateko aukera (atzerritarren estatuko legearen edo EBko erkidego-legearen arabera).
- Kulturartekotasunaren ikuspegitik, aniztasun soziokulturala egiturazko errealitatea da, eta modu proaktiboan landu beharreko aukerak eta konplexutasunak planteatzen ditu. Kulturarteko ikuspegia hainbat ahulezia erakutsi dituzten beste eredu batzuen bilakaera gisa eta ereduok ordezkatzeko sortu da, hala nola asimilazionista edo kulturaniztasuna.
- Kulturarteko ikuspegiari jarraikiz, **hiru printzipio aplikatu behar dira aldi berean**:
  - → Berdintasuna eta diskriminaziorik eza.
  - → Aniztasunaren aitorpena.
  - → Elkarrekintza positiboa.
- Kulturarteko integrazioaren **funtsezko elementu operatiboak** honako hauek dira:
  - → Erabaki-espazioak partekatzea (jatorri kultural desberdinetako pertsonak sartuta gobernu-egituren eta -erakundeen rol desberdinetan).
  - → Erakunde publikoetan eta espazio publikoan kulturen nahastea eta elkarrekintza sustatzea.
  - → Erakundeak kulturaren gaineko eskudunak eta berrikuntzarako harkorrak izan daitezen lortzea, aniztasuneko ekarpenen bidez, bai eta gatazka kulturalen, aurreiritzien eta diskriminazioaren aurrean erresilienteak izan daitezela lortzea ere.
  - → Jatorri desberdinetako pertsonek eta kolektiboek tokiko politikak diseinatzen, ezartzen eta gauzatzen parte har dezaten bultzatzea, bai eta bizitza sozialean, ekonomikoan eta kulturalean ere.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legeak (3.1.c artikulua) zera ezartzen du: «Botere publikoek **ikuspegi intersekzionala** sustatu behar dute; horrek, lege honen ondorioetarako, esan nahi du kontuan hartu behar dela nola erlazionatzen diren sexua eta/edo generoa aipatutako gainerako faktoreekin, nola eragiten dioten elkarri hainbat mailatan, askotan aldi berean, eta nola sortzen diren identitate gainjarriak eta intersekzionatuak, bai eta elkarri lotutako eta askotariko botere- eta zapalkuntza-egoera eta -ardatzak ere».

Informazio gehiago, hemen:

- ***Kulturarteko politikak diseinatzeko eskuliburua***[1] (RECI-Kulturarteko Hirien Estatuko Sarea[2]). STEP BY STEP biltzen du. *Kulturarteko hiriko gizarteratze-eredua aplikatzeko gida praktikoa (Europako Kontseilua)*.
- Kulturarteko paradigma: ***Bridging the equality, diversity and inclusion***[3] ***agendas (Intercultural Cities, Europako Kontseilua).***
- **Intercultural Cities Index**[4]: Kulturarteko Hirien Indizea gai da bisualki ikusarazteko hiri bakoitzaren lorpen-maila, denboran zehar izandako aurrerapena eta beste hiri batzuekin alderatutako egoera. Tresna honek hainbat adierazle ditu, hiri batek kulturarteko integrazioarekin, etorkizunean jorratu beharreko esparruekin, eta eremu zehatz hauetan jardunbide egokien iturri izan litezkeen beste hiri batzuekin lotuta duen egoera identifikatu eta jakinarazten laguntzeko.
- ***Administrazio Publikoko proiektuen garapenari aplikatutako kulturarteko konpetentzien eskuliburua***[5]**.**

ESPARRU JURIDIKOA

- **Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legea**: **17.1. artikuluko 35. apartatuaren** arabera, udalerriek, lege honetan eta aplikagarri zaien bestelakoetan ezarritakoaren arabera, **eskumen propioak** baliatu **ahal izango dituzte immigrazioaren gaineko gizarteratze-politiken kudeaketarekin** lotutako esparruan, erakunde autonomikoekiko lankidetzaren eta atzerritartasunaren gaineko legediari jarraikiz.
- **4/2000 Lege Organikoa, urtarrilaren 11koa, atzerritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei eta haien gizarteratzeari buruzkoa:**
  - → 2 ter artikuluan honako gai hauek aipatzen dira: etorkinak gizarteratzea, botere publikoek hori sustatzea ezinbestekoa dela ezartzea, eta politika publiko guztietan zeharka sartzea.
  - → Administrazio Zentralaren, Autonomia Erkidegoen eta Udalen arteko lankidetza-sistema bat ezartzen da Urte anitzeko Plan Estrategikoaren esparruan. Etorkinak Gizarteratzeko Funtsaren laguntza ekonomikoa du (nolanahi ere, Estatuaren 2012ko Aurrekontu Orokorrek kendu egin zuten funts hori).
- **Garapen Jasangarrirako 2030 Agendak** (Nazio Batuen Batzar Nagusiak 2015eko irailaren 25ean onetsia) 10. helburuan ezartzen du *desberdintasuna murriztea herrialdeetan eta herrialdeen artean*. Horretarako, helburu hau ezarri du (10.7): *Pertsonen migrazio eta mugikortasun ordenatuak, seguruak, erregularrak eta arduratsuak erraztea, are migrazio-politika planifikatuak eta ondo kudeatuak aplikatuz*. 2030 Agendak aitortzen du migratzaileek ekarpen positiboa egiten diotela hazkunde inklusiboari eta garapen jasangarriari. 11. helburuak, bestalde, hiriak eta giza kokaguneak inklusiboak, seguruak, erresilienteak eta jasangarriak izatea lortzea proposatzen du. Ekitatean, justizian eta bakean oinarritutako giza kokalekuak eratu nahi dira, inor atzean ez uzteko printzipio globalaren pean. 16. helburuak zera proposatzen du: garapen jasangarrirako gizarte baketsu eta inklusiboak sustatzea, guztiek justizia eskura izatea bermatzea, eta erakunde efikaz, arduratsu eta inklusiboak sortzea maila guztietan. Azkenik, baina horrek ez du esan nahi garrantzi gutxiago duenik, 5. helburuak azpimarratzen du beharrezkoa dela askotariko diskriminazioa jasan dezaketen emakumeei arreta ematea, genero arteko berdintasuna lortzeko eta emakume eta neska guztiak ahalduntzeko.
- **Migrazio Seguru, Ordenatu eta Erregularrerako Munduko Ituna** (Nazio Batuen Batzar Nagusiak 2018ko abenduaren 19an onartua) 23 helburu handiren inguruan egituratzen da, eta haietatik 7, 15, 16 eta 18 zenbakidunak nabarmendu behar dira (*Migrazioko zaurgarritasunei heltzea eta murriztea / Migratzaileei oinarrizko zerbitzuak eskuragarri jartzea / Migratzaileak eta gizarteak ahalduntzea, erabateko gizarteratzea eta gizarte-kohesioa lortzeko / Trebetasunen garapenean inbertitzea eta trebetasunak, kualifikazioak eta gaitasunak elkarri aitortzea erraztea*).
- **Europako erreferentziak *(soft law)*:**
  1. **Erkidegoko hirugarren herrialdeetako nazionalak gizarteratzeko Europako Agendan (2011) (COM 455)** ezartzen da ezinbestekoa dela *esku-hartze gehiago izatea toki-esparruan*.
     - *(…)* ***Gizarte-politikak*** *hartu eta aplikatu behar dira,* ***tokiko agintaritzen partaidetza aktiboa izanik****. Tokiko agintaritzek zerbitzu eta jarduera multzo handi baten ardura dute, eta zeregin garrantzitsua dute migratzaileen eta harrera-gizartearen arteko elkarrekintza eratzeari dagokionez.*
     - *(…) Benetako gizarteratzea soilik lortu ahal izango da alderdi interesdunen multzo handi batzuen arteko* ***lankidetzaren*** *bitartez, esate baterako* ***Europako erakundeen*** *eta* ***estatu kideen*** *eta* ***nazioko, eskualdeko eta tokiko eragileen*** *arteko lankidetzaren bitartez.*
     - *(…) Europar Batasunak gizarteratzea* ***finantzatzeko****, honako hauek hartuko ditu oinarritzat: tokiko ikuspegia espezifikoagoa izatea, bereziki tokiko gizarteratzea sustatzera bideratutako estrategia koherenteak babesteko.*
  2. **Europako Batzordearen 2021-2027rako**[6] **Integrazioaren eta Gizarteratzearen arloko Ekintza Plana.**
  3. **Berdintasunaren Batasuna: EBren Ekintza Plana, arrazakeriaren aurkakoa, 2020-2025 aldirako**[7].
  4. **Europako Kontseiluko Ministro Batzordeak** Estatu kideei kulturarteko gizarteratzearen alorrari dagokionez emandako **Gomendioa** (2015eko urtarrilaren 21a).

     Intercultural Cities programaren esperientzia oinarritzat hartuta, aniztasunaren eta inklusioaren *kulturarteko ikuspegia* bultzatzen du. Hiriak berrikuntza politikorako eta sozialerako guneak dira, *kulturarteko ikuspegia* hartuz, eta horrek kohesio soziala lortzen laguntzen du.
  5. **Ministroen Batzordeak** estatu kideei egindako **CM/REC (2022)10 Gomendioa**, kulturen arteko integraziorako maila anitzeko gobernantzari eta politikei buruz[8].
- **Estatuko erreferentziak:**
  - → **Xenofobiaren eta arrazakeriaren aurkako herritartasunaren eta inklusioaren esparru estrategikoa**[9]**.**
  - → **Ijito Herriaren Berdintasunerako, Inklusiorako eta Partaidetzarako Estrategia Nazionala (2021-2030)**[10]**.**
- EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAn honako hauek bermatzen dute tokiko agintariek aniztasunaren kulturarteko kudeaketan duten zeregin garrantzitsua:
  - → **Herritartasunaren, immigrazioaren eta asiloaren Kulturarteko VI. Plana. 2022-2025**[11]**.**
  - → **Migraziorako Euskal Itun Soziala. Elkarbizitzaren aldeko konpromisoa**[12]**.**
  - → **Ijito Herriarekiko Euskal Estrategia (2022-2026)**[13].

[1] https://rm.coe.int/1680301bc4
[2] https://www.ciudadesinterculturales.com/
[3] https://www.coe.int/en/web/interculturalcities/documents
[4] https://www.coe.int/en/web/interculturalcities/about-the-index
[5] https://rm.coe.int/manual-de-competencias-interculturales/1680a10d80
[6] https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/?uri=CELEX:52020DC0758
[7] https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/?uri=CELEX%3A52020DC0565&qid=1682666192769
[8] https://rm.coe.int/1680aa97fc
[9] https://www.el-futuro-es-la-inclusion.es/
[10] https://www.mdsocialesa2030.gob.es/derechos-sociales/poblacion-gitana/docs/estrategia_nacional/Estrategia_nacional_21_30/Estrategia_Nacional_COM_2021_2030.pdf
BESTE ORGANO BATZUK	• Foru- eta **toki-administrazioek**, zeinek bere eskumenaren barruan, adikzioen arloko **koordinazio, kontsulta, aholkularitza eta gizarte-partaidetzarako organoak eratu ahal izango dituzte**. • Eusko Jaurlaritzak eta foru- eta toki-administrazioek **organo edo batzorde espezializatuak eratu ahal izango dituzte gai bereziak aztertzeko, modu iraunkorrean edo aldi baterako, sailartekoak edo erakundeartekoak eta, nahi izanez gero, entitate pribatuekin**, adikzioen arloko gai edo arlo espezifikoetarako beharrezkoak baldin badira.


Legeria: 1/2016 Legea, apirilaren 7koa, Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzkoa, 71, 72, 74 eta 75. artikuluak
12/2008 Legea, abenduaren 5ekoa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa

Erreferentziako planak: Euskal Autonomia Erkidegoko Adikzioen Plana
Euskadiko Osasun Plana 2013-2020

El **apartado n.º 19 del art. 17.1 de la Ley de Instituciones Locales de Euskadi** establece que los municipios podrán ejercer, en el marco de lo dispuesto en esta ley y en la legislación que sea de aplicación, competencias propias en el ámbito material referentes a la **ordenación y promoción del deporte y de actividades deportivas y gestión de equipamientos deportivos de uso público.**

MISIÓN	El Servicio Municipal de Deportes (u otra forma organizativa de gestión) es una organización pública integrada en el Ayuntamiento que persigue **incrementar la actividad física regular** de las personas, como medio para la mejora de nuestra calidad de vida y la educación de la ciudadanía a través del deporte. Entre sus compromisos, se incluye: • Organizar una oferta municipal variada; sostenible; amplia para toda la ciudadanía; universal e inclusiva; igualitaria; innovadora; y sostenible. • Ser uno de los principales apoyos a los agentes deportivos locales.
OBJETIVOS GENERALES	• Incrementar el porcentaje de población activa con el fin de mejorar su salud y su calidad de vida. • Crear, desarrollar y mantener un entorno físico natural y construido que facilite e impulse la actividad física. • Reducir la desigualdad proveniente de la incidencia en la población de los determinantes sociales. • Potenciar la acción intersectorial a favor de la actividad física: «actividad física en todas las políticas». • Diseñar, ejecutar y promover intervenciones estables y duraderas dirigidas a distintos sectores de la población que generen un incremento de las oportunidades de actividad física con especial atención a las personas inactivas. • Impulsar la concepción del deporte como una escuela de educación en valores. • Activar dinámicas colaborativas con otras áreas y entidades municipales (Juventud, Acción Social, Participación, Igualdad…) y supramunicipales (Gobierno Vasco y Diputaciones).
PROGRAMAS	• Promoción de la actividad física y la salud. • Promoción y dinamización de un urbanismo facilitador de la actividad física. • Promoción y fomento del deporte de participación y competición. • Deporte educativo. • Promoción de la formación. • Educación en valores. • Oferta de servicios deportivos multigeneracionales.

MODELO DE DEPORTE MUNICIPAL
(ROL FACILITADOR DE ACTIVIDAD FÍSICA)







Euskadiko Toki Erakundeei Buruzko Legearen 17.1 artikuluko 19. atalak xedatzen duenez, lege horretan eta aplikatu beharreko legerian xedatutakoaren esparruan, udalerriek honako esparru material hauetan erabili ahal izango dituzte eskumen propioak**: kirola eta kirol-jarduerak antolatzea eta sustatzea, eta erabilera publikoko kirol-ekipamenduak kudeatzea.**

XEDEA	Udaleko Kirol Zerbitzua (edo beste mota bateko kudeaketa-antolamendua) Udalean txertatuta dagoen erakunde publikoa da, pertsonen **jarduera fisiko erregularra areagotzea** helburu duena, gure bizitza-kalitatea eta herritarren heziketa kirolaren bitartez hobetzeko bitarteko gisa. Bere konpromisoen artean, honako hauek daude: • Udal-eskaintza anitza; jasangarria; herritar guztientzat zabala; unibertsala eta inklusiboa; berdintasunezkoa; berritzailea; eta iraunkorra antolatzea. • Tokiko kirol-eragileentzako laguntza nagusietako bat izatea.
HELBURU OROKORRAK	• Biztanleria aktiboaren ehunekoa areagotzea, bere osasuna eta bizi-kalitatea hobetzeko asmoz. • Jarduera fisikoa ahalbidetu eta bultzatzen duen ingurune fisiko natural eta eraikia sortu, garatu eta mantentzea. • Gizarte-determinatzaileek biztanlerian duten intzidentziatik eratorritako desberdintasunak murriztea. • Jarduera fisikoaren aldeko sektore arteko ekintza sustatzea: «jarduera fisikoa politika guztietan». • Biztanleriaren sektore desberdinetara bideratutako esku-hartze egonkorrak eta iraunkorrak —jarduera fisikorako aukerak areagotuko dituztenak— diseinatu, egikaritu eta sustatzea, pertsona ez-aktiboak oso kontuan hartuta. • Kirolaren ikuskera balioetan hezteko eskola gisa bultzatzea. • Lankidetza-dinamikak aktibatzea beste arlo eta udal-erakunde batzuekin (Gazteria, Gizarte Ekintza, Parte-hartzea, Berdintasuna) eta udalerriaz gaindiko erakundeekin (Eusko Jaurlaritza eta Aldundiak).
PROGRAMAK	• Jarduera fisikoa eta osasuna sustatzea. • Jarduera fisikoa ahalbidetuko duen hirigintza sustatu eta bultzatzea. • Parte hartzeko kirola eta lehiaketa-kirola sustatu eta bultzatzea. • Kirol hezitzailea. • Prestakuntza sustatzea. • Balioetan heztea. • Belaunaldi anitzeko kirol-zerbitzuen eskaintza.

UDALAREN KIROL-EREDUA (JARDUERA FISIKOA AHALBIDETZEKO ZEREGINA)





CONCEPTO	Es el programa de actividades de carácter lúdico y cultural que se celebran en torno a una festividad religiosa (patrón/a del municipio) o de cualquier otra índole (carnavales, fiestas relacionadas con el euskera, etc.).
ÁMBITO DE ACTUACIÓN	El municipio en su conjunto: • El Ayuntamiento gestiona directamente las fiestas municipales, aunque también caben en ellas actividades desarrolladas por los vecinos o asociaciones de éstos, así como la participación ciudadana en la gestión municipal. • Por otro lado, pueden celebrarse fiestas en distintos núcleos, barrios y calles del municipio, respecto a las cuales la posición del ayuntamiento, generalmente, no es la de gestor, sino la de prestar apoyo económico (medios materiales y subvenciones) y técnico (por ejemplo, en materia de seguridad).
COMPETENCIA	Esta actividad habitualmente se encuentra encuadrada en el área de cultura y deportes (Cultura, Deportes y Fiestas). El programa de actividades puede ser ejecutado: • Por el propio **Ayuntamiento**. El programa se elabora desde el Ayuntamiento y se contrata directamente por el mismo. Por tanto, el Ayuntamiento se hace cargo de las infraestructuras (escenario, vallas, etc.). • En colaboración **con otras entidades**. El programa se elabora conjuntamente y se contrata directamente desde el Ayuntamiento. Así mismo, el Ayuntamiento puede hacerse cargo de las infraestructuras (escenario, vallas, etc.). • **Por la Comisión ciudadana de fiestas**. El programa se elabora por la Comisión de Fiestas. El Ayuntamiento concede una subvención a la Comisión. En este caso, el Ayuntamiento puede hacerse cargo de las infraestructuras, o dejarlo en manos de la Comisión.
ASPECTOS PARA TENER EN CUENTA	• Ley 10/2015, de 23 de diciembre, de Espectáculos Públicos y Actividades Recreativas. • Decreto 17/2019, de 5 de febrero, por el que se aprueba el Reglamento de desarrollo de la Ley de Espectáculos Públicos y Actividades Recreativas (en vigor desde el 21-4-2019). • Ley de Propiedad Intelectual (derechos de autor) sobre las actuaciones musicales, etc. • Infraestructuras (escenarios, vallas, etc…). • Utilización de espacios públicos. • Seguridad ciudadana durante las fiestas (ambulancia, policía municipal). • La Comisión de Fiestas debe disponer de un seguro de responsabilidad civil. • Decreto 44/2014, de 25 de marzo, por el que se regulan los seguros de responsabilidad civil exigibles para la celebración de espectáculos públicos y actividades recreativas. • Real Decreto 2816/1982, de 27 de agosto, por el que se aprueba el Reglamento General de Policía de Espectáculos Públicos y Actividades Recreativas. • Decreto 277/2010, de 2 de noviembre, por el que se regulan las obligaciones de autoprotección exigibles a determinadas actividades, centros o establecimientos para hacer frente a situaciones de emergencia.

Legislación:

Ley 10/2015, de 23 de diciembre, de Espectáculos Públicos y Actividades Recreativas
Decreto 17/2019, de 5 de febrero, por el que se aprueba el Reglamento de desarrollo de la Ley de Espectáculos Públicos y Actividades Recreativas (en vigor desde el 21-4-2019)
Decreto 277/2010, de 2 de noviembre, por el que se regulan las obligaciones de autoprotección exigibles a determinadas actividades, centros o establecimientos para hacer frente a situaciones de emergencia
Real Decreto Legislativo 1/1996, de 12 de abril, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Propiedad Intelectual, regularizando, aclarando y armonizando las disposiciones legales vigentes sobre la materia
Decreto 44/2014, de 25 de marzo, por el que se regulan los seguros de responsabilidad civil exigibles para la celebración de espectáculos públicos y actividades recreativas
Real Decreto 2816/1982, de 27 de agosto, por el que se aprueba el Reglamento General de Policía de Espectáculos Públicos y Actividades Recreativas

KONTZEPTUA	Jai erlijioso baten (udalerriko patroia) edo bestelako jairen baten inguruan (inauteriak, euskararekin zerikusia duten jaiak, eta abar) egiten diren jolas- eta kultura-jardueren programa da.
JARDUERA ESPARRUA	Udalerria, oro har: • Udalak zuzenean kudeatzen ditu herriko jaiak, nahiz eta horietan auzotarrek edo auzotarren elkarteek garatutako jarduerak ere antola daitezkeen eta udal kudeaketan biztanleek ere parte har dezaketen. • Bestalde, udalerriko gune, auzo eta kaleetan egin daitezke jaiak; horiei dagokienez, udalak ez ditu kudeatzen, baizik eta laguntza ekonomikoa (bitarteko materialak eta dirulaguntzak) eta teknikoa (esaterako, segurtasunaren arlokoa) eskaintzen du.
ESKUMENA	Jarduera hau kultura- eta kirol-arloan kokatu ohi da (kultura, kirolak eta jaiak). Jardueren programa honako hauek gauza dezakete: • **Udalak** berak. Programa udalak prestatzen du eta udalak berak kontratatzen du zuzenean. Hortaz, azpiegiturez (agertokia, hesiak eta abar) Udala arduratzen da. • **Beste erakunde batzuekin** elkarlanean. Programa batera prestatzen da eta udalak kontratatzen du zuzenean. Halaber, Udala ardura daiteke azpiegiturez (agertokia, hesiak eta abar). • **Herritarren jai-batzordeak**. Programa jai-batzordeak prestatzen du. Udalak dirulaguntza ematen dio batzordeari. Kasu horretan, Udala azpiegiturez ardura daiteke, edo Batzordearen esku utz ditzake.
KONTUAN HARTU BEHARREKO ALDERDIAK	• 10/2015 Legea, abenduaren 23koa, Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jarduerena. • 17/2019 Dekretua, otsailaren 5ekoa, Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas-jardueren Legea garatzeko Erregelamendua onartzen duena (indarrean 2019-4-21etik). • Musika-saioen eta abarren gaineko jabetza intelektuala (egile-eskubideak) arautzen duen legea. • Azpiegiturak (agertokiak, hesiak eta abar). • Espazio publikoen erabilera. • Herritarren segurtasuna jaietan (anbulantzia, udaltzaingoa). • Jai Batzordeak erantzukizun zibileko asegurua izan behar du. • 44/2014 Dekretua, martxoaren 25ekoa, jolas-jarduerak eta ikuskizun publikoak burutzeko eska daitezkeen erantzukizun zibileko aseguruak arautzen dituena. • 2816/1982 Errege Dekretua, abuztuaren 27koa, ikuskizun publikoetarako eta jolas-jardueretako Poliziaren Erregelamendua onartzen duena. • 277/2010 Dekretua, azaroaren 2koa, larrialdi-egoerei aurre egiteko jarduera, zentro edo establezimendu zehatz batzuei ezartzen zaizkien autobabeserako betebeharrak arautzen dituena.

Legeria:

10/2015 Legea, abenduaren 23koa, Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jarduerena
17/2019 Dekretua, otsailaren 5ekoa, Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas-jardueren Legea garatzeko Erregelamendua onartzen duena (indarrean 2019-4-21etik)
277/2010 Dekretua, azaroaren 2koa, zenbait jarduera, zentro edo establezimenduren autobabes-betebeharrak arautzen dituena, larrialdiei aurre egiteko
1/1996 Legegintzako Errege Dekretua, apirilaren 12koa, Jabetza intelektualari buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duena, alor horretan indarrean dauden legezko xedapenak arautu, argitu eta harmonizatuta
44/2014 Dekretua, martxoaren 25ekoa, jolas-jarduerak eta ikuskizun publikoak burutzeko eska daitezkeen erantzukizun zibileko aseguruak arautzen dituena
2816/1982 Errege Dekretua, abuztuaren 27koa, ikuskizun publikoetarako eta jolas-jardueretako Poliziaren Erregelamendua onartzen duena

XXIII.

ERABILERA PUBLIKOKO ESPAZIO LIBREAK

ESPACIOS LIBRES DE USO PÚBLICO

XXIII.

Espacios libres de uso público

1. Parques públicos.
2. Playas.

XXIII.

Erabilera publikoko espazio libreak

1. Parke publikoak.
2. Hondartzak.

- Son competencia de los Ayuntamientos y se constituyen como un **SERVICIO OBLIGATORIO** en Municipios de **más de 5.000 habitantes.**
- El **apartado nº 16 del art. 17.1 de la Ley de Instituciones Locales de Euskadi (LILE)** establece que los municipios podrán ejercer, en el marco de lo dispuesto en esta ley y en la legislación que sea de aplicación, competencias propias en el ámbito material referente a la **ordenación, gestión y prestación del servicio** de alumbrado público, limpieza viaria, acceso a núcleos de población y pavimentación de vías urbanas, así como **parques y jardines.**
- Las normas relativas a la ordenación del territorio determinan la **NECESIDAD DE RESERVAR ESPACIOS** para parques públicos y zonas verdes.

Corresponde al **municipio**: **DISEÑO DE POLÍTICAS, INSTALACIÓN DE NUEVOS ESPACIOS VERDES Y GESTIÓN DE ESPACIOS EXISTENTES**	
DISEÑO DE POLÍTICAS	• Elaboración e implantación de políticas de **gestión sostenible**. • **Asesoría ambiental** en relación a servicios y obras que afecten, en algún modo, a parques, jardines, zonas verdes y arbolado. • Redacción de **Ordenanzas** relativas a parques, jardines y zonas verdes. • **Inventariado** de las zonas verdes. • Elaboración de un **Plan director de arbolado.** • Elaboración de **Planes de gestión del arbolado.** • **Seguimiento y control de la calidad de aguas en fuentes y estanques. Prevención de la legionella.** • Elaboración de **directrices de diseño para proyectos** cuya redacción se encarga a terceros. • **Informe de Proyectos de Urbanización** en lo referido a zonas verdes y arbolado de alineación. • Elaboración de **pliegos técnicos para la contratación** de servicios con terceros. • **Fomento de la biodiversidad** en parques y jardines. • Implantación de **huertos, alcorques y jardines comunitarios**. • Aspectos de **divulgación e información:** campañas de sensibilización de los valores del arbolado, publicación en la WEB municipal de los inventarios y actuaciones significativas referidas al arbolado y las zonas verdes.
NUEVOS PROYECTOS DE URBANIZACIÓN Y DE INSTALACIÓN DE ZONAS VERDES	• Habrá de seguirse el proceso habitual en la **CONTRATACIÓN DE OBRA:** licitación, adjudicación, ejecución y puesta en funcionamiento. • El **PROYECTO TÉCNICO** tendrá en cuenta las características del lugar y el uso que se le quiere dar.
GESTIÓN DE PARQUES Y ESPACIOS VERDES EXISTENTES	Consiste en: 1. **Mantenimiento y adecuación** de los espacios. 2. **Control e inspección** del mantenimiento y adecuación desarrollada por terceros. 3. **Control de obras** que afecten a parques, jardines y arbolado. Podrá utilizarse cualquiera de las **formas de gestión de servicios**. Las más habituales: 1. La **gestión directa** mediante brigada de jardinería. 2. **Contrato de gestión de servicios**.

PLAN DIRECTOR DE ARBOLADO	
CONJUNTO DOCUMENTAL	A) **INVENTARIADO** de arbolado con los datos necesarios y suficientes que permitan una gestión adecuada. B) **ESTUDIO DE PELIGROSIDAD** del arbolado basada en el inventario. C) Establecimiento de varias **CATEGORÍAS** para el arbolado: 1. Respecto a su continuidad en el **tiempo**: 1.1. Arbolado de interés local. 1.2. Arbolado a mantener, salvo justificación expresa de la necesidad de su trasplante o tala. 1.3. Arbolado a sustituir tras reforma estructural, por varios motivos: 1.3.1. Proximidad inadmisible a viviendas. 1.3.2. Peligro de estabilidad por afección a raíces, desequilibrio de copas. 1.3.3. Deficiente estado fitosanitario. 2. Respecto a las **podas**: 2.1. Arbolado a podar, para evitar perjuicios al ciudadano (proximidad a viviendas, etc.) o por criterios de poda de formación, mantenimiento, seguridad estructural, etc. 2.2. Arbolado a mantener íntegro, sin podas (salvo podas de limpieza). D) Tratamiento de **ALCORQUES**. • Establecimiento de **criterios** para el tratamiento de los alcorques (análisis y valoración de las diversas posibilidades de tratamiento y gestión). E) Tratamiento de **FITOSANITARIOS**. • Establecimiento de **criterios** de tratamiento, horarios, productos, etc.

Legislación: Ley 2/2016, de Instituciones Locales de Euskadi, art. 17.1.16
LRBRL, arts. 25.2.b y 26.1.b

- Parke publikoen gaineko eskumena udalari dagokio. Parke publikoena **NAHITAEZKO ZERBITZUA** da **5.000 biztanletik gorako udalerrietan.**
- **Euskadiko Toki Erakundeen Legeak (ETEL), 17.1 artikuluko 16. atalean**, xedatzen du udalek, lege horretan xedatutakoa eta aplikatu beharreko legerian jasotakoa beteta, berezko eskumenak baliatu ahal izango dituztela honako esparru material hauei dagokienez**:** argiteria publikoa, bide-garbiketa, biztanle-guneetako sarbideak, kale-zoladura eta **parkeak eta lorategiak antolatzea eta kudeatzea, eta zerbitzu horiek ematea.**
- Era berean, lurralde-antolamenduari buruzko arauek parke publikoetarako eta berdeguneetarako **EREMUAK GORDE BEHAR DIRELA** agintzen dute.

Udalari dagokio: **POLITIKAK ZEHAZTEA, BERDEGUNE BERRIAK EGITEA ETA LEHENDIK ZEUDENAK KUDEATZEA**	
POLITIKEN DISEINUA	• **Kudeaketa jasangarrirako** politikak egitea eta ezartzea. • **Ingurumen-arloko aholkularitza** eskaintzea, nola edo hala parkeei, lorategiei, berdeguneei eta zuhaiztiei eragiten dieten zerbitzuei eta obrei dagokienez. • Parkeei, lorategiei eta berdeguneei buruzko **Ordenantzak** idaztea. • Berdeguneen **inbentarioa** egitea. • **Zuhaiztien plan zuzentzaile** bat egitea. • **Zuhaiztien kudeaketa-planak** egitea. • **Iturrietako eta urmaeletako uren kalitatearen jarraipena eta kontrola. Legionella prebenitzea.** • **Proiektuak diseinatzeko jarraibideak** prestatzea, proiektuen idazketa udalaz kanpoko norbaiti agintzen zaionerako. • **Hirigintza-proiektuen txostena** egitea, berdeguneei eta lerrokatze-zuhaiztiei buruzkoa. • **Baldintza teknikoen orriak** prestatzea, zerbitzuak udalaz kanpoko norbaitekin kontratatu behar direnerako. • **Biodibertsitatea sustatzea** parkeetan eta lorategietan. • **Baratzeak, txorkoak eta lorategi komunitarioak** jartzea. • **Dibulgazio- eta informazio-**jarduerak: zuhaiztiek duten balioari buruzko sentsibilizazio-kanpainak egitea, eta inbentarioak eta zuhaiztien eta berdeguneen inguruan egin diren jarduera esanguratsuak udalaren web-orrialdean argitaratzea.
HIRIGINTZARAKO ETA BERDEGUNEETARAKO PROIEKTU BERRIAK	• **OBRA-KONTRATAZIORAKO** ohiko prozesuari jarraitu beharko zaio: lizitatzea, esleitzea, gauzatzea eta martxan jartzea. • **PROIEKTU TEKNIKOAN**, lekuaren ezaugarriak eta leku horrek izango duen erabilera hartuko dira kontuan.
LEHENDIK DAUDEN PARKEEN ETA BERDEGUNEEN KUDEAKETA	Hau barne hartzen du: 1. Eremuak **zaintzea eta egokitzea**. 2. Zainketa eta egokitzea udalaz kanpoko norbaitek egiten duenean, haren lana **kontrolatzea eta ikuskatzea**. 3. Parkeei, lorategiei eta zuhaiztiei eragiten dieten **obrak kontrolatzea.** **Zerbitzuak kudeatzeko** aurreikusita dauden moduetako edozein erabili ahal izango da. Hauek dira ohikoenak: 1. **Zuzeneko kudeaketa**, lorezaintza-brigadaren bitartez. 2. **Zerbitzuak kudeatzeko kontratua**.

ZUHAIZTIEN PLAN ZUZENTZAILEA	
DOKUMENTU-MULTZOA	A) Zuhaitzen **INBENTARIOA**, behar diren datu guztiak jasota, kudeaketa egokia egin ahal izateko. B) Zuhaitzek ekar ditzaketen **ARRISKUEN AZTERKETA**, inbentarioan oinarritutakoa. C) Zuhaitzak hainbat **KATEGORIATAN** sailkatzea: 1. Zuhaitzen **iraunkortasunari** dagokionez: 1.1. Toki-intereseko zuhaiztiak. 1.2. Bota behar ez diren zuhaitzak, baldin eta aldatzeko edo mozteko premia dagoela berariaz arrazoitzen ez bada. 1.3. Egitura-aldaketen ondorioz ebaki beharreko zuhaitzak, hainbat arrazoirengatik: 1.3.1. Etxebizitzetatik gertuegi egotea. 1.3.2. Egonkortasun-arazoak, sustraiak kaltetuta egoteagatik eta adaburuen desorekagatik. 1.3.3. Egoera fitosanitario txarra. 2. **Inausketei** dagokienez: 2.1. Inausi behar diren zuhaitzak, herritarrei enbarazurik ez egiteko (zuhaitzak etxeetatik gertuegi daudelako, etab.) edo beste arrazoi batzuk direla medio: formazio-inausketa, mantentze-lanak, egituraren segurtasuna, etab. 2.2. Osorik mantendu behar diren zuhaitzak, inausi gabe (garbiketa-inausketak izan ezik). D) **TXORKOEN** tratamendua. • Txorkoak tratatzeko **irizpideen** ezarpena (tratatzeko eta kudeatzeko aukera guztien azterketa eta balorazioa). E) **FITOSANITARIOEN** tratamendua. • Hainbat **irizpideren** ezarpena: tratamendua, ordutegiak, produktuak, etab.

Legeria: Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legea, 17.1.16 artikulua
TAOL, 25.2.b eta 26.1.b artikuluak

COMPETENCIA

El **apartado n.º 29 del art. 17.1 de la LILE** establece que los municipios podrán ejercer, en el marco de lo dispuesto en esta ley y en la legislación que sea de aplicación, competencias propias en el ámbito material referente a la **ordenación**, **gestión y vigilancia de las actividades y los usos que se llevan a cabo en las playas**, lagos y montes, sin perjuicio de las competencias de los territorios históricos en esta materia y la ordenación del **acceso a las playas y prestación del servicio de limpieza de estas**.

SERVICIOS

Corresponde al **Ayuntamiento** explotar los servicios que pueden establecerse en las playas empleando para ello **cualquiera de las formas de gestión** previstas en la normativa del régimen local.

La **instalación así como las características** de los mismos han de dar cumplimiento con lo dispuesto en la vigente **Ley de Costas**.

LIMPIEZA

Es igualmente **competencia del Ayuntamiento** mantener las playas y los locales públicos de baño en las debidas condiciones de limpieza, higiene y salubridad.

SEGURIDAD

El Ayuntamiento ha de vigilar el cumplimiento de las **normas e instrucciones** existentes en materia de **salvamento y seguridad** de vidas humanas.

OCUPACIÓN Y APROVECHAMIENTO DEL DOMINIO PÚBLICO MARÍTIMO-TERRESTRE

El Ayuntamiento ha de **informar** sobre las solicitudes de autorización y concesión para la **ocupación y aprovechamiento del dominio público marítimo-terrestre**.

CONTROL SANITARIO DE LAS ZONAS DE BAÑO

El **Departamento de Salud** del Gobierno Vasco realiza la vigilancia sanitaria de las zonas de baño, tanto costeras como continentales.

Estas zonas se clasifican anualmente como excelente/buena/suficiente/insuficiente, en función de los resultados analíticos de los últimos cuatro años.

Si los resultados indican que el agua no alcanza a tener una calidad suficiente se emite la recomendación de no bañarse.

Asimismo, se valora el estado del entorno de la playa en cuanto a servicios, limpieza, etc., calificándose como buena, mejorable o mala.

Legislación:
Ley 2/2016, de Instituciones Locales de Euskadi, art. 17.1.29
Ley 22/88 de Costas
Real Decreto 1/89 de Costas modificado por el Real Decreto 1112/92 de 18 de septiembre
Real Decreto 1771/94, de 5 de agosto, de adaptación a la Ley 30/92
Directiva 2006/7 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 15 de febrero de 2006, relativa a la gestión de la calidad de las aguas de baño
Real Decreto 1341/2007, de 11 de octubre, sobre la gestión de la calidad de las aguas de baño

ESKUMENAK

ETELek, 17.1 artikuluaren 29. atalean, xedatzen du udalek, lege horretan xedatutakoa eta aplikatu beharreko legerian jasotakoa beteta, berezko eskumenak baliatu ahal izango dituztela honako esparru material hauei dagokienez: **hondartza, laku eta mendietan egiten diren jarduerak eta erabilerak antolatzea, kudeatzea eta zaintzea**, arlo horretan lurralde historikoek dituzten eskumenak eragotzi gabe, eta **hondartzetarako sarbideak antolatzea eta haien garbiketa-zerbitzua ematea**.

ZERBITZUAK

Udalari dagokio hondartzetako zerbitzuak ustiatzea. Toki-administrazioaren araubidea ezartzen duen araudian jasotako **kudeaketa-moduetako edozein** erabili ahal izango du horretarako.

Zerbitzuok **ezartzerakoan eta haien ezaugarriak hautatzerakoan**, **Itsasertzaren Legeak** xedatutakoa bete beharko da.

GARBITASUNA

Udalaren eskumena da hondartzak eta bainurako toki publikoak garbi edukitzea eta haien higiene- eta osasun-egoera zaintzea.

SEGURTASUNA

Udalak, bestalde, gizakien **salbamendu eta segurtasunerako jarraibideak eta arauak** betetzen direla zaindu behar du.

ITSAS LEHORREKO JABARI PUBLIKOA OKUPATZEA ETA ETEKINA

Udalak **txostena egin** beharko du **Itsas lehorreko jabari publikoa okupatzeko eta hari etekina ateratzeko** baimen- eta kontzesio-eskaerei buruz.

BAINU-EREMUEN OSASUN-KONTROLA

Eusko Jaurlaritzako **Osasun Sailak** kostaldeko eta kontinenteko bainu-eremuen osasun-zaintza egiten du.

Eremu horiek urtero honela sailkatzen dira: bikaina/ona/nahikoa/eskasa, azken lau urteetako emaitza analitikoen arabera.

Emaitzek adierazten badute urak ez duela kalitate nahikorik, ez bainatzeko gomendioa ematen da.

Era berean, hondartzaren inguruaren egoera baloratzen da, zerbitzuei, garbiketari eta abarri dagokienez, eta ontzat, hobegarritzat edo txartzat jotzen da.

Legeria:

Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legea, 17.1.29 artikulua
22/88 Legea, itsasertzari buruzkoa
1/89 Errege Dekretua, itsasertzei buruzkoa, irailaren 18ko 1112/92 Errege Dekretuak aldatua
1771/94 Errege Dekretua, abuztuaren 5ekoa, 30/92 Legeari egokitzekoa
Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006/7 Zuzentaraua, 2006ko otsailaren 15ekoa, bainatzeko uren kalitatearen kudeaketari buruzkoa
1341/2007 Errege Dekretua, urriaren 11koa, bainatzeko uren kalitatearen kudeaketari buruzkoa

XXIV.

TURISMOA

TURISMO

XXIV.

Turismo

1. Marco jurídico y competencias.
2. Políticas turísticas generales.
3. Modelos de gestión y empresas.

Guía Local - ISBN 978-84-7777-690-1

XXIV.

Turismoa

1. Esparru juridikoa eta eskumenak.
2. Turismo-politika orokorrak.
3. Kudeaketa-ereduak eta enpresak.

MARCO JURÍDICO Y COMPETENCIAS		
ESTATUTO DE AUTONOMÍA (artículo 10.36)		• La CAE tiene **COMPETENCIA EXCLUSIVA en**: **TURISMO** y deporte. Ocio y esparcimiento.
LEY 2/2016, DE INSTITUCIONES LOCALES DE EUSKADI (artículo 17.1, apartado 22)		• Los municipios podrán ejercer **COMPETENCIAS PROPIAS** en el ámbito material referente a la gestión y promoción del **turismo local**, en el marco de lo dispuesto en esta ley y en la legislación que sea de aplicación.
LEY DE BASES DE RÉGIMEN LOCAL (artículo 25)		• **El municipio**, para la gestión de sus intereses en el ámbito de sus competencias, puede **promover toda clase de actividades** y prestar cuantos servicios públicos contribuyan a satisfacer las necesidades de la comunidad vecinal. • El municipio **ejercerá, en todo caso, competencias** en los términos de la legislación del Estado y de las Comunidades Autónomas en **TURISMO** (art. 25.2 h).
LEY 13/2016, DE TURISMO DEL PAÍS VASCO	**OBJETO, DEFINICIONES Y FINES (TÍTULO I)**	• **Objeto** de la ley: la regulación y ordenación de la actividad turística, el establecimiento de los criterios de la disciplina turística y la determinación de los criterios de actuación de las Administraciones Turísticas (entre las que encontramos la local). • En el artículo 2 aparecen **conceptos turísticos** que nos permiten aclarar los grandes contenidos sobre los que versa la ley. **Definición** de términos como: turismo, actividad turística, sector turístico, servicios turísticos, empresa turística, establecimiento turístico, personas usuarias turísticas, profesiones turísticas, oferta turística y canales turísticos. Todos ellos términos propios de las actuaciones públicas en materia de turismo. • **Fin** de la ley: coordinar las actuaciones de las Administraciones Turísticas, prestando especial atención a las relacionadas con la administración local.
	PAPEL DE LA ADMINISTRACIÓN TURÍSTICA (TÍTULO II)	• **Define** la política turística; contempla la coordinación entre Administraciones y regula sus competencias; y describe los órganos consultivos en la materia (Mesa de Turismo). • La política turística se desarrolla en cuatro grandes ámbitos de actuación: **promoción, desarrollo, información y formación.**
	RECURSOS TURÍSTICOS (TÍTULO III)	• Determina la manera en que la Administración turística de Euskadi se ocupará **de inventariar y ordenar** los recursos turísticos. El art. 11 prevé la elaboración de un **mapa turístico** del País Vasco, donde se haga constar los diferentes destinos turísticos; establece tres **criterios** en base a los cuales determinar la consideración de destino turístico: componente territorial, modelos de gestión y concertación, y demanda turística. • Prevé diferentes **documentos planificadores**: Inventario de Recursos Turísticos del País Vasco, Plan Territorial Sectorial de Turismo y Planes directores de Destinos Turísticos.
	PERSONAS USUARIAS (TÍTULO IV)	• Establece los **derechos y deberes** de las personas usuarias turísticas.
	ACTIVIDAD TURÍSTICA (TÍTULO V)	• Establece el **Registro de Empresas y Actividades Turísticas**; **clasifica** las empresas turísticas y define, con carácter general, cada una de sus modalidades, las cuales se regularán en decretos sucesivos. Entre otras cuestiones: → Define las **empresas de alojamiento** como establecimientos hoteleros, apartamentos turísticos, campings, agroturismos y casa rurales, albergues y otros. Regula dos nuevas modalidades: viviendas para uso turístico y habitaciones en viviendas particulares para uso turístico. → Dentro de las **empresas de mediación** incluye agencias de viajes, centrales de reservas y operadores. → Determina las **profesiones turísticas**, entre las que se citan expresamente los guías. → Recoge los conceptos principales de **acampada libre y áreas especiales de acogida para autocaravanas.** Tiene especial importancia puesto que, en muchas ocasiones, las administraciones locales son promotoras de este tipo de infraestructuras.
	EMPRESAS O ESTABLECIMIENTOS QUE REALIZAN ACTIVIDADES DE INTERÉS TURÍSTICO (TÍTULO VI)	• Recoge las actividades que contribuyen a **dinamizar el turismo y la estancia de los turistas**. Son de importancia en el ámbito local puesto que son empresas frecuentes en la relación y cooperación con el sector turístico local.
REGULACIÓN DE ÓRGANOS CONSULTIVOS		**MESA DE TURISMO DE EUSKADI: Decreto 5/2015**, de 27 de enero, por el que se crea la Mesa de Turismo de Euskadi. (Modificación de este órgano de carácter consultivo, en trámite).
RED DE OFICINAS DE TURISMO		**OFICINAS DE INFORMACIÓN TURÍSTICA MUNICIPALES: Decreto 279/2003**, de 18 noviembre, por el que se crea la Red Vasca de Oficinas de Turismo-ITOURBASK. **RESOLUCIÓN 12/2013, de 21 de mayo, de segunda modificación del modelo de convenio** para la adhesión a la Red vasca de Oficinas de turismo.
REGULACIÓN DE LOS DERECHOS Y OBLIGACIONES DE PERSONAS USUARIAS TURÍSTICAS		**DECRETO 142/2014**, de 1 de julio, del procedimiento de **atención de quejas, reclamaciones y denuncias de las personas consumidoras y usuarias**.

DECRETOS DE DESARROLLO DE LA LEY	
REGULACIÓN DE LA ACTIVIDAD DE EMPRESAS Y ESTABLECIMIENTOS TURÍSTICOS EN LA CAE	• **HOTELES: Decreto 102/2001,** de 29 de mayo, por el que se establece la ordenación de los establecimientos hoteleros (textos consolidados).
	• **CAMPINGS Y OTRAS MODALIDADES DE ACAMPADA: Decreto 396/2013**, de 30 de julio, de ordenación de los campings y otras modalidades de acampada en la CAPV.
	• **ALOJAMIENTOS EN EL MEDIO RURAL: Decreto 199/2013**, de 16 de abril, por el que se regulan los establecimientos de alojamiento turístico en el medio rural.
	• **APARTAMENTOS TURÍSTICOS: Decreto 198/2013**, de 16 de abril, por el que se regulan los apartamentos turísticos.
	• **ALBERGUES TURÍSTICOS: Decreto 200/2013**, de 9 de julio, de ordenación de los albergues turísticos.
	• **VIVIENDAS TURÍSTICAS VACACIONALES Y HABITACIONES DE VIVIENDAS PARTICULARES: Decreto 101/2018**, de 3 de julio, de viviendas y habitaciones de viviendas particulares para uso turístico.
	• **AGENCIAS DE VIAJES: Decreto 81/2012**, de 22 de mayo, de agencias de viajes. Modificado por el Decreto 97/2022 de 26 de julio.
	• **EMPRESAS Y ACTIVIDADES TURÍSTICAS: Decreto 112/2019**, de 16 de julio, de registro de empresas y actividades turísticas de Euskadi.

ESPARRU JURIDIKOA ETA ESKUMENAK		
AUTONOMIA-ESTATUTUA (10.36. artikulua)		• EAEk **ESKUMEN ESKLUSIBOA** du honako gai hauetan: **TURISMOA** eta kirolak. Aisia eta olgeta.
2/2016 LEGEA, EUSKADIKO TOKI ERAKUNDEEI BURUZKOA (17.1. artikulua, 22. apartatua)		• Udalerriek **ESKUMEN PROPIOAK** erabili ahal izango dituzte **tokiko turismoa** sustatzeko eta kudeatzeko esparru materialean, lege honetan eta aplikatu beharreko legerian xedatutakoaren esparruan.
TOKI ARAUBIDEAREN OINARRIEN LEGEA (25. artikulua)		• **Udalerriak**, bere interesak kudeatzeko eta bere eskumenen esparruan, auzo-komunitatearen beharrak betetzen lagundu dezaketen **jarduera mota guztiak bultzatu** eta nahi adina zerbitzu publiko egin ditzake. • Udalerriak, **beti**, Estatuko eta autonomia-erkidegoetako legerian ezarritako moduan, **TURISMO arloko eskumenak beteko ditu** (25.2.h art.).
13/2016 LEGEA, EAE-KO TURISMOARENA	**XEDEA, DEFINIZIOAK ETA HELBURUAK** **(I. TITULUA)**	• Legearen **xedea**: turismo-jarduera arautzea eta antolatzea, turismo-diziplinaren irizpideak finkatzea, eta ezartzea zer irizpideren arabera jardun behar duten turismo-administrazioek (horien artean, tokiko administrazioak). • 2. artikuluan, **turismo-arloko kontzeptuak** agertzen dira, legean jasotzen diren eduki handi nagusiak zein diren argitzen diguten horiek. Termino hauen **definizioa**: turismoa, turismo-jarduera, turismo-sektorea, zerbitzu turistikoak, turismo-enpresa, establezimendu turistikoa, turismo-erabiltzaileak, turismo-profesionalak, turismo-eskaintza eta turismo-eskaintzen kanalak. Horiek guztiak turismo-arloko jarduketa publikoen terminoak dira. • Legearen **helburua**: administrazioek turismo-arloan egiten dituzten jarduketak kudeatzea, toki-administrazioari lotutakoei arreta berezia jarriz.
	TURISMO-ADMINISTRAZIOAREN EGITEKOA **(II. TITULUA)**	• Turismo-politika **definitzen** du; administrazioen arteko koordinazioa aurreikusten du, eta bakoitzaren eskumenak arautzen ditu; eta turismo-arloko organo aholku-emaileak deskribatzen ditu (Turismo Mahaia). • Turismo-politika lau jarduketa-esparru handitan garatzen da: **sustapena, garapena, informazioa eta prestakuntza.**
	TURISMO-BALIABIDEAK **(III. TITULUA)**	• Ezartzen du Euskadiko Turismo Administrazioa nola arduratuko den baliabide turistikoen **inbentarioa egin eta haiek antolatzeaz**. 11. artikuluan ezartzen denez, Euskadiko **mapa turistiko** bat egingo da, helmuga turistiko askotarikoak jasoz; hiru **irizpide** hauen arabera erabakiko da helmuga turistikotzat hartzea: lurralde-osagaia, kudeaketa- eta hitzarmen-ereduak eta eskari turistikoa. • Zenbait **plangintza-agiri** aurreikusten ditu: Euskadiko Baliabide Turistikoen Inbentarioa, Turismoko Lurralde Plan Sektoriala eta helmuga turistikoen plan zuzentzaileak.
	ERABILTZAILEAK **(IV. TITULUA)**	• Turismo-erabiltzaileen **eskubideak eta betebeharrak** ezartzen ditu.
	TURISMO-JARDUERA **(V. TITULUA)**	• **Euskadiko Turismo Enpresen eta Jardueren Erregistroa** ezartzen du; turismo-enpresak **sailkatzen ditu**, eta bakoitzaren modalitateak definitzen ditu oro har, geroko dekretuen bidez arautuko baitira. Beste gai batzuen artean: → **Ostatu-enpresak** definitzen ditu, hotel-establezimendu, apartamentu turistiko, kanpin, nekazaritza-turismoko establezimendu eta landetxe, aterpetxe eta bestelako gisa. Bi modalitate berri arautzen ditu: erabilera turistikoko etxebizitzak eta erabilera turistikoko etxebizitza partikularretako gelak. → **Bitartekaritza-enpresen barruan sartzen ditu erreserba-zentroak eta operadoreak.** → **Turismo-arloko lanbideak** zehazten ditu, eta horien artean espresuki aipatzen ditu turismo-gidariak. → **Kanpaldi librea eta autokarabanen harrera eremu berezien kontzeptu nagusiak** biltzen ditu. Garrantzi berezia du, askotan toki-administrazioak baitira horrelako azpiegituren sustatzaileak.
	TURISMO INTERESEKO JARDUERAK EGITEN DITUZTEN ENPRESAK EDO ESTABLEZIMENDUAK **(VI. TITULUA)**	• **Turismoa eta turisten egonaldia dinamizatzen** laguntzen duten jarduerak biltzen ditu. Tokiko eremuan garrantzitsuak dira, ohiko enpresak baitira tokiko turismo-sektorearekin harremanetan eta lankidetzan.
ORGANO AHOLKU-EMAILEEN ERREGULAZIOA		**EUSKADIKO TURISMO-MAHAIA: 5/2015 Dekretua**, urtarrilaren 27koa, Euskadiko Turismo Mahaia sortzen duena (Organo aholku-emaile honen aldaketa, izapidetzen).
TURISMO-BULEGOEN SAREA		**UDALEKO TURISMO-BULEGOAK 279/2003 Dekretua,** azaroaren 18koa, Turismo Bulegoen Euskal Sarea (ITOURBASK) sortzen duena. **12/2013 EBAZPENA**, maiatzaren 21ekoa, Turismo Bulegoen Euskal Sareari atxikitzeko **hitzarmenaren eredua bigarrenez aldatzen duena.**
TURISMO-ERABILTZAILEEN ESKUBIDE ETA BETEBEHARREN ERREGULAZIOA		**142/2014 DEKRETUA,** uztailaren 1ekoa, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen **kexa, erreklamazio eta salaketei erantzuteko prozedurari buruzkoa**.

LEGEA GARATZEN DUTEN DEKRETUAK	
TURISMO-ARLOKO ENPRESEN ETA ESTABLEZIMENDUEN JARDUERAREN ERREGULAZIOA EAEn	• **HOTELAK: 102/2001 Dekretua**, maiatzaren 29koa, hotel-establezimenduen antolaketa ezartzen duena (testu kontsolidatuak).
	• **KANPINAK ETA KANPATZEKO BESTE MODALITATE BATZUK: 396/2013 Dekretua**, uztailaren 30ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoan kanpinak eta beste kanpaketa-turismoko modalitate batzuk arautzen dituena.
	• **LANDA-INGURUNEKO OSTATUAK: 199/2013 Dekretua**, apirilaren 16koa, landa-inguruneko turismo-ostatuko establezimenduak arautzen dituena.
	• **APARTAMENTU TURISTIKOAK: 198/2013 Dekretua**, apirilaren 16koa, apartamentu turistikoak arautzen dituena**.**
	• **TURISMO-ATERPETXEAK: 200/2013 Dekretua**, uztailaren 9koa, turismo-aterpetxeak antolatzen dituena.
	• **OPORRETAKO ETXEBIZITZA TURISTIKOAK ETA ETXEBIZITZA PARTIKULARRETAKO LOGELAK: 101/2018 Dekretua**, uztailaren 3koa, erabilera turistikoko etxebizitzei eta etxebizitza partikularretako logelei buruzkoa.
	• **BIDAIA-AGENTZIAK: 81/2012 Dekretua**, maiatzaren 22koa, bidaia-agentziei buruzkoa. Uztailaren 26ko 97/2022 Dekretuak aldatutakoa.
	• **TURISMO ENPRESAK ETA JARDUERAK: 112/2019 Dekretua**, uztailaren 16koa, Euskadiko Turismo Enpresen eta Jardueren Erregistroari buruzkoa.

POLÍTICAS TURÍSTICAS GENERALES	
Funciones y políticas para el DESARROLLO DE LA OFERTA TURÍSTICA DE UN MUNICIPIO	• Las líneas de acción política en materia de turismo en el ámbito local, se enmarcan, fundamentalmente, dentro del desarrollo económico y la creación de riqueza y empleo desde una gestión del destino turístico local. En numerosas ocasiones también se abordan desde el ámbito de desarrollo rural, comarcal o territorial. • Desarrollo, promoción e información son los tres ejes de actuación de las políticas turísticas en el ámbito local, que podemos desarrollar con planes, programas y acciones para: → **Inversión pública** para que esos recursos del municipio se estructuren para el uso y disfrute turístico y se conviertan en recursos sobre los que se puede realizar una o varias actividades (visitar, asistir, participar, comprar, comer, dormir…). → **Apoyo a la inversión privada**: subvenciones para la modernización, innovación o mejora de la competitividad de dichas empresas. Las subvenciones pueden ser a fondo perdido y ayudas financieras (según los tipos de municipio o actividad empresarial). → **Políticas de impulso de la calidad y la innovación** que pueden dirigirse a la implantación de sistemas de calidad certificada del servicio, bien de las empresas turísticas, o bien de los destinos. → **Medidas de mejora de la competitividad empresarial** que van dirigidas a la mejora de la profesionalidad del personal técnico que atiende al turismo (formación, implantación de nuevas tecnologías, mejora de la gestión…). → **Información turística**: a través de oficinas o puntos de información turística que prestan atención a las personas turistas en destino, ofreciéndoles información y asesoramiento sobre el municipio, el Territorio Histórico y la Comunidad Autónoma. → **Apoyo al desarrollo de nuevos productos turísticos** con el objetivo de ganar nuevas demandas y nuevos mercados.
Funciones y políticas para ATRAER DEMANDA TURÍSTICA (CLIENTES) AL MUNICIPIO	El **OBJETIVO CENTRAL** de estas políticas es **atraer visitantes hacia el municipio:** • **Turistas**: aquellas personas que se desplazan de su entorno habitual y pernoctan en el municipio de llegada. • **Excursionistas:** aquellas personas que se desplazan de su entorno habitual y no pernoctan en el municipio. • **Visitantes:** la suma de los dos anteriores = TURISTAS + EXCURSIONISTAS.
	Para su desarrollo, los municipios ponen en marcha **PLANES DE MARKETING DE DESTINO:** • **Análisis de la demanda y las tendencias turísticas** para seleccionar los mercados emisores y las estrategias para dirigirse a ellos (elaboración de estadísticas e informes). • **Acciones de promoción de todo tipo:** asistencia a ferias especializadas, jornadas de promoción, workshops con profesionales del sector de otros mercados y viajes de familiarización con el destino (bien para prensa turística, bien para turoperadores). • **Acciones de publicidad o notoriedad,** mediante campañas de medios (incluidos los digitales). Seleccionando, en cada caso, los contenidos más adecuados, y, siempre, incluyendo la oferta de los agentes privados, que son los verdaderos comercializadores de la oferta turística local. • **Acciones de apoyo a la comercialización**, apoyando a las empresas turísticas del municipio. • **Convention Bureau:** son las áreas encargadas de promocionar la ciudad/territorio como destino de turismo de MICE (MEETINGS, Incentives, Congress and Exhibitions). Es decir, el municipio como destino para la realización de reuniones, congresos, ferias e incentivos. • **Acciones de marketing digital.** • **Acciones de información turística,** como estrategia de promoción en destino, cuando el turista se encuentra en el municipio. El llamado MARKETING DE PROXIMIDAD, tarea esencial del ámbito local.
Planes de TURISMO DE LA CAE (en vigor)	• Estrategia de Turismo Vasco 2030. • Plan de Marketing al Sector Turístico Vasco. • Plan Estratégico de Turismo de Gipuzkoa 2020-2024. • Plan de Turismo de Donostia-San Sebastián 2017-2021. Visit-Bizi. • «Estrategia de Turismo Bilbao-Bizkaia 2030. Cooperación, Digitalización y Sostenibilidad».
PLANES DE LOS FONDOS NEXT DE INTERÉS PARA EUSKADI	• Plan Turístico Nacional de Enogastronomía 2022. • Plan Territorial de sostenibilidad Turística en Destinos del País Vasco 2022.

PRINCIPIOS

PRINCIPIO DE COORDINACIÓN:

Entre departamentos, administraciones públicas y sector privado.

PRINCIPIO DE SUBSIDIARIEDAD:

Reconocimiento de la autonomía de cada parte para establecer sus objetivos, diseñar estrategias, y participar en la ejecución y en la evaluación.

TURISMO-POLITIKA OROKORRAK	
Eginkizunak eta politikak **UDALERRI BATEN TURISMO-ESKAINTZA GARATZEKO**	• Toki-esparruan turismo-arloko ekintza politikoen ildoak, batik bat, garapen ekonomikoaren barruan kokatzen dira: aberastasuna eta enplegua sortzea, tokiko helmuga turistikoa kudeatuz. Askotan, landa-, eskualde- edo lurralde-garapenaren eremutik ere lantzen dira. • Garapena, sustapena eta informazioa. Horiek dira toki-esparruko turismo-politiken hiru jarduketa-ardatzak, eta honelako planen, programen eta ekintzen bidez garatu daitezke: → **Inbertsio publikoa**, udalerriaren baliabide horiek turismo-erabilerarako eta -gozamenerako egituratu daitezen, eta baliabide berezi bihur daitezen, haien gainean jarduera bat edo batzuk egin ahal izateko: bisitatu, etorri, parte hartu, erosi, jan, lo egin... → **Inbertsio pribatuarentzako laguntza**: enpresa horien modernizazioa, berrikuntza eta lehiakortasuna bultzatzeko dirulaguntzak. Dirulaguntza horiek funts galdurakoak eta finantza-laguntzak izan daitezke (udalerri motaren edo enpresa-jardueraren arabera). → **Kalitatea eta berrikuntza bultzatzeko politikak,** zerbitzuaren kalitate ziurtatuko sistemak ezartzera bideratu daitezkeenak, dela turismo-enpresetan, dela helmuga turistikoetan. → **Enpresa-lehiakortasuna hobetzeko neurriak,** turistak artatzen dituzten teknikarien profesionaltasuna hobetzera zuzendutakoak (prestakuntza, teknologia berrien ezarpena, kudeaketaren hobekuntza...). → **Turismo-informazioa**: helmuga turistikoan bertan turistei arreta eskaintzen dieten turismo-informazioko bulego edo guneen bidez, udalerriari, lurralde historikoari eta autonomia-erkidegoari buruzko informazioa eta aholkularitza eskainiz turista horiei. → **Turismo-produktu berriak garatzeko laguntza,** eskari eta merkatu berriak lortzeko helburuarekin.
Eginkizunak eta politikak **UDALERRIRA TURISMO-ESKARIA (BEZEROAK) ERAKARTZEKO**	Politika horien **HELBURU NAGUSIA** da **bisitariak udalerrira erakartzea:** • **Turistak**: beren ohiko ingurunetik mugitzen direnak eta helmugako udalerrian gaua igarotzen dutenak. • **Txangolariak:** beren ohiko ingurunetik mugitzen direnak eta udalerrian gaurik igarotzen ez dutenak. • **Bisitariak:** aurreko guztiak batera = TURISTAK + TXANGOLARIAK. Turismoa garatzeko, udalerriek **HELMUGAKO MARKETIN-PLANAK** jartzen dituzte abian: • Merkatu turista-igorleak eta haietara zuzentzeko estrategiak hautatzeko **turismo-eskariaren eta -joeren azterketa** (estatistikak eta txostenak prestatzea). • **Era guztietako sustapen-ekintzak:** azoka espezializatuetara joatea, sustapeneko jardunaldiak, lan-saioak beste merkatu batzuetako sektoreko profesionalekin eta helmuga ezagutarazteko bidaiak (direla turismo-prentsarako, direla bidaia-antolatzaileentzat). • **Publizitate- edo ezagutarazte-ekintzak,** hedabideetan egindako kanpainen bitartez (digitalak barne). Kasu bakoitzean, edukirik egokienak hautatuz, eta, betiere, eragile pribatuen eskaintza erantsiz, haiek baitira tokiko turismo-eskaintzaren benetako merkaturatzaileak. • **Merkaturatzeari laguntzeko ekintzak,** udalerriko turismo-enpresei lagunduz. • **Convention Bureau:** MICEko (MEETINGS, Incentives, Congress and Exhibitions) helmuga turistiko gisa hiria sustatzeaz arduratzen diren arloak dira. Hau da, udalerria bilerak, batzarrak, azokak eta pizgarriak egiteko helmuga gisa. • **Marketin digitaleko ekintzak.** • **Turismo-informazioa emateko ekintzak,** sustapen-estrategiak helmugan, turista udalerrian dagoenean. HURBILEKO MARKETINA deritzona, tokiko eremuaren funtsezko zeregina.
DETERMINACIÓN DE LA ASOCIACIÓN DE MUNICIPIOS DE MAYOR IMPLANTACIÓN EN LA CAE	• **Tras** la celebración de cada **proceso electoral municipal.** • Mediante **orden** de la consejera o consejero del Gobierno Vasco que tenga atribuida la competencia en materia de régimen local. • **En atención al número de municipios y a la población** que estos representan en el conjunto de la CAE.
	EUDEL
	• La **Orden de 26 de mayo de 2016 designa a Euskadiko Udalen Elkartea-Asociación de Municipios Vascos** asociación de municipios de mayor implantación en el ámbito territorial de la CAE (en cumplimiento de lo dispuesto por la Ley de Instituciones Locales de Euskadi, que preveía dicha designación en un periodo de tres meses desde su entrada en vigor). • Propone el nombramiento, para su designación por el/la Lehendakari, de los representantes municipales en el Consejo Vasco de Políticas Públicas, la Comisión de Gobiernos Locales, el Consejo Vasco de Finanzas Públicas y el Órgano de Coordinación Tributaria.
DECLARACIÓN DE UTILIDAD PÚBLICA	La LILE declara de utilidad pública a todas las asociaciones de municipios, de otras entidades locales o de personas electas cuyo ámbito de actuación se desarrolle principalmente en la CAE.

Legislación: Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi, Disposición Adicional Tercera
Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases del Régimen Local, Disposición Adicional Quinta

Toki-erakundeek **FEDERAZIOAK EDO ELKARTEAK ERATU AHAL IZANGO DITUZTE**, interes erkideak elkarrekin babestu eta sustatzeko. Bere araudi espezifikoa aplikatuko zaie eta araudi horretan aurreikusten ez den guztian, Elkarteen aloreko Estatuko legeria.

AHALMENAK (ETEL, 3. X.G.)	Federazioek eta elkarteek: • Beren eginkizunen esparruan, **hitzarmenak egin ditzakete edozein administrazio publikorekin**, eta autonomia-erkidegoko eta foru-aldundietako administrazioen **erakunde laguntzaile gisa jardun**, toki-erakundeek eta haien mendeko erakundeek jasotzen dituzten **DIRULAGUNTZEN** kudeaketan. • **Udalekin hitzarmenak** formalizatu ahal izango dituzte **UDAL-ZERBITZUAK EMATEKO** helburuarekin (baldin eta administrazio-ahalak baliatzea ez badakar). • **UDAL-SAREAK ERATU** ahal izango dituzte, eta haietara bildu. • Autonomia-erkidegoko edo foru-aldundietako **KONTRATAZIO-SISTEMA ZENTRALIZATUARI** atxiki ahal izango zaizkio toki-erakundeen baldintza beretan. • **KONTRATAZIO ZENTRALAK** sortu ahal izango dituzte, eta horiei atxiki ahal izango zaizkie elkartutako erakundeak, haiek kontratatutako zerbitzu, hornidura eta obretarako. • Udalerrietako eta gainerako toki-erakundeetako enplegatu publikoen **NEGOZIAZIO KOLEKTIBORAKO** legitimazioa daukate. Udalerriak, negoziazioaren ondoren ere, udalerrien elkarteak egindako negoziazio kolektibora eta horren ondoriozko erabakietara atxiki ahal izango dira.
EAE-N EZARPEN HANDIENA DUEN UDAL-ELKARTEAREN ZEHAZTAPENA	• **Udaleko hauteskunde-prozesu bakoitza** egin **ondoren**. • Eusko Jaurlaritzaren barruan toki-araubidearen arloko eskumena duen sailburuaren **aginduz** egingo da. • Horiek EAEn ordezkatzen dituzten **biztanleak eta udalerri kopurua** kontuan hartuta.
	EUDEL
	• **2016ko maiatzaren 26ko Aginduaren bidez, Eudel-Euskadiko Udalen Elkartea** izendatu zen Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde-eremuan ezarpen handiena duen udalerri-elkarte gisa (Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legean xedatutako betez, zeinak izendapen hori aurreikusten baitzuen, indarrean sartu eta hiru hilabeteko aldian). • Tokiko Politika Publikoen Euskal Kontseiluan, Tokiko Gobernuen Batzordean, Finantza Publikoen Eusko Kontseiluan eta Zerga Koordinaziorako Organoan udal-ordezkari izango direnak aukeratzea proposatzen du, lehendakariak izenda ditzan.
ONURA PUBLIKOKO DEKLARATZEA	ETELek udalerri-elkarte guztiak, beste toki-erakunde batzuk edo hautetsiak onura publikokotzat jotzen ditu, baldin eta jarduera-eremua nagusiki EAEn badute.

Legeria: 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa, Hirugarren Xedapen Gehigarria
7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituena, Bosgarren Xedapen Gehigarria

HERRAMIENTA DE DESARROLLO Y COOPERACIÓN ENTRE PUEBLOS DIFERENTES

El hermanamiento es un **ENCUENTRO FORMALIZADO Y CON VOCACIÓN DE ESTABILIDAD ENTRE MUNICIPIOS que deciden hacer pública su unión** para **actuar** dentro de una perspectiva determinada, **contrastar sus problemas** y desarrollar entre ellos unos **lazos de amistad** cada vez más estrechos.

Entre los municipios hermanados, normalmente existen
SÓLIDOS VÍNCULOS HISTÓRICOS,
así como la **RECÍPROCA VOLUNTAD DE CREAR LAZOS** que faciliten una relación equilibrada.

DEFINICIÓN	• **Hermanar:** juntar, hacer compartible y armónica una cosa con otra, reunirlas o tenerlas juntas. • **Hermanamiento:** vínculo entre dos ciudades con alguna base semejante. → El hermanamiento supone un **compromiso público** entre dos municipios, comarcas o territorios, del mismo estado o de estados diferentes, que se comprometen a **actuar juntos** desde una perspectiva concreta. Supone una **relación flexible** en cuanto puede comprender gran número de actividades e involucrar a gran número de personas. Asimismo, la intención es crear una **relación duradera y de confianza** entre los municipios por encima de las vicisitudes políticas. → Un buen hermanamiento puede ser **muy beneficioso:** ⇒ **Para los municipios**, ya que permite compartir problemas y soluciones, intercambiar experiencias y descubrir diferentes puntos de vista sobre cuestiones de interés común. ⇒ **Para la ciudadanía** de cada municipio, al dar la oportunidad de conocer otras realidades y formas de pensar. → Para que un hermanamiento sea **exitoso** se requiere un **compromiso** tanto de las autoridades políticas como de la ciudadanía de las localidades (asociaciones). En este sentido, la creación de un **comité de hermanamiento** puede ser una herramienta eficaz para lograr el éxito del hermanamiento.
OBJETIVOS	• **Apertura** de los municipios al exterior y mantenimiento del **contacto** con ciudades de otros países; no sólo en Europa, sino también con municipios de otros continentes. • Establecimiento de una **herramienta de apoyo mutuo** en momentos de dificultad, de **promoción de la paz** y **comprensión** entre pueblos, de **desarrollo y modernización** de la zona.
TIPOS MÁS HABITUALES	• **Hermanamientos de Intercambio**, que abarcan acciones de todo tipo. • **Hermanamientos de Cooperación al Desarrollo**: suponen una ayuda (financiera, logística…) de un municipio vasco hacia una entidad de otro país.
FINANCIACIÓN	• A cargo de las propias **entidades hermanadas**. • Posibilidad de acceso a **programas de subvención de diversas entidades** (Unión Europea, Gobierno Vasco, Diputaciones Forales, entidades privadas…), mediante la participación en las convocatorias que se arbitren. • **Patrocinios público-privados**, en función de los ámbitos de actuación.

PROCEDIMIENTO

- No está regulado expresamente por el ordenamiento vigente, por lo que **cada Ayuntamiento puede concretarlo.**
- No obstante, el procedimiento habitual suele ser el siguiente:

ACUERDO DEL PLENO municipal de iniciar los trámites de hermanamiento

↓

Contactos entre las entidades interesadas en el hermanamiento
FIJACIÓN DE OBJETIVOS Y ÁMBITOS DEL HERMANAMIENTO

↓

APROBACIÓN POR EL PLENO

y

FORMALIZACIÓN DE ACUERDOS entre las entidades sujeto del hermanamiento

↓

APROBACIÓN de los programas de acción derivados del hermanamiento

Guía Local - ISBN 978-84-7777-690-1

HERRIEN ARTEKO GARAPENERAKO ETA LANKIDETZARAKO TRESNA
Senidetzea udalerrien artean erabiltzen da. **BATERA EGITEKO MODU FORMALIZATU BAT DA, EGONKORTASUN-GOGOZ BULTZATUA. Bat egiten dute —eta hala egin dutela jakinaraztea erabaki—** ikuspuntu jakin baten arabera **jarduteko**, **arazoak elkarrekin aztertzeko**, eta **lagun arteko** geroz eta **lotura** estuagoak josteko.

Udalerri senidetuen artean, normalean, **LOTURA HISTORIKO SENDOAK EGOTEN DIRA**, ETA **ELKARREN ARTEAN TOPALEKU BATZUK SORTZEKO ASMOA** izaten dute, harreman orekatua edukitze aldera.	
DEFINIZIOA	• **Senidetzea:** elkartzea, gauza bat eta bestea bateragarriak eta harmoniatsuak egitea, bateratzea edo batera edukitzea. • **Hiriak senidetzea:** antzeko oinarriren bat daukaten bi hiriren arteko lotura. → Senidetzea **konpromiso publiko bat** da; bi udalerri, eskualde edo lurralde artean hartzen da —izan daitezke estatu berekoak edo ez—, eta hitza ematen dute ikuspuntu jakin batetik **elkarrekin** jardungo dutela. Izatez, harremana **malgua** da, asko baitira horrela landu daitezkeen jarduerak eta asko baitira bide horretan jardun dezaketen pertsonak ere. Asmoa izaten da gorabehera politikoez haraindi udalerrien artean **harreman iraunkor eta konfiantzazko bat** sortzea. → Senidetzea, ondo egiten bada, **oso mesedegarria** izan daiteke: ⇒ **Udalerrietarako**, aukera polita delako arazo-konponbideak elkarrekin jorratzeko, esperientziak trukatzeko eta bien intereseko gaietan ikuspuntu diferenteak deskubritzeko. ⇒ **Herritarrentzat** (udalerri bietako herritarrentzat), beste errealitate eta pentsamolde batzuk ezagutzeko beta izango dutelako. → Senidetzeak **arrakasta** izan dezan**, hartara engaiatu** beharra daukate bai erakundeek bai herritarrek ere (elkarteek). Horretarako, ez da aukera txarra **senidetze-batzorde bat** sortzea. Tresna eraginkorrak izan ohi dira.
HELBURUAK	• Herria kanpora **zabaltzea**, eta beste herrialde bateko beste hiri batzuekin **harremanetan** egotea, ez soilik Europako beste hiri batzuekin, baita beste kontinente batzuetakoekin ere. • Premia dagoenean **elkarri laguntzeko tresna bat** taxutzea, herrien artean **bakea sustatzeko** eta herriek **elkar hobeto ulertzeko** eta inguru guztia **garatzeko eta modernizatzeko**.
MOTA OHIKOENAK	• **Truke-senidetzeak:** mota guztietako ekintzak gauzatzen dira. • **Garatzen laguntzeko senidetzeak:** euskal udalerri batek beste herrialde bateko erakunde bati laguntzaren bat ematen dio (finantzetan, logistikan...).
FINANTZAKETA	• **Senidetutako erakundeen beren ardura** da. • Izaten da aukera, hala ere, **beste erakunde batzuetako zenbait dirulaguntza-programetan** atea jotzeko (Europar Batasuna, Eusko Jaurlaritza, foru-aldundiak, entitate pribatuak…), antolatzen dituzten deialdietan parte hartuz. • **Babesle publiko-pribatuak**, jardun-eremuen arabera.

PROZEDURA

- Indarrean dagoen ordenamenduan ez dago berariaz araututa, eta, beraz, **udal bakoitzak zehaztu dezake**.
- Hala ere, ohiko prozedura hau izan ohi da:

Udaleko **OSOKO BILKURAREN ERABAKIA**, senidetze-izapideak hasteari buruzkoa

↓

Senidetu nahian dabiltzan erakundeek harremanei ekiten diete **ZERTARAKO ETA ZERTAN SENIDETU ZEHAZTEA**

↓

OSOKO BILKURAK ONARTZEA

eta

AKORDIOAK FORMALIZATZEA senidetu nahi duten erakundeen artean

↓

Senidetzeak dakartzan ekintza-programak ONARTZEA

ORGANIZACIONES Y ASOCIACIONES DE ENTES TERRITORIALES, INTERNACIONALES O NACIONALES EN LAS QUE PUEDEN PARTICIPAR LOS MUNICIPIOS		
CONGRESO DE PODERES LOCALES Y REGIONALES DE EUROPA-CPLRE	**Órgano consultivo del Consejo de Europa** responsable de fortalecer la democracia local y regional en sus 47 estados miembros. Trabaja para fomentar la consulta y el diálogo político entre los gobiernos nacionales y las autoridades locales y regionales, a través de la cooperación con el Comité de Ministros del Consejo de Europa. Está c**ompuesto por una cámara de poderes locales y por una cámara de regiones**. Cuenta con 324 representantes, todos nombrados por cuatro años. De ellos, 24 miembros representan al Estado español (12 a las Comunidades Autónomas y 12 a las entidades locales). Tiene, entre sus misiones, evaluar la aplicación de la Carta Europea de Autonomía Local y observar periódicamente las elecciones regionales y locales.	www.coe.int/en/web/congress
CONSEJO DE MUNICIPIOS Y REGIONES DE EUROPA-CMRE	Fundado en 1951, es la **asociación europea de gobiernos locales y regionales más antigua y amplia** que representa a 40 países europeos. Promueve la construcción de una Europa basada en el autogobierno local, el respeto del principio de subsidiariedad y la participación de la ciudadanía, la participación de los gobiernos locales en las políticas de la Unión, el intercambio de experiencias y la representación de los entes locales ante las instituciones europeas. Su trabajo se desarrolla en cinco áreas: a) Gobernanza, democracia y ciudadanía. b) Medio ambiente, clima y energía. c) Compromiso y cooperación internacional. d) Cohesión económica, social y territorial. e) Gestión de servicios públicos locales y regionales. f) Asuntos estatutarios y generales del CMRE. Es la sección europea de la organización mundial **Ciudades y Gobiernos Locales Unidos (CGLU)**, interlocutora entre los gobiernos locales y Naciones Unidas.	www.ccre.org
COMITÉ DE LAS REGIONES (CDR)	Creado por el Tratado de la Unión Europea (Maastricht, 1993), con el objeto de posibilitar la **participación de los niveles regional y local en la elaboración de la política comunitaria**. La Comisión y el Consejo deben consultar al Comité en cuestiones de importancia directa para las autoridades locales y regionales, y también siempre que lo deseen. Por su parte, el Comité puede emitir dictámenes por propia iniciativa y presentarlos a la Comisión, al Consejo y al Parlamento. Actualmente formado por 329 miembros, que pertenecen a los 27 países de la UE. Corresponden al Estado Español 21 miembros (17 de las Comunidades Autónomas y 4 de las entidades locales). (Ver ficha 28.4.1).	http://cor.europa.eu/es/
EUROCITIES	Fundada en 1986, es la red de grandes ciudades europeas que engloba a más de 200 grandes ciudades (entre ellas, Bilbao y Donostia-San Sebastián) de 38 países europeos, que representan a más de 130 millones de ciudadanos y ciudadanas. Tiene como objetivo reforzar el papel de los gobiernos locales en una **estructura de gobernanza multinivel** e influir en la legislación comunitaria para hacer frente a los retos estratégicos a nivel local.	www.eurocities.eu
ENERGY CITIES	Creada en 1990, Energy Cities es la asociación europea de autoridades locales en transición energética que representa a varios cientos de ciudades (entre ellas, Donostia-San Sebastián) de 30 países. Fundadora e impulsora del pacto de Alcaldes, ha elaborado la Agenda 2030 de Ciudades Energéticas. Tiene como objetivos fortalecer su papel en el campo de la **energía sostenible**, influir en las políticas de las instituciones de la Unión Europea, así como promover el intercambio de experiencias, la transferencia de conocimientos técnicos y la ejecución de proyectos conjuntos.	www.energy-cities.eu
PLATAFORMA EUROPEA PARA EL DESARROLLO	Creada en 2008 e integrada por 30 socios (entre ellos, la Agencia Vasca de Cooperación al Desarrollo y Euskal Fondoa); incluye asociaciones y redes de entidades locales nacionales, europeas e internacionales y gobiernos locales y regionales. Tiene como objetivos lograr un mayor reconocimiento político de la labor de las autoridades locales y regionales en la **cooperación al desarrollo** y la promoción de la cooperación descentralizada para el desarrollo, en particular en colaboración con la sociedad civil.	www.platforma-dev.eu
ASOCIACIÓN DE MUNICIPIOS VASCOS-EUDEL	Asociación de Municipios, fundada en 1982. Es la Asociación de mayor implantación en la **Comunidad Autónoma del País Vasco.** Tiene por objetivos la **defensa de la autonomía municipal, la representación de los intereses generales de los municipios ante otras instituciones** y el **desarrollo del espíritu europeo** en los municipios. Participa en el CMRE y el CPLRE.	www.eudel.eus
FEDERACIÓN ESPAÑOLA DE MUNICIPIOS Y PROVINCIAS	Asociación de Entidades Locales de mayor implantación de **ámbito estatal fundada en 1981,** que agrupa a municipios, diputaciones, consejos y cabildos insulares. Es la Sección Española del CMRE y sede oficial de la Organización Iberoamericana de Cooperación Intermunicipal (OICI).	www.femp.es

NAZIOARTEKO ETA ESTATU MAILAKO LURRALDE-ERAKUNDEEN ELKARTEAK, NON UDALERRIEK PARTE HAR DEZAKETEN		
EUROPAKO TOKIKO ETA ESKUALDEKO BOTEREEN BATZARRA-ETEBB	**Europako Kontseiluaren aholku-organoa** da, eta 47 estatu kideetan toki- eta eskualde-demokrazia indartzearen ardura du. Gobernu nazionalen eta toki- eta eskualde-agintarien artean kontsulta eta elkarrizketa politikoa sustatzen dihardu, Europako Kontseiluko Ministro Batzordearekin elkarlanean. **Tokiko botereen ganbera batek eta eskualdeetako ganbera batek** osatua dago. 324 ordezkari ditu, lau urtetarako izendatuak guztiak Horietatik, 24 kidek Espainiako Estatua ordezkatzen dute (12k autonomia-erkidegoak ordezkatzen dituzte, eta 12k tokiko entitateak). Misioen artean, Toki Autonomiari buruzko Europako Kartaren aplikazioa ebaluatzea eta toki- eta eskualde-hauteskundeak aldizka behatzea ditu.	www.coe.int/en/web/congress
EUROPAKO UDALERRIEN ETA ESKUALDEEN KONTSEILUA-EUEK	1951n eratu zen, **toki- eta eskualde-gobernuen Europako elkarterik zaharrena eta zabalena da**, Europako 40 herrialde ordezkatzen baititu. Europaren eraikuntza sustatzen du, honako hauek oinarri hartuta: toki-autonomia, subsidiariotasun-printzipioa errespetatzea, herritarrek parte hartzea, toki-gobernuek Batasunaren politiketan parte hartzea, esperientziak trukatzea eta Europako erakundeen aurrean toki-erakundeak ordezkatzea. Bost arlotan lan egiten du: a) Gobernantza, demokrazia eta herritarrak. b) Ingurumena, klima eta energia. c) Nazioarteko lankidetza eta konpromisoa. d) Ekonomia-, gizarte- eta lurralde-kohesioa. e) Toki- eta eskualde-zerbitzu publikoen kudeaketa. f) EUEKren estatutuetako gaiak eta gai orokorrak. **Hiri eta Tokiko Gobernu Bateratuak (CGLU)** mundu-erakundeko Europako Sekzioa da, toki-gobernuen eta Nazio Batzuen arteko solaskidea.	www.ccre.org
ESKUALDEETAKO LANTALDEA (EL)	Europar Batasunaren Itunak sortu zuen (Maastricht, 1993), **eskualde- eta toki-mailak politika komunitarioaren lantzean parte har dezaten** ahalbidetzeko. Batzordeak eta Kontseiluak Lantaldeari kontsultatu behar diote toki- eta eskualde-agintarientzat garrantzi handia duten gaietan, baita haiek nahi duten edozein unetan ere. Bestalde, Lantaldeak irizpenak eman ditzake bere kabuz, eta Batzordeari, Kontseiluari edo Parlamentuari aurkeztu. Gaur egun 329 kide ditu, EBko 27 herrialdeetakoak. Espainiako Estatuari 21 kide dagozkio (17 autonomia-erkidegoetakoak eta 4 tokiko entitateetakoak). (ikus 28.4.1 fitxa).	http://cor.europa.eu/es/
EUROCITIES	1986an eratu zen; Europako hiri handien sarea da, eta Europako 38 herrialdetako 200 hiri handi baino gehiago biltzen ditu (besteak beste, Bilbo eta Donostia), 130 milioi herritar baino gehiago ordezkatzen dituztenak. Bere helburua da toki-gobernuen zeregina indartzea **maila anitzeko gobernantza-egitura batean**, eta legedia komunitarioan eragina izatea toki-mailan erronka estrategikoei aurre egiteko.	www.eurocities.eu
ENERGY CITIES	1990ean sortu zen; trantsizio energetikoan dauden Toki-agintaritzen Europako Elkartea da, eta 30 herrialdetako ehunka hiri ordezkatzen ditu (horien artean, Donostia). Alkateen ituna sortu eta bultzatu du, eta Hiri Energetikoen 2030 Agenda egin du. Helburu ditu **energia jasangarriaren** eremuan duen zeregina indartzea, Europar Batasuneko erakundeetako politiketan eragitea, eta esperientzia-trukea, ezagutza teknikoen transferentzia eta baterako proiektuen exekuzioa sustatzea.	www.energy-cities.eu
GARAPENERAKO EUROPAKO PLATAFORMA	2008an sortu zen, eta 30 kide ditu (horien artean, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia eta Euskal Fondoa); eta Estatuko, Europako eta nazioarteko tokiko entitateen elkarteak eta sareak eta tokiko eta eskualdeko gobernuak biltzen ditu. Helburu du eskualde-agintariek **garapen-lankidetzaren arloan** egindako lanari aitortza politiko handiagoa ematea, eta garapenerako lankidetza deszentralizatua sustatzea, batez ere gizarte zibilarekin elkarlanean.	www.platforma-dev.eu
EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA-EUDEL	Udalen elkartea da, 1982an eratua. **Euskal Autonomia Erkidegoan** ezarpen handiena duen elkartea da. Xedetzat ditu, besteak beste, **udalen autonomia defendatzea**, **udalen interes orokorrak beste erakunde batzuen aurrean ordezkatzea**, eta udalerrietan **europar espiritua garatzea**. EUEK kontseiluan eta ETEBB batzarrean parte hartzen du.	www.eudel.eus
ESPAINIAKO PROBINTZIEN ETA UDALERRIEN FEDERAZIOA	**Estatu mailan ezarpen** handiena duen Tokiko Entitateen Elkartea, **1981ean sortua**, udalerriak, aldundiak, eta uharteko kontseiluak eta kabildoak biltzen dituena. EUEKren Espainiako Atala da, eta Udalerrien arteko Lankidetzarako Iberoamerikako Erakundearen (ULIE) egoitza ofiziala.	www.femp.es

QUÉ ES	El Comité de las Regiones fue **creado** por el Tratado de **Maastricht en 1992** para asociar a las regiones, ciudades y municipios en la elaboración de las políticas comunitarias. Celebró su primera sesión plenaria en 1994. Es el **ÓRGANO OFICIAL REPRESENTATIVO DE LOS ENTES LOCALES Y REGIONALES** en el proceso decisorio comunitario (http://cor.europa.eu) y tiene un papel consultivo.
EVOLUCIÓN	Los **sucesivos tratados han ido reforzando su papel** debido a que las regiones y municipios son los responsables de aplicar las tres cuartas partes de la legislación comunitaria, así como por la necesidad de implicar a la ciudadanía en el proyecto europeo a través de sus representantes más próximos.
COMPOSICIÓN	Se compone de **329 MIEMBROS** y otros tantos suplentes, nombrados por cinco años por el Consejo de la Unión Europea, a propuesta de los Estados miembros. Cada país lleva a cabo la elección en función de su propio procedimiento.
ÓRGANOS	**ASAMBLEA, PRESIDENTE, MESA, CONFERENCIA DE PRESIDENTES y COMISIONES.**
NÚMERO DE ESCAÑOS POR ESTADO	• Estados con 24 representantes: Alemania, Francia e Italia. • Estados con 21 representantes: España y Polonia. • Estados con 15 representantes: Rumania. • Estados con 12 representantes: Austria, Bélgica, Chequia, Grecia, Hungría, Países Bajos, Portugal, Suecia y Bulgaria. • Estados con 9 representantes: Dinamarca, Finlandia, Irlanda, Lituania, Eslovaquia y Croacia. • Estados con 7 representantes: Estonia, Letonia y Eslovenia. • Estados con 6 representantes: Chipre y Luxemburgo. • Estados con 5 representantes: Malta.
ÁMBITOS DE ACTUACIÓN	1. La **Comisión, el Consejo, y el Parlamento Europeo** están **obligados a recabar la opinión** del Comité de las Regiones en los siguientes **ámbitos** de actuación: • Salud Pública • Cohesión económica, social y territorial • Redes de Infraestructuras Transeuropeas • Educación • Cultura • Política de empleo • Política social • Medio ambiente • Formación profesional • Cambio climático • Transporte • Protección civil • Juventud y deporte • Energía • Servicios de interés general
	2. Además, **podrán consultar** de forma facultativa al Comité de las Regiones, en temas como la cooperación transfronteriza.
	3. El Comité **puede interponer recurso ante el Tribunal de Justicia de la UE** con el fin de salvaguardar sus prerrogativas o si considera que un acto legislativo de la UE infringe el principio de subsidiariedad o no respeta las competencias de los entes locales y regionales.
	4. Asimismo, el Comité puede emitir su opinión por **propia iniciativa**.
PRIORIDADES POLÍTICAS	Los trabajos del Comité de las Regiones se llevan a cabo en función de las **prioridades de la Presidencia en ejercicio en el Consejo**, así como en función de los **objetivos estratégicos de la Comisión Europea.**
PARTICIPACIÓN DIRECTA DE LOS ENTES TERRITORIALES EN EL COMITÉ DE LAS REGIONES	De los 21 **representantes con los que cuenta el Estado Español** en el Comité de las Regiones, 17 corresponden a cada uno de los Gobiernos Autonómicos, eligiéndose los 4 restantes mediante votación entre los Entes Municipales que conforman la Federación Española de Municipios y Provincias (FEMP). El resultado de esa votación siempre respetará el peso específico obtenido por los partidos políticos, en número de votos, en las últimas elecciones municipales. Durante el mandato actual del Comité (2020-2025), Euskadi está representado únicamente por el **Gobierno Vasco.**
OTRAS VÍAS DE PARTICIPACIÓN	Con el fin de ampliar y enriquecer su trabajo como órgano consultivo de la UE y lograr una mayor participación, el Comité dispone de los siguientes instrumentos: • Organiza **consultas específicas** con las asociaciones de autoridades regionales y locales y las oficinas de Bruselas para escuchar su punto de vista sobre un tema sobre el cual el Comité va a posicionarse. • Colabora con la Comisión Europea en la organización de los **«Diálogos»** con las asociaciones para que expresen su postura antes de que se inicien los procesos decisorios formales sobre las políticas europeas que deben aplicar. • **Coopera sistemáticamente con las asociaciones** para promover iniciativas que incumben a los ámbitos de trabajo de estas asociaciones. • Crea **grupos interregionales** temáticos que se reúnen periódicamente, así como **redes o plataformas** con el fin de contribuir al debate europeo mediante el intercambio de experiencias y buenas prácticas en políticas comunitarias específicas (por ejemplo, el Pacto de los Alcaldes). • Coopera con regiones y entes locales en el **ámbito internacional** principalmente a través de la ARLEM (Asamblea Euromeditarránea) y CORLEAP (Conferencia para la Asociación Oriental).

ZER DA?	Eskualdeetako Lantaldea **Maastrichteko** Itunaren bidez **sortu zen, 1992an**, eskualdeak, hiriak eta udalerriak Europar Batasuneko politiken prestaketan elkartzeko. Bere lehen osoko bilkura 1994an egin zuen. **TOKI ETA ESKUALDE ERAKUNDEEN ORDEZKARITZA ORGANO OFIZIALA DA** erabaki-prozesu komunitarioan (http://cor.europa.eu) eta kontsulta-zereginak betetzen ditu.
BILAKAERA	**Ondorengo itunek indartu egin dute Eskualdeetako Lantaldearen papera**; izan ere, eskualdeak eta udalerriak dira Batasunaren legeriaren hiru laurdenak aplikatzeaz arduratzen direnak, eta, halaber, beharrezkoa da herritarrak Batasunaren proiektuan inplikatzea, hurbilen dituzten ordezkarien bitartez.
OSAERA	**329 KIDEK** eta beste horrenbeste ordezkok osatzen dute; guztiak bost urterako izendatzen ditu Europar Batasuneko Kontseiluak, estatu kideek proposatuta. Estatu bakoitzak beraren prozeduraren bidez aukeratzen ditu kideok.
ORGANOAK	**BATZARRA, MAHAIBURUA, MAHAIA, PRESIDENTEEN KONFERENTZIA eta BATZORDEAK.**
ESERLEKU KOPURUA ESTATUKO	• 24 ordezkari dituzten estatuak: Alemania, Frantzia eta Italia. • 21 ordezkari dituzten estatuak: Espainia eta Polonia. • 15 ordezkari dituzten estatuak: Errumania. • 12 ordezkari dituzten estatuak: Austria, Belgika, Txekia, Grezia, Hungaria, Herbehereak, Portugal, Suedia eta Bulgaria. • 9 ordezkari dituzten estatuak: Danimarka, Finlandia, Irlanda, Lituania, Eslovakia eta Kroazia. • 7 ordezkari dituzten estatuak: Estonia, Letonia eta Eslovenia. • 6 ordezkari dituzten estatuak: Zipre eta Luxenburgo. • 5 ordezkari dituzten estatuak: Malta.
JARDUTE EREMUAK	1. **Batzordea, Kontseilua eta Europako Parlamentua behartuta** daude Eskualdeetako Lantaldearen **iritzia eskatzera**, honako jardute-**eremu** hauetan: • Osasun Publikoa • Ekonomia-, gizarte- eta lurralde-kohesioa • Europa barneko azpiegitura-sareak • Hezkuntza • Kultura • Enplegu-politika • Gizarte-politika • Ingurumena • Lanbide-heziketa • Klima-aldaketa • Garraioa • Babes zibila • Gazteria eta kirola • Energia • Interes orokorreko zerbitzuak
	2. Gainera, nahi izanez gero, Eskualdeetako Lantaldearen **irizpena eskatu ahal izango dute** mugaz gaindiko lankidetza bezalako gaietan.
	3. Lantaldeak **errekurtsoa jar dezake EBko Justizia Auzitegiaren aurrean**, bere eskumenak babesteko, edota uste badu EBren legegintza-ekintza batek subsidiariotasun-printzipioa urratzen duela edo toki- eta eskualde-erakundeen eskumenak ez dituela errespetatzen.
	4. Era berean, Eskualdeetako Lantaldeak **bere kabuz** ere iritzia eman dezake.
LEHENTASUN POLITIKOAK	Eskualdeetako Lantaldearen lanak, betiere, **Kontseiluko jarduneko Lehendakaritzaren lehentasunen** arabera egiten dira, bai eta **Europako Batzordearen helburu estrategikoen** arabera ere.
LURRALDE ERAKUNDEEN ZUZENEKO PARTE-HARTZEA ESKUALDEETAKO LANTALDEAN	**Espainiako Estatuak** Eskualdeetako Lantaldean **dauzkan** 21 **ordezkarietatik**, 17 gobernu autonomikoetako bakoitzari dagozkio; gainerako 4ak, berriz, bozketaz aukeratzen dira, Espainiako Probintzien eta Udalerrien Federazioak (FEMP) osatzen duten udal-erakundeen artean. Bozketa horren emaitzak, betiere, alderdi politikoek azkeneko udal-hauteskundeetan lortzen duten pisua espezifikoa, boto-kopuruan, errespetatuko du. Lantaldearen uneko agintaldian zehar (2020-2025), **Eusko Jaurlaritzak** baino ez du ordezkatzen Euskadi.
BESTE PARTE-HARTZE BIDE BATZUK	EBko kontsulta-organo gisa duen lana zabaltzeko eta aberasteko eta parte-hartze handiagoa lortzeko, Lantaldeak honako tresna hauek ditu: • **Kontsulta espezifikoak** antolatzen ditu eskualde- eta toki-agintarien elkarteekin eta Bruselako bulegoekin, Eskualdeetako Lantaldeak gai bati buruz bere jarrera azaldu aurretik gai horri buruz duten ikuspuntua entzuteko. • Europako Batzordearekin lankidetzan dihardu elkarteekin dauden **«Elkarrizketak»** antolatzen, aplikatu behar dituzten europar politikei buruzko erabaki-prozesu formalak hasi aurretik beren jarrera azal dezaten. • **Elkarteekin sistematikoki dihardu lankidetzan** elkarte horien lan-eremuei lotuta dauden ekimenak sustatzeko. • Aldizka biltzen diren **eskualde arteko talde** tematikoak sortzen ditu, baita **sareak edo plataformak** ere, europar eztabaidan laguntzeko, politika komunitario espezifikoetan esperientziak eta jardunbide egokiak trukatuz (adibidez, Alkateen Ituna). • Eskualdeekin eta toki-erakundeekin lankidetzan dihardu **nazioarteko eremuan**, batez ere ARLEM (Euromediterraneoko Biltzarra) eta CORLEAP (Ekialde Elkarterako Konferentzia) erakundeen bitartez.

XXIX.

PROTOKOLOA

PROTOCOLO

XXIX.

Protocolo

1. Simbología local y reglamentos municipales.
2. Toma posesión de alcalde o alcaldesa. Corporación bajo mazas. Ordenamiento protocolar.

Guía Local - ISBN 978-84-7777-690-1

XXIX.

Protokoloa

1. Tokiko sinbologia eta udal-erregelamenduak.
2. Alkatea lanpostuaz jabetzea. Udalbatza mazolariek lagunduta. Protokoloaren antolamendua.

SIMBOLOGÍA LOCAL	
SIMBOLOGÍA DE LA ENTIDAD LOCAL	La **bandera** y su **escudo heráldico**, que suele formar parte del contenido de la bandera, y también de forma independiente cuando se usa en reposteros, que cuelgan en paredes y balcones de las Casas Consistoriales.
SIMBOLOGÍA QUE UTILIZAN LOS MIEMBROS DE LA CORPORACIÓN	Los elementos que portan como **signos de autoridad** y que aparecen previstos en los reglamentos locales. **Medalla** corporativa, **insignia** de solapa, etc. para todos/as y el **bastón** con empuñadura de metal (*makila*, en Euskadi) para el/la Alcalde/Alcaldesa y en algunos casos para los/as tenientes de alcalde/alcaldesa.
OTRAS SIMBOLOGÍAS	La simbología de algunos funcionarios/as que desempeñan funciones auxiliares de protocolo: • Los/as policías locales con **uniforme de gala**, cuando desfila la Corporación, o se colocan a la entrada de las puertas en ocasiones especiales. • Los/as maceros/as, que llevan sobre el hombro una insignia llamada **maza**, ataviados con «dalmática» que van delante de la Corporación, cuando hay comitiva, o colocados/as de pie detrás de la presidencia de un acto. • Los/as **clarineros/as** (o ***txistularis***, en su caso) precediendo en la comitiva a los maceros/as (en alguna ocasión, la banda municipal).

REGLAMENTOS MUNICIPALES	
REGLAMENTO DE ESCUDO Y BANDERA	• Lo aprueba el **Pleno** Municipal. • Regula el **escudo** y la **bandera** de la ciudad, su diseño, su uso oficial o privado. • Referencia: Real Decreto 2568/1986, de 28 de noviembre, por el que se aprueba el Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales.
REGLAMENTO DE PROTOCOLO	• Lo aprueba el **Pleno** Municipal. • Regulará el **estatuto de los miembros de la Corporación** Municipal, mencionando sus elementos (atributos) representativos y el uso de los mismos, así como la indumentaria en los actos oficiales. • Dedicará otro capítulo a la presidencia en los **actos municipales**, su orden de prelación y otro regulando las tomas de posesión, celebración de fiestas, honras fúnebres, visitas de personalidades, etc. • Art. 41.1 del Real Decreto 2568/1986, de 28 de noviembre, por el que se aprueba el Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales.

REGLAMENTO DE HONORES Y DISTINCIONES
• Lo aprueba el **Pleno** Municipal. • Se hará mención a los artículos 189 a 191 del Real Decreto 2568/1986, de 28 de noviembre, por el que se aprueba el Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales. • Citará todos los **honores** que puede conceder la Corporación y la **regulación de cada uno de ello**s: Hijo/a Predilecto/a, Hijo/a Adoptivo/a, miembros honorarios de la Corporación y condecoraciones (medallas, etc.), **procedimiento** para la concesión de las distinciones y un **libro de registro** donde se anotarán las mismas.

Bibliografía: Este texto, en parte, ha sido extraído de las publicaciones: **«Protocolo Oficial»** (Autor: Don Carlos Fuente Lafuente) y **«Honores y Protocolo»** (Autor: Don Francisco López Nieto y Mallo)

TOKIKO SINBOLOGIA	
TOKI ERAKUNDEAREN SINBOLOGIA	**Bandera** eta **armarri heraldikoa**. Azken hau, banderaren edukian egoten da, baina bera bakarrik ere erabiltzen da oihaletan, udaletxeko horma eta balkoietatik zintzilik.
TOKI-KORPORAZIOKO KIDEEN SINBOLOGIA	Aginte-ezaugarri gisa eramaten dituzten elementuak, tokiko erregelamenduetan aurreikusita daudenak. Udalbatzaren domina, papar-hegaleko entseinak, etab. guztientzat, eta metalezko heldulekua duen **makila** alkatearentzat, eta batzuetan alkateordeentzat ere bai.
BESTELAKO SINBOLOGIAK	Protokoloko laguntza-eginkizunak betetzen dituzten funtzionarioen sinbologia: • Udaltzainak **gala-uniformearekin**, Udalbatzak desfilatzen duenean, edo ekintza berezietan sarreretan jartzen direnean. • Mazolariak, **mazoa** lepo gainean eta «dalmatikaz» jantzita. Aurretik doaz Udalbatza segizioan doanean, edo zutik egoten dira ekitaldi bateko lehendakariaren atzean. • **Turuta jotzaileak** (edo ***txistulariak***, hala badagokio), mazolarien aurretik segizioan (udal-banda, batzuetan).

UDAL-ERREGELAMENDUAK	
ARMARRIARI ETA BANDERARI BURUZKO ERREGELAMENDUA	• Udaleko **osoko bilkurak** onartzen du. • Herriko **armarria** eta **bandera** arautzen ditu: diseinua, erabilera ofiziala edo pribatua. • Erreferentzia: 2568/1986 Errege Dekretua, azaroaren 28koa, Toki-erakundeen antolaketa, funtzionamendu eta araubide juridikoari buruzko Erregelamendua onesten duena.
PROTOKOLOARI BURUZKO ERREGELAMENDUA	• Udaleko **osoko bilkurak** onartzen du. • **Udalbatzaren kideen estatutua** arautuko du, ordezkaritza-elementuak (atributuak) eta haien erabilera zehaztuko ditu, baita ekitaldi ofizialetako janzkera ere. • **Udal-ekitaldietako** buru nor izango den eta lehentasun-ordena jasoko ditu kapitulu batek, eta lanpostuaz jabetzeko ekitaldiak, jai-ospakizunak, hiletak, pertsona ospetsuen bisitak, etab. arautuko ditu beste kapitulu batek. • Toki-erakundeen antolaketa, funtzionamendu eta araubide juridikoari buruzko Erregelamendua onesten duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 41.1 artikulua.

OHOREEI ETA GORAIPAMENEI BURUZKO ERREGELAMENDUA
• Udaleko **osoko bilkurak** onartzen du. • Toki-erakundeen antolaketa, funtzionamendu eta araubide juridikoari buruzko Erregelamendua onesten duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 189. artikulutik 191. artikulura artekoak aipatuko dira. • Udalbatzak eman ditzakeen **ohore** guztiak aipatuko ditu eta **horietako bakoitzaren erregulazioa:** Herritar kutun, ohorezko herritar, Udalbatzaren ohorezko kide eta kondekorazioak (dominak, etab.), goraipamenak emateko **prozedura** eta **erregistro-liburua** horiek guztiak jasotzeko.

Bibliografia: Testu honen zati batzuk argitalpen hauetatik hartu dira: **«Protocolo Oficial»** (Egilea: Don Carlos Fuente Lafuente) eta **«Honores y Protocolo»** (Egilea: Don Francisco López Nieto y Mallo)

TOMA DE POSESIÓN DE ALCALDE O ALCALDESA	
¿DÓNDE?	En el **Salón de Plenos**. En una mesa auxiliar, u otro soporte, se han de colocar, un ejemplar de la Constitución, la Medalla Corporativa, la insignia, el bastón de mando (*makila*), etc.
PERSONAS INVITADAS	Al acto se suele invitar a familiares, autoridades, representantes de entidades sociales, culturales, empresariales, etc.
DESARROLLO DEL ACTO	Tras las elecciones, la Junta electoral será quien proclame a los/as concejales/as y éstos/éstas serán convocados/as a una **sesión pública**, en la que se constituirá la Mesa de Edad, integrada por los concejales/as de mayor y menor edad, presentes en el acto, actuando como Secretario/a el/la que lo sea de la Corporación. **Desarrollo del acto**: • Lectura de la certificación remitida por la Junta Electoral y comprobación de las credenciales. • Votación secreta de los/as miembros de la Corporación para la elección de alcalde/alcaldesa, escrutinio y proclamación. • Investidura con la medalla corporativa a todos/as los/as miembros, previo juramento o promesa. • Investidura al Alcalde/Alcaldesa, con entrega de medalla, bastón de mando (*makila*) y demás elementos (atributos) si los hubiere, y juramento o promesa. • Los/as miembros de la Mesa de Edad y el/la secretario/a se retiran a sus escaños. • Discursos de los/as alcaldes/alcaldesas saliente y entrante.

CORPORACIÓN BAJO MAZAS

Cuando la Corporación desfila **en comitiva**, se dice que lo hacen «bajo mazas».

El **orden de desfile** para esta ceremonia, es el siguiente:

- Abren la comitiva dos (o cuatro) policías a pie, con uniforme de gala.
- Dos txistularis (opcional, si procede).
- Dos maceros/as.
- Miembros de la Corporación municipal, formados en dos hileras, de menos a más, según resultados electorales.
- Presidente/a de la Corporación en el centro, y a ambos lados de éste, los/as Tenientes de alcalde. Detrás, el/la Jefe/a de Protocolo.
- Piquete de policías de gala.

ORDENAMIENTO PROTOCOLAR

En algunos ayuntamientos, podría darse un ordenamiento diferente al que a continuación se menciona, pero basado en la práctica generalizada, podría ser el siguiente (ayuntamientos en el régimen común):

- Alcalde/Alcaldesa.
- Tenientes de Alcalde, por su orden.
- Portavoces de los grupos municipales de mayor a menor, según resultados electorales.
- Concejales/as de los grupos municipales de mayor a menor, según resultados electorales.
- Secretario/a General.
- Interventor/a.
- Tesorero/a.
- Oficial Mayor.
- Jefe/a de la Policía Local.

Con la Ley de modernización local habrá que tener en cuenta ahora los nuevos «concejales» no electos miembros de la Junta Local, presidentes/as de distritos, coordinadores/as generales, directores/as generales, etc.

Bibliografía: Este texto, en parte, ha sido extraído de las publicaciones: **«Protocolo Oficial»** (Autor: Don Carlos Fuente Lafuente) y **«Honores y Protocolo»** (Autor: Don Francisco López Nieto y Mallo)

ALKATEA LANPOSTUAZ JABETZEA	
NON	**Osoko bilkuren aretoan**. Mahai lagungarri edo beste euskarri baten gainean jarriko dira Konstituzioaren ale bat, Udalbatzaren domina, entseina, aginte-makila, etab.
GONBIDATUAK	Honelako ekitaldira senideak gonbidatzen dira, agintariak, gizarte-, kultura- eta enpresa-erakundeetako ordezkariak, etab.
EKITALDIAREN NONDIK NORAKOAK	Hauteskundeen ondoren, Hauteskunde Batzordeak aldarrikatuko ditu zinegotziak. **Bilkura publiko** baterako deia egingo zaie, adin-mahaia osatuko da bilkuran dauden adinez zinegotzi nagusienarekin eta gazteenarekin, eta idazkari lanetan Udalbatzako idazkariak jardungo du. **Ekitaldiaren egitaraua:** • Hauteskunde Batzordeak igorritako ziurtagiria irakurri eta kredentzialak egiaztatu. • Udalbatzako kideek ezkutuko bozketan hautatu alkatea; boto-kontaketa eta aldarrikapena. • Zin egin edo hitza eman eta gero, kide guztien inbestidura Udalbatzaren dominarekin. • Alkatearen inbestidura, domina, makila eta gainerako elementuekin (atributuekin), halakorik izanez gero; eta zin egitea edo hitza ematea. • Adin-mahaiko kideak eta idazkaria euren jarlekuetara joan. • Aurreko alkatearen eta alkate berriaren hitzaldiak.

UDALBATZA MAZOLARIEK LAGUNDUTA

Udalbatzak **segizioan** desfilatzen duenean, mazolariek lagunduta joaten da.

Ekitaldi honetarako **desfile-hurrenkera** honako hau da:

- Segizioaren hasieran udaltzain bi (edo lau) oinez, gala-uniformearekin.
- Txistulari bi (hala badagokio, aukerakoa baita).
- Mazolari bi.
- Udalbatzako kideak, ilara bi osatuz, zinegotzi gutxien duen taldetik hasita.
- Udalbatzako presidentea erdian, eta alkateordeak haren ezker-eskuin. Atzean, protokolo-arduraduna.
- Galaz jantzitako udaltzainen piketea.

PROTOKOLOAREN ANTOLAMENDUA

Jarraian zehaztutako antolamendua ez den beste bat egotea gerta liteke, baina, orokorrean, honelakoa litzateke ohiko antolamendua (araubide orokorreko udalak):

- Alkatea.
- Alkateordeak, hurrenkeraren arabera.
- Udaleko taldeetako eledunak, ordezkaritza handienetik txikienera, hauteskundeetako emaitzen arabera.
- Udaleko taldeetako zinegotziak, ordezkaritza handienetik txikienera, hauteskundeetako emaitzen arabera.
- Idazkari nagusia.
- Kontu-hartzailea.
- Diruzaina.
- Ofizial nagusia.
- Udaltzaingoaren burua.

Toki gobernuak modernizatzeko Legea dela-eta, kontuan hartu beharko dira orain tokiko gobernu-batzarraren kide diren «zinegotzi» ez hautetsi berriak, barrutietako lehendakariak, koordinatzaile nagusiak, zuzendari nagusiak, etab.

Bibliografia: Testu honen zati batzuk argitalpen hauetatik hartu dira: **«Protocolo Oficial»** (Egilea: Don Carlos Fuente Lafuente) eta **«Honores y Protocolo»** (Egilea: Don Francisco López Nieto y Mallo)